


LINO AKESOLO

IDAZLAN GUZTIAK

Edizioaren prestatzaile:
JULEN URKIZA

Larrea - Zornotza
1989



KARMEL SORTA-1*



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Argitalpen au Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin egin da.

AURKEZPENA


Bizkaiko Foru Aldundiak omenaldi eskaini eutsen 1989.eko apirilaren 7an Aldundiko Jauregian Lino Akesolo euskalari ospetsuari. Orain, beste behin agertu nahi deutsu bere onespena, berak argitalpen ezberdinetan kaleratutako literatur emoitza osoa (300 artikulua baino gehiago) bi liburu honeen bidez ezagutzera emonez.

Oso nabari ageri da argitarapen honen balioa, euskara eta euskal kulturari buruzko linguistika gaietan zalantzarik gabeko jakintza erakutsi izan dauan Lino Akesolo euskalari ezagunaren literatur nortasuna kontutan hartzen badogu. Hori dala eta pozten gaitu berari eta bere lanari emoten jakon zabaldundek eta ezagutzak.

Bizkaiak aintzinatik orain arte izan dituen euskal idazle eta argitaratzaile ugariak eginiko bidetik jarraituz, aurrerantzean bertako beste seme ospetsu batek, Aita Lino Akesolok, gorenetariko maila izango dau euskalarien artean.

Horrela, Aldundi honek, Kulturaren aldeko ekimenari jarraitzen deutsola, Aita Lino Akesoloren lan bilduma osoa argitaratuz, euskararen bizi-iturrietako ur gardenetan egarriak asetzeko aukera eskaintzen deutse euskal hizkuntza eta kulturaren ikertzaile guztiei.

JOSE ALBERTO PRADERA JAUREGI
Bizkaiko Ahalduñ Nagusia



Bizkaiko Aldundiak aginduta, Victor Sarriguarte'k 1989n egindako laukia.

EUSKERA - LITERATURA - KRITIKA

Euskera eta gramatikaren inguruan

Euskeraren edertasunak	5
Euskeltzaleen batzar gogoangarria	10
Euskalegutegirik zarrena	17
Albistarien sorrerea (Euskalzale, 1897-1899)	19
Ibaizabal (Asteroko orri albistaria: 1902-1903)	23
Euzko-Deya (1916-1923)	26
Karmel Aldizkariaren istoria. Karmen'go Argia	30
Un diccionario vasco inserto en «Mémoires de la langue celtique», de Bullet, 1755-1760	37
«Euskal Herriaren adizkideak» eta euskal iztegia	43
Suplemento al diccionario de R.M. ^a de Azkue	47
Denok apez. Aldapeko'ri <i>-taz</i> atzizkia dela-ta	51
Aldapeko jaunari nere azken-itza	55
Noiz erabili <i>-taz</i> atzizkia?	58
Aclarando: la H aspirada en Oihenart	62
Galdegaiarekiko aztergai bat edo beste	66
Aditz-izena Lopez idazlearen liburuan	73
Euskerea antxiñako Yesuiten eskoletan	77
Un cambio de apellido por traducción, Inchausti-Nocedal	80
Arabako euskal abestiak díreala-ta	82
Bi buru eta bi aburu (Zakur, otso éta azeri)	86
Bizkaiko forua, Gernikako Batzarrak eta euskerea	89
Etapas de un largo camino hacia un bilingüismo oficial	95
Gure bertsolariak erdal idazle baten luman	104
Pernando Amezketarra ta Garibai	106
Bertsolaritza Pernando Amezketarraren garaian	108
Mattin bertsolaria negarrez	123
Bertsolarien lenengo barriak (Zamakola arratiarrak)	125
Zahar hitz, zuhur hitz: zuhur hitz bilduma berria, Iparraldeko bertsu- larien lagunek eskaiña	128
Itzaldi luzeegiekin kontu	138
Joxeparen larriak	140
Euskera batuaren gorabeerak. Esan dezaket zerbait argiagorik?	142
Euskera batuaren billa	145
Aita Mokoroaren liburu berria. Gaurko ta biarko euskera	166
Oso tu bageak. Arenaza jaunari	168
Zuk zer dezu, Arantzazu?	172
Larresoro and Company. Ez gauzak nastu!	174
Noren astakeriak, «Amatiño»?	177
Kontu adar-jotzailleekin eta borbonkeriekin	179

Txotxolokeriak salatu eta txotxolokeriak egin	182
Batasunaren bidea eta kardaberaztarrak	185
Luis Mitxelena jaunari Errenderiara	188
Koldo Mitxelena eta euskal liturgia	192
Bizkaian, Bizkaiko	194

Euskal idazleak

XVI. mendea

Primera versión castellana del primer libro impreso que se conoce en euskera	199
Euskerazko leenengo liburua. Iru izkuntzatan	202
Etxepare laureun urte geroago	204
Joannes Leizarragaren garaia	208
Beltran de Etxauz-en I 584ko gutuna	217

XVII. mendea

Idazle baten zoritxarrak (Juan Tartas)	226
Harizmendi, Vinson eta abar	233
Bernard Gasteluzar (1619-1701)	236
Sarrera gisa	245
Noelak, ez Noela	252

XVIII. mendea

Pedro Ignacio de Barrutia	255
Pedro Ignacio Barrutia'ren Acto para la Noche Buena Latxaga jaunak argitaratua aurkezten	260
Kardaberaz eta Bizkaia	268
El Padre Cardaveraz en Alava	278
Jesusen Biotza, Kardaberaz eta Euskalerrria	282
Kardaberaz Aitaren aztarnak Markifian	284
Euskal idazle zaarren bilduma (Kardaberaz Aitarena)	286
Bakoitxari berea (Aita Kardaberaz dala-ta)	288
Testimonio de Aizquibel sobre el autor de «Gavon-sariac». ^Otra obra teatral más del conde de Peñaflovida?	293
La Quadra Villalón Montaña. Euskal idazle	295
De bibliografía mogueliana	298
Mogel euskal idazleak nongoak dira?	300
Astarloa, poeta	303

XIX. mendea

Una obra vasca ignorada «Erle gobernatzalleen Guidariya»	308
Un tratadista de apicultura: Fr. Joaquín de Santa Teresa	315
Fue un alavés el autor de Erle gobematzalleen guidariya	317
Fr. Bartolomé de Santa Teresa y su Plauto Bascongado	328
Miscelánea de noticias sobre el P. Bartolomé de Santa Teresa	339
Nuevos datos sobre Fr. Bartolomé de Santa Teresa (1768-1835)	346

Aita Bartolome Santa Teresa: Euskal errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba (Azkenengo edizioa) r.	350
Euskal-Esnale ta euskal idazle: Yose Paulo Ulibarri, Okendo'ko semea _____	355
José Pablo de Ulíbarri Galíndez (1775-1847)	369
Algo más sobre el escritor Ulíbarri	378
Escritor vasco y gran campeón en la lucha por su lengua vernácula. El alavés José Pablo de Ulíbarri y Galíndez (1775-1847)	383
Ulibarri (Eta beronen Gutunliburua)	393
José Pablo de Ulíbarri Galíndez (1775-1847). Actualidad de su obra	395
Aita Zabala, bilbotarra	400
Aita Joan Mateo Zabala, euskal idazle (1777-1840)	404
Juan Jose Moguel-en euskal lanak	413
«Bilintx» Indalezio Bizkarrondo (1831-1876)	424
^La versión musical del Gemikako Arbola es la primitiva?	428
Iparragirre eta Gernikako Arbola. (Illun batzuk argitzen)	434
Gregorio Arrue idazlearen Santa Jenobebaz zerbait	443
Dos escritores vascos bilbainos: Luiz Iza y Juan de Izurrategui	450
Arrese Beitiaren gomutaz	453
Arana Goiri, euskalari	457
Euskal idazleen sorta berria	467
Más escritores euskéricos del Duranguesado	476

XX. mendea

Aita Babaki (1873-1914)	478
Escritor vasco muerto en la batalla de Verdun: Clemente de Andurain	481
Lizardi eta Lauaxeta aztertzeko	484
«Lizardi» eta «Lauaxeta» ez dira sasikume-izenak	487
Kanta-kantari il zan olerkaria (Lauaxeta)	490
Lauaxeta ez da ain erdal-bertsogille txarra	494
Orain 68 urte. Egun gogoangarria Markiñan, Azkue jaunaren itzaldia	501
Azkuen novela bi: <i>Latsibi</i> ta <i>Ortzuri</i> , noz argitaratzeko dira?	504
Ez daiguzan gauzak nastu. (A. Villasanteri)	506
Dos notas autobiográficas de Resurrección María de Azkue, comentadas	509
Azkue y Barrutia	532
Con Unamuno, fueron cinco los concursantes a la cátedra de vascuence que se adjudicó a Azkue	538
R.M. Azkue zanaren frantzesezko itzaldi bat	540
Azkue, euskalzale	543
Azkue aitasemeak (Jorratzaile batzuk jorratzen)	550
Azkue aitasemeak aurrez aur barriro. Pamasorako Bidea eta Poesía Bascongada	561
Gitxi ezagutua dan euskal idazlea: Enbeita'tar Imanol (1884-1946)	570
Enbeita, «Urretxindorra». Gure erri-kulturaren agertzaille eta aurrera eragille	576

Agustin deunaren eta gure Orixeren gomutaz	585
Orixe abertzale.	594
Atx-osterik atx-ostera	599
Kataluña'tik Sergio Vilar eta gure literatura. Enbeita zarraren bertso . batzuk kantuz	605
Ametzaga'tar Bingen il da (g.b.)	607
Zaragiieta zanaren oroitzapenez	609
Zaragiieta Carmonan Besteiro ikusten (1940).	612
Aita Agustin Atutxa il da	615
Eltzegor olerkaria (1908-1973).	618
Aita Narziso, Lisieux-ko Teresa donearen euskeratzaille. Goian bego_____	620
Amerika-azkatzaillearen opaz Bolibar'en (Bizkayan) 1927'ko dago- nillaren 14'n izan ziren jayetari Larrakoetxea'tar Ipolita A'k izan eban itzaldia	623
Aita Ipolito Larrakoetxea. Goian bego	631
Aita Ipolito Larrakoetxea (Goian bego).	634
Larrakoetxea Agirrezabala Aita	636
Xalbador: odolaren mintzoa	638
Lopez Mendizabal Isaak euskal idazle.	643
Jon Oñatibia zanaren doaia: euskera maitaraztea	646
Aita Lon Arteaga zanaren oroigarri	649
Irakurleari (Barrensoa aurkeztuz)	653
Zipitria, Andre-Marizale.	658
Aingeru bizkaitar baten oroimenean	671
Piarres Lafitte il zaigu (1901-1985).	676
Aita Damaso Intza (1886-1986). Goian bego	678
Lekuona euskaltzain	684
Manuel Lekuona eta aozko euskal literatura	694
Manuel Lekuonaren gomutagarri (1894-1987).	700
Bizkaiko idazle andi baten opari barria. Sarrera	708
Jakakortajarena'ren olerkigintza	715
Diasporako euskal idazleak	721

Euskal literaturaren inguruan

Sagarako itzak gure idazleetan	729
Andra Maria euskal literaturan	740
Euskaldunak Andre Mariari kantatzen	768
Otoitza euskal literaturan	773
Teresa deuna euskal literaturan	790
Agustin donea euskal literaturan	801
Bizkai'ko elebarrigintza	806

2. Liburua

II

EUSKERA ETA BIBLIA

Joannes Leizarraga eta protestanteen euskerazko bibli-itzulpenak	823
Leizarragari omenaldia Beskoitzen	844
Testamentu Berriaren 400garren urteurrena	846
Leizarragak ez zuen «libertorik» aipatu	848
Norentzat da arrikada ori?	850
Katolikoek euskerazko bibli-itzulpenak. Haraneder-enganik Duvoisin- -engaino	852
Mende ontako gure bibli-itzulpenak	866
Irakurleari	891
Bakoitzari, eta Iraizoz Aitari, berea	900
Bakoitzari berea	902

III

EUSKAL TESTODUN IDAZLANAK

Dos cartas del P. Uriarte, fundidas y mutiladas	907
Bertsozko estropadak. (Santander alde batetik, Bizkaia bestetik)	910
Lau misio-kanta zaar (1838)	913
Euzkadia. Eusebio Maria Azkue zanaren Poema (amaitu bakoa)	918
Orixeren eskutitzak. Orixek azken-urteetan Oiarzabal jaunari bialitako gutunak, eskutitzak	933
D.L. Urkizu Errosarioko bertsoen egillea, durangarra, alkatea	976
Vivo sin vivir en mí. (Zuberoko Euskeraz)	983
Amaseigarren mendeko euskerazko «miserere» bat	988
Santa Teresaren laudorioa (Lapurdiko euskaraz)	995
Lizardi gaztearen olerki sorta	1.004

IV

KONDAIRA ETA BIOGRAFI-ARTIKULU ETA OARRAK

Kristiñau-ikasbide-eguna Zornotza'n	1.031
Teresa deunaren eriotza	1.033
Ama Teresa otoizlarien irakasle	1.035
Ama Teresa ta euskaldunak	1.043
Duruero	1.060
En torno a una fecha centenaria	1.062
Antonia de Olaeta, mujer del licenciado Andrés de Poza	1.066
A propósito de Barrendinda	1.069

Iurre, Ilario Soloeta'ren omenez	1.071
A zan abadea!	1.074
Miguel Unamuno ta Miguel deuna	1.077
Zirilo Arzubiaga «Jaungoiko-zale» ta «Ekin»-en biotz izan zana	1.080
Pedro de Madariaga, calígrafo y vascófilo	1.083
Pedro de Madariaga kaligrafoa gramatikalaria ere bai	1.094
Aita Batiz, karmeldarren bum	1.099
Romanista y vascólogo ilustre: Carlos Augusto Federico Mahn	1.100
Baserria ez daigun zatitu ez banandu	1.103
Beloke-ko Amak eliza berria	1.105
Eunurte-jaiak Beloke'n	1.108
Gure Patroi aundia	1.111
Txapelgilleen zoroa	1.113
Gure Patroi aundia eta Markuse	1.115
Yugoslavia Andre Mariaren Oiñetan	1.118
Julio Urkijo: euskaldun berri ta karlista berri	1.120
Ermu'tik Petralanda'ra	1.122
Ezpata-legea, ala maitasun-legea?	1.126
Urteurren ospetsua: Ama Kandida Mariarena	1.128
Euskaldunak eta gaskoiñak, bat?	1.130
Gizona gizonarentzat, zer?	1.132
Andra Mariaren illari agur	1.134
Aezkoa-ko eguberriak jarraitzen ote dute?	1.136
No hay ningún carmelita detenido	1.142
Gure Xabier doneari Parisen txalo	1.144
Berriz ere, gure Xabier doneari buruz	1.146
Baroja eta Lisieux-ko Teresa donea	1.148
Naparroako «Mezetak»	1.150
San Martinen ospea	1.152
Carmelitas	1.155
Santuario y convento carmelitano de Larrea	1.159
Mendeak Kristo'ri begira	1.160
Gazetalaritzarako gordintxo gaude	1.167
Gazetalaria gordintxoa berriz ere	1.169
Lekuan lekuko egia	1.171
Naparroa eta Trebiño (Antziñako eretxi bi)	1.173
Jose Domingo Ugartetxea musikalaria (Goian bego)	1.177
Aita Jose Domingo Urgatetxea Urkieta (1888-1980) (Goian bego)	1.181
Bizkaiko seme bat altaretara bidean: Domingo Iturrate Zubero, Im. koiztarra. Guere egunotakoa da (1901-1927).....!	1.190
Domingo Iturrate Zoriondun Barria	1.195
Zoriondun barria: Maria Baouardy, Karmeldarra (1846-1878)	1.201
Rafaela Ibarra Zoriondun Barria (1843-1900)	1.212
L'Abbé Pierre	1.222
Europa seaskaz ustuten	1.229

Victor Hugo. Bere urteurrenean	1.236
Irutasan Deunaren Isabel Zorionduna (1880-1906)	1.242
Illeta andiak Donibane Lohitzunen. Txomin Onaindia il da	1.251
Garate Anaia, Jesusen Lagundikoa (1857-1929) altaretara	1.258
Tito Brandsma, Dachau'ko martiri (1881-1942)	1.266
François Mauriac	1.272
Gustave Doré'ren marrazki-lana	1.277
Katalina Erauso, monja alferez donostiarra	1.281
Aita Donostiaren omenez	1.291
Martin Azpilkueta «Doctor Navarrus» eritxona (1486-1585)	1.299
Olerki-zale, musikalaria eta ero: Robert Schumann (1810-1856)	1.306
Nostradamus. Gizon ospetsuen artean ospetsu: osalari, uringin eta geroaren igarle	1.311
Husserl-en filosofiatik santutasunera: Edith Stein	1.316
Orain 50 urteko gerrate-nekeak Karmeldarron gogoan	1.326
Rafael Sanzio margolari bardinbakoa (1483-1520)	1.342
Burdiñezko zomorrodun gizona	1.347
Inkatarren aginte-erria. Mundu bi, alkarren ezaupidean	1.354
Andra Maria Balentin Berriotxoaren bizitzan	1.360
Begoñako karmeldarren eunurtegarrenean lau gizon ospetsu musikazaleen gomuta	1.369
Jose Joakin Arteaga mixiolari andia (1878-1926)	1.375
Frantzisko Palau karmeldarra padar eta mixiolari (1811-1872)	1.377

V

LIBURUEN BARRI-EMOTEAK

«Archimandrit Sophronius: Staretz Siluan, Monch vom Berg Athos...»	1.385
«Varios: Aufsätze zur portugiesischen Kulturgeschichte...»	1.387
«W. Voelker: Kontemplation und Ekstase...»	1.388
«H.R. Schlette: Die Lehre von der geistlichen Kommunion...»	1.389
«W. Nigg: Heimliche Weisheit...»	1.390
«G. Biirke: Vom Mythos zur Mystik...»	1.392
«M. Vianney Wolfer, O.C.S.O.: The Prayer of Christ according...»	1.394
«Varios: Angst und Schuld...»	1.394
«Lama Anagarika Govinda: Grundlagen tibetischer Mystik...»	1.395
«P.T. Rohrbach, O.C.D.: Bold Encounter...»	1.397
«V. Tepe, O.F.M.: O sentido da vida...»	1.398
«M. Lackmann: Credo Ecclesiam Catholicam...»	1.399
«H. Zimmer: Abenteuer und Fahrten der Seele...»	1.400
«Elorri»	1.402
Shakespeare euskeraz. Bizkai'ko seme baten lana	1.405
El libro de la Virgen. Madrid, 1963	1.408
«Jesús María de Sasia, O.S.B.: Toponimia euskérica...»	1.410

Bergili-ren idazlanak osorik	1.413
Gure liburu zaarren saillean. Bozas-Urrutia'ri bi oartso	1.415
Iratzederrek eta Lertxundik Salmoak berriz	1.416
Zabalegi, nekazari-eskola	1.418
Euskal-Aditza. Bizkaiera. Egillea: Pedro Pujana	1.421
Itsuen Errian... Ikusi nai ez duena errege! Juan Garmendia jaunaren euskal- esku-langintza dala-ta	1.423
Atheka Gaitzeko oihartzunak	1.425
Bai, pekatari naiz. Oraintsu atera diran bi liburu dirala-ta	1.428
Oihenart: Atsotitzak eta Neurtitzak (Edizio berria)	1.430
Liburu berria. Egille: Luis Egia apaiza	1.433
Villasante Aitaren «Axular-en hiztegia»	1.436
Bizkaiko lege zarraz, liburu berri bat	1.439
Gipuzkoa ekaizpean (1520-1521)	1.442
Gernikako Andra Mari (Liburu berria)	1.445
Euskal ikasgu nagusia. (Liburu berri baten inguruan)	1.447
Joxe Migel Barandiaran nor dogun. (Liburu barria)	1.449
Ibiltari, eta Naparroaren eta Araba zarraren kantari. (Latxaga abade jauna)	1.451
«Aurrera beti! Donostia, 1978	1.454
«Jaunaren Deia, euskal teologoen aldizkaria	1.456
Blasco Ibañez-keriak	1.458
«Altuna Bengoechea, Francisco M.: Versificación de Dechepare...»	1.466
Iru liburu eder Sendoa-k ber-argitaratuak	1.469
Gezur zitala, irain ikaragarria	1.475
Irizpidea. (Jaime Balmes'en «El Criterio» Jose Zinkunegik euskeratuta)	1.477
Latiegi'tar Bixente. Elizaren edesti osoa	1.484
Prólogo	1.489

Geigarria

Artu zuk, Jauna	1.495
AURKIBIDEA	1.497
IZENEN AURKIBIDEA	1.507

SARRERA

I. LINO AKESOLO: GIZONA ETA LANA

1. Bizitza-zertzeladak

Frutu oparodun gizonaren adimena eta biotza ze girotan, zelako leenaren milla bidetan azi ta gorpuztu diran jakitea eder jaku. Ur andiko ibaia nondiko erreka eta goi-iturrietan sortu dan.

Lino Akesolo Bizkaian, Arratiako Diman jaio zan 191 I.IV.7an, Oba auzunean eta Akesolo deritxon baserrian. Aita, Antonio Akesolo Bikarregi, dimostarra, eta ama, Praxedes Olibares Intxaurbe, Zeanurikoa.

Oban egin ebazan leenengo ikasketak lau urtetik bederatzirarte, auzuneak jarritako auzo eskolan. Maixua euskalduna zan, eta euskera zan eskolako izkuntza. $4 \times 4 = 16$ eta antzerako esaerak bakarrik entzuten ziran erderaz euskera artean. Katekismo liburua euskeraz euken; aldiren baten gipuzkerazkoa be erabilli eben, eta «gatxa» eritxi eutsoen. Bederatzi-amar urte bitartean Diman jarraitu eban eskola ikasten Donato Bernaola maixu partikularragaz.

Alejandro Akesolok, aitaren osaba eta Dimako parroko izanikoak, itzita latin, erdera eta euskerazko liburuak egozan etxeko gela baten. Gurasoak domeketan eleizara joaterakoan, umeak gela orretan zarratzen ebezan, kalte egitetik ta miñetik jagoteko. An emoten eben nebarrebak denporea liburuetakoko «santuak» ikusten. Moguel eta Añibarro eta Gregorio Arrueren Brabanteko Genobebaren bizitza...

1921ean, zemendian, amar urteko, Zornotzara aldatzen da Lino mutikoa, Larako karmeldarren ikastetxera, latin eta beste gai batzuetan gertatu eta urrengo urtean bigarren maillako ikasketak asteko asmoz.

Larrako ikastetxean (1921-1926) umanidadeak gaztetxuai emoten eutsen lenengo gogo-zabaltasunaz ganera, euskerearen duintasuna sartu jaken gogo biotzetan. Iraka tsi egiten zan beste gaien artean (Angelo Jauregi irakasle zala); eta an be kalekismoa euskeraz euken. Latiñetik euskerarako itzulpenak egin azoten eutseezan. Jauregi irakasleak *Euskal Esnaleak* antolatutako sariketetan parte artzera be akulatzen ebazan. Astean egun baten euskeraz egin bear eben guztiak, erdeldunak be bai. Jantokian, astegunetan, irakurri egiten zanez, Kirikiñoren *Abarrak*, Txomin Agirrerren *Auñamendiko Lorea*, *Kresala*, Azkueren *Ardi galdua*, *Txirristadak*, *Bein da betiko*, eta olako idatzi errezak ezagutzeko erea izan eben. Aita Erroman (Leon Urtiaga) zuzendaria (gero 1937ean erailla izan zana) garbizalea ei zan; eta ondorioz, ikasleen arteko giroa be orrelakoa zan; Frantzizko (Agustin) Atutxa olerkariak, esate baterako, gero, garbizale utsa jarraitu eban. Akesolo gastetxoak izan eban eztabaidaren bat zuzendariagaz, erriaren oizko berba bizien alde agertuz. Orduan izan zan Gernikako Eusko Ikaskuntzaren batzarra (1922-IX-10-17). Euskera eta euskal gaiak agirian olako batzar ospetsuan erabilteak, jakintsu eta erakunde guztiak parte artzen ebela, euskerearen garrantzia sendotu eban ikasle gasteen gogoetan.

Euskal Esnalekoak J.M. Barandiaran bialdu eben bein Larrako ikastetxera, euskera irakasteko ze ikasbide erabillen ikertzeko. Eta Madrill'en Txekoslovakia'ko enbaxadan lan egian Norbert Tauer'ek be idatzi eban ara irakasten zan euskera metodoa eskatuz. Euskera inguruko olako jazoerak be bizkortu egien ikaslekan aren gora eta zalatasuna.

1926-1927 nobiziadu urtea profesia txikiagaz burutu eban Larrako komentu istorikuan (1927.VIII.14). Gero Markiñara aldatu ziran gazteak, urtebetez bigarren maillako ikasketak osotzen. Urbano Manzisidor'ek kondaira euskeraz azaltzen dautse. Emen da ikasleentzat euskal nortasuneko agertzen dan A. Lontzi (Kepa Ormaetxea); onek, esate baterado, egundoko altxortzat goresen dau *Garoa*, gazteai miresmen berbera naastatuz. Jantokian euskerazko liburuak be irakurten ziran. Eta ikasleak euren esku eukezan *Zeruko Argia* eta *Jaungoiko-Zale*. An erne jakon Akesolori Bartolome Madariaga eta beste leengo idazleak irakurteko zaletasuna. Markiñan asi zan Campiñon'en *Gramática* ikasten, gero Gasteizen jarraitzeko. Campiñon izan zan Auñamendiz andiko euskalkietarako atea edegi eutsuna.

Gasteizen iru urtez (1928-1931) ekiten dautsoe ikasleak filosofia eta inguruko gaiak ikasteari. Gai-egitamueta ez da onezkero euskera sartzan, baiña orain arte artutako eziketak sustrai sendoak bota ditu, eta ikasleak eurak landuz doaz. Udako oporretan, alan be, berarizko eskolak ditue oindiño. Akesolok Markiñako irakurgaiak ditu emen be. A. Gabirel Jauregik (*Pisia* ta *Kimiaren* egilleak) zirikatuta leiketara bialtzen ditue lanak. Cervantes'en *Novelas Ejemplares* sailatik eleberri bat itzuli bear zan. Akesolok «El Celoso Extremeño» (Agure kezkatia) aukeratu eban. Sasoi atan Larramendiren iztegia be aztertuta eukan, eta emendik artu eban lanaren goiburua: «Aukeraren maukera/ atzanean okerra». Anbrosio Abasolo irakasle gazteak (gero Indian Gotzain izango zanak) eta Akesolok eta Onaindiak eskuratu eben saria Donostiako *Euskal-Esnaleak* 1930ean eratutako leiaketa orretan: liburuak erosteko da

ikasle biak arturiko eun pezetako banaren zati bat. Akcsolok Azkueren Iztegia eta Morfologia erosten ditu.

Gasteizen asi zan irakurrialia berba eta esaldi jatorrak batzen, gauzak egoki eta zeatz adierazteko, Orduan konturatu zan Ibagutxi'k, esaterako, Bartolome Madariaga eta idazle zaarretatik artzen ebazala itz eta esakera asko. Lopez Mendizabal'en iztegia, bere neurri apalean, lagungarri izan jakon,

Mendibuni'en *Otoitz-gaiak* eta Agirreren *Auñamendiko lorea* ekarteko eskatu eutsen etxeokoi.

Filosofia ikasketak amaitutakoan Lino gaztea gurasoen etxera doa osasuna indartzen. Umetan, amar urte leenago itxitado etxe eta alderdiak zirrara bizi sakona eragin eutsoen. Eta ia mundu orren arnasa euskerea zan. Umezaroko euskerea, beti be barruan eroiana, iratzarten jako indartsu. Ordurik asmatu eban erri-euskereaganako maitasuna, eta bera ondo ikasi eta menperatu bearra. Emen eltzen da bere eskuetara Azkueren *Cancionero Vasco*, leenengo alea, eta griñaz ikasten dau udako illabete bi areetan, ia buruz jabetu arte.

Ostean, teologi ikasketen aldia dator. Lau urtez leiatuko da Begoñako Karmel-darren ikastetxean (1931-1935). Oindiño ikasle zala mezakotu zan bertan (1934-VII.8), S. Onaindia eta beste amar gazte lagun ebazala..Azken urte oneetan euskera onezkeru baktotzak lantzen dau bere beretara. Akcsolok, besteak beste, *Euskal-Erria* aldizkaria irakurten dau. Jakintza-egarrirako urte onugarriak dira oneek. Ganera, Errepublikara garai atan, aurreko urteetan ixilpean aziz joian euskal bizi-indarrak leer egiten dau. Entusiasmu alaia zabaltzen da euskal kulturari, naiz ta inguruko jazokun illun zemaitsuak ezin aaztu. Oso ezagunak jakez Lauxeta, Lizardi, Orixe... Azken bultzada artzen dau euren euskal deiak, amas andi eta goimallako literatura naiz eguneroko eta jakintza maillako lanak burutuz euskerea beste izkuntzen parera jasoteko. Akcsolok, giro gaztearen arnasa artzen ebala, ez eutson itxi liburu zaarrak irakurri eta aztertzeari be, Gasteizen asitako lanean.

Begoñan asi zan, beste ikasle euskalzale batzuekaz batera, 1931ean sortutako *Karmengo Argia* aldizkarirako idazten. Aldizkari ori izan bide Onaindiagaz alkarlanean Avila'ko Teresaren *Camino de Perfección* (Onbidea) euskeraz jarteko, gero osotu ta liburu eran agertu zana.

Amaitu ditu ikasketak, eta Zornotzako ikastetxe barrira doa irakasle (1935). Beste gai batzuen artean, euskera irakasle. Urrengo urtean, *Karmengo Argiavzn* zuzendari be bada bertan; gerra aurretik zenbaki pare bat atera aal izan ebazan. Lau milla arpidedun eukazan orduan aldizkari orrek. Urteko iru pezeta kobranta diru-irabazia itzi ei eban ixildu bearra izan zanean. Arpidedun orreen izan zerrendak lagungarriak izan jakozan gerra ostean, urteak geroago, Onaindiari *Karmengo Eguntegia* (1951) eta jarraian *Karmel* egaz lanean asi zanean.

Zomotzan egoala, (au be bere biziko zaletasun eta lanaren agergarritzat aipatzen dogu) erosi ebazan, adibidez, J. Etxepare'ren *Beribilez* eta SwrwcM:íz&,Sallaberri'ren Kantutegia (*Chants populaires du Pays Basque*), M. Duhalde'ren *Meditacione handiac*, P. Lafitte'ren *Eskualdunen Loretegia* (nagusiarri larregi gastetan ebala liburutan erizteraiño).

1936eko urrillean Basurtuko kuarteletik deia artzen dau. Eusko gudarien Teniente Kapellau izan zan Itxasalde batalloian, Matxin taldean. Otxandio-Legutianotik, Orduña, Lekeitio, Axpe-Arazola, Euba (Zomotza), Matxixkako ta Lezama-Baranbio zear Santo Domingo'n amaitu arte. Bizitza-eskolea izan eban gudaldiko urtebete eskas orretan; euskeran be bai, euskeraz egiten eben ezkeror errialde guztietako lagun artean.

Gudaldian eguneko amar pezetako ordaiña eukan, eta batez be liburuak erosten eralgiten eban. Adibidez, Manterola'ren *Cancionero Vasco* orrela eskuratutakoa dau.

Gero espexera. Leenengo, Begoñako Karmelon berton, zati baten kartzela biur-tuan, 1937eko garilletik 1938eko udabarrirarte; Nanklares'en 1938eko udabarritik urte bereko urrillaren 16 rarte; Palencia'ko Dueñas'en 1939eko agorrillerarte; eta Carmona'n, 1939eko agostu azkenetik 1940eko 29rarte. Emen, Carmona'n batu ziran abade ta fraille euskaldun asko, Besteiro euren arteko eta adiskide ebela, atzerrietan zabaldu zan argazki sonatu batek be erakusten dauan lez.

Espetxe zigorrerako errazoiak oneek zenduzan: *Karmengo Argia* aldizkarian idea nazionalisten zabalkundea egin ebala, eta gudarien kapellau izanaz guda-matxinadara suztatu ebazala. Fiskalak, beraz, 12 urte eskatu ebazan Akesolorentzat eta juezak 16 bota, arrigarri izan arren. Bearbada juezaren aurrean berba sendoegi edo maltzur egiteagaitik. Fiskalak: «Karmengo Arjia» izena be nazionalista dau, salatu eban. Aldizkarian gauza normalak, beste aldizkari eta egunerokoetan agertzen ziranak, batzuetan laburturik, emoten zirala azaldu eban Akesolok. «Afiliación política» itaundu eutsoenean, Euzko Gudalosteko kuartelean gauza berbera itaundukeran, erlijiosoa zala esan ebala erantzun eutsen. Orduan, juezak, urduri, «jarri zaitez, naiko da!».

Ez dau Akesolok garraztasunik agertzen, ezta bere lagunak be, espexeko urteak gogoraterakoan. Anaitasuna eben euren artean, eta ordurarte betetakoaz kontzientzi lasaia. Ori bai, erriaren ondarena ikusten eben, ainbeste itxaropen oraingoz galduak, etorkizuna ezbaizko edo baltz. Samiña negargarria zan, baiña ez itxaropenbakoa. Espetxean ikasteari ekin eutson gogoz, batez be izkuntzak ikasteari. Leen ikasitako frantzes landuz ganera, alemanera, inglesa eta italiera nai izan ebazan menperatu. Orretarako baeukezan gramatikak, iztegiak eta eleberriak. Alemanerarako, ganera, Hitler'en itzaldiak eta be eltzen jakezan. Nanklares'en euskeratu eban Salve, Mater Misericordiae abestia, joan-etorrika egurasten ebillala. Eta Carmona'n Toselli'ren Serenataren frantzes testoaren ordez olerki bat asmau eban, espexeko aria zale batek euskeraz abestu eikean.

Espetxe ganean egaz biraka ebiltzan belatz txikiak eskeiñi eutsoen irudi eragillea:

Ortzean zear zabiltzen usoak,
ai nik banitu zuek dozuezan egoak!

Neure erriraiño nintzake egalari
erbestetuaren maitasun agurraren geznari!

Etsaiak erasota
ara non dan lur jota,
bere seme onenak sakabanatuta!

Erri gaixoa,
gaur ene gogoa,
espetxeko ordu beltzetan,
maitezko egoetan
zuganaiño egadan doa.

Zu zaitut, aberri,
neure zorigaitzaren azkarri:
zeu, aberri!

16 urteok (edo ogetamarrok be bai) sei urtera jatsi eutseezan. Akesoloren alde oneritzi zabalak lortu ebazan bere aitak, egia esan; baiña zigor aldatze andi au orokorra izan zan. Iru urte beteta eukezan ordura ezkeru, eta beste irurak askatasun baldintzatu-bidez betetekotan, espetxea izteko baimena eldu jaken. Sevilla ta Madrid'etik zear etorri zan Akesolo beste karmeldar bategaz (Sebastian Atutxa) bere errialdera. Baiña Euskalerrian gelditzerik ez euken gobernuaren aginduz. Orregaitik, Artola Diputaziño-buruaren laguntzari esker bere gurasoen etxean illabete emon ta gero, Hoz de Anero'ra, Kantabriako karmeldarren Desertura bialdu eban Probintzialak. Urtebete barru Iruñara (Nafarroa ez zan sartzen debekatutako barrutian). Nafarroako uriburuan jarraitu eban 1943eko azkenerarte, liburu zaarrak aztertzen, eta danetarikoak billatzen. RIEV'eko aleak emen irakurri ebazan. Baiña liburutegiko autsak abots barik itzi eban, eta Zornotzako ikastetxera bialdu eban nagusiak, antza danez esandako debekua aaztuta. Orduan ikastetxea andrazkoen espetxea zan, eta A. Leandro Etxebarriak egiten eban kapellau. Alan be, illabete bi barru kampa joan bearra izan eban Akesolok, Nanklares'en ezagutu eban zuzendaria etorri zan inspektore eta. Aldi labur onetan, *Euskal-Erria* aldizkariaren kolekziñoa (Arrese-Beitiarena) arakatu eban pozez.

Esandakoogaitik, Nafarroako Korella'ra joan bear izan eban, 1944 eko garizuma aldian. Iru illabete ondoren, Santander aldeko El Soto'ra, an 1944etik 1948era egotaldi luzeagoa izanez. An erosi ebazan, esaterako, *Euskalerraren Jakintzaren* azken iru aleak. 1945etik aurrera Ponte Viesgo'ko parrokiko arduradun izan zan.

1948eko jorraillean teologoen irakasle izendatzen dabe; leenengo Gasteizen, ikasturtea amaitu arte, eta, gero, ikasturte barritik aurrera Begoñan. Emen jarraitu

eban 1969 çrarte, amazortzi urtez eliz-kondaira, Karmengo Ordenaren kondaira, antxiñako eliz-literatura (patrologia) eta misionologia irakasten. Eliz-kondaira sakondu eta azaltzea izan zan, beraz, bere lanbidea. Urte orreetan, batera, itzultze lan luze neketsuari ekin eutson, gero ikusiko dogun lez. Euskera bere izkuntza eban, eta euskal kultura bere berezko kultura. Orregaitik, kultura eta jakin-nai orokorraren barruan arduraz eta maitez landu izan ditu. Baiña ez ebazan bere eginkizun berezi mugatutzat artu. Asko eta asko ereak, lagunak, erakundeak eskatuta buruturiko lana izan da, bereak ditun zeaztastin eta maixutasunez.

1954etik aurrera liburutegirako euskal liburu zaar ta barri erosteari ekin eutson etengabe, Donostiko «Manterola» liburu-dendaren bidez, eta Bellokeko eta Lazkao'ko beneditarrakaz artuemonetan.

1963ean Euskaltzain Oso izendatua izan zan. Izan be, R.M. Azkue bizi zala (1951ena aurretik) artu izan eban parte euskaltzaiñekaz batzarretan. Alan be, barruko naaste eta burruka giroa asmatu rik, uko egin eutson izendapen ari, laguntzeko beti be prest egoala agertuz. Orrela, beste agiri barik, baiña bai txartel baten bidez, Urgazle izendatu eben. Eta, egitez, laguntza eskaria eldu jakonetan or izan da, euskal idazle naiz euskerea bera aztertzen daben lanak eskeiñiz.

1964ean Bizkaiko Eliz-barrutiko Liturgi Batzordekoa izendatua izan. Eta gero Elizbarruti arteko Liturgi euskaratzaillle Taldekoa, Bizkaikoen buru (1968).

Donostiko karmeldarren nagusi autatzen dabe 1969ean, 1972erarte. Donostian egoala birsortu zan Kardaberaz Bazkuna, 1970ean, eta asikeratik bazkide izan jakon. 1972ean Markiñara doa ango kanneldarren nagusi. Aztertze lanez gaiñera, euskal liburutegia aberasten egiten dau aparteko eraz aalegin. Nagusitza amaitu ondoren, 1975ean, eta Retana jaunaren eskariz be bai, Begoñara bialtzen dau karmeldarren Probintziko Nagusiak, *Diccionario de Autoridades* liburuan urragotik lan egin eikean, eta komentu atako liburutegiko, batez be euskal liburutegiko, arduradun.

1978ean Euskerazaintza sortu barriak bere buru autatu eban.

Begoñan jarraitzen dau. Euskal idatzietan, azken urteok izan dira bearbada emonkorrenak, idazti-zerrendak erakusten dauan lez. Baiña, dana dala, bere bizi guztiko lanaren frutua da, alderdi askotako urak orain ibairatu dira. Eta bizitza osoan zear lan ixilllean kontaezinala ordu bakartade sakonean emon ta gero, azkenaldi onetan badatorkioz autormenak be. 1984eko bagillaren 14an, berari, eta J. Kerexeta, S. Onaindia eta Pedro Puxanari Bizkaiko Eliz-barrutiko eliz-gizonak omenaldia eskeiñi eutseen «urteotan euskeraz egin dituezan Eliz-idazlan ederrakaitik» (Batzar-deia, Bilboko Gotzaitegitik, 1984. bagillaren 5ean). 1987ean (garillak 10) Labayru Ikastegiak omendu eban Derion, udako ikastaro barruan. 1989eko jorraillaren 7an, barriz, Bizkaiko Aldundiak, aundikiro. Eusko Jaurlaritzak 1989eko Euskal Letretako Merezimenduzko Saria emon dautso. Dimako erriak, Euskerazaintzak eta Euskera-zaleak eratuta dauke omenaldia urte onetako uztaillaren lenengorako. Alako jaunari, alako omena.

2. Izakera

Akesoloren erretratua, iraisean bada be, zirriborrotu bear dogu orain. Leenengo, egizalea dozu gizona, eta onek argitzen ditu bere izakera eta lanaren berezitasun asko. Baketsua, lan ixillaren laguna. Ez dauka astirik ez gogorik ifloren bizitzako bame-geletan sartzeko. Atsegin jako, ostera, jakintza gaiak dirala edo bizitzako gairen baten garrantziak eraginda, alkarrizketa bizian parte artzea, eta nekatu bage. Aundikeri eta arrokeriaren arerioa. Pentsakera eta arrazoiketa sendokoa.

Bere erlijioso bizitzan (au be giza-izakeran guztiz sarten dala), danetan lez, benetakotasuna da nabari, zintzotasuna eta leialtasuna. Ori, baiña, berezko jokeraz, eta ez itxura gogorrez eta teatro-antzean. Bere gurasoen etxean ikasi eban eta gero erlijioso eskolan, ondo ikasi be, serbitzurako prest egoten, naiz etxeko bearretarako, naiz bere jakintza arloan, argibide eske datozanai laguntzeko. Gogoko jako karmeldar bizitza, eta bertan bere jakintza lanerako erea, askatasuna eta bakea aurkitu ditu; jakiña, bere borondate, indar eta doaiak orretara jarriz eta eralgiz. Neurritsua, gitxigaz naiko dauana, biziteko bear diran gauzetan.

Egizale eta langille izatea bere ikerlanetan egiztatzen da. Onetarako, ganera, oroimen argi tinkoaren jabe dogu (lanik asko aparteko lagungarri barik, liburutegiai, bere oarrai eta oroimenari esker burutu aal izan ditu). Epaimen zorrotza, funtsgabeko baieztapenik ez egin ez onartzeko. Iraunkorra lanean. Eta lanean zearo bildu eta bestez aaztuteko gaitasun bereziaz. Baiña doai gutzi oneek ez dira naiko bere lana argitzeko. Bada or beste zer bat, esandako guztien bizi-indarra: «Beti izan naz ni jakingurekoa». Berezko jakingurea. Ikusi eta ikasi, jakitearren; jakitearen atsegiñagaitik. Edozein komentu eta lekutara doala, beingoan asiko jatzu bertako liburuak eta paperak aztertzen. Bere joan-etorriak bide batez liburutegiren bati ikus-taldia egiteko asmatzen ditu. Akesolo, beste eginkizunik ez badau, liburu artean aurkituko dozu. Bere begiak edo irakurgairen baten josita, edo (autuan edo ixillik zerbaiten zain) apur bat gorantz eta urriñerantz zuzenduta eukiteko jokera dau.

Sariugarte margolariak (Bizkaiko Aldundi-etxeko liburutegian gordeko dan erre-tratu apañean) Akesoloren jakintza eta seriotasuna adierazi naiean, pizka bat asarre-aurpegia ipiñi eta dautson nago bekokiko tximur sakon eta begi urrinduetan. Badago or egia, baiña ez dana. Zintzoa, benetakoa, ikerlea. Baiña badau beste alderdirik be: alkarrizketa bizia, inoz zirtoa, eta irribarre esker onekoa.

3. Bilduma onetatik kanpoko lenak

Egoki idatzi eban Lon Arteagak: «Berez ugaritasun zale izan ez arren, asko idatzi dau Aita Akesolo'k, bai euskaraz eta bai gazteleraz. Geiago barik ez dau ezer idatziko; jakingarri ta esan bearreko zerbait daukanean baiño» (*Akesolo 'tar Lino Aita, in Kardaberaz-5, 1976, 20 orr.*).

Jarraian aurkituko dau irakurleak J. Urkizak gertatutako bibliografia osoa, *Karmel* aldizkarian be argitaratu dauana (*Karmel*, 1989-1,26-45 orr.), ale bi oneetan datozenak eta beste, urtez urte eratuak. Or ikusten da L. Arteagak aurreko berba zuzenak idatzi ebazanetik andia izan dala Akesolok argitaratua.

Lanik geienaeuskal gaien inguruan burutu izan dau, naizta, ikusiko danez, zabala izan bestetarikoa be. Euskera bera, euskal idazle eta kondaira, erlegiño gaiak. Alan be, urteetan irakasle izan zanean, ez zan bere egiteko berezia euskal kultura landu eta irakastea, eliz-kondaira baiño. Bere ikasleentzat arlo orretan zan lenengo ta bein maixu autortua. Euskal kulturako gaiak erabiltean, beraz, esan daiteke alboko lanean sartu zala, zaletasunak erakarrita. Gero, azkeago geraturik, orretara jarri ditu bere indarrik onenak. Jakingura eta kultura zabalaren barruan euskal kulturara batu dau aalegiña ogetaka urteotan, bizi guztiko lanaz ganera.

Aipaturiko bibliografian datozan arren, lanik beiñenak azpimarratu daiguzan:

3.1. Akesoloren izena *Diccionario de Autoridades del Euskera* iztegi andiari lotuta geldituko da (ez, alan be, liburu orren azalean, bai egitez eta zuzenbidean). Bederatzi aleko iztegi onen leenengo liburuia 1976 ean atera zan, eta azkenengo irurak 1989 ean, diru-ezagaitik urte batzuetako etena izanik. Manuel de la Sotak, Pierre Lafittek eta Lino Akesolok egifia dala agiri da leenengo orrian, beste oneen laguntzaz: Jose Lasa, Justo Maria Mokoroa, Justo Garate, Damaso Intza, Gabirel Manterola, Jaime Kerexeta, eta azkenengo lau aleetan Luis Ortega koordinatzailea. Egi zeatzagoa baiña au da: asikeratik amairarte Lino Akesolo izan dala bere eskuz eta erantzukizunez lan osoa zuzendu dauana, L. Ortégaren laguntzaz. Olan autortu dau Alpontso Iri-goienek Iztegiaren egillea Lino Akesolo dala sendoro esanez (Euskal Telebistan, 1989 eko jorraillaren 3an, eta Iztegiaren Aurkezpenean, Bilbon, il beraren 4an). Irakurgaria da iztegi oni buruz eta Akesoloren lan osoari buruz J. A. Etxezarragak idatziriko zentzunezko eritzia: *Lino Akesolo* (Idatz eta Mintz, 18/19).

Iztegi onetan idazle zarrak, aurreko iztegiak, gaurko idazkiak eta erriari entzundakoak jaso dira, itz bakotxa eta bere adierazpenak jasotako esaldian edo adibidean kokatuz. Baiña irurogei urte inguru danetariko idazkiak arakatzen ibilli dan gizon onek oindiño erriaren iztegiaren ikerketa zeatza osotu bear dala deritxo.

3.2. *Gaztelerazko idazkiak*. Latiñetik, frantzesetik eta batez be alemaneratik itzuli izan dau (ingles itzulpen baten be izan eban esku: *Yo escogí el claustro* kontakizuna berak orraztu eban, eta Dinor'en agertu zan argitalpenari itzaurrea berak jarri eutsen). Itzulitako liburuak zortzi dira, batzuk ondo mardulak (alemaneratik gazteleraatuak bi milla eta bosteun orri badira). Lan au, geienez, amar urteren barruan egin eban, 1952-1962 bitartean. Frantzesia ikasturteetan, baiña beste izkuntzatarako espetxea izan jakon izkuntza-eskola, ikusi dogunez. Alan be, gero urte luzeetan aalegin iraunkor barik ez dira burutzen olako itzulpenak. Jakiña da itzulpen lanak gaitasun berezia eskatzen dauana: izkuntza biak ezagutuz ganera, beste doai bat: egillearen ideia eta gogoia ulertzeko adimena eta bigarren izkuntzaren senean giar bardintsuz jarteko doaia. Olako lanaren esperientzirik daukanak ikusiko dau Akesolok badauala gaitasun ori. Itzulpenen zeatza agirikoa da.

Sasoi atan mugaz andiko kultura eta teologian irakiten eben ideiak (emen barri ziranak) jakiten emon ebazan Dinor argitaltxean izan ziran argitaratuak geienak. F. Tillmann teologoa, W. Nigg kondaira ta saiogillea, E. Przywara pentsalaria, E. Stein filosofaria ondo eio bear izan ebazan, eraz itzultzeko. Bere izen barik agertu ziran itsulpenok, bat izan ezik.

Gaztelerazko itzulpen atal onetan, oartarazi daigun oindiño Bemat D'Echepare'ren *Linguae Vasconkm Primitiae* erdera orretara biurtuta daukala.

3.3. *Euskerazko itzulpenak*. Asko itzuli dau Akesolok euskerara, geiena bere izen barik; gero aipatuko doguz jakin daitekezanak.

Bere izenaz urtendakoetarik gogoragarrienak oneek ditugu:

1) Santa Teresa'ren *Camino de Perfección (On-bidea)*, Santi Onaindiagaz alkarlanean.

2) *Salmoak*. Iratzeder'en lana, bertsotan, bizkaieraz jarria eta egokitua.

3) MANUEL FUENTES, *Jaungoikoak Beretzat Gura nau. Domingo Iturrate Zorionduna Irukoiztarra*.

4) *Domingo Fernández Mendiola. Aita Aureliano Karmeldarra*.

Olerkiak itzultzean dauan trinkotasun dotorea azpimarratu daigun:

Avemaris stella
Dei Mater alma,
Atque semper Virgo,
Felix caeli porta.

Virgo singularis,
Inter omnes mitis,
Nos culpis solutos,
mites fac et castos.

Vitam praesta puram,
Iter para tutum:
Ut videntes Jesum
semper collaetemur.

Agur, Jainkoaren
Ama maite ederra,
zeruko atea,
itsasoko izarra.

Birjiña ta ama
denen gain ezitia;
Emaiguzu biotz
apal ta garbia.

Jesus bedi gure
bizi ta bidea,
azken-poza dadin
Ura ikustea.

Erdi Aroko eliz-kanta onen aapaldi batzuk aukeratu doguz. Adibide onetan doinu jakiñari egokitu bear izan dautso itzulpena; orretarako silaba kopuru bardiña lortuz ganera, euskerazko kantikan atsegin dan amaiera oskidetza jarri dautso.

Leenengo aapaldian «felix» eta «semper Virgo» falta dira, baiña osoan itzulpen egokia da: irudi esentzialak or zeruko atea eta itsasoko izarra dira. Latiñeko «alma» ren ordeaz «maite ederra» esanaitsuago eta eragingkorrago dogu.

Bigarreanean, «singularis» «ama» biurtu da, orrela bakantasuna konkretoago eta samurrago egiñaz. «Denen gain ezitia» bertsoaren doitasun txairoa ez dago azpimarratu bearrik. Azkenengo bertso bietan, euskerazkoak erruan eragon barik jarrera baiko-rragoa erakusten dabe.

Irugarren aapaldiko lenengo bertso biak bakun eta trinko ditugu: «puram» ez da agertzen, au aurreko aapaldian onezkero eskatu danez. Eta bizitza ona eta bide ziurra Jesus'en inguruan gauzatzen dira.

Itzulpen osoak zaintzen dau ideien betetasuna, latiniaren trinkotasuna eta elizkantari dagokion ebokaziño neurritsua.

3.4. *Euskal idazle zaarren argitalpenak*. Bilduma onetako idazkiak sarri dabez gaitzat idazle zaarrak eta euren testook. Eta irakurleak ikusiko dau egillearen eza-gupena eta begi zorrotza. Berak lau idazle zaarren lanak agitaratu ditu: 1) Bernat D'Echepare'ren *Linguae Vasconum Primitiae* gaztelerazko itzulpenagaz eta idazkera gaurkoturik. 2) Joannes Etcheberri'ren *Noelak eta kanta espiritual berriak*. Testo birrikusia, sarrera eta oarrakaz. 3) Bernard Gazteluzar'en *Eguia Catholicac*. 4) Gregorio Arrue'ren *Brabanteko Santa Genobebaren bizitza*. Testo berrikusia, sarrera eta oarrak.

3.5. *Izenbako alkarlanak eta beste zenbait lan* (euren izakera bereziagaitik ondoko bibliografiak be artzen ez dituanak); 1) Leenengo aipatu bearrekoa *liturgi liburuetan* burutu dauan lana dogu. Bizkaian asi eta, jarraian, Eliz-barruti arteko Taldean gaur arte, ogeta bost urte dira. Bearbada euskerara egin dan itzulpen lanik sakon zabalen onetan Akesolok garrantzizko partea izan dau Euskalerrri guztirako gertatu diran liturgi testoetan. 2) Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Iruñea 1984. *Eraskiña*, Bilbao, 1987. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*. Bilbo, 1987. 3) *Kosmos I eta II*. Salamanca (Anaya), 1975. 4) *Eusko Lurra* (Iñigo Agirre, egillea). Donostia(Etor)1976. 5) 1963ean argitaratuzan *Mezaeskuliburua* (Kerexetar Jaime'k eta Aita Onaindia'k eginda eta Kerexeta'ren ardurapean atondua Bilbao 1963). Or be izan eban Akesolok esku; liburu ori argitaratu aurretik S. Onaindiagaz alkarlanean ainbat domeka eta jaietako meza gertatu ebazan, txortatan urten ebenak. 6) Guztiz gomuta galdu ez daiten, au be eraso daigun: Bizkaiko Aurrezki Kutxak dantzariak buruzko liburu bat gertatu eban, euskerazko testoa Akesolorena zala; alan be, erderaz bakarrik urten eban. 7) *Abel-lur* aldizkariak (Bizkaiko «Camara agropecuaria» saillak argitaratua) Akesolok euskeratutako artukulu batzuk atera ebazan. 8) Gotzaitegietako agirik batzuk be, Bizkaiko eta Gipuzkoakoak, misiño-egunetakoak, euskeratu izan ditu.

4. Bilduma onetako idazlanak

4.1. *Ikerle eta umanistaren lana*. J. Urkiza argitaratzaille zorrotzak bost sailletan batu ditu ale biotako idatziak: I. Euskera-Literatura-Kritika, II. Euskera eta Biblia, III. Euskal testodun idaz-lanak, IV. Kondaira eta biografi-artikulu eta oarrak, V. Liburuen barri-emoteak. Egokia da sailkapen au. Eta oindiño estuago laburtu nai izan ezkeru, euskera eta kondaira dirala gaiak esan geinke, bere berezko deia eta bere lanbidea izan dan irakasletzako gai orokorra (kondaira).

Baiña olan muiñeraiño eroanaz mugatu dogun arlo orretan arrigarria da gaien eraskotasuna. Egillearen jakingura urduri eta zabalaren agergarri. Zaletasun aberats

orren barruan, gero, idazkirik asko aldizkari zuzendariak eta beste ekintza antolatzailleak eskatuta ondutakoak dira. Inoiz be ez arinkeriz eta berak ondo menperatzen ez dauan arazoaz berba egiñez.

Idazkiak, jakintza aurkezpenetik begituz, iru motatakoak dirala esan daikegu: jakintzazkoak zientzi-ornigaiez jantziak; benetako ikerketak zientzi-ornigai bakoak; eta zenbait maillatako zabalpen-idaztiak, beti be sendo eta jakingarriak.

Eruditoaren idazlanak dira izan. Danetan datoaren zeaztasuna, gaia erabilkeraren seriotasuna eta jakintza-sena berezgarritzat dituanarenak. Baieztapen eta erabilkera oiñarrituak eskatzen eredu. Funtz gabeko topikuetatik unin, errazoi eta oiñarriak billatzen. Baiña datoak eta zeaztasunak jaso bakarrik egiten dituan espezialista ez da, ia materialki artu eta bere eritzi barik alkarren atzean sailkatzen dituana. Zeaztasun konkretoen zalea da, esan dogu; baiña kultura zabalaren barruan. Ez dot orain gogoan bere era askotako jakingurea, beste au baiño: era askotako idazlan zeatz orreek pentsamentu sendoaren barruan egiñak dirala, euskera naiz literatura naiz kondaira naiz erlejiño dala.

Euskera eta kondaira gaiak agertzen dira geien. Kondaira tontorrek barik, sarrigo benetako istorian eragin izan daben gizonak eta jazoerak ikertzen ditu. Abandoko abere-sendatzaillea nor zan; Pedro Madariaga, kaligrafo eta Valencia'ko irakaslea, aurkitu dau (au be jakintza zabalaren maitalea) eto Joaquín de Santa Bárbara nongoa zan... Edo testo-kritikan, Barrutiaren *Actopara la Nochebuena* testoa ikertu, eta Eusebio Maria Azkue'ren testoa... Ez dira mundu guztian arrakasta dauken gaiak. Baiña mundu guztiko kultura aurreratuak lantzen dabez arretaz olako gaiak, ikuspegi edatuaren barruan, erri bakoitzaren bizitza parte diranez. (Aipatzen ditugun izenak adibideak baiño ez dira, beste ainbaten artean. Orrela, idazlan oso onetan).

Gomutan ez dana edo aaztuz doana zaindu nai dau kultura bizitzarako (*Euskaltzaleen batzar gogoangarriá*). Egunereko kultura agirian bapez edo gitxi ezagutzen diran idazle, personai eta jazoerak ateraten ditu argitara, literatura eta kondairako bitxiak (*Gitxi ezagutua dan euskal-idazlea: Enbeita'tar Imanol*). Leena berbizte orretan ez dau indiferentziaz lan egiten, orretara jo dauan ikerle mekanikua balitzan. Leengo gizonak, egite eta bizikizunak gogoratu eta ateratean, bizitza dau ondo-ondoan maite, giza adimenak eta biotzak bizi eta sortu dauan edozein frutu maitagarri. Umanistaren lana, beraz, itxura neurritsuaren azpitik. Umanista, ez darabilzan gaiak arlo orretan sartzen diralako bakarrik edo-ta euren eraskotasun zabalagaitik, eurak erabilkeran bizitzaren aurrean dauan giza-jarreragaitik baiño.

Oirela ulertzen dogu obeto berak ezaguturiko ainbat idazleren gomutagarriak idatzi izatea. Bada or sarrigan adiskidearen oroipena eta esker ona. Baiña baita joandakoak (euren izate eta kultura ekintza argitan jarriz) gizabizitzan irau azoteko leia.

Izan be bilduma onetako idazkietatik ia irurena personak edo euren alderdi eta egite garrantzitsuren bat aurkezteko idatziak dira. Geienak, aldi guztietado euskal idazleak; edo euskal istoriako personaiaren batzuk; eta gizon-emakume santidadez eredugarriak. Orretan, asikerarik aukera egiten dauanez, alderdi onak, ikasbidezko alderdiak agertzen ditu (kritika-sen zorotza dauan onek), personen emoi onuragarriak begi aurrean jarriz.

Jakingaiak eurak eta euren objetibidadea ain maite dituan idazleak, personaiak aurkezteari orrelako arreta eskeintzeak badau esanaia: personenganako onespina,

personen balio ezilkorra, gizatasun alderdiak garatu dituen personak bizitza barruan zaindu naia (adimenak eta biotzak eratzen daberen bizitzan, au da, kultura bizitzan). Umanismoaren alderdirik berezientariko bat.

Umanismoa dario Kepa Enbeita'ri buruz diñon oni: «Norberena maitatzeak ezta biotza besteen alderako estu egiten». «Ezagunak dira Oñatiko mitin baten bota zituen bertsoak be, «Viva España» bat entzutean. Olango bertsoen egillea ezta biotz-txikia, ezta barru-estua. Or eztago estukeririk ez txikikeririk. Or ikusten dogu Enbeitaren biotz zabala, benetako giza-kulturaren jabe dana» (*Enbeita*, «*Urretxindorra*», *gure erri-kulturaren agertzaille eta aurrera eragille*).

Benetako giza-kulturaren jabea biotz zabala da. L. Akesoloren beraren lanaren zentzua eta norabidea. K. Enbeitaren adibideak sakonago biurtzen dau pentsamentua: «Unetxinsona» ren «zabaltasuna» ez etorren eskola anditik, ez zan eskola-kulturaren zabaltasuna. Baiña benetako gizakultura zan, eta biotz zabaltasuna.

Leen oar azotako jakintza aparato-eza be askotan autuari giza-xalotasuna emotearren da eta bear ez dan lekuan zientzi-jantzi lanegirik ez agertzeanen. Benetako ikerlan banuan be goza-girozko ateraldiak aurkitzen doguz:«Loiolako zaldun azkanak, Iruñako zaurietatik sendatuz zijoanean, liburu onak irakurten ematen omen zituen asti-orduak, an bere gurasoen jauregiko gela batean. Asi omen zan liburu bat idazten ere; eta Jaunaren itzik paperera aldatu bear zuenean, goniz idazten omen zuen; Andre Mariarenik baldin bazan, berriz, urdiñez» (*Andre Maria euskal-literaturan*). Gero idazkian zear ikerketa dagi betiko maixutasunez; baiña asikera onek giro andinai-bakoa damotso lanari.

Ez dauka bere burua sortzailletzat, poesigintzan naiz beste literatura arloetan. Izan be, gaztetako ipuin bat (*Joxeparen larriak*) eta liturgi testoren bat (*Eskatu daigun*) kendu ezkeru, izkuntza eta ikerketa lana izan da berea (itzulpen lan andia emen sartzen ez dala). Baiña bada espresibidatea bere idazkietan. Eurotarik asko alkarrizketan ez egiñak dira, norbaitegaz berbetan balebil lez, norbaiti berbea zuzenduz edo erantzunez. Baten baiño geiagotan itaunak enezkadan urteten dautsoe.

Biotzondokoa agertzen neunitsua da eta, obeto, urria. Alan be, leen aipaturiko idazleen gomutaganiak, esate baterako, begirune bioztiz idatziak dira. Eta, antzera, auneko idazleak eta beste kondaira personaiak biotz urbiltasunez gogoratuta agertzen jakuz idazkietan (*Etxepere laureun urte geroago*; *Euskal-Esnale eta euskal-idazle: Yose Paulo Ulibarri, Okendo'ko semea*). Oneritzia merezi dautsoen idazleak ganora gitxiz erabiliak dirala uste dauanean min bizia agertzen dau eta sutu be egiten da (*Bakotxari berea Aita Kardabaraz dala-ta*). Ezagutu dituanen artean biren itzala dala aparteko eraz nabari esan daikegu: R. M. Azkue («Azkue andia», «euskal-maixu andia»: *Orain 68 urte. Egun gogoangarria Markiñan. Azkue jaunaren itzaldia*). Bere alde leku askotan dagi; edozein aipatxeko: *Pedro Ignacio de Barrutia*. Indartsu dagi M. Lekuonaren alde be (*Luis Mitxelena Jaunari Errenderiara*; beste lekuetan be bai).

Aparteko biotzondoa agiri da bere jaiotetxe auzunea gogoratzean, bere umezaroko bizikizunak eta kanpoko munduagazko leenengo artu-emonak: «Niretzat txikitarik izan da entzuna Atxoste. Atxostekoa zan nik neure auzoan euki neban lenengo eskola-maixua, Otamotxa ezizenez. Atxoste-aldeti ekarten euskuen umeai

Marie Basoko-ren ogia. Atxosteti agertzen zan, astean bein edo, asto ganean, ogi zuridun andrea, lenago emendik ara joana. Atxosteti etorten jakun, urtean birritan gitxienez, gaztedi urduria, santzoka ta kantari, auzoko jaiari bizitasuna emoten.

Atzerrian euskeraz tautik egin barik urte batzuk igaro bear izan dodaz, eta neure eginbearrak ondo betetako, izkuntza banaka batzuk ikasi bear izan dodaz. Augaitik, eta yakiñean gañean, euskera ezetarako eztala gauza diñuenai, euskeraren ugaritasun, txukuntasun, erreztasun, eta beste tasun batzutzaz pitin bat esan gura dautziet.

I

EUSKERAREN UGARITASUNA

Sarri askotan, erdeldunen eta baita euskeldun batzun agoetatik entzuten dogu «Euskerak ondo itz-egiteko beste itz eztaukela, edo daukezan itzak erderatik arturikoak dirala» ta abar.

Esakun oneik guzurrezkoak dira noski. Ikusi dagiguzan:

a) Kirikiño jaunak (Lhande A'ri artuta) *Euzkadín* (1) diñosku euskerak bederatzí milla inguru aditz daukezala ta aditz bakotxak 1700 jokera daukezalako, euskerak 16.300.000 itz aditzean bakarrik daukezala. «[^]Sabéis vosotros, acaso, cuántas palabras distintas tiene un solo verbo euskérico? Mil setecientas palabras. Y como en

* Euskal-Esnalea 17 (1927) 161-166. Artikulu au urte bi aurretik idatzia da, L. Akesolok 14 urte bakarrik eukazala.

(1) *Euzkadi*. 10-Oct.-1925. Temas vascos.

euskera existen unos nueve mil verbos, el que sabe muy bien el euskera usa quince millones y medio de palabras» ^Nongo izkuntzan erabilten dira, euskerazko aditzak daukezan beste itz? Diñue Shakespeare'ek erabili dabezala, munduko idazleen artean, itzik geyen. ^Eta onek zenbat erabili ebazala deritxatzue? 16.000 itz bakar-bakarrik (2). Onen urrengo Milton izan da itzik geyen erabili dabezala idazlea, eta Shakespeare'n erdiak baño ez ebazan erabili. Gaurko jakitunek 4000 itzekaz naikoa ei-dabe. Orain bada esan: es gaurko jakitunek erabilten dabezala itzetatik, Shakespeare'k erabili ebazanetatik baño: 16.000'etik 16.300.000'ra zenbat dago? Eta esango daustazue idazlerik ugariak erabili dabezala itzetatik, euskel-aditzak bakarrik daukezan itzetara zenbat doiezan?

b) Aditzean dan beste ugari da euskera izen eta zendinetan bere.

c) Erderazko «de» esateko, euskerak bost era daukoz, ondoan doyan esaterakoan ikusten dan legez. Erderazko (3) «Viene *del* monte lleno *de* lodo, el dueño *de* la casa *de* Munibe y va *de* Martín a Juan, para preguntar cómo se perdió la espada *de* oro» euskeraz esaten da: «Munibe'&o etxea'ren *oya'nen* yabea, \o'az betea, mendi'tik dator eta ba doa *Marín' gandik* Juanagana, nola *urrezko* ezpatea galdu zan, galdetzeraz».

d) Erderazko *por* euskeraz amaika eratara esan leíteke Azkue jaunak diñuskun lez (4). «Erderazko *por* adirazteko (diño) bi atzizki daukaguzala dinozu: *gaitik* eta *arren*; nigaitik, Jaungoikoarren. Beste zazpi edo zortzi bere ba daukaz gure izkera ugari onek:

1 *Es hecho por* m/=neuk egiña da.

2 *Me tiene por débil*=maka\tzat nauke.

3 *Unos por mar otros por tierra*=batzuk itsasoz, beste batzuk legorrez.

4 *Seis reales por vara*=sei erreal *kanako*.

5 *Por semanas*=asteka.

6 *Se ha ido por aquí*=emQn zear yoan da.

7 *Por unos lugares estériles*=toki agor batzu *barna*.

8 *Por hacerlo mejor*=obeto egite *arren*.

9 *Voy por leña*=egurketa.

10 *iPor qué?*=zergaitik?

11 *iPor qué?* = zsrarren, zerren?

e) Gizakuntzataz Olabide Aba'k dino beste edozein izkuntzak beste itz daukela euskerak.

f) Ugartasuna ezagutzeko batzuk dinue, itzetara bakarrik eztala begiratu bear, esakeretara be begiratu bear dala. Jaungoikoa'ri eskerrak onetan be euskerea oso ugari ta aberatsa dala esan geike. Erderazko «en cuclillas» estako, esate baterako, euskerak Olabide Aba'k diñoanez era oneik daukoz:

En cuclillas: bikoxka (G-T); pikoxka (G-al-and-bid); pikotxen, pikotxean (G-al-bid-orm); totoriko (AN-b-est); totorika (AN-b); totorizko (BN-S); *kubilo* (G-gab); kukubilko (L-donib-get-zib); kukulumixo (B-m); kukulumuxu (B-a-m-o); kukulumu-

(2) *Euzkadi*. 26-Sep.-1925. «^Cuántas palabras se utilizan diariamente?»

(3) *Gramática*, de Campión. Pág. 47.

(4) *Euskera*, II urtea, I z, 56 in.

txio (B-i); kukulumutxu (B-ber-1); kukurubika (BN, Araq); kukuriko (AN, Araq); kukurio (B); kukurizka (G-us); kukurka (R-uzt); kukurumixo (B-m-mond); kukurumitxu (B-d); kukurumux (G-elg); kukuruxka (G-t); kuskurkot (R-uzt); kokorika (BN); kokoriko (AN-b: BN, Sal: G-don: L-ain:-Z).

g) Euskerak daukezan itz-barriak bere erraietatik atarata daukoz eta ez erderak legez beste izkunta batzuetatik artuta; esate-baterako: erderak Ingeleratik artuta esaten daben *tren*, euskeraz *suburdia* esaten da; lateraztik artuta dauken *tranvia* euskeraz *tximist-burdi* esaten dogu; *coche-caballos* erderaz esaten dana *zal-burdia* ta abar.

II

EUSKARAREN TXUKUNTASUNA

Izkera bat txukuna izateko zeatza ta soñutsua izan bear d&u: zeatza lenengo, bestela yakitunei ez-yakielako atsegin; eta soñutsua gero, bestela olerkariei ez-yakielako on-eritziten. Euskera oso zeatz eta soñutsua da.

Euskera izkera zeatza da:

- a) Gauzak ondo ta zeatzez izentetako beste itz daukezalako.
- b) Gauza bakartuak (concretos) eta goituak (abstractos) adirazteko izki bereziak daukezalako.
- c) Aditz gizonak egin dezazken alkartasun guztiak, aditz-yokoan ebatzita dagozalako.
- d) Lengo atalean esan dogun legez erderazko *de* ta *por* esateko itz orreik daukiezan esanai bakotxerako izki berezi bat daukelako euskerak. Eta beste gauza askogaitik (5).

Euskera izkera soñutsua da:

- a) Zarata-itx asko daukezalako: adb: zurrumuru, zurrust, purrustaka, tatarrez...
- b) Sorkunez euskel-itzik geyenak zarata-itzak diralako.
- c) Euskerak soñu asko daukezalako. Gaztelerak daukezan sonu guztiak daukoz, eta ganera d, h, t, ts, tz, ú, x.

III

EUSKERAREN ERREZTASUNA

Euskera onen ugari, zeatz, ta soñutsua izan arren, oso erreza da. Sarritan esaten da euskera izkuntza illuna ta gatxa dala. Guzurra da. Euskerak, bere aldamenetan daukezan izkerakin antzik eztaukela gauza bat da, eta beste bat euskera gatxa dala. Euskerak bere aldamenetan daukezan izkerakin eztauko zer ikusirik, baña euskera berez oso argi ta erreza da.

Euskerak aditz-yokoan dauken naste-borrastea ezin leitekela aitu, dinue gatxa dala dinuenak. Zer esango ete-leukie gaitzzezle oneik, niri erakutsi eusten euskel-

(5) Ona emen euskeraren zeatzasuna erakusteko ekarri leiteken beste gauza bat: erderaz *maitasuna* esateko *amor* esaten da, eta *maitakeria* esateko be *amor*; eta alan beste asko be.

irakasleak, neure eskuetako azazkaletan idatzi eragin eustela euskel-aditz-yokerako izki guztiak eta idatzita gero azazkal bat ondiño geyegi (ganez) gelditu yatala esango ba'neuskioe? Ona zelan idatzi eragin eusten:

Esku batean, aditz-yokera biralkoia (transitibo):

n	g
z	z
d	d

u	—
---	---

st	sku
tzu	tzue
tso	tse

t	gu
zu	zue
—	-e

z

Eta bestean aditz-yoko-euskoia (intransitibo):

n	g
z	z
d	d

z	ya
íra	

t	ku
tzu	tzue
ko	ke

Gañera, euskerak aditz-yoko-aldi bakotzean yoko asko ba'daukoz be, erderako aditz yoko pilloa ikastea baño errezagoa dala deritxat, bi zio edo zurkaitzgaitek: *J'go* aditz-yoko guztiko atalak bederatzi azazkaletan idatzi leitezalako; eta *2'garren* ezuneik (excepción) eztaukelako, gaztelerak *cabere, poner, yacer, erguir, saber...* eta beste aditz askotan, laterak *fero, facio, volo* eta beste askotan, ingeleran *to cut, to lose, to go*, ta beste asko, prantzeran *aller, envoyer, venir* eta beste askotan daukezan legez.

Gañera, euskera oso erreza da atzizketa (declinación) bat baño eztaukelako. Laterak bost atzizketa dauko, eta bakotxean zenbatu ezin leitekezan beste ezune. Gerkerak, barriz, laterak baño atzizketa ta ezune geyago.

Ondiño, euskerea gatxa dala diarduen bat ba'dago, yakin bei ondiño urte bete eztala Eguzkitza iru Y'ak illebetean erakutsi dautsola euskera Belgatar bateri. Ya zein izkera aldi laburragoan erakutsi leikean.

IV

EUSKERAREN BESTE TASUN BATZUK

Euskerak gaurko egunean, beste izkeran ondoan, erreztasun andi bat dauko: au da, idaz-irakur-bide (ortografía) errez-erreza. Eztago euskeraz *v* ala *b*, *c* ala *z*, *c* ala *q...* idatzi bear dan gogoratzen egon bearrik. Ezta pantzeraz eta batezba ingeleraz lez zelan irakurri bear diran itz batzuk egon bearrik: euskeraz ots bakotzak izki berarizkoa dauko, eta izki bakotzak ots berarizkoa.

Alemania'n, Prantzia'n, Erroma'n ta Errusia'n euskerea yakitunak ikesten dabilz: guk aztuko ete-dogu? Eztakit, baña ez aztuten izteko zio asko daukaguz. Ona emen batzuk.

Euskera ez aztu, ezpada ikasi bear geunke:

J'go: Geure izkera dalako.

2'garren: Geure asaben izkera dalako.

3'garren: Euskera ikasiaz antxinako erri-izen, mendi-izen, ta beste gauza askokin, gure asabak zer esan gura izan eben igarten dogulako; geure abizenak zer esan gura daben ikasten dogulako; ta batezbe Ameriketa, España, Prantzia ta beste bazterretan euskeldunak zer egin daben, abizenatik yakin geinkelako, ta beste zio askogaitik.

Euskeldunak: itxiko ete-dogu geure izkera eder, ugari ta erreza, beste baztukaitik?

Ona nik Ameriketan izaniko euskaldun bati oraintsu entzuna: «Atzerrian izan nazen aldi guztian, euskaldun bat izan dot lagun. Euskaldun onek, euskerari amorru andia eutsen eta atzerrian izan giñan aldi guztian ez eban euskerarik egin gura izan. Baña ona emen eriotz aldian zer yazo yakon. Geixotu zan geyago ez sendatuteko; konortea be galdu yakon. Zer yazo yakola gizon ari uste dozue? Konortea galdu ta ber-bertatik, euskeldunen artean biziko ba'litzake lez euskeraz asi zan eta il artean euskera baño ez-eban egin».

Gaur elaiak urteroko abietara datozela ikusten dodazanean eta euskeldunak euren izkera ederra baztarturik erdereka ikasten dabizela ikusten dodazanean, antxinako esakera au burura datorkit:

Txori bakotxari eder bere kabia

Gizon guztiari urri bere zoria.

EUSKELTZALEEN BATZAR GOGOANGARRIA*

1. Euskeltzaleak Bilbo'n

Aurten da 50'gn urtea, Bizkaia'n euskal-idazleen batzar gogoangarria izan zala. Gaur nok ete dau aren gomutarik? Orregaitik, aren barri emotea jakingarri dala uste dot, eta emen doa. Ea berbalapiko baizen lotsagaldukoren baten aozabalkeriak agirian jarten ditugun.

Nortzuk eragiña izan zan batzarra? Zer gai erabili zan eta zer erabagi? Itaun onei erantzuten gure egiñalean ekingo dautsagu. Nortzuk eragin eta eratu eben? Euskalerrriaren onari ta nortasunari eusteko sortu zan talde batek, «euskotar» esan oi eutsoen taldeak.

Labea bero bai bero egoala dirudi. Eta, olantxe, otzitu baiño len egin zan dana. Urrillaren lenengoan Batzarra izan eben alderdi atakoak Zomotza'n. Eta an sortu zan asmoa. An esan da, Euskaldunak euskaldun izango ba'dira, euskeraz egin bear dabela, euskera erabili bear dabela euren artu-emon eta batzarretan.

Bizkaia'n, euskera ez dakien euskaldunik ba-da. Ori dala-ta, askotan euskaldunen batzarrak erdera erabili bear larregi izaten dabe. Lotsari ori al bait lasterren kendu bearra dago. Zelan? Guztiak euskera ikasita, edo zelan edo alan bai beintzat. Andik epe batera (1927'rako), batzar guztiak euskera utsean izan bearke eben. Izan leike —alan iñoen batzuk— erabagi orri askok gogorregia eriztea; baiña egin bearrrekoa da. Zertako ibili euskera dala-ta «au ta ori esaten? Batian euskera orren ederra, orren maitagarria dala; bestian... il zorian dagola euzkorrak eurakaitik, onek biar

* Agur 3 (1972, 67.zenb.) 2; 3 (1972, 68.zenb.) 2; 4 (1973, 74.zenb.) 2; NI-TA-NOR izenpean.

daben lez aintzat artzen ez dabelako. Urrengoan, edonoiz eta edonun euskera erabili bear dogula. Eta ez dakit eta ba-dakit zer. Berriketa utsa! Aspertuta gagoz olako gauzak entzuten. Negarra alde batetik eta negarra bestetik. Besterik ez. Urte asko dira olango gauzak esaten asi gintzazanetik, eta beti gagoz bardin. Au dala ta bestia dala, azkenerako ezebez».

Egoera orri azkena emon bear jakon. Berba orreik ez ete dira naiko orduko beroa noraiñokoa zan asmetako? Baina zer erabagi dabe? Beiñik bein batzar baterako deia egiten jaken idazle ta izlariari, euskeraren alde zelan jokatu obeto ebazteko. Eta nagi barik asi dira lanean. Lenengo ta bein, Urrillaren 15'gnean batzorde bat sortu da, batzarra gertetako. Bizkai'tik eta Gipuzkoa'tik be erantzun dautse deiari. Batzorde orren egitekoa? Euskaltzale guztien eretxiak jaso, batu ta atondu, egingo dan batzar nagusirako. Batzar aurreko lan oni edozein euskelzalek emon leio laguntza: «Euskerearen aldezko zeregin onetan euskaltzale guztiak sartu leitekez: bai euskeldunak eta bai erdelkunak; oneik, erderaz bada be, euren eretxiak bialdu daikiez, gero Batzordeak Batzar Nagusirako euskeraz aurkeztuteko». Batzar Nagusian ez dago erderarik entzuterik; euskera utsean izango da dana.

Azillaren 20'gneraifioko epea emoten jake nai daben euskelzaleai bakotxak bere asmo ta eretxiak Batzordeari bialtzeko: 35 eguneko epea. Eta, Lotazillaren 3'gnean, Batzar Nagusia Bilbo'n. «Euskeltzaliok; Ordua da. Euskeratzazko negarrak eta zotiñak itxi, euskal-arluari gogor elduteko. Ea, bein edo bein, geure euskerea erderen erpietatik ateraten dogun».

Eldu da Lotazillaren irua, Xabier deunaren eguna, santu euskaldun baten eguna, ain zuzen. Berariz aukeratua dirudi. Ordurako maia bete lan eldu da Batzordearen eskuetara alde guztietatik. Eta eretxiak naiko eztirala, an dira ainbeste euskeldun gartsu euren eretxiak eta usteak aurrez aur agertzeko. Euskera utsean diardue. Nork esan dau orduko aldietan ez zala erabiltzen euskerarik euskotarren batzarretan edo erdera zala beti nagusi?

Esan dagigun orduko berbakaz: «Orain arte galdu dogu euskerea gora ta bera erabilten. Geyenetan erderaz entzun doguz goralben orreik». Xabier deunaren eguneko batzar orretan euskerea besterik etzan entzun. Eta ez euskerea goratzeko, euskereari indar emoteko bideak billatu ta argitzeko baiño. «Orrexegaitik baiño ez ba'da be, gomutagarria izango da Batzar au euskeltzale guztientzako. Orain arte ez da olango gauzarik egin. Beraz, orixe baiño besterik lortuten ez ba'da be, zeozer lortu dogu Batzar orregaz».

Jaso daiguzan berba bi orreik bakarrik gaur: «Batzar gomutagarria». Gomutagarria, benetan. Ukronian bizi nai ez dabenentzat. Ukronian bizi nai dauan batek ez dau, bada, esan, bera munduratu arte ez dala olangorik jaso Euskalerrian? Benetan Ukronian bizi bear, iñoiz izan ez dan munduan esateko. Ukronioski ori Polonia'tik etorria ei da, baiña oraingo Polonia'tik, antza. Eta an oituta dagoz errusiarrak entzuten eurak dirala munduan aurrerapen eta gauza barri guztien asmatzaille. Ukronioski onek be arein burua daroa lepogaiñean. Eta bera izan bear bide barri guztien asmatzaile bakarra. Norbaitek esango leuken lez: ez da «kontzientzia kritikoa» eukitera eldu, ta eltzeko itxura onegirik be ez dau erakusten. Batez be —norbait orren berbak erabiltzearren— ez dau ikasi «bein egin dauan autapenari gero ta argiago ta sakonkiago eltzen, zentzuz eta gizabidez, apaltasunez eta alkar-izketaz jokutzen; goitik berako

inposizioak onartzen ditu», bere anai errusitar asko oituta dagozan lez. Zer besterik egin leike Ukronian bizi nai dauanak?

Jatsi bedi Ukroniatik orain berrogei urteko Bilbo'ra, ta begirik ba'dau, an ikusiko dau beste batzuk begi obeak euki ebezala berak baiño, euskerearen gatxak eta osabideak ikusteko.

Gogoan izan daigun 1922'go Xabier deunaren eguna, eta ez aitzu egun orretako Bilbo'ko Batzarra. Baiña zer esan zan an, eta zer erabagi? Urrengorako isten dogu gai ori.

2. Orain 50 urte

Lehenengo idazlanean ikusi gendun zelango girotan egin zan, 1922'ganean, Xabier deunaren egunean Bilbo'n, euskalzaleen batzarra. Giro bero sutsua ordukoa. Baiña batzar ori eratu ebenen berotasuna ez ebillen itsurik. Euskeraren gatxak ikusi ta osatzeko ez euken areik gaurko maixu-usteko askok baiño argitasun eta zentzun gitxiagorik. Ez ziran Ukronia'n ez Utopia'n bizi, euren oiñen eta lurraren gaiñean baiño, ta orregaitik, iñongo ez iñozko ukroniarrai baimenik ez argirik eskatu barik jo eben bide onera.

Ez ziran batu iñori miñik emoteko be, ez gure gatxen errurik iñori ezarteko, ez zarren eta gazteen artean eztabaidarik ez alkar ikusi-eziñik sortzeko. «Auxe da gure egoera (esan eben), ez da ona, ez da pozgarria; okerra da. Zuzendu daigun, obetu daigun. Geuk egingo ez doguna ez dasku beste iñok egingo. Asi gaitezen zerbait egiten, eldu daiogun lanari, eta jokatu dagigun zintzo, jator eta garbi».

Elburu on ori gogoan ebela egin eben batzarreko lana. An agertu ziran asmoak eta erakutsi ziran bideak, an artu ziran erabagiak, artikulutxo baten zeatz azaltzekoak ez dira; baiña laburkera bat egin bearrean gagoz. Batzar atako gizonen eretxian, arlo ikaragarria egoan euskalzaleen aurrean guztien alegiñak eskatzen, euskereari bizirik eta indarrik emongo ba'jakon. Eta egitekorik andienetara, noraezeko ta bearrezkoe-netara zuzendu ebezan begiak. Zeregin asko aurkitu eben errietan, kalean, etxeetan, eskoletan, batzokietan, eleizetan, aldizkarietan egiteko, bai berbaz eta bai liburu idatzien bitartez. Emon daigun zerbaiten barri:

Zer egin errietan? Ez zan egoera bardiña erri guztietakoa. «Batzuk euskeldun utsak dira; beste batzuk, euskeldun eta erdeldun, naste; beste batzuetan ez dago bertako euskeldunik, dagozanak beste errinen baten jaiok dira».

Euskeldun utsak diran errietan, euskereari lenengo maillak emon bear jakoz; an dagoanak eta ara doanak ez begie euskera besterik erabili; auzo-ikastolik ba'da be, eurentan euskerea sartzeko bideak lortu bear dira; teatro-lanen bitartez, itzaldien bitartez, eta olan, euskeldun utsak diranak euskelzaletu beitez, eta euskelzale iraunazo bekie. Ikastoletan bakarrik ez, erriko batzokietan be Euskelerria zer izan dan eta zer dan irakasteko eskolak sortuko dira, euskerea bera irakastea aitzu barik.

Euskeldun erdeldun diran errietan, euskereak ez dau iñolaz erderaren atzetik ez azpitik agertu bearko. Batzarrak eta jaietako itzaldiak geienak euskeraz izan ditezala, eta euskerazkoak ez daitezala izan beragoko maillakoak. Besterik ezean, erri-ikastolak edo udal-ikastolak sortu beitez, eta eurentan al dan guztia euskeraz irakatsi.

Euskerea kalean eta etxean. Non nai, leku guztietan erakutsiko dau euskeldun bakotxak bere euskeltasuna. Etxean gurasoak izan bear dabe umeai onetan ikasbidea emoteko ardurea. Euskeldunak beti ta edonon euskera egingo dabe, bape lotsa barik, eta danak entzuteko eran: «Ja Bilbao ta orretaiko emak euskel-usaiñez betetan doguzan».

Bilbo'n da batzarra, eta Bizkaia dauke, batez be, asmotan: «Euskerea biztu, indartu ta zabaltzeko alegin guztiak Bilbao'n bertan izan bear dira eta Bilbao'koen artian. Alperrik izango da edo beintzat alegin geiena galduten da, zeregin ori alderdi guztietara zabaldu ezkerero. Bidia Bilbao'k erakutsi biar dau. Eta an euskeldun utsentzako batzoki bat sortu bear ko litzeke, euskeldunak euskal-girorik osoena izan dagian». Osterantzean, Bilbao'n dauke gure erri erdeldunak eredia. Bilbao'k be badauko bat eta areitan ez dago euskel-ikastolarik sortu eziñik, umeentzako erriko agintariak sortu ta ordaindurik. Batzokiak euren kontura bardin egingo dabe. Olako errietan gurasoak ardurarik zoliena bear ko dabe izan umeak kaleko erdel-girotik zaintzen. Euskeldunak nortzuk diran jakiteko eta alkar ezagutzeko beiñolako euskal-orratzen oiturea berbiztutea ez legoke txarto.

Eskolekin zer egin? Or dagoz Bizkaia'n auzo-ikastolak, Bizkaia'ko Diputaziñoak sorturik. Orreitan, Gernika'ko Euskal-Ikaskuntzaren Batzarrak erabagia bete bear ko da: ikasteko guztiak euskeraz emon, euskeraz irakatsi. Alango eskolarik ez dan errietan, erriak erri-ikastolak edo udal-ikastolak eukiteko eskubideari eutsi bear ko dautso eta eurretan euskereari eta euskal-nortasunari jagokon lekua emon.

Gauzarik beiñena eta garrantzitsuena da euskal-irakaslerik naiko eukitea. Eskoletan tituludunak, irakasteko agiridunak bear dira, eta euskaldunik ezean, sarriegi erdeldunak sartzen jakuz. Orra or arrisku andia. Bizkai'ko Diputaziñoak onetan bere bideak artuta daukaz, irakasleak sortzeko. Bide orretatik jo bear ko da. Gero, eskola nausia, Goi-ikastola bear-bearrezkoa da Euskalerrian, eta agintarien aldetik ori lortu nai dabenai laguntza guztia emon bear jake.

Baiña, «Irakaskintza euskerazkoa izateko, ikastola ta irakaslariez ganera, euskel idaztiak be bear dira... Zelako bidia artu leike euskel-idaztiak len bai len argitaltzeko?» Euskeldun jakitun eta irakaslerik asko ei dago bazterretan. Eurak arlo onetara ekarte ez da ain gatx izango, naiz euskel-liburuak eragiñez, naiz erderatik euskeratu-erazoaz.

Erriko batzokietan zer egin? Euskerearen zaintzaille, euskel-giroaren berotzaille ez ba'dira, ez dira ezer. Eurak izan beardabe ikastolen eusle. Eta eurretan irakastaldiak izango dira, euskerea ta euskalduntasuna irakasteko. Andik danak urten bear dabe, egi au buru-biotzetan ondo sartuta: «Euskerea ez dakian euskotarra ez dala benetakua».

Euskera, aldizkari ta egunerokoetan. «Aspaldian euskerea sartuta dago aldizkari ta egunerokoetan, baiña ez, bear litzaken beste. Egunerokoak sortzeko oindiño gauzak gordintxo dagoz. Baiña euskeldunentzako dan eguneko batek ez dau naiko egiten euskereari baztertxo bat emonaz; lenengo orria eskeiñi bear ko dautso: euskerazko arlua lenengo ezarriko da...» Eta zelango euskerea erabili: «Euskera errez-erreza, euskeldun guztiak irakurrilian ulertzekua... Obe da noizian bein erderakada batzuk imintea, euskera garbia baiña ulergatxa baiño. Euskel-atalean ez emon lekua izkirimiri ta olakoai bakarrik; mundu guztiko barri ta arazoai be bai. Lenengo, jakiña, Euskalerriko barriak, gero laterri ta ludi guztiko garrantzitsuenak». Baiña, batez be,

Bizkaia'n asteroko baten bear-izana ikusten dabe: «Asteroko ori, Donosti'ko Argia'ren antzekua izan bedi, au da, euskera eruatekuak».

Umeentzako aldizkariak, eta edergarridun idaztiak ta irakurgai atsegíngarriak ez dabez aitzurik itxi. Eleizetan, barriz, zer egin? Onen goraberean be ba-dauke esatekorik; baiña gai au ta beste olakoren bat urrengorako itxiko doguz.

Esan doguntxotik atera geinke zelanbait, nondik nora jokatu nai izan eben orain berrogeitamar urteko euskatzale areik. Ez dogu or aurkitu euskeraren goragarritzko barriketa erorik; ez dogu ikusten or, euskotar izan nai utsezko arrokeri-putzik. Areintzat euskotar izateak euskaldun izatea bear dau, ta berez dakar. Egia da, asmoak asmo, ez zala gauza andirik egin. Andik laster, inguruko politikak bide barriak artu zituan urte batzuetarako, baiña ez batzar aren erruz.

3. Irugarrenez gara emen, orain 50 urte alderdiak euskeraren onerako eragiñik, euskalzaleak egin eben batzarraren barri emoten. Amaikatxo urre-eztegu gogoratu ta ospatzen da urtero; Bilbo'ko batzar orrenik ez da ospatu. Gu, beintzat, aren aitamena egiten aleginduko gara. Orduko euskalzale arein zintzotasuna ez genduan aitzuteko; ez genduan aitzu nai. Gure gomuta onen aurrean, ageriago gelditzen dira beste batzuen ixilla ta zitalkeria.

Euskalerrri'an alderdiak sortu eban giroa ta aurrera eroian lana ikusi ta aintzat euki bearrean, zer ez dabe zabaldu ta zabaltzen? Onetan, Ukronioski edo dalakoa, ez da azken geratu, buruan zentzunik eta bekokian lotxarik daukenak iguindurik izteraiño. Orrek egin dauana egin leike ez-jakiñez edo alperkeriz, baiña doillorkeriz eta zitalkeriz be bai. Biak ez ete jakoz jazo Poloni'tik-edo etorri dan orri? Ez-jakiñak eta zitalkeriak, alperrieriak eta doillorkeriak ez dauke, beintzat, alkarren lagun bizi eziñik. Joko errezegia da, barriz, ames egitea: norbere buruan arerio batzuk sortu, eta gero, eurak jolasgarri arturik, norbere ustez lotsagarri ipiñi ta azpiraturik iztea. Kijote-burrukak, umekeriak, baiña gizarterako balio eztabenak. Gure artean olango putzez beterik dabiltzanai, zerk ustu ete dautse burua, ta ez dakit zelango txoriz eta aospolokeriz bete? Untzeak mailluz jota baiño gogorrago sartu jakeez iru edo lau berba: burges, kapitalista, atzerakoi ta abar, eta or dabiltz nori zein jaurtiko; nori zein txapel gaiñean ezarriko. Oraingo ta lengoai, euren gogoko diran bakar batzuk kenduta beste guztiai.

Atzerakoi, burges, kapitalista ete ziran, bada, Bilbo'ko batzar atako euskaldunak? Arein erabagiak laburtu besterik ez doguz egin emen; baiña oraiñarteko idazlan bietan esanetik naiko argi gelditzen dala uste dot atzerakoi ez zirala. Kapitalista? Noz eta non izan da kapitalistarik benetako euskalzale? Euskereak ez dau kapitalik sortzen eta anditzen. Kapitalisten artean, zabarkeriz edodiru-zalez, euskeraren arerioak aurkitzea, errezagoa izan da beti. Burgesak barriz, nondik nora? Jakitekoa izango leiteke berba orregaz zer esan nai daben. Madrid'goak bein asmatu eben lez, gure erri euskaldunak «burgo podrido»tzat ete daukez? Edo Ukraniano oneintzat, euskaltzale izatea bera ete da burges izatea? Euren buruak garbitzearren-edo, orrenbestekorik be esaten dabe, bai. Eurak, burges-putzak erabili, gutariko edozein baiño burgesago bizi, ta gero, burgeskeria iñori ezartea ez da asmakizun txarra. Ez dot aurkitu burgesik

Motriku, Donosti, Ondarru, Markiña, Durango, Larrabetzu, Bermeo ta beste ainbat erritik anaitasunean batu ziran euskalzale arein artean.

Baiña onein tentelkeriak itxita, goazen aurrera batzar atako erabagietara, irakurleari lengoan agindua emotera: Euskerea eleizan; auxe zan argitu barik itxi genduan gaia. Onegaz batera, beste bat be ikutuko dot: moja-praillen ikastetxeena. Oneintzat, batzar atakoak labur baiña garratz itz egin eben: «Geienetan, Euskerearen ildegiak dira. Orain artian jazo dana ez daitela aurrerantzian jazo». Olakoetara ez seme-alabarik bialdu, ez eurai txakur txiki bat emon. «Arerio diranen ixendegi bat egin biar da eta ez eurokaz koipekerietan ibili. Jatekorik emon ez eta kito. Sabela baiño, besterik eztauken ezkeru, sabeletik jo». Arrigorriaga'koak lez.

Eleizgizontzat, bigunago dagoz; zuzenago ta ardura geiagoz azaltzen dira. Gogoan dauke, antza, euskereak eleizginoai asko zor dautsela; gure izkuntzak nortasunik iñon gorde ba'dau, eleizan izan dala batez be; eleizgizonak egiña euskeraren euskarri geiago izan dala galgarri baiño. Eleizgizonak Euskalerrri geiengan ez euken erriko arazoetan sartzerik. Bizkai'ko legea argi ta gogor dago orretan. Erriko seme izan arren, abadeak eragozpenak eukezan erriko arazoetarako. Askok aiztuta dabe au. Orregaitik da arrigarriago niretzat eleizgizonak euskereari eusteko egin ebena.

Eleizgizonak ez ziran beste munduren batetik jausiak, eta gitxiago beste non-baiteko oitura ta izkuntza sartzeko etorriak, askok nai leukeen lez. Gure errian erdalgiroa sartzan abadeak baiño askoz errudunago izan dira, aurki, beste erritar batzuk: dendari, merkatari, politikolari, lege-gizon, agintari ta abar. Abadeak, errian sortuko zan erdalgiroaren atzetik geiago dabiltz aurretik baiño. Eta euskal-giroa sartzan eta zaintzen eurak dira aurren. Eleiz-gizonak euskal-literaturan izan daben parte ain nabarmena ta jakiña kontuan artu barik be, ezin leio eleizari ez eleizgizonari euskera galtzearen erru andirik bota.

Egi onen jakitun-edo ziran orain 50 urteko batzarrekoak, dirudianeaz, eta ez eutsen eleizgizonai iraiñik egin nai izan. Eta zer diño? Lenengo ta bein, ontzat emon eta aintzat artu dabe Gernika'ko batzarrak orretan lentxoago erabagi eban dana. Eta gero, oiñak lurraren gaiñean sendo jarriaz, jarraitzen dabe: «Askok dabiltz esaten eta esaten, eleizgizonak eleizan euskeraz egin bear dabela. Ondo dago. Baiña zer jazoten da? Abadeak, pulpitura igonda, euskalzaleak barik erdalzaleak ikusten ditu askotan, euskeraz otoitzak egin arren, erderaz erantzuten dautse. Ori jazo ez dedin, goazen geu eleizara, ta euskeraz egin daiguzan otoitza, erderaz egiten dauanari euskeraz erantzun daiogun. Pilloka ta moltzoka joan gaitez an olantxe, eta eleizan geien eta nagusi gareala-ta, eskatu daigun dana euskeraz egiteko».

Ori da zentzunez berba egitea. Gizon areik txapelpea ez euken utsik be. Jokabide artezena, garbiena eurak erakusten dabena. Ziri ederra gaurko egunetan be, gure gatzen errua besteri ezarri nai leuskien batzuentzat; batez be eleizgizonai ta eleizeari.

Euskeraren etorkizuna euskaldunen eskuetan dago: abade nai osteango euskaldunen eskuetan. Orain, gitxien uste geunkezanak eskatzen dautsez kontuak eleizeari. Gauzarik bitxienak entzun oi ditugu. Norbaitzuk, katoliko zintzo «pratikante» diralako atxakiaz, euren gogoko bideak ezarri nai leuskioez eleizeari ta eleiztar guztiei. Orain 50 urte, euskera arloan ba-zan eskola ezbaridiñik, edozeiñik ondo dakian lez; batzar atako euskalzaleak be ba-euken eurenik. Alan eta guzti be, iñork ez eban eskatu eleizan euren euskerea edo eskolea sartu bear zanik. Euskereari berari geiago begira-

tzen eutsoen euren buruko eritxiari baiño; euskerearen biziari maitasun eta lotsa geiago eutsoen oraingo sorgin-ikasle ta maixutzako batzuk baiño. Orduko Euskaltzaindiak be, euskeraren zaintzaille ta ez jabe izan nairik, joera bardiña eukan.

Orain, ostera, eukera gaxoak guztien laguntza ta batasuna bearrago dituan one tan, euskera batuaren atxakiaz, nongo deabruk edo nongo sorgiñek asmatu dabe eukaldunok eta euskerea banatuago egiteko asmakizun negargarria? Nork eskubiderik emonda dabiltz or alkar erotzen diarduen batzuk, zin eta juramentuak tartean dirala, ez dakit zelango bandera edo ziztrinkeri bat eleizan sartu bearrez? Euskera salbatzeko erea ete da ori, ala euren ziztrinkeriak edo zikinkeriak guztioi burutik bera botateko? Olakoen eskuetan ba'dago, esku argietan dago euskeraren etorkizuna! Oraintxe be, zer lortu dabe, praille gaixo seta gogorreko bat menpean eta jostailu artuta, euskaldunok erdaldunen aurrean barregarri ipintea baiño, gure arteko, erdal-egunkarietan, pellokeri batzuk zabalduta?

Ba-daukagu zer ikasirik lengoetan, lengo euskalzaleetan, eta lengo Euskaltzaindian. Euskerearen bizia ta etorkizuna eztaiguzan itxi norbaitzuen seta gogorraren pentzutun. Gureagaz egin nai dabena ez dabe iñongo errietan euren izkuntzarekin egiten. Ez daigun erria, benetako erria, alperrik nekatu, ez txotxolo batzuetan ikusi. Lotsa geiago izan daiogun berari ta bere izkereari, gaur bizirik dirauan bakarrari. Beste euskera dalako ori, ez dabe bere maisuak be egiten. Ain da gauza illa. Ez gaitezan geu euskeraren gaiñetik jarri. Gogoan izan dagigun autuan darabilgun batzarrekoak iñoena: «Gu ilkorak gara, bera ezilkorra; gero ta senduago, gero ta ikusgarriago» iraun dagiala.

EUSKAL – EGUTEGIRIK ZARRENA*

Urte barrian sartu barri gara; ta nor ezta ibili egutegiren baten yaube egin gurarik, edo nori ezteutsoe olango orma-apaingarriren bat opatu? Iya ezta kigu egutegi barik biziten: erloyuak bear doguz, orduen goraberea yakiteko; egutegiak nai doguz gure etxebarru ta lantegietako ormetan, egunen igesa geure begiokaz ikusteko.

Aukerea daukagu, gañera, eurokaz; tayu ta yaza guztietakoak eskintzen deuskuez: batzuk, eguneko orri bana kentzekoak; beste batzuk, illero orri bana daukenak; beste batzuk, ostera, liburu-antzean irakurri ta osorik gordetakoak.

Noizik onakoa dogu gure artean egutegia? Itaun oni erantzuteko eztogu aintzat artuko ez Leizarragak bere aldian, amaseigarren gizaldian, atera eban «Kalendrera», ezta arrezkero elex-liburu batzuetan iñoz agertu dan egutegirik; Leizarragarenak eta oneik besteok oraingo egutegien antz andirik eztauke.

Bizkayan zarrentzat 1859'garrenean egiñikoa ixentau eban Julio Urkijok: orain eun da iru urtekoa. Zartxoagoak dira Frantzia'ko euskaldunak ateratako batzuk. Orain eun da amalau urte (1848) asi zan Etxeberri abadea bere egunari edo almanaka ateraten; berau egon da euskerazko egutegietan zarrentzat askoren ustean.

Gitxik yakin dabe, iñok bai?, Bizkaian eta bai Euskalerrri osoan, Bilbo'n arabar batek egiñikoa dala euskerazko egutegirik zarrena. Gitxik dakie, nire uztez, egutegille orren izenik bere: Yose Paulo Ulibarri. Gitxiagok dakie, barriz, euskaldun andi au Okendo'ko semea, Arabarra zanik. Okendo'n yayoa dogu berau, 1775'garren urtean; Abando'n il zan 1847'n. Abando'n aberesendatzalle (albaiteru) eta zaldierazle izen andiko izan zan; bertako agintari (bigarren alkate antzeko) bere bai lau aldiz. Bizkayan ezaupide ta adiskide andiak zituen; Gemika'ko batzarretan bere iru bider batu zan Bizkai'ko gizon eta agintaririk nausienakaz.

* Jesus'en Biotzaren Deya (1962. 17.zenb.) 23-24; *Axmutil* izenpena. Izen au L. Akesolo jaio zan Oba auzoganeke atx-txuntxurra da.

Baña, batez bere, euskaltzale gartsu eta euskaldunik zindoenetarikoa izan gendun berau. Munduko izkuntzetan euskerea langorik etzan beretzako; berak zemko berbetea deritxo euskereari. Entzun zelan diñoskun bertso oneitan:

Gure euskera maite,
jakintsu eztia
da zeruko berbia
ta zeruti otorria.

Ikusi daigun, ba, zelan sortu zan bere egutegia, euskerazko lenengo egutegi ori. Bein euskera zala ta etzala, eztabaidea sortu zan bera ta kanpotik etorriko erdaldun baten artean. Erdaldun orrentzat euskerea etzan ezetako gauza, egutegitxo bat egiteko bere ez. Ezetz?, erantzuten deutso Ulibarrik; zortzi egun bami bayetz bat neuk egin. Zer gurozu yokatu «Sillututeko» lanak, irarteko gastuak ordaintzeko gertu zagoz? —Bayetz— diño erdaldunak. Ulibarrik, geyagoko barik, eldu deutso bere lanari, eta arik egun gitxi barru eginda egoan egutegia.

Ona bere izena: «Euskerazko egunaria erderazkotik itzuliya Bizkaia, Guipuzkoa eta Araba'ko Probintziaentzat 1815'garren urterako. Bilbaon».

Erdaldunak ez eutson bere berbeari eutsi; egiñiko zor guztia garbitzeko ardurea Ulibarri'ri itxirik, Abando-inguruetatik alde egin eban, erbestera yoan zan atzera: Oviedo'ra, lenengo, ta andik gero Inlaterra'ra. Ulibarri'k bere «bolsie edo zizkue» ustu bearra izan eban, zorrari berak bakarrik erantzun eutson. Orrexek atzeraturik, urrengo urtetan, Napparroatik eta be eske asko izan arren, ez eban egutegi barririk atera.

Orra noz ta zelan sortu zan gure lenengoko egutegia, beste ezagun doguzanak baño gitxienez ogeta amairu urte zarragoa ta lenagokoa.

Bere Egilea: Yose Paulo Ulibarri.

Araba'ko semea.

Okendo'n 1775'n yayo ta Abando'n 1847'n il zana.

Orain direala eun da berrogeta zazpi urte egin eban bere egutegia edo egunaria.

Urte barri onen asikeran gogoratu daigun maitez bere izena.

ALBISTARIEN SORREREA (Euskalzale, 1897 - 1899)*

Ezin geinkez larregi arrotu. Ezin geinke esan euskerazko albistariak (astekari naiz osteango aldizkariak) oiartzun andirik, entzute andirik daukenik munduan.

Nekez bizi, irakurlegitxi batzuk nekez euki, eta, orrez ganera, ixiltasuna, aintzat-eza inguruan.

Urte bete da liburu bat agertu zala, Euskalerrian gizaldi onetan izan diran aldizkarien barria emon gurarik. Euskalerriko aldizkaritzaren atsegina-atsekabeak azaldu nai zituen. Eta euskerazko aldizkarien izenik be ez ekarren. Euskera utsezko batenik be ez gero.

Euki, guztitarikoak euki izan doguz: asterokoak, illerokoak eta egunerokoa be bai bat, EGUNA, iru-lau illabeteko bizia gitxienez izan ebana. 1937'n, maiatz-erdirarte.

Esan dodan liburuan, ez onen ez besteen aitamenik ez dugu aurkitzen. Euskera-erderazkoak batzuk, bizi laburrekoak izan arren, luze ta zeatz aitatzen ditu; euskera utsezkorik bat bera be ez.

Bizkaia aurrelari

Bizkaia izan da emen euskal-albistaritzan aurrelari. 1897' sortuko zan EUSKALZALE.

Bidasoaz andiko euskaldunak ba-euken ordurako eurena, ESKUALDUNA ize-nekoa, eta izen batez edo bestez, gaurko egunotararte izan dau jarraitzaillerik.

* Zer (1979, 17. zenb) 8-9.

Iparraldeko euskaldunak doguzalakoak, beste gauza askotan lez, emen be aurrelari izan doguz. Gu baiño lenago itxartu eta jagiak dira.

Bakotxari berea. Eta bakotxari berea emotea besterik ezta, nire ustez, emetikaldean aurrelari, Bizkaia izan dogula esatea.

Azkue zanaren lana

Azkue andiari zor deutsogu. Azkue, irardausi andiko gizona, egin eta eragitekoa. Nora ezta elduko aren eskua? Non ezta agertuko aren bultzakadea? Abade-Iana, irakasle-lana, azterketa-lana, musika ta antzerti-arloa, zer eztau aurrean eroango?

Lenengoko baten, Arana Goiri lagun, *La Abeja* aldizkaria sortzen dau. Arana'k erderaz eta Azkue'k euskeraz diardue. Laster banandu dira eta bion aldizkaria errekaradoa.

Arana Goiri'k, euskerarako sustrai sendo biziagorik euki izan baleu, berak atarako eban, bai, euskera utsezko aldizkaria be. Zer izan bear eban naiago? Baiña bera zan lango euskaldun barri batentzat, aldatz-goregi egoan egiteko ori. Erdera be bearezko eban inguru erdaldundua euskalzaletuteko.

Bestelakoa gendun Azkue. Euskera bizi-bizia, iturritik arakoa, erion. Eta beronek sortuta, orra non agertzen dan, 1897-ko urtarrillaren iruan, EUSKALZALE. Eta ona asteroko onen asmo batzuk:

«Izen onegaz astean-astean urtengo dau argitara zortzi orrialdedun paper batek... Erderazko gauzarik ezta agertuko, guztia izango daeuskeraz egiña... eta arduratsuen. Baita arimako egi egokiak bere, aleginez erakutsiko doguz. Ganera, ipuiñak, asmoak, ikusi-makusiak, Euskalerriko eta erdallerrietako albistak eta jazoerak; eta, noizean bein, *zirt-zart*, moduz ta polito, bear dabenari emotea bere izan leike».

Lenengoko geia, zenbakia, esku batek egiña da, Azkuek bakarrik. Urrengoetan esku asko agertuko dirala iragarten dau.

Euskalzale-ko idazleak

Esan bearrik ete dago? Astekari au, geiena, Azkue beraren eskutikoa da. Azkue gaztearen euskerarik biziena, beroena, zantsu eta giartsuena an daukagu.

Bein izen barik, bein ezizenen batedo bestegaz (musikadanean, Azkue, orraitio), berak emoten deutso bizitasunik andiena asterokoari. Azkue-ren ango lanakaz, gero, liburu bi agertu dira: TXIRRISTADAK, bata, eta bestea, oraintsukoa, *Ipuñak* ize-nekoa.

Baiña Azkue eztago bakarrik. Orduko euskaltzale eta idazlerik entzutetsuenak ditu laguntzaille. D. Agirre, Arrese Beitia, E. Arrese, Etxegarai anai biak, Iñarra, Artola, Alfonso Zabala, Antia, Urruzuno, Gerra, Mokoroa, Zamarripa eta abar... Antxe asi zan Kirikiño be idazten.

Idazle zarrentzat be bada lekua: Kardaberaz, Mogeldarrak, Uriarte, 1596-ko esaera zarrak. Antxe ezaguerazo eban Azkue'k Barrutia aramaioarraren *Gabon Gaberaho Ikuskizuna*.

Aísekabezko **egunak** eía eriotzea

Iru urtez zorionezko bidaldia daroa «EUSKALZALEK», edo, beintzat, oker andi bakoia. Eta gitxien uste zanean, bapatean, sekulako plaustadea! Astean astean kalera zintzo zintzo etorrena, 1899ko iraillean amabost egun egin ditu urten barik.

Zer jazo da? Bilboko Gobernadore jaunak bere eskuak ezarri deutsoz ganera.

Zer dala-ta? «Por no haber llenado ciertos requisitos de la vigente Ley de Imprenta» ei difio.

Artikulu orrek edo lege orrek zer agintzen eban? Aldizkari bakotxaren artez-kariak, argitara urtetaldi bakotxeko, iru ale aurkeztu bearko zituela, berak izenpetuta, Probintzi bakotxeko Gobernadorea-renean.

Zer zan Azkue'k egiten ebana?

Iru barik, gitxiago aurkeztu, ala beranduago aurkeztu, ala bapez aurkeztu?

«EUSKALZALE»k eztau argitasunik emon.

Legea barri samarra zan, eta, bear bada, ez eutsen oraindio jaramon andirik egiten. Bear bada, Gobernadoreak berak be ez eban orduxerarte asteroko onen eze-lango barririk euki, eta baten baten salakuntzatik jakin eban lenengokoz.

Bai, errien baten asarre samar ebillan alkatetxoen bat, astekari orretan, «moduz ta polito polito», zirt-zartekoen bat artu ebalako. Eta Gobernadoreak eun pesetako (eun makurreko) multea ezarri deutso «EUSKALZALE»ri.

Euskera ta erdera

Eta ori naikoa ez zala, beste agintekeri bat, gobernadorekeri bat egiten dau. Euskera utsean agertzen asteroko orri galazo, euskeraz idazten zana erderaz be ipiñi-azo.

Oregaitik urrengo zenbakia, amabost egun geroagokoa, bietara agertuko da, euskeraz eta erderaz, euskerazkoa erdaraturik. Eta, olantxe, andik aurrera, urtea amaitu arte.

Gobernadoreak ez eban iragarri legearen zein artikuluk eskubidea emonik agin-tzen eban ori. Bere kolkotik atera eban, antza, erabagi ori, bere barruko borondate txarretik, euskereari eta euskaldunai eutsen amorrutik.

Aitatu barik, zigorra

Andia da, orraitio! Euskalerriko aldizkarien barri emon nai danean, euskerazko aldizkariak ez tira aintzat artzen, diranik be ezta aitaturik, eztabe izaterik. Baiña eskua ezarri nai jakenean, zigorra emon nai deustenean, dagozan legeak ez tira naiko eta Gobernadoreak bereak asmauko ditu, zigorra gogorrago egiteko.

Euskereak agintarien aldetik eztauala eragozpenik eta gogorkeririk izan diñoenentzat, emen dakargu Bizkaia'n lenengo euskerazko astekari oni jazoa.

Atsekabe mingarri onetan, orraitio, pozgarritxo bat be izan eban Azkue'k, as-tekariaren artezkariak: multearen zorra omiduteko, laguntasuna eskatu eutsen irakurleai, baiña errealetik gora ez eban iñok emon bear.

Zergaitik?

«Izen geiagok lekua izan daien».

Laster agertu ziran seireun inguru emoilte, 10, 15, 20 eta 25 zentimoko eskupekoakaz.

Euren artean izan ospetsu asko: Franzisko Iturribarria, Alfredo Rochelt, Mian-golarra, Tomas Meabe, D. Agirre, Arrese Beitia, Urruzuno, Bustinza... Bidasoaz bestaldetik be bai: Julien Heguy eta abar.

Eriotzea

Pozgarri izan zan irakurleen erantzuna. Baiña «EUSKALZALE»k ez eukan olan bizitzerik. Urtea amaitu arte, arpidedunakaz zorrak garbitzeko aurrera jarraitu eban, euskeraz eta erderaz gauza bera emonaz.

Baiña non zan, non gelditzen zan asieran asana: «Guztia izango da euskeraz egiña»?

Lotsari andiegia, baltzegia zan euskal-aldizkariari egiten jakona. Egoak ausita gelditzen jakozan; lumak jausita gelditzen jakezan idazleai be. «Baretaldia etorri arte itxaron» egin bear zala iñoan batek. Etzan agertu baretaldi ori.

Idazle askoren lanak moztu bearrean aurkitzen zan iñoz artezkaria. Onan iñotson bati: «Urrengo berba guztiai kuratzea egingo leuskioe *norbaitek*, eta naiago dogu aurretiaz berbok kendu».

Egoera gogorra! Olan ezin zeitekean jarraitu ta ez eban jarraituko. Eta urrengo urtean ixilik, ilda gelditu zan astekaria.

Urte bi geroago, gauzak obero eginda egozan, nonbait. Eta Azkue'k berak, astekari barri bat aterako eban, *Ibaizabal* izenekoa. Ez eban luzaro iraun, urte bi.

Azkue orduantxe asi zan bere Iztegi nausia argitaratzeko lanetan, atzerrian ain zuzen. Andik, ain urriñetik ezin eutsi emengo astekariaren biziari, ezin geiago irau-nazo.

Nik eztakit esker onik erakutsi jakon Azkue'ri eta merezi dauan añako autormenik egin izan jaken berak sortutako astekari bioi.

Erdaldunak ez eze, euskaldunok aitzuegi daukaguzala-ta nago. Esker obea zor deutsegula uste dot. Eurak ez ete dira izan geroagoko astekarien amama zarrak, ainbesteko oiñaze eta erdi-miñen artean Bidasoaz onantzako euskal-albistariari sorrera emonak?

IBAIZABAL*

(Asteroko orri albistaria: 1902-1903)

«Gure euskera maiteak albistari edo periodiku bakartxo bat ez eukiteak minduten izan dauz euskeldun zintzo askoren biotzak. Eta minduteko gauzea da, izan be, Europa guztiko izkuntzatan albistariak ikustea, geu bakarrik gareala ainbakoak».

Samintasuna ta lotsaria erakusten eben berba onek aurrean zituela, asi zan agertzen an, gizaldi onen asieran, 1902garren urtean, euskerazko albistari bat, asterokoa: IBAIZABAL izenekoa. Ez zan lenengoa: urte bi lenago ixildu-bearra izan eban «EUSKALZALE» zanaren jarraitzaille etorren. Azkue abadeak eta beronen lagunak luze eritxi eutsen, luzeegi, urte biko ixilaldiari. Eta orra non datozen barrero lengo kemen eta asmoak dabezala... Al daben giñoan, euskereari eutsi, euskerea bizkortu, garbitu, apaindu, aberastu, zabaldu: orixe egiteko datoz. Azkue bera, bere Iztegi andia aterateko buruauste eta neketan sartuta dabil. Eta lagun bat artu dau ordezeko, eta albistari barriaren zuzendari: Kirikiño Mañariarra, Bilboko Eskola nagusian, Institutoan, euskera irakasteko ordezeko jarrita daukana.

Euskera utsezko lenengoko albistariak

EUSKALZALE eta IBAIZABAL euskera utsez agertu izan diran lenengoko Albistariak dira. Lenago, bein, ZER onen orrietan esan genduana ez da bete betean egia. Zer esan genduan orduan? Bidasoaz andiko euskaldunak izan doguzala onetan aurrelari. Egia da, bai, an agertu zala lenengoz euskera utsezko aldizkari bat, Urtekaria, baiña erderatik artua, eta euskeraratua, eta Mixioetako barri emoteko ba-

* Zer(1982, 57. zenb.) 12-13.

karrik. Egia da an euki ebela euskaldunak albistari bat, asterokoa, oraingo HERRIA astekariaren ama edo amamatzat jo geinkena; baiña ez etorren, oraingoa ez datorren lez, euskera utsean; beti ekarren frantzes apur bat, gaurko HERRIAK be ekarten dauan lez. EUSKALZALE eta IBAIZABAL-ek euskera utsa erabili eben. Orretan, ez Lapurdi, Bizkaia izan da aurrelari.

Bizkaieraz eta Gipuzkeraz

IBAIZABAL (EUSKALZALE be bai) Bizkaian sortua da, baiña ez Bizkaiko euskaldunentzat bakarrik, Gipuzkoaldekoentzat be bai. Lenengo orrian esaten da ori argi eta garbi. Bizkaiko nai Gipuzkoako idazleentzak zabalik daukaz ateak. Bidasoaz andikoen lanik agertzen badau, emendiko euskerara aldatuta ekarriko ditu...

Idazleak

Idazle nausi biak, albistariaren buru eta zuzendari egiten dabenak, Bustintza (Kirikiño) eta Azkue dira. Lanik geiena bion eskuetan dago, batez be Kirikiñoren eskuetan. Eta biak, bakotzak bere ezizena darabille: Kirikiñok BLOA (Bustintza, Lasuen, Olaso, Agirre), eta Azkuek EKETA (Ni-neu, edo erdaldunen MENDA itzaren kidea). Onen urrengo idazle-pilloa dator: Bizkaitik, Zamarripa, Gorgonio Erreterria, D. Agirre, Arrese Beitia, Enbeita anaiak (Orduko Pedro eta Manuel), eta abar. Gipuzkoatik, Urruzuno, Emeterio Arrese, Elizetxea, B. Etxegarai eta abar.

Berarizko aitamena

Idazleotatik aparteko aitamena egingo neuke nik birentzat: Arrese Beitia eta Manu Enbeitarentzat. Arrese Beitiaren aitamena zergaitik? Arana Goiri il zanean argitaratu eban olerkia dala-ta. IBAIZABAL-ek ez eban eriotz ori ixilpean itxi. Kirikiñoren lumatik bere naibage sentikor barru-barrutikoa agertu eban, eta illak etorkizunean Euskalerrian gero ta izen andiagoa irabaziko ebala iragarri.

Arrese Beitia, orduan, ez zan gelditu bere lira aberatsari soiñurik beteena atera barik. «Amatau da gure Eguzkia», olerki orren tituluak naikoa diño. Olerki ori, eta beste bat, Arana Goiri goratzeko beste aldizkari baten agertua, iñork ez ditu Arrese Beitia orren liburuetan argitaratu, eta ez dira ezagutzen.

Manu Enbeitak be, Kepa anaiaren ospeak illunpean itxi dauan arren, badau bere nortasuna, bai olerkari-maillan, eta bai aibistari edo gazetalari-maillan be. Bere ardurapean egon zan luzaroan EUZKADI egunkariaren euskal-atala. Orrialde osoa ateraten eban euskeraz, eta gaiñera, lenengo orrialdean, eguneko jakingarri andienen laburpena. Gaurko gazetalariok ez dabe oraindiño orrenbeste lortu. Enbeitatar Ibon eta abar ezizenez badabe zer ikasi. Lanerako kemenean batez be, IBAIZABAL-en orrietan asi eta 1936an il zan arteiño.

Albisteak

Albistari bat zetako da? Albisteak, barriak emoteko. IBAIZABAL zoli asi zan orretan. Euskalerriko eta Euskalerritik kanpoko barriak ekazan asiera baten. Gero Euskalerrikoak baiño ez. Eta eurok be urritxo. Nok bialdu? Or egoan untzea. Erren-deriarrak ziran zolienak. Eta bein bizkaieraz bialdu eutsen bizkaitarrai euren anai-agurra.

Irakurgaiak

Euskaldunai euskeraz irakurteko zaletasuna sartzeko asmoaz, tartean-tartean, zatika aterata, irakurgai luzetxoak be baetozan albistari onetan, teatro-lanak eta abar. Azkuek oso maite eban Bergara aldeko idazle bat: Antero Apaolaza (*Patxiko Txerren*, Truebaren nobelatxo bat euskera jator atsegingarrian euskeraz ipiñi ebana). Eta or sartu eban, albistariaren orrietan.

Bertan agertu ziran J. Artolaren teatrolan bi, gitxienez: *Bixente*, eta *Xabiroia*,

II

Urte biko bizia izan eban IBAIZABAL-ek. Bigarren urtea beteta il zan.

BLOA (Kirikiño) Mañarira joan zan gabon-jaiak anai-arreben artean igaroten, eta EKETA-ri, Azkueri itxi eutsan ilbarria emoteko arazoa. Itxura baten ez zan ilten. Eskuz aldatu bakarrik. II, bai, baiña urrengo urtean Durangoko Elosuren eskuetan eta iru abaderen ardurapean bizi barritan biztuteko. Baina urrengo urtean ez zan IBAIZABAL-ik agertu. Zer jazo zan? Nok jakin? Andik aurrera Azkuek asti geiago izango dau, bere iztegi-lana Frantzian aurrera eroateko. Beste iru abadeak nortzuk ziran? Bearbada, sortzi urte geroago «Jaungoiko-Zale» ateraten asi ziranak? Or doa itaun au, iñok argitu eta erantzun zeatzik emon gura baleu.

Eta biztu?

Ez zan, ez, albistari au barriro agertu, ez zan berbiztu urrengo urtean, 1904garrenekoan agindu ebenez. Baiña zelanbaiteko berbizkundera oraintxe, gure egunotan jatorko. ZER onen orrietan barri au emon orduko, euskaldun irakurzaleak albistari zar ori irakurri eta ezagutzeko erea izango dau. SENDOA argitaletxeari esker. Argitaletxe onek, IBAIZABAL eta EUSKALZALE, biak dakaz gaur argitara, eta euskaldun guztien eskuetan ipinten ditu. Emen esanak eta geiago an ikusiko ditu irakurleak. Eta gaurko gazetalariak euskal-gazetalaritzaren asikiñak, asikin apaltxoak, or dabez.

EUZKO-DEYA (1916-1923)*

EUSKERA UTSEZKO ALDIZKARIA, ORAIN IRUROGETA AMAR URTE SORTUA

Lau urte inguru joan dira ZER onen orrialdeetan EUSKALZALE (1897-1899) eta IBAIZABAL (1902-1903) aldizkarien barri emon nebanetik. Aldizkari biok euskera utsezko lenengo aldizkaritzat emon nituen, gaiñera, biak Bizkaian eta bizkaitarren gogo beroak sortuak. Artean, ez zan sortu euskera utsezko aldizkaririk ez asterokorik. Izan zan, bai, Urtekari bat, Fedearen Hedamenekoa (1877-1920) Joan-nategik eta beste batzuk sortu eta zuzendua, mundu guztiko misiolarien barri emotekoa zana; baiña frantzesezko ANNALES batetik euskeraturiko lan batzuekaz omitzen zan; *Eskualduna* astekaria ez zan euskera utsezkoa; beti ekarren erderazko lanen bat, orain aren jarraitzaile dan HERRIA astekariak ekarten dauan lez.

Beste aldizkari euskera utsezko baten aitamena dakargu gaur, eta au be, Bizkaian eta bizkaitarrak sortua, 1916'tik 1923raiño iraun ebana. Au be, gure laikoak sorturiko aldizkarietan euskera utsezko lenengoa da. *Euskal-Esnalea* euskera-erderazkoa zan, eta *Jaungoiko-Zale* (1911-1931), eta *Irugarrengo Franziskotarra* (1913-1936) eleizgizonenak zirean, praille-abadeen eragiñez eta erlijiozko asmoakaz sortuak. Euzko-Deya sortu zanean ez zegoan Euskalerrri osoan, erri-gizonak aterata, beste aldizkarik ez astekaririk. Orain ainbeste sortu ta bizi diranean, ez dogu aitzu bear gure aurrelari izan eta euskal-aldizkarien asikiñak emon ebezanen lana.

Euzko-Deya Euzkaltzale Bazkunaren ardurapean etorri zan. Bilbotar batzuen euskaltzaletasunak eta abertzaletasunak sortua eta eutsia da, euskaldunen izkuntzari Euskalerrrian jagokan lekua eta amasa barria emoteko kaleratua. Ortik begikoago eta

* Zer (1987, 106.zenb.) 8-9.

maitagarriago egiten jaku, eta euskaldunon aldetik esker ohea zor jakolakoan nago. Euskal-aldizkariaren artean aurrelari izan doguzanaren ospea izan bear leuke.

Oso zabal ibili dala uste dogu Euzkaltzale Bazkunaren aurkako marmarra, gonorabako lana egin ebela, ez ekiela euren euskal-eskola ta gramatikatik urtetan, ez zireala gauza euskereari kalean bizirik eta indarrak emoteko. Mar-mar ori ixiltzeko eta uste ori guzurtetako *Euzko-Deya* aldizkari au ez ete da naikoa? Aldizkari orretan idatzi eben idazleen izenak jakin ezkeru, baietz erantzun bearu dogu. Politika alderdi guztiak beste ainbeste egin izan balebe, beste giro ta egoera biziago ta osasuntsuago bat sortuko zan gure izkuntzarentzat. Urte batzuetan aldizkari au izan zan aldizkarietan bakarra (eleizgizonen aldizkariak kenduta) euskereari eskubide oso ta beteak autor-tzen.

Otsaillaren amaiseian, 1916n asi zan plazaratzen. Neguaren biotzean etorren, euskereari udabarri loratsua opa eutsala. Amabostean bein urtetan dau: illaren lenengoan eta amaiseian. Ale baktzak amasei orri ekarten ditu. Bizkaian eta bizkaitarren eragiñez urten dauan arren, beste euskalkientzat orriak zabalik daukaz. Gipuzkoatik eta Naparroatik euren lanak bialduta, ainbat idazle datoz aren orrialdeetara, lenengo zenbakitit asita. Euskera ta Euskalerrria gogoan eta biotzean dabezala datoz, Jaungoikoa eta Lagi Zarra Ikurrintzat artuta, Euskalerrria euskalduntzen gogatsu lan egiteko gertu, Euskalerrria euskaldunentzat eta euskerea euskaldun guztien izkuntzatzat ikusi arte. Lenago egin ez dana orain asita egin nai dabe: «Erdera, eta erdal-gogua, euzkotarren gogo ta biotzetatik kenduta eurotan euzkerea sendo sendo jarri. Sailla gogorra da, baiña eziña ezta». Eurak alan diño.

Ez deuskue esan nor daben buru ta zuzendari; baiña maixutat nortzuk artu dabezana, bai. Argazki ta guzti datoz euron lenengoko zenbakian: Arana Goiri, aita Arriandiaga, Eleizalde ta Kirikiño. «Eurei zor deutsegu, diñoenez, Euzkaltzale Bazkunakuok dakigun apurra. Eurak izan dira ta dira geure Irakasliak». Lau irakasle, lau maixu, baktxa bere eskolakoak, eta bi Bizkaiko euskerea landu izan dabenak. Baiña beste euskaldunai eta beste euskal-eskolakoari ez jakez atea isten.

Aldizkari barri onek zelango gaiak urratu eta landuko ditu? Era guzietakoak. Batzuk alai ta atsegingarriak: ipuin, olerki, izkirimiri eta abar. Beste batzuk jakintzakoak, ekonimi-saillakoak, baserri ta nekazaritzakoak, itxasoko gizonen arazoak, osasungaiak eta abar.

Albistari be izan gura dau *Euzko-Beya* onek. Euskalerrriko ta mundu zabaleko barri batzuei euren lekutxo emoten jake noizik bein, beti ezpada be. Sail guztiak jorratu nai dituela argi dago, guztien gogoko, batez be abertzaleen atsegingarri izan gurez.

Euzko-Deyak aldikada bi izan zituen: 1916tik 1920raño bata, eta 1921tik 1923raññokoa bestea. Bien artean urtebete inguruko eten-aldia dau. Zek ekarrita eten-aldi au? Bear bada, abertzaleen artean talde bi bata bestearen aurka sortuta, ABERRI-tarren eta besteen artean izan ziran eztabaidak ekarrita.

Euzko-Deiya'n, Bizkaikoak bakarrik ez, giputzak eta naparrak be idazten eben. Bizkaitarretatik, idazle-mordotxo dabil: Amilgain (Altuna'tar Joseba), Arrugain (Mikel Arruza), Jadarka (Jemeindar Keperin), Aizkibel'dar (Bingen), Albizuri, Eleizalde (bergarra, baña euskalkiz Bizkaikoa), Zabala Arana (Mibibus), Enbeita'tar Kepa, Kirikiño eta abar. Lenengo zenbakiak bertsozko agur beroa ekarren, Enbeitak izen-

puteta, eta gero sarritan dator bertsolari onen lanen bat. Kirikiñok bere *Barriketak* sailla ia eten barik daroa, alkar izketazko lanetan.

Gipuzkoatik, beste idazle-mordo bat: Tene, Elzo-Azpiazu (asi ta lastertxo il zana), Zarautz-tar Sabin (geroagoko Lizardi), Ayerbe'tar P., Satarka (Sagarzasu'tar Kauldi), Zinkunegi osalaria eta abar. Azkenengo au Aian zan orduan osalari, eta andik bialtzen ditu bere lanak, osasungaiezkoak, aurrak zelan azi eta orretarikoak. Napa-roatik Larreko (Irigarai'tar Permiñek) napar euskeraren otsak dakaz aldizkarira. Lenengo zenbakian Lapurditarren agur beroa be badakar.

Nik ez dakit zer dala-ta Lizardiren argitaratzaileak Lizardik *Euzko-Deyan* ateratako olerki bat bakarra emon deuskuen eta bera erderatik itzulia, dirudianez. Idazle onek bertsozko lan pillatxo dauka Euzko-Deya orretan, eta bai prosazko beste batzuk be. Euzkaltzale-Bazkunak ba ekian beste euskal-eskola batekoak zireanen aldera askok uste daben baiño barru-zabalagokoa izaten. Eta, barriz, eztabaidako gairik ez aterateko jokabidea artuta eukala dirudi. Aldizkariak lenengo aldia, 1920rañokoa, izan ebala esan geinke. Bigarren aldian, dotoretxoago agertuko da, papel obeaz, eta illeroko egiñik, baiña luma gitxiagok eskintzen dabe euren lanik. Zinkunegik, esaterako, lan bi baiño ez ditu aterako, eta Larrekok bat baiño ez oso mamitsua, orraitio. Aldi barri onetan amasei orrialdeko aldizkaria da, len amabikoa zana. Idazle barririk bat agertzen da, beintzat, Legoaldi (Ipolito Larrakoetxea), Zeanuriko semea, Kalahorratik bere Grimm anaien ipuiñak bialtzen dituen.

Egun pozgarriak izan zituen *Euzko-Deyak*, 1918n abertzaleak Bizkaiko Aldundian nagusi urten ebenean. Euskalerrria euskaldun egiteko aukerarik ederrena ikusi eben orduan. Kirikiñok be, ordurarte politika usaiñik agertu ez eban arren bere lanetan, orduan gora bota eban bere santzoa, euskerarentzat etorkizun ohea ikusiz.

Pozik agurtu zituen *Euzko-Deyak* orduko jazoera batzuk be: Oiñatiko Eusko-Ikaskuntzaren Batzar andia, beste euskal aldizkarien, Jaungoiko-Zale ta beste batzuen aurrerakadak, euskerazko liburu batzuen agertzea eta olan. Bera be euskerazko liburu barri batzuen argitaratzaile eginda dabil. *Elenetxu* eta beste batzuk aldizkari onetan idazten ebenen idazlanak dira.

Bigarren aldiko 27garren zenbakian, 1923ko iraillekoan, aldizkariaren asieratik lankide izan zan Luis Eleizalde zanaren il-barria ekarren, Amilgain'ek idatzia. Il-barri au ekartean, ez eben usteko Euzko-Deya'koak aldizkariaren azkenengo zenbakia izango zanik. Ur euken, illean berean, ainbeste neke ta buruauste ekarri eutsen aldizkariaren azkena. Illabete joan orduko jagi zan Primo de Rivera eta onek egunkari euskal-atalak eta euskal-politika usaiñezko aldizkariak galerazo egin zituen.

Baiña ez da ori Euzko-Deya oni jausi jakon zoritxar bakarra. Ia ezbear andiagotzat daukat euskaldunen gogoan izan dauan eriotzea. Nok dauka gogoan? Nok egiten deutso aitamenik?

Gaur Euskal-Bibliografia eder ugari baten jabe gara, Jon Bilbaori esker. Ikaragarritzko lana onek egin dauana gure liburu eta aldizkari billa eta bakotxaren zeaztasunak emoten. *Euzko-Deya* aitatu, bai, egin dau; baiña bigarren aldikoa baiño ez. Jakiña: lenengoa be izan zalakoa ateraten da, baiña ez noz sortu ez nozarte iraun ebanik ez deusku ezer emon. Eta bigarren aldiko *Euzko-Deya*'ren barririk oso gutxi: 1921-22n amabi zenbaki atera zirala, besterik ez. Eta 27garrena izan zan 1923n azkena.

Oridatzi eben ainbaten izenak (Kirikiño, Eleizalde, Lizardi, Larreko, Sagarzazu, Elzo-Aspiazu, batzuk izentetearren), ez dira gure euskal pizkundetxoan edozelan-goak, eta ez daukaguz ate osterata botateko. Baiña, batez, be, gure pizkunde ori zelan sortu zan, nortzuk biztu ta lenengoz bultzatu eben eta nondik norako bideak artu zituen ikasteko, noraezekoa da aldizkari onen bizia ta lana ezagutzea.

Bilboko Euzkaltzale Bazkuna'k, beste indar eta erakunde asko lotan egozala, eta erdereaz nasteko lanean eragoioela, erakutsi ederra emon euskun bere aldizkari au sortuaz, eta beronen orrialdeak Euskalherri guztiko idazleari eskiñiaz.

Bizkaia, irugarrenez, aurrelari daukagu or euskera utsezko aldizkariak sortzen.

KARMEL ALDIZKARIAREN ISTORIA

KARMEN'GO ARGIA
(1931 tik 1936ra arteko aldizkaria)*

Karmen'go Argia, *Karmen'go Amaren Egutegia* eta *Karmel* alkarren anai-arrebatzat edo guraso baten iru seme-alabatzat artu geinkezala uste dot. Euskalerriko karmeldarrak euskaldunei euskeraz egiteko sorturiko aldizkariak izan dira. Nik uste, eta edozeiñek aintzat artuko deustelakoan nago, 1936ko gerratea, gerrate zitala, sortu ezpalitz, 193 In kaleraturiko *Karmengo Argia* aldizkariak aurrera jarraituko ebala, izen barri barik, ezelango aldaketarik barik. Baiña 1936ko urte orrek bapatean ixildu bearra ekarri eutson.

Urte orretan, nik beste bein esan izan dodanez, Jupiterrek uretara mukur aundi bat botata igelai jazo jakena jazo jaken gure inguruan euskerazko aldizkari ta liburuari: zati baterako guztiak mututu zirala. Geroago, urteak garrenean, ipuiñeko igelak lez asiko ziran apurka apurka eta ez bape bildur barik buruak urpetik ateraten. Primo de Rivera jagi zanean, egunkarietako euskal-orriei ixildu bearra ezarri eutsen urte batzuetarako. Franco jagi zanean, egunkariak ez eze, aldizkariak, erlejiñozkoi eurak be, mukur bardiña jausi jaken ganera eta luzaroan ez eben burua jasoterik izan. Francoren mukurra Jupiterrena igelentzat baiño gogorragoa izan zan euskerearentzat. Euskera gaxoa barriro burua jasotzen asi zanean be, beti egoan zemaiepean, beti goiti bera oiñaztu barrien bat etorriko ez ete jakon bildurrez. Olantxe agertuko dira karmeldarrak, kontuz eta ez bildur barik, lenengo *Karmen'go Amaren Egutegia* ateraten; urrengo *Karmel* aldizkaria, urtean lau edo sei zenbakitan, eta au be, bein edo birritan galazota, debekatuta, liburu txikien taiuan euskaldunentzat zerbaiz plazaratzen, az-

* Karmel 1985-3, 6-14.

kenez aldizkari antzean aterateko baimena, nekez bada nekez, lortu arte. Etziran gauzak berez etorri, etzan lor eta neke barik bake antzeko egoerara etortea lortu. An, 1931n, *Karmen'go Argia* zarraren sortzaille izan ziranak ez eben usteko orrenbeste istillu sortu bear ebanik eurak ondo bearrez eta bake bakean artu eben asmoak, Primo de Riverak goiko agintaritzaz itxi barritan.

Karmen'go Argia aldizkariaren sorrera

Lenengo zenbakia 1931ko urtarrilean agertu zan. Asi-asieran, Karmengo Amaren irudi baten azpian bertsozko eskintza au ekarren:

Goizeko izar disditsu zeran
 goi-esker argiz apaiña,
 Karmengo Ama, agurtzen zaitut
 ¡Zu neure argi baziña!
 Gogo guztien onuragarri
 agertu nai naz liraiña.
 Onetsi naizu, ene irakurlen
 izan nadin atsegiña.

Baso txoritxu abeslariak
 mendi batetik bestera
 zugatz-aziak zelan daroiez
 langille bizkor antzera;
 eusko-lurrean zorionaren
 azi deuna ereitera
 aurkestuko da KARMENGO ARGIA
 illero pozik lanera.

Sendi bakoitza biurtu daiten
 ekandu deunen kabia
 bide zuzena ziur izanik
 gure euskera garbia,
 baso ta uri ibilliko naz
 garbi iragarten egia;
 abegi onez artu, ba, arren,
 gora daroan argia.

Eskintza onen urrengo, Jaizkibel izenpetutako artikulua etorren aldizkari bariaren asmoak adierazoten. Aldizkari barriaren izenean, lanean asi baiño len agur gozo bana bialtzen eutsen beste euskal-aldizkari guztiai, *Argia*, *Jaungoiko-Zalea*, *Zeruko Argia*, *Euskalerrriaren Alde* ta gañerakoai.

Ona orain, Jaizkibel-en luma- tan, aldizkari barriaren asmoak. 1) Euskaldunei irakurgai osasuntsuak eskiñi. Aspaldi ezkeroz, Euskalerrrian irakurteko gose-egarria sortu dan ezker, euskerazko irakurgairik ezean, erderazkoetara joko ei dau, eta

askotan loi ta lasaienak irakurriko ei ditu. Egarri ori asetzeko emen aurkituko ditu euskaldunak, aldizka, illero janari garbi eta gozoak. 2) Bigarren: Karmelgo lorategietan sartu eta lorerik bikaiñenak eskiñiko deutsoz irakurleari: Karmengo Amaren eskintzak, Pragako Ume Jesusen maitagarritasuna ume ta nausientzat, Ama Teresa andiaren bizitza ta irakatsiak, Teresetxo deun egin barriren lorak eta abar. Karmengo etxerantza begira dagozan asmoak dira onek. Baiña ez dira or amaitzen aldizkariaren asmoak. Eta orregaitik 3) irugarren, Euskeraren alde garbi ta kementsu lan egiteko asmoz sortu da. «Jainkoa lagun eta Karmengo Ama bere alde duela, asmo egoki aukeratu oso ta laster beteko al ditu, bada, *Karmengo Argia* aldizkari jaio berri onek». Olantxe amaitzen zan Jaizkibel-en aurkezpena. Olantxe azaltzen zituen orrenpean gorderik egoan Aita Doroteo, Apotzagako semeak, aldizkariaren asmoak. Baiña or be ez dago dana esanda.

Asmo orrekin gafietik edo eurak baiño lenagotik bazan besterik aldizkari barriaren eragille zana; prailleen erakundetik edo agintarien ganik etorrena: 1930ko Batzar Nagusia izan ebela nagusi barriak izentetako, eta Batzar orretan onako erabagi au artu ebela: Euskalerriko prailleen artean aldizkari barri bi ateratea, erderazkoa bata, Iruñan eta euskerazkoa bestea, Zornotzan. Orretara, ordura artean, euren idazlantxoak etxez kanpoko aldizkarietan (Euskal-Esnalea-n, Jaungoiko-Zale-n) ateraten zituezanak, aurrerantzean etxealdizkarian aterateko erea eukiko eben, eta idazle barriak sortzeko aukerea jarriko jaken. Erabagiok 1930ko uda-aurretxoan artuta, urrengo urtarrillara arte astirik eta eperik naikoa izan eben, prestakizunak egiteko, idazle bakoitxari bere arloa emon eta Karmen'go Argia plazaratzeko. Eta orra non datorren lenengo zenbakia, 32 orrialdekoa, 1931-ko urtarrillean.

Aldizkariak bere arloak zituen, eta arlo bakoitxak bere idazle arduraduna. Batek eroian Karmengo Amaren inguruko arloa, beste batek Pragako Ume Jesusena, beste batek Lisieux-ko Teresetxorena. Urengo batek etxeko gorabera ta joan-etorrien barri emongo eban: Larrako praillegeien etxean zenbat gazte barrik artu eben Karmengo Amaren soiñekoa, edo zenbatek Begoñan emon Meza Barria; zenbat sermolarik urten eben Garizuman gure prail-eteetatik inguruko errietara semoegifian edo mixioak emoten. Bere arloa eukan Euskalerriko kulturarloentzat: euskeraren aldeko ekintzak, euskal-ikastetxeen goraberak, liburu barriak eta abar.

Aita Martin Uriartek egiten eban zuzendari. Beronek eroiazan askorentzat begikoen ziran arlo bi: *Baserrigaiak*, eta *Egi biribillak*. Esaera zarren antzeko egi biribil esanguratsuak asmetan beti izan zan zalea, eta bizi guztian ekin eutsan arlo oni. Beste lenengoko orduko langille bat, askori oso atsegingarri egiten jakena, Aita Gabirel Jauregi izan zan. Aramaioko semea eta Fisika ta Kimiaren irakasle bera. Gabirel izenpean edo Aramaio erri-izenpean illero etorren izarren goraberak azaltzen, edo Aramaioko ipuin eta oituren barri emoten, edo fisikazko indar askoren argitasunak eskintzen, irudi ta guztiko apaingarriekin.

Aita Lontzi zanak (Ormalda ezizenez) artu eban Euskalerriko gora berak eta euskeraren arazoak aztertzeke arloa. Edo munduan zear jazoten ziran gauza jakin-garrienak egunik egun eta labor ekarte. Eta jakia, bere bertsolanari ez eutsan sekula itxi.

Aita Anbortsik artu eban lenengotan Lisieux-ko Terese-txoren gogoia ta irakatsiak aztertzea. Baiña andik laster Indiar bialdu eben, an Teologi irakasle izateko (eta

askenez Gotzain egin eben). Eta emendik alde egin ebanean, gai orretan Aita Santi gazteak jarraitu eutson, meza emon baiño lenagotik asita.

Aita Doroteok ez eukan naikoa Pragako Ume Jesusegaz ez Karmengo Amagaz, eta lenengotarik asi jakuni⁴íía *Gurea* eta *Agur Maria* luze ta zabal azaltzen. Luzeroko gaia euki eban or. Aita Martin, aldizkariaren zuzendaria, bere solo-lanak eta Egi Biribillak itxi barik, sarri ebillan beste gai sakonagoetan sartuta, zuzendari zanari egokionez (Martiaritu, M-U, Uriarte eta Barazar izen edo ezizenpean). Beste idazle bat, Aita Bernardo, naparra, apologetika gaietan sartuta ibilli jakun aldikada baten. Euskalerrri guztiko idazleak ebiltzan, napar, arabar, giputz eta bizkaitar, alkar-lan ederra egiten.

Aitatutako idazleok etxeakoak, Zornotza, Gazteiz, Begofiako praille-etxeakoak zírala esan bearko dogu. Baiña bazan mordo ederra atzerrietan: Aita Anjelok, Aramaioarrak, Portugaldik bialtzen zituen ainbat barri; Pio abak Perutik idazten eban, ango barri asko eta artikulu sakonagoak bialduta. Erroman baziran barri-emoille eta idazle mamitsu bi: Aita Ipolito Larrakoetxea, eta aita Ixidor Maguna. Mussolini eta Aita Santuaren arteko eztabaidak, eta faxisten eta katolikoen arteko burrukak ziralata, ondo alegindu ziran Karmengo Argiaren irakurleak jakitun ipinten.

Idazle barriak

Urtea bete orduko, izen barriak asi ziran aldizkarian agertzen. Ameriketatik etozan asko. Ara joan barri ziran gazteen izenak. Bakotxa, bere lekutik, Colombiatik, Perutik, Chiletik bere lantxoaz etorren aldizkariari betegarri ona ekarten: olerki bat, ipuin bat, oitura bat, edo mixiolarien lan eder nekagarrien txostenen bat. Aita Balentin Abasolo, Aita Matai, eta Aita Elorrieta Perutik, Aita Atutxa (Emaldiko) Chiletik, aita Batiz (Bingen, Barbin, Nikolax), aita Goiria eta aita Ander (Duralde) markifiarra Colombiatik, aitatzea naikoa bedi. Beti be, urriñetako mundu barrien aize barriak ekarrezan aldizkarira.

Indiatik etozanak etziran bape txarragoak. Aita Segundo zorrontzarra eta Peru Azkoiti (au Begoñatik asi ta Indiatik idazten jarraitu ebana), Gandiren erriko barri jakingarri asko emoteko ez ziran luma txarrekoak. Aita Estanislá lekeitiarra be ez.

Eta Euskalerrrian jarraitzen ebenetatik ez ziran batzuk luma makalak agertu. Len aitatu dot bat: Aita Santi (Jagoba, Igotz, beste izenez edo ezizenez) idazle euskaldun gazteren bat eriotzeak eroaten euskunean, illeta-soiñu negartiak jotzen, edo beste edozertaz, edo Ebanjelioko Zoriontasunak azaltzen, edo bertso lirikoak parra parra ateratzen, beti egin eban zoli aldizkaria bizi izan zan aldi guztian, onek azkena jo eban arte.

Beronek eta neuk artu gendun Ama Teresaren *Camino de Perfección* euskera-
tzeko lana. Zetako? Ze asmotan? Prailleak legetzat artuta euken, urtean bein, aparitan Ama Teresaren liburu ori irakurtea, guztiak ixilik entzuten ebela. Lege ori euskeraz betetako errezatasuna emotearren artu gendun lan ori. Lenengo kapituluá bion artean egin gendun (bakotxak bere zatia euskeraratuta), nik egin nituan urrengo zortzi kapituluak. Urteak geroago, bion artean amaitu eta tomo baten argiratuta dago orain Teresaren liburu ori euskeraz. *Igotz-Oba* izan zan artu gendun izen-ordea, Igotz

Amoroto aldeko mendi baten izena eta Oba Dimako auzo baten izena. Dana esateko, esan dagidan neuk be argitaratu nebala beste lanen bat edo beste *Karmen'go Argian*, Amuxalde, Basabil eta O. izenordepean. Amuxalde eta Basabil Obatarrak ondo ezagun dituezan baso-izenak dira.

Baiña geure izenak aurrera botatearren, ez daiguzan beste izen batzuk baztertu. Ezta aztutekoa, ez, aita Goiria, Txanton, au be len aitatua, gure arteko lumarik ugarienetakoa. *Karmen'go Argia* aldizkarian orrialde asko berak bete zituen, eta orrez gaiñera liburu mordo baten aita idazle dogu bera. Bertsoz nai osterantzean, Amerikatatik naiz edonondik lankide ugaria izan zan aldizkari onetan. Aitatu daigun beste bat: aita Luki (Txomin eta Landatxu, auzo-izenez) erriko atzo-aguren euskerea entzun eta bere ipuiñetara ekarten gatza ta piperra daukana. Eztaigun aitzu aita Basilio, praille egin aurretik Jose Arana eritxon Donostiako semea. Eztaigun aitatu barik itxi euskaldun barri bat: Norberta anaia, 1937n Otxandio aldeko gudalekuan il ebana, euskera gure ikastetxeetan ikasi eta bere lantxorik aldizkarira bialdu ebana. Mixio-gaiak emoten sutsu ekin eutsan aldi baten Orobioko seme Zelaiñok (Balier aita izango zanak).

Idazle barrietan ba etorren bat, itxaropen andiak emon zituena: Sabin Gerriakae-txebarria. Batez be, olerkari-ospe andia ekarren. Baiña 1936ko gerrateak eroan euskun betiko Madrildik berako gudalekuen baten. Azkenengo lana bere gudaldiko Egutegia ei eban, eta dana galdu zan bere olerkiakaz batera. Aita Atutxa lemoarra be etzan makal agertu bertsoz eta osteango lanakaz.

Karmen'go Argiak, beste aldizkari batzuk lez, beste arlotxo bat be ba eban, musikazkoa. Noizik bein latiniñezko ta euskerazko eleiz-kantak, eta erri-kanta bat edo beste be zabaldu zituen.

Olantxe jarraitu eutsan bere bideari, bake-baketan itxuraz, 1936ko gerratea barruan sartu zan arte. Urte onen abuztukoa izan zan azken zenbakia. Urrengo illeko zenbakirik ez zan atera. Euskalerrri geiena militarren mendean jausi zan eta ez egoan arpededun askori bialtzeko erarik. Gaiñera, zuzendaria bera gudaritzara deitua eta beste idazle asko aldizkariagaz artu-emonik ezin izanik, bide itsuan gelditzen zan aldizkaria. Beiñ-beiñekoz argitaratzeari itxi egin jakon. Oporra artu gendun. Noz arte? Badakigu Bilbon bertan bazala beste aldizkari bat, Jesuitena, *Jesusen Biotzaren Deia*, ez zala gelditu, atera beintzat urrengo urtean apirillera arte atera zala. Eurak ziran inprentaren jabe eta egiteko erea euken. Baiña zabaldu, nora zabaltzen ete eben? Bear bada zenbaki guztiak bertan gorde, urrengo erea etorri arte. Guk ez gendun izan orren beste egiterik. Aterateari itxi eta kito. Jaungoikoak argi egiñ arte.

Eragozpenak

Karmen'go Argiak itxuraz baketan jarraitu ebala esan dogu 1936'ko abuztura arte, bost urte eta erditik gora. Illero zabaltzen gendun inguruko Euskalerrri guztira. Mugaz bestaldeko Euskalerrrian be bagendun arpededunik, eta ango aldizkariekin truke egiten gendun. Guztiz 4000 arpededun zituen. Urteko amabi zenbakien saria iru pesetakoa zan. Baiña ezin geinke esan eragozpenik eta oztoporik ipiñi izan ez jakonik. Errepublikako gobernadore baten amorrua ganean izan eban eta naiko gogor. Erre-

gearen gobernadore batek Azkuek joan dan mendearen azkenetan ateratzen eban *Euskahale* astekariari ezarri eutsan zigorra, dana erderara itzuli ta euskera-erderan argitaratzekorik ez euskun agindu, baiña bai antzeko nekea, euskerazko testoa dana erderara itzulita zenzurara bialtzea. Argitaratzeko baimenik emongo ba euskun, ori egin bear gendun. Olantxe, 1934ko naste batzuen ostean luzaroan, gauzak barriro aldatu ziran arte. Amaikatxo ordu emon bear izan zituen aita Pio orduan zuzendari zanak bera idazmakinaren ganean, tipi ta tapa, euskerazko lan guztiak eta iragarki guztiak erderara biurtzen, Bilbora zensurara bialtzeko. Erderazko testoa ondo aztertuta gero emongo eben baimena.

Baimen kontu onetan orduko eta geroko gauza asko kaleratu barik dagoz oraindio, eta euskereari jarritako oztopo eta eragozpen askoren ez jakiñean gagoz. Esan dogunez, Karmengo Argiaren sortzailleetakoa izan zan aita Doroteo Apotzagarra. Eta Karmengo Amaren izenaren zabaltzaille andia. Biotzak ez eutsan agintzen geldi egoterik, bere Ama maitearen alde burua atera barik. Eibarren zala aldizkaritxo bat ateraten asi zan bertan: *Mensajero del Escapulario del Carmen. Hoja de propaganda religiosa*, 1945-1948. Erdera utsean aterateaz lotsatuta edo, asi ta laster *Euskal-atala* ezarri eutson. Karmengo Argiaren asitako lanari jarraitu nai eutson berak, euskaldunai euskeraz egiñez. Amar zenbaki euskal-ataldun atara zituen orduko, gobernadorearen debeku zorrotza etorri jakon, euskal-atala kentzeko. Asko, ain zuzen euskerazko atalagaitik asi ziran aldizkaritxoak erosten. Baiña Francoren mendeko egun bero areitan aldizkari eta liburuetan euskerarentzat ez egoan ezelango lekurik. Agintari geienen burubiotzetan euskerarentzako gorrotoa zan jaun ta jabe. Gorrotoa eta ez-jakiña batera ebiltzazan.

Karmen'go Argia-gaz auzitegian jazorikoa naiko argigarri da. Aldizkari onek iru zuzendari izan zituen bere sei garren urtera arte. Lenengoa Aita Martin Uriarte, aldizkaria Larran ateraten edo argitaratzeko prestetan zan bitartean. Gero, Zornotzako ikastetxe barria egin zanean, ona aldatu zan aldizkaria. Aita Pio Asua ezizenez, ameriketarik etorri barria, zuzendari ebala irugarren aldaketa 1936n dator. Pio barriro Ameriketarako izendatua izan da eta zuzendari barria jarri dabe. Nor, eta lerrook idazten dituen. Epe oso laburrerako. Azkenengo zuzendari onek, azkenengo zenbakia, 1936ko abuztuko besterik ez eban kaleratuko. Baiña aurreko bien pekatuak edo pekatutzakoak berak ordaindu eta garbitu bearko ditu.

Ain zuzen auzitegira eroan eben militarrik eta *Karmen'go Argia* orren zuzendari izan zala-ta, aldizkariaren erru guztiak bota eutsoezan lepora. Pekaturik andiena, beste guztiak bat egiten zituena, aldizkariaren izena bera. «Ya ven, —esaten eban gogor salatzaileak—. Karmengo Arjia (olan esaten eban berak) Hasta el título es separatista». Orra berak autortu eta salatu bere buruko utsa eta barruko gorrotoa: euskerea bera zan euren arerioa, arerio ondatu bearrekoa. Nik euren buruetan argi apur bat egin nai izan nebanean, maipurukoak: «Calle y siéntese». Eta fiskalak amabi urteko espetxea eskatzen zituen arren, auzitegiak amasei urtekoa emon eustan. Gorrotogarria zan Karmengo Ama, gorrotogarria Avilako Teresa andia eta Joan Kurutzekoa, gorrotogariak gure Indiako eta Ameriketako mixiolariak eta euren lanak, gorrotogariak euskeraz egiten zan edozein lan. Noz arte?

Noz arte iraungo ete eban Karmen'go Argiaren ixillaldiak? Noz arte jarraituko ete eban bere arpedun eta irakurleakaz artu-emonik barik? Aldizkaria iñori agurrik,

adiorik egin barik ixildu zan. Noz edo bein, lengo artu-emonetara biurtzeko itzaropena izan baleu lez. Eta orixe jaso da. Zelan edo alan, lengo irakurleekin edo geroagoko barriekin alkarrizketan jarraitzeko zoriona izan dau. Gaur arte. JAIZKIBEL arek 1931en esan ebanez, «Jainkoa lagun eta Karmengo Ama bere alde duala».

UN DICCIONARIO VASCO INSERTO EN «MEMOIRES DE LA LANGUE CELTIQUE», DE BULLET 1755-1760*

Hallándome hace unos años en una librería de las proximidades de la Puerta del Sol en Madrid y curoseando entre los libros antiguos allí expuestos, reparé en una obra en tres gruesos volúmenes sin título alguno en sus lomos y abriendo una de ellos al azar, quedé sorprendido por el gran número de voces que en él se leían mezcladas entre otras muchas de distinta procedencia y configuración. Se trataba de un diccionario pero de un diccionario raramente concebido, al parecer. Su título: *Mémoires de la Langue Celtique*, no me podía aclarar mucho la naturaleza del libro que tenía en las manos. Alguna mayor luz me daba lo que en la portada venía después del título, describiendo el contenido de la obra, que en suma era:

1) La Historia de la Lengua Céltica, con una indicación de las fuentes en que puede encontrarse hoy;

2) Una descripción etimológica de las ciudades, ríos, montes, bosques, curiosidades naturales de las Galias, de la mejor parte de España, de Italia, de Gran Bretaña, lugares cuyos habitantes fueron celtas;

3) Un Diccionario Céltico que contiene todos los términos de esta lengua. Su autor: M. Bullet. La obra está impresa en Besanzon en 1755, 1759 y 1760.

Todos estos detalles tampoco me acababan de dar una explicación suficiente de la presencia de tantas voces vascas en el libro. Y como no era cosa de convertir la librería en una sala de lectura, decidí acudir a la Biblioteca Nacional por ver si allí podía salir de mis dudas. Sólo en parte lo conseguí, ya que la Biblioteca Nacional

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 23 (1967) 141-147.

no dispone sino de un ejemplar incompleto, únicamente del primer volumen de los tres de que consta la obra de Bullet.

Mi impresión era la de hallarme con una obra poco menos que desconocida entre nosotros a la vez que interesante para la historia de nuestra lengua vasca, y poco después conseguí que una biblioteca nuestra adquiriera los tres volúmenes en perfecto estado que vendía la librería madrileña.

E! autor

A la verdad, ni el autor ni su obra eran del todo desconocidos por los vascófilos. Vinson, en su *Bibliographie de la Langue Basque* (p. 195), al describir el Diccionario Trilingüe de Larramendi, dió una idea bastante exacta de lo que contenían estas *Mémoires de la Langue Celtique*. Unamuno las citó también en su tesis doctoral que versó sobre *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca*. Pero sin duda no conoció la obra entera de Bullet. Creo poder hacer esta afirmación, porque sabido es que Unamuno en sus años de estudiante y mientras preparaba su tesis frecuentó la Biblioteca Nacional y allí hubo de manejar esta obra de Bullet, que hemos visto encontrarse descabalada en dicha Biblioteca. No pudo seguramente consultar sino el único volumen allí existente, que es el único que Unamuno cita, el menos importante para los estudios vascos y aún para formarse una idea de la obra en cuestión, ya que no es sino como introducción a los dos volúmenes siguientes en que Bullet nos da su Diccionario Céltico.

^Y qué fue Bullet? En la portada de la obra ostenta su autor los siguientes títulos: Primer Profesor Real y Decano de la Facultad de Teología de la Universidad de Besanzon, miembro de la Academia de Ciencias, Bellas Letras y Artes de la misma ciudad.

Tomamos de la *Bibliographie ancienne et moderne*, dirigida por una sociedad de gentes de letras y de sabios (París, 1812, t. VI. p. 253-254), los siguientes datos: Juan Bautista Bullet, nació en Besanzon en 1699 y murió en 1775. Profesor de Teología en la Universidad de su ciudad natal, miembro de la Academia de Inscripciones y Bellas Artes, publicó gran número de obras apologéticas e históricas (cuya enumeración aquí omitimos), «llenas de erudición pero escritas en un estilo descuidado y que son buscadas por los sabios». Aquí nos interesa en particular el juicio que los autores de esta enciclopedia bibliográfica emiten sobre la presente obra: *Mémoires de la Langue Celtique*. De ella escriben: «Es la obra que más celebridad ha dado al autor. Muestra en ella una erudición inmensa; pero el sistema que en ella trata de seguir parece insostenible. Los vicios de tal sistema no han sido obstáculo para que la obra sea consultada y buscada por los extranjeros, en particular por los ingleses».

Punto de partida de Bullet

El propósito de Bullet en su obra fue recoger el mayor caudal posible de vocablos celtas. ^Dónde encontrarlos?

El creyó poder encontrar términos de la lengua celta en las siguientes fuentes: 1) primeramente en los autores griegos y latinos; 2) en segundo lugar, en la lengua de los bretones y de los galos, cuya lengua asegura haber sido la de los celtas. «Verdad es que aquellos han mezclado algunos términos nuevos, pero son fáciles de reconocer». 3) En tercer lugar, se encontrarán voces célticas en muchas historias, vidas de santos, anales, libros de actas, de contratos, desde el siglo cuarto al diez y seis. Aunque escritos en latín (dice), felizmente para nosotros, esos documentos contienen muchas voces celtas, algunas veces con la explicación o traducción de -u significado. 4) En los diferentes dialectos o patois. 5) En quinto lugar, se buscarán con buen resultado términos célticos en la lengua de los vascos. «Este pueblo (dice Bullet), defendido por la naturaleza del país que habita, muy raras veces ha conocido otros señores que sus jefes nativos. No habiéndose mezclado jamás con ninguna otra nación, ha conservado su primitiva lengua, que es un dialecto del celta». Y, 6) en sexto lugar, fuente de vocablos celtas será la lengua de las montañas escocesas y la de los Irlandeses, que originariamente son dialectos del bretón.

Tal es el criterio que ha guiado a Bullet en la búsqueda de materiales para su diccionario celta. Para él, la lengua celta es la lengua primitiva. En la primera parte de su obra cree poder probar su afirmación haciendo la historia de dicha lengua, estudiando su origen, progreso y duración. Cree haber resuelto la famosa disputa sobre la lengua primera de una manera satisfactoria para las partes todas en litigio. No es otra que la lengua de los celtas y de ella son hijas o dialectos tantas otras que conservan elementos de la lengua madre con alteraciones tan ligeras que no son bastantes para impedir que los sabios las reconozcan.

Partiendo de esta base y guiado por esa convicción suya, Bullet se impuso un trabajo verdaderamente ímprobo para llevar adelante su plan. Es impresionante el catálogo de lenguas, antiguas y modernas y de todos los continentes, cuya léxico ha examinado y utilizado en busca del fondo celta que pueden contener.

La explicación o exposición de estos principios ocupa la primera parte de la obra, el primer volumen de *Mémoires de la Langue Celtique*. En el mismo volumen, y confirmación de las afirmaciones del autor sobre la extensión del celta, en sus tiempos, viene la interpretación de la toponimia de tantos lugares por el celta o los considerados sus dialectos. No faltan aquí explicaciones etimológicas de topónimos vascos: Bayona, Tolosa, Durango, Orduña... Y es en la segunda parte, en los volúmenes II y III, donde tenemos el resultado de las búsquedas del autor, guiado por el método y los principios expuestos: lo que él pretende que sea el gran diccionario céltico-francés. De él sólo nos interesa a nosotros el material vasco que ha acumulado en su obra. Y de él vamos a pasar a hablar a continuación.

El Diccionario Vasco de Bullet

Creo que se puede hablar de un Diccionario Vasco de Bullet. Y creo también que bien merece una mayor atención que la que se le ha prestado hasta ahora entre nosotros. Digamos, pues, algo sobre sus fuentes y sus características.

Las fuentes que Bullet ha utilizado están indicadas en la bibliografía que va al

principio del segundo volumen. Entre ellas hay fuentes manuscritas. Son las siguientes por el orden que les ha señalado el autor:

- 1) Un vocabulario vasco formado sobre el Nuevo Testamento de Leizarraga, dedicado a la Reina de Navarra Juana de Albret. Manuscrito.
- 2) Un vocabulario Vasco, Irlandés, Escocés, del dialecto Galés de la Isla de Mona, y de la lengua de Cornvall en Inglaterra. Manuscrito.
- 3) *Trésor de trois Langues François, Espagnöle et Basque*. Impreso en Bayona por P. Fauvet.
- 4) El Diccionario Trilingüe de Larramendi.
- 5) *Notice de l'une et de l'autre Biscaye, de Oihenart*. Título éste así puesto en francés. ^Habrä existido edición francesa de esa obra histórica de Oihenart?

A estas fuentes así enumeradas por el autor en su bibliografía habrá que añadir otra mencionada en el prefacio al mismo volumen segundo, el trato directo del autor con gentes de diversas procedencias y dialectos. A ella alude en estos términos: «A los vocablos que nos han proporcionado los libros impresos y manuscritos aquí catalogados, hay que añadir los aprendidos de viva voz conversando con Irlandeses, Escoceses, Bretones y Vascos, ya que en estos pueblos existen términos usados en una comarca y no en otra, y por este motivo no se encuentran en los diccionarios más altos, por la razón de que los que los han compuesto no han incluido en ellos sino las voces en uso en su propio cantón».

No está, pues, mal de fuentes nuestro autor, y mucho menos para aquella época. De ellas hay que destacar esas dos fuentes manuscritas, hoy a mi parecer totalmente desconocidas: el vocabulario formado a base de Lizarraga, y el Vocabulario Vasco-Irlandés-Escocés-Galés.

La fuente más explotada por Bullet ha sido el Diccionario Trilingüe de Larramendi, tanto es así que Vinson se atrevió a afirmar que en *Mémoires de la Langue Celtique* su autor nos había dado el Diccionario de Larramendi vuelto, por así decirlo, del revés. La afirmación es algo exagerada, pero refleja bien la preponderancia del elemento vasco procedente de Larramendi en la obra de Bullet.

Indicadas las fuentes, pasemos a dar a conocer algunas de sus características.

Calculo que contiene sobre diez mil voces vascas o que se quieren pasar por vascas. Estas van mezcladas con otras muchas de diversas lenguas ocupando el lugar que les corresponde por orden alfabético como en cualquier diccionario. Un *Ba* al lado del vocablo indica su procedencia vasca.

No se observa ningún criterio selectivo. Muchas veces aparecen los términos derivados o compuestos y faltan los simples o las raíces de las que ellos derivan. Si algún criterio ha presidido el trabajo de Bullet, ése parece haber sido el de reunir el mayor número posible de voces vascas. Pero para ello se imponía una tarea costosa: la de volver del revés todo el diccionario de Larramendi, por ejemplo, y ponerlo en orden alfabético. Pero, en la precipitación con que parece haber trabajado el autor, se le escapaban sin duda muchas voces. De ahí que en cada volumen se viera precisado a agregar unas páginas de adiciones y correcciones para incluir algunas voces más que le fueron saliendo al paso. Es notable el promedio mayor de voces vascas en esas adiciones para subsanar así en parte y llenar las lagunas ocasionadas por su precipitación.

Los verbos están de ordinario traducidos en la primera persona del presente de indicativo. Así *apucadu*, acaecer, viene traducido: *J'aviens, j'arrive, y arbindu: j'etrécis*. Sin embargo, cuando el verbo está enunciado en esa misma persona en vascuence, se traduce por infinitivo: así *erretzen naiz*: se brúler.

Alguna vez se encuentran palabras claramente castellanas como si fueran vascas, como *trueno*, tonnerre. Y hay bastantes despistes sufridos por el autor por su conocimiento superficial de la estructura interna de una lengua. Así nos encontramos con un *dagoena* traducido por enfermo. Luego en la letra *m* tropezamos con *minez* que también traduce por enfermo, y nos damos cuenta del despiste de Bullet, quien encontró sin duda un *minez dagoena* (*el que está enfermo* a la letra), y nos dió las dos palabras como sinónimas de enfermo.

Más frecuentes son los deslices de Bullet cuando cede a la tentación de etimologizar, cosa bastate frecuente. Resulta cómica la seguridad con que se pronuncia en este punto. Si *arroztegia* significa hospital, Bullet se cree en el deber de llamar la atención sobre el primer elemento *arroz*, que ha tenido que significar *debilidad, enfermedad*. *Arbaltxa* es ambar negro, luego *ara* tiene que ser ambar a secas. *Azama* es madrastra: luego, puesto que *ama* es madre, *az* no puede significar sino mala. *Aurduna* es una mujer encinta, luego *duna* significa *grosse*. No es extraño que en su tiempo y con los conocimientos que entonces pudo obtener del vascuence incurriera en tales despistes cuando en pleno siglo XX y en nuestros mismo días hemos podido leer interpretaciones etimológicas (como muchas de las que nos ha dado Mons. Grieria) que no son más sabias que las de Bullet.

Con todo, no siempre se aleja tanto de la etimología verdadera. Los componentes de *artegia*, aprisco, por ejemplo, son para él *ardi*, oveja, y *gi*, lugar. Entre sus aciertos puede señalarse la explicación de la palabra *aberats*, rico. Significa «un hombre riche, comme qui dirait possesseur de troupeaux». Y se extiende en la explicación del parentesco de *abere* con otras palabras latinas (*aper*), galas (*aber*), hebreas (*aberth*) y otras (*apferus*, caballo de tiro), etc.

El Diccionario Trilingüe le ha hecho también caer en otra clase de despiste al traducir una palabra por una perífrasis. *Gaizguitik libretzat y norbait pecatutic* nos los da por absolver. Faltan *ematea y azcatutzat ematea*. *Talde baten es conducteur de bétail*. Falta evidentemente la palabra equivalente a conductor. *Autsarria*, la piedra cenizal o mojón central de un sel, es para Bullet el centro del bosque, traducido sin duda del equivalente latino que le da Larramendi: *nemoris centrum*. También tenemos en lugar de simples voces trozos de frase: *Nola ere dan basoillara, nolaco jabea*, éste último comienzo de un refrán, que Bullet traduce: *Tel le pot, tel le couvercle*.

Por último, no faltan las malas lecturas: *cura* por *zura*, *arrancale* por *arrantzale*, y algunas otras menos explicables.

Demasiado tal vez nos hemos alargado en la anotación de estos deslices y detalles que, si presentan aspectos que nos hacen sonreír, no son para quitar a esta obra de Bullet la importancia que tiene para la historia de la lexicografía vasca.

La tiene sin duda, en primer lugar, como exponente del eco que la obra de Larramendi halló muy pronto fuera del país. En una obra lexicográfica extranjera el Diccionario Trilingüe, aún vivo el autor, ha sido ampliamente utilizado y refundido. Es el primer intento de volver del revés la obra de Larramendi. Prescindiendo de los

critérios que guiaron a Bullet, atengámonos al resultado. Ahí están esas diez mil voces vascas o que quieren ser vascas que recorrerán el mundo por obra y gracia de este teólogo y filólogo de Besanzon, que tiene derecho así a figurar en el catálogo de los extranjeros beneméritos de la lengua vasca.

La tiene, en segundo lugar, por el hecho de que Bullet no es mero copiadador de Larramendi. Ha manejado también otras fuentes manuscritas hoy ignoradas o perdidas, y aún la fuente viva del trato directo con gentes vascas de distinta procedencia.

¿Han podido estas fuentes sumar algún elemento nuevo a lo aportado por Larramendi? Sería necesario examinar minuciosamente el léxico vasco recogido por Bullet y separar la aportación larramendiana, para dar una contestación a esa pregunta. Este trabajo concienzudamente llevado tal vez nos proporcionara alguna sorpresa.

Me permito llamar la atención sobre una posible nueva palabra que Bullet registra: *eztimasia*. A juzgar por la ortografía que para otras palabras emplea, creo que hay que leer: *eztimatzia*. Bastantes términos para designar árboles frutales registra Bullet que tienen esa misma desinencia: *-sia* (o *-tziá*), que él advierte que significa árbol en general. Bullet da esa palabra con el significado de melocotonero. No sé que se encuentre en Larramendi ni en ningún otro diccionario. Nos recuerda otro término empleado por Barrutia y no recogida por nuestros léxicos: *eztimakatza*.

No puede excluirse que un estudio más detenido de la obra de Bullet nos ofrezca alguna novedad grata en el campo de nuestro vocabulario.

Mientras ese examen llega, quede esta información que se ha dado acerca de *Mémoires de la Langue Celtiaue* de Bullet como una contribución al homenaje que el pueblo vasco tributa al P. Larramendi en este segundo centenario de su muerte.

«EUSKAL HERRIAREN ADIZKIDEAK» ETA EUSKAL-IZTEGIA*

Unamuno'k nonbait errana dugu: «Euskara hilurren dago eta alpherrik izanen dira sariketak, alpherrik eskolak haren phitz-araztekoztz. Bere gorphua iakintzaz gantzutu; horra gure egiteko guztia. Bil ditzagun seme on anzo, ahanzpenaren leizetan amildu baino lehen bere utzikinak; hilondoko orhoitgailu bat eraik diezogun euskaldunek bere odolari eta hizkuntza zaharrari deraukoten maithasunaren lekhuko izanen den orhoitgailua... Bil dezagun euskara, dena den bezalakoa, mintzatzen den bezalakoa, euskalki bakhoitzeko berezitasun guztiekin eta han hor datzaten bere hondar-mondar guztiak goititu eta sabaira ditzagun. Eztugu bertze egitekorik».

Holatsu zion Unamunok orain duela berrogei etahamar urthe. Euskara hil beharra ba zen ere, Unamunoren iritziz, bere burua haintzat duen euskalduna ezta egon behar zerbait gantzugailu hari ekharri gabe, hil ondoan gizonen orhoitmenean edo iakin-tzaren eremuetan nolabait iraun dezan. Eta hortarako zer egin? Euskararen puska guztiak bil, bere altxor guztiak goititu eta iakintzaren sabaietan gorde. Hori zen Unamunori zeritzona, hori zan Unamunok erakhusten zuen bidea. Bertzeentzat ordea. Damurik berak etzuen hortarako nekherik xumeenik ere hartu. Euskalduntasunaren eta iakintzaren deiak bide bat erakhusten zeraukon, bainan bertze batetik io zuen. Ez omen genuen bertze egitekorik euskarari hilendako orhoitgailu bat eraikitzea baizik; bainan maite erakhutsi hori ukhatu egin zeraukon. Eta areago dena, zerbait euskararen alde egin nahi zuteneri ez othe zaie behin baino sarriago irriz eta abarrez iazarri?

Beharrik ere ba du izan eta ba du gure hizkuntzak Unamuno baino adiskide eta iabe egile hoberik, haren alderako artha gehiago hartu eta gogo hoberik erakhutsiko

* Euzko-Gogoa 5 (1954) 152-153; «Zubero'tar Andoni'k» izenpean. Zubero L. Akesoloren abizenetako bat da. Eta Andoni bere bigarren izena da (Lino Antonio). Ortografia ta aditz-formak Krutwig jaunak ezarriak dira.

zuenik. Hauien artean auphatuak bitez hemen egun behialako «Euskalherriaren Adiskideak». Aipha dezagun beren erdal izen osoa: «Real Sociedad Vascongada de Amigos del País».

Nork ez othe daki Errege-Baltsa horrek Euskalherrian hamazortzigarren mendean iakintza sail ainhitzi eragindako aurrerapidea? Euskararen alde erabili zituen xede handien aiphurik, ordea, entzun ohi ez dugu. Euskara gora behera guti kezkatzen zirela uste dezakegu; baina baldin hola uste ba dezagu, okher handian gagoz. Zorionez hor ditugu 1781-garren urtheiko buruilan Bilbaon egin zuten Biltzarreko agiriak. Gogoangarriak dira batzar hortan hartu asmo ta xedeak. Laburzki bederen gogora ditzagun, gure erakhusbide ditezentzat eta Euskalherriaren Adiskideen goragarri. Gizon herrizale heiek euskara etzuten bazterturik iduki. Bai zera! Eta lehenik euskararen hiztegi baten egitea erabaki zuten. Nolako hiztegia gero! Egungo egunotan ere nekhez asma dezakegu gauza osoagorik. Dakhusagun biltzar hortako agirieri jarraikiz.

Lanari lothu baino lehen zer egin eta nondik eta nora jo behar zen erabaki zuten.

Euskera lehenaren ondare eta lekhuko bikainendakotzat zedukaten, gure herriaren eta Espainia osoaren iragan aldietan argi egiteko aztarrenik nabarmenendakotzat. Euskararen hiztegi on baten egiteak gure herriari eta iakintzari argi eta ospe handia ekharriren zerauzten; eta Euskalherria eta iakintza gogoan zituztela, gogotik lothu zitzaizkion lanari.

Euskara osoa bildu behar zan, euskalki guztietakoa eta mende guztietakoa. Euskalherrietako bazter eta zokho guztietan bizirik zirauena lehenbizi; eta bai agian hilik zegoena ere, bai liburuetan gaindi orduko egunetaraino heldu zena ere.

Hirur taldetan banatu zuten egin behar zen lana. Lehen taldekoak euskal hitzen bilha abiatuko ziren, nehon bilha ahalikako hitzik gehien bildu beharko zuten. Bigarren taldekoek lehenekoek ekharri gaiak aztertu eta alphabetuko lettren arabera sailetan bereziko zituzten. Hirugarrenekoek bertze guztien lana bildurik, hiztegiari azken eskualdia emanen deraukote.

Lehen taldekoena zan sailik handiena eta zailena. Euskal hitzen biltzeko norat jo? Euskalherrietara eta euskal litteraturara. Lehenik eta bereziki euskal herrietarat, euskaldunengana. Euskara ahoz-ahoko hizkuntza dugu, zioten, belhaunik belhaun gurasoen ganik semeetara ethorri zaikuna. Litteraturarik guti du gure hizkuntzak; eztu aspaldi handiko libururik, ezagunik behintzat. Beraz ahozko litteraturara io behar dugu xehekienik. Ahozko hizkuntza ezta halabainan Euskalherri osoan bat; thokian thokian euskalki bereziak ditugu. Euskalki batetan galdu hitzek bertzeetan ba diraute, bizi dira. Hortik lanaren zailtasuna, hortik lankhide ainhitzen beharra. Lankhideak behar ziren Euskalherriko bazter guztietan iarri, ahalez euskararen puskarik ere gal etzedin, euskara ahalik osoena biltzeko.

Lankhide hauiek lehenik euskaldun hutsengana jo behar zuten, bertze erdararik etzekitenengana, bereziki erdal khutsurik guttinen zuten herri tipi eta basherrietara. Eta behin galdetuz —hau zer da? huni nola deritza?— bertze behin euskaldun iathorren hizketeri beharria eme eta zuhur atxikiz, entzuten zituzten hitz eta mintzaira nabarigarri oro iaso eta aldean erabiliko zuten paperean ezarri beharko zuten.

Euskal litteratura behar zen hiztegi horren bigarren ithurburua: euskal litteratura, alegia, liburuetakoa eta ahoz-ahozkoa. Litteratura hurria ta noharroina, nabaski; hala ere, zena zelakoa, gutiestekoa etzen. Euskalherriaren Adiskideek nehon bilhatu aha-

leko liburu kopuru handiena bilduko zuten lankhideen eskuetan ezartekotz. Ahozko litteratura batez ere kanta zaharretan eta erran zuhurretan datza. Ahozko litteratura hori ere bildu behar zen; kanta zaharreko eta erran zaharrezko bildumak egin eta lankhideen eskumenera igorri, heietako hitzen eta mintzaeren atheratzeko.

Ohartgarria da nolako hedadura eman nahi zeraukoten beren hiztegiari. Hitz bakhoitzaren adiera guztiak agertaraziko ziren, hitzen aldaketa eta itzuli guztiak ekharri beharko ziren; alegia, grammatika-arauz hitz bakhoitzak dituen aldaketa eta itzulikera guztiak, aditzen irabiaketa (koniugazino) eta abar. Hitzeri dagozten erran zuhurr eta bertze mintzaerak hiztegi hunek ekharri behar zituen. Hitz bakhoitza, ezagunenak izan ezik, bere adiera edo erran nahia hobeki aditzeko, aldean adibidea (auktoritatea) zuela ioanen zen, iiburuetarik edo erran zuhurretarik edo harturik. Are gehiago. Hiztegi hau etzen hiztegi hutsa. Hitz bakhoitza non eta nolako adieraz erabiltzen zen ere adieraziko zuen. Euskalherriko toponymia ere iasoko du; thoki izenetatik hartutako abizenak ere bai. Bai eta leinua erakhusen duten abizenak ere, adibidez Mitxelena, Martinena. Han izanen ziren azkenik euskal khutsuren bat hartua duten giza-izenak ere, adibidez: Pepetxo, Peru, Perutxo, Praisku, Patxi, Patxo, Joenixume eta abar.

Garbitasunaren ardura ere zerbait ba dute. Etzan sartuko euskarazko etzen hitzik; edo behintzat, euskaldun gehientsuek aspaldi harturik etzedukatenik; bainan hitz berriki asmatu ere ez.

Euskalki guztietako hitzak onetsi behar ziren, ordea. Eta arau hunek ba zuen bere zer-ikhusia. Euskalki batean erabilten den hitza bertzetan erabiltzen direnen argigarri izan daiteke. Huna adibide bat; *Atharia*, diote, Euskalherri gehientsuan zabal dabilen hitza da; bainan Bergara aldean *aria* soilik ere erabiltzen dute erdarazko *zaguán* erraiteko. *Atharia* ez da bertzerik *athe-aria* edo atheko aria baizik. Bergarako *aria* horrek emaiten derauku bertze horren argibidea, eta bertze euskalkietan ere erabil liteken hitza dela derakhusaku.

Etymologi gorabehera ere ukitzen dute gure hiztegi gileek. Lehenaren aztarrenen argitzeko berebiziko balioa duela aithortzen dute. Halarik ere, sail huntan huts eta okher handiak egiten direla ba zekiten, eta gai huni buruz erdizkako bidea hartu zuten. Irudipen hutsezko etymologirik asko dabila eta kritika eta usna zuhurra behar ziren onak etzirenetarik berezteko. Gure hiztegiak ezbaiko etymologiarik onetsiko etzuen, ez eta bortxazkorik edo irrigarrikerik ere. Erdaratik hitzak erdarazkotzat emanen ziren; bainan euskarak aspaldi bereturik dituen hitzak, erdal-hitzen baten itea dutela-ta, gehiagoko gabe erdarazkotzat etziren emanen. Hortan eztute eztabaidarik edo aharbiderik iarri nahi.

Hunenbertzekin aski bedi Euskalherriaren Adiskideek nolako hiztegia egin gogo zuten nolabait erakhusateko. Dakhusagunez, hiztegia baiño areago zan; grammatika, Euskalherriko-thoki-abizendegia, euskal folklore-tegia, Euskalherriko hizkuntza-atlas ere bai. Orhoitgarri bikaina egin nahi zeraukoten euskarari. Nork erakhusi zerauen bide hori? Gauza askotan Larramendiren hatzetatik zebiltzela dirudi; Larramendik bidea erakhusirik, hark zirikatu eta sustaturik.

«Baldin nehor ba lethor, zioen Larramendik bere hiztegian, euskararen eta Euskalherriaren maitez nekhe puska bat hartuko lukenik, lankhai ugari izanen lukela aho bethez erranen deraukot. Nire hiztegian bildu hitzak ainhitzak dira; euskaldunak eta

erdaldunak harriaraztekoa da beren kopurua; bainan ezin konta ahalak nik hemen biltzeke utziak, Bizkaian, Naparroan, Gipuzkoan, Laphurdin eta Zuberoan zabal dabiltenak eta oraindik nehork bildu gabeak. Neronek ikhusi ohi dudana da: Gipuzkoatik ilkhi gabe, egunoro entzuten ditut nik nire hiztegian sartu gabeko hitz eta erranerak». Larramendiren hitz horiek dei bat bezala ziren bat ere euskalduntasunik zutenendako, hark hasi lanari iarraitzeko.

Dei horri erantzun nahi zeraukoten Euskalherriaren Adiskideek eta Larramendiren biderei iarraiki zitzaizkion. Aipatu dugun Batzarreko agirietan Larramendi beraren hitzak irakurten ditugu. Zerbaitetan ordea Larramendik baino haratago jo nahi zuten. Haren asmoak baino handiagoak zerabiltzaten. Haren lana hobetu, osatu eta zitu beharrez zebiltzen. Atsegin zaiku euskalzale zintzo haien asmo xedeak hemen gogoratzea. Damu gaitzez hutsean gelditu zen dena. Ba dakigu harik geroxeago nolako haizek io zuten Euskalherrian barna. Geroago guda-hotsak adiarazi ziran euskal mendietan, eta asmo eder heiek, Euskalherriaren Adiskideen bertze asmo eder asko bezala, mende berrien zurrumbiloei iretsi eta ehortzi zituten. Ez othe ditu nehork berriz phitzaraziko? Larramendik errana gerthatu beharra othe da bethi euskaldunen artean? Alegia, euskaldunek beren gauzetarako bethi zabar eta sorhaio izan beharra?

Egia erran, holako lan bat Azkue zenak egin zuena dugu, nehoiz aski ederrets ezineko lana, batez ere batek egina delarik. Bainan Larramendiren lana bezalaxe, Azkuen lana ere ezta xitu ezina. Azkuen hiztegia ere berrhetu eta hobetu daiteke. Iaun berorrek hor utzi du berak erabiltzen zuen hiztegi-alea (exemplarea) berak eskuz gehitutako hitzez beltz egina. Ale horrek bortz mila hitzen heina ba du, Azkuek bere eskuz ezarririk. Bertze norbaitzuek euskarazko erranera-hiztegia oso aitzina daramatela ba dakigu. Lanik erdia eginda dago. Euskalherriaren Adiskideek beren xedeak erakhutsi zituztenik huna euskararen aldeko lanek bide handiak egin dituzte, batez ere Azkue iaunari esker. Baiñan oraindik euskaldunek beren hizkuntzari zor deraukoten orhoitgailua egiteko dago. Nork hartuko othe du Azkuen lanak aitzina eramaiteko ardura?

Huna nire hitza. Larramendiren hurrena, Euskalherriaren Adizkideak agertu ziren haren lana amaitu eta hobetu beharrez.

Azkue itzali denean, zorionez hor ari dira berriz izen bereko batzuk, antzinekoen ondorengoak bizirik. Izen berekoak, bai, eta asmo berekoak ez? Hor dute asmo eder bat. Lehenagokoek egiteke utzia. Oraikoek ez othe dute bere gain hartuko? Haiek agindua ez othe deraukote hauiek emanen Euskal-Herriari?

Balinba, oraiko *Euskal-Herriaren Adizkideek* lehenagokoekin zorra bere eginen ahal dute, eta haiek utzi lanari lothuko ahal dira. Balinba hauiek emanen ahal deraukote Unamunok behiala eskatzen zuena: euskaldunek beren odolari eta hizkuntzari deraueten maitasunaren lekhuko izanen den orhoitgailu hori, euskaldun guztion gogobethekoa eta gure izenaren ospegarria.

Bilbaon, 1952-ko Otsailean.

SUPLEMENTO AL DICCIONARIO DE R. M^a DE AZKUE*

Este pequeño suplemento que aquí se añade a esta reimpresión del DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCÉS de Azkue, está más que justificado. Limitarnos a la simple reproducción de aquél sería, a estas alturas, poco menos que injusto: podía quedar la impresión de que ahí está la obra lexicográfica total de Azkue, la obra definitiva de su vida.

Y nada más lejos de la verdad. Más bien, esta obra fue una obra de juventud. Cuando Azkue se dispuso a publicarla y entró en tratos con los impresores para realizar su propósito, frisaba en los 37 años. Y su tarea de recogida de voces vascas no acabó con la impresión de los dos volúmenes de su Diccionario, sino que continuó a lo largo de su vida.

Mucho del nuevo material así recogido fue a engrosar lo que Azkue concibió como la segunda parte de su obra: el Diccionario Español y Vasco, cuya impresión llegó a iniciar dos veces, una en Bruselas y otra en Bilbao, en 1916, quedando troncada en ciernes por diversas causas, y no la menor, una de esas crisis de demoralización que al autor acometió en alguno que otro momento de su vida. Fue una desgracia para la lengua vasca. Como muestra de lo que hubiera sido el diccionario dicho, han quedado por ahí varios fascículos, uno de la impresión de Bruselas, en el mismo formato que la primera parte, y cuatro o cinco, de la impresión comenzada en Bilbao.

No fue todo trabajo perdido. Porque el manuscrito de Azkue, una vez fundada la Academia, fue puesto en manos y a disposición de la nueva Corporación, constituyendo la base del pronto proyectado Diccionario de la Academia (castellano-vasco),

* *Suplemento al diccionario precedente*, in: Resurrección María de AZKUE, *Diccionario vasco-español-francés. Reproducción facsímil...* 2.t. Bilbao 1969, 491-493.

que, elaborado con la colaboración de los académicos, estaba próximo a entrar en las prensas, cuando se produjo la interrupción de las actividades académicas el año 1936.

Durante muchos años, la mesa de trabajo de Azkue había sido centro de recogida, clasificación y ordenación de papeletas, conteniendo voces que no se encontraban en su gran Diccionario, provenientes de sus colaboradores habituales y de otros nuevos, que acudían a la llamada de la Academia, con la ilusión de enriquecer el caudal léxico vasco.

De esta manera, varios miles de voces se fueron agregando a las anteriores y quedaban recogidas en papeletas sueltas, o anotadas al margen de la página correspondiente de algún ejemplar del Diccionario viejo.

Tampoco este material nuevo está del todo inédito. Ha sido ya utilizado y explotado en gran escala por algunos lexicógrafos, y gran cantidad de los nuevos hallazgos ha pasado a los Diccionarios del P. Mújica y al que está en curso de publicación, de la colección Auñamendi.

Es justo que ellos volvieran, como si dijéramos, a la casa paterna de donde salieron. Este es otro de los motivos que han inducido a la Editorial de «La Gran Enciclopedia Vasca» a dar a conocer parte al menos de dicho material, como apéndice a la reimpresión de esta gran obra de Azkue.

En esta última afirmación va implícita nuestra confesión de que no pretendemos presentar aquí todo el trabajo lexicográfico disperso e inédito de Azkue. Pero sí creemos haber recogido buena parte de él. Y, al publicarlo aquí, creemos hacernos acreedores al agradecimiento de los estudiosos del idioma vasco, al mismo tiempo que les brindamos una ocasión más para valorar y conocer mejor las realizaciones de Azkue en ese campo de la lexicografía vasca.

Por lo demás, este suplemento tiene, en líneas generales, las mismas características del Diccionario al que acompaña y lleva la impronta de su autor.

Es una colección de voces del pueblo, en primer lugar, de términos usados y recogidos en todos los dialectos vascos y en todo el territorio vasco. Hasta hay una aportación no despreciable de términos recogidos en Alava, en puntos próximos a Vitoria.

No faltan voces extraídas de autores vascos antiguos. Azkue, ni en su Diccionario ni en este suplemento, explotó demasiado esta fuente. Cuando preparaba aquél, ni siquiera era fácil el acceso a la antigua literatura vasca, como lo es ahora que, gracias al trabajo de bibliófilos y editores eminentes, como Julio de Urquijo, poseemos bibliotecas bien nutridas y accesibles. No es que Azkue no haya recurrido a esta fuente, y en buena medida. Pero en este campo fue superado, en cuanto a la literatura de allende los Pirineos, por el P. Lhande, y en nuestros días esperamos que Michelena no deje en este terreno ningún recoveco por explotar.

El campo preferido de Azkue es el del pueblo, el del habla popular. Y, en este punto, tuvo el detalle de indicar la procedencia de las palabras que recogía, o el lugar de origen de sus colaboradores o consultados.

En este suplemento también es fiel a este método, aunque tal vez en menor escala. Por lo menos, este detalle no ha quedado tan constantemente consignado en nuestra copia. Después de todo, el dato local no deja de ser importante, pero no es

el más necesario. Más importante es que el dato, el nuevo término quede registrado. El otro dato a veces no deja de crear cierta confusión. Puede hacer pensar que el término referido tiene en su uso una extensión reducida, o restringida a determinado dialecto. Tomemos, por ejemplo, un caso. En este suplemento aparece la voz *lanberatu* localizada en un pueblo de Guipúzcoa. Pues bien, esa voz tan precisa y preciosa, vive y se oye en zonas interiores de Vizcaya con la misma significación que aquí se le atribuye, con la significación de suavizar el tiempo, de cambiar de más crudo a más suave y benigno, por ejemplo, pasando de temperatura de helar a la de nevar, o de la de nevar a la de llover.

Sea otro ejemplo, el de la voz *iterantzun*. No se ha registrado aquí su procedencia. Pero la voz está viva al menos en algunas zonas de Vizcaya, y no sólo como verbo, sino también como sustantivo, y en su significación de dar una idea, hacer una indicación, sin que sepamos que haya sido recogida en dicha zona.

Son voces, por cierto, que cuando le llegan a uno por boca del pueblo, las entiende perfectamente, pero que, desgraciadamente, hallan poca acogida entre los escritores. Es fenómeno que me temo sólo ocurra entre nosotros, este de querer ignorar los recursos y tesoros lingüísticos del habla popular. Se prefiere el recurso a palabras de discutible origen, cuando no nos empeñamos en empedrar nuestros escritores con voces de algún argot extraño, vago siempre y mal asimilado, que se ha ido adhiriendo a nuestros hábitos de hablar, no del lenguaje culto y más matizado, sino del habla extraña vulgar y corriente de la calle.

No faltan, en este suplemento, algunas pocas voces que llevan el cuño del propio Azkue. Son las que llevan la indicación de (Eketak). *Eketak* es sinónimo de *yo*, en el habla de Lequeitio, la cuna de Azkue. Cuando aparece esa indicación se trata de expresiones o palabras que el autor ha elaborado o ha creído poder utilizar en sus escritos. Alguna vez se trata de neologismos; otras, no.

Y no se olvide que se trata de un suplemento. El suplemento presupone una obra que le ha precedido. En este caso es el DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCES. Por eso, aquí muchos de los términos se aclaran o definen, no por traducción al castellano, sino por la palabra equivalente que lleva en el Diccionario, al que habrá que acudir para entender su sentido. Son variantes o sinónimos de palabras registradas en el Diccionario. Otras veces, se trata de voces ya conocidas, con excepción nueva.

Alguna que otra vez, en lugar de la traducción o la equivalente vasca, nos encontramos con una definición o descripción, en vascuence, que se ha respetado y dejado como estaba.

Por último, no faltan voces sin equivalencia ni traducción. Alguna de ellas data del siglo XVII. Azkue la encontró así, y la ha hecho constar. Aquí se ha hecho otro tanto con las voces que Azkue registró así a medias, por si llega alguien que nos descifre su sentido.

Sirva este Suplemento para recordar a todos que la etapa de recogida de voces no está cerrada todavía para el vascuence. Bien está que vengan los técnicos y analistas, que clasifiquen y ordenen el material, pero vengan antes los buscadores y descubridores de nuevos tesoros, para que nos den el mayor caudal posible de vocabulario vasco.

Vengan quienes, como Inza, Altube, Gárate, Echebarría, San Martín, Azpiroz, el malogrado P. Cándido Izaguirre, por no citar otros, exploren nuevas zonas de nuestro pueblo y acrecienten nuestro caudal léxico.

Azkue debe ser para todos modelo y guía, como ninguno.
San Sebastián. Diciembre de 1969.

DENOK APEZ

Aldapeko'ri -tzaz atzizkia dela-ta*

«Apezak azken-itza bere» dio gure esaera zahar batek. Yakiña, ez gera denok eliz-apez; baña ni ez naiz olako apezaz mintzo emen. Zemaitan azken-itza esan nai duten oyetaz mintzo naiz. Euskal-alorrean azken itza bere izan nai eztuenik gutxi; emen olako apez izan nai gorriak yota ez ote gabiltzan nago denok ere. Eta apez izan bearra aski eztugula, sarritan apezpiku ere izan bearrez ez ote gabiltzan esango nuke.

Ez naiz nere burutik ezten gauzarik asmatzen ari. Zerorrek ere olako apez edo apezpiku nai batzu ezagutzen dituzu. Oraindik ez du aspaldi, onelatsu mintzatu zitzaigun norbait: «Gure klasikoek ez dituzte bein ere Andredena Maria ta Yaundone Yose senar-emazte egin». Orra eliz-apez etzen bat, nolerebait apez izan nayeaz. Entzun alere: «Maria ta Yose'ri senar-emazte esaten dietenak, ez ote dira oartzen gero, erlijioko «terminuak» oker erabiliz, birao bat esaten dutela?» Orra arestixeko apeza apezpiku billakaturik. Apezpiku nai onek ez du yakin nai gure klasikoetan kaxkarren eztirenek (Leizarraga, Larregi, Haraneder, Duvoisin, Uriarte, Lardizabal, Etxeberrik eta beste zenbaitek ere) ao betean, biraorik esateko beldurrik gabe, Maria ta Yose senar ta emazte egin dituztela eta ala deitu dietela. Nik ba-dakit nork egin zuen lantxo bat gai au azaldu ta argituz; baña etzioten argitaratu, apezpiku nayan bat ez minberatzearren edo. Nik egia maiteago zuelakotzat nedukan. Eta ez zitzaion gaizki etorriko argi pixkatxo bat gai orretan egitea geroago «Egan» aldizkarian ezarri duen itsuskeritxoren bat ez esateko. Orren gauza zailla al da, gure «ezkondu», «senar» ta olako itzak zer esan nai duten yakiteko, auzoko erderetan gure oyen kideko itzak zer esan nai duten yakitea? Baña norbaitzuentzat gure izkuntza ontan ere inguruko izkuntzetarik zearo berezia izan, noski.

* Jakin (1965, 19.zenb.) 93-96; *Axmutil* izenpean, ik. 17. orr.

Entzun beste olako apez-nai baten esana: «Askok eta askok, batez ere apezetan, ez dakite *edo* itzak zer esan nai duen eta orregatik oker erabilten dute. Itz au, klasiko batzuek orrela erabili bazuten ere, ezin erabili dezakegu sinonimoak, adiera berdiñeko itzak elkartzeko. Euskera yatorrean ez dezakegu esan: pekatuan ilten dena gaiztoki edo inpernura yoango da; ola mintzo denak [orain apezpiku bezala mintzo zaigu bera] erejia dio; pekatuan ilten dena inpernu ez den beste nonbaitera, zerura edo, yoan ditekela dio». Apezpiku-nai au ere euskerari berezgarri billa dabil nonbait. Dirudienez, eztu irakurri, ez *Real Academia Españolaren* iztegiak ez Frantziakoarenak *o* ta *ou* itzetan dakartenik. Ez du ikusi nai, auzoko izkuntza oyek bezala, gureak ere bi adiera ematen dizkiola *edo* itz orri, eta orregatik beren zuzenean daudela gure klasikoak era bi oyetara erabilten dutenean, eta gure erriak ere bietara aditzen duela. «Sendia zer den? Orrenbeste ba-dakigu emen, esan zidan bein baserritar batek; apez yauneri pulpilotik *sendi edofamilia* esaten bost aldiz entzunik gaude». Gure apezpiku nayak ez du zergatik arrankuratu; erriak ba-daki *edo* orrek zer esan nai duen, berak aña; eta egon lasai, eztu inpernua zerutzat artzen.

Olako apez izan nai gabekorik, egia esan, gutxi izan dugu euskalzaleen artean. Gogoan dut, duela aspaldi, Julio Urkijo argiak eta Landerretxe eliz-apezak izan zuten eztabaida. Urkijok, *sinhetsi* eztela iñoiz izan *obedecer*; Landerretxek bayetz, eta oraintxe ere Zuberoan adiera ortan erabilten dela. Ixildu zen Urkijo; baña etzuen amor eman nere uztez; Axularren itzez esateko, etzuen «erauki erran». Ni, Zuberroa'ko euskal-literatura geixego ezagutu dudan arte, ez bayan gelditu nintzen; ez dut ikusi geroagorarte Landerretxe yaunarena zela arrazoi guztia. Belapeirek eta Yulien Antiokekoaren pastoralak argi aski erakutsi didate.

Batzuetan apez izan bear au uskerietan ageri zaigu. Ez alda uskeria bizkaitarren *dautso* eta deutso dela-ta askok darabilten auzia ta iskanbilla? *Dautso*, *dautsu* ta olako aditz-erak norbaitzuek berriak dira, klasikoek ezagutugabeak, lojika bearrez oraintsu asmatuak. Zer esan? Erriak bietara omen derabil. Aita Mateo Zabala ere klasiko oyetakoa dugu, eta Bizkaiko bazter batzuetan *dautso* ta *dautsu* erabilten zituztela dio, era oyek legezkotzat dituelarik. Beraz, aditz-yoko oyek lojika utsez sortutakotzat dituztenek zuurrago eta apalago mintzatzea obe lukete.

Aldapeko yauna: itzulinguru luzegia egin dut noski zugana etorteko, *-tzaz* atzizkiari buruz diozuna gaitzat arturik. Zuk ere apez izan nai izan duzu gai ontan. Eta etzaude guztiz izpidean.

Aspaldi du, euskalari batzuek gai oni lotu ta beratzaz azken-itza esan uste izan zutela; baña zuk Aurrantz adiskideari egindako erantzunetik dakustanez, oraindik auzi ontan argi bete ta osoa egiteko dago zuk besterik uste duzun arren. Guzian artean egingo al dugu bear dugun argi ori.

Zure iritziz, erderazko «sobre, acerca de» esateko (izeneri erantsirik datorrenean, ez pronombreekin), eztugu euskera yatorrean —z atzizkia besterik: gizonaz (del hombre), gizonaz, gizonetaz (sobre los hombres). Izaki bizidunetz diardugularik, yator eta zillegizkotzat duzu *-entzat* ere: semearentzat, semeentzat, beti *-ren* edo *-en* tartekatuz, pronombreetan bezala: onentzaz, arentzaz. Baña «utikan kiratsa darion *-tzaz* ori izeneri zuzen erantzita», diozu bero berorik. Apezpikukeri-usai pixkatxoren bat ez ote dario zuk esan orri? (Zuk, gure klasiko guzien kontra, *dario* oni beste yoskerarik

emango zenioke, noski). Nik bayetz uste. Apeta utsez euskal-morfologia yatorra aldatzeko eskubiderik eztugula esanda bereala, ez al zabilta zerori ere apeta utsezko legeak asmatzen eta beste guziori arrarazi bearrez? Dakusagun, bai ala ez.

Atzizki ori, *-tzaz* ezteela iñoz ere yator? Pluralean ere ez? Orra zure okerra; zurea eta zuk ontan maisutzat duzun Azkue zanarena. Azkuek, bere Morfologian, luze xamar diardu Intxauspe Zuberotarrarekin muturturik, onek bein edo berritan atzizki ori izenekin erabili zuelako. «Lurreko gaizetzaz mintzatu» esatea gaizki esanik dago, Azkuen iritiz, Intxauspek egiten duen bezala. Arrazoirik? Bat ere ez. Intxauspek ba-zekien Azkuek aña Zuberoko euskera, eta ba-zekien nondik nora zebillen «lurreko gaizetzaz mintzatu» zenean. Eta eztago ontan bakarrik bere erriko idazlarien artean. Ba-du, aitzitik, lagunik. Bi aipatu nai ditut nik emen.

Lenbizikoa: «Uskara libria», Zuberora-aldean geyentsu eta maizenik argitara emana eta irakurria izan den liburua. Ona, 1841 'garreneko edizione berrian nola derabillan zure atzizki kirastun ori. «Barkamentu galtha egin dutuzun hutsetzaz: orhit zite komunione egin tuzunetzaz» (71'gn orrialdean).

Bigarrena: Egiategi, gutxi gora beera «Uskara libria» lenbiziko aldiz atera zen garaikoa (1782), *Etxeko andre uskalduna* liburuaren egille edo antolatzailea. Ikus liburu ortan zetzaz nai duen etxeko andre euskalduna irakatsi: «etxeko errekeitietzaz, urdetzaz, ahuntzetzaz, ahuiñetzaz, oilloetzaz, poloietzaz, anseretzaz, ahartetaz, khalamuetzaz, etxalteko errekeitietzaz, segretu zenbaitetzaz, ilhiaren errekeitietzaz, kanderetzaz, jaon erretoraren eta errejentaren elhestietzaz, ahorren errekeitietzaz». Egiategi onek ezto oraiko morfologia berririk ikasi eta, ala ere, ba-dakusazu, zenbat pluraleko *-tzaz* edo *-etzaz*, bazterrak kirasturik uzteko batere beldurrik gabe! Eta ori tituluetan bakarrik. Arri balira, ba-du barnean olako atzizkirik, zu ta ni biok azpian ongi estaltzeko aña. Noren aldetik dago apeta: Intxauspe, Egiategi eta *Uskara libria*-ren egillearen aldetik, ala *-tzaz* ori kirastutzat, ez yator dalakotzat baztertu nai luketenen aldetik?

Nik, denau gogoan arturik, gai ontaz ateraten dudan ondorea auxe duzu: Zuk orren iguin duzun *-tzaz* ori (gizonetzaz), eta beste euskal-idazle askoren *etaz*, elkarren kide direla; *nitaz*, *nizaz* eta *nitzaz* diren bezelaxe, *gizonendako* eta *gizonentzako diren* era berean. Eta noiz egin diogu akarrrik iñori, «gizonendako» eta «nitaz» utzirik, «gizonentzako» eta «nitzaz» erabilten duelata? Era berean pakean utzi bearko diogu «gizonetzaz» baiño «gizonetzaz» erabili nayago duenari, beste uskeri askotan bata-sunerako gogo oberik erakusten eta bide ortatik urrats zuzenagorik egiten ez dugun artean.

Zuur ibili bear genuke irudimenarekin: eztiren gauzak asmatzeko indar andia du, eta ezer ustelik ez kiratsik ezten lekuan ere kiratsusaya asma arazi dezake. «Euskalerriko amasei seme» esatea arrunt eta prosaikutzat dadukazunean ere, ez ete duzu zere irudimena lanean ari? «Donostia'ko iru damatxo» entzun dudanetan nik eztut or egundaño gauza prosaikurik ikusi. Eta zuk, esaterako, Okendo seme argi Donostia'ko dela, edo ta Aita San Iñazio seme Loyola'ko dela esango zenuke? Baredo da zerbait okerrrik zure esan eta iritzi ortan.

Ala ere, ez dut nik orain auzi berri ontan sartzeko gogorik. Nik, *-tzaz* atzizkiari dagokion beste auzi ortarako argibide puxka bat ekarri nai izan dut, ez besterik. Nik ere gai ontaz nere itza esan nai izan dut, baña ez nere izenean, ta bai euskal-litera-

turaren, gure klasiko direlako izenean. Denak apez izan nai duten aldi ontan, denak azken-itza esan nairik dabilizan sail ontan, ez ote nuen bestek aina eskubide? Guzien laguntza bear genuke auzi guzi oyetan argi egiteko.

Egiteko ortarako, ez al dugu denok ere aantziko Txina'tarren esaera urregorizko au: «Zere buruaz eltzea yota, baldin uts-durundua asmatzen baduzu, baitezpada ez uste eltzea dagoela utsik».

ALDAPEKO JAUNARI NERE AZKEN-ITZA*

Zuk diozun bezala, elgarrekiko ezaumena egiñik gelditu geran ezkeru, ez dut emen ezaupide berririk eman bearrik. Barkatu zere lanetarako beta ain ederra galezia. Idazle trebe ta ugaria izateak balio izan dizu, nonbait ere, neri erantzuten nik nere lantxoan baño ari luzeagoa ateratzeko.

Barkazioa iritxi dudalakoan, nere itza esan baño len, beste gauzatxo bat ere adierazi bear dizut. Jakin zazu ni ez naizela auzi ontan sartu beste iñoren ondoren, bukatutzat zenedukan eztabaidari su berria eman naye. Zuri gertatua gertatu zait neri ere. Nere lantxoan zure 1961-koa aurrean nuela egiña da, orain lau-bost urte. Orainsu argitara eman badute, ez da nerea izan ogena: zurea ere ez.

Gayari natxikola, zer esango dizut? Ez duzula nik idatzia ongi irakurri. Nik ez nizun aipatu *-tzaz* edo *-etzaz* pluralekoa besterik. Zuzen zabilta, nik atera nituan Egiategi orren esaera guztiak pluralekoak zirela diozunean. Nik ez nuen besterik esaten. Oker zaude nire «tesisaren zurkaitz bezela» Intxauspe (1815-1902) eta Egiategi (1841) artzen ditudala esatean. Nik Egiategi (1782) ta *Uskara libria* aipatzen nituen, biak emezortzigarren mendekoak, ez emeretzigarrenekoak. Beraz, ez dezakegu esan *-tzaz* edo *-etzaz* atzizki ori forma lojikotzat emeretzigarren mendean asmatua denik.

Gañerakoan, Egiategi ta *Uskara libria* ez daude bakarrik. Antziñagokoa da *Jesukristen Imitazionia* (1756-57), Zuberoko uskaralat utzulia. Martin Maister omen da itzultzallea, Laffite apezaren iritiz orai idazle gazteek eredu ta jarraibidetzat artu bear luketena. Onen liburua ere olako atzizkiz josirik dugu: «Aita santien exemplietzaz, obretzaz, phenetzaz, miserietzaz, estekamendu gaixtuetzaz». Beti, orlaxe. Zuberoko *-etzaz* eta Lapurdiko *-etaz*, ez dituzu beraz lojika-bidez orainsu asmatuak. Aurrekoari lojika-lana ezarten diogunok, dakusagun lenbizi geratu ez ote gabiltzan

* Jakin (1966, 22.zenb.) 93-96; *Axmutil* izenpean, ik. 17. orr.

gaitz berak jota, lojika-lanean buruak austen, gere aurre-iritzi edo gere tesisai eus-tearren. Gauzak diren bezala dira, ez guk nai gintuzken bezala.

Beste oker-iritzi bat ere ba da zure erantzunean: «Tartas Zuberoko idazletzat artzea, alegia. Zuberotarra izan arren, ez zuen Zuberoko uskaraz idatzi, beste nahastetako «euskara» batez baizik. Berak ere ola dio: «Ene euskara eta lengajia eztaikit aprobataia izanen denez, bai ala ez; badu orotarik zerbait, Zuberoak, Bassenabarrek eta Lapurdik eman drauko zerbait».

Ba dakusazu, beraz, *-tzaz* edo *-etzaz* atziki orrek ba duela osaba onik eta garbirik gure klasikoetan; ez duela kirastua deitzea merezi; ez dela norbaitek oraitsu buruzorrozkeriz asmatua. Nire lantxo arretaz irakur badezazu, orixe esatera atera nintzen ni, ez nere izenean, ta bai gure klasikoenean.

Goazen orain beste zuretzat asarrebide izan den gai batera. Emen ere ba dugu oker-aiturik. Zure *Amasei seme Euskalerriko* orren goraberako zer ori nik iraitzean bakarrik aipatu nuen; eta, gañera, ez inor txuliatzeagaitik, zuk uste izan duzun bezala. Zuk ola uste izan duzu, nere lantxoa oraintsu eginberria zelakoan. Esan dudan bezala, zure 196]-koa irakurri berritan egiña da. Eta zuk, orduko lan artan, luze xamar ekin zenion zure liburu orren titularen alde, Aurraitz-en aurka. Nik uste nuen zuk zere iritziari eusteko ekarritako adibideak ez zeudela argi. Zerrenda luzea atera zenuen, baña guziak person-izenenak: Milia Lasturko, Maria Baldako, ta olakoak. Orain ere ayen antzekoak ekarri dituzu: Aita San Iñazio Loyolakoa, Peru Abendañoko... Eta nik oartxo bat egin nai izan nuen. Donostian jayo den batengatik irutara esan gentzake: Donostiarra dela, Donostikoa dela naiz Donostiako semea (edo alaba) dela; baña ez, nere ustez, seme Donostiakoa. Argitasuntxoa bear zen emen, nere ustez eta zuk ala eman duzu, eta kito! Len ere esan nuen ez nuela auzi ortan sartzeko gogorik, eta gutxiago iñor txuliatuz atsegin artzekorik. Gauzak nola artu, alaxe dira guretzat sarri. Eta ori aldarteak, gogaldiak egiten du geyenetan.

Zurekin baiño auzi beltzagoa daukat orain *Jakin-sn* Zuzendaritzarekin. Iñorako irteerarik gabe jarri naute oyek: pareta batetik, ezpata bestetik. Au dut istillua! Itz aztunak entzun ditut: norbait jo egin dudala, aurrez aur jo ere. Ezta ortako eskubiderik. Jakiña. Ideiak epaitu, baña ez iñor iraindu. Irainduak min artu omen du. Irainduaren izena ere eman dute, nik eman ez nuen arren. Emen ere joango ote gera arira?

Egin ote dut nik ideiak epaitu edo aipatu besterik? Egia ez al da norbaitek gure klasikoeri ezarri dietena «senar-emazte» ta «ezkondu» itzei buruz? Ez al da egia berorrek esana: alegia, gure artean askok itz oyek zuzen erabilten ikasi bearra dutela, ta oker erabilliz birao edo egiten dutela? Ideia ez al da, eta ez al da gañera egia, Leizarragak, Larregik, Haranederrek,,Duvoisinek, Uriartek, Lardizabalek, Etxeberrik eta beste zenbaitzuek, klasikotzat ditugun oyek, Mari ta Jose ezkonduztat zeuzkatela, ta senar-emazte egiten zituztela? Oraindik ez dut puskatu gai onezaz aspaldi egin nuen lana, gure klasiko oyen textuak adibidetzat bildurik egiña. (1) Lantxo urari ez zioten aterik zabaldu. Zergatik? Or konpon. Nik ez diot iñori konturik eskatuko. Baña auzi ori oroituz, nori ta zergatik egiten diot nik irañik, edo bidegaberik, batez ere iñoren izenik atera ez dudanean? Neri egotzi bear didate ogen ori? Eztakit nondik

(1) Ik. 51-54. orr.

nora. Argiak gaude ideiak epaitzeko, aipatzeko ere aukerarik ez eskubiderik ezpallinbadugu.

Apez edo apezpiku deiturik eman ote dut iraiñ ori? Baña deitura ori ematea gayak berak, tituluak berak zekarren. Nere lanean guziok giñen apez edo apez-nai; guziok azken-itza eman-naiak, nerau ere tarteko nintzela. Olako tankeraz egindako lan batean, gero norbaiti banazean apez deitzea norik artu bear du iraingarriztat, zerbaitetan azken-itza esan bearra erakusten duenean? Irakur bedi nik esana ta idatzi arretazago eta umore obez, eta ez diozute irain-kutsurik arkituko, nik uste.

Gure erriak, apezten itzarendako esaera ori sortu zuenean, aldarte ohea ta gogaldi zindoagoa erakutsi zigun eta gure erriari ortaz kontu eskatzerik ez dut uste iñoizko apezteri gogoratu zaionik. Eta barkaziorik iñori eskatzekotan, ba da nori eskatu; esaterako, gure klasiko ayeri, beren izenean esan ditugun zozokeri batzuegatik, eta bai ayen antzera Andredena Maria ta Jaundone Jose senar-emazte egin dituzten geroko apezteri.

NOIZ ERABILLI -TZAZ ATZIZKIA?*

Atzizki au asko zabaldu zan idazle batzuen artean mende onen asieratik gora. Azkuek gogor egin zuen, bere *Morfologian*, atzizki ori izenekin erabiltzea gaizki zegoela-ta. Oraintsurarte ez omen zuen inork orrela erabili. Noiz edo bein agertzen omen da Intxauspe Zuberotarraren *Imitazionian*, pluraleko izenekin. *Eguzkiza* jaunak -*tzaz* pillla aundia atera ta erakutsi zizkion Azkueri antxiñagoko beste «Imitazionia» batetik artuta (Zuberoko euskarazkoa au ere); baiña guztiak ziran pluralekoak, bat ere ez singularrekorik. Baiña Gavel jaunaren oarra zekarren azkenean: zuberotarrek atzizki ori singularrean erabiltzea ez zeukala gauza eziñekotzat.

Lafitte'k dio, berak inoiz ikusi duela, oraintsu, *euskaraz* eta *euskaratzaz*, bata bestearen bereizgarritzat, alegia, euskaraz itz egin eta euskera gaitzat arturik itz egitea bereizteko.

Atzizki au gure idazle zarretan

Atzizki au, askotan, -z atzizkiaren ordezkoa da, itzaldiaren edo solasaren gaia adiarazteko. Eta emen ez dute lege berdiña erabili Bizkai-Gipuzkoako idazleek eta besteek. Gipuzkoako ta Bizkaikoak olako esaerak *gañean* atzizkitzat jarrita egiten izan dituzte. Bestek, aldiz, -z atzizkia izan dute eta orain ere dute ortarako.

Kempis-en itzultzaileak ikustea besterik ez daukagu. Lapurtarretan maiz irakurriko degu: zeruko *dohatsutasunaz*, eta munduko *miserieez*; ez gaizki iuia edo mintza *bertzeez*; guztizia *desordenatuez*. Eta beste edozein liburutan ere berdintsu: *eriotzeaz*, *Meza Sainduaz*, *garbitasunaz*, *pairamenez*, *sakramenduez*.

* Kardaberaz - 2 (1973) 55-58.

Zuberotarren liburuetan: egiaren *jakitatiaz*, Jesukristoren *imitazioniaz*, estekamentu gaizfoefzaz, bizite huntako miñefzaz, saintien *exenplietzaz*, Jainkuaren amorioak eragiten dutien gauza *miragarriez*.

Gipuzkoakoetan: Bizitza onetako miserien gaiñean, egiaren dotriñaren gaiñean. Eta abar.

Gaiñean atzizki au aspalditik ona erderatiko itzulpen gaiztotzat dago. Azkue jaunak, bere Iztegian, bata ta beste erdal-kutsuduntzat dauzka.

Gramatikalariek zer dioten

Gramatikalariek zer diote atzizki oiei buruz?

Lenbizi -z atzikiari buruz. Azkuerentzat atzizki onek gaia aipatzen du, *causa material*; lenengo: larrez, mugitaz, askiz, garduz, zalgaz, zoragariz beterik (Peru Abarka).

Bigarren: bidea, *medio*. Betak ogiaz jan. Atzizki au *-gaz* atzizkigaz bat egiten omen dute (ogiaz jan), eta Gipuzkoan *-kin* atzizkiarekin (Ogiakin jan).

Irugarren (BN, L, S). Izketan zer gai erabilien dan argiarazteko (de, se trata de).

Lafittek diona: Z atzizkiak adiera asko ditu, makillaz jo, gaixtakeriaz egin, zaldiz ibilli, egunaz etorri, sei egunez. Eta azkenez, izketako gaia, *au sujet de*.

—*Tzaz* atzikiari buruz zer? Azkuerentzat, *-tzaz* eta *-zaz* berdiñak dira, eta «medio» edo «instrumento» esan nai du, baiña izenordeekin bakarrik erabilten da. Izenordeekin eta demostratiboekin: Zutzaz, nitzaz, onetzaz, onezaz gaiñean, azaz gaiñeti. Euskalki batzuetan *-taz* egiten dute: zutzaz, nitaz.

Lafitte jaunaren iritziz. Gaia, izketako gaia (*questio qua*) esan nai du. Baiña Lapurdin *taz* erabilten dute, eta pluralean *-etaz*. Eta Zuberoan *-etzaz*.

—*Gaiñean* atzizkia ere erabili da iñoiz Lapurtarren artean, baiña, bear bada, ez du gauza bat bera esan nai (Touchant á, á propos de). (Orren gaiñean erranen darotzut).

Bizkaian bada, *gaiñean* onen orde, beste esateko ere bat: Gora beran, Orren edo aren goraberan asarratu dira (ori dala-ta, orri dagokala-ta, dagokionez).

Gaiñean ori, beraz, noizikbein ez daerdal-kutsudunaizango. Erderazko *a vueltas de*, *a propósito de* esan nai du.

Beraz

Len aipatutako esaerak arturik, auxe esan gantzake:

Lapurtarrek ongi jakin dute bakoitzari berea ematen. Singularrean gaia, izketáko gaia adierazteko *-z* erabili dute: eriotzeaz. Pluralean *-ez*: miseriez, eta baita miserietaz ere.

Zuberotarrek, singularrean berdin; pluralean, *-etzaz* eta *-ez*: *exenplietzaz*, gauza *miragarriez*.

Au danau, atzizki oiek izenekin dijoazenean. Izenorde ta demostratiboekin *zaz* edo *tzaz* aurkitzen degu.

Eta Bizkaia ta Gipuzkoan ere berdin da, gutxi gora bera, demostratibo ta izenordeekin. Zutaz, nitaz, zuetzaz, zuetaz.

Tzaz ez da aurkitzen izenekin Zuberoan izan ezik, baiña pluralean.

Beraz: gizonaz, zeruaz, ez gizonatzaz, ez zeruatzaz.

Pluraletan: gizonenez, edo gizonetaz (Zuberotarrez, gizonetaz).

Ezta *gizonaren edo gizonen gaiñean ere*; erakusle ta izenordeekin: nitaz edo nitzaz edo nitzaz, iru modutara.

Kardaberaz-en esaera batzuk: eskuaz ukitu, fedez egin, fedez jakin, orrez gaiña, zerbaitez baliatu, salbazioaz oroitu, akorda zaite zure agoniako iru ordu aiez, zer izango da nitzaz, pekatari gaixoaz zer izango da, zertzaz arritu.

Gaiñean atzikiatz ongi egindako esaera nere ustez: Baldin beste gauza denboralen *gaiñean* artu emanik izan bada (a propósito de).

EGARRIAK NAGO TA OLAKO ESAERAK

Azterketa gure gramatikalari, iztegitale ta idazleetan barna

1. Gramatikarietan. Ez degu ezer arkitu gai oni buruz.

2. Iztegitan. Argirik geien Azkue-ren iztegiak ematen du.

K-letran onela dio (G..., L..., R...). Se dice con palabras que denotan pasión, en vez del sufijo -z. *Otzak dago*, está de frío; *goseak dago*, en vez de *gosez dago*; *egarriak gaude* estamos de sed, en vez de *egarritz gaude* (Azkue, DVEF, t. 1, p. 456).

Mujikak ere aipatzen du (Iztegiaren geigarrian, *Afijos Vascos*, p. 1885) -K. 2. con palabras de pasión: *Otzak, ottez, otzik nago*: estoy de frío; *goseak, gosez, goserik nago*: de hambre; *egarriak, egarriaz, de sed*.

Esaera oiek noraño edatzen dira Euskalerrian? Azkuek Gipuzkoa, Lapurdi, ta Erronkari izendatzen ditu; baiña noraiñoko zabalera duten ez du esaten. Lafittek oraintsu esan du Zuberoan ez dala olako esaerarik oitutzen. Bizkaian ere ez dira ezagutzen.

Zein itzekin erabiltzen dira? Egarxi, gose, otz, beldur itzekin bai. *Bero ta miñ* itzekin? Batzarrean zan apaiz batek esan zuen berak entzun duela irudi edo irudituak itzerekin: *Irudiak, edo irudituak nago*. Laister ikusiko degu na;'-kin ere erabiltzen dala.

3. Literatura zarrean. Azkuek ematen ditu bere iztegian Mendibururen esaera batzuk: Beldurrak negoen (Jesusen Bihotza, 8, 27); *Goseak dabila* (Otoitzgaiak, III, 195, 23). Eta esaera au ematen du Alduden artutakotzat.

Jesusen itzak idazle zaarrenak *egarri naiz* itzultzen dituzte, San Joanen Ebanjelioan. Lengo gizaldian, orain dala ia eun urte, protestanteak argitaratutako Ebanjelio batean dator: *Egarriak nago*.

Lizarraga Elkanokoak Koplak izeneko bertsozko liburuan olako esaerak ditu *naiak* itzarekin. Jesusekin diarduala onela dio bein:

Amorezko sutan - or guzia itxekirik,

ni, naiak barinbanago, - erretzeko bizirik (225-garren laukoan).

Eta Jesusengatik dio: Eman-naiak beti dago pobreen konbidatzen.

Eman-naiak pobreei Jesus emen... (327-garren laukoan).

An onaren kontra dire

guziak, nior fabore:

"ala ere nola ai-dire

eman-naiak on kolore! (494-garren laukoan).

Ala ere, Lizarragak Jesusen itzak Gurutzean *egarri dut* itzultzen ditu.

Esan bearrik ez, oraiñagoko literaturan gipuzkeraz maiz erabiltzen dala esaera

au. Ona emen oraintsu argitaratu dan Txirritaren libuman, *Auspoa* líburu-saillean:

Ardi gaiztoak paotxa jaten (daude),

onak *gosiak* lanian. (p. 112).

Nondik nora esaera oiek? Badirudi emen aditzen baten utsunea degula, *constructio praegnans* esaten dioten oietakoren bat. *Goseak il, egarriak ito, goseak amikatu, argillatu* ta olako esaerak zabal dabilta beste euskalerrietan. Goseak jo, otzak artu edo olakoren utsa dagoela esan genezake, *loak artu* ta esaten dan bezelaxe.

Esaera jatorrak dira, noski; baiña ez, bearbada, jatorrenak.

ACLARANDO : LA H ASPIRADA EN OIHENART*

En el artículo dedicado al calígrafo vizcaíno Pedro de Madariaga en este BOLETIN, año XXII, 1966, cuaderno primero, hice en nota una alusión a Oihenart (1), en la que se incluía una afirmación bien poco feliz sobre un punto de ortografía oihenartiana que quiero aclarar y puntualizar en estas líneas, por haberlo tocado entonces con tanta brevedad como imperdonable descuido e inexactitud.

Al proponerme hacer esta aclaración o rectificación claro es que no niego, antes estoy confesando que en otros trabajos míos han podido deslizarse inexactitudes o errores parecidos, en particular del género de aquellos cuya culpabilidad comúnmente suele atribuirse a no sé qué duende de las imprentas. Sin negar la existencia de tal duende, es necesario confesar que puede no ser él el culpable de las fechorías que pueden imputársele.

No creo superfluo anotar aquí algunos casos de uno y otro género que a mí me han sucedido.

En el artículo sobre José Pablo de Ulíbarri, en este mismo BOLETIN, año XVIII (1962), cuaderno primero (2), situaba yo a Oquendo, patria de Ulíbarri, «en el antiguo condado de Ayala». En lugar de condado de Ayala creo hubiera sido más justo decir: la tierra de Ayala. No sé que Ayala haya constituido nunca un condado propiamente dicho, si bien no faltan textos en que se nombra el condado de Ayala, y más a los condes de Ayala. Más frecuente y más antigua es la denominación de la tierra de Ayala o también del señorío de Ayala, en cuyo caso el calificativo de antiguo dado al pretendido condado es más injusto.

En el mismo artículo, al trasladarse la partida de bautismo del que había de ser célebre mariscal veterinario en Abando, hay una errata, pequeña si se quiere, pero

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 24 (1968) 185-189.

(1) Ik. 1.083-1.093. orr.

(2) Ik. 369-377. orr.

que altera sensiblemente el sentido. Dice «en esta sazón» donde debía haber dicho «en esta razón», con ocasión de mencionar la declaración del padre sobre la hora y día del nacimiento del bautizado. Cualquiera ve aquí la intervención del malicioso duende, por más que se, trate de una jugarreta de bien poca trascendencia.

Alguna mayor la tiene sin duda el desliz que provocó más recientemente en «Dos notas autobiográficas de Resurrección María de Azkue, comentadas» (BOLETIN, año XXI (1965) (3), al hacer decir al propio Azkue que nació un 25 de agosto, retrasando en veinte días la fecha verdadera. Aunque uno no sea testigo de mayor excepción respecto de la fecha del propio nacimiento, no había por qué poner a Azkue en contradicción con su partida bautismal, que data el suyo el 5 de agosto de 1864.

En el mismo artículo que ha provocado estas enmiendas y aclaraciones se decía que el nombre de Oa, ese lugar de Arratia donde radica el solar de Madariaga, se halla en algunos documentos escrito: Hoba. No puedo asegurar haber dado nunca con esa transcripción. No se quiso decir eso, sino simplemente que el nombre de Oa se hallaba alguna vez escrito con *h*: Hoa, pero no Hoba. Incluso la forma Oba, sin *h*, es reciente, de finales del siglo XVIII y no anterior.

Para confirmación de la fecha de este cambio de Oa en Oba, me permito traer aquí un testimonio que alude concretamente a dicho cambio.

El año 1829 terminaba, con sentencia desfavorable al demandante, un pleito iniciado 70 años antes por un vecino de Ochandiano contra los Aquesolos, dueños del caserío Aquesolo, sobre troncalidad y derechos de posesión del dicho caserío. La copia timbrada y legalizada de la sentencia es de 1833. Pues bien, en las últimas piezas incluidas en la sentencia, que son de 1827, se nota todavía una vacilación entre Oa y Oba. Pero hay un momento en que la vacilación cesa en favor de la forma Oa y es después que se ha dado esta aclaración: «caserío Aquesolo, sito en Oa, que hoy llaman Oba». Desde ese momento la única forma que se lee, y repetidas veces, es Oa.

Hay otra variante del mismo nombre (y perdónese esta nueva digresión) que encontramos nada menos que en la *Geografía General del País Vasco-Navarro*, y es Obas. ¿A qué obedece esta forma pluralizada? Sin duda al hecho de estar el barrio como desdoblado en dos: Oba de arriba y Oba de abajo (Barrendi y Goyendi, Obabarrena y Obagoyena). Para simplificar las cosas se ha querido al parecer prescindir de esos accidentes y detalles pluralizando el nombre. Pero Oba es y ha sido una, aunque sean dos sus componentes. Es fenómeno bastante extendido en Vizcaya este de la pluralización de nombres de lugar: Mañuas, Andracas, Magunas, Ajurias, etc, en geografías y mapas.

Caso curioso es el de Las Barrietas. El barrio de Labarrieta (barrio único todavía en la *Guía* de Delmas) se desdobra, al parecer, a raíz de la construcción del ferrocarril de Traslaviña a Castro, que lo partió en dos: el barrio de arriba y el barrio de abajo, y su nombre va a ser pluralizado. Para ello la primera sílaba se ha querido que sea artículo, resultando en plural, para ambos barrios: Las Barrietas de arriba y Las Barrietas de abajo.

No sé si el nombre de Gobelas, con el que es conocido un arroyo que vierte sus aguas en el Nervión muy cerca de su desembocadura en el mar, no ha sugerido a algún etimologista la posibilidad de que su última sílaba sea precisamente *lats*, arroyo. En realidad es también una forma pluralizada de Gobela, nombre que designaba, antes que el arroyo (que también se llamó Gresalzu), a un lugar próximo a la conjunción del arroyo con el Nervión.

El criterio que influyó en estas pluralizaciones de topónimos tal vez esté explicado por un manuscrito del historiador de Vizcaya, Iturriza. Se trata de uno de los tomos de su obra manuscrita inédita, colección de datos y copias de documentos que fue recogiendo para su historia. En él hay una relación o nomenclátor de todos los barrios y caseríos de casi el total de los pueblos de Vizcaya, con la indicación del número de casas de que se componían. Pues bien, cuando se trate de caseríos compuestos de más de una casa, suele designarlos en plural: Goiris, Artazas, Uribes, Aranas. Al tener un mismo nombre las casas del grupo, éste ha sido pluralizado. Esta puede ser la explicación del fenómeno de pluralización de topónimos en Vizcaya, a partir sobre todo del siglo pasado. El paso de estas formas plurales a libros y textos oficiales explica luego su difusión.

Terminemos ya estas un poco largas digresiones y vamos al tema propuesto en el epígrafe de este artículo, el de las inexactitudes en que incurrí en el artículo sobre el calígrafo Madariaga sobre la postura de Oihenart respecto de la *h* aspirada.

En efecto, en dicho artículo, tratando de resumir algunas consideraciones que el autor de *Honra de Escribanos* hace sobre detalles ortográficos, dije que a Madariaga no le hacía gracia la *h* como signo para representar la aspiración conocida y la querría suplir con una tilde, al estilo de los griegos. Y añadía yo entre paréntesis estas palabras: «En esto ha tenido un seguidor ilustre, nuestro Oihenart, quien en sus obras vascas no recurre a la *h* y en su lugar pone una tilde».

Esta afirmación así hecha sin más distinguos es, sin duda, desafortunada por demás. Oihenart, en realidad, sólo parcialmente se identifica en ese punto con el calígrafo arratiano; y aun ello, más en teoría que en la práctica.

Vayamos por partes. Oihenart expuso sus normas ortográficas para el vascuence en el prefacio a sus Proverbios y Poesías. Ciñéndonos al caso presente, digamos en primer lugar que no habla nada en general de la *h* o de la aspiración por ella representada, sino únicamente de las por él llamadas consonantes aspiradas que posee el vascuence y faltan en el latín, que son, I a C, L, N, R, P y T, pronunciadas con aspiración, como en las palabras *icara*, temblando, *ele*, palabra, *une*, cansado, *epe*, plazo, *ero*, loco, *ate*, puerta. ¿Cómo representar esa aspiración? Lo clásico y tradicional ha sido añadir una *h* a cualquiera de esas letras: *unhe*, *elhe*, *athe*, *ephe* (menos en el caso de la *c*, que ha sido sustituida por la combinación de *k* o *q* con la *h*). A Oihenart no le agrada esa solución y opta por un tilde, al modo de los antiguos. «Yo he preferido, dice, servirme para indicar esa aspiración, del espíritu áspero de los griegos antes que de la *H* de los latinos».

Esta es su teoría que sólo parcialmente coincide con la de Madariaga. No suprime la *H*, sino que no la admite en las combinaciones indicadas. Y sólo para esas combinaciones quiere la tilde.

Pero, ¿qué hizo en la práctica? A pesar de su postura tan firme y tajantemente declarada, vemos que el autor no ha confirmado su teoría con la práctica sino en muy contados casos. Tal vez haya obedecido ello a dificultades u objeciones opuestas por los impresores para la aplicación de las normas ortográficas del autor. Así se explicaría el que ni en los ejemplos presentados para ilustrar su teoría se vea ésta aplicada. (La segunda edición de sus *Proverbios y Poesías*, preparada y hecha por Michel y Archu en 1847, trató de ser más fiel a la teoría del prefacio del autor). Oihenart prescinde tanto de la tilde como de la *h* en combinación con la *k*: *neke*, *ekarri*, *oker*, *bekaitz*. Y, en general, en los demás casos se atiene a la práctica tradicional.

Chaho, en sus *Régles d'orthographie euskarienne*, expuso y rechazó la teoría de Oihenart.

Para terminar, digamos que Oihenart no considera sino el caso de la *h* aspirada. En caso de la *h* muda no se planteó siquiera por creer sin duda que un signo que no representa nada es un contrasentido y no tiene razón de ser. Este problema no cabe plantearse, en efecto, sino tratándose de préstamos, de palabras incorporadas de otras lenguas, de neologismos o vocablos neológicos que es como en su tiempo llamaban tanto Lécuse como Chaho a las palabras tomadas de otras lenguas. En este caso el signo, la *h*, representaría un sonido o aspiración existente, en el momento actual o en el pasado, en la lengua originaria.

En este caso cada lengua ha seguido criterios propios. No hay al menos normas universales aceptadas por todos. Mientras el castellano acepta y conserva las *h* del latín y aun algunas inexistentes en la lengua madre, como es el caso de *huevo*, *huerto*, el italiano las ha tirado por la borda con muy pocas excepciones: *iperbole*, *ipotesi*, *istoria*. Algo parecido ocurre en las diversas lenguas con otras letras; y así frente a un acorde castellano nos encontramos con un *akkord* alemán, y frente a un *acreditar* con un *akkreditieren*.

En vascuence, si no podemos opinar sobre la postura que Oihenart hubiera adoptado de haberse planteado el caso, sí podemos decir algo del uso de los nuestros a través de las diversas épocas, que ha sido fluctuante y vario, habiéndose manifestado últimamente una tendencia a erigir en norma general y rígida el respeto a todas las *h* en palabras tomadas de otras lenguas, ya sean aspiradas o mudas. Parece apoyarse esta tendencia en la creencia de ser ésa la norma corriente y universal, que ya hemos visto que no lo es.

Para ilustrar la postura varia adoptada por nuestra literatura respecto de la *h*, presentaremos los títulos de unas cuantas obras en los que entra un mismo préstamo: *Testamen Zaharreco ta Berrico Historia*, de Larregui, en 1775; *Testament Zahar eta Berrico Istorioa*; de Etcheberri, en 1875; y en la primera mitad del siglo XX, *Ichtorio Michterio*, de Barbier, e *Ichtorio Saindua*, de Elissalde, en 1943. La nueva tendencia que parece insinuarse, de retomo a los modos viejos, puede quedar representada por el título de una obra de teatro, que ha sido discutida por su mismo título y por otros aspectos: *Historia triste bat*.

GALDEGAIAREKIKO AZTERGAI BAT EDO BESTE*

Gai au noiztik onakoa

Euskal-joskeran galdegaia delakoak garrantzirik baduela ukatzerik ez dago. Galdegaiaren legea beti onartua edo ondo erabilia ez dala izan ere egia da; gramatikariek oraintsu aurkitu eta aztertua da. Astarloak nolabait antz eman ziola dirudi. Euskaldunak ez omen du esango, erdaldunak bezela: «Iré después de comer» (joango naz janda), «janda joango naz» baizik. Baiña Astarloak nik ez dakit nongo edo nolako filosofi sakonetara jo zuen, euskal-joskeraren lege au argitu eta azaltzeko.

Azkue izan zan (bere *Euskal-Izkindean*) «elemento inquirido» dalakoa asmatu eta bataiatu zuena. Berak euskeraz «gai bilatua» edo «itz bilatua» esaten zion. «Elemento inquirido» ori onako galdera aukeratu ematen omen dute: *Nor, zer, non, zelan noiz, zelangoa, zein eta zeinbat*.

Galdegaia erantzuteko itzek, euskal-joskera jatorrez, esaldiaren aurrengo lekua bear zutela esan zuen Azkuek «Euskal-Izkindea» orretan. Gai au ez zuen, orrela, argiegi uzten. Azterketa berriak etorri bearko zuten argi beteagoa egiteko. Eta olaxe gatoz Altube zanaren azterketa sakonagoetara.

Izan ere, Altube jaunak aztertu du gai au sakonen, edatuen eta zeatzen. «De sintaxis euskérica», eta «Euskerearen joskerea dala-ta» gaitzat arturik, «Euskal-Esnalea» aldizkarian plazaratu zituen, urrerorik urrerongo, urtez urte, bere azterketa eta argibideak, eta geroago, dana bildu eta «Erderismos» liburuan argitaratu.

Gai au, gaur, gei-gutxi, Gramatikalaririk geienek jo eta aztertzen dute, izen batez edo beste: «galdegai, galdekizuna» euskeraz, «elemento inquirido» edo «mot de valeur, terme requis» (Lafitte), erderaz.

* Euskera 24 (1979) 371-380. Arrasate'n, 1979-XII-20n, emondako itzaldia.

Galdegaia zer dan

Euskeraren lege au zer dan badakigu gutxi gorabera. Euskaldunak esaldiak asma-tzean, dakiela edo ez dakiela, galdera nausi batzuei erantzuten omen die, eta egindako galderari erantzuten dion itza, mintzatzaillearen asmotan itz nagusia eta garrantzirik andikoena dana, aditzaren aurrean jartzen du. Galde-itzaren ordezekoak, euskal-esal-dian, galde-itzak berak izan duen lekua darama. Nor dator? Aita dator, eta ez inñolaz ere, «dator aita». «Nondik dator? Menditik dator. Nola dator? Oñez dator, astiro dator, azkar dator», eta ola. Noiz dator? Gaur, oraintxe, biar, arratsaldean dator. Euskeraz ez dago: «dator menditik, dator gaur, dator azkar» edo olakorik esaterik. Gaizki esana legoke, euskal-gaiztoa litzake.

Lege onek badu beste alderditxo bat ere. Galdegaia aditzaren aurrean jarri bear dala esanez ez degu dana esan. Galdegai orrek, aditzaren aurretik joanez gaiñera, aditzari datxikola joan bear du; aditzaren eta galdegaiaren artean ez da etenik bear; biak bat egiñik bezela eta alkarri loturik esan bear dira. Koska au Lafittek ikusi duela uste dut ongien. Ona idazle eta gramatikalarri onek dakarren esalditxo au: «Leihotik aurdikia da». Esaldi onetan «leiotik» aurrizki bezela lotzen zaio «aurdikia» itzari. Lafittek dionez, erderazko «defenestrar» itz batez esango bagenu bezela (Lafitte, Gram. n. 117, 2).

Lege au ongi gorde gabez, esaldi bat bera oker edo bi eratara ulertzea gerta daiteke. Bestela esanik, esaldi batek, batera esan, bestera esan, ez du gauza bera esango. Ona iru itz berdin: aita, etorri, da. Bi eratara esan dezaket: Aita etorri da, *aita* itza *etorri* itzarekin estu loturik dijoala. Onela, nor etorri da? galderari erantzun diot. Baiña beste era onetara: «Aita, etorri da» esaten baldin badut, beste galdera bati erantzungo diot: etorri al da? galderari. Erantzun bakoitzean galdegaia zein dan, ari ematen zaio indarra. Leenengokoan, *Aitari* eman zaio indar au, eta aditzarekin batera dijoa, eta bigarrenekoan, *etorri* itzak artzen du indarra, joa, eta indar onek beronek banantzen eta bereizten du nolabait aurrean duen itzetik, edo onen ondoren etentxoia egin daiteke.

Egia da Altubek gai onetan azentuari edo doñuari ematen diola garrantzia eta azentuaren aldetik ematen dituela ainbat azalpen eta argibide. Etentxoia egin dan ala ez, indarra zein itzi ematen zaion begiratzeak ez ote du ainbeste edo berdintsu balio? Gaiñera azentua ez da alde guztietan berdiña.

Zein aditz jarri galdegaiaren ondoren, laguntzaillea ala bestea?

Aditza laguntzaillearekin danean, ez dabilta euskalki guztiak ildo beretik, ez diote ari leku berdiña ematen. Iparraldeko euskalkiek aditz laguntzaillea jarri oi dute galdegaiaren ondoren. «Orratzak baino ariak luzeago behar du izan», esango dute, guk, emengook, «izan behar du» esango genuken lekuan. Edo: «Nork du okela jan? Zakurrak du okela jan».

Ala ere, ez dezakegu esan aditz laguntzaillea aurreratze au iparraldekoena ba-karrik danik. Eta ez bakarrik, gure bertsoari, bertsoak bearturik, bide ori artu bear izaten dutelako. Itz-lauzko idazleek ere izan dute olako esaldirik. D. Agirre-ren esaldi

bat dakar Altubek, onen argigarri, nere ustez ain argia ez dana! «Zeuen ondatsunari deusagu zor». Ez dala ain argi diot, *zor* ori ez baita aditza. Nik adibide argiago bat aitatu nai dizuet, neronen aurtzarokoa, nere osaba bati luzarorako barregaia eman ziona. Bost-sei urteko nintzala, osaba orrenean nintzan, eta arek, zirikatzearren, neri: «Ara, guk lapikoa barria eta zuek ez». Eta nik: «Lapiko barria! Ba! Ori be, bateti baltzitu, besteti baltzitu, laster da zartu». *Laster da il, laster da galdu*, onelako esaldiak eurrez erabiltzen dira Bizkaian. Ona beste bat, Kardaberazena: «Deabruaren damugarri gaiztoan, santuak bear dezute izan» (Kardaberaz, Ejerzizioak, II, 7).

Esaldi bakoitzean zenbat galdegai?

Esaldi bakoitzean bi aditz eta bi galdegai ere gerta daitezkeela esan bearra dago, eta bata aditz batari eta bestea besteari lotua aurki daiteke. Esaterako: «Gizon orrek ederki daki gezurrak zuritzen, ez dana badantzat ematen». Batak nola daki galderari erantzuten dio, eta besteak zer egiten edo zer zuritzen galderari. Gaiñera, bein baiño sarriagotan, norberak ere ez du jakingo zein dan galdegaia edo itzik garrantzitsuena ziur eta zeatz erabakitzen.

Altube zanak arlo onetan maisuki aztertu eta irakatsiek euskal joskeraren muiña argitzeko laguntza ederra ekarri dute, eta aurrerakada andia izan dira. Joskera-kontuan, euskerak gure inguruko izkuntzen molderik ez darabil; orretan bere berea duen orkoia eta egitura du. Itzak (euskal-esaldietan) atalka, sortaka bezela sartuak daude, alkarri tinko atxikiak, batzuk atxikiago eta lotuago besteak baiño. Euskal-joskeran, galdegaiaren garrantzia ukatuko duenik nekez aurkituko da gaur. Ala ere, ba-da joskera-araurik bete betean onartu ez danik. Beste arau batzuk, berri, ez dira gutziz ongi ulertu edo estuegi artuak izan dira. Olakorik ere badegu.

«EGIN» aditz-laguntzaille arturik sortutako esaldiak

Joskera-arau bat, gure literatura zaarrea onfiarririk gabekoa, *egin* aditza laguntzailletzat arturik sortutako esaldiena da. Onelako esaldiak maiz erabiltzen dira gaur, bear bada maizegi. Literatura zaarrea ez dute ia aztarrenik utzi. Altubek Aita Bartolo Markin-Etxebarritarraren esaera bat edo beste aurkeztu digu. Beste guztiak berriak ditu, oraintsukoak, eta Bidasoaz onuzkoak, gaiñera. Lapurdi aldekorik bat ere ez. Ango euskalkietan ez ote da *egin* au onartzen? Lafitte jaunak baietz dio, itxasaldeko errietan beintzat. Baiña gramatikalarri onek ez du ango *egin* au galdegaiarekin naastu ez alkartu. Esaten danari indar geiago ematekotzat dauka, ez bestetako. Ona berak jartzen dituen bi adibide: «Izertaldi on bat irabazi egin dut». Lafitte jaunak dionez, «izertaldi on bat irabazi, orixe besterik ez dut egin» esan nai du. Beste adibidea: «Etsaiak erraustu egin ditu». Emen ere «etsaiak auts biurtu, ez du gutxiagorik egin», esan nai omen du. Literaturan nik onako au aurkitu dut: «Lurreko lertzoez zikindu egin da» (Prop. 1898,51).

«EGIN» aditzaren beste erabilkera batzuk

Egin aditz onek izan ditu eta oraindik baditu beste erabilkera batzuk ere, galdegaiarekin zer ikusi andirik ez badute ere. Erabilkera bat, beste aditz baten ordeztan, aditz bera berriz ez aipatzearen jarririk «Hala dabilanari gerthatzen zaikana egin zait neri ere» (Axular. Gomendiozko karta). «Konfesatu al zera? Bai, ni egin naiz, zuaz zu ere egitera» (J. I. Arana, Euskal-Erria, 1881, 287). Ni baño larriago/ezkontzeko bera. Zorrotz galdetu zidan:/Noiz egingo gera? (Txirrita, Galai bat etorri). Eta Chourio-ren au: «Hastantzen bazare Harenganik, maiz egiten zeran bezala» (Imit. III, 50, 2). Esaldi auetako *egin*, *egiten*, *egitera*, *egingo*, gerthatzen, konfesatzen, ezkontzeko eta hastantzen, berriz ez esatearren daude.

Eta egiteko au, beste aditz baten ordeztan sartzea, alegia, orixe besterik ez du, Altubek aztertu dituen zenbait esalditan. «Ekarri neuk egin neban», Altubek berak dionez, «ekarri neuk ekarri neban» ere esan daitekena. «II be orrelaxe egingo dirala» (il be orrelaxe ilgo dirala), Edo: «irakurri, gitxi irakurten dabe euskaldunak» (irakurri, gitxi egiten dabe euskaldunak, berdin liteke). Ainbat esaldi jator osatu edo sortu daitezke *egin* onekin. «Onek zer ikusi, a ikasi» egiten du... «Dominus Vobiscum: agindu eta emon ez, egin euskun... Ilondoan egin bear dira: ongarria itzuli, babazarra erein, eta txerria il...» Kanta zaarretan: «Askok egiten dio San Antoniori, egun batean joan, bestean etorri».

Orrelaxe, Iztuetak, aditz askodun esaldi bati azkena emateko, eta guztiak alkarrekin lotzeko, *egin* aditzera jo zuen onako testu onetan: «Asi zan purrustaka, bein (baratzeko landare) batari murtxi, gero besteari ximikatu, zaiñak eten, besangak ausi, azalak zanpatu, mamiak miaztu, loreak usaindu, orriak igortzi, pipitak ortzikatu eta beste asmakeri guztiak... egiten». (Gipuzkoako Kondaira, 165-66.9)

Esaldi auen antzekoak dira Altubek dakartzan beste batzuk ere: «Zuk osterera, seme beartsuei kendu eta aberats zakurrei emon» egiten dozu... Orren aurrean guk «burua makurtu» egin bear dogu... Irabazi? «Galdu ez» egitea be naikoa izango dogu... Ik, emon bearrean, «euk jan» egin dok...

Esaldiok, noski, beste era batera ere moldatu zitezkean, baiña olaxe, dauden daudenean ere, badute beren koska eta zera, bai azentuak eta bai itzen alkartzeak emana. Olakoetan, esaldi mordoxka bat edo aditz-mordoa, *egin* datxikola jartzen da, onen geigarri bezela.

Eta onelaxe agertzen da *egin* au bertsolari askorengan, bertsoaren betegarri sartuta:

«Fogonerua trenetik/egin zan erori... Matxurarik etzaio/ azaldu berari... (X).

«Zer edo nola dabilzan/egingo zaie goatu... Lengo egunak egin zaizkate 'gizarajuai muatu'... *Soldaduzkako bertsoak*, Auspoa (139,69)».

Orrelakorik ez nun pensatzen, /asko egin naiz arritu... (Id. 79.).

Ikusten danez, *egin* aditz onek gure izkuntzan leku zabala du eta egikizunik asko. Emen esanak ez dira, noski, galdegaiaren joskerarekin ikusteko andikoak, baiña lagungarri, bai, izan daitezke, gai au ere ulertzeko.

Goazen, bada, arlo onetara, *egin* aditza eskatzen duten esaldietara, aditza bera galdegai dutenetara. Au noiz gertatzen da? Tartean, agerian naiz ez, urrengo galderen

bat danean: Zer gertatu zaitzu? Urliari zer egin diozu? Artu ala artu ez, egin du? Erantzunak, aditzari loturik *egin* eramango du, aditz laguntzaille egiten diola, eta biak elkaturik dijoztela. Oztitu egin naiz,... Geixotu egin naiz... Beldurtu egin naiz.. Urliari zer egin diozu? Jo egin dut... Ez dut jo egin, ikutu besterik ez... Irabazi ala galdu, zer egin duzu? Galdu çgin dut...

Erantzun auetan aditza bera da galdegai eta erantzun orrek *egin* aditza artzen du, laguntzaille bezala, bera beti berdin gelditzen dala. Zer egin duzu nik emandako sagarrarekin? Jan egin dut, bota egin dut, eman egin dut». Ola erantzungo du euskaldun jatorrak, motz-motz erantzun nai ez badu: «jan, bota, eman». Eta esaldi auetan, ez dakigu, erantzuten duenak esan arte, zein izango dan erantzuneko aditza.

Beste erantzun batzuetan, galdegaia aditza izan arren, ba dakigu aurretiaz ere zein izango dan erantzuneko aditza, galderakoa bera. Bai ala ezko galderetan gertatzen dau au: Etorri da, bai ala ez? Ekarri du, bai ala ez». Galdera auek, *egin-ik* gabeko erantzuna eskatzen dute. Etorri al da aita? Aita etorri da, etorri da aita. Ekarri du aitak gozorik? Aitak ekarri du, bai, gozorik. Eta ez dezagun aantzi, orduan aditzak eraman bear duela indarra, galderari baiezkkoa ematekotan. Ez dezakegu esan: Aitak ekarri du, aitak, ekarri du baizik.

Eta galdera auek ere izan dezakete *egin-dun* erantzunik, erantzuna ain garbi, osozkoa eta erabakia ez danean, *baiña-duna* danean. «Aita etorri egin da, baiña ez da iñon ageri, ez dugu ikusi... Aitak gozorik ekarri egin du, baiña ez guri emateko»... Azken-erantzun onek bere koska, bere zera ezartzen dio besteari.

Azkenez, *egin-dun* erantzuna gerta daiteke beste galdera batekin, bi aditzdun galderekin: «Joan ala gelditu egiten zera? Gelditu egiten naiz... Diozuna entzun ala ikusi egin duzu? Ikusi egin dut»...

Egia da galdera auek bestela ere egin daitezke eta orduan beste erantzunik eskatuko dutela. Esaterako: «Diozuna entzuna ala ikusia duzu? Ikusia dut». Nola galdetu, ala erantzun, gertatzen da emen. Iparraldekoek ez dute berdin erantzuten. Au ere galdegaiaren legeak eskatzen duena da.

Galdera laburrezko esaldietan lege auek erraz dira betetzen. Baiña askotan ez da ain erraz erabakiko non dan edo zein dan galdegaia, zein dan une bakoitzean garrantzi geien duena, batez ere, esaldi asko saillean datoztenean.

Altubek bai ala ezko esaldiak aztertzean, argitasun egokirik eman du. Eta ona auetako bat: Baiezko euskal-esaldiek gaztelerara itzultzerakoan, askotan «ya» adverbioa eskatzen dutela dio, baiña ez beti: «Ekarri dute, ya han traido. Etorri dira, ya han venido». Emen, galdegaia aditza bera bada ere, ez du *egin-ik* bear. Eta orixe bera gertatzen da esaldi luze askotan, kontaeretan aditz-mordoa bata bestearen ondoren datorrenean. Aditz auek, aditz trinkoa, sintetikoa, erabiltzen danean, *ba* aurretik dutela jartzen dira; eta aditz ori, laguntzailleduna baldin bada, oa-rik ez du, baiña berak artzen du indarra, azentua.

Altubek D. Agirre-ren *Kresala-tik* artuta, onako puska dakar argigarri: «Gabon aurretuxoa zan. *Bagagoz*, *bagagoz*, potin txiki baten lau lagun, berdeletan... *Jaso genduan* triketa, ta bagentozan kezka barik.. joten gaitu aize dunbada batek eta braust!, danak itxasora, txalopa, barruko arrain, otzara, soka ta tresna guztiakaz batera ta nastean. Alan be, urten genduan urazpitik, or batak eta emen besteak, danak otzak

ikaraz: inguratu gara igarian, popaz gora egoan txalopara, ta itandu geuntsan alkarri: Gizonak, zer izan da au».

Beste adibide bat edo beste Aita Bartolo-rena dakar. Besterik ere ekarri dezakegu. Aita Ipolitok (Legoaldik) *Txapelgorritxo* ipuian: «Gero (otsoak) jantzi ebazan (amamaren) soñekoak, imiñi eban buruan izeratxoa, sartu zan oian...» Liturjiako irakurgaietarik, ona bat, Jesukristok jarritako konparaketa batekoa: «Egin zuen euria, etorri ziran uoldeak, atera zuen aizea, jo zuen etxe ura, eta erori egin zan» (Mar. 7, 27V

Esaldi auen antzekoak, kontakizun baten arian datoztenak, berarizko bizitasuna ematen diote itz-jardunari, oso jatorrak dira eta aintzat dauzka Altubek. Galdegaia zein dan edo ez dan burua austen ibilli gabe sortzen dira. Gertakizunak alkarren ondoan datoz eta auetako bakoitzeko aditzak dioena dute ardatz eta galdegai. Erri-literaturan bada orrelako joskera bizirik: «Errotara niñoiala, topa neban erbi bat, atera neutsan begi bat, ipiñi neutsan barri bat. Errota txikiñak: Klin-klan!».

Altuberen irakatsiak bein baiño sarriago aantzi egiten ditugula -ta nago ni, edo beintzat oter samar ulertzen ditugula, erdizka, ez zuzenegi. Orrela, geiegitan, aditza atzera bota bearrez, ez ote gabiltza? Ola egiñez, aditza atzeratuz, askotan asmatuko dugu, jator idatziko dugu, baiña ez beti. Noizik bein, uste dugun baiño geiagotan, aditzak aurreko lekua berea du. Batez ere, gertakarizko esaldietan.

Arlo onetan maisuak eman zigun irakatsia ez dugu aantzi bearako, ta ola maisu berak emandako beste irakatsi batzuk obeto ulertu al izango ditugu edo beintzat, ez estuegi artu. Eta ona auetako bat: kontaera baten barruan, gertakarien arian, norbaiten itzak sartu bear diranekoa. Orduan, aipatu bear diran itzei sarreratxo bat jartzea egoki izango dala dio maisuak, «*Au, auxe*, edo *onelaxe esan* edo *erantzun zuen*», edo olakoren bat sarreratzat ipiñiz.

Orra kontuan artzekoa: ez du esan maisuak ori egitea bearrezkoa edo ezinbestekoa danik. Eta aitopen auxe egiten du berak: erri erriak jaramonik gitxi egiten diola lege orri. Eta adibide au jartzen du: «Amak esan dit biyar lan asko daukala eta ezin etorri al izango dala». Jatorrago legokela dio beste onetara: «Biyar lan asko daukala eta ezin etorri al izango dala esan dit amak». Ala ote da? Jatorrago ote dago? Nik ez nuke esango or argiegi dagoenik zein dan galdegaia edo zein dan garrantzitsuena, ala amak esan didalakoa, ala amak zer esan didan, ala bata nai bestea zein bere eifnean. Nola nai ere, lege au ez zitzaion gogoratu Altuberi berari, lentxeago irakurri digun D. Agirre-ren testua ain jator aurkitu zuenean. An garbi eta soil dugu azkeneko esaldi au: «Eta itandu geuntsan alkarri: Gizonak, zer izan da au?» (Altubek azken au kopiatu ez zuen arren, neuk jarri dut emen). «Itandu geuntzan» orrek ez du bear aurretik ez *auxe*, ez *orixe*, ez *onelantxe* ez antzekorik. Olakorik izan balu, esaldi orrek, abiada galduko zuen, ez zen jatorrago geldituko, motelago baizik.

Berdintsu gertatzen dala uste dut nik Ebanjelioetako itzekin ere: Bein eta berriz «Jesusek auxe esan zuen edo onela erantzun zuen» esateak ez ote du testua bitxiegitxo edo moteltxoago egiten?

Puntu au argitzeko, gogora dezagun Altube beraren beste irakatsi au: Orren antzeko esaldietan, zerbait baiezkoko esan bear-eta, aditz sintetikoa erabiltzen dugunean, *ba* aurretik duela erabilli bear omen dugu: esaterako, Jesusek badio, edo badirausso Jesusek» edo ola. Eta jakiña: *ba* au aurretik duten esaldietan, aditza bera da galdegai, eta berak du indarra. Eta ez zaio ez *auxe* ez *orixe* ez besterik aurrera botatzen ez

ezartzen. Au onela baldin bada, joskera-legea berdiña da, izan, bai aditz sintetikoa duten esaldietan, bai ez dutenetan, aingabejoetan.

Ikutu gabe uzten ditut beste xeetasun batzu, eta emen bukatzen dut ene jarduna. Barkatu nere luze izana eta argiago ez izana. Orain azkena emateko, laburpen gisa, emen dijoa esandako batzuen mamia:

- 1) Galdegaiak euskal-joskeran garrantzi andia du; gure izkuntzaren bereizgarrietakoa da.
- 2) Galdegaiak, euskal-esaldietan, aditzaren aurrean eta oni datxikola dijoa, biak bat egiten dute, eta au oguzkerak ere erakutsi bear du.
- 3) Oguzkera ezberdiñak galdera ezberdiña adierazten du. Aita etorri da, eta «aita, etorri da», biak itzez bat izan arren, biak galdera ezberdiña daukate, eta oguzkera ezberdiña, eta ez dute gauza bera esaten.
- 4) Aditza bera galdegai danean, batez ere Egoaldeko euskalkietan, *egin* ematen zaio ari laguntzaille eta euskarri. Baiña ez beti.
- 5) Baiezko esaldietan aditza galdegai onek ez du eramaten *egin* orren laguntzarik. Aita etorri da. Nola berezi? Oguzkeraz, aditz oni indarra emanaz eta ola nolabait aurreko itzetatik bananduz.
- 6) *Egin-dun* esaldiok ez dira beti bearrezkoak, bestela ere erabilli daitezke, *egin* ori gabe. «Ez duela ekarriko, baiña ekarri du, edo ekarri egin du». Bigarren onek, bear bada, indar geiago eman nai dio baiezkoari. Gaiñera, Bidasoaz onuzko idazleak jatorki idatziko du: «Eguzkiaren beroak ezkoa bigundu eta lurra gogortu egiten du». Baita ere Lapurdi aldekoak: «Iguzkiaren beroak ezkoa du biguntzen eta lurra gogortzen».
- 7) Arian datozen kontakizun luzeetan, besterik iruditu arren, aditza bera izan daiteke galdegai eta bera joango da aurretik eta berak artuko du indarra, bai *ba-dun* esaldietan aditz sintetikoekin, eta bai bestelakoetan.
- 8) Onetan estuegi jokatzeaz, Altuberen irakatsi batzuei lotu bearrez, beste batzuk aantzeko arriskuan erori gaitezke.

ADITZ-IZENA LOPEZ IDAZLEAREN LIBURUAN*

Mintzaldi hunen gaiak euskarazko gramatika-arau ttipi bat hunkitzen du, Lopez apezaren liburuan («liburian», Lopez-en arabera) ikusi eta ikertu nahi duguna: idazle hunek aditz-izena nola sortzen eta erabilten duen.

Zertan datza diogun arazu hunen mamia edo funtsa? Lopez-en liburutik aterarik, eman ditzagun zenbait aditz: *sortu, hunkitu, eman, izan, uken, ikusi, iretsi, hautsi, maitarazi, ibilarazi*. Aditz hauetarik nulako aditz-izenak sortzen dira? *Sortzen, hunkitzen, izaiten, emaiten, ekarten, ikusten, iresten, hausten, maitarazten, ibilarazten*, eta hula edo hulatsu beste aditzetan. Bainan ez beti eta euskara guzietan bardin. Euskarak eztu gramatika-gai hunetan lege bardiñik erabili beti, eta egun ere euskara guziak eztabiltza bide beretik. Aipatu ditugun aditz-izen guzietan azkenean *-tzen* edo *-ten* entzun dugu. Noiz bata eta noiz beste erabil? Horra gakoa, eta horra ez bardin-tasun bat edo besteren iturria, tokiz toki eta mendez mende.

Ibarreko eritor izen zenak badu puntu hunetan bere bidea, batzuetan aski ongi finkatua, beste batzuetan ez hain ongi, ez zalantzarik gabea. Aditz bat bera bi gisatara erabilten du ez gutitan. Dakusagun noiz joiten duen batera eta noiz bestera, eta noiz ikusten dugun dilindan, zalantzan, bi aldetara. Ea puntu hau laburki argitzen dugun.

1. Eta huna lehen-araua, edo bederen guk leenik aipatzen duguna: *-tzen* derabila azkenean *-tu* edo *-du* hartzen duten aditzekin: maitatu (maita-tzen), beiratu (beiratzen), agertu (agertzen), hurrandu (hurrantzen), hartu (hartzen), luzatu (luzatzen), gazitu (gazitzen), zabaldu (zabaltzen), gogaindu (gogaintzen), apaldu (apaltzen)... Arauhau ongi finkatua dugu Lopez-en liburuan. Bizkaiko eta Erronkariko euskaratik kanpo, arau hau euskara guzian sendotuenik ageri den araua da. Hala ere, badu bere hutsa:

* Euskera 27 (1982) 443-446. Donaixti-Ibarre'n, 1982-IV-18n emondako itzaldia.

-tu horrek aitzinetik S edo Z duenean. Orduan eztagu *-zen* entzunen, *-ten* baizik. Huna bost aditz: aberastu, laztu, apeztu, piztu, hotztu. Lopez-en liburuan euskararik gehienetan bezala, lazten, apezten, pitzen, hotzten, aberasten egiten dute.

2. *-Tzen* derabila azkenean *-e* dutenekin ere, Ase, bethe, erre aditzetarik Lopez-ek asetzen, erratzen, bethatzen sortzen ditu. *Asetzen* hori, agian, ezta *ase* aditzetik atera, eta bai *asetu-úk*. Baina nabarmenena beste biena da: erre ta bethe-tik, erratzen eta bethatzen sortzea. Nabarmena da, bainan ez harritzekoa. Ezpaitugu nabarmentasun hunetan Lopez bakarrik aurkitzen. Euskal-literatura zaharragoan ere *erratzen* eta *bethatzen* irakurten baitugu, bai Leizarraga zaharraren liburuetan, bai eta berriagoko beste zenbaitenetan. Jokabide bardintsua derabila Lopez-ek beste aditz batekin. *Bustitzen* eman orde, *bustatzen* eman du. Ala ba ote da edo izan ote da *bustatu* formarik?

3. Lopez-ek *-tzen* formara joiten du *-arazi* faktitibo delakoaz moldatu aditzekin. Ezta ttipia gero faktitibo horrekin egiñik eman digun aditz-zerrenda: ahatarazi, atxikarazi, handiarazi, emanarazi, maitarazi, errarazi, honiarazi, beharrazi, iraunarazi, zoriarazi, ibiliarazi, igiarazi, seindiarazi, arhinarazi, finkarazi, sinetsarazi, eta abar eta abar. Abantzu guzietan *-arrazitzen* eman du: ahatarazitzen, maitarazitzen, seindiarazitzen eta hula. Arras gutitan huts egin dio lege huni. Huna hiru adibide: probetxarazi (probetxaraziten), erranarazi (erranaraziten), galarazi (galaraziten). Sine-sarazi aditzarekin uken du zalantzarik handiena. Hiru gisatara eman du: siñetsarazitzen, siñetsaraziten, eta siñestarazten. Azkenengo forma dugu, noski, egungo idazletan hedatuena.

4. Azkenean *-n* daramaten aditzetan, *n* hori kendu eta *-ten* derabila: jaten, edaten, jiten, egiten edo eiten, eraiten edo eragiten, sogiten (so egiten), irauten eta hula. Bainan *-an*, *-en* eta *-on* azkendunetan I bat agertzen da *-ten* horren aitzinean: eman (emaiten), erran (erraiten), jasan (jasaiten), igan (igaiten), igan (igaraiten), ereman (eremaiten), izan (izaiten), uken (ukeiten), egon (egoiten), joan (joaiten). Bardin, *Jo* aditzarekin ere: joiten. Goian aipatu *diuugmjan* eta *edan* gelditzen dira lege hunetarik kanpo: jaten, edaten.

5. *-Ten* formara joiten du azkena *-tsi*, *-si* edo *-zi* egiten duten aditzetan (arazi faktitiboa kendurik): hasi (hasten), hazi (hazten), egosi (egosten), ihardetsi (ihardesten), utzi (uzten), egotzi (egoitzen), iretsi (iresten), jeutsi (jeusten), nahasi (nahasten), erakatsi (erakasten), ahazti (ahazten), hautsi (hausten), eta abar. Euskara osoan arau hau hedatuena dugula esan beharrik ote da? Lopez-ek ez dio hutsik egin. Leizarraga zaharrak, adibidez, hazi-tik hatzen egi zuen, eta utzitik, utziten eta uziten. Lopez-ek, ez.

6. Azkenean *-ri* duten aditzetan *-ten* derabila gehienik edo abantzu beti: jarri (jarten), erori (erorten), ekarri (ekarten), erekarri (erekarten), irakurri (irakurten), eta hula. Idazle zaharrek lege arrunta zuten hau ere. Lopez-en liburuan nehoiz *irakurtzen* badugu, ez dugu ahantzi behar *irakurtu* forma ere badela, gure idazleek erabilia. Horra, beraz, forma bikoitz hunen iturria. Bainan erran dezadan, behin bederen, *erakartzen* ere eman duela.

7. *-Gi* eta *-ki* azkendunekin, zalantza ttipi bat badu, gehienetan *-ten* formara joiten duela: idoki (idokiten), jalgi (jalgiten), jeiki (jeikiten), iguriki (igurikiten), ideki (idekiten), jarraiki (jarraikiten), atxiki (atxikiten); bainan beste hauek ere bai: jarraikitzen, igurikitzen, edekitzen, iraungitzen.

8. *-Li* azkendunekin ere bi aldetara ari zauku, erabilten, eta erabiltzen; gehienetan *-tzen*: ibiltzen, itzultzen, itzaltzen (agian azkeneko hau itzaldu edo itzaldu formatik sortua).

9. Azkenez, aditz bakar bat aipa dezadan: hil. Hiltzen egiten du beti, Leizarragak egiten zuen bezala.

Laburki bederen, horra egungo omenaldia egiten diogun apez idazleak aditz-izenekin erabili zuen jokabidea, puntu hunetan derabiltzan arauak. Hauetako batzuk egun ere bizirik eta zabal dirauten arauak dira. Beste batzuk mende hartan hedatuago, zabalduago zeuden, egungo egunetan baiño. Mendez mende euskarak izan dituen goiti-beheiti batzuk argitzeko jakingarriak direla uste dut.

Barkatu ene lantto hunen huskeria, ez-deusa. Ibarreko ertor izan zen hunek gehiago zuen hartze, gehiago merezi zuen. Idatzi zuen liburuak badu zer ikertu, eta zer ikasi. Ni ez naiz lotsa, mende hartako euskal-idazle jatorrenetakoa dugula erraiten... Apal esten zuen bere burua. Izena ere ixilpean gorde nahi izan zigun. Baina liburuari on-iritzia ezarri zion apezpikuari sinesten badiogu, «Diozesako jaun ertor errespetagarrienarik bat» izan zela aitortu beharko dugu. Berak aitormen apal hau egin zigun, «Heuzkara aski untsa jakin gabea» zela. Hala ere, beste anitzek egiten jakin ez tuten egin du: erdal-liburua euskarara itzultzerakoan, zuhurki intseatu da, euskararen sena, jitea, «ara edo ethortza», berakdioenez, kondutan hartu eta atxikiten.

Gero, euskaldunei zer irakurri eskeintzerakoan, bide berri bat urratu du. Eztu jo, aitzinekoek jo zuten bezala, ez *Sales-en Philoteara*, ez Kempis-en Imitazionera. Idazle berria eta liburu berria atera du plazara: Alphonsa Rodriguez-en *Ghiristinho Perfekzionieren Pratika* delakoa, Frantzian bertan Espaiñian baiño gehiagotan argitaratua, zortzi lumek zortzi alditan frantsesez emana. Frantses-itzulpen hauetako bat Frantses-Akademiakoa zen idazle eta gramatikari ospetsu batek egiña da: Regnier de Marais jaunak. Eztu, beraz, Lopez-ek hala-hulako liburu hautatu euskaldunei euskaraz emateko.

Liburu luzea da; bainan gure ertorak laburturik emango du, «liburu hedatu horren parte bat, jende komunaren hoben dena xoilki heuzkaralal itzuliz, eta besthia utziz», berak dioen bezala. «Kapitulu jende komunaren prootxosenak hautatu tizit, bai eta heendako auher zauzkidan parte zumbait utzi». Eta hau da Lopez-en ametsa: «Jaunak detsala haren gloriatako eta arimen hobetan ene hautian kausitu dudana» (Itzultzaliak irakurtzaliari, 6-7).

Hautu hortan etzuen begi txarra erabili, kausitu zuen, bai. Hala aitortuko du Akizeko Bikari Jeneralak: «Egin dien hautu hunak... bi abantaila besarkatzen tizi: bata emanez liburu net handi ezten batetan zer ere den prootxosenik herrietako populiarendako... bestia, bere laburtarzunaz jenderik praubenen erosbidian ezarriz» (454-455). Horrela, liburu handia, laurden batera laburtua, merkeago atera da, eta jende praubeentzat erosteko errazago, «ihiago» ere bai. Laburtze hau, zati «prootxosenen» hautu hau, Lopez-ek bere kauz egin du, eta ez zabal zebiltzen erdarazko laburpenetarik hartuz, aipatu ditugun aitopenetarik ageri denez.

Ibarreko ertor jaunaren liburu, euskaratzaillaren asmotan arimendako balio handitakoa balin bazen, ezta, ez, bailo gutitakoa euskararen ikertzailleendako.

Alphonsa Rodriguez-en liburua, erdal-liburua, Espaiñiako Akademiak Gaztelako erdaren lekuko eta eredutzat jarria du. Lopez-ek euskarara itzultzerakoan «euskal-ara» ematen entseatu denean, guk geure hikuntzaren lekuko eta alde anitzetarik eredutako har dezakegula-erraita bidezkoa da, noski.

Ospe eta euskaldunen esker-ona Ibarreko ertor izan zen gizon jainkotiar, ari-mazale eta euskalzaleari.

EUSKERA ANTxiÑAKO YESUITEN ESKOLETAN*

Aita Malaxetxebarria, Durango'ko seme ta yesuita argitsua zanak, liburu sendo ederra itxi euskun, Aita S. Iñazoren semeak gure Euskalerrria eskolateko antxiñarik ona egin daben lana aztertu ta erakusteko egiña. Liburu orretako zertxo bat bakarrik yaso nai dot emen, yesuitak euren eskoletan erabilten eben izkuntzeari dagokona. Yesuita areik erabilten eben ala ez euskerarik euren irakaskuntzan? ^Irakasten al eben ezer euskeraz?

Bayetzezkoa da aita Malaxetxebarriaren erantzuna: gure euskera bere erabilten zala Euskalerrriko yesuiten eskola batzuetan. Lenengo ta bein, euskeraz erakusten zan eurretan dotrifiea, kristiñau-ikasbidea. Ori olan zala, eskola orrein asikeratik arako agiri ta papel askok dirauskue. Olantxe egin ei-zan beti, gitxienez, Oñati, Bergara ta Lekeitio'ko ikastetxeetan, baita Iruña-ko kolejioan bere, 1589'ko agiri batek diñoanez. Oñati'ko eskolea zan eurotan zarrena; 1551'an asita zirauan.

Gure mutikoak euskeraz ikasten eben, beraz, etxe orreitan kristiñau on izaten. Eta gogozago ekin eta gozoago eretxi eyoen edo, euren maixuak kantuz eta bertsotan emoten eutsen sarri askotan ikastekoa. Onango euskal-kantak asmatu ta ateraten mutilla ei-zan amaseigarren gizaldian yesuita bat: Bidaurre anai.

Kristiñau-legeaz ganera, besterik bere emoten ei-zan euskeraz antxiñako ikastetxe areitan. Euskera ez egoan bazterturik ez lotsaturik euren barruan. Orregaitik, eskola-barruko bizi ta yarraipidea zuzenago eroateko yarririk egozan lege ta arauak, leku batzuetan beintzat, euskerara itzulita aurkitzen ditugu. Olantxe, Lekeitio ta Azkoiti'n, esaterako. Lekeitio'koak, aita Basterretxeak yarriak ei-dira euskeraz.

Ez ete zan erabilten euskerarik beste ikasgairik emoteko? Aita Malaxetxebarria bayetzean dago barriro. Gure mutiko euskaldunak, eskolara asi barritan, ez ekien euskera besterik. Agaitio, gauzeak berez ekarrena zan olango umetxoakaz euskeraz astea, gitxienez lenengoko ikaskizunak euskeraz emotea. Ikasle ta irakasle, eskol-

* Jesus'en Biotzaren Deya (1962, 23.zenb.) 26-28; *Axmutil* izenpean, ik. 17. orr.

ume ta maixuak alkar aituko ba'eben, ez euken beste biderik. Egiñegiñean bere, orrexegaitik, yesuiten nagusiak ardura guztizkoa euken euskaldunen arteko eskoletan euskaldunak ipinteko maixu, eta euskaldunak izaten ziran irakasle guztiak, edo beintzat geyenak. Euskaldun etziranak bere, barriz, euskerearen yabe egiten ziran sarri, euren egikizunai obeto erantzutearren. Olango batzuen izenak entzute andia irabazi dabe. Eurotariko bat zan aita Recio erdalduna, Larramendiren aldietakoa, euskerazko bertsotan azkarra egin zana.

Ortik ateraten dau aita Malaxetxebarriak, euskeraz emon oi yakiezala lenengoko argitasunak euskaldun mutikoai yesuiten eskola batzuetan. Gramatika-ta, asteko beintzat, euskeraz emoten yakiezalako dauko aita argitsu onek. Malaxetxebarriaren uste onek siñestu eziñik eztauko. Gure literatura urritxoak, beti bere, erakutsi ditu orretarako gai diran liburu batzuk; ez gagoz orretan ezetarik ere du barik. Harriet'en gramatika ta Joanes Etxeberri'ren «Euskarazko atsapenak latin ikasteko» eredu eder-rak dira. Yesuiten artetik urten barik, aita Kardaberaz agurgarriak liburu gogoangarri bat itxi euskun, euskera ikasteko egiña: «Euskeraren berri onak». Onek esan gura dau, etzegozala bide erakusle ta eredu barik yesuitak euren irakaskuntzarako.

Aita Malaxetxebarriaren ustea ezta, ba, ezelan bere dana ustela. Eta uste ori on egiteko, eta onelan auzi au ebazteko, ekarri daigun gaur erdira yoan dan gizaldiko euskaldun eta euskalzalerik sutsuenetarikoa: Yose Paulo Ulibarri (1775-1847). Aurtengo zezeillako «Jesus'en Biotzaren Deya» irakurri dauanak (1), ba-daki euskaldun zintzo onen zelanbaiteko barri. Yesuiteri maitasun beroa, mami-mamikoa eutsen beronek. Maite zituen Loyola'ko Iñazio andiaren semeak, beste gauza askoren artean, euren eskoletako lanagaitik. Zer diño, baña, eskola orrein goraberan?

Erantzun deyogun lenago beste itaun oni: zelangoa nai eban Ulibarrik Euskal-lerriko eskolea? Euskerazko utsa, euskerea irabasbidetzat artzeko iguñik ez lotsarik bakoa, bere ustez antxiña baten oi zan modukoa. Euskaldun utsa ei-zan, Ulibarrik diñoanez, Euskalerriko eskolea lenago. Berak onantxe diño:

«Euskalerrri guztietan
abade baten pean
zan irikastegi edo eskolia
bere euskera maitian»

Nik eztiñot onetan, beste gauzatxo batzuetan lez, Okendo'ko seme sutsu onek egia osoan berea ebanik; baña eztoz esango guztiz oker ebillanik bere, beste onako bertso oneik egin zituanean:

Esaizu: ^zelan da au,
edo zetara adi gara?
Euskera berba eginda,
eskolia erdera?
Ori da asmo gaiztoak
egitia gu galtzera.

Esan biarran «Aita guria»
 izen polit egokian,
 jesaten «Padre nuestro»...
 erderazko garrazkerian!...

Euskaldun gurasoak kontu izan bear deutse ainbesteko okerrari:

Ardura emen eta ardura
 gaztiakaz gurasok,
 eztayela zuen umia
 eruan barrabasok

Yesuiten eskoletan etzan olango okerrik ez arriskurik. Yesuitak euskeraz zirakasten eben Jaunari itz egiten, eta euskeraz latin bere. Entzun daigun, bertsoak alde batera itxirik, oraingoan Ulibarrik itz lauz diñoana: «Jesuitek egon zirianian, irikasten [eben] euskerati latin, eta zortzi urte euki orduko ikasten [zan] latin txito ondo. Orain erderati dagoz, trabes, izaiteen kontra. Eta alan esaten [eben] euskaldunak: «Euskera ta latin jakin, eta mundu guztia eragin». Olantxe zirautson 1830'an, orain dirala eunda berrogetamar urtez gora, karta baten Esteban Artza izeneko jaun bai.

Amesetan ete egoan euskaldun gartsu au itz orreik ezarri zituanean? Ez, iñondik bere; esakerea ei-zan aspaldi areitako euskaldun arrotxoan artean, euskera ta latin yakitea naikoa zala mundu guztian zear burua gora ibilteko. Esakera ori beste bein era onetara emoten deusku: «Yakin euskera ta latin, eta mundu guztia yakin». Eztabil amesetan Ulibarri, ez. Berak ezautu ditu, era orretantxe, euskerati latin ikasiriko euskaldun itzal andiko batzuk. Bat: Jose Murga: «Gaurko eguneko. D. Jose Murgak ikasi eban latin euskerati zortzi urte orduko. Eta gaur daki griego ta beste asko». Au J. Egibar jaunari diñotso, 1830'ko urtean.

Ezta, ba, ames utsa Ulibarri'ren esana. Eta, lantzo oni azkena emoteko, esan daigun, etzala suster bakoa, etzala dana ustela aita Malaxetxebarriaren ustea: yesuitak, kristiñau-ikasbideaz ganera, besterik bere irakasten eutsela euskeraz Euskalerriko eskola-mutil askori.

UN CAMBIO DE APELLIDO POR TRADUCCION INCHAUSTI-NOCEDAL*

Juzgo interesante para la historia de la lucha de idiomas en nuestro país el caso que voy a presentar de un cambio de apellido por traducción del vascuence al castellano. Tuvo lugar en las Encartaciones de Vizcaya, dentro del municipio de Sopuerta, en su barrio de Carral, en la primera mitad del siglo XVIII. Puede verse en el libro 5 de bautizos de la parroquia de San Martín de Carral y confirmado por dos veces por cierto.

La primera vez es en 1735. El 4 de abril de dicho año fue bautizado un niño, a quien se puso por nombre Bartolomé, hijo legítimo de José de Inchausti y de Zezeilia de las Rivas. Fueron sus abuelos paternos Domingo de Inchausti y María de Uriarte, vecinos de la anteiglesia de Arrazua, y maternos José de las Rivas y Micaela de Galdames, vecinos de Sopuerta. Estos fueron los datos registrados en la partida en su día. Pero una mano posterior tachó los dos Inchausti del padre y del abuelo paterno y en su lugar, entre renglones encima, escribió por dos veces Nozedal, y al pie de la partida dio con un «passe» por válidas ambas enmiendas.

Al año siguiente, 1736, a seis de diciembre, se registra el bautizo de otro hijo del mismo matrimonio, llamado Nicolás, y los datos de los padres se repiten como en la primera partida: José de Inchausti y Domingo de Inchausti, sin tachadura ni enmienda.

Pero el año 1738, al nacer una hija, bautizada con el nombre de Jacinta, los nombres de los padres se inscriben sencillamente en el sentido de la enmienda primera: José de Nozedal y Zecilia de las Rivas, y los abuelos paternos son Domingo de Nozedal y María Uriarte. Tenemos ya el cambio confirmado y plenamente sancionado:

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 22 (1966) 122-123; «L. de A.» izenpean.

un Inchausti, natural de Arrazua, en donde el apellido perdura aún y es numeroso, emigra a las Encartaciones, y a la segunda generación trueca su apellido por el de Nocedal, que viene a ser la traducción castellana de aquél, y que ya existía en Sopuerta y sus cercanías como apellido y como topónimo. En el bautizo de Jacinta actuó de padrino un Gregorio Nozedal.

El cambio hubo de decidirse entre el segundo bautizo y el tercero. La enmienda de la primera partida pudo haberse hecho ya antes, ya después de la inscripción del bautismo de la hija nacida en tercer lugar del matrimonio Inchausti-Rivas. La segunda partida queda intacta.

^Cuál pudo ser el motivo del cambio? Tal vez el conocimiento de la sinonimia de ambos apellidos saltó casualmente en la intercomunicación de ambas familias emparentadas, y de ahí partiera la decisión, apoyada posiblemente por el padrino del último de los bautizos. Yo me atrevería a formular otra hipótesis que, si se realizara, podría ser un dato confirmatorio de la tesis de Trueba, expuesta por Ladislao de Velasco en su obra *Los Euskaros en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya* (1879, p. 485), según la cual muchos topónimos de las Encartaciones son traducidos del vascuence.

En un lugar inmediato a una zona donde la toponimia vasca es abundante, y en cuyas inmediaciones se hablaba vascuence el siglo XVIII, y cerca de Sopuerta, existe un topónimo Nocedal, que bien pudo ser conocido con nombre vasco y castellano: Nocedal e Inchausti. Casos así se han dado y se dan actualmente. Tenemos en las inmediaciones de Bilbao un Puentenuevo y un Zubibarra, un Dos Caminos y un Bidebieta, éste antes documentado que aquél, aunque después de la construcción del ferrocarril Bilbao-Castejón, haya prevalecido Dos Caminos, que es el nombre que lleva una de las estaciones. Por el Duranguesado tenemos un Pilastra y un Arriandi (y recientemente un colaborador de esta revista nos ha sorprendido con el descubrimiento de que el Manzanares madrileño debe de ser un traducción del vasco Sagasti).

Este pudo ser el caso de Nocedal-Inchausti, de Ortuella-Santurce, que provocara el conocimiento de la sinonimia de ambos apellidos y decidiera el cambio que comentamos.

El apellido Nocedal, aunque no muy abundante, también ha pervivido en Sopuerta. A los cincuenta años del hecho que referimos, hubo en Carral precisamente un párroco de apellido Nocedal, quien, según referencia que me da el actual párroco de Mercadillo (Sopuerta), don Francisco de Errazti, fue tío abuelo del famoso político integrista don Cándido Nocedal, natural de La Coruña, pero oriundo de las Encartaciones de Vizcaya, aunque no parece haber sido sucesor directo de los Inchausti-Nocedal nuestros.

ARABAKO EUSKAL ABESTÍAK DIREALA-TA*

Euskal Erriak daukan lurralderik erdaldunduena dogu Araba. Egia da. Bazter gitxi dago Araban erdaldundu bakorik, tamalez.

Baiña euskerea ez da guztiz il bertan. Izan be, Arabak euskaldun dirau toki estu meartxo batzuetan beintzat; eta ipuin zaar eta kantu, euskaltasunaren ezaugarri ederrik emon deusku.

«*Arabako euskal abestiak*»: titulu onekin irakurri genduan, orain iru-lau illabete, artikulutxo bat, Munduateren izenpean egiña. Gasteizko aldizkari baten aitatu zan gai au leentxoago; eta artikulua gaz batera, euskal kanta bi agertzen zirean. Eta euron otsa, Munduate orrek zabalduta, Estibalizko aldizkarira eldu zan; eta andik, Donostiko «*Zeruko Argia*» ezagunaren orrietara.

Zorionean etorren Munduaterentzat Arabako euskal abesti orre in barri zabaltzea. Kanta ain ederrak eta biotzari eragitekoak! Zergaitik geiago billatu ez, eta guztiekin txorta eder bat egin?

Ni Munduateren eritxi orrekin bat nator; eta bere guraria ontzat eta aintzat artzekoa dala uste dot. Eta emen naiz, gai onetan argitasun batzuk emon gurarik, berak esanaren geigarri eta alde.

Ezin ukatu, Munduatek aitatu dituan kantu orre in edertasuna. Politak dira bertsoz, eta entzungarriak soiñuz. Ona emen bertsoen puska batzuk:

Txikitxu polit ori,
zeu ene laztana,
kateatu ninduzun
librea nintzana.

* Anaitasuna (1968, 169,zenb.) 6; *Basabil* izenpean. Basabil L. Akesolo jaio zan auzoaldeko baso bat da.

Begira nago begira
 or goiko bide barrira,
 noiz etorriko ete dan
 maitea neure errira.

Begitu deiogun leenengo laukote orri. Polita izanez gaiñera, gure artean bertsorik zaarrenetakoa dogu, gizaldietako urrunetan sartzen gaituana. Gitxienez, Lope de Vega idazle ospetsuaren egunetaraño, orain dala irureundik gora urte. Zaarragorik be ba dogu, egia esan. Baiña gure egunotan oraindiño bizi danik gitxi, nire ustez.

Lope de Vega orrek, ain zuzen be, onako bertso oneik sartu zituan bere teatrolan baten:

Zure begi ederrok,
 ene laztana,
 katibaturik nabe
 librea nintzana.

Nok ez dau ikusiko, or goian aitaturako bertsoen iturria ta otsa? Eta Lope de Vegak entzun eta jaso zituaneko, zenbat urte eukazan kanta orrek? Eta arabarren baten agotik ez ete zituan jaso ta ikasi?

Eta bigarren laukote ori? Maitearen zain, noiz agertuko luze eritxirik dagoan baten intziritxo ori be ez da, ez, atzo goizekoa; ta zelango jasotasuna ta samin giroa darion! Tamal andia, ain laburra izatea. Poema andiagoren baten puska bat da, aurki. Eta beste puskak be bizi ditu nonbait oraindiño. Neuk entzun neban bein Bizkaiko baserritar bat bertso orreik kantatzen beste bertso batzuekaz naaste. Trenean zan, Bilbaotik Orduñara bidean. Miraballesen edo Arrankudiagan sartu zan bera; ta sartu zaneke, kanta ta kanta ekin eutsan. Feria batera joian beste lagun batzuekin. Amurrio baiño leen jatsi zan trenetik. Ba joiala ta, beragana urreratu nintzan, ea nongoa zan eta nondik ekizan kanta areik. Baiña ezezagun baten jakingureaz lotsatuta, trenak ez eutsan itxi bere lotsa orretatik urtetako astirik, eta erantzunik barik itxi ninduan. Iñok or Arrankudiaga ta Arrigorriaga bitartean olango kantarik jaso nai baleu, bego jakitun, bazter orreitan ba dala oraindiño olango kanta zaarrik dakianik.

Beste zertxobait be esan bearrean nago. Arabako kanta zaar orreik aspalditxotik ona ezagunak zireala gogora ekarri bear dot. Ba dirudi, Munduatek-eta oraintsu jasotakotzat, aurkitu barritzat daukezala. Baiña orain 50 urte Azkue zanak argitaratuak dira, bere kantutegi andian emonak. Ta ez kantu biok bakarrik. Beste 25 inguru ba dira an Arabakoak. Ia txorta bat egiteko aiña, neke andirik artu barik. An dagoz, bai, bizi bizirik abesti biok: bata Olaetan artua, Engrazia Lazkanori entzunda; eta bestea, Maria Arraiz'ek Legutianon emona. Andra biok, beste amabost inguru abesti emon eutsoezan Azkue jaunari. Eta kantuok batzen, ez dau iñok nekerik artu bearrik. Kantu orrein osagarriak, geigarriak batu: beste zeregiñik ez daukagu emen.

Arira datorrela uste dot uskeriok gogoratzea, Azkue zanaren kantutegi ori orain-txe barriro ateraten dan ezkerero. Or ditugu ainbat pitxi eder. Ez al doguz ain arin aaztuko. Or dabe arabarrak be, euren leengo euskalduntasunaren barri ain argi emoten deuten ainbat lorratz eta aztarren. Batezbe Aramaiona ta Legutiano aldea, ipuin eta

kanta zaarretan, pitxitegirik ugarienetakoa dogu Euskal Erri osoan. Baiña aaztu egiten baditugu, edo aintzat artu ez, kitto, alperrekoak izango dira folklore zaleen aalegin guztiak.

Orixe jazo dala dirudi Arabako kantu bi orreikaz. Oraintsu Mari Lurdes Iriondok diskoz atera dauan «*Linpian Mendian*» abesti ain gozoa be, zenbatek ete dakie Azkue zanaren kantutegiko bat dala, eta Arabako mugatik urrun bakoa?

Euskaldunok aazkorrek gareana naiko argi dago. Aazkorrek, edo ikasina gi-txikoak. Ona erakutsi bat. Oraintsutan aurkitu dabe aintxiña bateko Oihenart zaararen esku idatzi bat, manuskritu bat, orain irureun urtekoa. Eta bertan, euskerazko bertso batzuk; eta euren artean, moro errira aitak saldu eban batenak. Eta ez deuskue esan, ba, ezezagunak eta egundo argitaratu bakoak direala? Eta gure literatura urrian ezin izan, ezagunago izan bear ebenik! Ezaguna zan kantu ori, Humboldt zaararen egu-netatik ona. Eta geiago dana, oraindiño bizi be bizi da gure errian. Or dogu Azkuek bere kantutegian sartuta, Naparroako Etxalar errian jaso eban lez. Antxe dago, bere zaartasanari jagokozan barri ta zertzelada guztiekin.

Esan dodanez, Azkue zanaren kantutegi ori barriro emoten deuskue argitara. Tomo andi bitan. Bigarrenak, geigarri batzuk eroango ei ditu. Ez dakit nondik nora joko daben geigarri orrein egilleak. Gizon azkarrak ei dira, ta euren arloan adituak be bai. Argitasun jakingarririk emongo al deuskue. Baiña Azkueren lanak berak, kantutegiak berak balio andiagoa izango dauala esan bearrik ez dago. Askoren eskuetara elduko al da. Eta ez al dogu ain laster aaztuko oraingoan. Batez be arabarrak, ondo egingo dabe liburu ori arakatu eta andik euren kantu zaarrak ikasi eta eurekin mordo bat egin eta aterateaz.

Gure folklorearen edertasunak batu ta zabaltzen lan egin dabenak, esker ohea merezi dabe. Eta euskal musikearen arloan zabarregi jokutzen dogula-ta nago. Non dogu gure musikearen gordeleku edo artxiborik? Musikalari bakotxak, bere artxiboa izango dau. Gero, ilten direanean, or sakabanatuko dira an batu ebezan txorta guztiak. Gitxi batzuk artu dabe, Euskal Erriari mordo andirik eskintzeko nekerik. Or ditugu Iztueta, Santesteban, Salaberri, Etxebarria-Gimon, Donosti, Azkue. Ea noiz ateraten direan beste batzuk, beti bakarka ibili edo pitinka lan egitetik. Arabar baten izena aitatu bear neban emen: Urruñuela jauna, Arabako soiñuak batzen lan andia egin ebana. Baiña non da aren lan ori?

Salaberri zaarra izendatu dot. Salaberri barri bat be ba da oraintxe Gasteizen. Arabako semea da bera, euskalduna ta musikalari gaiñera. Berak eta bere lagunak alkar arturik egingo al dabe Munduatek eskatu dauana: Arabako euskal kantutegi aalik eta osoena batu ta atera.

Geigarria

Gauzatxo bi ditut geigarritzat esateko. Leenengo ta bein, oraiñarte emen esana, «*Zeruko Argia*»n Munduateren lana agertu zanean egindako artikulu batekoa dala, orain iru illabete ta erdikoa. Aldizkari orretara bialdu neban; baiña ez eusten aintzat artu, dirudianeaz.

Bigarrena, ia siñistu be ezin dodan beste zertxo bat. Bilbaoko *Feria de Muestras* dalakoan izan naiz. Eta an ikusi dot Azkue andiaren kantutegia salgai, barriro aterata, leen esan dodanez. Saltzaillearekin berbaz asi naiz. Eta esan deustanak, siñistu eziñik itxi nau. Asko urreratzen ei dira liburu orren aurrera; eskuetan artu be egiten ei dabe. Itxura baten, eder erixten ei deutsoe. Baiña Azkue izenak uxatzen ei ditu. Azkuerena dala entzun orduko, atzera egiten ei dabe. Eta neure artean esan dot: Ori egia bada, gure erria alfabetatu bearrez su ta kee diarduen askok, ba ete dakie nortzuk dauken alfabetatu bearrik geien?

BI BURU ETA BI ABURU (ZAKUR, OTSO ETA AZERI)*

Azken illabete auetan, zakurrak eta otsoak ez dute atera otsik gutxi. Guztien agotan ibilli dira Galizia'tik asi eta Naparroa'raino. Zakurrak dirala, otsoak dirala, Portugal'eko Polizi izanarenak (PIDE-nak) dirala ta ezdirala, egia da gutxitan bezelako triskantza eta sarraskiak egin dituztela bazterretan. Izpidea ugari eman diete egunkari eta berrizaleai.

Nik emen dakarzkidanak ez dira berdiñak; ez diete egunkariai orrenbesteko esatekorik eman. Euskalerrian salatu edo aipatu izan diran beste zakur eta abere batzuk dira. Eta ez edozeiñen agoz aipatuak, orraitio, Euskaltzaindiaren buru egiten duanaren agoz baizik.

Lengo batez ikusi genduen Aita Villasante'ren aburua: euskerak eskolak bear ditu. Badakigu zertarako ere: Voltaire, Marx eta abar, oraintsu euskera antzeko batera itzuli dituztenen euskera dalakoa ikasteko. Baiña eskolez gaiñera, besterik ere bear omen degu. Zer, eta zakurrak. WATCH-DOG diralakoak. Ala idatzi du Robinson gazetalariak, Villasante'ren izenean. Gazetalari adar-jotzaille onek eztu, dirudianez, giltzik ikutu gabe utzi nai, aita frantziskotarra bild:irgarri egiteko. Zakurrik gabe ez omen dago euskerari bizirik eutsi-erazterik. Olako zakurrik gabez, euskera ondatuz omen dijoa, euskalkitan zatituz, euskalgaizto biurtuz eta, belaunez belaun, galduz eta aartzuz. Au zorigaitza! Zorioneko zakurrak, zakur salbatzaille oiek! Zein diran asmatzen eztago burua asko autsi bearrik: Villasante bezelako euskaltzaiñak, eskubide guztien jabe, nai dutena lege egin eta aginpidez ezartzeko. Eskubide bat beintzat ez diogu ukatu bearko: bere burua zakur egiteko eskubidea. Norbaitzuei begiko zaie, itxura danez, Oñatiko artzai-zakurren txapelketan ikusia, ango zakurren egiteko bat:

* El Diario Vasco 41 (1974, 12322.zen.) Suplemento dominical, 9; *Berriketari* izenpean. Berriketari: Bari bila dabillen gazetari itxuragaitik erabili dau. L. Akesolok.

ardiak esi estu batean ate estu batetik barna sartzea. Berdin egin nai dute euskeraren alorrean: euskaldunok, zakur batzuen laguntzaz, beren esien barruan sartu eta eduki. Alabearrez, ez zaie ori beren buruai lotsa ohea dieten askori ain begiko egingo. Ez dute ain errez beren burua ez zakur ez ardi egiñik ikustea edertzat artuko.

Ala ere, Aita Villasantek ez du argiegi adierazi bere gogoia. Guk beintzat ez diogu ongi ulertzen zer esan nai duan. Euskaldunak, ate-zakurrik edo artzai-zakurrik ezaz, mutu izatera irixten ete dira, bada? Orrela ulertzen duala dirudi Aita onek euskeraren galdumendirako bidea: Euskalki, euskalgaizto, eta azkenez, utsa, mutu gelditzea, abereak bezela edo... Abere mutu biurtzen dira, nonbait, euskera galtzen duten euskaldunak.

Ezta ori, ez, egiazko bidea. Euskeraren ondamendirako bidea ezta, ez, euskalkietatik euskalgaiztora eta gero utserakoa; euskeratik, euskera utzita, erderarakoa baizik. Euskera galdu dutenak eztira mutu gelditzen, erdaldun eta erdera-egille baizik. Euskera ezta iltzen euskalki ez euskalgaizto biurtuz (orañarte euskalkietan bakarrik bizi izan da euskera), erderari leku emanez, erderaren batera joz baizik. Zakurrekin eta zakurrik gabe. Au ere oraiterazi bear ote genduan? Eta diralako zakurren lana, guztiak esi baten barruan sartu bearra kaltegarri biur daiteke, euskera biziaren ilgarri.

Ola ikusi zuan beste euskaltzain batek, Villasante baiño irudimen argiago eta biziagoko batek: Azkue zanak.

Ipui batekin agertu zuan Azkuek bera bildurra: batasuna ariñegi, itsumustuan, zalapartaka, indarka, iraulketaz, aginpideren indarrez egin naiez, ez ote zan euskeraren bizia lenago eta gain-berago joango. Ipuia Frantzian irakurri omen zuan. «Zelai idor elkor baten aate-taldea omen zegoen gosez, 'krok' batuk eta 'krok' besteak, zer jan etzutela. Egazti aietako batek, bere urdail ustua betetzeko, grauskada eman omen zion urren zuenari, eta ezur ta mami irentsi zuen. Ori ikusita, beste guztiak elkar jaten asi omen ziran. Lumaz iñaurria, estalia, gelditu zan laster zelaia. Egaztirik, bi baizik ez, gizen gizen biak. Oiek ere, mokokaldi gogorra egin ta gero, batuk bestea barrenean sartuz, taldeko lagun guzien aragiak urdail bakar batean kokatu ziran». «Orra ipui laburra (ortik omen dator frantsesak gezurrari canard: (aate), esatea). Eta Azkuek onela ematen dio azkena ipui orri: Nik irakurri nuen ipuiak etzuen esaten an inguruan otso eta azeri goserik zelatan ote zegoen. Izan balitz, etzan aaterik an bat ere bizirik geldituko. Egazti mordo osoa inguruko oianera joango zan, otso-azerien sabelera».

Azkue zanarentzat aate-talde ori bezelakoa da gure euskera, «Eta, ai! beronen inguruan otsoa eta azeria bizi dira. Beldur naiz, sarrakioa erraietaraino sartua daukat, alkar jan eta bat gelditu baiño lenago, ez ote dituzten otsoak eta azeriak, Frantzi'ko eta Espaiña'ko izkerak, gure euskalkitxo guzi auek iretsiko».

Ez al daukagu emen Villasante'ren itz lorriñetan baiño argiago eta sustraitikago azalduta euskeraren egoera eta zoritxarra? Grezia'n, esaterako, gerkerak klasikoak oraingo gerkerari eman dio leku, beste erri askotan erdera zarrak erdera berriagoari; gure artean, berriz, euskerak erderari. Azkuek etzuen ametsik egiten. Bazekian gure gaitzaren berri. Gaitz ori sendatzeko alegiñik egin gabe etzan galditu. Sendo zirauan euskalki bat nai zuen oiñarri artu. Beste izkuntza batzuetan egin zuten bezela. Errezegi esaten dute batzuek etzuela arrera onik izan. Ori esaten duten askok eskubiderik gutxien daukate ola mintzatzeko. Zergatik nai dute beren bidea, beren euskalki berria ziñez, ate-zakurrez eta kale-zakurrez sendotu eta jarri erazi? Azkuek etzuan iñolazko

indarkerira jo. Gizonago jokatu zuen. Gizonago eta zuurrago, zentzu geiagoz, gizabide eta jakintza bide obetik, bere utsak eta guzti. Etzitzaion ate-zakurrik eskatzerik burura etorri.

«Nik nerea, nik nereaka» ibiltzea, naiz euskalki bat naiz beste bat, naiz zaar bat naiz berriz asmatu bat indarrez jartzea kaltegarritzat zeukan, gure etsaien pozgarri. A, nolako poza eta jaia gure inguruko otso eta azeri diran bi izkuntzentzat! Arrixkurik asko du euskerak kanpotiko otso eta azeri auen aldetik. Barruan ere zakurrak jarri bear ote ditugu, euskaldunok bananduago eta gure euskeraren egoera aulago egiteko? Orainarteko euskerari ezin eutsirik gabiltza, eta berri bati indar eman uste degu? Euskeraren etorkizuna, orrela buru-bero batzuen eskuetan utzi bear ote degu? Ez ote gera orrela errezago erortzen otso-azerien ortzetan.

Utikan gure burubero setatsuen zakur guziak! Eztegu bear ez oien zaunkarik, ez otso-azerien atzaparretan edo ortzetan erortzeko arrixku berririk. Utikan abere eta pizti kaltegarriak gure artetik!

BIZKAIKO FORUA, GERNIKAKO BATZARRAK ETA EUSKERE*

Aspaldiko amesa lorturik dakusgu gaur. Bizkaiko Forua Bizkaiko semeen izkuntza jatorrera aldatuta daukagu. Amesa aspaldikoa izan da, izan be, ez atzo goizekoa ez gure egunotan sortua, Foruak oso ta bizi zirauen egunetako baiño. Orain eunda berrogei ta amasei bat urte, 1826-ko martiaren lenean, Paulo Ulibarrik gutun bat, karta bat bialdu eutsen Abandorik Zarautzera Bilboko seme bati, Aita Zabala frantziskotarrati, iru eskabide egiñez: Euskal-gramatika bat idaztea, euskera-erdera ta erdera-euskerazkoa, iztegia Aita Zabalak ordurako eginda eukalakoa ateratea, eta Bizkaiko Forua euskerara biurtzea. Erantzuna ezin izan Ulibarriri pozik emotekoa: ezezko biribilla. Aita Zabalak ez eban bere burua orrenbesteko lanik egiteko gai ikusten. Berau gora bera, ordurarteko gramatika eta iztegiak, Aita Larramendirenak, euren indar guztian jarraituko eben, eta Forua, Zabala beraren itzez esateko, eta au ezan, aurki, Abandoko abere sendatzaillari miñik txikiena emongo eutsana, «Forua erderaz geldituko da».

Agur, Ulibarriren amesak, Bizkaiko Forua erderaz geldituko zan, bai, oraindiño, gaur arte, gure egunotararte. Zabala bilbotarrak bere egunetan ezintzat edo alperrekoztat egin barik itxi eban lana, aramaioar batek burutu dau gaur, eta Bizkaiko Forua euskeraratuta daukagu.

Jazoera gogoangarri au dala-ta, itaunik asko sortu leiteke euskaldun baten gogoan: orain egin dana zergaitik ez zan lenago egin? Zergaitik Forua euskeraratu bearra edo euskeraratu naia bera? Zergaitik ez zan Bizkaiko Legea euskeraz egiñik, euskeraz sortuta agertu? Antziñako bizkaitarrak euren izkuntza ez ete eben aintzat artzen, ezetako baliobakotzat ete euken? Edo beintzat, euren artu-emonetan, euren batzarretan ez ete eutsoezan ateak itxi euren jatorrizko izkuntzari?.

* *Batzarrak, Bizkaiko foruak, Gernikako Batzarrak eta euskerea*, Iker - 2 (Bilbo 1983) 733-739.

Itaunok askoren gogoetan sortzen eta askoren miñetan entzuten diran itaunak dirala uste dot, eta neure egiñalean euroi zelanbaiteko erantzuna emon nai neuskioe lantxo onetan.

Itaunai erantzuten

Lenengo itauna: euskaldun izanik, zergaitik ez eben bizkaitarrak euren legea euskeraz idatzi lenengo-lenengotarik?

Itaun oni lenengoko erantzuna emoteko, geure ingurura begiratzea eskatuko neuke nik. Inguruan Bizkaitarrak Euskalerrri osoa euken, gaiñerako Euskalerrri guztia, Arabatik asi ta Gipuzkoa, Naparroa, Lapurdi eta Zuberoa aldeetaraiño. Eta zer da ikusten dabena? Euskalerrri guztiko legeak alde bateko edo besteko erromantzez, erdal - izkuntzaz idatzirik dagozala. Bizkaiak or eukan ereduia, eta bere legeak idazterakoan ereduari jarraitu besterik ez eban egin.

Bigarren erantzuna: Bizkaiko Forua ez da beren beregi eta beste asmo barik bizkaitarrentzat egiña edo idatzia; idatzi bako legepean bizi izan zan Bizkaia luzaro, alkartean erabakitako legepean, oitura utsez eta belaunez belaun gorde eta zaintzen eben legepean. Eta azken baten, lege ori idatzi, zergaitik egin zan, eta norentzat? Batez be, Bizkaiko Jaunaren auzitegiatarako, Bizkaian naiz Bizkaitik kanpo, Bizkaiko semeen auziak erabagi bear ebezan lege-gizon eta epaikariak emengo lege, oitura eta eskubideen jakitun ipinteko. Bizkaiko Jauna bera erdaldun, eta erdaldun ziran aren agintepeko epaikariak geienetan, batez be, kanpoerrietakoak. Bizkaiko lege eta bizkaitarren eskubideak arein eskuetan ipinteko, zein izkuntzatarara joko eben erderazkora baiño?

Bizkaiko legeak, emengotarren eskubideak bertokoen buruetan euskeraz bizi ziran, euskerazko izena eben. Foruan bertan daukagu onen argibidea. Erderaz idatzia izanda be, Foruan itz batzuk euskeraz gelditu dira. Gauza bera ikusten dogu Naparroako Foruan be. Ainbat itz euskera utsean itxi bearra izan eben. Baiña, alango baten, oiturazko legeak paperera aldatu bearra ikusi zanean, guztientzat etorri zan ondo liburutan argitaratu eta idatzirik eukitea. Jaunaren auzietarako premiñazkotzat ikusi eben ori, eta premiña guztizkotzat, erderaz egotea, epaikarien izkuntzan ain zuzen. Bizkaiko Forua erderaz idatzia izatea, ezta olan bapere arritzekoa. Oso ulergari egiten jaku. Eta eztaigun aitzu Foru-liburuan ez zirala Bizkaiko lege guztiak sartu, liburu orrek eztauala bizkaitarren erri-bizitza guztia artzen, eta gero be oiturazko legetzat jarraitu ebela. Bizkaiko lege askok, garrantzirik andienetakoak eurok, esaterako Gernikako Batzarretako gorabera eta aginpidea.

Baiña, ain zuzen, Gemikako Batzarretan ez ete zan, bada agertu, Bizkaitarren zabarkeria euren izkuntzaren alderako? Ez ete da egia euskerearen eskubideak batzar nausi areitan zapalduta gelditu zirala, an batzarkide izateko erdereia jakin bear zala?

Salakuntza gogortxo au egin izan da askotan gure antziñako bizkaitarrentzat. Gernikako batzarretan euskerea baztertuta, galazota egoala, erdera ez ekianak an sartzerik ez eukala. Erri baktexeko batzarretan eztau iñok usteko erri-izkuntza erabiliko etzanik, euskeraz egingo etzanik. Baiña Gernikako, Bizkai osoko Batzar nau-sietan? Askotan aiatu deuskue an bi edo iru aldiz jazorikoa: erri batzuetako ordezkariai

(zortzi amar bat gutziz), ukatu egin eutsela batzarkide izateko eskubidea, edo ta kanpora bota ebezala erderarik ez jakitearren. Egia ete da gero ori? Olako zerbait jazo zan, bai, korrejidorearen aginduz eta erabagiz, batez be 1624-tik 1627 aldera. Baiña dana esan bear da. Gauzak zeaztu bearra dago. Ezeben iñor batzarretik kanpora atera, erdera ez jakitearren bakarrik; orrez gaiñera, edo orren aurretik, ez idazten ez irakurten ez ekielako baiño: «por no saber escribir y hablar romance». Alan diño agiri batzuk, gogorren itz egiten dabenean. Beste batzuetan bigunago: «por no saber leer y escribir», euskerea aitatu barik. Batzuetan iru salakuntzok (irakurten, idazten eta erderaz ez jakitea) iru pekatutzakook batera datoz batzar agiritan. Idazten eta irakurten jakin arren, pekatutzat ete egoan erderarik ez jakitea? Ori ezta ain argi ikusten. Geroagoko batzar-agiri batzuk diñoena irakurri ondoren, ezezko erantzuna emon bearko dogu.

Gemikako batzarkideak askotan gogoratzen dabe, ara agertzeko, erriak ordezkari egokienak, atarako gaien diranak bialdu bear dabezala. Edozein errientzat lotsagarri izan bear eskola bako utsak, analfabeto utsak bialtzea. Baiña erderarik ez ekienak, edo gitxi ekienak askotan agertzen ziran Gernikan. Eta Errejidorea, Erregearen ordezkoa aurrean zala erdera erabiltzea berezkoa zan arren, askotan esaten deuskue batzar-agirik, erderarik ez ekientzat edo gitxi ekientzat eztabaida-gaiak euskeraz be argitu zirala. Batzuetan, batzarkideak eurak deadar baten eskatuta. Olan irakurten dogu 1631-ko batzar baten.

Batzar-agiriak eztabe askotan zeaztasun edo zertzelada andirik emoten. Baiña noizik bein argi-bitartetxo bat isten deuskue. Olangoxe argibitartetxoak aurkitzen doguz 1631, 1633, 1688, 1695, 1760, 1762 garren urteetako batzar-agirietan. Erderarik ez ekien argibiderako, euskeraz azaltzen dira erabagi bear diran gaiak. Erdera ez jakitea ez da eragozpide batzarkide izateko.

Gemikako batzarrak nazioarteko batzarren antzeko zirala esan geinke. Erbesteko bat euken buru, Bizkaiko Jaunaren ordezkaria, Korrejidora. Aren aurrean, eta bizkaitarrak eurak be guztiak euskaldun ez izanik, ulergarri da an erdera erabilli bearko zala. Dana ezpazan be, geiena bai. Baiña, alan nai olan be, euskerea ez egoan baztertuta, gitxiago galazota. Errejidore erdel dunak ez eben orrenbeste lortu. Bizkaiko semeak be ez eben euren euskalduntasuna orrenbestera iño ukatu.

Euskerarentzat atea gero ta zabalago

Gemikako batzarretan gero ta geiago agertzen jaku Bizkaiko semeen euskalzaletasuna, euren izkuntzari eutsoen etsigitasuna, XIX garren gizalditik edo mendetik asita. Gizaldi onen asieran, 1804ko batzar-agirietan daukagu onen argibide bat. An irakurri geinke, Zamakola arratiarrak ordu betetik gorako itzaldia egin ebala euskeraz erdere ulertzen ez eben batzarkideentzat. Bizkaitarrak ba-ekien euskerearen eskubideai eusten. Euren Foruak, euren legea, arriskuan ikusteak euskalzaleago egin zituela esan geinke.

Olan, 1833garren urtean Bizkaiko Batzar nausietan euskera erabiltea legetzat ipinteraiño ez ziran gelditu. Urte batzuk lenagotik Abandoko albeitereak, aberesendatzailleak, Yose Paulo Ulibarrik, gogor ekin eutson orretarako giroa berotzen. Alan,

1833ko batzar baten, karlistak kalera eta mendira urten baiño lenagoko batzar baten, orixe erabagi zan; eguneroko batzarrak erderaz asi bai, baiña euskeraz jarraitzeko legea jarri eben. Korrejidorearen itzaldia bera, erderaz egiña euskerara itzulita entzuteko erea izango eben, eta euskereaz argitaratuta ikusi. Arrezkero euskereak zor jakozan eskubide osoak lortu ebazan Bizkaiko semeen Batzar Nausian, Gernikan.

Bergarako Besarkadearen ondoren eskubideok lege-indarrean jarraitzen dabe. Batzarreko arauak barriztau egiten dira eta euskereak egunero bere leku beteaz izango dau. Batzar-agiriak egunero irakurten dira bai erderaz eta bai euskeraz, eta gai guztiak izkuntza bietan azaltzen dira. Alan iñoan arauak (1833koak eta 1841koak): erderaz emongo jakola asiarea batzarreko gaiak azaltzeari, eta euskeraz jarraituko zala. Eta batzar-agiriak alan egiten zala jakitun ipinten gaitue. Eta ez beti txandaka, lenengo erderaz eta gero euskeraz. Bein baiño geiagotan, batzuk euskeraz eta beste batzuk erderaz, euskera-erderazko eztabaida biziak sortzen ei-ziran. Korrejikorearen asierako itzaldiak eurak be, egunean berean ezpazan, urrengo egunean, euskeraturik irakurten ziran, eta or daukaguz itzaldiotako asko batzar-argirietan argitaratuta. Bein jazo zan, Korrejidorearen itzaldi gangartxo bati, an bertan batzarkideak erantzun gogorra emotea, eta euskeraz emon be. Ez eutsen bada bizkaitarrai onako itaun asmo txarreko au zuzendu: «Madrilgo gobernuak 30.000 edo 40.000 milla armagizon bialduko balitu, zeuon lege ta eskubideak aldatzeko asmoz, zuok zer egingo zeunkie? Bakeak egin barritan (1841n zan), ez zan politiko zentzundun batek egiteko itaun egokia, benetan. Baiña zer entzuten dau bizkaitarren agotik: Guk, euki». Kartetan ordagoka edo enbidoka datorren jokalariai emoten jakon erantzuna. Olan irakurten da urte atako batzar agirietan. Gizon areik ez egozan iñoren aurrean buruak beingoan makurtuteko. Korrejidorearen aurrean euskeraz egitea, aren eupadadari olan euskeraz erantzutea eta aren itzaldiak euskeraturuz euskeraz irakurrerazo eta argitararazotea, etzan, ez, aurrerakada makala, eta eztau euskal-giro epela erakusten.

Euskeratzaileak

Euskereari zor jakon lekua emote onek Gernikako Batzarretako gizonentzat bere lorra ekarri ebala esan bearrik eztago. Norbaitek artu bear eban bere gaiñ neke ori. Eta gizon areik ez eben izan iñora, kanpora joan bearrik itzultzaile billa. Barruan, euren artean aurkitu eben dana. Eta ez edozelan be bete egiteko ori. Bein, an erdereraz entzundako itzaldi bat antxe bertan euskeraz jarrea eskatu eutsen bati. Eta ori iñondik iñora be ez. Astitxo eskatu eban erderazko itzak ondo aitu eta euskerazko egokienak billatzeko. Eta urrengo batzarrean irakurri zan euskerara itzulita.

Aitamen berezia zor jakola uste dot itzultze-lan onetan geien nekatu zan bati, Manuel Barandika, Batzarretako idazkariari. II zan arte, 1856garrenerarte zintzo artu eban arazo ori. Bere egitekoa izan zan eguneroko agiriak euskeratzea eta urrengo egunean irakurtea. Baiña, au ilda gero be, azkenengo batzarretararte, agirietako leloa betikoa da: egunero emoten jakola euskereari bere lekua, araudian erabagita egoan lez. Eta itzaldirik garrantzitsuenak batzar-agirietan aurkitzen doguz euskerara itzulita, inprentaz argitaraturik. Inprentaz argitaratutako itzaldiotarako bakarrik badirudi kanpokoen laguntza eskatu ebela, euskera txukuntxoagoz, egitearren, antza. Nori? J. A.

Uriarte, aita frantziskotarrari. Barruko itzulpenetarako, egunerokoetarako, batzarkideak ez eben kanpokoan laguntzarik bear.

Guzti ori egiten zan, barriz, alkartasunik onenean, iñoren mukerkeririk edo betozko illunik agertzen etzala, euskeraren alderako maitasun eta gogo-zabaltasun osoaz, euren izkuntza jatorrari egokion eskubidea zalako uste betean. Eta, gaiñera, euskerazko itzlariari itzal eta begirune guztizkoa erakusten eutsela. Gernikako batzarkide urte luzetan izandakoa zan Arrieta Maskarua, eta onelango aitopena itxi deusku: «Bein baiño geiagotan ikusi ebalá olango itzlari euskaldunik, itxura apalekoa eta, bizkaitar jatorra lez, berbaz urritxoá izan arren, batzar-gizonak bere eritxira ekarten, jakintuntzat egozan beste erdera dotoredunen gaiñetik». Eta, agiri danez, eta au ezta gauza utsa eta bai gogoangarria, izlari euskaldunak ez eben an bapateko itzultzaillerik edo bear. Euskera ulertzen ez ebanik bazan, aurki, batzar areitan; baiña argitasunik bear ebanak alboan edo aurkituko eban itzen mamia azalduko eutsanik be. Orain eundaka urte gaur baiño egoera obea eukan euskereak bizkaitarren artean.

Esanak esanik, asierako itaunak ase ta betean erantzunda gelditzen dirala uste dot. Argi dago Bizkaia ezta la zabar ibili bere euskalduntasuna autortzen, berea dauan euskerearen eskubideak zaintzen. Eta (esaten ausartuko ete naz?), beste Euskalerrietan baiño obeto. Non egin da beste ainbeste? Bizkaia, onetan be, beste gauza askotan lez, aurrelari agertzen jaku.

Orain Forua Euskeraz

Eta aurrelari agertzen da gaur, gure egunotan, Bizkaiko Foma plazara euskeraz ateratean. Bizkaiko Foma dator, beintzat, lenen argitara euskeraz. Zergaitik Bizkaikoa? Bear bada, Bizkaiko Foman dagozalako argi ta garbien euskaldunen nortasuna zeatzen adierazoten daben odolgarbitasuna, bardintasuna, aitorensemetasuna eta pres-tutasuna. Fom orretan aurkitzen diralako giza eskubideak ondoren zeaztu eta gordeta. Orregaitik edo artu dau bizkaitar eztan batek Foru au euskerara itzultzeko asmoa. Olan, Bizkaiko Foma napar baten eskutik dator, eta arabar baten lumatik. Eztago emen zeri arritu. Iparagirren kantua zabaldu zan ezkeru, Euskalerrri osoa dago Gernikara eta Bizkaira begira. Bidasoaz onuzko Euskalerrria, laurak batean, ipiñi zituan Iparragirrek Gemikako Arbolaren inguman kantari:

«Etzera eroriko,
Arbola maitea...
Laurok artuko degu
zurekin parteá,
pakean bizi dedin
euskaldun jenteá».

Lau Euskalerrriok parte artu dabela esango neuke, libum au ateraten. Arabar batek egin dau itzultze-lana. Ezta Gernikako batzarrerako eskubidea eukenetakoa, baiña bai fomz bizkaikoa. Libuman bertan irakurtea besterik eztaukagu: Bizkaiko Foruari azken-ikutua, an 1526n egin eutsenean, nor da Gemikako arexpe atan biz-

kaitarrakaz batera batzarreratu, eta Forua barriztetako erabagia artu ebenen artean lenengo aitazen dan jauna? Muxika eta Butrongo Don Joan Alonso, Aramaioko Jauna.

Foru onen euskeratzaillea, Pedro Pujana abade jauna, Bizkaian bere etxean dago eta Bizkaiko Forua bere-berea dau. Lan oni ekitean, ez dau bere legezko jaioterria ukatu. Puxana jauna Bizkaiko euskeraren jabe da, euskera au erabilten benetan maisutzat dago. Eta orra zergaitik egin dauan itzulpen au bere-berea dauan euskerara, antziñatean, guztiz antziña be ez tala, Arabako lurralde zabalagoetan entzuten zan euskerara, eta gaur Araban euskereak bizirik dirauan errietan entzuten danera.

Bizkaiko euskerea ez da, gaiñera, bizkaitarrena eta arabarrena bakarrik. Gipuzkoako erri mordo bateraiño zabaldua dago. Gaurko egunotan euskaldun guztienartetik euneko berrogeik Bizkaiko euskerea ei darabil. Eta bera ilgo balitz, edo il bagengi, ez uste beste euskera obe batek beteko leukela aren utsunea; erdereak, bai, beteko leuke.

Pujana jaunak ezteutso olango zoritxarrik opa Bizkaiari ez bere euskerari, ez Euskalerrari. Guztiontzat kaltegarri baiño ez litzakela izango badaki. Orregatik ez da lotsa izan Bizkaiereari eusten. Eta gaur adorea bear da orretarako. Areriorik txarrenak Euskalerrri barruan agertu jakoz gaur Bizkaiko euskerari. Gure euskeratzaillea ez dau iñok ez ezek ikaratu ez atzeratu. Eta bere euskeran, Bizkaikoan, egin dau bere lana. Bizkaiko euskeran, baiña gure egunotakoan.

Bizkaitarrak euren Forua lenengoz paperera aldatzean, orduan euren agotan erabillen euskeran egin balebe, egia da orduko itz eta esaera asko agertuko zirala Foru-liburu onetan. Orain galduak doguzan itz zar asko sartuko ebezala: egorrotxi, erri-egorrotxi ta olango asko. Erderazko Foruan sartu ziran euskal-itz batzuen esanaia be obeto ulertuko genduke, esaterako, abeurra, bidigaza eta abar. Naparroako Forua dogu euskal-itzez aberatsena, batez be zerga-izenetan. Pujanak berba zar batzuk euren zarrean itxi ditu, eta barriak billatu bear izan ditueanean, zur ibilli da ta eztau bide txarra artu. Bat aitatzearren, orra *auzo-lurra*. Gaur be, *auzo-lur* ezpada, antzekoa esaten jako leku askotan: *oilla-lur*, guztientzat dagoan etxe-aurretako lurrari.

Itzulpen onetako euskerea gaurko bizkaiera dala, oker andirik egiteko bildur barik esan daigun joan dan gizaldian Gemikako batzarretan entzuten zanarenetik urrin eztabillena dala. Aita Zabala frantziskotarrak, Ulibarrik eskatu eutsonean, egin izan baleu, ez eban oberik egingo.

Asieran esan dodanez, Paulo Ulibarri arabarraren eskabideari ezetza emonez, Aita Zabala bilbotarrak egin barik itxi ebana gaur, euskal-kulturaren alorrean ain kementsu diarduan napar baten eskabidez, Estomes Lasa baten eragitez, Bizkaiko Fompeko arabar batek egin deusku, eta olan antziñako bizkaitarren gogo eta giza-bidearen ispillu dana euskal-soiñekoz jantzirik eskiñi. Opari eder balio andikoa eskiñi deuskue. Eurentzat euskaldun guztien, eta batez be bizkaiko semeen txaloak eta eskerrona.

ETAPAS DE UN LARGO CAMINO HACIA UN BILINGÜISMO OFICIAL*

No sé si el tema de mi intervención va a encajar dentro de la finalidad que parecen perseguir estas JORNADAS ANTE EL SIGLO XXI. Parece como si se quisiera situarnos ante una Esfinge, que se nos quisiera obligarnos a hacer de profetas o de planificadores del futuro. En el presente caso se trataría de ofrecer o proponer métodos y posibilidades para asegurar el porvenir de nuestra lengua en una situación de bilingüismo vasco-castellano oficialmente planificado y aceptado.

Yo no me he sentido tentado a soñar ni a vaticinar futuros. Por eso, mi punto de vista va a ser histórico y retrospectivo. Mi mirada se va a dirigir hacia el pasado, para tratar de ver en él la forma en que, entre nosotros, se ha vivido el bilingüismo, la coexistencia, conflictiva o no, de las dos lenguas, euskera y castellano, a lo largo de los últimos siglos.

Es un tema al que en mi opinión se ha prestado no mucha atención, o ha sido despachado bastante a la ligera. Así, se oyen a veces juicios muy parciales, demasiado tajantes y condenatorios contra nuestros antepasados, acusados de no haber sabido hacer la debida estima de la lengua que da nombre a Euskalerría, de no haberle defendido ante la invasión y ataque de los erderas circundantes.

Mi atención se va a centrar, casi exclusivamente, en Vizcaya que, a mi entender, es la comunidad vasca cuya conducta ha sido más criticada y denostada en este aspecto. Mi información se apoyará, ante todo, en las Constituciones Sinodales del Obispado de Calahorra y en las Actas de las Juntas Generales del Señorío, desde el siglo XVII hasta la desaparición o abolición del Régimen Foral hace poco más de un siglo.

* In: *Pluralingüismo y evolución cultural* (III Jornadas Vizcaya ante el siglo XXI - Bizkaia XXI mende aurrez, III jardunaldiak), 2.t. Bilbao 1986, 137-148.

Perrhítaseme antes hacer una pequeña digresión hacia una época más lejana de la Edad Media para recordar un caso especial de pacífica convivencia euskaldun-erdalduna en un área geográfica alejada del País Vasco actual. Se trata de un fuero de Ojacastro en la Rioja, recogido en una de esas *Fazañas*, sentencias o fallos que sentaban precedente y hacían jurisprudencia.

Según esa fazaña, del tiempo de Don Morial, Merino Mayor de Castilla, nos enteramos de que en Ojacastro, en plena Rioja, sus vecinos tenían derecho a declarar en vascuence ante sus jueces. Un investigador riojano, Merino Urrutia, averiguó que el tal Don Morial desempeñó sus funciones de Merino Mayor de Castilla por los años de 1234 a 1238. Precioso dato que nos habla del pacífico bilingüismo castellano-vasco que se vivía el siglo trece en la Rioja sometida a Castilla. Y la consecuencia es obvia. ^Si tal y tan favorable era entonces la situación del euskera en la Rioja, cuánto más favorable no había de ser la misma en el propio País Vasco?

Y ya que de fazañas se habla, ^por qué no mencionar otra hazaña, que tiene lugar pocos años antes, hacia el 1216? Es la del navarro Rodrigo Jiménez de Rada, arzobispo de Toledo, nada menos que en el IV Concilio de Letrán, el Concilio más concurrido de la Historia, según dicen las Crónicas, celebrado bajo el Pontificado de Inocencio III. En esa magna asamblea de la Cristiandad, el arzobispo navarro, con la venia del Papa, dirige su palabra a la gran concurrencia de Padres Conciliares, clero y fieles venidos de todas partes, primero en latín, para a continuación repetir las ideas de su peroración a romanos, teutones, ingleses, franceses, navarros y españoles hablando a cada grupo en su propia lengua materna. Simpática hazaña la de este arzobispo navarro. Por su boca, el euskera se sumaba al concierto de las grandes lenguas europeas, en plena Edad Media.

Lamentablemente, la situación de la *Lingua Navarrorum* no era en su propia tierra tan boyante como podría suponer la hazaña romana de Don Rodrigo Jiménez de Rada. Por las mismas fechas aproximadamente, el Fuero de Navarra se redactaba, no en vascuence, sino en romance. Tan sólo algunas palabras y expresiones euskéricas dejarán entrever que el pueblo destinatario es euskaldún. Es también el caso del Fuero de Vizcaya. Unos pocos términos dejarán vislumbrar que el texto legal recoge el derecho consuetudinario de una Vizcaya que habla euskera; pero está escrito en romance castellano.

No hay que olvidar, naturalmente, que Vizcaya, como Navarra, tiene zonas no vascófonas desde muy antiguo. Hay que tener presente, además, que el Fuero de Vizcaya se redactó y pasó a ser ley escrita también para conocimiento de los tribunales reales de fuera de Vizcaya y para su aplicación en pleitos concernientes a los vizcainos. Y, en todo caso, no hay que olvidar que era aquella una época en la que las lenguas neolatinas, como el romance castellano, habían recién heredado el imperio anterior del latín en leyes y documentos oficiales, y que no daba para otra cosa la formación de escribanos y letrados.

El euskera, que había sabido cantar en verso muchas acciones del pueblo euskaldún, no se había estrenado en el campo de las leyes escritas. Son contadísimos los casos en que la vida de nuestro pueblo o de su administración haya quedado reflejada en textos redactados en euskera, y son todos relativamente recientes, y

reducidos a alguna zona guipuzcoana, como Eibar, o de la Montaña de Navarra, o poco más.

Pero la realidad social entera no la encontramos en las solas fuentes documentales escritas, sino en la práctica viva, que ha podido no haber sido registrada en aquéllas ni atestiguada por secretarios y escribanos. Por ello, no nos cabe duda alguna de que las asambleas vecinales, o incluso de ámbitos más amplio, fueron en muchas partes de nuestra tierra monolingües en euskera, o bilingües en euskera y erdera, según lugares y tiempos.

No tardará en surgir una cierta conciencia vasquista el siglo XVI. Conciencia que se revela, no sólo en el grito que lanza Etxepare: «*Euskera, jalgi adi plazara*», sino también en las palabras del calígrafo arratiano, Pedro de Madariaga, el escritor que fue el primero en dar unas nociones de ortografía vizcaina o euskérica, quien en 1565 desde su cátedra de la Universidad de Valencia escribía: «Yo no puedo dejar de tomar un poco de cólera con mis vizcainos, que no se sirven de ella (de nuestra lengua vizcaina) en cartas y negocios, y dan ocasión a muchos de pensar que no se puede escribir, habiendo libros impresos, en esta lengua».

La carencia de conocimiento gramatical y reflejo del euskera hacía a muchos vascos mudos en su propia lengua, cuando se les ofrecía ocasión de emplearla en el trato comercial y en las comunicaciones epistolares. El bilingüismo de los que, aparte del euskera familiar, habían adquirido conocimiento del castellano se convertía así en monolingüismo práctico en perjuicio y desdoro del euskera. Madariaga no puede ver ese monolingüismo de los bilingües vascos. Quiere que pasen, cuando menos, de ese monolingüismo castellano a un bilingüismo real, bilingüismo que, por aquellas hechas, no dejaba de ser un paso positivo en favor del vascuence, el inicio de una corriente pro euskera. Esta corriente parece reflejar varias obras bilingües, vasco-castellanas, que fueron apareciendo en la segunda mitad del siglo XVI. Bilingüe es la obra de formación cristiana que da a la estampa el navarro Sancho de Elso en 1561; bilingüe el libro en euskera predominantemente vizcaino de los *Refranes y Sentencias* de 1596; bilingüe la obrita catequética de Betolaza, también vizcaina, de la misma fecha, como bilingüe será también la obra, o las dos obras, del navarro Juan de Beriain, abad de Uterga.

Y bilingüismo sano, dando prioridad a la lengua propia del País, será el que promueva la Iglesia a través de las Constituciones Sinodales calagurritanas.

A la Diócesis de Calahorra y Calzada pertenecen entonces Alava, la mayor parte de Vizcaya y parte de Guipúzcoa, aparte de la castellana Rioja. Un hijo de la Rioja, Don Pedro Manso de Zúñiga, nacido en Canillas, dirige la Diócesis de 1594 a 1612. El año de mil seiscientos celebra Sínodo en Logroño con participación masiva del clero vasco de Alava, Vizcaya y Guipúzcoa. Una de las Constituciones Sinodales que allí promulgan reza así: «Que los Prelados hagan imprimir cada año doctrina Cristiana impresa en lenguaje acomodado a las Provincias». Y continúa: «Y porque es conveniente que cada Provincia tenga doctrina cristiana impresa en lengua patema; y porque hay en la tierra vascongada deste nuestro obispado diferencia en el Vascuence del Señorío de Vizcaya, Provincia de Guipúzcoa y Alava: Estatuimos y ordenamos que los Señores Obispos nuestros sucesores hagan imprimir cada año cartillas de la doctrina cristiana en Romance y Vascuence, según el uso de las dichas Provincias,

para que los curas tengan cartillas en la lengua propia de cada Provincia, porque Nos así lo hemos comenzado a hacer en nuestro tiempo; y las que se imprimieren en Vascuence tengan también doctrina en Romance».

En efecto, lo hemos consignado ya, Manso de Zúñiga había comenzado a imprimir cartillas de doctrina cristiana de las características señaladas al segundo año de su pontificado, en 1596. La cláusula que manda que las cartillas en Vascuence tengan también la doctrina en Romance hacía que los Catecismos para las zonas vascas o euskaldunas fuesen bilingües, pero parece haber caducado bastante pronto y expresamente debió de quedar abolida por las nuevas normas dadas al respecto en 1698 por el Obispo andaluz Pedro Lepe, el cual otorgó plena confianza al clero vasco para la redacción de textos de doctrina cristiana, «por haber encontrado, dice, en todas partes sacerdotes con caudal de ciencia muy competente para enseñar a otros». Hay que advertir en todo caso, que las doctrinas se imprimen, más que para uso y lectura de los fieles, para su utilización por los sacerdotes, y que el método por éstos seguido en su enseñanza era el de dictar y hacer repetir o canturrear los textos desde el altar o desde el púlpito.

Otra Constitución, más clara y decidida en favor del euskera, promulgada por Manso de Zúñiga en 1600 es la concerniente a la predicación sagrada. Su título reza así: «Que en la tierra vascongada los sermones sean en Vascuence». Y distingue dos situaciones: la de los lugares donde la mayor parte habla vascuence, y la de los pueblos donde casi todos entienden el romance. Y dispone lo siguiente «Sancta Synodo approbante, ordenamos y mandamos que en los tales lugares (es decir, donde la mayoría habla vascuence), los sermones sean en vascuence; y los curas no consientan otra cosa, so pena de que serán castigados; y lo mismo guarden los dichos curas, cuando declaren el Evangelio. Y mandamos, S.S.A., que esta Constitución se observe también en los pueblos, en donde casi todos entienden el Romance, porque guardada esta forma, todos se aprovechan de la doctrina, y siendo el sermón en Romance, necesariamente quedan sin entenderlo aquéllos, pocos o muchos, que no lo entienden». Y termina con este mandamiento: «En todo el Vascuence los predicadores naturales de la tierra deben ser antepuestos a los que no lo son».

Nada, pues, de traer, por puro lucimiento y sin provecho para los oyentes, predicadores de fuera o castellanos. Ni tan siquiera vale alegar que la mayoría entiende el castellano. También entonces ha de ser en Vascuence la predicación. La mente del Sínodo del año 1600 parece no puede ser más clara. Lástima es que no tengamos información precisa sobre los lugares y pueblos en que pudieron tener aplicación estas determinaciones sinodales respecto del uso del euskera. En todo caso, lo más probable es que esa mayor parte que entiende Romance es una mayoría bilingüe, conocedora del castellano y a la vez euskaldún.

Un sínodo posterior (de 1620) celebrado asimismo en Logroño, declaró extensivas a las escuelas las normas sobre el uso del euskera en la enseñanza del catecismo. Los rectores de las iglesias quedaban encargados de su cumplimiento: «Hagan que los maestros de las escuelas enseñen a sus discípulos la doctrina cristiana y buenas costumbres; y que la doctrina cristiana en la tierra vascongada sea en vascuence, y no en latín ni en romance, porque no lo entienden ni es de provecho».

Y si los maestros no supieran hacerlo, el Sínodo carga sobre los mismos curas la obligación.

Está claro que las normas eclesiásticas calagurritanas, en cuya redacción hubo de tener gran parte la representación del clero vasco de Vizcaya, Alava y Guipúzcoa, inspiradas por un espíritu altamente pastoral, están basadas a su vez, en el conocimiento y reconocimiento claros de la realidad vasca y está ausente de ellas todo propósito de colonización cultural o lingüística.

Situación parecida y parecido espíritu presentes en Navarra revela la obra bilingüe del abad de Uterga, Juan de Beriain, contemporáneo de las Constituciones calagurritanas que acabamos de comentar. Escribe, dice el Secretario del Consejo Real de Navarra al tasar una de las obras, «en Romance y Bascuence, lenguajes deste Reino de Navarra». El autor, a su vez, declara: «Escribo en Romance y Bascuence, lenguajes deste Obispado; y aunque en diferentes partes dél hay en algunas cosas diversos modos de hablar, yo escribo el que se habla en Pamplona, que es el que se habla en la mayor parte dél, donde se habla bascuence, y el que mejor se entiende en todas partes». En toda la obra del autor se ve el espíritu apostólico que la anima; pero a él parece resultarle más grato recordar la parte que tiene de euskérica: «Escribo, dice, en Bascuence, porque no ha habido nación en todo el mundo que no se haya preciado de la lengua materna de su patria, y el enseñarla en las escuelas a leer y escribir... Razón es que nosotros estimemos nuestra lengua vascongada».

Así es cómo se manifestó en tiempos pasados el elemento eclesiástico de nuestro pueblo. Veamos ahora lo que ocurre en la esfera civil, en la vida administrativa y pública. Cifrándome a Vizcaya, como he dicho al comienzo, vamos a ver cómo se practicó el bilingüismo en las Juntas Generales vizcainas.

^Las Juntas del Señorío tenían preceptuado el uso del euskera en sus sesiones? ^Estuvo alguna vez proscrito el euskera en aquellas asambleas de un pueblo en su mayoría euskaldún? ^A tal punto había llegado el oscurecimiento de la conciencia vasca en los vizcainos? Alguna vez se han hecho afirmaciones de ese calibre, o se siguen aún haciendo por quienes no creo hayan estudiado el tema como se merecía. Es éste un estado de opinión que parece haber quedado como incrustado en algunas mentes. Sin embargo, tal vez ninguna otra institución vasca tenga documentación tan clara para afirmar lo contrario y probar que la realidad es muy otra.

La Vizcaya que acudía a las Juntas de Guernica no toda era euskaldún. Tenía zonas castellanizadas desde antiguo. Parece obvio que el castellano, o romance, como se decía entonces, se oyera en aquellas asambleas, que además se celebraban bajo la supervisión del Corregidor, representante del Señor de Vizcaya, siempre extraño al País, no vizcaino. Pero que el conocimiento del castellano fuera requisito indispensable para ser juntero de aquellas Juntas, y que el euskera estuviese proscrito o ausente, es cosa que no está clara ni mucho menos. Desde luego, no había disposición legal ni reglamento que lo justificase. Las Juntas no tuvieron reglamento escrito hasta sus últimas etapas. Sus sesiones se atenían a un protocolo consuetudinario.

Hubo, sí, un corto período, de 1613 a 1627, en el que los Corregidores, al convocar las Juntas como lo hacían cada dos años, trataron de imponer a los pueblos ciertos requisitos para los apoderados que habían de enviar a las Juntas. Requisitos

que no están muy claros ni son muy concretos. Una vez se pide que los pueblos envíen representantes idóneos para tomar parte en las deliberaciones. Otras se exige saber leer y escribir. Otra, saber leer, escribir o hablar romance. Algunos apoderados, en consecuencia, son sancionados por el Corregidor con la expulsión de las Juntas por no saber leer ni escribir; otros por no saber leer, escribir ni hablar romance. Nadie aparece sancionado por el solo hecho de no saber hablar romance.

Pasada esta breve etapa, las Actas ya no vuelven a hablar de sanciones o expulsiones por tales motivos, pero sí hablan muchas veces de la presencia de junteros que no entienden el castellano o no lo entienden suficientemente, por lo que se procede a explicar en euskera el asunto que se ventila antes de proceder a la votación. Algunas veces hasta se da a entender que era procedimieto habitual el de presentar la versión euskérica de los acuerdos a la asamblea. Ello demuestra dos cosas muy a las claras: que el desconocimiento del castellano no era impedimento para ser vocal o miembro de las Juntas, y que el euskera, lejos de estar proscrito, estaba presente en ellas.

Las Actas, sólo excepcionalmente, han registrado algunos casos, pero el altemar castellano con vascuence, hubo de ser práctica cotidiana, a juzgar por el testimonio de testigos extranjeros admitidos a presenciarse algunas sesiones, a fines del siglo XVIII y comienzos del XIX. El Dr. Don Justo Gárate ha dado a conocer entre nosotros varios de esos testimonios, como el Von Vincke, y el de Von Rehfués, que hablan de la costumbre diaria de alternar la lengua castellana y vasca en la discusión de los asuntos. Estos detalles no siempre pasan a las Actas; pero sí alguna vez, como cuando Simón Bemardo de Zamácola, en 1804 tras una larga exposición en castellano, añade: «Repetiré en vascuence lo que pueda de mi narración para inteligencia de los señores vocales que no entienden el idioma castellano». Y habló a los junteros en euskera durante más de la hora.

Finalmente, en 1833, en las Juntas de Julio, poco antes de estallar la guerra carlista, se acordó que la práctica consuetudinaria quedara consignada por escrito en el Reglamento que se dieron para en adelante. El artículo 36 decía así: «Se dará principio, tanto en la lectura de expedientes corao en los discursos, en idioma castellano, y se continuará en el vascongado hasta que todos los apoderados queden suficientemente enterados de los asuntos que se ventilen». Y el artículo 42 establecía: «Concluida la discusión del punto en cuestión, se procederá enseguida a la resolución..., y mandará el señor presidente proceder a la votación, y poner por escrito en idioma castellano y bascongado las proposiciones sobre la que ha de recaer» (la votación).

Al aprobarse el Reglamento, la Comisión declaraba que «se ha complacido en reconocer la exactitud y precisión con que se ha redactado el derecho consuetudinario de Vizcaya».

Cuando al término de la Guerra Civil, las Juntas han reanudado su vida, en sesión del 13 de octubre de 1841, acuerdan «que diariamente se trajese a la Junta en lengua bascongada por escrito el extracto de la acta de la sesión precedente, para que así quedasen mejor enterados de sus deliberaciones los que no poseyesen el idioma castellano».

La fórmula se hizo ya estereotipada. Las mismas Juntas buscaron entre sus miembros quien se encargase de la traducción y extracto de sus actas. No necesitaban ayudas extrañas. Durante muchos años actuó como tal el Secretario de las Juntas y de su Gobierno, Don Manuel de Barandica. El Reglamento de las Juntas sufrió algunas modificaciones en años sucesivos, pero los artículos relativos al uso del euskera quedaron intactos sin otra modificación que su desplazamiento en la numeración. Se introdujo asimismo la costumbre de traducir al euskera los discursos inaugurales del Corregidor, para leerlos en la sesión siguiente o para darlos a la estampa. Las Actas van dejando constancia de que las normas del Reglamento no eran letra muerta, sino que se cumplen fielmente; y en ellas han quedado recogidos muchos de los discursos más sonados en su versión euskérica, como también algún dictamen bilingüe de alguna Comisión. La última intervención euskérica, recogida en acta, es una del diputado José María de Murga en 1872, en sesión cuyas actas no se publicaron hasta pasada la guerra civil en 1876.

Así aparece practicado y establecido el bilingüismo en las Juntas Generales del Señorío de Vizcaya. ¿Dónde quedaban las pretensiones, si es que las hubo, de aquellos dos o tres Corregidores de principios del siglo XVII, de imponer el uso exclusivo del Romance en Guernica? Si es que las hubo, bien claro queda que no pasaron de ser una de tantas imposiciones o abusos de poder, ante los que la respuesta de los vizcainos era la respuesta histórica: «Se obedece, pero no se cumple».

A la Vizcaya foral no le faltó conciencia vasca. La tuvo y supo dar solución al problema del bilingüismo. Una solución a la que se llegó sin que se produjera conflicto alguno ni con los Corregidores, representantes foráneos del Señor, ni entre los propios vizcainos, vascoparlantes unos y castellanizados otros. Nadie invocó derechos superiores irrenunciables de ninguna lengua oficial sobre la otra.

Como tampoco se habían invocado en Ojacastro allá en el siglo XIII, ni en los Sínodos calagurritanos del XVII. Ni tan siquiera en las disposiciones más o menos arbitrarias de los Corregidores de principios de ese mismo siglo, que acaso no pretendían imponer el romance sobre el vascuence, sino a lo más facilitar la mejor posible comunicación entre los vocales de las Juntas vizcainas. Pues bien, ese mismo espíritu, mejor entendido guiaría a los vizcainos a una solución más en consonancia con los principios de la justicia y la razón, reconociendo plenos derechos al euskera y dando justa cabida al bilingüismo en sus asambleas. Junto a esto, la creación de un Instituto Vizcaino con su cátedra donde se enseñase el euskera fue también iniciativa que partió de las Juntas de Guernica.

Abolido por el poder central español el régimen foral, desaparecidas las históricas Juntas, se iniciará una breve etapa, larga y penosa, que ha desembocado en la situación actual.

Ha sido fruto de un nuevo despertar de la conciencia vasca, el resultado de la lucha conjunta de todos los territorios históricos vascos por recuperar las libertades arrancadas y los derechos usurpados, y salvar ante todo la supervivencia de su lengua, el mejor timbre de gloria del pueblo euskaldún. Pronto se vio la necesidad de una Academia de la Lengua Vasca, que diera a la acción euskerista prestigio, cohesión y fortaleza. Todas las instituciones vascas trabajarían y colaborarían por recuperar

la personalidad vasca ta' to en el orden político como cultural y dotarla de los cauces adecuados para consegirlo.

La fundación de la Sociedad de Estudios Vascos en el Congreso de Vergara de 1918 encauzaría toda l? actuación dispersa anterior hacia la consecución de unas metas concretas. Entre sus obras está la elaboración del primer Estatuto de Autonomía del País Vasco, entre cuyos logros está el que se introdujera el Bilingüismo de pleno derecho en la vida pública ; privada, y la implantación del euskera en todos los grados de la Enseñanza y en ÍOS órganos todos de la Administración Pública. Esto se conseguía en 1936.

Todo esto es historia reciente, que basta recordarla someramente, porque está en la mente de todos. Hoy, trai. el bache de los cuarenta años siguientes, el Pueblo Vasco en sus tres territorios histói'cos de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya se enfrenta al siglo XXI armado de poderes y imdios como no los ha poseído antes para asegurar su supervivencia como pueblo vasco, como pueblo euskaldún. El hecho de que aún se conserva viva la lengua es un dato positivo y consolador, y un triunfo frente a todos los agoreros que hace tiempo \ ínían pronosticando su muerte a corto plazo. Sin embargo, la situación no deja de ser crítica, y aun paradójica. Si, de un lado cuenta con tanta asistencia y apoyo sociales, y nunca ha habido en el país tanto vascoparlante como en la actualidad, nunca la densidad de población euskaldún ha sido menor y más débil frente a la invasion y progresos de los erderas que parecen silenciarlo y ahogarlo. *iQué porvenir le esp^ra?*

Ya he dicho al principio que no quería lanzarme a hacer vaticinios. Pero aún renunciando a actuar de profeta, manteniéndome r; nii pvinto de vista histórico, sí quiero hacer constar que hasta ahora todos los plaífos señalados, pro antropólogos, lingüistas y profetas de mal agüero, propios o extraíos, como Humboldt, Reclus, Unamuno, etc, han quedado ampliamente rebasa.os y han resultado equivocados. Hasta ahora la única profecía cumplida es la de un humilde bersolari de Rentería. Cuando otros, como el poeta de Otxandiano Arrese Beitia, echaban por la calle de la amargura y se dieron a entonar cantos fúnebres a la muerte de las viejas instituciones y del euskera, Xenpelar lazón su grito de resistencia, señalando el remedio más que lamentando los males:

Lengo legerik ez utzi,
oieri firme eutsi...
Jaioko dira berriak:
Gu gera Euskalerrriak!

El porvenir del euskera estará siempre en manos de los vascos. Mientras el País dé nuevas generaciones que vengan con ese espíritu de resistencia, de no dejarse invadir y avasallar, de fidelidad a la lengua, que proclaman las palabras del bersolari Xenpelar, Euskalerrria no será mero nombre sin su contenido. El País Vasco seguirá teniendo derecho a llamarse Euskalerrria.

BIBLIOGRAFIA

- URRUTIA, Merino (J. J. Bautista): *El Vascuence en La Rioja y Burgos*. Biblioteca Vascongada de los Amigos del País. San Sebastián 1962.
- LEPE, D. Pedro de: *Constituciones Synodales antiguas y modernas del Obispado de Calahorra y la Calzada. Año de 1700*. Recoge las de Manso y otros.
- JUNTAS Generales del M. N. y M. Señorío de Vizcaya. Hay edición impresa desde el siglo XVIII.
- GARATE, Justo: *El Viaje vasco de Von Rehfués en 1808*, en Boletín de la Institución «Sancho el Sabio», T. XXIII, 1979.

GURE BRET SOLARIAK ERDAL IDAZLE BATEN LUMAN*

Agertu da udazkena eta Donostia ustuz dijoa udaraldiko kanpotarrez. Emen, eta inguruko amaika bazter eder ikusgarritan, oporraldi lasagarria igaro dutenak badijoaz nor bere lekuetara. Zer oroipen beren buruetan eta beren begietan, zer iduri ote daramate utzi duten txokotik, Euskalerriko alde oietatik? Emen ikusi duten giroari, emengo oitura, bizimodu ta gaiñekoari zer iritzi ote diote?

Ixilpe osoan gordeko dute geienek galdera onen erantzuna. Beste batzuk, ordea, nolabait, geiago edo gutxiago, ustuko dute barrua, egiaz edo gezurraz. Atera dezagun kontua ortik beerako idazle batek gure bertsolariez, bein edo berritan, esan duenetik.

Gimenez Caballero, nere iritiz, Gaztelako idazleen artean ez da edozein. Bere nortasuna badu. Noiz baiten gazte izana, eta idazle askoren maisu eta gidari. Idatzi dituen liburu eta artikuletan, zer ez du jo? Goiak eta beak, leena eta oraiña, Españi-barruko errialdeen alkartasuna eta abar astindu ditu eta aizetaratu bere lumak. Sitsa ta bitsa, ostoa eta abarra bada, nik uste, berak idatzitakoetan. «Taurus Hispanicus» zer dan edo ezer izan dan edo zer izan bear duen jakin nai duenak, jo beza idazle orrengana. Berak esango dio. Baiña gure bertsolariak zer nolakoak diran jakiteko, ez orri galdetu, iñolaz ere. Kontuz ortan.

Idazle onek maite ez duen erririk ba ote da iñon? Maite duela dio Euskalerrria ere; maite omen du emengo lurra, maite gizonak, maite gure bertsolariak. Txoraturik ikusi ditu eta entzun aien kantaldiak, eta arriturik ikusi du gure erria aien inguruan biltzen, aien doñuak zoramenaz entzuten. Au erria, auek gizonak! Gimenez Caballero'k ez du tutik ulertu. Zer ulertu bear zuen? Baiña or ikusi du, eta au nabarmenena, erri entzulea bertsolari kantariaren azken puntua, bertsolariarekin batera, bukatu eta

* El Diario Vasco [39] (1972, 11734.zenb.) 8.

kantatzen. Arrigarria! Orra, bada, gure idazle onentzat dana argi. Leenaren eta oraiñaren gaiñetik zubiak jartzen ain errez dakian irudimen orrentzat, ez dago or ulertu-eziñik, ez dago bat ere korapillorik. Nork esan du joanak zirala aspaldi aspaldietako rapsoda edo geroago bateko juglar ziralakoak? Ona emen, non dauden Euskalerrian, bizi bizirik oraindaiño. Ona emen Euskalerriko bertsolariak, belaunik belauñ, semeez seme, mendez mendetako bertsoak, buruz ikasita (gordetzen dituzten gizon bitxi, ezagugarri ta maitagarriak). Ona emen Basarri ta Uztapide (izenok ere ikasi ditu oraingoan), antziña zaarretako jakinduria beren bertsoetan ekarri ta opatzen digutela. Orain ulertzen du nola dauden entzuleak txunditurik, eztitan, danak begi ta belarri, jakinduri ori aien bertso - iturritik, kantu-jarriotik entzun eta ikasten. Ez da arritzeko nola dauzkan erri orrek ainbat bertso buruz ikasita, nola sartzen dan bertsolariaren kantuan eta arekin batera kantatzen duen bein baiño sarriago? Oroitu ala, konturatu bage egiten du askotan ori.

Nik ez det ezer asmatu. Orixe irakurri nuen, aspalditxo, laburrago esanda bazan ere, eta orixe irakurri det berriro, luzeago eta legungarriago, maitakorrigo idatzia, aurten Madrilgo egunkari aundi batean, Gimenez Caballero orren izenpean. Ezagun da irudimenak eta maitatu-nai utsak ez duela iñoren ez ezeren ezaupiderik sortzen. Ezagun da, olako irudimenak eta maitasunak badakitela adarra jotzen eta azak ematen beren jaberik zintzo ta zindoenari.

Ez det uste gure Aita Zabala, Auspoa-sortaren zabaltzaillea, erdal-idazle orren-gana joango danik gure bertsolaritzaren giltzaren billa. Gure bertsolariak, antziña zaarreko bertsoen kantatzaille? Galdetu dezaiotela, joan dan mendekoen artean, Iparaguirre arloteari. Galde, oraiñagokoetan, Paulo Iantzi zanari, edo beste zenbaiti.

Ain bildurgarria, ain bazterren pake-galgarria ote zitekean, bada, gure egunetarako, antziña paketsu artako jakinduria, gure bertsolarien kantuetan gordeta gure-ganaño etorria?

PERNANDO AMEZKETARRA TA GARIBAI*

Igaz, Pernando Amezketarren urteurreneko jayetan, Amezketan izan ziran asko etziran zerbait arritu barik gelditu ango plazan ikusi ebenaz: Pemando ospetsuaren bizitza ta ateraldiakaz osotutako liburutxo bat eskeintzen yaken erosi nai eben guztiai, baña erderaz egiña. Bat baño geiago ikusi neban nik, liburua erosteko pozean urreratuta, erosi barik atzera egiten, erderazkoa zala ikusirik.

Ba-dakigu, gerotxoago Zarauz'ko Itxaropenak emon deutsela euskaldun irakur-zaleai G. Muxikaren liburu zarra, «Pemando Amezketarra», barriro irakurteko erea. Lenengo orrialdean irakurten dogunez, liburuaren bosgarren argitaldia da. Pemandoren xelebrequeriak euskera jatorrean irakurteko egarriz ziranak badauke or euren egarria non ase.

Pemandoren ateraldi oneik dirala-ta, bein baño geyagotan egin da onako itaun auxe: ^Pernando-renak dira gero aren izenean zabaldu diran ateraldi ta ipuin guztiak? Muxika zanaren liburuak, sarrera-antzean, Kamielo Etxegarai'ren lan bat dakar, eta bertan irakurri giñai itaun orri gizon jakitun aren erantzuna. Etxegaraik ezetz diño: ez dirala Pemandore-nak oni ezarritako zorrozkeri guztiak, ez dirala asko ez berak asmauak ez bere agotik urtenak; antxiñagokoak dirala; Pemando jayo baño askozaz lenago Italian, Prantzian, Españian sortutako liburuetan irakurri daitekezala euretarik asko. Ipuin orreitako bat aitatzen dau Etxegarai jaunak gitxienez zortzireun urteko bizia daukana, Pedro Alfonso Aragoiko semearen liburu baten irakurri daitekena.

Ipuifi asko, ateraldi asko mundu guztian zear ei dira ezagun eta leku askotan dabiltz zabal; baña toki bakotxean oni edo ari ezarten deutsezala, euren asmatzalletzat urlia edo berendia emoten deuskuezala. Eta gure Euskalerrian olango xelebrequeri ta ipuifi asko Pernando Amezketarren izenean zabaldu dira, ointsuengo gizaldiotan.

* Zeruko Argia 28 (1965, 124.zenb.) 6; *Nonzebarri* izenpean, ik. 138. orr.

Pedro Alfonso, gure Amezketarraren xeblebrekeri baten aita zar ezaguna, judegu izanda gero kristiñau egiña, amaika-amabigarren gizaldikoa dogu, eta Euskalerritik kanpkoa. Igaztik ona, euskalduna ezpada bere, euskel-izeneko guraso bat sortu yako Pernandoren beste jazoera bati, Garibai dau izena. Pernando Amezketarraren urteurren onen barruan atera dabe Madrillen, erderaz, Garibai'ren izeneko ipuiñ-mordoa dakarren liburu bat: «Cuentos de Garibai».

Nor izan ete zan Garibai ori? Ez deuskue oraiñartean ipuiñ-sorta orren argitaratzalleak, ez lengoak ez oraingoak, argitasun andirik emon, batzuk Arrasate'ko Esteban ospetsuaren alde dagozan arren. Erdal-errian, erderazko esakeretaraño sus-trayak egiñik ebillen antxiña baten Garibai izena. Esaterako, euskaldunen artean Axularren ítzalak añako ospea eukan Garibai'ren arimeak. Quebedok esan ebanez, Garibai'ren arimea ez Jaungoikoak ez deabruak ez ei eban nai.

Igaz agertua dan ipuiñ-sorta onek bere Garibai daroa egilletzat edo batzalletzat. Eun bat ateraldi ta yazoera ditu. Esku-idaztia Real Academia Españolak ei dauko gordeta.

Ona emen orain Pernando gurearen ipuiñ bategaz guztizko antza daukana. Jaun andi baten etxean jatordua da. Arrain andiak atera dabez etxeko jaunarentzat; beste guztientzat arrain txikiak. Mayan da praille bat bere, eta ez dau besterik egiten: arrain txikiak banan banan eskuratu, belarrira urreratu, eta beste barik, maipera bota. Etxeko jaunak praillearen zeregiñ au ikusita badiñotso: «Zer? Arrain orreik usainduta edo dagoz?» Eta prailleak: «Ez, jauna. Baña ara: nire aita, ibai bat igaroten joyala, urak eroanda ito egin yatan: eta arraintxo oneiri nengoan esaten iya an ito zanean ikusi ete eben. Ezetz erantzun deuste; alperrik dala eurai itandutea, eurak txikitxoak, gaz-teegiak dirala-ta; baña beste nausi orreik, jaun orrek daukazan orreik, larri-larri nire aita itoten ikusiak dirala, ta orreiri itanduteko aren barri». Beingoan igarri eutsan etxeko jaunakprailleari nondik nora ebillen, eta arrain nausietatik emonez, ba-diñotso: «Eutsiz, ba, ta itandu eurori, iya zure aitaren barririk ateraten deutsezun».

Ipuiñ onek eta gure Pernando-ren «Erretorearen amorraiak» guna bat bera dauke. Amezketarra-ri, bere urteurrenean, guraso zaar barria emon bear deutsagu: oraingoan, euskeldun-izenekoa eta izen ospetsua gañera. Zeiñ?, eta Garibai.

BERTSOLARITZA PERNANDO AMEZKETARRAREN GARAIAN*

Agur, agur t'erdi, bertsolari jaunak. Agur biotzez emengo aita nagusi ta praille guztien izenean. Ezin det esan nolako atsegiñez ikusten zaituztegun emen.

Beñola, zezenak jokatzeko zaletasun amorratuagoa zan erri batean, moja-etxe batera eraman omen zituzten zezenak. Mojak berak beren komentutik irtetzerik ezta, barruko patioen batera sartu omen zizkieten, an barruan jokatu ta mojek ikusi zitzaten. Moja batzuek olako erreztasunik izan baldin bazuten zezen-jokoak ikusteko, Euskalerriko prailleok zergatik ez genduen izan bear eskubiderik, bertsolariak gurera ekarri ta beron gaitasunak geron etxe-barruan ikusiz atsegiñ-alditxo bat izateko?

Zuek gaurkoan aukera atsegingarri au eman diguzute. Agur eta eskerrik asko guztioi.

Pernando Amezketarraren urteurrenean gaude. Aurten berreun urte bera jayo zala. Omen aundiko bertsolaria bera. Nire itzalditxo au aren omenezkoa izango da. Bertsolaritza Pernando Amezketarraren egunetan, Amezketan asi ta Markiña-alde ontaraño: orra nik zuei nolabait azaldu nai dizuedan gaia.

Egun gogoangarriak bertsolaritzarentzat Pernando amezketarrarenak. Orduantxe azaldu ziran bertsolariak lenbiziko aldiz liburuetara, istoriaren argitara. «Euskara, ialgi adi kanpora, ialgi adi plazara, habil mundu guzira», esan zion antziña Etxepare argiak euskerari. Berdintsu esan zuen Pernandoren egunetan Euskalerriko beste seme ta bertso-idazle argi batek: «Bertsolaritza, agertu adi mundura, erakutsi ire burua mundu guztiaren aurrera, batere lotsatu gabe». Iztueta izan genduen oyu ori bota zuena. Artean, garai bereko Zamakola kendu ezkerro, gutxi iritiz edo, iñork etzuan Euskalerriko oitura jator au aintzat artu ez aipatu ere.

Iztuetak liburu eder bi egin zituen: «Gipuzkoako kondaira», bata; «Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira», bestea. Bi liburu oietan aipatzen eta goresten du

* Egan 29 (1969) 3-24. Markiña'n, 1967n, bertsolari egunean egiñiko iñzaldia.

bertsolaritza, gogorik beroenaz alere, eta bertan ematen du Pemando Amezketarraren berri. Goazen, bada, liburu oietara eta ikusi dezagun zer dioten bertsolaritzaz, lenbizi, eta Pemandoz, urrena; gero, Euskalerrri guztian zear, ibillaldi bat egingo degu, Per-nando'ren egunetan bertsolaritzak zer-nolako aztarrenak utzi zituen ikusteko.

Sartu gaiten, besterik gabe, sail onetan eta aztertu dezagun nolako aurpegia erakusten digun bertsolaritzak Iztuetaren liburuetan. Argi argiro erakutsiko dizkigute aren itzak bi gauza: alegia, bertsolaritza gauza zaarra dala gure artean, eta Iztuetaren garaian bizi bizirik zirauala. Berari entzutea besterik ez daukagu:

«Gipuzkoatarrak denbora guztietan eta beti izan dute itz neurtuak supituan eta ongi kantatzeko eresia eta jakinduri aundia. Non ezagutu dirade, bada, eskolatu gabeko mutillen artean, plaza agirikoetara irtenik, ain apustu baliosoak jokutzen, nola gure errietan?» Onela dio Gipuzkoako dantzei buruzko liburuan. Eta Gipuzkoako kondaira-liburuan berdintsu dio: «Beste (jostaketa oiturazko) bat badute jatorriz gipuzkoatarrak guztiz miraritsu eta txit atsegingarria...: itz neurtuak kantuz zortzikoan edo beste edozein neurritan supituan aotik aora alkarrri ematea, antziña antziñako denbora doatsu aetan Arkadiar ospatsuak egin oi zuten bezelaxen. Oitura gogoangarri onek irauten du Gipuzkoan gaurko egunean ere, bere sasoirik oberenean bezin irme eta sendoki.»

Iztuetak ba daki bertsotarako erreztasuna ta gaitasun au antziñako erri batzuek ere izan zutela, batez ere greziatarrek. Ona nola dion: «Birjiliok esaten du bere artzai-jolas edo eglogaetako batean nola bein batez ari ziraden Menalkas eta Dametas, apustu egiñik, itz neurtuetan jokutzen, Palemon erabakitzaile zutela.» Batak eta besteak ezin obekiago egin zuten beren lana ta Palemonek ezin izan zuan erabaki zein zan geiago. Biak berdiñean utzi zituen.

Greziatarrek-eta galdu zuten oitura ori gure artean bizirik degu. Eta ez degu aintzat artu. Onek min ematen dio Iztuetari. Birjiliok greziatarren oitura ori bere bertsoekin munduan zear zabaldu ta ezaguerazi zuen bezala, nola ez ote degu orain artean Euskalerrrian izan dan gure bertsolarien oitura ta trebetasuna goratzeko kantaririk? Olakorik ez da gertatu atzerri askotan. «Euskalerriaz kanpora (ona Iztuetaren itzak), beste tokietan ezagutzen ez diran oitura gogoangarri oek baldin balirake Frantziakoak, Inglaterrakoak, Turkiakoak edo Akelarrekoak, or ibiliko lirake paperetan edergarri askorekin apaindurik munduz mundu gauza aundizat txit». (Kondaira, 218).

Ezin du onez ikusi euskaldunek onetan duten zabarkeria. Gure bertsolaritza erdaldunek aintzat ez artzea ez da arritzekoa. Baña euskaldunek zer egin dute emen? «Greziatarrak denbora batean zuten bezelako gogoia Gipuzkoatarrak balute beren oitura jatorrizkoak jasotzeko, ikusiko lirake gorengo mallara igoak, mundu guziak begirune alaiarekin begiratzen diezatela».

Zaldibitar ospetsu onentzat, gure bertsolarien esaera egoki ta ateraldi zorrotzak baldin zabaldu ta ezagutu balira, Quevedo ta beste antzeko askoren aurrean ez zuten lotsarik izango. Baña, euskaldunen artean ere askok, aintzat artu bearrean, bertsolaritza azaletik bederen ezagutzen ez dutelako, iguin dute, ostikoperatu nai lukete. Olakoak, gure idazlearentzat, txoriburu puztuak dira. Beren buruak jakintsu ta aundi egin nai dituzte; baña, orixe, txoriburu puztuak besterik ez dira.

Izan ere, nortzuk dira berok gure bertsolarien lepotik farra egiteko, gero? Entzun berriz Iztuetaren itzak: «Gipuzkoako itz-neurtularien artean badirade mutillak, eskolatu gabekoak izan arren, bularrarekin batean edoski edo mamatu zuten beren izkuntza gozoan eta beren bizimoduari dagokion edozein izkairen gañean, arin asko ixilduko lituzketenak jakinduriaren gordeleku guziak gañez egiteraño beteak dauzkatela uste duten orietakoak. Zenbat eta zenbat bider egondu ez naiz, goragaleak emanik» bertsolarien lepotik farra egiten zutenak, ikustean? (Dantzak, 188)

Bertsolarien kontrako gaizki esale guztientzat dauka Iztuetak bere erantzun egoia. Gaitzik gabekotzat, euskaldunen atsegingarritzat dauka berak bertsolaritza, eta bai ikasbiderik ederrenak emateko eskola egokienetakotzat ere. Entzun ditzagun bere itzak: «Denbora doatsu aetako gurasoak beren seme-alaba ta ondorengoai lege zuzen bidezkoak erakutsi eta gogoan eukierazteko izkriburik etzutelako asmatua da... Nork ez daki, bada, bertsoetan ederki apaindurik jarten dan edozein izpide lasterrago ikasi eta luzarago bizi izaten dala? Egiazko ispillu au begien aurrean dakusgu euskaldunak». (Kondaira, 216).

Ezin gentzake ukatu: bertsolariak zor aunditan daude Iztuetaren alde; zor aunditan gaude euskaldun guztiok, ain azkarki ta kementsu bertsolaritzaaren alde burua atera zuelako. Berari zor dio euskaldun bertsolariak munduaren aurrean arpegia gorarik agertzea. Bera izan du goratzailerik zintzo ta beroena. Eta aipatu ditugun itzetatik atera dezakegunez eta gai au biribiltzeko, esan dezagun gaiñera Iztueta'rentzat bertsolaritza bi modutako dala: alegia, plazan edo agerian buruz buru naiz bi bitara egiten zana, eta bestea, bertso berri-paparetan agertzen dana, gai bat edo gertaeraren bat bertso-gaitzat arturik.

Goazen orain, berau erakusle degula, Pemando Amezketarraren bizitzara ta aztertu dezagun bere aldiko bertsolarietaz zer berri zeatzagorik ematen digun. Asi dezagun orrekin Amezketan asi ta Markiñaraño egin bear begun ibillaldia.

Amezketan zan, Iztuetak dionez, aldi artan bertsolarietaz girorik eder eta beroena. Beste erri batzuetan ba zan alkate kaxkabelik (olaxe deitzen die berak), bertso-saioak debekatuta zeuzkanik. Amezketan, ez; «Amezketan zillegi da kantuz aritzea, eta beragatik irteten dirade andik ainbete itz-neurtulari, eta ain egokiak».

Iru aldiz aipatzen ditu Iztuetak bertsolarien saio ta apustuak, eta iruretan Pemando Amezketarra tarteko dala. Lenengo aldiz, Billabonan. Ona nola: «Datorren otsaillean izango dira ogeita bi urte, Billabonako plazan jokatu zituztela itz-neurtu edo bertsoetan bosna onza urre, lendanaz apustua egiñik, Zabala Amezketakoak eta Txabalategi Emanikoak». Zeingeiagoka orretarako Iztueta eraman nai izan zuten juez edo erabakitzaile; baña gexorik arkitzen zalako, aren ordez Pernando eraman zuen Zabalak epaimairako. Juezek etzuten irabazlerik eman; biak berdiñean utzi zituzten, beren erabakia bertsoetan ematen zutela. Oso ezagunak dira erabaki orretako bertsoak. Pernandorenak onela zuten azkena:

*Utzi bear ditugu
biak berdin berdin,
Gipuzkoa guziak
ar dezan atsegin.*

Milla ta zortzireungarren urtean Tolosan degu Pernando, Zabala lagun duala, Txabalategi eta Altamira Tolosarrarekin bertsotan jokatzeko. Arratsalde osoan jardun omen zuten ixiltzeke kantari, aditzaileak ez titan zituztela. Etzan irabazlerik izan emen ere. Bertsolariak onak, baña erabakitzaileek etzuten nonbait beren iritzia ariñegi eman nai. Oraingo juezek itxuraz ariñago jokutzen dute; beingoan eman nai dute epaia; berbertan erabaki nai dute auzia, nor dan nagusi ta nori eman txapela. Garai artan zorrotzago edo estuago zebiltzen.

Beste bein Azpeitin zan bertso-jokoa. «Orain ogeita lau urte, San Sebastian egunarekin eraman zuten Pemando Amezketarra Azpeitiko errira, erri bereko batekin itz neurtuetan jokatzera; baña etzizaion agertu kontra aritzallerik».

Ordukoak ditugu Pernandoren bertso auk:

*«Lagunak arturikan,
guzizko tirrian,
nere billa enbillen
bart gau erdian;
erronkak botatuaz
prestuezkorian,
ez dik ongi ematen
nork bere errian;
egunazko argian
euskera garbian
jokatu nai nian,
baña ez nauk ifiñi
iñon premian.»*

Iztuetak emen dionez, ongi errotua zegoan onelako bertsoak, alegia, zortzi edo bederatzi puntukoak botatzeko oitura. Bertso-borroka oiek oso zabaldurik omen zeuden bai Gipuzkoan, eta bai Euskalerrri osoan. Pemandoren bizitzan bertsolari-izen asko ageri dira, bederatzi puntuko bere bertso auk erakusten duten bezela:

*«Ametza omen dabil
aide onarekin
nora nai joango dala
bere Migelekin,
Otobezino jauna
arturik berekin,
laugarrena daukate
Tolosan arakin.
Ni Zabalarekin,
Martin Amorexkin,
Prantzisko Irabazin
arturik gerekin;
orain gogo duanak
lanari ekin.»*

Amezketan erretore jauna ere bertsolaria zuten. Jakiñak dira bein, Pernando pazko-txartela atera naiez etorri zitzaionean, apaiz urari bota zizkion bertsoak:

*«Esan bear didazu
istante batean,
liburutik txartela
nik atera artean,
nola siñisten dezun
zuk zere artean
daudela iru persona
Jaungoiko batean».*

Eta Pernandoren erantzuna:

*«Nola siñisten dedan
arrazoiarekin
orain esango diot
sagartxo batekin
usai ta saborea
kolorearekin,
orra iru jenero
gauza bat batekin».*

Eta ni nago Amezketako erretora ez ote dan bertso-paperak, bertso berri-izenez, iñoizko lenengoz atera zituena. Iñork ba ote daki noiztik onakoak diran olako paperak? Nik, beintzat, ezagutzen ditut batzuk, Zumalakarregiren azken egunetakoak, Amezketako erretorak jarriak eta titulu au daramate:

*Bertso berriak,
egia garbiak,
idikitzeko begiak,
Amezketako erretore
jaunak jarriak.*

Orduko gerrateko gaia darabilte, eta, orraitio, bertso bete ta apaiñetan.

Pernandoren gertaera ta ateraldiak guztiok dakizkizute nik bezin ongi, ain dira ezagunak. Orregaitik ez det gai onetan luzaroago ekingo.

Baña, Pernandoren ingurutik kanpo, beste Euskalerrietan ez ote da bertsolari-tzaren lorratzik, aztarrenik? Baietz erantzun bear galdera oni. Ez digute paperek ematen beste bertso-guduen edo apostuen berririk, baña bada bertsolaritasunaren aztama naiko argirik. Ezer gogoangarririk iñon gertatzen bazan, an izango zan bertsolarien bat gertaera ori jaso ta bertsoan jantzirik noranai zabaltzeko.

Amezqueta-aldea utzi ta goazen, beraz, Euskalerra osoan bama olako bertso edo bertso-aztarnen billa. Eta asi gaiten mugaz andiko euskaldunetatik. Ango bertso-

-mordo aundia ezaguerazi zigun, esaterako, Julio Urkijo jaunak; guziak dira Pemando jayo ta urrengo urtetik gorakoak. Guztiek dute bertso berrien kutsua. Bertso-mordo oietan zaarrena, Donibaneko euskara jorratzekoa. Donibandarrak ez ziran ixilik gel-ditu eta bertsoz eman zuten berak ere erantzuna. Bertsosail aietako batek «Donostiar batzuek emigrazioan» du izena, ta milla zazpireun eta larogeta amabosgarrenkoa da.

Frantziako matxinada edo erreboluzioa sortu zanean, orduko ikuskizun negar-garriek askori eman zieten ango euskaldunen artean bertso tarako gaia. Mugaz andiko euskaldunek sarritan eman zituzten, bertsoan gudulekuetara joatera bearturik, an ikusi zituzten neke ta naigabeak. Olako bertso jakingarri batzuk eman zizkigun *Mogel-ek bere Peru Abarka-n*:

*Gerlara ethorri ginean
gure bizien perilean;
gure agintariak frantzes:
Alons, chasseurs, avancez.
Guk euskaraz erantzutea:
Diabriak eramán bazinzez.
Eguberri eguna,
eguna bai triste;
ez genduan guk beintzat
halakorik uste;
mezaren entzuteko
libertate gabe,
fusilak arturikan
zentinelan gaude.*

Azkuek ere jaso zuen orduko kanta bat, Baigorritarrena, Napoleonen egunetakoa. Gauza jakiña da Frantziako erreboluzio orrek aste ta illak izendatzeko itz berriak asmatu zituena, eta Baigorritarren bertso oietan ongi ageri da orixe.

*Fruitidorren ogeita laugarrenian,
Erroimendiko bortian,
chaussurrek eta grenadierrek
proyeta artu gunian,
etsaiaren atakatzeko
biharamon goizian.*

Atake orretan frantzesen indarrek euskaldun bat zeukaten agintari, gero Harizpe marexala izango zana.

Haristoi apaiz jakinsuak ere bertso-pilla aundia argitaratu zigun. Frantziako matxinada orren aldikoak dira, matxinadaren kontrakoak, jakiña. Batek «Nazioneko besta» darama izentzat. Gobemuak lege berrien mende jartzeko agindu ta geienek ezezkoan egon. Mende jarri ziranei «juramentatuak» deitzen zieten. Apaiz euskaldunik gutxi izan zan olakorik. Bat, Diharasarri abizenez. Gure bertsolari batek gogor

artu zuen ta eztenkada galantak bota zizkion «artzai ardiñale» zalako urari. Laster damutan sartu ta besteen bide onera itzuli omen zan.

Entzun nolako bertsoak atera zizkion:

*Atzai ardiñalea dantzari,
euskaldunen arrigarri,
Jainkoaren kontra da jarri,
kontra dio jazarri.
Haren kontra du bihurtu
harek eman dohaina,
ardi jatera ohartu
artaldeko artzaina.*

*Utzazu, sinhes nezazu,
hartu duzun lana,
ez baduzu goan nahi
galtxagorrigana,
tiratzera buztana...*

*Iharasarri non da?
Hura ere on da
egiteko arronda
zuekin batean
karrika gainean.
Jauri, Kattalin,
jauri, Bertilin,
dantza orok berdin
galtxagorrirekin.*

Galtxagorrirekin dantzan, ari buztanetik tiraka inpernuan, etzan azken atsegiña, ez, bertsolariak apaiz bide galduko urari opa ziona. Baña ez dezagun uste benetan ari zanik, irriz zebillen. Eta ikusi degunez, Inarasarri onek azken ona izan zuen.

Ona mugaz aruzko bertsolaritzaren ager garri puska gutxi batzuk. Igaro gaiten orain mugaz onuzko aldera. Iztuetaren bidez dakigunaz gainera, bai Gipuzkoan ta bai Nafarroan arkitu genezazke orduko bertso-puzkak bederen. Or ditugu Aita Dostiren kantutegian eta Azkuerenean zenbait ale.

Batek azken-juizioa aipatzen du ta ikusi zein urtetakoa dan:

*Milla zortzireun eta
gainera bost urte,
Kristo gizon in zala
liburuak diote.
Abertitzera nua
zenbait inorante
azken juiziua
ez dala aparte.*

Makiña bat istillu gorri izan zan egun aietan emen, frantzesak zirala ta ez zirala; eta gure bertsolariak ezin egon ikusten zituzten gertaera negargarri asko beren bertsoetan jaso ta gogoratu gabe.

*Españian Herodes eta
Frantzian Bonaparte,
gerla orrek iraun dezake
oriek biak hil arte.
Duenari edek eta
eztuenari galde,
naski izanen gaituk
kornadorik gabe.*

Amorrua biotzean eta arpegia lotsaz gorri, ola daude euskaldunak leku askotan frantzesen mendean. Nolako amorru-lotsaria darion, esaterako, onako kantu oni:

*Nik ez dut iñorentzat
gauza gaitzik esanen.
Pransesaren mendean
umil gaude emen.
Ark Jesus dionean,
guk erantzun amen.
Baiñan ez dakit gero
zer etorriko den.*

*Españian sartu da
milloi bat gizona,
billatzen ez da erre
alako persona.
Geiena erejea, guzia ladrona;
berrogei milla ezta
bizirik egona.*

Olaxe zerbait, irrigarri naiz negargarri, gertatu ala, gure bertsolarien aotan laster egiten da bertso ta kantagai. Napoleonen sasi-ezkontza ere ez zan gelditu bere bertsorik gabe.

*Bonapartek utzi du
bere emaztia,
zarra enpleatuta
artu du gaztia.
Gogoak eman dio
mundua nastia:
Katolikuen gauzak
orrela ezta.*

Orrela ziarduten bertsolariak Gipuzko-Naparroa aldean. Artu dezagun orain Bizkai-alderako bidea. Bilbo, Durango ta Markiña agertuko zaizkigu emen bertsolurrik aberatsenak. Entzute aundia izan zuten Durango-aldean ango zidargilleak, «los plateros de Durango», De la Fuente abizenez. J. A. Zamakola, Dimako semeak, eman zuen lenengo aldiz aien berri, eta Iztuetak baiño lenago, bertsolarien berri ere. Arriurik gelditu zan bein bertsolari batzuei entzuten; aien esaera sakon eta bapateko ateraldi zorrotzak txunditurik utzi zuten. Durangoko zidargilleak Zamakola jaio zan

auzoan bertan, Indusin, izan ziran 1794'garren urtean. An ezagutu ta entzun ote zituen? Eztakigu. Nolanai ere, Euskalerrri guztian jairik jai zebiltzala esaten digu, beren soñu, kanta ta bertsoekin. Eta or gelditu dira, errian sarturik, aien bertso ta kanta bat baiño geiago. Esaterako, «Ator, ator, mutil etxera». Azkuen kantutegiak baditu beste biren bat anai aienak.

Bilbon. Urtero agertzen ziran emen gabon-kanta berriak, eta askok bertso berrien usai ta tankera daramate.

Milla zazpireun eta larogeta amalaugarrenean zan. Mugatik aurrera zetozen frantzesak, su ta ke, dana aurrean zekartela. Gabon artan onelako gabon-kantak eman zituzten Bilbon:

*Baña ez da aztutzeko
frantzesen gerria,
galduba izan eztedin
daukagun fedia.
Beintzat gomutan dauko
Bilboko uriak,
lagunduten deustela
bizkaitar guztiak.*

*Bakotxak egiten dau
emen al dabena,
jakiñik dala gerra
Jaunak nai dabena.
Fraille ta abadiak
bestekaz batera
jagi dira pozarren
armak artutera.*

Ogeitabost urte geroago, Bilboko gabon-kanta berberak ots berriak zabaltzen dituzte; berria da artzen duten bidea, euskaldunen antziñateko gogo sendoa piztu ta indartu bearrez.

Ahapaldi batzuek esango digute nola:

*Nun dogu bizkaitarrak
orduho fedia,
nun geure garbitasun
eta siñistia?
Orain argaldu dira
alako biotzak,
gizonak emeturik
dirudie motzak.*

*Baña ondo bestera
da orain jazoten,
gau santu andi onek
dira igaroten
taberna-zokuetan
jokuan sarturik,
eta duaz etxera
ondo mozkorturik.*

*Lotsatu biar geunke
gomutaz bakarrik
ez daguala orain
alako gizonik.
Biztu geure fedia,
biotza sendotu,
ta gauza guztietan
Jainkua billatu.*

*Etixian eldu eta
an bere ez bakerik,
emazte ta umiak
igesi etxerik.
Oraingo gabonetan
au da ikusten dana,
onetara eldu da
gure itxumena...*

*Karidadia dago
guztiz otziturik,
ondamuba ugari,
iñun ez bakerik.
Jesusen eskolia
ondo jaku aztu,
biderik nasaiena
nai dogu jarraitu.
Gure asaba zarrak
biztu al baleitez,
semetzat ezagutu
naiko ez gendukez...*

Bizkaiko andra baten izenpean agertuak dira bertso auek, milla zortzireun eta emeretzigarren urtean. Beroien egillea oker aundirik esateko bildurrik gabe izendatu genezake: Bizenta Mogel. Mogeltarren euskera-usaia ba dute, izan ere.

Eta Mogeltarren izenak jarten gaitu gure ibiltaldi onen azkenean gaur gauden eta biotza zabalik artu gaituen Markiña-aldean, aspaldietako euskal-kabi bero onetan. Emen aurkituko degu Pemando Amezketarraren egunetan Bizkaiko bertso-iturririk garbiena, Mogeltarrak zirala, noski, indar-emaile.

Len ikusi degunez, Mogeltarrik aundienak, *Peru Abarka* eman zigunak, liburu balio aundiko orretan, mugaz andiko bertso berri batzuk sartu ta utzi zizkigun. Baña ezta ori dana; orrez gaiñera, liburu bikain orretan bertsolari bat bizi bizirik erakusten digu, bertso-kantuan diarduala. Peru ta Maisu Juanek elkarrekin beti bezala ziarduten baten, orra non entzuten duten agure zaar bat kantari. Maisu Juanek ixiltzeko esaten dio Peru'ri bertso aiek obeto entzutearren, laster damutuko bazan ere. Esan ere, ona zer zion agure kantariak, Maisu Juanen lotsagarri:

*Egun batean gaba eginda
niñoian neure etxera;
larrapastadatzar bat eginda
jo neban beeko bidera.*

*Jaso nenduben danau mankauta
bizkar-azurra ausirik,
miñaren miñaz katu guztia
beinguan niri igarorik.*

*Ekarri eusten egunsentian
Maisu Juan barberuba;
gurago neban neure albu
euki gaizkin diabruba.*

*Borreru arek birau nenduban
albo bateti bestera.*

*Egon biar dau onek, ziñuan,
begira gaur bazterrera.*

*Asi zan gero erremientak
bere zizkuti etaten,
otso-biotzaz barre eginda
an egozanai esaten:*

*«Gangrenatzar bat jaioko jako
ondo ezpada sajetan,
ez diralako olango miñak
bedartxuakaz osetan».*

*Jaurtigi neutsan ostikadi
ezarri neban lurrera,
sartu ez zedin Maisu Juane
nire etxian oster.*

*Maisu borrreru juan zanian,
ekarri eusten bertati
andratxu on ta errukiorra
auzoko erri bateti.*

*Pasmo-bederrak biarko dira
eragozteko pasmua;
orma-bedarrak, gozatuteko
banatu jatzun albua.*

*Azur ta zauri guzti guztiak
zituban kontuz ikusi;
arpegi sona baketsubagaz
esan eustan onan neuri:*

*Egun gitxitan zara ikusiko
indar galantak arturik,
eta zeure azur banatubetan
inkaren apur bagarik.*

*«Txomin gaixua, ordu onian
bota dozu barberuba,
ikusi gura ezpazenduban
lurrian bertan inpernuba».*

*Esan ta egin, aste barruban
urten neban neuk etxeti,
gerri zerdenaz, makilla бага,
jan gosiagaz besteti.*

Eztago esan bearrik ez zutela sortu itz oiek giro on onik Barberuaren barruan, baña egia aitortu zuen: «Nago ikaratuta zelan gizon ordi batek atera leikezan alango bertsuak». Ederki esana. Baña guk, ez Maisu Juan'i, *Peru Abarka* asmatu zuenari berari ezarri bear diogu esaera ori, eta au dala-ta, beste gabe, Mogel'ek bere lekua merezi du, Zamakola ta Izueta'rekin batean, gure bertsolaritza aintzat artu ta eza-guerazi dutenen artean. Ala nik uste.

Markiña pelotari-erri da, eta ala zan guk aztertu nai ditugun aldietan ere. Eta gai au erabilli duten bertsorik ere bada, garai aietakorik. Puzkatxo bat besterik ez dizuet aitatu. Astarloarena dala dirudi:

*Aupadatu zenduan,
au zorakeria,
zertara-ta pelotan
Markiña guztia
Aupada ero orrek,
Motriko, esazu,
eztitu bada beti
Markiñak auzpazu?*

Baña zertako nekatu or nonbaiteko zokoren baten galduta dauden bertso-puzkarik biltzen? Markiñan, or etxe onen aurrean ditugu, arrian idatzirik, orduko bertso batzuk, bai, or aurreko plazako iturrian arrizko letraz jarrita. Mogeltarren batenak omen dira. Ona emen:

*Karlos irugarrena
Bizkaiko Jaun dala,
Markiñako uriak
egin nau onela
Ugarteko axpeetan
daukal jatorria,*

*ubide sakonetan
ekarri ugaria.
Ur au ederra dala
esanik aituak,
alan arindu dira
neke ta kastuak.*

Ez ote da, badá, orduko bertsolari-giroa naiko argi azaldurik gelditu Markiñako iturri orretako bertsoetan? Bertsoetan idatzitako oroitarriek ez da edonon arkitzen.

Goazen aurrera; Cadiz'ko Konstituzioa sortu zanez geroko urteetan sartu gaiten. Milla zortzireun eta ogeigarrenean arma-otsak entzun ziran gure mendietan. Andaluzia-aldetik zetorren ekaitza. Agintari-nai berriak Cadiz'ko Konstituzio ori jarri nai zuten lege alde guztietan, Euskalerrian ere bai. Gure artean geienek arriskuan ikusi zituzten bai foruak eta bai erlijioa ere. Eta mendi-mutillaz bete ziran gure erriak. Izen ori ematen zieten. Iru urte geroago etorri ziran gauzak lenera.

Gure bertsolariak ba zuten zeri eldu ta urte aietako gertakariak jaso gabe ez ziran geldituko. Beren bertsoetan, orratzakin josita bezela, gelditu dira gerrate artako gizon gallenen izen eta ezizen asko: Artzaia, Txapalangarra, Mina, Ansotegi, Longa ta abar. Azkue aundiaren kantutegian irakurri litezke bat baiño geiago.

Beste asko alde bat utzita Markiñan asmatu ziran bertso-sail bi besterik ez dizuet aitatu nai emen, nere asmoa dan bezela, Markiñaldeko mugetati, ez irtetzearren.

Ain zuzen, Pemando Amezetarra il zan urtean, alegia, 1823'ganean, aipatu degun gerratea amaitu zanean, bertso-paper batzuk zabaldu ziran Markiñan ateratako bertso batzuekin, orduko gertaeren berri ematen zutela.

Emen dituzte ahapaldi batzuk:

*Kinta ta miliziak
lantzian ta sarri,
ez deusku euskaldunoi
lan gitxi ezarri.
Agur gure foruak,
agur noblezia,
koldarturik balego
euskaldun jentia.*

*Baña damatxu arro
ta bere laironak,
Napoleontar malmutz
ondo ezagunak:
lenago ler egingo
dozube guztiok
guri ezarri baiño
zuben buztarriok.*

*Euskaldun garbi, sendo,
prestu ta nobliak
gorde gura ditubez
asaben legiak.
Mutillak orretako
armetara dira;
zarrak bere nai leuke,
gaztiak balira.*

*Katalan da naparrak,
bai ta arabarrak
ditugu zorionez
beti geuretarrak;
beste probintzietan
gure bando asko
egunik egunera
dozuz ikusiko.*

*Ai, liberal tristiak,
egin dau zubenak,
laster dozuz ikusi
betiko azkenak!
Laironak lutuz dagoz,
damia gaixorik;
ez dago osatzeko
iñun medikurik.*

*Prestau egizu laster
bere enterrua,
egin bere daiala
gaur testamentua...
Agur, bada, betiko,
liberal arrua,
agur lairon ta dama
agoniakua.*

*Cadiztik urten eta
biurtu bertara,
zuen azur ustelak
an obitutera.*

Gerratea bein amaitu zanean eta bakea etorri, jai aundiak antolatu ziran Markiñan. Eta jai orretan, *dami* 'xu ori, Cadiz'ko Konstituzioaren irudia, txorimalo jantzirik, erriko plazaren erdian erre zuten. Ona, jai ori ta jai ortako gorabeera batzuk beste bertso-paper batek nola jaso ta gogoratzen dizkigun:

*Nozbait biar genduzan
biotzak askatu,
lengo illuntasunak
pozagaz argitu.
Katigarior gogor
iru urtekua,
ez da señaile baga
alan istekua.*

*Neure adiskide on
alkarri eutsiak,
igaro baditugu
garratz ta gaziak,
alkarregaz igaro
daiguzan gozuak;
asi bada iminten
mai eta basuak.*

*Ez izanik Markiñan
boluntariorik,
Xemein ta Etxebarrin
lege barrikorik,
orregaitik guztiok
gaur umore onik
gagoz ez dogulako
txanbelan usaiñik.*

*Emen ikusten dogu,
ara, irurok bat;
alan alkartuterik
nun eta zenbat?
Irurogetaz lagun
merindadekuak,
abade eta fraile,
justiziakuak.*

*Lelengo Te Deuna,
ostean mezia,
soñu egokiakaz
izan da guztia.
San Martingo ermita
ondo entzunian,
maiatzaren ogei ta
zazpigarrenian.*

*Egun alegría zan
San Martin buruan
milla sortzireun eta
ogei ta iruan.
Kukubak berak bere
aurtengo soñuban
zerbait biarko zana
esan gura euban.*

*Txupin ta eskopeta
ondo garbituak,
guztiak dira emen
ondo orniduak.
Euren trumoe latzak
gaituz gaur poztuten,
bizkaitarren garaitzak
deuskuz gogoratzen.*

*Bolandera argi ta
goraberakuak,
izarren irudira
polbora-asmuak
Markiñan egin dira,
ez da au txantxia,
guztiok dakigula
fabrika-etxia...*

*Jana ta edana
guztia ugari,
baña zenbat al eban
bakotxak igarri;
ez da albo-alboka
iñortxo ikusi;
zelan olgau biar dan
ara nun ikasi...*

*Damaren irudian
Konstituziñua
ekarri izan dogu
zorigaiztokua.
Orregaitik Payasok
gure damiari
bota eutsan bertsua
txito arrigarri:
A, zital galdukua,
euk dona agiri
zelangua al azan
erdi sorgiñ ori...*

*Txapalangarra bere
mutiltxu samurra,
astuak mutiltzeko
ez txito makurra.
Bein eldu bazan bere,
dogu ezaguna:
traskiladoria zan
bere aitajauna.*

*Iriarte, Soroa,
biak ze mutillak!
esanik dirianok
giñala serbillak.
Odonell irugarren
gizontxu biguna:
ondo txupau euskuben
mamin eta guna.*

*Kastañon komandante
Neronen lagunak
erakutsi euskuzan
larriak egunak.*

*Preso eruan euskun
geure markes jauna,
baita Bikariua
dotore entzuna...*

*Nun ete dira orain
komandante jaunak,
guztioi egiteko
pozik eskumunak?
Damuz ezin ginaindez
euren billa asi,
beti dabiltzelako
serbillen igesi.*

*Sabelak estututa,
ezpanak sikurik
dabiltz laironak orain
buru beraturik;
poltsak urritu eta
ez adiskiderik,
iñok artu nai ez-ta
ezetan lotsarik.*

*Txapalangarrak dauka
orain portunia,
astakuak mutiltzen
ondo jakitia...*

(Damatxuari)

*Zuk bere biar dozu
atseginsaria,
izan zarialako
eurak imiñia.
Zer emongo al jatzun
bazkari ostian
erabagiten dogu
guztien artian.
Ao batezkua da,
au arrigarria:
tatarras erabilli,
azkenian erre,
guztiak egiteko
algara ta barre.*

Bertsolariai ezker dakizkigu egun artako gora beera eta beste asko geiago. Olaxe amaitu zan jai ura ta ementxe eman nai diot nik ere azkena nere itzalditxo oni. Barkatu, bertsolari jaunak, geiegitxo luzatu baldin bada eragin dizuedan ibillaldia. Ez al zaitzue izan gogaikarri. Barkatu, batez ere, Markiña-aldean geitxoago luzatu izana. Markiñan bertan gauden ezker, ortik barkagarriago naizelakoan nago ni. Ez det, nolana ere, zuen aurrera eztabaidako gauzarik ekarri, zerbait mardulagorik baizik. Pemando Amezketarraren garaiko bertsolaritzaren aztarna batzuk bildu eta orduko bertso-giroaren berri emateko zuen aurrera ekarri nai izan ditut; ez da besterik izan nere asmoa. Izan bedi Pernandoren oroigarri eta noznaiko gure bertsolarien omenez.

Orain dala berrogei urte inguru, Pemando il zaneko eungarren urtea zala-ta, berau jaio zan etxean onako bertso auek jarri zituzten:

*Pernando,
Amezketako bertsolari,
adimenez argi,
ezpañetan irri,
urkoari zirri,
jendearen jostagarri,
ibilli zan erriz erri.*

Orra zuen bidea, zuen egitekoa: ibilli zaitezte, zoazte erriz erri, bein ziri bein irri, eta beti erriaren maisu egiñik, euskalduntasunari eusten, euskalduntasuna erein ta zabaltzen. Zuok zaituztegu gure erri-literaturaren eredu bikain, gure izaeraren ispillurik garbienetakoa. Zaitu ezazute, landu zuen alor emankor au. Eman da zabaldu, bai, munduan frutua. Zuen aurrekoen bideetatik, ekin eta jarrai.

MATTIN BERTSOLARIA NEGARREZ*

Mattin, Treku goitizenez, joan daneko igande batean euskaldunen omenaldi beroa artu duen bertsolaria; begiak txinpartaz eta ezpainañak irriz, alaitasuna ta umore ona saltzen eta zabaltzen duen gizona; zeñiek ez du onezkero gure artean ezagutzen? Bera dala-ta, berriz, zer ez da esan? Euskaleiriko txoria omen degu, Ahetzeko pospolina, Donostiako tanbolina, eta nik al dakit zer geiago, omenaldi-egunean entzundako lore batzuk besterik ez jasotzearren.

Mattinen alderdirik nabarmenena orixe da, izan ere, alaitasunezkoa. Askok beste alderdirik ez dio ikusiko. Norbaitzuk, bear bada, orixe berori pekatutzat ezarriko diote, esanez: Alaitasunarentzat, irriparrarentzat ba ote da gaur lekurik munduan? Atsekabegarria ez danik erakusten ez digun mundu beltz ontan, nork parrarik egin? Nor azaldu irrikor eta alai, ezeren kezkarik gabeko txori kantari? Olako galderarik egingo du, bai, begi-bakarra danak, munduaren alderdi beltza besterik ikusi ezin duenak.

Mattin ez degu, ez itsu, ez norbaitek uste dezaken begi-bakarra ere; izatearen alderdi argia ta beltza, biak ikusten badaki. Beste bertsolari batek ederki esan duen bezela, Mattin «pozak kantatzen eta penak gordetzen» dakiena da. Ez da nolanaiko jakitea. Ala ere, noiz edo bein, barruko mina, barruko negarra azalera ere agertzen zaio. Gure bertsolari au ez da ez begi-bakarra, ez doñu-bakarra. Negarra ta miña darion bertso-pare bat ekarri nai det lerro oietara gaur. Euskaldunentzat, batez ere guipuzkoarrentzat ezin atsegiñagoak izango diralakoan nago.

Bein, zerbait oso mingarri entzun zion jakintsu usteko norbaiti, Bidasoaz emendiko euskaldun batzuengatik. «Zer ari dituk oiek, euskaldunak dirala-ta? Gu frantzesak gaituk lenbizi. Beste oiek zer dituk, igesi etorriak baizik?» Sekulako miña artu zuen Mattinek olako arrazoiak entzutean. Ezin iretsi zituen. Bein ta berriz aitortuko digu orixe.

* El Diario Vasco [39] (1972, 10467.zenb.) 9.

Ain zuzen, Gipuzko maitea utzi ta mugaz beste aldera joan bearra izan zuen Mattinen aitonak. Karlisten bigarren gerratean gertatua. Beste askori lenago eta orain-tsuago zaien bezela. Anai-arteko gerrate batek bizi-eziña edo alkar artu eziña sortzen duenean, atzerriko bidea artzea izan oi da askotan pake-bide bakarra; garratza, baiña onena. Jakintsu usteko orren zitzada beretzat artu zuen Mattinek, eta, jakiña irriparrrik egiteko gogorik ez zitzaion gelditu. Frantzes zalako orrek, gaiñera, ez euskaldun-tzasunik ez frantzestasuk ez zuen erakutsi. Frantzesak ez ote dituzte beti besoak zabalik, igesleku-billa datozkienei arrera ona ta ostatu anaikorra emateko? Ez ote dute or izan beren arrotasuntxoak? Ez ote da ori gizalegea? Orra frantzes zalako orri Mattinek eman nai zion irakaspena:

Nere aitona Lezon sortua
 (han esaten dute jaio),
 sakramenduak ere han artu,
 komunione ta bataio.
 Karlisten gerla zela merio
 Ahetzera baitzuen io,
 gerizaketa dabilenari
 ondo etorri zor zaio.

Pirene-mendien alde banatan, zaldi-gaiñean bezela, degun erria da Euskalerrria: zati bat alde batera, eta bestea bestera; zaldi oin bi, baiña zaldun batenak biak gaiñean dabilen bi oiñak bezela; Mattinek argiago ikusten du au bere buruan. Alde bateko ta besteko odola darama zaiñetan. Ez da ori beretzat lotsagarri. Bere Gipuzkoako jatorria ez du gorde ta estaldu nai bai arro agertu. Giputzak frantzes asko baiño urkoago, anaiago, beretarrago ditu. Jakintsu usteko orrek ere jakin dezala:

Jakintsu hori mintzo zelarik,
 ni ere han nintzen jalaino!;
 Orduko pena ezin iretsiz
 nigarrez nago oraino.
 Nere arraza zabaltzen baita
 Ahetzetik Lezoraino,
 Gipuzkoar bat nereago dut
 Norteko frantzes bat baino.

Baldin De Gaulle zanak olako aitormenik entzun izan balio Kanadatarren bati, ez zion ez gaizki artuko. Eta nork zer esan bear du, euskaldun batek esan dituenen? Bertso oiek ez dira Ahezta bertsolariak Gipuzkoan kantatuak, giputzen belarri-kilikagarri; baiña omenaldiko egunean Astorian esan balitu, txalorik entzungo zuen, noski.

Orra or Ahezko pospoliñaren beste arpegia, beste doñua. Orra or gure Mattin negarra dariola. Negarra ta asarrea. Oraingoan irriak gorde ta sakon-sakonetik darion negar-aserrez ustu du barrua.

BERTSOLARIEN LENENGO BARRIAK (ZAMAKOLA ARRATIARRAK)*

Bertsolaritza ez da Euskalerrian atzo goizekoa.

Bertsok bapatera atera eta elkarri kantuz botateko oiturea eta orretarako errez-tasuna euskaldunen artean oso antxiñakoa, ia euskerea bera baizen zarra da nonbait. Gaur, alan dalakoan gagoz. Baiña, arritzekoa bada bere, bertsolarien aitamenik ez dogu entzun edo ez dogu irakurri, naiko oraintsurarte, XIXgarren gizaldian sartu arte.

Baziran, bai, azterren batzuk, lorratz batzuk, baiña gauza argi eta garbirik ez.

Andra erostariak.—Antxiña bateko Aitor zalakoaren kontuak buru beroen batek asmautzat euki arren bere, or daukaguz ez ain antxiña-antxiñako andra batzuen izenak, andra erostari edo illetariak. Illeta baten inguruan bapatean asmauta, sekulako eresiak, sekulako bertsok itxi euskuezan, agoz ago errian zabaldu eta gero liburuetan jasota eldu jakuzanak.

Legedietan.—Lege batzuetan bere bada aztarrentxoren bat edo beste. Iñoren lotsagarritzko bertsorik zabaltzea galazota egoan. Au, orraitio, beste leku askotan jazo da eta oitura ori, auzoan zeozer jazo dala-ta bertsok ateratea, ez da bertsolaritza garbi-garbia. Bertsolari ez danak bere, ixilpean burua gordeta, egin leiken gauzea da.

Iztueta.—Bertsolaritzaren ezaupidea, benetako bertsolarien barri zabaltzea, XIXgarren gizalditik onakoa da, erromantikoen egunetakoa.

Aspaldi baten Etxeparek euskereari bota eutsan oiuren antzekoa botaten deutse gizon barri batzuk bertsolaritzari: ator plazera, agertu adi mundura.

* Zer(1978, B.zenb.) 11-12.

Gizon onein artean bat ikusten dogu geien izentauta: J. Iñazio Iztueta, giputza, dantza-maisu eta idazle izen andikoa. Au izan ei zan bertsolariak lenengoz aitatu zituena, bertsolaritza illunpetik atera ebana.

Alan ere, Iztuetari ezer kendu barik, ez daigun aitzu badaukala giputz onek Bizkaian aurrelari bat: J. Antonio Zamakola, arratiarra, Dimako semea, beste Zamakola ospetsu baten anaia.

Iru Zamakola.—Askok ez dabe ezagutzen Zamakola bat baiño: Simon Bernardo, Bilbo aldeko gorabera ta zarraparra batzukaitik oso entzuna egin zana.

Beste bi bere badira, eta bear bada, munduan zear Simon Bemardok baiño izen andiango dauke.

Bata abadea izan zan eta Amerikan, Perun, Arequipa-aldean izen andia itxi dau, an egin eta eragin zituen erriarentzako lanakaitik, eta idatzi zituen liburu batzukaitik.

Bestea lege-gizona eta eskribaua izan zan Madrillen. Ezaguna berau, ez lege-gizon lez bakarrik, bai erri-soñu, erri-dantza eta erri-bertsotzale lez bere. Ortik etorri jakon ospea mundu guztian zabaldu da. Batez bere, musikalarien artean. Euskaldunontzat *Historia de las Naciones Bascas* idatzi eban, iru tomotan.

Ain zuzen, liburu onetan dator bertsolarien eta bertsolaritzaren aitamena, Iztuena-rena baiño urteak lenagokoa. Eta ez aitamen utsa eta otza, beroa eta goramenezkoa baiño.

Durangoko zidargileka.—Zamakola oni zor deutsagu Durangoko anai ospetsuon lenengo berri emotea bere.

Anai bi ziran: Joan Kruz eta Antonio, soiñularia eta bertsolaria bata, eta bestea, dantzaria. Euren arrebata bat lagun ebela, irurak ibiltzen ei ziran erririk erri, bai Bizkaian eta bai inguruko erri askotan, errietako jai-egunak alaitzen. Bear bada, oindiño ez gagoz emen benetako bertsolari-giro baten.

Juan Kruz orrek bere biziko gatza eta piperra ei eukan bertsozintzarako, baiña bapateko bertsozirik botaten ekianik ez dakigu. Zamakolak ez deusku or argi andirik emoten.

Benetako bertsolaritza.—Benetako bertsolaritza, otop otop bertsoak asmatu eta bertsolariak bertsolariagaz batak besteari erantzunez kantari ekitekoa, bi edo iru alderditik erakusten deusku arratiar onek.

Lenengo ta bein, Euskalerriko gauza nabarmen arrigarrizat dauka.

Arrigarrizat dauka eskolarik bape bako gazteak bertsoan ain ederto egitea. Idazten edo irakurten ez dakienak izan arren, baserrimutilok gauza dira gau osoan bertsozko kantuz ixildu barik ekiteko. Eta zelango gatzez eta zelango zorrotasunaz, gero! Jakitunenak bere arriturik isteko moduan.

Ikusgarria izaten ei da euren artean zeingeiagoka biziak ipinten ikustea, ia zeifiek obeto eta luzaroago ekin, emondako gai baten aritik urten barik, bertsoak asmetan, gelditzeko astirik ez daukela.

Erreztasuna.—Zamakolak uste dau euskaldunari bertsozarako erreztasun au euskereak berak emoten deusala. Euskerea berez ei da esanguratsua, gozoa, soiñuz aberatsa, eta orregatik ei da beste izkuntza asko baiño egokiagoa bertsozintzarako.

Bertsotan ekiteko ereak edozein ordutan, edozein egunetan sortu daitezke. Ez bakarrik jaietan, bai lanerako orduetan bere.

Zamakolak bere senide baten etxean entzun ei eban bertso-saiorik zoragarrienetako bat. Eta ondo barruan gelditu jakon gogoan.

Artazuriketan.—Auzoko lagunak etorri jakez artazuriketan laguntzeko. Eta or berotu dira gazte bi, ia zeñiek bertso obeak bota.

Gaia: an artazuriketan batuta dagozanen alderdi onak eta txarrak edo ez ain onak. Gazte batak alde batera eta besteak bestera. Bata asi eta besteak jarraitu.

Zamakola ez tigan dago entzuten eta laster agindu deutso entzule bati luma eta papera ekarri eta dana paperera aldatzeko. Ordu bitik gorako ekitaldia izan da gazte biena. A eizan gatza eta zorrotzatsuna! A entzuleen barre gozatsu egitea! Ez ei zan entzun, bear ez zan eztenkada gogorrik eta iñor minduta gelditzeko ezer, gaiñera.

Etorri-barriari.—Bertsotarako era ona izaten ei zan auzotarren bat, urte luzeetan erbestean bizi ta gero, etxera etorten zanean bere. Bizkaitarren artean, orduan, oiturea ei zan auzoko guztiak jai egitea. Etorribarriari ondo etorririk biotzetikoena egin bear ei jakon. Guztiak joango ei ziran lagun zarrari besarkada estua emoten.

Eta, gero, jaia, tuntun, txistu, alboka ta guzti. Eta an izango ei ziran bertsolariak bertso-kantari, entzule guztien atsegingarri.

Agate Deuna.—Urte barruan berarizko bertso-eguna izaten ei zan Santa Ageda bezpera.

Egun ori zan, antza, gaurko egunetan bazterrik geienetan egiten dan lez, ez zan ospatzen, buruz ikasitako bertsoak erabilliz. Egun orretan batzen ziran arrautza, lukainka eta gaiñerako eskupekoak bertso ederren sari izan bear eben.

Eta or zan gazteen alkarren leian ibiltea, zeñiak bertsorik ederrenak asmauko euren neskatillentzat. Olanxe irabazi bear zan onein biotza eta on-eretzia.

Orretarako bertsoak atera bearra, edo beste bertsolarien baten laguntasuna. Ez zan dana Santa Agedaren omenerako.

Iztueta baiño lenago.—Zamakolak emondako argitasunok (amaitzeko esan daigun) 1818garren urteen argitara emondako liburu batekoak dira, gitxienez Iztuetaren liburua baiño sei urte lenagokoak; eta berak ikusitzat emoten dituen barriak bera Madrillera aldatu baiño lenago jazorikoak dirala dirudi, ogetabosten bat urte lenagokoak.

Zamakolak ez deusku bertso-apustu andirik aitatu; ez deusku bertsorik emon; baiña bertsolaritzaren muiña ez deusku txarto azaldu.

Ia errikoiago, etxeago eta barrukoago aurkeztu deuskula esango neuke, zeingeiagoka utsa baiño geiago auzokoen arteko oitura maitagarria.

Erdal-literaturan erri-bertsoai euren garrantzia emoten jakin ebanak euskal-bertsolarien balioa ikusten eta neurtzen ez eban txarto jakin. Iñok ez dagiola autormen au ukatu.

Gure bertsolaritzaren lenengo barri-emoillea eta goratzaillea J. Antonio Zamakola (edo Iza Zamakola) da, Bizkaiko semea, arratiarra, Diman jaioa.

ZAHAR HITZ, ZUHUR HITZ: ZUHUR HITZ BILDUMA BERRIA, IPARRALDEKO BERTSULARIEN LAGUNEK ESKAINIA*

Argitara berria da euskerazko esaera zarrez osatutako bilduma berri au. Oraingo argitaraldi au bertsolarien eskutik datorkigu eta bertsolarien eskuetan kultur-tresnatzat jarteko egifia dirudi.

Norbaitek esan zuen bein bertsolarien saio eta txapelketetan esaera zarren muiña gaitzat ematea ez litzatekela noizik bein gaizki etorriko. Nik ez dakit gai-jartzailleek norbait orren esanari iñolazko jaramonik egin dioten ala ez. Oraingoan bertsolariak berak datoz emen gure erriaren jakinduria, euskerazko esaera zarretan ageri dana, berek ezagutu eta guztioi ezaguerazi nairik, beren bertsoen aberasgarri eta guzior atsegingarri izan daitezzen. Asmo ori izan dutelakoan nago. Ala nai ola ere, ongi etorri egin bear diogu liburu berrioni. Eskupeko eder au egin digutenak Iparraldeko bost bertsolari dira. J. L. Laka, E. Alkat, F. Mihura, I. Etxeandi eta M. Lekuona.

Lafitte, Iparraldeko euskal-idazle guztien aitona eta esku-emaille dugunak, liburuari egin dion aintzin-solasean dioenez, «gure eskerrak artez dituzte. Iduri zaiote errankizun horiek gure herri-literaturako zati bat direla. Ez dituzte ahanterat utzi nahi». Ia ori bera esan dute bildumaren egilleek atari-atarian: orretarako argitaratu dutela, «gure arbasoen zuhurtzia /ez dadin izan ahantzia». Bertsoz esana.

Bertso orretan au ere esan nai izan digute, noski: alegia, gogoan izan dutela antziñako esaera-biltzailleen lana, eta emen eskaini digutena guztietarik bildu eta jaso dutela, amaseigarren mendeko bizkaierako esaera zarretarik asi, eta Garibay, Oihe-

* Revista Internacional de los Estudios Vascos 30 (1985) 23-35.

narte, Bela, Salgitze, eta oraintsuagoko biltzailleen bildumetaraño. Guztien jakin-duria eta guztien oiartzuna entzungo dugu emen.

Ezaguna da gure mende onetan J. Urkijo jaunak egindako lana. Euskal-esaera zar guztien bilduma eman nai izan zuen. Egiteko orretan sartu zan, baiña ez zuen bere asmoa burutu. Beraz, olako bilduma osorik gabe gaude oraindio. Eta «ogirik ez danean, artoa ere on» baita, bilduma osorik ez dugunean, on izango dugu sorta on bat izatea beñik bein, eta bertsolarien lagunek eskaiñi diguten bezalako sorta oni, esker onezko arrera egin bearrean gaude.

Gaurko bilduma onen berri ematean, ez gera emen euskal-esaeren jatorria, noiz eta nola sortuak diran argitzen nekatuko. Askoren sorrera aspaldietako mendeen illunpean dago. Alako batean, illunpetik argitara datoz. Paperera aldatu dira eta liburutanxe agertu ere bai. Noiz? Amaseigarren mendean. Antxiñako kanta zarranekin batera, erri-literaturaren emaitzik zarrenak ditugula agerian dago. Amaseigarren mendea da gure literatura idatzia sortu zaneko mendea. Mende berekoak eta literatura zar orrekin baterakoak dira euskal-atsotitzen bildumen asikiñak ere. Errian sortu eta erroak egindakoak baitira, antziñagokoak dira, izan. Baiña guk ez ditugu ezagutu mende orretako bildumetan ikusi arte. Eta bat edo beste, erderazko bildumetan lenago, euskarazkoetan baiño. *San Simon eta San Juda, negua eldu da*, orain ain entzun eta kantatua dugun esaera, erderazko bilduma batean agertua da beste iñon baiño lenago. Badirudi ez ziotela antzik artu, ez zutela ulertu, eta erdalduntzat artu zutela. Eta orregatik edo, sartu zuten bilduma artan.

XVI eta XVIIgarren mendeko biltzailleak

Gure gaurko hitz zuhur biltzailleok, antziñako mendetaraño murgildu diran ezkerro, beren bilduma egiteko, guk ere jo dezagun mende aietara. Antziñakoen lanari egin dezaiozun gain-begiratutxo bat, bederen, ea gure literatur-arlotxo au ezagutuago-tzen laguntzen digun.

Amaseigarren mendekoak iru-lau bilduma ezagutzen ditugu: bat orduan argitaratua, beste bi, eskuz idatziak, eta joan dan menderarte argitaragabeak. Argitaratua Iruñen, 1596n agertua da, Pedro Porralis Amberes-koaren etxean. Titulu au darama: *Refranes y Sentencias comunes declaradas en Romance con números sobre cada palabra para que se entiendan las dos lenguas*. Gaur ez gera ale baten ere jabe. Bat ezagutzen zan Alemanian, Darmstadt urian, Europako azkenengo gerratean errea edo galdua. Gero emango dugu berri zeatzagorik. Nor zuen bilduma onek egille? Askoren iritzian, Garibay; baiña ez dakigu gauza ziurrik. Bizkai aldeko euskera du, nonbait ere, geien batez.

Beste bilduma biek, bai, Esteban Garibai dute biltzaille. Bi siglen pean Madrilgo Real Academia de la Historia dalakoak gordetzen zituen, eskuz idatzita, baiña, bata, joan dan mendean norbaitek F. Michel frantsesari emanda, galdu edo saldua gelditu da. Bi bildumaok, 1596koa eta Garibai andiarena, ez daude osorik gaur; moztuta etorri dira gure eskuetara.

Urrengo biltzaillean artean Lope Martínez de Isasti sartu bearko dugu, XVIIgarren mendearen barruan. Bere *Compendio Historial de Guipúzcoa* liburuan euskal-

esaera zarrezko sortatxo bati leku eman zion: guztitara, 86. Ez da gauza andirik, baiña beintzat berak bilduak dituela ematen dute. Sei-zazpik 1596koen mami bera dute, Gipuzkoan esaten ziran bezala, nonbait, gipuzkeraz jantzita. Beste batzuk gero aipatuko ditugun Oihenarte eta Zalgitzeko jaunaren bildumetan Zuberoko euskararen oiarzuna dute. Ezagun da iturri beretik, erriaren aotik jasoak zituztela irurek ere. Baiña Isastik beste biei aurea artu ziela argi samar dagoela esan bearko.

Euskal-esaera zarren biltzailletzat, Gustave Brunet-ek nola alako izena jarri zion Voltaire dalako bati. Voltaire au frantzes, español eta euskera ikasteko liburu baten egille da, iru izkuntzok bata bestearen ondoan dituela elkar-izketaz osotutako liburua; 1620tik gora, izen batez edo bestez, sei bat argitaraldi izan ditu, eta berau ezagutzeko aukera ederra dugu gaur. Ikus 1972n *Anuario de Filología Vasca* «Julio de Urquijo». Joan dan mendean Gustave Brunet idazleari gogoak eman zion liburu ortatik 78 esaera atera eta euskal-esaeratzat eman bear zituela. Bruneten liburuak bi edo iru argitaraldi izan ditu 1845tik 1973ra: *Ancien proverbes basques et gascons* tituluarekin.

Baiña Voltaire orren liburuko esaerak euskeldunak ote dira? Michelek aintzat artu bazituen ere, beste kritiko zorrotzago batzuek ezetz biribilla eman dute. Ez direla euskaldunak, frantzes testotik gaizki euskeraratuak baizik. Beraz, ez dutela merezi euskal-esaeren artean sartzerik. Mikoleta bilbotarraren esaera batek merezi ez duen bezala. Mikoletak, bere *Modo breve de aprender la lengua vizcaina* liburuan *La Celestina* liburutik artu zuen erdal esaera bat, eta gaizkitxo euskeraratu, onela: Xateko onari edo deungeari iru bider edan. Askoz obeto eta jatorrago itzulita dator orixe berori 1596-ko bilduman: Gaxtoto edo ondo jan, iru bider edan. Eta ez dugu esango erdaldun baizen euskaldun ez danik, gaur ere antzeko esaerak entzuten baitira euskaldunen aoetan.

Voltaire au baztertu arren, bada Iparraldean XVIIgarren mende orretan biltzaille oberik. Txikienetatik asita aipatuko ditugu: Bela eta Bertrand de Sauguis edo Zalgitzeko Jauna. Belak bildutakoak oso gitxi dira: 45 esaera. Gaur errez eskuratu eta irakurri ditzakegu, Mitxelena jaunak argitaraturik *Textos Arcaicos Vascos* liburuan. Aberatsagoa da Zalgitzeko Jaunaren bilduma: 205 esaera zar, guztitara: 1600 inguruan bilduak omen dira. Oihenarte andiaren paper artean Jaurgain-ek aurkitu omen zituen gure mende onen asieran, eta Urkijo jaunak 1909n argitaratu, erderaturik eta oar argitsuz orniturik. Gogoan izatekoa da len esan duguna: Isastik, Oihenartek eta Zalgitzeko Jaunak bildutakoek eta 1596koek esaera berdintsu asko dutela. Iturri berekoak, erriarenak, ziran nonbait. Berdintasun au nabarmen jarten saiatu da Urkijo jauna. Neronek ere kidetasuntxo aurkitu dut Zalgitzeko Jaunaren esaera batekin eta Markiñan gaur askotxo entzuten dan batekin. Zalgitzeko Jaunarena: Aho baino haboro begi duk. Aita Lhande zanak adierazi zuenez, platerean jateko askotxo artu eta jan eziñik uzten duen aur edo norbaitengatik esaten omen da ori. Markiñan onako au entzuten da gaur: «Begiak luzeago ditu esteak baiño».

Mende bereko biltzailerik andiena euskal-literaturan oso ezaguna eta ospe andikoa da: Oihenarte Zuberotarra, kondairagille eta euskalzale sutsua bera. Ez da orain aren istori-lana ez olerkari-lana aipatzeko unea. Bere bizian iru aldiz argitaratu zituen berak bildutako atsotitzak edo errefauak: guztiz, 706 atsotitz. Dana, 1657tik 1659ra. Joan dan mendean argitaratzaille eta iruskin-egillerik asko izan du: Michel, Archu, Vinson, Haristoy eta abar. Gure mende onetan Oihenarten esku-idatzi geiago agertu

da, eta aren atsotitzak ia bederatzireuneraiño geitu dira. Eta gaur lan ederrak dauzkagu, berak sail onetan egindako lana errotikago ezagutzeko. Egilleak: J. Urkijo, Lafon, Mitxelena, Txillardegi eta abar. Urkijo Jaunak lenbiziko edizioaren fac-simile eman zigun RIEV-en eta gero edizio berezian, eta bere ikerketa-lanak aurrera eramanez, Urkijo izan da Oihenarteren atsotitzen kopurua bederatzireuneraiño luzatu duena. Mitxelenak argitaratuko zuen Urkijoren azken-lana gai onetaz, 1967n, Urkijo Mintegiaren *Anuario de Filología Vasca* aldizkarian. Eta or dugu gaur dana, Txillardegik 1971 n plazaratutako edizioan, Oihenarten *Atsotitzak eta Neurthitzak* liburuan sartuta.

Urkijo zanaren azken-lanak beste zer batzuk ere jarri ditu argitan, eta bat auxe: Oihenartek aurrekoen lanak ezagutu eta gondutu zituela. Esaterako, 1596koa ere ezagutu zuen, eta guk orain ezagutzen duguna baiño osoagoa, ain zuzen. Orrela, 1596ko edizio zarra ogei esaera zar geiagoz aberasteko argibidea eman du. Garibai zarraren manuskritoretik ez zuen eskuetan erabili, baina Porrallisek Iruñen egindako edizioa bai. Orrek argitu digu Oihenartek egindako lanaren beste berezitasun bat ere: alegia, ez zituela atsotitz guztiak berak zuzenean errian bildu. Badirudi, an or emen, lan-kideak izan zituela. Eta bat baiño geiago ez ote zuen berak moldatu, ezagutzen zituen izkuntzetakoetatik euskeraratu? Porrallisen ediziokoak moldatu zituenak ere olako euskeratzerik egin zuen, noski, eta ez askotan Oihenartek erakusten zuen trebetasunez. Ori egitea, trebeki eta jator egin ezker, ez diot iñori pekatutzat egotziko. Beste izkuntza nagusiek ere berdin egin dutela esango nuke nik.

XIXgarren mendean

Loraldi edo beintzat zabalkunde berria artuko dute euskal-esaera zarrek XIXgarren mendean. Orduan arako Etxepareren deia entzun zutela esan genezake: plazara aterateko, mundu guztira ibilteko deia. Orduan asten dira erderazko liburuetan burua agertzen. Madrilgo Academia de la Historia dalakoak, berak duen Garibairen manuskrito aterako du, Garibai orren *Memorias* liburuarekin batera, eta Aizkibelen oar eta argibideekin. Michelek eta Archuk edizio berri bat aterako dute. Eta Michelek, 1857n bere liburu ospetsu batean sartuko du mordo bat. Geroxeago beste zabaltzaille bat izango dute: Vinson. Guztia sortu da erri-jakintzaren alde egin dan giro beroari esker.

Michelentzat andia da errien esaera zarren garrantzia. Asko balio omen dute erri baten gizabidea, oiturak eta gogoia ulertzeko, eta bai izkuntza baten gupil, maratilla eta gramatika-lege asko obeki ezagutzeko. Euskerazkoak ezin egokiagoak omen dira orretarako. Gure erri-literaturaren altxorrik ederrenatakoa omen dira, eta aintzakotzat argitaratzen ditu eta bere *Le Pays Basque* liburuan zabaltzen.

Vinson-ek ez du iritzi berdiña: erri-jakintzari ez dio agur andirik egiten, beraz gure erri-jakintzaren aztarnok ere ez ditu aintzakotzat artzen. Ala ere, bere *Folklore du Pays Basque* liburuan ez die beren lekutxoak ukatu. Liburu au, lenengoz 1883n argitara emana, Frantziak bere lekuan lekuko Folklorea ezagurazteko argitaratu zituen liburuetakoa bat da, eta gure erri-literaturaren ezaugarritzat, egilleak euskaldunen esae-

ra mordoia sartu zuen, eta ola ez du gutxi lagundu gure erri-literatura mota onen berri zabaltzen. Vinsonen iritziz, aipagarrienak, baliotsuenak, pellokeririk gutxien dutenak autatu eta eman ditu, bakoitza bere frantzes itzulpenarekin. Bilketalanik ez du egin: Oihenarten liburutik hartu, besterik ez.

Euskaldunak, orraitio, ez zeuden lo. Mogel, Peru Abarka idatzi zuenak, beren garrantzia aitortu zien gure erri-esakunei, eta mordotxoa sartuko du liburu eder orretan. Mogelen esakunak errian bizi bizirik aurkitu zituenak dira. Baiña Peru Abarka ez zan plazara agertu 1880garren urte ingurura arte.

Iparraldean euskal idazle mordoia azalduko da gure erri-literatura mota au lantzen, bai zarrak argitaratu eta azalduz, eta bai berriak bilduz. Intxauspe, Duvoisin eta abar nabarmendu dira lan orretan. Almanaka, egutegi eta aldizkarietan gero ta leku geiago izango dute gure esaera zarrek.

Aldi berri bat sortuko zaie Van Eys holandarrak Alemanian Darmstadt uriko bibliotekan agertutako ale bakarretik 1596ko *Refranes y Sentencias* argitara eman zituenetik aurrera. Urrengo urtean, 1897n asita, Azkue andiak, berak sortutako *Euskalzale* astekarian, zatika zatika atera zituen, Van Eys orrek egindako edizioa garestia zala-ta, euskaldunei esaera zar aien ezagutza errazteko. Tarteka tarteka aterako ditu astekari orrek Bizkaiko beste esaera batzuk, Aita Uriarte frantziskotarrak bilduak zirala-ta, benetan esaera errikoi eta bizi-biziak. Van Eysek egindakotik artuta, beste argitaraldi bat izan zuten 1596ko *Refranes y Sentencias* oriek Bilbon, 1905n Astuitarren irarkolan, baiña bitxitatsun onekin: Van Eysek argitaratutako guztiak sartu ditu, baiña lekuz aldatuak. Ala 1596koan lenengo datorrena 26garren dakar; 28garrenetik asi da eta 513garrena dakar azken. Gaur, gaiñera, Julio Urkijok eta Txillardegia jaunak egindako edizioak ditugu. Baiña Darmstadt-eko alea erre edo galdua dan ezker, *La GranEnciclopedia Vascan* daukagu ura obeki ezagutzeko aukera (L. G. Enciclopedia. Tomo X, 1975), Alfonso Irigoien janak an argitataka fotokopian eta geigarrian.

Aldi onetan beste ateraldi bat egingo dute gure atsotitzek kanpo aldera, atzerrietan esaera-bildumatan sartuta.

Bi bilduma aipatu ditzakegu emen: bata Espafiako erderazkoa, eta bestea, frantzes. Españaokoak F. Sacristan idazlea du egille: bi tomotan dago, lenbiziko tomoa 1907koa eta bigarrena, 1912koa. Tomo geiago aterateko asmotan asi zan idazle ori, eta bigarrena Miguel Mir erdal-akademikoaren itzaurre ta guzti atera bear zuen: baiña Mir orren itzaurre gabe eta beste tomorik gabe gelditu zan. *Doctrinal de Juan del Pueblo* du titulua. Eta au gureztat jakingarriena: beste izkuntza askotako esaeran artean euskerazko mordoia sartu zuela. Idazle au ez zan euskalduna. Nok eman ote zion gure esaeren berri? Nor izan ote zuen laguntzaille? Iturri askotakoak ditu, baiña Oihenarten bildumatik artuak geienak.

Bigarrenak, Frantziakoak, zabalkunde andiagoga egin die, noski, gure esaerei. Larousse mundu guztian ezaguna dala esan bearrrik ez da, batez ere Iztegitintzan; eta mundu guztiko esaera zarrak biltzen dituen iztegia ere badu: *Dictionnaire des Proverbes, sentences et maximes*. Bibliographian, mundu guztiko biltzaillen artean, euskerazkoentzat Oihenarte eta Brunet eman ditu. Oihenartenak O. baten ezaugarria daramate; baiña O. ori gabekoak ere bilduma berean daudenak, Oihenarte orrenekoak dira. Eta tamalez, frantzes utsean, euskerazko testorik gabe datoz. Nola nai ere, ez ote die gure esaerei aitormen ederra egin, mundu guztikoekin batean sartu dituanen?

Bilduma biok ez dute gure esaeren kopurua ugaltu, baiña bai, beintzat, gure izena munduan zear adiarazi. Eta au ez da gauza utsa.

XXgarren mendean gure egunak arte

Gure mende au lengo esaeren ikertzaille eta berrien biltzaille leiatsuagoa dala esan bear. Guztien izenak aipatu bearrik ez dago. Antxiñakoen billatzaille eta ikertzaillerik andiena nor dugu? Edozeiñek aitortu bearko du Julio Urkijo izan dugula. Lan ederrik egiña da sail onetan. *Los Refranes Vascos de Sauguís* (1909) izan zuen lenengoa. Gero euskerazko esaera guztien bilduma egiteko asmoari lotu zitzaion eta artan jarri zan eta *El Refranero Vasco*, T. 1. aterako du (1919). *Los Refranes y Sentencias de 1596*, bigarren tomoa izan bearrekoa, RIEV-en argitaratu zuen ia guztia, baiña 1936ko gerratearen ondorioz, bukatu gabe gelditu zan. RIEV-etik aterata, orain bi tomo eder dauzkagu, Auñamendi-k argitaratuak, baiña 394garrenera baizik ez dira iristen. Urkijok ez ote zuen lan ori buruturik utzi? Ez ote da aren paper artean ezer geiago agertu? Oihenarten geigarri berria agertu izan dan bezala?

Billatzaille eta biltzaille berrien artean, ezin ditzazkegu bi bereziki aipatu gabe utzi: R. M^a. Azkue eta Aita Damaso Intza. Lenengoak, bere *Euskalerrriaren Yakintza*, irugarren tomoan gaur arteko bilketarik ugariena eman zigun: 2.936 atsotitz. Iturri askotaz baliatu da. Lenagoko biltzailletarik asko artu du, baiña berak erriaren aotik entzundakorik geiago.

Aita Intzak bizi guztian ekin dio erri-esaerak biltzen, eta *Euskera* aldizkarian eta *Zeruko Argia-n* sorta-sortaka ematen. Eta azkenez, tomo batean eman digu bere urte luzetako uzta. Euskaldun batek Euskalerrriko txoko baten iñoiz egin duen bilketarik ugariena eta garbiena dugu Aita Intzak egindakoa. Naparroa bere erriari eta ango euskerari esku-erakutsirik eta omenik andiena egin dio hburu orrekin: 2.500 esaera zar. Eta erriz erri, bildu dituen bezala banandurik eman ditu. Esaera biltzaille guztien artean, nik uste, Aita Inzari zor zaio txapela.

Eta biltzaille andienen inguruan, zenbat biltzaille txiki izan diran, bakoitzak ekarri duenaz gure altxorra aberasten! Joan dan mendeko aiei, Mogel, Uriarte, Duvoisin, Haristoi eta beste ainbestei, gure mende onetan, zenbatek ez ote die jarraitu! Zamarripa, Landerretxe, Elissalde, Barbier, Larreko eta abarrek.

Aipatu diranetatik aipagarrienak, nere ustez, Landerretxe eta Elissalde. Landerretxek pilla polita utzi zigun *Euskera* aldizkariaren orrietan, 1925tik 1928ra. Berak errian entzundako *Erran zahar eta Errankizunak* dira: 365 erran zahar eta errankizun. Eta osoena, beteena, Elissaldek *Gure Herria* aldizkarian ematen asi eta gero separatan argitaratua: 1.025 Atsotiz, zuhur hitz eta erran zahar, antxiñakoetatik eta goerokoe-tatik autatuak. Ez da mordo txarra.

Oraingo argitaraldia

Ibillian ibillian, ba gatoz gaurko *Zahar hitz*, *Zuhur hitz* liburura. Bost bertsolarien eskutik datorkigu. Asmo berriaz egindako liburua. Erriarentzat, bereziki bertsolari-entzatzat idatzirikoa...

Ez datoz, ez, jakintsu-zurrian, antxiñako bildumaren bat aurkesten edo argitzen. Baiña antxiñako aiei ez diete musifiñik egin. Aietatik ere autaketa egin dute. Esaera berrien billa ibili diranik ere ez dirudi, asko beintzat. Aita Intza bezala. Baiña iñon bestek billatutakorik aurkitu badute, jakin dute bereizketa egiten, egokienak beren bildumaratzeko. Ez digute iturririk eman; ez digute esan non jaso edo aurkitu dituzten. Baiña geienek, jakiña, Euskalerrian dute jatorria. Iparraldean, batez ere. Bat baiño geiago mundu guztiko folkloretik artu eta euskal-moldean sartuak dirudite. Erri-jakintzak askotan ez du erri-mugarik. Erri bakoitzak edo izkuntza bakoitzak emango dio bere moldea. Gure auzoko erri batentzat, «donde menos piensa salta la liebre» dana, «gutxien uste dan lekuan erbia lo» izango da emen. Edota, «cada cual arrima el ascua a su sardina», gure erria arrantzale erri izan arren, emen «bakoitzak bere opillari ikatza» egingo dugu; eta olaxe, aditzik gabe, tinko tinko, eta ain ederki. Ola egin ezkerro, edozein atsotitz, atzerrian jaioa izan arren, euskaldun jator billaka dai-teke. Antxiñako erromarrek «homo homini lupus» esan zuten. Euskaldunak, orri gordintasan piska bat kenduta, «atzerri, otserri», esango du. Euskaldunarentzat ez da otso edozein gizon, atzerritarra eta etsai dana, izaketan. Nork daki non edo zein izkuntzatan jaioa dan esaera bakoitza?

Bilduma au egin dutenek Elissaldek bereari ezarri zion aintzin-solaseko itzok gogoan dituztela esango nuke: «Segurki, langile hainitz bada, gu baino lehen, atsotiz, zuhur-hitz eta erran zaharren ondotik ibili denik; bainan guzien artean uzta ederra bildu badute, alde batetik hainitzek ez dakite uzta hori nun kausi eta bertzetik langile horiek ez dute biltzeko guzia bildu. Primadera baxotxean lore berriak sortzen diren bezala, atsotitz eta zuhur-hitz berriak agertzen dire urthetik urtherat edo noizik noizerat. Ez dire lehengoak baino gehiago galtzerat utzi behar. Bertzalde, lehengoek berek ahotik ahorat joanez jauntzi berri bat hartu dute. Beren jauntzi berrian agertu nahi ditugu. Zuzen da naski.»

Atsotitz zarrik asko dator bertsularien lagunek egindako bilduma onetan; jantzi berritan datoztenak ez dira gutxi. Biltzailleok ez dute jakintsu uts eta zeatzegien lanik egin nai izan, eta ez jakintsuentzat ere. Erriaren jakinduria erriari eskuratu nai izan diote; oraindik euskaldun dan eta euskaldun iraun nai luken erriari, euskeraz jantzitako erri-jakintzaren tanta batzuk ixuri beste asmorik gabe agertu dira. Euskaldunak ere, menderen mendetan, bere bizitzako lege batzuk esaera tinko laburretan mamitu ditu. Lekuan lekuan izen asko artu dituzten esaerak dira, Lafittek aintzin-solasean esan duen bezala: Esaera zar, hitz zuhur, hitz zahar, erran zahar, elhezar, errefau, erran-kizun, esakune, supita eta ola. Gure inguruko erdera baten ere ez dituzte izen gutxi: proverbios, adagios, refranes eta abar.

Mamia ez dute beti ore berekoa. Ala dio Lafittek: «Badira denetarik: zenbait ditxo hutsak dira; bertze batzu zirto jostagarriak edo berdín gaixoak; baina sakonak ere badira, zuhurtziaz beteak, esperientzaz (zuberotarrek athunez erran lezakete) orratuak, dena jakitate eta konseilu balios; zombait arruntak izanik ere, zenbat ez dira mintzaira ederrez jauntziak, dena itxura bizi, punta xorrotx, uste gabeko ohar pollit.»

Bai, mota guzietakoak badira bertsularien lagunek egin duten milla eta irureundik gorako bilduma onetan. Guztiak amairu buru edo gaitan banatu dituzte: Jainkoa, zeru, fede; adimendua eta zuhurtzia; lagunartea; etxea, lurra; familia, bizia; bihotza, amodioa; dirua, ontasuna; lana; jan-edanak; gorputza, aroa, sasoinak; abereak; herriak.

Beste bi buruak esaera zarrekin zer-ikusirik gabekoak dira: euskerazko erran molde jatorrez eta asmakizunez osatuak.

Atsotitzen sailletan emen denetarik dugula diogunean, zera esan nai dugu: badala bilduma onetan ditxo utsa danik; badala zirto jostagarririk eta gaixtorik; baiñan bai zuurtasunez beteriko esaera sakonik ere. Josta naia, inguruan gertatzen eta ikusten diran gauzei irripartoxo begiratzea, euskaldunak bere-berea duela dirudi, nork bere buruaren eta lagun urkoaren lepotik farratxoa egitea utzi gabe; eta alderdi ori erakusten dute gure esaera zar askotxok. Olakoxe gogaldia darie, esterako, onako esaera zarre::

- Guk oilo duguneko, ostirale.
- Nehork ez hil nahi, zahartu guziek.
- Otsoak jan, ala artzainak jan, bildotsarentzat berdintsu.
- Deus ez duena, balu, emaile handi.
- Ezkont-eguna, aise izanaren biharamuna.
- Hamalau ofizio, hamalau miseri.
- Langile txarraren eskuan, tresna guziak txar...
- Han ere ogia ez da iguzkitan erretzen...

Beste esaera asko seriotasun andiagokoak eta zer auznartu geiago ematekoak ditugu:

- Bizia laburra da, baina zoriogaitzak luzatzen.
- Egia latz eta garratz.
- Mihia ez du hezurrik hausten, baina bai hautsarazten.
- Ez da nehor gizon sortzen, bai gizontzen.
- Ez du diruak egiten gizona.
- Dirua, mutillik hobereana eta nagusirik txarrena.
- Indarka ez da lan onik.

Zarren atzera begira egotea eta gazteen amets utsetan eta geroko itxaropenak ematen bizitzea ere poliki jorratuak daude onako onetan:

- Zaharrek: Atzo, atzo, atzo! Gazteek: Etzi, etzi, etzi!
- Eta psikologi-lege jakiña dugu onako beste onetan:
- Ahantzi nahi denaz, beti orroit.

Liburutan ageri izan dan euskal-esaera zarretan anziñakoenetakoa len esan dugu zein dan: *San Simon eta San Juda, negua eldu da*. Emen gure egunotan kanta batean entzuten dan bezala eman digute: Joan zen uda, negua elduda: *Joan zen uda* ori gure egunotako olerkari baten eranskiña da, eta bere jatorrean utzi balute, obe. (Erdaldunek, ulertzen ez zutelarik, «Neguel duda» idatzi zuten iñoiz).

Esaera bakoitzaren jatorririk ere ez dugu bilduma onetan aurkitzen. Ez zen ori biltzailleen asmotan sartu. Eta iñoiz beren euskerara moldatzeko edo aurrintzeko ikututxoren bat egin badiote, ez diegu guk ortik pekaturik ezarriko. Euskalerrian bertan ere ez dira alde guztietan berdin entzuten. Antziñenetako batzuentzat jantzi berritan agertzea mesedegarri baizik ez da. Gaurkoagotuz, ulergarriago egiten dira. «Otsoaren aorean, okelea bere on» esan zuen 1596ko bildumak orduko Bizkaiko euskeran. «Otsoaren ahotik ixtar bat ere on», idatzi zuen ori bera Oihenartek. Biek gauza bera diote. Baiña gaurko euskaldunentzat argiago dago Oihenarte-rena. Biak daude jator, baiña gaurko euskaldunontzat Oihenartek emana argiago. «Lehia gaitza

berantgarri» idatzi zuen bere egunetan Oihenartek. Arbelbidek bere liburuetako batean «presa soberanioa berantgarri» egin duenean, ez dut uste esaera zar orrek jatortasunik ez argitasunik irabazi duenik.

Gure biltzailleek ez dut uste olako pekatuak egin dutenik. Ikututxorik egin badute, ez dute egin jatortasunaren ez argitasunaren kaltetan.

Bertsolarien lagungarritzat egin duten ezkerro, bilduma onetan agian usteko genuen bertsozko esaera batzuk aurkitzea. Norbaitek esango du emengo esaera geienak bertso-tankerakoak dirala:

—Umeen zentzuna,
etxean entzuna.

—Geroa, alferren leloa.

Olakoexeak dira asko. Etaegiaesan, badabertso itxura andiagoko eta luzeagorik, bilduma onetan. Ona bat:

—Sabaiak hotzak eta pentzetan izotza,
Martxo idor, non duk ba bihotza?
Ttipiarentzat hor da
sasoin bat zorrotza.
Primadera, urrun zak
neguaren latza...

Oso gutxi bada ere, bazan olako bertsozkorik 1596ko esaera bilduman. Baiña bertso utsetan egindako esaera bildumarik ez dugu gure literaturan, gure inguruko erdaldunek dituzten bezala. Gure auzoko literaturak aberatsagoak ditugu olakoetan. Gaztelako erderan ba dira bi idazle, bertsozko zuhur itzen egille diranak: Alonso de Barrios eta Rabi don Sem Tob arabeatarra. Bata, Alonso, amaseigarren mendekoa, eta bestea amalaugarrenekoa. Alonsok, sorta bat egiñik, erri-esaeren antzeko mordoa eman zuen bertsoetan. Eta bestearena esaera laburreko sermoi luzea da. Ez bataren ez bestearen esaerak ez dira, jakina, erriaren aotik jalkiak, egilleek asmatu eta ala moldatuak baizik.

Gure artean ez da olako esaeren idazlerik sortu. Baiña ba dugu, euskeraz ere, *Erran zaharren kantua* deritzan bat. Egillearen aipamenik, guk beintzat, oraindio ez dugu aurkitu. Nola nai ere, erri-esaerez, benetako erri-esaerez osatutako lana da. Bertsolariantzat egindako liburu batean sartua izatea merezi zuela uste dut nik. *Kantuz* izeneko kanta-liburuan dator eta gaur zabal dabil gure artean. Esaera zarrak, bertsoetan, elkarren gainka ematen ditu:

Itsasoak, bistan da, ez du adarrik,
ez eta gaztanberak erdiko hexurrik;
nehoiz ez da ikhusi su gabeko kherik,
baina ez daite juzga deus itxuretarik.

Duenak azer bipher emaiten ohi du,
ez da behar ixtupa suari hurbildu;
tripa hutsari ez da emaiten konseilu;
barrur egonez norbait noiz zaitzu arraildu?

Ez ar siminoari sino erakhusten;
 orotan jaunen jaunak dirade kausitzen;
 arbola fruitutarik dugu ezagutzen;
 pozoinek osasuna maiz dute sendatzen.

Eta bere buruari farra egiñez ona nola botatzen duen azken bertsoa:

Gauzarik hoberenak finitze bat badu;
 behar niz, ba, sail huntan nolazpait gelditu.
 Aho hetsian ez da nehoiz fitsik sartu,
 baina ez tronpatzeko behar da ixildu.

Esaera zaharren kantua egoki jarri diote izena. Gure bertsolariak olakorik egiteko gai dira, noski. Gure esaerez eta bestenez egin daiteken gauza da.

Berriz aterako dut itz zuhurren jatorriari buruzko arazoa, eta berriz esango dut euskera jator garbian moldatutako edozein izkuntzatako edozein erri-esaera euskarazkoa ere izango dala. Voltaire zarrenak diralakoei pekatu au ezarri diote: frantzesetik artuak eta euskera baldar traketsera itzuliak dirala. Julio Urkijo zanak pekatu berdiña egozten zien 1596ko batzuei; baiña auzoko erderatakoen antza dutela-ta, besterik gabe ez dago erdal-jatorria salatzerik. Irakurleak gogora beza *enLa celestina* liburuko esaera bati buruz esan dudana.

Bertsolarien adiskideek ez dute Voltaire frantzesari egin zaion salakuntzarik merezi. Euskera jatorrez jantzitako esaerak eman dizkigute. Eta liburu au eskuetan erabilteak mesede egingo die, ez bertsolarietarako bakarrik, bai beste euskaldun eta euskal-idazle askori ere. Eskola ederra aurkituko dute euskeraz jatorrago idazten ikasteko. Egia baizik ez da Michel, Chaho eta beste batzuk aitortu zutena: atsotitzetan ditugula izkuntza bakoitzeko itz-joskerarik berezienak.

Tamalez, urritxoia da gure euskerak arlo onetan erakuts dezaken uzta. Madrilgo Real Academia Española, Luis Martínez Kleiser jaunak bilduta, 68.000 esaerazko bilduma ongi bete argitaratu zuen, orain dala 30 bat urte. Gu kopuru orretatik urruti gabiltz. Eta ez dugu aurkitzen J. Urkijoren jarraitzaillerik ere. Baiña lenagokoen argitaratzaillak baiña, esaera berrien billatzaillak ta aurkitzaillak bearrago ditugu.

Bien bitartean betoz gure bertsolarien lagunek eskaini diguten bilduma au bezalakoak. *Zahar hitz*, *Zuhur hitz* auen eskaintzaillak deika dauzkagu *Hitz Zuhurren Kantuko* asierako bertsoekin:

Othoi, denak zathozte plazaren erdira,
 nere erran zuhurren gogoz ikastera.
 Mendiak baino ere zaharrago dira;
 arno ona ontuz doa urtherik urthera (1).

(1) Aita A. Zabalak. iturri askotatik bildurik. Esaera Zaarren *Bilduma Berría* (3.133 esaera) atera da bere *Auspoa* sailean, 1985-garren urtean. ain zuzen.

ITZALDI LUZEEGIEKIN KONTU*

Itzaldi baten balioa luze-laburrean ez dago. Luzeenak ez dira berez onenak. Laburrak ez dira beti luzeagoak baño txarragoak izaten, eta, gertatzeko, ez deustoe egilleari nekerik gitxien emoten.

Polito adierazo eban auxe bein Ipar-Amerikako ez dakit zein politikok. Iztun ederra ei zan bera; gogoz ta zoraturik entzuten ei eutsoen. Arriturik bein bere entzule batek itaune au egin ei eutson: «^Zelan ateraten dozuz itzaldi ain eder ta arrigarri orrek? ^Zenbat denpora emoten dozu eurak gertatzen?». Izlari bikaiñ arek onelatsu erantzun ei eban: «^Zenbat denpora bear dodan neure itzaldiak gertatzeko? Ara, amabost miñutukoa bada, esaterako, aste bete inguru; amar miñutukoa bada, geitxoago». — «^Eta ordu beteko bat egiteko?» — «Iru bat egun inguru». — «^,Eta ordu bi edo ordu bitik gorako bat egiteko?» — «A, olako bat ointxe bertan asita botako neuke».

Ez, itzaldi luzeenak ez dira onenak, ez-ta egiten, gertatzen, gatxenak bere; geyenetan orbela ta betegarria besterik ez dabe eukiten; luzeago ta aspergarriago, gogaikarriago baño ez dira. Ez jat sekula aitzuko, gai oni dagokala, abade bati antziñatxo entzun neutson erderazko esakera. Jakiña, esakera ori etzan abade arek berak asmaua; baña nik berari entzun neutson iñozko lenengoz eta bere gomutea etorten yat burua, gogoratzen dodan baktxean. Bere izena: D. Domingo Alberdi, Azkoiti'ko semea. Orain bederatzi urte il zan, larogei ta bi urte zituela. Abade jainkozko, arimazale bero ta zolia, eta emolle esku zabala izan zan au, ondo maite eben Azkoitiarrak eta ondo biotzean izango dabe oindiño. Beti ebillan urduri ta zoli, geldi eziñak artuta lez, arimen alde zer egingo, urkoari zelan eta zertan lagunduko. Pulpituan ez eban ekitaldi luzerik egiten; ba-zirudian an be arduraz egoala zelan

* Zeruko Argia 27 (1964, 91 .zenb.) 3; *Nonzebarri* izenpean. Izen 'bitxi' au gazetalari lan batzuetan erabilia.

lenago amaituko, iñoren gogaikarri ez izatearren. Laburtasunera joten eban bere sermoietan.

Olako sermoi labur bat lenengoz entzun neutsan egunean, elizkizun-ostean ona zer esan euskun: «*i, Ez al dakizue esakerea? Sermoi laburrak biotzari eragitekoak dira; luzeak, ostera, atzekaldeari, ipurdiari eragitekoak. Sermoi laburrak biotzak jasoten ditu; luzeak, ipurdiak jaso erazo, ezarlekuak ustu eragin*».

Alantxe da, izan be; sarri askotan itzaldi luzeak ipur-dantzea besterik ez dau ekarten. Eta dantzarik gaizto ta bildurgarrienak, azken-urte oneitan beiñik bein, Rusiak ekarri ete dituen nago.

Oraindik ez dira urte asko, an zan Mosku'n Stalinen irudia irme ta arro, an zan aren illobia ain apain, sendo ta guztien gurgarri. Baña, egun baten, Khruschev jaunak zazpi orduko itzaldia egiñaz batera, dana etorri zan bera, ta Stalinek bere lekua ustu bearra izan eban.

Urtetxo batzuk geroago, beste baten dantzaldia etorri da. Breznev edo dalako batek bost orduko itzaldia egin ei dau; eta oraingoan Khruschev bera asi da ipur-dantzari: Rusia andiko buru ta agintari ospetsua zanak, bere agintaritzako ezarlekua ustu ta itxirik, ixil eta apalik bere etxerako bidea artu dau. Itzaldi luzeegiak Russian be ez dakardie beste iñon baño azken oberik.

Nor asiko ete da barrero oiako itzaldi aspergarririk egiten eta norena izango ete da urrengo ipur-dantzaldia?

JOXEPAREN LARRIAK*

Otxandioti Aramayo bitartean dago San Migel'en izeneko eleizatxo bat, inguru guztian etxe bat edo baño eztauala. Baserri ori bakartade osoan dago, uriti urrintxo. Ori dala ta, lenagoko aldietan beintzat, ango baserritarrak urietako bizimoduaren barri andirik ez ekien.

Mezarik be, urtean bein baño ez eukien: San Migel egunez. Onango egun baten, abadeak, baserri orretarako bidea artu baño len, gozozaletxo zalako edo, beintzat txokolatea artzen oituta egoalako, ontza bi txokolate artu zituan aldean, meza ostean artzeko.

San Migelera eldu ta, sakristauenera jo dau lenengo-lenengo. Sakristau andreari ba-diñotso.

Joxepa, txokolatea egiten badakizu?

Joxepak, ezbaika ezbaika: Bai... jauna.

—Orra ba, ontza bi. Meza ostean agertuko naz.

Meza ostean sakristauenean zan abadea barriro. Eta an jatorko Joxepa zoli ta maratz. Mai bat zuriz jantzita etartean ipiñi dautso abade jaunari eta asi da goxaria ateraten. Lenengo edari apur bat barauskarri. Gero...

Gero... txokolateari begira egoan abadea, baña txokolaterik etzan agiri.

Alango baten abadeak luze eritxita:

—Joxepa, txokolate ori noz ekartzeko zara?

—Ai, abade jauna: berori estu ta artega dago, ezta? Baña neuk be aldean ditut neure estu ta larriak.

—Zer ba?

—Txokolate ori ezin dot iñun aurkitu.

—Ez ete dautzu, gero, mutikoren batek ostu?

* Karmengo Amaren Egutegia 4 (1954) 37-38; A. **Onaindia**, *Jolasketa*, Bilbao 1965, 222-223.

—Ez jauna, ez; badakit non sartu dodan: baña, ze demontre! ezta ageri, jauna. Banabil burruntzaliaz arakatu ta arakatu, baña ezin dausat eldu. Onango angilarik!

—Non sartu dozu, ba, Joxepa?

—Aza-lapikoan, jauna.

—Aza-lapikoan? Ai, Joxepa, Joxepa! Eztozu zuk zeure bizian txokolaterik asko artu, orraitio.

Goix orretan abadea txokolate barik gelditu zan, baña barre gozatsu egin eban Joxeparen lepotik. Txokolatea? Olango mizkeririk sekula jan bakoak ziran San Migelen egun orretararte. Egun orretan artu eutsen usain apurtxo bat lenengoko aldiz. Non da... aza-lapikoko saldan...

EUSKERA BATUAREN GORABEERAK ESAN DEZAKET ZERBAIT ARGIAGORIK?*

Asteroko ontan, Ugalde-tar Martin jaunak nik esandakotzat eman dituen itzetatik ez dakit irakurleek ezer garbirik atera duten.

Ezin gauza garbi askorik atera, nola nai ere, ain ez-jakin agertzen dan baten-gandik. *Ez dakit* emen, *ez dakit* or. Ainbat aldiz irakurtzen da an nere *ez dakit* ori. Oraintxe ere, konturatu orduko, lelo orrekin asi naiz idazten. Ez ote nezake zerbait argi ta garbiagorik esan euskera batuaren gai orri buruz? Artan saiatu nai det emen, ea nere iritzia argiago ta osoago azaltzen dedan.

Egia esan, Ugaldekin itz egin nuenean, *ez dakit* ori aiña erabilli nuen, edo geiago, beste esaera au: sasi-auzia, edo sasi- problema, aren artikuluan agertzen ez dan arren. Ikusi ere, sasi-auzi asko ikusten nuen gure euskera batuaren auzi ontan. Eta neure uste onen euskarri, Mitxelena jaunaren itzok artu nituen oiñarri: «Batasun osorik egiteko, ez du Euskaltzaindiak ez eskurik ez indarririk, ez berez ez besteren bitartez. Gidari ta bideerakusle agertu nahi luke orain, gauden egoeran, egin ditekeanaren neurrian». Zein da *orain, gauden egoeran egin ditekeanaren neurria?* Or dago kakoa ta or dago nekea. Ortik asi bearko degu ta ortik aurrera jo, gure auzi au oin onen gaiñean jartzeko. Non gauden ikusi ta noraiño iritxi gindezken kontuak atera. Alperrik degu beste izkuntza batzuek zer egin duten aurrean jartzea. Esaterako, katalanak egin dutena.

Katalanak gu baiño urbillago zeuden noski batasunetik. Bide laburragoa zuten beren elbumra irixteko. Eta ala ere, epea artu bearra izan zuten. Gure artean, epea entzuteak berak sututzen ditu asko. Osoz osozko batasuna edo berdintasuna nai lukete goizetik gabera, edo asko gutxiago ez. Ez dira oartzen dalako batasun ori daukatelako

* Zeruko Argia (1970, 373.zenb.) 7,11.

erdera askok ere oraindiño ez dutela ori osoan lortu. Ez itzetan, ta ez ortografian ere. Frantsesek, esaterako, lege bikoitz asko dituzte, bata nai bestea artzeko aukera dutela. Guk ere, asiera-asieratik, gogoan artu bearke degu non gauden eta norainoko batasuna iritxi dezakegun oraingoz. Eta ola, auzi au oifarrri obeen gainean jarri, eta ez sasi-auzi egin.

Ortografiaren saillean bertan, zorioneko H ori dala-ta, ez gabilta bide garbiegitik. Ez gabilta guztiz zuzen, batasunik egitekotan, edo guztiok H utzi edo guztiok artu bear degula esaten degunean. Gure auzoko erdera, gaztelerak berak, ez du ortan batasun osorik lortu. Gizaldiak joan, gizaldiak etorri, H-rik asko galdu du; baiña or gelditu zaio itz-mordo bat, naiz H orrekin naiz ura gabe idatzi litezkeala. Ez dira asko, baiña or daude. Gure artean askoz geiago izango lirakeala? Baiña geiago izan gutxiago izan, egoera berdintsua da; gei-gutxiak ez du gauza onen muiña aldatzen.

Baiña nik beste sasi-auzitxo bat ikusten det emen. Ortografiaren aldetik begiratzan diogu gai oni. Eta ortxe ez ote gabilta oker? Ortografi-auzia baiño geiago ez ote da au prosodi-auzia? Ortografian, esan genezake gure artean batasuna egiña dagoela aspalditik; geienok, beintzat, aspalditxotik erabakita daukagu zein soiñuri edo otsi zein letra dagokion, eta bestera. Ortik zebillen aspaldi batean gure auzia. Batzuk *txapela* idazten zuten lekuan, beste batzuek *chapela* naiz *tchapela* idatzi oi zuten. Berdintsu gertatzen zan beste letra soiñu zenbaitekin. Ontan batasuna egiña daukagu orain.

Baiña H tartean danean, beste bide batetik eramaten degu eztabaida, eta nere ustez, okerreko bidetik. Euskera baturako, itz batek bi foima edo geiago dituanean, zein era edo forma artu bearke degun erabaki nai izaten degu leenbizi. H orren auzia tartean ez bada, ori egiten degu ekusi ala ikusi, edo ta gorria esan ala gorriya edo gorrixa: itza nola esango eukitzen degu kontuan. Baiña zergaitik ez degu kontu berdiña egiten, biotza, biyotza, bixotza edo bihotza aurrean ditugunean? Zergatik bestetan prosodi-kontua edo analogi-kontua dana, emen ortografi-auzi egin? Jokabide ontan sasi-auziren bat badegula, ori da nere iritzia.

Mugaz andikoen H ori mugaz emendikoek esango ez badegu, ez det ulertzen nondik degun ainbeste aukra ta ainbeste seta, letra ori sartu bearrez. Zergaitik? Gure auzoko erderak aiñakoak izatearren, aiek dauzkaten pitxikeri guztiak guk ere euki naiez? Baiña erdera oietan aspaldi samar asiak dira alperreko letra oien aurka. Ez dute iritxi aiek osoan baztertzea; baiña bizi-indarra ortik dator eta alde ortara jotzen du. Gazteria alde ortara dabil indarka. Gure artean bakarrik ikusiko ditugu batzuk, gaztetasunaren izenean, okerretara jokatzen, zaarkerien alde. Zergatik? Nai duenak nai duena esango du; baiña ez ote da atzeraka dabiltzalako, garaia baiño leen urdindu diralako?

Gero, alperrik esango dute jakitunekin dabiltzala, letraduen bidetik joan nai dutela. Jakitunek ez dute noski auzi au ola ikusten. Mitxelena jaunaren itzok aipatu nizkion nik Ugalderi: «Bi bide baizik ez daude batasunerako: edo H dutenak utzi edo ez dutenak artu». Zer esan nai du orrek? Jakintzaren bidetik, bide bata nai bestea artu daitekela, jakitunarentzat bata nai bestea berdintsu dirala. Mitxelena bera ez da orain letradunago, bigarren bidea artu nai badu; bestera zebillenean ez zan letra gutxiagoko gizona. Jakitunak noiz zer nola izan dan esango digu, bai. Emendik aurrera zerk nola izan bear duan erabakitzea ez da ari bereko gauza.

Auziak auzi, ez ote degu beste sasi-auzi bat, batzuek Arantzazuko erabakiak ulertu nai izan dituzten era ere? Erabaki ura Mitxelenak batzarrean bertan eskatu zuen bidetik asmatua ta emana da. Mitxelenak (onen itzak ere irakurri nizkion Ugalderi) eskari bat egin zion Euskaltzaindiari, alegia, *zillegi utzi* zezala, saio bezala, H erabilitzea, begi onez ikus zezala. Zillegi uzteetik estu agintzera bide luzea dago, noski.

Guretzat argibide izango dala uste det orain Madril-go Akademiak kasu berdintsu batean nolako izkera darabilen ikustea. Bide batez, ortik ikusiko degu batasun osoa daukatelako izkuntza asko nola dauden alde ontatik. Erdal-akademia orrek berriz atera-berria du bere iztegia. Eta sarrerako itzetan esaten digute an badirala gaztelako erderan bi ta iru modutara erabiltzen diran itzak: «todas ellas aceptadas en el uso culto general o con diversa repartición geográfica». Eta olako itzetan, «la variante que figura en primer lugar es la preferida por la Academia, sin que esta preferencia signifiquen rechazo de las que se consignan a continuación». Urrengo lerroetan berriro aipatzen dituzte, bai «las variantes admitidas», bai «las variantes recomendadas», eta bai «las aceptadas, pero no preferidas».

Arantzazukoak baiño neurri zeatzagoa dute erdal-akademia orren itz oiek. «Preferidas, recomendadas» esatea Arantzazuko *ongi ikusi* edo *ez gaizki ikusi* esatea baiño geiago da. Ala ere, besteak, *recomendadas* ez diran itzak ez dira baztertzen ez gaizki ikusten, bai aintzat artzen. Gure artean bestetara jokatu dute norbaitzuek. Itz bigunagoetatik lege estuagoak atera ta ezarri nai izan dizkigute. Lege estuegiok gutxi dirala, zemaletara ta bildurra sartzeko alak egiteraiño joan dira. Gezurra dirudi, baiña ala da. Ez ote gabilta orrela auzi au bere barrutik eta gizabide gutzitik ateratzen?

Azkenez, beste sasi-auzi bat ikusten det nik, auzi au mugaz andiko ta emendikoon arteko eztabaida egiten digutenean. Ortografi-saillean an eta emen izan dira eskola edo joera bat baiño gelago, Eta eztabaida geiago izan dutela uste det nik angoek angoekin eta emengoek emengoekin, ango ta emengoek elkarrekin baiño. H kontuan, nere ustez, ez da sekula eztabaidarik izan ango ta emengoen artean. Angoen H ta emengoena ez dira berdiñak. Angoentzat letra orrek bere otsa badu; emengoentzat, ez. Eta guk letra ori artu arren, ez degu benetako batasunik egin, emen letra ori iñork ez duelako esaten. Erdi-bide baten billa asten geranean, urritz, badaezpadako zi-koizkeri bat erakusten degu, eta ez degu ez angoen ez emengoen gogorik betetzen. Amor emateko itxurak egiten asi baiño obe degu gure arteko ezberdintasun ori aitortu, elkar ezagutu ta aintzat artu. Ori esan nion nik Ugalde jaunari.

Ez degula ola batasunik egiten? Berdintasunik ez, baiña nolabaiteko batasuna, orain, gauden egoeran, egin ditekeanaren neurrikoa, bai. Ez gaitezen lilluratu. Leen esana esango det emen berriz: erdera askok ere ez dutela lortu askok uste duten bezelako batasun edo berdintasunik. Eta guk, zergaitik degu emen beste istillurik sortu bearrik?

EUSKERA BATUAREN BILLA*

Emani'ko euskaldun eta euskalzale jatorrak: agur, agur t'ardi.

Aspaldiko euskal-agur jakin onekin azaltzen naiz zuen aurrera nere gaurko jardun oni asiera ematerakoan. Eta gaiari ekin baiño leen, aitorpen garbia egin bear dizuet: alegia, zeuok, Emaniko semeok, zeuon senari zintzo ta leial eusten diozutela. Zeuon senari eta leenari. Garbi esateko, zeuon euskalduntasunari. Erririk gutxi du Euskal-erriak zuen erriak aña langille erakutsi ditzakenik euskal-literaturaren alorrean. Nolako langilleak, gero! Kardaberaz, Iturriaga eta Gregorio Arrue bezelako idazlerik ez da noiznai ez non-nai azaldu Euskal-erriari joandako gizaldietan. Aien senari eutsi nai diozute zeuok, noski; aien enborreko ezpal izan nai dezute. Egunotan antolatu dituzuten itzaldi aiek ori salatzen dute. Zuen jatorria ez dezute ukatu izan nai. Zeuok zeuon bumaz, zeuon euskalduntasunaz lotsa ez zaretan bezela, zuen arbasoak, eta aipatutako im Ernanitar aiek, Kardaberaz, Iturriaga eta Arme ere, ez dira gaur zuokin lotsa. Ez al dituzute maixu aundi aiek bein ere aaztuko. Gaurko egun au ere aiekin dituzuten lokarriak estuago egiteko izango al da!

I

Nere itzaldiaren gaia zeuok jarria da, euskeraren batasunari bumzkoa. Gizaldiz gizaldi nolako pausuak eman diran batasunaren billa, nola azaldu dan kezka au, nola ikusi zuten gorabeera au antziñako gure klasikoek, eta oraintsuagoko aldietan auzi au nola erabaki nai izan dan, ori guzti ori jakin eta ikusi nai dezute. Nere alegintxoia egingo det zuoi ontan atsegin ematen. Aurretik (ala eskatzen dizuet), nere utsengatik izango al det zuen barkamena!

* Kardaberaz - 6 (1977) 47-70. Hernani'n 1970n emondako itzaldia.

Itzaldi onek bi zati izango ditu, bi zati nagusi: euskeraren batasuna antziñako euskal-idazleetan, leenbiziko zatia; eta batasun ori, oraiñagoko ekiñaldietan, bigarren zatia. Azkenengo zati ontan, bi batasun aztertuko ditugu, alegia, euskal-ortografiaren batasuna, eta euskera idatziarena.

Euskeraren batasuna euskal-klasiko diralakoetan

Gai ontan sartzean, berau aipatuaz batera, galdera bat edo beste etorriko zaio askori burura: Baiñan euskera batuaren auzi eta kezka au ez al da, bada, oraintsukoa, gure egunotakoa? Gure klasikoek ez ote zuten, bada, idatzi, iñolako kezkarik gabe, berez berez? Ez ote zerien aiei, txoriari bere txinta bezela, beren euskera jatorrizkoa, tokian tokikoa? Galdera auei ezezko erantzuna eman bearrean gaude.

Euskaldunak berandu asi ziran euskera idatziaerabiltzen, eta artarajarri ziraneko, beren kezka eta ardurak izan zituzten nola idatziko. Bertatik oartu ziran ez zala Euskalerra osoan euskera berdiña egiten, ez urbiltzekorik ere; ba-zala aldea euskeran errialde batetik bestera. Au ikusteak gogoetaka jartzen zituen zein bide artuko, nolako euskera erabiliko, euskaldunik geiagok ulertzeko eran nola idatziko.

Au ikusteko, gure literatura zaarrari gain-begiratu bat ematea aski degu.

Asi gaitezen gure idazle zaarrenetako bategandik. Leizarraga gandik. Beskoi-tzeko seme au, Testamentu Berriaren euskeratzaille au, amaseigarren mendekoa degu. Datorren urtean izango dira laureun urte Testamentu Berri ori eta beste lan batzuk argitara zituela. Apaiza izan zan eta gero protestante egiña. Protestanteen aginduz ekin zion bere lanari, beste euskaldun batzuek lagundurik.

Nola idatzi, nolako euskera erabili? Orra asieratik izan zuen kezka. Gogoz eldu zion lanari, baiña bere borondate ona gorabeera, bein baiño geiagotan izan da dana bertan beera uzteko zorian, eta beldur da ez ote duen asitako lana bukatuko. Batetik antzu eta landu gabea ikusten du euskera. «Oraino, traslationetan behintzat, usatu gabea». Orrez gainera, gure izkuntza ainbat zatitan puskatua dago. «Bat-bederak daki Eskuel-Herrian kasi etxe batetik berzera ere mintzatzeko maneran zer diferentia eta diversitate den».

Au ikusirik, zein bide artzen du Leizarragak? «Ahalik gehiena guziei adierazteari iarreiki izan gaitzaitza, eta ez xoil edozein leku iakineko lengoaje bereziri».

Itz auetan naiko argi ikusten degu nola ezagutzen zuen Leizarragak euskeraren egoera eta nola jo duen banatasun artatik nolabaiteko batasunera. LeizaiTaga onen euskera ez da izango ez angoa ez emengoa, iñongo leku jakiñekoa; alik eta geienak ulertzekoa erabiltzera saiatuko da.

Lapurterra zan bera, baiña aalik eta geienentzat idaztearren, gogoan izango du Zuberora ere, eta Zuberotarren euskera. Eta auentzat iztegi labur bat ere jarri zuen azkenean, Lapurdiko itz batzuei Zuberoko ordaiñak aurrean jarrita.

Urrengo gizaldian, beste idazle batek ez du jokabide berdiña artuko, ain zuzen. *Materra* euskaldun berria da, gaur esango genukenez. Kanpotik etorria da Euskalerrira, Sara aldera, eta Sarako euskera ikasi du, ez besterik. Ba-daki onek ere ez

dala Euskalerrri guztian berdin mintzatzen, baiña ez berari dakiena besterik eskatu. Ala aitortzen du berak: «Badakit Euskal-Herrian anhitz moldez mintzatzen direla, eta nori bere herriko euskara zaikala hoberenik eta ederrenik. Eta handik gogoak emaiten deraut ene eskribatzeko molde haur etzaiera guztiei ongi idurituko. Baina nahi dut iakin dezaten halakoek nik hizkuntza hunetan dakidana Saran ikasia dudala eta hango euskara ongi erabiltzen badut, ez naizela gaitz erraiteko, eta ez arbuizatzeo, zeren ezpaitakit nik hangoa baizen. Ordea ea Sarako euskara denz Euskal-Herriko hoberena eta garbiena, ez naiz ni hartan sartzen; bat bederak emanen du bere iduririk. Eta Sarako eskuara hunetzaz kontent eztenak ezkiriba beza bertze eskuara hobego batez eta hobekiago; ez naiz ni hargatik bekaiztuko eta ez inbidioz izanen».

Asistarraren seme zintzoa Aita Materre au, eta ala pakezalea auzi ontan ere. Baiña or degu idazle onen aitopena gure euskeraren banatasunari buruz.

Gizaldi berean, eta Saran bertan dugu gure klasikoetan klasikoenaren ospea duen idazlea: Axular aundia. Gure banatasunaren lekuko au ere, eta batasunaren nolabaiteko eragille. Banatasun orrek kezkaiz jartzen du. Ezin dezake idatzi euskaldun guztiek ulertzeko eran. Ala aitortzen du berak: «Badakit.. ezin heda naitekeiela euskarazko mintzate molde guzietara. Zeren anhitz moldez eta differentki mintzatzen baitira Nafarroa Garaian, Zuberoan, Lappurdin, Bizkaian, Ipuzkoan, Alaba-herrian eta bertze anhitz lekutan... Batek erraiten du *behatzea*, bertzeak, *so egitea*; batek *aserretzea*, bertzeak *samurtzea*; batek *ilkhitzea*, *beñzeak jalgitea*; batek *athea*, bertzeak *bortha*; batek *erraitea*, bertzeak *esatea*; batek *liskartzea*, bertzeak *ahakartzea*; batek *hauzoa*, bertzeak *barridea*; batek *aitonen semea*, bertzeak *zalduma*. Finean, bat bederak bere gisara, antzera eta moldera; ez dituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez eskuarazko mintzateak ere, zeren erresumak baitituzte differení..

Nondik norako bidea artuko du Axularrek olako banakuntza ori nolabait berdintzeko eta aalik eta geieni atsegin emateko? Bat, Lafitte jaunak aipatu eta argitan jarri duena: itz eta esaera berdintsu asko, sinonimo asko erabiltzea, era batera eta elkarren gainka. Orixe egin omen zuten antxiñako frantzes-idazle askok ere, esaterako, Rabelais ospetsuak. Iñoiz, euskerak bi itz dituenan elkarren anizekoak edo bi eratara erabiltzen diranak, biak jartzen ditu Axularrek; eta batera liburuaren barruan, eta beste erara bazter batean, aldamenean, «bat-bederak kontentamendu duen amoreak-gatik».

Beraz, Axularren euskera geien batez Saran erabiltzen zana izan arren, badu beste euskalkietako kutsu bat baiño geiago, nola edo alako batasunarefl billa saiatuz.

Mende bera, XVI'garrenekoa, bukatu baiño leenago, or degu beste idazle bat kezka eta joera berdintsuarekin, Tartas, *Onsa hiltzeko Bidia* idatzi zuena. Leizarraga eta Axular, biak euskeraren aldetik, Lapurditarrak ditugu. Tartas Zuberotarra da. Zuberon bizi zan gaiñera, Aruen; baiña ez du Zuberoko euskerara oso-osoan jotzen. Zergatik? Batasunaren kezkaiz, irakurle geiagoren billa. Irakurle geiago izatearren, Zuberokoa baiño euskera zabalago batez idatzi nai du. Eta orren jakitun jarri nai izan du irakurlea.

Olena dio: «Ene euskara eta lengoajia eztakit aprobata izanen denez, bai ala ez. Badu orotarik zerbait; Zuberoak, Baxenaberrek eta Lapurdik eman drauko zerbait, baina ez oro. Aruen egin dut neure pieza pobria; hanko lengoajia ezpada aski eder,

hanko euskarak du ogena, etaez euskaldunak». Benetan aitortpen apala auxe. Geienok, nik uste, bakoitzak geure erriko euskara joten degu onenetakotzat.

Bidasoaz andiko idazleekin jarraituz, urrengo mendean, amazortzigarrenekoan, beste idazle aundi bat degu: Joanes Etxeberry. Bestaldekoa izan arren, emendikoan artean eman zuen bizirik erdia: Beran, Ondarrabin, Azkoitin. Axularren goresle porrokatua degu bera. Urdazubitarra omen degu euskal-idazleetan maixurik aundiena, eta euskerarik ederrena, Sarakoa. Baiña beste euskera-molderik baztertu gabe. Gure euskera molde eta era askotakoa bada ere, gure artean ez da ontan gertatzen beste izkuntza askorekin gertatzen ez danik. Euskera-mota asko omen degu, baiña euskera bat bakarra omen da.

Etxeberryk beste aurrekoek baiño sakonago eta luzeago jorratzen du gai au. Entzun zer dion: «Diferentzia molde hau kausitzen da zernahi bertze hizkuntzetan ere, bereziki italiano, erdera eta frantzesean». Izkuntza aukeratu «bere ethorkia dutelarik latinetik, guztiarekin ere diferentziatzen dira elkarren artean; batak latinetik hartu tu hitz batzuek, eta bertzeak bertze batzuek; batak signifikantza batetan, bertzeak bertzean...; batzuek letrak kenduz, bertzeak berretuz; bertze batzuek letrak aldatuz, edo kanbiatuz eta trukatur; batek labur zena egin du luze, eta bertzeak kontrara luze zena laburtu du... Eta halatan, guztietan ageri da apur bat gora behera batean gehiago, bertzean gutiago, nondik duten bere ethorkia; eta oraino hautan ere kausiten da, izan arren hizkuntza eta eresuma berekoak, diferentzia badela herritik herrira hitzetan eta mintzatzeko maneretan. Batzuek delikatu, bertzeak moldegaizki; batzuek mintzoari emaiten diote bertzetarik mintzaira diferentia; ordea, hargatik hekien hizkuntza mueta bat da, hala nola eskuararik bat bai ez baita». (Euskararen Hatsapenak, 54).

Onela itz egin zigun bere liburu batean, Eskuararen hatsapenetan. Eta Lapurdiri zuzendutako Gomendiozko Karta edo Gutunean dioena are argiagoa eta gogorragoa da:

«Eskualherritik ilkhitzen garen bezain laster, hizkuntza arrotzen premian jartzen gabela. Eta oraino, bertzalde, geure herritik ilkhi gabe Eskualherrian berean barrena, geure artean dugu pena eta nekhe ondikoizko hau: zeren geure hizkuntza propiala baitarabilagu hain nahasia eta trukatur, non eskualdunok gerok pena eta nekhe baitugu elkharren aditzeko.

«Ezperen bat bedi Nafarroa Beherearra edo Zuberotarra Bizkaitarrarekin, edo Alabesarekin, eta Otxagabierra edo Erronkalesa Baztandarrekin eta Lapurtarrarekin, edo zein-nahi Eskual-herriko aldebatekoa bertze alderdikoarekin, eta ikhusiko duzu elkhar ezin adi dezaketela; aitzitik, elkharri irudituko zaizkio Eskualdunak direlarik, eztirela hizkuntza bereoak» (318).

Au irudipen utsa dala esan digu leentxeago. Euskerarik, izan, bat bakarra baizik ez degula. Baiña nondik dator gure arteko ezbear au, ezin aditu au? Jakingarri dala uste det Etxeberryk ortaz dioena: «Hau heldu da, Eskualdunek bere hizkuntza propiala ez estimutan idukiz, eta munduko bertze gainerako jendaki guztiek bere hizkuntzan izkiribatzen duten bezala, Euskaraz izkiribatu faltaz. Baldin bertze hizkuntzetan bezala, izan balira lehenagotik liburuak eskuaraz izkiribatuak, hetan begiratuak eta altxatuak egonen ziren gauzen izenak, eta mintzatzeko hitz eta manera eskuarazkoak; eta gisa hunetan baliatu ginakeen hetaz mintzatzeko. Baina nola izan baitira hain

apurrak eta gutiak ezkuaraz argitarat ilkhi diren liburuak; hargatik aldebatekoak ezin jakin zetzaken bertze alderdiko hitz guztiak eta gauzen izenak. Eta hala denborarekin edozein lekhutan joan izan dira hitzak eta gauzen izenak, apur bana emeki emeki, bertze gauza guztiak bezala, trukatu, eroriz eta ahantziz» (319)

Emen eman digun iritzia ez al da gogotan artzekoa? Gure artean euskeraz idazteko oitura zabalduagoa izan bagenu, batzuen eta besteen euskera ezagutzeko aukera ohea izango genuen. Orrela, bazter bateko itzak bestera zabalduko ziran, eta ez ziran besteentzat ain arrotz eta bitxi izango. Orrela euskaldun guztiok elkar aberastuko genuen, eta aberatsago eta ugariago egingo geure euskera.

Baina beste ezbearrik ere izan degu euskaldunak eta ez du Etxeberriek salatu gabe uzten: «Lehenago Espaiña guztian eta Frantziako anhitz herritan Eskuaraz bertze mintzorik etzelarikan, egun dakusagu zein herri gutitan mintzo garen ekuaraz; eta oraino mintzo garenoi ere eskas zaizkigu hainitz hitz eta izen lehenagokoetatik. Zeren hekien lekhuan hartu baititugu bertze batzuek hizkuntza arrotzetarik; eta hek ere ez gisa berekoak guztiak; zeren batek hartu baitu hizkuntza batetik, eta bertzeak bertetik».

Ez ote dago argi asko? Gure izkuntzak ainbat adar ezberdin izateak baditu bi iturri, Etxeberriren iritziz: batetik, gure literatura urria eta elkarrekin artu-eman gutxiakoa izateaz, antxiñako euskeraren ondasun asko galdu egin ditugu eta lekuren batean bizirik iraun duten itzak ere ez dira beste lekuetara zabaldu. Bestetik, galera ori naiko ez dala, inguruko erderetara jo degu itz berri eske, galduen utsunea betetzeko. Eta inguruko erderak bitik gora diran ezker, ezberdintasuna geitu eta aunditu besterik ez degu egin, eta gura arteko zuloa, aditu eziña, aundiago biurtu.

Orra, euskeraren zorigaitza, egoera negargarria. Orra zergatik idazleak ainbeste kontua erabili bear duen, aztamuka, zoritxar ori irakurlearen onetan nola garaituko.

Mendiburu eta Kardaberaz

Kontu eta ardura ori ez zan izan Bidasoaz andiko idazleena bakarrik. Emendikoena ere izango da, emendikoak literaturarako beranduago esnatu bagiñan ere.

Amazortzigarren mendean asi giñan aspaldietako lozorroa astintzen. Larramendi aundiaren iritzi eta bultzadarekin batera. Ba-ditugu orduko bi idazle ugari eta bikain: Mendiburu eta Kardaberaz jesuitak. Bigarrena, zuen erritarra, Ernaniko semea.

Biok ikusi zuten euskera puskatan zatiturik. Biak jakiñean daude zatiketa orrek nolako kalte eta okerrak ekartzen dituen euskal-idazlearentzat.

Mendiburu mugaz andiko Etxeberriren iritzi berdintsukoa da. Euskerazko libururik gabez, euskerak anitz itz galdu ditu, eta nonbaiten bizirik gelditutako asko euskaldun guztiak ez dituzte aditzen. «Badira Nafarroan, euskarazkoak izanagatik, Probintzian geienak aditzen ez dituzten izketak edo itz egiteak, baitá Probintzian ere Nafartarrentzat berriak diruditenak; eta Probintziako bazter batzuetan aditzen dira beste askotan aditzen ez diran zenbait itz egite».

Beraz, Mendiburuk zer egingo du? «Non-nai aditu ditezkeanak billatu ditut, alegiñean artzen ditudala orretarako, euskerazkoak utzirik, beste zenbait itz». (Jesusen Bihotzaren Debozia),

Orrela esaten dio Jesusen Bihotzaren Debozioa-liburuaren sarreran irakurleari. Liburu oni Larramendik jarri zion beste itzaurre bat. Edo, zeatzago esateko, liburu orrek itzaurre bezela, Larramendik Mendibururi egindako karta dakar, orduko euskaldun gaizki-esale berritsuentzat batera leguntasunik gabeko karta, benetan. Gogor erasoten die Larramendik or euskera gutxi esten duten euskaldun eroei. «Gogaikarriena da, txarlari oiek ikustea ta aditzea nola dauden ixekaz ta muxinka euskera ederki dakitenen jolasari, bein Nafarroako *mintzoa* dala, gero Bizkaiko *berbeta don-gea*, batean *ausaz ere* Goierriko izketa dezula: bestean, *noaskiro*, Beterrikoa; atxurlarien eta nekazarien hitzera dala hura, baserritarra dirudizula, eta milla onelako astakeria. Ez dute izen oberik merezi».

Mendibururi, berriz, esaten dio ongi egin duela bateko eta besteko euskera naastean erabilliz. «Ongi egin dezu Nafarroa'ko hitzen batzuek ekartzea, egokiak diranean, eta besterik ezteanean. Zeren lenbizian eta bat-batean aditzen ezpadira, aurki adituko dira eta geienak dagoaneko aditzen ere badira; eta ala euskera bide batez edertzen eta ugaritzen da. Etzaitzatala tontotzarren erausiak ozpindu eta ikaratu... Zer degu, astoren batek edo bestek esanagatik ezatala onelako hitza emengoa, edo eztuela aditzen? Nafarroan *irri*, Bizkaian *barre*, Probintzian *farra* egiten zaiela onelako ta alako hitzen batzuei? Suertez ere neurri ederra genduke hizketarako, besterik ez-pagendu. Gizon zuhur, zintzo, menak eta jakintsuak gure alde ditugunean, eztegu jendalla oriei jaramon bear, ez eta aien esamesanaz ajolarik artu».

Urrengo liburuetan ere bide berdiñetik joko zuen Mendiburu zentzuzkoak. «Liburua bazter guzietarako egiña da, ta itz guziak ez dituzte era batean bukatzen euskaldun guziak... Liburu onetako euskera len egin nuenarena baño errezagoa da; ta angoa ere aditzen dute, dagoen bezala... Eta bein edo berriz zerbait galduagatik, laster oituko dira aditzen dituzten itzetara; eta beste bear ez diranak utzirik, artuko dituzte beren hizkuntzetarako itz euskaldun garbi leunak». (Otoitzgaiak, I, irakurleari).

Zer esan nai du onek? Euskaldunok bata bestearen bearrean gaudela, noski, elkarrengatik ikasi bearra degula, euskera osoago eta batago egiteko. Ez gaitezkelako bakoitza bere euskalkian sartuta gelditu, euskalkien gaiñeko euskera batera jo bear degula. Ortarako, gutxi ba zan ere, egin zuen zerbait Mendiburuk. Zuur jokatu nai izan zuen, bear bada zuurregi. Itzik zabalen eta adituenak erabiltzearen, orrela, gure ondasun asko lurpean utzi zituen, erraztasunari begiratu. Euskalerrri osoan ezagutzen ez ziran itzen batzuk erabilli bazituen ere, ez asko. Batasunaren billa dabillanak maiz egin dezake oker au.

Delako oker au Kardaberaz'ek ezagutu zuen, eta nolabait osatzen saiatu zan. Mendiburu Nafarroan bezela, Kardaberaz batik bat Bizkaian eta Gipuzkoan zear ibilli da Jaunaren itza zabaltzen. Gipuzkoa'ko eta Bizkai'ko euskera egiten badaki eta bietan idatzi du. Eta beti euskerarik jakiñenean, au da, batasunera jotzen duela. Gipuzkoako euskera utsa egitea ere ez zitzaion Bizkairako eragozpen; geienek atsegiñez entzuten zuten an gipuzkera. Baiña an ere ez omen zuten urrutiagorik ongi aditzen. Eta bertakoa gogozago entzuten zieten, noski. Orregatik, Kardaberaz'ek nai luke, Mendiburuk Nafarroarako egin duena beste norbaitzuk Gipuzkoara'ko eta Bizkairako egitea: kristau-erakutsizko liburuak bietan atera. Gipuzkoak eta Bizkaiak ez dute Nafarronk baño gutxiago merezi, eta premia andiagoga dute.

Ala zion berak: «Aita Mendibururen zelo andiak Nafarroako erara liburu eder probetxuzko asko atera dituen bezala, Jainkoaren ontasunari eskatzen diot, Bizkaiko biotz nobleren bati ango era ta dialektoan zeruko dotriña ta ejenploen liburuak ateratzeko, arren, argi zeloz ta gogoz bete bat eman diozala... Arimen onerako Bizkaiko, Nafarroako eta Gipuzkoako iru dialektoetan eskribitzea guztiz premiazkoa eta gauza bearra da. Gure izkera bien erdikoa bezala, Nafarroan eta baita Bizkaian ere aditzen da. Baiña ez Nafarrak Bizkaikoa, ta ez bizkaitarrak nafarrena aditzen dute; ta bata besteagandik urruti eta bakoitza bere bidetik dabil. Jainkoak zuzendu ditzala bere gloriarako». (Euskararen Berri Onak, 63).

Kardaberaz ez dago, orraitio, lan ortarako beste iñoren zai, eta berak ekingo dio lanari. Baiña nola idatzi?. «Emen usatzen dan izkerarik jakiñenean», Bizkaiko ta Gipuzkoako jakintsu askorekin itz eginda gero. Bizkaieraz ere bai. Eta Bizkaitarren-tzako liburu batean, lege zentzuzko eta egokiak ematen ditu, Bizkaiko euskeraz jatorrago eta garbiago idazteko.

Mogel

Sail au bukatzeko, Bizkaitik datorkigun iritzi bat jaso dezagun. Mogel zaarrenaren liburu bikaiñean, *Peru Abarkan*, arkitzen degu, bostgarren jardunean. Peruk eta Maisu Joanek elkarrekin darabilkiten jardun ortan, azken batean, beste bi sartzen dira izketa-lagun, bata giputza, eta bestea Bidasoaz andiko euskalduna, «prantzesari». Peruren adiskideak dira biak, eta bakoitzak bere euskeraz diardu. Ez dute irurak elkar aditu eziñik, bakoitzak bere euskera erabilliarren. Maixu Joanek ez dio ain ondo ulertzen prantzesari. Arriturik dago, entzuten duen izketa euskarazkoa danik siñestu ezinik. Ortik sortzen da onoko eztabaida au:

«Peruk: Ez dakit onen euskeria aituko dozun.

M. Joanek: Zer, euskeria izan ta nik aitua ez?

Peruk: Ni eginda nago oneei entzutera, ta zuri baizen ondo aituten deutset».

Peruk prantzesarekin jardunalditxo bat eginda gero, ea ulertu dien galdetzen dio Maixu Joani, eta onek erantzun:

«Berba banaka bat bai, ezer ez geiago. Orren arin esatea, jijaka berbak aitatutia ez da neretzat». Eta ez du siñestu nai euskera danik ere entzun duena, bai adarra jotzearren asmatutako izketaren bat. Eta Peruri berriz galdetzen dio:

«Peru, ta zuk aituten dituzula berba-saltsa ta gatx orrek?».

Peruk: «Bai nire emazte ta umiak bere».

M. Joanek: «Zelan ori, itoaren itoz eta arin esan biarrez ta amasa-ots batzuen artean badiño guztia?».

Peruk: «Alan uste dozu zuk; baiña egingo baziña soinu onetara ta aitua berbak, etzenduke orrelangorik esango. Neuk bere lenengoz etorri zanian, ez neutsan zeuk baiño geiago entzuten; baiña orain txit ederto derizt».

Prantzesak berak aitorten berdintsua, antzerakoa, egiten du:

«Neri ere Bizkaira ethorri nintzen lenbiziko egunetan, zuri bezala gosta zitzaitan emengo euskera aditzen. Orain berriz nerea bezela aditzen dut».

Peru Abarkan ikusten degun prantzes au ez da, noski, Mogelek asmatua. Prantziako matxinada inguruan, mugaz andiko euskaldun eta erdaldun bat baiño geiago,

askotxo, etorri zan onuntz, eta Markiñan ere gelditu zan bat edo beste. Arrezkeroko abizenik ere bada gaur Markiñan, bat Duralde beiñik bein. Eta olako orri gertatuak argi berria ematen digula esan genezake, gure euskeraren banatasuna eta batasuna ikusteko. Euskera, zatitan banandua egon arren, bat dala adierazten digu. Etxeberri Sarakoak zioena. Eta elkarrekin jarduteak, artu-emanak izateak asko laguntzen duela esaten digu besteen euskerara belarria oitzeko, eta batasunera bidean jartzeko.

Emen bukatzen det itzaldi onen leenengo sailla. Iru edo lau irakaspen atera ditzakegula uste det esan degunetik. Gure klasikoek erakutsi digute, leenbizi, gure izkuntza banandurik, zatiturik, dagoela, euskera ez dala euskaldun guztiengan berdiña.

Gero, idazle batzuek erakutsi nai izan digute zerk egiten duen, nondik datorren euskera ain banandua eta zatitua egote ori. Elkarrekin artu-eman gutxi izatetik omen dator geien batez, elkar gutxi ezagutzetik, literatura urria eta ezberdiña izan eta bera ere ez irakurtzetik. Gero, idazleak geienetan beldurrez bezela ibilli dira, irakurleek ulertuko ez ote dituzten. Orrela euskera murriztera egin dute; leku bateko euskera bestekoarekin aberastu bearrean, uzkur ibilli dira, beldur izan dira bakoitzak bere aberastasunak besteei eskaintzen. Eta ez da or gelditu gure okerra. Txarrena izan da erderara jo degula, guk uzkurtasunez eta beldurrez galtzen utzitako itzen utsuneak betetzera. Ortik ere banakuntza-iturri berri bat sortu zaigu, bakoitzak urbillen izan duen erderara jo duelako, emengoak Gaztelakora, eta angoak Prantzia eta Biarnokora.

Euskera zatitu ori ikustean, zer egin dute gure idazleek geienetan? Ahalik eta euskera batuena, jakiñena eta zabalduena egiten saiatu. Neurri urrian baizik ez dute egin Larramendik Mendibururi esaten ziona: noizik bein beste euskalkien bateko edo beste erriren bateko itzak erabiltzea. Mendiburuk egin zuen, bai, noiz edo bein, eta ori euskerarentzat aberasgarri izan da. Geienak beldur ziran, erreztasunera, ulerterrazago izatera jotzearren. Mogekek esan digunetik atera genezake ez zutela orrenbesteko beldurrik izan bear. Badirudi Mogel ez datorrela guztiz bat Kardaberazek eta Etxeberrik esan zutenarekin: alegia, Bizkaiko euskaldunak ez duela Napparren euskerarik aditzen. Artara oitzea, ori da guztia, or dago kinoa. Peruk eta Prantzesak leenbizikotan ez zuten elkar aditzen; gero, berriz, ederki. Elkar entzutera oitzeak dakar aldaketa ori.

Gaurko egunetan ere, orixe litzake askoren iritzian, batasunerako biderik garbiena.

II

Baifia oraingo joerak beste bide batetik dabilta, noski. Leenagoko idazleek, klasikotzat dauzkagunek, nolabaiteko batasuna egin-naia ba-zuten, bai, bakoitzak bere euskalkian bederen. Orain gorago jo nai da: euskalkien arteko edo gaiñetiko batasuna lortu nai da, euskera idatzian beintzat. Beste izkuntza landuetan bezala, euskaldun guztientzat euskera bat jarri nai da eredu nagusi, eta ori goitik bera ezarrita.

Joan dan mendean, emeretzigarrenean, asita gabilta asmo auetan. Eta leen leenik, ortografiatzeko batasuna egiterako joera izan genuen.

Nortzuk izan ziran aurrelari? Nortzuk eman zituzten leenengoko urratsak, pau-soak, emen, ortografiaren sail ontan? Saia gaitezen erantzuten, ea askoren iritzi okerrak zuzentzeko aiaña argi egiten degun.

Askok uste izan dute, eta uste dute oraindik, ortografiatzeko auziak gure artean Bidasoaz onuntzeko euskaldunok sortuak ditugula. Eta ez asmorik garbienaz sortuak, gaiñera, erdaldunenganik bereiztearren, edo gere buruak nabarmentzearren edo olako arrazoiren bategatik. Ez da ola, ez ala. Oso bestela baizik.

Gai ontan bide berririk urratzen ez giñan emen asi, Bidasoaz andiko aldean baizik. Nondik asi bear zuen? Literatura asi zutenen aldetik asi bear. Berezkoa da. Esaterako, Leizarraga bera asi zan K erabiltzen: bekatu, ukan, ekarri eta ola, geroa-goko beste batzuen kh-ren ordezkoa. Toki berean Etxeparek beccatu jartzen zuen, h-rik gabe, bi letrekin, baten orde. Jakiñak dira, edo jakintzat ematen ditugu Oihe-narte-ren alegiñak, H letratzat ez on artzeko. Au ere neurri batean Leizarragaren eskolakoa zan: baiña ura baiño aurrerago zijoan: bake, adiskide, uken, bekaiz, eki, eta ola idazten zuen, eta beste tarteko H-ren ordezkotxo bat erabilten zuen: *bet'e*, ez *bethe*.

Baiña antziñakoen ezbai eta joerak utzita, goazen oraintsuagoko batzuetara, XIX'garren mendeko saio berrietara.

Aipatzekoak dira bi bide-urratzaile: 1838-n, *Andre Dena Mariaren Ilhabethea* argitaratu zuena, eta Luis Luziano Bonaparte. Nor zan leenengo ori? Badirudi gero ere idazten jarraitu zuen apaiz bat zala: Jauretche apaiza.

Nola nai ere, 1838'ko liburuaren egilleak bide berri bat urratu nai izan zuela ukatzerik ez dago. Argi eta garbi esango zuen euskerak bere idatz-legeak, bere ortografia izan bear zituela; eta berak ortarako arau batzuk ematen zituen.

Onen urrengo, Bonaparte Printze jauna izan zan bide ortan pausu berriak emango zituen. Ez zan bera euskalduna. Ala ere, Euskalerriko euskera berezi guztiak aztertzen ari baitzen, beste iñork baiño argiago ikusi zuen ortografia berri baten bearra, eta euskerarentzat egokiena zeritzana asmatuko zuen.

Bi auen ondoren, eta berauen bidetik datoz gero Bidasoaz onuzko saioak. Bonaparteri jarraituko zion Manterolak gure artean, eta Jauretche eta Bonaparteren ildotik ekin zion Aizkibekek bere Iztegi aundian. Geroago sartu ziran Azkue eta Arana Goiri, bide berriei azken eskualdia edo ikutua ematen.

Baiña goazen poliki eta astiro, eta ikusi dezagun nondik nora zebillen *Mariaren Ilhabethearen* egilea 1838-n

Aurrenik, gure ortografiaren anarkia erakusten zigun, gure arteko legerik eza, araurik eza.

Euskal-idazleek erdal-ortografiari jarraitu omen diote geien batez. Baiña argi omen dago euskerak bere soiñu eta otsak ba-dituela eta ortaz bere ortografia bear duela. Ez bedi aipatu oraiñarteko usakio edo oiturarik. «Ez bedi ekhar, dio berak, oraiartinoko usaia; usaia klarki gehienentzat kaltekor denean, utzi behar da gehienentzat ona denaren hartzeko». Onekin ez du besterik eskatzen euskerak beretzat on dituen letrak artu bear dituela baizik, eta on ez dituenak utzi. Idazle onek ez du nai

bere burua ortografi berri baten asmatzaille azaldu. Gai ontan jakintsu diranen irakatsietatik euskeraz idazteko legeak atera, besterik ez du egin nai.

Iru dira Jaureche dalako onentzat legeak: leenbizikoa, izkuntza bakoitzerako ez degu artu bear izkuntz ortan ez dan soñu edo boza dakarken letrarik: bigarrena, soñu edo boz bakoitzarentzat ez da bear letra bat bera besterik; irugarren legea, oraino gutxiago erabilli bear da letra bat bera soñu bi edo geiagorekin.

Iru arauok gogoan dituela, idazle onek letra batzuk kendu egingo ditu euskal-alfabetotik: *q*, *v*, eta *y*; *g-k* beti soñu berdiña izango du; berdina nai du *c* letrarentzat, edo kendu eta aren orden *k* erabilli; *z* biguñaren ordezkua danean, beti *zeta* idatzi. Orrela euskal-ortografia ia gaurko legean gelditzen da. Bakarrik, *x* eta *tx* idazteko ez du ezer berririk asmatu eta leenean utzi ditu, bata frantzes erdaldunen *ch* utsa, eta bestea, berriz, *ch* ori bera, *t* aurretik duela.

Jaurechek eman gabeko pausuak geroxeago Bonapartek emango zituen. Eta or daukagu, azken batez, Aizkibelek eta Materolak Gipuzkoan eta Luis Iza Agirrek 1881-garren urtean Bizkaian sartu zuten ortografia.

Orduan asi ziran Bidasoaz emendik xeetasun geiago eskatzen eta laster agertzen dira Azkuek eta Arana Gorik zabaldu zituzten legeak.

Bi auen inguruan sortu ziran eztabaidarik gogorrenak, beti elkarrekin aditu eziñik, batzuek eta besteak elkarri amor emateko gogo gutxi erakusten zutela.

Eztabaida auek mugaz emendiko aldean gertatzen dira. Baiña, azkenez, ango eta emengo, guztiek elkar artu eta ulertu naia erakutsi zuten. Orretarako batzorde bat jarri ere bai, Adema Zaldubi idazlea buru. Utsean gelditu zan dana. Batzordeak porrot egin zuen. Eskola guztietakoak, joera guztietakoak ziran tartean, Arana Goiritarren aldekoak ere bai. Batzarrak uts egin zuen. Noren erruz? Bototara erabaki bear ziran eztabaidak, eta Aranatarrak beste guztiak baiño batzarkide geiago ziran batzarrean, beren artean gai artan iritzia emateko eskolarik naiko ez zutenak ere bai, besteek ziotenez, eta orrela besteok ez zuten jarraitu nai izan. Orrela aurrera egiterik ez zegoela-ta, etorri zan bidetik itzuli zan bakoitza etxera, ezer erabaki gabe. Ez dago beste istillurik emen. Eta ortografiari buruzkoa zan auzi guzia, ez euskera batuarena. Ez da ere egia (oker dabiltza bestela diotenak) ango eta emengoan artean orduan alkar aditu eziña sortu zala. Ain zuzen orduan edo ordutik aurrera artu zuen indarra ango eta emengoan arteko elkarte batek, *Euskalzaleen Bitzarrak*.

Urrengo alegiñak ortografi-batasunerako, Euskaltzaindia sortu zaneakoak dira. Ia ogei urte geroago. Euskaltzaindiaren eskuetan jarri zan auzia, eta onek eman zuen bere erabakia 1920-ko urtarrillaren 8-n, Aranatarren arau batzuk ontzat emanez eta on artuz: *erre* gogorra ere, gaiñean puntu batekin, ontzat eman zuten, eta *d*, *t* eta / bustiak ere bai, gaiñean marratxo batekin, eta *x* eta *tx*, bata prantzesen *ch* eta bestea gaztelarrena idazteko. Azkenengo letra auetan zeukaten aldea Azkuek'k eta Aranak, ain zuzen, eta Euskaltzaindiak Aranaren aldera erabaki zuen.

Urte batzuk geroago, 1939-n bukatutako gerratearen ondoren, Euskaltzaindiak erdi ixilpean ziarduela, letra marradun edo txapeldun aien orde, letra bikoitzak erabilli zitezkeala erabaki zuten: *erre* bikoitza, alegia, eta *d*, *t* eta / bikoitzak. Ortan dago gaur ortografi-batasuna. Batasun nolako erantzuna izan zuen euskal idazleen artean? Bidasoaz emendik, geien batez, aintzat artu zutela esan bearrean gaude. Bidasoaz andik ez zuen erantzun ain biribillik artu. Eta gaur ere ortan gaude.

Auzi ontan, norbaitek esan dezake ez degula H-ren aipamen aundirik egin. Gauzak gaurko begiz ikusita, emen utsune bat dagoela esan lezake norbaitek. Ez da olakorik. Zergatik egin bear genuen letra orren aipamenik, ortaz ez baitzan izan eztabaidarik ez auzirik, ez aurka ez alde. Bai; gaurko giroan sartuta dauden batek bear bada ezetz uste arren, ala da. Leenago ez zan izan oraingo borrokarik: H bai, ala H ez. Emengoez ez ziran leiatu angoei H kentzen, eta angoez ere ez zioten emengoei letra ori sartzekorik eskatu. Ortografi-utsezko eztabaidak ziran ordukoak, zein soiñuri edo zein otsi zein letra egokiago zitzaion erabakitzeoak. Ori zan guztia. Eta H orri buruz, ain zuzen auzia erabakitzat eman zitekean: letra ori erabilli bear zan, letra orrek berea zuen arnas-otsa adierazteko. Oihenarte andiaren iritzia edo joera, H ori letratzat ez onartzekoa, euslerik gabe gelditu zan eta aazturik zegoen. Eta H-a or gelditu zan bizirik bere soiñua erabiltzen duten euskalkientzat, baiña andik kanpora iñork ez zuen ezer jokatu letra orren alde. Ez orren, ez Zuberotarren ú-ren alde.

Oraingo joera urte gutxiz onuzkoa da. Batez ere, Baionako batzarretik onuzkoa. Emengoen artean iñork leenago erabilli badu, ez da izan letra orri gure euskalkietan leku eman eta sartzearren, batasunerako euskeratzat Lapurtarren euskera edo antzekoa artzearren baizik.

Gai ontaz ez det luzaroago jardun nai. Esana aski bedi.

III

Ortografi-batasuna egin ondoren, euskera berdintzeko alegin eta saioak datoz urrengo. Au ere, Euskaltzaindiaren ardurapean, Euskaltzaindi sortu-berria bide-erakusle dala.

Urrats au urrats berria, pausu berria degu. Artean lau euskalki nagusi genituen, laurak nolabait berdinduak eta geiago edo gutxiago landuak, bakoitza bere literaturarekin. Emendik aurrera, aiei guztiz agur egin gabe, baiña aien gaiñetik, euskera bat lortu nai da, euskaldun guztientzat eredu jartzeko bezelakoa. Ortara iritxi nai liteke, beintzat euskeraren literatur-mailla baterako.

Euskaltzaindia sortu zaneko azaldu zan asmo eta ames ori. Gure izkuntza bat egitea, edo batasunera bidean jartzea, ori izan zan Euskaltzaindiak aurrean jarri zituen elburuetatik bat, eta ez garrantzirik gutxienetakoa. Oraindik ez du iritxi. Gauza zailla izan, noski, ez berez berezko lana. Baiña alegiñik egin da bide ortatik, leen eta oraiñago.

Leen eta oraiñago esan det. Au esanaz, bi aldi berezi nai ditut batasunaren billa egin diran saio eta ekiñaldietan. Biei gain-begiratu bat egiten saiatuko naiz.

Leendabiziko aldia, Euskaltzaindia sortu-berritakoa.

Egia esan, batasun-nai au ez zuen Euskaltzaindiak berak sortu. Ikusi degunez, ez ziran egon euskaldunak leendik ere beren gaitzaz konturatu gabe. Eta gaitz ori sendatzeko alegiñik egin gabe ere ez. Baiña zenbat eta elkar ezagutuago, zenbat eta euskal-gogoak sustrai sendoagoak bota, geiago nabaritzen zan euskaldun guztien euskara bat izan bearra. Eta gureak berez esnatu ez balira, or zeuden atzeritarrak

gogoratzeko. Laster dira, ain zuzen, eun urte, atzerriko izkuntzalari batek (Hovelacquek) onako zerbait esan zuela: «Izkuntzarik geienek, tokian tokito izkeraz gaiñera, beste zabalduago bat ba-dute, alkar artuz bezela sortua, eskolan edo nonbait ikasia, eta literaturak erabiltzen duenaren antzekoa, edo aren urbillekoa. Euskalerrian ez da olakorik gertatzen; idazle bakoitzak bere euskera du».

Izan ere, ala da; guk lau bost euskera ba-ditugu. Euskaldun guztiek elkar errez ulertzeko euskerarik ez da gure artean sortu. Idazleek pausu txiki batzuk eman dituzte aurrerago joateko, baiña bakoitzak bere euskalkiaren barruan, euskaldun guztiek elkar aditzeo erarik lortu gabe.

Idazleek banaka lortu ez zutena, nork edo zerk lortu zezakean? Geienak Akademia baten begira zeuden. Iñork ezer lortzekotan, Akademiak lortu bear zuen. Akademiak ezarri bear zuen batasuna ortografian, idazkeran, eta berak urratu bear zituen euskera batu baten bideak ere. Iritzi ortakoak ziran okerra zuzendu nai zuten geienak. Eta orra ortako ordua iritxi, orain dala berrogeitamar urte.

Ordu orren begira, lentxeago asiak ziran, bai, saiaketa bat edo beste, esaterako, Azkuek bere *Prontuario de la Lengua Vasca* liburuan egiña, Gipuzkera osotuari bidea iriki naiez.

Baiña egia da gero Euskaltzaindiak artu zuela bere gain egiteko au. Iru elburu izango zituen Akademia sortu-berri orrek, onela zion lenbiziko urtean zabaldu zuen orritxo batek. Iru elburu: leenbizikoa, euskeraren ortografia bat egin; bigarrena, iztegia garbitu eta osotu; eta irugarrena, euskera literario bat, euskaldun guztientzat balio zezakena lortzen lagundu. Irugarren elburu au gero Euskaltzaindiaren arauetara eraman zuten. Eta bertatik ekin zioten lanari.

Zer egin zuten, egin? Leenbizi, ortarako zer giro zan ikusi, iritziak eskatu. Batasunik bai ala ez, eta nola egin.

Leenbiziko galderak baiezkoa artu zuen geienen aldetik. Zailena gelditzen zan: batasuna nola egin?

Bi euskaltzainek, Kanpion eta Broussain jaunek, eman zuten aurretiaz beren iritzia. Bi bide arkitzen zituzten egokienak batasunerako: leengo euskalki landu-netako bat artu literariotzat euskera idatzirako; edo beste euskalki bat, bedera-tzigarrena, sortu, leengoetako bat oiñarri arturik.

Euskalki zaarretan, zaarrez eta landuago zelako, Lapurdiera ikusten zuten landuena eta egokiena ortarako. Baiña Lapurdiera zaarra orain illa degu. Lapurtarrek ere ez dute erabiltzen. Naiko aldatua daukate. Beraz, bide obetzat zeukaten gaurko egunetako euskalki biziren bat autatzea: gipuzkera, edo gipuzkeraren urbillekoren bat. Batez ere, gipuzkera, guztien erdian dagoelako, eta euskaldun geienentzat ulertterazena dalako. Baiña ez gipuzkera utsa ere. Nola galtzen utzi beste euskalkietan gorde diran ainbat ondasun? Beraz, gipuzkoarren euskera besteen ondasunez osatu egin bear zan.

Euskalerrriaren iritzia jakiteko, lau batzar antolatu ziran bereala: Bilbon, Donostian, Lekarotzen eta Hazparnen. Idazle batzuek, berak beretara ere, biali zuten beren esatekoa.

Iritzi-emaille guztiak ez zetozten bat. Batzuek zioten ez zala, beintzat, euskalkirik ito bear; ori euskeraren eriotzea izango zala. Euskalki bakoitzean batasuna egin, bai; besterik ez zuten nai, euskera biziaren kaltegarri edo ilgarri izan ez zedin. Iñor

beartu gabe jokatu bearko zan, nola nai ere. Beste batzuentzat, euskeraren bizia, euskeraren etorkizuna, euskera batuan zegoen. Eta iñongo euskalkirik artu bear bazan oiñarri, botorik geienak Giputzen alde zeuden.

Aldi artan erdaldun izkuntzalari batek (Ramón Menéndez Pidal'ek) itzaldi bat eman bear zuen Bilbon, eta egun aietako gai oni buruz oar batzuk egiten zizkion Euskaltzaindi sortu-berriari, Euskal-Akademiari, Kanpion eta Broussain jaunen ageria irakurri ondoren.

Bera ez zan jaun oien iritzikoa. Menéndez Pidal-entzat Euskera batuak erriarena izan bear zuen. Baiña gipuzkera batu ori, Kanpionek eta Broussain jaunak azaltzen zuten ori, izan zitekean erriarena? Ezezkoan dago erdaldun izkuntzalaria. Orregatik, beste bide bat erakusten du batasunera irixteko. Gogoan du, leenbizi, izkuntza ez dala gramatika-bidez sortutako ezer, bai gizarteak, erriak sortutako zer bait. Munduak ez dauka, ez, izkuntza berri bat sortu ezinik; baiña ez omen da ortara iritxiko, izkuntza berrikeri asmatuz, volapukbat edo sortuz, edo beste izkuntza batzuk naastekatuz.

Menéndez Pidal orren eritziz, euskaldunek euskera bat izan ezinik ez daukate; baiña ez dute beingoan edo bat-batean lortuko. Lapurdiera naiz gipuzkera neurri egoki batean naasturik, gaiñera beste euskalkietako ondasun batzuk ari ezarrita, ez litzake gauza izango orrelako euskera batean liburuak ateratzea ere; baiña, aren iritiz, ori ez da sekula erriarena izango. Orrela euskeraren bizia etenda geldituko litzateke. Olako euskerak leengo mendeetako euskerarekin lokarri gutxiegi izango luke. Euskaldunek ez al dute beren euskera orrela ilko, ez Bizkaikoa, ez beste iñongoa.

Ala ere, euskaldunek euskera literario bat bear dutela eta nai dutela dirudi. Ezingo al dute ori iritxi, artifizialkeriarik gabe? Baietz uste du Menéndez Pidal-ek. Artifiziala, itxura utsezkoa izango da landarea, alanbrezko adarrez eta paperezko ostoz omitzen badegu; baiña ez da olakoa izango, azia erein eta lanaren lanez ernerazi eta azten laguntzen baldin badiogu. Orrelakoak izan bearko du euskera batuak ere, baldin errian sustraiak artuko baditu, eskolatu gutxi batzuek erabiltzeko tresna izango ez bada. Zer egin dezake, beraz, Euskaltzaindiak? Esaterako, indarrak geien erakusten duen euskalkiari aurrera egiten eta zabaltzen lagundu lezaioke. Euskalki bakoitzak erakutsi dezala bere gaitasuna, zeiniek daukan zabaltzeko edo edatzeko bizitasunik eta kemenik geien, eta beste euskalkien ondasunak beretzeko indarrak geien. Olako euskalkiak berez artuko du indarra idazleen lumetan. Eta idazleek lagunduko diote beste guztien artean nabarmentzen eta gaiña artzen. Orrela sortuko dira idazleen lumetatik itz berriak ere. Eta itz berriok berak berez nausituko dira, piskaka, ia igarri gabe.

Egiteko ontan euskaldunak ez zuten urduriegi ez lasterregi jokatu bear. Ez eta aginduz, goitik bera, legez ezer ezarri.

Euskaltzaindiak ez zuen aldi artan jokatu izkuntzalari erdaldun onek erakutsitako bidetik oso urrutiturik. Ez zan legez ezer erabaki, ez agindu. Beste bide batzuk edo egiteko batzuk zeuden ordukoz beiñagoak: Euskera sakonago aztertu eta ezagutu, gramatika osoago eta jakite-argiz omituago bat atera, iztegia ugaritu, euskalki guztien ondasunak bildu. Bide ortatik joaz sortuak dira Azkue-ren Morfologia, errietan egingako azterketa edo Erizkizundia, itzen eta aditzen formarik erabillienak jakiteko; ortara zijoaizten Iztegi alik osoena egiteko lanak. Ortarako izan ziran, esaterako, Aita Oyeregiren itzik zabalduenezko iztegia. Azkue jauna, gaiñera, berak leenago eta gero

geienen gogoko gertatu zan bideari ekin, Gipuzkeraren inguruan saiatu zan euskera batu moldatzen eta ala bere Gipuzketa Osoa dalakoa eman zigon, literatur-euskeratako oiñarri edo enbortzat Gipuzkoakoa arturik.

Azkuek berak jokatu zuen Gipuzkera Osoa orren alde beste inork baiño su ta gar andiagoz. Onela zion, Euskaltzaindia sortu aurretik, Gipuzkoako Diputazioari eskini zion liburu batean: «Gure euskera zar oni, antziñako izkera guztiai bezela, umetsua izateak beronen bizia erruz erkintzen dio. Bakarra izan balitz, euskaldun geienok ezkenduke adiskideen artean erderara jo bear izango. Ezin bakartu dezakegu, batu bai... Oso ta nun-nai zabaltzeko indardun izango litzake bat egitea eskuratu (lortu) ezker. Gipuzkoako izkelkia (euskera) dugu onetarako gaiena; beronen gainean izkera batu liteke; bazterretako izkelkien gainean ez, erraz beintzat. Jaunak Euskal-erriaren erdi-erdian Gipuzkoa eta izkelki guztien muintzat berarena jarri duen ezkeroztik, Gipuzkoak ar beza, beste Aldundiak baiño ere gogozago, izkera bati bizibidea emateko ardura eta arloa».

Gipuzkera osoa ortan egin nai izan zuen Azkuek bere *nobela Ardi Galdua*. Eta onen itzaurrean berriz ekiten dio bere leloari: «Euskera ilgo ezpada, noraezekoa, nai ta nai ezkoa degu izkelki bati, dialekto bati euskaldun guztiok errazen ulertzen degun izkelkiari, Urumea-bazterrekoari indarra eta kemena ematea».

Eta geroago, Gipuzkera osoa atera eta gero, batasun-billa Bilbon, Donostian, Lekarotzen eta Hazparden egindako batzarrak aipatu ondoren, bere egiten ditu beste Bizkaitar baten itzak, Biktor Garitaonaindiarenak: «Nire aburuz, Gipuzkoako izkelgia autetsi bear da, beste izkelgiak baiño obari geiago dituelako bere alde. Errazago da, bai zabaltzeko eta bai ulertzeko. Beste guztien erdian arkitzen da; eta errazago da erdikoa bere inguru edo alboetara zabaltzen ertzak bat egiten baiño. Bizkaitarrak ulertzen dabe Gipuzkoarren izkera, Gipuzkoarrak ez Bizkaitarrena. Zuberotar edo Lapurtarren artean ori bera jazoten da (gertatzen da). Idazle guztien euskera ori ez da izango gaur egunean itz egiten edo idazten dan Gipuzkoera, baizik osoa, apaindua. Artu, bai Bizkaiko eta bai Zuberoko eta bai Napar eta Lapurdiko izkelgi edo euskerak dituzten edertasun eta obekuntza bereziak eta Gipuzkoako izkelgiari ezarri».

Ora Gipuzkera osoa nai zutenen elburua. Eta bide ortatik egin ziran alegiñak eta saioak, ogeitamaseiko gerratea etorri zan arte. Orduan bai Euskaltzaindiaren lanak, eta bai euskerazko lan guztiak, etena izan zuten zati baterako, Euskalerrria indarrak menderatu zuen ezker.

Eta berriz euskeraz eta Euskaltzaindiak burua jasotzen asi ziranean, beste joera bat dator. Nola? Nortzuk dakarte joera berria?

Bi izen aipatu nai ditut emen: Krutwig jaunarena, eta Lafitte apezarena. Bata, aita alemanaren semea, Bizkaian jaioa; mugaz andikoa bestea. Batez ere, Krutwig jauna izan dala uste det nik oraingo bide berrien aita. Ez zuen berak euskera amaren altzoan ikasi, bai liburuetan eta an-oriko erritar batzuekiko elkar-izketaldietan. Jaun onek erdiz erdi artu nai izan zuen Lapurdiera zaarra batasunerako oiñarri bakartzat. Gazterik zabaldu zizkion Azkue jaunak Euskaltzaindikoa atea. Eta andik, barrutik ekin zion bere lanari.

Idazle zaarretan billatu bear omen zuen euskerak batasunerako bidea eta iturria. Gure idazle zaarretan ospetsuenak, landuenak, ongien idatzi zutenak, Lapurtar zaarrak

artu bear omen genituzke eredu, eta ez iñondik iñora ere oraingo lapurdiera, Manexkutsua dariona.

Krutwig jaunarentzat, gaiñera, Lapurdi dago, ez Gipuzkoa, Euskalerriaren erdian. Eta mapa buruz bera jarrita, alegiñak egiten zituen ori ala zala erakusten, egiztatzen.

Aren iritziz, lapurdiera zaarra artu, eta eginda daukagu batasuna. Ori bai; edozein idazleri antz emango zaio nontukoa dan, bakoitzari geñdituko omen zaio bere kera eta antza, beste izkuntzetako idazle askori gertatzen zaion bezela. Baiña bide zuzena eta bakarra or degu, eta ez beste iñon. Ortan jaun onek ez zuen zalantzarik.

Krutwig jaunak bere eskolara ekarri zuen aita Villasante. Bere eskolara, eta Euskaltzaindira. Eta orixe izan zan ain zuzen Euskaltzaindian sartzerakoan artuko zuen itzaldi-gaia. Giro ortan du sustraia beste Bilboko idazle baten joerak ere, Aresti jaunarenak, alegia. Eta onen ildotik dabiltzan beste oraiñagoko batzuen joerak ere, bai.

Euskera iltzat leen baztertu zana, Lapurdiera zaarra, orixe jarri nai digute euskera idatzi eta literarioarentzat eredu eta lege.

Joera orrekin aurrez aur, bekoz beko, daukagu Lafitte apez zentzuzkoarena. Onek ere batasuna maite du, eta batasuna nai luke, mugaz andiko idazleentzat beñik bein. Lapurdiera zaarra iltzat dauka, eta oraingo lapurdiera eta Nafarroa Behereko euskera ein batean naasturik egin du andiko aldeko guztientzat lege nai luken euskara eta euskal-gramatika.

Lafittek uste du Euskaltzaindiak ariñegi, lasterregi jokatu zuela Gipuzkerari begira jarri zanean. Gipuzkera nekez on artuko dute beste aldean. Eta arako beintzat euskera batu bat nai du: ez Lapurdiera berria, ez Naparrera, bai bien artekoa, Zuberoko euskera-tanta batzuekin naaste. Euskera ori nausitu omen da ango idazle eta sermolaririk geienen artean, Zuberotarren artean izan ezik. Geiena Lapurdikotik artu du, au baita landuena, literaturarik ugariena izan duena. Leenari zor zaio berea. Baiña ez geegi. Orregatik, dana Lapurdiera izan ez dedin, napar-euskeraren kutsu apur bat sartuko zaio, eta Zuberokotik ere bai zerbaitxo.

Ori da Lafittek bere Gramatikan erakusten duen euskara, napar-lapurdiera. Jakiña, batasuna au Bidasoaz andiko alderako da. Bidasoaz onakoentzat ez du Lafittek legerik eman nai. Ala ere, ez uste, euskaldun guztien batasuna gogoan ez daukanik. Ori ere piskaka piskaka lortu daitekena da, eta opagarri. Noiz edo bein etorriko al da! Bien bitartean, egin dezagun bakoitzak geure aldeko batasuna. Beste ori, urrenez urren, gogorregi jo gabe, emeki emeki, idazleek ekarriko digute. Ori da maixu onek nai lukena.

Auen ondoren, bear bada, beste batasun-saio batek merezi luke aipatzea. Beronen bultzatzailea: J. Basterretxea jauna. *Oskillaso* ezizenak egin du ospetsu. Egia esan, berandu samar azaldu da euskal-alorrera. Baiña bai bizi zekarrela batasunaren kezka. Eta artarako bide bat asmarazi dio kezka orrek. Izena ere berria asmatu du bere ume orrentzat: *Euskera osotua*, ez ain zuzen *Gipuzkera osotua*.

Entzun dezaiozun berari, *Kurloiak* izeneko liburuaren sarreran bere asmakizuna azaltzen: «Orai direla hogeit ta amar bat urthe hasi giñean euskaldunok batasunaren bilha, eta egin dugun aurrerapenez konturatzen geranean, arras laburra iduritzen zaigu denbora hori.

«Lapiko batzuekin azalduko dizut dana, irakurle.

«Hasieran zazpi lapiko geneuzkan: Bizkaiera, Gipuzkera, Napar Garaikoa, Napar Beherekoa, Lapurdiera, Zuberoko euskera ta Erronkarikoa.

«Lapiko bakhar bat behar genuela ta bat hautatu ta beste lapikoetatik tanta batzuk bota genizkion. Hunela sortu zan lehenbiziko batasun-euskalkia.

«Gero, Peruk, Pemandok eta Manexek dastatu behar zuten eltze huntan gordeten zana. Huna zer erran zuten:

«Peruk: «Etxat gustetan lapiko hau», erran zuen, «neurea gustetan jat askozaz gehiago; baiña tira, beharrezkoa dogu batasuna eta iruntzi egin beharko dogu».

«Pernandok: «Gusto bikaiña du. Ba-aldago eltze oberik?, erran zuen.

«Manexek, berriz: «Eztut iresten ahal, erran zuen. Etzait laket».

«Anhitz liburu egin ziran lapiko bakarrarekin. Ikus dezagun orain nola egin ziran, zelako abegia egin zioten irakurleek, eta zer gertatu zan gero.

«Buru-hauste asko eman zioten Peruri liburu hauek, eta bizkaiera hutsezko liburuak bethi bezala idatzi eta irakurri arren, saiatu egin zan Gipuzkera Osotuan idazten eta irakurtzen. Manexek etzituen ulertzen liburu haiek. Baiña Pernandorentzat errezak eta pozgarriak ziran. Etzan gelditu Manex lanik gabe eta opor egiten. Huna zer egin zuan gero batasunaren alde: lapiko handi bat hartu, Lapurdiko eta Benaparroako eltzeak osorik hustu lapiko handi huntan, eta Zuberoko lapikoaren erdia bere bamera bota zion. Eragin ondo, eta bigarren batasun-euskalkia jaiou zan hunela: Napar-Lapurdiera».

Ona guk leen aipatu degun Lafitte jaunaren lana gatz eta piperrez azalduta. Orain zer berri dakar Oskillasok? «Manexek egin zuana arras egoki iruditu zitzaion eta hartu lapiko handi handi bat, Manexena baiño bi bider handiagoa, eta han sartu du lapiko hauein barruko guztia liburutto hunen egileak. Eragin ondo eta hemen dizu dasta dezazun».

Orra Oskillasoren euskera osotua, euskera guztien puskaz egiña. Nolabait, Mogel-en «*Peru Abarka*»ko bizkaitar, gipuz eta frantzesarena gogoratzen digu. Basterre-txearen eltzean, lapikoan, euskalki guztiek sartzen dute bakoitzak bere koipea.

Etorri gaitetzen orain azken-aldiko saioetara. Orain dala sei-zazpi urte agertu zan beste bultzada bat batasunaren alde. Mugaz andian abiatu zan, baiña emengoak zirala uste det bultz-eragille.

Or degu Baionako batzarra (biltzarra). Geroxeago Ermuko batzarra dator, eta azkenez, Arantzakua. *Bultzada* esan diot oraingo joerari. Eta alakoa da. Baionako batzarra ezkerro, bultza eta bultza ari dira asko, egundaiñoko ezin egonak jota bezela. Albait arifien egin nai dute zerbait. Euskaltzaindiarekin naiz Euskaltzaindiaren gaiñetik, aurrera jo bearra omen dago. Eupada bat ere jaurtiki zitzaion Euskaltzaindiari «edo batasuna egin eta goitik bera ezarri, edo euskeraren etsai zarete, eta aren etsaien adiskide». (Enbata, n. 28, IX-1963).

Baionako batzarrak eman zuena or dago argitaratuta, orri batzuetan jasota. Ango erabakiak, batzuk ortografiari buruzkoak dira. Emen agertzen da leenbiziko aldiz H-ren auzia. Euskera osoaren batasuna badirudi ez daukatela oraindik gogoan, bai euskalkien barrukoa. Baiña *H* ori euskalki guztietan sartzea nai dute bokal bi berdiñen artean, eta itz baten beraren bi adiera edo zentzua bereizteko (nahastu, aur-ahur).

Ortik aurrera zillegi uzten dute; nai duenak erabilli dezala, eta nai ez duenak ez. Gero, zer-ikusit gutxiko oker batzuk zuzentzeko arau batzuk eman ondoren, deklinabiderako legeak ematen dituzte, eta aditza nola erabilli edo aditzaren zein forma on artu erabakitzen. Forma batzuk bi eratara erabiltzeko aukera edo baimena dago. Ez zan gauza andirik, baiña ez oso utsa ere. Eta gogoangarriena: Euskaltzaindiari dei egiten zioten, erabaki aiek aztertu eta onar zitzan.

Beste dei bat artuko zuen Euskaltzaindiak andik geroxeago: Euskaltzaindia sortu zaneke erre-eztaiak zirala-ta, gauza egokiena iruditu zitzaion norbaiti (Aresti jaunari), batasun-auzia berriz aztertu eta konpontzeko bidean jartzen saio berri bat egitea. Ala egitea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Oiñatiko batzar batek sortua da Euskaltzaindia, eta aren oroigarri, zer gauza egokiagorik, Oiñatin beste batzar bat antolatu eta batasunaren oiñarriak antxe bertan ipintzea baiño?

Bien bitartean, Durangoko Gerediaga Elkartea ere sartzten da tartean. Eta euskaltzale guztiei dei egiten die, Baionako batzarrari jarraituz, Ermuan batzar bat egiteko, ea aurrerago joteko biderik arkitzen zuten.

Emengo erabakiak ere argitaratuak daude. Zer da beren muiña? Ainbeste el-karrizketa eta eztabaida izan ondoren, auxe baiño asko geiago ez: H-ari bumz Baionakoak erabakitakoa ontzat artu, eta Euskaltzaindiak Oiñatin artuko zituen erabakiak aintzat artuko zituelakoa.

Beraz, berriro daude guztiak Euskaltzaindiak zer esango zai. Eta Euskaltzaindiak zer egin zuen? Oiñatiko batzarra egin baiño leenago, euskal-idazle guztiei Arantzazura dei egin, an guzien iritziak jaso eta eztabaidatu, an guztiekin batean batasun-bideak urratzeko. Eta or bukatu zan dana.

Esan nai det, azken-erabakiak artzeko batzarra, Oiñatikoa ez zala gertatu eta Arantzazuko batzar ortan emandako bide-erdiko pausu artan, erabakitzeoen aurre-raphen artan, gelditu zala guztia.

Beraz, Arantzazuko batzar ori degu aurreko lan guztien gallur bezela. Eta ara begiratu bearko degu. An egin zan lana, eta artu ziran erabakiak edo ziranak ziralakoa ere argitara emanak daude.

Artarako izendatu zan batzordeak lau edo bost illabetez ekin zion lanari, eta batzordearen lan ori Arantzazun iru egunez irakurri, azaldu eta aldeka edo aurkaka aztertu besterik ez zan egin.

Ondorena ba-dakigu. Erabaki edo erdi-erabaki edo erabaki-aurreraphen batzuk artu ziran; bat, H-ari buruzkoa, badaezpadakoa, eta bide-erdikoa. Ango giro gorian badirudi ezin izan zala geiago egin.

Euskaltzaindiak, bere batzordearen bidez, artuak zeuzkan aurretik bide batzuk, arau batzuk, eta auetatik ez zuen, noski, alde egin nai izan. Ona zer irakurtzen degun, urte artan bertan, 1968-garrenean, epaillean artutako erabaki batean: «Beti izango da kontuan batasunerako normak estuegiak ez izatea; bein baiño geiagotan bi edo hiru era emango dira, denboraren jardunean zuzenketak egiteko; eta, baita ere denboraren buruan premiak bearturik, punturen batzuk aldatu bearra gertatuko balitz ere».

Arantzazurako gertatu ziran gaietan puntu asko jotzen zan: ortografia, itzen formak, morfologia, aditza eta abar. Guztietatik H-ari buruzko erabakia besterik ez zan artu, erdizkako erabakia bera, ez batasunerako egokiena. (Ongi ikusiko du... ez du gaizki ikusiko... aurrerago jo nai dutenak...). Beste gai batzuei buruz puntu batzuk

oiñarriztat artuko zirala, zein puntu izango ziran argirik eman gabe. Aditzaren batasuna beste aldi baterako utzi zan.

Gaiñera, gutzia zan bein-beiñeko erabakia, «geroago ta astiroago argitarako ziran erabakien aurrerapena», besterik ez, «gaiak geroago obeki lantzeko asmoz». Eta agiriaren buruan, asiera-asieran, aitorpen auxe: «Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin dezaken gauza; eta are gutxiago bat-batean egin dezakeana».

Gero sortu dan giroaren berri, gutxi gora beera, edozeiñek jakin dezake. Batasunetik iñozko urrutien jarri ez ote geran nago. Iñoin baiño euskera berri geiago azaltzen zaigu. Eta dana, euskera batuaren izenean. Bakoitzak dauka bere euskera euskera batutzat, edo talde bakoitzak alakotzat dauka berak nai duena. Sariketarik baldin bada, lanak euskera batuan edo Arantzazuko arauen arabera egiñak izan bear dutela aginduko dizute. Or konpon noren euskera batuan egiñak izan bear duten ez badakizu. Ala edo olako aldizkari batek, leengo éuskalkien batean idazten jarraitu arren, norbaitzuen atsegiñezko legeren batzuk bete ezker, euskera batua darabilela esango dizute. Bestela dabiltzanak euskeraren etsai dira eta birao guztiak etorriko zaizkie gañera. Danerako ematen du bidea Arantzazuko Batzarrak. Beste batzuk, berriz, an egin zanari gutxi iritzirik, Euskaltzaindiaren azpitik edo gaiñetik, berek sortu nai dute euskera batu ori eta gutzietz ezarri. Euskera batua ez ote da euskeraren izen gaizto gertatu? Ez da giro atsegiñik, ez. Leen baiño banatuago gelditzeko arriskuan ez ote gauden esan genezake.

Giro ito eta lorrin ontan, beldurturik edo, Euskaltzaindia ixilik dago eta, guk dakigula beintzat, ez du agindutako lanik aurrera eraman. Orrela, orainarteko ekiñaldiei ez zaie azken onik ikusten.

Euskera biziarentzat (ala esan du oraintsu atzerriko izkuntzalari batek) arriskurik andienetakoa izango litzake euskera batu baten alde zoro-moro jokatzea edo burrukatzea. Leenago, oker bat ikusten zuten askok euskera batua dalako ortan, alegia, beste dialekto bat sortzeko arriskua. Orain daramagun bidetik, bat ez, dialekto mordoa sortzeko arriskuan ez ote gaude? Batu bearrean, zatituago eta puskatuago ez ote degu egingo euskera errukaria? Eta azken batean, euskera batu orren aitzakiaz edo aren aldeko jokatzeko ustean, inguruko erderen alde ez ote degu jokutzen, eta ez euskalki ez euskera batu gabe gelditu?

Zoromokeriak utzita, arkituko al degu bide oberik, zentzuzkoagorik. Astiroegi, patxara geiegiz dabilela egotzen diote norbaitzuk Euskaltzaindiari. Ez dute ongi ikusten astiro jokatzeko ori. Baiña gogoan izan ditzagun artarako izan litezken arrazoiak ere.

Entzun eta ulertu dezagun, esaterako, Mitxelenak Arantzazun bertan esana: «Ezin bestekoa, hil edo bizikoa dela uste degu euskera batasun-bidean jartzea». Ez dio gaur bertan euskerak bat egin bearra duenik. Batasun baten bidean jarri bearra daukala dio. Ori egin bear omen du Euskaltzaindiak. Eta ortarako, aipa ditzagun berriz Mitxelena jaunaren itzak, «gidari eta biderakusle agertu nai luke gauden egoeran, egin ditekeanaren neurrian».

Orra beste zentzuzko gizon baten eta izkuntzalari jakintsu baten itzak. «Gauden egoeran» zer da guk egin dezakeguna? Ori ez degu aurkituko, ez zoromoro jokatuaz, batasun bat goitik bera nola nai aginduaz. Gure izkuntza gaixo samar degu; ez dezagun zakarregi erabilli; ez dezaigun geiegizko sarraskirik egin, il ez dakigun.

Batasuna ez da ameslari batzuk uste duten aiñako erraztasunez egiten. Nekerik eta eperik bearko da ortarako. Oztopa-arri bat baiño geiago kendu bearko da bidetik. Mitxelenak Arantzazun esana da urrengo au ere: «Ez da nor Euskaltzaindia, oraingoz behintzat, oifiarritzat zein euskalki hautatuko den erabakitzeko. Badira, hala ere, besteak beste, (eta Bilbao euskaldun ez dalarik), euskera idatziaren beharretarako egokiagoak dirala erdi-aldeko dialektoak bazterretakoak baiño». Baiña orain, batek baiño geiagok bazterretakoetara jo nai dute, eta euskalki zaar eta illetara gaiñera.

Are geiago zion Mitxelenak: «Zenbaitetan, ez dago oraingoz deus egiterik, horretarako behar genituzken istudioak ez bait ditu iñork egin. Beste zenbaitetan, berriz, euskalkien arteko batasuna egitea gaitz bada ere, batasuna behar genduke euskalki bakoitzaren barrenean behinik behin, eta ori gure esku dago».

Izan ere, euskalki-barruko batasuna egiteko gai ez bagera, nola egin nai degu euskera osoaren batasunik?

Olako arrazoi eta besteren batzuk gogoan izanik edo dabil, nonbait, Euskaltzaindia ain astiro, ain kontuz, pausu ariñegi eta lasterregirik emateko beldurrez.

Oraingo askoren egon eziñak, dana arrapatata egin bearrak ere bere arrazoiak ditu, bear bada, benetakoak naiz itxurazkoak. Aspalditik entzuna degu bi bide bazirala batasunerako, bata *eboluzioz*, gerorik gerora egitekoa, eta bestea *erreboluzioz* egitekoa, bat-batekoa. Azkenengo au naiago lukete batzuek orain. Baiña Ermuako batzarrean norbaitek esan zuenez, erreboluzio batean aurreneko lana leengo jauregiak erretzea izaten omen da, gero ederragoak egiteko. Guk oraingo euskeraren jauregia erretzen badegu, ez dezagun uste gero berriz biurtu eta eraikiko degunik.

Orregatik zion Ermuan bertan beste gazte batek: «gai ontan zazpi begiekin ibilli bear degula».

Ez dezagun ames zororik egin. Euskera bat egiña bagenu, ura zoriona gurea! Bai, noski. Euskaldun guzdek elkar adituko genduke; euskal-liburuek irakurle geiago izango lukete, merkeago atera eta salduko litezke. Ura zoriona! Baiña oraindik amesetako. Urrutikoa oraindik. Ames ori egi biurtu bearrez, zorion ori urbildu bearrez, ez dezagun urrunago bialdu. Lafitte jaunak Ermuan esan zuen bezela, ez dakigu batasuna egin ustez, ez ote degun euskera naastuko eta ilgo, eta euskalki bat geiago asmatuz, irakurlerik gutxiago ez ote dugun aurkituko.

Jaun au (Lafitte) beldur zan, erriaren euskeratik urrunduz, euskera batu orrek iraupenik izango ez ote duen; euskera ikastea ez ote diogun erriari neketsuago biurtuko. Ori gure izkuntzaren eriotzea izango litzake. Gurearen eriotzea eta erderari indar ematea.

Or dago gure zorigaitza. Beste izkuntza batzueri batasunaren auzia sortu zitzaizanean, ez zitzaien gertatu etxeko izkuntzaren kalte garbitan: etxeko izkuntza bera sendoago, aberatsago eta geiagorentzat idekiago egiten zitzaien. Guri etxekoaren ilgarri eta kanpokoaren indargarri gerta lekikegu. Kanpoko izkuntzaren bizigarri eta etxekoaren ilgarri gertatzen zaio euskereari banatasuna, egia; baiña berdin gerta lekiote batasuna ere.

Ongi ikusi zuen Azkue zanak gure zorigaitza au. Eta bizi bizi adierazi zuen bein, Hazparneko errikoetxean, eman zuen itzaldian, Frantzian irakurria zuen ipui onekin: «Frantzian nintzalarik bein, ez dakit zein paperetan irakurri nuen, gezurra esan bearrean *canard* (atea) esatea nondik datorren. Zelai idor elkor batean aate-

taldea omen zegoen gosez, krak batak eta krok besteak, zer jan etzutela. Egazti aietako batek urdail ustua betetzeko grauskada bat eman zion urren zuenari eta ezur ta mami iretsi zuen. Aiek ala ikusita, beste guztiak elkar jaten asi ziran. Lumaz iñaurria (estalia) gelditu zan laster zelaia; egaztirik bi baizik ez, gizen gizen biak. Aiek ere mokokaldi gogorra eginta gero, batak bestea barrenean sartuz, taldeko lagun guzien aragiak urdail batean kokatu ziran». Eta Azkuek, bere aldetik: «Nik irakurri nuen paperak etzuen aipatu aatetalde aren inguruan otso ta azeri goseak amorraturik (amikaturik) zelatan ote zegoen. Izan balitz, etzan aaterikan bat ere bizirik geldituko; egazti-mordo osoa, puskatua ta iretsia, urren zan oianera joango zan, otso-azerien sabelera. Talde ura bezelakoa gure euskalki-taldea degu, eta ai! beronen inguruan otsoa eta azeria bizi dira. Indian eta Grezian, eta Italian eta Españian eta Inglaterran eta Frantzian eta Alemanian eta izkelgi-taldea bizi dan erri guztietan bezela, gure artean ere, alkar irestea bear bada, bildur naiz, sarrakioa erraieraraño sartua daukat, alkar jan eta bat gelditu baiño lenago, ez ote dituzten otsoak eta azeriak, Frantziako eta Espaiñiako izkerak, gure euskalkitxo guzi auek iretsiko».

Ori esan zuen Gipuzkera osotuaren alde ain gogo beroz eta zintzo ekin zuen gizon ark. Orregatik, noski, egoera ain negargarrian ikusten zuelako euskera, orregatik nai zuen euskalki sendo eta erdi-aldeko bat euskera batuaren oiñarritako. Orre-xegatik, Bizkaiko semea izan arren, eta Bizkaiko euskera ain maite zuelarik ere, itzaldi aren bukarean onela zion: «Entzun au ongi, euskaldun maiteak. Bizkaitarrak, guztiak ez, noski, baiñan askok, gure euskalkia utzi ta beste bat, erdi-inguruko bat, euskaldun guztientzat ulerterrazago bat, aitzen aisago bat, autatuko genuke. Edozein euskaldunek zati bat baiño osoa maiteago izan bear du. Au gora bera, guztiok «nik nereaa, nik nereaa, nik nereaa 'ka astekoak bagera, otsoak eta aizeriak guztiok ezereztu orduko, sendoen bizi dan euskalkia ar bezate etorkizuneko euskaldun orok berentzat».

Gipuzkoako euskeraren alde zion ori. Sendo ikusten zuen au, eta, orregatik, kanpoko izkuntzen zintzur iresleei iges egiteko egokiena. Baiña Azkueren itzak gaurko egunetako ere balio ez ote dute? Gure arrixkurik andienetakoa, «nik nereaka» ibiltze ori ez degu oraindik uxatu. Eta ez, ain zuzen, bakoitzak bere euskalkiari nagusitza opa diolako. Beren euskera batua asmatzen eta zoromoro indarrez ezartzen saiatzen diranak ere, pekatu berean eta astunagoan erori daitezke.

Euskerak, bere gaixoan eta egoera bildurgarrian, kontu andiagoko jokabidea eskatzen digu. Bizirik irauten lagundu nai diotenak, egiteko ontan sartua danak, seta gogorrik eta arrokeriarik gabe jokatu bear du, apalik eta konturik andienaz. Ez nor-geiagoka, ez eta nor jakintsuagoka. Ain gutxi, nor gazteagoka edo zarragoka.

Iritzi oker batzuk buruetatik kendu bearra daukagula uste det nik. Ez dezagun uste euskera euskerago edo jatorrago egingo degunik, batua egiñaz. Ez gizarte-legetan oiñarrituago ere; gauza ageria da. Euskera batu ori, berriz, indarrez eta edozein modutan sartu nai izan ezkeru, gerta daiteke euskera biziaren ilgarri. Eta erderaren bizigarri. Ikastoletan ikasi dutena bera ere, neguteko landara biurtu daiteke umeen buruetan, inguruko girorik gabez, illik geldituko dana. Etxeko euskeratik alduenduegia baldin bada ikastolakoa, etxekoa aaztu eta baztertzea eta ikastolan ezer gutxi ikastea edo bizirik irautekorik ez ikastea gerta daitekena da. Ontan saiorik ederrenak eta asmorik onenak zoroenak gerta daitezke. Lafitte jaunak Ermuan esan zuenez, asmorik onenak, xederik onenak ez dute bide okerrik zuzentzen. Bidasoaz andik datorkigun

oar au emengoek ere on artzekoa dalakoan nago. Gezurra dirudi baiña, euskera batua dalako ori andikoen aldera etorkor izateko asmoz, aiekikoa egiteko eran eramana dirudian arren, andiko aldean dauka oiartzunik gutxien, angoen artean aurkitzen du jarraitzaillerik gutxien. Angoentzat egiña ez dala dirudi. Zergatik ote da? Ez ote da angoek beti euskera-gaietan emengoek baiño zentzu ohea erakutsi dutelako?

Orregatik ongi etorri bedi Euskaltzaindiaren epetasun eta astiro jokatzeari. Euskeraren biziarentzat osasungarriago izango da ori batzuen itsumustuen ari bearra baiño. Euskaltzaindiak ez dio bere egitekoari ongi eta zuzen erantzungo, berea bearluken gidaritzaz galduaz, iñongo indarkeriri, iñoren oldar eta bultzadari, zinka eta biraoka jardun bearrari amor emateagatik, jaramon egiteagatik. «Denboraren buruan, premiak bearturik, zerbait aldatu bearra gertatuko balitz ere»... Urrezko arau au edo oar-arazpen au ez du Euskaltzaindiak aaztu bearko. Itsua izango litzake atzera egin bearra, eta are itsusiago bein oker emandako pausu bat zuzentzeko atzera egin naieza, urrats txar eta oker batean gogortu eta setatzea. Euskeraren eta euskaldunen kaltetan izango litzake orrelako jokabidea.

Bukatu dezadan onen bestekin nere itzaldi au, luzearen luzez zuen aspergari egin ez nadin. Bide luze samarra eragin dizuedana, gizaldiz gizaldi, mendez mende, gure klasiko zaarretan asi eta gure egunotararte. Idazle zaar aietan pake-giroan azaleratu zan auzia, idazle bakoitzak al zuen bezala erabakitzen saiatu zana, gaur burrukabide gori eta gorri biurtu zaigu. Ez dedilla Azkue eta Menéndez Pidal'en beldurra, gure erruz edo obenez, egi biurtu. Ez al da gure euskera inguruko otso-azerien zintzurretan ilgo. Orain artean beintzat bizirik iraun duen izkuntza, euskera batua dala ta ez dala, ez al degu ilzorian ipiñiko. Lagundu dezaiozun, badaezpadako norgeiagokeririk gabe lan egiñez, osorik eta bizirik irauten.

AITA MOKOROAREN LIBURU BERRIA GAURKO TA BIARKO EUSKERA*

Euskera batua dala-ta, zalaparta ta istillurik geyegi dabil azkenengo aldiotan. Eta dana, euskeraren kaltetan baizik ez. Euskera salbatu ta indartzeko asmatu zana, gure izkuntzaren kaltetan gertatu da. Nonbait ez degu bide zuzenik artu orretarako.

Aita Mokoroak liburu bat eskaiñi digu gai au astindu ta aztertuz. Igaz, Bilboko, euskal-astean, mai biribil baterako gertatu zuena da. Orduan ez zuen eman al izan. Ez bide zioten utzi dana ematen. Emen degu orain dana, eraskin argigarri batzuekin batean.

Aita Mokoroaren lana irakurtzean, arilketan ari izan zait burua eta oraintsu irakurri izan dedan zerbaitxo etorri zait gogora (besteak beste), euskaldun batek idatzia orraitio: «Nik euskaldun izan nai dut, ez bizkaialdun ez gipuzkoaldun. Nik euskaraz idatzi nai dut, ez bizkaieraz, ez gipuzkeraz.» Egundaino ez genduen olakorik entzun. Nola galdu degu orren-bestean burua? Olaxe, zirt eta zarteko batean, giputzei ta bizkaitarrei euskalduntasuna ukatu egin zaie. Olaxe, izkuntzalari ospetsu baten iritzi «venerables dialectos tradicionales» ziranak erderaren edo auntz- erderaren baten pareko gelditu dira. Olaxe euskaldun jator izan diranak Jebo uts egiñik utzi nai dizkigute. Irain andiagorik gutxitan bota da euskaldunen arpegietara. Lenago iñoiz esan zaio euskaldunari: Utzizak jebo-izkuntza ori ta arzak erdera. Orain bestera esaten zaio. Utzi zak ire izkuntza ori ta izan adi euskaldun. Ar zak euskera. Baiña non da euskera ori? Or da nonbaiten, talderen batek asmatua. Bai, talde batek asmatutako euskera berria. Berria dala? Zer du axola? Askotxok on artzen badute, talde berria askok osatzen badute, aurrera, mutillak. Euskalerraren gaiñetik, euskeraren gaiñetik taldearen legea ezartzen da lege. Idazle orrek orrenbesteraño eman edo saldu dio taldeari bere burua. Tamalgarria! Batasunaren izenean sortu zan joera banatasunaren sortzaille gertatu da.

* El Diario Vasco [39] (1972, 10491.zenb.) 9.

Aita Mokoroaren lana irakurtzen badezu, irakurle, gauza mingarri au uste izatekoa zala ikusiko dezu. Ala ere, eskerrak zor dizkiogu euskaldun uts izan nai duen idazle orri, ain zintzo mintzatu delako. Begien aurrean degun egoera aitortu besterik ez du egin. Batasunaren izenean goiak eta beak jo; baiña batasunik ez da ageri; gero ta urrutiago dago ames ori.

Len baiño banatuago degu euskera. Ortara iristeko arriskua salatuerik zegoen aspaldian. Orain arriskua egi negargarri biurtu zaigu. Salbatzaille berriek lengoek baiño ondorio oberik ez dute ekarri.

Ala ere, aurrera jo nai da. Ala aitortu du batek arto ta lotsarik gabe. Tamalgarria! Orrexegatik ain zuzen batek baiño geiagok nik badakit ez duela zirkiñik egin nai izan oraingo istillu onetan. Ez batera ez bestera. Zertako? Taldekeri geiago sortzeko? Banatuago gelditzeko? Lengo lekuan jarraitzea askoz obe. «Guk beintzat zerbait egiten degu» diotenek agerian dago nolako ondorioak ekarri dituzten. Gauza jakiña da: okerreko bidea artu duena, ibilliago ta galduago.

Emen dezu, irakurle, liburu au. Erderazko titulua: «Lengua vasca de hoy y de mañana» Euskeraz egiña dago. Emen arkituko dezu gure euskeraren auzia, bere alderdirik jakingarrietan, il edo bizikoenetan, aztertuerik. Emen dituzu, gure izkuntzaren biziari buruz, izkuntzalaririk jakintsuenek eta euskaltzaiñek emandako iritziak; batez, ere, Euskaltzaindiak sortu-berritan egindako lanak. Orduko iritziek beren indar eta balio osoa daukate oraindaiño. Euskeraren bizia nai dutenek gogotan artzekoak dira gaur ere.

Emen, Aita Mokoroaren lerro tinko giartzuetan degu, batasunaren auzian, jakintzak eta izkuntzalariek erakutsitako bidea. Emen ez dezu arkituko joan dan astean norbaitek salatu duen erritarkeri txepel buruberorik, ez «izkirimiri atzerakoi eta kirtenkeririk». Orrelako esaerak ez daukate arrerarik Aita Mokoroaren luman, ez jakintsuen oiturretan.

Jakintzuen bideak non dira? Non, batasunerako bideak? Ez, noski, idazle euskaldunak bildurtzeko zabaldu oi diran izkirimiri edo kirtenkerietan. Ez, noski, elkar berotzeko, egiñerazten diran zin eta juramentuetan. Ez, noski, gazteriarri lausengatzean, ez ormak sloganez betetzean. Ez, iñori ames zororik egiñeraztean. Ez olako joera bat banderatzat, ikurrintzat, artzean. Bide oiek ez daukate zer ikusi andirik jakintzarekin, ez batasunarekin.

Batasunak, eta euskeraren biziak, beste bide paketsuago ta jakintsuagoren bat artu bearko du. Aita Mokoroak emen erakusten duen argitasuna ta euskalzaletasuna opa diet nik auzi ontan guztiei, euskeraren onerako, eta ez badaezpadako taldekerien onerako.

OSOTU BAGEAK

ARENAZA JAUNARI*

Jo ta su ari zera, noizki bein. Euskaltzaindiaren gaitzak salatzen. Naiago zenduke gaitz oiek sendatzea salatzea baiño, bai noski: baiña zure alak ez dira orreraíño eltzen. Sendalari izan arren, ezin zuk geiago egin, ezin alkarte baten gaitzak sendatu gorpuzarenak bezela. Eta sendatu eziñean, salatzeaz etsi bear. Ekin, beintzat, bide ortatik, naiz eta maizenik gaizdunaren amorrua besterik ez irabazi. Arako bere arpegia ispilluan ikusi zuanarena ba-dakizu. Ispilluari egotzi zion itxutasunaren errua; arpegi berria bear zuan, ez ispillu berririk, eta bere arpegia aldatu ta edertu bearrean, ispillua jo ta apurtu zuen. Orixe egingo nai dizute askok zuri ere: salatzen dituzun gaitzak zuzendu ta sendatu bearrean, zugana itzuliko dute beren amorru bizia; onik onenean, edo txarrik txarrean, ez entzun egingo dizute.

Ez kokildu. Berak daukate arpegia garbitu bearrik. Azkenengotako artikulu batean diozuna ez dago gaizki, alegia, Euskaltzaindirik ez ba'litz bezela jokatu dezula. Jokabide gogorra irudituko zaio askori; baiña, Euskaltzaindiaren soraioari, gortasun eta gogortasunari erantzunik egokiena eta bigunena dala uste det. Gogorragoa da besteren batek eskatu duena: beste Euskaltzaindi bat sortu bear litekela, oraingoari lurra eman eta berria sortu. Oraingoa ankaiz gora iraultzea alperreko nekea litzake. Ez ote dago bera naiko lurperaturik? Nere ustetan, bai. Auxe esan nai dizut, ain zuzen. Euskaltzaindia illik datza, bizi dalakoa egiten du, baiña egon illik dago, ta berak il du bere burua. Zuok, sendalariok, gaixo bati bezela urbiltzen zatzazkiote. Ortan dago zuen okerra. Zuek uste dezuten baiño gaitz aundiagoak dauka mendean arturik. Eriotzaren mendean dago. Gaitz gogorregia, edozein sendalarirentzat ere sendagaitzegia.

* Agur 4 (1973, 70.zenb.) 8; *Andoni Z.* izenpean; ik. 43. orr.

Aul aurkitu duten une batean, Euskaltzaindia il egin digute. Etsaiak sartu zaizkio barnera, iñurri gaitz-ekarle batzuen antzera. Ez dezu inoiz, mendibide bazterrean, sugereren bat-edo ikusi iñurriak jana edo jaten? Orixe egin diote Euskaltzaindiari, lozorrotan zegoala, kanpotik, zirrikutik, sartu zaizkion nolabaiteko iñurriak. Eta gorputz illa bezela darabillate. Or bizi dalakotzat dabillan Euskaltzaindia ez da benetakoa, gezurrezkoa baizik, lengoari iñurriok barruko mami guztia janda gero sortua, nai duten aldera darabillatena, zirkin batzuk eragiñaz. Ez al dezu inoiz ikusi iñurriak ere zirkiñen batzuk eragiten dizkiotela il ta jaten ari diran sugekumeari?

Zuk onezkero zere barruan esan dezu: nortzuk ditugu, baiña, iñurriok, Euskaltzaindia il eta jaten diardutenok? Aspaldi da Jesus Gaztañaga jaunak salatu zituela. Idazle azkar onek, euskaltzain izeneko batzuk beren etsaitzat artuta daukaten onek, onako galdera au egin zuen bein GOIZ-ARGI aldizkariaren orrietan: «Nor da euskaltzain?» Eta ona, laburturik, ematen zuen erantzuna: euskaltzain izango danak legez eta arauz autatua izan bear du, eta gaiñera sarrera egin. Ola da gure artean eta berdin beste akademietan, naiz Madrillen naiz Parisen naiz beste nun-naitan. Jose Etxegarai erdal-idazlea amar urtez egon omen zan, izendapen utsarekin, akademiko izan gabe. Gaztañaga'k aipa zitzaie beste batzuk ere: Mella, artarako autatua, baiña sarrerarik egin ez ta sekula akademiko izan gabea; oraingo Salvador Madariaga ere, aspaldi izendatua egon arren, arrazoi berdiñagatik ez da akademiko. Gutxiago ez izatearren, Euskaltzaindiak lege bera du, ta are zorrotzagoa nai ba'dezu, euskaltzain-geiari —arauz eta legez autatua izanda gero— zortzi illabeteko epea ematen baitio sarrera egiteko; epe orren barruan sartu bear du euskaltzain izateko.

Arau zorrotza, Euskaltzaindi zarrean zearo bete oi zana; baiña aspaldian zertan gelditu da? Nola edo ala euskaltzain autatuak ainbat dira. Legez autatuak? Gauzak ez omen daude argiegi. Sarrera egiñak, zenbat? Emen gauzak argiago daudela dirudi. Sarrera ez da izkutuko gauza. Eta argi dago ainbatek ez dutela sarrerarik egin. Baiña barruan daude. Zirrikitutik sartuta, baiña barruan, eta andik istillurik aundienak sortzen, iñurri aragi-jaleen lana egiten. Nortzuk dira? Erantzuna emateko, beste galdera bati erantzutea aski izango degu: Azkue il zan ezker, zenbatek egin dute sarrerarik? Bizkaï'tik, Gorostiaga'k eta Villasante'k; Gipuzkoa'tik, Lekuona'k eta Mitxelena'k. Naparroa'tik, Satrustegi jaunak, beste aldekoen oiturari jarraituz, noski; eta Lapurdi ta Zubero'tik, guztiak (—oraindik ba-da Pirineorik—). Beste guztiak non dira?

Gaztañaga jaunak ez zuen erantzunik izan. Eta arritzekoa da. Lentxeago, Goierri'ko apaiz batek —inkisidore-odola darama nonbait, izen ori beste izenari nai izaten dietenetakoa izan arren— Euskaltzaindiaren billera baten gogor eskatu omen zuan: «Gaztañaga ori ixillerazi bearra daukagu bein eta betiko». Lenengo saiotxo bat ere egin zuten, baiña kukuak oker jo zien. Urrengo ontan, gorrarena egin zuten, ixillik gelditu, il batek egingo lukena. Ez zioten ispilluari eraso, baiña emen arpegirik garbitu ere ez. Gaztañaga'ri ez zegoen erantzuterik, okerrak zuzentzeko gogorik ez zeukanaren aldetik. Euskaltzaindiaren erantzuna izan ote da Gaztañaga'k nonbaitetik somatzen zuena, orañarte zirrikitutik sartu diran guztiei barkatzea? Baiña, barkatu noren izenean eta nondiko eskubidez? Ori egiñaz, Gaztañaga'k esan zuenez, argi dago pekatu bat estaltzeko beste aundiago bat egingo luketela. Oraingo jauntxokeri-giroan batzuk edozertarako eskubidea dutela uste dute, bein goiak artu ezker. Ta, orrek ba-du bere usaia.

Bien bitartean, Euskaltzaindiaren gorputz illaren jabe egiñik, aurrera dijoaz beren leanean. Ona ale bat edo beste, izugarrienetako bat aipatzearren. Orain dala bi urte, kargu berriztea zan Euskaltzaindian. Eta iñurriok, euskaltzain izateko zuk eta nik baiñio eskubide garbiagorik ez zutenok, botorik ez zutenok, bi ta iru boto eman zituzten, boto garbiagorik ez zuten kanpoko batzuen izenean: berak botorik izan ez, eta iñoren izenean ere eman. Lotsagarria! Euskaltzaindia jetxi zitekean berago? Nola gertatu da ori?

Ni ez naiz entomologo, baiña ba-dakit ba-dala iñurri edo beste zomorrerik mendera nai duen etsaiari miztoza sartu ta lo eragiten dionik. Berdin egin diotela esango nuke gure iñurri edo zomorro oiek Euskaltzaindiari. Illik utzi dute, edo kordagabe ta lozorrorik aundienean, beintzat. Lozorro onen mende daudela esango nuke zuk paketsutat dauzkatzun beste aldeko euskaltzainak ere. Egia da angoak lege-bidez sartuak dirala, len esan dedan bezala. Angoak beste begiramenik eta itzalik diote legeari ta gizabide onari. Ba-da, bai, Pirineorik oraindik. Paketsuangoak diralarik, emengo burrukalarri batzuk ere aiei geiago barkatzen diete. Bear ba'da, zuk eta nik baiñio euskera batuagorik ez dute erabilliko, baiña aientzat zuretzat eta neretzat bezelako betozko astunik ez da izango gure arteko zaungalarien arpegian. Zorioneko letra bat dute beren alde. Orrekin, dana da euskera batua edo patua, ta dana dute barkatua. Pirineoak berriz ere. Baiña pakezaletasuna diozu? Ez ote gero zomorro lo eragilleok eragindako lozorroa? Bestela, nola ikus dezakete Euskaltzaindian gertatzen dana, miñik erakutsi gabe, egoera negargarri ori aldatzen egiñalak egin gabe? Zerk itsutzen ditu, edo zerk sorgortzen, ikuskizun mingarri orren aurrean ez minberatzeko? Nola ez dute ikusten Euskaltzaindiak askoren uxagarri diarduela? Zerk uxatu ta aienatu ditu, esaterako Aita Intza, Lekuona ta abar?

Ez da aspaldi gertatua. Euskaltzaindiaren batzar-eguna zan, eta Aita Intza orra nun ikusten dedan Iruña-rako bidea artzen. Nola da au, galde egin diot; Euskaltzaindiak batzarra gaur emen, eta zu Iruña'ra? Ez zidan itzezko erantzunik eman, baiña aren arpegiera ta begirakadak galdera aren bidetik jarraitzeko gogoia kendu zidaten; begitarte artan erantzunik samiñena irakurri nuen. Nolako alkarte biurtu zaigu Euskaltzaindia!

Ona beste ale bat. Oraintsuko gertakaria au ere. Andre batek euskaltzainen artean zerbait dalako batekin diardu izketan, eta Labaien jaunaren liburutxo argitaberria aipatu dio: Irakurri al dezu? Eta beste orren erantzuna: Nere diñatasunak ez dit uzten liburu ori irakurtzen. Orrela elkartekoak elkartekoari zakur-katu bezela begiratzeko, nolako elkarte biurtu da, diot berriz ere, euskera zaintzeko sortu zan ori? Gizonak gixon biurtzeko elkarte?

Gauza oiek ikusita, zuzenena arkitzen det zure jokabidea, Euskaltzaindirik ez ba'litz bezela jokatzea; zuzen ikusten det Estornes Lasa jaunarena ere: Lengo Euskaltzaindiaren bidetik jarraitu. Ez degu beste Euskaltzaindirik. Egoera negargarri ontara iritxi gera norbaitzuen azpi-janez eta beste batzuen lo egotez. Dana euskararen eta euskal-arazoen kaltetan. Otsok jarri zaizkigu artzai. Zer balio dute oien aginduak, eta «ongi-ikusiak»? Ongi ikusia, izketa polita; baiñan jauntxo agintzaillen ezpafiñetan izketa orrek zer esan nai duan ongi ikusiak gaude.

Ala ere, ez det itxaropena osoan galtzen. Gizon illak ez dira piztuten. Mirarien

bat bearko litzake. Baiñan alkarteak ez dute piztu eziñik. Euskaltzaindia illik daukate. Baiñan piztuko al da, euskeraren eusle ta zaintzaille jator izateko.

Orain, zuri edo dana-dalakoari, okertxo bat zuzendu bear dizuet. Ementxe, aldizkari ontan euskaltzain batzuei buruz esan dezutena ez dago ongi esanda. Esaterako, Gorostiaga ez da 1957'an euskaltzain egiña, lenago baizik. Eta Eladio Esparza ez det uste euskaltzain izatera iritxi zanik. Izendatu, bai, izendatu zuten. Baiñan berak esan zidan bein: «Ez dakit nola eman dion gogoak Azkue'ri ni akademiko egitea. Nik ba-dakit bai nere Lesaka'ko euskera, ta egiten ere dut, baiñan ez dut sekula ere landu. Eta ez dut kargua artu, ta ez naiz iñoizko batzarretara joan». Ez zan, beraz, euskaltzain egin.

Erakusbide ederra beste euskaltzaintzat dauden askorentzat. Esparza zanaren diñatasuna bear lukete, zirrikutik barruan sartuta barruan gelditu gabe.

ZUK ZER DEZU, ARANTZAZU?*

Kanta ezagun onen itzekin bukatu du J. Arenaza'k bere idazlana, Arantzazu'n Xabier Peña euskal-irakaslearen omenez egindako billeraren berri emanaz. Anaitasun giroan izandako billera; pake-giro gozoan idatzitako lana Arenaza sutsuarena. Nork dio, edo nork uste du Arenaza'k ez dakiala garrasi miñak egiten, luma ospañez bustitzen besterik? Ni baiño paketsuago, gozoago itzuli da Arantzazu'tik. Nonbait ere, Arenaza'k ez zuan ikusi nik ikusi nuana: aurtengo Aste Santu'ko programa.

Ostegun Santuaz an idatziak ikusi nituanean, nola ez nintzan arrituko eta irrituko? Ez bein, bai berritan irakurtzen nuan: «Kristo ohinak garbitzen dugu, bere ikasleai ohinak garbitzen». Eta, «guk nohiz irabazten dugu, gu nohiz gara nagusi?»

Ni ere kantuz asi nintzan: Zuk zer dezu, Arantzazu? Baiña ez Arenaza'ren gogotankera eta biotz-giro berean. Zuk zer dezu, Arantzazu? Non da emengo zentzun ona, non da emengo argia? Euskaldunon lepotik ola irri ta farra egiten nork erakutsi dizu? Noiz eta nungo euskeran idatzi da egundaiño *nohiz* eta *ohina*, tarteko atxe orrekin, *noiz* eta *oiñak* esateko? Noiz eta Ostegun Santu argi eta paketsuan sartu bear zenuten eta euskaldunon begi-aurrean jarri su-pizgarri ori, orrenbesteko ez-jakiñaren ezaugarri ori? Zerk jan dizue buruko muiña?

Eta jakin dedanez, ez da izan aurten bakarrik uts ori, oker lotsagarri ori. Aurreko urteetan ere berdin agertu omen da. Arantzazu'n ez ote da iñor ori salatu eta zuzentzekorik? Orain ulertzen det *ez-baiña-tarrak* maiz esaten dutena, alegia, *letra orrek ez duela garrantzirik bat ere*. Nola nai ere, batzuentzat, *letra ori ez erabiltzea da pekatu*; baiña jartzen baldin ba'dezu, gaizki naiz ongi, arira etorri, naiz ez etorri, berdin da; aurrerakoi azaltzen zera! Gure arteko kokolo askori orixe sartu diote buruan. Gure «ezbaiñatarrentzat» uskeria da, ez du garrantzirik, eta aurrera! Orregaitik edo, Arantzazu'n ez da iñor kezkatu Ostegun Santuko uskeritxo ori zuzentzeko.

* Agur 5 (1974, 139.zenb.) 2: *Goierrialde* izenpean; Gipuzkoako Goierriko zerbait gogoratzen daualako.

Orrela, laster, beti Oñate edo Oñati izan dana Ohinati idatzirik ikusten ba'dezute, ez batere arritu, mutillak. Orrenbeste ikusiak gera. Olatsu egin du bere burua maisutzat darabillan bilbotar batek Bizkai'ko Lemoa (Lemona) erri-izenarekin: *Lemoha* idatzi. Bilbotar au maisu aunditzat daukanen batek esan du gero, agoa zabalik: «Au diaguk au, Maisua, au gizon jakintsu eta aurrelaria!» Orrenbesteraíño ari dira norbaitzuk gazte diralako batzuen buruak ergeltzen eta kaikutzen.

Jo ezazute Arantzazu'ra bertara. An degu Aita Gandiaga, olerkari bikaiña eta bakana. Nork beartu du, berak atxerik gabe asmatutakoa atxeekin idaztera? Neurri zarretan bizkaieraz ondu dituan bertsoak, zergaitik atera bear izan ditu, letra ori tartean dutela, bertsoen neurria luzeegituz eta ondatur? Eta orrez gaiñera, nork erakutsi dio, nork edo zerk beartu du bein eta berriz *lehun* jartzera? Ez ote daki itz ori legun edo leun izan dala beti eta non-nai? Gandiaga'ren olerki-liburua Deusto'ko Ikastetxe Nagusiaren itzalpean bezela atera dute. Ikastetxe orri, edo orren inguruan dabilztanai omen aundirik emango dienik ez det uste eskol-ume batek egin bear ez lituzken utsetan erortzeak. Pipiak jota dago gure gazte batzuen jakitea. Zerk egin du ori? Zer-nolako gaitzak artu ditu gure argitegiak: Deustu ta Arantzazu?

Pipi au ez da agertzen atxearekin bakarrik gero. Gogoan det emen Goierrin'n (Beasain'en zeatzago esateko), orain dirala iru lau urte antolatu zuten euskal-astea. Emen zan izlari, Arantzazu'tik etorrira, *ez-baiña-tarren* maisu aundia. Orduko programa artan irakurri genuan gure artean zabaldu dan tentelkeriaren agergerri bat. Nun ziran itzaldiak? «Udaletxearen *baitan*». Udaletxean esan bear zuten, eta kito! Beste ori, euskera berri jator batuagoan esana dagolakoan, ez-jakiñaren euskera besterik ez da. *Baita* ori jator erabiltzen duan batek, berea duan batek ez du sekula esango etxearen baitan. Baiña olako itz bat erabiltzeak gure arteko kaiku batzuen buruan, beren iritziz, noraiño jazten dituan! Onelako kaikukeri asko da gure artean. Ez det entzun itzlari arek oker ori zuzentzeko ezer egin zuanik. Arantzazu'ko *nohiz* eta *ohinak* zuzentzeko ere ez. «Ez-baiña-tarren» iritzi berekoa degu, nunbait. Letra orrek onentzat ere ez du garrantzirik; uskeria da. Baiña sartzen ez badezu, zure errukarria! Gotzaiarenganaíño joko du ta joko dute, ez dakit zeren izenean. Au aurpegiko azala!

Orrelaxe, kaikuak ortik, eta kokolo etakokillak andik, aurpegi gogorreko batzuen egítez, sekulako matasa sortu eta sartu dute, euskera gaxoa gaixoagotzeko. Eta matasa orren sortzailleetan ez ote dabil negargarri Arantzazu'ren izena?

Nik ba-nituan, bada, nere arrazoiak, gain artatik Arenaza paketsuaren pake-tankeran ez jeixteko. Nere kantua ez zijoan, ezin joan, Arenaza'ren biotz-giro eta doiñu berean. Naiko bestela baizik:

Zuk zer dezu, Arantzazu?...

Izen latza daramazu.

Baiña latzago egin bearrez
ari ez ote zera zu?

Ai ene, ai, Arantzazu!

Zer joko darabillazu?

Arantza berriz euskera josten
zabiltzala-ta naukazu.

LARRESORO AND COMPANY. EZ GAUZAK NASTU!*

Edozein naskeri gauza txarra da; baiña gaiztoz egiña danean, txarragoa. Onena izanik ere, ez-jakiñen bat salatu dezake; ain ona eztenean, asmo zitala edo, beintzat, ez gauza garbirik. Lafon il dala-ta, gizon jakintsu au goratu bearrez naskeritan ibilli diranak, berak ikus bezate zein maillatan dauden, ez-jakin uts asmo onekoen artean, ala bestean.

Goazen arira, Lafon jaunak, gizon jakintsu eta lotsa onekoari dagokion bezala, eztu «H madarikaturik» ez bedeinkaturik aiatatu. Olako narraskeritara jeixtekoa etzan bera; goragotik edo sakonagotik jokatu zuan beti. Aren izenean madarikaziorik izendatu dutenak ez diote aren jakinduriari eta izenari mesederik egin. Pekatu ortan erori da gure Larresoro purrustalaria. Eztu jakin Lafon zana goresten, besteren batzuei ostikoren bat edo uztarkaren bat aurtiki gabe. Letra bat, «H madarikatua», oso oniritzi aunditan omen zeukan Lafon jaunak, batez ere eztaikit nungo «H palatalizatua». Letra «madrkatu» ori ez omen du oraindaño inork ongi aztertu.

Ain zuzen, orretxengatik, ongi aztertu gabea dalako, gizon jakintsu ori oso apalatasun aundiz mintzo da letra ortaz beti. Baiña Larresorok idatzia irakurri duten askok esan dute, noski, oso siñisturik: Orra, jakintsuak nola dauden letra madarikatu orren alde. Zertan dabilta gure arteko petrikilloak? Zergatik ez dute argia baiño argiago dagoena ikusi nai eta beren buruak makurtu?

Baiña, ixo, ixo! Goazen geldi geldi. Lafonek eztu olakorik esan. Lafon etzegoan ez madarikazioaren ez bedeinkazioaren alde. Egiazko jakintsu bati besterik e-tzegokion. Aren iritzia, labur bederen, azaldu dezagun. Esan dezagun, leenik, ark

* Goiz-Argi 15 (1974. 188.zenb.) 5; *Ile* izenpean. Aurretik *Eli* izenpean idatzi eban lez, gero letrak aldatuz *Ile* asmatu dau.

esandakoen mamia zeren inguruan dan, batik bat: *hi* eta *i*, *aiz* eta *haiz*, *ire* eta *hiren* itzen inguruan. Itz oiek H berena dute ala ez, euskeran? Orra or galdera. H-dun forma ote da or jatorrizkoa, ala ez? Formarik zabalena, edatuena letra ori gabekoa omen da euskalkirik geien eta zabalenetan. Euskerak H-rik asko omen du kanpotik etorri eta sarturik, arrazoirik gabe askotan, Lafonen iritziz ere. Olakoren bat ote da *hiz*, *habil*, *hago* eta olakoetan, bigarren personaren ezaugarri, agertzen dana ere? Kaukasoko izkuntza batzuetan gauza berdintsua ikusten du Lafonek; an ere, dirudiane, nolabaiteko H bat zan lekuan, gero beste letraren bat azaldu omen zan, edq osoan galdu ere bai. Eta, Zuberoko erri batzuetan eta Erronkarin, ikusi omen du beste gertaera bat, alegia, letra ori palatalizatu egin dala. Or daude Erronkariko euskeraren *yiz*, *yore*, *yago* beste batzuen *ire edo hire*, *aiz* eta *ago-ren* orde. Orra H «madarikatu» palatalizatua. Larresoren artikulua irakurri dutenak zertzat artu ote dute palatalizazio ori? Askok eztute, noski, ulertu ere egin. Baiña beste batzuk... edozer jokatu nuke or euskeraren sekulako misteriorik aundiena ikusi dutela, oraingo euskera batuan ere gordetzekoa, eta beren agotan, nere ustez, etzan faltako madarikazioen bat ain gizon argitsuen iritzira makurtzen eztiranen aurka.

Baiña Lafonen iritzi apala ona emen: bestek besterik uste badute ere, euskerak jatorrizkoa duen ala ez erabaki gabe, itz oietako H ori euskeran oso antziñakoa izan zala; berori da Zubero-alde batzuetan eta Erronkarin y biurtu dana, palatalizatu dana. Edo, beintzat, antziñakoa izan eziñik or letra orrek eztuela. Guzti au dio Lafonek, ipotesi bezela, «sous toutes réserves». Ori da jakintsu erne eta apal baten izketa. Or ezta ageri ez madarikapenik ez bedeinkapenik. Or lenari begira mintzo da jakintsua, len eta orain nonbait gertatzen danari begira, ez zer egin bear danari begira. Baiña emen ere jakingarria da Georgiako izkuntzari buruz esan duena: oraingo izkuntza literarioan, izkuntza oietan H orren aztarnarik eztala gelditu, «a disparu devant les voyelles». Au ixildu egin du Larresorok, ez noski egiaren maitez. Eta ez dezagun aaztu ixiltzen diran egiak, edo erdizkakoak, gezurrik gaiztoenak dirala askotan.

Larresoro madarikazio-zabaltzaille laikoari santu izeneko bat etorri zaio kantalagun, joan dan epaillako 11-an, asteleneko orrian, Donostian: S. M. jauna. Santuak beti dauzkagu gu pekatariok baiño obetat, biotz obekotzat. Eztira geiagoko gabe madarikazio-urtika asten. Orregatik Larresoreen luman «madarikatua» zana, beste onen luman letra «arbuaiatua» biurtu da. Madarikatua izan, arbuaiatua izan, Larresorori buruz esanak beste santu izendun onentzat berdin balio du. Baiña onek badu besterik: borondaterik santuenaz, noski, bere aldeko egiten du Lafon zana, bere euskera batuaen jarraitzaille zintzo. Ori erakutsi omen zuan ark Leizarragaren omenaldian egindako itzaldian. Batasuneko errege-bidea artu omen zuen artean Zuberoako euskeran idatzi izan zuan maisu orrek (zenbat aldiz?). Baiña kontu santu-izenekoen esanekin ere. Bada emen egia eztanik. Zein errege-bide da Lafonek Beskoitzen artu zuana? Euskaltzaindiarena dalakoa? Ez, Lafitte jaunak bere Gramatikan erakutsi zuena baizik. Askorentzat, eta batez ere zuberotarrentzat, Manex-euskeradana. Lapurdieraz eta Benaparroako euskeraz nastua, Lapurdiera literario berria. Orri esan zion Lafon jaunak itzaldi artan errege-bidea. Errege-bidea, mugaz andiko euskaldunentzat. Arako asmatua da, ez mugaz emendikoentzat. Eta errege-bide orri eusten diote ango euskaldunek, eta zergatik bide ortatik jotzen duten, Lafitte jaunari entzun zion batek esaten, argi eta garbi: «Gu geure erriarentzat mintzo gare, eta arentzat izkribatzen

dugu». San Martin jaunari bearbada etzaio au atsegin, baiña egia ala da. San Martini gertatu zaio, noski, esaera zarrarena: Bakoitzak bere opillari su, eta bere santuari erregutu.

Jokabide erreza da orixe, baiña ezta zuzenbidea, ez jakintzaren bidea. Ezta Lafon ilberriarena. Lafon jaunak eztu zer-ikusirik ez gure idazle laikoaren ez santu-izene-koaren esanekin. Larresoro *and company*: obe zenuen gizon jakintsu ori bere maillan utzi, eta ez andik zuen be-maillatara jetxi erazi, aren esan eta erakutsiak orrenbestean lorrindu eta nastu gabe.

NOREN ASTAKERIAK, «AMATIÑO»?*

Adiskide bat etorri zait «Amatiño» ezagunaren lerro batzuk irakurriaz, nere iritziaren galdez. Zeruko Argia asterokoan idatziak dira. «Amatiño» orren adiskide batek infemuko Illuna esango luke, baiña utzi dezagun bakoitza duan izenarekin eta goazen arira.

Aita Bonifazio Ataunen itzaldi bat irakurri omen du «Boletín de Estudios Vascos» aldizkarian. Gaia: oraingo euskeraren egoera. Amatiñoren iritziz itzaldi ori ez omen da «hatxearen kontrako astakeria sorta bat baiño». Or asi da gure alkar-izketa. Zer nai dezu? Esan diot nere adiskideari. Nik ez det Aita Ataunen lana irakurri. Gauza bat esango dizut: jokabide kaxkar eta ziztriña dala benetan bere burua gazetalari bikaintzat eta egizaleztat duan idazle orrena. Ez ote zezakean berri garbiagorik eman? Bereala ekarri degu gogora Euskalerriko eta erdalerriko ainbat gazetalari badaezpadakoen jokabidea, Euskalerriarí dagozkion gai askotan. Oraintsukoa da Añoveros gotzaiarekin gertatua. Erdal-gazetalari bikaiñok zerez ez dituzte beren orriak belztu? Ura trumoi-otsa! Ura Bilboko gotzai jauna iraiñez estali bearra! Ez ziguten omilia ospetsuaren itzik edo esanik jakiteko aukerarik emango, baiña asma aleko zitalkeriak ezarri nai zizkioten gotzaiari.

«Amatiño»k oraingoan ez du besterik egin. Erdaldun gazetalari aien lepotik du burua; kaxkarragoa, itzez urriagoa, baiña berdiña. Nunbait, erdaldunak baiño iztegi laburragoa du euskeran, eta bere esateko guztia, irain guztiak itz batera bildu ditu: astakeria. Laguntzaille argiak ditu gure Akademiak. Beren izketan ez dira beintzat oso akademiko azaltzen.

Gazetalari bikaiña eta argia «Amatiño» au, itzaldiaren xeetasunik eman gabe, itzaldia aztertu bearrean, astakeriatara jo bear izan duana. Aita Ataun orrek ez omen du linguistikako arrazoirik bat ere eman. Eta nork eman ote dizkio gazetalari matematiko oni bere iritzien alde? Gure artean linguistikan zerbait danik bada, bat Mitxelena degu. Eta ez ote zuan esan Arantzazuko billeran ez zuela bide baterako baiño besterako arrazoi oberik ikusten? Irakurri ote du «Amatiño» gureak billera

* Goiz-Argi 15 (1974, 203.zenb.) 5; *Eli* izenpean, ik. 174. orr.

artako txostena? Irakurri izan balu, an ikusiko zuen Mitxelena'k esana. An ikusiko zuan besterik ere, alegia, astakeriak noren aldetik dauden. Norbaitzuen aldetik arrantzak gogorak entzun ziran an. An gelditu dira jasota, labor baiña argi asko.

Besterik da, gero, Eibarren ziñ egiñik, alkar arturik erabaki zutenen jokabidea. Baiña ziñak ez du linguistikarekin zer-ikusirik bat ere. Jakintza-gaietan norbaiten izenean ziñ egitea beti izan da benetako jakitearen lotsagarri. «Amatiño»k besterik uste baldin badu, beretzat artzea dauka berak gogoratu duan esaera: *ustea eztajakitea*. Ziñ zorioneko orrek, gero, ez du batasunik ekarri, egin zutenen artean ere. Nik ez dakit zer esan duen Aita Ataun'ek, baiña zerbait arrazoizkorik esateko arrazoiak bazituela esango nuke oraingo euskeraren egoerari buruz, «Amatiño»k, ezetz uste duan arren.

Gaztelari kaxkarra gurea, linguista kaxkarragoa, eta ez matematiko argitsuagoa. Gaur idazten diran lau liburutatik iru atxedunak dirala dionean ere egia ote dio, gero? Beti *zenbat* gara-ka ari zaigun onek kontuak zeatz atera ote ditu? Kontu orretan, matematika berrietatik ala zarretatik jo ote du? Matematika berriak multzoetatik asten dira. Multzo-legeen bat jarri naiez ez ote dabilta gure artean asko, benetako izkuntza-legeen eta euskeraren kaltetan? Eta ez ote diardute askok multzo baten ondoren ardi beekari bezela, eta beste asko ere beren multzoan sartu nai dituztela? Azken urteotan gure literaturan azaldu dan libururik giartsunetakoa, ongien tajutu eta idatzietakoa, TXINGO degu, nonbait. Atxeekin azaldu da. Zergaitik? Noski, multzo-legeak, talderen batek agindu duelako. Idazle berak beste liburutxo bat atera du oraiñago, multzoz kanpora, taldez kanpora, eta atxerik gabe. Zer esan nai du orrek? Amatiño jaunaren kontuak oker aterata daudela. Orra taldeka, multzoka aritzeak nolako oker eta gezurrak sortzen dituen. Ziñak egiñez jokatzek ere berdin. Apaiz eta prailleai beren ziñak austeko erretzasun osoak emango dira; baiña laikoen artean ziñ egiten duanak, euskera-kontuan, ez du atzera egiterik. Ori ez da, linguistika-bide garbiena, ez euskera salbatzeko egokiena.

«Amatiño» orren jokabidea ez det iñundik iñora garbi ikusten. Gizontasunaren aldetik ere ez. Neri kukuarena gogoratzen dit. Kukuak besteren kabian sartu eta ango arraultz eta kumeak kanpora botatzen ditu. Kaputxinoen aldizkari orretan kuku asko da sartuta. «Amatiño»k bestek egin ez dutena egin du or, abiaren jabeari bultzaka eta botaka, ostikoka asi. Orra noren aldetik dan astakeria.

Nere alkar-izketako laguna bertsolari samarra ere bada, eta ona nola eman dion gure berrikerari azkena:

Astakeriak salatzen ditu
 besterengan «Amatiño»k.
 Berea baiño aundiagorik
 egin ote du gaur ifiok?
 Eibarko gatza jaten diote
 iñoiz milla denganiñok.
 Ala Infemuko illunen beltza
 dakar sarri, oraitiñok,
 eta arrantzarik edo ostikorik
 botako digu oindiñok.

KONTU ADAR-JOTZAILLEEKIN ETA BORBONKERIEKIN*

Atzerritarren artean euskaldunok nolako izena degu? Aien iritzian zer nolakoak gera? Galdera oni erantzun bear banio, estu ta larri ibilli bearko nuke. Ez nuke jakingo zer esan. Baiña Jeffrey Robinson dalakoak joan dan illean (*International Herald Tribune'n*) idatzia irakurri ondoren, beldur naiz askok erri bitxi beldurgarrizat artuko ez ote gaituzten. Nork igarri ingles-idazle bati noiz ari zaigun benetan eta lau itz egiten, eta noiz degun, bestela baitakoan, zearka mearka poliki poliki adarra jotzen? Robinson-en tituluak berak beldurra sartu dezaioke irakurleari: «Praille baten gudua euskera salbatu bearrez» Eta bereala, berriz: «Or degu praille bat, euskerari bizirik iraunerazteko, jo ta ke borroka». *Battle etafighting* eztira, ez, itz goxo goxoak. Eta itzok naiko beldurgarri ezpalira, or da praillearen imdia aldamenean: ezpaina estu, bekaina lodi eta astun, bekokia ia dana buruko illeak estaltzen diotela, zearretako begirada zorrotz gogorra begietan. Santa Kruz apaizarena baiña Cura Merino'ren irudia gogora ekartzeko egokiagoa, benetan. Gazetalariak berariaz astunago egindako irudia dimdi. Joan ta billa, auskalo zer asmo izan duan gogoan ingles-idazle orrek ori egin duanean.

Ala ere, neretzat, ezta ori kezkarriena. Bearbada, gazetalari orrek, konturatu gabe, berak eztakiela, beldurgarriago egin digu Aita Villasanteren imdia, onen agotan jarri dituen itzekin. Beldurgarriago, bai, itzak diotenagatik, eta bai estaltzen eta ixiltzen dutenagatik. Dana ona aldatu bearrik eztago, baiña ona zenbait ale.

Lenbizi, gure Euskaltzaindiaz diona: Prantziako Akademiarekin berdin egin digu. Biak asmo berdintsukoak omen dira, izkuntza (gureak, euskera) garbi eta jator zaitu nai omen dute. Bataren eta bestearen idetasuna edo aidetasuna erakusteko,

* Goiz-Argi 15 (1974, 207.zenb.) 5; *Berrikari* izenpean, ik. 86. orr.

zergatik jo ote du Aita Villasantek Parisko Akademiara Madrilgora baiño lenago? Iturri billa gorago jotzeagatik, noski: Madrilgoa Pariskoaren illoba bezela baita, eta biak Borbon-en laguntzaz sortuak. Biak, beraz, nolabait Borbonkeriak. Borbontarren erdian gelditu zan Euskalerruari ere Borbonkeri ori erantsi zaio, eta orain borbonkeririk txarrenaren bidetik ez ote dijoan esango genduke, «l'état c'est moi» esan zuen Borbon aren bidetik, alegia. «Euskaltzaindia nerau naiz, Euskaltzaindia gu gera», esaten du orain batek baiño geiagok, itzekin ere bai, eta jokabidez areago. Berez berez bezala, bera konturatu gabe ez ote zaio atera Aita Villasante-ri berak nai ez zuan aitormena? Berez berez atera zitzaion bein onelako zerbaite, lagun batekin eztabaidatxoa zuela: «Gu ezpagera tekniko euskaragaietan, nor besterik izango da, bada?» Euskera eta Euskaltzaindia gu, eztago emen besterik, eta *gu* orretan oso gutxi, gero ta gutxiago sartzen dirala.

Ondorenak agerian daude, euskeraren etorkizunaz kezkatzen ziran guztien laguntzaz eta indarrez sortu zana (Villasantek ere nolabait esan dio Robinson orri), gero ta bakarrago gelditzen da, gero ta laguntzaille gutxiagorekin. Ez det ezer asmatzen. Argi eta garbi esan du euskaltzain argi batek. Amatiñok, gazetalari bezela poto egiñez (1), ixildu badu ere, Aita Ataun'i euskaltzain orrek esan diona egia da: euskaltzain ori ez tala Euskaltzaindiaren batzarretara joaten, eta beste asko ere ez. Zergatik? Borbonkeri ori dalako an nagusi, joko garbirik an ikusten ez dutelako.

Alperrik estali nai du Villasantek egi au. Alperrik esango du ez tala an alderdikeririk sartzen. Alderdikeria besterik ezta Villasantek Robinsoni esandako itzetan bertan ageri dana. Alderdikeria ageri du gazetalari orri eman dion euskal-liburuen, edo euskerara itzulitako liburuen zerrendan. Berak lausengatu nai dituen idazle edo itzultzaileen libururik besterik ez du izendatu: Aldous Huxley, Marx, Voltaire, Walt Disney eta olako bat edo besteren itzulpenak bakarrik. Orain eta leenago ere bada beste itzulpenik: Andersen, Longefellow, Hemingway, Oscar Wilde, Mauriac, Heine, Shakespeareren itzulpenik ere bada. Baiña aitak ez titu nunbait oso gogoko, eta kanpora. Walt Disney orren ondoan ez ote zuan aipamenik merezi, esaterako, Margo Ederdun Enziklopediak? Erdizkako egiak edo osozko gezurrak esaten antziñatik degu maisu Villasante. Esaterako, *Batasunaren Kutxa* dala esan du (Enziklopedia batean) euskeraz idatzi dan leen-iztegia.

«Ori aitortzea, nori berea ematea da, dio Villasantek: «es de justicia indicar que se trata del primer diccionario redactado en vasco». Zuzenbideak eskatzen omen du ori esatea...

Ez tu jakin nai izan, badala bat, Baionako eta Eibarko Zina baiño leenagokoa, J. Anjel Etxebarriak egiña, *anoraka* eta *apartheid* eta olako itzik sartu gabe, beste ori baiño ez batere txarragoa. Olakoxea da aita onen zuzentasuna, alderdi batera bakarrik begira dagoena askotan.

Voltaire, Marx eta besteen liburuak euskeratzea pausu bat besterik ez omen da. Euskaltzaindiak eman bear duen pausuetako bat, artu duan arazoetako bat. Liburu oiek nork irakurri? Or da koska gogorra. Iñork esan du (eta ezta idazle aien eskolatik kanpora), liburu oietako euskera ezin irakurria dala. Baiña Villasantek badu ortarako

(1) Ik. 177-178. orr.

irteera bat, eragozpen ori baztertzeko bide bat: eskolak. Eskolak erakutsiko omen du liburu aietako euskera. Jakiña, eskola orrek erakutsi bearako du liburu aietako española, frantzea eta gaskoina ulertzeko aiña. Gauza erragazorik nork asma dezake? Idazleak erabilli dezake euskerarik zaillena eta traketsena, euskal gaizto edo erdal-gaiztoena; baiña dana erraztuko da eskola egoki batekin. Orrela sendotuko dira euskera zaarraren sustrai eta ariak, enbor eta adarrak. Baiña euskera zaarraren arian egiñak ote daude Villasantek aipatu dituan liburuak? Itxuraz, ala dio berak.

Gauza bitxirik bada Robinson gazetalariaren artikulu ortan, Aita Villasantek esandakotzat emanik. Guztiak aztertzeke astirik eztegu. Gaurkoz eman ditugun aleak aski bitez.

Eta bukatzeke, berriz nator galdezka: Zer asmotan egin ote du Robinson orrek diogun artikulu ori? Kontu, ingles-idazle adar-jotzailleekin. Baiña kontu geiago gure artean Borbonkeria nausi jarri eta alderdikeririk maltzurrena zabaldu nai dutenekin.

TXOTXOLOKERIAK SALATU ETA TXOTXOLOKERIAK EGIN*

Gure etxeak abea duela esan bearco degu: ñañoen artetik eta mendetik ezin aterata gabiltza. Gazetalari izan, akademiko izan, zenbaitek eztaki ñañoen maillatik gorago igotzen.

Ezta oso goi gelditzen, ez, euskalzaiñen izena, norbaitzuen izana eta esanak ikusi eta entzunik. Naiko lan izan du Haritschelhar jaunak San Martin jaunaren larrugorriari egin dion igurtxitxo poliki poliki gozaten. Bazuen onek ordua Euskaltzaindian sartzeko! Oraingoan ez omen da egiazko gertatu Axularren euskal-esaera zarra; *gero* zionak ez du oraingoan *bego* esan. Azkenez, noiz edo noiz, amar urteren buruan, azaldu da euskalzain berria Euskaltzaindiaren atetara, eta barruan da. Amar urte ezta gutxi. Ainbeste urtez egon omen zan Etxegarai erdal-idazlea, izendatu zuten ezkerro, Madrilgo Academiako atek noiz irikitzen zitzaizkion zai. Berak nai baiño luzerago. Baiña bere sarrera-itzaldiari erantzun eta akademiko guztien izenean ongi etorria egin bear ziona atzeregi zebillen; nagiz edo, etzuan erantzuna gertatzen. Eta akademikonaia, an izan zan atetan, amar urtez, barrura gabe.

Aldetxo bat bada, orratio, Etxegarai zanaren eta San Martin danaren artean. Etxegarai kanpoan gelditu zan; etzan beste inungo atetik sartu, ez barrutik kukurrukurik jotzen ari izan; are gutxiago ibilli zan barruko aldetik besteri atek irikitzen, barrurako baimena eman eta sartzan laguntzen, gure oraingoa bezela. Madrillen badakite (emengo gazetalariak eta bere lagunak ez dakitena) ez dala berdin izendatzea eta izatea, akademiko izendapena artzea eta akademiko izatea bi gauza dirala. Eta ori emen, Parisen eta Madrillen.

Madrilgo akademikoen zerrenda ikustea besterik eztago. Batzuk akademiko osoak, tituludunak dira; beste batzuk, izendatu utsak, «electos». Auek izendapena

* Goiz-Arri 15 (1974, ^14.zenb.) 6; *Berriketari* izenpean, ik. 86. orr.

dute, baiña oraindaiño ez tira. An dago S. Madariagaren izena, izendatu utsen artean. Izendapena badu, baiña ez izana.

Izendapen utsak eztu akademiko egiten. Osoan izateko, zerbait geiago bear du. Zer? Lenbizi, izendapenak izendatuaren erantzuna, baietza, eskatzen du; gero, baiezko ori benetakoa dala erakutsi bear du izendatuak. Nola? Atetara agertuz, sarrera egiñez (bere itzaldi ta guzti), eta beste akademikoen ongi etorria eta akademiko-ageria artuz. Eta guzti au, bilkura ageri arranditsu batean. Alako jaunari, alako omena. Arrezkero da akademiko. Ori Madrillen eta emen. Oraintsu arteko arautegiak zortzi illabeteko epea ematen zion euskalzain izendatuari sarrera olaxe egiteko. Ori izan da legea; iztegoan, zakurtxoan antzean, ixillean, besteen ankapetik bezela sartzerik; gutxiago, an sartu eta, bere burua barruko egiñik, edo etxeko jaun eta jabe egiñik, barrukoan eskubiderik artzerik. Barruan egin zitazkean zaunkaldi edo itzaldi guztiak etzuten ezertako balio, ez iñungo lege-itxurarik egiteko. Akademiko izatea ez da sekula izan etxe-zakurtxoena egitea. Len eta orain. Oraingo arauak eztu, egia esan, eperik jartzen, lengoak bezela, sarrera egiteko. Baiña euskalzain izendatu batek euskalzain izan nai badu, gaur ere eztu beste biderik; goizago edo beranduago, atetik sartu bearra du.

Eta ate ortatik sartu dira beren buruai eta besteai lotsa izan diotenak. Ipar-Euskalerrikoak, guztiak egin dute ori. Eta onuntzagokoen artean ere bai, mordo batek. Ordiraoraintsuengoetatik, SeminarioRojas, Gorostiaga, Villasante, Lekuona, Orixe, Mitxelena, Satrustegi. Mitxelenaren sarrerak, gure gaztelariak eta bere lagunak diotenez, luzapideren bat, atzerapide edo trabaren bat izan omen zuan. Eztakigu zer. Mitxelenak, bere bizian aurrera egiteko, trabarik bein baiño geiagotan izan duela badakigu. Euskaltzaindian sartzeko, euskaltzain izendatua izateko baiño geiago izan duenik eztegu uste. Nola nai ere, sartu zan, eta ospe aunditan egin zuan sarrera, gobemadore jauna eta beste agintari jaun batzuk lagun egiten ziotela. Arrezkero, nork ukatuko dio bere euskaltzaintasuna? Artean, bere jakinduri guztiarekin, bere meritu guziekin, etzan euskaltzain oso. Ezta iñor jayotzen euskaltzain amaren sa-beletik; Mitxelena ere ez. Euskaltzain egin zan Euskaltzaindian sartu zanean. Titulu ori eztu nai duenak artzen, ez nai duenak ematen. Edozein gaztelarik ere ez.

Eta gure gaztelariak eta bere lagunak ederra sakatu nai izan diote beren irakurleari Krutwig jaunari gertatu dala eta ez tala. Gauza argiagorik ez esateko, obe gai ori aipatu ezpalute. Ezzetorren arira, gaiñera. Aita Villasante Euskaltzaindian sartu zaneko kontua da. Eta zer da guztia? Aita Villasante-ren sarrera-itzaldiari egindako erantzun-itzaldian esandako zerbaitegatik, estualdiren bat izango zuala-ta, beldurrez anka egin zuan eta mugaz andiko aldera igeska joan. Emen gelditu izan balitz, pake pakean konponduko omen zan auzia. Bere aita eta beste zenbait... osaba onak zituan. Orduko istillutxoak zer eragozpen ekarri bear zuan euskalzain berrien sarrerarik ospatzeko? Urrengo urteetan ez ote zan bat baiño geiago sartu? Mitxelenaren sarerran, berriz, esan degunez, agintariak ere an zeuden, aren sarrerari omenaldi-usaia emateko.

Gaztelariari zeaztasun geiago eskatzen zaio bere esanetan, eta euskalzain bati argitasun geiago, euskaltzaindiaren barruko goraberen berri emateko. Eta ez, ala ez tana siñisterazteko edo ez tanari zerbait badalako itxura emateko, argi orde laiño-mordoak aurrean ipintzen saiatu, irakurle guztiak tenteltzarren batzuk diralakoan. Eta ez akademiaren legeak berak txotxolokeritzat jo.

Txotxolotzat jo dituzte, agi danez, lege aiei men egiñez, gizalegez jokatuz, lege aien mende apalik jarri ziranak ere. Berriz ageri da emen Euskaltzaindiak nun dituan bere kaltetan dabilzanak, izena beltzen diotenak nun dituan. Barruan ditu etsaiak, barruan gaitzik zitalena.

Lengo batean ikusi degu (1) barruan duala bere lana, egitekoa, zakur-lan egin duana, zakurren lantzat daukana. Orain emen dator beste bat txotxolokerien kabi dala salatzen. Eta aundiena, txotxolokeriak salatu ondoren, salatzailea bera beste txotxoloen lerroan jarri zaigu, besteen txotxolo-bideari jarraituz. Berak ere Euskaltzaindian sartzeko txotxolokeria egin du, euskaltzaiñarena egiten amar urtez iraun ondoren. Ori, txotxolokeriak esan eta egin bearra! Euskaltzaiñ baten joka-bidea al da au, ala ñañoagoen batena? Ala koroneltxoena? *Koroneltxo*en aldia etorri ote zaio, bada *Euskaltzaindiari*?

(1) Ik. 179-181. orr.

BATASUNAREN BIDEA ETA KARDABERAZTARRAK *

Esan dezadan, leenik, azkenengo billeran nik agertutako iritzi batzuk beste idazle batzuek sendoturik ikusi ditudala. Batasuna (naiz eta norbaitzuek besterik erausi), egin gabe dago. Gauetik goizera lortzekoa ere ez da. Euskal-idazle askoren maisu dan Mitxelena Jaunak berdintsu esan du oraintsu. Mitxelena bezelako baten lumatik olako aitorpenik ateratzea pozgarri da. Batasunik ez ori batek baiño geiagok ez du gogotan artzen. Oker dabilta, nonbait, Mitxelenaren eskolakotzat badaude ere.

Gure literatura-giroa aztertuz, utsune bat arkitzen nuen, literatura sortzaillerik urri izatea. Nobela-saillak, teatro-saillak lantzaillerik gutxi du gure artean, gero ta gutxiago dala esan du beste idazle batek, Azurmendik. Saio literatura da oraingo joera, edo, zeatzago esateko, eskola-literaturarakoa. Jakintza-sail bat edo bestean sartu eta or dator idazlea, jakintza artako astapenak ematen nola edo ala. Sakonago edo azalago, ongi edo gaizkiago erabiliko du gaia, baiña aurrera. Geienetan sasi artean sartua dirudi eta ez da bat ere arritzekoa, baldin aren euskera sasiz josirik edo urratuz beterik ateraten bada: aren euskera gogorra, arantzaduna, traketsa, gurpillik gabea izatea ez da mirari. Gaia berez latza, menderatu gabea, euskera menderatu gabeagoa, zer aterako da besterik ortik? Ortik aterako dan liburuak nekez emango du bigarrenez irakurtzeko gogorik. Argiak gaude olako liburuen inguruan egin bearko balitz euskeraren batasuna.

Ala ere, guztiok bear genuke (eta guztiok nai dugula uste dut) euskeraren batasuna maite, batasun ortara jo, gure arteko ezberdintasun batzuk garaitzen edo kentzen saiatu. Eta ona nik azkenez ukitu nuen gaia. Kardaberaztarren artean ere ez da agertzen euskera baturik. Al duenak al duena egiten du, nai duen bezala edo dakien bezela. Batasunik gabe euskalkien barnean bertan ere. Eta badirudi ez lukela ola izan

* Kardaberaz - 4 (1975) 39-41.

bear. Kardaberaztarrek badute beren idazle-eskola eta eskola orrek nolabaiteko batasuna sortu bear luke. Leenbizi, euskalki bakoitzaren bamekoa.

Giputza dala, Bizkaikoa dala, naiz edozein euskalkitakoa, lenbizi euskalki bakoitzaren barneko batasuna bearco dugu, euskalki bakoitzak bere barnean egin bearco du egiñala batasunera jotzen. Gero euskalki bakoitzak, egin alean, kontuan izan bearco ditu beste euskalkiak, aiengandik geiegi ez urruntzeko, guztiek erdi-bidera etorri eta elkar aberastu al dezaten.

Ez da au Kardaberaz-Bazkunaren egitekoa, ez da ortarako sortu, noski. Kardaberaztarrek egingo luketen batasuna Kardaberaz-tarrena izango liteke, ez euskaldunena, ez euskal-idazleena, talde batena baizik. Baiña Bazkunak zerbait egin dezake; baiña ez bakarrik. Beste euskaldunekin batean jokatu bearco du, beste taldeekin batean. Bide berean dabiltzan guztiekin batean, batez ere urbillenekoekin, urrats beretsuan dijoaztenekin. Guztiek elkarri esku emanez, elkarri argi egiñez, elkarri lagunduz.

Eta urrutiagoko taldeekin ere bai? Auengandik ere zerbait zerbait ikasi deza-kegula eta ikasi bear dugula uste dut. Askok lege bitxi asko arkitu edo asmatu dituzte, eta lege estutzat artu eta besteei ezarri naiez dabiltzala dirudi. Orrez gaiñera, erderakada eta gaskoinkada asko sartu nai dute, geiegi, gure euskeran. Olakoetan ez dugu aiei jarraitu bearrik, eta ez jarraitzea onena. Baiña aiengan ere dana ez da bazterrena botatzekoa. Badute onik ere. Talde oiek daukaten ona ez da taldearena, euskerarena baizik, taldeak sortu aurrekoa. Beraz ori gurea izan daiteke. Emen ere, bide-erdia lege; elkarri bide-erdia atera gakizkion.

Au ote da Kardaberaztarren jokabidea? Ez argiegi. Geien batez, Kardaberaztarren artean bakoitzak bere bideari jarraitzen dio. Atera dituzten liburuak ikustea aski da. Batzuetatik beste batzuetara alde nabarmena ez al dago? Zergatik ori? Bear bada, ez zaio iñori bere eskubidea moztu nai izan. Bear bada, beste asmo batek eragiñik jokatu da orrela; idazlea gerrate-aurrekoa da, edo gerratearen ondorengo utsunekoa, ixillaldikoa; orregatik, ixillaldi artan, ixillean lan egin zuen idazle orrek, eta orain argitaratzekoan, bere aldiko kutsua utzi nai zaio, eta dagoen dagoenean argitaratu nai da. Au omen da, ain zuzen, Kardaberaz taldeak, argitaldari bezela, dituenetako asmo bat: ixillean gorderik gelditu ziran lan batzuk argitaratzea, alegia. Eta leengo idaz-lanei nola edo zergatik kendu egin ziraneko kutsua? Beren jatorrean uztea obe. Ala ere nik uste dut ez dutela lan batzuek beren kutsua galduko, orrazketa puskaren bat egiñez. Esaterako, zergatik idatzi *zurigo*, *geigo*, eta ez *zuriago*, *geiago*? Batasunerako bidean sartu nai badugu, nik uste dut olako laburpenak utzi egin bearco dirala.

Ontan, Kardaberaz-bazkunak zer egin dezake? Euskera baturantzako joera artua daukan ezkerro, erdi-bidea edo erri-bidea dalakoa, ortik aurrera jo bearco luke. Lege estu zorrotzegirik ezarri gabe, idazle-eskolak erabakiko lituzke puntu batzuk. Ortarako ere bada idazle-eskola ori; berak aztertu eta argitu bearco du euskeraz idazteko erarik jatorrenak zein diran, edo zein diran araurik jakiñenak eta guztiek edo geienek on artzekoak, eta zein ez. Guztiak iritzi batera etortzea ez da beti errez izango; baiña azterketa on bat egitea beti izango da mesede eta argigarri.

Gero liburuak argitaratzekoan, ez da alperrikako gauza izango zuzentzaille edo aztertzailleren bat edo beste izatea. Bear bada, onelako zuzentzailleek gure artean ez

dute izen onik, baiña ori beste izkuntza batzuekin ere gertatzen dala uste dut, esaterako katalanekin. Nola nai ere, Kardaberaztarren artean zuzenketa ori idazlearekin itz egin eta iritzi batera etorrita egingo litzake.

Nik ez dut bide oberik ikusten Kardaberaztarrek beren idazlanetan nolabaiteko batasuna erakutsi dezaten.

LUIS MITXELENA JAUNARI ERRENDERIARA*

Agur, Jauna. Zuk emanik, izen berri bat artu det oraintsu. *Frankotiratzaille* omen naiz. Batek baiño geiagok agurtu naute izen barri orrekin.

Zer esan nai izan dezu gaitz-izen ori neri ipiñiaz? Erderazko iztegiara jo det argi billa. Madrilgo akademikoak egin dezuten iztegiara, alegia. Zer *dafrancotirador*? Ona iztegiaren erantzuna: *Combatiente que no pertenece al ejército regular*. Orraitio, *ejército regular* ori zer dan ez det an ain argi aurkitu; baiña argitasuntxo bat ematen digu, bai, beste itz batean, *tabor* itzean. Zer da au? *Unidad de tropa regular marroquí perteneciente al ejército español*. Eskerrik asko, beraz, olako gudari ez nauzulako egin. Nik ez det esango gure artean marroki gudari oiek baiño gaiztoagorik ez dabilanik.

Txantxetak utzita, aitortu bearrean nago izen berri orrek gauden egoeran ez nauala bat ere lotsatzen. Ez det bat ere gogorik gure arteko taldekeri edo targo batzuetan sartuta ibiltzeko, naiz eta zu bezelako gizonak artzen dituzten batzuetan buru ta agintari. Zure menpean edo zure esanetara dabiltzala agertu nai dute; baiña batek badaki noren edo zeren banderapean dabiltzan. Nik ez diet joko garbiegirik ikusten. Zuk besterik uste badezu, edo bestela ikusten badezu, Santa Luziak gorde ditzala zure begiak.

Txantxetak utzita, esan bear dizut ez zabiltzala oso zuzen neri gaitz-izen ori ezarri didazunean. Zer dala-ta egin nauzu *frankotiratzaillel* Oker ez banago, eta zure artikulua ondo irakurri ba det, auxegatik izan da: bear zanean itz egin ez nuelako, zure iritiz. Arantzazun ixilik egon omen nintzan.

Eta zuk diozuna egia da, baiña erdizkakoa baizik ez; beraz egia eta gezurra. Nola? Nere esatekoa aurretiaz esana nuelako. Egun batez batzordeari biali nizkion

* Kardaberaz - 4 (1975) 71-75. Donosti'tik 1970-IX-15n L. Mitxelenari egiñiko idazkia.

nere iritzi batzuk, nere puntu batzuk, labur izan bazan ere. Erantzunik ere izan nuen, sekretarioak bidalirik. Batzordea nere puntu guztiekin bat zetorrela esaten zidan, ortxe H-ari buruz izan ezik.

Aitortu bearra det erantzun orri alako zorroztasuntxo aurrkitu niola (Arantzazuko batzarraren txostena egin zuenak zuri ainbat aldiz ezartzen dizun zorroztasuna, alegia). Egia esateko, batzordeak bere bidea artua zeukala antz eman nion, eta gai ortan ez zeukala atzera egiteko gogorik.

Zer esan, baiña, nik*H-ari buruz niona? Muiñean, geroago esan dudana bera. Eta Arantzazun ez nuen nere irizpidetik ateratzeko arrazoirik entzun, ez jakintzazkorik ez politikazkorik. Ez nuen zure ponentziako gaietan itzik egin. Baiña zuk ez duzu arrazoirik berandu itz egin dedala esateko. Bear bada, ango eztabaida ta elkarrizketak arauaren bidetik eramanak izan balira, zerbait esango nuen. Baiña an ez zitzaion araudiari jaramon aundirik egin. Ola, azkenean, guztion gogora, konponketa batera jo genduen. Orixe, konponketa batera.

Konponketa besterik ez zan izan andik atera zan ageria, an sortu zan istillutik ateratzeko irteera bat. Ez zegoen bestetarako girorik. An ez zan benetako erabakirik artu. Nondik asmatu dute zenbaitek baietz, an Oñatiko batzarrari aurea artu zitzaiola, eta batzar orren porrota jakiñik, Euskaltzaindiak benetako erabakiak artu zituela? Oñatiko batzarra ez zegoen galdutzat egun aietan. Zuk baietz diozu. Berdin esan zidan bein San Martin jaunak ere. Baiña nik dakidana auxe da: an bertan izan zala azkenengo egunean Oñatiko alkate jauna eta nere aurrean ikusi nuen bazkaldoan Aita Villasante-rekin izketan, bere erriko batzar nausia nola antolatuko autuetan. Gogoan det Villasantek alkateari esan zion au: alegia, berak ba zeukala Aita Izagirre zanaren lan eder bat, Oñati-aldeko euskerari buruz, eta batzar orretan irakurriko zuela. Eta guztiok dakigu Astola-Durangoko batzarrean utzi ziola Euskaltzaindiak Oñatiko batzarra egiteko asmoari.

Ageriak berak ere zer dio? Ia dana gelditu zala erabakitzeke, geroago ta astiroago ta zeatzago aztertzeke. Bai, argitu bearrik geiegi gelditzen zan, eta Oñatiko batzarrak ere ez zuen emango argirik naiko. Ez zegoen, ez, orretarako ez astirik ez girorik. Nondik nora datoz orain besterik esaten?

Arantzazun erabakirik artu bazan, erabakirik ez artzekoa izan zan, noski. Politkazko irteera bat asmatu zan, ez besterik. Ageri aren itzak aztertzea besterik ez dago. Argibide bat eman nai ziguten, geroago noizbaiten artuko ziran erabakien aurrerapen bat. Alaolako erdibide bat ongi ikusiko zalakoa esaten zitzaigun. Besterik ezer gutxi. Iñor beartzekorik ezer ez. Eta, ola, politikazko irteera bezela, ez zegoen gaizki.

Eta orain, bi urteren buruan, gaiak zeatzago aztertzeke ezer egin gabe, orain adierazi bear diguzute Euskaltzaindiak benetako erabakiak artu zituela an? Bi urte igarota gero, ori al zan orain egiteko gauzarik egokiena? Ez al zan askoz bearrago orduko ageriak zeukan edo ez zeukan indarra norañokoa zan adieraztea, eztabaidak konpontzeke bidean jartzeko? Ez ote dira gure istillurik gorrienak ortik etorri, alegia, Arantzazuko ageriari ez zeukan indarra ematetik?

Izan ere, ageri artan korapillo asko daude askatzeko, borondate onez erreze askatzeko eiñekoak. Euskera batuarentzat artu bear ziran erabakiak edozein euskalkitarako ziran, ala euskera batu orretarako bakarrik? Arantzazuko batzarrerako deia

orretarako egin zan, euskera batuaren oiñarriak jartzeko. Orregatik, andik sortuko ziran lege ta argibideak edozein euskalkitzarako ez zirala uste zuten askok, eta arrazoi onez. Baiña bein ori esan zuen bati, Euskaltzaindiaren batzar batean, erantzun *zorrotza* eman zion sekretarioak, bere izenean, nonbait. Ba zirudian berak bakarrik zeukala an ortaz itz egiteko eskubiderik.

Arantzazuko ageriak ez zuen agintzen euskalkiak betiko ondatu bear ziranik. Ezta urbiltzekorik ere. Ala ere, talderen batean sartuta tiroka dabiltzanak madarikatutzat daukate bere euskalkian idazteari ekiten diona; euskeraren etsaitzat jotzen dute; boikot egin nai diote; olakoen lanik ez da ez aintzat artu ez irakurri bear.

Arantzazuko ageriak ez du iñolako agindu esturik. Baiña kontu iñork aren esanik agindu estutzat artzen ez badu. Orrela, Euskaltzaindia bidelapurrik maltzurrena bezela agertu nai digute: aurretik eskale apal egiñik, baiña atzean arma izugarria duela, onez eman nai ez dana indarrez kentzeko.

Nik ba dakit Euskaltzaindiak olako maltzurkeria zitalik egin nai ez duena. Ez len, ez orain. Nik uste oraindak lengo lepotik duela burua. Ona, bada, zer zion, orain dela bi urte, 1968-ko apirilaren 26, batzordeak apirilaren 10-an artutako erabakiei eutsiz: «Beti izango da kontuan batasunerako norma oiek estuegiak ez izatea. Bein baiño geiagotan, bi edo iru era emango dira, denboraren jardunean zuzenketak egi-teko. Baita ere, denboraren buruan premiak bearturik, punturen batzuk aldatu bearra izango da».

Orra Euskaltzaindiak nai zuen bidea ta giroa. Baiña zer gertatu da gero? Norma estuegirik ez zuela emango? Normarik ez, baiña argibidetxo bat eman dueneko, zerbait ondo ikusiko zuelako bat esan dueneko, normarik estuena baiño estuagotzat eman nai izan digute. Eta zer puntu ta puntuondorik aldatu? Emen ez dago ezer aldatzerik. Emen ez dago amen esatea besterik. Laster aaztu dira itz bigun apalak.

Ezin siñetsia gure artean Arantzazuko batzarra ezkerro gertatua. Negargarria ez balitz, farragarria litzake. Zenbaitentzat gabetik goizera euskera batua dana egiñik azaldu zan. «Euskaltzaindiak itz egin du. Euskera batua besterik ez degu on artuko emendik aurrera». Ola zioten batek baiño geiagok, ez dakit fede onez ala txarrez. Eta beren ustez Euskaltzaindiari jaramonik egiten ez ziotenak birao guztiak merezi zituzten.

Arantzazuk orrenbesteko zorionik ez zigula ekarri uste genduenok arriturik ikusten genduen nola batzuk sariketaren bat antolatzen zutenean iñozo iñozorik esaten ziguten: «Lanak euskera batuan egiñak izan bearko dute». Edo ta eskolaren batean zer irakurri erabakitzen zutenean, argi ta garbi adieraziko ziguten euskera batuan idatzitako liburuak edo euskera batua zerabilten idazleak bakarrik on artuko zirala, idazleok beren izen ta guzti aipatuz. Beraz, or zeuden euskera batuan egindako liburuok, eta euskera batuan idatzi zuten idazleok. Beraz, zertarako bururik autsi? Alperrekoak ziran ainbeste iskanbilla ta buruauste. Alperrekoak Arantzazuko batzarra ta Oñatiko bera ere. Or genduen norbaitzuen idazlanetan bizi bizirik euskera batu zorioneko ori.

Jakiña: gezurrak oiña labur omen ditu eta laster azalduko ziran, elkarrri joka zebiltzela, bi jokabide: batetik, euskera batua egintzat eman nai ziguten, eta bestetik, euskera orren billa jo ta ke zebiltzen. Zirudianeaz, ez ziran konturatzen jokabide bi

oiek bata bestearen aurka zebiltzala, elkar gezurtatzen zutela. Eta oraindik ere, or dabilta, emen bildu, or bildu, beren buruak ukatzen dituztela konturatu gabe.

Burruka oien artean or dago Euskaltzaindia bere gidaritza galdurik, Arantzazun agindu zuenik bat ere egin gabe, gauzak zeatzago aztertzeke ezer aurrera eraman gabe, nik ez dakit nongo taborren bateko gudarien esku dana utzita.

Eta bein Lekuona-jaunak Arantzazun batasuna oraindik gordin samar gelditu zala gogoratu zuelako, orra or zer gertatu zaion, Tabor-mendien batean lo zeudenen erruz eta beste tabor-gudarien batzuen egitez. Esku argietan dago euskeraren batasuna ta etorkizuna.

Nik ez dakit Lekuonak egiña egin zezakeanik egokiena zanik. Bear bada, berak eta Euskaltzaindiak beste zerbait egin bear zuen, Arantzazun agindu zuen bideari jarraituz. Olakorik egin ez bazuen, ez zan batena errua, guztiena baizik. Eta egin bearra egin ez zan ezkeru, ongi zetorren Lekuona Jaunaren deia ta oarra. Baiña zoazkio olako kontuekin eta olako esku-igurtzi biguñekin tabor-gudari iskanbillazaleei.

Nik ez dakit zergatik artu bear izan dezuten pekatari nausitzat Lekuona jauna. Eta guztia, anonimo puztu ta lorrin bati jaramon egiñik. Nor ote da berau iñori jokabide illunik eta lorrinik ezartzeko? Lekuona jauna ez da H-aren etsai, ez beste antolamentu berririk ez dala egin bear dioena, euskera batua lortzeko; baiña ez ditu maite, noski, or zear dabiltzan batzuek artu dituzten bideak ez sortu duten giro biurria; gauzak oiñarri obearen gañean jarri nai lituzke. Orregaitik uzkur gelditu da. Beste batzuei ere berdin gertatu zaie; gure arteko jauntxokeri-giroaren aurka jaiki dira. Olako giro ori euskaltzaindiarena ez zala adierazi nai izan dute.

Berandu xamar, bear bada. Baiña askozaz beranduago dator or Euskaltzaindiak egin nai duena, bi urte alper ondoren Arantzazukoa Euskaltzaindiak artutako benetako erabakia izan zala adieraziaz. Ez ote zegoen beste egitekorik? Ain arro burua jaso ote dezake Euskaltzaindiak Arantzazun egindakoarekin? Ez ote zion lenxeago anonimo batek (geroagoko anonimo berberak noski), egundaiñoko jorraldia eman nai izan orrexegatik Euskaltzaindiari?

Bururik gabe gabiltza. Noren edo zeren madarikapenaren azpian ote gaude? Neri Isaiasen esaera au datorkit gogora: *Aurak jarriko dizkiet buruzagi*. Baiña Testamentu Zaarreko itzik nai ez balin badezu, or dezu zuk ondo dakizun beste esaera au: *Seyacaz etchuen dina ukuzkajagi doa*. Gure artekoa argitzeke ez det aurkitzen ezer argiagorik. Ez gaitzen arritu. Esaera oiek diote olako madarikazioak izaten dirala munduan. Gure artean zergatik ez?

Emen bukatu nai det nere karta au. Luzeegi atera zait. Bego or eta jakin ezazu ni ez naizela ibilli frankotiratzaille bezala, eta zuk eta guztiok ere ba degula nori zer gaitz-izen ipiñiko burua zorrozten ibiltea baiño egiteko bearragorik.

Zure itzekin bukatzen det: gaizki esanak barkatu. Eta agur.

KOLDO MITXELENA ETA EUSKAL LITURGIA*

Gezurrak zaiñak labur omen ditu. Lenago arrapatzen omen da gezurtia maingua baiño. Erri-jakinduria darien esaera batzuk ala diote. Baiña erri-jakinduriaz besterik darien esaerarik era ba-da bazterretan. Ona bat. Erein ezak gezurra eta nork siñetsi, nork iretsi izango dek.

Eta asmo gaiztoz erein naiz gezurra danik jakin gabe eta obe bearrez erein, berdin da. Ereillea izen andikoa baldin bada, gaiñera, siñislerik geiago aurkituko duela esanbearrik ezta. Askorentzat Aita Santuaren itza izango da aren itza.

Zertara natorren esamesaka eta berriketa onekin? Gure artean zabaldu berri diran gezur batzuk, edo egia eztiran batzuk salatu nai ditut. Gezurereillea izen andikoa dalako, kalte andiagoa egin lezake eta salatu bearra andiagoa degula uste det.

Gezurrak dira, eztira egiak Koldo Mitxelenak oraintsu argitaratutako bi liburuetan euskal-liturgiari buruz esan dituenak. Berak besterik uste badu ere, oso oker dago. Arrika dator baiña eztaki ongi nora. Gauza gogorra da au esatea; gezurra dirudi, baiña alaxe da.

Lenengo liburuan, Ibarzabal jaunak Koldori buruz atera duen liburuan esan dituenak Lekuonari buruz itsusiak dira gaiñera. Bigarrenean itzal andiz, «con todo respeto» mintzatu nai dan arren, gezurrezko salakuntza berdintsua egin du liturgi-euskeratzaillen aurka. Batean eta bestean Mitxelenak iturri garbirik eztuela izan argi bai argi ageri du.

Ain zail ote da, bada, gure artean elkarren berri obeki eta garbiago jakitea? Mitxelenak eztaki edo eztu ezagutzen litugi-euskeratzaillae oien lana. Jakin izan balu, eta ezagutu balu, jakin bear zuen euskeratzaillae talde orrek eztuela bere euskera baturik asmatu. Jakin bear zuen, talde orrek Mitxelenak berak Arantzazuko billera artan

* EJ Diario Vasco 45 (1978, 13376.zenb.), Dominical, 11.

oiukatu zuen bidetik jo izan duela, ain zuzen: «Liturgian euskera batua, inola ere ez oraindik».

Mitxelena ezta jabetu, eta au gogorra da, euskal-liturgian badabiltzala gutxienez iru itzulpen, Lapurdikoa, Bizkaikoa eta Guipuzkoa-Naparroakoa. Gutxienez esan det. Zubero-aldean ere, Mezako eguenerokoa berena dutela ikusi baidet.

Baiona, Donostia, Bilbo eta Iruñekoak, lau Gotzai-barrutietakoak izan dira artan lan egin dutenak. Baiña ez inork beste inongori bere euskera ezarteko. Gipuzkoak ere eztu olako nausikerik erabilli. Elkarrekin lan egin dute eta elkar-lan ontatik sortzen artan erdi-aldeko itzulpena, alik eta berdintsuena. Gero itzulpen onek beste bi bide artzen zituen, Baiona-alderakoa eta Bizkai-alderakoa, oiñarrizko itzulpena ango eta emengo euskalkietara egokituz.

Mitxelenak, dirudienez, ez du bat (Guipuzkoa-aldekoa) besterik ezagutu edo entzun; eta arrazoiak uste du euskera ori, euskera batutik ain urruti eztabillela aitortzen duen ori, nekez onartuko dutela Gipuzkoa-aldeetik kanpo. Nonbait, Gipuzkoan onartzekotzat dauka. Ortan Mitxelena eta liturgi-taldea batera dabilta. Onek eztu erabilli inolako azpikeririk ez gaineririk. Ez dio Euskalerrinari, ez euskera baturik ez bes-telakorik ezarri nai izan. Bakoitzari berea. Alik batuena, baina berea. Orduen Liturgian bakarrik argitaratu da itzulpen bakarra, erdialdekoa, iru Gotzaitegietakoen artean egiña, Donostia, Bilbo eta Iruñakoen artean. Baionakoek etzuten ikusten lan ori egin bearrik berentzako. Gutxitxo omen dira, eta nork erosteko? Bizkaikoek ere Gipuzko-Naparroakoarekin naiko zutela uste zuten. Beraz, taldean egiñiko lana gelditu da eta argitaratu. Inoren jauntxokeririk gabe, gure arteko gazetalarikumetxoen batek asmatu zuen bezela. Ai, gure gazetalalaritza merkea!

Mitxelenak beste akatsik aurkitzen ezpadio, euskal-liturgia eta ontan lan egiten dutenen itzulpena garbi samar gelditzen dala esan bearko degu. «Origen subrepticio» eta «cuestión subterránea» dalakoa beude asmatu dituenaren gain. Gaztelan Euskalerrian baiño luzaroago egoteak eztu ematen, nonbait, gure gauzak, diranak diran bezela, ezagutzeko aukera onena. Ezta gure artean ormak zikintzeko erabilten duten euskera ezagutzeko ere.

Etzetik atera orduko ikusten det egunotan, Lemoizko Zentralaren aurka, idatzi duten au: «Ama, zergatik nik bi sudurra, hiru belarria eta hiru begiak ditut?». Olako euskerakadarik ez da Liturgian irakurtzen. Ikastoletan maixu-agiridunak diran batzuk asmatuak eta idatziak dira. Nork emanik? Idatzi dutenek badakite. Neri Unamunok Millán Astarriñi esandakoa ekarri dit gogora eta esan det: «Maisu berriok ain itsusi jarri bear ote dute gure euskera gaxoa?» Noren erruz? Ez liturgi-euskeratzailleen erruz.

Mitxelenak ere ez die olako arrikadarik jaurtikitzen. Ez gutxiago ere. Baiña beste arrikada ori, esanak esan ondoren argiago eta itsusiago gelditzen dan arrikada ori, noiz arte geldituko ote da, gezurtatu gabe, irakurleen buruak naasten eta egiari bideak zikintzen?

BIZKAIAN, BIZKAIKO*

Arrituta

Joan dan egun baten argitaratu barri dan orri bati begira nengoan, Bilboko Aurrezki-Kutzak erderaz zabaltzen dauan Bizkaiko «Enciclopedia Histórico-Geográfica», 33garren atala irakurten. Lagun batek albotik badiñost: «Zer irakurten ago? Eta nok idatzia dok ori?». Eta nik, eskuetan neukana Urkiolako abadeak, Estonbak, idatzia zala erantzutean, arrituta itxi nindun, entzun neutsanean: «A, bai, Urkiolako abadea, lengo baten il dana». Nire arrimena somatu ebanean, gañeratu eban: «Orain amabost bat egun il zoan, Euskalerritik kanpo intzala, antza».

Bizkaitarrakaz

Oraindiño ezin siñisturik, banoa amabost bat egun lenagoko egunerokoetara, eta bai, alan zan. Egia zan, egi mingarria euskal-literaturaren maitaleentzat, mingarria euskalzaleentzat. Eta batez be, eriotza orregaz Bizkaiko euskereak maitale zintzo bat galdu dau, eutsan maitasuna egitez erakusten ebana. Zelan? Bizkaieraz egin eta idatziz.

Bai, bizkaitarrakaz bizkaitar agertzen jakin dau Estonba giputzak, Bizkaiko euskaldunekaz Bizkaiko euskaldun. Gagozen egunotan ez da gauza utsa, ez da gitxi eskertzekoa. Zorioneko euskera batua dala-ta ezjala, euskerearen eriotza ekarteko arriskuan ez ete gara sartu?

* Zer (1982, 59.zenb.) 14.

Iraupidea

Atzerri bateko izkuntzalari batek esanak zentzun osozkoa dirudi. Onela diño: «Len berea eban euskereari eusten jakin ez dauan euskaldunak, zelan jakin lei berea eztauan euskera bati eusten? Barri eta arrotz egiten jakon euskera bati iraun eragiten?» Eta ez, bere izkuntzari maitasunik ez deusalako, inguruko erderai atzera eragin eziñez baiño.

Niri neuri, gure inguruan dabillan jokabidea ikusita, arako errizapaltzaille andiarena etorten jat gogora. Gizon guztiak sama bat bakarra eukitea gura ei eban, sama ori ebagita, guztiak era batera ilteko.

Euskera batuzale guztiak ez dot esango euskerearen eriotzea nai dabenik. Baiña askoren alegin setatsuak ez ete doaz orretara? Euskera biziai, lekuan lekuko euskera bizia ukatuaz, edo beintzat bizitea nekezko eta gatx ipiñiaz, eta arein orde euskera erkin, bizibako eta il, erdizperdi ikasiriko bat ezarri bearraren bearraz, euskerea itotera, euskerean bizia galtzera doaz.

Lekua artzen

Euskera bizi bat galdu eta aren orde beste euskera bat, ohea, jartea balitz, gatx erdi izango litzake.

Baiña euskera bizi bat galtzen dan lekuan, aren utsunea ez dau beste euskera batek betetan, erderak, alde batekoak edo bestekoak, baiño.

Zuberoko euskerea galtzen dan lekuan, ez da an lapurdiera ez euskera batua sartzen. Frantza baiño.

Zori txarrekoak

Onetan Bizkaiko euskerea da, guztien eretxiz, zorigaitzokoena.

Gaur irakurri dot euskal-idazle ugarienetako batek esan dauana. Euskera batuan idatzi, nai bizkaieraz idatzi, euskera jator eta garbian idaztea ei da kontua.

Baiña or zear dabilzan batzuentzat euskera batutik kanpo euskera jator garbirik ez ei dago.

Olango zentzunbakokeriak esan eta esateraiño eldu gara.

Aitatu dodan idazleak esana da beste au be: «Zuberotar batentzat alperrik idatziko dogu bizkaiera utsean; ez leuke ulertuko». Batuzaleen aldizkarietan Zuberoko euskeraz idatzitako olerki eta idazlanak noiz nai izaten dabe abegi ona, eta zabalik atea. Baiña bizkaierazkoak? Iñondik iñora be ez. Pekatu larriegia litzake ori.

Bizkaiko euskerea ez da olakoentzat euskera. Auntzerdera edo aren senideen bat da, izatekotan. Geien geien be, bizkaierea lekuan lekukokeri batzuk aztertzeko asmotan aintzat artuko dabe: *nungu*, *einbizuz*, eta olako uskeriren batzuk non ta noraiño esaten diran aztertzeko.

Estonba'ren eritxia

Orain galdu dogun idazlea, Estonba jauna, ez gendun jokabide eta eretxi orretakoa. Bizkaiereari bere nortasuna aitortu izan deutso, eta bizkaiera jator eta landu baten idazten alegindu da.

Nik ez dakit noz eta non ikasita. Bizkaiko euskerea entzun eta ezagutzeko erea Bizkaiko abadegeien irakasle izan zaneke urteak emon eutson, antza. Batez be, Bilboko Eleiz-barrutiko ikastxeetan. Eta udako opor-egunetan.

Nik badakit neure errian be, Baltzola aldean, emon zituela udako egun asko, ango abadegei baten etxean. An eukan aukerea Arratiako euskerara belarria egiteko.

Gero Ameriketatik, mixio-errietatik osteratxoa eginda, Urkiolan ipiñi ebenean abade, or euki dau eskola barri luzeagoa.

Ezker ona

Eta Urkiolatik ainbat lan bialdu ditu Bizkaiko euskal-orrietara. ZER onen irakurleak badakie ori. Ez dot nik emendik guztien esker ona biztu bearrik.

Benetako apostolu eta mixiolari lez, guztientzat guztia izan nai eban oni, Bizkaian Bizkaikoa, eta bizkaerazko idazlea izaten alegindu zan oni, biotz-biotzez: Eskerrik asko.

EUSKAL IDAZLEAK

PRIMERA VERSION CASTELLANA DEL PRIMER LIBRO IMPRESO QUE SE CONOCE EN EUSKERA*

Esta traducción de la primera obra impresa en vascuence se debe a iniciativa y encargo del director de *La Gran Enciclopedia Vasca*, el cual ha querido así completar el servicio prestado a los estudiosos de las letras vascas con la reproducción en facsímil de la primera edición de *Linguae Vasconum Primitiae*, aparecida en el fascículo primero de esta publicación.

La traducción es más literal que literaria, hecha sin otra pretensión que la de proporcionar una ayuda para la lectura del texto original a los no habituados al manejo de nuestros primeros textos.

Dechepare ha sido ya traducido al alemán, por V. Stempf de 1887 al 1893, y al francés, por J.B. Archu, hace más de un siglo, y por René Lafon, recientemente. La traducción más fiel es, sin duda, la de este último, miembro de la Academia de la Lengua Vasca y profesor de la facultad de Letras de la Universidad de Burdeos. Autor de «Le systéme du Verbe Basque au XVI siècle», sus conocimientos históricos sobre el verbo vasco le han permitido superar los escollos que no supo salvar Stempf por desconocimiento de ciertos arcaísmos verbales, como el imperativo o prescriptivo con *albait*, usado el siglo XVI por Dechepare y por Leizarraga, y por Etcheberri, el siglo siguiente. Esto no equivale a decir que la traducción de Lafon sea inmejorable ni que esté exenta de algunos fallos. Vayan aquí algunos para muestra.

En «Amorosen gaztiguya», la traducción del título mismo no es muy acertada. *Gaztigu* no es crítica, sino el equivalente del castellano aviso, en su doble acepción de noticia que se envía, y de advertencia, consejo, y aquí tiene el mismo sentido que en el castellano antiguo la palabra *castigo*, sinónimo de enseñanza, amonestación y

* La Gran Enciclopedia Vasca 1 (Bilbao 1966) 355-370; *El primer libro impreso en euskera* (año 1545). *Reproducción facsímil...* Bilbao 1978, 73-88.

hasta de escarmiento, como en el Arcipreste de Hita. Con la misma significación se repite en el cuerpo de la poseía esa palabra con sus derivados. Así *gaztigari* no es castigador sino más bien predicador, vendedor de consejos, como quien dice. Por lo mismo, carecen de base todas las cábalas hechas por alguien sobre posibles procedimientos duros empleados con subordinados suyos por el autor. *Gaztigari* no alude sino al oficio de predicador y consejero que Dechepare desempeñaba con sus feligreses en su calidad de párroco de Eiharalarre.

En la misma poesía, Lafon no ha leído bien los dos versos siguientes: *Mundu oro iraganic ez eriden berceric - Ieycoaren ama hona gracia oroz betheric*. El segundo verso es complemento del primero. La frase se entendería mejor deshaciendo el verso y ordenándola de esta manera: *Mundu oro iraganic ez eriden leyncoaren ama hona berceric*. Pero la construcción de estos versos dechepareanos es corriente aun en el uso actual, tanto en verso como en prosa. No había por qué haber puntuado después de *berceric*, como lo ha hecho Lafon. Ya Stempf, como se ve por su traducción, sorteó bien esta dificultad.

Tampoco la interpretación de *Viocian diraustazu* (pág. 82, primer fascículo de esta Enciclopedia, segunda estrofa) es del todo indiscutible y segura. Si de *dio* le sale a Dechepare *diostazu*, ¿por qué no podía haber salido *diraustazu* a partir de *diraul*? Por consiguiente, ¿no cabrá traducir esas palabras por *en el corazón me dura, llevo grabado* (tu dolor)?

Al oponer estos reparos a la traducción de Lafon, no se pretende que la presente traducción haya salvado todas las dificultades del texto dechepareano. Quedarán algunos puntos discutibles. ¿Es seguro, por ejemplo, que el *verdi* de la página III, verso primero, sea errata de *verdinl*? ¿Y cuál es el sentido preciso de *Saroya da lohitul*?

Y pasando a otro punto, ¿hará falta decir algo sobre el fondo naturalista de parte de la obra dechepareana, que se ha utilizado a veces para echar sombras sobre la conducta moral del autor? Sin embargo, su fama de sacerdote ejemplar parece estar históricamente bien cimentada, y no hay motivo serio para dar carácter autobiográfico a esas poesías de fondo amoroso que Dechepare escribió. Ciertamente en ellas el tema del amor está tratado sin concesiones al platonismo, con fuerte realismo, mucho desenfado y buena carga también de socarronería. Por tales características destaca la que lleva por título: «*Emazten favore*», en la que, después de haber discurrecido, su autor en defensa de las mujeres en tonos dignos de la musa de Sor Inés de la Cruz, nos sorprende de pronto con una explosión de su humor socarrón, lanzando a los hombres, como el más contundente argumento *ad hominem*, las tres últimas estrofas, de las que las dos primeras fueron omitidas en la versión francesa de Archu, y Stempf no quiso traducirlas sino en latín. Pero no hay indicios de que el autor nos esté dando en esos versos experiencias propias. El tomó el tema del amor como simple ejercicio literario. Esto dicen las propias palabras de Dechepare en su prólogo. Sus propósitos eran de entregar a los vascos, escrito en su lengua, algo de doctrina cristiana, y algunos temas más que les sirvieran de entretenimiento, de motivos para animar conversaciones o para ser contados. Temas hay también que, por su mismo título, excluyen la posibilidad de ser un sacerdote su protagonista.

Una última pregunta: ¿Halló la obra de Dechepare el eco que su autor pretendía en el pueblo vasco? Azkue (*Cancionero*, pp. 884-6, y *Aezkera*, p. 68 y 70) recogió en nuestro siglo un canto religioso, evidentemente calcado en Dechepare y cantado por toda la geografía del País Vasco, desde Murélaga, en Vizcaya, hasta el Valle de Aezkoa, pasando por Olazagutia. El Padre Donosti recogió otra variante en el Valle de Salazar. Y en nuestro cancionero es frecuente la forma dialogada entre el galán y la dama, con iguales reservas por parte de ésta, frente a las insinuaciones de aquél, que encontramos en la obra de Dechepare **.

** Emen Etxepareren testuak jarraitzen dau, L. Akesolok gaztelerara itzulia.

EUSKERAZKO LEENENGO LIBURUA*

Iru izkuntzatan

Euskeraz leenengo argitaratu zan liburua, *Euskerearen Asikiñak*, barriro atara deuskue. Eihalarreko abade batek, Etxepare zanak, 1545 gn. urtean egiña da. Ia ez egoan gogoratu bearrik. Orduko euskera zaarrean agertu zan, eta orduko jazkera zaarrean. Orain, jantzi barria ipiñi deutsoe: oraingo ortografian dator. Eta geiagorentzat ulerterrezago egin daiten, gure auzoko erdera bietara —Gaztelakora ta Frantziakora— biurtuta agertzen da. Eta gaiñeko apaingarri ta guzti jatorku.

Neke guztiok artu dira, gure izkuntzearen leenengo frutu au aalik eta geienen aukeran ipintearren.

Esan danez, euskarazko zatia oraingo ortografian dator, eta puntu ta gaiñerakoz ornidua. Lenengoz agertu zanean, ez eukan ez punturik ez beste olango etengarririk, eta antxiñako letra zaarrean egoan. Olantxe dago, oraintsu Bilbon egin dan argitaldia bere. Ortik zan askorentzat ain irakurteko gatxa liburu zaar eta irakurgarri ori.

Konponketa au Lino Akesolok egin deutso, baita gaztelerazko itzulpena bere. Frantziako erderera biurtzea, René Lafon jaunak egiña dau. Akesolo berak ezarri deutsoz, gaiñera, euskeraz argitasun gitxi batzuk, barbarik illunenetan. Mitxelena, euskalari jakintsuak egin deutso, berari jagokonez, itzaurre apain, dotore, sakon eta argigarria.

Agiri danez, Euskal Erri osoak artu dau lan onetan parte. Bizkaiak egin dau arlorik andiena Akesoloren bitartez. Gipuzkoatik eta mugaz andiko aldetik, or ditugu Mitxelena ta Lafon jaunak. Etxeparek merezi eban olango omenaldirik euskaldun guztien aldetik. Bizkaitarren aldetik bere bai.

* Anaitasuna (1968, 171,zenb.) 9; *Amuxalde* izenpean. Amuxalde: L. Akesolo jaio zan auzotik gorako baso ta iturri baten izena da.

Zegaitik ez Bizkaiak lan onetan parte artu? Bere bertso batzuk, Etxepare orren bertso batzuk, Jaungoikoak daki nongo ta zelango bideetatik, Bizkairaiño eldu zirean. Azkue andiak aurkitu ta jaso zituan olako batzuk Bizkaiko menditarte estu baten, non eta Murelagan, ango andra baten agotik:

«Kristiñau onak bear leuke jaian jaian pentsadu
aste guztian zeinbat bidar ein ete daben pekatu...
Kristiñau on bat ilten danean, egiten dabe bi parte:
gorputza eroan eleizara ta lurraz estalduten dabe.
Arima ona ba doia eta nora doan inok ez daki...»

Urteen joan-etorrian zerbait aldatuta, eta Bizkaiko jasa artuta dagoz bertso orreik; baiña ezin ukatu, eurok aspaldiko Etxepare zaarraren soiñua dakarrenik. Eta olako bertso batzuk aurkitu dira Euskal Erriko bazter askotxotan, mugaz emendiko Euskal Errian, Olazagutian asi ta Aezkoa ta Saraitsuraiño.

Egia da, norbaitek esan dauala: Bertso orreik ez eta dira Etxepare baiño leenagokoak? Abade onek ez ete zituan erriaren agotik entzun eta ikasi? Nik ezetz erantzungo neuke. Errian jasotako bertsorik emon gura izan baleusku, Etxeparek ez ete euskun bere itzaurrean esango? Eta ez diño olakorik. Berak egin dituala difio. Eta euskerearen asikintzat eskintzen deutsez euskaldunei, eurak irakurri ta kantatzera egin daitezcan, gogoaren asegarri ta asti-emongarri izan eiezan.

Merezi eban, bai, Etxepare onek gaurko euskaldunen artean ezagunagoa izatea; eta ona non eskintzen jaken guztiei barriro bere lana, bere liburua, guztien aukeran jarrita, naiko merke. Gipuzkoako gazte talde batek artu dau arazo ta ardura au, Ediliren izenpean. Euskerearen alderako asmo batek bultz eginda ekin deutsoe lan oni. Euskarearen onerako. Euskaldun zaar eta barriak alkar obeto ezagutu daien. Guztiok, gure izkuntzeak emon dituan frutu edo frututxoen barri obeto ikasi daigun. Gure euskereak, urteak joan eta urteak etorri, egin dituan aldakuntzak ikasteko aukerea euki daigun.

Emen ez dago orain Etxepare izanaren merituak goratu bearrik. Jakitun askok egin dabe lan ori. Eta ez daigun bere liburu au baztertu, erderakada batzuk ba dituala ta. Entzun onetan kanpoko jakitun baten eritxia: Euskerearen aldetik, Etxepare benetan idazle garbia da, itzalean garbia, beste izkuntza askoren leenengo frutuen aldean.

Gogoan izan daigun, batez be, bere asmoa: euskerea biztu ta aurrera atera gurea. Nok ez dakiz bere bertsoak?

Euskara, jalgi adi plazara,
Euskara, jalgi adi dantzara,
abil mundu guzira!

Asmo bardiñak erabilli dabez liburu onen ataratzailleak bere, eta esker onik merezi dabe euskaldun onen aldetik.

ETXEPARE LAUREUN URTE GEROAGO*

Gizon andien ospea, askotan, illerriko lorea izaten omen da, illondoko gertaera; geroko gizaldiek geitu eta ozenagotua. Ala gertatu da idazle andi izan diran askorekin. Alaxe gertatu da euskerazko leen-idazletzat dugunarekin, euskerazko leen-liliak eman zituen Etxepare-rekin.

Dakusagun: Aren gorputza lurra estali zueneko, aren izena eta euskal-lana ere lurpeak iretsi zituela dirudi. Non gelditu ziren euskarari mundu guzira zabaltzea opa zionaren amesak? Nolako arrera izan ote zuen euskaldunen artean? Zer erantzun asmatu eziñik gaude. Oraintsu jakin dugunez, bigarren edizioen bat ere izan omen zuen euskarazko leen-liburu ark (Erroanen, Rouen, Morront-enean), eta luzaro gabe, dirudianez, utsez josia bazan ere. Leenbiziko edizioak ale bat bakarra utzi du; bigarrenaren aztarnarik ere ez da azaldu. Euskalerrriak nolako arrera egin zion nolabait asmatzeko, argi-zirrintatxo bat ere ez zaigu agertzen. Aipamen labur bat edo beste, besterik ez: Lope Martinez Isasti giputzarena bat, eta Oihenart Zuberotarrarena bestea. Bion egunetakoa da Sara-Ziburuko idazle-taldea, izen andi mordotxoak osatzen duena, Etxeberri Ziburukoa eta Axular andia tartean dirala. Eta badirudi talde onek ez duela Etxepare ezagutu, edo beintzat ez duela onen lana aintzat artu. Sara inguruko talde orrentzat, Etxeberri Ziburukoa izan da Jainkoarekiko gaiak, kristaugaraiak euskal-bertsotan leenbizikoz erabilli eta landu dituen idazlea.

Ala ere, badakigu Etxepare-ren bertso-puska bat edo bestek Euskalerrriko elizkantueta gure egunetaraiño iraun dutela. Bai Azkuek eta bai Aita Donostiak elkarrengandik naiko urrun dauden errietan entzun eta bildu zituzten: Aezkoan, Saraitsun, Olazagutian eta Bizkaiko Murelagan ere bai. Erriarenak ala Etxepare berarenak? Or dago, noski, auzia. Ori da argitu bearra. Baiña Etxepare-renak balira ere, erri kantariak ez du jakin norenak ziran, eta Etxepare ez-ezagun gelditu da edonola ere.

* Euskera 21 (1981) 449-451. Donostian, 1980-VI-27n, emondako itzaldia.

Ez ezaguna an eta emen, Iparraldean eta Egoaldean. Noiz arte? Parisen gordetzen zuten eta duten ale bakarra aurkitu eta argitara zuten arte.

Egun zorioneko gogoangari ori ez zan gertatu liburuaren irugarren menderarte. Egun ori Etxepare-rentzat berpizte eguna izan da, eta ez irugarren eguneko berpiztea, ez irugarren urtekoa ere, irureun urte geroagokoa baizik. Irureun urtez illunpean, lurpean bezala, egona, orduantxe dator argitara, Brunet, Artxu eta Michel, iru gizonon laguntzaz edo egitez. Urtea 1847garrena zan. Etxepare-ren liburua, euskerazko leen-bizikoa dalakoa, frantzes itzulpen eta guzti eman zuten.

Urrengo argitaraldia, Vinson eta Hovelacque jaunen eragitez, 1874 garrenean dator. Aurreko edizioaren utsak zuzenduz eta testoa bera osoago emanez. Beste irugarren bat, Van Eys zanak prestatua, amaitu gabe gelditu zan Berlingo *EUSKERA* aldizkariaren orrietan. Azkenez, aleman batek, Stempf zanak, emango zuen joan dan mendeko ediziorik osoena eta zeatzena, zatika eta batean, 1888.etik 1893garrenera, aleman itzulpenez ornitua. Etxepare-ren euskera zaarra ulertzen laguntzeko, bi iztegi ere atera zituen, bata alemanez, frantzesez bestea.

Orduan da garaia Euskalerrriak Etxepare-ri nolako arrera egin dion ikusteko. Etxepare-ren inguruko dantza au izkuntzalari eta jakitunen artekoa izan dan arren, erri xeea ez da kanpotik begira eta gose utsean gelditu. Manterola, Labairu eta aldizkari batzuk izango dira bitarteko. Batez ere, Manterolak, bere *Cancionero Basco* delako euskal-poeten bilduman, Etxepare zarrari leku emanez gainera, Michel-en iritziak bere egiñez, ia eder-iritzi osozkoa ematen dio gure leen-idazlearen bertso-lan geienari. Gai batzuetan ez omen da arnas andiko poeta; baiña beste batzuetan, gai ariñetan, maitezkoetan, oso yayoa omen da, guztiz xarmanta, atsegiña, poesiaren eder eta graziduna, askotan biotz beroduna. Teokritoren eta antziñateko eglogalarien xalotasuna, antzea eta antza aurkitzen dizkio gure poetari. Orra Mitxel-en iritzia, Manterolak berea egin duena.

Geroago, Orixe zanaren iritxia ez zebillan ortik guztiz urruti. Orixek ere ez zuen aurkitzen Etxepare «biotzaldi aundietako poeta, baño bai leguna, itz utsik eztuna, jaso (correcto), lenbizikoa ez ezik gaurkoa ere izateko; idaztankera lasterra, ta muinduna du, ebakia eta erraza». Lafitte jaunarentzat itzez urria baldin bada, Orixe-rentzat ori ez da pekatu; orri itz utsik, alperreko itzik ez izatea esaten dio. «Zathi ederrak baditu, esaten zuen bestalde Lafitte maixuak berak ere, «baina» bat jarriaz. «Baina —egia egiari zor— aphez batek segurik egin behar ez bezalako hetarik ere bai parrasta bat».

Azken iritzi au, orraitio, ez dezagun uste apez batena bakarrik danik. Stempf eta Michel, ez bata ez bestea, ez ziran apez, baiña iritzi beretsukoak bai. Arxuk ez zituen puska batzuk argitaratu ez frantzesera itzuli eta Michel-ek Arxuk egiñari on iritzi zion. Stempf-ek, berriz, puska berak alemanera itzultzerakoan, ez zituen bada ezpada alemanez jarri, latinez baizik.

Orrela, Etxepare-ren berpiztea joan dan mendean ez zan gaizki asi. Baiña gure mendeak, Etxepare-ren laugarren mendeak jarri bear zion gallurra arteño egindako lanari.

Eta gaillurra jartze au orain Aita Altunak burututako lana dugu. Ez da, ala ere, berez etorri. Beste askok, zeñek bere lanaz eta esku ezartzeaz, jarri diote oiñarria,

aurrekoek egiñari ekinez eta jarraituz. Stempf jaunak leenago egindakoaren arabera, Aita Altuna ere berdintsu saiatu da Etxepare-ren testoa alik osoen eta garbien ematen, aren iztegia alik era zeatzen finkatzen eta argitzen. Bi lanok egiten saiatu da Altuna, leengoek egiña bilduz eta aurrerago eramanez. Baiña goazen poliki. Aurreko lan-gilleen izen batzuk aipa ditzagun. Eta ona bi, aazturik ez uztekoak: Julio Urkijo eta René Lafon.

Urkijok eman zigun, leen aldiz, Etxepare-ren edizio facsimil delakoa. Orrekin, nik uste, idazlearen laugarren mendeurrena ospatzeko oiñarriak jarri nai zituen, 1945ko mendeurrena, egun beltz illunetan etorri zitzaiguna. Ala bearrik, zorionez, urte orretan atera zen aldizkari berri bat: *Boletín de la R.S.B. de los Amigos del País*. Egiñ-egiñean, mendeurren orren oroitzapena egiteko garaiz zetorren. Eta oroitzapen beroa eskaiñi zion Etxepareri Fausto Arocena jaunaren lumaz. Bazan zerbait. Baiña ez aski. Ixillean bazan Etxepare-ren omenerako zerbait geiago egiten ari zanik. Batez ere René Lafon.

Jakintsu au aspalditik asia zan gure idazle zaarren euskera, aditz eta itz, aztertzen eta argitzen. Beronena dugu Etxepare-ren frantzes itzulpen bat, eta edizio kritiko baterako gaiak prestatzeko asmoa, eta asmo au aurrera eraman zuen. Aita Altunak ongi baliatu du ark egindako lana.

Laster datoz Etxepare-ren bi edizio berri: Bilbon, La Gran Enciclopedia Vasca argital-etxeak emana, Gaztelako erdal-itzulpenarekin, facsimilezko edizioa, bata. Eta bestea Donostian *Txertoa* etxeak eragiña, testoa oraingo ortografiara aldaturik duela, eta bi erderetara, Frantziakora eta Gaztelakora itzulia. Edizio biok, bata eta besteak, bigarren ateraldia izan dute. Arrera ona izan dutelako ezaugarri.

Gaur, aurreko guztiari gaillura ematera datorkigu Aita Altunarena. Oraingo onek Etxepare-ren berpizte eguna egun betera dakarrela argi dago. Oraingoan, Etxepareren omenak Euskalerrri osoa jo bear du. Oraingoan, Etxepare-ren ames eta kezkek beren bete a lortu bear dute: «Euskara, jaldi adi kanpora! Euskara, jalgi adi plazara! Euskara, habil mundu guzira!» Eta ames onek beste gure mendeko olerkari baten amesaz bat egin bear du: «Baña nik, ízkuntza larrekoa, / nai aunak ere noranaikoa; / jakite-egoek igoa, / soña zar, berri gogoa...»

Ez al dakusagu euskera ateraten, ikastoletan sartzen, Ikastetxe Nagusietako atepak jotzen, edozein gai erabiltzeko gai egin naiez, mundu guztia barruan artu bearrez?

Ez da, bearbada, dana jatorra eta garbiegia. Egia da kalean euskal oi u asko entzuten dala, paretak eta bazterrak euskal-zirriborroz belzturik ikusten ditugula, geiegitan euskal-gaiztozko zirriborroz. Ez zan ori, noski, Garaziko semearen amesa. Euskera kanpora atera izateko, barnean eraman eta bizirik gorde bearrean gaude. Gaur, Garaziko semearen oi u orri beste geigarri bat erantsi bearko genioke: *Euskara, sar adi barnera, sar adi euskaldunen etxeetara*. Euskera biziak irau dezala gure etxeetan. Etxepare-ren egunetako bizia izan dezala. Euskerak askozaz giro ohea zeukan aren egunetan, euskalerrietan, euskal-etxeetan. Itzuliko al gera berriz giro orretara, lanak emango baditu ere, Etxepare-ren oi u jatorkiengo bete dadin.

Gaiñerakoan, gaurko oroitzapen onek, liburu-aurrezte onek badu beste alderdirik, alderdi pozgarria, benetan. Laureun urte iragan ondoren, Etxepare berriz geuretu dugula esan dezakegu, euskaldunok atzerritarren eskuetatik atera eta geurera

ekarri dugula. Leen, orain arte, atzerriko izkuntzalari eta jakintsuen eskuetan utzia genduen, orain euskaldunen eskuek artu dute eta derabillate aztergai. Bikainki gainera. Leen atzerrietan argitaratzen zana orain Euskalerrriak bein eta berriz ematen digu. Zordun andi gaude au egitea lortu dutenentzat, Urkijogandik asi eta aurrera. Zordun andiago aita Altunaren aldera.

Gaur, Etxepare berarekin esan dezakegu: «Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia».

Laureun urte joaten utziz gero, euskaldunek euskaldunoi eman digute Etxepare zaarra obeki ezagutzeko, aren lana obeki oaliostatzeko eta goratzeko aukera. Laureun urte igarota, bazan ere garaia!

JOANNES LEIZARRAGAREN GARAIA*

Nere gaia

Nere gaiari eldu baino leen, argitasun bat edo beste eman bearrean nago. Leizarragarren garaia aipatzean, ez dut aren mendea alde guztietarik artzeko asmorik. Ez dut aipatu nai ez orduko gerraterik ez beste olako borrokarik. Leizarragak egin zuen lanak berak erakusten du argi aski nolako egoeran bizi izan zen, zer auzi ta gudukak zeuden egun aietan Euskalerrian bertan, bai erlisionearen aldetik, eta bai politikaren, erri-agintzaren aldetik. Ez dut eremu ortako tirabirarik ukituko. Laburragoak dira ene xedeak. Leizarragaren inguruko euskal-giroa edo euskal-literatura besterik ez dut argitu eta ikertu nai. Orra, leenbiziko argitasuna.

Eta ona bigarrena: Noiz asi ta noiz arteraiñokoa da Leizarragaren garaia? Ez-paitugu xeetasunik geiegi aren bizitzako mugez. Mila ta seireungarren urte inguruan il zela dirudi. Baina noiz dugu sortua? Aren sortzea noiz jar? Adin andira eldu omen zen. Beraz, ez ditugu konduak txit makur aterako 1530 garren urtean bizien artean genuela esanez (Lafitte jaunak esango zigun bere itzaldian 1506n sortua zela).

Ortxe jarriko ditugu, bada, lan onen mugak ere. Ortxe, 1530 garren urtean asi eta 1600 garrena arteko urteetan murgilduko gara, ea euskal-literaturaren zeruan izarrik sortzen den, ea euskal-alorrek zer fruitu ematen duen, ea Leizarragaren aitzinetik eta ondoren nor ta nolako idazleak agertzen zaizkigun; labur esateko, nolako euskal-giroz eta idazle lagunez inguratutik ikusten dugun Beraskoizko seme argia.

* Euskera 17 (1972) 132-143. Beskoitze'n, 1971n, emondako itzaldia.

Leizarraga ez dago bakarrik

Nere lanaren mugak onela jarririk, lot nakion gaiari. Eta, leenik, esan dezadan Leizarraga ez dagoela bere garaiko euskal-literaturan lagunik gabe. Ez da bere aldiko euskal-idazle bakarra. Ez leena ere.

Munduan barna dabilta Unamuno éuskaldun erdal-idazlearen liburuak, eta oietan irakur dezakegu, ez bein bai berritarr, orain laureun urteko *Testamentu Berria* dela euskal-liburuetan leen argitaratua. Egiaz, bere burua ain jakintsu egiten zuen gizonarentzat makur andiegia da ori.

Leizarragak berak ere bazekien, eta nolabait aitortu zuen, ez zela bera euskaraz idazten leena. Gure mintzaera ainbat puskatan zatitua aurkitu zuela dio; baita ere gutxi landua, baina ez batere landugabea. Ori esan nai zuen, noski, gure izkuntza «sterilenetarik eta diversenetarik» dela esan zutenean. Baina irakur dezagun urrango lerroetan dioena: «eta oraino, translationetan behintzat, usatugabea». Beraz itzul-lanetaz kanpo, ez zen euskara usatugabea; nolabait usatua zen. Leizarragak *Testamentu Berria* itzuli baiño leenagotik bazen euskarazko libururik eta euskal-idazlerik.

Berak ez digu inoren izenik eman, baina oker andirik gabe esan dezakegu Etxepareren liburua ezagutzen zuela. Ez du izenez aipatu. Bear bada, bein erlisione berrira iragan zenez geroztik, Eiharalarreko erretoraren liburua ez zuen bere gogarakoa. Ez da arritzekoa. Ebangelio utsetik bizi nai zuenak ez zezakean onartu Etxeparek egin zuen liburuaren mamirik ez muinik. Baina liburu ori dena euskaraz sortua ta egina zen; ez zen «traslacionea», ez zen beste inongo izkuntzetarik itzulia. Agian, bada, liburu ori zuen gogoan Leizarragak arestian aipatu itzak idatzi zituenean. Eta ez ote zuen Etxeparek Beraskoizko sementa euskalzaletu? Ez ote zuen Eiharalarrekoak Leizarraga bere irrintzinaren jarraikitzaile egin?

Nola nai den, Leizarragarren garaia ikertzean, Etxepareren izena ez dezakegu atera gabe utzi.

Etxepareren lana eta irrintzina

Etxepare du gure literatura urriak bere argi-astearen xori kantari, bere udaberiaren berri-emaile. Eta ezin egokiago datorkigu gizon au bere lanarekin Leizarragaren garaiko berri emateko.

Nik ez dakit apez euskaldun onen irrintzina Euskalerriko bazter guzietaraino eldu zen ala ez; baina bai orduan asi zela Euskalerrri osoan kezka berri ta berdintsua zabaltzen. Etxepareren oiuari Euskalerrri osoak erantzun, iardetsi ziola dirudi. Eta ez balindaba ere izan kezka berri eta oldar berri orren sortzailea, esan genezake beintzat bera izan zela suztatzaille, bera izan zela guzien kezkak bildu eta mamitu zituena, bere oiujakina aurtiki zuenean: «Heuskara, ialgi adi plazara; Heuskara, ialgi adi kanpora; Euskara, habil mundu guzira».

Au dugu Etxepareren irrintzina, oiujakuna. Eta geroztik, gure erria oiujakuna orri erantzun bearrean dabilala dirudi. Geroztik, beti ditugu euskaldunen batzuek Etxepareren dantza ortan sartu nairik. Euskaldunak bakarrik ez; arrotzak ere bai. Dantza onen gidari, dantza orren profeta edo ots-emaile, Etxepare zaarra dugu.

Batzuk auresku, beste batzuk atzesku, batzuk euskaraz, besteak erdaraz, laster atera ziren gutxi batzu bederen euskararen dantza ortara, eta geroztik dantzak ez du etenik izan gure egunetara arte. Badabilta or ainbat euskaldun kezka jatorrez, kezka garbi eta lege onekoz, beren euskalduntasuna ukatu nai ez dutelarik, euskara landu eta kultur-izkuntza egin arte ezinegenez.

Or dabilta beste zenbait euskaldun, erdarara joten dutela, baina euskara goretzi eta ezagutarazi bearrez, beintzat. Ola, gure berbizkundera delakoaren alderdi biak, argia eta illuna, or daude. Batzuen eta besteen profeta azaltzen zaigu Etxepare:

«Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia,
ezi huien lengoajia izanen da floria.
Printze eta jaun handiek orok haren galdia:
Eskribatuz hal balute ikhasteko desira.
Oraidano egon bahiz inprimatu gabarik,
hi engoitik ebiliren mundu guzietarik.»

Emen dira, bai, arrotzak berak, gure dantzan sarturik, euskararen inguru min-guru, jakin-naiak ekarrik, gure izkuntzaren ezurmamiak azter bearrez.

Guzietarik bada gure egunetan, eta guzietarik bazen Leizarragaren garaian. Guk aski dugu emen garai artakoen berri ematea.

Euskararen asikinak, leen frutuak

As gaitezen Etxepareren barriekin, gutxi bat bederen. Ez du geiagoren bearrik, ain baita ezaguna. Gure leen idazlea dugu, edo, beintzat, euskara inprentara eramen zuen leena. Berak ere bazekien. Liburuari ezarri zion liburuan ongi erakutsi zuen: «Euskararen asikinak, leen frutuak» ematen zizkigun (*Linguae Vasconum Primitiae*). Arrotasuntxo ori barkagarri du. Esan dezagun, gainera, kritikorik zuzenen iritzi, ahalkezunik gabe, lotsaririk gabe, ager dezakeala gureak burua beste edozein izkuntzetan dituzten leen-liburuen aintzinean.

Baina, egungo au Leizarragaren omenaldia dugunez geroz, aipa dezadan ere, Beraskoizko semeak eta Eiharalarreko erretorak, biek zerbaitetan elkarrekin duten antza eta bien jokabide berdintsua. Euskal-alfabetatzearen aintzindari izan dira. Etxeparek onelaxe adiarazten du bere jokabidea: «Zeren orai zuk [onela esaten dio Lehete jaunari], Iaun noble eta naturazkoa bezala baituzu estimatzen, goratzen eta ohoratzen heuskara; zuri, neure iaun eta iabia bezala, igorten derauritzut heuskarazko koplak batzu, ene inorantziaren araura eginak, inprimierazi ditzatzun, eta zure eskutik orok dugun ioia ederra, inprimaturik heuskara, oraino izan eztena; eta zure hatse honetik dadin augmenta, kontinua eta publika mundu guzietara, eta baskoek bertzek bezala duten bere lengoajian skribuz doktrina, eta plazer egiteko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraitzeko materia, eta jinen direnek gero duten kausa oboro haren abantzatzeko».

Etxepareren xedeak argi daude or. Leenbiziko irakurgaiak eskaintzen die euskaldunei gogoak argitu ta eskolatu ditzaten, zer ikasi, zertaz mintzatu, zer kantatu ta nola astia eman izan dezaten.

Leizarraga, ordea, ez da bertsolari, eta ez du kantarik egin ez bertsorik ondu. Ontan kalvinistek beste lekutan erabili zuten baino bide ertsiagoa artu du, Luterok baino are askoz ertsiagoa. Baina, ortaz bestalde, Etxepareren bidetik ez dabila urrun: aren kezka berdintsua du. Bere ABC deritzan liburuan onelaxe dio: «Berze nazione guziek, zeinek bere lengoajeaz bezala, heuskaldunak ere berean duentzat zertan irakurtzen ikas ahal dezan, eta nola Jainkoa ezagutu eta zerbitzatu bearduen, nezesario estimatu dut ABC haur bere instrukzionerekin Heuskaraz iar ledin. Eta, hunelakotzat, Jainkoak egin drautan graziaren araura, haren laudoriotan enplegatatu izan naiz».

Orra idazle bi oien kezka berdintsua: euskaldunak zer irakurri izan bearra du, eta ortako biek lagundu nai dute.

Erdaldunak euskal-dantzan

Besterik gabe, goazen Etxeparek sortu duen edo ikusi duen euskararen inguruko dantza ikustera:

«Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara».
 Eta, leenbizi, or ditugu atzerrietako dantzariak:
 Lengojetan ohi intzan
 estimatze gutitan:
 orai aldiz hik behar duk
 ohoria orotan.
 Baskoak orok preziatzen
 Euskara ez iakin arren;
 orok ikusiren dute
 orai heuskara zer den.

Dantza au Leizarragaren egunetan asia dugu. Bai latinez, bai beste erdaratan atzerrietako idazletan euskararen berri on emailerik bada.

Or dugu Marineo Ziziliarra. Latinez, eta Gaztelako erdaraz ere bai, liburu askoren egilea da, Etxepareren eta Leizarragaren egunetan. An or ibili denean, euskaldunik kausitu du nonbait, eta eiei galdatuz egin eta bildurik, or utzi zituen, bere liburuetan sarturik, euskal-iztegi labur bat eta zenbait aditz-forma. Bizkai-aldeko euskararenak dira.

Bizpairur urte geroxeago, or non datorren Gaspar Gómez, Gaztelako idazlea, euskal-kanta batekin, Perutxorena deritzan kantarekin. Orduko euskaldunek non-nai erakusten zuten beren jatorria. Aien erdal gaiztoa erdalerriak ezagutzen zuen eta ez ditugu gutxitan erdal-liburuetan aldaturik ikusten. Eta noiz edo bein ematen digute euskal-esaera eta kanta ederrik ere. Zordun gaude erdal-idazle orrekin, Perutxoren au bildu eta gorde zigulako. Or ikusten dugu, leenbiziko aldiz, gure kanta zaarren asteko leloa:

Lelo lirelo zarai leroba!
 Iaz zoegia nintzan,
 aurten eroa.
 Esono amorari
 gaxo naizala,
 penaz natzala,
 datorkedala.
 Lelo lirelo zarai leroba!

Beste bat zorko diogu Lope de Vega idazle ain ugariari. Au ere Leizarragaren egunetako dogu, berrogei ta urtez. Berak idatzi zuen komedia batean bertso auk aurkitzen ditugu:

Zure begi ederrok,
 ene laztana,
 katibaturik naue
 librea nintzana.

Erri-kanta baten puska, noski, au ere, egungo egunetan nonbaiten entzun dena. Arabako erri batean bildu zuen Azkuek, Aramaionako Olaetan, Lope de Vegak eman zuenetik oso gutxi aldaturik, *Baltzerana nazan arren* izeneko kantuan. Lope de Vegak, noski, Araba-aldeko euskaldunen bati entzun eta artu zion, Gaspar Gomezek Perutxona bezala.

Garai bereko Frantziako literaturan ere bada olako euskal-pusketarik. Ezagunena Rabelais idazlearen liburu ospe andikoan dugu: Pantagrueli Panurgok esan itzak dira, beste izkuntza askotan esaten dizkion bezala. Izkuntzalariei buruausterik aski emanak dira. Rabelaisek ez du esan nongo izkuntzatan esanak diren; izkuntzalari emeago batzu oartu ziren euskaraz zeudela.

Printze eta izkuntzalarien dantza

Aitzina doa euskararen inguruko dantza. «Printze eta iaun andiek orok haren galdia». Etxepareren esan au ere ez zen gezur gertatu aipatzen dugun garai artan.

Karlos, Alemaniako eta Espainiako errege andia, lekuko. Euskaldunez inguratuturik bizi zen, bai lege-gizonez eta bai beste morroiez, eta ez da mirestekoa euskara poxi bat ikasi bazuen. Bi aldiz, gutxienez, ikusten dugu euskaraz mintzatzen, bein Nafarroako mandazai batekin, beste bein Sorabillako erri-jaunekin.

Arrotzak euskal-dantzara etorte ontan, or daude izkuntzalariak. Iru izendatuko ditugu, Leizarragaren egunetakoak irurak: Nikolas Landuchio, Smet edo Vulcanius delakoa, eta Escaligero; italiarra, Belgikakoa, eta frantzesakoa.

Landuchio dugu leenbiziko euskal-iztegiaren egillea. Euzkaraz titulu auxe du: «*Bocabularioa ezqueraz jaquiteco, eta ezqueraz verba eguiteco. Mila ta bosteun da irurogueta vi urtean.*» Oraintsu Agud eta Mitxelena jaunek argitara emana da.

Landuchio orren iztegiaren erdarazko itzak daude alde batean, eta bestean euskarazko ordainak. Geien batean, Bizkaï-arabako kutsua dute nabarien. Landuchiok, bidez aurkitzen zituen euskaldunei galde eginez apurka apurka egin zuela dirudi.

Baita ere badirudi askok errezegi ematen ziotela erantzuna galde-egileari, eta bat batean erdal-itza ematen. Orregatik erderakadez beterik dago, baina ez itz jator eta jakingarririk gabe. Euskaraz duen tituluaren azpian, Leizarragaren gogarako itzak dakazki: latinezko *Soli Deo honor et gloria* euskarara onela itzulirik: *Jaungoikoai honra eta gozoa, ez besteri*.

Josef Scaliger delakoak izan zuen ar-emanik euskaldunekin eta eder iritzi zion gure izkuntzari. Garai bereko Aita Marianaren itz batzu ez baziren ere izan euskaldunen bearrientzat atsegingarri, Scaliger onenak oso bestelakoak ditugu. Ona emen, Etxeberri Sarakoak euskarara itzuli zituen bezala: Euskarak «eztu barbarotasunik, ez ortz-karraskarik, ez eta ere ahogangazkorik; da hagitz emea, leguna eta eztia; eta dudarik gabe hagitz zaharra, eta Erromarrak baino lehen parte hetan zebilana».

Smet edo *Vulcanius* delakoaren izena euskaraz *arotza* esan genezake. Bere *Parergon* delakoan, Jornandes-en liburuari ezarri zion eraskinean, euskararen berri eman nai izan zuen. Eta, ain zuzen, Leizarragaren aipamen beroa irakurtzen dugu bertan. Bere gaztetan, Españiatik ibilia zen, bi Mendozatarren morroi eta zerbitzari. Gero, bere errialdera itzuli zenean, kalvinista egin zen. Argi ta garbi dio euskara literaturarako gai dela, eta kultur-izkuntza bilaka daitekeala, Belgikako izkuntzaren einean. Eta gure izkuntza onen eredu zenbait eman nairik, iztegi laburtxo bat sartu du bere liburuan, baita ere, Leizarragaren Testamentu Berritik arturik, *Gure Aita*, Jaunaren otoitza.

Leizarragaren azken-urteetan, (1597 gn) argitara zuen bere liburua. Eta Joana Albret, Nafarroako Erregina goraki aipatzen du eta kristau-agintarien eredu jarten, batez ere, Beraskoizko seme oni eragin zion Testamentu Berriaren itzulpenagatik. Beraz, *Smet* onen izena eta Leizarragarena ezin egokiago daude gaurko omenaldi ontan batera.

Euskaldunen dantza

Betor orain euskaldunen dantzari-taldea Etxepareren dantzara. Bi taldetan banatu bearko ditugu: euskaraz idatzi zutenen taldea eta erderaz idatzi zutenena: «Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara».

Dantzarako deia euskaldunentzat zen, leenik. Baina batzuk erdarara jo zuten euskararen alde egiteko, edo ta euskararen ontasun batzu argitan jarrarazteko. Jokabide au artzen dute Bizkaian eta Gipuzkoaldean Garibaik, Pozak, Madariagak eta Iburguenek, Leizagarraren aldikoak baizik ez aipatzearen.

Garibai istoriari emana zen, eta artxibo zaarretan eta artxibo bizietan, erriaren esaera eta kantaetan istorigintzarako gaiak bilatzen oitua. Sekulako ona egin zion euskal-literaturari mende zaarretako kanta bilduz eta argitaratzeko gai utziz. Orrez gainera, esaera zaarrak, atsotitzak ere bildu zituen. Orrelako bi bilduma dauzkagu. Arrasateko seme argi onek beste Mondragoeko eskribau batek bildu bertsoak esan bearra daduka: *Gutxiagati parkatu*. Geiago ez emana du bere pekatua. Ala ere esker onez artu bear diogu eman duen puskatxo.

Gutxiago balio du *Iburguen-Cachopin* delakoaren emaitzak. Batez ere, barkatu bearko diogu zaarrak zirelako kanta batzu berak ondu ta asmatu zituelakotz. Esate-

rako, *Lelorena* zelako kantua. Ala ere, aldi artako euskararen lekuko bezala, ez dira auek ere osotara gutxi-estekoak.

Poza Orduñako semetzat dago. Orduñarra zen, beintzat, legez, sortu, bear bada, Flandes-aldetan sortua izan arren. Lege-gizona zen, eta Unibersitateetan ikasten emeretzti urte egiña. Gero, Donostian urte batzuez irakasle izana, eta Bizkaitarren lege-gizon bezala, Bilbon lan egiña. Euskalduna zuen andrea, Laudioko alaba, eta berak ere euskararen jabe zela erakusten du. Erdarazko liburua utzi zigun euskarari buruz: «De la Antigua Lengua, Poblaciones y comarcas de las Españas». Utzi dezagun alde batera Pozaren tesis delakoa; ar dezagun, ordea, ematen dizkigun argitasunetan erakusten duen euskara. Euskal-iztegi txikitxo bat osatzeko aina badu. Orregatik, ez diogu ukatu bearko lekutxo bat mende artako euskal-itzen biltzaileen artean.

Eta, azkenez, Pedro *Madariaga*, Bizkaiko semea, gaztetarik Italian bama asko ikusi eta ikasia, eta gero Valenciako Unibersitatean Kaligrafi-irakasle. Antxe atera zuen, ain zuzen, bere *Honra de Escribanos*, ortografi-liburua, Leizarragak Testamentu Berria itzultzea bukatu zuen urte berean. Madariaga Etxeparerekin bat dator: «Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia». Euskalduntasuna ez du, ez, ukatu ez estali nai. Eta erdaldunek ere jakin zezaten euskararen berri, kapitulu bat sartzen du liburu ortan euskal-ortografiatz, «de la ortografía vizcaina», eta, bidenabar, euskarari buruz zenbait xeetasun ematen. An ateraten dituen itz eta esaeretan argi ageri du Bizkaikoa, Arratiakoa dela bere euskara. Eta bertan egiten digun aitorten batek arriturik uzten gaitu. Ezin du ikusi euskaldun erdalzalerik, edo euskaraz mintzatu nai ez denik, eta auxe dio: «Ni ez nauke nere euskaldunekin asarretu gabe, beren gutun eta ar-emanetan beren izkuntzaz baliatzen ez direnean; orrela askori sartzen die buruan ez ditekeala euzkaraz idatzi, izkuntza orretan liburuak ere idatziak direlarik».

Zer esan nai zuen azkenengo itz oiekin? Zeintzu ote dira Madariagaren aldiko euskal-liburu oiek?

Galdera onekin sartzen gara orain mintzaldi onen azkenean. Non dira Madariagaren eta Leizarragaren garaiko euskal-idazle eta euskal-liburuak? Galdera oni erantzuten, iardesten, saia gaitezen.

Aipatu dugu euskarazko leen-liburua, Etxeparerena. Berak eman digu aria mintzaldi ontako gaia nolabait orratu eta antolatzeko. Baiña Etxepareren lanaz gainera, zer besterik egin eta agertu zen garai artan?

Oraintzurarte iru libururen berri besterik ez genuen. Leizarragaren Testamentu Berria baino leenago, 1561n atera zen Iruñen Santxo de Elso zenaren *Doctrina Christiana*, erdaraz eta euskaraz. Erdarazko titulua ezagutzen dugu eta ez zen nolanaiko liburua, andik ateratzen denez. Askok eskaintzen zuen: kristau-dotrina bakarrik ez, janari egokia ematen zuen arimazaientzat eta beste bizibide guztietakoentzat. Isastik eta Nikolas Antonio bibliografo ospetsuak eman dizkigute aren xeetasunak. Orain ez dugu alerik ezagutzen.

Berdintu gertatzen zaigu beste doctrina batekin: Betolaza-renarekin. Bilbon, Leizarragaren azken-urteetan argitaratua dugu, 1596gn urtean. Erdaraz eta Bizkai-aldeko euskaraz idatzia da, Kalahorrako apezpikuaren aginduz argitara emana. Apezpiku onek, Pedro Manso izenez, urrengo urte batean legea jarri zuen urtero atera

bearko zirela olako dotrina-liburuak bere mende zeduzkan errietako euskaraz egiñak. Aipatu duguna besterik ez da eldu gure ezagutzara. Oraintsu artean ale bat bazen, eta onen kopietatik ezagutzen dugu orain.

Urte berean, 1596n alegia, agertu zen Iruñean beste liburu bat, euskararentzat balio andiena duena. Erdaraz darama titulua: *Refranes y sentencias*. Baina euskarazko *erran zuhurrez*, esaera zaarrez osatua dago, euskarak erdarazko itzulpena duela aldamenean. Nor ote zen aren biltzailea? Garibai ez ote zen diote batzuk. Gauza ziurrik ez dakigu. Baina liburu onenik ere ez zaigu alerik gelditzen. Alemaniako iri batean, Darmstadt-irian, zegoen ale bakarra azkenengo gerratean erre omen zen. Zorionez eta alabearrik, andik atera ziren kopiei esker ez dugu osoki galdu. Orraitio, Alemanian erre zen ori ere ez omen zegoen osorik. Oihenarte andiaren paperetan agertu dira oraintsu *erran zuhur* batzu, eta, Mitxelenaren iritiz, amaseigarren mendeko bilduma artan falta zirenak izatea baliteke.

Eta au da emen sortzen den galdera: Ez ote dira orrelaxe beste libururen batzu ere galdu? Ez ote da egia Madariagak esana, alegia, aren denboran, Leizarragak Testamentu Berria atera baino leen beraz, ba zela euskal-libururik? Eta, ain zuzen, badirudi Madariagak ez zuela, esaterako, Etxepareren liburua ezagutu, aren egunetakoa izan arren. Besteren batzu dira, dirudienez, ark aipatu nai dituenak.

Goiko galdera orri baiezkua eman bearrean gaudela uste dut. Beste libururik eta beste idazlerik ere izan genuela esan bearra dugu, noski baino noskiago.

Azken urte auetan agertu zaizkigu mende artako idazle geiago ere. Orrela dakigu beste lau idazleen zenbait berri, bi mugaz alde batetik, eta beste aldetik beste bi. Lau izen berri daduzkagu Leizarragaren lagunartean sartzeko. Laurak bertso gintzan aritu ziren.

Oihenartek emandakoen izenak auek dira: Joanes Etxegarai eta Arnaut Logras. Etxegarai Donibane Garaziko semea omen zen, eta Leizarragaren Testamentu Berria euskararitzen ari zenaldi berean omen zebilen idazten. *Artzain Gorria* izeneko pastoralaren egilea omen da, eta beste liburu bat ere, bertso-bilduma bat ere utzi omen zuen, Etxepareren tankeran egin bertsoekin.

Logras ere apezgoan kargu andiak izana dugu eta Oihenartek ikusi omen zuen onen bertso-bilduma bat ere.

Oraintsu jakin dugu Nafarroako idazle baten izena ere: Amendux, euskal poematxo baten egilea beinik bein.

Eta berrikiago izan dugu Nafarroako ermitau baten euskal-poemen berri. Joanes Undiano du izena. Leizarragaren mendekoa da au ere, eta euskal eta erdal idazle. Amaseigarren mendea bukatzerakoan, ba omen zedukan euskarazko olerki-mordo bat egiña. Eta bere testamentuen auxer aitortu zuen: «Alaber, bertsoerik anitz ondu du euskaraz, eta erdaraz ere bai zenbait, arimaren onerako gaietaz». Eta berriz gaude auen arrastorik bat ere gabe.

Zalgitzeko jaunaren poemen aztertarik gabe gauden bezala. Eta onek ez ote du Leizarragaren garaiko idazleen artean aipatua merezi? Aren izena daraman atsotitz-bilduma eldu zaigu eta, Oihenarten iritzian, poetarik andiena genuen euskal-poeten artean:

*Halakotz, hik, Zalgiz, eskaldun Poeta,
burura behar duk erramu-boneta,
zeren, nola baihaiz Parnaso gainean
bederatzi ahizpez maiteki hazia,
heiek erakatsiz hik, gur'adinean,
burutar' eman duk bertzek doi-hasia.*

Ez dakigu noiz eman zen bertso-lanetan; nola nai ere, Leizarragaren garaian sortu eta azia da.

* * *

Eldu naiz azkenera. Etxepareren euskal-dantzara aterarik, emen ikusi ditugu erdal-idazleak euskarari beren agurrak egiten. Emen ikusi ditugu atzerrietako izkuntzalarien piko ta jauziak gure euskararen inguruan. Emen, gure erdal-idazleen atzeskua; emen gure idazle jatorragoen, euskal-idazleen aureskua.

Gogoan ar ditzagun guzien izenak: Etxepare, Elso, Etxegarai, Amendux, Logras, Garibai, Betolaza, Undiano, Zalgitzeko jauna. Ez dezagun ahantzi guziori sortzea eman zien gure Euskalerria, Euskalerrri osoa, orduan askoz zabalagoa eta euskarari atxikiagoa, eta bere esaera zuur eta kantekin euskal-dantza ortako dantzari gailen eta jatorrena. Guziak ekarri ditugu ona, emen, Leizarragaren omenez, bakoitzak bere ingurutxo dantza dezan. Guziek asi zuten euskal-literaturaren udaberria.

Eta orduan asi dantzak gaur arte iraun du, eta gaur ere aitzina doa. Orduan sortu giroak ez ote dirau, orain ere, gutxi gora beera? Orain ere bada atzerriko izkuntzalari euskarari tinki atxikia denik, gure izkuntza ikertu eta ikasi bearrez. Euskalerrriak badu oraino erdal-idazlerik, euskararen alde bere luma zorrozten duenik; badu, eta au are pozgariago da, euskal-idazle zintzo eta pizkorrik ere. Leizarragaren aldiko alderdi onak eta txarrak batera daduzkagu. Ez ote dugu urrats oberik eta aitzineragokorik emango?

Etxeparek bere amesetan euskarari opa zion udaberria ez zen egiaz izan berak nai zuen bezain loretsua. Baina oinarriak jarri zituen beintzat. Asiera, astapena eman zion udaberriari, berak aitortu zuenez, astapena aula izan bazan ere: *debileprincipium*.

Etxeparek eta beste lagunek, nola nai ere, egin zuten orduan al zutena. Guri, XX garren mendekoei, geiago eskatzen zaigu, eta geiago egin dezakegu. Ez gaitzke beti astapen auletan gelditi.

Egia billakatuko al da Etxepareren esana: *Astapen aul onek izan beza ondorio obea*. Ortara jo dezagun, ortara saia gaitzen guziok *asmoz eta jakitez*.

BELTRAN DE ETXAUZ-EN 1584ko GUTUNA*

Egunotan, Sokoako erretor eta euskal-idazle andi izan dan Peru Larzabal zanaren illeta-meza izan dala-ta, entzun eta irakurri dogu, Baionako apezpiku jaunak, jaiotzaz Euskal-erritik urrunekoa dan arren, euskera ikasi dauala eta euskeraz itz egiteko gai dala, illeta aretan egin eban lez.

Egia esan, Baionako gotzain-aulkian izan da eleizgizonik, euskera gotzain eginda gero ikasi bear izan ez ebanik. Asko izan dira euskaldunak ango gotzaiñak, eta amaren altzoan ikasita jakin eben euskeraz egiten. Olakoxea dogu bat, amaseigarren gizaldian jaio eta 1598ko urtea ezkerro 1618ra artean Baionako gotzain, apezpiku izana, Beltran edo Beltran Etxauzekoa, Baigorri-ko semea, ango Etxauztarren jauregian 1556 edo 57n jaioa. Amaseigarren gizaldi orren barruan bertan, beste gotzain euskaldun bi ezagutzen ditugu Baionan: Lahet edo Lehet abizenekoa, 1504tik 1507ra, eta Joannes Sossiondo, 1567tik 1579ra.

Gure Beltran Etxauzkoaren izena eta euskalduntasuna ez da aitzuko. Axularren *Gero* irakurri dauanak badaki nori eskiñi eutsan Sarako erretor andiak bere liburu ori eta zein gora jasoten dauan bere gotzain izan eban Etxauztarraren euskalduntasuna eta euskaldunei eutsen maitasuna. Baiña gaur badogu beste argibiderik Etxauztar orren euskalduntasun jatorra ezagutzeko. Eun urtetik gora da Beltran Etxauzkoaren karta bat, bere anai bati, bera gotzain izan baiño lenagotik egiña, argitaratu zala. Orain ogetamar urte bigarren argitaraldia izan eban. Argitaraldiok bape akats eta uts bakoak ez dira.

Karmel aldizkari onen zuzendariak, Aita Julen Urkizak, ekarri barri dau, ain zuzen, Beltran de Etxauz-ek, 1584n bere anai Frantzuari idatziriko gutun orren zerokopia, Beltranek bere eskuz idatzirikoaren kopia jatorra. Kopia au aurrean dogula,

* Karmel 1988-1, 5-17.

ea amaseigarren gizaldiko euskal-puska orren ezaupide garbi ta zeatzagoa emoten dogun. Eta bide batez, ea Baionako Gotzain andiaren bizitzako barririk urtenenak emoten deusaguzan aldizkari onen irakurleari.

Beltran Etxauzko nor dogun?

Etxauztarrak Baigorriko Etxauz izeneko gaztelutik dakarre izena eta an dabe jatorria. Aspaldiko gizaldietatik ezagunak dira Naparroa guztian. Ango zaldun eta andikietakoak dira, antziñako Naparroan ango erregeen inguruan nabarmendu ziran zaldun eta andikietakoak. Naparroatik Aragoiko aldeetara be zabaldu zan abizena. Euretarike baten eskuetara dator amalaugarren gizaldian Baigorriko Bizkonde titulua, eta eurena dabe Etxauz. Arritzekoa da zelango taiu barriak artzen dituen toki-izenetan euskerazko izen batek, frantzesen lumetan. Beltranek 1584ko gutunean argi idatzi dau *Etxauz*. Geroago berak be, kanpotarrentzat beintzat, *Etxaux* idazten dau. Beste batzuk ezin siñistu alean aldatzen dabe: Dechaux, D'Etxauz, De Chauz, Des Chauz. Frantzialdean be, orraitio, Echauz idatzi dabe askok, Jaurgain-ek eta beste oraintsuagoko batzuk. Argi dagoana, gure ustez, zera da: frantzesak euren erara oguzkatuko daben arren, izen onen *Ch* letra ori ez dala frantzesen *Ch*, gure oraingo *Tx* baino. Beraz, emen Etxauz idatziko dogu.

Amaseigarren gizaldiaren bigarren aldean, Joana Albret edo Labriten egunetan sortu ziran buruketan katolikoek alde nabarmendu zan Antonio Etxauz, Baigorriko Bizkondearen semea da Beltran Etxauzko au, gero Baionako apezpiku izatera elduko dana. Beltranen gaztetako urteak ez ziran izan oso baketsuak. Alan siñistu geinke. Bigarren seme ebanek, aitik eleizgizon izateko eukan bere asmoetan, antza. Erregiñak Biarnotik bialduriko armagizonak Etxauzko gaztelua erre eutseneko estukura ta larririk, bere begiz ikusita beintzat, izan ebanik be ez dakigu. Non ete zan olango egunetan? Eleizgizon izateko gertetan, ikasten? Eta nongo ikastetxean? Nongo Unibertsitatean? Izkuntz askoren jabe egiña ei zan: latin, hebreo, greko, gaskoin eta Frantziako eta Gaztelako erdera. Non eta zelan ikasita? Katoliko eta hugonoteen arteko eztabaidak argitzeko ikasketa luze eta sakonak egin ei zituen, baiña noz eta non egin zituenik ez jaku esaten. Edozelan be, ikasturteak eta eleizgizonen maillan sartzea astiro eroan zituela dirudi, Beltranen urteetakoa zan Axularrek eroan zituen lez, mailla batetik bestera orduko, tarte luzeak itxita, bear bada, urte areitako bake txarreko giroaren eragiñez.

Enrike erregea, Frantzian laugarrena eta Naparroan eta Biarnon III zana, Anton Borbon eta Joana Albret edo Labrit-en semea, katolikoek aldera aldatu zanean, Etxauztarrentzat be egun obe baketsuagoak datoz. Katolikoek alde ain kementsu jokatu eban Antonio Etxauzko, Beltranen aitik, artu emon obeak izan ditu Erregiña zanaren semearekin, eta esku andia izan ei dau Errege gaztearen katolikotasunera bidean.

Baionako gotzain-aulkia utsik gelditu da 1593n, eta Enrike Erregek Beltran Etxauz aurkeztu dau utsunea betetako. Baiña orretan gelditu da dana. Erromak, antza, ez dau siñiste andirik Frantziako erregearen katolikoek alderako aldakuntzaz. Olan, atzeratu egin da Beltranentzat gotzain makullua artzea, 1598ra arte. Orduan bai, orduan Erromak baietza jatorke erregearen eskabideari. Eta orduan jakiten dogu

gure apezpiku gaia arteño epistolako baiño ez dala, abadetza artu barik dagoela. Ikasketa sakonak egiña ei zan protestante eta katolikoan arteko eztabaidak erabagitekero, eleizearen irakatsien alde lan egiteko, baiña eleizgizon oso egin barik. Orduko aldietan askotan jazo oi zana, baiña orixe ei da egia Etxauztar onen bizitzan be. Urrengo urtean, 1599, Erromara joan eta Klemente VIII garrenaren eskutik artu ei eban gotzaiñen soin-ganeko zuria.

Baionako Apezpiku (1598-1618) eta Tours-eko Artxapeziku (1618-1641)

Baionan Apezpiku egiñik sartu zenan Erregeren borondatea eta eskua osoan alde bazituen be, ain zuzen, Errege beraren ordezkaria, gobemadorea eban an areriorik andiena, katolikoan aurka amorrurik andiena erakutsi izan eban Gramontarretakoa, Albret erregeiñaren esku-makil eta hugonoteen babes emoilte gartsuena izana. Etxauztarra ez eban iñoz begi onez ikusi Baionako gotzain-aulkian. Iñoiz esan ei eban Gotzaiña ez zala berezko eriotzaz ilgo, bere eskuz ilda egingo ebalu mundu onetako aldia.

Beltran Etxauzko, alan be, bake opaka sartu zan bere ardurapean ipiñi eban eleiz-barruti atan, eta alegiñak alegin egingo zituen, lenengo ta bein, azken urteetan hugonoteen burrukak itxitako bake txarreko giroa onez onean aldatzen. Jakitez ondo orniturik etorren, orduan katoliko ta protestanteen artean eztabaidan ziran gaiak sakon ikasita. Bere itz onez eta indarkeririk erabilli barik ekarri ei zituen asko okerreko bidea itxi eta katolikoan artera. Batzuk, euren siñiskera bakarri ukatu barik, iltekoan euren gorpuak lengo eleizetan, katolikoan obitegiatan lurra artzeko eskubidea nai eban, baiña Gotzaiñak ez eban orretan amor emongo, eta ezezkoa izan zan, berak eskatuta, Erregeganik lortu eban agindua be. Bai Enrikek eta bai urrengo errege Luis XIII garrenak, aolkulari eta erreñuko erremusinari (limosna batu-banatzaille) nagusi izendatu eban. Eta askotan erabilli eban barruko ta kanpoko bakeak egiteko bitartekotzat, eta erreñuko beste arazo askotan euren ordezeko edo bateko edo besteko erregegai naiz erregeingaien ezkontzetan lagun eginda. Alde bateko eta besteko izkuntzen jabe zanez, olango arazoetarako ez eban lagun txarra. Olango arazoetan ibilli bearraz eta Baionako gobemadoreari eutsan bildurraz, bere eleizbarrutik kanpo, Paris aldetik naiz Baigorri bere erri aldetik ibilli bearra askotan jazo jakon, bear bada larregitan. Baiña egitekorik andiena, arimen artzai izatekoa, alde batera itxi barik. Eleizgizon ikasiak, Teologi eskola onekoak errietan ipinten (alan Axular eta beste batzuk), sermolari sentzun gitxikoak ixiltzen eta Jaunaren itza zabaltzeko egokiak ziranak ekarten (alan jesuita eta frantziskotar batzuk), edo apaiz batzuk eleiz-ikastetxe andietara bialtzen (alan Itxasuko erretor eta gero Saint-Cirango Abata izango zana), lan onuratsua egin eban.

Bere Baionako egunetan sortua da Sara inguruan arako euskal-idazleen antzeko eskola ederra, Axular, Joanes Etxeberri jesuita eta Materrek eta beste batzuk ospetsu egin ebena. Baionako eleizbarrutiko ardurak itxi zituanean be, Axularrek eta Joanes Etxeberri Ziburukoak ez eban aitzu Beltrani zor eutsoen laguntza. Berari eskiñi eutsan

1636an Etxeberrik *Elizara erabilteko liburua*, eta Axularrek, il ondoko opari lez, bere *Gero*, ain ospe andikoa.

Ez dogu aitzu barik itxi bearko Gotzaiñ oni Baionako aldiari jakon jakon jakon mingarri eta baltzena: 1609an sorgiñen aurkako auzirik ikaragarriena. Aldi atan Europa guztian ebilzen alango sorgin-arazoak. Ez euskaldunen artean bakarrik. Erregek jarrita, sorgiñak ziralakoak epaitzeko gizonak etorri ziran Lapurdira. Ikaragarrikoa izan zan euren jokabidea. Nor etzan an errudun? Sorgintzat salatuak baiño errudunago ziran salatzaileak eurak eta errudunen epailleak. Eundaka kristiñau, gizon eta emakume, eriotzara bialtzea, eta euren artean abade batzuk be bai; gure egunotan ezin siñistuko egiten jaku. Eta orixe egin eben, itsu-itsuan, zoro-zororik eta arrapatata, erregeak Lapurdira bialduriko epaille areik, *Lancre* izeneko bat (euskaldunen semea berau) auzitegi aren buru zala. Beltran Etxauzok erregegana jo eta goitik lortu zan epaikari zoro areik kendu eta txera bialtzea. Sorgin-triskantza ari emon jakon azkenaren gomutagarri, Donibane Lohitzun eta Ziburu bitartean, fraide barkartien etxe bat eragin eban Gotzaiñak, Andre Mari Bakearen Erregiñaren izeneko.

Ogei bat urtez iraun eban Beltran Etxauzok Baionako gotzaintzan: 1618n Toursko, Azkuek bere Iztegi andia argitaratu eban uriko Artxazpepiku izateko autatu eben. Alan be, Baionako eleizaren ardurea berak eroan ei eban 1621ra arte. Andik aurrera, Frantzia Goieneko eleizbarrutian jarraituko dau, Eleizearen serbitzari eta Erregearen aurrean lengo kargu berberak eukazala: aolkulari eta «erremusinari nagusi».

Erregeak eta Aita Santuak Kardenalaren maillara jasoteko euki eben Tours-era joan barritan. Baiña orduan bazan Erregea baiño agintari andiagoga zana, danean agintzeko azpi-jokoetan zurra: Richelieu andia. Mesede andi bat zor eutsan Etxauztarrari, ain zuzen errege-etxean agintzen asibari zala. Andik kanpora jaurtia izateko arriskutik atera eban. Mesede egiñari esker txarraz erantzun eutsan oraingoan. Azpitik lan eginda, beste adiskide batentzat lortu eban Kardenalen jantzi gorria. Beltranentzat egoana.

Tours-en il zanean, il-arri ederra eregi jakon, 1641n, ango artxapezpiku izanari: «Eman datza Bertrand Etxauzko, onegiñez gizon argia, jakituriz omen andikoa, jatorriz andikien odolekoa, Enrike zanaren eta Luis XIII errege dogunaren izendapenez limosna batu-banatzaille izana... Urtez eta Jainkoaren graziaz beterik larogeta bost urte zituela il da 1641 garreneko maiatzaren 21n».

(*Ikhertzaile* izen orde) Lassalle euskal-idazleak 1935n *Gure Herrian* gotzain au «euskaldun apezpikurik goretziena» dala esan euskun. Alan da, izan be. Eta alakotzat geldituko da Axularrek bere *Gero* Liburuaren atarian eskiñi eutsazan goragarriko itzak an dirauen artean eta euskaldunak irakurriko dabezan bitartean. An ikusiko ditu euskaldun irakurleak Axularrek ezagutu zituen Etxauztarren omenezko eta goramenezko itzik bero eta ederrenak. Eta ez ditu idatzi, euren ederra irabaztearren. II ondoko berba zintzo ta beroak dira. An ikusten dogu Axularrek berak bere jaun maitea il baiño len ikustera ez joanaren atsekabea, *gerotik gerora* ibilli zalako, bere liburuko irakatsien aurka. An ikusten dogu Beltranen euskalduntasuna, euskalzaletasuna, eta euskaldunai beti erakutsi eutsen maitasuna eta egiten eutsen txera ona. «Joan zatzaizkit lurretik baina ez gogotik, eta ez bihotzetik», diñotso, bizirik aurrean

baleu lez. Eta berari eskintzen deutso bere liburua, aita il ondoko umezurtza. Bera egiten dau euskaldunen buruzagi, eta euskeraz ezer idatziko bada, berari zor jakola diñotso, eta orregatik berari eskiñ eta aurkestu bear jakola. Lassallek egian esan eban: Beltran Etxauz euskaldun apezpikuetarik goretsiena da benetan.

Beltran Etxauzkoaren euskerazko gutuna

Gaurko gotzaiñak artzai-kartak, pastoralak idatzi eta zabalduz erantzuten deutsoe geien batez eleiztarrak kristiñau-bizitzan eskolatzeke, itzaren ogiaz euren menpekoak janaritzeke eginbearrari. Orduan ez egoan oitura ori gaurko eran ezarrita. Alan, ez daukagu Baionako gotzaiñaren artzai-kartarik. Ez dakigu iñoz libururik edo itzaldirik argitaratu ebanik be, ez euskerazkorik ez erderazkorik. Alan be, Etxauztar onen karta mordoia eldu jaku, batzuk joan dan gizaldian, edesti-lanak ugaritu ziranean argitaratuta; beste batzuk artxiboetan gordeta jarraitzen dabela. Bere bizian geiago be idatzi zituela oso siñisgarri da. Euskeraz idatzirikoa, gotzain izan baiño lenagokoa, 27 urtea zituela egiña, bat bakarra ezagutzen dogu eta Frantzua bere anaiari Oloroetik 1584n bialdua, eta Pariseko Bibliothèque Nationale dalakoan gordeta dagoana, Gaskoña eta Limusin-eko paperen artean.

Irureun urte geroago, 1884n, Vinson izkuntzalari eta bibliografoak emon eban argitara *Revue de Linguistique* aldizkarian, urte orretako III garren zenbakian. Vinson-ek autortu ebanez, ez zan bera izan lenengo aurkitzaillea. Beste bat izan ei zan: Comunnay jauna, Biblioteka atako aztertzaile zorrotza. Baionako *Hiriart* eta *Ducéré* Jaunari bialdu ei eutsen aurkitutakoaren barri, eta eurentzat kopia bat agindu be bai. Baiña Comunnay jaun ori eta bere kopia ez non ez an galdu zirala-ta Vinson-ek berak aurkitu ei eban gero, Biblioteka a arakatzen ebillen baten. Eta esan dan aldizkarian ezagutzera emon.

Vinson-ek amaseigarren gizaldian, Etxepareren bertsoak eta Leizarragaren Testamentu Berria-ren ondoren, gizaldi atako euskal-testo bakartzak, balio andia emon eutsan Etxauztarraten gutunari. Gutun au aitatu askok egin izan dabe arrezkero, baiña guk dakigula, bigarrenez Irigarai argitaratu eban gure egunetan, *Egan* Aldizkarian, 3-4 garren zenbakian. Gaur zori ohea daukagu. Karmel aldizkari onen zuzendariak, len Frantzian, Belgikan, Holandan, Austrian eta Gaztela aldean ainbat artxibo arakatu eta orain Euskalerrikoetan diarduanak, azkenengoz Paristik egin dauan osteratik, Etxauztarraren gaztetako kartearen xerokopia be ekarri dau eta gure aldizkari onen orrietan ezaguerazoteko ardurea emon deusku.

Karta onek, daukan mamiaren aldetik, ez dau balio andirik. Uskeria baiño ez da. Baiña orain laureun urteko euskeraren lekuko izanaz gaiñera, gauza bat bai ots egiten deusku, lapurditar baten esango leukenez, *ozenki eta goraki*: Axularrek ez dauala agoberokeririk eta ez dan gauzarik esan, Etxauz-en euskalduntzasuna ain gora aipatu dauanean. Etxauzarren artean euskerea zala nagusi, arein etxeokak euskerea ez ebela baztertzen ez ezesten. Euskalerritik kanpora eta erdal giroan bizi arren nonai Baigorriko euskalgiroa bizi ebela.

Gutunaren euskera

Orain arteko kopiak ez deuskue gutun ori oso zeatz emon. Ez Vinson-ek, ez gure Irigari jaunak. Vinson-ek aldaki bitan emon euskun: bata, Etxauzek eskuz idatzian dagoen lez puntu ta komarik barik, eta bestea, orain eun urte geienik erabilli oi zan ortografia barrian, puntu eta komak bere eritxira ipiñita. Lenengo aldakian, Etxauz beraren ortografiakoa, ia ez dau utsik egin; naikoa zeatz emon deusku. Bigarreanean, ortografia barrikoan, puntuak ez ditu ain ondo jarri, eta ortik bere okerulertu batzuk, frantzesera itzuli dauanean. Vinson-ek uts egin dauan lekuan puntuak obeto dagoz Irigarai jaunaren kopian.

Emen zelan argitaratu? Fotokopia ondoan doan ezkeru, eta gure inpretaetan C zedilladuna sartzeko gaizki ibiltzen diran ezkeru, gaurko ortografiara aldatzen saiatuko gara, eta puntu eta komak Vinson-ek baiño obeto bear diran lekuan jarrita. Ona emen orain Beltran de Echauz gaztearen gutuna (karta):

Ene anaie iauna: hunekila hirugarrena dikezi ezkribatu darauzudala. Batez ere arroposturik eztizit ukhen, zoñaz pena baitut zure berri hunen yakin gabiaz, bayeta halaber aytaren eta amarenez. Heven ahal bezala nuzu hortik yalgiz geroz. Zamariak pentsaraziten dirauztasu nitien arropa guziak higatu baititut eta enizi pagatu nahi. Kontxit galdegin dirakozut eta erran diraudazu kontxit de gaskon nahi dudanez, hura emanen daraudala. Berze zerbizariiek orok utzi dizie eta batre eztizi pagatu nahi uken. Seguratzen zitut ezi gizon terrible bat dela. Guthun haur daramena etxeko zerbizari bat duzu. Othoi egiten darauzut zure berri hunen eta ayta amenez ezkribatiaz, zoin baita gauza desiratzen dudana. Lehiatz, eztarauzut ezkribatzen luzazago. Fin egiten dizit presenteko hunezaz Yienkuari otoy egiten darakodala zaduzen [zaduken?] osorik eta alegerarik berere grazia sainduyan eta ni ere halaver zurian. Adio. De S. Piarre de Oloron nobenbreren 8 garrenian, hurtez 1584.

*Ene eskusak, othoy,
aytari eta amari ygor
itzazu, plazer baduzu,
ahalik eta hobekiena.*

Zure anaye leala eta hun desiratzen dudana eta zerbitzu egitera obediencia datena ni nukezu:

*Beltran de
Echauz*

*A Monsiur, mon frere
François de Echauz homme
de chambre de monseigneur
dacq a bourdeaulx*

C^*f-'j* ***- Jifr.*-^ r*i><é zúi esrrt'u Oaaa. á* .;<UCL a>/cj?4

n*/ie&&B,suzs fii'Bsu Cftt&tufidkc*Ui<t*IA- P&te^cgyi; ^i^t.^

Or*>C u.ciM-C4'e H*6a.lt>c CoHu y^<». -éu- **fi'l>ait*4i Jcaa*3**fK

— c, * ^_

Cu.*** £*-&*y'2«.**tH4sii0 ££C*i &u>ia\$ as?* c^i-ét-aiu^a^cfti^

0*£9,,nA, CtJ)i*j tjl*p~^u± #? cri 6<ux* Cuy a^P f< c f^/*«-

Ct*4jK-t«< ^^J^_^ ^.'jV* '*£. Ly*é*x <á**c<6&-

+£+& &*^Q? *' '*' <£f-'pÍB-e-rc./e.f&ívt. MS,*'

***** T *+***•***<j/r+ij iStt ' AS^^- " *' '*'

O» • i • *. I— *- - J^mt. 1 . ,, ,

y&ri il*,^^-jnj/, J^ ^ -^c-nu +tec**>&&c<^i^+*

Gaurko ortografiara apur bat egokituz, eta puntu ta komak ipiñita, ona guk egiten dogun irakurkera. Gaur arte egin danik argi eta zeatzena. Etxauz-ek darabillan ortografia ez da itz guztietan bardiña. Itz bat baiño geiago era bitara idatzi dau. *Uken* aditzagaz zalantzak izan ditu. Ipar aldean askotan ukhan edo ukhen idatzi izan dute. Etxauzek, lenengoan, ezbaian egon dala dirudi, baiña azken baten, bigarrena lez idatzi nai izan dau: *uken*. Ez daki Z eta Tz bereizten: beti Zeta (gure artean Aramaioko Barrutiak lez). Itz bat edo bestetan emen gaurkotu egin dugu, *utzi*, eta *eskribatzi*az, *seguratz*en, *desiratz*en idatziz.

I eta E letren aurrean G gaurko ortografiaz darabil, eta ez orduko era geroko idazleen eran: *gizon*, *yalgi*, *egiten*, *alegerarik*.

Gure irakurkeran zuzenketa bat egin nai deusagu aditz forma baten. *Zatueen etaZatuen* emon deuskuez Vinson-ek eta Irigarai, gure *zaiten-sn* antzekotzat artuta, antza. Argi irakurten dana Zaduzen izango leiteke; baiña Guthuna idatzi dauanaren luma-utsen bat izan daitekela-ta, *Zaduken* dala edo izan bear leukelakoan gagoz. Argi dago zer eskatzen deusain Jainkoari: bere anaia osorik euki, gorde dagiala. Or *Eduki*, *euki* aditzaren forma sintetiko edo trinkoa daukagu, guk *zauzka* edo *zaukaz* esango geunkena, -n atzizkiagaz subjuntibo eginda: *zauzkan*, *zaukazan-en* parekoa. Eta bestaldean, *Zadukan* da (euki zagizan), forma sintetiko orren era bat, Intxauspe kalonjeak bere *Le verbe Basque*, liburu andian dakarrenez: // *te tient*, eta jakiña, subjuntiboan, *zadukan*, q'il te tienne.

Egia da orain *zauzka* (zaduzka) eta *zauzkan*, *zaukazan*, zeta bikoak, erabiliagoak dirala. Baiña ba dira Zeta bateko formak: *Zaite*, *zaitetz*, *zaitean*, *atoz*, zeta bikoan ondoan, *zaitetz*, *zaitezen*, *zatoz*, *zatozen*. Orra zergaitik uste dogun or *eduki*, *eukiren* forma sintetiko bat dogula, eta, beraz, *zadukan* izan behar leukela. Bear bada, bai, izan daiteke *Zaduken* be, eta ortik sortu Etxauz-en lumearen okerra, C Ka naiz Zeta idazteko oitura eukan ezkerok.

Vinson-ek emon eban argibidea ez dau aitzu bearoko oraingo irakurleak, batez be, Ipar aldekoa ez danak: begirunezko alkar-izketa formak darabiltzala Etxauz-ek aditz-laguntzaillean: nozu, duzu, *da* eta *naiz* esateko: *ez dut* esateko, *eztizi* (ez duzu) *eznizi* (ez nau), *dirautazu*, *dit*, *deraut*, esateko; olako formaz betea dago gutun au. Bizkaian asko erabilten dira, adiñeko lagunaren artean, batez be emakumeen artean, baiña emengoak eta angoak ez dira oso bardiñak.

Beste berba batzuen argibideak batez be, Bizkaikoentzat:

Hunekila, onegaz; *batez ere*, batez be (ez dot artu erantzunik); *berri hunak*, barri onak (Ipar aldean askotan Hatxegaz idatzi dabena, ez beti); *Yakin gabiaz*, jakin bageaz, jakin ezaz; *heven*, emen; *yalgi*, urten; pentsarazi, pentsarazo (gaurko TS, X idatzi eben luzaro); *nitien*, nituan, neukazan; *higatu*, maiztu, gastau (soiñekoa); *galdegin*, eskatu; *kontxit*, frantzesen congé, morroi bat etxera bialdu, yarein istea; *nahi dudanez*, nai dodanentz, ea guradodan; *ezi*, *ze*, *ezen*, *eze*; *lehiaz*, prisaz, arin ibilteaz, asti barik nabillalako; *luzazago*, luzeago; *halaber*, era berean, bardin; *igorri*, bialdua; *halik eta hobekiena*, alik eta ondoen; *plazer baduzu*, atsegin badozu, ondo baderitxazu. *Zoiñez* (*zeiñez*) *pena baitut*, orregaitik nago minduta; *zoin baita gauza desiratz*en *dudana*, orixe da opa dodana. Esaldi biok dira Vinson jaunak oso txarto puntukatu eta oker ulertu zituenak.

Kontxit de gascon (gascondarraren morroia yarein iste, etxera bialtze ori) ez dakigu zer dan garbi; gaskondarren batek argituko al deusku; *Zamaria* be emen ez da zaldia edo mandoa edo olangorik, Vinson-ek olan ulertu ba eban be. Zamari au norbait da, gizona da, eta ez, orraitio, pagatzaille ona.

Onenbestez, eta gutunaren kopia emen argitaratuta, euskalzaleen eta euskalarien eskuetan gelditzen da, orain artean baiño argiago, 1584ko euskal puska au, orain laureun urteko Naparroako euskeraren eta Baigorriko Bizkondeen euskalduntasunaren lekuko.

IDAZLE BATEN ZORITXARRAK

(Juan TARTAS)*

Urte bi joan dira Tartas euskal-idazlearen liburu bat, *Onsa iltzeko bidia* (ondo ilteko bidea erakusten dauana) berririo argitaratu euskuenetik ona. Orain irureun urteko liburu da eta liburu orrek oraingo au irugarren argitaraldia dau, bigarrena eta irugarrena gure gizaldi onetan egiñak ain zuzen. Edozein liburuk ez dau orrenbesteko zorionik.

Liburu onen zoriona oraingoan ezta izan, orraitio, bapere zoritxarrik bakoa. Nik irakurri nebanean erruki artu neutsan Tartas orri. Idazle onek zer ete dauko, zoritxarra beti bere atzean erabilteko?

Zoritxarra izan eban, bere liburu ori arimen onerako ain asmo ederrez idatzi ondoren, zortzi bat urte itxaron bear izan ebanean, argitara emon orduko; zoritxarra, inprentako lana artu ebenak euskerarik jakin ez-ta, liburuana dana utsez beterik atera eutsenean. Zoritxarra, berak arimen on utserako asmaua gero Julio Urkijok jakitunentzat ateratearren, lenengo argitaraldian izan zituen uts guztiekin argitaratu nai izan ebanean, uts orreitako batzuk zuzentzeko ardurea gero beste bati (Darricarrère jaunari) ezarri ba-etsan bere.

Eta zoritxar guztiok naiko eztirala, orain beste bat jatorko ganera, lengoen azkarria, areik baiño andiagoa: irugarren argitaraldia, beste biak baiño utsez eta okerrez beteagoa. Ez al da idazle oni erruki artzeko?

Urte bi dira arrezkero; baiña Tartas oni jazoriko ezbear barri au iñok eztau salatu edo agirian ipiñi oraindiño. Zergaitik? Liburuana irakurri ezagaitik? Ez neuke esango

* Karmel 1977-2, 55-66.

askok irakurri dabenik. Irakurri, bai, baifia, ez-jakifiez edo, aren uts eta okerrik ikusi ez dabelako? Ala, ikusiarren, irakurle ez-jakifiak euren ez-jakifian itxi nai izan dituezalako, ixillik egonaz? Nik, beintzat, ez dot ixillik gelditu nai. Ainbeste oker ixillik estalduaz ez jako mesederik egiten iñori. Ez Tartas abadearen irakurtzailleai, ez liburu au argitaratu deuskuenai.

Liburu zar bat barrero argitaratzea ez da arrisku bako arazoa. Orretan asteko, borondate on utsak eztau balio. Borondate on orrez gaiñera, argia eta jakitea bear dira. Eta, orduan be, kontuz ibilli bear da,

Julio Urkijo zanak ba-ekian ori. Orregaitik ibilli zan ain kontu andiaz, Tartas orren liburu bera bigarrenez argitaratzekoan. Oraingo argitaratzaileak orixe bere eztabe jakin. Urkijo barik, Darricarrére emoten deuskue argitaratzailetzat. Ez; Urkijo izan zan argitaratzailea. Lenengo, RIEV-aldizkarian, eta gero, liburutan. Liburutan argitaratzean, argibideak emon eta okerrak zuzentzeko ardurea itxi eutsan Darricarrere jaunari. Baiña gauza bi dira argitaratzaile izatea, eta argibide-emoille edo oar-jar-tzaile gitea.

Eta ona zelan jazo zan dana. Urkijo bere lanari asiera emotean, liburua bere okerrak zuzenduta asi zan argitaratzen. Baiña ia bertatik beste bide bat artuko dau: liburua lenengo argitaraldiko uts eta oker guztiekin atera, lenengo, eta gero, argitasunak eta garbitasunak emon, okerrak zuzendu.

Urkijo konturatu zan, okerrak zuzentzeko atxakiaz, norberak bere anka-sartzeak egin leikezala eta okerrak ugaritu. Zergaitik ukuturik egin testu zarrari, zergaitik ez emon egoan moduan lenengo, ezer aldatu barik? Gero etorriko da zuzentzaileen lana, akatsak garbitzeko ordua. Eta egiteko au bera baiño jakitunagotzat, Zuberora inguruko euskerea obeto ezagutzen ebalakotzat eukan bati emon eutsan. Eta orra, Urkijo zanaren ediziñoa, orain artean zeozer balio dauan bakarra, bere utz eta guzti.

Argitaraldi barria

Oraingo argitaratzaileak (JAKIN Liburu Sorta, 18), edo, obeto esateko, ediziño barri onen prestatzaileak (Andolin Eguzkitza, Kintana) bide barri errazago batera jo dabe. Darricarrere jaunak beiñola egiñiko zuzenketak (ez guztiak) kontuan arturik, orrez gaiñera liburuaren ortografia gaurkotu nai izan deuskue. Asmo ederra eta lan txalogarria, ondo egiña izan balitz. Orixe... ondo egiña izan balitz. Baiña ori egiteko, eta ondo egiteko, ez dira naikoa asmo onak, ez Euskaltzaindiaren maixu-agiriak, ez Ikastolen baten irakasle izatea. Beti euki bearko da gogoan arako Horatio zarraren esana: Sumite materiam vestris qui scribitis aequam viribus. Zentzunezko esana, urrezko araua. Baiña betetan ez oso erreza. Nok daki bere indarrai, edo bere jakituriari neurririk artzen?

Oraingo ediziño onegaz Tartas-en liburuak ez dau ezer irabazi. Bai asko galdu. Baiña goazen apurka apurka eta oker batzuk banan banan salatzen.

Lenengo eta bein, liburuari ez deutso bat bere mesederik egin koma guztiak lengo-lengoan isteak. Komak bere ortografiagaz zerikusirik ba-dauke, nik uste. Oe-tan Paben egiñiko lenengo argitaraldiak ezetariko legerik ez darabil. Ez esan, ain

zuzen, orretan dala Tartas maixu eta oraintsuko joeren aurrelari. Koma utsen errua ez deutzagu idazleari berari egotzi bear, inprentako lana egin ebenai baiño. Oraingo ortografi-oiuretan iflok eztau ontzat artzen *inguru*, *inguru* idaztea, inguru-inguru baiño; ez *gizon*, *bat* idaztea, *gizon* bat baiño: ez saindu, hau, ez elkar, artu, saindu hau, elkar artu eta olaxe baiño. Tartas-en liburuak olako koma oker asko ditu, eta dagozan moduan idazteaz, oraingo irakurleak eztau ezer irabazten. Ezer zuzentzen astekotan, uts orreik zuzendu bear ziran. Darricarrerek be ez zituela zuzendu? Baiña Darricarrerek liburuak eginda aurkitu eban, eta berak ez eban izan beste zeregiñik oker idatzirikoztat eukuzan itzak zuzentzea baiño. Eta orixe egin eban. Ez zan ortografi-uskerietan sartu.

Oraingoan ortografia aldatu nai izan dabenak ez euken zergaitik koma orreik zuzendu barik itxi.

Beste ortografi-uts batzuk bere ez. Tartas-ek puntu batzuetan zeaztasunik ez lege jakiñik erabilli ez ebalako sortuak diralako. Batzuetan frantzes ortografia darabil, beste batzuetan Españakoa. Orregaitik noz edo bein *eche* idatzi badau, orrek eztau esan nai *exe* irakurri bear danik. Edo *dicha* idatzi dauanean, *dixa* irakurri bear dogunik, *etxe* eta *ditxa* baiño. Berak bere askotan idatzi dau *etche* (etxe). *Exe* eta *dixa* idaztea ete da Tartas-en ortografia gaurkotzea? Eta *appal* idatzi dauanean, aphil idatzi nai izan badau, hapalago idatzi dauanean, zergaitik ez emen bere berba ori bardindu?

Kristoren izenaz egin deuskuela uste dot okerrik andienetako bat. Tartas-ek frantzez-en antzera idatzi euskun, eta bardin christino (kristifiau esateko). Zergaitik emon bear izan deuskue oraingoan, gaurkoturik emoten deuskuelakoan, KHRISTO eta KHRISTINO? KHR, onango irukoteterik noz ezagutu ete dau euskerak, eta oraingo egunetan bere ez ete da begi-mingarri?

Alan bere, utsa litzake danau, andiagorik ezpalego. Oraingo argitaratzaileak, edo argitaraldi onen prestatzaileak aleginik egin dabe, bai, lengo uts batzuk zuzentzen, Darricarrerek zuzenduak kontuan arturik, geienak beintzat. Baiña eurok beste ainbeste eta geiago uts barri egin dabez. Ez dago orrialderik onango uts barri bakorik. Eta askotan, ez bat, bi ta iru eta lau bere bai. Bein itzen bat oker irakurri dabela, beste bein besteren bat aitzu egin jakela, urrengoan besteren bat birritan jarri deuskuela, liburu osoa dago utsez beterik. *Zikada* jarri bearrean, eztaikit zenbat bider datorren zizada, esaterako. Batzuk euskaldun batek egin leikezanik bere ezin sinistu lei. *Edukazu*, *edukazu gogoan*, edozeiñek ulertu leikezanak, ia beti dator *eduzazu*. Eta itz ori askotan dator liburuan. Au onan dala, zetarako da ainbeste bidar, an eta emen, berba baten ondoan (sic) jarrea, Tartas-ek alan diñoala adierazteko? Zetako ainbeste *alan da*, *alan diño*, gero ainbeste alan eztanik, alan eztiñoanik dagoen liburu baten? Ainbeste uts eta oker siñisgarriago egiteko?

Txarren txarrena, (sic) orregaz bere eztauala merezi siñisterik bein edo bestetan. Onango bat jarriko dot emen, argigarri. Lenengo kapituluaren azken-aldean dator: *lahar deza* (sic). Emen ezta bear *lahar deza-nk*, ez alan dalakorik. Gure maixutxook ez dabe ulertu, ez dautze antzik bere artu or Tartas-ek diñoanari, eta gaiñera euren ez-jakina (sic) orrekin estaldu edo agertu nai izan deuskue. Or Tartas-ek *lahardeka* idatzi eban eta olantxe dator bere liburuan, ez dira berba bi, bat baiño: *lahardeka*

(lahardekatu), narrua eratsi esan nai dau, eta eztago besterik. Onenbesteko utsik nekez ikusiko da iñongo liburutan (*sic*), orrekin indartuta.

Beste berba bat, Tartas-en utsa dalakoan zuzendu gurez edo, *zahatu* berbeagaz egin deuskue. Zahatu edo zehatuy'o edo *astinduren* ordezkoa da. Emen *zahatu* egin dabe, garbitu esan nai baleu lez.

Beste oker-aitu batzuk bere badira. *Desarabik* zer dan adierazoteko ez euken Lhande aitaren *desara* itzera jo bearrik. Lenengo ta bein, Tartas-en liburuan berba ori eztago olan, *desarauik* baiño. Eta zer esan nai dauan argi dago, euskera apurtxo bat baiño geiago dakienarentzat. *Desarau-úk* dator; *ez-arau* izango leiteko jatorrago eta garbiago. Erderazko desatino, absurdo esan gura dau, lojkarik-eza. Emen *desarauik* *desarabik* egin deuskuenak eztaikit gero, urrango baten *arauik* zergaitik *arau-rik* egin deuskuen. Itza bat eta bera da, *des* kendu ezker. Itsu samar ibilli dirala esan bear emen bere.

Eta Darricarre eta beste norbaiti itsuegi jarraitzearren, beste uts bat egin dabe, edo areik uts zalakotzat zuzendutako berba bat arein antzera zuzendu egin deuskue, *dantza* dana *dantzatela* egiñaz. Darricarrere jaunaren okerra aspaldi da aleman jakitun batek zuzendu edo salatu ebala. *Dauntza*, *dantza* edo *dautza* berez da plurala, eta eztau *-te* ori bear eta eztago zertan *dantzatela* egin. Berbo ori beti lo itzaren ondoan dator Tartas-en liburuan: *lo datza*, *lo dautza*, *lo dantza*, *lo dantzanak*: jendia *lo datza* (lo dago edo datza), *lo dantzanak* (lo dagozanak), bestiak *lo dantzala* (bestek lo dagozala). Beste bein oker dago: «Lazaro lo dantza». Iñoz zuzentzekotan emen zuzendu bear zan, Lazaro *lo datza* jarriaz. Besteak ondo egozan eta ez egoan *dantzatela* jarri bearrik. *Dantza* bera da plural, beste idazle askogan *dauntza* dan lez.

Beste uts barri guztiak, eundakak, ez ditut kalera atera nai. Naiko dirala uste dot aitatu ditudanak, Tartas zarrari oraingo argitaraldiagaitik erruki apur bat artzeko. Nik liburua irakurri ala, liburuan bertan eta papel baten idatzi nituan aurkitu nituan utsak, eta beste iñor plazara agertu eztan ezker, beste iñok egin eztauan ezker, jakitun jarri nai izan ditut liburu orren irakurleak. Badaezpada, papaoen moduan, dana iruntsi ez dagien.

Itzaurre-egillearen bitxikeriak

Tartas errukarria! Tartas gixajoa! (Gaixo Tartas, esango leuke berak). Zure zoritxarrak eztira or amaitzen. Zure liburuaren inguruan Kintanak asmau dituen bitxikeriak ez zaitue erruki gitxiago artzeko egiten.

Egia esan, ezta Kintana jaunarena erru gutzia. Darricarreregandik dator kontua. *Onsa hilzeko bidia* aztertu eben teologoak on-eritxia emon ondoren, aien baiezko osoa izanda gero, zortzi bat urte egon zan argitara barik. Arte orretan zer jazo ete zan? Baten batek ezezkoa emon ete eutsan edo ezpaeutsan, liburuko irakatsien batzuei mundu-usain larregitxo asmau ba-eutsan edo ezba-eutsan, asmakeri utsa da dana. Gotzaiñen aginduz eritxia emon ebenak argi bai argi esan eben: irakatsi ederrak, arimai on andia egitekoak dirala liburu orrenak. Or eztago eztabaidarik, Aita Villasantek esan ebanez. Zek atzeratu eban, bada, liburuaren urteerea? Asko da gure mutil

zurra asmau ez izatea. Orain edozeiñek jotzen dau ekonomiara, dimra, edozeri sus-traiak billatzeko, arira etorri nai ez etorri. Emen ez, ain zuzen.

Eta orrexek, dimak emoten dau jazo zan guztiaren argibidea. Eztaigun aitzu Tartasek beste liburu bat bere idatzi eta argitaratu ebala. Eta bigarren liburu onegaz bere gauza bera ikusten dogu: baimenak edo on-eritxiak emonda andik lau urtera urtetan dau argitara. Nondik dator atzerapena? Dimrik ezetik, aitabitxi bat ez agertzetik. Bietan bardin. Baiña aitabitxi ori agertzen dan unetik, dana berez dator. Baimenak, on-eritxiak eztabe sakelik betetzen, ez zorrik ordaintzen. Baiña aitabitxi dimdun batek bai. Eta batean Himr-hiriko abata datorkio Tartasi aitabitxi egiten eta bestean Moneigne-ko Markiza.

Bigarren libuman argi agertzen da noz agertzen jakon aitabitxi ori. Libuman bertan dator. Lenengoan, *Onsa hilzeko bidia* argitaratzekoan, noz? Libum onek, ain zuzen, argitasun au falta dau. Zergaitik? Txataltxoek bat falta daualako. Abenduaren... Nozko Abenduaren zein egunetan? Pabeko alea, ejenplarra, ez ei dago guztiz osorik. Osorik balego, or agertuko zan noz asi zan Tartas bere libumarentzat aitabitxi dirudun ori eukiten. Nik ziurtzat daukat or agertu bear zala noz egiten dautsan bere esker-onezko karta ori aitabitxi ongillari. Eta onen argibidea, bear bada, Donosti-aldean da.

Bai, Donosti-aldean ei daukagu korapillo guztiak askatzeko argitasuna. Emen ei dauko norbaitek Tartas-en liburuaren irugarren ale bat, ejenplar bat. Pabekoa baiño osoagoa. Noz edo bein ezagutuerazoko ete deuskue? Olan balitz, orduan agertuko litzake, ziur nago, noz sartzen dan Tartas orren bizitzan Moneigneko Markiza dalako ori, abade ez-eukiari liburua argitaratzen laguntzeko. Beste asmakeri guztiak, pika-reska guztiak ipuin utsak dira, ames utsak.

Kintanak eztau orrenbestekorik ezer asmau. Bere bitxikerietatik urten eziña daukala esango neuke.

Bein, Leizarraga zarraren libum bati itzaurrea egiterakoan, iñon ziranak edo ez ziranak asmau zituen: esaterako, Donostian gaur bere Liturjia osoa euskeraz egiten eben protestante batzuk baziralakoa. Eta Donostiako protestanteak ezer jakin barik! Egun batzuk lenago asiak ziran orritxo bat ateraten, eta dana erderaz. Euren Liturjia dana euskeraz egiten ebelakook, Leizarraga ori iñoz izan zanik bere, orduantxe asi ziran jakiten!

Beste bein, oso oraintsu, Oxfordik etozelako barri batzuk batuko ditu: Ingleterako protestanteak Biblia osoa euskeraz ateratekotan ei dabiltz. Bilboko Eleiz-barritikoak bere olango asmoen bat ba-ei erabillen; baiña, beti lez, protestanteak oraingoan bere aurea artu katolikoai. Bizkaiko Biblia ori kalean zan ordurako, mardul mardulik; baiña Ukronian bizi dan onentzat protestanteen asmo utsak egiago ziran Bizkaiko Bibli- euskeratzaillaren egia baiño. Dana dakien gazetalari bizkor eta egi-zale onek oraindiño eztau bere guzorra zuzendu. Eta Ukronian bizi dan artean zuzenduko dauan itzaropenik eztago. Olantxe ulertzen dau, antza, egiari eta anaitasunari zor jakona.

Tartas-en estualdiak, libuma atera eziña argitzeko bere bitxikerietara jo dau, eta ainbat gauza nastau ditu: Nafarroako erregeiñaren ipuiñak, Trentoko Kontzilioa, eztaikit nozko gizaldietako sermolari barregarriak, Españaiko «Novela Picaresca» dalakoa

eta... danari egi-itxura emoteko, Alexander A. Parker alemanaren esanak. Bai, bere bitxikeri guztien aitabitxitzat artu nai izan dau jakitun andi au, Españaiko pikareskadazleak ain sakon aztertu dituen maixu au. Baiña alperrik. Parker oren liburuetan eztozu aurkituko Kintanak ezarten dautsen peillokeririk, ez antzekorik bere. Bere buruari lotsa ohea deutsan maixu eta idazlea da Parker ori, Novela Picaresca dalakoren sortzailleak eztakit nozko sermolari batzuk, jentea sermoetara ekartarren, ipuin barregarriak esaten ebezenak izan zirala esateko. Tartas, ain idazle zentzunduna, bizia eta eriotzea ainbesteko seriotasunaz darabiltzan idazlea, euskal-literaturan pikaresi amaisu egin nai? Tartas goratzeko era argia benetan! Alde guztietatik ondo errukarri eta barregarri itxi nai deuskue Arue-ko abade arimazale eta idazle jator au.

Baiña bitxikeririk andiena, orraitio, itzaurrearen asieratik sartu nai izan deuskuna da. Ezteusku, bada, Tartas-en liburu barri au liburu merketzat, proletarioen eskue-tarako edo sakeletarako erazkoentzat emon gura izan? Beste batzuk or ei dabilz, euskerazko liburuak ediziño dotore apain garestienetan ateraten, begien asegari edo leku-betegarri edo apaingarri bakarrik izateko, geien baten. Aberatsentzako bakarrik ei dira, liburutegietako baldetan sartu eta gordetakoak bakarrik. Oraingo au, berak eta bere lagunak atera daben au, erriarentzako ei da, katanarrua zimurtxo daukenentzat bere oso merke eta egokia. Olango liburuak bear ei ditugu.

Liburu merkeak, egin oi diran baiño merkeagoak bear ko geunkezala eztoz nik ukatuko. Baiña nork nori botako deutso emen arririk? Al dauanak al dauana egiten dau arazo onetan, ikusten dogunez. Eta merke diralako liburu batzuk euren barruari begiratu ezker, eztira ain merkeak bere. Merkeegiak dira askotan balio obekoak izan bear leuken aldetik. Eta orain atera deuskuen liburu au merketzat emotea irakurleari adarra jotea dala esango neuke. Merkea, ezetarako eztan liburua? Merkea, utsen utsez balio guztia galdu dauan liburua? Karuagorik, garestiagorik nekez aurkituko dogu. Alperreko liburua da, eta alperrik galdua bera erosten emoten dan dirua. Tartas ezagutu nai dabenak ediziño au itxi eta zokora bota bear ko dau. Lengo ediziñoetara jo bearrean aurkituko da. Zorionez, Urkijok egiña ez da ain gatx eta nekez aurkitzen. Eta orainsu barriro argitaratuta dago RIEV aldizkarian. Tartas ezagutu nai dabenak ara jo dagiela. Katua erbitzat erosi baiño lenago, edozer. Iñori adarra joterik ez, mesedez.

Ediziño onekin, Jakin-sortan argitaratu danarekin jazo danak begiak argitu bear deuskuzala uste dot. Gure arteko kultura merkeegia dala diñosku. Unibersidadearen inguruan dabilznanak eurak bere eztabe siñiste larregirik merezi. Baserritarkeriak alde batera itxita dabilznalakoai eurai darie askotan baserritarkeririk geien, eta baserritarkeririk txarrena. Uriko usaiñak artuta dabilznan baserritar kokoloena.

Baserritar kokoloena da kanpoko gauzai beti ederrago eriste. Urriñetako kontuak erabilliko ditue agotan, kanpoko gauzak goratu. Orrela, entzuleen aurrean euren buruak jakitunago eta jantziago egiten dituezalakoan dagoz. Euskalduna bada, bere erri aldekoa barik urriñagoko euskerea eukiko dau ederrentzat eta onentzat. Zenbat eta urriñagokoa eta entzuleentzat edo irakurleentzat ez-ezagunagoa, ohea eta ederragoa. Baiña jakin? Bear bada, ez angoa ez urragokoa. *Onsa hilzeko bidia* barriro emon deuskuenak Bizkai-aldeetik Zuberoa-aldera joan jakuz, irakurleak ango liburu baten

aurrean agoa zabalik isteko. Eta ikusi dogu zer ekarri deuskuen: Tartas-en zoritxarrik andiena, liburuaren ondamendia.

Baserritarkeria au askotan uritarkeriagaz buztartuta dabil. Eta bata ezta bestea baiño ohea. Biak bardin-antzean barregarri.

Gogora datorkit bein Bilboko ume batekin jazoa. Baserri batera eroan eben egun batzuetarako. Eldu zan gaua. Ba-dator aparitako ordua. Eta umeak apalondoan eznerik artu nai ez. Ezetz eta ezetz. «Baiña, umetxo, Bilbon eztozu, bada, gauero eznea artzen?

- Bai, baiña emengorik eztoz gura.
- Zergatik, ume?
- Emengoa bei-eznea dalako, eta beiak kakatsuak dira.
- Bilbokoaren eznea da, bada, ume?
- Bilboko eznea, botellakoa».

Ume onen antzera, baserriko eznerik nai eztauan uritar edo uritar-zalerik ba-da gure artean bere. Eta botellako ezne-billa dabiliz. Emen ikusi dogu bat, baserriko usaiñik nai ez-ta, ara eta ona, batean Naparroako Erregiña eta aren ipuiñak dirala, bestean Trentoko Kontzilioa dala, urrengan Parker aleman jakituna dala, ainbat gauza nastetan, bere botellako eznea egosten. Onen antzeko bat agertu zan lentxoago, KARMEL onen orrietan, bapere ikara barik Aita Kardaberaz agurgarria Danton eta Robespierren egunetako egiten euskula, eta, jakiña, ez arein adiskidea (1). Onek bere bere botellaxoko eznea ekarren. Gure kultur-giroak eskol-ume txarren kultur-giroa dirudi.

Ez ete da benetan negargarri? Ez ete da erruki artzeko gure arteko egoera tamalgarri oni? Eta badirudi, buru batzuetatik maixu-aize batzuk kentzen ez diran bitartean, gure zoritxarrak ez dirala beingoan amaituko, ez dogula benetako jakintza-bidetan aurrerapen andirik egingo, ez mailla askorik igongo. Tamalez eta zoritxarrez.

(1) *Karmel*, ...

HARIZMENDI, VINSON ETA ABAR*

Amazazpigarren mendean euskal-literatura Iparraldekoen artean alazoko neurrian landu zala gauza jakina da. Ordukoak dira Axular andia eta Tartas. Prosaz idatzi ebenen artean urtenen eta ezagunenak dira. Ordukoxeak doguz bertsoa landu eben beste bost idazle. Oihenart, Etxeberri Ziburukoa, Argaiñarats, Harizmendi eta Gasteluzar. Bost idazleok bertsoegiñan maixu andien trebetasuna erakutsi eben. Ohienart lege-gizona da; baiña asti-emongarri eta lan aztunagoen aringarri, Musen artera ige-saldiak egiten atsegin izaten eban. Bertso trinko, ondo josien eta ulertzen ain errez ez diranen egille dogu bera.

Beste laurak eleizgizonak dira. Erriarentzat idatzi eben, eta ez eskoladunentzat, Oihenartek egin eban lez. Euskera gozo ulerterreza darabille. Gasteluzarrek ez beste irurak, Etxepare zarrak lez, ia beti neurri bat artu eben: *Tantum ergo* eleizkantaren neurria, edo ta *Milla urte igarota urak bere bidean* kantarena.

Gaur idazle guztiok, aspaldiko urteetan aitzurik edo bazterturik egon ondoren, biztualde ederra izan dabela ikusten dogu. Joan dan mendetik ona Oihenartek bein eta barrero ikusi dau argia. Etxeberri-ren *Noelak* eta *Manuala* oraintsutan argitaratu dira. Beste irurak, Argaiñarats, Harizmendi eta Gasteluzar osoan galtzeko arriskutan egozan: baiña Vinson-ek eta Hordago-k eta bestek egindako irartaldi barriai esker, arrisku ori uxatu da eta oraindio luzaroan bizirik irauteko dagoz.

Harizmendi dogu, bear bada, idazle guztion artean, irartaldi orreitan txartoen urten dauana, eta, beraz, gitxien edo txartoen ezagutua. Zergaitik? Vinson-ek bigarrenez argitaratzean, al izan eban eran atera ebalako.

Hordago-k gure egunotan egin dauan edizioak Vinson-enaren aje guztiak dakaz. Vinson-enaren ber-argitaldia baiño ez danez, Hordago-renak bestearen uts eta akats

* Karmel 1986-2, 51-55.

guztiak oso-osoa sartu ditu, ezer aldatu barik. Vinson-enean Harizmendiren testoa eta beste norbaitena nastean daukaguz. Asko ez dira oindio konturatu naste orretaz, laster ikusiko dogunez.

Zer egin eban Vinson-ek?

Vinson-i asko zor deutso euskal-literaturak. Lan andia egin eban euskerazko liburu zarrak argitaratzen eta euskalzaleen artean zabaltzen. Euskeraren arrak jo eban bein barruan, eta arrezkero bere bizi guztian jarraituko dau gure izkuntzaren ainbat arlo lantzen: folklore, gramatika, bibliografia, testo zarrak argitaratzea eta abar. Berari zor dautsagu, Sylvain Pouvreau zanaren manuskrito batzuk eta Argaiñaratsen eta Harizmendiren lanak ezagutzea.

Luzaroan ibilli zan Harizmendi onen liburuaren atzetik. Ez zituan osorik iñon aurkitzen. Aurkitu zituan zati guztiak batuta be, ez eban dana osotutea lortzen. Orraitio, bein, eskuz egiñiko kopia bat eskuratu deutsoe, eta kopia orretatik aleginduko da utsune batzuk beteten. Eta orra inprentako lana amaituta daukala, Dogson ospetsuak (euskararen arrak joa au be), jakitun ipiñi dau badala Londresen Harizmendiren ale bat osoa. Bertatik kopia bat eskatu eta andik asi da falta zituan orrialdeak osotzen. Baiña ediziñoa osotzeko manuskritotik artu zituan zatiak, orain ikusten dau ez datozela Harizmendirenakaz bat. Antza, kopiatzaillea ez zan kopiatzaille utsa, eta Harizmendiren testoa, aldatu egin eban, edo berak aren liburu osorik euki ez, eta berak bete zituen utsuneak eta liburuak falta zituen zatiak euskeraz jarri. Vinson-ek besterik be ikusi dau gero, manuskritoko euskerea eta Harizmendi berarena ez dirala euskalki berekoak, ez dirala bardiñak.

Orduan zer erabagi dau Vinson-ek? Inprentako lana ez dau errekarra botako. Dagoen-dagoenean itxiko dau. Dirurik asko eralgi dau ordurarte beretzat irabazirik ez dakarren liburu orretan. Zer egin? Irarrita daukan liburuari azkenean eraskin bat ezarriko deutso eta an sartuko ditu liburuaren barruan ez datozen edo oker datozen zatiak, non sartu bear dan azalduta. Eta eraskin orretan datoz atarian sartu bear zan Gotzain jaunaren baimena, bigarren teologoaren on-eretzia, Andre Dena Mariari dedikazinoa, eta ainbat salmo, kanta eta irakurgai. Or dator bigarren liburu (*Gai premienez*), eta liburuaren azala bere egiazko tituluarekin, eta ez Vinson-ek gitxigora-beraka asmatu ebanarekin.

Londresko liburu onen aurrean, Vinson itzaurrean eralgitako eretxi batzuk zuzendu bearrean aurkitu da. Liburu agertu zaneko urtea ez da 1658koa, teologo baten aprobazinoarena baiño; bigarren teologoarena be, 1658koa da; baiña Gotzaiñaren baimena, 1659koa; eta liburu inprentatik 1660an urtena da. Argi dago Baiona aldean orduan gauzak astiro eta ondo egitea nai ebela. Eta ez dago Harizmendik bere bizian edizio bi egin zituela asmatzerik, Aita Onaindiak azkenengo OLERTI-n egin dauan lez (1). Vinson-i ez jakon olangorik ezer burura etorri. Azalean edizioaren urtetzat ekarrena (1658), gero azkenean zuzendurik dakar 1660.

Harizmendik merezi leuke, nik uste, edizio obe ta zeatzagorik. *Hordagok* ez deusku mesede txikia egin Vinson-ena berargitatu, baiña irakurleak ez dau aitzu barko emen esan dana. Vinson-ek egindako nastea kendu barik dago or, eta bati

(1) Ik. *Oleriti* 1984, 257-264.

baiño geiagori oker-ulertuak ekarri deutsoz. Esaterako, gure literaturaren antologiak egin dabezan Lafitte eta Aita Onaindiari. Vinson-ek manuskritotik kopiatuta emon euskun *De profundis* euskerazkoa. Harizmendi-rena dalakotzat emon deuskue, zeinena dan ondo begiratu barik. Harizmendirena eraskiñean datorrena da eta ez da liburuaren barruan datorrena.

Harizmendiren liburu au eskuz esku kopiatan zabaldu izanak abegi ona izan ebala diñoskula uste dot. Gauza bera jazo zan Argaiñarats-en *Deboten Brebiarioa*-rekin; onen eskuzko kopia bi aurkitzen dira Donostian Julio Urkijo-ren Bibliotekan. Eta gauza bera ikusten dogu emen: eskuzko kopiak ez datoz beti bat inprentakoarekin. Lekuan lekuan, antza danez, bakotzak bere errialdeko euskerara itzultzen zituen, gogotsuago irakurteko edo.

Orain *Hordago-k* bere edizioarekin egin deuskun mesedea be ez dakit nik askok bear dan lez eskertu dauanik. Gure artean ez dau aitamen andirik izan. Idazle onek gure gazteren batek bere tesinatxo egiteko noz artuko ete dauan begira egon bear ete dau?

Oraintsu Aita Onaindiak atera dau beintzat plazara. Olerkari onen aurkezpena egin deusku eta bertso-sailla eskiñi deusku, dituen bertsoen neurketa zeatza azpimarratuz eta olerkariaren euskera gozo errez garbiari goresmenak eginez. Len esan dogunez, ez da egia 1658 eta 1660n argitaraldi bi izan zituelakoa.

Neurrian darabillan zeaztasuna goratzerakoan, orraitio, uts txiki bat aurkitzen deutso bein; 112 garren salmoan da. Onela ei diño:

Haurrak, lauda ezazue
gure Jainko Jauna.

Poto egin ei dau or gure olerkariak: silaba bat gitxiago, bear eban baiño. Baiña utsa ez da Harizmendirena, bai kopiatzaillearena. Harizmendik onela dakar.

Haurrak, lauda ezazue
gure Jainko zuzena:
lauda bihotz onez beti
Iainko hunen izena.

Ez da or poterik. Neurri on eta oskidetza beteko bertsoak dira. Egia baiño ez da, askotan Omero bera be loak artzen dauala, baiña loak artu dauana emen kritikilaria da.

Gero, salmoen estrofak lerro bitan ipiñi diranez eredutzat ekarri diran salmo-pusketan naste anditxo sortu da OLERTI-n. Bost salmotan, estrofak, ahapaldiak atzekoz aurre urten dabe. Gure irarkoletako langille askori jazoten jaken utsa da ori. Lerro batari jarraitu bearrean, sarri joaten dira okerreko lerrora. Gasteluzar idazlearen EGIA KATHOLIKAK argitaratzerakoan, ondo ikusita daukat. Bein eta barrero hutsak zuzendu eta zuzendu ibilli bear eta, azkenez, bertsoen bat egokion lekutik kanpo gelditu ez ete zan nago. OLERTI-n agertu dan artikuluan bost salmotan jazo da olango nastea. Eta salmo-zati bat manuskritotik artua da, ez Harizmendi berarena.

Edizio oberik ez dogun bitartean, irakurleak kontuz ibilli bearko dau Vinson-ek eta Hordagok atera deuskuen onekin, bakotxari berea eta Harizmendiri Harizmendirena emoten jakiteko.

BERNARD GASTELUZAR (1619-1701)*

Jalgi adi plazara

Gaur Euskeraren Lekukoen saillean plazara datorren liburuari eta liburuaren egilleari ongi etorrik zabalena egitea dagokigu. Idazle au XVIIgn mendeko poetarik onenetakoa dugula esan zaigu; baiña, era berean, oso gutxi ezagutua dela ere bai.

Lafittek, 1929n, idatzia datorkigu gogora: «Huna lau mende eskuarazko liburu liburuari darraikola... Ondikotz; gutiak dira liburu zahar horiek ezagutzen dituztenak. Ez da mirakulu. Irakurgai horiek jauregi, komentu, hiri bakhar batzuetako liburutegietan dagotzi ehortzirik; eta nork du heien ondotik esker eskuin ibiltzeko astia? Zendako ez berriz agertaraz gure arbasoen lanak eta Euskal-Herriko lau bazterretarat heda?»

Antziñako gure literaturaren ondikozko egoera ori ikusirik, zorigaitz orren osagarri, Lafittek bere eskumenean zeukana egin zuen: *Euskaldunen Lorategia* argitaratu, alegia, 1800 garrenerarteko euskal-idazleen lan-pusketaz osatutako bilduna, anarteko euskal-idazleen lanezko lorategia. Bazen zerbait. Ez zen ordurako laguntza txikia izan, garai bateko gure literaturaren nolabaiteko ezagutza emateko.

Gaur lorategi bat, bildumatxo bat ez zaigu aski. Aurrerago jo nai genuke. Gaurko euskalzaleak antziñakoen idazlan guztiak, osoak, ber-argitaratzea eskatzen du. Betiko galtzeko arriskuan daudenak, batez ere, berriz argitara eman eta gaurko euskalzaleen eta ikasinaien eskuetan ezarri, ez dugu gutxiago nai.

Eta Gasteluzar, ain zuzen, betiko galtzeko arriskuan dagoen idazlea dugu. F. Michel-enganik asi eta gure egunotaraiño, bein eta berriz jotako illeta dugu gure inguruan, idazle onek ateratako liburu nekez aurkitzen dela iñon. Liburu «bikaiña

* In: B. GASTELUZAR. *Egia Kalolicak...* Bilbao 1983, 13-21.

bezain bakana» dela esan zuen Michel-ek (*Le Pays Basque*, 490): «Aussi rare qu'il est excellent». Vinson-ek ezin izan zuen ale osorik bat ere aurkitu. Parisko Biblioteka Nazionalan ale bat ederra zeukatela baiña, berak zortzi aleren puskaz osotu bear izan zuen beretzat ale bat. «Livre fort rare» dela aitortu bear izan zuen.

Illeta bera entzun izan dugu gure egunotan, eun urte geroago. K. Mitxelenak (Egan, 1965, 40) onela esan du: «Onen (Gasteluzarren) liburua bakan arkitzen da». Eta Lafittek: «Mingarri da urran iñon aurkitu eziñezko liburua dela pentsatzea» (*Le Basque et la littérature d'expression basque*, 31).

Gaurko argitaraldi onekin zorionean gaude. Illetak ixiltzera datoz. Gasteluzar berpiztera datorrela esan dezakegu. Eta nola berpiztu ere? Ezekiël profetaren liburuko illak bezala, illen ezur eta puskak bilduz, elkarrekin josiz eta biziberrituz. Ale baten xerokopia atera, eta zituen utsak beste lauzpabost aleren puskaz bete: orixe egin bear izan dugu orain euskaldunen eskuetara datorren liburu au osotzeko.

Nor dugu Gasteluzar?

Argitaraldi berri onekin *Egia Katholikak* liburuak zor zaizkion ezagutza eta omena izango ditu, noski. Baiña, tamalez, ezagutza ori ez da neurri berean liburua idatzi zuenaren bizitzaraiño iritziko. Ezer gutxi dakigu, oraindaiño, Gasteluzarren berri. *Eskualdunen Loretegia* argitaratzean, Lafittek ez-jakin osozkoa aitortzen zuen: «Bernard Gasteluzar aita Jesuista nungotarra zitaken, noiz sortu, noiz hil, ezin erran dezakegu. Lapurtarra zela ezin uka». Jesuita eta lapurtarra. Liburuaren euskera ikusita ateratzen zuen Lafittek egillea lapurtarra zela, ez zekien besterik geiago esaten. Illunpe osoa zegoen, orain dela mende erdi, gure artean jesuita euskaldun onen inguruan. Gaur, illunpe ori urratzen asiak gara. Lafitte bera, R. Moreau eta beste batzuk izan ditugu argitzaile, Sommervogel Jesusen Lagundiko bibliografo andia barne.

Lafittek onela laburtuko digu dakigun apurtxo: «Lapurdi Ziburun sortu zen 1619ko martxoaren 12n. Jesuistetan sartu zen 1640n. Paben hil 1701ko apirilaren 15n.» Bereala, bizi luzeska orretan, Baionan bi urtez, 1956-57n, gertatutakoen laburpena onelaxe egin digu: «1656n predikari eta arima zain kausitzen dugu Baionan; hiri hortarat Jesusen Lagundiko buruzagiek igorri zuten hirur lagunekin, hor behar zutela finkatu jesuista- etxe berri bat, ikastegi batekin, eskualdean erroak egitekotan. Baina orduko burgeseria Baionan jansenisten aldekoa zen osoki, eta ez zuen jesuitarik nahi bere herrian». Eta ez Baionan, ez inguruan ere. Baionan sartzea ezin lortu, eta Jesuitek andik kanpoko leku eder bat begiztatu zuten, «Begoigne» izenekoa. Baiñan, bai zera; an ere ez zen lekuri ez bakez egoterik Loiolatar andiaren semeentzat, Xabietar ospetsuaren anaiantzat. Euskaldun izanik ere ez. Indar andiegia zuten inguruan Saint-Cyrango Abadearen adiskide eta Jarraitzaileek, eta Lafittek esan duenez, «jende xehea berotu zuten, Begoigneko gain hartarat trumilka igan zedin 'fraille madarikatu' horien aizatzeke». Eta, bein, or non datozen «makila eta sardez harmaturik, eta jesuista dohakaberi jazarri, dena oihu eta harramantza. Lau lagunek (Gasteluzar eta beste irurek) behar ukan zituzten berehala lekuak hustu. Aita Gasteluzar oroitu zen kaperan zeukaten Sakramendu sainduaz, eta nahi ukan zuen errespetuz eliza baterat ekarri. Gizon batzu, ordean, lotu zitzaizkon bultzaka eta tiraka,

ostia zonbeit erortzerainokoan. Bessugue deithu aper baiones batek atera zuen herstura hortarik, hartu zion osti-ontzia eskuetarik, eta katedralerat ereman, jendea debotki kantuz jarraituzen zitzaiola. Hori gerthatu zen 1657ko maiatzaren lauean. Jesuistek, etsiturik, utzi zuten Baiona, eta bai hiri hortan kokatzeko xedea» (*Gure Herria*, 1974, 9-10).

Gasteluzar euskalzale eta idazle

Gasteluzar-ek agur esan behar izan zion Jesusen lagundia bere Euskalerrian sartzeko xedeari. Baiña Euskalerria berarekin darama eta euskaldunentzat lan egitea ez du utziko. Lumari eragingo dio eta euskerazko lana egingo du. Ez du munduko aldia amaitu nai, euskaldunen eskuetan bere oparitxo utzi gabe. Euskaldun guztiak ditu, noski, gogoan; baiña itxasaldeko semea delarik, mariñelak gogoanago. Joanes Etxeberri bere erkideak bezala, euskaldunak ongitxo ezagutzen ditu, eta badaki bertsoekin «Gustu hartuko dutela, guziz mariñel debotek. Hek prinzipalki konsideraturik, deliberatu dut liburu hunen egitea». Bertsotan erakatsiko dio euskaldunari kristautasuna. Eta, bidenabar, eliz-kantak euskaldundu nai lituzke, elizetako liturgia euskeraz kantaerazi. Elizan kantazale ikusi du bere erria, baiña latinezko kantuen kantari. Mariñela batik bat. Mariñelok atsegin izaten omen zuten «Itsasoan latinez elizako himnoen kantatzeaz». Eta Gasteluzarrek uste du «atsegin gehiago izanen dutela himno beren eskaraz errateaz». Beraz erabakia artua du: latinezko kantuak berak euskerazko bertsotan jarri, latinezkoen neurri berean euskerara itzuli, doiñu berean kantatzeko; eta ori aski ez duela, beste kanta berri asko asmatuko ditu, doiñu jakifietan kantatzeko egokiak.

Arrera ona izango duelakoan dago. Ortaz ez du zalantzarik. Poza eta arrotasuntxo dario berari euskaldunek, bera il ondoan ere, gogoan izango dutela oroitzeaz: «Erranen baitute batzuek: bizi zenean oroitu zen bere herriaz, eta ez zitzaion ahantzi hiltzerakoan, bere señalleak emanik joan baita».

Egia katholikak

Gasteluzarrek bere erritar mariñelei eta euskaldun guztiei utziko dien oparia, berak izan dien maitasunaren ezaugarri eta oroigarri izango dutena, auxe da: *Egia katholikak* liburua.

Bi aldetarik izango dute euskaldunek liburu au oroigarri. Or ematen die egilleak bere izena, nork eta nola maite izan dituen gogora dezaten. Eta or izango dute beren kristautasunaren oroigarria ere, jakin bear dituzten egiak eta bete bear dituzten legeak orotaraziko dizkiena, kantuz ikasi, otoiztu, ausnartu eta bizi ditzaten.

Liburua, dituen gaiak adiarazten duten bezala, dena erlijiozkoa da. Norbaitek esan omen du (eta Enziklopedia andi batean nonbait) Gasteluzar izan dela jentillen musak eta jentillen gaiak euskal-olerkigintzan sartu dituen leen idazlea. Ori idatzi

duenak, bear bada, *Eskualdunen Loretegian* edo, onako bertso ezagunok irakurri ditu, eta ez besterik:

Urrun adi, Parnaseko
Musa zahar profanoa;
Eta zato zu, Zeruko
Musa berri dibinoa.

Eta bertsook ere gaizki ulertu edo ez ditu ulertu batere. Bertso oiek ez die Parnaseko musei lagun etortzeko deirik egin; aldendu, urrun bialtzen ditu. Gasteluzarrek bere bertsoetarik kanpo utzi ditu musak eta mundukeri guztiak.

Ez, liburuak ongi erantzun dio bere azaleko titulu osoari. Kristau-gaiak, salbamenduari dagozkionak, besterik ez darabil. Kristau-bizitzaren gidari izan nai du euskaldunentzat. Bere jakinberrak eta eginbideak argitzen eta erakasten dizkio kristauari; gogoeta-gaiak eta otoitzgaiak eskaintzen dizkio; Kristoren eta andre Mariaren bizitzak eta bitartekotasuna oroitarazi, santuen laguntzaz azken-elburura joaten lagundu, lana eta otoitza elkartzen ikas-erazi eta artara bultzatu.

Liburuak dituen zortzi parteak ortara jotzen dute. Irakurleak eskuetan du berau, eta ez du inork xetasun geiago eman bearrik. Eta geien-geiena bertsoetan ondua da. Prosazko zatirik ere badu, batik bat, leen partean: zazpi salmoak, barkamendu eskatzekoak alegia, eta bai erakaspén batzu eta otoitz bat edo beste. Prosaz daude beste parteetako letariñak eta beste otoitzen bat ere. Gaiñerako guztia bertsoetan. Bertsoetan kantatzen ditu Kristoren eta Andre Mariaren misterioak, Belenen asi eta Galbarioan zear, zeruratu arteraiño. Bertsoetan lagunduko dio kristauari barkamenduko sakramentua artu eta Eukaristiara urbiltzen. Bertsoetan ustuko ditu, bai zerurakoen pozak, bai infernukoen oiñazeak, eta bai santuen zoriona. Bertsoetan azaltzen du, bertsozko galde-erantzunetan, kristau-ikasbide osoa. Santuetan ongi ageri du, Andre Mariaz eta S. Josez beste, zeintsuk dituen kutunen: bere Aita Ifiazio, Xabier bere anaia, eta bere izeneko Bemardo.

Gasteluzar-en poesia

Eta emen Lafittek egindako galdera datorkigu burura: ea gai oietarik, azi oietarik sor daitekentz, lora daitekentz poesiarik? Eta galdatzaile berarekin baietz erantzungo dugu, Gasteluzarrek badakiela gai oietarik poesirik sortzen eta loratzen. «Aitortuko dugu, dio Lafittek, didaktiko gisan azaltzen ari zaikularik zer diren sakramenduak, edo meza nola entzun, ez gaituela hainbat kilikatzen, ez eta biziki inarrosten. Baina ez dago hildo horietan murgildurik» (Gure Herria, 1974, 11) Liburuan ez da, ez, dena didaktiko tankerakoa. Ez urbiltzekorik ere.

Gairik erabillienetan, eskuztatuenetan, badaki irudimenak eraginik, lirikoaren egalak artzen eta oi ez bezalako ikuspegi berriak aurkitzen. Gutxien uste dugunean, erromantiko baten irudimen eta biotzondoaz piztutako bertso-txinpartez arritzen gaitu. Jesus Aurraren eta Andre Mariaren arteko biotzixurietan eman dizkigu olako distira batzu. Infernuko betikotasunak eta ango damnatuen ezin-etsiak, *desparaziñoak* ere,

ahapaldi inarrosgarriak iradoki dizkio. Infernua maitasunik ez den lekua dela baiña, Gasteluzarrek damnatuen biotzean ere maftasun-pindarrak sorrarazten dituela esan daiteke.

Aitzin-solas onetan ez diogu aurrea artu nai irakurlearen iritzitari. Bakoitzak neurtu beza, bere argiez baliaturik, olerkari onen balioa. Nola nai ere, edozeiñek naiko du gure literaturaren ikertzailleak zer iritzitako izan diren jakin, eta emen ipiñiko dizkiogu bat edo beste.

Asieran egin dugu F. Michel-en aipamena. Gasteluzarren poesia bikaintzat zeukan; bertsoa neurri onean egiña omen du eta Lapurdiko euskera ixurerraz eta apaina omen dario.

Gure mendeko ikertzailleek, liburua ezagutu duteneko, Michel-en iritzia on egin dute. Lafittek XVIIgn mendeko gure poeten artean onenetakotzat dauka, Joanes Etxeberri baiño ixuri errazagokoa eta landuagoa; gaiñera, lirikoago, garbiago, ariñago, astuntasun gutxiago eta neurrian aberatsago aurkitzen du.

Mitxelenarentzat, Gasteluzar poeta txukun eta gozo-leuna dugu, eta gure artean neurri berrien asmatzaille agertu da, Oihenart bezala. Utzi dizkigun bertsoak erri xeea eskolatzeko egin bazituen ere, neurrien ugariz eta gaiñerako eder-jantziz, idazle ikasi eta kulturadunarenak omen ditu. Nonbait ere, bere liburutik Parnasoko musak aienatu baditu ere, olerkari au ez da Parnasotik igaro gabea, eta andik datozten aizeen bafadak sartu zaizkio bere bertsoetara.

Bertso-neurriak

Bertso neurrien aberastasuna aitortu dio Mitxelenak olerkari oni. Eta ortaz zerbait esatea baitezpadakoa dirudi.

Eta, leen-leenik, Gasteluzarrek berak aitortua gogora dezagun, baizik eta bertso batzu mariñelek zekizkiten latiñezko kantuen neurrian onduak dituela. Eta egia da. Latiñezkoen neurrietan itzuli zituen euskerazko bertsoetara: *Lauda Sion, Veni Creator, Verbum Supremum, Pange lingua, Sacris Solemniis, Lauda Sion, Ave maris stella, Dies irae, Quem terra pontus*, eta santuen omenezko beste zenbait. Ez dira guztiok neurri berdiñez egiñak, alaere.

Ortík Ianda, latiñezkoen neurrizko bertsoez gain, beste bospasei neurri aurkituko dizkiogu, launakako bertsoetan, puntukide bigarrena eta laugarrena dituela: 9/8, 9/8; 8/8, 8/8; 8/7, 8/7; 7/6, 7/6; 8/7, 9/8; 7/7, 7/7.

Bosnakako eta seinakako gutxi batzu ere baditu. Seinakako bat 7/8, 7/8, 7/7 silabaduna du, puntukide leenbizikoa irugarrenarekin, bigarrena laugarrenarekin eta azken biak elkarrekin direla:

Infernua da lekhu
Pena gustiez bethea,
Justiziaren laku
Eta kharrezko etxea:
Doloreen lekhua
Damnatuek deithua.

Seinakakoa da urrengo au ere, azkenengo biek errepika egiten dutela:

Kreatura damnatua,
Jainkoak ahantzia;
Zer da hire ifernua,
Zer dolore handia;
Erraguk, erraguk,
Zer pena sofritzen duk?

Edo beste errepika onekin:

Hela, Hela, Hela,
Segi ez gaitzatzula.

Leengoa eta au, silabaz, ezberdiñak dira, ikusten denez.

Bosnakakoa da beste au, euskerazko bertsoetan gutxitan ikusi den tankerakoa neurritz eta puntuz:

Ezta Haur hunen sua,
Itsua,
Baiña da dohatsua;
Argiak dardaratzen ditu,
Ni nahiz sutan formatu.

Leenbiziko irurak puntukide, baiña zazpi, iru eta zazpi silabadun; laugarrena eta bosgarrena puntukide, baiña silabaz luzeago, 9 eta 8 silabadun.

Aize berriak ekarri zituen, bai, bere egunetarako Gazteluzarrek euskal-olerkigin-tzara. Berri agertzen zen bera erromantiko tankerako olerkiekin; berri, baita ere, arteraiño erabilli gabeko doiñu eta neurriekin. Damurik, ez zuen jaraitzaillerik izan, ez zen aren inguruan eskolarik sortu. Berarekin agortu zen iturria.

Erriarentzat erein zuen azia, Egia Katolikazko azia, eta erritar xeen eskuetan igatu eta orri-ultu zen aren liburua, erabillien erabilliz, noski. Liburuaren ale osorik ezin aurkituak ez ote du orixe esan nai? Eta erritarren oroimenean iraun dute aren kanta batzuk gaur arte. Errian jaso zituen, esaterako, Aita Donostiak Gasteluzarrek sortutako kanta batzu: *Kreatura damnatua* (beste norbaitek ber-moldatua, baiña Gasteluzarrena), *Kanta zagun gustiok (Erraguzu, Maria)*, eta Gasteluzarrek S. Luis erregearen otoitza zelakotzat eman ziguna: *Banoa loaren hartzera*.

Ez ote dugu or ikusten erriak jakin duela bere olerkariaren oparia eskertzen?

Gasteluzar-en euskera

Idazle onen euskera Lapurdikoa dela ukatzerik ez dago. Duen euskeratik atera zuen Lafittek egillearen jatorria, lapurtarra izan bear zuelakoa. Eta Lapurdiko euskal-literaturak izan zuen mende loretsukoa, ain zuzen. Lapurdin Ziburukoa da, gaiñera, ez Sarakoa. Lafittek berak esan zuenez, ba omen du Lapurdiz kanpoko kutsutxorik ere. Kutsu ori non eta zertan agertzen denik ez digu esan, eta gaurko euskalariek emen dute ikerketa eta alderaketa berrien egiteko aukera, bakoitzak dituen argien eta jakin-miñaren arabera.

Guk ez dugu xeetasun geiegitan sartu nai, baiña ez ditugu utziko zenbait puntu aipatu gabe. Batzuk, ain zuzen, orain eztabaidan edo argitu naitan dabiltzanak dira. Goazen puntuz puntu.

1) Gasteluzarrek ez daki *ukhan* erabiltzen, *izan* edo *izatu* beti: «Atsegin gehiago izanen dutela... eskaraz kantatzeaz», —«Egun huntan izatu tut/zure ontasun berriak»—. «Zerutik izan zuen / mezu dibinoa, / ez zuela izanen / agorren laidoa». Olaxe beti.

2) Bitik gorako zenbakiekin ez du inoiz aditza singalarrera bialtzen: «Urriak 31 egun ditu. Hazillak 30 egun ditu». (Liburuak) «zazpi parte ditu». Berdiña zen Leizarraga zaararen jokabidea. *Mila* zenbakiarekin ere, non-nai mugagabekotzat erabillia izan den arren, pluralera jotzen du: «Milla pena tut sofritzen». —«Amu hunek milla herio/bethi egiten tuenak»—. «Instant gustiez behar tiat / milla herio pairatu».

3) Aditzean, itanozko adizkietan, Leizarragaren, Etxepareren eta beste garai artako idazleen bidetik doa: *aiz*, *aut*, *audala*, *adi*, *adilla*, *akit*, *ator*, *intzen*, olaxe garbi garbi idazten ditu, H gabe. Letra au ez du sartzen adizki oiek baldintzazko aurre-izkia dutenean baizik: *Bahaiz*, *bahintz*. Bein, orraitio, arau ori autsiz, *hoa* jalki zaio; baina, bear bada, ez du araurik autsi, idazle batzuentzat *Joan* aditzak *H* ori noizik bein berea baitu. *Oha* idatzi zuen Leizarragak, eta onek urrengo silabara biali zuena, *oha* egiñez, Gasteluzarrek aurrera ekarri du, nonbait. Gaur askok egiten duten bezala, Gasteluzarrek ez zuen, noski, Etxepareren *Jalgi adi* ospetsua, H sartuz, inoiz ere aldatuko, ez eta letra ori euskalki guztietako adizkietara sartuko, esandako aditz-formetan.

4) Inperatiboko adizkietan naasi xamar ikusten dugu bigarren personakoetan: bein laburrago, bein luzeago. Forma labor asko jatorrak eta legezkoak dira, noski, luzexeagoak ere berdin: *Egik*, *egizu*, *egiozu*, *egigun*; *utzak*, *utzikik*; *aditzak*, *adiezak*; *idekazu*, *idek ezazu*, *idekitzatzu*; *ikhus ezak*, *ikhusazu*; *pensazak*, *pensa ezak*, eta abar. Baiña beste inperatibo askori *d-* bat erantsi die aurrean: *dezazu*, *detzatzu*; *har dezak*; *ikhus detzatzu*; *bilha dezazu*; *juia dezak*; *urrun diezadazu*, eta antzerakoak asko. *D-* ori subjuntiboko adizkietatik aldatu du inperatibora, onen formak alperrik ugalduz. Geroko idazleetan jarraitzaillerik izan duela esan bear.

5) Badu agintea edo borondatea adierazteko beste formarik ere, euskera zaarrea jatorri erabillirik: *Dugun*, *dugula*, *duela*, *dutela*, *dela* eta abar. Indikatiboko adizkiei *-N* edo *La* erantsirik sortuak dira: *Dugun lauda*, *Gloria duela*, *zarela bedinkatua*, *dela bedinkatua*, *duzula gloria* eta abar. Egia esan, nonnai dauzkagu olako adizkiak, inperatiboko pluralean: *Goaz-en*, *dantzugu-n*, *dagigun* (Gasteluzarrek *Egigun* ba du ere) *gatoz-en*, *gabiltz-an*.

6) Itanozko adizkietan, *-n* edo *-la* eransten zaienean, ez die azkeneko *-k* galarazten: *Bethi dukela sofritzen*. Leizarragak, *-k* ori kenduz, *bethi duala sofritzen* idatziko zuen. Leizarragak: «Dituan gauzak noren izanen dituk?» Ez, *ditukan* gauzak. «Gehiago bekaturik eztagiala» (ez, *eztagikala*).

7) Futuruko adizkietan *-nen* bukatu bearrea, *-ren* ere egiten du: *Jaren*, *izaren*, *emaren*, *erraren*, eta ez, janen, izanen, emanen, erranen, bear zen bezala. Bertsoaren puntuak eskatzen zuelako egin du ori, noski, baiña beste askotan ez da puntuetan orren zeatza.

8) Bizkaiko formetara urbiltzen diren forma batzu ere erabili ditu: *ahal dagian, ahal dagiken, ahal dagidan, dagiket, daigun penitentzia...*

9) *Gusti* esekin darabil, ez *guzti*. Esekun idazten ditu dituste, gaituste eta olako adizkiak; baita ere, *Ez* ukatzaillea, adiskiekin bat egiñik doan askotan: *Estu deusik*.

10) *Jainkoa* bi eratara du: Jainko eta *Jongoiko*. Eta bein bertso eta lerro berean era bitxi samar ontara: *Jainkoa Jongoiko* deñio.

11) Azkenez, edizio onetan ezpaitugu liburuak asieran duen *llhábetheen kontua* edo egutegia sartzen, ona andik atera dezakegunaren laburpena. Ilen izenak: *urt-harrilla, otsailla, martxoa, apirilla, maiatza, erearoa, uztaila, abuztua, buruilla, urria, hazilla (sic), abendoa*. Besta-egun batzu: Trufania, Andre dena Maria Kandelaro, Andre Birjinaren Anonziazionea, Gurutze Sainduaren ediretea, Birjina Mariaren Konzepzioa, Birjina Mariaren zeruratzea, Birjina MariaElhurretakoa, Birjina Maria sortzea, Eguberri. Santuen izenak: Jaun done Mikhele, Jaundoni Petri eta Paulo, Jaun done Jakobe, Jaundoni Estebe, Jaundoni Joanes apostolua, S. Andre apostolua, S. Simon eta S. Juda. Ageri denez, santu guztiak ez dira ez Jaun done, ez Jaundoni. Santuen izenak erderazkoen antzera daude, Piarres, Mikhele eta Leho izan ezik. Baiña apostolua ez da Piarres, Petri baizik. Hazilaren leenengoa eta bigarrenak onetara daude: Saindu gustien Besta eta Defuntu gustien Orhoitzapena. Illabete bakoitzaren buruko, zenbat egun dituen jartzen du, gero illargiak zenbat egun, eta egunak eta gabak zenbat ordu. Ona otsaillekoan diona: «Otsaillak 28 egun ditu; ilhargiak, 29. Bisestez, ilhabetheak 29 egun, ilhargiak, 30; egunak 10 oren, gauak 14».

Oraingo edizioa

Orain irakurleari zenbait argitasun zor dizkiogu, edizio au nola prestatua den esateko. Jakiña, ez dela orain irureun urte atera zenaren kopia osozkoa. Beraz, zer kendu dugun, zer gaurkotu eta zer aldatu dugun esan bearrean gaude.

Zer kendu den, zer ber-argitaratzen ez dugun, erdi esanik gelditu da aurreko lerroetan: liburuaren gorputza egiten ez duen egutegia kanpoan utzi da. Orrez gaiñera, latin utsezko puska batzu ere bai: koruko errezoak asteko eta bururatzeko esan oi ziren latinezko bi otoitz, asi-asieran, eta liburuaren gorputzean, *Stabat Mater* latinezkoa, eta bertso-tartean dauden Ebanjelio-puska gutxi batzuk, eta S. Bemard-en *Missus est* itzalditik artuak dauden itzak.

Zer gaurkotu dugun? Ortografia gaurko arau jakiñetara egokitu, iruzpalau letretan. Orrek esan nai du, *que-quí*, eta *gue-gui* emen *ke-ki*, *ge-gi* eginak daudela. *-Mp* eta *-mb* ere *-np* eta *-nb* biurtu dira, eta latin-kutsusko *-tia* ere *-zia* edo *-tzia* egiñik gelditu da: penitentzia, paubrezia, eta ola. Beste letra guztiak, H (bai bokal artekoa eta bai konsonante ondokoa), eta LL, Gasteluzarren ortografiaren lekukotzat emen daude. Azkenez, esan dezagun, bi bokalen arteko S gure idazleak bikoiztu egiten *duela*: *osso, aussartu, itsasso, ikhussi, ontassun, parabissu, issuri, naussi eta ola; emen S bakarra jarri dugu*. Berdin egin dugu frantzesaren kutsuko F bikoitzarekin ere; *F* bakarra aurkituko da emen: *ofensa, ofritu, sofritu*.

Zer zuzendu dugun? Inprentako uts agirien batzu. Esaterako *dagonea*, *dagoenaren* ordez, eta olakoren bat edo beste. Letraren bat itz berean bi eratara jarri duenean ere, berdintzen saiatu gara: *promes*, *ezpromes*.

Orra esateko genuen guztia edizio oni buruz. Emen du orain euskaldun irakurleak Euskeraren lekuko berri au bere eskuetan. Ia illen artetik berbiztua bezala dator plazara. Ongi etorri zabala egin bear diogu. Laster dira irureun urte leenbiziko aldiz argitaratu zela. Bigarrena duen argitaraldi au izango al da Gaztelurraren izena gure artean ezagutuago egin dadin. Eta gaurko euskaldunok jakingo al dugu ark bere garaiko eta geroko euskaldunei eskaiñi zien eta eskaiñi zigun opari eder au eskertzen eta gaiñean dugun irugarren mende-urrenari merezi duen ospea ematen.

SARRERA GISA*

Noizbaitere eldu zaio bere aldia Joanes Etxeberri Ziburutarrari. Berak baiño zori ohea izan du antziñako euskal-idazle mordo batek. Batzuen idazlanak oraintsu samar izan dira berriz argitaratuak eta beren lanak irakurtzeko aukera ohea dugu. Ola, neke geiegirik gabe aurkitu ditezke Etxepare, Leizarraga, Axular eta Oihenart-en liburuak, bai Harizmendi eta Argaiñaratz-enak ere.

Orain, izen berri bat dator aien lerroan jartzen: Etxeberri, Ziburuko seme argi ta idazle ain ugari ta jatorrarena. *Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones* delakoaren eskutik dator, eta Donostiako *Caja de Ahorros Municipal-aren* laguntzaz, ain zuzen. Diruak eta kulturaren maitasunak zorioneko ezkontza egin dute emen, eta ez al da azkena izango.

Etxeberri nor dugun

Baña nor dugu idazle au? Damurik, ezer gutxi dakigu bere biziari buruz. Ziburutarra zela esan dezakegu. Ziburutar egiten du berak bere burua. Baña ez dakigu noiz jaio zen. Ziburun erretor izana ere omen da, or 1637 edo 1638-garren urterarte. Orduan utzi omen zuen erretorgoa, eriotzeak kendurik nonbait.

Gero, bere izenari itsatsia, titulu au darama beti: *Doctor teologoa*. Orrek esan nai du eskola nausien batean apaiz-ikasketak egiña zela, teologian irakasle izateko eskubidea zeukala. Non ikasi ote zuen? Paben? Tolosan? Bada emen zer argitu. Dena dela, Jesuitekin ibillia da; Loiolako Iñazioren semeekin ikasi zuen zekien guztia, santu orri egindako kantuan berak dionez. Etxe oneko semea bide zen. Bere liburuetatik ateratzen den bezala, bere anai bat osalari, miriku izan zuen, bera baiño

* In: J. ETCHEBERRI, *Noelak eta...*, San Sebastián 1970, 5-16.

zenbait urte lenago illa. Iltzat ematen digu, beintzat, bere *Manual devotioñezcoa* atera zueneko; beraz, 1627-garren urterako.

Orra bere biziak dakigun guztia: oso gutxi, egiaz. Baña bere urteei buruz esatekorik ain gutxi utzi badigu ere, ez da berdin gertatzen bere idazlanez. Emen aztarrenik aski utzi du, bai. Bere mendeko euskal-idazlerik ugariena dugula esan genezake.

Baditu, gutxienaz, argitara emanak, iru liburu: *Manual Devotioñezcoa*, bi tomotan eta bi aldiz argitaratua, 1627-an eta 1669-an; *Eliçara erabilceco liburua*, iru aldiz argia ikusia, 1636, 1665 eta 1666-an, eta bestea, emen orain ematen duguna: *Noelac*.

Gutxienaz, iru liburuok ezagutzen ditugu. Besterikidatzi ote zuen? Laffite jaunak oraintsu ezaguerazi duen Oihenart-en lan batean beste bat ere aipatzen da: *Egunorozcoa*. Beste xeetasunik ez digu ematen. Eta esan bearra dago orainarte ez dela orren aztarrenik azaldu, eta beste iñork ez duela orren ezagutzerik eman. Liburu berria ote da, lengoez beste bat ote da, ala besteen zatien bat, edo besteen zatien bati eman ote dio Oihenartek izen ori? Gogoan ar dezagun Elizara erabiltzeko liburuak ere baduela zati bat, *Egunorozko othoitx laburrak* titulutzat daramana. Eta, gaiez, berdintsu da Manualaren bigarren zatia ere.

Au esanez, ez dugu ukatu nai liburu ori izan denik. Eta iñoizkoren batean ager baledi, ongi etorria izango litzake euskal-literaturan. Bai, orixe.

Bertsotan zergatik idatzi zuen

Etxeberri onen idaz-lan guztia, orrialde gutxi batzuez landa, itz neurtuetan idatzia dago. Damugarritzat, tamalgarritzat dauka Oihenartek gure idazlearen bertsotarako joera. Itz lauz idatzi balu, obe zukeala dio. Berdin uste du Mitxelenak ere, Oihenartek esana irakurri aurretik, alegia, gai batzuk itz lauz erabilli balitu, obe zela. Eta Oihenarten ustez, bertsotan idazteko baiño trebeago zen bestela idazteko. Bere etxekoei egindako gutunak aipatzen ditu lekuko. Ongi erakusten omen zuten Etxeberri euskeraren jabe zela. Eta ez bakarrik gutun oiek, bai beste egille beraren bi lanek ere: bata, euskerazko iztegia, eta bestea, euskal-aditzaren formekin egindako lan bat.

Baña itz lautan idazteko ain trebe zelarik ere, naiago izan zuen itz neurtuetan idatzi. Bertsotan ustu zuen, geien batean, bere bamea, eta bertsotan eman zituen bere irakatsiak ere. Bertsoz egiña da ia bere lan guztia.

Zerk eragin zion ori? Bertsotan idatziz, zer billatu zuen? Oihenartek ematen dio galdera oni erantzuna, arestian aipatu dugun lanean. Etxeberri berari entzunik zekien. Mariñelen onetan, mariñelei atsegin ematearren jo omen zuen bertsotara. Ziburun jaio eta Ziburun bizi, bazekien Etxeberrik gure itsasbaterreko mariñelen berri. Bertso-zale ta kanta-zale omen ziren, eta aien egarria ase nai izan du Etxeberrik, euskerazko kanta-gaiak aientzat emanez.

Gasteluzar jesuitari, Etxeberriren ondoko beste olerkari txukunari, berdintsu gertatu zitzaion. Gure mariñelek atsegin omen zuten, itsasoan zebiltzanetan, kantuz aritzea; eta euskerazko kantarik ezean, latiñezko eleiz-kantuetara jotzen omen zuten.

Eta zer egin zuen Gasteluzarrek? Gure itsasgizonek kantu berak euskeraz emanez atsegin geiago izango zutela-ta, euskeraz jarri zituen latinezkoen neurri berdintsuan, beren itsasoko orduetan kanta zitzaten.

Baña, ageri den bezala, Ziburuko semeak aurrea artu zion Gazteluzar argiari. Eta ez mariñelen onetan bakarrik; euskaldun guztien bertsozaletasuna gogoan zuela, egin zuen Etxeberrik bere lana. Berak ala esango digu, eta ontan Oihenartek esana zerbaitetan zuzendua gelditzen da, teologo olerkari onek bere *Manual Devotionezcoa* deritzan liburuan esaten duenez:

«Giristinoa, eman diat eskarazko bertsutan
katoliko manuala neure asti-ordutan.
Ikusirik, nola bainaz iaiatzez eskalduna,
gure nazioa dela koplamaite duena,
hartarakotz iakiaraz diat bertszuz ezarri:
lasterrago ikhas eta maizago aiphagarri».

Euskaldunen kantazaletasun ori aspaldietakoa da, erromarren egunetakoa, berroiek aitortu omen zuten bezala:

«Ezen, dakusun bezala,
eskaldunak, zaharrek
kanten maitatzaille deithu
zituzten erromarrek».

Ikus, bide batez, nolako itz-joskera derabillan sarri gure teologo onek euskeraz. Elkarrekin joan bear zuten emen *erromarrek* eta *zaharrek* (erromar zaharrek), baiña ikus nola jarri dituen biak elkarrengatik ain urruti.

Mariñelik ez da emen aipatzen; euskaldun guztien alderako egin du lan gure olerkariak. Baiña, Oihenartek esana dena gezur gerta ez dedin, or dago bere *Manual* ori, eta bertan zati osoa, Mariñelentzat egiña, *Itsasoko biaietako othoitz-araldea*, alegia.

Gure eliz-kanten aita

Ala da: gure eliz-kanten sortzaille jo dezakegu Ziburuko Etxeberri. Titulu au emateko badire argitasun batzuk beronen liburuetan, sarrera bezala adiskideek eskeintzen dizkioten kopletan, latinezkoetan, batez ere.

Batek onela dio bein: Euskaldunek ezin zutela gogo onez eraman Jainkoari izkuntza arrotzez kantatu bearra; orregatik, lan txalogarria gure olerkari onek egin duena: gure lurreraño ekarri ditu musak eta berei euskaraz egin arazi die. Geroak zeruetaraño goratu bear omen du lan onen egillea. Euskaldunak ogi eske omen zeuden, eta iñok ez omen zien ematen. Etxeberrik zeruko ogia ekarri dio gure erriari.

Beste batek aitortzen du: gure erriak maite zituela elizetako kantak, baiña zer zioten etzekitela kantatzen zituzten. Etxeberri esker zuzendu da oker ori. Dabid

euskeraz mintzarazi du. Ain kantari izanik, emendik aurrera euskaldunak *iakiaraz* eta pozik kantatuko du elizetan.

Etxeberri urratutako biderei jarraituko diote gero beste askok: Harizmendi, Argaiñaratz, Gasteluzar, etabarrek. Guztien aurrelari ta aintzingidari: Joanes Etxeberri, Ziburutarra.

Etxeberri XVII-garren mendeko euskal-idazleetan

Bere mendeko euskal-literaturaren zeruan *argizagi*, izar andi dugu Ziburuko seme argi au.

Etxepare Garazitarrak aurreko mendean urratu zuen bideak orduantxe jotzen du gaillurra, itz lauz Axularrekin (edo, aitorrage esateko, Axularrekin), eta itz itzulitan, itz neurtuetan, gure Etxeberri onekin.

Eun bat urte geroago, beste Etxeberri batek, Sara-koak, bi gizonok jartzen zituen euskaldunentzat maixu bezala: «Axular perpausa lanoan, eta Etxeberri jaun apeza bere kopletan». Idazle oietan ikasi bear lukete euskaldunek bere izkuntzak nolako aberatasuna duen «Ispirituko pentsamenduen sothilki eta agudoki adiarazteko».

Bere aldiko oldarra izan zuen orduan euskal-literaturak lapurtarren artean, sekulan ez bezalakoa. Nonnai agertzen ziren luma azkarrak. Eta nola ebakitzen zuten euskera! Guztiek elkarren leian eta elkar arturik bezala ziarduten. Guztiek, eliz-gizon eta erri-gizon, elkar sutzen, elkarri eusten ziotela badirudi. Atsegin zaigu, orduko liburuen sarreretan, izen ezagunak ikustea, bata besteari laguntzen, gogo berotzen, gorespenak ematen eta bideak zabaltzen.

Axular, Harizmendi, ta Argaiñaratz or ditugu Materre, Aranburu eta Etxeberri oni aialdeko egiten, esku ematen. Eta izen andi oiekin naasi, atsegin zaigu beste ots gutxiagoko batzuk entzutea beren bertsozko laudorioekin: Gillentena, Hirigoiti, Apezte ta Claveria, azkenengo au euskaldun erdal-idazleen kontrako bertsoen egillea. Guztiok, euskerazko bertsozintzan trebeak. Beren artean elizgizonak dire gaillen, baiña or da errigizon bat ere, Hirigoiti jauna, *doctor medicus* bera. Denok merezi dute gorespenezko aipamentxo Lapurdiko literaturaren loraldí artan. Bazen orduan euskal-kezkarik, euskera lantzeko gogo bero ta argitsurik. Etxeparek erein zuen aziak fruturik ba zekarren. Ark aurtiki zuen oiua bazuen erantzuna. Euskera kanpora, plazara zetorren, mundura jalgitzen zen, eta oldarkoi ala ere.

Orain aukera obean gaude Etxepareganik Etxeberriren ganañoko bidea obeki ezagutzeko. Oihenartek, Laffitek argitaratu duen lanean, bi izen berri eman dizkigu, bitarte orren betegarri. Bi apez dire: Joanes Etxegarai, eta Arnaut Logras. Etxegarai ori, Etxepareren erkidea, Donibane Garaziko semea, *Artzain Gorri* izeneko pastoralaren egillea da. Beste bertso-bilduma bat ere utzi omen zuen, eskuz idatzirik. An, 1565-inguruan ari izan omen zen idazten. Bigarrenak, Logras orrek ere utzi omen zuen bertso-pillaren bat, Oihenartek bere eskuetan izana.

Beude izen oiek emen, Etxepare ta Etxeberriren artean zubi egiten dutela. Guztiok, geroagoko Oihenarte eta Gasteluzar tartean sarturik, sekulako loraldia eragin zioten XVII-garren mendean euskal-poesiari. Guztion artean Ziburuko Etxeberri ez da, ez, *izar xehe*, bai *argizagi* andi. Eta bera da bertsozik geien idatzi zuena.

Noelak

Au da Etxeberriren liburuetan bigarren liburua, eta gaur euskalzaleei emen eskeintzen zaiena. Argitaratzeko baimenak 1630-an emanak ditu; baña urte orretako ateraldirik ez da ezagutzen. Amabost urte geroagokoa da, 1645-koa, ezagutzen dugunik zaarrena. Bordelen egiña. Geroago, Baionan argitaratzen dute: 1697, 1699 (bi aldiz), Maffre-ren inprimerian, eta andik aurrera, lau edo bost aldiz, Fauvet-tarren etxean, urterik gabe. Bere titulu osoak dionez (Noelak eta berze kanta espiritual berriak), noelez gañera beste kanta asko du Kristoren eta saintuen omenez. Ateraldirik zaarrenek, 1699-garreneartekoek, gai berberak ematen dituzte; andik aurrerakoek kanta bat edo beste geiago sartzen dute azkenean.

Ezagutzen diren ateraldi guztiak daude utsez josirik. Geienetan ez da zailla utsa non eta zertan den igartzen; ariari jarraituz, gaiak berak ekartzen du gogora bear litzaken letra naiz itza. Beste batzuetan, ordea, ez da orren errez utsa zuzentzen. Oraingo argitaraldirako, ontan nekerik artu bear izan dugula aitortu bearrean gaude. Zatirik ezbaikoenetan jakiniaren gañean jarriko dugu irakurlea, liburuak zer zion eta guk zer esanarazi diogun jakin dezan.

Liburu oni ezarri diote begia *Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones* delakoaren zuzendariak, argitaraldi berri au euskaldunei eskeintzeko. Egia esan, bada beste idazlerik gure idazle zaarretan ezagutzea merezi duenik. Or da, esaterako, gure Ziburutar onen ondoko Gazteluzar. Etorriko al zaio oni ere bere aldia.

Iñoiz iñork esan du gure klasiko guztien bilduma osoa bear genuela atera. Iñoiz neronek ere esan dut Euskaltzaindiak artu lezakeala bere gain egiteko ori, beste iñola eziñean, bere aldizkariaren orriak ortarako eskeiñirik. Or dabil aldizkari ori bere ateraldia atzeratzen beti, zerez bete ez balu bezala. Zergatik ez gure klasiko zaarren sail bat bertan ateratzen asi? Aspaldi batean, an atera ziren bi nobela, gero *separata* bezala zabalduak. Zergatik olako zerbait ez egin antziñako euskal-idazleen liburu bakanekin?

Bien bitartean, ar dezagun esker onez Etxeberriren liburu au eskeintzen digutenen opari gaingaiñekoa.

Oraingo argitaraldia

Emen duzu, irakurle euskalduna, gure klasikoetako bat. Bere jatorrean eman nai dizugu, ortografia zerbait berritu ta beste aldaketarik gabe. Ortografia berritu, eta noiz edo bein, gutxitan, berdindu ere egin dugu. Esaterako, Etxeberrik liburu ontan beti *berce* idazten du, eta guk berze. Iñoizkoren baten *minça* derabil, baña geienetan *mintça*; zalantzan gelditzen gera lenbiziko forma ori ez ote den inprentako utsen bat; orregatik, berdintzeari begiratuaz, emen *mintza* aldatuko dugu. Berdin egingo dugu *penazen* edo *penatzen* formekin; bigarrena da Noeletan ia beti agertzen dena, ta olan berdindu egingo dugu emen ere. Batzuetan *neque* dio, eta besteetan *nekhe*; agerian da emen inprentako utsik ez dena. Orregatik bietara jarriko da emen. *Bitztu* ta *piztu* erabiltzen du Etxeberrik, eta guk *biztu* ta *piztu*; *hilltzen* Etxeberrik,

eta guk *hiltzen*. Bi bokalen artean s bikoitza dauka Etxeberrik: *issuri, naussi, bassa*; guk: *isuri, nausi, basa*.

Nausi aipatu dugun ezkerro, aipagarria dela uste dut Etxeberrik beti ola ematen duela itz ori; inoiz ez, ez *nagusi* ta ez *nabusi*, baña beti iru silaba ematen dizkiola; ez du or diptongorik egiten.

Irakurleak berak ikusiko du baduela gure idazleak berekeri bat Jainkoaren izenari buruz: bi eratara erabailtzen du, bein *Jainko* ta bein *Jongoiko*, ez *Jaungoiko* ez *Jangoiko*.

Baña Ziburutar onen bertsoetan gauzarik nabarmena askotan erabiltzen duen joskera da: elkarrekin joan bear luketen itzak bata bestearenganik urrun jartzen ditu, bear bada, geiegitan. Len ekarri dugu olako joskeradun puska bat.

Ona emen orain, azkenengo kantutik artuta, beste bi: Iñazio Loiolakoari onela esaten dio:

Bereziki ni natzaitzu
zordun, zeren, zuretan,
dakidan guztia ikhasi baitut
eskola sainduetan.

Zure eskola sainduetan esan bearrean, orra nola urrundu dituen *zure* ta *eskola*.

Ez ain urren, baño beste bertso oietan ere ikusi nola dauden *neure* ta *etxea* elkarrengatik aldendurik:

Esparantza hartan neure
bihurtzen naiz etxera.

Liburuaren mamiaz ez dut ezer esan nai. Irakurleak berak atera beza bere iritzia Etxeberriren bertsoen ederrez. Ortaz beste batzuk mintzatu dire naiko argi eta zeatz. Mitxelena jaunak, esaterako, gorespen beroa du bere *Historia de la Literatura Vasca*-'n Etxeberriren lanarentzat.

* # #

Noelak liburu au Loiolan bukatua da. Eztakigu zenbat egunez baña, an izana dugu gure olerkari au, eta an egin zuen liburu ontako azken kantua, Iñazio gure Patroi aundiari esker onez, mesede andi bat egin ziolako:

Esker itzultzen darotzut
zeure iaiaetxean,
Loiola lauregiko
aldare aitzinean.

Arren, bada, errezi bi
zazu onen partera
zeure hizkuntzan bihurtzen
darotzudan eskerra.

Gizaldiak joan dire arrezkerro. Eta gaur, irureun eta berrogei urteren buruan, Loiolako santuak bere zaindaritzapean daukan lurralde ontan berriro entzungo da

bertso aien oiartzuna, eta liburu onen argitaraldi berri onekin, eskerrik onena itzultzen dio Gipuzkoak Ziburuko seme ta idazle azkar oni.

Eta Gipuzkoan bakarrik ez, Euskalerrri osoan entzun bedi eta euskaldun guztien izenean arako beronen liburu bati laudoriozko koplak ezarri zizkion batek idatzia:

Laudorio, bada, handi
duzula Eskaldunetz:
lapurtarrez, bizkaitarrez,
bai eta Nafar Iruñez.

NOELAK, EZ NOELA*

A. Irigarai jauna mintzatu zaigu oraintsutan, *Zeruko Argia* onen orrietan, Etxeberri Ziburutarrari eta aren atera berri dan *Noelak* liburuari buruz. Gure klasiko delako onen liburua berriz ateratzea Irigarai jaunaren gogoko izan dala ez dago ukatzerik. Eta jaun onek berea egin du Etxeberriri beñola emandako laudorioa:

Laudorio, bada, handi
duzula Eskaldunez,
Lapurtarrez, Bizkaitarrez,
bai eta Nafar Iruñez.

Baiña, bear bada, Irigarai jaunaren artikulua irakurri ondoren, bati baño geiagori zalantza gelditu zaio barruan, ez ote zaion oraingoan Etxeberriren liburuari titulua zerbait aldatu.

Izan ere, Irigarai jaunaren itzak zalantza baño geiago sortzekoak dirudite. Argitaldi berri onek «portada originalaren fotokopia» omen dakar, eta an ez omen da *Noelak* irakurtzen, *Noela* baizik: ez da an «kanta espiritual» ikusten, «kanta spiritual» baizik. Eta titulu ori «edizione berrian oraingo ortografian eman orde, izenburua aldaturik ematen du». Irigaraik esana da. Bada, bai, or zalantza eztana sortzeko gairik.

Irakurleak zeri egon ez dakitela geldi ez ditezen, esan bearra dago ez dala emen olako aldakuntzarik egin. Etxeberri Ziburutarraren liburu orrek, itzaurrean esaten dan bezela, titulo auxe du: *Noelak eta berze kanta espiritual berriak*. Ez dago ez *Noela* ez *spiritual* idatzi bearrik.

Irakurleen kezka ta zalantza guztiak uxatzeko, argitasun batzuk emango ditugu.

* *Zeruko Argia* 32 (1971, 423.zenb.) 7.

Leenbiziko argitasuna: Oraingo edizioan emana ez dala *portada originalaren* fotokopiarik, bai 1730-z geroagoko edizio batena; beraz leenbiziko edizioa baiño eun urte geroagokoa, gutxi gora beera. *Jean Fauvet-en* edizio bat da, eta inprimatzaile ori 1730-tik aurrera asi zan liburu au ateratzen. Arrezkerokoak dira noiz ateratakoak diran jartzen ez duten edizioak; beraz, edizio ontan fotokopiatu dana 1730-tik gorakoa da; beraz, beranduenetakoa.

Bigarren argitasuna: Fotokopiak erakusten dituan utsak ez dira oraingo edizioarenak, J. Fauvet orrenarenak baizik. Ez dago gauza bera bein ta berriz esan bearrik: Etxeberriren liburu au da idazle onen liburuetan zorigaiztokoena, utsez josiena. Nik esango nuke umezurtz jaioa ez ote dan, aita ilda gero agertua. Egia da 1630-ko urtea agertzen dala beti liburuaren atarian; ordukoak dira liburu ateratzeko baimenak eta idazle adiskideen laudorioak, gorespenak. Baiña urte berean agertu ote zan? Ez ote zan, argatik edo orregatik, argitaratzea atzeratu? Beintzat, iñork ez du urte orretako ediziorik ikusi. Ez ote zan, bada, umezurtz jaio, aitaren begiperik gabe? Ez ote da, orrexegatik ain zuzen, dena utsez beterik agertu? Utsok titulu bertan agertzen dira. Eta, ain zuzen, 1730-tik gorakoak daukate, azalean bertan, utsik geien.

Oraingo edizioan jarri dan fotokopian *Noela* oker dago, oker dago *spiritual*, oker dago *teologoak*, eta oker *egnifiak*, *eguiñak* jarri bearrean. Geroagoko edizio batek beste okerrik ere badu; baiña aipatuak aski bitez esan deguna agirian jartzeko. Ediziorik zaarrenak ortan garbiago daude; XVII-garren mendeko edizioak (badira bosten bat), *Noelak* esaten dute beti: *Noelak eta berze kanta espiritual berriak*; ez *Noela*, ez *spiritual*. Uts oiek Fauvet-ek egindako edizioen utsak dira.

Irugarren argitasuna: Oraingo edizio ontan titulua laburturik eman da, baiña ez aldaturik: titulua laburturik (*Noelak*), eta egillearen izena soillik, azalean; eta egillearen izena, eta liburuaren titulua luzexeago, barruan. Edizio au berria da; ez da leenegoko iñoizko edizioen berriztapenik. Eta argitaratzaileak bere eskubideak artu ditu liburuaren titulua berriztaturik emateko. Beste edozein izkuntzatan edozein liburu zaarrekin berdin egiten dute. Orain ez degu beti *ikusten Don Quijote* bere leendabiziko agerraldian izan zuan titulu osoarekin.

Baiña edizio zaarren kutsua ez galtzarren, oraingoari ere aren itxura apur bat ematearen, zer egin da? Aietako baten ataria foz atera ta eman. Or dago Etxeberrik eman zion titulu osoa; bere uts guztiekin (fotokopiak ez daki besterik egiten), baiña osorik.

Zergatik eman bear izan da, baiña, utsez beteena? Ona zergatik; utsik geien izan arren, beste askoren artean argiena ta garbiena zegoalako. Orrexegatik zan egokiena fotokopiatzeko. Liburu orren edizio zaarrak, asko izan arren, ez dira orain erraz aurkitzen. Sei edo zazpi edizio erabilli dira eskuartean oraingo au gertatzeko. Inprentako utsez gainera, badute besterik: ale gutxi daude osorik; gutxi daude guttiz garbi. Eta auxe, Fauvet-ek ateratako auxe autatu ta berezi zuan argitaratzaileak fotokopiatzeko; ez jatorrena ta onena zalako, argien eta garbien zegoalako baizik. Ezta ediziorik, atarian bertan, titulu bertan, utsik ez duanik; eta Fauvet-en edizio-koaren fotokopia ematean, orixe ere argiago gelditu da. Batetik, titulu osoa erakusteko bidea eman du; eta, bestetik, agergarririk onena izan da liburuak non-nai dauzkan utsak erakusteko. Ola, bi txori il izan dira era batera.

Eta naiko da argitasunik. Ez al dago gauza au naiko argi? Liburuaren itzaurrea irakurri duanak berez ere atera zezakean orrenbeste. Orrebeste ta geitxoago ere bai. Baiña edozein aozabali erantzun bearrik ez dago. Irigarai jaunak sortuazi duan kezka edo zalantza orrek ordea, merezi zuan argitasuntxo.

Jakin beza, beraz, irakurleak Etxeberriren liburuak daraman titulua ongi dagoela: *Noelak*. Baita ere jakin beza, *Aphezte* izengoitiak ez duela *Apheztegi* izan bearrik; izengoiti ori aspaldidanik dala ezaguna Lapurdin.

Bakoitzari berea: ori da zuzenbidea.

PEDRO IGNACIO DE BARRUTIA*

«Acto para la Noche Buena»
López Mendizabal argitaldaria

Latxaga jaunak argitara berria

1983

Barrutiazaleak atsegiñetan daude. Azkenez, Aramaioko seme argiak idatzitako antzerki-lana bere jatorrean ezagutzeko aukera eskaintzen zaie, Latxaga (J.M. San Sebastián) jaunari esker.

Latxaga jaunak aspalditxoan izen ederra irabazia du euskal-idazle eta iker-tzailleen artean. Azken urteotan atzerritik dugu goi-maillako ikas-ikerketak egiten. Gaurkoan ez dakar opari kaxkarra gogoia euskal-literaturan dutenentzat. Mondragoiko eskribau ospetsu, Pedro Ignacio BARRUTIA zenaren *Acto para la Noche Buena*, idazlearen lumatik atera zen bezala argitaratua, barne-azterketa sakon batekin, euskeraz eta erderaz, beste geigarri batzuekin batera.

Barrutiaren irugarren mende-urreneko (1682-1759) otsak ixildu diranean, urtean zear egin diran omenaldi eta gañerako iker-lanei gaillur bardingabea jartera dator liburu au, Mende-urreneko omanaldirik ederrena, noski. Barrutiaren testoa ziurrago ematen zaigu. Aren ilun asko aienatzen zaizkigu. Orain artean, borondaterik onenaz egindako iker-lanek ere ajea zekarten: badaezpadako kopia bat zutela oiñarri, egillearen beraren testoa ezpaitzen ezagutzen. Eta ez testo jatorraren billa alegiñik egin gabez. Baiña artarako ibillera guztiek uts ematen zuten. Non ote zan? Arrasaten? Markiñan?

* Revista Internacional de los Estudios Vascos 29 (1984) 327-331.

Ez batean, ez bestean. Ez zan gure artean ageri. Euskalenitik urrutietara bideak egiña zebillen. Nondik nora, eta noiz ezkerro? Batek badaki. Eta zorioneko egun batez, guztizko ustekabeen, begi eme biren aurrean gertatu da, liburu denda batean salgei. Latxaga jaunak bere biziko aukera ori ez du galtzen utzi. Eta gaur, Euskalerriak galdua zeukan altxor ori Euskalerrira dakar eta euskaldunoi eskaintzen digu, fotokopiaturik eta gaiñerako eraskiñez orniturik.

Euskal-literaturaren arloan Barrutiak urrats berri au egiten duen une onetan, atsegin dugu eta zilllegi bekigu, idazle onen izenak eta gabon-antzertiak gaur arte egin izan duten bidea gogoratzea.

Pedro Ignazio de Barrutia XVII-XVIIIganen mendeko gizona dugu; baiña beronen izena ez da gure literaturan sartu joan dan mendearen azken alderarte. Azkuek 1897n illunpetik atera zuen arte. Urte onetan asi zan Azkue gaztea euskera utsezko aldizkari edergarriduna, *Euskalzale*, astero ateraten. Aldizkari onetan bazan lekurik euskerazko literatura zarreko lan batzuentzat. Besteak beste, an ageriko dira Kardaberaz aitaren *Euskerazko Berri Onak*, amaseiganen mendeko esaera zanak, eta abar. Eta an ageriko da Mondragoitik adiskide batzuk Azkue jaunari biali zioten Gabon Gaberako teatro lantxoia. Erderazko titulua du, eta Azkuek euskerazkoa erantsi dio: Gabon Gaberako Ikuskuzina (oraintsuago beste batzuk *Gabonetako Ikuskuzina* egin digutena). Mondragoiko billatzaillea nor dan badakigu: Iuan Carlos Guerra, leiñu-gaietan ain jakintsua genuen gizona. Onek Biguritarren eskutik artu eta Azkue jaunari bialtzen dio, ea bere aldizkaritxoan argitaratzen zuen (*aunque sea expurgada de sus escandalosos erderazkos*). Ez dago ukatzerik «erderazko gauza asko eta erderakada geiago» ditu antzerkitxo onek. Ala aitortzen du Azkuek; baiña ez dio Gena jaunari jaramonik egingo, eta erderazko gauza eta erderakada guztiekin aterako du, orrazketarik ez garbiketarik egin gabe. *Euskalzalek* artua zeukan moldera ortografia aldatu, besterik ez dio egingo. Non da oraintsu norbaitzuk Azkueri beren burutik asmatu eta ergelki ezarri nai dioten garbizalekeria eta erderakadentzako iguiña?

Iru urtera baizik ez zen iritxi *Euskalzale* aldizkariaren bizia. Iugarren urtea egiñaz batera ilko da, Bilboko gobernadoreak ezani zizkion ostopoen ostopoz. Aldizkari onen onietan gelditu da Barrutiaren ikuskizuna. Ia illobian bezala sartuta. Zenbatek irakurri ote zuten? Bizkaiko baztenean ateraten zan aldizkari ori ez zan asko zabaltzen, eta alerik geienak badakigu zer azken izango zuten: sua. Gure enbiblioteca nausietan ez zuen aztarnarik utzi. Azkue bera arduratu zan, urte bakoitzeko zenbaki batzuk, tomo bat egiñik salgei ipínten. Oraintsu beniz argitaratu duten arte, aldizkariaren ale gutxi batzuk ola iritxi izan dira gure egunetaraño. Olakoxe ale bat, iru tomoak batean zeuzkana, iritxi zan nere eskuetara apaiz aide baten eskutik, orain 50 urte, nere ordu askoren gozagani.

Euskalzaleen artean Barrutiaren lanak zer anera izan zuen enaz asma dezakegu: ez zuen arrera onik ez txarrik aurkitu, ezagutzen ez zutelako. Donostiar gazte batek, José Arana zenak (geroxeago fraide karmeldar egin zenak), 1925gn urtean, *Euskal-Esnalea* aldizkarian euskerazko teatro lan guztien zerrenda luzea aterako du, asko eta asko euskal-aldizkarietatik jasota: *Euskalzalek* argitaratutakorik bat ere ez. Ez du aldizkari onen iñolako berririk izan.

Ala, urte luzeetan bi gizon baizik ez ditugu Barrutiaren aipamenik egitekorik. Bata: Juan Carlos Guerra, bere azter-lan ezagunean: «*Los Cantares Antiguos del Euskara*» liburuan berriz ematen zuen Barrutiaren manuskritoaren berri (Latxagag orain aurkitu duen manuskrito bera). Bigarrena: Azkue bera.

Eta zenbat aldiz, eta nolako aipamena onek egiten dion! Azkuek bere seme kutuntzat darabil beti Barrutiaren antzerkitxo. Aipatzen duen bakoitzean erakusten du oni dion maitasuna eta lege berezia. Iñoiz ez du aipatuko noiz eta non argitaratu zuen esan gabe: alegia, 1897, *Euskalzale* aldizkariaren orrietan... Eta iñoiz ere ez gorespenezko edo kutuntasunezko itz bat edo beste erantsi gabe: «Antzerkitxo irakurgarria», «curiosa pieza de escena», «linda pieza arrancada del pueblo». Olaxe ainbat aldiz *Morfología Vasca* liburuan, *Euskalerrriaren Yakintzan*, eta beste lan batzuetan. Badirudi irakurlea antzerki ori irakurtzera eraman eta zaletu nai zuela.

Olaxe gatoz Azkue il ondoko urteetara. Ark, bizi zela, lan egiten zuen gelan euskaltzale talde batzuk asi dira biltzen. Gela ori beren biltoki eta ikasgela egin dute. Eta an dute, Azkue zanaren bibliotekan, *Euskalzale*, Barrutiaren antzerkia gordetzen duena ere. Aresti gazteak mundu berri bat aurkitu du bertan. Berak bakarrik, gero, ez beste iñork aurkitutako mundua. Berak baizik ez du jakin gure literaturako bitxirik ederrenetako orren ederra ikusten. Non izan ote zan Azkue alako ederrez ez jabetzeko? Baiña zer zekien Azkuek literatura-gaietan? Gixaxoak ez zuen Barrutiaren lanean baliokorik ezer ikusi. Bere garbizalekeriaren erruz, arkaismo batzuk ikusi zizkiolako baizik ez zuen argitaratu, beste iñolazko baliorik ari aitortu gabe. Arestiren itzetan nor ez zen gelditzen «enorante» uts egiñik? Euskal-teatroaren aztertzaile guztientzat zan aren jipioia.

Arestik sortutako istillu orrekin eta gero egin zituen Barrutiaren nola alako argitaldi berriekin, aitortu bearra dago Barrutiak sarrera andia egin zuela gure literaturaren alortxoan. Ori, batetik, egia da. Baiña, bestetik, egia ere da, aren sustrai-gabeko ateraldirik gogorrenak dogmatzat gelditu dirala besterik irakurten ez dutenentzat. Eta ez dira gutxi. Arestiren esanei siñiste osoa emanik dabilta oraindik asko. Gai onetan askoren esanek izugarritzko aultasuna eta logikarik eza erakusten dute.

Askok ez dakite oraindik Barrutiaz azter-lanik egiten, Azkue zanaren «enorantzia» ta ez dakit zer-nolako «ausartziak» salatu gabe. Edo ta, Villasante aitak bere euskal-literaturaren lenengoko edizioan esandakoarekin gelditzen dira, bigarrenekoan zuzendutakoen konturik egin gabe. Lekutan daude asko Gotzon Garate idazleak, Azkue gaztearen nobelatxo bat aztertuz, oraintsu idatzi dituenak onartzeko: alegia, Azkue antzerki-teknikak maisuki erabiltzen bazekiela, personaia bizia ematen maisu zela, goi-maillako nobelista izateko gaitasun bikaiñak zeuzkala, eta abar. Gauzarik errezena, baita ere ergelena da, «enorantzia» salatzea. Eta kito!

Aresti bera ere azken aldera asi zala uste dut nik bere iritzietan zalantzak izaten eta atzera egiten. Baiña beste batzuk, laster ikusiko dugunez, aurrerago joan dira.

Azkue eta Guerra jaunak izendatu ditut Barrutia luzaroan aipatu zuten bakarren artean. Baiña bada beste bat izenik aipatu gabe ari aitormenik ederrena egin ziona: Abeletxe, Bizkaiko idazlea. Abeletxek aurea artu zion Arestiri. Abeletxek auxe egin zuen: Barrutiaren antzefkia irakurri, kopianu, erderazko puskak euskeraz itzuli, erdalkeriak eta beste bitxikeri batzuk kendu, eta sariketa batera biali, eta saria irabazi. Saria eman zutenak ere ez ditugu Barrutia iguin zutenen artean sartu beariko, noski.

Latxagak eman digun liburuarekin bateratsu agertu da Araban Aramaioke seme Barrutiaren «argitalpen kritikoa» delako bat, erderazko itzulpen eta zenbait ikerlanekin. Arestikeria batzuk aurrerago emanda dauzkagu bertan. Bi pekatu, bi «ausartzia» egozten dizkiote Azkueri. Lenbiziko pekatua: Bi bertso kentzea, zensuratzea. *Euskalzale* aldizkarian Guerra jaunaren kopiako bi bertso ez ditu argitaratu. Zergatik? «Testoaren errespeto handirik ezaz, literatur baloreetako ezaxolaz». Nondik atera dute ori? Beren burutik asmatu. Bi bertso oietan itsuskeriren bat ikusi omen zuen Azkuek, eta senzuratuta egin ditu, kanpoan utzi, Guerraren kopian bertan parentesi artean sartuta. Parentesi artean sartzea zensuratzea ote da? Ez ote du ori egin Azkuek, bertso biok, *Euskalzaletan* falta diralata, orixe gogoratzeko gero egin? Nik bertso bion uts ori erraz ulertzekoa dala uste dut. Urrengo bertso biak berdin asten dira! «Señora virtuosa». Lenengo biñakoa utzi ta begia bigarrenera joatea erraz bai erraz daitekena baizik ez da. Ez da beste ezer asmatu bearrik.

Bigarren pekatua, bigarren ausartzia: *Euskalzale-ko* testoaren azpian jarri zuen oarra da, erderazko gauza asko eta erderakada geiako zituela gogoratzen zuena. Egia baizik ez du esan Azkuek or. Antzerki orrek erderazko gauza asko ditu: erderazko kantuak, erderazko oarrak, lagun bakoitzak zer egiten duen esateko. Erdarakadak, erderazko esaerak, piten pitean. Baiña ori ez da Azkueren ausartzia, Barrutiarena baizik. Nork zer esan bear du oarraren aurka? Eta nork ikusi bear du or, gure kritikook egiten duten bezala, garbizalekeririk edo literatur baloreetako axolarik eza? Lotsa ematen du ain gauza errazak gizon ikasi batzuei, kulturadun batzuei gogoratu bearrak. Betaurreko beltzen batzuk bear dira ain argi dauden gauzak ez ikusteko.

Zorionez, gauden egunotan, irakurri eta entzun dezakegu ganora obez egindako azter-lanik, eta sendatuko al da bein eta betiko zorigaiztoko orduan sartu izan zitzaigun gorriena. Orain Latxagak eman digun testo onekin Barrutiari buruzko azter-lanak ildo obean sartuko al dira! Uste onetan agur bero egitea dagokigu Latxaga jaunaren lan oni. Agur bero, esker beroa eta zorionak eman bear dizkiogu.

Latxagaren eskutik, leenbizi, Barrutiaren testo jatorra datorkigu, aspaldian eskuratu nai ta ezin aurkitu genuena. Guerra jaunak Azkue jaunari bialitako kopia ez zen zeatzegia. Badu utsik. Gaiñera bi bertso kopiatu gabe gelditu ziran. Jose ta Mariak ostatuko atera jotzen dutenean, Chato morroiak esaten dituen itzak eta San Josek egiten duen leenengoko agurra falta dira. Parentesi artean jarriko ditugu emen.

Tomas. —Aikora, mutil.

(Chato.—Ordu onetan nor ete dabil? = assoma).

(San Jose.—Xangoikoa biz zurekin).

Chato.—Flema oberik ekusi dozu urtezen daben zerekin?

Bertso biok batak aurrekoarekin eta besteak urrengoarekin egiten dute bertso. Gure kritiko zorrotzen batzuk jakin izan balute, or zeukaten non burua austen asi, zensuraren bat aurkitzeko.

Barrutiaren itz batzuk buruausterik naiko eman dute, illuntasun batzuk argitu eziñik. Geienak oraingo testoan argiturik edo gelditzen dira. *Eztok egingo beloa*, irakurten genduen len. Orain onela: *eztok egungo leloa* irakurtzen dala dirudi.

Oker irakurtze bat baiño geiago gertatu dira Barrutiak V eta U (bai txikia eta bai andia) bardin idazten dituelako. C eta E ere askotan bardintsu irakurri daitezke.

Ola gertatu dira oker-irakurtze batzuk: *Veatu*, *Ukatu-ren* ordez, *Xocudi*, *xobidi-ren* ordez, Mitxelenak, argi ikusi zuen bezala. Baina alperreko nekerik ere artu izan da beste itz batzuk zuzendu edo azaldu naiez. Barrutiak *auzia* idatzi du eta ez *ansia*. *Erazazuz* ere gaizki dago; *ezazuz* da (*garbi ezazuz*, *biur ezazuz*). Beltzune bat edo bestek ez dute azpiko itza ongi irakurten uzten, orain arte gertatzen izan dan bezala. Argi irakurten baiña ulertzen ez dan itz bat ere gelditzen da: Kaltxapotat (ez kaltxapotak). Norbaitek *aleizako* dana *eleizako* irakurri nai izan du. Baiña argi dago aleizako dala (bear bada aleitzako, Barrituak Z eta Tz ezpaititu berezten).

Latxaga jaunak ez du iztegiaren azterketan sartu nai izan. Oraindik beintzat. Antzerkiaren gai eta mamiaz, ordea, azterketa zeatz eta sakona egin digu. Orretan saiatu da, batik bat: antzerki-lagun guztiak, Andre Maria, Jose, aingeruak, deabruak, ostararia, morroiak, artzaiak zein egoki eta jatorki aurkestuak dauden adierazten. Maisu baten eskua ageri da danean. Barrutiaren lana ez da erriko bertsolari soillarena, bai gaiaren eta euskeraren jabe dan gizon kulturadun batena. Mondragoiko eskribauak ez dio iñori lapurretarik egin, ez beste norbaiten lanari ere siñadura ezarri; bere berea du dana.

Eta Latxagaren lana, antzerti-lagunetan zear, antzerkiak ispillatzen dituen erri-oiituretan murgiltzen da. Etxeko andreen oiturak, artzaienak, kalegizon eta tabemagizonenak argitzeroiño. Antzerki onen iturriak ere aztertu nai izan ditu. Erderazko gabon-antzerkien batek eman ote dio erredua?

Euskerari buruz, muga-euskera aurkitzen dio Barrutiari. Bizkaierazkoa geiena, baiña giputz-formekin naasi. Iztegia argitzen ere ez du, gaurkoz beintzat, nekerik artu. Baiña ori bai: antzerkian dauden itz eta aditz-formen zerrenda osozkoa eman du, artan lan egin nai lukenaren lagungarri.

Latxagaren liburu au lan-tresna egokia izango da, bear-bearrezkoa, emendik aurrera euskalarien eskuetan. Beronekin Barrutiazaleentzat Azkue zarrarekin asitako garaia amaitu eta garai berria asi dala esan dezakegu.

PEDRO IGNACIO BARRUTIA'REN
ACTO PARA LA NOCHE BUENA
LATXAGA JAUNAK ARGITARATUA
AURKEZTEN*

Gaurko liburuaren aurkezte au egia da berandutxo datorrela, orain baiño lenago egin bearrekoa zala. Liburuan bertan irakur dezakezue egilleak noiz amaitutzat ematen duen bere lana: euskerazko zatia, 1981an amaitua da, eta erderazkoa, 1982garren urtean, Barrutia jaio zeneko eun urteren barruan, beraz. Or ikusi dezakezue noiz atera zen inprentatik eta noiz lortua duen kaleratzeko baimena, 1983garrenean. Liburu onek izan bear zuen Barrutiari bere mendeurrenean eskeintzeko oroigarririk bikaiñena eta omenaldirik egokiena. Orixe zan Latxagaren asmoa ere. Manuskritoa aurkitu zueneko ori zerabillen berak gogoan. Orain bederatzi bat urte berari entzuna dut: bere ikasketa eta tesilanak, ezin atzeratuzkoak, bukatutakoan, Barrutiaren edizioa gertatzeari ekin bear ziola, Barrutiaren mendeurrenerako, bederen. Baiña, asmoak asmo, gauzak ez zaizkio berak nai bezala gertatu. Liburua inprentatik atera ondoren ere, berbera gure artera etorteko aukerarik ere ez zaio aurkeztu oraindio. Eta azkenez, bera gabe liburua kaleratzeko baimena eman du. Eta ona gaur, luze-irixirik zeuden guztien pozgarri, non dugun emen zorioneko liburua, Barrutiaren manuskritoaren aurkeztea, Latxaga, aurkitzaille zori obekoaren azterketa lanarekin batean. Gertaera au gogoangarria izango dala emendik aurrera gauza jakiña da eta merezi zuen gaurkoa bezalako billera batekin ospatzea.

Tamalez edo zoritxarrez, neri egotzi didate aurkezpena egitea, eta baietza emon dudan ezkeru, barkatuko al didazute zuen aurrera agertzeko nere ausardia eta ondoko nere jarduna, beldur bai naiz aspergarriegi egingo ez ote zaitzuen.

* Euskerazaintza (1987, 1.zenb.) 19-25.

Donostian gaude. Eta emen ez dut uste Latxaga jaunaren berri zuoi eman bearrik dudarik. Donostiarra duzue bera. Jose Maria San Sebastian izenez, eta ezizenez Latxaga. Nik aña edo areago ezagutzen duzuelakoan nago. Aspaldian atzerrian bizi da, orain USA'n, Goi-Amerikan. Nik aña dakizute noski nolako lanak egiten ari dan gure kulturaren ainbat arlotan. Langille porrokatua, olakorik gure artean bada. Gaur emen aurkezten dan liburu au lekuko: Acto para la Noche Buena, Pedro Ignacio de Barrutia (1682-1759). Barrutiaren manuskritoak eta Latxagak berak ezarri dizkion eraskin eta azterketak osatzen dute liburua.

Eta nor dugu Barrutia? Orain ia berrogeita amar urte inguruan asi zan euskal-idazletzat beronen izena gure artean aipatzen. Azken urteotan sekulako ospea lortu du, baiña ez dagure egunetakoa. Oraintsu ospatu dugu jaio zanetiko irugarren mendea. Gure asमतoko aski bedi bere bizitzeko ari irtenenak jaso eta arteza. Arabarra da jaiotzez, Aramaion, Zalgoa auzoan jaioa, noiz eta 1682ko urtean. Gero badakigu Arrasaten bizi izan zala eta an urte luzeak egin zituela, eskribautzatik bizitzen 171 Itik 1752ra. Arrasaten bertan ezkondu zan eta bertan il ere 1759n irurogei ta zazpi urte zituela. Agertu diran artxiboetako agiriak ez digute asko geiago esaten. Baiña gure artean irabazi duen entzutea ez datorkio ortatik. Gabon-antzerki baten egillea izatetik baizik. Eta au joan den mendeko azken urtetatik ona jakin dugu. Eta goizetik gabea, oraintsuarte iñork ezagutzen ez zuen gizon au euskalteatroaren sortzailletzat eman digute askok. Beste batzuek geiegitxo esatea dala usteko dute, lendik ere euskalteatroa bazela Euskalerrietan, eta Barrutiaren egunetan ere bazela girorik, gutxi bazen ere, Gabon-ikuskizunetarako bederen. Amaseigarren mendean Oihenartek eman digu pastorgille il baten berri, eta egillearen izena ere bai: Joanes Etxegarai, *Artzain Gorria* pastoralaren egillea.

Barrutiaren teatro-lantxo au ez dakigu ez noiz jokatu zen ez iñoiz jokatu zenik ere. Puntutxo bat bakarra argitzen saiatuko gara, noiz idatzia dan, edo beintzat, noizko agertzen dan idatzita Barrutiaren manuskritoa. Puntu au Juan Carlos Guerrak argiturik utzi zuen bere liburu batean: «Los Antiguos Cantares del Euskera» liburuan. Arri-tzekoa da gure Barrutiazaleen artean nola ez duen iñork iturri onetara jo. Nere ustez, Aresti zanari siñiste geiegi emateak edo eraman ditu uts orretan erortzera. Azkuen Morfologian aurkitu zuen Arestik Barrutiaren berri eman duen iturri bat: «Los Antiguos Cantares del Euskera» dalako ori. Baiña Arestik, liburu ori berak iñon ikusi ez zuelata, zer ondorio atera zuen?: «Liburu orrek ez duela inprentako tintarik ikusi» berak esan eta idatzi zuenez. Badirudi beste batzuek ere Arestiren jokabidea erabilli izan dutela. Ez dira nekatu Juan Carlosen liburua billatu eta irakurtzen.

Liburu ori, baiña, ez da argitara gabea ez inprenta tintarik ikusik gabea. *Euskalerriaren Alde* aldizkarian agertu zan zatika zatika eta liburu batean gero. Eta ortxe dator Barrutiaren manuskrito osoaren berri. Eta or ikusten dugu noizko gutxienez eman dezakegun idatzitakotzat. Entzun dezaiozun Guerra jaunari berari: «Debí, hace ya muchos años, a la amistad fraternal de Don Miguel de Viguri y Balbuena, mi camarada de infancia, el obsequio de un cuaderno manuscrito del siglo XVIII, en que se hallan coleccionadas diferentes poesías en vascuence y castellano, alguna de las primeras firmada por Pedro Ignacio de Barrutia, escribano de Mondragón durante

los años 1711 a 1752, y anónimas las restantes. Encuétrase entre estas últimas una canción compuesta en honor de San Francisco Xabier con ocasión del recibimiento solemne de su imagen en un puerto de nuestra costa». Ona zer idatzi zuen Guerra jaunak *Euskalerrriaren Alde* aldizkariaren orrietan, 1923garren urtean eta gero liburu batean argitaratu. Juan Carlos Guerrak bere ikerketak egiñez, zera aurkituko du: gure itxasaldeko portu ori Lekeitio izan zela, eta Frantzizko Xabierren irudi ori bi senar-emaztek, Jose Francisco Unzeta eta Maria I. Iturraspek eragin zutela, bera il aurretxoan. Senar-emazteok 1750 eta 1751 il zirelarik, manuskrito ori, Bamitiaren antzerkia zekarren ori, oraintsu Latxaga Jaunak aurkitu duena, emezortzigarren mende Erdikoa da, 1750ko urte ingurukoa edo lenxeagokoa, gutxi gorabera. Ez da gauza asko, baiña ez gauza utsa ere. Orra, ezer asmatu gabe gai ontan dakigun guztia. Beste aztarrenik ez zuen utzi ia gure egunotararte Azkuek mende ta erdi geroago argitaratu zuen arte. Orduan iritxi zaio argia ikusteko ordua, baiña ez ospe andirik irabaztekoa oraindino. Zer gertatuko zaio?

Norbait edo norbaitzuk aker pekatari baten billa ibilli zaizkigu emen. Eta ez da pekatariarik billatu bearrik. Eta are gutxiago, pekataritzako ori pekatari gutxien duena, erru gabekoena badugu. Bamitiaren teatro-lana *Euskalzale* astekarian, euskera utsean gure artean agertu zan lenengo aldizkaria da, iru urteko bizia izan zuena, zabalketa gutxikoa, irakurle gutxi izan zituena. Eta askotan gertatzen dena, eroslerik geiago zituen irakurlerik baiño. Gure bibliotekaetan ez du beintzat aztarrenik esatekorik utzi. Barrutiaren lana nork ezagutzen zuen? Azkuek eta beste gutxi batzuk baizik ez.

Donostiar gazte bat, geroxeago fraille egingo zena, Jose Arana, asi zan bein Euskerazko Teatro-lan guztien zerrenda ateratzen *Euskal-Esnalea* aldizkarian. Zerrenda luzea da. Ez du Barrutiaren aipamenik egin. Aldi berean Orixe idazleak Euskal-literaturaren berri laburra biali zuen sariketa baterako, Euskal-Esnaleak berak argitaratua. Euskal-teatroa, antxiñako pastoralez beste, ez zuen ikutu, alde batera utzizuen. Eztakigu Bamitiarena ezagutu zuenik ere. Bear bada, ez. Berrogeita amar urte luzez, Guerra jaunak bein eta Azkuek ainbat bider aipatuko dute; beste iñork ezagutu ez zutela dirudi.

Nondik ezagutu bear zuten? Eta ezagutu ezik, nondik nora agertuko zitzaion miresle edo goreslerik? Oraintsu berrargitaratu dute *Euskalzale* aldizkaria: baiña lengo edizioaren alerik leku askotan aurkitzen ote da? Bere aldian Azkue bera saiatu zan ale batzuk tomotan alkarrekin josirik zabaltzen. Geienak, nik uste apaizen eskuetara jo zutela. Olako ale bat ezagutzen dut nik, nere aide zen apaiz batek gure prailletxe bati utzia. Olakoxe ale bat erosi nuen nik beste bein, Donostiako liburu-denda batean, Azkuek berak Fausto Ibañez Aldekoa, *Euskalzale-ren* ongillleari eskiñia.

Azkue izan zan *Euskalzale* aldizkariaren aita eta bera egin zan Barrutiaren antzerkiaren aita ponteko. Berak jarri zion euskal-izena: *Gabon Gaberako ikuskizuna*, ez ain zuzen, orain, Arestik gaizki irakurri zuelako zabaldu dana (Gabonetarako Ikuskizuna). Azkuek jatorrago euskeratu zuen erderazko titulua: *Acto para la Noche Buena*. Azkue izan zen Barrutiaren bizitzako aztarrenak ateratzen Juan Carlos Guerra baiño arago joan zena. Artean Modragoneko eskribautzat ezagutzen zena Azkuek jakin erazi zigun Aramaioko semea zela, Zalgon jaioa, aita mondragoitar eta ama

aramaioarraren semea. Askok datook irakurri ez badituzte ere, Barrutiaren berri jakiteko «primera aportación» delakoa Azkuek eman zuen.

Ala ere, egia da, gure antzerkigille oni ez zaiola argi betea egin, Azkue il eta bost bat urte geroagora arte. Baiña Azkueri berari esker. Azkuek Euskaltzaindiaren Bilboko langelan, berak egunero lan egiten zuen lekuan, an zeuzkan, iru tomotan josirik, bere gaztetako astekariaren iru urteak. Langela artara biltzen ziren euskalzale batzuk an ikusi eta irakurri zuten astekari ori, eta an Barrutiaren lana aurkitu. Eta bi eratarata gertatu zen Barrutiaren izena eta ospea zabaltzea.

An irakurri du *Gabon Gaberako Ikuskizuna* Bilboko idazle batek, eder eritzi dio, ikutu batzuk egin dizkio, eta Donostian antolatu duten sariketa batera biali, Eguberrietako teatro-lanentzako sariketa da, eta leen-saria irabazi du. Irabazleak, Manuel Ziarsolo, *Abeletxe* ezizenez ezaguna denak, bada ezpada ere, ari-mutur bat eman nai izan die epaimaikoei, ea antzik artzen dioten: onako lema au jarri dio berak bialitako antzerkiari: *Arrasaten ditu sustarrak*. Maikoek ez dira ezertaz konturatu eta oso osoan eman diote saria berreun urte leenagoko Barrutiari.

Beste talde batek ere irakurri du Barrutiaren lana Azkue zenaren langelako liburutegian, eta ezin siñetsirik gelditu dira nola euki dugun ain aazturik alako idazlea. Eta bazter guztiak beteko irrintzia botatzea erabaki dute. Noiz eta non? Gabriel Aresti izango da oiulari Bilbon 1958an, Barrutiak saria irabazi eta bi urteren buruan, Euskaltzaindiak, antolatu dituen Euskalzaleen biltzar-egunen barruan.

Beroa izan zen Arestiren oiua: «Barrutia, i andia az, disfraz ori arturik, baina ala be ezagun az, ezin ukatu leiteke i azala gure prinzipia, gaztelu bedarrean ainbeste denporatan ezkutuan egon dana».

Arestiren oiuaekin batera, dator ospe anditan kalera Barrutia. Azkuek bere bizi guztian lortu ez zuena, Arestiren irrintziak egin du. Arrezkero, *Gabon Gaberako Ikuskizunak* lau zpabost argitaraldi izan ditu. Oraintsu, edizio kritikoa delako bat ere bai. Idazlearen bizitzako ari nagusiak jakitea lortu da: bataio-agiria, ezkontza-agiria eta eriotz-agiria. Orraitio, bataio agiri guztietan eman digute uts andi bat: bataiatuaren izenik ez dute jaso. Semearen izena jan eta aita ta amaren izenak irakurtzen ditugu. Iru-lau aldiz argitaratu dan arren, ifior ez da arduratu oker ori zuzentzen.

Izan dituen edizioez gaiñera, Antzerkia jokatu ere eginda or eta emen.

Donostiako sariketa artako maipurukoek, *Abeletxe* sarituak eta Arestiren oiuek eta ondorengo lanak Barrutiaren izena goi-goietaraño jaso dute. Arestiren oiua, batez ere, egundaiño oiaztuna izan du gure artean. Eta zorionekotzat jo zitekean bai oiua ori eta bai orrek ekarri duen ondorio guztia. Arestirekin esan dezakegu gaztelu mear estuan ezkutuan egon den prinzipia izan dugula Barrutia. Baiña Arestik ez du jakin izan bere idazle kutuna goستن, besteren bat belztu gabe. Eta gaztelu mear orretan gure prinzipia euki izan duena Azkue izan zela siñestarazi nai izan du. Izugarritzko bidegabekeria izan da ori.

Len esan dut: Barrutiak Azkue du aita ponteko, eta aita pontekoak, edozein aita bezala, ez du itsusi ikusten bere seme edo semetzakorik. Bere bizian zear ainbat aldiz aipatu du Azkuek Mondragoeko eskribauaren teatro-lana, eta beti irakurgarritzat, edertzat, erri-erriaren erraietatik ateratakotzat goratu du. Arestiren gezurra aspaldian salatua izan da. Antonio Mari Labayen jaunak, berau ere antzerkigillea, ateraldi bat

egin zuen Azkue zenaren alde; geiago ere esan zuen, alegia, ez zela Barrutiaren lana munduan bakarra, bazuela eredurik eta sustairik antziñako Eguberriteatroan erdalduen Gabon-antzerkietan. Neronek ere atera nituen Azkuek an or emen sakabanaturik dauzkan Barrutiaren gorespenezko esanak, baiña oraindik Arestiren aozabalkeriek oiartzun ona dute besterik irakurten edo irakurri nai ez dutenen lumetan. Eta bat ere zalantzarik gabe esango dizue, esatebaterako, Azkuek ez zuela tutik ulertzen literaturgaietan. Au gauza jakintzat ematen dute, beste antzeko erausiak bezala. Esaterako, egunotan artu dugu euskal-aldizkari bat, eta bertan, ia arira ez datorrela, idatzi du batek, Azkuek bere aitaren bertsoak ere, *Parnasorako bidean* liburuan, oso aldaturik argitaratu zituela. Ez da gaurkoa neronek egindako lan bat (1), eta bertan adierazten nuen Azkueren aitak bere bertsoen kopia bat baiña geiago zabaldu zituela, eta semeak, *Parnasoko bidean* argitaratzekoan ez zituela eskuetan guztiak euki, eta asko atera zituela liburu orretan aitak zuzendutakoak baiña askoz euskera txatxarragoan egiñak.

Baiña, Barrutiaren auzi onetan, arrigarriena zera da, non oiñarritu nai duten Azkueren aurkako zentzugabeko kritika. Ain zuen oso bestelako ondorioa ateratzeko diran itzetan. Azkuek *Euskalzale* astekarian aren lanari azpian jarri zion onako oarreen: «Erderazko gauza asko eta erderakada geiago euki arren, guztia nai izan dogu (azaldariak) Mondragoe bertako eskribadu Pedro Barrutia-tarrak orain ia berreun urte egin eban erara» (*Euskalzale*, 1897, 402).

Nik ez dakit nola ortik atera zuen Arestik eta ortik atera nai duten aren jarraitzaille itsu batzuek Azkuek gauza itxusi ta iguingarriztat zeukala Barrutiaren antzerkia. Geien batez, arkaismo batzuk ikusi zituela eta ez beste ezer onik. Guztia beren irudimenetik atera dute.

Orain, gaiñera, gauzak argiago ikusi ditzakegu. Azpiko oar orretako itzetan Juan Carlos Guerrari Azkuek emandako erantzun garbia daukagu. Onek, Guerrak Euskalzalen argitaratzeko, kopia Azkueri bialtzean, zer esaten zion? Asterokoan argitara zezala, «aunque sea expurgada de sus escandalosos erderazkos». Azkuek zer erantzun dio: «Los publicamos sin ninguna corrección ni enmienda» (fuera de las ortográficas). Eta gero aldizkarian euskeraz: «Guztia agertu nai dogu Pedro Ignacio Barrutiarrak egin eban erara».

Oraingo maxiatzailleok zer dute orren aurka esatekorik? Ala, textoa garbiturik, txukundurik agertu balu, naiago izango ote zuten? Azkuen itzak atzekoz aurre irakurri, eta atzekoz aurre ulertu dituztela argi dago. Baiña askoren buruetan naste izugarria sortu dutela ere egia da. Gutxi batzuk izan dira gauza auzia argiago ikusteko, eta leen esanetatik atzera egiteko. Nik dakidala batek bakarrik egin du atzera. Aita Villasantek bere *Historia de la Literatura Vasca* liburuan ala egin du lenengoko edizioan esandakoak bigarrenean kendu eta ixilduz. Beste batzuk leenean daude, ezer zuzendu gabe, Barrutiaren bataio-agiriko okerra zuzendu ez duten bezala.

Guztiak ez dabilta, orraitio, ildo beretik. Eztabaidazko gaiok utzita lan oberik ere egin da. Barrutiaren irugarren mende-urrenaren inguruan batez ere, lan aipagarriak

(1) Ik. 550-560. orr.

agertu dira, gure antzerkigillearen lana gaztelerriko eta euskalerriko antzerti eta kan-
tekin konparatuz, edo darabiltzan bertso-neurriak aztertuz, eta abar.

Jon Kortazar, Jose Maria Lekuona, eta Andoni Lakarra nabarmendu dira ortan. Barrutiaren iztegia aztertzen Mitxelena (Koldok) egin du saiorik. Orotara artu ezker, Jesus Maria Lasagabaster jaunak Eusko-Ikaskuntzaren bederatzigarren Batzarrean irakurritako lana aipagarrienetakoa da. Barrutiaren literaturazko balioak bere neurri ta einean jarten jakin du: ez dela Mirandello ez oraintsuko antzerki-joera berrien aurrelari, ez dela gaztelerriko teatro-oitura zaarrekin edo ta Euskalerriko bertakoekin loturarik gabe. Eta Azkue, berak plazara ateratako idazle onen lanak dituen literaturazko balioen leenengo ikusle eta aintzat artzailletzat eman du. Norbaitek Azkue zenari berea eman eta autortzeko, bazen ordua.

Eta azkenez, orain arte egindako lan guztiak gallurra ipinteko, gaur, Latxagaren edizio berria eta azterketa berria datozkigu.

Eta leenik, edizio berria, egillearen manuskritotik ateratakoa. Orain arteko edizio guztiak ajea zuten. Guerra jaunak ez zuen manuskrito oso zeatz kopiatu eta ezin izan zeatza kopia orretatik Azkuek atera zuen edizioa. Sarriegi gertatzen dana baizik ez da, inprentako iratxoak dirala ta ezdirala, uts berri asko agertzen dirala inprentatik. Oraintsu egindako edizioetan berdintsu gertatu da. Bi edizio egin zituen Aresti zanak, bata Euskaltzaindiaren aldizkarian; bestea *Auspoa* saillean, eta ez dakigu zergatik, ez dira berdiñak atera. Oraintsuago egindako iru edizio ikusi ditugu: *Euskera* aldizkarian agertu zena (separatan), bat, eta beste bi, *Anuario del Seminario de Filología Vasca* Andoni Lakarrak emana, eta auxe berau argitalpen kritikotzat Arabako Diputazioak mendeurrenaren oroigarri argitaratua. Ezta ediziorik bata baiño bestea ohea dala esatekorik. Batek ere ez dauka arrazoirik besteai arrika asteko... Gauzarik bixienak entzun edo irakurten dira askotan. Oraintsu irakurriak gara, asmorik onenaz esanda, Azkuek bere edizioan textoa aldatu edo garbitu egin zuela. Orrenbesteko nastea dabil buru batzuetan. Irakurketa asko argitzeko eta zuzentzeko dator Latxagaren edizioa.

Oiñarte ezagutzen ez genuen bertso bat edo beste ere ematen digu. Oker irakurtze batzuk Barrutiak V eta U berdin idaztetik sortu dira. Itz bat edo beste oraindik ere ez dira argi irakurten, gaiñean zirriborroa egin zaielako. Nola nai ere, or dauka nai duenak manuskrito argazkiturik, al duenak alik ondoen irakurten saiatzeko.

Eta aukera osoa dauka, baita ere, Latxagak aldamenen jarri dion irakurkera, inprentako letraz jarria, ongi dagoen ala ez ikusteko. Latxagak ez du erreztasunik geiegi izan, utsak zuzentzeko. Urrutiegi zegoen bera uts guztiak zuzentzen begia zoli erabiltzeko eta gaifiean egoteko. Orri berri baten sartu ditu utsik andienen zuzenketak. Gutxi batzuk gelditu dira, noski, zuzendu gabe. Baiña, berriz esateko, or dugu manuskritoaren argazkia, gezurrik sartzen ez dakiena, irakurle bakoitzaren lagungarri.

Latxagak ez dio ezer berririk erantsi nai izan texto zaarrari: Azkuek jarri zion euskerazko titulua ere bera ere ez. Or dago texto zarra bere erderazko zati eta erderakada guztiekin. Ez beza iñork uste Azkuek ortan ezer asmatu zuenik. Erderazko gauza asko ditu. Egia baizik ezta Azkuek esana, eta askok pekatu anditzat egotzi diotena. Erderazkoa titulua: Acto para la Noche Buena, erderazkoak jokatzailleen edo iztunen lana zuzentzeko tartean jarritako oar guztiak, Mogel-ek *Peru Abarkan*

egin zuen bezalaxe. Erderazkoak, zati berri batzuei asiera emateko kantatzen diren bertsoak. Erderakadak ere asko dira eta ez gutxi euskera-erderazko nastreak: «Emon, emon, tiene lindo barrigón»; «no se hizo para los asnos estimakatz dulzea»; «lindo mozo despatxatzeko de vino blanco un pichel», eta olakoak. Erderakadak Barrutiak ez ditu sartu, euskeraren eredugarri dauzkalakoan, bai entzuleen irriaren pizgarri baizik. Eta Villasantek esan duenez beste erderakada asko dira antzerkian: «Los castellanismos de esta pieza, en cuanto a materia léxica se refiere, son sobre toda medida» *Historia de la Literatura Vasca*, n.º 127).

Ezer ez kentzearren, Latxagak dana eman du Barrutiak eman zuen bezala, ortografian eta itzen banaketan eta guzti.

Barrutiaren texto jatorra ekarte, orixe da gaurko edizioaren baliorik andiena, noski. Baiña ori naikoa eztela, Latxagak azterketa luze xamar sakonak egin dizkio *Gabon Gaberako Ikuskizun* oni.

Baiña, asiera asieratik, manuskritoak aurkitzeak eman zion poz eta zoriona agertu dizkigu. Guerra, manuskrito onen jabea, il zenean, zergertatu zen aren ondasunekin? Ona Latxagaren iritzia: «Gure ustez, Gerratarak ontasun geienak erriko alkarlaguntzako etxen bateri utzi zizkion. Erriko elkarte orrek, nunbait, gauza asko saldu egin zituen eta orrela Guerra sendiaren ondasunak sakabanatu ziran mutur batetik bestera. Bein, Gipuzkoatik urruti liburu billa nebillela, antxen, eskefii zidaten paper bilduma bat. Ori ori egiñak zeuden eta euskeraz eta erderaz idatziak. Berealaxe ikusi nuen lantxo bat izenpetuta zegola, izena ondo ageri zuela. Etzegoen zalantzarik. Jaso nuen eta ondo gordeta daukat. Banekian zer nuen eskuetan. Gero astia bear, nere neurrian lan ori aztertzeo. Aukera ementxe datorkigu Barrutiaren jaiotzaren gizaldiarekin. Zoragarritzko asti luzeak igaro ditut orrialde oiek irakurtzen eta aztertzen». Eta aurkitzaille zorionsuak erabakia artuko du, Barrutiaren lana dagoen dagoenean, ezertxo aldatu dabe argitaratzea. Eta ona gaur bere asmoa bete, eta berau irakurtzen igaro dituen asti luzeetan egindako azterketaren ondorioak eman.

Lenengo eta bein, antzerkiaren egillea nor dan argi azaltzen du. Latxagak ez du zalantzarik: egillea Pedro Inazio Barrutia da, ez besterik. Ortze ikusten da izenpea eta idazki osoa esku berdiñetik aterea.

Arrasateko eskribau edo idazlariaren muiña, arnasa eta egokitasuna garbi asko ikusten dira. Non dan idazkiaren egillea jakiteko, ez daukagu eleberri zoroen atzetik ibilli bearrik. Barrutiak bazekien zer egiten zuen eta garbirik utzi zigun izenpetuta lana... Asieratik izenpetze arte esku bat agertzen zaigula. Izki berdiñak ditugu, euskara, joskera ta adimena ere nortasun baten ezaugarriak dira. Gaiñera beste iñor etzaigu agertzen antzerki onen egille bezala. Bat eta bera letradua. Badaki idazten, baita ere oldozten eta asieratik bukaera arte kemen berdiña agertzen du. Eta gero «antzerkiaren orrialde guztiak eskribauaren kutsua ta tankera agertzen digute».

Antzerkiaren egille Barrutia dalakoa orrela sendo jarririk, Latxagak aurrera jotzen du lanaren barrenak aztertzen, antzerkiaren ardatza eta gaia... Belengo misterioa artu du gaitzat eta ez darama gaizki bere aria atalka atalka: Jose ta Mariaren ezkontza, aingeruak Mariari egin dako mezua: Salbaltzaillea beraganik jaioko zala, Erromako agintarien aginduaz bakoitzak bere jatorrizko errian izen ematera joan bear zuela, Belenerako bidaldia, belendarren arrera txarra, senar-emazte biai eta Jesus jaiobe-

rriari, aingeruak Gloria kantatzen eta artzaiñak Belenen Aur jaioberria gurtzen. Ebanjelioen aritik doa gai au, baiña tartean, antzerkia biziago eta alaiago egiteko, or datoz beste antzerki-lagun batzuk: deabrua, ostalariaren eta morroien arteko istilluak, parregillearen ateraldiak eta abar.

Parregarrikeriak gora bera, dana Belengo misterioa erriari uler erazteko eta biotzean sartzeko era egokian lotu du Barrutiak, eta azken batean antzerkia fedeskola eta kristau bizitza eskola egiten jakin du. Ortan balio aundia aurkitzen dio azterlariak Barrutiaren lanari. Azterketarik sakonetakoa egin dio. Gero Latxagak nola jakin duen Barrutiak antzerki lagun bakoitzari dagokion jokaera eta izketa ematen: Andra Mariaganik asi eta parregille eta deabruetaraño.

Azterketa auetan teologoaren eta arima zaiñen eskua ikusten zaio Latxaga jaunari. Baiña Latxaga ez da teologo bakarrik, antropologo ere bai eta alderdi eta ikuspegi onetatik ere egin dio azteraldi bat antzerkiari. Erri oitura eta errigizon askotxoren ispillu dela aurkitu du. Nonbait Barrutiak oso ongi ezagutzen zuen Mondragoeko erria, ango etxeetako giro eta ango etxeoandreen, etxeko jaunen, artzaiñen, tabernetako berriketarien eta abarren izakera ta portaera, bere antzerkira ekarri ditu, eta azterlanak ortaz eman dituen argibide ta xeetasunak oso ganorazko eta emagarriak dira.

Izkuntzaren alderdia ere ez du bere azterketa auetan bazterrean utzi. Eta alderdi au aztertu nai lukeenaren lagungarri or daukagu antzerkiko itz guztien eta aditz forma guztien zerrenda. Orrez gaiñera, izkuntzaren alderdi au sakonago jorratu du. Barre eragiteko darabiltzan erderakadak alde bat utzirik, euskera erriko eta jatorra omen darabil Barrutiak. Batez ere esaldi trinko kantaz ospatzekoak. Giro orren barruan sortua da Mondragoeko antzerkia. Ez du giroa berak sortu. Iñon ere ez dugu ikusten Barrutiaren eragiñik beste iñora zabaldu zanik.

«Idazlearen lan bakarra» du izenburutzat Latxagaren azterketaren azkeneko atal batek. Ez ete zuen Barrutiaren beste lanik idatzi? Barrutiaren lan bakarra dala esatean besterik esan nai du, alegia, Guerra jaunak Viguriren eskutik jaso zuen manuskritoan, berak gero aurkitu duen manuskritoan, «Acto de Noche Buena» bakarrik dala Barrutiarena, onen letra eta firmaz datorrena. Eta besteak egillearen izenbakoak, anonimoak dirala. Eta bat, Frantzisko Xabierren omenezkoa, Guerrak bere Liburuan argitaratua bera, noski.

Eta onenbestez, nere jardun aspergarri au bukatu bearrean aurkitzen naiz. Eta Latxagak bere lanaren euskerazko zatian azken aldera dakartzan itzekin amaitu nai dut: «Datorren urtean (1981 an idazten duela argi dago), datorren urtean, 1982koan, idazlearen jaiotzaren ingarren gizaldia bai dugu, garai ortarako Euskalerriko liburu apaletan egon bear luke. Ameriketa osoan ezagutu dezaten zabaltzekotan gabiltz». Kontuak oker atera zaizkio idazleari. Baiña, gaur bai, gaur noizbatean aren asmoai iritzi zaie betetzeko ordua. Latxagaren bitartez, gaur edizio berri jator onekin, Barrutiari esaten zaio arako Etxeparena: «Barrutia, jalgi adi plazara, abil mundi guzira». Esker eta zorion Latxaga Jaunari. Zorion Barrutiazaleei!

KARDABERAZ ETA BIZKAIA*

Ez dot esango nondik nora, ez dot esango zelan, baiña Bidasoaz emendiko Euskalerrian zeozer barri jaso zan XVIIIgarren mendearen erditsuan: euskal-literaturaren arloa, artean igarra edo erkin egona, bapatean indar betean asi zan bizi-itxurak agertzen. Nondik etorren ori?

Askok uste dau Larramendiri deusagula zor orduko bapateko biztualdia. Bere gramatika ta iztegi-lana bide, bera ei dogu orduan gure artean ikusi zan barrizaldiaren sortzaille. Ez dogu Larramendik egiñiko lanen baliorik eztabaidan jarriko. Beste askorentzat, ostera, kaltegarri izan ei zan aren eragiña, eta alan dirudi.

Larramendiri ezer ukatu barik, ta aren egunetan, gizon bi agertzen jakuz euskal-idazleen artean buru ta gidari. Ez datoz, ez, euskeraren edertasuna edo aberastasunik atzerritarrai erakusten: bai, Euskalerriri beronen izkuntzan berba egiten, bai euskaldunen gogoai, euskeraz azaldurik, egia, bizia ta bidea non dituen irakasten: Mendiburu ta Kardaberaz dira. Biak, Larramendiren adiskideak eta gogozko anaiak; irurak Aita Iñazioren Lagundiko soiñekoa jazten dabe.

Zer zor deutsoe euskal-idazle biok gramatikolari ta iztegiillearen lanari? Ezer gitxi, ni uste. Aren iztegia agertu orduko, luzaro ibilli dira erririk erri sermoegiñen. Olan ikasi, landu, orraztu ta aberastu dabe euren euskera, eta gero, berbaz lenago irakatsia bera liburutuan ezarrita eskeiñi deutse euskaldun irakurleai. Biak dira giputzak. Batak, nappar-euskeraren giropean jaiioak, napparrentzat idatzi dau, betez bere; besteak giputzentzat, geien baten.

Bidasoaz onantza, biok ditugu euskal-literaturaren arloan, giro barri baten sortzaille. Bizkaia geroago sartuko da giro ta eragin orren barruan. Baiña ez arei ezer zor ez deutse. Batez bere Aita Kardaberaz Ernaniko seme argiari. Bizkaia zordun

* Kardaberaz-Bilduma 1 (1971) 57-72.

andi da Aita agurgarri ta euskal-idazle ugari onen aldera. Bizkaitarrok ez daigun aiztu auxe, orain gizon santu au il ezkeroko berreugarren urte onetan. Nire lantxo onek orixe gogoratu nai dau. Zer zor deutso Bizkaiak Kardaberazi? Zor ori irukotxa dala esan geinke: ainbat urtez bizkaitarren mixiolari izan da; Bizkaiko euskaldunentzat libururik bere idatzi dau; Bizkaitarrai euren euskerea garbiago ta jatorrago egin eta idazten irakatsi deutse.

Kardaberaz, Bizkaian mixiolari

Ona lenengo zorra: Aita Kardaberaz Bizkaitarren mixiolari izan dogu. Bizkaian, luze-zabalera guztian ibillia da bera mixioak emoten, Jaunaren Barri Ona zabaltzen. Bere mixiolaritzako lenengo izerdiak, arlo onetako bere asikiñak Euskalerrian, bizkaitarrentzat emonak ditu. Enskeraz eta erderaz.

Gazte-gazterik, ogei ta zortzi urte bete barik dituela, bere nagusiak Bilbora bialdu eben, latin-irakasle; 1731 garreneko urtea da. Laster ikusten dau irakaskintza orretako lanak ez dauala bere biotza asetan; arimai onik egin barik ezin da egon. Eta bere bamiko irakiñak pulpituan, sermoegintzan, aurkitzen dau urteera, asazkaldia. Lenengo jesuiten eleizan bertan, urrango Bilbo-barruko parroketan, eta gero inguruetakoko erri batzuetan, ospetsu egiñez doa bere sermolari-izena. Sermorik ospetsuena, izenik andiena emon deutsana, San Anton-eleizan, 1733an izan ebana. Urte orretan, Gorpuzti egunetik zortzigarren egunean, entzuten zan Frantziako mugarik onuzko aldeetan lenengo aldiz, difioenez, Jesusen Biotzaren itzaldia.

Donostiatik eta bere jaioterritik, Ernaitik, bere izan ditu deiak. Bere ezagunak, batez bere moja batzuk sermolari gaztearen itza entzuteko pozez dagoz. Ernanin erderarik ez ekien batzuk bere ulertu ei eutsen. Orti badakigu erderazkoak zirala sermoi areik. Erderazkoak izan ditu orain-arteko beste guztiak bere. Bilboko lenengo urte bietan sermolari erdelduna izan da. Irugarren urtean dator bere sermoi euskaldunen txandea. Eta bizkaitarrentzat izan dira Kardaberazen euskerazko asikiñak.

Arrezkero euskaldunen mixiolari biurtuko da arteñoko sermolari erdelduna: Bizkaian, Naparroan, Gipuzkoan, Araban, beti ta danean euskaldunen mixiolari. Bizkaian asita.

Elorrio ta Lekeitio izan ziran, 1733-ko udagoiengan, lenengo erriak, Kardaberazen euskal-sermoiak entzuten. Elorrioren, San Agustin eleizan, iraillaren 28an, emon eutsan asierea bere lenengo euskerazko mixioari. Urrango, andik gerotxoago, Lekeitio emoten dau. Bata ta bestea, ogei eguneko mixioak. Ogei egunez, goiz ta arratsalde, sermoi luzeak egiten: ez zan lan makala asibari batentzako. Badakigu gitxi gora bera orduko mixioak zer ziran, zelango lana ta nekea emoten eben. Orain-tsurarte bizi bizirik iraun dabe. Orain...

Orain, esan bearrik ez dago. Mixio itza iñoz baiño ezagunagoa ta erabillagoa da, orraitio. Agoz belarri dabil edonon itaun au: Mixio-erri gara ala ez? Mixio-erri da Euskalerrria ala ez? Mixio-erri ere zan Kardaberazen egunetan? Ez da gure asmorik, itaun onei erantzunik emotea. Edozelan bere, mixio-erri izatea eta nonbaiten mixiok emoteak badirudi ez daukela alkarregaz zer-ikusi andiegirik edo esturik. Gogoan artu:

orain, askoten eritxiz beintzat, mixio-erri gareanean, mixiorik gitxi da gure errietan, edo bapez. Lenago, oraintsu-samar, izen ori merezi ez ei genduenean, txitean pitean genduazan edozein erritan.

Eta, besteak beste, Loiolako Iñazioren semeak ez ziran lan orretan gitxien nabarmentzen. Euskaldunai euskeraz egin bear jakiela-ta, S. Iñaziok berak bialdu ei eban bere semeetako bat, ain zuzen, Bizkaira, Aita Otxoa, Erronkariko semea. Zelan konpondu ete zan bizkaitarrakaz? Gauza argirik ez dakigu. Ez dogu uste bizkaitarren-tzat errazegia izango zanik Erronkariar baten euskerea ulertzea orduko aldietan bere.

Zori ohea izan eben, bai orixe, XVIIIgarren gizaldiko bizkaitarrak Aita Kardaberazegaz. Lenengo egunetik asita, ederto baten aitu ei eutsen oni. Eta andik aurrera, askoz obeto. Kardaberazek ez eukan laster Ernaniko euskera bizkaiko semeakaz erabilli bearrik; bizkaitarrak baixen ondo ikasi eban Bizkaikoa.

Mixiolariak berak ara ta orra bialtzen zituen kartetatik ataraten dira ainbat barri, ainbat argibide. Lenengo ta bein, ortik dakigu pozik artu ebal mixiolari !ana, baiña bai bildur-pitin bategaz bere. Arimai on egiteko aukerak poztu egiten dau; baiña euskaraz egiteko oiturarik ezak, bildurtu. Au ez da arritzekoa. Ikastetxe andietatik ibilliriko askori jazoten jakon orduan; eta gaur bere, oindiño bardintsu. Aita Bartolo Karmeldarrak esan eban lez, eskola nausiak bazirudien euskera aiztuten ikasteko zirala. Zeinbat euskera entzun ete eban Kardaberazek bai Iruñako ta bai Valladolideko ikastetxeetan?

Zorionez, ez eban aitzu bere jaiotetxean ikasi ta egiñiko guztia. Eta pozik dago bera eta eskerrak emoten deutzaz orrexegaitik Jaunari: «Gora Jesus Jauna, nik euskerea aiztuterik nai izan ez daualako! Egundo lenengoz oraintxe egin dot itzaldirik euskeraz. Egiaesan, errian mutil nintzala, beste edozeiñek baixen ondo nenkian euskeraz egiten, jakin bere besterik ez nenkian-eta. Baiña iñoiz mixiorik entzun bakoa nintzan, eta Jesusen Lagundian sartu nintzan ezkerro, ez neban euskeraz egiteko ardurarik artu. Alan da guzti bere, arriturik neukazan entzule guztiak nire erreztasuna ikusita, jakin dakienak esaten ebenez, beste iñori ikusi ez deutzen erreztasuna. Siñistu eziñik nen-goan ni neu bere, eta Jaunaren mesede anditzat daukat auxe. Ondo daki Berak bazter oneitan dagoan bear izana; badaki lan onetan ekiteko gauza danik eta zeozer egiten dauanik gitxi, oso gitxi direana...»

Euskalerrriaren eta euskerearen deia entzun eta ari erantzutera jarri danean, gure gizaldiko olerkariari jazioa jazoten jako mixiolari oni bere:

Asaba zarren baratza,
untzadun ormek esia,
eguzkiak len maitea:
otzaldi zoro baten itzuli,
joka nagokit atea.

Len ain zabal, ain loretsu zan baratza, gero ain estu ta ain zimel. Baiña, zorionez
«Ene asaben lokarri zarra,
Jaunari zor, etzan eten.»

Ez, ez dau zorionez aitzu osoan Kardaberazek bere etxeko iskuntza; eta orregaitik eztitan entzun al izango dabe bizkaitarrak Kardaberazi agotik darion etorria, euskera gozoa. Ez dabil bera mixio orreitan bakarrik; lagunak baditu. Batzuen izenak ezagu-

tzen ditugu: Aita Jauregi, Ibarluzea, Laskurain. Baiña entzuleai Kardaberazen euskerea egiten jake entzuteko gozatsuen. Zer dala-ta? Zelan izan leiteke ori? Jesuitak Lekeitio ikastetxea euken orduan; eta ango nagusiak esango deusku, edo, arexek esango eutsan mixio-emoilleari: «Ez zaite arrotu (ez daukat zergaitik arrotu, esango dau emen Kardaberazek); baiña argitasun geiago, barru-indar geiago emon deutzu Jaunak zuri; eta batez bere zure euskerea gozoago egiten jake entzuleai».

Eta Kardaberazen erantzuna: Gora, Jauna, eskerrak Berari! Baiña ez eban dana euskera gozo orretan Jaunak goitik bera ixuri ta emona. Ainbeste nekeren semea eban sermoegiñen erakusten eban euskerazko erreztasuna ta etorria. Lenengotan, dana aurretik idatzi bearra eukan, erderazko papeletatik euskerara itzulita. Eundaka orri zirriborroturik eroan zituen lenengo mixioetarako. Bear bere bai, zeozer, ogei egunez, goiz ta arratsalde, zer esanik eukiteko.

Lekeitio ta Elorrio ez dira gizon arimazale onen mixio-leku bakarrak izan Bizkaian; 1733-ko urte orretan asita, beste erri askotan ikusten dogu mixiolari edo sermoegiñen. Esaterako, 1737an, Mungian, Bakion, Erandion eta Munitibarren; aurreko urtean, Elorrioren, bigarrenez: 1741an, Zornotzan eta Berrizen; 1747an, Markiña ta Zornotzaldetik dabil (emen bere, antza, bigarrenez). Baiña Bizkain, zein erri gelditu ete da sermolari jainkozale onen berbea entzun barik? Batera ta bestera dabil bein mixioak emoten, bein Jesusen Biotzaren anaidia sortzen edo beste sermoen bat egiten. Eta beti Kristoren bakea eroaten eta, askotan, auzoetako gorrotoak uxatzen. Aldi bakotxean itzalezko jentetzak ekarten ditu, bideak betean, beragana. Bakion, eleizea txiki zala-ta, kanpoan emon bear izan zituen itzaldiak. Mungian eta Berrizen, inguruetako zortzi edo amar errietatik etorrita ditu entzuleak. Zornotzan bardintsu jazozen jako.

Zek egiten dau Kardaberazen ondoan dabillen eragikera au? Lekeitioko jesuiten nagusiak esan deusku zerbait. Baiña beste zerbait geitu bearra dago. Kardaberaz ez da edozelango sermolaria, ez euskeraren aldetik, ez mamiaren aldetik. Bere gaiak ez dira bíldurra sartzekoak, bai biotzetan maitasun-giroa sortzekoak. Berak emondako lege au darabil bere sermoietan: «Pekatuen kontra aserrealdien bat iñoiz bear bada ere, baiña guzia pekatarien amarez, guzia pakez, pazienza ta espirituko suabidarez beterik. Konfessore ta predikadore jaunak, maixuak bezala, begien aurrean idukitzea nai nuke, gure jendetxo onak, agitz geienean, bertuteen edertasun ta amarez, pekatuen itsustasun eta gorrotoz baiño, Jaungoikoagana ekarte obo dala.» (Euskeraren Berri Onak).

Kardaberazen sermoien jokera orrek gozoago egiten eban, antza, aren euskerea bere. Aren berbak Jesusen Biotzaren sutegitik zear urtetan eben eta sarkorrage jotzen eben euskaldunen biotzetan. Gure erriaren jansenista-izaera gora ta bera aitatzen dabenak badauke emen gogotan artzeko gairik.

Ez dakigu mixiolari onek Bizkaian egin zituan ibillaldi gustien barririk. Dana dala, berak esan dau naiko argi Bizkai osoa aratuta eukala: Arabako mugalde guztian asi ta Matxixako aldeko itxasoraño, Gipuzkoa-aldeko errietatik Txorierrri ta Plentzia-aldeko errietaraño. «Entzunez ikusi edo ikasi» dau alde guzti orreitako euskerea. Bizkaiko erririk geienetan izan da, beraz, errien deiak eta arimen maitasunak eroanda. Eta olantxe jarraitu dau arik eta oiñez ibilli eziña sortu jakoa arte: 1755garren urtean

da. Orduan Loiolan Gogo-jardunetako Etxea sortzen dau eta bertan lotzen da. Arrezkero, ez dauko erririk erri urtetarik, baiña antxe bertan ekingo deutso, berbaz eta lumaz, arimen alderako lanari.

Jaunak auxe adierazo ei eutsan orduan: «Oraiñarte zeu bialdu zaitut errietara arimen billa, nire Barri Ona zabaltzen; emendik aurrera eurak ona etorri ta Loiolako etxe onetan billatu zaiezala: auxe nai dot nik.» Baiña an sartu dan arren, bizkaitarren gomuta ona beragaz daroa; ez ditu aitzuko ez bizkaitarrak ez Bizkaiko euskerea, bere eritxiz gauza askotan beste euskalkiak baiño beteagoa. Berak esana da: «Ainbeste anima edo gizon ta andrekin igaroko urteetan Probintzia oietan mixioetan jardun bear izan det, eta egunero ta geiago admiratu izan nau guzietako, eta ez gutxiago, Bizkaiko itz egiteko era ta armoniak. Besteak bezein ondo, ta gauza batzuetan, bearbada, obeto izkeraren legeak an gordetzen dituzte» (Euskeraren Berri Onak).

Kardaberaz idazle Bizkaiko euskeraz

Kardaberazen azkenengoko itzotatik atara geinkenez, ez eutsan berak iguiñik artu, ez, Bizkaiko euskereari. Entzun daiguzan barriro bere beste berba batzuk: «Entzunaz ikusi edo ikasi dot Orozko ta Zeberioti Otxandianora, eta Plentzi eta Matxixtako aldeti Mungia ta onuntz berba batzuk edo esateko moduak banaro edo diferentek dituezala. Baia Señorioko beste leku zabal andi eta bazterretan bere ainbeste euskaldun euren modura nik askotan entzun eta diranak gustoz adietan nituan». Olantxe, Bizkaieraz esanik, argi ta garbi autortu deusku Bizkaiko euskerea atsegin eballa.

Atsegiñez entzuten ditu bizkaitarrak bizkaieraz egiten. Atsegiñez entzun eban, esaterako, arako Elorrioko uzandreak bein entzun eutsana. Atsegiñez eralgi ta ekarten deusku, euskerazko erretorikaren eredu ta ezaugarritzat, andre orrek abadeari emon eutsan erantzuna. Abade orrek etxandera on baten seme bakarragaz ezkondu nai eban bere llobea; baiña neskeak dote urritxoia ei eukan senargaitakoari eskeintzeko, etxanderearen eretxiz. Abadeak alperrik diardu, bere llobeak senide aberatsak eukazala-ta, urrezko mendiak opatzen geroko, etorkizunerako. Bai «epe galantagaz» zorrotz eta bizi erantzun bere andereak:

«Eta, Jauna, zure mesedeak etorkizuna bazau?

—Ez, andrea.

Bakizu etorkizuna zelangoa dan? Zuria ala baltza dan?

—Ez, andrea.

Etorkisunagaz ian edo edan bozu, edo beragaz bizi izan bazara?

—Ez, andrea.

Bada, Jauna, etorkizunaren barri obagorik eta segurubagorik ezpozu, zu geldi zaite zeureagaz, eta ni bere banoa neureagaz.»

Kardaberaz arriturik dago andre orrek nondik ikasi eban edo nok irakatsi ete eutsan «erretorika ain bizi ta egokia».

Agirian da belarriak zur ebillela aita mixiolaria erriaren berbete ta ateraldiak jasoten. Eta noizik bein olangoxe bitxiak batzea jazoten jako. Berorrek jaso dau bizkaitar askoren naieratxo bat bere: Gipuzkera-zaleak ei zirean. Orixe ikusi ei eban

Bizkaian: «Bizkaitarrak berak, askok beintzat, gure dialektoan berenean baiño predikatzea naigo dutela, eta Bizkaiko predikadore asko gurean predikatzaera oitu edo egin dirala.» Baiñaberaezdagoeskalkiakbaztertza. Euskalkiakeuskalki, «euskera beti bat eta berbera» ei da. Baina bata ala bestea egitea «ferian edo dendan erosten dan gauza ezta; bakoitzak bere dialekto edo iskerari jarraitu ondo. Oitura ...ala da ta aurrera ere ala izango da». Emen agiri dauanez, Kardaberazek ez eutsan bere aldian euskera batu osozkoari etorkizunik ikusten. Bakoitzak bere euskera alik ondoen, alik garbi ta jatorren egin, bizkaikoak bizkaieraz: naikoa zan ori.

Orregatik, eta bizkaitar giputz-zaleai ordea emotearren edo, bere zentzun onak alan aginduta edo, Bizkaian bizkaitar egin zan bera. Eta erririk erri ebillela, laster egin zan bizkaieraren jabe. Eta Loiolan bere mixiolaritzari bakea emon eutsanean, eta lumazko apostolutzari ekin, euskal-liburuak ataretean, Bizkaitarrak eta Bizkaiko euskera ez ditu aitzurik itxi.

Bizkaian, ain zuzen, premiña andiagoa ikusten dau, euskal-liburuen premiña andiagoa beste Euskalerriko iñon baiño. Alan diño berak: «Aita Mendiburuk Nafarroako eran liburu asko atera ditu». Baiña Bizkaian? «Jainkoaren ontasunari eskatzen diot Bizkaiko biotz nobleren bati, ango era ta dialektoan, zeruko Dotrina ta ejenploen liburuak ateratzeko, arren, argi zeloz ta gogoz bete bat eman diozala... Arimen onerako Bizkaiko, Nafarroako ta Gipuzkoako iru dialektoetan eskribitzea guztiz premiazkoa ta gauza bearra da. Gure izkera, beste bien erdikoa bezala, Nafarroan, baita Bizkaian ere, geiena aditzen da. Baiña ez nafarrak bizkaikoa ta ez bizkaitarrak nafarena aditzen dute; ta bata besteagandik urruti ta bakoitza bere bidetik dabil. Jainkoak guziak zuzen ditzala bere gloriarako».

Onen ondoren, zer jazo zan Bizkaian? Ez zan beingoan agertu Kardaberazek salatu eban utsunea betetakorik iñor. Andik urte gitxi barru, barriz, euskal-liburuentzat giro txarragoa etorri zan. Euskal-liburuei urteera galazoten asi ziran agintariak Madrildik. Kardaberaz bera bere, liburu bat argitara emon eziñik gelditu zan; goitik baimenak ukatu. Urte batzuk gerotxoago, Bizkaiko praille frantziskotar batek liburu bat edo bi idatzi ditu eta alperrik da baimenik eskatzea. Etorkizun obe baten zain, lagunen eskuetan itxi ditu bere lanak. Giro ito orrek irauten dau, arik eta Bilbotar ministro baten bitartez, Mogel andiak Madrilgo agintarien gogorkeria ausi eban arte.

Baiña ez gaitezan aurreregi joan. Bien bitartean, giro txarrago ori sortu aurretik, Kardaberazek ez dau geiago itxaron nai eta bera dator bizkaitarrai laguntzen, Bizkaian ikusten eban utsunea estaltzen. Urte baten aldeaz, 1763tik 1764ra liburu bi ataraten ditu bizkaieraz: Dotriñako kartillatxo bat eta *Jesus, Maria ta Joseren Devocinoco Libruchoric atararico Devocino batzuc*.

Dotriña-liburuz, egia esan, ez egoan Bizkaia guztiz uts. Ain zuzen Kardaberazek berea atara eban urtean bertan argitaratzen dau Olaetxeak, orduan Laukarizko arimazain egoala, bere Dotriña ospetsua, gero ainbeste argitaldi izando zituana, Kardaberazena baiño osoagoa bere bai. Biak batera etozan argitara, batak bestearren barririk izan barik antza. Edozelan bere, esker onez artzeko dira bizkaitarrentzat Kardaberazena gogo ona ta lana. Olako liburuak, au da, dotriñako kartillatxoak atarateko agintariek bere ez eben ainbesteko eragozpenik jarten. Osterantzekoetan, Bizkaiaik eta Gipuzkoak ez euen euren legez aparteko eskubiderik. Erregearen eskuetan

egoan or aginpide guztia. Nafarroan ez zan bardin. An Gaztelako legeak ez eukan inprentako gauzetan indar modurik, azkenengo urteetan an bere erregeak euren eskua edo mustarra larregi sartzen eben arren. Ortik ete dator Bizkaiko ta Gipuzkoako libururik geienak, aldi atan, Iruñan agertzea? Gai onetan noz edo bein egingo al da argi.

Aita Kardaberazen Dotriña-liburuak ez eban aurkitu eragozpen andirik bigarrenez argitaratua izateko (1783); baiña norbaitek orraztuta, euskera apaindubaguan jarrita agertu zan. Ona zelan apaindu eutsen titulua bera: len *Christinau Dotriña* zana oraingoan *Cristinaubaren jaquinbidia* da. Mogel edo Asterloatarren baten esku-ikutua ete dogu emen? Beste bein, gure gizaldi onetan argitaratua dogu, Dogson eta Urkijo jaunak argitaratua, Baionan, 1906an.

Bigarren liburuak, Jesus, Maria ta Joserren deboziñoko orrek ez dau, guk dakigula, beste argitaldirik euki, bizkaieraz.

Liburu biok dauke bizkaitarrentzat sarrera bana. Batean eta bestean egilleak arau ta argibide batzuk ematen ditu, Bizkaieraz obeto idazteko. Baiña au urrengo saillekoa da.

Kardaberaz, Bizkiako euskeraren maixu

Ez ete dau eskubide osoa Ernaniko seme argi onek euskeran bizkaitarren maixu izateko? Nor da aren egunetan berak baiño obeto bizkaiera ezagutzen dauanik? Ain-beste erritan mixiolari ibilliak emon deutso ezaguera ta maixutza ori. Ibillialdi orreitan ikasi dau Bizkaiko euskerea, bat izan arren, ez dala alde guztietan bardiña: «Badakust ondo, Bizkai guztiko euskera bat izan arren, berbaren batzuk erri batzuetan, besteak besteetan oi direala.» Orregaitik, argitasun batzuk emongo ditu, bai bere liburuen irakurleentzako, bai idazleentzako.

Lenengo, irakurleak, bere erriko erara ez danik liburuan ikustean ez dau arritu ez atzerarik egin bear. Guztien gogora ezin lei idatzi: «Bakust, irakurlea, ta bakutsu ondo, irakurtean asko txito lotuak direala, eta berba guztiak eta bakotxa euren gustora ezpadakuste, bertan espantuak artu ta nastuten direala. Askatuago, edo libreago nai zaitut. Dotrinako kartillatxuan esan neban legez, juizio edo burua daukanak errazoe au erraz ikusi ta ondo ezagutuko dau. *Amudio* esan edo *amodio* guztia bat da... *Jaungoikoa* esan edo laburrago *Jainkoa*, *orazino* edo *orazio*, debozino edo *debozioa*, ta orrelan besteetan; zuek bata edo bestea, gura dozuna, orrelangoetan esazu. Ez, arren, seiñak legez, ikaratu; ezpada, gizonak legez, juizioaz bata besterik atara, ta ondo irakurri ta erraz berba egin bear dozu.»

Kartillatxoan emonda, ona beste argibide batzuk geiago: «Bizkaitar guztiendako ainbat da *sartzea* edo *sartutea*, artzea edo artutea, *agertzea* edo *agertutea*..., guztia edo guzia, zeure, zure, geure edo gure, *galdea*, *itaun* edo *itaundea*... Baia bakotxak bere erriko legez irakurri, esan edo pronunziadu bear dau. Erri guztietako modura ta guztien gustora ezin izango dan gauzea da.»

Euskaldun askok errazegi artzen deutse iguiña euskera irakurteari olangoxe eragozpen edo zoztor txikiren bat dala-ta. Gaurko egunetan bere jazoten dana. Ez datoz,

bada, ortixik alfabetatzea dalako ekintzaren ekiñak? Aita Kardaberazek aspaldi da olako ekiñai aurrera artu eutsela. Eta atxaki guztiak kendu gura deutsoz euskaldunari euskera irakurteko daukan atzerakuntza ori austeko.

Bein kaskondu ta gero asten dira asko olangoak atxakiak jarten. Umetan, ezta olangorik. Euskaldun nagi guztiak gogotan zituela, auxe diño Kardaberazek gipuzkerazko liburu baten: «Txikitan zuk eta guztiok ikasi genduen Dotriña berbera kartillan irakurten da. Bestek irakurri edo predikaduta zuk guztia aditzen dezu. Lotsagarritzko gauza da zuk ez irakurtea; gogoaz bazendu, irakurten erraz da» (*Ondo illtzen laguntzeko liburuan*, bigarren argitaldian).

Bein baiño sarriago ikusi dogu gure egunotan euskaldun askoren gatx au: eurak eurenez ez dira, itxura baten, irakurteko gauza; ez ei dabe ezer aituten; bestek irakurri ezkeru, barriz, dana ulertuten dabe. Eta Kardaberazek, bere mailluaz ingude berean joaz, argiago jarri nai dau atxaki askoren ustela, sustrairik eza: «Batak dio euskerazko dotrina edo libruak ezin irakurri dituela; besteak euskera algarabia, gregeria, girigai edo naspilla madarikatua dala.» Eta ona gure idazlearen erantzuna: «Oriek gezurrak, ametsak edo atxakiak dira... Ainbeste denboran, urte askotako mixioetan Bizkaian, Nafarroan, Araban eta emen guk predikatu deguna berbera libruetan ematen da.» Orduan entzunaz beste barik ulertuten ebena, zergaitik ez ete dabe, liburuetan irakurrita, ulertuten? Nagitasunez, beste ezergaitik ez: «Asko beren nagitasunaz itsuak daude, orrela bizi ta illtzen dira... Jainkoak itsu oiek argi ditzala» (*Ondo illtzeko liburuaren sarreran*).

Asko dira olango nagi ta atxaki-billatzaileak; baiña guztiak ez dabiltz bardin. Zorionez beste asko ezagutu ditu euskal-idazle onek zentzun obekoak eta bide zuzenagoa artu dabenak. Eta ori, «Bizkaian, Nafarroan eta emen». Abade jaun batzuk badakie olangoen barri. Mixiolariaren irakatsiai jaramon egin eta jarraituz edo, abade orreik badakie «baserri-jende on askok jai-egunetan, bakarrik, irakurten asi ta ikasi, ta libru onekin illtzen laguntzeari eman diotela: aingeruen ofizioa artu dute» (*Liburu berean*). Alfabetatze polita, xixi-ixillik eta bape zarata barik egiña, Kardaberazek eta beste abade batzuk orain berruen urte eragiña. Gipuzkoan, Nafarroan eta Araban.

Bizkaian egiñari gagokiozala, ikusi dogu ez egoela, Kardaberazen eritxiz, guztien gogora idazterik. Orrek ez dau iñor irakurtetik atzeratu bear. Berba batzuk bardin dira, era batera nai bestera esan. Baiña berak ez ditu itz egiteko edo idazteko era guztiak entzat emoten.

Esaterako, berbak laburtzean larregikeri batzuk salatu ditu. Euskalerrri guztiko gatxa ei da berau, baiña Bizkaian andiago, aurki: «Ala Probintzian, nola Nafarroan, eta are geiago Bizkaian, itz egotekoan edo aoz esatean, itz asko laburtu egiten dira, baita letra asko trukatu ere.» Eta bere bizkaierazko liburu bien sarreran gatx orri adar batzuk moztu nai leuskioz. Esaterako, ez da erabilli bear onango laburpenik: *Aitien, semien, Kurutzien*. Aitearen. Semearen, Kurutzearen idatzi ta esan bearko leiteke.

Olantxe idazten ei eban Kapanaga, Mañariko abade jaunak, bere dotriña-liburuan: «Eun da zazpi urte da, gure Aita Ripalda famaduaren dotrina lizenziadu Kapanaga Mañariko sazerdote jaunak Bizkaiko euskeran atara ebalatzen. An dakust, zelan emeko gure modura berba asko usetan eta akabetan dituan. An dakust zelan ederto baten dinoan: Kurutze Santearen, Aitearen ta Semearen, Jaungoikoaren... Orain eun

da zazpi urte legez, gaur bere guztiok esatea erazoe da: *Aitearen, Semearen, Kurutzearen*, ak dinoan legez... Pluralean, edo asko diranean esan bear da: *Jaunen, gizonen, semeen*; eta olan eskribidu ta pronunziadu bear dira».

Errazoe da, ondo dago, esan bearko deutsagu emen Kardaberazi. Baiña beste bitxikeritxo bategak guztiak ez dira bat etorriko. Euskeraren legetzat dauko batzuetan ta eta beste batzuetan *da* erabiltea: *Aita ta Semea ta Espiritu Santua*, batetik; *Aitearen da Semearen da Espiritu Santuaren*, bestetik. «Euskerak bere erregla suabe ta ederra dauka... Euskararen erregla seguru ta eder beti gorde bear dozuna au da; eta maisuak ondo erakatsi bear dabe».

Baiña bere maixutzarik ederrena ez ete da izan abadeen artean egin ebana? Bizkaiko errietan sermolari asi zanean, abaderik gitxi ei zan mixiorik emoteko edo euskeraz patxadaz egiteko gauza zanic. Andik ogeta bost urtegarrenean, gauzak aldatuta dagozala dirudi. Abade asko ezagutzen ditu euskera irakasteko eskolak daukezanak bere: «Bizkaian, baita emen gure artean ere, sazerdote jaun asko ikusi ditut eskoletan obra ori zelo ta arreta andiz egiten; obra obeagorik errientzat ezin, ala fede, umeak ondo azitzea baiño egin dezakee... Bestela, zer lotsa gaizto itsusiagorik euskaldun galtzadun edo gizon egin bat lau errengloi euskeraz ezin irakurririk, ez atzera ez aurrera, lotuta ikustea baiño? Ta ori guztia zergatik? Ain aisa ta erraz lau egunean libru bat irakurtzen ez ekin edo jarduteagatik.» Benetan txalogarriak, lan orri eldu deutsen Bizkaiko abade ixillak!

Gaiñera, gero ta sermolari obeak dagoz, abadeen artean. Jainkoaren berbea zabaldu bearrak itzal andia ta zeregin au benetan artzea eskatzen deutso ariman artzaiñari. Eta Bizkaian bada egiteko orri erantzuten ondo ikasi dauanik: «Ala Bizkaian nola emen, zelo andiko sazerdote jaun ta animen artzai lezio au ondo artzen dutenak dirala badakit. Oiek beren dotrina, itzaldiak edo sermoiak euskeraz eskribitzen dituzte... Itzez esan edo erakatsi nai dutena kontuz onela eskribitzea askorentzat txit erazko konbeni dan bidea da. Bakoitzak bere errikoakin itz egin oi duen bezala bere erara lenago paperean ezarri, kontuz etxean nai bezala irakurri, ta gero pulpitan errespeto andiagoaz errazago, gogotikago ta biziroago esango du».

Jaunaren itza euskeraz egokiago azaldu ta euskaldunei euskera jatorragoan emoteko gai izan daitezkan, abadeentzat emona dau beste urrezko lege au bere: «Jainkoaren dotrina bear dan fede ta debozioaz esateko, lenagotik ondo pensatu, begiratu, ikusi ta ikasi bear da; eta ori, latin edo gaztelaniarik munduan ez balitz bezala. Au egiten duen euskaldunak, nere kontu, dotrina ondo eskribidu, ikasi, esan ta adierazoko duela».

Urrezko legea, benetan, batez bere, «latin edo gaztelaniarik munduan ez baliz bezala» ori. Lege au gordetan alegindu zan, aurki, Kardaberaz bere sermoi ta liburuak gertakeran, eta orrexegaitik edo, bere euskera jatorrago aurkitu eban erriak beste askorena baiño. Erderaren azpitik, azatzetik urten eziñik ebiltzen gure elizgizon asko ta asko, eta orregatik ziran euren artean ainbeste D. Kalisto, *Peru Abarkan* azkenengo orrialdeetan agertzen danaren senide urkoak, bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan. Kardaberazen gizaldia amaitu baiño lenago, Donosti zarreko parroki baten, olako D. Kalisto edo Fr. Kalistoren baten erderakadak irri ta barrez artzen ei zituezan entzuleak eleiz-barruan bertan. Erriak badaki onari ta txarrari igarten.

Aita Kardaberazek lege ori izan eban aurrean bere Aita Iñazioaren gogo-jardurenetako liburua euskaldunentzat azaldu ta atondu ebanean: «Nik nai nukeana da, eskola usia duten ta erdara ondo ez dakiten euskaldun garbiak beren animen probetxuren bat ateratzea; eta orretarako ejerjizio oiek emengo euskera usatuenean ezarri, ta ez itzez itz erdarazkoai lotu; ezpada zerbaiten A. San Iñazioaren espiritu, fin edo deseoi albaire jarraituaz».

Eskaldun sermolari ta idazleak erdararik ezpaltitz legez jokatu bear eben euskeraz idaztean; esatekoaren gaia, mamiña, guna euskeraz ausnartu, euskeraz jantzi ta euskerarik ulerterrezenean emon.

Eredu ona euken, aurki, gure abadeak Kardaberaz beraren sermoietan. Eta ez ete eben orixe ikasten, ain zuzen, gure mixiolari onek eurentzat izaten zituen itzaldietan? Au bere ez dogu aitzu bear. Errietan emon zituen mixioetan, Kardaberazek aparteko itzaldiak izaten zituen eleizgizonentzako. Eta irakatsi au, euskaldunei euskeraz Jaunaren berbea zelan ondoen azaldu, irakatsi ain bearrezko au emon ta argitu barik ez zan gelditu, nik uste. Itzez eta egitez egin zan olantxe abade euskaldunen maixu ta euskal-irakasle. Ez dogu alan ez dan gauza andirik esango, aren egunetan agertu zan aldakuntza ta giro barria berari zor jakola geien baten. Larra-mendiren liburu ta alegiñai baño askozaz geiago.

Giro barri orrek urte batzuk geroago emongo zituan fruturik onenak Bizkaian. Andik gerotxoago dator Bizkaian euskal-liburuentzat lenengo loraldi betea: Mogelbiak, Añibarrok, Aita Bartolok, Aita Astarloak, Uriarte ta Zabalak ekarri daben loraldia. Zeinbat ez ete deutso zor giro barri onek Kardaberaz egiñari ta eragiñari? Mogel zarrenak esker onez aitatuten dau *Peru Abarka-ren* erderazko itzaurrean Kardaberaz izena. Jesuita jainkozale ta euskalzale onek eder eritxi ei eutsan Peru Abarkaren erriko euskerari. Ez deusku orregaz gauza barririk esan. Maite eban Kardaberazek euskera, eta maite eban Bizkaikoa, nik esango neuke, gaztetako maiteari izan oi jakon maitasunez. Etaez dau berak maitasunagordetaeuki, ez; bere berbetatik, eutsi eziñik lege, bein ta barriro dario, eta bere egiteetan argi ta garbi erakutsi dau. Zirriborro oneitan naiko gelditu da.

Bizkaiak ez deutso gitxi zor aspaldiko mixiolari, euskal-irakasle ta bide barri-zabaltzaille dauan gizon argi oni. Zorrek ordaindu bearra dakar. Eta orretarako lenengo bidea, zorra autortzea. Geldi bedi, bada, emen, pozik emonda, zor atsegingarri onen autormen zintzoa.

EL PADRE CARDAVERAZ EN ALAVA*

No ha pasado inadvertido, no, el centenario de la muerte en el exilio del Venerable Padre Agustín Cardaveraz, el fecundo escritor euskérico, fundador de la Casa de Ejercicios de Loyola e infatigable misionero que desplegó su actividad apostólica a lo largo y ancho del País Vasco.

Apagados ya los ecos de los actos conmemorativos que se han celebrado en su honor, y como fruto de ellos, hay proyectos de reedición de sus obras, y está próximo a salir un libro-homenaje que le dedica la asociación sacerdotal que lleva su nombre, asociación fundada en Vitoria al calor del Seminario Diocesano de las tres provincias vascas hace ya cerca de cuarenta años, y que ahora ha reanudado su actividad con los mismos afanes apostólicos que inspiraron su fundación. Presumo que este libro-homenaje no dejará de registrar el paso del P. Cardaveraz por Guipúzcoa y Vizcaya. De su paso por Alava, por menos conocido, no me atrevo a afirmar lo mismo. Y este paso bien merece un recuerdo, que estas líneas quieren dedicarle.

Cardaveraz, misionero en Alava

El Padre Cardaveraz misionó en Alava. Los biógrafos lo afirman unánimemente. Aunque luego, a la hora de precisar datos, no sean nada explícitos. El propio P. misionero lo afirmó más de una vez en sus escritos. «Durante más de veinte años —dice una de las veces— he dado misiones en Vizcaya, Navarra, Alaba y aquí» (en Guipúzcoa). Y concretemos que, cuando así habla, se refiere a misiones predicadas en vascuence, porque afirma que el euskera de sus libros es el mismo que ha usado en esas predicaciones misioneras. Los veinte y pico años corren, por lo menos, del

* Boletín de la Institución «Sancho el Sabio» 16 (1972) 233-239.

año 1733 al 1755, año en que, físicamente imposibilitado de proseguir sus anteriores andanzas apostólicas, se encierra en Loyola y se entrega a sus nuevos apostolados, el de los ejercicios en retiro en la Casa Santa, y el de la pluma al servicio del pueblo euskaldun.

Los biógrafos, repetimos, no han sido muy explícitos en cuanto a concretar el tiempo y el área geográfica de Alava en que desplegó su actividad. Algo más explícito ha sido el mismo Padre en sus escritos, en los que encontramos, cuando menos, una referencia geográfica: Salvatierra y sus contornos.

Sus primeros contactos con alaveses

La imprecisión de los biógrafos del Padre Cardaveraz en este punto, o la falta de detalles, es mayor por lo que hace a su predicación euskérica. Porque en lo que respecta a su predicación en castellano, antes de que el Venerable Padre iniciara la etapa de su mayor dedicación a misionar en pueblos de habla vasca, encontramos en dichas biografías un dato bien concreto: el de su paso por Arceniega el año 1731.

La alusión a esta etapa de mayor dedicación del Padre a la predicación euskérica está reclamando, sin duda, algunas precisiones cronológicas: El Padre Cardaveraz, desde que fue destinado a Bilbao, fue profesor del Colegio de San Andrés que la Compañía de Jesús tenía en esta villa, desde 1731 a 1734; este año pasó a Pamplona a enseñar filosofía por un año; el año 1735 se traslada a Guipúzcoa y se establece en Azcoitia, primero; el año 1736 pasa a Loyola; de 1739 a 1741 enseña Moral en Oñate y vuelve a Loyola, donde seguirá hasta que le alcanza el decreto de expulsión de Carlos III en 1767.

Pues bien: durante su estancia en Bilbao, y en su primer año, tuvo lugar la salida del Padre, la primera salida, a tierras de Alava, su primer contacto con los alaveses. Los biógrafos han entresacado esta noticia del epistolario del Padre. Debió de ser por octubre de 1731. Parece que fue la primera misión que daba desde su destino en Bilbao. Y no sería la última vez que estuviera en Arceniega, ya que muy poco después escribía el misionero al P. Loyola: «Voy a predicar a Arceniega; tengo que hacer tres pláticas, y por último, el sermón de San José. Esta gente me ha cobrado cariño, que vinieron con muchas instancias a pedir por amor de Dios no rehusase el predicar al Santo».

Sus actuaciones de Arceniega es obvio que fueran en castellano, como todas las suyas anteriores al año 1733, que es cuando comienza a predicar en vascuence con unas misiones que dio en Vizcaya, en Elorrio y Lequeitio. Desde entonces se siente especialmente llamado a evangelizar al pueblo euskaldun.

Y aquí nos preguntamos de nuevo: ¿Cuándo y en qué lugares tuvieron lugar sus actuaciones misioneras euskéricas en Alava? A falta de datos más precisos que hagan luz y nos saquen de dudas, nos parece que el tiempo de su residencia en Oñate, desde 1739 al 41, fue para él el más indicado para haber entrado en contacto con pueblos de la zona vasco-parlante de Alava, en sus días bastante extensa. Oñate, en su historia y por su vecindad geográfica, estaba muy relacionada con dicha zona alaveses. Y, desde luego, de 1741 al 55, que es cuando renuncia a salir de Loyola, hubo de tener

más de una oportunidad de realizar nuevas incursiones por tierras de Alava. Porque, si aún no podemos precisar fechas, el hecho cierto y varias veces afirmado por el mismo Venerable Padre es que dio más de una misión por esas tierras.

Encuentro con un militar alavés

En una de sus andanzas misioneras por la zona vasca de Alava fue cuando el P. Cardaveraz se encontró con un alavés, euskaldun y militar de profesión. Nos lo cuenta el mismo Padre. El P. Cardaveraz gusta de trasladar a sus escritos experiencias y anécdotas que ha recogido en sus correrías apostólicas. Así, en su «*Euskeraren Berri Onak*», como muestra de la peculiar elocuencia y retórica de los euskaldunes, nos ha transmitido unos trozos de diálogos por demás vivos, escuchados por él a una mujer donostiarra y a una etxeoandre de Elorrio. De Alava, a falta de modelos de esa retórica, nos ha dejado el relato de ese encuentro suyo con un militar alavés. Encontró interesantes las declaraciones y protestas de éste contra la conducta injusta y antipedagógica de que eran víctimas los niños vascos en la escuela. Vamos a traducir las palabras del propio Cardaveraz: «En una de mis andanzas por Alava un amigo mío de aquella tierra, valeroso capitán de las Guardias Reales, me decía un día: Padre, ¿pero cómo va a haber, en el País Vasco, buena educación de los niños ni la doctrina necesaria, si se hacen todos los esfuerzos posibles por sepultar el vascuence y, con intimidaciones y azotes, se prohíbe a nuestros niños hablarlo? Estos niños han de ser luego, ya ministros de la Iglesia, ya cabezas de familia. Y, cuando sean sacerdotes o jefes de un hogar, ¿cómo van a confesar o a enseñar en sus casas y aldeas (en sus *ergoien*, que es como llaman por Alava a las poblaciones pequeñas) la doctrina cristiana como conviene?... No debiera dejar de enseñarse el vascuence ni en la escuela ni en la Gramática».

El Padre Cardaveraz aprueba el razonamiento del militar alavés y dice: «Tenía muchísima razón este señor capitán. Es de lo más injusto que se pueda concebir el prohibir el vascuence a los jóvenes y el castigar y proscribir su uso, como si esta lengua fuera una lengua maldita».

En medio de una sociedad que tan inconscientemente trabajaba por arrumbar uno de sus tesoros milenarios, ¿qué luminosa y noble se nos aparece la figura de este soldado alavés, testimonio vivo que nos habla de que en la Alava de entonces no faltaban almas nobles y clarividentes que no se resignaban a presenciar insensibles la pérdida de su lengua ni las causas que la apresuraban. ¡Lástima que el Padre Cardaveraz no nos haya transmitido ni su nombre ni el del lugar de su origen! Tal vez el siguiente dato que espigamos en las obras del Padre nos ponga en la pista para aclarar este último extremo.

El Padre Cardaveraz en Salvatierra

En efecto, tal vez no sea demasiado aventurado situar el encuentro del P. Cardaveraz y el capitán de las Guardias Reales en Salvatierra, el nombre que al fin salta en una de las páginas del misionero jesuita, que nos ha suministrado así la única

precisión geográfica de su paso por Alava. Y aquí encontramos también el detalle de ese término *ergoien*, con el que se designaban los pueblecitos en la Alava vasco-parlante. El dato lo tenemos en su obra *Kristauaren Bizitza*, en el apartado que dedica a la historia de la difusión de la devoción al Corazón de Jesús y de su Congregación entre los vascos. La primera de estas Congregaciones se fundó en Elorrio, en el Señorío de Vizcaya; en Guipúzcoa, fue la primera la de Tolosa, y en Alava, la de Salvatierra, fruto de la devoción al Corazón de Jesús de esta villa alavesa y la de los pueblecitos de sus aldeaños (*Araban Salvatierrako eta aren Ergoienetako jende piadosoak ori bera egin zuten*). Tal es la escueta noticia que nos suministra este libro, una vez más muy parca en detalles.

Pero, con su parquedad y todo, el dato es interesante. Ahí se nos describe uno de los campos en que hubo de desarrollarse el apostolado misionero del Padre en Alava, con su frecuente secuela de fundaciones de la Congregación del Sagrado Corazón, tan de su especial devoción. Tales fundaciones eran, a las veces, uno de los frutos y como el colofón de las misiones que predicaba el celoso misionero, que gustaba de guiar a sus oyentes por el amor a la fuente del amor, por doble motivo: porque tal era su propio espíritu, y porque ello era también lo que mejor caía en el corazón y el espíritu de sus paisanos.

Un biógrafo (el P. Fonseca) lo ha subrayado: «De ordinario todo lo llevaba por el camino del amor y mansedumbre, así porque éste era el afecto que dominaba en su pecho como porque en la nobleza vizcaína hacía también más impresión y fruto más duradero».

Donde Fonseca escribió *nobleza vizcaína* pongamos nobleza vasca o, si se quiere, alavesa, y habremos dado con el sentido que a esas palabras quiso dar el autor. Pero no estamos ante una apreciación puramente personal del P. Fonseca. El propio Cardaveraz lo confirmó en su *Euskera-Berri Onak*, cuando nos declara: «Quisiera que tanto los confesores y predicadores como los maestros tuvieran presente que para atraer hacia Dios a la gran mayoría de nuestras gentes es mejor presentarles la hermosura y amabilidad del bien que la fealdad y el lado temible del mal».

Afirmaciones como ésta no dejan de ofrecer interés y pueden llevarnos a poner en tela de juicio o a someter a revisión o a un juicio más matizado otras afirmaciones demasiado generales tal vez sobre un cierto espíritu jansenista que sería como conatural al vasco. Pero no es nuestra intención derivar hacia ese terreno nuestras deducciones, porque no ha sido ese el objeto que nos hemos propuesto al ponernos a escribir estas líneas.

Nuestra finalidad ha sido más modesta y concreta: la de recordar la presencia y actuación de un gran misionero vasco en zonas de habla vasca en la Alava de mediados del siglo XVIII. El Padre Cardaveraz no fue el único. Se conoce el paso de un compañero suyo por los pueblos de Ozaeta, Aspuru, Narvaja. Pero el P. Cardaveraz, que sin duda recorrió también esos pueblos, se internó más adentro y llegó hasta Salvatierra.

Y estos hechos son significativos. Significan que el euskera no sólo vivía en esa zona del territorio alavés, quedando así corroboradas afirmaciones de Landázuri y otros, sino también que esta lengua mantenía sus derechos y cierto como prestigio social en las iglesias de dicha zona.

JESUSEN BIOTZA, KARDABERAZ ETA EUSKALERRIA*

Jesusen Biotzaren alderako debozioa zabaltzen zer egin zuen jakin gabe, Aita Kardaberaz-en berri andirik ezta kigu. Euskalerritik kanpo ere, arlo ontan saiatu diranetatik bera bezalakorik gutxi. Hoyos aitari berari ere Kardaberaz-ek piztu zion su ori. Berak egin zuen, Jesusen Biotzaz, Frantziako mugaz onuntzaegin zan leenengoko itzaldia, Bilboko San Anton elizan. Gero, erriz erri euskaldunen mixiolari ibilli zan urteetan, nekez utziko zuen erri bat ere, Jesusen Biotzaren anaidia bertan jarri gabe. Bizkaian asi eta Gipuzkoan, Nafarroan, Araban, zenbat erritan ez ote zituen sortu? Elorrio, Markina, Zomotza, Tolosa, Elgoibar, Salbatierra: orra olako errien izen gutxi batzuk.

Utzi dezaiogun berari labur esaten: «Bilboko uri noblean lenengo, nere kiko, Jesusen Biotzaren festa au pulpitan aditzera eman zan, eta gero laster Españan. Euskaldunen artean... lenengo Kongregazioa Bizkaiko Señorioan, Elorrioko jaun ta jende noble debotoak fundatu zuen. Gure Probintzian, aurreneko Kongregazioa Tolosako erri nobleak, alde aietako jende guziakin, txit ederki eta atsegin ta frutu andiaz artu zuen. Araban, Salbatierako eta aren ergoienetako jende piadosoak ori bera geroago egin zuten. Nafarroan, maisuakin ta liburu debotoakin... Kongregazio asko egin dira ta aietarako ta oietarako Erromako Bulda txit asko nere eskuetatik etorri dira» (Kristauaren bizitza).

Ortan, Ernaniko seme argi onek bere biotzari zeriona agertzen eta azaltzen digu: gure erritarren barruko giroa eta joera. Mixiolariak ereiten zuen aziak lur ona aurkitzen zuen, bear zuen girokoa. Zerbait esan nai du mixiolari onek gure errietako maixu, gure paiz eta sermolariei egin zien oar onek: «Begien aurren irukitzea nai nuke, gure

* El Diario Vasco 40 (1973, 11962.zenb.) Suplemejito dominical, 11.

jende onak agitz geienean pekatuen itsustasun ta gorrotoaz baiño birtuteen edertasun ta amarez Jainkoagana ekarte a obe dala». Besterik ez zuen berak egiten, gure kristauen biotza Jesusen Biotzera zuzenduz.

Amaikatxo aldiz egin da badaezpadako itzik gure erriaren Jansenio-kutsuaz. Sorrak izan omen gara, ez omen degu izan biotz iririk kristau-bizitzaren ederrarentzat, Jainkoaren maitasunarentzat. Gurek ez omen zuten girorik, Jansenisten joera latz eta beldur-bideetarako izan ezik. Berezko landarea edo omen da gure lurtean Jansenismoa. Gauza oker eta lorriñagorik ere esango digute. Trento, inkisizioa, Jesusen Lagundia eta Jansenismoa, dana zaku batean sarturik emango digute askok, gure erriaren eztakit nolako giro itoaren errua nori ezarri billatu naiez.

Kardaberaz-en aiterra beste erausi lorrin guztiak baiño argi ta garbiago zaigu. Euskaldun animak askok uste duten baiño osasun ohea zuen eta izan du, dirudianez. Jansenistatik aundiena Baionako seme izan zala? Egia. Baiña bere azia ez zuen ez Euskalerrian, ain zuzen, ez euskaldunentzat erein. Eta, azkenez «gure jende onak» ez zion arrera onik egin, ez Baionaldean, eta gutxiago emen.

Kardaberaz ezagutu eta aren bizitza utzi zigutenak ere giro berdiña aurkitu zuten gure inguruan. Eta kristau-giro jatorra sortzeko eta ari eusteko ez ziran maixu txarrak izan Jesusen Lagundikoak, Jansenismoak izan zituen aurka-egillerik gogorrenak, zinez. Or ditugu Aita Kardaberaz eta Mendiburu. Kardaberaz-ek aipatu dituen Nafarroako maisu liburu-egillean artean Mendiburu zan gorengoa. Kardaberaz-ek piztu zuen suari eutsi ta indar emateko idatzi zituen Mendiburuk bere libururik aundienak: *Jesusen Biotzaren Debozioa*, eta *Otoitzgaiak*. Emengo euskaldunen alfabetatzailleak izan ziran biak. Euskaldunen artean euskeraz irakurtzeko zaletasuna sortu ta piztu zuten.

Bai. Ez dezagun uste Kardaberaz-ek sortzen zituen Jesusen Biotzaren anaidiak «Aita Gure» bat edo beste geiago esateko ziranik. Batez ere, irakurgai luzeak zituzten elkarrekin bildurik, elkarteko elizkizun luzeetan. Irakurgai aietan ikasita, Jansenio-tarren kutsuak ez zeukan gure artean sartzerik. Maixu onak ziran Kardaberaz eta Mendiburu, aien illunak eta bildurkeriak uxatzeko. Ez gaitazan itsutu. Iñoiz dantza batzuei buruz gogor egin zutela-ta, ez ditzagun gauzak naasi. Dantza guztiak eztitu barruko alaitasunik jatorrenak sortzen. Azalari baiño geiago barruko jatortasunari begiratu badezaiogu, gure erri jansenismoz kutsatua izan danik, esan ote dezakegu?

KARDABERAZ AITAREN AZTARNAK MARKINAN*

Lerro auetan esango danaren muiña orain bi edo iru illabete dala agertu bearrekoa zan; baiña eztakit nongo sorgiñen erruz ez zuen argirik ikusi. Ea oraingoan zori obea izaten duten.

Kardaberaz aitaren aztarnak Euskalerriko bazter askotan errez aurkitu litezkenak dira; baiña, nere iritziz, iñon ere ez Markiñan baiño sakonago. Ez zan Jainko-gizon ori alperrik iritxi markiñarren artera. Ez zan alperrikakoa izan uri onetan erein zuen azia. Inguruko erri batzuetara lenago izan zala badakigu: Lekeitio eta Arbazegi-Munitibarrera, esaterako. Markiñan, 1747 inguruan izan zan, lenengo aldiz bear bada, misioak ematen, berak oi zuenez eta zekienez. Beste erri askotan bezala. Misioaren ondoren, eta aren frutu bezela, Jesusen Biotzaren anaidia, kofradia ere sortu zuen. Erri askotan egin zuen beste ainbeste. Beste erri gutxiagotan egin zuena, Kardaberaz-ek Jesusen Biotzaren irudi berezia jarri edo jarrierazi zuen an, Xemeingo elizan, gizon jainkozkoak berak otoitzaldi batean ikusi zuena bezelako irudia: Jesus, aur itxuran, paparra zabalik, eta an erdi-erdian biotz aundia erakusten. Olakoxe irudia omen dago beste erri gutxi batzutan, Kardaberaz aitak eragiñik, Elgoibarren, Idiazabalen eta Abalzizketan. Olaxe dago Markiña-Xemeingo eliza zabal ikusgarrian aldare nagusiko sagraioaren eskumaldetik. Markiñak badu, bada, jesuita agurgarri onek utzitako aztarnarik eta oroigarririk aski.

Beste aztarna bat aurkitzen det nik emen, beste erri gutxitan dutena, noski, iñongo errik baldin badu: Kardaberaz-en aziak Markiñako apaizen artean sortu zuen landarerik ederrena, euskalzaletasuna, euskera lantzeko kezka eta ardura. Gogora dezagun jesuita ospetsuaren esan ospetsuagoa: «Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du». Aita Kardaberazentzat Jainkoak nai zuen, batez ere, euskaldun apaizek

* El Diario Vasco 41 (1974, 12310.zenb.) Suplemento dominical, 11.

euskera ongi erabilten ikasi eta beren ardurapekoen izkuntza egiñalean lantzea. Animen onak eta Jainkoaren itzari zor zaion itzalak eskatzen zuten ori. Eta orixe ikusten degu ain zuzen, Markifian, misiolari euskalzale au Markifiatik igaro ondoren, eta aren lanaren ondorio bezela. Edozeiñek daki andik aurrera Markiñan agertu zan euskal-giroa, elizgizonen artean. Bi Mogeldarrak, bi Astarloatarrak eta Aita Bartolo karmeldarra badira nor edo nor, badira zer edo zer euskal-literaturan. Zerbait esan nai dute. Baiña besterik ere bada aien inguruan. Xemeingo parroikiko artxiboak maitez gorde ditu gaur arte irurogei sermoi, eliz-itzaldi, bertako apaiz izanak idatziak, Jesusen Biotzaren elizkizunetarako egiñak. Eta guztia esan bear data, Kardaberaz aitak era-giñak, berak sortu zuen Jesusen Biotzaren kofradiarentzat utzi zituen legeen bitartez.

Kofradi orrek apaizentzat eginkizun bereziak agintzen zituen. Apaizen egitekoa zan, illeroko elizkizunetan, gutxienez ordu laurdeneko itzaldia egitea. Esan naiz irakurri egin bear zuten. Markiñako apaizek zintzo erantzun zioten eginbide orri, eun urtez gutxienez. Irurogei sermoi or ditugu lekuko. Eta ez dira, noski, egin ziran guztiak artxiboan gordetik gelditu: 1788tik 1878rañokoak bakarrik daude an, eta ez dira guztiak, noski.

Antziñakoena, 1778koa, Urkiza zan batena da. Gero 1809rarte ez degu urterik irakurtzen. Baiña leenagokoak dira lau edo bost, oar batek jakinarazten digunez, Mogel zaarrarenak, Joan Antoniorenak baitira. Mordorik aundiena beste Mogelena dala esan bear degu, Joan Joserena, eta onen izenean daude. Bigarren Mogel au il zan ezkerro, sermoirik gutxi dago berririk. Asko dira bein eta berriz urrengo urteetan esanak. Idazleen edo sermoi-egilleen artean Astarloa bat ere badator, Iñazio izenez, Markiñako apaizen baten izena, nonbait. Beste izenik ere bada: Txopitea, Amunategi; eztakigu egilleenak, kopiaztailleen batzuenak ala goderzailleenak diran. Azkenengoa 1878koa degu. Aurrerantzean ere Jesusen Biotzaren elizkizunak jarraitu zuten, noski. Baiña artxiboak geroagorik ez du jaso.

Nik Kardaberaz aitak ereindako aziaren landareak ikusten ditut or bizi bizirik. Berak eman zien Bizkaiko uri onetako apaizei olaxe, Jesusen Biotzaren omenez, euskera lantzeko aukera, eta eginbidea. Eta bai zintzo erantzun ere Markiñako apaizok ark ezarritako eginbideari. Markiñak arrokerizko usarik gabe esan dezake *Euskeraren Berri Onak* liburua idatzi zuen jesuita ospetsua ez zala bertatik alperretan igaro, eta ez zuela ark frutu ederragorik beste iñon atera.

EUSKAL-IDAZLE ZAARREN BILDUMA*

(KARDABERAZ AITARENA)

Euskal-klasikoen bilduma bidean da, asi da agertzen. *La Gran Enciclopedia Vasca* dalakoak argitaraturik emen ditugu orain, bi tomo eder marduletan bildurik, Kardaberaz Aitaren euskerazko idazlan guztiak. Txiki eta aundi, ainbat liburu atera zuen euskeraz Ernanitar argi onek, baiña gaur non aurkitu? Etzan gauza erreza. Guztiak batera dauzkagu orain geure aukeran. Biblioteka andien bateko zokorik arakatu bearrik eztaukagu aien billa. Eskumendean dauzkagu guzti-guztiak, beiñola atera berritan izan zuten jantzitan, beren jaiotzako ortografiaz, orduko zaar-itxura berarekin. Argitaratzailliek bide ori artu dute; liburu bakoitzaren lendabiziko argitaraldia, al dala, fotoz artu eta zegoen zegoenean eman nai izan digute. Ortik ere begi argiagoa egingo dio batek baiño geiagok oraingo algitaraldiari.

Oraino bi tomo auek liburu-sorta berri bat asten dute: *Monumenta Linguae Vasconum* darama sorta berriak izena latinez, *Euskal-idazle Nagusiak euskeraz*, eta *Clásicos del Euskera* erderaz. Kardaberaz Aitaren liburuekin astea ustekabeen berez berez gertatu da. Norbaitzuen buruetan bazebillen zirika euskal-klasikoen bilduma osoa ateratzeko asmoa. Ontan Kardaberazen urteurrena izan da, gizon santu au il zanezkeroko berreungarren urtea. Urteurreneko jaien giroan, berez sortu zan erabakia. Norekin asiko, eta zergatik ez Kardaberaz beraren lanekin? Eta izan ere, Etxepare zaarra kendu-ezkero, onelako bildumari asiera emateko, nork eskubide oberik idazle onek baiño? Eztira asko euskal-klasikoetan onek baiño geiago idatzi duenik; gutxi, berak aiña euskaldun euskera maitatzera eta lantzera bultzatu eta sustatu duenik. Ez zuen berak alperrik oiuegin: «Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du». Etzan itz utsetan gelditzea, ala-olako sermolariak bezela; etzan eragille utsa; eragille baiño

* El Diario Vasco 41 (1974, 12372.zenb.) Suplemento dominical, 11.

leenago egille, bera bezelako mixiolari jatorrari zegokionez. Itzez eta lumaz, bietara erakutsiko du besteei arrerazi nai zien bidea. Azken-aldean, kalbario-bide gertatu zitzaion bidea.

Aita Lopetegik, erderaz jarri duen itzaurrean, luze eta zeatz azaldu digu dana. Madrilgo Gobernuak trabak jarririk, or gelditu zan argitara gabe, artxibo bateko illunpetan Aita Iñazioen bizitza, gure mende onen asieran norbaitek aurkitu zuen arte. Madriliko traba auek, eta andik laster jesuita guztiekin batean atzerrira jaurtikia izateak eta Euskalerritik urruti ilbearrak gozakaiztu eta garrastu zituen gizon santu eta euskaldun sutsu onen azken egunak (baldin santuaren biotzean garraztasunik asma al badezagu).

Euskal-idazleek eredu bikaiña dute, alderdi askotatik, gure idazle onen lan eta ekin aspergabekoan. Bego, burua tente eta lotsarik gabe, Kardaberaz idazle langillearen izena Euskal-Idazle Nagusien bildumaren buruan. Leku au eztio iñori ostu.

Bilduma eder onen akatsik atera bear balitz, nik bat salatuko nuke: Zergatik eman digute Ejerzizioen III Partea, bigarrenarekin bat egiñik? Ala ere azaldu zela 1761'n. Bai, noski, baiña bereiz, aparte ere bai, beste liburu bat egiten zuela (beste parte guztiak bezela), eta bere itzaurretzoarekin, urtea eta inprentaren izenarekin. Eta ola atera zuen bigarrenez egilleak berak andik luzero gabe, 1765'n, bi itzaurretzo edo abisoekin. Bigarren argitaraldi ontan, leenengoak Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan izandako arrera onaren berri ere ematen zuen, eta bai berak Arabaraiño egindako ibillera batzuen berri ere. Itzaurretzo oiek, berri oiek oraingo argitaralditik kanpo gelditu dira. Orrela idazlearen lerro jakingarri gutxi batzuk gelditu dira, beiñik bein, argitara gabe. Ori, alde batetik. Eta bestetik, idazle baten itzetatik zein dira aintzat artzekoagoak, leenengoak ala azkenegoak?

Gaiñerakoan, txalo beroak merezi dituzte edizio eder onen antolatzaileek. Zorion beroak Euskalerriko jesuitei. Aita agurgarriaren lan guztiak, euskerazkoak eta erderazkoak, argitaratzeko asmotan zebiltzalakoa aditua genuen. Zorionak berei, euskerazkoak aurretik eskaifii dizkigutelako. Euskerazkoetan ez ote zaigu osoago azaltzen santua eta gizona? Jainkozale miña, batetik; baifia, bestetik, bai euskaltzale beróa, euskal-miñez kezkatua ere.

Zorionak Aita Zabalarari. Orain arte eztegu esan eta esan dezagun: AUSPOA bildumaren zuzendaria bera da oraingo bilduma onen zuzendari. Besterik esan gabe, edozeiñiek daki orrekin Zabala aitaren gain joan dala Kardaberaz Aitaren euskal-lanak bildu eta argitaratzeko nekea. Aurrera eramanez dejala asitako lana, eta oraingo bi tomoen ondoren, betoz urrengoak, gure idazle zaarren bilduma lenbailen osotzera.

BAKOTXARI BERE (AITA KARDABERAZ DALA-TA)*

Aldizkari onen orrietan, azkenengo zenbakian, ikutu txiki bat, aipamentxo bat egin neuntsan aurreragoko zenbaki baten agertutako lan bati. Aita Kardaberaz Robespierre eta Dantonen egunetakoa egiten ez ete eban, zeatz esateko (1).

Idaz-lan aren egillea mindu egin ei da, mindu eta asarretu. Nik ez neban idazlearen izenik aitatzen eta mesedetxo bat egin nai neuntzan, bere oker bat gogoratuazo. Nonbait, ezta nire asmoaz ondo jabetu eta bere okerra ikusi ta autortu bearrean, asarre eta kontueske ei dago. Kontu au alik zeatzen emoten nator, bakotxari berea emoten.

Bakotxak daki non artzen dauan min; baiña bakotxak jakin bear leuke bere buruari kontu eskatzen, bere berbakaz auzokoari miñik emon eztegiön. Idazle orrek Kardaberaz agurgarriarentzat esandakoak ez ziran arentzat bape goragarri eta bai irakurle askorentzat mingarri samar. Antxiñako idazle maitagarriari jaurtitako iraiñezko berbak gure aldizkarian irakurri bearrak askori emon eutsen aparteko miña. Beste baiño geiago karmeldarroï egozten euskun errua. Eta arrazoia euken minduta egoteko. Kiñaka neukan nik neure gogoa Kardaberaz idazle zarraren alde urtetako, ari Karmel onen orrietan egindako iraiña garbituteko. Eta orain, iraiñaren egilleak berak erea emoten deusten ezkerro, errudunagotzat eukiko neuke neure burua, ixilik geldituko banitz.

Goazen arira. Diñodan idazle au, aspaldiko lagun zarra, luma barria dogu Karmel onetan: Arratiako zekorra, txikerra, baña... gogorra. Eta artez egia esan gogorregi artu dau Aita Kardaberaz agurgarria; sorki bat lez, ia gixajo bat lez darabil. Bere buruaren kaltetan dabillala konturatu barik. Alan ta guzti be, ernaniar ospetsuari egindako iraiña ezta gitxiagotzat artzekoa ez gitxiago txar-estekoa.

Diñoan guztian, iru-lau lerro baiño eztagoz arpegia tximurtu barik irakurtekoak eta aonexek dira: «Aita Kardaberaz, 1703n sortua eta 1770n zendua, Josulagundikoa

* Karmel 1977-3, 54-60.

(1) Ik. 232. orr.

eta predikari kartsua, idazki askoren artean, liburu bat idatzi zuen, *Euskeraren Berri Onak* deitua». Ortik gorako guztia, edo orren aurretik eta atzetik datorrena irakurtean asten jakun bekokian tximurrak egiten, ia berban berban, egin be. Ortik aurrera, idazlearen buruko illunak eta barruko errekoak besterik ezta ageri.

Irakurle argiagaz diñarduala, ona bapatean, otoz-otoan egiten deusan itauna: «Gorrota ahal liteke izki bat, letra bat?». Berak badaki baietz, eta geiago be badaki: gorroto ori «ez da azken urte hautan sorturikoa». Gorroto ori Kardaberazek sortua da: jesuita agurgarri au izan da letra baten, atxearen lenengo gorrotatzaile eta madarikatzailea. Gero etorri dira kardaberaztarrak, apaiz, praille eta erri-gizon, non-bait gorroto orri eusteko eta iraunerazteko. Gorrotoa eta madarikapena bein ta barrero datoz gure arratiar onen luman: «H hori madarikatuaz hauxen dio: Utikan ortik H ori. Gure Euskera suabe eztikoarentzat ez da soñu ori». Ez dira, egiñ-eginean, Kardaberaz berbak be. Onen berbak onangook dira: «Ken ortik. Gure euskera suabe eztizkoarentzat soñu ori ezta». *Uñkan* ori arratiarrak asmau eta ernaniarrari ezarria da. Bearbada gorrotoa eta madarikapena salatzeo egokiagoa eretxi deutso idazleak. Parkatu deiogun uskeritxo au eta goazen aurrera.

Bitxietan bitxia gorroto eta madarikapen orreik ulertzeko gure arratiarrak asmau dauana. Letra gorrotatu ori Enziklopedisten eskutik ei etorren gure artera. Aldi atan gure arterantz «zetozen Frantziako Enziklopedista deituen dotrinak. Zertan erranik ez, Aita Kardaberaz tradizionalista sutsua zela: «Jainkoa, Aberria eta Erregea», errege bakalduna, absolutua. Eta nondik daki Aita Kardaberazek letra ori Enziplopedisten bitartez datorrela? Etxeberri Sarakoagandik. Zarautzen sendagille ei egoan idazle au, idazten eban guztia atxez betetan ebana. Eta «Frantzi aldeko euskalduna zenen geroz, eta Frantzia aldetik zetozten aize berriak gorrotagarriak zirelarik (Aita Kardaberazek) H gaixo hori ere gorrotatu zuen». Ona arratiar asmalari onen txorokillezko etxeak zelango oiñarriak dituen: «Ez al zituen irakurriko gure Aita Kardaberaz onak Idazle hunen (Etxeberri orren) idazkiak?». Gero dana berez dator: enzikopedistak, frantzes guztiak, Frantzialdeko euskaldun eta euskal-idazleak, Etxeberri Sarakoa buru dabela, guztiak bat egiñik ikusi bear aita on, gixajo arek, guztiak gorrotagarri, guztiak madarikagarri, gorrotagarri eta madarikagarri euren atxea be. Umekeriak dirudie, baiña umekeriok *Karmel-en* agertu dira, Kardaberaz-en izena baltzitu naiez. Len irakurri dituanak parkatuko al dau emen, oraingoan jesuita agurgarriaren izena zuritzeko barrero aitatzea.

Eta gero, nondik ateraten dau (ona arratiarraren beste itaun purrustadatsu bat), letra ori ez dala on euskerarentzat? «Nik uste eguño ere ez zuela entzun nola oguzten zen H hori». Entzun izan beleutse, ez dau uste olan berba egingo ebanik. Atxea ez dala leuna, suabea? Zatarra dala? Gipuzkoarren Jota, «Jo zak, jan zak», hori bai dela soñu zatarra, seguraski arabiatarrek Españiara ekarria». Au be ernaniarrarentzat doala dirudi, giputza izanik, jotaren soñu zatar ori ontzat edo euskerarentzat leuntzat emoten daualakoan (Kardaberazek be J ori kanpotikotzat, ez jatortzat euken).

Amaika errapetako esnea batu eta nastu dau gure arratiarrak emen Aita Kardaberaz aurka bota dituen ganora gitxiko berba orreitan: eta ez esne garbia, ez esne ona, naiko lorriña eta galdua baiño. Egin daigun orain alegin, lorrinkerioak argiago ikusten.

Aita Kardaberaz eta atxea

Gure arratiarrak uste dauan baiño geitxoago daki ernaniarrak letra orren goraberan. Lenengo ta bein, jakitunen arteko eztabaidatxo bat, letra izatea merezi dauan ala ez. Onetan «estabaida andiak dira», diño berak. Eta alan izan da izan be, ez bakarrik euskeldunen artean, beste izkuntza batzuetan be. Aita Kardeberaz baiño eun bat urte lenagokoa da Oihenarte, Frantzialdeko euskaldun eta euskal-idazlea, ain zuzen, eta ez zelan-alangoa. Eta zer diño? Ez ebalu euskerak atxerik bear, atxearen arnas-ots orrek ez ebalu letrarik bear ez merezi. Greziako izkuntzan merezi ez eban lez. Gauza jakiña da greziarrak atxerik ez eukela eta atxe barik idazten ebela istoria, erromarrak historia egin euskuena (oraingo italiarren istoria, eta gure Lapurdi aldekoen istorio). Amas-ots ori dauken izkuntza eta errietan letrarik merezi ezpadau, eztaukenetan gitxiago. Orixe de Kardaberazek diñoana, Gipuzkoan eta Bizkaian ez dala ezagutzen arnas-ots ori, eztagoala soinu ori, eta ezabela bear letra ori be: atxe ori «alfarrikakoa edo serbitzen ez duen gauza da». Beraz, «ken ortik; gure euskera suabe eztizkoarentzat ezta».

Letra au zelan esaten zan be emaniarrak arratiarrak uste dauan baiño obeto daki: «izketan batzuk G, Besteak Jota egiten dute». G letraren soñua eukan itz gitxi batzutan Naparroan Estellaldean asi ta Frantzialdeko mugaraiño, Lizarraga Elkanokoaren sermoietan eta beste sermolari batzuetan ikusten dan lez. Bera be Ariberaño ibillita zan sermolari. Eta Ariben gaur be *gau, gan, geben* (emen) esaten dabe. Bear bada ez zan eldu Erronkerialderaño, eta orregatik ez dau jaso beste lekuetako G edo edo J-soiñu ori an *kan, kemen* dala. Kardaberazek jakiñaren gaiñean edo entzunaren gaiñean egin dau berba.

Gure arratiarrak ulertu be ez dau egin beste gauza bat, Kardaberazek «gure euskeran» diñoanean, Gipuzkoako aitutzen dauala, ez beste iñongorik. Eta Gipuzkoako euskerari eztizkoa baderitxo, bere eskubidea dauala ori esateko, baiña eztaula orregaitik beste euskerarik zapuztuten ez zakartzat joten. Au be berak diño: «Edozein euskera (bakotxaren erreglak gordetzen badira), txítez beraa, suave ta gozoa ertengo da». Beste euskalkientzat eguiñik? Ez antzik be. «Umeak oitu bear dira, ez emengo izkeran bakarrik, ezpada edozein dialektotan, eta Franzia, Nafarroako eta Bizkaiko libruetan ondo ta trebe irakurtera». Ez ete da arratiarraren burua txikiegitxoia Kardaberaz gixajoarenari neurria artzeko?

Arratiarrak bein ta berriro darabil auzi onetan egundo atera bear ez eban berba-bikote bat: gorrotoa eta madarikatu. Jesusen Biotzaren barruan bere biotza girotu ta beroturik eukan oni ezarteko, orrexek dira berbarik gogorrenak, eta bidebakoenak. Biak arratiarrak asmauak, eta ez gai onetan Kardaberazek iñoz erabiliak. Ikusi nai dauanarentzat naiko argi dago.

Kardaberaz eta Etxeberri Sarakoa

Eztakit nondik atera dauan Etxeberri au Zarautzen sendagille izan zalakoa. Saran, Beran, Ondarrabian eta Azkoitin bai. Batez be, eta luzaroen, Azkoitin. «Eskuararen

ethorkia» izeneko liburu bat idatzi ebalakoa be eztago ain argi. Kapitulu bat, bai, titulu ori daroana badauko. Eta bertan beste kapitulu bat, «Ezkuara bertze izkuntzetarik ethorki gabekoa da» diñoana be bai. Beste titulu ori barritxoa dala uste dot. Baiña uskeri au alde batera itxirik, goazen aurrera.

Iñok eztauko eskubiderik Kardaberaz eta Etxeberri alkarren arerio egiteko. Ez ziran ez-ezagunak. Loiola Azkotitik bertan dago. Bata bestearen ondoan bizi ziran. Kardaberazek urte bat edo beste Azkoitin bertan egin zituen. Ezin izan beretzat ez-ezaguna bertako sendagillea, medikua. Alkarren adiskide andiak izan zirala esango neuke. Kardaberazek, ain zuzen, «Euskeraren Barri Onak» liburuan bertan aitutzen dau Azkoitiko mediku ori, eta «maisur famatutzat» aitatu be, «latin gauzak ere euskeraz erakusten zituena». Irakurri ete eban aren libururik? Irakurtekotan, bat irakurri eban, aurki, bere bizian Etxeberrik idatzi eta argitaratu eban bakarra, oso laburra, 40 orrialdekoa. Bear bada, Etxeberrik berak emona. Eztaigun aitzu gure gizaldi onen asieran liburutxo orren ale bi, ejenplar bi bakarrik ezagutzen zirala munduan, eta biotatik bata, Loiolan eukela. Eta liburutxo ori atxez beterik egoala-ta, jesuita onak eguiñik artu aren euskerari? Arratiar benetako bati barik, Lanbreabeko atso sorgiñen lagunen bati bakarrik emongo deutso buruak olangorik. Kardaberaz, len ikusi dogunez, euskera guztien zale eta irakurle zan, berak besteai erakutsia egiten berak be beteaz: Azkoitiko medikuaren liburu guztiak irakurria izan ez arren, (argitaratu barik egozalako) baekian seguru aren gogoaren barri, Etxeberri jesuiten maitale, miresle eta goratzaille zala. Irakurteko erarik euki baleu, pozik irakurriko zituen ak, Xabier eta Iñazio goratuaz, idatzi ebana: «bi eskualdun, bi izar argi, bi aingeru zerutik igorriak»; pozik irakurri bear eban aren jesuitenganako esker ona, Iñazio Loiolakoaren «semeen eskoletan Musatik Ergoraino ene gaztetasunean errezibitu tudan eskola eta hazkuntza» dala-ta. Non aurkitu, diño gero, «non kausituko dira irakasteko eginbide hunetan hankat presunaia, hala gazte nola zahar eta adin oraino enplegatzen direnik, nola baitira Jesusen konpainian?». «Ez xoilki Eskualherriko baina oraino arrazoinekin deit ditezke Espainiako, Franziako, Italiako, Alemaniako, Amerikako, eta antipodetako zuzi eta argi biziak». Ames txarren baten azpian dagoanen batek bakarrik egin leike Etxeberri au Frantziako Enziklopedisten kideko. Ori da urteak eta gizonak nastu bearra! Enziklopedisten lanak argitaratzen asi baiño urte bi lenago il zan bera, 1749n, Azkoitin. Enziklopedistenik ez eban ez izenik, ez usaiñik ez aizerik artu. Zelan nastu dau gure arratiarrak Kardaberazen biotzean frantzesen, enziklopedisten eta Etxeberri onenganako iguiña, dana batera?

Kardaberaz eta Enziklopedistak

Bear bada, gai onetan dauko gure arratiarrak nasterik gaien buruan. Orixe ateraten da Etxeberri Sarakoaz esan dauanetik be. Etxeberri Sarakoak Enziklopedisten barririk ezpaekian, Kardaberazek be ez asko geiago, «Euskeraren Barri Onak» liburua argitaratzean. Enziklopedista onen lana 175ln asi zan eta andik urte gitxira, agintariak jarritako eragozpenakaitik, burdia geldi samar eukirik, 1765garrenerako lortu eben 17 bat tomo ateratea, gero beste amabost urtez, lengoen geigarri ziran tomoakaz

amaitzeko. Ez ziran nai bestean ibilli; arerio gogorrik ba-euken aurrean: gobernukoak, jansenistaketa abar. Naiko zereginikeuken lana aurreraeroaten. Ori Frantzian bertan. Andik kanpora, Auñamendiz onantz aldean, zeregiñik gitxi euken oraindiño. Eta ergelkeri andia litzake Enziplopedistak Jesusen Lagundia amaitzeko sortu zirala eta atan ziarduela uste izatea. Nik uste, emen dagoela arratiarraren okerrusterik andiena. Areen irakatsiak, areen «dotrinak» ezin zeitekezan gorrotatuak izan, ezagutuak izan barik. Eta nok euken emen areen barririk, Kardaberaz bere liburuak ateraten asi zanean? Kardaberazek ez, eta gitxiago frantzesak eta enziklopedistak bat egiteraiño. Jesusen Biotzaren deboziñoaren zabaltzaille onek ez eban Frantziara amurrüz ez iguiñez begirutzen, bai esker onez, berak maite eban eta zabaltzen eban deboziño ori andik etorri zalako. Frantziak Paray-le-Monial eta Jesusen Biotza ekarten eutsazan gogora, ez Enziklo'pedistarik.

Jesuitak Frantziatik jaurtiak izatea be 1762n jaso zan, «Euskeraren Barri Onak» aterata gero, eta ez Enziklopedisten eragitez, bearbada euron pozgarri izan bazan be. Jesuitak ba-euken orduan beste arerio zarragorrik eta ain txarrik: masoiak, jansenistak, galikanoak, errege sakristauak, errege sakristautarrak, euron ministro diruzaleak eta guzur-zabaltzailleak. Auñamenditik ona be, frantzesak, enziklopedistak, erlejiño-zapaltzailleak eta abar bat egitea geroago sortu zan, gitxi gora bera Robespierre eta Dantonen egunetan. Orra zergaitik esan neban nik gure arratiarrak Kardaberaz arein egunetako egiten ebalá; ez esaten ebalá, egiten ebalá baiño.

Autortzen dot bearbada okertxo nenbillela. Zumalakarregiren egunetako egiten ebalakoa esan baneu, zuzenago ibilliko nintzan. Ezteusku, bada, esan bape ikara barik tradizionalista gartsua zala: «Jainkoa, Aberia, Erregea» lematzat artzen ebe-netakoa, errege absolutotarra? Eta lema ori eta politika ori noztik onakoa da, Zumalakarregiren egunetatik gerokoa baiño?

Gaiñera, Jesuita bati errege absolutotarra dala ezarteak batez be Kardaberaz egunetan, badau bere barregarritzko aldetxoa. Gauzarik jakiñena da errege absolutoak ziralakoentzat beti izan zirala jesuitak gorrotagarri. Errege absoluto orreek jaurti ebezan, ain zuzen, bai Portugaldik lenengo eta Frantziatik eta Españatik gero. Zergaitik? Ez errege absolutotarrak izategaitik, arein aginpide osozkoarentzat atzeragarri eta eragozpide ziralako baiño. Errege absoluto baten aginduz joan zan Kardaberaz bera be atzerrira eta atzerrian il. Ez errege absolutotarra zalako.

Ona emen nire kontua emotea gure Gorbeapekoarentzat. Argitasunik naiko emon dodala uste dot onek esandakoen ganorarik-eza erakusteko. Karmel-go idazle oni min emon deusan nire artikuluan nik Robespierre eta Danton aitatutea pekatu txikitxoa izan zala be naiko argi gelditu dala uste dot. Zumalakarregi edo onen ingurukoan bat aitatu baneu, oba neban.

Ez al da beste bein Karmel-en orrietan olango ganorabakokerien neurrikorik idatziko. Markiñako semolari batek esan eban lez, astoak eta papelak gaiñean ezarten dautsen edozer eroaten badabe, gure aldizkaritxo onen orriak, eta batez be euron irakurleak, min artu leie. Iñoren etxera artzen gaituenean, ezta gizalege ona andik auzokoai eta gitxiago etxekoai eurai arrika astea, ezereen ardura barik. Eta arrika asten danak kontu euki bear dau arriokaz bere buruaren ganera jausi eztakiozan. Gitxienez orrenbesteko ardurea eukitea guztiontzat izango da ona.

TESTIMONIO DE AIZQUIBEL SOBRE EL AUTOR DE «GAVON-SARIAC». ¿OTRA OBRA TEATRAL MAS DEL CONDE DE PEÑAFLORIDA?*

El testimonio que aquí presentamos sobre la identidad del autor de *Gavon-sariac*, esa especie de opereta navideña impresa en Azcoitia en 1762, es, a lo que se nos alcanza, inédito y desconocido. El P. Villasante, que parece querer resumir el estado de esta cuestión en su *Historia de la Literatura Vasca*, no hace mención de él.

El problema de la paternidad de la citada obrita hoy por hoy está en los términos siguientes. *Gavon-sariac* vio la luz primera a nombre de una Luisa de la Misericordia. José Manterola, el fundador y director de la revista *Euskal-Erria*, informando acerca de ella en las páginas de la revista (año 1883), emite la opinión de que Luisa de Misericordia es un seudónimo y que el verdadero autor de la obra es indudablemente el Conde de Peñafiorida, Francisco Xavier de Munibe. No dice en qué funda su opinión.

El jesuita P. Arana, al reproducirla en la misma revista el año 1889, disiente del sentir de Manterola y cree que no hay motivo para afirmar que no se trata de una mujer azcoitiana, con vena de poetisa, relacionada con el Hospital de su pueblo. Se apoya únicamente en las afirmaciones del prologuito que precede a la obra, prologuito que cree que Manterola no lo leyó, tal vez por poseer algún ejemplar incompleto. El reproducía el texto íntegro, copiándolo de un ejemplar incompleto prestado por un señor de Bilbao, D. Benigno Órbegozo.

Ultimamente, D. Manuel Lecuona, aceptando el seudonimato de la Luisa, se ha inclinado a considerar por el verdadero autor al P. Manuel de Larramendi.

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 18 (1962) 430-432. «L. de A.» izenpean.

La opinión del autor del *Diccionario Basco-Castellano* Aizquibel es, valga lo que valga, cronológicamente bastante anterior desde luego a la de los opinantes antes mencionados y, sobre ser la de un azcoitiano, que pudo tener otras fuentes de información en los medios azcoitianos de los que sea tal vez reflejo, viene respaldada por el testimonio de uno de los marqueses de Narros.

Nos limitaremos a trasladarla aquí, copiando sus palabras de una copia manuscrita de la obrita, hecha por Aizquibel, existente en la Biblioteca de la Diputación de Guipúzcoa, proveniente de la Biblioteca de Julio Urquijo. He aquí la nota que Aizquibel pone al frente de su copia:

«Aunque en el prólogo dice que son de la Luisa, sabemos por el Sr. Marqués de Narros, D. Francisco X. de Aguirre, que el autor fue el Sr. Conde de Peñafiorida.»

Y, acabados de copiar los versos todos, insiste en la misma afirmación, manifestando y razonando esta vez su propia opinión:

«Estas canciones, aunque están impresas en nombre de la Luisa, son compuestas por el Conde de Peñafiorida, fundador de la Sociedad Bascongada, que en aquel tiempo vivía en Azcoitia, y se conoce claramente en que usa de los dialectos Guipuzcoano y Vizcaino, es decir, del de Marquina y Azcoitia.»

Aparte de los *Gavon-sariac*, otra obra más inédita ha sido atribuida al Conde de Peñafiorida, de la que no sé se haya ocupado nadie desde que el P. Joaquín Azpiazu reveló la existencia en una conferencia en las fiestas vascas de Santesteban el año 1923, publicada en *Bigarrego Euskalegunetako Itzaldiak Donezteben* (Gaubeka, 1926) con el título de: «Euskera zarraren apurtxoak». Es, al decir del conferenciante, una obra teatral, compuesta para Navidad (por más que, por el resumen que el Padre hace de su argumento, no se ve su carácter navideño), escrita en un lenguaje sabroso y popular, y en dialecto vizcaino. El P. Azpiazu dice haberla hallado ese mismo año de 1923, y piensa en el Conde de Peñafiorida como probable autor, al que considerará como el verdadero precursor del teatro moderno, netamente vasco, ya que esta obra está toda ella escrita en euskera y *El borracho burlado* es bilingüe (y, añadimos por nuestra parte, el mismo *Acto de Navidad*, de Barrutia, aún prescindiendo de sus castellanismos que el P. Villasante afirma «son sobre toda medida», tiene trozos castellanos).

Pero, ¿qué se hizo de la promesa que el feliz descubridor de la obra formuló de darla cuanto antes a la estampa, para que todos conocieran y pudieran saborear aquella linda muestra de la literatura vasca del siglo XVIII?

LA QUADRA VILLALON MONTAÑO*

EUSKAL-IDAZLE

Euskal-idazle.—Noz edo noz eldu jako idazle oni plazara agertzeko ordua. Nok esando leuke abizen orreik dituena euskal-idazle izan dogunik? La Quadra, Montaña, Villalón abizenak euki eta euskaldun eta euskal-idazle, gaiñera? Ez da errez siñis-tekoa.

Baiña egia da: euskalduna eta euskal-idazlea da, eta Bilboko semea. Bilbotar izan diran euskal-idazleen izendegia geitzera dator, gaur, Nikolas de La Quadra Villalón Montaña Errekakoetxea. Tira! Ez da dana erdal-usaiñekoa bere. Errekakoe-txe beintzat oso etxeko egiten jaku. Baiña berak, gauza au nabarmengarriago egi-tearren edo, azkenengo abizen ori ixildu egiten dau beti eta beste irurak erreskadan jarten ditu. Aitarenak alde batetik: de La Quadra Montaña, eta amarena bestetik: Villalon.

* * *

Bilbotarra.—Bilbotarra dogu bera, eta Bilbon, Areatza inguruan, San Nikolas Parrokiaren mugabarruan jaioa, 1713-III-24-n.

Aita, Nikolas Antonio, Somorrostro erri erdaldunduko seme izan eban; ama, Manuela Villalón, Bilboko alabea.

Aitaita-amamak, aitaren aldetik, Migel eta Zezilia, Somorrostrokoak biak; amaren aldetik, Manuel, Bilbokoa eta Maria, Iurrekoa. Agiri danez, odolik geiena So-

* Zer (1978, 11.zenb.) 16.

morrostrok emon deutso. Bateoan, aitaren eta amaren izenak, biak artu zituen: Nikolas Manuel.

* * *

Frantziskotar eta Sermolari.—Ez dakigu noz, ez dakigu non, baiña frantziskotarra egin eta izan zan Bilbo'tar au, gero Aita J. Mateo Zabala izango zan lez. Bear bada, gaztetxorik fraidetu zan.

Bilbok errekearen andiko aldetik, aurrez aur, dingilizko zubia bitarte, frantziskotarren etxe ederra eukan, ikastetxe ospetsua, «Colegio Imperial» izen andikoa.

Ango prailleak ez zituen ez-ezagun gure Nikolas Manuel gazteak, eta ezagutze orretatik sortuko jakon prailletako gogoia. Beste aztarren eta argibiderik ez dogun bitartean, geiago ezingo dogu esan.

Azkenengo urteetan, imrogeta amar urtetik gora ebillela, Bermeon aurkitzen zala besterik ez dakigu, lumea eskuan ebala, euskerazko liburu bi idazten eta argitaratzeko asmotan. Artean, Bizkaia osoa arakatuta eukala dirudi, sermoegiñan eta olan. Auxe ateraten da bere liburu bati ezarri eutsazan eraskin eta argibide batzuetatik.

Orregatik, Bizkaiko euskerea ondo ezagutzen ebala agiri dau, erri batetik besterako ez-bardintasunik geienakaz, ezagutu bere.

Euskal-idazle.—Liburu bi itxi euskuzala esan dot.

Bata *Dotrina* edo *Kristiñaubaren Jakinbidea* da; bestea, ondo ilten laguntzekoa.

Ez bata ez bestea ez dira iñongo erderatik euskeratuak, biak berak ikasi eta ekianetik atondu eta moldatuak baiño. Bermeo, Mundaka eta inguruetako erriak gogoan zituela egin ditu, Bizkaiko euskararik zabalen eta erabillienean.

Liburu biokaz, bein erririk erri sermolari ibilteko gauza ez zala gelditu zanean, Bizkaiko kristañau zintzoai laguntzen jarraitu gura izan dau. Baiña... liburuak argitaratzea ez zan egitea baixen errez.

Ezin argitaratu.—«Bai, baiña» andi bat, eragozpen gogorra sortzen jake praillearen asmoai. Madrilgo agintariak gero ta gogorrago jarten dira eta euskerazko liburuentzat ez dabe baimenik emon nai.

Joan da, atzean gelditu da Mendiburu eta Kardaberaz-en egunik onenetako erreztasuna. Kardaberazi berari be ez eutsen itxi bere azkenengo liburu bat ateraten, gure Patroi andiaren bizitzea. Irurogei bat urte geroago, Gerriko sermolariak ez eban euki bere liburuak ateraterik. Baimena emoteko, Madrildik Erregearen albotikoak erderazko itzulpena eskatzen eutsoen.

Gure frantziskotarrari jazioa orduko goietako agintarien gogoia erakusteko be-rebizikoa da. Bizkaitar bi agertu jakozan diru-laguntza emoteko. Madril-aldera be jo eben baimen-eske. Eta zer da erantzuna? Berak diñosku: «Eskatzea eta ukatzea bat izango zala». Zetako euskerazko liburuak? Kristiñau - dotriñen bategaz naiko eben, eta ori ba-euken.

Egun obeen zain.—Orraitio, Aita La Quadra onen gogoia ez da kikilduko.

Liburua argitaratuta ikusi barik ilgo zan, baiña ez itxaropena osoan galdurik, egun obeen argitxo bat susmau barik.

Au be berak diñosku: «Munduko gauzak ez dagoz beti batean, eta baimena lotzeko egun oberik etorri leiteke. Bien bitartean, ni ilda gero liburu au eskuratu dagianak ez begi eskutik galdu, neure irurogeta amabigarren urtean ainbeste neke emon deustana da-ta».

Ez da galdu.—Laster dira berreun urte Aita La Quadrak bere euskal-lana amaitu ebala. Liburu bioi ez jake argitara urtetako ordurik eldu baina ez dira galdu.

Or diraue, gauza bi salatzen: euskalzale baten zintzotasuna eta euskereak orduan zituen arerioen gogorkeria. Or dagoz frantziskotar onen lan biok: batak, *Jakinbideak*, 124 orrialde ditu, eta besteak 148. Biak eskuz letra argi ederrez idatzita.

Besterik ezean, egillearen itxaropen guztiak bete ez badira be, beioakio gure gomutatxo eta aitamen onen omenaldia idazle ixil eta itxaropentsu oni.

Euskal-idazle izan diran antziñako bilbotarren artean ez dira bakarrik gelditzen Mikoleta abadea eta Aita Zabala. Lagun bat geiago dabe. Emen dator Aita Nikolas Manuel de La Quadra Villalón Montaña Errekakoetxea, bataren eta bestearen arteko utsunea beteten.

DE BIBLIOGRAFIA MOGUELIANA*

Don Juan Bautista de Eguzquiza en *RIEV*, año XIX, p. 149, el Dr. Justo Gárate en *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel*, p. 104, y Juan San Martín en su *Mogel, bere bizitza ta lanak*, p. 47, informaron acerca de una obra inédita del ilustre escritor vasco Juan Antonio Moguel, titulada *Christinaubaren eracuspena edo Doctrina christiania*.

El último de los autores citados dice de ella que se ha perdido su rastro. Pues bien, para satisfacción suya y de los admiradores todos de Moguel, diremos que dicha obra manuscrita se halla en la biblioteca del Seminario Diocesano de Bilbao, a donde fue a parar no hace mucho, procedente de la biblioteca de Juan Bautista de Egusquiza.

El señor Eguzquiza, que había nombrado a los antiguos poseedores de este manuscrito mogueliano, se olvidó de indicar que él era el poseedor en el momento en que escribía para informar de él, por lo que ha sido buscado sin duda donde no estaba. De los herederos del académico Egusquiza pasó luego al Seminario de Derio, donde ahora se halla.

El P. Villasante, en contra del P. Ruiz de Larrínaga, trata de probar la no existencia de una edición vizcaína de *Confesino ona*, del mismo Moguel, más completa que la primera, con la edición de las instrucciones referentes al sacramento de la Eucaristía, conforme en todo a la primera edición guipuzcoana de la citada obra (*Historia de la Literatura Vasca*, p. 264). Pero todo el aparato conjetural en que quiere basar sus dudas sobre la existencia de dicha edición se viene abajo ante el hecho de que tal edición existe y salió de la imprenta de los hijos de Juan E. Delmas, el año 1853. Lleva el mismo título que en la edición primera, pero en cuanto al

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 21 (1965) 90-91. «L. de A.» izenpean.

contenido incluye las cinco instrucciones sobre la comunión que tienen las ediciones guipuzcoanas, adaptadas al vizcaíno, al parecer, por el P. José Antonio de Uriarte.

Al presentar y enumerar las obras de este escritor franciscano es cuando el P. Villasante se plantea este problema histórico-bibliográfico, inclinándose por la no existencia de esta edición, que el P. R. de Larrínaga fechaba hacia el año 1851. Es el caso 'que si el P. R. de Larrínaga vacilaba en cuanto a la fecha, en cuanto a la sustancia del hecho estaba en la verdad.

Nuestros bibliógrafos nos han dado pocas precisiones acerca de *Confesino ona*. Vinson, que al publicar el primer tomo de su *Bibliographie basque* no conocía ninguna edición de esta obra, advierte sin embargo, que al parecer habían salido de ella cinco ediciones. Para cuando publicó el segundo tomo, pudo dar detalles de su primera edición, en 1803, en Vitoria, en la imprenta de Fermín Larumbe. No parece haber conocido esta edición de Bilbao, hecha por Delmas. Sin embargo, no es difícil hallar ejemplares de la misma, tanto en bibliotecas particulares como públicas. El catálogo impreso de la sección vascongada de la Biblioteca Provincial de Vizcaya la registra en el núm. 4.874.

Esta edición se presenta como la segunda de la obra, pero más bien habría que considerarla como la primera y única por razón de las ediciones en ella insertas, que ninguna de las ediciones posteriores, una en Tolosa y otra la de *Euskahale*, tuvieron en cuenta.

MOGEL EUSKAL IDAZLEAK NONGOAK DIRA?*

Iru Mogel dabiltz izen eta ospe anditan euskal idazleen maillan Juan Antonio (1745-1804), Joan Jose (1781-1849), eta Bizenta Antonia (1782-1854). Azkenengo biok Joan Antonio osaba dabe eta eurak, Joan Jose eta Bizenta Antonia, neba-arrebak dira. Aurten da Joan Jose jaio zaneke bigarren eunurteburua, ospe andiegirik barik joakuna, benetan.

Nontarrak doguz iru idazleok? Irurok etxe batekoak izan arren, erri banatako egin deuskuez; bakotxari bere jaioterria izentau deutsoe. Bata, zarrena, eibartar andi ei da, bigarrena Debako seme argi, eta irugarrena, Azkoitiko alaba jatorra, bere euskera, Azkoitikoa, landu ebana.

Gauzea erabagitzat dago. Bataio-agiriak argi ei diño. Zetara dator, bada, gure itauna? Bataio-agiriari ez deutsegu siñisterik ukatu nai. Baiña bataio-agirien argitasunak gora bera, kezkatxo bat gelditzen jaku: agiri orreitan, guzur garbirik ezpada be, egia be ez dana estaldu leitekkelako susmoa, jaiotza utsari balio edo indar larregia emon geinkeolakoa.

Antziñako aldietan gauza au ez zan ain erraz erabagiten. Mundura etorren edozeiñen erritartasuna ez eban jaiotza utsak emoten. Eta gaur be ez askotan. Seingintzarako Bilbora doan edozein andren seme alabak ez ditu iñok geiagoko barik bilbotartzat artuko. Ercilla, Araucana poemaren egillea, Madrillen jaioa ei da. Baiña berak ez eukan madriltartzat bere burua, Bermeotar eta Bizkaitartzat baiño. Zubiaurre margolariak, bata Garai errian eta bestea Madrillen jaiok dirala-ta, biak Bizkaitar egiten dabez, bata be ez Gaztelar. M.J. Salaberria, erdal-idazlea, gurasoak Valencian zirala, an jaioa izan arren, iñok ez dau ango seme egiten. Neuk be ezagutzen ditut adiskide batzuk, neure auzoko eskolan irakasle izandakoen seme-alabak, euskaldunak, eta bataio-agiria eta jaiotza-agiriak an jaiokak dirala esango dau, baiña auzoak ez ditu

* Zer (1981, 48.zenb.) 8-9.

angotzat eta eurak be ez dabe euren burua nire auzokide egiten. Gaur, zenbat ete dagoz or bazterretan, Euskalerrian jaio arren, ez euren eretxian ez besteenean emengo semetzat ez dagozanak? Bizibideak edo bizibearrak ekarri ditu emen jaiotera, eta gauza berak eroan ditu gero emendik kanpora, emen ezelango sustrairik bota barik.

Mogeldarrakaz jazioa

Orra Mogeldarrakaz jazioa: or nonbaten jaio eta beste nonbaitekoak izatea.

Mogel, abizen au, kanpotik etorria da gure artera. Ona etorri baiño gizaldi batzuk lenagotik ezagutzen ziran abizen au ebenak Nafarroako, Milagros-tik Errioxako Al-faro biartean. Alango baten, bizibideak eroanda, (osalari zanez), Aragoiko lurraldeetan naiko barru sartzen dira, baiña ez luzaroko. Barriro Alfaro-Milagros aldera datoz, eta Arabatik zear. azkenez, Bizkaiko Markiñara.

Markiñara

Markiñara lenengo etorritako Mogel erdalduna zan, baiña laster egiten jaku euskaldun, batez be ondorengoetan. Markiñan ipiñi dabe etxea, Markiñan dabe biotza, Markiñako alabak artzen dabez emazte (Urkiza eta Elgezabaldarren artetik), Mogel abizenari emengo euskal-abizenak erantsiaz. Aurrekoen bideari jarraituz, medikuntza, osalaritza, dabe euren bizibidea. Markiñan edo Markiña inguruan beti. Euren etxetik urtenaldi batzuk egingo ditue, baiña Markiñan daben kabira biurtzeko. Usoak lez, kanpoaldera egaztatatxoa egin, eta barriro lengo usategira.

Olantxe jazo jakon Joan Antonio Mogel, Peru Abarka liburu ospetsuaren egileari, Eibarren jaioa izatea, eta urrengo anai bati, Joan Jose'ren aita izango zanari, Deban mundura etortea. Baiña bata eta bestea, ume-umetan Markiñara doaz euren gurasoakaz, Markiñan azi eta bertan bakotxak bere bidea artzeko, batuk abadeztarakoa, eta besteak osalaritzarakoa. Joan Antoniok baiño ez eban gorde bere gurasoan (eta bere) erbestealdi orren gomutarik. Orregaitik edo idatzi eban bein bere «zati bat zala giputza». Zortzi urte zituen Markiñaratzean, eta geien batez Debako urtea zituen aurki gogoan, ori esatean.

Joan Jose eta Bizenta Antoniaren gogoetan jaio ziran errietako gomutarik ez zan gelditu. Joan Josek urte bete egin eban Deban, eta berak eta bere arrebatxoak beste urte bete Azkoiti-Zestua aldean. Emen aita gazterik ilten jake, eta nora joko dabe? Ama alargunaren besoetan, Markiñara. Ez Eibarren, ez Deban, ez Azkoitin ez dauke etxerik. Markiñan bakaTik. Markiñara doaz, markiñarrak diralako, beste iñon errorik edo sustrarik ez daukelako. Markiñatik kanpo, pasatxoriak, aldako usoak izan dira. Beste erri orrek ez deutse jaiotza besterik emon, ez benetako errirtasunik. Erriz eta euskaraz, amaren altzoan ikasitako euskaraz, Markiñarrak dira.

Gauza bitxitxoa, orraitio, aurtan irakurri doguna: Bilboko Aurrezki-Kutxak zabalduetako erdai-liburu baten ez deusku, bada, norbaitek esan Bizenta Antonio Moglek bere ipuin-liburua bere jaioterriko, Azkoitiko euskeran idatzi ebalu? Urtebete

egin bako umetxoak, berbaz ikasi bakoa, ango kaleetako euskeraren jakitun? Olan-goxe utsak eragiten ditu jaiotza-agiriai jaramon larregi egiteak. Bizenta onen Ipuiak zelanbaiteko gipuzkeraz idatzita dagoz, baiña ez egilleak bere eban euskeraz.

Egia da Peru Abarka'ren egilleak be zelanbaiteko gipuzkeraz egin eta argitaratu ebala bere lenengo liburua, baiña berak esan euskun zegaitik egin eban ori, Bizkaiian euskera irakurteko zaletetasunik ikusten ez ebalako, Gipuzkoan añakorik, beintzat; orregaitik jo eban gipuzkerara lenengotan, eta gipuzkerara jo eragin eutsan bere lobatxoari, ipuiñak idazten lagundu eutsanean. Osaba orrek lagunduta egin zituela be ez dogu aitzu bearko.

Ez daiguzan gauzak nastau. Eta ez daigun esan, geiagoko barik, esaterako, ama alarguna eta umetxoa osaba abadeak Markiñara jaso zituela. Abadea barik be, Mogeldarrak eta Elgezabaldarrak ba euken nok artu eta nok jaso Markiñan. Aitaita osagillea be bizi eben ondiño. Ez ziran eskale lez, erruki eske Markiñaratu. Euren etxera joiazan.

Mogeldarrak ez daiguzan guzurti egin

Mogeldarrak eurak autortu eben euren erritartasuna, nontarrak ziran: Markiñarrak zirala. «Natural de Markina» autortu eben euren burua, osalari edo abade egiteko ikasten asi ziranean, atarako izena emokeran. Eta erantzun ori emokeran, ez eben guzurrik esan. «Natural de Markina» esateaz ez eben esan gura Markiñan jaiokak ziranik, batzuk arrituarena egiñik uste dabenez; baiña bai Markiñan eukela etxea, Markiña zala euren erria, Markiñarrak zirala, benetako Markiñarrak, orraitio, ez an egote utsez, benetako izatez baiño. Eurak ez euken erritzat ez Eibar, ez Deba, ez Azkoitia. Uri oneitan erbestekotzat egozan.

Orra, bada, Mogeldarren euren erantzuna asierako itaunari. Orra orduko gizar-tearen erantzuna, eta baita, askotan lez, gaurko gizar-tearena, jaiotza-agiri batzuk gorabera. Nontarrak diran Mogel euskal-idazleak? Irurak Markiñarrak.

ARTARLOA, POETA*

El P. Antonio Zavala, en su *Bosquejo de Historia del bersolarismo*, p. 34, ha aludido a «una composición impresa en hoja volante, que es una elegía a la muerte de Carlos III y coronación de Carlos IV».

Se refiere indudablemente a unos versos en vascuence, que aparecieron en un folleto con el título de *Versos a la proclamación de nuestro augusto monarca Don Carlos IV (que Dios guarde), ejecutada so el árbol de Guernica el día 18 de febrero de este presente año de 1789*. Se publicaron en Madrid, en la imprenta de Aznar, precedidos de «un soneto a las exequias del señor Rey Don Carlos III (que está en gloria), compuestos por unos aficionados del País», y seguidos de *El Arbol de Guemica*, «romance endecasílabo de don Lorenzo de Aldecoa».

La revista *Euskalerraren Alde*, año 1921, desde las páginas 307, los reprodujo todos ellos, precedidos de esta nota: «Por la curiosidad que encierran reproducimos hoy, sin más variación que la de adaptar el texto a la moderna ortografía, las páginas del folleto, ya raro por su escasez, que se publicó en Madrid en el año 1789...». Para completar la información digamos que los versos vascos en cuestión no aparecen en el folleto como originales, sino como traducción de otros en dísticos latinos, cuya versión castellana también se da, y que llevan en abreviatura esta firma: D.P.P.A.

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 21 (1965) 95-100. «L. de A.» izenpean.

He aquí ahora el texto vasco, reproducido en ortografía moderna;

*Karlos irugarrena
Zorionekua,
Urte elduz beterik
Zerurantzza dua.
Eta Jaungoiko onak
Karlos onen orde
Beste Karlos bat deusku
Errukior gorde.*

*Bata zeru altuban
Izarren ganeti
Zorion betikuan
Gozoro da bizi;
Bestiak bigun ezti
Aita ona legez
Mundu bi baten ditu
Zuzenzen amarez.*

*Bizkai guraso sendo
Martitz emalliak
Erroma arrotubari
Makurtu bagiak
Gaztelako errege
Karlos laugarrena
Pozez beterik diño
Dala bere jauna.*

*Aretx zorioneko
Baten gerispian
Lauburu subertetsu
Santuben aurrian
Eskutari zaldunak
Guraso zaarrakaz
Zabaltzen dabe poza
Ganez audiakaz.*

*O, bein da milla bidar
Subertez betiak
Bizkaitar inoz inok
Garaitu bagiak,
Zeintzuk gozo ta bigun
Otzan da amoretsu
Zaituban Jaungoikoak
Borbonegaz batu.*

*Beraz, zaar ta gastiok
Gustiok batera
Zeuben diedar bigunak
Jasorik zerura,
Esazu gure eraldi
Onaren gloriya:
Bizi zadiz jaun Karlos,
Prinzipe andiya.*

Esta es la versión que da el folleto madrileño. Las palabras, arriba citadas, del P. Zavala, dejarían entrever la existencia de otra edición en hoja suelta, que tal vez tuviera algunas variantes de poca monta, como diremos luego.

^Quién fue el autor de estos versos vascos en honor de Carlos IV? ^Quién se oculta tras esas iniciales: D.P.P.A.? No sé de nadie que se haya planteado siquiera esta cuestión, si no es J.F. de Aizquibel, el cual la plantea y resuelve a mi ver satisfactoria y plenamente en un manuscrito existente en la Biblioteca Provincial de Guipúzcoa, procedente de la de don Julio de Urquijo. Se trata de una colección manuscrita de poesía vascongada; en ella, juntamente con cantares recogidos del pueblo, algunas canciones de los famosos plateros de Durango, etc, copió también Aizquibel los versos vizcaínos a la proclamación de Carlos IV, tomándolos del folleto de Madrid, y afirma sin vacilación alguna que el nombre que se oculta tras las iniciales de la firma no es sino don Pablo Pedro de Astarloa. (Otra firma más aparece en abreviatura en el folleto madrileño: D. J.A.I.R., al pie de otros versos en castellano; corresponde indudablemente al nombre de don José Agustín Ibáñez de Rentería,

miembro conspicuo de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, que por aquellas fechas desplegó alguna actividad literaria, tanto en verso como en prosa).

Creo que no hay reparo alguno que oponer a la afirmación de Aizquíbel: Astarloa es el autor de los versos consabidos o, si se quiere, traductor al vascuence de los dísticos latinos.

A mi modo de ver, la misma forma anónima que para citarlos emplea en sus *Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua* confirma esa paternidad. En efecto, los cita Astarloa para ilustrar sus afirmaciones sobre los diptongos vascos en la página 541. «Pongamos, dice... dos zortzicos de la misma naturaleza, y son los primeros que el señorío cantó en la coronación de nuestro augusto Monarca (que Dios guarde)». Y a continuación inserta las dos primeras estrofas de nuestra poesía. Pero, el mismo pudor que le llevó a ocultar su nombre en el folleto madrileño, o el interés, si se quiere, por no dar muestras de querer probar o ilustrar sus asertos con ejemplos propios, le movieron a guardar el anonimato, a no manifestar su paternidad.

Hay algunas variantes en su versión, con respecto a la versión del folleto de Madrid: *amarez* por *errukior*, *olguraz* por *gozaro*, *gozo* por *eztí*, y *subertez* por *amorez*. Estas mismas pueden obedecer a una de estas dos cosas, o a ambas a la vez: a que Astarloa trata su texto con la libertad que le da su autoridad de padre y autor, o a la existencia de una doble versión, la de Madrid y otra, a cuya posibilidad hemos aludido antes, con el texto algún tanto modificado.

Esta forma anónima de citar sus propias producciones a que Astarloa recurre, nos llevaría a atribuirle la paternidad de otras poesías que aparecen citadas en sus obras.

Sea la primera una que en su *Plan de lenguas* figura como de un poeta marqués:

*Aupadatu zenduban,
au zorakeriya,
zertara ta pelotan
Markiña guztiya.
Aupada ero orreek,
Motriku, esazu,
Eztitu bada beti
Markiñak auzpazu?*

Puede verse en el extracto que del *Plan de lenguas* hizo Humboldt y publicado por el Dr. Justo Gárate en la *Revista Internacional de Estudios Vascos*, año XXVI, p. 100. Pues bien, ni siquiera tenemos aquí necesidad de recurrir a hacer conjeturas personales, el mismo Humboldt nos asegura (*Diario del viaje vasco*, publicado en la misma revista, año XIV, p. 209) ser Astarloa el autor de esos versos satíricos sacados con motivo de un partido de pelota.

Sabiendo este procedimiento suyo del anonimato, nada aventurado será hacer a Astarloa padre y autor de otra poesía, cuya primera estrofa nos da a conocer en sus *Discursos filosóficos* (página 540):

*Uaua gozuaren
 Altzuan jarriric,
 Gau baten nenguala
 Olguraz beteric.
 Ames baten bitartez
 Jatan iduritzen
 Batzaar andi baten
 Nintzala aurquitzen.*

El título de esa poesía es: «*Guizon gustijen batzaarra*», esto es, Junta o Congreso de todas las naciones, que es como lo traduce Astarloa, quien nos comunica que la traslada de un manuscrito que se halla en su poder. No nos señala otra fuente, sin duda por no poder alegar ninguna otra. La pena es que no nos ha transmitido sino esa única estrofa. A juzgar por el título, la poesía prometía ser interesante para nuestra época. Y de todos modos, si no para hacer de Astarloa un precursor de la Sociedad de Naciones o de la ONU, podía habernos servido para conocer mejor una nueva faceta de este ilustre durangués tan discutido.

Hace muy poco ha aparecido un cuaderno manuscrito que contiene trece canciones de los conipaisanos y contemporáneos de Astarloa, los famosos plateros de Durango, por cierto en el mismo orden en que las enumeró Trueba en la revista *Euskalerrria*, el año 1884. Su afortunado poseedor era otro hijo de Durango, don Francisco de Uriarte, organista-coadjutor de la parroquia de los Santos Juanes de Bilbao, a quien agradezco desde estas líneas el regalo que con él me hizo.

Desearíamos una suerte semejante a los manuscritos de Astarloa, que contribuirían indudablemente a dibujar con más precisión los rasgos de su personalidad en el campo de las letras vascas, que no es, desde luego, la de un mero admirador contemplativo de las excelencias de la lengua. Por desgracia para él, apenas se conoce de su obra sino lo que ha contribuido a darle esa fama. Pero hay algo más que eso en Astarloa. Hay en él algo más que entusiasmos admirativos por las excelencias y filosofía del vascuence. Por encima de eso y por encima de las sutilezas inconsistentes de sus etimologías a base del significado natural de las letras, hay también una línea de sentido práctico y realista en el plan general de su obra, que era el de darnos una gramática y diccionario completos de la lengua vasca y no descuidó el cultivo de la misma. La gramática, hoy perdida, la tenía terminada para el año 1801 y de ella pudo hacer Humboldt el extracto al que antes hemos aludido.

Entonces cayó en la trampa que a su alma de vascófilo herida tendió Traggia y se dio á escribir y a publicar, desviándose de sus propósitos primeros, esas obras suyas de carácter polémico-apologético que todavía son las únicas que de él se conocen. Y cuando se disponía a preparar su diccionario, la muerte vino a interrumpir sus propósitos y trabajos en edad en que aun podía prometer mucho, sin habernos dejado sino dos listas de palabras ordenadas por orden alfabético, sin su significado correspondiente. Estas listas se hallan actualmente, y al parecer desde muchísimos años atrás, en el Archivo Provincial de Vizcaya. Una de ellas abarca todo el abecedario con un total de 11.743 palabras, y la otra, que parece un intento de ampliar la anterior,

Nos referimos, no a su actividad de tal, sino al título de escritor que en la Orden obtuvo, título que acompañado de patente otorgaba el Definitorio General y daba ciertos derechos e imponía ciertas obligaciones. Es otro secreto de la legislación carmelitana de la época.

Diversos decretos fueron fijando sus condiciones y obligaciones. Era oficio incompatible con el de prelado o superior de una casa. El poseedor del título tenía que presentar todos los años al Definitorio General cuanto durante el año había escrito, para que en vista del trabajo realizado el Definitorio acordara si convenía o no prorrogar la patente. En vida del Padre Bartolomé, el año 1799, se acordó que en adelante no se concederían patentes de escritores a los que lo solicitasen sólo para escribir pláticas o sermones. Y los que la hubieren obtenido deberían presentar a cada Definitorio los trabajos hechos desde el anterior, y de no renovárseles, debían considerar la patente caducada.

Así estaban las cosas cuando el Padre Bartolomé debió de solicitarla por vez primera. Era el año 1815. La segunda vez sería el año 1831. Son datos que debemos a la diligencia y amabilidad del P. Higinio de Gandarias, el cual los ha sacado de las actas manuscritas de los Definitorios de San Joaquín de Navarra, que hoy se hallan en Burgos en el llamado Archivo Silveriano, ms. 194, f. 525 v. Ambos datos constan en la misma acta, que dice así:

«Inmediatamente se leyó otro (memorial) del P. Bartolomé de Santa Teresa, que pide pase a N. Venerable Definitorio General, en el que pide patente de escritor, o se le renueve la que obtuvo en el 1815, despachado en nuestro convento de Nules. Este Vº Definitorio decretó por votos secretos pase a N. Vº Definitorio General con la advertencia de que, si en el próximo Capítulo Provincial fuese elegido Prior, podría suspendersele, si a sus Reverencias les pareciese justo».

Tenemos, pues que en 1815 solicitó y obtuvo por primera vez la patente deseada. Fue entonces el período de máxima actividad de escritor en su vida y en que cuajó lo mejor de su obra vasca.

Pero, ¿qué otra obra tendría en proyecto cuando en 1831 solicita la renovación de la patente? Mucho nos gustaría poderlo saber. Pero es un secreto que nos será muy difícil desvelarlo ya.

La fecha de su muerte

En el artículo a que se ha aludido al principio nos inclinábamos a retrasar la muerte del Padre Bartolomé a una fecha posterior al 1835. Nuestras conjeturas en este punto se ven confirmadas a la luz de otros datos procedentes de Burgos.

Una vez más, debo al Padre Gandarias, diligente investigador de archivos carmelitanos, el nuevo dato que corrobora mis sospechas de entonces. Lo ha descubierto en otro registro de defunciones de religiosos carmelitas, existente en el Archivo Silveriano ms. 195. En él puede leerse que el Padre Bartolomé de Santa Teresa falleció en Lazcano en enero de 1836. No se anota el día. Y se confirman los otros datos del manuscrito de Lazcano: natural de Marquina-Echevarría y profeso (no profesor, corao por errata se dice en el artículo anterior), de Corella. Esto último quiere decir que hizo su noviciado religioso y profesión en Corella, y no en Lazcano, como se había afirmado. Afirmación que del P. Onaindía había pasado al P. Villasanté, pero que no era sino una suposición gratuita fundándose en que el Noviciado para los aspirantes de las zonas de Guipúzcoa y Vizcaya fue desde algún tiempo el de Lazcano; pero, como se ve, la norma tenía sus excepciones.

El choque con Iztueta

Entre Iztueta y los padres carmelitas de Lazcano hubieron de mediar excelentes relaciones. Y no podía ser de otra manera, si es verdad, como parece, que el hijo de Zaldibia recibió cierta formación entre los frailes de Lazcano, al igual que otro escritor vasco contemporáneo, Lardizábal.

Creo que está demostrado que en el origen del embrollo entre Iztueta y Bartolomé jugó gran papel un malentendido del primero. Iztueta interpretó mal unas palabras del Padre en su *Plauto Bascongado*. No vio que aquellas palabras apuntaban a Léccluse. Tomarlas como un ataque al libro sobre las danzas vascas de Iztueta y hasta a las danzas vascas en general era sacar las cosas de quicio. Muchos han debido de entender así la postura del carmelita sin haberle leído. Tal hubo de ser el caso de Santiago de Unceta, uno de los censores de la obra del maestro de danzaris de Zaldibia. D. José de Garmendia acaba de publicar en su *Iztueta inédito*, publicado por la Gran Enciclopedia Vasca, una carta suya a Iztueta, tratando de consolar a su patrocinado rebajando los conocimientos del P. Bartolomé en cuestión de vascuence y prometiendo incluso intervenir directamente ante el Padre, a su paso por Vergara, para sacarle de sus errores.

^Tuvo lugar esta entrevista? ^Se acabaron así los equívocos? Es posible.

Es cierto que la fama del P. Bartolomé está en este punto bajo el hándicap que supone para él su obra anterior sobre los bailes y diversiones del País Vasco. Pero la misma postura del padre en esta órbita no es tan radicalmente negativa frente a los bailes, como alguno puede suponerse. Su mismo título es significativo a mi entender: *Euskal-Errijetaco Olgueeta ta Dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*. Quiere ser una como «combinación justa de sal y vinagre», dar «la medida justa de los bailes honestos, la sal de los que se pueden tener y el vinagre de los que no se permiten»: «*olgueeta santuben neurria, euqui legizaneen gatza ta ezin leguizaneen ozpina*». Eso es lo que dice en el prólogo; eso quiere decir su «*neurrizco gatz-ozpinduba*».

Si, llevado del vuelo oratorio, llega luego a cargar las tintas en determinado sentido, son en parte gajes del oficio. Turistas hubo que alguna vez pintaron el espectáculo de nuestras plazas y de nuestros bailes con trazos irónicos mucho más

cruelles que los tonos más fuertes de nuestros predicadores. No conviene olvidarlo a la hora de enjuiciar la real situación de nuestras plazas públicas y comprender las diversas reacciones ante ella. Y aun algunas páginas de Iztueta sobre nuestros bailes pueden ayudar a comprender al autor de *Olgueeta*.

No va la sangre al río

En la otra obra ya mencionada *Iztueta Inédito* (p. 204), encuentro unas noticias que considero interesantes y que a mí me resultan simpáticas. Es una carta de Moguel a Iztueta, en contestación a otra de éste, carta que revela entre ambos relaciones mutuas de hondo aprecio, unidos ambos en un amor común a la lengua materna y en la misma apasionada dedicación a su cultivo. Recuérdese que Moguel es uno de los causantes del choque entre el Padre carmelita y el maestro de danzas. El es el que ha dado a la imprenta las cartas confidenciales del Padre, en las que vierte éste los conceptos que hieren al danzari. Y es por eso, igualmente destinatario de la carta que Iztueta firma en réplica amarga contra uno y otro. Pero se ve que ya el año 1843, que es fecha de la carta, de las antiguas querellas no ha quedado nada.

Y yo tengo la convicción de que bastante antes habrían tenido ocasión de explicarse y entenderse el maestro danzari de Zudibia y el fraile que murió siendo Maestro de Novicios en Lazcano. ^Tal vez a raíz de la intervención que prometió Santiago de Unceta?

Y aun hay otro dato en la carta: Moguel conoció por primera vez a Iztueta asistiendo a un partido de pelota en Lazcano. No pudo ser sino alguna de las festividades que frailes y pueblo celebraban unidos (la festividad del Carmen o de Santa Teresa) la ocasión que hizo concurrir a ambos en aquel pueblo, junto a la tumba del carmelita pasado ya a mejor vida. Allí sellaban su amistad los dos supervivientes, en el recuerdo del difunto amigo.

NUEVOS DATOS SOBRE FR. BARTOLOME DE SANTA TERESA (1768-1835)*

En el Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, dentro del segundo centenario del nacimiento de Fr. Bartolomé de Santa Teresa (Madariaga), dimos a conocer una serie de noticias sobre la vida y obra de este escritor euskérico, conocido como autor, en euskera, de *Euscal errijetako Olgueeta eta dantzeen neurrizco gatzozpinduba*, y de los del *Antiplauto*, publicadas por su amigo el también escritor euskérico Juan José Moguel, párroco de Marquina (1).

Ampliamos datos sobre el mismo en nota publicada en el mismo Boletín en 1970 (2). Con los nuevos datos que ahora aportamos queremos ayudar a conocer mejor la personalidad del carmelita vizcaíno. Entre otras cosas, quedará desvelado el misterio de su presencia en Santander por los años en que firmaba sus comunicados a Moguel, que forman el contenido de sus dos obritas en castellano.

Veamos, en primer lugar, a qué obedece la presencia del P. Bartolomé en Santander los años 1827 al 1829. Presencia que no acertábamos a explicar en nuestros primeros artículos sobre él. La Orden carmelitana no poseía ninguna casa ni residencia en Santander por esos años. Sin embargo, los cinco comunicados a Moguel están firmados en la capital cántabra en las siguientes fechas: 14 junio de 1827, 12 julio, 10 de agosto, 30 de agosto del mismo año, y 31 de marzo de 1829. Todo hace suponer que la estancia del padre allí es continuada. En ese tiempo incluso parece que ha adquirido conocimiento directo de ciertos rasgos del habla montañesa, y está en contacto personal con el cónsul francés en Santander. ¿A qué obedecía esa presencia continuada del padre en esa ciudad?

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 40 (1984) 425-429.

(1) Ik. 328-338. orr.

(2) Ik. 339-345. orr.

El enigma nos lo ha desvelado una investigación llevada a cabo en los papeles del antiguo Archivo del Carmen Descalzo que obran en la Biblioteca Nacional de Madrid. Se trata de una autorización del Definitorio General de la Orden dada al P. Bartolomé para permanecer fuera de su convento al servicio del Obispo de Santander. Está allí en calidad de consejero y director espiritual del Obispo, que lo ha solicitado. Lo quiere tener a su lado. El Obispo es D. Juan Nepomuceno Gómez Durán, sucesor del famoso en la guerra de la Independencia Menéndez Luarda. La Diócesis de Santander era de reciente creación relativamente, y su jurisdicción llegaba por las Encartaciones hasta la ría de Bilbao. Gómez Durán es el cuarto obispo que ocupa su sede, desde 1819 a 1829.

Ahora comprenderemos cuándo y cómo se inician los contactos mutuos entre Bartolomé y el obispo. El Padre accede al priorato del Desierto en Sestao en 1821, cuando se ve obligado a hacer frente a la situación que se ha creado al gobierno, a raíz de la revolución de Riego. Son los años en que, para salvar la permanencia de su comunidad en Sestao, tiene que luchar a brazo partido; entabla correspondencia y consulta con sus propios superiores religiosos, con otras Ordenes religiosas, y naturalmente, con la jerarquía eclesiástica, con el Nuncio y con su propio Obispo, que es el de Santander. Este parece haber estimado entonces altamente el espíritu religioso y las dotes de prudencia del fraile vizcaíno. Mientras lo tuvo bajo su jurisdicción en Sestao pudo echar mano de sus luces y servicios. Pero cuando el padre, al fihalizar los tres años de su mandato en el Desierto de Sestao, en 1824, recibe nuevo destino fuera de la Diócesis santanderina, el obispo echa de menos su presencia, y recaba de los Superiores Mayores las dispensas pertinentes para que el fraile pueda vivir fuera de su convento y tenerlo a su lado.

Ha sido el P. Antonio de Unzueta el que, investigando en la Biblioteca Nacional, ha dado con el acuerdo del Definitorio General del Carmen Descalzo para estar junto al Obispo de Santander, Juan Nepomuceno Gómez Durán, prestando ese servicio extraordinario a la Iglesia montañesa. Allí permanecerá el padre, por lo menos, desde el año 1827 al verano de 1829, cuando Gómez Durán será promovido a la sede de Málaga, para un episcopado muy efímero, por cierto, pues fallece al año siguiente. Entonces termina la presencia del Padre Bartolomé en la capital montañesa.

¿Dónde residió después? Al cesar en el cargo de superior del Desierto la legislación carmelitana no le daba ninguna opción a repetir cargo del mismo rango ni en Sestao ni en ningún otro convento, hasta después de otros seis años. Pero pudo ostentar otros cargos, y tal vez fue durante el trienio que va del 1824 al 1827, cuando la Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra lo eligió para un cargo de carácter no local, el de Definidor de la Provincia o asesor del Consejo Provincial, de los cuatro que asistían al Superior Mayor. Hasta ahora no habíamos detectado este cargo en su vida, pero lo señala la partida de su muerte, que luego vamos a ver. Y ¿dónde residió durante ese tiempo? Tal vez, en Burgos. Por lo menos, el año 1826 hemos constatado que interviene en una ceremonia y profesión religiosa en el convento-desierto de Sestao, como residente y conventual de Burgos, donde probablemente regentaba también alguna lectoría en los cursos de Moral y Cánones que allí se daban.

Y vamos ahora a la fecha de su muerte. El primero en apuntar el año 1835 como el año de su muerte fue el P. Villasante en su *Historia de la Literatura Vasca*. Extraía el dato de una anotación autógrafa del Padre J.M. Zabala, escrita sobre un ejemplar del *Plauto Bascongado*, que decía así: «Murió el P. Fr. Bartolomé de Santa Teresa en 1835». Así reza la nota del P. Zabala sin más detalles de fecha ni lugar. Nosotros hallamos el dato del lugar (Lazcano), en una lista de difuntos carmelitas que se hallaba en la Biblioteca del actual convento de Benedictinos, entonces de los Carmelitas. Allí se hacía constar que al morir era Maestro de Novicios en el mismo Lazcano. Pero nos permitimos introducir un elemento de duda sobre el año del fallecimiento. Y era que en el documento citado el P. Bartolomé aparece encuadrado en listas que de mes en mes se dan, después de la lista que cierra el mes de diciembre de 1835, haciendo un número bastante alto en la lista. Coincide que también en otras listas similares de otras comunidades aparece en la misma forma incluido dentro de las listas de enero de 1836 haciendo el número 25. Dado el estado de guerra civil en que se vivía, se comprende que las noticias se comunicaran con algún retraso de convento a convento, y que se anotaran con retraso los nombres de los difuntos. Esto no es tan explicable respecto de las listas del mismo Lazcano. Por eso nos inclinábamos por el año y enero de 1836 para la fecha del fallecimiento del P. Bartolomé. Parecía una deducción lógica. Pero ante los hechos la lógica no vale. Y el hecho es que en Lazcano no sólo se llevaba el libro que registraba el nombre, lugar y edad de los fallecidos, sino también las partidas de defunción de los conventuales, cuyo registro creíamos perdido, pero afortunadamente no es así. Debemos al Padre archivero provincial de los carmelitas de San Joaquín de Navarra, P. Higinio Gandarias, el hallazgo del acta de defunción de nuestro padre Bartolomé de Santa Teresa.

La partida reza así: «El día 11 de diciembre de 1835 entre las cuatro y media de la tarde murió en este convento y Sto. noviciado el P. Maestro de novicios Fr. Bartolo de Sta. Teresa de perlesía qe. después de haberle molestado por espacio de un mes le privó de la vida. En todo el tiempo de su enfermedad sufrió con mucha paciencia y conformidad con la voluntad divina y dio muestras de verdadero Carmta. Descalzo en los años qe. vivió. Fue Prior en el convento de Marquina y en el St. Desierto, y a más Definidor de Provincia, y últimamente Maestro de Novicios. Recibió los santos Sacramentos de penitencia, Viático y Extrema Unción; el de la penitencia repetidas veces, y fue asistido de la comunidad en su última hora. Era natural de Marquina Echevarría, Señorío de Vizcaya y Obispado de Calahorra. Tenía de edad 67, y de religión 46 años. Su cuerpo está enterrado en la sepultura n. 9, separada de las antiguas».

La muerte de Fr. Bartolo es la penúltima defunción que registra el Libro de Becerro del convento de Lazcano. El siguiente y último registro es de fecha del 9 de abril de 1837.

Esa acta nos hace asistir al momento en que se cierra el ciclo vital de este hombre que supo vivir al servicio de su Orden y de su pueblo, de la Iglesia y de las almas. Sirvió a su Orden desde los puestos que ella le encomendó y sirviendo a ella muere en el cargo de Maestro de Novicios. Sirvió a su pueblo con su palabra y su pluma. Puso en manos del clero euskaldún y a los pies del Obispo de Calahorra su obra escrita. Y una prueba especialmente clara de su entrega a la Iglesia le dio cuando

abandona la paz de su retiro conventual para ponerse a las órdenes del Obispo de Santander, mientras éste requirió sus servicios.

Ya pocas etapas de su vida nos quedan por aclarar. Sabemos una fecha más de ella: la de su entrada en religión y profesión. Tomó el hábito de fraile carmelita en el Noviciado de Corella. Así reza el acta: «Tomó el hábito para corista, habiendo precedido un mes de observación, hechas y aprobadas las informaciones, hoy día diez y ocho de marzo de mil setecientos ochenta y nueve entre cinco y seis de la mañana, teniendo de edad veinte años y dos meses». Y cumplido el año de novicio, y salvadas las tres aprobaciones de ley, emitiría sus votos religiosos allí mismo en 1790, a los veintiún años y dos meses.

Otras fechas y datos nos quedan por precisar: los años de sus estudios, dónde los inició y dónde los concluyó, y dónde y cuándo recibió las Ordenes sagradas.

De las peripecias sufridas para la aprobación de sus libros antes de darlos a la imprenta, algo hemos podido saber con respecto a su primer libro, su tratado sobre bailes y danzas del País. La ley prescribía someter todo escrito destinado a la publicación a la censura previa de la Orden, ordenada por el Definitorio General. Este alto tribunal encomendó el examen a dos padres, que tenían que ser, naturalmente, euskaldunes. Uno de los censores fue el entonces superior de Lazcano. No conocemos el tenor de la censura. Lo único que nos consta es que la Orden, visto que el autor había tenido en cuenta las observaciones de los censores, autorizaba la publicación de la obra.

Esta obra del Padre Bartolomé ha merecido ya tres ediciones: la de 1816, hecha por el autor; la de 1906, hecha por Dogson; y la que en nuestros días ha hecho ORDAGO, reproducción de la primera.

En nuestros días, el P. Lorenzo Arteaga, carmelita recién fallecido en Marquina, gran entusiasta de la obra del P. Bartolo, preparó una edición de las obras completas de nuestro escritor, que quedó a la espera del mecenas que patrocinara la edición, y nos dejó un estudio de los verbos sintéticos que aparecen en sus obras euskéricas.

Actualmente corren voces de que alguno de nuestros filólogos lleva entre manos un estudio más completo sobre el euskera de este carmelita vizcaíno.

Creemos que los estudiosos todos de nuestra literatura y de sus cultivadores agradecerán estos datos que les aportamos, y que ellos ayudarán a un mayor conocimiento de la vida y obra de uno de los más vigorosos cultivadores del euskera de Marquina.

AITA BARTOLOME SANTA TERESA*

Euskal-errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba (Azkenengo edizioa)

Gure egunotan laugarrenez etorri da argitara Aita Bartolome Karmeldarraren lenengo liburua: *Euskal-errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba*, 1816 lenengoz agertu zana. Azkenengo iru argitaraldiak gure gizaldi onetan izan ditu: 1904tik 1914 bitartean Dogson-ek ateratakoa: ORDAGO-k 1978n egiña; eta orain oraintsu Euskaltzaindiaren LEKUKOAK saillean emon jakuna, Luis Maria Mujikak prestanta. Sail onetako beste liburu geienak lez, edizio kritikotzat emon jaku.

Karmel aldizkariak pozezko agurra egin nai leuskio liburu zarraren agerkera barri oni. Aita Bartolo onen lan guztiak argitaratzeko gertetan ekin ondorik, bere asmoak lortu barik joan zan Aita Lon Arteaga mañariarra. Markiñako sermolari ospetsuaren lan guztiak, bai euskerazko ta bai erderazkoak, eskuetan ondo erabilliak zituen Aita Arteagak eta inprentarako lez prestanta itxi. Nondik edo andik osaba laguntzaille dirudunen bat noz agertuko jakon bizi izan zan azkenengo urteetan; baiña iñok uste baiño lenago eriotzeak eroan euskun geure artetik. Osabarik agertu ez-ta, or geldituko da gure mañariar gogotsuaren lana argirik ikusi barik. Noz edo bein argituko al jako plazara agertzeko eguna.

Bien bitartean, ondo etorri egin deiogun gaurkoz lengo liburu oni. Aita Bartolo Madariaga-ren libururik entzutetsuena dala esan leiteke. Alan be, ez dogu uste eza-gutuegia eta irakurriegia danik. Askok ez dakie besterik esaten: Aita karmeldarrak or Iztueta dantzazalearekin eztabaidea darabillala, Iztuetaren aurka diarduala, euskal-dantzen arerio amorratua agertzen dala. Ori diñoanak ez dau liburua irakurri. Geiago

* Karmel 1987-1, 77-82.

esango neuke: ez dabela ez Bartolo aitaren libuma ez Iztuetarenik irakurri. Aita Bartolok ez dau Iztueta izentau be egin. Iztuetak euskal-dantzez egindako libuma Aita Bartolorena baiño amar urte geroagokoa da. Aita Bartoloren libuma ez da euskal-dantzen aurkakoa. Agirian egiten ziran edo ta etxebarmetan egiten ziran sarauetako dantza-modu batzuen aurkakoa, izatekotan be.

Gaur euskal-dantzak esaten deutsegun dantzen aurkakorik ez dauka ezer, eta bai arein aldekorik, liburua ondo irakurten jakin ezker. Ez dauka ezer esatekorik mutillak mutillekin eta neskak neskekin egin dituezan dantzen aurka. Ontzat emon ditu. Aita Bartolok ez ditu nastetan bere liburuan euskal-dantzak eta euskal-errietan ikusten zan erromerietako eta olakoetako dantza-modua, neska ta mutillen artekoa. Dantza nastuak orduko idazle askok jo izan ebezan gure praille onek baiño ia basausaiñekoagoztzat. Atzerrietatik gure artera etorri ta emen ikusia euren liburueta aldatu daben batek baiño geiagok emon eben eritxi txar ori. Gai onetan orduko moralista batek baiño geiagok itz egin eben gure sermolariak baiño gogorrako. Aita Mendiburu barman dala.

Tituluan bertan emon dau Bartolok bere eritxia: Euskalerrrietako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatzozpinduba. Orra berak sartu dituen berba bi: *neurrizko gatzozpinduba*. Berak azalduko dau sarrerako berbetan zer esan gura daben: «*Ibiliera ta olgeta santubeen Neurria, euki legizaneen Gatza, ta ezin (euki) legizaneen Ozpina*». Ori ez da dantzen arerio itsu amorratuaren berbetea.

Iztuetagazko eztabaida edo erremuzkadatxoa geroago dator, amabi edo amairu urte geroago. Atzerritar batzuk euskaldun batzuei itandu eutsen ia Plauto erromarraren komedia bateko bertsoak, izkuntza ez-ezagunez idatziak, euskeratik ulertu al eitekezan. Iztuetak emon eban bere eretxia ta itzulpena; Aita Bartolok be bai berea, Joan Jose Mogelen bitartez. Tartean ebillan Lécluse frantsesa, euskal-zalea eta euskal-gramatika baten idazlea. Onek bein Iztueta adiskideari dantza libumaren egilleari jakituna deitu eutsan (*Savant*). Dantza-liburu baten egilleari *savant* deitzeak barre eragin eutsan Aita Bartolori. Ortik sortu zan bien arteko zarraparratxoa, Lécluse frantsesa eta Iturriaga tartean zirala. Eta eztabaida orretan agertzen da barriro Euskaldantzen era euskalerrrietako erromeri-lekuetan ikusten ziran dantza-moduen artean Bartolok ikusten dauan aldea. «Gure baserrietako neskak, diño bein, dantza politagorik asko dakie Iztuetaren liburukoak baiño». Ez zan ziztada makala Iztuetari botatzeko. Iztuetaren euskal-dantzarik geien-geienak gizon-dantzak dira. Neska ta andrazkoenak, gitxi. Eta Bartolok ez eukan ez batzuen ez besteen aurka esatekorik. Orraitio, dantza-maisu bati *Savant* esateari ez eritxon oso ondo.

Aita Mujikak zorionak merezi ditu libumetaren egilleari ortik eraso ez dauzsalako. Moral-irakasleen, probabilisten eta probabiliaristen aldetik begitu deutso. Eta or be sakon jo barik. Esaterako, ez deusku argitu dantzen goraberan zelango maillatan dagoan Markiñako sermolaria orduko moralisten eta sermolarien aldean, esaterako Aita Mendiburu eta Palacios frantziskotarraren aldean. Eta gauza jakiña da, esan dogun lez, ez sermolari ez moralista ez ziran kanpotar batek baiño geiagok, gure errietako dantza-oiuren barri emon ebenean, naiko itxusi ipiñi ebezala. Iztueta beraren lana ez zan joan Aita Bartolo eta onen antzekoen aurka, eta bai oso bestera, gure plazetako dantzak duintasun garbiagoan jartzera.

L.M. Mujikak berak gogokoen dituen alderdietatik artu dau Aita Bartoloren liburua aztertzeko: morfologiaren aldetik, morfo-sintaxia, fonetika, lexikoa eta abarren aldetik. Bizkaiera obeto ezagutzeko liburu au oso egoki eta bearrezkotzat dauko. Orregaitik sarreran azterketa luzea egin nai izan deutso; bear bada, luzeegia, Aita Bartoloren liburua bera baiño luzeagoa. Bokalismoaren saila, gure ustez, asko laburtu eukean. Or emon dituen lege batzuk oso ezagunak eta jakiñak dira, eta ez egoan ain luze emon bearrik, azkenean be guztiz oso ta zeatz emon ez diran ezkerro. Aztertzailleak badirudi Aita Bartoloren beste libururik ez dauala ezagutzen, eta lagungarri ona izango eban ezagutu balitu. Beste euskalkietako liburuak be, nik uste, obeto ezagutu bear zituen. Askotan Bartoloren bitxikeritzat eta Bizkaiko euskalkikotzat emon ditu euskal-literaturan zabal ibilli diran idazkerako lege batzuk. *-Gana*, *-gaitik* edo *-gatik* aurreko itzari lotu barik emotea Bartoloren aurretiko eta geroagoko edozein euskalkitako idazleetan oso erabilia izan da. *-Na* atzizkia, konpletiba dalakoa, Gipuzkoako kantarik zaarrenetako baten agiri da, eta bai gipuzkoerako dotrinetan be gero kendu izan badabe be. *-Rik* atzizkia oso birizik dago Lapurdiren pluraletan, eta Bizkaian singularrean be ez da il oindiño, eta esan bearrik ez onako esaeretan: *mendirik mendi*, *erririk erri*, *gizaldirik gizaldira* ta olakoetan. Emen azkenengo *-k* ori ez da iñoz galtzen. *-77* erabiltea be, eta ez *-tik*, bizirik dago, ez Bizkaian bakarrik: Zuberoan be bizirik daukagu. *Andi*, *orti*, *emeti* eurrez esaten da emen. Aita Bartolok lez. Eta orain ainbeste entzuten edo, obeto esan, irakurten ezpada, gramatikalaria batzuen eragiñez izan dala esango neuke. *-Eria*, ta *-keria*, atzizkiz erabili oi diranak, ez dira gauza bera, eta ez dabe bardin esan nai.

Edizio au, kritikotzat emon jaku. Orrek ez dau asko esan nai. Lekukoak sailleko liburuak, ia guztiak, diño ori. Baiña liburu onek 1816ko edizioan inprenta uts asko atera bazituan, oraingoan uts geiago egin dirala esan geinke, eta bat be ez zuzendu. Uts batzuk inprentakoak dira, antza; baiña badira beste batzuk oker irakurriari ezartekoak edo oker zuzenduak be.

Beste batzuetan, testoa ondo egonarren, azpiko azalpena dago oker. Esaterako, *Inok agaz*: emen ez dago itzen banaketarik, «itz bi dira»: ez dau pandangoan egingo inok agaz (ez dau iñok dantzarik egingo aregaz). Nondik ateratzen dau banaketa kontua?

Jantiari dagoen moduan itxi da 57 garren orrialdean ezelango argibiderik emon barik. *Jantziari* irakurri bear da; inprentako utsa da. Baiña apur bat aurreratxoago azpiko oarrean esan jaku *jentearekin* esan nai dauala. Sarreran ondo irakurri dana emen oker irakurri da. Lenengo bokala aldatuta daukala-ta konsonantea eta bokala aldatu jakoz; *etajan* danay'en irakurri.

Arin-aringia: Emen *-ki* atzizkia ikusi dau aztertzailleak; baña *-ga* edo *-ka* baiño ez da, arin-aringa izen biurtuta.

-Tegi atzizkia dala-ta, bein eta barriro diardu atzizki ori Bartolok oso oker darabilla esaten. Bizkain eta beste leku askotan itz ori banazean be erabili oi da, txarrikorta ta beste toki batzuk adierazteko. Aita Bartolok ez darabil adiera onetan... Talde bat, lagunartea adierazoteko erabili dau iru bider gitxienez; konbidautegi, abadetegi eta prailetegia. Mujikak abadetxe edo apaiz-tegia edo ulertu dau, baiña ez da olan. Azkue-ren iztegia ikustea naikoa eban oker ulertze orretatik urtetako. *-Tegia*

ori ím'a-ren kidea da. Arrastegi izak be ez dau zer ikusirik -tegi atzizkiarekin. Arrastiri-ren aldaketa da.

Uts andiegietan arrapatu nai dau Mujikak noizik bein Bartolo idazlea, baiña berak ulertu ez dauako da. Ez dakit zelango plural errepikatzea aurkitu deutsan onako esaldi luzetxo baten: «entzuten diran berba banakak desonestuak... begirakuniak..., desonestuak... oratutiak desonestuak..., oinakin magal jotiak desonestuak». Or ez da plural errepikatzerik. Or goian datorren adizki bat dago ixilduta: «dirialako». Andiskotia dirialako mordo atako pekatubak... entzuten dirian berba banakaak desonestubak, eta abar.

Utsik andiena, beste «guztien aazkarria» aditza bere laguntzailleagaz -*Gin* atzizkidun sustantibotzat artuta egin dau: *sinistu ginai sinisle-ven* ordekotzat artuta. Oker usteko ori dala-ta, jipoia eraon nai izan deutso Aita Bartolori, eta ez da konturatu jipoia bere buruari emon deusala. *Sinistu ginai* sinistu geinke edo genezake-ren parekoa baiña ezta. Ez dakigu zegaitik ez dauan beste bein uts berori salatu, «esan ginai» irakurten danean.

Bein itzen baten utsa aurkitu dau gure aztertzaile zorrotzak, baiña ez dau ondo ulertu: «Besuak bilosik edo bilosik»: bigarren *bilosik* onen aurren beste itzen bat falta ei da. Baiña oker dago Mujika. Aurrera jarraitu bear eban irakurten: «Besuak bilosik, edo bilosik baino ez asko obeto». Gauzea naiko argi dago beste ezer sartu barik. Eta bein -*Na* kompletiba dalako bat zuzendu deutso Aita Bartolori, eta -*la* biurtu; baiña -*na* ori ondo dago egoan moduan: «Guztiak erakutsi dabeela dantzak (pekatu egiteko okasinoia gaiti) pekatu mortalekuak diriana».

Eta azkenez, oarren bat berba batzuen itzulpena dala-ta. *Aazkarria* ez da, ain zuzen, *lenitivo*, Azkue-ren iztegian alan badator be. Itz ori, oraingo idazleetan aurkitzen ez dan arren, errian bizirik dago Bizkaian, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako literaturan aurkitzen dogu. Adiera argia dau: *aaztu* itzetik dator eta orain artekoak *aaztu* eragiten dituan zerbait esan gura dau. Lengoen *aazkarria*, *guztien aazkarria*, barriz: lengo markak apurtzen edo estaltzen, tapatzen dituana, «Non Plus ultra». Naigabeen *aazkarria lenitivo* izan leiteke, baiña naigabeak *aztu* eragiten ditualako.

Atsetasuna (oraingoan bikoztu barik). Bartolok *atseen*, *atseete* erabilten dauan ezkerro, *atseden* itzaren jatorrikoa da, eta trankiltasuna, sosigua, epetasuna esateko darabil emen. «Edozein lagun artetan euren berbetiagaz ta jeriagaz eldutasuna, atsetasuna, juiziua, lotsa ona, ta kristiñau usaiña» erakusten dabenak, ez dabe, ain zuzen «alivio»rik erakusten, eta bai euren buruen jabe diranen artegasunik-eza, barruko bake-giroa.

Oraingo «edizio kritiko» au ez jaku ain kritiko agertu, eta bai kritikagarri alde askotatik. Arin-aringa ta arrapaladan egiña dirudi. Bizkaiko euskera ondo ezagutzen ez dauan batena. Eta aztertzaileak geiegitan eroan gura dau ura bere errotara. «Tegi» esaterako, ez dakigu zelan atera nai dauaun zeltatarren *Tech* dalakotik. Zegaitik ez urragotik: *techo*, edo *tegumen-eúkl*

Aita Bartolok merezi eban au baiño edizio oberik, aren euskera obeto ulertzeko gai dan baten eskutik etorrita. Orain arteko argitaraldiak kopia utsak izan dira. Dogsonek egiña da, bear bada, garbiena. Oraingoa, bere kritiko izateko uzia ta guzti, siñistu eziñeko utsez betea. Eta lenengo edizioan birritan sartu zan zatia (Edana saillekoa) kendu bere ez jako egin, Dogson inglesak kendu eutsan lez. Berba bataz esateko: *Tamalgarría!*

EUSKAL-ESNALE TA EUSKAL-IDAZLE:

YOSE PAULO ULIBARRI, OKENDO'KO SEMEA*

I

Lerrotxo oneitan Araba'ko seme ta euskalzale sutsu ta euskal-idazle ia ez ezagun baten barri emon nai neuke. Araba dau Euskalerriak bazterrik erdeldunduena eta, orrexegaitik, euskal-idazlerik gitxien emon dauana. Eta emon dituen banakak bere eztabe ospe andirik izan, gitxi ezagutuak izan dira.

Orra or bat: Barrutia, Aramayo'ko seme ospetsu, Arrasate'ko eskribau ospetsuago izana. Nok eztaki gure artean beronen barri, beintzat urte batzuk ezkeror? Nok eztaki, bere eskribau-lumeari euskerazko lantxo bat edo bi baño eragin ezarren, eragin eutson apurtxoaz euskal-idazle jator, yayo, banabanakotzat gelditu jakula? Araba'ko seme onek izan dau ausaz gure artean beste inok izan eztauan garaipena: ilda berreun urte geroago, bizi askoren artean zeingeiagoka baten txapeldun geratzea, idazle-sari ederra irabaztea. An ziran sari orren berorren leiaz, gure egunotako antzerti-gille punterengoetako asko: Zubikarai, Erkiaga, Etxaniz eta abar; baña amazortzigarren gizaldiko idazle ez ezagun onentzako izan zan 3.000 pesetako sari opagarri ori, Julio de Urkijo Euskal-filoloji-mintegikoak oparo emonik. (Ikusi *Euskalzale*, 1897, 402-415, ta *Egan*, 1956, 5-6, 189, 203 orrialde).

Ezin ukatu Barrutia onegaz jazo denak asko esan nai dauala, gogoan artzekoa (aleccionador) dala; baña ez, Mitxelenak (Historia de la Literatura Vasca) diñoanagaitik. Barrutiagaz jazo danak Mitxelena jaunak diñonaz besterik esan nai dau: gure alkarren barri ezin yakiña erakusten deusku. Onen txikia izan gure auzotxo, eta, alan bere, zer ete dogu alkar ain gitxi ezagutzeko? Esaterako, Barrutia'ren izen eta

* Olerri 4 (1962, 1-2.zenb.) 121-142. *Axmutil* izenpean, ik. 17. orr.

omenak ñori zorrik ba'deutso, Azkue zanari deutso zor. Azkuek emon eban aren teatro-lantxoaren ezaupidea; Azkuek billatu eta argitu eban aren yatorria; Azkue'ganik yakin gendun Barrutia nongoa zan, Zalgoa'n (Aramayonan) yayoa; Azkuek, iya bere azken-urteetan bere ekin eutson «Euskera» aldizkariaren orrietan Barrutiaren Gabonetako ikuskizuna goratzen, gauza txukun, eder, errikoi, irakurgarritzat aitatzen («lantxo irakurgarria»), «linda composición arrancada del pueblo», «curiosa pieza» eta abar). Euskaldun arlekiñik eta aitatu barik, baña bai labur ta zeatz esanda, orra Barrutiaren oraintsuagoko goratzaille ta eder-erizlerik beroenak alan-olan esan dabenguztia. Baña or etorri yakun bein, nor-eta «istoriak bost piper siku inporta deustaz» diñoan bat, azkenbako illetea yoten: Barrutia ez ei-dau «iñok konsideratu, ezteutsa iñok kasurik egin, ezta aitatuten, ezta leiduten, ezta inprimietan» (iru urte lentxoago «Egan» ek argitaratu, barriz...). Eta Barrutiaren zorigaiztoaren errua, idazle onezaz izan dan «iñorantziaren» erru guztia, nok-eta Azkuek! «Euskera» aldizkariaren orrietan ori irakurri bearra! Ori, ta istoriak miñik emoten esteutson orrek an bertan Azkue zanaren ganera ixurtzen dauan irain-zaparrada guztia! Tira! Poeta baten itzak dira Aresti'ren orreik, ta olakoak, poeta ta asmatzalle bat ei-dira-ta, zerbait asmatzeko eskubidea aspalditxotik dauke. Baña istoriari lotsa geitxoago deutesnai esan deyegun: Azkuek Barrutiaren izena ta lantxoa goratzeko, noz aitatu dau arkaismurik ez itz zarrik? Noz ta non ikusi dozue Azkue, Barrutiaren alde burua erakusteko lotsaz lez eta ñori baimen edo parkamen eske? Azkuek orrezaz idatzia ta esana, arren, ez egizue lotan zagozela ezta iñoren begiz irakurri. Mitxelenak, asmatzalle baten esanari ondo eretxirik, urrean, «Historia de la Literatura Vasca» orretan, diñoana barruan gorde baleu, zerbait lenago «Historia de las Literaturas Hispánicas» dalakoan esanari ezer geitu ezpaleutso, askoz obe; egiak eta zuzenak mesede izango eben.

Pio Barojak deitu eutson bein, errealdi baten, Azkue'ri euskerearen «mosca carnaria», sarraski-euli edo dana dalakoa. Orain, ostera, ez ete dabiltzaz bat baño geyago, Azkue sarraskitzát artuta, aren ganean euli zikintzaille egiñik?

Baña Barrutia onek aritik atera nau-ta, eldu deyodan artu dodan saillari. Beste Araba'ko idazle ez ezagun bat aitatu bear dot: Jose Paulo Ulibarri. Okendo'ko seme au ezta Mondragoe'ko eskribaua baño ezagunagoa. Onetan Barrutia baño bere zori txarrekoagoa izan da. Baña ez bildurtu; ez dot uste asmatzailleen saillekoa nazanik, eta eztot iñoren errurik asmauko, emen bere Azkue jaunaren itzala ur dabilkigun arren. Ulibarri'ren «Gutunliburua», orain artean banakaren batek ezagutu dauan Ulibarri'ren «manuscrito» bakarra, Azkuen eskuetatik igaro zan Urkijo jaunaren eskuetara. (Beste bat, batzar-liburua, erderazkoa baño euskerazko oarrakaz, Bilboko erriak dauko).

«Gutunliburu» onetatik, eta Okendo'ko ta Bilbo'ko ageri-liburuetatik aterata, beyoaz aurretik Okendoar argi onen biziko barri andi-andienak, gero beronen euskalanari eltzeko.

Yose Paulo Ulibarri Galindez Okendo'n yayoa dogu. Araba'ko erri onetan 1775'garren urtean, agoztuaren 17'en yayo ta Abando'n, Bizkaian, 1847'an, mayatzaren 5'n illa. Bere gurasoak: Jose Ramon Ulibarri Esnarriaga, eta Anjela Galindez Abasolo, Okendoarrak biok bere. Bere izena: yayotzeko egunean berean, Untzako

Amaren eleixan kristiñautu ebenean ezarri eutsena Josef Paulo; Abando'ko ezkontzaliburuan daukena, Josef Pablo; il zaneko partidakoa, Pablo; bere bizian emoten deutoena, bein Jose Pablo, ta bein Pablo; berak euskeraz diarduanean geyen erabilten ebana, Yose Paulo. Ageri-papelai agur andi egiten deutenak, ba-dabe emen aukera. Guk Yose Paulo esango deutozugu. Gurasoak euren ezkontzako lenengo umea eben. Okendo (Gutunliburuko Ukondo ta Okondo), Yose Paulo yayo zan egunetan erri euskaldun utsa zan. Gaur eztago bertan euskaldunik, erbestetik (Laudio-Orozko-aldetik) ezkontzaz yoan diranak izan ezik.

Bederatzi urte zituala, Abando'n dogu, bere osaba-ixekoenera etorrita, geroago emen aberesendatzalle ospetsu izango zan au.

1794-1795. Frantzesak mugatik onuntz abiau dira, eta Yose Paulo, emeretzi urteko gazte gordiña, Abandoko gazteakaz batera gudamutil doa. Itziar ta Sasiola inguruetan emon eban urte atako negua. Ogei ta amazazpi urte geroago, negu orretako gomuta illungarritxo bat dau gogoan: otza astindu ta gosea ixiltzeko edo, edari zuria katilluka emoten eutsela edaten.

1797. Ezkondu zan urtea. Abando'ko alabea da emazte artu dauana: Maria Josefa Landa Urkiza, bere Gutunliburuko *Maripepatxu* maitea, amazortzi urte eginbako neskatilla gazte lorekoa. Urtarrillaren 30 izan zan ezta-eguna. Antza danez, seme-alabarik bakoa izan zan ezkontza au. Ez, seme-gura ez zirealako. Senar-emazte biok berrogei ta amar urtetik gora ebiltzezala bere, Yose Paulo, bere andreak BAKARRIK (olantxe letra nausiaz) irakurteko egin eban gutunean, Urkijo jaunak «muy naturalista» dala diñoan karta orretan, semeen amesa galdu eziñik agertzen yaku. Abando'n, Bilbo zarre auzuan, euren euren bizilekua.

Urkijo jaunak «herrador» egiten dau gure Ulibarri. Geitxoago ete zan nago. Aberesendatzalle ta «herrador» ezтира dana bat, nire eretxiz; eta orixe zan Yose Paulo: «mariscal veterinario», «vétérinaire et maréchal-ferrant», erderaz. Alantxe diño berak bere izena ta lanbidea iragarteko euskeraz, eta erdera bitan moldaerazo eban txantelean. Ona txantel orretan bere buruaz euskeraz yari ebana: «Yose Paulo Ulibarri'co, aberesendatzalleen yakinena orain munduan ezagutzen dana, bizida Vizcayan Yaun-done Vicente Abando-co Eleiz-atetan, Bilbo Uriyaren alboan». Ez eukan edozeintzat bere burua. Ez uste, orraitio, umore bakoa zanik. «Beti izango naz zentzunbagea, zirautson 55 urte zituela andreari; niri etorriko yat zentzuna aginik eztaukodanean eta ulle gitxi ta urdine daukodanean». Bere buruari barre egiten dakiena ezta dana txantxetan artzekoa, ez dana barregarri bere.

Eztakigu nongo eskoletan ibilli ta ikasia dan; baña aberesendagintzan ez eze, beste sail askotan bere erakutsi eban Ulibarrik gaitasunik, eta Abandotarrak sarritan eroango dabe erriko etxera, lau bider egingo dabe agintari (fiel regidor), euren onaren eta ondasunen begirari izan zedin. 1830'an Aita Estarta'ri egiñiko gutunean berak diñoanez, ordurartean iru bider izan eban agintaritza ori Abando'n. Noz? Irugarren aldiz, 1829'an. Bigarrenez, 1814'an, aurki, urte onetan Gemika'ko batzarretan agiri dan ezkerero. Oituraz ta legez, Gemika'ko batzarretara lenengo ta bigarren alkatea baltzen zituen Abando'ko erriak. Lenengo aldiz noz? 1814'garreneko urte ori baño lenago, nik uste. Baña, 1800-1820'rañoko Abando'ko batzar-liburuak galduak izanik,

ezta errez emen argi andiagorik egiten. 1836'garrean izango zan laugarren eta azkenengo aldiz. Oraingoan bigarren zotz-aldi baten egin eben. Lenengo zotz-aldi-koak, karlistak euren etxeetarik urregi zituela ta, arein bildurrez ez eben kargurik artu nai izan. Bigarren aldian Ulibarrik urten eban gorengo agintaritzarako, Eleuterio Basozabal eta Antonio Uribe lagun zituela. Ez eben urtea amaitu. Urrietan «Ayuntamiento Constitucional» barria yarri eben Abando'n.

1820'an eta 1823'tik 1826'era, ganera Abandoko erriko etxean «archivero condador» bere izan zan Ulibarri.

Gernika'ko batzarretan bere iru aldiz aurkitzen dogu: 1814, 1829 ta 1830: lenengo aldi bietan, Abando'ko erriak bialdurik; irugarren orretan, Luyua'ko baten orde. Ara yo ta orra yo, egiñalak egin zituen urte onetan, Gernika'rako eskubidea lortzearren. Zer dalata Gemikaranai ori? Bizkai'ko agintari jaunen aurean euske-reen alde su ta gar egiteko. Luyu'tarrak emon eutsen euren ezarleku bat; baña ezbear batek galerazo eutson bere asmoak azkeneraño eroatea. Udazkeneko batzarretan ezta agiri.

Urte orretan asi ziran Ulibarriren biziko egunik baltzenak: «Ogetamargarren urtean artu nendun golpe ilkor ikeragarrizko andi bat, buru eta bizkar-azur eta gibelondoa (ta) gorputz guztiaz; askatu yatan birikiya eta bularpeko guztiya eta itsurtzi (ixuri) nendun odola aoti eta beti, eta osagill eta sengagillak esan zituen (eben) ez nintzala biziko, eta erri askotan sinistu zituen (eben) il nintzala bere» (Karlos Artza'ri, 1833).

Ezbear au etxeko zurubi edo eskalleratan yazo yakon, baten batek labangarren bat ipiñirik, antza. Berak ez eban iñor salatu. Luzeroan lanerako gauza etzala gelditu zan; urte bi egin zituen erriko batzarretara bere agertu barik. «Prantsesen atxurkadiak eta zurubi edo eskallerakoak nakardie txarto [diñotso 1832'an andreari]. Nik eztot ibilli gure ikusi neyen lekuti; eztot urteiten iñora guztizko premiña ezpadaukat». Mezea, orraitio, egunero entzuten dau. Zoritxar onen geigarri, andrea iya beti dabilkio erbestetik, bein Paris'en, bein Zestona'n, euskerearen «areriyo edo etsai andi» egiñik. Lanik ez, irabazirik ez, eta artuenik eskuratu ezin. «Iñok eztau emon gure dirurik zordunen artian, guztiz dago galdurik diruen etorreria; nik eztot artuten dirurik, ez Bilbo zarren dago lanik; katuek okelia legez dabiltz alkar kentzen aldizkoak edo parrokianuek... Juan Domingoenetik ekarten dot txakoliñe biar dan guztie zorren aldera, ze ak eztau emongo dirurik» (andreari).

Ezbear onek galerazo eutson, bada, Gernika'n egin nai izan eban lana; baña azia ereinda itxi eban Ulibarrik jbai orixe! Arik amaika urtera, 1841'an, Bizkaiak zerbait itxartzen asi dala dirudi: Gernika'ko batzarkideak euskerearen aldeko erabagi pozgarri samartxo bi artu ebezan: eguneroko erabagien laburpena euskeraz egin eta urrengo eguneko batzarrean irakurtea, eta «Institutoan» euskera irakastea. Erabagi orreik ez ete deutsie ezer zor Ulibarri'ren aldarrri ta ekiñari?

1836'tik aurrerantzean, Abando'ko batzar-liburuetan ezta Ulibarri'ren aztarrenik; bazterturik edo dago. Zarrez eta geixoz? Bere etxean uzaba gazteagoen bat sartu zalako etxeko jaun, erriko batzarretan onek sartzan zirala? Ala iguñez eta bere borrontatez, politika barriaren bideak ontzat emoten ez zituelako edo? Eztakigu. Politikaz

zer zan, baña, Yose Paulo? Buru ta biotz, erregetarra. Argi agiri dau bere Gutunliburuan bere erregezaletasuna, baita Cadiz'ko lege barriaren alderako iguiña bere. Abando'ko batzar-liburuetan bere argi bai argi dago ori. Cadiz'ko aizeak ez zituen maite. Adiko aize ta politika-bide orreri izen bitxia ezarri eutsen: «debruziñoa». Ulibarri'ren eretxian deabruen lana ziran, erdera-legea, batez bere euskaldunen Foruei ikutu eutselako! Erlijiñoaren alde, barriz, zintzo yokatu nai izan eban beti: «Nik eguño eztot, ez txantxetan bere, Yainkoen legeen aginduen kontra ezer esan» (andreari).

Karlisten gerratea sortu zanean, ixillik egonbearra etom yakon. Bere 1830'ko yauskerati zerbait osaturik, erriko batzarretara yoaten asita dago. 1833'an «sindico» zala diño Jaizkibelek: «revisión de cuentas» batzordekoa zan beintzat. 1834'tik 1836'era gobernuak izentauak egon arren agintari, eztau batzarretara uts andirik egiten; eta eztau bere laguntza ukatuko erriko gorabera ta azi-orraziak atontzeko. Esaterako, urte orrein barruan, «Plan económico» barria egin zanean, orretarako osatu eben batzordeko izan zan bera. Baña, biotzak ez eutsolako agintzen, erreginaren alde ezin berotasunik erakutsi ta bein baño sarriagotan agintari armadunen gogortadak «epe onez» eta ixillik irauñ bear izan zituen. «Agintari batek esaustan ea noren aldekoa nintzan. Eta nik erantzun neutsan: Agindu eiten (n) eusten aldekoa: nik eztodala besterik egiten obeidu baxen. Eta erantzun eustan: Eztabenak gogor egiten Erregiñaren alde kendu biar dabela aurreti» (1835, semendian). Ulibarrik ezin egin gogor Erregiñaren alde. Urte bete lenago Don Carlos'ek Elizondo'n emoniko «decretoa» bere Gutunliburuan euskeraturik ezarrita dauko. Euskerearen eta Euskalerrriaren zoriona Don Carlos'en aldeti etorriko ziralako uste osoan dago. Olako ustea zerakusan beintzat 1834'an Diputadu jaun eta euskaldun guztieri zuzendutako «agerkai» baten. Don Carlos'en aldirik etzan etorri, eta ezin esan Ulibarri bere uste orretan oker ebillenik bere.

II

Emen orainartean aitatu doguzan barriak Ulibarri uri-gizonaren irudia damoskue geyen baten; Ulibarri euskalzale ta euskal-idazlea aztertu daigun orain, bere «Gutunliburua» gidari ta argi artuta. Zer dogu Gutunliburu au?

Ulibarrik, berak besteai eta besteak berari egiñiko karta edo gutunak liburu batera aldatzeko oiturea artu eban, antza, 1822'garren urtea ezkerero. Orixe da, ba, liburu au: Ulibarri'ren gutunegia, berak bialdu nai artzen zituen kartak yasoten dituan liburua, batez bere. *Batez bere*, diñot; kartaz ganera, beste gauza jakingarri batzuk bere ba-ditualako. Azkenengo orrietan dana da bertso-lanezkoa. 1832'an asi ta mila zortzireun da berrogetakagarrenean amaitzen da. Sitsak yanak ditu letra bi edo iru, eta eztago errez azken-urtea zenbakarrena dan ateraten.

Gutunliburu onek argi dirauskuna da Ulibarrik gizon asko ta andiekaz eukala artu-emon. Etziran, ez, lagunabarrezkoak bere karta-lagunak: Erregearen lagunabarrezkoak (Erro); Gipuzkoan, Iztueta ta Mendizabal; Bizkayan, malla guztietakoak:

Diputadu (Valdespina'ko markesa, Nobia Salzedo, Anitaua, Barrenetxea); osteango agintari ta Gernika'ko batzarkide (Basaguren, Soloeta Balzola, Olabarria, Yulian Argaiz, Zamakola ospetsuen koñatua); guda-gizon (Berrizko Juan ta Praisku Zengoitita Bengoa Koronelak); prailleak (Estarta, Luno ta Zabala Prantziskotarrak). Gutun onein barri zeatzago yakin nai dauanak Julio Urkijok «Euskal-Erriaren Alde» aldizkarian (1915, 225-231) irakurri bei.

Liburu orretan pilpil ageri yakuz egillearen euskal-biotza ta gogoa. Bai euskal-zalea ta bai «euskal-esnalea» bera! Onetan eztoгу ñoren urrengo. Yoan dan gizaldiaren lenengo urte urdurietan, Ulibarrik erakutsi eban, nik uste, euskaldunentzat biderik argiena ta zurrena. Gogoy, Llorente ta Traggiaren azpitiko ta agiriko yoko loriñari erantzunik egokiena, Astarloak, Errok eta olangoak emona ete zan? Burutik burukoa, eztabaida utsezkoa zan iya onen yokabidea. Beste biderik artuko dau Ulibarrik: euskalduntasuna zaindu ta zaildu; euskaldunak euskalzaletu, euskerea erabili ta landu, ori zan egitekorik andi ta bearrezkoena.

Eta egiteko orretan emon zituen Ulibairik bere urterik onenak. Berau baño euskaldunen zuzpertzaleagorik gitxi. Euskaldunai ñoz bere ez egin erderaz, euskaldunai beti euskeraz, «orra zeure adiskidearen esan maitia, Praisku», zirautsan bein Berrizko koronelari. Euskerearen areririk txarrenak etzegozan kanpoan, barruan baiño; euskaldunen zabartasuna zan euskerea galtzen eban sitsa. Amaseigarren gizaldian amorruta emoten eutson Pedro Madariaga Dima'tarrari euskaldunen alkarregaz euren artu-emonetan euskaraz ez eginbearrak. Bardin yazoten yakon Ulibarri'ri bere. Barruak erretan eutsozan euskaldun ez-yakiñ askok erdaldunen aurrean erakusten eben kokolotasunak. «Eztakiye ezer, etá tayu bat egiñik egoten dire erdalduneri adi; gero aen antzekoak eiten dire». Ez ditu bapere maite abade erdelzaleak edo euskeraz sermoirik egiten ez ekienak. Ez eban ikusi nai gure eleixetan erderazko «Padre nuestro» euskerazko «Aita gureari» kanporuntz bultzaka.

Euskereari eusteko biderik egokienak asmau zituen: euskera eskoletan sartu; eleixetan, errietako ta Gernika'ko batzarretan berari egokion lekua emon; gramatikak eta iztegiak egin, euskerazko liburuak argitaratu eta zabaldu; euskerearen alde egiteko, benetako «euskaltzain» izateko, Gipuzkoan lez Bizkayan bere, ogetalau gizon izentau; erriaren gogo-biotzak zuzpertz ta argiteko kanta-paperak atera. Etzan asmatzalle makala; baña eztau ñok esango asmo orreik azur ta mami bakoak direanik. Etzan ameslari utsa; baekian nondi nora yo, ba-ekian oñen ganean ibiltan. Etzan eragille utsa bere; berak egiñala ez eban egin barik itxiko; eta, alan, euskera guztietako liburuak billatu ta zabaltzen dakusgu, eta, gero ikusiko dogunez, bertso-orriak atera ta ara ta orra bialtzen bere bai.

Norbaitek, bearbada, buru berotzat yoko dau. Egia esan, erderearentzat eztau berba gozorik. Etxeko ta kanpoko arerioak bere euskera maiteari egiten eutsezan iraiñak bere onetik ateraten eben. «Ez nau artzen ez etxeak ez leku guztiak bere», ñoan olako baten bere barruko amorruari eutsi eziñik. Minbera zan benetan eta bere minberatasun ori erretan, zauri gorritan yartzeko ikuskizunik larregi bere inguruan zorigaiztoz! Aita Zabalarentzat «gogoa ilgarri» zana, Ulibarri'rentzat ez, alan bere.

Berak, bizi dan artean aldarri egingo dau, beintzat. Iñoiz, euskerearen arerioak gogoan dituala, «isgilluak eta burdin zulatuak» bere aitatzen ditu; baña etzan iñori ezetako gatzik egitekoa, bere irakiña barru-barrukoa dau, eta bere adiskideari kartaz beste iñori eztaiki iragarten. Ba-ekian, ikusi bear izan zituen irain ta biotz-mingarri askoren aurrean, «epe oneko» izaten, bere barruko irakiñari eusten, batez bere karlista-gerrate aldian, bere etxea arakatu ta bere eskuz egindako euskal iztegi bat kendu ta erre eutsenean, esaterako. Politikan bere etzan ain buru gogorra. «Orain kendu zan baltzen izena; guztieri parkatu deutsie Erregiñak bere senarraren aginduz». Olantxe, dino 1832'an, mixiño-oste baten, Don Fernando'ren azkenengo geixoan. Eztago orain baltzik ez zuririk. Erregeak agindu ezkeru jkitu!

«Nok esango eustan neuri ipuingiñan egingo nebala?». Zabalak itaun au bere buruari egiten dautso, kontu eske lez. Baiña zergaitik ez ipuinlari? Praille baten bizimodurako ez ete da ori? Eta berak emoten dau erantzuna.

Ez dagiala iñok uste «zeregin au deungea dala, edo bai beintzat adiñona (ba-daezpadakoa) ta alperrena». Ori usteko leukenak «irakurri begi ebanjelio santuan amar dontzellen irudia, erregegaz errenteru gaiztoen artekoarena, beargiñak mastuira eroan ebazan ugazabarena eta beste an dagozan ainbeste, eta gero esango deust».

Jesukristok ipuiñen bidez emon zituen ainbat irakatsi eder. Ipuiñak mundu guztiko literaturan ondo sartuta dagoz: erri-literaturarik zabalduena egiten dabe.

Idazle guztiz argi eta jakitunak ipuiñak idazteaz ez dira lotsatu. Aita Zabalaren egunetatik urrin barik, oso ezagunak dira Lafontaine Frantzian, eta Samaniego gure artean erderaz. Euskeraz be, norbaitzuk asiak ziren arlo au jorratzen: Mogel osaballoak, bata andrazkoa eta bestea abadea.

Zergatik ez bide orretatik jo eta aurrera egin? Gaiñera, euskaldunak ipuinzaleak dira, Zabalaren eretziz.

«Gogoan dot oraindo zelan umetan entzun geroazan (entzuten genduazan), aoa zabalik eta adurra erigula, Peru ta Mari'ren ipuin sustraibakoak». Zergaitik ez euskaldunai eskiñi sustrai obeko batzuk, mamitsuago eta on geiago egiteko batzuk? Zer gauza oberik euskalduna euskeraz irakurten zaletuteko?

Zergaitik bertsoan

Aita Zabalaren ipuiñak bertsoan dagoz.

Zergaitik egin ditu olan? Antza, euskalduna ipuinzalea bakarrik ez, bertsozalea be badala ikusi dau. Berak ez diño au ain garbi, baiña badirudi ori izan dauala gogoan.

Mogel zarrak olantxe, bertsoan egin zituan bere apurtxoak. Oni jarraituko deutso Zabalak. Bere ustez, bertsozko ipuiñak gogozago irakurriko dira eta errazago buruan sartu. Bertsozkoak, berak diñoanez, «berezko gatza, gazigarria eta uia (koipea) izan daroe», izaten dabe.

Eta olan erabagi dau:

Bizkaiko errietan gara euskaldunak,
egin daiguzan bada ipuin bertsoak.

Zeinbat ipuin

Aita Zabalaren ipuiñok galdutzat egozan, baiña non eta Parisen aurkitu zituen Azkue andiak. Arrezkero ezagutzen doguz. Guztiz, ogeita amasei.

Ogetaka ei dira Zabalarenak, amaika Mogelenak, eta bat Salaberri Ibarrolakoarena, Lapurdikoa.

Or esanak ez dau esan nai iñorenak diralako Aita Zabalak kopiatuak direanik. Guztiak dauke Aita Zabalaren eskualdia; guztiak dira berak Bizkaiko euskeraratuak eta orretarako berak barriztau eta biribilduak.

Mogelena dalako ipuin bat, esaterako, birritan eta neurri bitan jarri dau, Mogelek erabilli eban neurri berean bata, eta neurri laburragoan bestea.

Salaberriarena dalakoa Léclusek bere Gramatikan argitaratu eban bakarra da eta Lapurdieraz egoana Zabalak Bizkaiko euskeran jarri dau.

Argitaratzaillak ez dabe ondo egin ipuiñok Aita Zabalarenetatik kentzeaz; guztiak berak atondu, barriztau eta biribilduak dira.

Bertso-egille bikaiña

Zabalaren euskera Bizkaikoa da, eta Bizkaikorik garbi eta jatorrena. Orretan gitxik irabazten dautse Bilboko frantziskotar oni. Irakurri dabenak ao batez autortzen dabe au.

Eta bertso-gintzan be, ez da bapere makala. Giputz bat izan da Zabalaren bertso-gintza goratzen beroena. Aitzol zanak esana da: «Beronen olerkiak bertsoz oparotsu, itzez aberatsak, euskeraz iaioak, bikaiñenetakoak ditugu... Ain errexki bertso-doaia gure artean izan duenik gitxi»

Izan be, bertso-neurri gatxak erabilli arren, gaxtasun guztiak gorabeera, ederto daki geienetan bertsoa biribiltzen, berez-berez urtetan dautso. Maixu agertzen da benetan or ipuin-idazle au.

Bilbo euskeldunaren agergarri

Ondo egin dabe bilbotar oni egiñiko omenaldia atondu dabenak omenaldi ori Bilbon egiteaz eta Bilboko agintariekaz batera. Aita Zabalak erakutsi deusku Bilbo ez dala izan eta ez dala dana erdalduna. Bilbok beti emon izan deutso euskereari idazle eta lantzaillerik.

Bilbotarra da, XVII'gn. gizaldian euskerazko lenengo gramatika idatzi ebana, Mikoleta abadea. Aita Zabalaren egun inguruetan beste frantziskotar bat be izan zan Bilbotarra eta euskal-idazlea. Abizenez ez dauka euskaldun-antz andirik (Villalon, Montaña, La Quadra), baiña euskeraz idatzi zituen liburu bi, argitaratzeko asmotan, asmoak asmo gelditu baziran be.

Geroago be izan da besterik: Luis Iza, Altuna, Arruza, Izurategi abadea, Oleaga eta abar.

Aita Zabalak euron artean bere meritua, gorenengoa dauko: euskal-literaturaren arloan, sail barri bat jorratzea. Eta beragaz esango dogu: «Alan balira geiago! Gixiagaitik parkatu esatea lez da ori, alde batetik, baiña bestetik: «Zeuok ekin orain eta jo aurrera».

AITA JOAN MATEO ZABALA, ESULAK IDAZLE (1777–1849)*

Aita Zabalaz itz egiten astean, izarren argiarena datorkigu berez berez gogora. Guk geure gauetan ikusten dogun izarren argia ez da orain bertan izarrok bialtzen deuskuena. Urteak bai urteak egin ditu andik onaño eltzen. Bardintsu jazo da Aita Zabala onen argi edo osperekin: urteak joan dira guganaño eldu arte.

Ez euskun bere bizian ezelango euskal-lanik emon; guztiak illondoan argitaratuak ditu. Illondokoa dau bere idazle-ospe guztia: leenengo, gramatikalariarena; ipuinlariena, urrengo; eta, azkenez, gaurko egunotan, itz-lauzko idazle-ospea, oraintxe argi egiten edo argi-urratzen asi barria.

Zabala gramatikalariaren lanak erderaz egiñak dira. Ortik dauan ospari ez deusat ikuturik egingo. Aita Zabala: euskal-idazle: au da nire gaia, Euskaltzaindiak egiten deusan omenaldirako gairik egokiena eta errazoezkoena, ene eritxiz. Gai oni eldu eta ekin nai deusat, bada, nik. Aita frantziskotar oni ipuin-idazle eta sermolari dan aldetik begiratzuz.

Aita Zabal, ipuin-idazle

«Nok esango eustan neuri ipuingiñan egingo nebala»? Arrimenezko itaun auxe egiten deutso idazleak bere buruari. Ezin siñisturik lez dago bera. Beronek esango deuskunez, ez eritxon ipuingintza «ez ene bururako, ez ene bizimodurako» zanik. Baiña askotan egiten ei ditu gizonak gitxien uste zituen ainbat gauza. Alantxe, gitxien uste eban bidea artu eban Aita Zabalak; jakiñaren gaiñean egin zan idazle, eta ipuin-idazle ain zuzen.

* Karmel 1977-4, 47-59.

Lenago, itaun eta kezka batzuei erantzungo deutse, atzeragarri izan ez ekiozan. Ipuingintza praille batentzat egiteko egokia eta zan? Ez ete da «zeregin au deungea», edo bai beintzat bada-espadaokoa, «adiñoa eta alperrena»? Ebanjelioan, Jesukristok bere irakastaldietan erabili zituen ipuin eta irudietan aurkitzen dau alde onetatik kezka guztiak kentzeko erantzunik beteena. Frantziskotar batentzat ez da itxusi izango ipuiñak idaztea. Baiña euskeraz zertako eta norentzat idatzi? Ez dau orretarako giro ederregirik ikusten.

Aita Zabala bera lagun, ikusi dagigun zelan erantzuten deutan itaun oni, zer ikusten dauan euskal-giroan bai idaztearen eta bai ez idaztearen alde. Alde bata eta bestea ganoraz aztertu ondoren ekin deutso Zabalak bere lanari.

Aita Frantziskotar onegan buruak geiago agintzen ebalu dirudi biotzak baiño. Eta buruak zer dirautso? Ulibarri, Abandoko aberesendatzailleari bein egin eutsan gutun baten ikusi daikegu zerbait. Liburu andirik edo sakontasuna darionik egiteko ez dago. Euskalerrian ez eban ikusten giro egokirik olango lanik aterateko. Abandoko euskalzale beroari ez deutso miñik emon nai baiña, erdizperdizko itz-mitzik bere ez darabil berarekin, iztegi bi (euskererdera eta erdera-euskerazkoa), Bizkaiko Forua euskerara itzultzea eta euskal-gramatika idaztea eskatu eutsanean. Eztikeri bako eretxia da emoten dauana: «Euskerea dabil zorki eginik ostikopean, inok bere ikusi gura ezabela eta euskaldunak eurak erbestetu eta aaztu gura leukeela. Antziñako ipuietako leoi zarrari legez, batek emoten deutso adarkadea, besteak ostikadea, besteak aginkadea. Nok, bada, erosteko dira liburu orreek? Nok irakurteko? Zeuk baixen maite ta laztan balebe besteak, asko izango litzatekez aterako leukezanak euskerazko liburuak; baia, geure damu gogorrean, ezta alan, eta gitxik eta ondo gitxik dau maite; eta geienak, eta an-an urrean guztiak, gorroto erexten deutse; eta onek ilten deutso gogoa eukiko leukenari bere. Zer: burua galanto ausi liburuak egin eziñik; urtu, orreek aterateko, or ogeta amar edo berrogei milla errean, ta gero saguak, zedenak ta autsak iateko edo dendeetan eurekaz tabakoa edo piperra salduteko? Ezkagoz onen zoroak. Eztakit nik zetarako naukan Jangoikoak; baia orain beintzat eztarabilt olango amesik. Besteren batek ateraten badituz, ondo; atsegin artuko dot. Al dabena, dagiala. Baia, nik? Ez nago orretarako; lagungarri gitxi ta gogoa ilgari asko daukat, orretarako bideak artuteko».

Luzetxoa izan da Zabalaren itz-zaparrada au, bai ez dira emen alperrik aitatu, bere egunetako giroa zelan ekusan antz emoteko: euskal-idazlearentzat lagungarri gitxikoa, gogoa iltekoa, lumea bertan bera itxi eta idazteari bakea emoteko giroa benetan.

Olango giropean bere burua ikusita, Aita Zabala ez dago liburutzar lodi sakonik egiten burua austeko; baiña beste gai ariñago eta gazigozozkoetan jarduteko ez dago ain atzerakor; emen ikusten dau ate bat zabalik, idazle legez, euskaldunen artean sartzeko. Ate ori euskaldunen ipuinzaletasuna da. «Baakit nik euskaldunak ipuin-zaleak direala. Gogoan dot oraindo zelan umetan entzun geroazan (entzun oi genduzan) aoa zabalik, eta adurra erigula, Peru ta Mariaren ipuin sustraibaakoak». Orra bidea: berak «sustrai andikoak, mamin ederrekoak eta on eta onurakorrak» aterako ditu eta orrexek eskiñiko deutzaz euskaldun irakurleari, mundu guztian zear aoz ao dabiltzan ipuin ezagunetatik artuta, edo aren antzeko barriak asmauta.

Gexoaldi batek ekarriko deutso asmo au egiteratzeko erea. Alan dirausku: «Makalaldi baten, beste gauzatarako ez nintzanean prestu, eta oean bestetan baiño astiroago egon bear izaten nebanean, ene atzegangarrirako uste ez neban egiñen oni ekin neutsan».

Baiña euskal-giroak, euskaldunen ipuinzaletasunak bakarrik ez, inguruko erdal-giroak bere lan berera eroan ebela esan bear. Ia garai berekoak ditugu, Euskalerrian bertan, erdal-idazle ospetsu bi, ipuin-idazle bi: Samaniego eta Jerica. Euskal-idazleen artean bere ba-eban nori jarraitu. Ez zan bera lenengo ipuinlaria. Joana Bizenta Mogelek, emeretzigarren mendearen asieran argitara emonak zituan bere **Ipuin Onak**, itz-lauzkoak Bizenta berarenak, eta bertsozkoak J. A. Mogel osabearenak. Azkenengo au, J. Antonio Mogel artuko dau gure ipuinlariak bere bertsozko ipuiñen eredu.

Zergaitik bertsoan ipuiñak idatzi? Emen bere entzutekoa dogu idazle onen ere-txia. «Onelangoak (bertsozko ipuiñak), diño berak, izan daroe berezko gatza, gazi-garria ta uia, gogoia joteko, begizkoa egiteko, ta errazago oratu ta erantsiteko». Ipuinzalea eta bertsozalea da euskalduna. Bertsoa errazago sartzen da buruan, atsegiñago entzuten da eta luzarago irauten dau gogoan. Bertsoan, edo, berak esango deuskunez, berba neurtuetan idatziko ditu Zabalak bere ipuiñak, euskaldun irakurleen atsegiña egitearren. Eta neurri askotako bertsoan, egin bere: «Eurak dagoz berba neurtuetan, eta neurri labur-luze, geraaldi era askotakoetan». Bertso-neurriz oso aberatsa dogu Zabala: zeinbat ipuin, ainbat neurri darabillala esan geinke.

Lanari gaixoaldi baten ekin eutsan arren, bere autorpen batetik ateraten dogunez, ez zituen itxi geroago ikutu eta orraztu batzuk egin barik. Ez zan bera, antza, edozeri edo edozelan egiñiko lanari asko erextekoa. Asko eskatzen eutsan bere buruari. Gaixoaldiko lana saio bat izango zan beretzat, «lanari zaia kentzea», berak esaten deuskunez. «Zorra lez artzen» dau orduan egiñari, gero, eskualdi batzuk emotea. Ipuin barriak be sortuko ditu geroago, gaixoaldiaren ondoren. Banaka batzuk, beintzat. «Bigunaldia ezkeri, bat edo beste egin dot; eta oneek eta lengoak leundu eta apaindu, eta eskuak emon deustezan besterenak Bizkaikoratu». Orrelantxe osotu eta biribildu ditu, bereekin eta iñorenekin, guztitara ogeta amabost bat ipuin. Ogetaka bereak, bederatzi Mogelenak, eta bat Salaberri Ibarrolakoarena (au, Lécluse adis-kidearen Gramatikatik artua). Baiña guztiak, berak egiñak edo atonduak edo Bizkaikoratuak.

Ez dabe auxe guztiak ondo ulertu. Bein baiño geiagotan esan da Aita Zabalaren ipuin-sortan ogetaka direala bereak, eta gaiñerakoak iñorenak. Eta iñorenak, beste-renak diralakoak Zabalaren ipuiñetatik kendu egin dira. Zabalak esana ez da ondo ulertu. Iñorenak diralako orreek ez ditu Zabalak iñoretetik itzez-itx artu. Ez da bera kopiatazaille utza izan. Ogetaka, ogeta lau bat, asi ta amaitu, Zabalak berak ondu ta idatziak dira, eta besteak bere, berak Bizkaiko euskerara egokitu eta atonduak. Batzuetan, batetik bestera alde andia dago. Orregaitik, ez gara arritu bear (Urkijo jauna arritu zan lez) Zabalak Mogelen izenpean emonak eta beste nonbaiten aurkituak naiko ezbaridiñak badira, Mogelen beste eskualdien batekoak balira legez. Eskualdia Aita Zabalarena izan da. Mogelek gipuzkeraz egin zituen bereak, eta Zabalak bere erara bizkaikoratu, iñoz birritan eta neurri ezbaridiñez.

Noz argitaratzen dira?

Zabalak ez zituen ipuiñok bere gaixoaldiaren aringarri utserako idatzi, ez gordeta eukiteko, argitaratzeko baiño. Egia da «yolasgarriztat eta tartegarriztat» artu ebalá ipuin-lan au, baiña ez bere atsegingarri eta yolasgarri utserako, euskaldun irakurleen atsegingarri izateko bere bai.

Argitaratzeko asmotan ebillalako ezarri eutsen bere berba-aurrekoa, itz-aurrea. Berton argi dago asmo ori, eta argitaratzeko unea bera bere, gañean dala dirudi, «orain argitara ateraten dodazan ipuin mamintsuak», irakurten dogunean. Eta gero: «Irakurri egizuz eta egikezuz ipuin on oneek eta, ala baderitzazu, buruz artu». Zer jazo zan? Ulertzen gatxegia danik ez dot uste.

Itz-aurrea ezarri eutseneko, 1833gn urtea zan gitxienez, J. Bizenta Mogelek aurreko Gabonetarako atera eta argitaratu eban kantua bertan aitatzen dan ezkerá. Eta ez dago andik aurrerako urteetako giroa gogoratu bearrik: zazpi urtez arma-otsa eta gerra utsa da Euskalerrian, liburugintzarako ez girorik aukerakoena. Kristiñau-dotriñen bat edo ezpada, nekez aurkituko dogu urte areetan euskal-libururik gure Bibliografietan Bidasoaz onuntzako Euskalerrian. Bakea egin zanean, barriz, bertatik il zan egillea amaika buruausteen artean, beste fraide-etxe guztiak itxi ziranean, bere Zarauzko etxeari bizirik iraunazo eziñik. Irurogeita lau urte itxarongo eben aren ipuiñak illunpean, Abbadie jaunak eroanik edo, Azkue jaunak Parisen aurkitu zituen arte. Argitaraldi bi izan ditu liburuak gero; eta bestea, Euskaltzaleak egiña, 1934n, Aitzol zanaren itzaurrea ekarrela.

Egia esan, urteak bear izan zituen izar onen argiak euskaldunen artera eltzen.

Kritikak esana

Eta zelango abegia, zelango arrerea izan dau ipuin-liburuak euskalzaleen artean? Eretxi bi aurkeztuko ditugu, labur-labur. Eguzkiza zanarena lenengo. Euskera garbi, jator, erri-kutsukoan egiñak aurkitzen ditu Zabalaren ipuiñok; baiñak gazatxuak, gatz andi bakoak ei dira. Aita Villasantek bere eretxi berekoa dala emoten dau.

Oso bestelako epaia da Aitzol-ena. Onen eretxiz, ez dogu Aita Zabala ipuin barrien asmatzaille: gaietan aurretiko ipuinlarien zordun da, beste ipuinlari asko legez. Baiña ez ditu besteen ipuiñak itzez itz ez larrugorrian artu. «Irudipen aberatsekoa zan olerkari bizkaitar au, zeken eta larru gorririk besteren gaiak itzultzeko... Batzutan alegilari arrotzak laburkiro zekarztenak Zabalak narotsu euskeratzen zituen. Beronen olerkiak, bertsoz oparotsuak, itzez aberatsak, euskeraz yaiোক eta aditza erabiltzen bikaiñenetakoak ditugu».

Gañera, Zabalak antziñako ipuin zarrei «euskal-kutsua erantsi zien. Bertso erretzetan ipuiak oparotsu adierazten dizkigu. Ain errezkí bertso-doaia gure artean izan duenik gutxi, noski».

Are geiago: «Etzaigu... alegi-gaietan Zabala baiño olerkari yaiogorik jaio. Bere eñekorik ez degu eduki... Baditu akatsak... ».

Azkenez, Aitzol-ek Azkue jaunaren erabateko eretxia emoten deusku: «En especial, los religiosos franciscanos, Añibarro y Zabala (son) castizos y de lenguaje

flúido, y, seguramente por el estilo, los más recomendables de cuantos han cultivado este dialecto vizcaíno. Sería una lástima no se hiciera un librito con las 36 fábulas de éste último».

Azkuek, beste bein «linda colección», esaten deutso Zabalaren ipuin-sorta orri.

Baditu akatsak, esan deusku Aitzol-ek, baiña ez dau berak bat bere salatu. Eta guk? Bear bada, nik uste, oker bat erderazko bertsoen neurriak erabiltetik datorkio. Erdal-bertsoen neurrietara jo eban eta aren legeai lotuegi ikusten dogu. Orrek egiten dau aren bertsoetan buru-lana geiegi agertzea, bertso-legeai eustearren. Gatzik eza baiño geiago ori izan leiteke Zalalaren gatxa. Alan, bertso-neurri guztietan ez dau erakusten trebetasun bardiña. Batzuetan motelago dabil beste batzuetan baiño.

Eguzkitzaren azken-epaia aitatuco dogu, amaitzeko: «Gure Zabala [munduko ipuinlari] andien ondoan ipintekoa ez da, ziñez; baiña aintzat artzekoa, bai».

Esandakoen argigarriztat, irakurri dagigun orain ipuinotako bat. Neskame batzuk oillarra il dabe, bere kukurrukuz lanerako goizegi iratzartzen zituela-ta. Gero etxeko-andreak goizago jagi erazoten deutse, eta oker urten deutse euren jokoak. Emen ipuinlariak zeatz bete ditu erderazko «decima» edo amarrekoaren legeak.

Etxe bateko andrea
zan bada gutziz kirmena,
begiratua ta mena:
berba baten, egillea.
Erabillen ak etxea
larregiz ondo aitua:
bearrean zan urtua
eta otseiñai lanerako
oillarrak jo orduko
egiten eutsen oiua.

Neskatillak gogaiturik
orren goix jagi bearrez,
diño e erdi aserrez:
Zer? Loa erditurik
ta bein ez bein osoturik
beti geuk jagi bearko?
Ai, ta nok aturetako?
Ez, bada, guzurra, abarra:
ilgo jonagu oillarra,
bai bein, geure bakerako.

Esan ta egin: ilten dabe
ta ifiok ez igarteko,
luki gaiztoa jateko
egingo jakala jabe
zabaldua, oillar gabe

andra ori da gelditu.
Neskak pozak artu ditu
lo ta lo egitekotan.
Alperrik, neskag: sasoan
andrea oi don igitu.

Ugazabandreak, bada,
zelan eztaukan oillarrik,
amaiketara bagarik,
ta goixago bear bada,
«Mari, diño, ta txagada
ordu da; ea, ta jagi.
Nagi zagoze, ta nagi
al zagoze izerditan?
Dei eginda, lau orritan
jagi bearko don, Mari».

Aror, bada, otseintxuak,
on ekarri bearrean
buruari, katepean
parau dituez buruak.
Zeinbait onrak, diruak,
osasuna izateko
egiñak, ai, okerrerako
guztiak deutsez lortuak!
Zuk gazatxu arazuak,
munduan ondo egoteko.

Aita Zabala itz-lauzko idazle

Aita ZABALA, Zarauzko frantziskotarren etxean mixionari izan au il barritan, beronen mendeko praille batek idatziz autortu ebanez, gure idazleak sermoe asko idatzi zituen, «compuso muchos sermones». Bizkai guztian eta Araba alderaiño urte luzez mixionari ibilli zan ezkeru, erraz siñistu daikegu ori. Baiña Aita Ruiz Larrinaga zanak, aitatu dogun autorpena bete betean aintzat artu arren, auxe gañeratu eban bein: «Es lo cierto que hasta el presente no recordamos haber visto, ni oído a otros que hayan visto, sermones algunos, autógrafos al menos, de nuestro biografiado, ni en el Archivo ni en la Biblioteca de Zarauz. Ciertamente que si allí o en otra parte se descubriese alguno o algunos de los tales sermones, su hallazgo sería saludado con grande júbilo por los amantes de nuestra lengua».

Une zorioneko au etorri da. Berriro bere, urteen joanak ekarri deusku aspaldi bateko izarraren argia. Sermoeak agertzen asi dira. Eta ez dira Zarautzen agertu, Bizkaiko parroki baten baiño. Eta parroki orretatik mixionari baten eskuetara etorri. Gaiak, mixioetakoak. Guztiz amazortzi sermoe. Ez da, ez, gauza utsa: berreun bat orrialde osotzen ditue, tomo baten alkarrekin josirik. Urte-bitarte luzekoak ez dira: 1822tik 1833-garrenearañoakoak. Beste ainbesten utsunea salatzen dabe. Mixinoetako gai batzuk ez dira euretan aurkitzen. Azken-egiai dagokienik, salbaziñoazkorik euren artean ez dago. Konfesiñoari eta Jaungoikoaren legeko aginduak dagokiezanan besterik ez. Eta gaiotatik bere, guztiak ez. Agertuko al dira noz edo bein!

Bien bitartean, poztu gaitezen barri on onekin. Nik, agertu diranon barri emokeran, neure bidea artu nai dot emen: al dala sermolariaren beraren itzai eutsirik, sermoiotan agertzen dan gure erriaren zelanbaiteko arpegia erakutsi nai neuke.

Mixionarien sermoetan, gauza jakiña da, erriaren alderdi asko agertu daitekez: errietako berein oitura, ekandu, ia beti alderdi txarra nabarmenago gelditzen dala: erriaren arazoak, langintzak eta abar; labor esateko, erri baten arnasa eta bizimodua.

Bein zearretara, irudi edo argibideren bat erriko oitura edo langintzen batetik artuta; bein zuzen, ekandu okerren bat jo ta astinduz, Aita Zabalak argi-bitarterik edo ikuspegirik naiko emoten deusku, bere egunetako bizkaitarren ariman sartu eta murgiltzeko, orduko erri-giroa ikusteko.

Gure erria nekezalez, olagizonez, merkatariz, dendariz, arrantzalez eta abarrez osaturik erakusten deusku. Langintzarik geientzako dauka aitamenen bat. Bizkaitarrak langille aurkitu ditugu or: batzuk «argintzan, arotzian, errementaritzan, urregintzan, zapataritzan»; beste batzuk itzain, «baterik bestera laborea, lastoa, satsa (zimaurra), egurra, ardaoa ta beste edozeinbere gauza... gurdiakaz eroaten»; urrengo batzuen lana izango da «karobiari su emotea»; karegiña bada, eta ikazkiña bada, «ikaztobiari betegarria emotea»; nekezalea bada, «gari-batzaiten, gari-ebaten edo josten, edo itzinean». Eta olantxe, besteak, bakotxa bere bearlekuetan.

Andrazkoen egitekoak bere or ditugu: «bogadea irago, errekan ikuzi, ogia erre, goruetan egin, txabonadurea egin edo jo, uruna eralgi, oreka egin, labasuak egin», edo «kaltzerdigiñan, josten, ikuruzkiten edo arilduten».

Lanaren inguruan alkartzen dira zar eta gazteak. Batez bere, gazteak. Nora doaz

neska-mutillak alkarren billa? «Karobira, olara, txakoliñak egiten direan lekura, golarrietara, ezpalarrietara, gau-belara».

Baiña non alkar ikusten dabe geien baten? «Dantza batzakoetan, jolasetan, dantza ta jolas-osteiko batzarretan, andik etserako bidetan, gau-bigiretan, liñagintzetan, artazuriteetan, erriko santuen egunetan egin oi direan suetan».

Langintza guztietan aurkitzen dira gero iñoren lepotik zerbait atera edo bizi nai izateko arriskuak bere. «Dendariak eta joskilak kenduten dituez aria (firua), sedea, oial-txatalak, artazi-bitarteak, miesa-zatiak; arotzak, olak: errotariak, mendeaz ganetikoa: olakoak, aziak eta burdinea; itzaiñak, mea edo daroena; atxulariak (atxurlariak), artoa, garia, naboia, orria; arrantzuan dabilzanak, besiguak, eskabetxetrontzoak; ontzietakoak, ardaoak, aguardientea, tabakorria, azukerea». Gero «lapurreteak itxitako utsuneak kresalak, urak, lurrak, arrikoskorrak ta onelangoak betatuten dituez».

Auzoz auzo bizitzeak bere ez dakar beti alkartasun onik. Sarri ezarten deuto bestearen ondasunari eskua. «Auzoune baten bizi direanak, guztiz bere bikuntzan (bikundean) edo auzoz auzo bizi badira, ta batzuetan urrunago egonda bere, izan oi dira alkarren lapur, garbituten deutsezala bein egurra, bein ikatza, bein orria, bein berarra, bein abiako arrautzak, eta ez gitxitan oillanda-oillaskoak, kalte egiten deutsela-ta».

Alogereko langille askok ez dabe bardin eta zindo jokutzen beti: «Alogereko askok, atxulari, arotz, argin, jostun ta besteak egiten dabe, aurrean badago jaubea edo joakona, arin, bizkor ta ondo bearrari ekin; eta berak atzea emon orduko, alpertu eta lanari iraun eragin».

Iru gaiztakeri ikusi ditu bere egunetan gure artean indar artzen: guzurrezko yuramentuak, berba-loiak esateko oitura, eta gizon-ilteari bildurra eta itzala galtzea.

«Zer bildur gitxi, edo bapere ez, artuten deuten gure errietan askok (bereinek) guzurraren ganeko yuramentuari! Galdu bearrez ta opaka legez dagoz gure artean, erraz erraz ta atzeratasunik arean (ezer, deus) bagarik yuramentu egingo dabenak adiskide bateri mesede egitearren, edo lotsagarriago dana, zorigorrekko trago bat ardao gaitik; eta eztago gaurko egunetan guzur txarrik aurreko testiguakaz on egingo eztanik». Ezekielen aldian ba-eiziran «eskubete garagardogaitik edo ogi-otzur (zati, atal) bategaitik salduten ekienak... emen daukagu ondarra (area) legez, merkeago egiten dakienak».

Berba loiak esateko oituraren aurka gogorren dagoala esango neuke eta oso baltz ipintzen dau: «Onenbeste zabaldu da gaurko egunean gure errietan berba loiak esateko izkunea, neu nago kristiñau-errietan erriz erri ta yentez yente nekez esango dala Euskalerrian baxen berba zantar geiago: soloan, basoan, karobian, gari-ebatean, edo jotean, artazurietan, liñagintzan, txakoliñak egitean, gau-belai eurai bere parkatu bagarik, bein lagunak batu ezkeru, antxe urten bear dabee berbai loi, zantar, infernuko kiratsez beteak». Bear bada, itz onei sermolariaren beroen apur bat kendu bear jake, baiña or dagoz esanda.

Alan nai olan, gure idazle onegan, eta beste antziñako idazleetan, ez dogu aurkituko «euskaldun fededun» dalakoari putz andirik emoteko itzik. Nok diño esaera

ori amaseigarren mendea ezkerokoa dala? Gure sermolariak ez dauke orren susmorik, txikienik bere.

Irugarren gatxa, gizonaren bizitzeari lotsa ta itzal gitxi izatea, urte areetako gerrateak ekarria eta indartua dala dirudi. «Armak artuta bideetara ta etsetara lapurrerian doazenak» lapur okerrak dira nonbait. Baiña or doguz beste batzuk, «arma artu izan ez arren bere..., ifioren ortura, solora, etsera ixil-ostuka doazenak, ortuari, artoa, garia, frutak eta ostu egiteko... Alangoak sarri izan daroe bertan illak izateko bidea, guztiz bere gaurko egunean lapurrak askotu eta lotsabaakotu, eta gizon-iltzari itzala ta bildurra galdu jakan ezkerok».

Beste oitura batzuetan, esaterako, indarkerietan ibiltean, zein idartsuago agertu gurean, ez dogu bear bada asko aurreratu. Entzun deiogun sermolari oni: «Gizon ta mutil gogor indartsu askogan gure errietan ikusten dana da, aixe batzuk buruan sartuta, Jangoikoak pekatu egiteko emon izan baleutsezan legetxe, dabiltzazala euren indarrak azaroturik..., temak eta posturak egiten, ezin dituezan kargak jasoten ta eroaten. Jatun ta edatun askok posturak egiten dituez onenbeste ta ainbeste jan ta edango dabela, eta zeiniek geiago; onangoetatik gero askok osasuna galduten dabe, eta betiko erasoen bategaz gelditu».

Zer ikasi eta zer azterkurik asko dago gure praille onen sermoetan gure oituren arloan. Esaterako, jakingarriztat daukat, folklozealeentzat, ermita batzuetako oiturari buruz diñoana: «Batek baiño geiagok egin daroe... zortziko edo maraiko okertuak ermitetan ezarri..., eurai gatx egin deutesen bateri garria olantxe okertu dakion». Onelango promes gaizto edo okerrak jorratuz, ona zelan amaitzen dauan: «Zenbat onelango promes San Antonio Urkiolakora, Arantzazurako, Santa Eufemia Ailles-tikorako, San Yoan Gastelugatxerako, Santo Kristo Lezokorako, gazteak egiten dituezan, eta askoren arimen galtzaigarriako!».

Ez da, baiña, dana Zabalaren sermoetan betondoa illundun edo tximurtzekoa. Ez «onago bere», esango dot berak ainbat bider erabiltzen dauan esaera batez. Bada eurretan gauza atsegingarriagorik.

Mats-batzaillearen irudia, esaterako, atsegingarri eta baketsu emon deusku. Txakoliña bein baiño sarriago aitatu deuskun onek, Bakion, bere aitaren errian, eta Bilbo-inguruan, Begoñan, mats-orritarren artean, eta garai atan Bizkaian non ez?, bein baiño geiagotan ikusi zituen mats-batzailleak, aurki. Ona zelan jarten deuskun begien aurrean areen lana: «Matsak batzen dabillenetik ikasi egizu zelan egin (gogoia azter-tzea). Au, otzarea ta gurgullua artuta (arturik) asten da mastuiaren alderdi batetik, ta erreskan batuten dituz, ondo begiratuta, ikusten dituzan mordoak (mordak), eta aiantxe bata ta besteen atzean dabil. Gero ori asko ezjala baaki, ta bigarren ibillaldi bat egin, eta batuten deutesaz mats-orri artean ezkutaurik (ostendurik, osteiturik) gelditu jakezan lakaingñokoak».

Bilbon bein baiño geiagotan ikusi ditu uriola andiak, ibaiko urak bildurgarriro gañez egiñik, ol, mukur, upel eta abere, dana aurrean eroaten. Eta berez jatorko irudi au: «Etzintek ez ibai baten sartuko uriola andia danean, ta urak asarre doazanean, adiskidearen txapela aterateko».

Edo entzun dagigun gauza txikietan zoli ta keskatiegiak eta andietarako ardurabakoak diranentzat diñoana: «Badira kristiñauen artean bere, Kristo gure Jaunak agiraka egin eutsen fariseoak langoak: eltxoa irunsteke bustantxoa bere kendu bear, ta gero gamelutzarra iruntsiten dakienak! Eurentzat egiña legez jatorke onei gure antziñako esaera zarra: Zaietan zioigi, urunetan ero. Zai apur bat ez galduteko bil-durrez, ta urun ederra fara fara galduarren, bapere ardurarik ez».

Ez dot gai au geiago luzatu nai. Ez zaituet geiago aspertuko. Esanak naiko dirala-ta nago, bilbotar onen sermoien garrantziari antz apur bat artzeko, naiz eta berak ez zituen argitaratzeko idatzi, bere mixiño-ibillietarako baiño. Sermoiotan nabarmengarri da zelango ardurea darabillan lekuan lekuko euskerea egiteko. Itz baten alboan, taket-artean, txitean pitean dakaz beste bat edo bi, erri bakotxean erabilliena esateko edo. Or erakusten dau lendik genkiana: erririk erri ebillenetan, belarriak zur eta erne erabiltzen zituela, itz barriak ikasteko, lekuan lekuko esaerak eta berbeta jasoteko. Olako esaerakin osatua da Otxandioko **Manuscrito** dalakoa.

Sermoiotan eurotan bada itzik oraindiño gure iztegietan jaso bakorik: murkotu, lotsa gazako, itzin, zitzin, errube edo merkatu, kaia edo korridua (kapitalaren interesa, Mundaka aldean **gaia** esaten izan dabena), eta abar. Diru-izenak bere ugari ditu: ogerleko, erlegin, lauko, zortziko, marai, lau maraiko, bosteko, erreal, erle, el-txiki, el-zidar, elbiko... Gero, Aita Zabala oso trebea da, Larramendiren iztegiara ez beste euskalkietara jo barik, Bizkaiko euskera utsean itz bakotxari atera alak guztiak ateraten. Artu dagigun itz bat: gogoa. Zenbait itzuli eta irabio ez deutzaz emoten gure idazleak itz oni! Gogoa berotu, gogoa oztu, gogoa il, gogoa egin, gogoa jo, gogoan sartu, gogoan ipiñi, gogotik kendu, gogotik joan, gogoraekarri, gogoaekarri, gogotan artu, gogoari emon. Onetan maixu dogu bera.

Esanak guztiak laburtuz, esan dagidan maixu izan dogula berau joan dan mendean gure literatura aberastu eben sail bitan. Mende orretan asi ziran gure literaturan ipuingintza eta sermoegintza plazara agertzen. Orra izen batzuk: Mogel osaba-llobak, Iturriaga, Artxu, Goihetxe. Sermolarietan: Lizarraga Elkanokoa, Añibarro, Gerriko, Aita Bartolo, Astarloa, Agirre Asteasuko, Iturzaeta, Gortazar.

Ipuingintzarekin, nik esango neuke lenengo aldiz asten dirala eleizgizonak (Etxeparez gero), eleiz-gaietatik kanpo, literatura utsezko sailletara sartzen. Lenengo biak Bizkaikoak dira: **Peru Abarka-ren** idazlea, eta Aita Zabala, beronen **Ipuin on** bertsozkoekin. Ipuinlarien artean aspalditxotik eukan bilbotar idazle onek aparteko izena irabazita. Emendik aurrera itz-lauzko idazleen artean bere lekua egin bearko deutzagu. Aita Larrinagak iragarria beteten asi da, Aita Zabalaren sermoiak agertzen astea Euskalzaleak barri pozgarritzat agurtuko eta txalotuko dabela.

JUAN JOSE MOGUEL-EN EUSKAL LANAK*

Juan Jose Deban jaio zenetik bigarren mendeurrenean, berreugarren urtean gaude eta euskal-literaturaz eta euskeraren biziaz kezka eta ardurarik dutenek, ain zuzen ill onen ogeita seian, bera mundura etorri zeneko egun onetan, aren oroitza piztu eta ari omenaldi egin gabe ez dute gelditu nai izan.

Oraintsu sartu zaigun oitura, gizon argi eta eredutzat artzekoen eunurteak ospatze au, egoki eta onuragarri dalakoan nago. Bein izango da norbaiten jaiotza ospatzeko, beste bein alako edo olakoaren eriotzaren oroigarri.

Juan Jose Mogel onen eriotzaren urteurrena ospatu ez genduen ezkeru, betor orain beintzat aren jaiotzarena, eta ez bedi egun bateko oroitza utsetan gelditu. Egun bateko omenaldia aizeak eramango luke, utsa litzake.

Orain eun urte, jaio zanetik lenengoko eungarren urtean, ez zitzaion, nik da-kidala, omenaldi izenekorik ezer egin. Ala ere, izenik gabeko, baifia izan aundiko omenaldia egin zaitzaion. Urte-urren orren inguruan Mogel-ek idatzitako liburuak berriz argitaratu zituzten, bein eta berriz argitaratu ere batzuk, eta ez argitaratu bakarrik, bai zabaldu eta irakurri ere. Esaterako, *Eguneroko lan onak* liburuaren 5.000 ale argitaratu eta andik bigarren urterako, argitaldi osoa saldua eta agortua zegoen. Beste liburu bat, *Baserritar jakintsuaren Eskolia* G. Arrue, joandan mendean euskal-idazlerik ugarriena izan genduenak, Bizkaiko euskalkitik Gipuzkoakora itzulirik eman zigun. Urte-urren onen inguruak ikusi zuen, artean argitara gabea zen

* Euskera 26 (1981) 671-681. Deban, 1981-IV-26n, emondako itzaldia.

beste liburu baten argitaratzea ere. Orain eun urte Mogel-en izena eta Mogel-en euskal-lana Euskalerrriaren agotan eta euskaldunen eskuetan zebillen, bere bizian baiño ezagunago eta biziago. Izenik gabeko omenaldi ederra, benetan!

Gaur, bigarren mende-urrenean, urrik emango ote diogu orduko omenaldiari? Nola nai ere, gaurko omenaldi onek zerbait esan nai du, ez degula beintzat aaztu nai euskal-literaturaren alorreko langille on eta saiatu au. Egun onetan neri egokitu zait Mogel onen euskal-lanen berri ematea eta aiei, labur bada ere, begiratu bat egitea. Neri ezarri didate egiteko au. Ez dakit zergatik. Bear bada, Markiñan izana naizelako, eta idazle onen lan batzuk, argitara gabeak eta, an ikusi eta ezagutzeko aukera izan dedalako, zerbait berri esateko gaitzat artu naute. Nik baietza eman nuen eta emen nauzute, emandako itzari erantzuten.

Eta asi nadin, Mogel-en egunetako giroari gain-begiratutxoa ematen. Juan Jose Mogel-i ez zitzaion, ez, egun gozo paketsuetan bizitzea egokitu. Irurogeita zortzi urte aietan, 1781-tik 1849-ra, zenbat gertakari bildurgarri, zenbat istillu eta zarraparra, zenbat arma-ots, zenbat gerrate, bai atzerritarrekin, etabai anaiak anaien aurka! Mogel mutil koskorra dala, or etorri dira frantzesak Bizkaiko bazterretaraiño. Eta laster pakeak egiñik, Frantziatik etorritako arma-gizonak alde egin badute ere, emen gelditu dira beste asko, apaiz eta beste, Frantziatik iges etorrira. Emen bizi dira ostatur. Mogel zarrak, Peru Abarkaren egileak, eta Mogel gazteak badakite orren berri. Euskaldunak ziran asko. Mogeltarrentzat bestaldeko euskal-deitura, bat, Duralde, markiñar egiñik or daukagu bizi-bizirik gaurko egunetararte.

Mogel apaiz egin daneko, orra or berriz frantzesak, eraingoan leengoan baiño bildurgarriago. Berriz ere arma-otsa, zarraparrak, sei urteko egoera beltza, apaizentzako beltzagoa. Egun aietako egoera lazgarria naikoa biziki jaso zuen orduko bertsolari kantari batek: «Frantzesaren mendean, / umil gaude emen, / ark Jesus dionean, /guk erantzun: amen». Beti ez ziran, noski Jesuska etortzen, eta erantzun gogorragorik eman bearko zitzaien.

Eta noizbaiten joan diranean, edo atzerritik etorriak atzerrira bota diranean, ez da bake onik sortu. Barruan dago gaitza. Cadiz-ko Konstituzioa dalakoak anaien arteko borroka berriei atea zabaldu die. Euskaldunentzat txarrena, eskualde guzientzako berdintasun-legea ezarri nai du. Agur, beraz, euskaldunen legeak, agur foruak. Eta erregeak, frantzesak alde egin berritan, Konstituzio ori kendu badu ere, foruak kendu-naia, euskaldunak legezko alper-arri beraren azpian zapaldu eta berdindu naia bein eta berriz azalduko da, bein eta berriz erakutsiko du burua. Ala Riego-k piztutako matxinada ondoren, ala gero Isabelarren eta karlostarren arteko gerraten, ala berriz Esparterok agintea artzen duenean.

Gertakari guztiok ez dira gelditu Mogeltarren biotzean aztamarik utzi gabe. Bilbon, urtero, eguberrietan kantatzen ziran kanta berrietan, eta Markinan Cadizko Konstituzioa erretzeko ospatu ziran jaietako bertsoetan foruzaletasuna, foruai eutsi bearra bizi-bizi agertzen da. Eta kanta oietako batzuk Mogeltarrek sortuak dirala badakigu. Bat, Vicenta Mogel emakumea da, eta ene ustez, aietako batzuetatik ez zebillen urruti Juan Jose bera.

Eta bertso aietan, sendo agertzen da euskaldunen gogoia.

Lenago ler egingo dozue guztijok,
guri ezarri baiño zuoen buztarrijok.

Euskaldun gazte sendo, prestu ta nobliak,
gorde gura ditubez asaben legiak...

Kinta ta miliziak lantzian ta sarri,
ez deusku euskaldunoi lan txarra ezarri.

Agur, gure Foruak, agur noblezia,
koldarturik balego emengo jentia...

Bizkaian ez da biar erbeste legerik,
geure Foru maitiak nai doguz bakarrik.

Aldendu bitez, bada, gaiztuen asmuak
eta gorde osoro Bizkaiko Forubak. (1)

Iñok gura badeusku Foruba lurpetu,
guztiok biar geunke esan: gu gara gu!

Asko zoritxarrian badira emetu,
Bizkaiak oraindiño gizonak baditu.

Bakia da guretzat doerik omena,
baiña balego iñor gura eztabena,

laster ikusiko dau buruban egurra,
eta gordeko dogu geure olla-lurra. (2)

Mutillak orretako armatara dira,
zarrak bere nai leuke, gaztiak balira.

Katalan ta Naparrak, baita arabarrak,
ditugu zorionez beti guretarrak. (3)

Bertsook aski bitez, orduko giroa erakusteko. Euskaldunak euskaldun irauñ nai zuten, beren euskaldun legeekin, eta beren euskerarekin ere bai. Etsaiak euskal-gogoia

(1) Constitucioeco Damiaren asmua zortzicuan (Ikus C.A.F. MAHN, *Denkmaeler der baskischen Sprache*, Berlin, 1857).

(2) Gabonec Osaste edo Cantac Vizcaytarrentzat 1824 garren urtian.

(3) Constitucioeco Damiaren asmua...

piztuago egin du eta euskalgogoak euskalzaletasuna, euskera lantzeko bultzada indartsuago egin.

Larramendiz gero, euskaldunen euskalduntasuna berotzen asia genuen. «Euskalerrriaren adiskideak» ere su piska bat ezarri zioten berotzen asia zan giro orri. Mogel-ek urbildik ezagutu zuen Humboldt, eta aleman ori euskaldunen izkuntzaz ainbeste arduratzen ikusteak apaizgai gaztearen euskalzaletasuna sendotu besterik ez zuen egin. Gero etxean zuen bere osaba, Mogel zaarra, euskera-maisurik onena eta zentzuzkoena. Zer geiago bear zuen euskalzale eta euskal-idazle ona ateratzeko? Gazterik galdu zuen, apaiz egin aurretik, osaba orren itzala, baiña ark ereindako aziak aleak emango ditu bere aldian.

Juan Jose ez da sartuko, bere osaba sartu zan bezela, jakintsuen eztabaidazko gaietan. Ez, Mogel gaztea bere apaiztasunari eta arimazaintzari lotuago agertuko da. Nork esan du, Eusebio Maria Azkueren bertsoetako Mogel, Mogel santua, Mogel zarra dala, *Peru Abarkaren* egilea dala? Nik uste, santu izena zeukana Juan Jose izan zala, eta ez bestea. Azkue orrek Mogel zaarra ez zuen ezagutu, Mogel bigarrena, zaarraren illoba, bai ezagutu zuen. Txaraka eskribaua ere Juan Jose'ren egunetakoa zala entzun det nik Markiñan, Txaraka izeneko etxean bizi zana. Eta santu bezela, euskal-animen onari dagozkion liburuak idatziko ditu. Juan Jose onengan euskalzaletasuna eta euskal animen ona billatu naia batera joango dira.

Eta gazterik aterako du bere lenengo liburua, 35 urte zituela, 1816garren urtean.

Bizkaiko euskalkiarentzat, urte au zorionezko urtea degu egiaz. Iru idazle agertzen dira bat batean plazara: Aita Bartolo, Markiñako karmeldarren nagusi zana, aita Pedro Astarloa, frantziskotarra, eta gure Mogel. Aita Bartolo bi libururekin dator, *Euskalerrietako dantzen gatzozpindua* eta bere *Ikaskizunen* lenengo tomoarekin; Aita Astarloak bere *Berbaldien* lenengo tomoa dakar, eta Mogel, Markiñako apaizak, bere lenengo frutua, *Baserritar Nekezaleentzako Eskolia*, Bilbon, Pedro Apraizen molde azkijan ateratakoa. Idazle auekin azaltzen da lenengoz euskal-literaturan semolarien tankera, Aita Bartolo eta Aita Astarloarekin, eta lenengoz nobela-tankerazko liburua, Mogel'en liburu ori. Eta esango al det geiago! Bai, nik esango nuke urte berean agertu zala, bearbada uskeritzat joko dan zertxo bat, euskerazko lenengo Egunaria, edo Egutegia, Okondoko seme ta Abandoko aberesendatzaille izan zan Ulibarrik antolatatu eta euskeraz jarria, aurreko urtean idatzia, baina 1816garrenerako argitara emana eta zabaldua, noski.

Ez al da oroigarria gure literatura urritxoan bi edo iru bide berri urratu zituen urte ori? Ez da izan, noski, egun bateko lana. Ez; frantzesaren mendean ez ziran euskaldun guztiak egon frantzesak aginduai amen esaten; batzuk illunpean, ixillean lanean ziarduten, eta orra or orain argitara agertu.

Mogel'ena, orraitio, lotsaz bezela agertu da. Idazleak ez du argi osoan bere burua agertu nai, agi danez. Bere izena bost letra nagusien azpian gorde du: J. J. M.-M. C. (Juan Jose Mogel, Markiñako Kuria). Izen osoa ez du emango bigarren argitaraldirarte, 1845.garreanean. Bigarren liburua lenengoa eman eta laugarren urtean dakar (Egunoroko lan on ta erregubak, 1920n), emen osoan estali du bere izena. Egillea *Bizkaiko nekezalien adiskide bat* da. Ageri agerian dago Mogel'ek baserria

biotz-biotzean daramala. Lenengo liburua baserritar nekezaleentzat egiña du, eta bigarrena, nekezalien adiskide baten izenpean ateratakoa, Jose Basozabal'en sillutegian, 1820garren urtean. Bigarren liburu au Aita Zabala Frantziskotarrak euskera garbi jatorragoan egindakotzat zeukan. Ez dakigu zer akats aurkitzen zion praille orrek Mogelen lenengo liburuari, esan zuena esateko.

Bi liburuok ez dira neurri batez neurtzekoak, batez ere gaiaren aldetik. Bear bada, egilleak bigarrean gauzak zeatz, argiago eta labur esateko arduraren berezia erabili du, eta ala esaldiak argi eta beteagoak atera zaizkio. Gogozko otoiña egiteko, betiko egiak auznartzeko argibide eta gai laburrak naikoa trinkoak ditu. Bertso saillik erabadu, errosariokoak, kalbarioetakoak, dantza-zaleentzako eta abar. Orregatik edo, gozoagoa egiten zitzaion Aita Zabala'ri, bear bada. Baiña ez ote da izan beste zerbait aita Frantziskotar onek salatu nai izan duena? Mogel'ek leenengo idatzi zuen liburu artan euskal-aditzaren zuketa bakantxoak darabil; Zu eta oni dagozkion aditzformak pluralean ere berdin erabiltzen ditu. Onetan aita Bartolo, Markiña-Etxebarritaren eskolako zala ageri du.

Ona eredu bat: «kristiñau esker deungakuak, nok egiñak zara? norenak dituzu daukazuzan bizitza ta izatia... Kristiñau zar egiazkuak: bizitu zaite arren...» Bigarren argitaraldian, azkenengo au «bizitu zaiteze» egingo du. Nonbait olako zuketa formak, Bizkaiko bazter batzuetan bizirik zirauen orduan. Aita Bartolo'ren liburuetan ala daude. Añibarro'ren liburuetan ez. Mogel'ek olako aditz-formei urrengo urteetan agur esan zien, ez zituen geiago erabili.

Irugarren liburu bat, liburutxo txikia atera zuen, ala diotenez, bere bizian, 1827garren urtean, liburu txikia, izenez luze samarra bada ere: «Ejercicio santua errezetako Kalbarioko estaziñoiak, Birjina Santisisima angeruen Erregiñak irakatsi eutsena legez kristiñau fiel guztiai bere ejenpluagaz». Iru argitaraldi izan ditu, bi Mogel'en bizian, eta irugarrena lenengo mendeurrenaren inguruan (4).

Iru liburuotatik mardulena, beteena, lenengoa du noski. Liburu onetan Joan Josek bere osaba Joan Antonioren ildoan sarturik dabillega erakusten du. Juan Antoniok, *Peru Abarka* liburuan, baserritar bar, *Peru* jarri zuen euskerarik jatorrenaren eredu etamaisu: «Catedrático de la Lengua Bascongada en la Universidad de Basarte», tituluak dionez, eta gero erderazko itzaurre luze-samar batean ikusten degunez.

Joan Josek osabaren bidea artu du. Baserrira joan da, baserritar bat egin du, ez euskera jatorrenaren eredu eta maisu, kristau bizitzaren irakasle baizik. Baserritar bat irakasle, eta baserritarrak ikasle.

Baserritar ez ziranentzat ere balio bear zuen, noski; baiña Joan Josek baserritarrak izan ditu geienik gogoan, eta nekazarietako eman du eskola ori. Zergatik

(4) «Ala diotenez» esan nuen. Baiña idazlantxo au Mogel'en zerrendatik kendu egin bear delakoan nago. Ez du ageri Mogel'en euskeraren kutsurik edo antzik... Tituluan bertan ageri du ori. *Santuba* eta *ejenpluba* erabiliko zuen gure idazle onek. Mogel'ek erabili oi zuena baiño euskera baldarragoa du, gaiñera. Bestalde, titulua bera daramala, beste Gurutzebide bat ere zabaldua izan zan *Olaetxearen* argitaraldi batean, Kardaberaz aitaren *Jesus, Maria ta Joserren Deboziotik* artua. Noiz sortu da lantxo au Mogel oni ezartzea? Askok jaso dute gero uste ori (Palau, Etxegarai, Jon Bilbao). Baiña ene ustez okerra da, ganorazko oiñaririk gabea.

nekazariantzako? Norbaitek uste izan dezake, idazleak baserritarrentzat bakarrik zeukala egokitzen euskera, baserritar ez ziranak ez zutela bear. Ez, Joan Jose'ren gogoan olako usterik ez da sortu. Berari entzun beariko diogu zergatik egin zuen orrela. Baserritarren maitez, baserritarrak Jainkoaren itza entzuteko aukera gutxiago zeukatela ikusi zuelako. Au jakiteko era ere kendu zaie lenbiziko argitaraldia irakurri ez dutenei. Urrango edizioak lenbizikoaren itzaurrea, berba-aurrekoa edo aitzin-solasa kendu egin dute eta irakurleak egillearen leen-asmoa jakiteke utzi. An ikusten degu Juan Jose baserriatarrei itzik samurrenez mintzatzen, berba egiten: «Neure baserri-jetako nekezale maitiak: Jankoikoak sorreratik legez zubekganako iratsi eustan etsigitasunak (atxikitasunak) txiki-txikitatik zaletu ninduban zubekaz artuemon estubak eukitera. Izan dedilla zuen eta nire onerako».

Ezin du onez ikusi baserritarrak baserritarrik ezestea, gutxi estea. Ez du baserritarrentzat esker txarreko izan nai beste asko izan diran bezala: «Euskalerriak ta baserritarrak eurak emon deutseez jakitun andijak mundubari; baiña batzuk za-baldurik euren argijak bazter andi ta ugarijetara, esan lei bakarrik aaztu ziralta euren jaiterri ta berbeetakuakaz... Dakustana da, batez bere Bizkaitarren artian, banakaren bat ez izanik, osteruntzeko jakitunak ez dirala dendatu amaren ugatzeti ikasi ebeen berbeta eder ta gozatsuban jatorrizko anaerik urkuenei liburuben bidez euren adin aberatsen ondasunak zabaltzen. Barriz, bat bakarrik ez dut aurkituten berariz baserri-jetako nekezaleetara zuzenduten danik. Amodijo andiarentzat naibage andiko gomuntia».

Joan Josek bide ortatik jo du, berak lenengoz. «Norbaitek asi bear dau. Ezin ukatuko dabee nazala leleengua bakarrik ta berariz liburuban zubei berba egiten. Ez al naz azkenengua izango».

Badaki, ala ere, baserritar ez diranak izango dutela liburuan zer ikasi. Onela dio: «Ez diñot baserri-taar ez diranak ez dabeela izango emen zer ikasirik, ezpada ez dodala berariz eurentzako berba egiten .. Nagijak ezpadira, kaletarrak dauke era obia Jangoikuaren berba santuba sarrijago entzuteko bere ministruen agotik, ta nagijak badira, zetarako izango litzate nire liburuba?».

Liburua egitean, orraitio, kezka bat etorri zaio burura, euskaldun askoren be-larriak minberatuko oz ote diran liburuko itz arrotz eta naastekuak irakurrita. Naiko negargarri ikusten du euskeraren egoera, eta ala dio: «Euskeraren zaletasun eta eraspén puska bat daukeenak negar egiten dabee gaurko egunian ikusirik erri gitxi batzubetan bakarrik aurkituten dala berbeeta eder eta munduko jakitun guztiak zurtu biar dituben au, bere billostasun ta soiltasun garbi, argi ta miragarrian. Beste erri askotan ez dago belarririk entzuteko zelako erdera mordolluakaz ezainduten dabeen euskal-berbeetia».

Onetan izan dute errurik, bai abade jaun askok, batetik, eta eskolak, bestetik. «Parkatu daideela Bizkaiko kura jaun askok, bada eurei ezarten deutseet onetan erru andija. Erdera, latin eta beste berbeeta asko ikasten ditubee txito ondo ta garbiero, ta neke gitxi bat artu ezagaitik dagoz atzeratubak euskeeran. Alan gero euren sermoe ta berbakuntzetan erakusten ditubee esakune erdaldunak».

Eta eskolak? «Eskoletan erderia ikasteko leluak ez dau onetan kalterik gitxien ekarri. Euskeeria nastau ta erderarik ikasi ez, au da eskolako umeetan beti ikusi dodana».

Joan Josek zein bide artuko du euskerari dagokionez? Erdi-bidea. «Esan danetik ezagutuko da, zergaitik liburu onek urtetan ez daben euskeera garbijaguan. Arimako ondasun ta mesediak billatzen ditut. Orretarako nai dot guztijak aitu naijeen». Oraindik ez da euskeera garbiagora jotzeko ordua etorri, baiña gerora euskerari etorkizun pozgarria ikusten dio. «Jangoikuari eskerrak, egunoro urtengo dabee orain euskerara zaletu eta ondo ikasteko gei ugarijak»... Eta zaletuten bagara ondo euskeerara, erro zabalak botako ditu bazter guztijetara, ta orduban urtengo dabee liburu barri euskeriaren lora ta ondasunez betiak».

Argi dagoela uste det: Mogel'ek ez die bere leen-lana nekazariei eskeini, gure izkuntza baserrikoa eta baserritarrentzat dalakotzat daukalako. Euskaldunen izkuntza izkuntza oso ta betetzat dauka, eta etorkizunik zorionsuena opa eta ikusten dio. Euskal arimen onak eragiñik jarri da idazten, euskerarentzat nai duen eta itxaroten duen etorkizun obeak eragiñik ere bai. Bego au argi.

Baiña goazen Nekezaleentzako Eskolia liburuaren mamia edo muiña geitxoago aztertzera. Egilleak iru eskualdi eman zizkion liburuari, eta lenengotik bigarrenera titulua ere zerbait aldatu egin zion. Baserritar nekezaleentzako eskolia zana, bigarren edizioan *Baserritar jakitunaren etxeko eskolia* biurtu zan. Gaiñera ez da leenengoa berbera. Bigarreanean au gañeratzen dio: «Ateraten dau bigarren aldiz ta geigarri barriajak D. Juan Jose Mogel Markiñako abadiak», 1845.garren urtian, Bitorijan Manteliren alargun eta semien sillutokijan.

Azalean onelako aldakuntzak ezarri badizkio, barruan ez dizkio txikiagoak ezarri. Agiri danez, Mogel ez zan bein egindako lana ezin obetzat eukitzekoa. Urrengoan ikutu bat edo beste egin gabe ez zuen utziko. Orrela egin du 1816garreneko liburuarekin: emen kendu, or geitu, batean aldatu, bestean orraztu, liburuu utsez zuzendurik eta berriturik gelditu da.

Irugarren orraztaldia ere egin zion, beste argitaraldi bat emateko asmotan, noski. Ez zuen argirik ikusi, baiña or gelditu da kopia berria, egillearen eskuz egiña, eta aldakuntza berriekin.

Liburu au Mogel'ek nobela antzean asmatu eta egin zuen, len ere esan dedanez. Gauza au ez det leenengoz nik aipatzen. Joan dan mendean, *Euskal-Erria* aldizkarian Baserritarren eskola au nobelatzen aipatua dago. Eta Mogel'en burutik alakotzat atera zan. «Jazoera irudituba» esaten dio berak ere. Jazoera iruditu bat, gertakari iruditu bat idatzi nai zan du, ikasbidezko gertakaria, ori bai, guztiek, nekazari ta kaletar, zar eta gazte, guztiek eredu bat aurrean izan dezaten nola seme-alabak azi, nola okerbideetik alde egin eta eragin, nola bide zuzen eta garbiak maitatu eta artu ikasteko.

Mogel'ek bigarrean argitaraldian ezarri zion berba-aurrekoan ona nola azaltzen dan egillearen asmoa, mamiari dagokionez: «Emen, bada, azaldetan dira Doktriñako lau zati edo parteen gauzarik biarrenak, erakusten dira arrisku ta arimeen labanarriak, eurei aldendu ta birtute egijazkuei jarraituteko bidiak, eta guztirako aurkituko dira irudi edo ejenpluak».

Liburu onetan senar-emazte bi eta bost semealaba aurkitzen ditugu. Zazpion goraberak datoz, seme alaba bakoitzak bere bizimodua artu eta gurasoak iltzen diran arte. Eskola onetan ez da irakasten ez ikasten nekazaritzako lanik, baserria nola

aurrera bidean jarri edo olakorik. Emen gizabidea, kristau-bidea eta zerurako bidea ikasten dira, etxeko jauna maísu dala. Ez da bera eskolagabea. Osaba bat apaiza du, eta onen liburuetatik eta gaiñerako irakatsietatik, ez da nolanaiko jakintzaren jabe egin. Lenbizi bere emaztea eskolatzen du, eta gero, semealabak, banan banan, mundura etorri ala eta adiñean aurrera joan ala. Kapitulu bakoitzak bere sarreratxoia du, gaia aurkezteko. Bost seme-alabak or dabilta aitaren itzetarik zintzilikan, berok galde, aitak erantzun, kristau-bizitzarako bearren dituzten egiak eta legeak ikasten. Jaungoikoa gauza guztien egille, munduan ainbeste edergarri erein dituen gizonen onerako, gizona izadi osoaren jaun eta errege, Jaungoikoaren legea amar mandamentuetan ageri zaiguna, Kristoren Eliza eta sakramentuak. Bein elizako gauzak biziago azaltzeko, seme-alabak elizara eramaten ditu, eta an erakusten die, batik bat, bataioari, mezari eta konfesioari dagokiona.

Munduko labanarriak, pekaturako arriskuak, jakiña, sail andia betetzen dute liburu onetan. Dantza, erromeria, jai, begira eta beste pekaturako arrisku jakiñak bildugarri jarriko ditu, leenengo argitaraldian, batez ere. Bigarreneko naiko bigundo da etxeko jauna, eta Euskalerriko egoera ez du ain beltz ikusten. «Zorijonez, dio, ez dago onelako bigirarik erri askotan, ta dagozanetan bere, ez etxerik geienetan; leen ezagutu ditubeenak bere kendu ditubee». Itzok aitari entzunez, semeak (Luisek) onela dio: «Amaituko al dira euskalerrri garbijetan onelako pekatuben lazubak. Asko alegretan naz gitxitubaz duazalako». Baserriko lanik asko zearretara, pekaturako ekarri dezaketen arriskuaren aldetik aipatzen dira emen: gorueta, arta-zuritze, ezpateta, gal-ebate, karobiko lan, ira ebate, orbel batze eta abar.

Emen eta sermoi batzuetan Mogelek erakusten duen alderdi berria, bear bada gure literaturan lenengoz agertzen dana, zera da: Izadiaren, zerulurretako edergarriek eragiten dioten zoramena.

Baserritar maisuaren agoari bein baiño geiagotan dario zoramena ori. Baserritarra zoriontsuagotzat dauka, ain zuzen, zeru-lurretako ikuskizun ederretatik urrago bizi dalako. Nik ez dakit baserritarren zoriontasun ori beti beti jatorra eta egiazkoa dan. Entzun dezagun, esaterako, bein Mogelek esan erazten dion au: «Baserritarrak daukaz urren Jangoikuaren ontasun ta alsutasunaren gomuntagarririk bizijenak. Esnaatuten dabe gabian oillaren soiñubak, ganaduben orruak, ta Jangoikuak gizonarentzat egin dituban patarijen zaratak. Goiz jagirik, dakus eguzkijaren urtejera pozgarrija, estalduten ditubala illargi ta izarren argitasunak, entzunik bide batez txoritxubak euren soiñubakaz egunari emoten deutsean ongi etorrija, ta gizonari bere albistia». Eguzkiaren goizeko irteera, txoritxuen txinta-soiñuak ez diot baserritarrentzat pozgarri izango ez diranik. Baiña gabazko okulluko beien orruak, edo oillarraren kukurrukuak, patarijen zaratak ere pozgarritzat artu?

Etxeko jaunaren, baserritan jakintsuaren azkenengo eskola bizimodua artu bearri dagokiona da. Seme-alaben aurrean jarri ditu ezkontzako bizitza, ezkongabeena, apaiz eta moja. Bakoitzak ar beza ongien dagokiona, iñork beartu gabe. Bostak artzen dute bakoitzak bere bidea. Luis apaiz izango da; Ageda, moja dijoa eta Ines'ek ezkongabe gelditzea erabaki du; Xabier eta Sinforosak ezkontzabidea artzen dute.

Zoritzarrak, bata bestearen ondotik datoz etxeko jaunaren gaiñera, abereak gai-xoak jota il, andrea ere galdu. Gizonaren sendotasuna erakusteko bere biziko aukera. Baserritarrak Jainkoaren eskuari muin emanik artzen du dana, Job'en itzekin: «Jainkoak emanak ditut, eta Jaunkoak kendu dizkit. Bedeinkatua bedi bera».

Oñeraño iritxita, seme batek, Xabierrek artzen du liburuaren aria, aitaren azken-egunen berri emateko.

Irurogei ta lau urte ditu, ondasunen banaketa egin du eta ez dio beldurrik erioztzeari. Jainkoaren eskuetan dago, Badaki «arboliaren orriek jausten diran legez negu antzian, alan gizonak, banaka, guztiok goazela lurrera». Medikuek ibiltzeko agindu diote, eta, semea lagun, ibilli batzuk egiten ditu, leku ezagunetan zear, noizik bein basoarteko ermitatxo bateraño, aspaldi batean parroki izandakora, antxinakoen ilobiak ikustera, biziaz, eriotzeaz, geroko biziaz gogoeta sakon itxaropenez betetakoetan murgildurik. Aita zarraren azken-ordua olaxe dator, arratsalde goibel bateko illunabarra bezela, negu-aurreko orri-erortearen antzera, ain ongi eskolatu dituen seme-alabetan jarraitzeko.

Mogel'ek ez zuen bete al izan liburu au irugarren aldiz argitaratzeko asmoa. Eriotzeak aurea artu zion. Geroago iru eta laugarren aldiz argitaratua izan da. Eta Mogel'ek bere bizian nekez asmatuko zuena, gipuzkeraz ere agertu zan, Gregorio Arruek itzulirik, 1878garren urtean, Tolosan, Pedro Gurrutzagaren moldiztegian. Mogel'ek berak egindako bigarren argitaralditik itzulia dago.

Emen euskal-lanez ari naiz. Baina ez naiz geldituko zerbait esan gabe erderazko bi liburutxoez. Joan Jose onen izenean argitaratuak dira. Baina egilea Aita Bartolo dute. Léclusekin eta gero Iztuetarekin izandako eztabaida da bien ardatza, pluraleko Zuketa, len aipatu degun ori tartean dala. Eztabaida au dala-ta, Bartolok eta Iztuetak or euskal-dantzen gorabera elkar jo zutela dionak, ez du auzi au ulertu. Aita Bartolo'ren irri ta farrak ez dira or Iztuetarentzat, Lécluse'rentzat baizik. Zuketari buruz Lécluse ez zan nor, iñori maisukeriaz mintzatzeko, gutxiago Aita Bartolo-ri eta Mogel'i. Pluraleko Zuketa singularrera noiz aldatu zan ifiork ez du gaur arteño argitu. Ezagutzen degun euskal-literatura guztian bizirik aurkitzen degu. Ala, amalau-ama-bosgarren mendetako kanta zaarretan, ala Leizarraga eta Etxepare eta idazlerik zaarretan.

Zuketa zaararen aztarna bat gelditu da, ain zuzen, Aita Bartolo'ren eta Joan Jose onen euskeran. Nola auei Lécluse'ek edo beste iñork ezer irakatsi gai onetan?

Sartu gaitezen orain, Mogel'ek argitara utzitako euskal-lanetan.

Zer utzi zuen, bada, argitaratu gabe? Bat, beintzat, *Maiatz-illerako Berbaldijak*, Tolosan, 1885garren urtean Eusebio Lopez'ek argitaratuko zituenak. Lanori prestatzu zuenean, Mogel'ek ez zuen bear bada argitara emateko asmorik izan. Il-aurretxoan burututako lana du; zenbait itzaldi 1846 eta 1847n izenpetuak daude. Markiñako Merzedeko elizan utzi zituen, maiatzeko loretan edozeinek irakurri al zitzan. Maiatz illerako berariz egiñik gutxi dago. Geienak badirudi salbazioko gaietaz egiñik zeuzkan beste itzaldi batzuetatik atera zituela, azkenean Ama Birjiñari zuzendutako otoiz bat erantsita. Argitaratu zituenak bazekien ori, eta ala adierazi zuen argitara baiño urte bete lenagotik, alegia, maiatzerakotzat egon arren, itzaldi aiek oiñarrizko kristau-

egia asko ikutzen zutela eta edozein alditako balio andikoak zirala. Zoritxarrez, akats eta uts askoz beterik atera zan liburua, eta badu utzen zerrenda bat erantsi bearra.

Liburu oni dagokiola, Vinson'ek Euskal-bibliografian naastea sortu du. Ez zigan esan, bada, bizkaieraz agertu baiño lenago, gipuzkerazko edizio bat egin zala, edo *Itzaldiak* izeneko bat, beintzat? Etxegarai, Villasantek eta Jon Bilbaok ari siñistu diote eta aren okerra berritu. Emen Vinson'ek oker-adituen bat izan zuen. Eusebio Lopez'ek, Bizkaiko klasiko baten liburu au agertzeko iragartzen zuenean, urte bete lenagotik *Itzaldiak* tituluaz gaztigatzen zuen, gero egiaz *Berbaldiak* tituluaz agertu zana. Ortik bi liburu egin dituzte, bata, gipuzkeraz zegoelakoa, eta bestea, bizkaikoa. Vinson'ek ongi ageri du ez zuela gipuzkerazkoa zalako orren alerik ikusi, ez du berak oi zuen xeetasunik ematen, ez zer neurrikoa dan ez zenbat orrialde dituen. Eta aren ondoren etorri diranak oker berean erori dira.

Baiña berbaldirik, sermoerik geiago ere utzi zigan Mogel'ek. Onelako batzuen berri eman ez amaituko det nere itzaldia. Sermolari ona zalako ospea izan zuela badakigu. Eta ba omen zekien sermoiak idatzi eta beste apaiz lagunei ematen ere. Zenbat eliz-itzaldi ez ote dabil bazterretan, arek orrela zabaldurik? Markiñako parrokiak mordo on bat gordetzen du, doctriñaren zati batzuek aaltzekoak zenbait, Jesusen Biotzaren elizkizunetarakoak, eta beste asko. Guztiz irurogei inguru.

Itzaldi auetan Kardaberaz'en eragiña ikusten zaio. Kardaberaz Aitak badakigu nolako lanak erabili zituen apaizekin, euskera jatorragoa eta egokiagoa erabiltzen ikas zezaten... Badakigu ere Jesusen Biotzaren anaiarteak, kofradiak leku askotan zabaldu zituela. Markiñan ere bai. Juan Jose Kardaberaz'en jarratzaille degu. Kardaberaz'ek bezela, Mogel'ek ere apaiz-lagunei lagundu nai zien euskerazko sermoiak obeto egiten. Eta zintzo eutsi zion Markiñan Jesusen Biotzaren anaiarteari, arauetan zituzten eginbearra zeatz beteaz.

Illero egin bear ziran Jesusen Biotzaren eleizkizunok, apaiz bat zuzendari zutela. Apaizaren eginbearra zan, beste irakurraldiez gaiñera, gutxienez ordu laurdeneko itzaldia egitea. Orrelako itzaldiak, Jesusen Biotzaren elizkizunetarako egiñak, ia guztiak Mogel'ek idatziak 45 bat gordetzen dira Markiñako parrokiari. Maitaz-illerakoak bezela, aukerak ere Mogel'ek apaizen eskuetan utzi zituen. Bat kendu ezker, 1778garren urtekoa, besteak Joan Jose'n egunetakoak dira. Bakoitzak esaten du noiz eta zenbat aldiz esanak izan diran. Batzuk Mogel il eta urteak geroago ere bai.

Orra Joan Jose Mogel onen euskal-lana, Euskalerrarentzat, Euskal nekazari eta kaletarrentzat eta euskal-apaizentzat eten gabe egiña. Euskeraz idaztea ez zuen bere bizian utzi. Bizi onetatik eraman zuen azkenengo gaitzak ere idazten ikusi zuen, gauza barriak osatuz, edo len egiñak orraztuz. Euskalerrria eta euskera zor aunditan daude gizon onekin.

Lan au prestatzen ari naizela, egunkarien batean Gaztelako izkuntzaren akademiko baten itzok irakurri ditut, Gaztelako Izkuntzari, erderari buruz: «El castellano no lo ha hecho la Real Academia, ni la Gramática de tal o cual. Se ha perfeccionado en la iglesia, y en el teatro, mediante sermones, comedias, con novelas populares y romances».

Tankera eta mailla orretakoa izan da Mogel'ek euskeraren aroan egin duena. Euskerari eusteko eta aurrerabidean jartzeko, sail bat baiño geiago lantzen saiatu da: sermoi, bertso, jazoera iruditu edo nobela. Elizan eta elizatik kanpo, baserrirako eta kalerako, euskaldun guztientzat lan egin du.

Eta Euskalerrriak, batez ere Bizkaiak, orain eun urte, jaio zaneke leenengo mendeurrenean, esker onezko erantzunik ederrena eman zion, aren liburuak zabalduz eta irakurriz. Omenaldi ixilla, arrandirik gabekoa, baiña egiazkoa. Eta ona orain nere galdera: Aurtengo omenaldia, bigarren mendeurren onetakoa oroimen otz eta utscan geldituko ote da? Mogel'ek eta euskerak orain eun urte baiño irakurle gutxiago izan bear ote du? Euskalerrriak eta euskaldunok eman bearko degu erantzuna.

«BILINTX»*

**Indalezio Bizkarrondo
(1831-1876)**

Eun urte igarota, urak euren bidean.

Zerbait aldatu ba'dot be, bertso zarra etorri jat gogora, Bilintx zarraren bertsozko eta osteango lan guztiakaz ornidutako liburu ederra ikusita.

Bai, Bilintx il-barritan sortutako asmoa, orain, eun urte geroago egi eder biurtu da. Urak ba-datoz euren bidera. Nok esango eban, orraitio, idazle onen bertso guztiak argitaratzeko, lenengo asmoa erdaldun batzuen izango zala? Guzurra dirudian arren, alantxe da, asmo ori asmo utsetan gelditu ba'zan be.

Bilintx'en bertsoak ez dira izan ez-ezagunak, egia esan. Asko, egillearen egunetan, bertso-paperetan edo antzekoetan zabaldu ziran eta erriak bereak eginda gelditu. Liburu baten baturik be argitaratu izan dira, urteak geroago, Euskal-Esnaleak antxiñatxo, eta *Auspoak*, bertsolari liburuen ateratzailleak, oraintsuago. Oraingo argitaraldiak, osoz eta ederrez, lenagoko guztiak aztu eragiten deuskuzala esan bear. Dana dago osoago, ugariago, liburu onetan: Bilintx zanaren bizitzea, bertsozko lanak, bakotxaren edo geienen soñu ta guzti, eta abar.

Bilintx jatorrari egin izan jakon omenaldi au, eta euskalzale guztioi egin jakun opari aberats au, Donostia'ko Udal-Aurrezki-Kutxari eta Aita Zabala jesuita bertso-batzaille bizkorrari eskertu bear deutsegu.

t

Gizon xelebrea, Bilintx

Donostia'n, 1831'n jaio, eta 1876'an, euskaldunoi Foruak kendu euskuezan egunean berean, karlisten granada batek zaurituta gero il zan gizon au, gizon xelebrea izan zan Donosti zarrean, bapateko erantzun zorrotzak emoteko buru zorrotza eukana.

* Zer (1980, 34.zenb.) 8-9.

Ez dakigu nondik etorkion bere ez-izen edo gatx-izena, Bilintx. Alan nai olan, ez eban beti ez-izen ori gogo onez entzuten. Bein lagun batek, tabema-zuloen batetik ondotox edanda urtenda-edo, kalean agur egiten deutso: Agur, Bilintx. Bai onek laster eta egoki erantzun be, erdi zabuka joian ari: Agur, Balantx.

Ez ei zan bera itxura eder-ederrekoa. Gaiñera gazterik gelditu zan buru-soil, burua ulle gaberik eukala. Eta bein batek: «Ire buruak gaztaia jirudik, dana zuri». Eta Bilintxek bertatik bertara: «Ireak, barriz, illargia zirudik, dana illez (ullez) betea». (Donostiarren illea gure ulea da).

Bilintx atezain egoan baten, teatroan sartu-urten bat egiteko baimen eske joazok lagun bi:

—«Sartuko al gara?»

Eta Bilintxek:

—«Bai zartuko zerate, urte asko bizi ezker».

Baiña xeblekeririk entzutetsuena bein, asto baten gañean joian Domingo Kanpaña bertsolariari bertsoz egin eutsana:

«Asto baten gañian / Domingo Kanpaña. /
Ez zijoak utsikan / mando orren gaña. /
Azpian dijoana / mando dek baña, /
gañekoa ere badek / azpikoa aña.
/ Mando baten gañian / bestea, alajaña!».

Arotz eta atezain

Aita Zabalak argitasunik asko emon deusku. Bilintx arotza izan zan, urteetan iñoren kontura ibilia, Teatro Zarreko atezain egin eben arte. Arrezkero Teatro Zarrean bertan bizi izan zan eta bertan ipinten dau bere arotzeria be. Azkenengo amar urteak bizimodu onetan egin zituan. Atezaiñ izate orrek ez dau esan gura, orraitio, ateen itxi-edegille besterik ez zanik. Atezaintza orrek bereak zituan teatroko argien kontua, eta ango oial eta tramankulu guztien ardurea: dana zaindu, dana bear zanean erabil-tzeko moduan ondo gorde, gauzeztuak konpondu, eta abar. Gainera, Teatroan bertan dendatxo bat ipiñi eban, liburuak eta, batez be teatrolanak eta saltzeko.

Ez zan eskola bakoa

Eskola gitxiko, edo bape baktzat emon deuskue batzuk gizon au. Alan Curros Enriquez galziarrak, Bilintx il zanean Donostialdetik ebillenak. Baiña galziar onek ezagutu ete eban eguneroko papeletatik baiño beste iñondik? Ezetz dirudi. Ez deusku, ba, berak Donosti Zarreko semea ango inguruko mendi baten bake osoan bizi zan baserritar egin, bere omenez atera eban olerki baten? Eta txabola orretan granada batek zaurituta il zala gañera? Ez zan, ez, ain baserritarra, ez ain eskola bakoa. Liburudenda eukan onek ez zituen liburuak besterentzat bakarrik nai, beretzat be bai. Ondoen ezagutu ebenak esan ebenez, orduko olerkari asko ezitan irakurten ei zituan: Trueba, Campoamor, Aguilera, Becquer, Heine eta abar. Madrildik ango egunkari

baterako (La Correspondencia) albistari be egin ebenak ez eben eskola gítzikotzat artu. Eurok izan ziran il ondoan aren bertsoak argitaratzeko asmotan lenen asi ziranak.

Irri-bertsolari eta maite-bertsolari

Erdal-bertsotan ikasia izan arren, euskal-bertsolarien sena ekarren Bilintx'ek askoz geiago. Eta gaiak geldian ausnartu eta papelera aldatzen dituenetakoa geiago, lagunarteko eta bapateko bertsolari baiño.

Bertso-paperik lenengoa 1852'koa ezagutzen deusagu, Donostiako iñauteri edo aratusteetarako egiña. Esan bearrik ete dago Bilintxek bere barrua ustu eta agirian ipiñi dauala bere bertsoetan? Aldarte oneko gizona eta biotz samurrekoa agiri jaku eurretan. Gizonen alderdi barregarriak jaso ta bertsoetara irazteko begi zorrotza eta luma bizkor zeatza erakusten ditu. Baiña irri zurizko umorea, beztunik bakoa da Bilintx'ena. Maite-bertsoetan, barriz, berak iñoz autortua agiri dau: ezin ebalak berak mundua andrazko barik ikusi. Onek, bertsolariaren damu gorritan, ez eutsoen esker andirik erakutsi. Andrazkoen ezezko biribillik artua dogu luzaro. Baiña orduan be, bere aldarte ona ez dau galduko. Bere ai! edo aieneak mingoztasun barik urtetan deutsoe. Alan be, bere bertsoen eztiatz, zeozer lortu eban: berrogei urte egin baiño lenxoago ezkondata daukagu.

Irri-bertsoak izan naiz maitezkoak izan, bietan maixu dogu benetan. Neke barik urtetan deutsoela dirudi, iturriari ura lez, txori kantariari bere txorrotxioa lez. Errez-tasuna erakusten dabe, baiña askotan nekearen nekez, ekiñaren ekiñaz lortutako errez-tasuna, bertsoak bein ta berriz orraztuta. Orixe agiri da Bilintx'en eskuzko idatzi batzuetatik.

Politikazko bertsorik?

Bilintx'en egunetan, bertsolari askok jo eben politikazko bertsoetara, batzuen nai besteen alde. Baiña beroni, baltzen aldeko politikakoa izan arren, olangorik ez jako ezagutzen. Eta ez jako ezagutzen, ezbai barik, olangorik idatzi be egin ez ebalako. Bake zalea zan, ez burrukalaria. Ez ekian gizonen artean gorrotorik ez miñik sortzen. Biotzak ez eutsan olangorik agintzen. Beste bertso asko, bai, badakigu galdu egin jakuzala. Esaterako, erderatik euskeratutako poema barregarriko bat (Mier-dépolis), bere barruak eta aldarteak eskatzen eutsoenetakoa, baiña politikazkorik ez. Eta gero, Foruak galdu zirala-ta, illetak joten asiko ziranean aldiak etorteko egozan, zorionez.

Omenaldirik ederrena

Liburu au atereaz, Donostiak Arrezki-Kutxaren bitartez, omenaldirik ederrena, ezin obea, egin deutso bertako seme jator bati. Egia esan, ez dau izan omenaldi

bakarra: bost edo sei egunetako itzaldiak, Bilintx nor dan argitu eta jakiñazoteko; diru lodizko sariketak, euskerazko nai erderazko idazlan eta gazetari-lanentzat. Onek be, guztiak, Aurrezki-kutxak argitaratuta.

Baiña Bilintx'en nortasuna ezagutzen obeto laguntzeko, zer egokiagorik Donostiar argi onen Ian guztiak argitaratze au, eta aren bizitzako azi-orraziak argitze au baiña? Lan ederra Donostia'ko Udal-Aurrezki-Kutxak egin deuskuna. Diru-babesa ortik etorri da. Baiña norena izan da nekea, bertsoak batzen eta bertsoegilearen bizitza argitzen? Bertsolaritzak ainbeste zor dauzan eta merezitako eskerrik izango ez dauan Aita Antonio Zabala'rena.

Aita onek zeatz eta oparo bete dau bere egitekoa. Orretarako zer ez dau arakatu? Eleixetako eta Udaletxetako agiri, an or emengo paper zar, urte areitako aldizkari, egunkari eta naste. Olan batutako barri guztiak, gero Pelay Orozko jaunak txukun eta osoan erderaratu ditu. Bertsoak eurak, barriz, askotan bi eta iru kopiatan eskuratu jakuz, Santesteban'ek, beste musikolari batzuk eta erriak ezarritako doñu ta guzti. Eta liburua txukunago an egiteko, pintatzaille-talde batek dana apaingarriz edertu dau. Egin ete zeitekean geiago edo ezer oberik?

Eun urte igarota, emen dogu Bilintx bizi-bizirik, oso-osorik.

<LA VERSION MUSICAL DEL GERNIKAKO ARBOLA ES LA PRIMITIVA?*

No dejan de suscitarse periódicamente pequeñas discusiones en tomo al **Gernikako Arbola**, discusiones que las más de las veces terminan dejando las cosas como estaban al no presentar ningún dato nuevo que haga luz más plena y convincente.

No hace mucho se reprodujo una de esas discusiones sobre la paternidad del histórico himno. ^Fue o no Iparraguirre el autor exclusivo así de su letra como de su música? Nadie pone en duda la paternidad del famoso bardo sobre la letra, el poema que corre con su nombre. No sucede lo mismo con su música.

La duda existe y adquirió estado público desde que la formuló José Manterola en 1878, en el tomo tercero, segunda serie de su **Cancionero vasco**, p. 76-79. «Tanto la letra como la música de esta composición [decía allí Manterola] han pasado y pasan todavía para la gran mayoría como inspiración de Iparraguirre. Habiendo yo oído decir que la música de este himno era obra de otro vascongado, pedí algunos datos sobre el particular». Y los datos le llegaron a Manterola desde Madrid, remitidos con fecha 24 de abril de 1877 por su paisano y amigo D. Miguel de Ostolaza, y de ellos se desprendía que el autor de la música en cuestión era un tal Altuna (Juan José), «músico cuyo mérito era sólo comparable con su modestia», muerto algunos años antes, siendo organista en una iglesia de monjas de Lequeitio, Vizcaya.

Y Manterola puntualizaba: «Las anteriores noticias en nada amenguan las glorias de Iparraguirre, y en cambio nos dan a conocer el nombre de un modesto e ignorado compositor que comparte con él la gloria que le cabe en la inspiración del **Gernikako Arbola**».

Ahí quedó la duda. No parece haber habido ningún intento de aclaración ni de rectificación a las especies lanzadas por Manterola en vida de éste. Nadie se movió, ni siquiera del círculo de Iparraguirre, que por aquellas fechas se hallaba repatriado ya, esperando para el resto de sus días una subvención que por fin le llegó de las Diputaciones Vascas. Y Manterola, por su parte, que poco después fundaba y dirigía

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 25 (1969) 551-556.

la revista EUSKALERRIA, moriría en 1884 sin que, al parecer, se produjera ningún hecho o dato que le hiciera rectificar nada de lo dicho por él en 1878.

Así quedó el estado de esta cuestión en vida de Iparraguirre. Cuantos posteriormente han tratado el tema, como fueron los colaboradores del tomo que la Biblioteca Herrán dedicó a Iparraguirre y al Arbol de Guernica, y los que más tarde escribieron sobre lo mismo en EUSKALERRIA, no aportaron dato ni elemento de juicio nuevo para aclarar el enigma. Unos se inclinarían por Iparraguirre, otros se declararían por Altuna según la preferencia que dieran a la tradición o fuente que cada cual consideraba más legítima. Y desde Manterola la investigación no ha dado ningún paso digno de tenerse en cuenta para hacernos salir de dudas.

Aunque cueste creerlo, éste es el hecho, y podemos resumir el estado de la cuestión diciendo que el himno que ha conmovido a tantas generaciones de vascos, estrenado en Madrid allá por el año 1853, impreso en 1856 en Tolosa corao un canto anónimo, y que rápidamente atravesó los Pirineos mereciendo ser mencionado por Cenac Moncaut en su Historia de los Pirineos como un canto nacional y reproducido en 1857 por Michel en su **Le Pays Basque** con la indicación de que su autor debía de ser un cierto Iparraguirre, este himno tiene un autor cierto en cuanto a su letra: Iparraguirre. Este mismo es el autor de su letra y de su música para la opinión más común, al decir de Manterola, en 1878; pero para otros el autor de la música es Altuna que, ya el día del estreno en Madrid, había compartido con Iparraguirre el triunfo y las ovaciones del grupo de vascos presente en el acto.

Así R. María de Azkue, en 1897, no vacila. Al insertar el himno en su semanario **Euskalzale** (p. 236-37), sin más explicaciones da a Iparraguirre por autor de la letra, y a Altuna, de la música. Al tomar esta actitud, ¿seguía sencillamente la corriente de los Ostolaza, Manterola, Delmas o Trueba, o era más bien eco de alguna otra fuente o tradición procedente de Lequeitio, pueblo natal de Azkue, pueblo en que pasó sus últimos años el organista Altuna?

Pero no hay datos nuevos. A lo más, se recurre a conjeturas y se formarán corrientes de opinión que tratarán de armonizar ambas opiniones, ya en favor de Iparraguirre, ya en favor de Altuna, atribuyendo ya al uno, ya al otro, intervención de diversa índole en el sentido de arreglos o de retoques dados a la obra del otro.

Para completar esta información, habrá que mencionar otra corriente de opinión que últimamente se ha formado y que pretende que la música del discutido himno sea obra anterior a Iparraguirre y a Altuna. Se basa en el hecho de que en Garay, pueblecito contiguo a Durango, patria de Altuna, es tradicional un baile que se ejecuta al son de esa música en la procesión del día de Santiago, patrono del lugar. Esta tradición data, al parecer, de tiempo inmemorial. La introducción que Altuna puso al **Gernikako Arbola** es la misma que en este baile de espadas sirve de llamada o toque de atención, usual en tantos bailes, con que el txistulari inicia su actuación y prepara la de los danzantes. Esta opinión pretende que Altuna tomó de ahí la tonada para la letra de Iparraguirre. Pero aún no hay pruebas de que el baile haya precedido, con su música, al himno.

Y, sin más explicaciones, dejó aquí este punto de discusión, del que no he querido sino recordar los términos en que está planteado, sin pretender entrar a

esclarecer este pequeño enigma histórico, uno más en la vida del bardo errante que fue Iparragirre, vida tan tejida de leyenda como de historia, al decir de quienes la han estudiado.

El punto que yo me he propuesto tratar aquí es otro, aunque está derechamente relacionado con el **Gernikako Arbola**, y con su melodía precisamente.

La cuestión, concretamente es la siguiente: ¿la actual melodía de este himno, con la que se canta desde tiempo ya inmemorial, es la original o no? ¿La primitiva melodía, la que el bardo entonara en Madrid el día del estreno y con la que recorrió el país en los meses que precedieron a su destierro, no ha sufrido alguna alteración? ¿El **Gernikako Arbola** siempre se ha cantado con melodía totalmente idéntica a la actual?

La respuesta a estas interrogantes es que, efectivamente, la melodía no es totalmente la primitiva, que ha sufrido alguna variación, si no muy sustancial, sí al menos accidental. Y no nos referimos a las transformaciones o deformaciones que haya podido sufrir en boca de ejecutantes descuidados o inexpertos. A ellos parece aludir Isidoro Fagoaga en su última obra: **Los Poetas y el País Vasco**, cuando escribe: «Es indudable que el pueblo —agente de creación y también de deformación— ha desnaturalizado algunos pasajes de la estructura musical del himno vasco, alterando en algunos puntos su línea melódica y fraguando versiones con rellenos y variantes de pésimo gusto».

Nos referimos a una variante introducida ya en todas las partituras del himno actualmente, a la que también hace referencia Fagoaga en su libro, y que motivó una protesta airada del mismo Iparragirre cuando la oyó por primera vez. La anécdota fue dada a conocer en la revista EUSKALERRIA, como 19 años después de la muerte del bardo, por cierto en una versión y con un comentario de las palabras atribuidas a Iparragirre, que tendían a probar que éste se consideraba autor exclusivo de la obra. Pero en el fondo merece entero crédito.

He aquí las palabras del articulista en la revista mencionada, que copio de la obra ya citada de Fagoaga: «Cantábase en cierta ocasión el **Gernikako Arbola** en presencia de Iparragirre. Al oír éste la segunda parte de la composición, una exclamación violenta, mezcla de dolor y disgusto, se apoderó de él.

—¡Me habéis estropeado la obra! —exclamó dirigiéndose a los que la interpretaban.

Ante semejante afirmación, todos quedaron inmóviles.

—Sí—prosiguió aquél—. Esta segunda parte no es la que yo concebí. Es preciso evitar la monotonía que resulta del re, mi, re, repetido hasta cuatro veces. El primer fragmento de la segunda parte débese, pues, sustituir así: *sol, sol, la, si, do, re, mi, re*, por *sol, sol, la, si, do, re, sol*».

El cambio de notas afecta a las dos últimas sílabas de los versos: **emanda zabalzazu y adoratzen zaitugu**.

No hay por qué no aceptar el fondo de esta anécdota. El himno ha sido objeto de una alteración que irrita a Iparragirre. Las observaciones de éste sobre la monotonía cargante del pasaje citado son acertadas. Efectivamente, dicho pasaje resulta monótono y al repetirse el intervalo de semitono al final de verso cuatro veces

consecutivas no deja de producir una sensación como de ahogo. Al comentar este hecho con un músico, D. Tomás Garbizu, éste se ha manifestado plenamente de acuerdo con Iparraguirre, y la versión que éste da como primitiva la ha encontrado más natural y más de acuerdo con los modos musicales vascos.

Admitida la autenticidad fundamental de la anécdota, cabe preguntar cuándo tuvo lugar. El articulista de EUSKALERRIA no la data. Probablemente, fue por los días en que Iparraguirre volvió del destierro y era objeto por parte de sus paisanos y admiradores de homenajes en que no podía faltar el himno que le dio más popularidad. Y otra pregunta que surge espontáneamente es: ¿cuándo se produjo la alteración en la melodía? Más; ¿se introdujo por incuria del pueblo ejecutante, o por alguna errata deslizada en algún impreso? No estamos en condiciones de responder a estas interrogantes por falta de fuentes, por falta de archivos musicales en nuestro país. Creo que ello obedece a que nuestro pueblo no está sensibilizado en este punto, no se presta apenas atención a la conservación y archivación de nuestro tesoro musical. En estas condiciones no será fácil hacer aquí una investigación seria a fondo.

Sin embargo, a falta de otros datos más esclarecedores, no puedo menos de aducir un testimonio, el único que yo he hallado, prueba suficiente de que la queja de Iparraguirre se basaba en un hecho real, y de que se ha conocido una versión del **Gernikako Arbola**, que concuerda con la que era la primitiva según la anécdota que comentamos.

Puede verse en una obrita vasca de allende los Pirineos, aparecida en 1877, cuando Iparraguirre preparaba su regreso de América. Su autor es un canónigo, y célebre poeta vasco: Gracián Adéma, conocido como poeta con el seudónimo de Zaldubi. La obrita se titula: *Escualdun Pelegrinaren Bidaltzailea*, algo así como Guía del Peregrino Vasco.

Su última parte contiene una colección de cánticos para los peregrinos. Entre ellos figura, en último lugar, un himno al Papa con esta primera estrofa:


*Erromako aldetik zer da argi hori?
Egiak dauku handik argitzen orori.
Beha dezogun beha bethi Erromari,
Erromako Eliza Ama Sainduari;
Beha dezogun beha umeek Amari.*



Er - romaco al - detic cer da aríri.ho-ri?

mmm -ivb--k h_{nrj}
=

E-gf - ac daucu ban-dic argi-tcen o - ro - ri :

g^y *i* 

Beha dezo- gun be - ha bethi Er-ro-ma-ri;

mm *tf* *m* 4 ^

Er-ro-ma-co E - li - za A-ma Saindu - a - ri

 *JíHr-gr-* *i* *wm* *io-LAP.0*

Beha de-zo-gun be-ha u-rac-ec a-ma - ri;

 *pp* *i*

Beha dezo-run be - ha u -mc-ec a-ma-ri.

(La transcripción va en ortografía moderna). Para este himno se dan dos versiones musicales, y la segunda de ellas coincide cabalmente con la música de **Gernikako Arbola**, conforme a la versión conocida, menos allí donde se separa de la versión original, según la denuncia formulada por Iparraguirre. Es decir, que se evita la monotonía denunciada por éste, y en lugar del **re**, mi, **re**, correspondiente al **zabalzazu** y **zaitugu** del himno, tenemos un **re**, **si**, **sol**, con lo que el canto gana en naturalidad y nos libramos de esa impresión de ahogo que el actual nos produce.

Y de nuevo aquí también surgen las preguntas; ¿de dónde tomó Zaldubi esta versión? ¿La tomaría de alguna hoja impresa, o la aprendió directamente de vascos de este lado? No sabemos qué responder, como no hemos sabido qué responder a las anteriores preguntas.

Pero bueno será consignar aquí lo que él nos dice al presentamos esa segunda melodía para su himno al Papa. Traducimos: «Este himno va muy bien cantándolo sobre la música que a continuación damos y que es la de un zortziko vizcaino» (p. 172).

Este dato es bastante precioso y preciso y confirma en el fondo la veracidad de la anécdota consabida. Esperemos que nuestros investigadores en el campo musical nos aporten alguno más de este lado de los Pirineos.

Lo que extraña es que la denuncia de Iparraguirre no haya tenido ninguna consecuencia práctica. No se le prestó atención y no fue capaz de hacer volver a nadie a la versión primitiva del himno.

Se dirá que la variante es de poca monta. No la consideró así el bardo cuando así le hizo salir de sus casillas. Los músicos consultados, a su vez, opinan que la melodía quedaría mucho más airosa y perfecta con la variante que nos ha transmitido la obrita de Zaldubi.

IPARRAGIRRE ETA GERNIKAKO ARBOLA*

(Illun batzuk argitzen)

Madrillen izan ei zan, 1853garren urtean.

Urte bi lenagotik an bizi da Iparragirre, Bilbotar batek, Españako gobernuaren ordezkari zan Mazarredo jaunak etxerako bideak zabaldu eta beretarren artera etorri zan ezkerero.

Ama Madrillen eukan ezkerero, ara jo eban lenengo. «Au al da eskolatik etxeratzeko ordua»? esan ei eutsan sartzekoan etxetik iges egin eutsan eskola-mutillari, orain jasa ederreko agertu dan gizon bizartsu elduari.

Laster egin da kantari gaztea oso ezaguna Madrilgo euskaldunen artean. Eza-guna, ain zuzen, orrexegaitik, estarri ederra daukalako eta kantaldi atsegingarriak emoten dakialako. Bere bertso eta soiñurik asko, gaiñera, berak asmauak eta euskerazkoak ditu.

Euskaldunik geienak Montesa kaleko kafetxe batera joten ei eben. Araxe dau jokerea Bizkaiko musikolari gazte batek be: Altuna abizeneko Durangoko semeak. Iparragirre ta biak adiskide andi egin dira. Eta bein orra zer iragarten jaken kafe-lagunai: urrengo egunean, kanta barri bat entzungo dabela. Zer izango ete da?

Urrengo egunean iñozko entzulerik geien agertu da kafetxera. An dira Iparragirre eta Altuna, emoniko berbeari erantzuteko gertu. Iparragirre, oraingoan, euskaldun kantariaren betiko «laguna» itxita, gitarra barik; Altuna, pianoan laguntzaille. Kantua asi daneko, entzuleak menderatuta dagoz. Benetan gauza barria da gaur entzuten dabena. Biotz-biotzetaraiño sartzen jake. Bertsoz bertso Iparragirre aurrera doa bere lanean, eta dana amaitu dauanean, an ziran txaloak, an zan guztien sua eta zoramena! Bein eta barriro entzunazo deutse dana musikolari biai, entzutez ase ezifiik, guztiak ikasi daben arte, guztiak batera abestuteko gauza izan diran arte.

* Karmel 1978-3, 51-62.

Gau atan sortu zan Gernikako Arbola, andik aurrera urte askotan euskaldunen eresi nagusia, ereserki aberkoia, izango zana. Arrezkero Iparragirrenen izena eta Gemikako Arbolarena batera doaz kantariaren zorionerako eta zoritxarrerako.

Batetik Euskalerra osoa Iparragirren atzetik doa; bestetik, Madrilgo agintariak kezka eta larri dagoz. Lengo ekatzen durunduak ez dira guztiz ixildu, eta bildur edo dira an goietan kantari bildurgarri onek ekatz barriren bat sortuko ete dauan. Baiña kezka eta bildurra ete da, ba, Madrilgoena? Ez ete da izango an beti dauken gatxa, Euskalerriko arazoak, Euskalerraren arimea ulertu eziña? Iparragirrenen bertsoetan ez dago gerrarako otsik ez deirik:

Gerrarik nai ez degu,
pakea betiko,
gure lege zuzenak
emen maitatzeko.
Begiratu gaitzazu,
zeruko Erregina,
gerrarik gabetanik
bizi al bagiña,
oraindaiño izan degu
guretako diña.

Ez: Iparragirrek ez ekarren burrukarako gogorik; gerrarik naiko izan dala uste dau Euskaldunentzat. Gemikako Arbolaren bertsoak argi diño. Baiña euskerarik ulertu ete dabe iñoz Madril-aldean? Eta «poliki-poliki» zibillak bialdu dautsez kantariari, Euskalerritik alde egin bear dauala agintzen. Eta orra barriro bera, bere errialdea itxi bearrean, erbesteko ogia jaten. Azken baten Ameriketarako bidea artuko dau. Orra Urretxuar ospetsuaren bigarren erbestealdia, lenengoa baiño luzeagoa Arjentinako lurretan. Zoritxarraren gogorra! Aberriaren alderako maitasuna besteengan erein ebana, bera aberri barik atzerri latzean, beretarrenganik urrin! Guztiak aitzuta eukela! Askotan iltzat emona!

Igaz bete dira eun urte bigarren erbestealdi oni azkena emon eutsala. Errez igarri geinke aren poza, bere erriko mendi maiteak barriro ikustean:

Ara nun diran, mendi maiteak,
ara nun diran zelaiak:
baserri-etxe, txuri-txuriak,
iturri eta ibaiak!...
O Euskalerra, eder maitea,
ara emen zure semea,
bere lurrari mun egitera
beste gabe etorria.
Zuregatikan emango nuke
pozik bai nere bizia,
beti zuretzat il arteraiño
gorputz ta arima guzia!

Gure artean zan barrero, berak uste barik, bere lurrean azken amasea emoteko etorrira. Laster izango da bera galdu genduaneko eungarren urtea be. Ori dala-ta, omenaldirik egiten asi jaso Iparragirreri, eta geiago be egingo jakoz oraindiño.

Nire lerrook be orretarako datoz. Iparragirreren gomutagarri izan nai dabe eta aren omenaldirako lagungarri, Gernikako Arbolaren iguruan sortu diran eztabaida edo ezme batzuk argitzen aleginduz; ia itaun batzuei erantzun argigarririk emoten deutsegun.

Gernikako arbola noztikoa dan

Eta ona itaun batzuk: Egia ete Madrillen sortua dala, eta 1853garren urtean ain zuzen? Egia, doiñu eta bertso, dana Iparragirrek asmaua dala? Doiñuak berak ez ete dau aldakuntzarik artu, edo, bestela esateko, Iparragirrek lenengoz entzunazoa eta orain geien batez entzuten doguna bat eta bera ete dira? Ona ainbeste itaun, erantzun eske.

Goazen lenengo itaunera: «Gemikako Arbola» 1853garrenean Madrillen sortua ete dogu?

Erantzun baiezkoa emon bearren gagoz. Egia esan, Euskalerrian sortua izan balitz, askoz obe eritxiko geuntsan, pozikago artuko genduan; bai orixe. Baiña alan nai olan, Madrillen sortua izan arren, euskal-giroak emona da, euskal-biotz batek sortua. Ori da beiñena. Eta Madrillen bizi ziran euskaldunen giroa bakarrik ez; euskal-biotz guztien giroa jaso, zuzendu eta bide bateratu nai izan dau kantari bertsolariak bere bertsoetan. Eta Bizkaiko Batzarretxe nausiko aretxaren inguruan ain zuzen. Aretx au, arbola au, nok egin dau euskal-legeen, euskal-arimaren adierazgarri eta irudi? Urretxuko seme onek. Eta ez bakarrik Bizkaitarrentzat, euskaldun guztientzat baiño. «Gemikako Arbola» kantuak euskaldun guztien gogo-biotzetan ain luzaro aurkitu dauan oiartzun eta abegi beroak asko esan gura dau.

Aspalditxotik, baiña askozaz geiago, karlisten gerratea euskaldunik geienen kaltetan galdu edo amaitu zan eskero, euskal-legeak, euskaldunen betiko askatasuna eta berarizko nortasuna arriskuan dagoz. Dana galdu ez bada be, arerioen asmoak norantza doazen agirian dago:

«Arbola botatzea
dutela pentsatu
Euskalerrri guztian
danok badakigu».

Arriskua euskaldun guztiena da, eta orrexegaitik, guztiena dalako, guztiak bat egin bear dabe, alkatu egin bear dabe euren eskubideak eta euren iraupena zaintzeko. Guztiak: Bizkaiak, Gipuzkoak, Arabak. Irurok dagoz Iparragirren bertsoetan izentautau; baiña laugarrena Naparroa, tartean da, ez da kanpo gelditzen:

«Etzera eroriko,
 Arbola maitea,
 baldin portatzen bada
 Bizkaiko juntea:
laurok artuko degu
 zurekin partea...».

Gipuzkoatik eskeintzarik adoretsuena dator:

«Erori etzaitezen
 arrimatu neri,
 zure sendogarria
 emen naukazu ni».

Euskaldunen batasunerako deia zan Iparragirrek jaurti eta zabaldu ebana, eta ez gudarako irrintzirik, bakezko ekintzarakoa baiño. Bake itza askotan dator kantuan:

«Erregutu deiogun
 Jaungoiko Jaunari
 pakea emateko
 orain eta beti.
 Bai ta indarra ere
 zerorren lurrari,
 eta bendizioa
 Euskalerrriari».

Orixe bai, begoz euskaldunak gertu alkaturik jokatzeko etsaien aurka («erri alkartua, iñoz ez zapaldua», esango geunke orain), euren foruen ezaugarri daben Arbola orri bizirik iraunazoteko. Bizirik eta zutunik:

«Nere seme maiteak,
 ez naiz eroriko.
 Beartzen banaiz ere,
 egon beti pronto,
 nigandikan etsaiak
 itzularazteko».

Baiña ori guzti ori bake-bidez, politikazko ekintzaz, Batzarraren eta euskalgizonen egitez egitea nai dauala eta eskatzen dauala naiko argi dagoalakoan nago.

Gogamenok ez jakozan bururatu gure kantariari, European zear, gitarra zartxoa lagun, arlote antzean ibilli zan urteetan, bere erritarren artera etorrita gero baiño.

Berak autortua da: «Orduan ez nekian nik foruak zer ziranik; gazte argitu batek erakutsi eustan zer zan Gernikako Arbola. Arexek sutu nindun, eta gau atan bertan atera neban gero erri osoak agotan darabillana». Gazte orrek Iparragirreri esana euskaldun askoren gogobiotzetan zirakian zerbait zan, nonbait; baiña Iparragirrek

bestek ez eban jakin euskaldunen banuko irakin orri olerki-jantzia ezarten. Eta orra «Gemikako Arbola» zortzikoa, arrezkero euskaldun guztien eresi nagusia, ortxe ustu eta mamitu zituelako kantariak euskaldun guztien kezka, larri, gogo eta amesak.

Irakurri dagigun zortziko ori osorik. Orain orixe egiten be ez dakigu. Lenengo bertsoa bota eta kito. Gitxien diñoan bertsoa, atan be. «Adoratzan zaitugu, arbola santua...; eman da zabal zazu munduan fmtua». Itzok be txarto ulertu doguzala uste dot, mundu guztia Gemikako aretxaren babespean jarri gura daualakoan edo. Larregitxo ez ete litzake izango? Iparragirrek ez dau or besterik eskatzen arbola orren iraupena berak esan nai dauan guztiagaz batera. **Munduan** betegarri bat besterik ez da, nire ustez. Urrengo bertsoak ez dabe mundurik ezetako aitatzan, geure mundua besterik ez, Euskalerria forupean bizi izan dan erria. Erri honek, erri lez, bere buruaren jabe dan erri lez ilteko arriskua dau. Ez dedilla olakorik jazo euskaldunen zabarkeriz, iñondik iñora be. Olakorik jazo ez dedin, begoz euskaldun guztiak, erri eta agintari, ondo alkarturik, gertu eta zur.

Olerkariak, bein berak, eta bein arbolaren izenean berba egiñez, ez darabil besterik gogoan. Orretarako jaurtiten deutse euskaldunei bere irrintzia:

«Ea, bada, jentea,
denbora orain degu,
erori gabetanik
iduki biagu».

Kantariaren oiuk gizon eldu batenak dira. Eta Iparragirrek, berak be aitortu deuskunez, ez eban eldutasun ori lortu, erbestetik etorrira, emen, erri-barrutik, gure politika-egoera larria ikusi eta ausnartu eban arte. Orintsurarte iñok ez dau ukatu «Gemikako Arbola» kantariaren eldutasunean, 1853-garrenean sortua danik. Zeaztasunik barik berba egin edo idatzi dauanen batek, kantariaren bizitzako jazoeren bat jantziago egitearren, iñoz aurkeztu deusku edo iduritaratu deusku bera, esaterako, Londresen, teatro baten, «Gemikako Arbola» abesten. Idazlearen irudipen utsa.

Labaien jaunaren okerra

Labaien jauna, gure antzerkigintzan ain ezaguna eta idazle ugaria doguna da «Gemikako Arbolaren» sorrera aurreratu egin gura izan dauana. Oraintsu asi da eretxi au zabaltzen, eta erea dauan guztietan egiten dau. Bere esanen eusgarri, Adema Zaldubi euskal-idazle eta olerkari bikaiñaren autorpen bat, edo esan ebalako bat dakar, Bemadou dalako beste idazle batek dakarrenetik artuta. Bernadou onen libuma, 1893garren urteko Azpeitiko euskal-jaien barri dakarrena da.

Baiña zer da jaun onek diñoskuna? Onen autorrak, onen esanak alderdi ustel bat baiño geiago dauko, eta bat be ez, Labaien jaunak esan-azo nai deusan aldekorik. Adema Zaldubik Larresoron entzun ei eutsan Iparragirri «Gemikako Arbola» abesten. Noz? Larresoron abadegei zala, 1845-46 inguruan. Bemadou jaunak urte orretakotzat emon nai dau. Baiña erabatera Iparragirre Ameriketara bidean zanekoa

dala diño. Beraz ezin izan difioan urtekoa, amar-amabi urte geroagokoa baiño. Beraz, Adema Zaldubi, abadegei barik, irakasle edo zanekoa izan bear.

Baiña eretxi onen ustelik ustelena zera da: ADEMA Zaldubik ez dauala «Gernikako Arbola» aitatu be egiten (ori Bernadou jaunak bere burutik asmau egiten dau), eta Zaldubiren itzetatik euretatik ateraten dala Iparragirrek Madrildik eta Euskalerritik zear ibilli ta gerokoa dala Larresoron emon eban kantaldia. Irakurri daiguzan Zaldubiren berbak:

«Oraindiño gogoan daukat gizon aren irudia, iru probintzietan ospetsu egindako kantari aren irudia: txapela buruan, gitarrea eskuan, begiak su, arpegia bizarrez oparo jantzirik, garrian garriko gorria. Olantxe agertu da entzuleen aurrean, eta plaza-gizon asko ikusiaren antzera agurra egin ondoren, kantaldiari ekin deutso, gitarra-soiñua lagun, abots bete dardaragarriaz. Kantarik ederrenak mendiz bestaldean erriaren agotan zabal dabilzanak ditu. Abotsa eder gozoa eta bertsoatarako goi-etorri ona; bertso batzuk kantatu ala bertatik bertara datorkioz. Entzuleak ezñitan eta txalo-oska entzuten dabe. Txaloak sutsuago jartzen dabe bera».

Zaldubik orduan entzundako kanturik bat bakarra aitutzen dau, olerkariaren erri-miña eta erbestaldia gogoratzen dituen:

Gitarra zartxo bat dut
neretzat laguna;
horrela ibiltzen da
artist euskalduna:
egun batean pobre,
bertzietan jauna,
kantari pasatzen dut
nik beti eguna».

«Gernikako Arbola» kantuaren aitamenik be ez. Nik uste, kantu ori ez eban Iparragirrek an kantau barik itxiko. Baiña Zaldubiren itzetatik ez da ezer ateraten. Andik ezer aterakotan, zera ateraten da: Larresoroko kantaldi ori, 1845-koa barik, urteak geroagokoa, Bernadou berak diñoanez gure kantaria Ameriketara-bidean zanekoa izan zala, iru probintzietan zear ospetsu eginda gerokoa.

Bernadou orren itzak eta Zaldubirenak ez dago aitatzetik lengo eretxiaren aurka, 1853garren urtearen aurka, Labaien jaunak egin deuskun lez.

Doiñuaren egille, Iparragirre ala Altuna?

Iparragirreri ez deutso iñok ukatu kantuaren egille danik. Doiñuaren asmatzaille edo egille askok egin dabe J. J. Altuna, Montesa kalean lenengoz pianoz lagundu eutsan musikalaria. Doiñu ori biok baiño lenagokoa ez ete dan diñoanik be bada, doiñu orren otsean Durango ondoan, Garai errian antziña antziñatik Espata-dantza dantzatu dala-ta.

Altunaren alde, Iparragirre bizi zala be, idazle on eta zentzuzkorik izan da. Bat aitatzea naiko izan bekigu: J. Manterola, euskal-olerkizko lenengo bilduma edo sor-

taren egillea, eta «Euskalerrria» aldizkari jakintsuaren sortzaillea. Manterolaren eretxiak, ainbesteko zeaztasunez emonak, asko makurtu zituan Altunaren aldera, Azkue andia, esaterako.

Manterola ez zan edozein. Iparragirre beraren adiskide, gaiñera. Ameriketatik etorreran Euskalerrriari egindako agur ederra, **Ara nun diran**, Manterola oni eskiñi eutsan Iparragirrek.

Eta au arrigarriena; Iparragirrek ez dirudi Manterola guzurtau ebanik. Orregaitik edo, Manterolaren eretxiak jarraitzaille asko izan ditu, gaurko egunotararte, auzi onetan geien ekiana eta siñisgarriena zalakoan.

Alan be, Iparragirre ez zan ixillik gelditu. Gaur argitasun geitxoagoren jabe gara onetan be. Iparragirrek ez eutsan Manterolari erantzun, baiña bai aren eretxiaren jarraitzaille bati, Antonio Trueba jaunari. Trueba, «Gemikako Arbola», doiñu ta bertso, dana Iparragirrerena zalakoan egon zan luzaro; baiña Manterolaren eta beste batzuen argibideak irakurrita, Altunaren aldera egiten asi zan, eta alan idazten. Batez be «El Noticiero Bilbaíno» egunerokoan. Eretxi onetako artikulu bat irakurrita asi zan Iparragirre arduratan jarten. Mindurik eta asarre samar gaifiera. Adiskide bati adierazo eutsan bere barruko miña eta bere argitasunak kartaz bialdu. Adiskide onek Trueba jaunari eta onek «El Noticiero Bilbaíno» egunkariaren irakurleai.

Iparragirreraren argitasunak ez ziran, antza, Euskalerrrian asko zabaldu; gitxik izan eben euren barri. Donostiaraiño be ez ziran eldu, Manterolaganaiño be ez. Gaur eurak irakurteko aukera barria dogu. «**La Gran Enciclopedia Vasca**»dalakoan argitaratu dira Historia de Vizcaya, Xgarren tomoan, 1878ko «El Noticiero Bilbaíno» tik artuta.

Ona emen orain, laburturik, eztabaida au garbitu eta argitzeko Iparragirrek emondako argitasunak: «Gemikako Arbola», eresi eta bertso, Iparragirrek dana berea ei dau. Altuna adiskideak ez ei eutsan besterik egin Santastebanek beste doiñu batzuetan egin eutsana baiño: Iparragirrek gitarraz jo eta abestutakoa pentagramara aldatu, piano-laguntzaz ornidu eta noizik bein, bera musikalaria ez zan ezkerro, musika-legez oker egoanen bat zuzendu.

Amaituko ete dira, onekin, estabaidak? Ez beingoan, nire ustez. Truebaren itzak edo artikulua bere aldian gitxi irakurri bazan, gaur barrero argitaratu danean, geiago irakurriko ete da? Ez dau beintzat irakurri oraindik orain Bilboko egunkari baten Altunaren alderako eretxieri gogor eutsi deutanak.

Altuna, «Gernikako arbola»-ren zabaltzaille?

Iparragirren kantu au beingoan zabaldu zan Euskalerritik kanpora be, Paris-aldeko idazle ospetsu batzuen bitartez, batez be. Arritzekoa da zelan jakin eben ain laster aren barri. Eta zelan zabaldu eben bera euskaldunen kantu nagusi lez, aberri ereserki lez.

Egia esan, mundua txikia da. Euskalerritik Paris ez dago ain urrin. Gero, atzerritar jakintsu asko ebillen gure gauzen jakingurez, asko barriz bertora etorrira be bai. Alan ta guzti be, nik neure eretxitxo bat agertu nai dot emen. Gure kantuak Parisen artu eban ospeak ez ete deutso Altuna musikalariai asko zor? Montesa kaleko jazoeratik urrengor urtean, musikalaria au Parisera joan zan musika ikasten jarraitzeko.

«Gernikako Arbola» bere bide-zorroan eroan eban, aurki. Eta ez ete eban berak ezaguerazo Parisko musikalaria eta Euskalerriko barri jakingurako guztien artean berak ain maite ei eban kantua eta eurai euskaldunen ereserkitzat erakutsi? Ez da siñistu eziña. Nik ez neuke ezetzik esango.

Doiñuak aldakuntzarik izan ete dau?

Ona azkenengo itauna. Orain eun urte, Ameriketatik etorri barritan, kantu au entzutean, Iparragirrek esan ei eban, naiko asarre: «ondu egin deustazue. Len ez eukan lau aldizko *re, mi re* ori, *zaitugu, santua, zabahazu, frutua, laurak bardin*; olan barik, *re, sol, do, si, do, re, mi, re* zan bi aldiz. Lau biderrezko *re, mi, re* ori aspergarri egiten da. Mesedez, ez egizue olan abestu».

Iparragirrenen asarre eta argitasun oni be ez jako jaramon andirik egin. Nik, beintzat, beti entzun izan dot **re, mi, re** aspergarri ori. Eta bein, orain zortzi bat urte, aspergarritasun ori eta Urretxuarraren asarrea aitatu nituanean, laster artu neban Lopez Mendizabal zanaren erantzuna artikulu baten, nik esanari ezetza emonez. Ez ei dauko *re, mi, re* orrek aspergarririk; musika-legez ondo ei dago. Ixaak jaun agur-garria ez edo zan konturatzen, nire aurka barik, Iparragirrenen aurka agertzen zala. Eretxiak eretxi, ni onetan kantua egilleagaz nago.

Emen Iparragirreri arrazoi osoa emon bear deusagula uste dot. «Gernikako Arbola» ren kopiari zarrenak ez dauke lau biderrezko doiñu bardin ori. Nik neure artikulan Urretxuarraren alde idazle bat bakarrik aitatzen neban, Adema Zaldubiren «Euskaldun Pelegrina» liburua, 1877-koa, Iparragirre Ameriketatik etorri zan urte berekoa. Adema Zaldubik Bizkaiko zortziko bat dala diño, eta Iparragirrek esan eban lez dakar doiñu, Aita Santuari eskiñitako bertsoak ari ezarrita.

Baiña Adema ez dago bakarrik. Bidasoaz andik askotan etorri da kanta-liburuetan doiñu bera. Batez be, Donapaleun organu-jotzaille bizi izan zan musikalaria aleman baten, Florentin Vogel eritxonaren kanta-liburuetan.

Eta ez Bidasoaz andik bakarrik. Geure artean be kopiari zarrenak bardin dakarre. Zarrena, orraitio, Gernikan bertan daukagu. Ni neu ez nintzan konturatu, auzi au neure artikulan atera ta geroagorarte. Urrengoz Gemikako Batzar-etxean izan nitzanean, begiak bestetan baiño zorrotzago erabilli nituen. Eta zer ikusten dot? An erakusten dan kopiak Iparragirreri arrazoi osoa emoten deusala. Orain ori edozeiñek irakurri daike Arana Martija jaunaren **Música Vasca** liburu ederrean. Eta nozkoa da kopia ori? Batzarretzeko arduradunak diñoanez, 1865 ingurukoa, ezagutzen danik zarrena.

Baiña bada besterik. Batzarretzeko kopia zar ori, eskuz egiña, oraintsu an jarria ei da, an Iparragirrenen gitarratxo zarraren ondoan; len beste bat erakusten zan, orain barruan gordeta daukena, Arin musikariaren piano-laguntzarekin. Eta au be **re, mi, re**, aspergarri ori barik dago, Iparragirrek esan eban lez, bardin. Gure egunotan, Bilbon, Sotatarren etxeak barriztetako ipiñi dituezan aldamiotan doiñu berbera ikusi al izan dogu.

Orraitio, doiñu okerrak arrera ohea izan dauanik ezin ukatu. Noztik eta nok sortua ete da oker ori? Santesteban ez ete zan izan lenengo zabaltzaillea? Berau dala

uste dot, beintzat, oker ori sartuta daukan musikalaririk zarrena. Lenengotan, bear bada, ez zan inprenta utsa besterik; baiña gero eun urteko bizi luzea izan dau, luzeegia benetan.

Ez ete gara barriro lengo doiñu zar jatorrera biurtuko? Ez ete dauksagu Iparra-girrerri atsegin ori emongo? Orretarako unerik aukerakoena litzake gaiñean dogun eun urtea, kantuaren sortzaillea il zanekoa.

Lan au amaitzeko, bertso batzuk ekarri nai dodaz erdira. Ez dakit norenak diran. Tolosan, Laborderen litografian, argitaratutako irudi baten azpian datoz. Irudia, Gernikako Arbolarena da, bere adar orritsuen artetik, gorantza eta zearretara gurutzearen irudiak urtetan dauala. Garri-inguruan otso bi. Aretxari begira, albo baten gizon bat burutsik, bestean emakume bat bere semearekin, onek txapel gorria eskuetan dauala.

Eta danaren azpian, euskaldunen aspaldiko atsekabe eta itxaropenak aiderazoten, onako bertsook:

Gernikako Arbola, zeruan sortua!
Jaunak egin ziñuzan Euskalerrirako.
Orain tristerik zaude, Arbola, gaixua,
laño beltz ilgarriak jo zaitubelako.
Baiña laster zeruan egun doatsua
agertuko da gure zorionerako.
Ta orduan Euskaldunak, Arbola santua,
pozik biziko dira zurekin betiko!

GREGORIO ARRUE IDAZLEAREN SANTA JENOBEBAZ ZERBAIT*

Brabanteko Jenobeba oso antziñako menderen batean bizi omen zelako andretzat egon da eta Rin-Mosela inguruetan santatzat gurtua izan zelako ustea zabal ibilli izan da errialde askotan. Ala ere, amazpigarren mendean asita santuen bizitzak sakon eta zeatz aztertzen saiatu izan ziren Bolandistek ez zuten andre onen santa omenik iñon aurkitu, ez iñoiz iñon gurtua izan delako aztamarik. Arrue idazleak berak ere bere liburu onetan santa izena eman bazion ere, amazapi urte geroago eskualdi berria emanik argitara zuenean, santa izena kenduta, Brabanteko Jenobeba izen soilla eman zion. Are geiago. Antziñateko berrien aztertzailleek ez omen dute aurkitu Brabanteko konde-dukeen izendegietan liburu onetan irakurtzen diren izenekorik bat ere Erdiario zar eta berriago guztian.

Elezar edo ipui delako onek buruausterik eman izan die gure egunotararte antziñako literaturgaiak argitzen lan egin dutenei. Azkeneko azterketek diotenez, Jenobeba onen bizitzak Frantzialdeko beste aoz aozko ipui zarrago batean omen du jatorria, *Frantziako Erregiña eta Mariskal eskontzauslea* izeneko ipuiari, alegia. Oso antziñakoa omen da ipui au. Or oiñarriturik, amairu-amalagarren mendean fraide asmatzaille batek egin zuen aldaketa: Erregiñaren izenaren orde kondesa zelako Jenobebarena jarri (benetako Santa Jenobeba Parisek zaindari duenaren omenez, antza), senartzat Sijifredo konde ustezkoa eman berari, beste eraskin batzuk asmatu (Jenobeba eta bere semetxoa sei zazpi urtez janaritu zuen basauntzarena eta abar); eta orra, bere joan-etorri nausienetan Santa Jenobeba delako onen ipuia edo bizitza.

Gaiñerakoa geroko idazleek egingo zuten. Idazleotako bat René de Cerisiers jesuita frantsesa izango da, 1638n Santa Jenobeba zelakoaren bizitza atera zuena.

* Gregorio Arrue, *Santa Jenobebaren bizitza...* Donostia 1987, 21-29. (Sarrera gisa)

Arrezkero, jesuita orren liburuaren eragitez, sekulako arrera izango du ipuiak Europa guztian. Batez ere Alemanian. Alemanen literaturan bertan ere ildo sakona utziko du XVIII-XIXgarren mendetan zear. Mende oietako erromantikozalei oso begiko egin zitzaien gaia XVIIIgarren mendearen asieratik aurrera, *Antzerti Negarti* zeritzana sortu zuten idazleak ganik asita. Non gai samur biotz-ukigarriagorik, negar eragi-llagorik Jenobebak ematen ziena baiño?

Andre ezkonberria da Jenobeba, ezkondu eta laster bizi-alargun bezala gelditua, senarrak etxetik alde egin bear izan duelako. Espafian zear moroak aurrera eta aurrera omen zetozten eta kondeak mugak zaintzera eta moroai atzera eragitera joan behar du. Eta andre gazte an gelditu da jauregian bakarrik, Golo zerbitzari leialtzat zegoenaren, baiña zital lizun saltzaille gertatuko denaren mende.

Jenobebak Goloren griñari gogor eusteko eramandako burruka; serbitzari saltzaille orrek konde senarrari emaztearen aurka bialti dion gezurrezko salakuntza; kondeak salakuntzari siñistea eman eta bien bitartean kondesak izan duen semearekin batean amari eriotza emateko izenpetu duen epaia; ama-semeak il bear zituzten morroiek errukiturik, biak baso illun izugarri batean bizirik uztea; baso artan, sei-zazpi urtez, uda ta negu, zorigaiztoko biek daramaten bizi errukarria, basauntz baten eznea eta inguruko belar, sustrai, marrubi eta olakoak beste janaririk etzutela, eta otso batek il-zorian utzitako bildots baten narrua, besterik ez soiñerako; senarra gerratetik etxeratu denean, Jenobebaren errurik-eza garbi agertzea; eta azkenez, kondea, bere jauregiko zaldunekin basoan eizean dabilela, senar emazte bien ustez uste gabeko alkar aurkitzea, eta geroko guztien, jauregikoen, guraso zarren eta konterri osoaren poza; guzti au ez zen nolanaiko gaia, eta aleman idazle erromantiko askotxorentzat bere bizikoa antzerkietara nai nobeletara eramateko.

Ez idazleek, ez musikariek ez zuten jorratu gabe utzi ain gai biotz-urragari ori. Musikariek ere operetarako eramango zuten. Jenobebaren bizitza antzerki edo nobeletara eraman zuten idazlerik ospetsuenak, Alemaniako literaturan oso ezagunak eta izendatuak dira: Friedrich Müller (1749-1855), Ludvvig Tieck (1773-1853), Ernest Raupach (1784-1852), eta Friedrich Hebbel (1813-1863). Musikarieren artean, besteak beste, Robert Schumanek eraman zuen Jenobebaren libreto bat operara, 1850n Leipzigen jokatu zuten opera batean. Eta gaia negar-iturri utsa izan ez zedin edo, Aleman izan arren Parisen bizi zen musikarari batek, Jacques Offenback-ek (1819-1880), musika ariñezko opera bat eskaiñi zion Jenobebari, Parisen jokatu zena.

Luma ederzale eta trebe askok landutako arloan gaude emen.

Euskerazko Jenobeba

Euskerazko Jenobeba len aipatu ditugun aleman idazleen aldi berekoa da eta Kristobal Schmid izeneko eskutik datorkigu (1768-1855). Babierako semea dogu berau. Apaiz eginda, parroki-lanetan eta luma-lanetan eman zuen bere bizia. Batez ere, gazteentzat ipui eta irakurgai asko idatzi zituen, atsegiñez irakurri eta bizi-poza sortzeko bere bizikoak. Olakoa du Jenobeba Brabantekoren au, ama gazteentzat idatzitakoa. Liburu onek ez zion osperik gutxien eman Ausburgoko kanonigo eta idazle azkar oni. Laster zabalduko zan, Europako izkuntzarik gienetara itzulita. Eta

noizbait, 1868n, eldu zitzaion euskeraz agertzeko ordua Schmid alemanak 1805 inguruan argitaratu zuen libum oni. Ez da Schmid kanonigoaren liburuen artean euskerara itzuli izan dan bakarra. Badu beste bat Gabriel Manterola Zeanuriko semeak euskerararuta, umeentzako ipuiezko libum txiki bat ere. Eta Gregori Arruek bi eskualdi eman zizkion Brabanteko Jenobebarenari.

Euskerara itzultzaille: Gregorio Arrue (1811-1890)

Gregorio Airuebarrena omen du deitura osoa, bataioko agiriak dionez, baiña berak ere Gregorio Arrue jarri du beti argitara zituen liburuetan. Emaniko seme au joan da mendeko idazlerik ugarienetako dugu, noski, baldin ugariena ez badugu.

Arantzazun fraide soiñekoa jantzita, an iraun omen zuen 1831garrenera arte, fraide izateko osasun makalekoa zela eta etxera biali zuten arte. Gero maisutza ikasi eta eskola-maisu bizitzeak fraide bizitzak baiño asti geiago utziko zion noski euskera landu eta euskerazko liburuak idazteko. Euskera erabilten maisutasuna lortu zuela erakutsiko zuen laster.

Armeek euskal-literatura ongi samar ezagutu zuela dimdi, bai Gipuzkoakoa, bai Bizkaikoa eta bai Bidasoaz amnzkoa ere. Mogel zarraren *Peru Abarka*, Mogel gazteagoaren *Baserritar jakintsuaren Eskola*, eta Mendibum aitaren *Jesusen Bihotzaren Debozioa* Gipuzkoako euskalkira itzultzeko artu zuen lanak zerbait esan nai du.

Erderatik euskerara biurtuak ainbat liburu ditu. Guztiak ez aipatzearren, ona lodienetako batzuk: Kempisen *Kristoren Imitazioa*, García Mazoren *Kristauaren dotriña*, S. Alfonso *Mariaren Gloriak* (bi tomo), Villacastiñ-en *Orazio mentala*. Guztitara amabost bat libum mardoren euskeratzaille dugu, eta beste txikiago batzuen egillen ere bai.

Literaturaren aldetik Jenobebaren bizitza au du, noski, baliorik andienetakoa eta bai zabalduena ere euskaldunen artean. Lardizabalen Testamentu Zar eta Berriko Kondairarekin batean berau izan da bearbada, euskaldunen etxeetan irakurriena. Nik nere jaiotetxean ezagutu nuen ale bat. Eta Alemaniako erromantikoei ezezik, gure bertsolariei ere iradoki dien bertso ederrik Jenobebaren bizitza irakurteak edo entzuteak. Euskerazko bertsolaritzak noiz edo non jo du goragoko maillarik bizitza orixe kantatzeko J. K. Zapirainek ondu zuen poematxoan baiño?

Arrue idazlearen euskera

Idazle au euskal idazleen artean joan den mendean jatorrenetakoa dugula, gurpil oneko euskeraren jabe dela askok duten iritzia da. Euskaldun utsei entzunez eta euskal-liburutan ikasitako euskera du. Alik garbien eta argiroen idazten saiatu da beti. Erdarazko itzen bati edo besteri, mordolloka datxoren bati edo besteri iguinik noizik bein ez dion arren, euskera jatorra dario geien batez Airue onen prosari. Berak zekien euskerarik onena darabil.

Ez dezagun gaizki ulertu berak bere leenengoko liburuan irakurleari egiten zion aitormena: «Euskeraren aldetik ipiñi nezakean... itz euskeratzuagoakin eta gizon

argituak zerbait obeto irudi zegikien eran; baifia oroiturik ez nijoala oientzat, ezpada ezjakin, doi doi aditzen duanarentzat eskribitzen, saiatu naiz alegiñez zuk adi zenzakean eran ipintzen».

Itzok ez ditugu gaizki ulertu bear. Zer esan nai zuen or? Ez, noski, euskeraren aberastasunak eta jatortasunak alde batera bazterturik utzi nai izan dituenik. Nortzuk dira or aipatzen dituen «gizon argituak»? Ez, euskera obea zekitenak, bera baiño euskera jatorragodunak, eta bai orduko euskera «kultoa» egin nai zutenak. Gizon aditu oiek, euskeraz idaztekotan, Larramendi aitaren Iztegira jo bear zutenak dira. Iztegi artako itzak itsu itsuan arturik, jakintsuen eta adituen euskera zerabiltela uste zuten. Ori izan zen orduko euskaldun askoren okerra. Bide ori artu zuen, esaterako, askotan Iztuetak, eta bai Astarloa frantziskotarrak Longa mariskalari bere sermoeliburuan zuzendu zizkion oparizko itzetan. Ezkerrak eman bear dizkiogu gure Arrueri bide orretara okertu ez zelako. Brabanteko Jenobebaren bizitza onetan itz bat du argi ta garbi Larramendiren labetik ateratakoa: *Erabezte edo kopia*. Eta bearbada, *Ezegiki* eta *Gaitz egoki*, eta *Eraendu*. Besterik ez.

Gaiñerakoan, Ernaniar onen euskera, giputza dela erraz ulertzekoa da. Asko zor diola esango nuke Aita Kardaberaz eta aita Mendibururenari; Lapurdi aldeko aztarnaren bat ere ageriko zaio; baiña Arrueren euskera, geien batez, bere erri ingurukoa da iñolaz ere.

Liburu onetako euskeraren zerbait bereizgarri

Emen eta beste liburuetan Arruek, darabilen euskerak baditu bereizgarri batzuk, bai ortografiaren aldetik, bai izenen ebakeran, bai deklinabidean eta aditzak jokatzean.

Ortografia.—Garai artan egin gabe zegoen euskal-ortografiaren batasuna. Batasunerako bide batzuk urratuak zeuden, batez ere Jauretze eta beste batzuen bultzadaz; baiña Arruek bere bizian ez zuen batasunik eginda ezagutu.

Geien batez, inguruko erdal-ortografiari loturik dabil. Arrueren *Ch* erdaldunen *Ch* da. *G* izkiak oguzkera bi dituzte; bata, *ca*, *co*, *cu*, edota *ga*, *go*, *gu*, edo *gue*, *gui* idazten duenekoa, eta bestea, *ce*, *ci*, edo *ge*, *gi*, idazten duenekoa. Emen oraingo ortografian *ca*, *co*, *cu*, *ka*, *ko*, *ku* izango dira: *gue*, *gui*=*ge*, *gi*; *ce*-*ci*=*ze*, *zi*; eta *ge*, *gi*=*je*, *ji*. Eta *gue*, *gui* irukotea *ge*, *gi* izango den bezala, *que*, *qui* irukotea *ke*, *ki* izango da: *gizon kemen* eta *ola*, *guzon eta quemen* eta *olako*en orde. *Sh*: letra bikoitza darabil Arruek gaurko grafian *X* letraz idazten dena: *orishe*, *berealashe*, *gashoa*, eta *abar*; oraingo argitaraldian, *orixe*, *berealaxe*, *gaxoa*, eta *ola*. *Ch* bikotea, era berean, oraingoa *Tx* bihurtu da: *chori*=*txori*, *chabalik*=*txabalik*, eta *ola*. *Azkenez*, *Jenoveva* izenetik *asita*, *V* letra kendu eta beronen orde *B* jarri da edizio onetan, eta gaurko legee jarraituz, *MB* eta *MP* gaurko erara aldatu: *NP* eta *NB* egiñez: *illunbe*, *barrunbe*, eta *ola*.

Beste ikututxo bat ere egin diogu Arrueren idazkerari. Arruek *añ*, *zeñ*, *apañ*, *apañtzen* eta *ola* idazten du ia beti: *añ* eder, *zeñ* ongi, *eskañtzen*. *Olako* itzetan *I* argi ta garbi entzuten dela dirudi. Eta Arruek berak ere noizik bein *ola* idatzi du: *zeiñ*,

apaindura. Orregatik lege berdiñari jarraitzea, olako itzen ortografia berdintzea erabaki da edizio onetan. Beraz emen zein, ekaintzen, eta ola idatziko da.

Liburu onetan, beste batzuetan ez bezala gure idazleak H batzuk, oso gutxi, darabiltza: Hura (bainā ez hori), heriotza, hitz, hill, hilloztu, herida (erderazko itza), itzen asieran; eta zuhaitz, itzen erdikoan. Geroko Jenobebaren bizitzan, bigarren eskualdikoan, Schmid-en liburutik itzulia delakoan, H gabe utzi zituen. Oraingoan 1868koan bezala joango dira beren H orrekin.

Izenetako jokabidea.—Arruek ondo berea du izen askotan A organikoa delakoa ixiltzeko joera: Arret, arrok, denbor, eliz, ermit, gauz (gutzitan bada ere), gis, espat, fest, kart, eta beste olakoren bat. Emen A organika ori erantsi diogu, mako tartean jarrita: Arret(a), arrok(a) eta ola. *-Keria* atzikia daramaten itzetan ez diogu ikuturik egin, Arruek idatzi zuen bezala utziz. Mendiburu izan dugu joera onen jarraitzaileena, eta Arrue jesuita oiartzuarraren jarraitzaile eginik ageri zaigu.

Deklinabidea.—Nabarmengarri zaigu Arruek *-kin* atzizkiarekin duen jokabidea: singularrean *-arekin* (gizonarekin) etapluralean *-akin* (gizonakin). Etpluralean onako grafiaz idatzita: gizonacquin. Onetan bat dator gure idazlea Gipuzkoako beste idazle batzuekin. *-Arekin* eta *-akin* kontuan diot. Agirre Asteasuakoaren liburu bat zabaldu eta beingoan aurkitzen dugu olakoren bat: prestaerarekin, pensamentu onakin. Orain *-ekin* daukagu jatorragotzat: andreekin, gizonekin. Edizio onetan beintzat, Arrueren *-acquin* K bakarrean utziko da.

-Gatik, *-gabe*, *-gana*, *-gandik* aurreko itzarekin bat egiten dutela erabilten ditu, aurreko itzari iñolako aldaketarik eragin gabe: biotz-gabe, laguntzeagatik, aiekgana, amagana, eta abar, aurrean norenkirik gabe erabiliko ditu beti. Ori da Arrueren jokabide garbia: argana, norgana, zugan, zugana, onagatik, gaxoakgatik. Ez du atzizkiaren aurrean jenitiborik sartzen: arengana, norengana edo olakorik. Batzuk orain lege jator bakartzat daukaten norenki ori sartzen ez daki. Oraingo idazle zenbaiten «ez naiz ni zinearengandik bizi» eta olako esaeratik gutxiago aterako da Arrueren lumatik. Eta esan bearra dago Arrueren jokabidea izan dela euskal-literaturan zabalena euskalki guztietan XVIgarren mendean asita. Eta askotan atzizkia eta aurreko itza banan idazten zuten.

-Kin atzizkiaren erabillera bitxi samar jakingarria du Arruek, gaiñera: Bi lagun edo izen mailla berean alkartzeko, *eta* kopulatiba erabili gabe, *-atzizki* orrekin elkartea. Liburuaren azalean bertan du olako bat : persona prestu guztientzat, baiña berezkiro *amakin beren* seme-alabentzat». Eta liburuaren barruan ainbat bidar: «Nere aurrarekin nerau jazteko, Golok kondearekin jakingo dute»; «nere aurre eta nerau jazteko; Golok eta kondeak jakingo dute» esan nai dute itzok. Amaseigarren mendeko euskal-testoetan ere aurkitzen den erabillera dugu.

Adizkiak.—a) Aditz-trinkoetan, aditz-mordo luzea du sintetiko deritzan eran jokatuta: eduki, egin, ekarri, egon, eraman, esan (edo Io delakoa), etorri, jakin, jardun, joan, etzan, ibilli, ikusi eta jarin. *Ikusi* eta *io* ditu aberatsenak: dio, diozu zioten, ziotzaten: dakus, dakusgun, dakuzute, etzekusan, zekusaten. Egon aditzaren itanozko forma auek badiu gutxienez: zeagok, natxeagok.

Izan aditzak *zatzu*, *zadan* eta I gabeko formak ematen ditu, zaitzu, zaidan eta olakoen orde. Joanaldiko adizkietan bein baiño geiagotan galdetzen du N bat: nitzan, negoan, banego...

Aditz-izenak sortzeko ez du arau trinkorik. Ikusitak *ikusten* sortuko du; baiña asi, azi eta galerazitik, asitzen, azitzen eta galerazitzen. Eleizaratu, etxeratu, aratu eta olakoak izen utsean uzten ditu askotan: *elizara* zanean, *etxera* ziranean, *ara* zanean eta ola.

b) Aditz laguntzaillea. Irakurle askori nabarmen egingo zaizkio onako formaok liburu onetan: *diozka*, *zaiozka*, *zitzaiozkan* eta abar, *Dizkio*, *zaizkio*, *zitzaizkion* formen orde. Eta berdin, *dizte*, *zizten* eta olakoak, dizkiete eta zizkieten eta onakoen orde. Literaturan eta errian erabilliak dira. Larramendiren gramatikan leku nausia artu zuten. Kardaberaz aitak ola idazten zuen.

Bi aditz-erro eta bi adizki-sail ezberdin

Bi aditz-errotan oiñarriturik, bide bikoitza agertzen da euskalkietan, aginterako, subjuntibo delako eta ahalarazko adizkiak sortzean, aditz iragankorretan. Adizki batzuk **eza* delako en'oa dute oiñarri, eta besteek *egin* aditza bera. *Egin* bizkaikoa dela esango du norbaitek. Baiña Bizkaitik urrunagora zabal egon da erro ori bizirik eta oraindik ez da bearbada il. Arruek ez ezik, Agirre Asteasukok, Lardizabal eta Iztuetak lasai erabilli izan dituzte. Naparroan 1610 garrenean saritutako bertsoetan ere ageri dira: *Jan egizu*, *egin egizu*. Eta zer esan nai dute Axularren *ahal dagizuna*, *ahal dagiguna*, *ahal dagiena* eta olakoak Aita Bartolo bizkaitarraren *al daizuna*, *al dagiena* eta olakoak diotena besterik?

Arruek erro bateko eta besteko adizkiak erabilli ditu. Dakusaguna nola:

a) Agintekeran. Bikoitzasunik ez da agertzen aditz trinkoetan edo sintetikoetan: Egizu, ekar, goazen (goazemazu dio Arruek bein).

b) **Eza* errodun atzizki batzuk: ar zazu, ez ezazu sentenziatu, utzadazu bizia, ken zadazute bizia, hill nazazute, kotsola itzazu, eraman zaiezute gurasoai, gorde zaiozu bizia, ken bezate...

c) *Egin* errodunak:

Utzigizu, *ez egiezu* ezer egin, eman *giestetzu* eskerrak, *ez egietetzu* egotzi karga ori, ipiñi *egietetzu* laguntzaille, *gera egietetzu* beren besoak, *jarraiguzu*...

Aginterako bi edo iru kasu baditu aditz iragankorren adizkiekin iragangaitzen adizkia bear zutela: Egotzi *akio* kolpea Golori; estali *akizkio* begiak; ken *akizkit* (zakurraren begiak) nere begietatik. Giputz idazle askok erabillitako formak dira.

Subjuntiboko forma bikoitza

a) **Eza* errodunak: Barkadiezaien, eman zaizkiegun, egin zitzaten, iduki, irakur dezazunean.

b) **Egin* errodunak: Eman degiogun, biur dagitzudan, egin dagizun, lagun dagizuten (emen aditza *lagun egin* da, bearbada), egin zegietela, eta abar.

c) *Aditz iragangaitzetan, **edin* errodunak erabili oi direnez, berdintsuak dira euskalki guztitan: *bedi*, *bitez*, *zaitte*: baiña Arruek *zaitte*, *zaittean*, *gaittean*, erabilten ditu, eta ez *zaitez*, *zaittezen*, *gaittezen*.

Ahalerazko adizkiak.—Emen ere erro bietako adizkiak ditu Arruek.

a) **Eza* errotikoak: deshonra *nazakean* gauzarik egin ez det, egin *zetzakean* gauzarik obeena, al *nezakean* indar guziaz, ezin eskriba *nizaike*, egin *gentzakeana*, ikasi *lezakee*, nola egin *zezakean*, aurrak adi *zitzakean* eran kontatu...

b) **Egin* errodunak: Lagun *legiket*, ezin bial *negizuke*, ezin egin *zegizkiolakoan*, nik adierazi ezin *degizkitzudan* bezala. Erro bateko eta besteko adizkiok bizirik zeuden eta daude Guipuzkoan, beste garai bereko idazleetan ikusten denez.

Beste zalantz gutxi batzuk ere baditu Arruek: bein *ez da* eta beste bein *ezta*, agindu erazi eta agindu erazo, -ez gero, eta -ezkero, aek eta aiek, aen eta aien.

Eta, askenez, aipa dezagun, noizaldia adierazteko *Ez al* eta aditzarekin sortzen dituen esaldi bitxi samarrak. «Egunsentia ez alzan agertzen» eta olakoak. Erraz ulertzen da zer esan nai duen: egunsentia agertzen zeneko, edo agertzen zen bezain laster. Itz-joskera au Kardaberazek erabili zuen Arruek baiño leenago. Ernaniko euskeran erabilia ote? Nola nai ere, Arruek berea egin du emen eta beste liburuetan. Jenobebaren bigarren eskualdiko bizitzan bein edo berriz —*neko* erara aldatu du.

Orain ateratzen den liburu au gutxi ezagutua delakoan gaude. Villasante Aitaren eta Santi Onaindiaren euskal-literaturazko liburuetan ez zaio egin aipamenik. *Itxaropena* Argitaletxeak *Kulixka Sortan* eman zuena 1985koa da, Schmid alemanaren liburutik itzulia delakoa. Oraingo au Arruek berak egindakotzat 1868 argitara eman zuenaren arabera da. Ildo beretik dabilta biak ere; baiña ez dira berdiñak.

Onenbestez, Itxaropenaren edizioari Mitxelenak sarreran jarritako itzekin eman nai diogu azkean gureari: «Irabazi ederra izango du euskerak liburu au berriz argitarazarekin». Ala gertatuko al da.

DOS ESCRITORES VASCOS BILBAINOS: LUIS IZA Y JUAN DE IZURRATEGUI*

Ha habido y sigue habiendo toda una serie de escritores bilbaínos que mantienen en la capital vizcaína la tradición de cultivar el vascuence, entre los que descuellan notablemente las figuras de Rafael de Micoleta y la del franciscano Juan Mateo de Zabala. Prescindiendo de los que aún viven, podemos señalar como el último de la serie a Nazario de Oleaga, académico de la Lengua, no hace mucho fallecido.

Hoy queremos mencionar a dos, cuyo bilbainismo tal vez sea muy poco conocido; ambos son contemporáneos de Unamuno, cuyos pinitos, pobres balbucesos en euskera, no son desconocidos. Estos dos escritores vascos bilbaínos son: Luis Iza y Aguirre y Juan Izurategui Berrosteguieta.

Luis Iza y Aguirre (1837-1892).

Azkue contribuyó grandemente a que cundiera una opinión errada sobre el lugar de su nacimiento. Repetidamente en sus escritos le hace ondarrés, en oposición a la terminante afirmación del propio Luis, quien en el prólogo que antepuso a su traducción de Calderón, se dice bilbaíno.

En efecto, era hijo, sí, de madre ondarresa, pero bilbaíno. Nació en Bilbao el 9 de julio de 1837 y fue bautizado en la parroquia de los Santos Juanes (en la misma pila bautismal en que lo fuera años más tarde Miguel de Unamuno), según consta de su partida bautismal, que reza así:

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 20 (1964) 461-464; «L. de A.» izenpean.

«En la Real Iglesia Parroquial de los Santos Juanes de esta villa de Bilbao, a diez de julio del corriente año de mil novecientos treinta y siete, yo el infrascrito Presbítero Capellán y Cura Rector de ella, he bautizado un niño que nació a las siete y cuarto de la tarde anterior y le puse de nombre Luis Cirilo; hijo legítimo de don Juan Domingo de Iza y doña Polonia de Aguirre Martínez, naturales él de Legorreta y ella de Ondarroa, vecinos de esta misma. Abuelos paternos, Juan Bautista de Iza y Tomasa de Urdapilleta, ésta de Goyaz y aquel natural y vecinos del dho Legorreta; maternos, José María de Aguirre y Martínez, natural de Elgoibar, y Brígida de Juaristi, natural y vecinos del citado Ondarroa». Firma: Bartolomé María de Olaechea.

Fue maestro de primera enseñanza en Santurce y, según testimonio de Azkue, uno de los cinco que aspiraron a la cátedra de vascuence creada por la Diputación Vizcaína en el Instituto de Bilbao, el año 1888, juntamente con Unamuno, Arana Goiri, Eustaquio Madina y el mismo Azkue.

Como contribución de los bilbaínos euskaldunes al homenaje a Calderón de la Barca en el centenario de su muerte, publicó algunas escenas del *Alcalde de Zalamea*. En el prólogo se dice a sí mismo «bilbaíno y euscarista, aunque de los más humildes». Como tal, ha querido contribuir al homenaje con el que «se trataba de conmemorar por mi pueblo natal la esclarecida memoria del insigne dramaturgo».

En el mismo prólogo inserta esta declaración: «Aunque entre nosotros no hay todavía una Academia de la Lengua, la generalidad de los que en euskera escribimos, hemos adoptado, por considerarla más conforme a su índole, la ortografía admitida y enseñada por mi esclarecido y generoso maestro, el por tantos méritos ilustre príncipe Luis Luciano Bonaparte». (En concreto alude al uso de *n* antes de *b* y *p*, advirtiendo que los sonidos representados por *x*, *ts* y *tz* requieren aprenderse de viva voz).

Murió en Santurce «de muerte violenta, ocasionada, según parte facultativo, por derrame cerebral» (como consecuencia de una caída desde el balcón de su casa). Este detalle entre paréntesis debo a informe del también escritor vasco santurzarra Juan Angel de Echebarria. También debo al mismo informante la noticia de que publicó una geografía para uso de sus niños de Santurce con curiosos detalles locales.

Don Juan de Izurrategui y Berrosteguieta (1863-1938).

Bilbaíno es también el que fue durante muchos años celoso párroco de Elorrio, patria de Berriochoa. Fue notable orador sagrado, que supo, mientras vivió, mantener el interés de la misa parroquial con aquella su oratoria cálida, viva y chispeante, con la que consiguió que la misa cantada de la parroquia fuera la más concurrida, particularmente por los hombres, que no querían perder la homilía de su párroco.

Había nacido en Bilbao a 22 de agosto de 1863 y fue bautizado el mismo día en la parroquia de San Antón por don Pedro Lorenzo de Castañares «por comisión de don Mariano José de Ibargiengoitia, Cura Rector de la Parroquia de San Antonio

Abad de esta villa de Bilbao». Fue hijo de Martín de Izurrategui, natural de Ondarroa, y de Isidora de Berrosteguieta, natural de Elgoibar, y vecinos de Bilbao; nieto por línea paterna de José de Izurrategui, natural de Azcoitia, y de Juana de Errazti, natural de Arechabaleta; y, por línea materna, de Isidoro de Berrosteguieta, natural de Salinas, y de María Joaquina de Unzueta, natural de Elgoibar. Se le puso de nombre Juan Timoteo.

Como escritor, colaboró, tratando de temas religiosos, en periódicos y revistas: *Jaungoiko-Zale*, *Euzkadi*, *La Gaceta del Norte...* Aparte de algún opúsculo menor, dejó publicadas tres obras:

1) *Umechuen Jauna artuterako berbaldi laburrak*, 1912, obra dedicada a sus compañeros de sacerdocio. Como el título lo dice, son pláticas de primera comunión, que forman un tomito de 44 páginas.

2) *Jerusalengo osterean semeak amari*. 1923. Un tomo de 208 páginas, de cartas en que va relatando a su madre una peregrinación suya a Tierra Santa, hasta la página 157; el resto de la obra es de cartas sobre diversos asuntos. Este libro le hace acreedor a Juan Izurrategui al título de primera figura en el género epistolar en nuestra lengua.

3) *Urteko igande guztietako Goizpar edo Ebanjelioak*. Los que sean alérgicos a ver el empleo en nuestra lengua de términos unidos o separados por una partícula *edo*, tal vez hagan un mohín a la lectura de este título; pero, con *edo* o sin *edo*, el hecho es que su autor tuvo prendidos de su palabra durante años a todo el pueblo de Elorrio, lo cual dice bien alto de su compenetración con el pueblo y con su lenguaje. Y no cabe duda que mucho de ese mérito habrá pasado a las páginas de este libro, en que el autor virtió algo de lo que de viva voz decía a su pueblo. Aun hoy sigue prestando sus servicios a muchos sacerdotes y hemos comprobado que ha sido utilizado y explotado para emisiones radiofónicas.

Su nombre hubiera podido haber figurado dignamente en obras de historia de nuestra literatura, en que se ha dado cabida a nombres como los de Dithurbide y de Kortazar.

Murió el 30 de noviembre de 1938 y sus restos fueron inhumados en un cementerio de los Padres Cistercienses de San Isidro de Dueñas, en Palencia, y trasladados a Elorrio el año 1974.

ÁRRESE BEITIÁREN GOMUTÁZ*

Otxandiano, edo gure erritarren Otxandio, Bizkaian, Araba'ko mugan, Gorbea ta Anboto begipean, beste tontor txikiago batzuen erdian gordeta lo dagoan uri ezagun polita da. Ospetsu egin eben lenagoko aldietan uritxo au bertako ola ta olagizonen lanak, batez bere untzegilleenak, *punta-parisek* agertu ziran arte. Baña azaletik barik, barruagotik gauzei begiratu ezkerro, badau Otxandiok beste ospegarri andiagorik eta maitagarriagorik, batez bere euskaldunentzat eta Euskal erroko gauzak maite dabezanentzat. Begiratu bat egin Azkue'n kantutegira, ta Otxandio, ta bere inguruko bazterrak, euskal kanten eta antxiñako ipuin zarren sorlekurik aberatzena ta ugariena ta euren gordelekurik beroenatarikoa dirala ikusiko dozue. Euskal erroko bazterrik egokiena bera, euskal-kantari bikain bat sortzeko.

Euskal-kantari bikaña Felipe Arrese Beitia, Otxandioko seme argia, antxe mallu dangadenartean, 184rgarrenurteanyayoa, ta 1906'garreneanurtarrillaren 16'nantxe bertan illa. Egiñak, berak, berrogetamar urte Otxandioko urre-txindor au ixildu zala. Gogoratu daigun beronek euskera-arloan egiñiko lana. Lan onek emon deutso gure artean izenik andiena Arreseri. Sail onetan, eusko-bertsogintzan, gure izkuntzaren barri dakienak bikañetarikotzat yo dabe bera.

Elizondo'ko euskal-festetan, 1879'garren urtean atera eban lenengoz plazara bere burua. Ezin geinke esan ordurartean Euskal erroan izenik ezebanik; baña, beste arlo baten zan, santugintzan, irudigintzan. Vitoria'n, Gasteiz zarrean ikasi eban lan au. Ez eukan orretarako esku makala bere. Bere eskola laguneren artean berak urten eban nagusi; berak irabazi eban lenengo saria. Eta laster asi zan Arrese gaztea iya Euskal-erri guztian, Bizkai, Araba ta Gipuzkoan zear ibiltzen, altara ta santuak egiten, bai zurez ta bai arriz, eta ez eleixetarako bakarrik. Donostia'n, esaterako, berak egin zituen «Instituto Provincial» zarrerako gizon ospetsuen irudiak.

* Karmel 1957-2, 13-16; *Zubero* izenpean, ik. 43. orr.

Eta bertsozko lanik? Noz etorri yakon Arreseri bertsoetarako garra? Ogetalau urte zituala atera ei zituen bere lenengo bertsoak, Karlisten gudateari buruzkoak. Urte batzuk geroago, Donosti'ko San Bartolome-illerri zarrean lanean eragoyola, bertan Kristo kurutzeko bat ikatzaz margoztuta, bere oñetan otoi samur bero bat bertsoan ezarri ei-eban, Donostiarrak arik urte batzuetara, oindiño irakurri al izan ebena. Baña 1879'garren urtean Elizondo'n agertu zan benetako olerkari, sail onetan gorengo mallak artuta. «Ama Euskariari azken-agurrak!» eroyan izena berari Elizondo'n saritutako olerkiak. An agiri zan zabal-zabalik Arrese'n biotza. Bizibearrak eta eskoleak egin eben Arrese santugin, baña biotzak egin eban olerkari. Foruak galdu-barriak zirean, eta euskerea arlo galantak galduaz yoyan. Ikuskizun samiña benetan Arrese'n biotzarentzako; ori zala-ta, Arrese'n bertsoak negar samiña ekarren. Negar samiña ta ia etsibearrezkoa:

Zer aldaiketzut, Ama, bakarrik
agonia estu onetan?
Zotin, zizpuru, negarrez urtu
etziniñik zure oñetan;
parka eskatu seme danentzat
biotzez bene-benetan,
zure arimia lagun ipinten
Jainkoaren eskuetan.

Zuaz mundutik orban bagarik,
zuaz mundutik garbia,
zuaz mundutik adarau бага
ez idi ta ez beya;
beti gorrotau, beti zapaldu
zenduan idolatria,
ta orain zagoz Jaunari emoten
fedian zintso bizia.

II da Euskera! II da Euskera!
Betiko itxi dauz begiak!
Negar Arabak, negar Gipuzkoak,
negar egin bei Bizkayak!
Negar arkaitzak, negar mendiak,
agortu arte iturriak,
ainbeste geixo, ainbeste gatxen
osasun emongarriak!...

Zagoze oraindik zutik arkaitzak?
Dollortu бага mendiak?
Samur emoten Somorrostrogaz
zuen ondasuntegiak?
Errotak klan klan, taun taunka olak
eta pill-pill iturriak,
biziro errekek baita itxasuak
opaka arrantza ugariak?

Geyegi da ta ausi arkaitzak,
 onegi ez izan mendiak,
 lurpertuteko Euskera illa ta
 bere ondasun biziak;
 bera tontorrek, bete arruak,
 erdue Gaztel su-igarrak
 agortu errekak, lurtu itxasuak,
 agur euskeldun ibarrak.

«Nondik eta zelan atera dozu eresi ain eder ori?» itandu eutson Kanpion'ek Imñan aurkitu eban baten. «Biotzak eraso daust», erantzun eutson Arresek. Biotzak erasoak ziran, bai, Arrese'n bertsoak; eurok baño bertso bioztunagorik, gartsuagorik, gitxitan entzun da euskeraz. Euskerak aña iraungo dabe, Karmelo Etxegarai'k esan eban lez. Eurok entzunda euskeldun biotz asko zuzpertz ziran. Arrese'ri asko zor dautso arrezkero sortu zan euskel-zaletasunak eta euskeraren alde egin diran lanak.

Negarti baten deadarrak zirudien, baña ez; Arrese etzan negarti utsa, eta ezin izan bere, benetako olerkaria izateko. Olerkariari, *poietes*, egille izatea dagokio, itxaropenari bideak zabaldu, etorkizun obe-argitsuago baten egille ta iragarle izan, orra olerkari baten egikizuna.

Eta Arrese etzan itxaropen bakoa:

Gabak urrengo dakar eguna
 neguak udabarria,
 onek atzetik uda loratsu
 eder ta zoragarria.

Negute gogor ta izoztu baten ondoren, udabarri eder loratsu bat opa eutson euskerari; ta udaberri ori aurreratuteko gogotsu lan egin eban berak. Elizondokoa etzan izan berak irabazitako sari bakarra. Zortzi urte geroago Unamuno edelzaleak, Gemikako batzaldi ta sariketa baten sariztutako Arrese'n beste bertso batzuk gogatsu irakurri zituen ainbeste entzuleen aurrean. Eta Imñan, Mauleonen, Ondarribian, Durangon, Bilbon, Donostian, iya batzaldirik zan toki guztietan urten eban bein baño sarriago garaille. Gañera oso sarri agertzen zan bere izena euskerazko aldizkaririk geyenetan.

Lora mordo galanta Arresek urte orreitan euskerearen baratza apaintzeko maitero ekarri ebana. Geyenakaz txorta mardul bat egiñik, 1900'garren urtean eldu zan euskalzaleen eskuetara bere «Ama Euskeriaren libum kantaria», Kanpion jaunaren itzaurre mamintsu ta bero bategaz. Urte bi barru, beste txorta barri bat, «Asti-orduetako bertsozko lanak» izenagaz, lengo olerki batzuk eta beste barri asko bertan sartzen zituela. Libum oneiri, batezbe lenengoari euskeldunak arrera ona egin eutsen. Bizkaiko Diputaziñoak libum orretik berreunerafio erosi ei-zituan, Bizkaiko Udaletxe edo Ayuntamiento guztieri bana emoteko.

Iya eztago gairik Arresek bere olerkietan yo ez ebanik. Kantu nagusietan, Euskalerriaren zoritxarrak edo lenagoko egitsari aundiak ditu kantagei geyenbaten. Eurotan esakera gartsu-bizia, imdimen andiki-usañoa erakusten dau sarri, eta etorria

sermolarien yasekoa. Baña baditu beste bertso asko erritarragoak, irrizkoak, ipuñak eta abarrezkoak.

Bere bertsoetan Arresek, berak ain txeratsu ta arritan edo zuretan landutako santu edo gizairudiak baño obeto darakusku bere irudia, bere buru ta biotza. Zeren irudia damosku Arresen bertsoetako irudi orrek? «Eskeldun fededun» bete baten irudia. Olangoxea zekusan beste olerkari batek. Orixek, Arresen irudia bere barru ta guzti:

Biotz orren erdian
ez oneik idatzi:
«euskera il ezkeru
ez dot gura bizi».
Idatzi barrurago,
zulatu zan ta mun,
ondiño barrurago
zerbait itxi euskun.
Bai olerkari baña
bai bere euskaldun,
baña guztiz gafietik
«euskaldun fededun».

ARANA GOIRI, EUSKALARI*

Arana Goiri bere betean ezagutzerik ez dago bere euskalari-alderdia ezagutu ezik. Ez dogu gizon au ez beronen eragiña ezagutuko, euskeraren alorrean nor izan genduan eta nor dogun ikusi eta ikasten ez badogu.

Gazterik, egun gogoangarri batez, argialdi bat etorri jakon; esna-aldi bat jazo zan bere gogoan, urte batzuk lenago Kanpion naparraren gogoan jazo zanaren antzekoa. Bizkaiko seme izan eta bizkaitarren jatorrizko izkuntza ez jakiteaz lotsa-lotsaturik gelditu da, eta beti bereak izango zituen su eta kemenaz asi da ordurarteko uts lotsagarri ori zuzentzen. Euskera ikasi ala, izkuntza onen ederrez lilluraturik dago; gau ta egun diardu, azertuaren aztertuz, euskeraren barruko giltzak billatzen eta dituen zoko tajoko guzien jabe egiten. Aurkitu dituen argiak ez ditu buruan gordetzen, paperera aldatzen ditu eta banaka banaka argitara datoz. Euskeraren gizarte-egoerari begiratuta, ikuskizun mingarriena agerzen jakon: euskerak, euskaldunen jatorrizko izkuntzak, ez dau bere errian bertan zuzenbidez dagokion gizarte-maillarik ez duintasunik. Euskaldun guztien izkuntza izan bear leukena baztertuta, zokoratuta, geienen agotan ixillik dago; maiteen izan bear leukenak ez deutse jaramonik egiten, bertan bera itxita dauke. Orduan, Abandoko seme sutsu zintzoaren barruan erabagi au sortzen da: ez dau bakerik ez onik izango euskeraren egoera negargarri ori eta euskaldunak aren aldera dauken gogo illa eta zabarkeria aldatu arte. Euskaldunen izkuntzari zor jakon lekua emon nai deutso eta jatorriz euskaldunena dan lez, zuzenbidez eta egiaz euskaldun guztien izkuntza egin bearra euskaldunen gogoan sortzeko egiñalak egiñal egingo ditu.

Alderdi bi ditu Aranak orduan asitako ekintzak: batetik, euskal-ikasle eta aztertzaillearena, eta bestetik, euskeraren zabaltzaillearena. Askon izan da alderdi biotan

* In: Sabino ARANA-GOIRI, *Obras completas*, l.t. San Sebastián ²1980, IX-XIX (Sarrera gisa).

berak egiña; baiña bigarrean, euskerari emon eutsan bultzadaren aldetik, Aranak ez dauala bardiñik izan esanaz ez dogu, ez, alan ez danik esango. Arrezkeroko Euskal-Bizkundek Aranari zor deutso geien geien. Aitor au egin ez deusnik gitxi dago, eta dagozenak, ezjakiñez, edo jakin nai ez-ta. Aranarenik gitxi edo bape irakurri ez dabelako edo arenik irakurtzea bera, nonbait, gitxitzat edo alpertzat daukelako.

Unamunok berak salatu eban bein Aranaren aurkako amorrua eta amorru onen iturria: ez-jakiña. Ezagutzen ez dabelako gorroto dabe. Batez bere, Madril-aldean. Alan idatzi eban bein, gitxi gorabera, bilbotar erdalzaleak bere erritarren aldera biotza bigundu jakon batez: «Ordua da Arana zanari, gizon eta poeta oni, zor jakon omen-autorra egin dakion. Madril-en, Españaiko elkar ulertu ezin guztiaren laba beroa dan uri orretan, izen on ala txarraren emoilte andi bakartzat dagozanak, irriz edo amorruez artu eben; ezagutu barik iguiña artu eutsoen edo irainka erabili eben, txu eta lerre urtika ekin eutsoen. Baiña gizatxar areitako batek bere ez ekian Aranak egiñaren eta gutxiago Aranaren gogoaren barririk».

Unamunok poetatzat, olerkaritzat artzen dau gure abandotarra, olerkari bere bizi bizitzan eta politika guztian, eta orregatik gogoangarri eta omengarri. Baiña ez ete da zerbait geiago bere? Euskalari-maillan bere olerkari edo ameslari utsa ete da? Ez ete da jakintza-maillaren batera eltzen? Nor-baitzuen eretxiak ortik doaz. Baiña Koldo Mitxelena izkuntzalariarentzat geiago da; euskalari-maillan bere ez da, ez, utsera botatekoa. Aranaren irakatsiak, mailla onetan, ondo aztertu barik ei daukaguz. Bilbotar erdalzaleak Madril-aldekoen artean salatutako ez-jakiña, Mitxelena euskalzale eta euskalariak, zelanbaiteko neurrian, euskaldunen artean aurkitu dau, laster ikusiko dogun lez.

Gai oni ikutu batzuk egin nai geunzkioz emen, itzaurre onen laburrari dagokion neurrian, Aranak euskeraren arloan egindako lanari begiralditxo bat emon. Asi gaitzean euskera ikasteari emon eutsan unetik.

Berak autortuta dakigunez, amazapi urte zituela itxartu jakon euskal-gogoa eta bere bakarrean asi zan euskera ikasten, Van Eys eta Astarloa argi-egille eta bide-erakusle zituela. Laster, Kanpion-en *Gramática* argitara zanean, an aurkitu dau ainbat argi barri, arexek zabalduko deutso bere ikuspegia euskalki guztietaraiño, eta antxe egin da beste izkuntzalari eta euskalari batzuen (Bonaparte eta enparauen) eretxi eta irakatsien jakitun. Astarloaren eta Van Eys-en liburuetatik, euskal-itzen jatorria billatzeko, etimologietan murgiltzeko joerea gelditu jako. Olan, euskal-itzen azterketa sakonak egiten ditu eta argitaratzen, euskal-aldizkarietan edo bere kontura. Ogei urtetan sartu-barriko lanak ditu: *Etimologías euskéricas*, *Pliegos euskeráfidos*, *Gramática elemental del euskera bizkaino* eta abar. Bizkaiko Aldundiak Institutoan euskera ikastea jarri nai daualata, 1888n, Aranak ango irakasle izateko gaitzat dauko bere burua eta alan agertuko da atarako iragarri daben leiaketara. Beste agertu ziranen izenak ezagunak dira: Azkue, Unamuno, Madina, Alberdi, Iza. Ez zan izan benetako leiaketarik, ez benetako irabazlerik. Azkue egin eben irakasle; abade zanez, eta ikas-agiria bere ba eukanez, epai-maikoak berau aurkitu eben egokientzat, besteen artean. Gaztetako *Gramática* ori, len aitatu dan ori, galdutzat dago, ez dogu ezagutzen; baiña ez da dana galdu. *Gramática* orren mamirik geiena, 1896n argitaratu eban *Lecciones de Ortografía del Euskera bizkaino* liburuan sartuta itxi ei euskun.

Gaiñerako lanak, euskera-saillekoak, 1895, 1896 eta 1897 agertzen dira: *Traído etimológico de los apellidos euskéricos* (amaitu bakoa, eta Mitxelenaren eretxiz lan sakon eta argibide andikoa), *Egutegija* (lenengoa eta ormarakoa), eta *Umiaren lenengo aizkidia* (1897). Lan otan daukagu Arana barrizaria, eta aztertzaile eta kritikari zorrotza. Eurotara jo bear dabe gure euskalariak zer irakatsi dauan eta nondik norako bideak artu eta urratu dituen jakiteko.

Bear bada, iturriok aztertu ez diralako, liburuok irakurri-ezaz, noizik bein alango eretxiak entzuten dira. Irakurri-eza aitatu dot, eta bear bada, irakurri naieza esan bear neban. Oraintsuko jazoera bat aitatu dagidan. Caro-Baroja-ren omenezko liburu lodi bat atera da, antziña ez dala. Bertan euskal-idazle batek lantxo bat atera dau euskeraz, euskal-olerkari batzuen bertsonerri batzuk aztertzeke. *Aitzol* zanaren belaunaldiko olerkarietan lenengoz agertzen diran neurri-lege batzuk aurkitu ei ditu. Lana amaitu orduko konturatu da edo jakin dau barriak diralako lege orrek Arana Goirik azalduta eukazala. Beste nonbaitetik jakin dau, ez Arana beraren liburutik. Ain nekeza ete zan Arana beraren liburua irakurtzea?

Okerragoa da utsa, ez-jakiñez, okerreko eretxiak ezarten jakozanean. Ortik dator Arana Larramendiren girokoa, edo Astarloaren jarraitzaile itsua, edo Euskera Paradisuko izkuntza zorionekotzat daukenen artekoa egitea. Oker bardiñean jausten da Aranari kritikari izateko gaitasuna ukatzen deusana, edo jakintza-bideen usaiñik artzen ez dakienetako garbitzat daukana.

Eretxiok arinkeriaren alabak dira garbi-garbian. Naiko kontuzago dabil Mitxelena izkuntzalaria. Onen eretxiz, Aranaren euskal-lana ondo aztertu barik dago. Bereak ez dituen eretxiak ezarten ei jakoz askotan. Aranazale batzuen eretxiak alboratu eta bere bereak dituenak aztertzea lan onuragarria izango ei genduke. Egia ei da bere bereak dituen ibilpideak asmau dituela euskeraren arloan; baiña, guztiz on artzekoak ez diranean bere, ez ei dago jakintza-bidetik kanpo dabillala esaterik.

Zeintzuk ditugu, bada, Abandotarrak aztertutako arloak? Etimologiari eta Fonetikari dagokiozan sailak, batez bere. Sail onetan sartzen ditu berak euskal-itzen jatorria, itzen alkarren arteko joskera, eta joskera au egitean jazoten diran ots-aldaketak, fonetika-legeak. Sail au, fonetikarena, orduan jorratzen asi barria zan, baiña fonetika-legeai garrantzia andia emoten eutsan berak, euskeraren inguruan edozein azterketa egiteko. Geien batez, Bizkaiko euskeraren oskera-legeak aztertu eta argitu zituen, Bizkaiko euskalkiarenak ziranak beste euskalkiai ezarri barik, orraitio.

Azter-lan onetan nortzuk artu zituen gidari len aitatu dogu. Fonetikagaietan Kanpion dauko aztertzaile sakonentzat. Baiña bera ez da, azterketa sakon barik, kritika zeatza egin barik, iñoren eretxira makurtzekoa. Biotzak eraginda ekin deutso euskera ikasteari, baiña jakintzaren argiak aurrean dituala. Biotzak maitagarri egin deutso bere asaben izkuntza; jakintzak maitagarriago egin deutso, izkuntza eder aberatsa dala esaten deusalak. Baiña edozeiñen esan eta irakatsiak bere buruaren eio-tarritik igaroko ditu, eta edozeiñen eretxien kritikari zorrotza agertzen da.

Kritikari zorrotza dau Larramendik. Onen iztegiara itsu itsuan jotzen eben-
XIXgarren mendeko idazle askok, Aranaren egunetaraño. Esaterako, Domingo Agirrek lenengo euskal-lanetan. Aranak, Van Eys-en iztegiari siñistuta, begi obea euki eban Larramendirenean bedar txarrari eta gari onari igarteko, eta gogor jorratuko dau

aren jokabidea, erderatiko itz askori euskerazko jatorria emon bearra. Ori dala-ta, astiñaldi bardiña emongo deutso Aizkibel-en iztegiari. Eta Novia Salzedo-ren iztegia lotsagarritzat dauko. Novia-ren ondorengoak eta argitaratzailleak obe egingo ei eben, zorigaiztoko liburu ori argitaratu ez balebe.

Kritikalari zorrotza dau Astarloak bere. Ain zuzen, Novia-ren iztegia ezesten eta jorratzen badau, orrexegaitik egiten dau, Astarloari larregi siñistu eta aren jokabidea aurrerago eroan daualako. Izkien esangurea ez ei da billatu bear itzik zarrenetan, edo jatorri-jatorrizkoetan baiño. Letren esangure ori iñoz bere ez onartzea, beti zearo ukatzea bere ez dau maite. Ez deuskue aurkalariak arrazoi benetakorik emoten. Olan neurri baten, Astarloaren alde urtengo dau, baiña ez osoan, neurritsu batera ekarrita baiño.

Aranak maiteen eban beste maixu bat askok ez dabe siñistu bere egin naiko: erria, erriaren erabilkera. Erriaren arerio eta baztartzaille garbitzat emongo deuskue. Alan bere, maixu onek, erriaren euskera edo erabilkera letra larriekaz, izki nausiekaz aitatzen dau: USO. Umetako izkuntza euskera izan baleu, beste maixurik ez ei eban berak aintzat artuko. Euskaldun jatorrak, umetatikoak, orixe bear ei dau, eta ez liburuetakoa maixuen mende itxi bere burua. Astia galtzeko arriskua ba ei dauko jokabide onek; baiña bestelako jokabideagaz idazle baten eretxiak jakin bai, baiña ikastekoa bera dan lez ez ikastea jazo leitekigu. Berak euskera egiña, erriak erabili oi dauana artu nai dau liburuak diñoena onartu edo ez onartzeko.

Erria maixutzat artuak ez dau esan nai erriaren agotan entzuten dan guztia ona eta legezkoa danik. Erria larregitan erderaren mendean dago, igarri barik erderakada asko artzen ditu beretzat. Jakin egin bear zer artu eta zer itxi. Noizik bein, emen bere, okerreko bidea artu leitekela? Egia da. Askok gogoratuko dabe *Lagi* eta *Lege* itzena. Arana oso gazterik asi zan *Lagi* erabilten; aita-seme euskaldun biri entzun ei eutsen berak alkarrizketa baten bein baiño geiagotan esanda. Baiña dana esan bearko da: idatzita bere aurkitu eban, Aita Uriarte frantsiskotarraren bestsoetan bakarrik ez, Kanpion-en *Gramatican* bere bai.

Maixuok artuta, kritikalari zorrotz eginda, or dogu abandotar gaztea euskeraren erraietan murgilduta, euskal-itzen aztarrenak billatzen eta barruko legeak ateraten. Or ikusi dau, besteak beste, itzak ez dagozela beti egonean, aldakuntzak izaten dabezala, baiña ez edozelan, ez arau barik, lege batzuk gordez baiño. Izkiak eta itzak alkar-jotean, alkar jostean, edo itzari naiz aditzari atzizkien bat ezartean ikusten eta jazoten diran legeak dira, fonetikazko legeak. Aranak, Bizkaiko euskalkietan, zorrotz eta zeatz aztertu ditu. Ez dira Bizkai guztikoak izango, baiña bai non edo angoak, beraz erriarenak. Arana emen gelditu zan, itzen joskerako legeetan. Etzan eldu orain euskal-joskera esaten deusagunaren legeak ikusi eta aztertzeraiño.

Gai gatxago eta sakonagoetan sartuta bere, nabarbena da berak erakusten dauan begi zorrotza eta eretxi zurra, esaterako, euskeraren jatorri eta antziñatasunari dagokiona. Aurreko geienen eretxia aintzat arturik, garbi autortzen dau euskera antziñakoa dala, garbia dala, beste izkuntzen antz gitxikoa dala. Baiña euskeraren seaska non billatu? Bide orretan noraiño jo? Lenengo gizonaganaiño? Paradisuraiño? Aranarenik ezer irakurri ez-ta, Astarloaren jarraitzaille itsua dala-ta, baten batek baleiteke olango uztemusteren bat izatea. Baiña gure gizona ez da norbaitek uste izan leiken

lango jakintza gitxikoa, ez. Mitxelenak esana gogoan eukitea ondo etorriko jako olango bati. Euskera izkuntza garbitzat, besteakaz nasterik bakotzat daukan arren, ez dau berak uste beti egoera batean iraun dauanik, ezeren aldaketa barik egon danik, sortu zanetik ona. Bere azterkataldietatik atera dauanez, iru egoera-aldi edo iru al-daketa-aldi joten deutoz izkuntza oni, gitxienez. Ez dau, bada, orain, ikusten antziña bateko ez sorrerako ustezko garbitasunean. Eta ona emon deuskun bere asken-eretzia: euskera izkuntzarik zarrena eta beste guztien ama ez bada bere, orain bizi diran edo bizi nai illik ezagutzen ditugun izkuntzen ama izan diranen aita zarra bai badalakoa dauko. Beste azterbide batzuetatik jota, oraingo izkuntzalari batzuk ez ete deuskue orixe berori edo antzeko zerbait esaten? Arana ez dogu, ez, ameslari utsa, ez jakintza-bideai usañik artzen ez dakiana.

Antziñatasun-gai onetan bertan ba ekian orduko jakitun batzuen eretxi batzuk jorratu eta bera erasten. Silaba bakardun izkuntzak (silaba banako itzak dituenak) izkuntzarik zarrentzat dituenen eretzia ezin dau onartu, ez eta izkuntzak iru taldetan banatzea bera (monosilábicas, aglutinantes, flexivas). Ez batari ez besteari ez deutso oiñarri onik aurkitzen. Silaba bakardun izatea ez ei da besteak baiño antziñagokoa dalako ezaugarri, eta urrango biak, barriz, ez ei dira errez bereizten. Gaur irukoitzasun orrek ez dau siñistedun askorik.

Aranak, jakintzaren egoetan, ba ekian goietan gora igoten eta ba ekian beraño jasten, erriraiño makurturik euskera bizian oiñarritzen. Okerrak oker eta utsak uts, ori alan da eta autortu bearra dago.

Bear bada, geienetan, arranoaren egadan ibilli da. Ez dabe bada askok, goitzen bat ezarrita, bera Abandoko Arranoa egin? Arranoak ain zuzen, goietan zear bakarrik egatzea maite izaten dabe. Bakarrik ibillia da Arana. Idazlanik gitxi bialdu eban bere egunetako aldizkari zabalduenetara. Asi zan, bai, asi zerbait bialtzen. Baiña oso gitxi, *Euskal-Erria* aldizkariak lenengotarik atear itxi eutsozan; ezizenpean etorrela-ta, aldizkariak nai ez ezizendun idazlanik. Gero bere aldizkariak sortuko ditu eta aretan idatziko dau. Arana bakarrik beti, edo bere kumetxoen lagunartean. Eta bakarrik aurkituko dogu, berak lenengo bideak urratuta, aurrera eroan zituen euskeraren arloko ekintza berezietan, asmo barriko eta bide barrikoetan.

Itzaurre onen urrango egitekoa orixe izango da: Aranak euskeraren saillean urratu zituen bide barri batzuk argitan ipintea. Aitatu dagidazan banan banan.

1) *Ortografia barriztua*. Gai onetan eta beste geroke bat edo bestean sartu aurretik, Aranak artu zituen jokabideen jorrazaille askoren esamesai erantzuteko zerbait esan bearra dago. Erdaldunen aurka edo erdaldunekin bat ez egitearren egin ei zituen barrikuntza asko arrazakeriz edo. Ortik itz barriak sortu bear gorria; ortik euskeraren-tzako ortografia barri berezia; ortik giza-izendegi barria; dana, erdal-usañientzako amorrugatit, euskaldunak danean bereziak izan bear dabela-ta. Odolez eta izkuntzaz bereziak diranak, danean bereziak egitearren. Endakeri eta arropuzkeri utsezko jokabidea ei da danean Aranarena, gaizki esale batzuen ustez.

Uste onek erdia baiño geiago dau ustela. Esaterako, ortografia barriztu eta aton-tzea bear izana ikusi daualako egin dau, edo ainbeste ortografi-mueten artean batasuna egin bearra egoalako. Ez-jakin askok, oraindiño bere, oker uste dabe ortografi bakarra

egoala euskal-idazleen artean, aspalditik sendotuta, inguruko erderen ortografia. Uste ustela. Euskeraren ortografia eta erderena, gaiñera, ezin bat izan. Besteok ez dituen otsak eukitena, ezin izan bat. Umetan bere ulertzen genduan orrenbeste. Nire txikitako eskolan gure aurrekoak eskolara asibarriari etorten jakuzan esaten: «I, ezetz eskribidu *Tope moxo*», aritoei topeka astera egiteko esan oi geuntsana. *Moxo* ori zelan idatzi ez genduan aurkitzen an ikasiriko erdal-abezedarioan. Askoren uste ustelez, K izkia bere ez da erabili euskeraz Aranaren egunetararte. Ez dakie edo ez dabe jakin nai izan, Iparraldeko idazleak amaseigarren gizalditik ona erabili izan dabela eta Bizkaian bere, Aita Zabala bilbotarraganik eta Añibarro arratiarraganik asita, ondo sartuta egoala. Ez dakie euskal-ortografia barriztetako alegiñak, XIXgarren gizaldian bertan Iparraldean asiak zirala. Ez zan guztien gogobetekorik sortzen. Guztiak batasuna nai izan arren, ez zan lortzen nai añako batasunik, ez angoen artean ez emengoen artean, eta gitxiago ango ta emengoen arteko batasunik. Egoera orretan datoz Aranaren saioa, Azkue zanarena eta gizaldi onen asieran mugaz andiko eta emendiko batzarrak.

Baiña H izkia? Itanduko dau bat edo batek. Emen bere bada uste okerrik. Ez ete dabe askok uste Aranak letra orri gorroto eutsala? Au bere, uste ustela. Ez, ori eukan euskalkiari ez eutsan kendu, ez eukanari ez eutsan ezarri. Beste istillurik ez dago emen. Arana soiñutik, itzen soiñutik itzen ezaugarrira doa, otsetik otsa adierazoteko letrara, ez bestera. Eta bakotxari berea. Letra au edo letra orrek adierazoten dauan soiñua ez eukan jatorri garbikotzat; baiña batez bere, ez eukan beste letra guztien amatzat, gaur euren buruak izkuntzalaritzat daukezan batzuk dauken lez. Gaur bada olangorik, letra bat galdu danean edo galdu uste danean, galduaren edo galdutzakoaren ordez *H* ori jarri bear dauanik. Lemoa, or *N* bat galdu dala-ta, Lemoha jarri bear dogu, nonbait. Alan dago idatzita izkuntzalari anditzat dagoanaren liburu baten. Gaur bada, letra orri garrantzirik ez deusala emoten baiña, beti *jarri* izan dana (edo iarri, yarri, xarri), *iharri* idazten asi danik. Bokal biren artean, itz baten barruan, askoran agotan entzuten da bitarteko soiñu bat, edo bapere ez: *igez*, *iyes*, *ihes*, *ies*. Bearrezko ete da, eta zein da bearrezko ori? Gaurko batzuentzat, *H* da bearrezkoa eta ez ipintea pekatu. Aranarentzat edozein dago jator, eta bat bere ez, bearrezkoa (Mixelena berak, *Fonética Histórica Vasca* liburuan 88 garren orrialdean, ez deutso iñori nai ta ezko eretxirik ezarten). Arana Goirik ez eban iñoz idatziko gaurko jakituntzako batek bein baño geigotan idatzi dauan au: «Lehenbailehen idatzi da, baiña irakurleak lenbailen irakurri bearko dau». Eta *H* eta bigarren *E* ori zertako?

Aranarentzat agozko izkuntza lenago da idatzia baiño, eta ez bestera. Nor dabil zentzunbidetik eta jakintza-bidetik urrago?

Baiña *Euzkadi*? Izen onek ez dau atera ez ateraten istillu eta eztabaida txikirik: —*Di* atzizki gaizki dagoela, ez dala landaretan baiño erabilten, *Z* ori barriz Aranak asmaua dala, ez dauala lenago iñok erabili, ba daukagula lendik Euskalerrria izena, izen jatorra. Azkenengo onetan erdia baiño ezta egia. Bai, badaukagu *Euskalerrria* izen ori, baiña bai *Euskalerrriak* bere. Euskalerrria da gure literaturan edozein erri euskaldun bere. Badoguz Euskalerrriak eta badoguz Erdalerrria eta Erdalerrriak, baiña erdalerrri bakoitxak bere izena. Euskalerrriak beste izen berezi bat euki leike. Lenago askok Bizkaia esaten eutsoen. Gero, —*Di* atzizkia ori landaretatik kanpo erabilia izan da. Etxeberri Ziburukoak *gizondia* eta *uhindia* erabili ditu. Euskera erabili eban

Aranak luzaro, baiña *Euzkadi* itza sortu ebanean, ez. *Euzcadia* idatzi eban E-M. Azkuek Arana jaio baiño lenago, eta *euzkera* eta *euzkaldun* askotan Abandoko perratzaile edo aberesendatzaillak. Azkenez, Heuzcara eta Heuzcaldun XVIIIgarren mendean beti Iparraldeko idazle batek bere liburu mardul baten. Olantxe, *H* ta guzti, baiña *Z* orrekin. Arana emen bere bakarrik ez dago.

2) *Izendegia*. Arrikaldirik artu eban eta artzen dau Aranak bere izendegia dala ta ezala. Irri maltzurrik bere egin jako Astarloak esana gogora ekarrita, au da, txikitan mutillak *aaka* egiten dabela negar eta nee.kak *eeka*, izendegirako arau bat ortik atera baleu lez. Irri egilleok Aranak berak esana ez dabe irakurri. Arra eta emea gogoratzea naikoa zan. Gero, ez da *A* bakarrik gizonezkoen izenentzako ezaugarri, *E* bakarrik bere ez, emakumezkoentzako. Batzuk *N* bere ba dauke: ain zuzen, emakumezkoekin itz egitean, euskal-aditzak ezaugarritzat sartzen dauan *N* bera.

Aranaren izendegia egutegian agertu zan, ez erdal-izenak euskeraratzeko asmoz, izen orrei euskal-itxura emoteko baiño, beste izkuntzak egiten daben legetxe. Euskaldunak ordurarte ez ziran asko arduratu orretan. Geienetan inguruko erderen izenetara makurtzen ziran, Frantzialdera edo Españoldera. Ez ete egoan batasuna egiterik? Izenak, entzunaz batera emakumeena ala gizonezkoena dan adierazotea nai bazan, arau bat bearrezkoa genduan. Eta Aranak bat asmau euskun. Berak ba ekian barrikuntza onek eragozpen andiak aurkituko zituela onartua izateko. Ulertzekoa da Bidasoaz emendiko erdal-izenetara oituta egozanai gogortxo egingo jakiela gizonai andra-izenen antzeko izenak ipintea. Orregatik edo, amaiera geiagokoak jarri zituen: Sabin, Mikel, Andoni eta olan. Bear bada, atzerrietako izenak euskal-itxuratzean, antziñegiko sustraietara jo eban eta izen bitxiegiak atera, *Koldobika* eta olakoak, eta gaiñera fonetika-lege estutxoak erabilli. Gizonezkoen izenai -A amaiera emoteko dala-ta esan bearra dago olako izenak Iparraldeko idazleetan oso erabilliak izan dirala. Iparraldean ia geien argitaratua izan dan liburuia *Ejercicio* izenekoa da. Nik 1857ko argitaraldia daukat aurrean. Eta ona zelango izen-zerrenda dakarren gizonezkoentzat: *Tita, Satira, Salma, Kalista, Sixta, Hipolita, Dominika...* Beste mordo ederra atera geinke XVIIIgarren eta XIXgarren mendeko idazle batzuen liburuetatik: *Moisa, Dositea, Anselma* eta abar. Osterantzeko amaierera daukenetatik bere pillo ederrak dagoz: Seberin, Paulin, Sabin, Justin eta abar. Abandotarrak moldatutako asko bardin-bardiñak ez ete dira? Ez dago, beraz, Ixendegiaren egillea emen bere ain bakarrik eta ez dabil ain bitxi.

3) *Itz barriak*. Arana Goiriri garbikeria, garbiegikeria egotzi jako, eta garbiegikeriaren garbikeriaz, erdal-kutsuzko edo erdal-jatorrizko itzentzako iguiña, olango itzak euskal-gaiztotzat bota eta ordezko barriak zentzun barik sortzea. Bide au artuta, gure idazle zarren liburuak iguin izateraiño joan ei da eta euren erdalkeriak salatu eta zuzendu nai izateraiño ausartu. Salatzaile askok autortu dabe aren itz barri askok arrerarik onena izan dabela, edozeiñen luman eta agotan dabiltzala, baiña ezin dautsoe pekatu edo pekatutzako au parkatu. Non da egia?

Ez dago ukatzerik euskaldunak eta euskal-idazleak, erdal-giroan bizi eta erdal-giroan eskolaturik, luzaroege egon zirala erdal-eragiñaren pean, erdera bati edo besteri lotuta. Gero, luzarotxo egon ziran, Larramendi azaldu zanean, guzurrezko euskal-

giro baten barruan, arek asmautako itz asko jatortzat artuz, eta erdal-itz asko euskera garbikotzat erabilliz. Guzurrezko giro onek Aranaren egunetaraño iraungo dau, eta onek guzurrezko jatortasun ori salatu eta egiazkoago batera bultzatu, orixe egin eban. Egintza onurakorra.

Idazle zarren gatx-erizle eta gorrotatzaille izan zala ez da egia. Idazle zar asko irakurri ditu, Bizkaikoak batez bere. *Peru Abarka*, ez bein bakarrik, askotan irakurri dau, eta ez akatsen billa, Peruk darabillan euskeraren ederrak eraginda baiño. Mogel-en sermoe baten azterketa egifiez, zuzenketa batzuk egiten deutzazala egia da; baiña ez erdal-itz guztiak kentzeko. Ordezko euskal-itz jatorrik aurkitzen badau, euskerazkoa jarriko deutso; bestela, erdal-kutsuzkoa itxi, barririk asmau barik.

Ori bai; Arana Goiriri ez jako buruan sartzen euskal-itz jatorrai eta erdal-kutsuzkoai mailla bardiña autortu bear jakienik. Premiña barik, bearrezko ez dirala, zabarkeri utsez sartuak edo artuak diranean, esan bearrik ez: baiña ordezkorik ez dabenean bere, bigarren maillakoak izango dira beti. Bakotxari berea. Au ez dago izkuntza-jakintzaren aurka. Inglesak ez dira izkuntzagaietan ain ez-jakin; baiña, Oxford-tarren iztegiak, iztegi ospetsuak, gitxienez lau mailla ezarten deutsez ingles itzai, zaartuenetatik asi ta atzeritikoetaraño. Gure artean, joan dan mendean, erderatiko itzai asi ziran itz barri edo neologismo esaten. Chaho Iparraldeko idazlea Iztegi andi bat egiten asi zan, eta lenengo zatiari, erderetatiko itzak ekarri bear zituenari *Vocabulaire Néologique* jarri eutsan izena. Erderetatiko itzei «miseras divitias» deitzen eutsen Lécluse gramatikariak: «aberastasun urri kaxkarrak». Aberats argiak giñakez olako ondasunez gure izkuntza aberastu bear bagendu! Gaztelako, Frantziako eta Gaskoinen itzez gure iztegia aberastu bear bagendu!

Orrelako itz barri asko dira, Larramendirenak batez bere, Unamunok salatu eta gorroto zituenak, Arana Goirirenak agertzen asi baiño lenago. Esan leike norbaitzuk gaur erderazko «terminacho» Aranak sortutako itz barriak izentetako asmautzat ete dauken. Unamunok atzerago jo dau; batez bere, Aizkibel-en Iztegia aurkitu dau «formado fuera del país (Toledon) y repleto de terminachos de invención propia». Olako ondasunez euskera aberastu baiño len, eriotzea opa eutsan euskerari, «jakintzazko gantzutan il eta lurperatzea». Gaur euskerari bizirik irautea opa deutzanak ez leuke bear Unamunoren destaiñezko itzak bereak eginda plazaratu.

Itz barriak edozein izkuntzak bearrezkoak ditu. Eta bere erraietatik atera al izan ezkerro, ainbat obeto. Iñork ez deutso euskerari eskubide au ukatu bear. Askotan, olan, itz bikotxak zabalduko dira, euskera utsezkoak eta erderatikoak (*urrutizkin*, *telefono* eta abar), beste izkuntza askotan jazoten dan antzera. Eurak aintzat artuak izatea da arazoa. Aranak sortuak edo eratuak or dabiltz bizi bizirik ainbeste: *Idatzi* (iratsi, iratzi, idatzi), *aberri*, *abertzale* eta abar.

Arana Goirik arlo onetan egiña beti kaltegarri izan dala esatea larregitxo esatea da. Aranaz geroko idazleak, apurka apurka, euskeraren jabeago egin dira, euskera jatorrago eta garbiagoan idatzi dabe. Len aitatu dot *Kresala-ren* egillea, Domingo Agirre. Lenengo idazlanetatik gerokoetara alde andia ikusten jako. Batzuetzat atzeragarri eta bildurgarri izan bada, beste askorentzat aberasgarri izan da, eta euren gogoak erderaren mendetik atera eta euskera jatorragoa, erritarragoa lantzeko lagun-garri.

4) *Euskeraren gizarte-giroa eta batasun-auzia*. Gure gizon au euskera batua lortzeko alegiñen eragozgarri eta areriotzat jo dabe askok azken aldiotan; euskera baturantzako joera bati, bere egunetan, bea jo erazo eutsala bere zabaldu dabe. Ez-jakin garbiaren lelo eta barriketak baiño ez dira. XXgarren mendea urratuaz batera, Bidasoaz andiko eta emendikoak egindako batzar jakifiñ arek ez euken euskera batuagaz ikustekorik, euskal-idazkera edo ortografiagaz baiño, eta Arana tartean zala. Batzar aretan lortu ez zana, ortografi-batasuna, geroago lortu zan, Euskaltzaindia sortu zanean, eta Aranak erakutsitako bidetik, ain zuzen.

Euskera batuago egiteko arazoa beste nonbaiten eta beste nozbaiten iragarri eta azaldu eban Aranak, gure izkuntzari gizarte-aurrean eta jendaurrean zelango mailla eta egoera zor jakon bere eretxia azaldu ebanean. Aranaren asmoak eta jokabidea argi eta garbi dagoz. Euskera euskal- seme guztien izkuntza izatera eroan nai dau, eskubide guztien jabe eta guztien legezko eta egitezko izkuntza izatera. Lenengo, euskaldunak euren lozorrotik itxartu, euskeraren alderako zabarkeritik eta jaramonik- ezetik atera, eta ortik aurrerako ekintzan jarri.

Euskalerrri edo eskualde baktotetik asiko da lana, lenago euren jabe izan ziran eta egunen baten barriro izateko ustea dauken eskualde baktotetik. Eskualde baktotxean nagusi dan euskera alik batuena egin, osotu eta indartu, guztien arteko izkuntza egin arte, bai literaturan eta bai goikoen eta bekoen, ikasien eta ikasibakoen agotan, kalean eta etxean. Euskera ori jarri bearko da nagusi eskola guztietan, berengoetarik gorenootarañoekoetan, erri-batzar eta batzarretako eta gizarteko agiri guztietan. Olan-txe, euskalki baktotxean batasuna lortuaz, Bizkaian euskera bat, Gipuzkoan gipuzkera bat, Napparroan nappar-euskera bat jarriko da nausi, eta ezbardintasunean batasuna lortu, politika-bizitzan nai dana lango bardintasun-ezbardintasuna. Olantxe betik asita, euskalki baktotetik asita. Andik aurrerakoa geroak esango dau.

Ez zan asmo txarra, ez zan ames zoroa. Aranak ez dau tellatu-gaillurretik etxegintzan asi nai, ez goitik bera gabetik goizera batasuna lortzeko amesik egin. Euskera bizia Euskalerrri baktotxean bizi da, euskalkietan bananduta. Euskalkiak il ezkeru, euskera bera ilteko arriskua ez ete dago? Euskera onik eta osorik aterateko amesez, eriotzera eroan geinke. Euskera bizirik ez da zapaldu bear. Gelditu bedi ori, or munduan zear eta emen, erri txikien izkuntzak, izkuntza zabalago baten onetan, zapaldu eta ixildu dituenentzat. Euskerari, toki baktotkeoari, lotsa eta maitasun ohea erakutsi bearko jako. Eta ez ifiori gure izkuntza gorrotauazo. Gure egunotako andra izkuntzalari batek esana bere gogoan izan dauala dirudi: «Len euren euskerari eusteko naiko zabar ibilli diranak beste arrotz samar egiten jaken euskerari zelan eutsiko deutsoe?»

Euskeraren gizarte-egoera jasoteko, nok asmau dau ezer andiagorik eta zentzukoagorik? Eta asmoaren ondotik, ekintza, jarri dan elburura eltzeko ekintza: euskal-ikastolak sortu, liburutxoak atera, euskal-abestiak zabaldu, aldizkariak argitaratu, euskera-erderazkoak lenengo, euskera utsezkoak gero. Orainarte Aranatarrak izan dira, eleizgizonez kanpo, euskera utsezko aldizkaririk sortu dabenak, *Euzko-Deya* (1916-1923), Primo de Rivera jeneralak ixildua; beste guztiak ifioren kabitan uumeak ateraten ibilli dira.

Aranak aldarrikatutako bidetik doa, zelan edo alan gaurko ekintza guztia, eta ak emondako abiadan jarraituta aurrera doa. Euskal-ikastolak aurrera, euskera irakaskintza-mailla guztietan sartzea aurrera, batzar-agiriak euskeraz idaztea aurrera, euskal-izenak jaiobarriai ipintea aurrera. Eta bidean dira Aranak amestutako eta Estatutoak errezututako aukera guztiak. Aurrera egin bear guzti au Aranak jarri dau ibilten. Berak amestutako ondorenik ez badator, euskaldunona izango da errua.

Eta ez dagigun aitzu euskal-akademia. Aranaren asmotan, euskera landu, aberastu eta garbitzen eukan bere egiteko nausia.

Itzaurre au amaitzeko, nire itzak alde batera itxita, beste batzuk irakurrierazoko deutzadak onaino eltzeko adorerik izan dauan irakurleari. Unamunok eta Mitxelenak esana len aitatu dot. Betoz orain beste batzuenak.

Azkie bere Iztegi andia ateraten Frantzialdean zala jazo zan Aranaren eriotzea, eta Aranazale ez zan arren, Iztegiaren barruan itxi euskun eriotz orrek emon eutsan miña, eta Aranagazko on-eretzia: euskalari sakona, tamalez gazterik galdua («malogrado y profundo vascófilo») izan zala diño *N* letraren sarreran. Urteak geroago, euskal-eresiaz emondako itzaldi baten (1918) geiago diño: «Nori zor deutzagu nik euskal-musikaz itzaldiok egitea, eta zuok emen entzule, baturik ikusteko zoriona; nori zor jako, Jaungoikoaz beste, gure inguruko euskal-bizkundera, beronen agerkera maitagarri guztietan? Guztien gaiñetik, Sabino Arana Goiri zanari... Egiogun zor jakon omena... gure Bizkunde onen Aitalenari, gure erriaren maitale sutsuari.»

Ez egoan Arana Goiriren eskolaketat Bustintza, «Kirikiño» ezizena ain begiko egin ebana. Arana Goiri il zanean, berau zan, Askuek izentauta, IBAIZABAL aste-kariaren zuzendari: eta ilbarriaren gomutaz idazlan beroa argitaratu eban: «Euskalerria txirringolan joian eriotzarantza... Euskera galduz joian, euskaldunak eurak eta euskaldunen jatorrizkoak ez eutsen jaramonik egiten... Arana jarri zan sendo ondamenti au eragotzeko, ta guda gogorrean ibilla da amar urte onetan, bere osasuna ta bere dirua galduaz. Berak eukan lango gogo sendoa bear zan artu eban bidean ez atzera egiteko... Sabino Arana jaunak berak esaten eutsan lengo urte baten bere ta gure adiskide bati: 'Jose Mari, azia erein dogu, ta uste dot lur onean; emongo dau landarea'... Alantxe da: aziak emon dau landarea, ta landare onek bota dauz sustrai sendoak... Gaurko gazteria gizondu daitenean ikusiko dau bizi izango danak zelango sendotasuna ta indarra artuko daben landara orrek». Kirikiño, Bloa (bere lau abizenen len-izkiakaz osotutako ezizena) igarle agiri jaku itz onetan.

Eta azkenengo itza Aranatar ez dan beste idazle andi batena izan bedi: *Orix* izan genduanarena: «Sortu zen Arana ta esnatu da euskera ta iñarrosi du burua bizkor... Arana gabe edo Aranaz leku ari izanak badituzu, baiña aren aldekoak naiz aitzikoak, naiz bitarteko naiz Arana kukuak, ua dute eragille, nola edo ala».

Bustinzak aurretiaz, igarlearena egiñez, ikusia, beste biak orra alan jazo dala ikusi eta autortu: Arana, euskalari argia, euskal-arloan ainbeste bideen urratzailea, geroko euskal-bizkunderaren bultzatzaile, geroko euskalgintza guztiaren eragille izan dala.

EUSKAL IDAZLEEN SORTA BERRIA*

Joan den urtean argitara emandako liburu sorta aski ez duelarik eta leengoari ongi iritzirik, noski, orain beste bat eskaintzen digula dator Euskal Editoreen Elkarte. Oraingoa leengoaren ildotik dator: emeretzigarren mendean asi eta gure mendera arteiñoko euskal-idazle jatortzat dauden zenbait idazlanez osaturiko bildumatxoa ematen zaigu. Gure asaba zaarren baratza landu izan dutenen emaitzetatik aukera egin eta aien euskal-lana ezagutzeko aukera eman nai zaie gaurko euskaldunei.

Gure arteko gaurko belaunaldiak badu onelako laguntzaren bearrrik. Gaur sortzen den literatura utsa ez dugu aski. Gure aurrekoena ere ezagutu bearrean gaude. Edozein izkuntzako literaturaz egiten dute ori: literatura zaarreko textoak tomo txikitari atera, iruzkin argigarriz ornitu eta eskola urteetako gazteentzat argitaratu. Euskaldunei laguntza berdintsua eskaintzeko asmoz ari da Euskal Idazleen Elkarte. Alor onetan dugun utsune eta premia andiak bete nai lituzke. Gure irakurle eta ikasleek nekez aurkitzen dute aukerarik beren belaunaldia baiño leenagoko euskal textorik eskuratu eta ezagutzeko. Euskerazko liburu zaarrak eta ez ain zaarrak aspaldian agorturik daude. Eta liburu zaarrenak ez ezik, oraintsuagokoak ere bai. Eta auek, oraintsuagokoak, guganik urbillagoenak bearrezkoago ditugu, noski, ain zuzen gure egunotako euskeratik urbillagoa ditugulako, orain egiten den euskerarekin antz andiagoo dutelako, leenik; baiña baita ere, joan den mendean asi zelako euskal-literatura esnatzan, gai berriak, literaturaren alorrekoagoak eskaintzen, eta langille berriekin ugaltzen.

Leengoko mendeetan badirudi euskeraz idaztea ez ote zen elizgizonen egitekoa, apaiz eta praileena, elizarako egina, erligio gai batzuetara mugatua. Emeretzigarren

* In: *Klasikoak. Euskal Editoreen Elkarte*, 9-20. t. Donosti 1987-1988, 9-20. Liburu txortaren sarrera.

mendean, apaiz eta praileez beste langille laikorik ere badator euskal alorrera, eta eliz-gaiak utzi gabe, sail berriak landuko dira: edotariko olerkia, ipuia, antzerkia, nobela, kondaira. Bultzagile berri asko ageri dira orretarako. Erria bera euskazaletzeko, or dator Abbadie jaun jakintsu eta azkarra euskalegunak eta egun auetako sariketak sortzen, geroko euskal-joko guztien aurrelari. Karlisten azken-gerratearen ondoren, Foruak galduak euskaldun asko esnatu eta zuzpeltu ditu. Betidaniko eskubideak moztu dizkigutenez gero, ez al digute gure arima kendu eta galaraziko, Euskaldunei izena ematen dien izkuntza galduko. Geure euskera gogorik beroenaz zaindu dezagun, beintzat, ikas dezagun, azter dezagun, ikastoletara eraman dezagun. Ori da euskaldunen artean entzuten den oiua. Aberrimiñak, ikasi-naiak, eskolak, euskalkulturazko aldizkariak, idazle berriak, eta guztien lanak oiñarri sendoagoetan jarriko dute euskeraren bizia eta etorkizuna.

Euskaldun guztiak, mugaz alde batekoak eta bestekoak, elkaturik ari dira ekintza onetan. *Irurak-bat*, leenbizian *Laurak-Bat*, azkenez *Zazpiak-Bat* bihurtuko da. Joan den mendeko euskal-idazleek politikak jarrita dauzkan mugez gaineratik begirutzen ikasi zuten. Orain elkar obeki ezagutzen dute eta badakite nor berea ez duen euskera aintzat artzen. Emeretzigarren mendeko giroaren ezaugarri, or ditugu orduan egiten asi ziren euskera batetik besterako itzulpenak. Gipuzkeratik lapurdierarako itzulpena da sorta onetako liburu bat, Duvoisin andiak itzulia. Eta sorta osoak *Zazpiak-Bat-en* lempaean egiña ez ote dirudi?

Bada emen gipuzkeraz, napa-gipuzkeraz, lapurdieraz eta benabartarrez idatzitako liburutik. Leengo sortan bezala. Baiña oraingoan idazleen zerrenda ogeigarren menderaño luzatu da. Leengoan emeretzigarren mendean idatzitako idazlan utsez osotu zen bilduma. Oraingoak leengo mendean jaiok izan arren, lau sartu dira ogeigarren mendean, gurean, idatzi izan dutenatarik: Etxepare, Barbier, Barriola eta Orixe. Batzuen eta besteen aurkezpena egiten zaia gaitzen orain.

Guztietatik zaarrena Agustin Paskual Iturriaga dugu (1778-1851), euskal-alegileen artean goreneko maillatan ospe andia duena. Virgilioren latinezko egloga bat edo beste euskeratzen ere beste inork ezbezelako trebetasuna erakutsi zuen eta ez zaio itzultzailearen inolazko nekerik ageri. Euskerazko bertsoa berez berez dariola ematen du.

Ezaguna da Gipuzkoan egin zuen lan burutsua ere erri-eskola obeki oinarritzen eta aurrerabidean jartzen. Umeen ezikuntza alorrean aurrelari jardun zuen. Eskoletarako asmoz egiña du *Jolasak* liburua ere, elkar izketaz egiña eta 1842n argiratu zuena. Bonaparte Printzeak oso aukerakoa aurkitu zuen berak zerabilzkien asmotarako, alegia, beste iru euskalkitara itzulirik, bateko eta besteko euskalkien arteko bereizgarriak elkarren aurrean edukiz aztertzeke. Lau euskalkitako edizioa eragin zuen, Bizkaiko, Gipuzkoako, Lapurdiko eta Zuberoko euskalkitara, eta edizio onek beste bi izan ditu, gutxienez: *Euskal-Esnaleak* 1914n egiña, eta 1972 *La Gran Enciclopedia Vasca-k* ateratakoa. Euskal-Esnaleak titulua euskeraratu egin zion: *Jolasak*, oraingo onetan daramana.

Liburu onetan ageri du Iturriagak bere alderdietako bat, pedagogoarena. Euskalerriko eskola erdera utsean zebillen eta Iturriagak euskera-erderazkoa egin nai du, asteko. Ez du gaizki ikusten erderaeskoletan. Baiña Euskalerriko eskola-umeekerdera

idasi bear badute eta erdera jakitea on badute ere, ez dadila izan etxe-etxekoa duten euskeraren kaltetan. Iturriagak euskera-erderazko irakurgaiak prestatuko dizkie, bi izkuntzok bat bestearen aurrez aur irakurriz, bi izkuntzetara egin daitezzen. Era batera, gauza jakingarri askoren jabe aterako da aura eskolatik, batez ere baserri-giroan bizi dena. Iturriagak poliki daki elkarrizketak moldatzen. *Jolasak* euskera garbi errazean eta esaldi laburrekoetan idatziak daude. Ipuietako euskera jatorragoa ta errezagoa aurkituko dio euskaldun utsak. Jolas auetan bein Larramendiren Iztegira jo bearra gertatu zaiola ez du irakurleak aaztu bearko. *Errauli, ganbusia* eta olako batzuk ez ditu oraingo iztegitan aurkituko. Larramendi-Aizkibel-en iztegiak eman bearko dio argibidea. Beste itzultzaileek, bakoitzak bere aalegiña egin du oztopo au gainditzen. Jolas auen bitartez lau euskalkik, mugaz andiko eta emendikok, elkarrekin itza egiteko aukera izan dute.

Beste liburu bat ere, Duvoisinena (1810-1891), bada emen euskalkitik euskalkira itzulitakoa: *Liburu ederra*.

Euskal idazle oni Bonaparte Printzeak euskerara itzul-arazi eta argitaratu zion Biblia osoak eman dio osperik andiena, noski, gure literaturan. Literatura utsaren aldetik argi berritan jarri digute Duvoisinen omena aurten. Beronen idazlan bat, gaur arte nonbaiten galdua edo gordea egon dena, aurkitu eta argitara eman dute: *Baigorriko zazpi liliak*, zortzi erri-ipui bata besteari lotuz osatutako nobela tankerako lana, maitez eta txukun idatzitakoa.

Liburu ederra euskalkitik euskalkirakoa da, gipuzkeratik lapurdirara itzulia. Emeretzigarren mendean joera au ez zen gutxi zabaldu euskal idazleen artean, elkar ezagutzen eta besteen euskerari on eta eder irizten asi zirenean, lentxeago esan denez. Aita Añibarro bizkaitarrak Axular ospetsuaren *Geroko Gero* Bizkaiko euskerara itzultzen ekingo dio; Gregorio Arruek, ezin nekatuzko giputz idazleak, *Peru Abarka* eta *Baserritarren eskola*, Mogeldarren lanak biak, eta bizkaierazkoak, gipuzkerazko soiñekoz jantziko ditu, eta berdin egingo du naparrerazko *Jesusen Bihotzaren Debozioa* Mendiburenarekin.

Duvoisinek Kardaberaz giputzaren liburu bati ezarri dio begia: San Iñazoren ejerzizioetako bigarrenari. Ezin ederregoa iritzi dio, eta lapurtarrei mesede andi bat egin nai die liburu ori ango euskarara itzuliz. «Mende bat egon da, dio berak, guretzat ezagutu gabe». Duvoisinentzat liburu au Kardaberazek idatzi dituenetan «ororen artean agertzen da ederrenik». Ezagutu dueneko, Lapurdiko «euskarara» aldatu eta argiratuko du.

Eta itzuli ez ezik zenbait ikutu ere egin dizkio; orraztu eta garbiagotu egin du. Bataren eta bestearen textoa aurrez aur jarriko balira, laster ikusiko genuke itzultzailea Kardakeraz textoa lapurdieratzekoan arena baiño euskera garbiagoa egiten kezkatu dela. Gaztelako erderatiko itz askoren orde euskera garbiagokoak sartzen ditu. Duvoisin-ek Kardaberaz liburuari eder iritzi badio, liburuaren gaia aurkitu du ederren.

Erderatik euskerara itzulitako idazlan bat ere badugu emen sorta onetan: Marzelino Soroa donostiarraren (1848-1902) *Napar-euskaldunen joera*, 1885koa. Soroa, olerkari eta gaztelari euskeraz erderaz izan zena, euskal-literaturan gaurko euskal-teatroaren sortzailetzat egiten zaigu ezagunago. Berau izan zen 1882n euskalteatroa abiarazi zuena. Arrezkero ez zion antzerkigintzari uko egin. Joxemaritarren gogo

beteko antzerkiak asmatzen zituen. Antzerki alai pai-eragileen asmatzaile eta antolatzaille egin zen.

Euskaldunen onerako lan egin izan zuen, eta ez bakarrik umore ona eta alaitasuna zabalduz. Liburu au euskeratuz, beste lan bearrezkoagorik eta serioagorik ere egin nai du: diru-amesak egiñaraziz ainbat euskaldun Ameriketara joateko poztu nai zituztenen gezurrak salatu, edo salatzen zituztenen argiak zabalduz. Izan ere, gezur eta abar ari ziren, beste leku askotan bezala, «jende-arrapatzaileak», Ameriketarako euskal jendea biltzen, jendeari zakur-amesak eragiten. Amerika ez zen, inölaz ere, gezur-zabaltzaileek zioten urre-iturri.

Aspalditik aditzen zen Ameriketara bear ori euskaldunen buruetarik kentzeko deadarra. Abbadie jaunak 1853 etal857n sarituak dira onako bertsoak: *Montebideora juailiak* eta *Euskaldun baten auhenak Montebideon emanak*, Amerikara joandako euskaldun askoren ango bizi-eziña argitan jartzeko argitara emanak. Emen bizi-eziñak Ameriketara eraman eta an bizi-ezin beltzagoa aurkitzen zuten. Ameriketean ere zakurrak oin-utsetan eta ara zijozten zorion-amesak pikutara.

Colá eta Goiti gasteiztar idazlearena da Soroak euskerara itzuli duen liburua. Euskalerrriaren kaltetan sortu zen giroaren ondorioz, Ameriketara alde egin bearrean aurkitu zen gizona zen Colá eta Goiti jauna. Ara joanen egoera beltz negargarria ikusi eta sakon aztertu ondoren, Euskalerrira itzuli denean, bere azterketen ondorioa *La emigración vasco-navarra* liburuan azaldu du. Au da Marzelino Soroak euskaldunei emateko artu duen liburua, teatroan farra eragitea utzita.

Gai ezin egokiagoa eta garai artan bero bero zegoena. Soroak «gure izkuntza maitagarrira» ekarri nai izan du. Berak aitortu du ez duela euskeran maisu erakutsi nai bere burua. Ez duela euskera jator garbia egiteko amesik. Ori aitortu duenari ez dio ifiork txukuntasun geiegirik eskatuko. Berak ez du ori billatu, euskaldunen gogoak argitzea baizik, euskaldun askoren zorigaitza aldentzeko. Euskerari dagokionez ere, Donosti aldeko garai artako idazle batzuk erabiltzen zuten euskeraren lekuko txarra ez dugu Soroa, Larramendiren Iztegitik artzen zituzten kultismo guziekin. Soroa ez da olako kultismo geiegi dituen.

Michel Elizanburu (1826-1895), Salletarren artean Inozenzio Anaia deituraz ezagutuagoa da. Heletako seme au, ogeitabi urte zituela, Salletarrek Hazpamen zeukaten Ikastetxean zuzendari egin zuten, an zuzendari izateko euskaldun bat bear zela jabeturik. An emango zuen Elizanburuk bere bizia gutzia.

Euskeraz idazten noiz asi zen ez zaigu esaten; idatzi zituen liburuak argitaratu, beintzat, bere biziko azken urteetan egin zituen, 1889tik 1892ra: *Framazonak; Framazonak eta Frantziako hirur errepubliken ixtorioa; Johannes Batista dohatsuaren bizia eta Sakelako liburuzka*. Azkenengo biok Aita Arbelbide Misionistaren baimena dutela. Eleiz-kanta batzuen egile ere bada, baina ez ditu, norbaitek esan duenez, batere azken aipatu dugun liburuan eman. An ez du euskal-kantarik, bai latíñezkoak. Eta nabarmengarria idazle onena: ez du liburuetan bere izenik eman. Salletarrek legez omen zeukaten ori liburuak inñoren izenik gabe ateratzea; elkartearen izenean baizik ez.

Idazle au bere bizi guztian izan omen zen kondaira-liburuak irakurtzera oso grinatua eta emana. Batez ere, Frantzian azken urtetako politika eztabaidatzen zuten

liburuak. Ez du batere Errepublikak maite. Bizi-bizirik erakutsiko du ari dion ezin-ikusia bere liburuetan. Mutila dugu bera errepublikatar nausienen zapi zikinak eguzkitara ateratzen. Ez ditu, ez, errepublikatar guztiak lapur eta uzteltzat; baiña lapur, ustel eta edale guztiak errepublikano omen dira. Errepublikanorik onenak «fruitu itxuraz eder, bainan harrak yoak». Elizanburu au ez dago Frantziako errepublikarren politikari *amen* esateko. Ez du aientzat itz leun eta goxorik.

Gaiari bagagozkio, Elizanbururen ikuspegia ez da oso aintzat artzekoa; baiña, ezin uka garai artako politikari dion aier gaiztoak eta ezin ikusiak gazitasuntxoaren ematen diola idazlearen euskerari. Askok usteko du ez dela garuko irakurleentzat libururik egokia eta irakur zaletzekoena. Ez omen dago garuko labea olako opillentzat. Egia ote da gero? Ez ote gabiltza zakurrenak esaten geure iritziko edo politikako ez direnen aurka?

Arrese Beitia (1841-1906), Otxandioko semeak, orain eun urte Euskalerriko egunkari eta aldizkariak bere izenez betetzen zituela esan dezakegu. Elizondon 1879ko euskal-festetan bere *Ama Euskerari azken agurrak* saritu zizkionenez gero, euskal olerkaririk gorenaren maillan jarri zuten Euskalerrri guztian. Artean, Arrese Beitiaik baiño soñiu dardarazkoagorik ez omen zion beste iñork atera euskerazko bertsoari. Andik aurrera, Arrese Beitiairen olerki berriak noznai agertzen dira eta sariak sari irabazten ditu. Jainkoa, eriotza, Euskalerrria, Foruak, gure gizon andiak, erabiltzen ditu kantagai. Lirikazko kantak egin dute ospetsuen. Biotzondo andiko bertsoak dira, eta euskaldunek txunditurik entzuten zituzten. Unamuno bera atera zen bein olako bertso batzuk jendaurrean irakurtzera.

Baiña Arrese Beitiaik bere bertsoetan gai asko erabili ditu. Ez da liriko utsa. Egaztara apalagoko bertsoetan ere saiatu da; ipui eta bertsolarien maillako bertsoetan ere bai. Egilea bizi zela, bi tomo agertu ziran Otxandioko seme onen bertsoz orniturik. Leenengoa, mardulena, Kanpion andiaren sarrera zuela. Bi tomo auetatik kanpo gelditu dira oraindio, Sabino Arana il ondoren, Abandoko Arranoaren goratarrez atera zituen bi olerki.

Arrese Beitia bere garaiko semea da alde askotatik. Bere garaiko semea, Euskalerriko eskubide galduen eta euskerearen zapalketaren kantari negarti egiten denean, eta mendearen eta irakurketen seme, Zorrilla, Herrera, Valbuena ta olako olerkariak irakurri eta aien tankerak artzen saiatu delako. Ala, erdal-olerkari aien olerki itz-jariotsuak euskerara itzuli zituen. Maite du Arresek amasa luzeko orlerkiak idaztea. Maite du itz-jario luze eta beroko bertsoa, etorri andiko izlariaren antzerakoa. Mitxelena, orraitio, Arrese Beitiairen itz-jario ori askotan lege onekoa dela aitortu du.

Eusko-Ikaskuntzaren Oiñatiko Batzarrera arte, Arrese Beitia-ren ospea olerkari lirikotzat oso goi zegoen, Kanpion-ek jarri zion maillan. Oiñatiko batzarrean Mourlane Mitxelena asi zen orrenbesteko maila ori ukatzen otxandiarrari, beste gure arteko askori bezala.

Gipuzkeraz eta bizkaieraz idatzi du. Joskerazko akatsik aurkituko zaio bein baiño geiagotan. Au ere garaiko akatsa du, beste askok bezala. Gaiñerakoan, iñork ez dio ukatuko euskera jator eta ugariaren jabe dela. Euskera asko ikasten da Arrese Beitiairen bertsoetan. Lirikoetan baiño bestelakoetan geiago.

Abelino Barriola, Jean Etxepare, Barbier eta Orixerekin ogeigarren mendean

sartzen gara bete betean. Emeretzigarren mendean jaiok ditugu, baiña ogeigarrenean idatzia dute egin duten lan guztia.

Euskerazko antzerkiak, teatro lanak Barriolarekin (1885-1944), leenbiziko aldiz datoz Euskal Editoreen sorta onetara. Idazle onekin euskal-teatroa bide berriak urratzen asiko da. Artean baiña goragoko gaiak, gizarte berrien maillakoak, arrotzera joko du. Marzelino Soroak, *Anton Kaiku* erakutsi zuenez gero, urratsik asko eman zen aurrera. Baiña beti mailla berean, Joxemargarrek gogokoen zuten maillaren barruan. Abelino Barriolak aurrerakoiago eta mende berriei egokituago jarriko du. Leenengo egin duen lana idaztea da, antzerki berriak asmatu eta idaztea. Abelino Barriolak gizarteko arazo sakontxoak arrotzen ditu bere antzerki-lanetan. Donostiako teatroa joxemargarren girotik atera eta mundu zabalagora eta aize berrietara eramanaiez ari izan da.

Itzal aundiko gizona da bera eta Donostian eta Madrilen adiskide andiak ditu. Ez ditu ogeitamar urte egin eta 1914n Udalgizon egin dute Donostian eta udaletxetik egin du, ain zuzen, euskal-teatroaren aldeko lanik ederrena: *Donostiako Iztun-eskola* (Escuela de Declamación delakoa) sortu eta atzerki-idazleentzat sariketa obeak ipiñi, sarien pozean teatrorako idazle geiago sor dadin. Orrela berari zor zaio geien batean euskal-teatroarentzat egun obeak ekarte. Iztun-eskolatik antzelari gero ta eskolatua-goak aterako dira eta urtero teatro-lanen zerrenda ugalduz dijoo sariketara aurkezten diren idazle berrien emaitzekin. Teatroa ez da gelditzen eskola gabeko teatrozale borondatezkoen eskuetan.

Barriola eta Toribio Alzaga dira aldakuntza au ekarri dutenak, eta laster sortuko diren antzerki-talde eskolatuekin erriz erri eramango dute beren gogoberoa ta alaitasuna. Talde auen lagungarri, 1932n *Antzerki* aldizkaria sortu zen, euskerazko antzerkiak argitaratu eta ezaguarazteko. Barriolaren *Gai dagonaren indarra*, arrerarik onenetakoa izan zuena, an agertu zen. Azkenengo zenbakian Antonio Labaien-en *Iruñ seme* zetorren bertan, aldizkari artako 53-54 garrena. Gerrateak ixilduko zuen.

Abelino Barriola 1906n asi zan teatrorako idazten, eta gutxi batzu dauzka argitara emanak. Ongi etorri egin bearko diogu orain agertzen den sortatxoari. Gure teatroa gorago jasotzen lan egin zuenari zor zaio ainbesteko aitormenik.

Jean Barbier, Donibane Garaziko semea (1875-1931), euskeraz idazten sail asko landu dituen apaiza da: olerkari, antzerkigile, ipui idazle eta biltzaile. Azkenengo emezortzi urteak Senperen egin zituen erretore. Igandeko mezetan itzaldi luzeak entzun bear izaten zizkioten nonbait. Bein Erroman izan omen zen, senpertar bat lagun zuela, ango meza batean. Meza emailearen itzaldia luze samar omen zijoa eta ala esan dio erretorak senpertarrari. Eta senpertarrak erretorari: «Bai, jauna, bai, ala da; baiña senpertarrak egiñak gaude olako predikueta». Erretorak isilik irentsi omen zuen lagunaren zirtoa.

Zorionez, Barbieren itza ez zen senpertarren belarrietara mugatu. Liburutara aldaturik ez digu gutxi utzi. Liburu sail ederra du euskeraz egiña: *Ama Birjina Lurden*; *Supazter Txokoan*; *Piarres* (bi tomatoko nobela); *Ixtorio Mixterio*, Euskalerriko Alegiak (euskeraz eta frantzesez) eta *Antxitxarburuko buhamiak*, bera hil ondoren argitaratua, eta «lapurtarrez bezala benabartarrez, hoinbertze irakurgai: batzu, gogoen josteta, bertzeak bihotzen altxagarri» (Oxobi idazlearen itzak). Gainera «Nere kan-

tuak», 1910ko olerki liburua, eta ainbat erri-kanta, *Nehor ezizenpean Gure Herria* aldizkarian.

Supazter Txokoan liburuak Barbier-en idazlan askoren iturrira garamatza: etxebizitzara, etxeko supazterrera. Titulua 1910n argitara eman zuen «Nere kantuak» liburuo olerki batena da, liburu onetan ere azken azkenengo sartu duen olerkiarena:

Oi, neguko arratsak, supazter txokoan,
xixtuka ari dela haizea kanpoan!

An, supazterrean ikusi ditu etxeko jauna, aita, xixuketan, eskulantxoan bat egiten, ama kilua eskuan piru piru iruten eta aur txikiak amatxi onari lausenguka ixtorio pollitenaren eske.

Supazter txokoa da gure ipuien sorlekua. An sortu dira, an kontaktu, eta an gorde gizaldiz gizaldi, mendez mende. Supazter txokoan jaso ditu Barbier apaiz euskaldunak ainbat ixtorio, ainbat elezar, ainbat ipuin. Eta olako mordoa eskaini dio euskaldunari liburu onetan, supazterrear; entzundako edo entzuteko ipui edo nonbait gertatuko kontakizunez ornituan. Eta tartean, bost antzerki sartu ditu. Gure Herrian argitaratuak dira ia guztiak, ipui eta antzerki. Aldizkari berean, geroago antzerki bat eman zuen: «Haurrik ez...»

Orixek bein Jose Artetxeri aitortu omen zion Barbier euskal-idazlerik onenetakoa dugula. Eta «gogoen josteta, eta bihotzen altxagarri», izateko lanak idatzi zituen beti.

Jean Etxepare meriku idazleak (1877-1935), gure egunotan sekulako zoriona du; bere lan guztien biltzailea eta argitaratzeko prestatzailea agertu zaiola: Piarres Charritton euskaltzain berria. Bi tomo kalean daude. Beste guztiak ere laster agertuko al dira! Bizi zelarik argitaratuak zituen bi: *Buruzkak* eta *Beribilez*. Azkenengo au *Gure Herria-n* zatika emana, eta gero liburutan argitaratua. Aspaldi agortua baitzen, emen ematen zaigu bigarrenez.

Liburu onetan egileak beste sei lagunekin Euskalerrian zear egindako bidaldiaren berri ematen digu. Muga aldea igaro, Iruñe aldea ikusi, Loiolara iritxi eta Donostian zear berriz Lapurdira itzuli dira. Bidaldi onetan ikusitako bazterren, bideko jendeen, eta gauza ikusgarrien xeetasunez egindako liburua da. Itzulia beribilez bi automobilletan egin dute.

Oraintsuago, gure egunotan markinañar batek, bere andrea eta semetxoa lagun, itzuli luzeagoa egin du, Bizkaitik asi eta Araba, Napparroa, Zuberoa, Lapurdi eta Gipuzkoan zear berriro Bizkaira itzuliz; dena asto gaingan egin eta guztiaren berri emanez liburu atera du. Etxeparek eta lagunek lasaiago egin dute gure mendeko zaldi berriaren gaingan, automobiler.

Beribilez: Itz onek berak ematen digu Etxeparek darabilen euskeraren kakoa edo giltza. Etxepare garbizale agertzen zaigu. Ori Lapurdiko idazleen artean gauza bakantxoa da. Emeretzigarren mendean aurkitzen dugu bat, Jusef Egiategi, Larramendiren itzez josirik bere idazlanak idatzi zituena. Orain eun urte Larramendiren itzak itz garbi eta «kultotzat» erabiltzen ziren. Geroxeago beste joera berriagoa nausitu zen emen: itz berriagoak asmatu edo sortu eta erabiltzekoa. Etxepare joera berriago onetan sarturik ikusten dugu. Eta textoaren azpian jarri bearko du noizik bein itz

berriek zer esan nai duten. Gainera, euskera euskalki guztietako ondasunez aberastera egiten du, edozein euskalkitako itzak artuz berean jatorragorik aurkitzen ez duenean.

Lafitte idazleak esan zuen bein Etxepare askori zail iruditzen zitzaiela; eta ori arritzekoa ez dela dio, ezpaititu gaiak nolanaikoak erabiltzen, eta bai gutxi edo inork inoiz erabili gabekoak. Zailtasun ori gora beera, Etxepare gain gaineko idazletzat dauka.

Sorta onetako oraintsuengo idazlea Orixe dugu: Nikolas Ormaetxea. Orixeko semea (1888-1961). Jaio zen erriaren izenetik artu du *Orixe* ezizena.

Orixe-ren euskal-lanez esateko guztiak esanik daudela esan genezake: zer dugun aren alde, eta zer aren aurka. Eztabadakari izan zen bera eta eztabaidak sortu ditu bere inguruan. Baditu erdizka maite duten eta erdizka maite ez duten irakurleak. Orixeren zenbait lanek gaur ere arrera ona dute. *Santa Kruz Apaiza* eta *Tormes'ko itsumutilla*, esaterako, berriz argitaraturik ikus eta irakur ditzakegu. Aren poemen bilduma eta Euskaldunak, erdalitzulpenez eta guzti atera badira ere, lodi eta aztunegi-toxak ez ote diran esan genezake irakurle askorentzat.

Gaurko au, *Kiton Arrebarekin* izeneko au, liburutan atera gabea du gaur arte. Zenbatek irakurri ote dute? Tituluak berak diosku zer dugun: Orixe Amerikara joana bazuen arreba bat, bizkia, Kitoko serorategi batean. Frankoren mendetik alde egitea lortu eta Frantzian zenbait urte egin ondoren, Frantziatik Ameriketara jo zuenean, arreba orrengana joan eta arekin illa bete egin zuen. Orduan arreba orrekin izan zituen solas-aldiak, itz aspertuak, eman ditu liburuan. Zertako? Francoren mendean ikusi zituen ikusteko gorriak eralki eta Frantzian igaro zituen poz eta naigabe batzuen berri emateko.

Militarrek ekarri zuten gerrateaz Euskalerrira erori zen ondamendiak ez du izan agian luma gogorragorik Orixe-rena baiño. Laiño beltz izugarri baten antzean, infernua bera jautsi omen zen orduan Gipuzkoa aldera Nafarroa aldeko mendietatik. Gezurra, gorrotoa, ilketa, biraoa lagun zutela etorten ikusi ditu Orixeek. Biraorik andiena eta ikaragarriena, Espiritu Santuaren aurkakoa: Satanen lana Jainkoaren izenean, Gurutzea ikurrin artuta egin eta infernuaren lana Jainkoari ezartzea. Ebanjelioak dioenez, Jainkoak egiña deabruari ezartzea Ezpiritu Santuaren kontrako pekatua baldin bada, zer pekatu ez ote da francotarrek egiten zuten ori? Ori egin zuten bada, gerrate ura asi zutenek. Orixeek ikaratuta utzi du bere arreba serora esan dizkion izugarrikeriekin. «Ori eztek siñistekoa» diotso arrebak. Eta Orixe: «Ez den sinistekoa, baiña bai egia».

Anai-arreba biak, olaxe, itanoka diardute liburuan. Orixeek bere erria eta Iruñeko San Kristobal gaiñeko gaztelu presondegian ikusi du batez ere infernu ori. Birau utsean eraman omen zuten ara eta ura lasaialdia berea, oiartzuár gazte aingeru iduriko batzuen artera an eraman zutenean! Infernua ia zero biurtu zitzaion. Orixeek Euskerari, Euskalerrinari eta fedeari zion atxikimenaren lekuko argia da liburu au. Eta berton daukagu, gainera, Orixe Mistika-gaietan maisu trebe eginik.

Jakiña da Orixeek geien batez bere napar-euskera erabiltzen zuela. Eta bere arrebarekin, esan bearrik ez nongoa egingo zuen. Bizkaieraz, napar gipuzkeraz, lapurdieraz ere idatzi zuen, baina geienetan bere euskera eskola jakinik gabekoan. Euskera kontuan ez du izan eskola jakiñik ez joera tinkorik. Ala ere, askok eta askok

euskera gaietan maisutasuna aitortu izan diote. Askok eta askok aren idaz-lanetan aurkitu dute euskera landua eta jatorragoa egiteko eredia.

Askok egon dira luzetetsirik liburu onen zai noiz agertuko ote zen. Gaur eskura datorkie ain luzaro opa izan dutena. Askori, gainera Orixeren bizitzako aldi jakingarri bat argi berritan jarriko die.

Eta bukatu da oraingoan plazaratzen dizkiguten idazleen zerrenda (1). Ez da luzea; baiña, mendez, eun urte eta geiagoko bitartea betetzen du; eskualdez, berriz, Lapurditik Bizkairaiño eltzen da. Idazleotako bakoitzak bere aletxoak ekarri du gure literaturaren alorrera.

Emen da Iturriaga, zaarrena, Euskalerriko eskoletan euskerari eman bearrezko kezka, eskoletarako idatziko dituen irakurgai jakingarriekin, lagun biren arteko alkar izketa bizian; emen da Lapurdiko idazle bat, Duvoisin, euskalkiek elkarri eder irizten ikasi dutelako ezaugarri, gipuzkerazko liburu bati aitormen garbia egiten; emen ikusten dugu euskaldunak Ameriketara eraman bearrez askok egiten zuten gezuiTezko zabalkundea eta orri aurka egiteko sortu zen kezka eta ekintza bizia. Beste batek Frantziako Errepublikaren ixtoriora garamatza, errepublikanoen politika salatu eta farragarri edo arbuigarri egiteko. Emen entzungo dugu Ama Euskeraren kantariaren bertso beroa, Otxandioko olagizonen sutegetiatik irten berri balitz bezalako. Emen ikusiko ditugu gure mende onetako idazleak euskera gai berrietarako gaiago egin bearrez kezkatu, antzerkigintzan, ipuigintzan, eta gai sakonagoetan, mistikan eta, saioak egiten.

Sorta onek ikuspegi ohea emango digu gure literaturak emeretzigarren menderik ona eman dituen urratsak ezagutzeko, zer artu eta zer utzi duen ikusteko. Utzi, batez ere, Bidasoaz onuntzako literaturan Larramendiren kutsua utzi du. Orain eun urte *Euskalerria* aldizkariaren inguruan sortzen zena ere kutsadura orrek jota zebillen. Geroago ere agertu da kutsadurarik, garbizalekeriarena eta oraingo askoren edonondik edozer artu bearrarena. Gure inguruko edo barruko erdera eta erdalgaizto guztiak euskerara ekarriz ez dugu euskera euskerago ez Euskalerria euskaldunago egingo.

Eta zer artu? Gure aurretiko idazleak euskal-giro osasuntsuagoan bizi ziren, euskerak amasa garbiagoa artzen zuenekoan. Eta orduko idazleei beti darie inguruko euskera jatorragoaren tantatxoren bat. Oraingo euskal-aztertzaileek ere aien iturrira eta erriaren iturrira jotzen dute sustrai jatorrenen bila. Edozein euskaldunek, gure izkuntzaren ezagutze sakona lortu nai badu, obeki ikasi eta euskaldun argitua izan nai badu, ez die ez-ikusitako egin bearko gure idazle zaarrei. Ezagutu ditzagun eta, ezagutzeko, irakur ditzagun.

(1) Auxe da nik artu nuen zerrenda. Baiña argitaratzaileek beste iru idazle geiago sartu zituzten Sorta Berri onetan. Orra zergatik ez den idazle berrien aipamenik.

MAS ESCRITORES EUSKERICOS DEL DURANGUESADO*

El presente trabajo viene a completar la catalogación iniciada por J. San Martín sobre el tema, en el n.º 4-5

1. **Pablo de Astarloa.** Creo haber demostrado en mi artículo: «Astarloa, poeta», que Astarloa es más que un teórico del vascuence, es decir, escritor en euskera («Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País». 1965 págs. 95-100) (1).

2. **Agustín de Burgoa,** párroco que fue de Ochandiano. Publicó «Eusquerasco dotriñie Otsandijoaco». Bilbao, 1849. «Escolan lenao usetan san letrasco cartillatic ata, da gausa batsubetan barristaute». Vinson registra esta obra en el número 245 bis. Su lenguaje fue censurado por el P. Uriarte en su correspondencia con el Príncipe Bonaparte. El mismo autor previó ya las posibles censuras: «Campocuec topaucotses faltac erderasco termiñuetan, Ortografian, da beste gausa ascotan, baie uste dot ixildute gueratuco diriala dirautsenien, Errijen alan usetan diriala, da Cura Parrocuen obligaciñue dala, bere Feligresai, euren berba eite moduen doctriñie eracustie». Pero es posible que los términos que usa no fueran tan usuales en el pueblo y que el P. Uriarte tuviera su buena parte de razón al criticar al autor.

Los herederos de Arrese y Beitia poseen un ejemplar de este catecismo, que, según el Padre Uriarte, no se encuentra en nuestras bibliotecas públicas. Lo que ya no es tan verdad es lo que afirma el P. Ruiz de Larrínaga sobre que esta obra no se encuentra registrada en ninguna bibliografía. Esto no se puede afirmar de la de Vinson. También figura en el **Catálogo de obras éuskaras** de Sorarrain, con el número 645. La censura eclesiástica no autorizó su publicación.

3. **Fr. Juan Vicente de Jesús María** (1862-1943). Carmelita, hijo de Bérriz. Venerable misionero apostólico, cuyos restos descansan en la iglesia de los Padres

* Gerediaga (1967, II-12.zenb.) 4.
(1) Ik. 303-307. orr.

Carmelitas de San Sebastián. Muy joven y residiendo en Valencia, publicó en aquella capital levantina: «Carmen anaije edo cofradeetzaco Esculiburua», registrada también por Vinson, pero sin indicación de autor. El Padre J. I. de Arana, en sus apéndices a la obra de Henao sobre las antigüedades de Cantabria, lo cita como «el joven bizcaino Carmelita de Bériz Don **Juan Vicente de Zengotita**». Su obra está escrita en forma dialogada, «aita- seme biren jardunian». Del autor se han conservado, además, unos veinte sermones euskéricos de sus años juveniles, que han sido presentados en Roma para el proceso de su beatificación.

4. **D. Francisco de Beláustegui** (1869-1957). Autor de varios opúsculos de carácter religioso o de literatura amena, publicados por «Jaungoiko-Zale». Dejó a su muerte varias otras obritas en vascuence, y una en castellano (y traducida también al vascuence), bastante extensa, sobre la lengua primitiva, obra en la que deja pequeño a Astarloa en sutilezas.

5-6. **Mons. Zacarías de Vizcarra**, obispo (1879-1963), y su hermano, que aún vive, **Benito de Vizcarra**. Zacarías, que más tarde había de figurar fuera del País, como el creador incluso del término «hispanidad», escribió en su primera juventud una: «Cristiñaubaren jaquen bidia». En sus últimos años, como Obispo Consiliario de la Acción Católica, tuvo en su País algunas intervenciones públicas en euskera. Su hermano, capellán un tiempo del santuario de Urquiola, o por mejor decir, su Rector, ha escrito también algunas obritas de carácter antoniano con la historia de Urquiola.

7. **Don Dámaso María de Bernaola e Isusi** (1833-1909), presbítero, hijo de Durango, autor de «Pasiño santuaren contaera», versión al vizcaíno de una obra del P. Luis de la Palma. Según Dogson en su nota bibliográfica a la obra del P. Bartolomé de Santa Teresa (Madariaga), era nieto del posadero de Artecalle en Durango, que hospedó a Humboldt.

Andrés Iturzaeta, aparte de las obras mencionadas en GUEREDIAGA, tiene otra: «Icasbide cristiñaucorraren azalduera laburrac», Durango, 1899.

Los versos de los plateros de Durango se encuentran en el manuscrito de «Poesía bascongada», de los PP. Franciscanos de Bermeo, conforme al testimonio del P. Uriarte, manuscrito que actualmente debe de estar en poder del P. Villasante. Yo tengo otra copia procedente de Durango, y que sigue en la enumeración de los versos el mismo orden en que los cita don Antonio de Trueba, en su artículo de la Revista «Euskalerría».

Entre los que aún viven, reside en Eibar el Padre **Celestino Gorrochategui**, nacido en Bériz (1886), Carmelita. Hace unos sesenta años publicó su «Karmengo Amaren Lorategija», bien servido de neologismos con su traducción al pie.

En «Euskal-Esnalea» publicó algunos cuentos y trabajos hace sobre cuarenta años **Gregorio Ruiz de Ercilla**, que debía ser también durangués.

AITA BABAKI (1873-1914)*

Eunurte bat geiago degu aurten: Babaki Aita kaputxinoarena. Beronen izena eta idatzi zuen liburu bat, besterik gutxi jakin degu oraiñarte. Lafitte, Lapurdi aldeko euskal-literaturaren aztertzaile azkarrak, erotikago aztertu ditu Europako gerrateak eraman zigun idazle gazte orren bizia eta lana, nai aifia xeetasun emanetz. Lafitte apezari esker, urratsez urrats dakigu aren berri, seaskatik eriotzeraiño. Esaterako, gauza berria izan da guretzat, eta alde batetik atsegingarria, bere biziko urterik eder eta emaitsuenak Guipuzkoan eman zituela, Oiartzun'en.

Mendiondo'n, Lekhome'n etorri zan mundura, orain eun urte, 1873'ko abenduaren ogeian. Luka izan zuen bataio-izena; prailletakoa, berriz, Blas; Babaki Arranbide, goitizenak. Amairu urte zituela, galdu zuen ama, eta amazapi urtekin aita. Osaba batek artu zuen umezurtza, ildako gurasoen leen-semea. Onek bertatik entzun zuen prailletako deia. Praille izan nai du. Non? Leenengo atea Belok'en jo du, eta ez zaio iriki: Aita Bastres zanak ezetza eman dio; beneditar izateko ez dio gairik aiirkitu, eskola gutxiegi nonbait ere, eta urteetan aurreregi, gaiñera, ikasten asteko. Lekhondar gaztea ez da kikiltzen. Eragozpenak atzeratzekoa ez da.

Baiña, leenbizi, soldadutza egin bearko du. Iru urtez. Babakirentzat ez dira urte alperrak izango. Sarjento izateraiño iritxi da, eta eskola geiago ikasteko baliatu da gudaritegiko asti-orduez. Soldadutza bukatutakoan, leenean dago eta prailletako gogoaz ez du utzi. Soldadotegiko giroak ez du batere mundukoia egin. Asis'ko Frantziskoz berak idatzia gogoan artu dezagun: «Uste duzue San Frantses'entzat ere es zela liluragarri mundua? Uste duzue munduak ez ziola begitarte ederra egiten?... Baina zer egiten du? Atsegin, buraso ta ontasan: guziak azten ditu. Eta zertako? Bihotz guziaz, libertate osoan Jainkoaren zerbitzatzeko. Ba, libertate osoan. Egungo egunean aho guzietan dalibertatearen izena. Baina nor dalibertateaz ongi baliatzen?».

* El Diario Vasco 40 (1973, 12055.zenb.) Suplemento dominical, 11.

Asis'koaren erabakia da gure Babakirena ere. Ain zuzen, Baionan, soldadutzako egunetan, Asiskoaren semeen etxe bat ezagutu du, eta ara jo du oraingoan. Arrera ona egin diote. Anai, «lego» izateko atepak zabalik dauzka, beintzat, eta laster, nausien erabakiz, apez egiteko ere bai. Ogei ta sei urte ditu, kaputxino jantzi danean, 1899'n; urrengo urtean, leen-profesa egindo du, eta andik iru urtera, azkena, betikoa.

Bien bitartean aize beltzak sortu dira prailleentzat Frantzian. Askok a-tzerrietarako bidea artu bearko dute. Babaki ikaslea Española bial dute, Burgos-aldera. Emen, Burgos-en apeztko da, 1906'n: 33 urte ditu. Sasoi ederra edozein praille-lanetako. Bere errialderantza joaterik ez zuela-ta, noranai, mixiolari joateko prest dago bera; baiña nausiek leku oberik billatu diote: mugatik urbil. Oiartzun'en, Legarre'an, emen baizegoen kaputxino mordo bat, Frantzi'aldea utzi bear izan zuten ezker. Emendik urbil du bere errialdea, eta an bizitzerik ezpadu ere, ez ditu arako atepak guztiz itxirik, ez du eragozpenik ango elizetan mintzatzeko. Noiznai uzten du Legarre'ko gelatxoa, Baiona-aldeetik datozkion deiei erantzuteko. Urte gutxiren buruan ospe andia du, eta dana lanpeturik dabil, emen mixio eta an erretreta, itzaldiak egiten. Zer dute Babakiren itzaldiek? Gaia mamitsua eta fede-oiñarri onekoa, esaera argia, garbi eta goxoa euskera, sarkorra abotsa eta bame andiko gizonaren arnasa. Apez askok ez dute aren itzaldiak entzutea aski; berentzat nai dituzte, irakurtzeko, eta aita kaputxinoak kopia asko zabaltzen ditu. Olaxe zortzi urtez, 1914'ko urterarte.

Urte ontan argitara eman ditu 35 itzaldi, Irugarren Ordenako frantziskotarrentzat egiñak, beroein Erreglak nolako biziera eskatzen dien azalduz. Eta urte berean, Europako gerrateak kendu zigun frutu ederrak eman eta ederragoak eskaintzen zituen Aita kaputxino sutsua. Urte orretan Paris'ko gobernuak egindako deiari erantzunez, bereala agertu da Baionan. Gobernuak guztien laguntza nai du ordu Iarri aietan; artean arbuaiatuak, baztertuak, atzerrira beartuak jarri zituen; prailleen laguntza ere bai.

Bear bada, ez det ongi esan. Gobernuaren deiari baiño geiago, Aita Badakik bere biotzarenari erantzun dio. Bere erritarrak, batez ere euskaldunak, ez zituen laguntzarik gabe utzi nai. Berrogei eta bat garren urtean zebillen, eta eskubidea zeukan arma-otsetatik urruneko serbitzuetan sartzeko. Baiña bere errejimentuko euskaldunak apezik gabe zeudela jakin zueneko, ez zion biotzak agintzen aiek ola uztea eta aien lagun joateko baimena eskatu zuen. Astebete egin zuen, gutxi gora bera, guda-lekuan: azaroaren 20 inguruan ara iritxi, 26'n bonba batek jo ta zauritu, beste euskaldun biren aldemenen, eta 29'n il. Aldameneko euskaldunaren zauriek min eta ardura geiago eman zioten berak artu zituenak baiño. Esan omen zuen: «Naiago nuke Jaunak ni eramango banindu, euskaldun gaixo onek bost aur umezurtz eta alarguna utzi baiño leenago».

Aita Babaki beraren itz batzuk izango dira egokienak beronen bizitza eta eriotza argitzeko: «Egun oroz aditzen da zer nahi tzarkeria berri, zer nahi belzkeria egiten dela bazterretan. Eta nola da ihardesten? Mila arranguraz eta intzirinaz: horra guzia. Eta gero jendea lotzen da bere harathunat berari, badoa atsegin beretarat. Josteta beretan abusatzen da, ez du gutiango besta egiten. Ez du den gutienik galdatzen zer egin bear litakeen gauzen xuxentzeko, jendeen oneratzeko eta salbatzeko» ... «Lehen giristinoek Jainkoarentzat emaiten zuten beren bizia; oraiokoek eman behar dute beren arima beren haurrideen salbatzeko. Lehen giristinoek erakusten zuten Jainkoa maite

zutela, beren sinistean gogor egoiteagatik hilez; oraikoe behar dute frogatu Jainkoa maite dutela karitatearentzat beren bizia higatuz. Jainkoa maite denean, ez othe da orobat maitatzen haren iduria?».

Aita Babakik bere barnea salatu du or, bere arima utzi digu agerian. Orra Berak egin zuena. Itz ederrek ez zuten asetzen. Bera esale baiño egille zan geiago. Itzez eta egitez degu eredu. Or utzi digu bere euskal-itza, bere itzaldietan eta bere liburuan, Oiartzungo pakegiroan idatzitako liburuan, eta geiago ere utziko zigun, noski, luzaroago bizi izan balitz. Or utzi du bere bizia, ordu larrietan eta arriskurik andienetan bere euskaldunei laguntzeagatik emana. Itzez eta egitez, bietara bere arimaren erraiñurik ederrena utzi digu orain eun urte jaio zan Lekhome'ko seme jator eta aita kaputxino zintzo onek. Lekondarrek ez dute aaztu; ango illen artean bizirik dago Babaki onen izena. Baiña an bakarrik ez, ongi merezia du euskaldunen biotzetan, aurtan bereziki, eder-iritzizko aitormena.

ESCRITOR VASCO MUERTO EN LA BATALLA DE VERDUN: CLEMENTE DE ANDURAIN*

Estamos en el cincuenta aniversario de la muerte de un joven escritor, muerto el 6 de marzo de 1916 a consecuencia de las heridas recibidas tres o cuatro días antes. Había sido alcanzado en el histórico campo de batalla de Verdun por la metralla de un proyectil que le arrancó un ojo, le desfiguró la cara y le produjo otras heridas mortales. Trasladado a Nancy, falleció asistido en su agonía por el obispo del lugar, el cual honró también con su presencia sus funerales.

Dos grandes figuras de nuestras letras le dedicaron sendos artículos en la prensa del país: Julio de Urquijo en *El Pueblo Vasco* de San Sebastián, y el Padre Pierre Lhande en *Euzkadi* de Bilbao, el 21 de marzo y el 6 de abril del mismo año, respectivamente.

Era hermano del a la sazón propietario del histórico «Château de Maytie», en el que había nacido, en Mauleón. Por su segundo apellido, Maytie, pertenecía a esa ilustre familia que dio tres obispos a Oloron. Estudió las primeras letras en Mauleón bajo la dirección del Padre Pauret, que fue el educador de casi todo el clero de Zuberoa en su tiempo.

Urquijo lo presentaba como «joven y entusiasta vasco-francés, cuya constante alegría y proverbial «entrain» tanto contribuía a animar las reuniones de *Eskualzalen Biltzarra*, entidad de la que fue varios años secretario. Un año antes de la guerra había estado, acompañado de Georges Lacombe, en la ciudad de Gratz a visitar y conocer personalmente a Hugo Schuchardt, a quien tanto deben los estudios sobre el euskera.

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 23 (1967) 440-443; «L. de A.» izenpean.

Escribió en francés varias novelas y poemas. Entre éstos cita el Padre Lhande dos títulos *Euskaride* y *Maritxo*. El mismo Padre da cuenta de que, aun en plena guerra, no dio paz a su pluma y publicó durante varios meses una bulliciosa y alegre hoja para uso de sus compañeros de armas. Se había incorporado al ejército en cuanto estalló la contienda en su calidad de sargento.

Su vida literaria parece haberse inaugurado el año 1905, con una pastoral en vascuence, escrita en suletino en colaboración con su primo Justin Berterretxe de Mendite, párroco de Tardets, y con el seudónimo de Zubero. Su título es: *Uskaldunak Ibañetan*, trajería himn partetan. Salió de la imprenta de *Eskualdun hona*, y fue estrenada con éxito poco después.

De esta pastoral dice Albert Léon en su estudio histórico y crítico sobre una pastoral vasca, la de Helena de Constantinopla, que es «el primer paso, no muy feliz por cierto, dado muy recientemente por dos escritores suletinos de mérito intemándose por caminos ignorados por la pastoral tradicional, o más bien un intento novísimo para continuar aquella transformándola».

El que estas líneas escribe conserva una grata impresión de la primera lectura de esta pastoral hace una quincena de años. Y piensa que en ella vertió Andurain mucho de su alma, mucho de aquellos sentimientos e ideales que fue predicando y comunicando en las reuniones vasquistas en que actuaba, sentimientos e ideales como los que afloran en su obra cálidamente expresados:

*Ene pekoek maite naie,
ber Jinkoa dugu adoratzten;
eta ber Uskara mintzatzen;
oro gira alkharren anaie...*

*Uskara maitia, mintzaie zaharra,
bost mila urthe huntan aitek mintzatia;
uskara, hitan duk bethi gure indarra,
gure ohoria, gure izatia.
Hi gabe, nor leite mintzo Uskaldunez?
Hi gabe, zertako ginante Uskaldun?
Hi gabe, mundiak are bagirenez
etzakiken atzo, etzakiken egun.
Uskara maitia, amaren bulharrak
ezniareki gure zainer etnana.
Jo beza Jinkoaren beso azkarrak
hi eta bere ama ahatzten tiana...*

*Bandera maitia, hik deikuk Jainkoa
eta gure zuzenak orhiteratzten;
hire ikhustiak bozten dik gogoa
eta sorlekha maitheratzten...*

*Eskualdunen irrintzina,
deiadar luze samina,
aradaz arada badoa
zelhai-mendietan barna.
Entzun ordutik etsaiak
ikharazten tian arana!*

La batalla de Roncesvalles ha servido al autor para actualizar toda la causa del pueblo vasco. Pero sin olvidar esta causa general, Andurain sabe también que escribe para su pueblo de Zuberoa, la tierra de las pastorales, y he aquí cómo canta, por ejemplo, al arma de sus paisanos, la makhila:

*Adarrian deie Jinkoak idier
eman etsaiari buhurtzeko ahala;
zakhurrer hortzetan, hoiñetan zaldier.
Ziberotarrari eman du makhila.*

Muchas veces hubo de meditar en sus años de combatiente sobre sentimientos y verdades que fue exponiendo en boca de los personajes protagonistas de su pastoral. El pueblo vasco era amante de la paz. Pero no se arredra ante la guerra, cuando los enemigos le ponen ante esa opción obligada:

*Errok Frankoen errege handiari,
zer nahi geietan jinik izan dadin,
ala baketiar ala gerlakari,
batzarri hon bat badukiala bardin...*

*Aizo honareki
ehi da ontsa bizitzia;
aizo gaitzareki
ez daite izan bakia.*

A los cincuenta años de su muerte y setenta de habernos dado este fruto primerizo de su vocación literaria, dedicamos este recuerdo al que luchó y murió en un frente alejado del campo de batalla en que combatieron los legendarios héroes de Roncesvalles.

LIZARDI ETA LAUAXETA AZTERTZEKO*

Ez naiz leengoa. Nik baiño lenago beste batek ere salatu du norbaitzuen kritikatzeke kanore gabekeria. Irigarai jaunak arrazoi osoaz esan du norbaiten kritika egin edo lana aztertu nai duenak gaia ongi menderatua bear duala izan lenago. Eta gaiaren edo idazle baten lanaren jabe egitea oso gauza zaila egiten zaiela dirudi oraingo luma-langille batzuei, aztertu bear duten idazlea orain berrogei inguru urtekoa danean, batez ere. Ori gertatzen zaie, esaterako, Lizardi eta Lauaxeta ziranekin.

Iru idazlek atera dute saio-liburu bat Zarauzko olerkariari buruz. Bakoitzak bere ikuspegitik aztertu nai izan du olerkari aundia. Bakoitzak bere betaurrekoekin ikusi nai izan du Lizardi edo aren idaz-lana. Saio orren irakurleek nekez ezagutuko dute ongi benetako Lizardi, ezur eta mamizkoa. Aztertzaile jator batek aztergaitzat artu duan edozein gizon gure begietara urbillago ekarri bear digu, aren gogo-biotzak eta aren lana argiago eta bametikako ezagutarazi. Ori egiteko, betaurreko batzuk artzeak ez dio asko lagunduko aztertzaileari. Ez du berak garbi ikusiko ezer, ez besteei ongi ikusten lagunduko. Emango duten irudia itxuragabetua eta gezurrezkoa izango da, benetako gizonaren orde taket bat euskarri duen mozorro edo txorimaloren bat.

Batek baiño geiagok uste du jakintsu-usaieko itz bat edo beste erabilli ezker, beste gabe jakintsuen maillan dabiltzala, gauza aundien bat esan dutela; zerbait esan dutelakoan, ez dira jabetzen, jakintsu batek aspaldi esan zuenez, *bla-bla* utsean dabiltzala. Itzak, aien luman, gauzen estalgarri dira, ez argigarri.

Olakorik gertatu zaie oraingoan Lizardiren aztertzaileei, nere ustez. Beren buretan iltzeak bezela sartuta dauzkate, bai, itz batzuk, edo iritzi-miritzi batzuk, eta aiek aurretik dituztela edozeiñen bamera sartzeko gai dirala uste dute. Lizardiren bamera sartzeko, beste iñor baiño geiago. Utzi dezaiegun beren ustean.

* Goiz-Argi 16 (1975, 231. zenb.) 5; *Non-zer* izenpean, ik. x. orr.

Ez da ori txarrena. Txarragoa da Lizardi ez dutela erdizka baizik ezagutzen. Ez dute aren lan osoa irakurtzeko nekerik ere artu. Ez dute jakin ere Lizardiren bi olerki-liburu atera izan dirala. Bat besterik ez dute irakurri, *Biotz-begietan*, azkenengo argitaraldian, aren olerki-lan guztia or zegoelakoan, noski. Gutxiago jakin dute Lizardiren lanak sortu ziraneko giroa. Letek (au da lenengo aztertzailea) ez du jakin *Agur* olerkia poema luze baten puska dala (ez adiskide bati egindako olerkia), poema orren aztarnarik ere ez du artu. Beste batek (Zelaietak) Lizardiren Itz-lauzko lana aztertzen du; badu zentzuzko gauzarik, baiña aren *jerentetasuna ta* beste gai batzuk arrotzen ditueanean, itsumustuan dabil. Bi milloien kontua (bi milloi balitu nola eralkiko lituzken, alegia) eta euskal-egunerokoaren gaia badirudi Lizardiren buruan sortutako gaiak dirala uste duela. Eta ez; gai aukerak erabiltako gaiak izan ziran orduan. Euskal-egunkariarena ez zan Lizardiren buruak asmatua. Zarauzko beste idazle batek (Mendilautak) sartu zion Lizardiri. Bi milloien inguruan askok atera zuten euskal-ikastolen bearra eta egunkariarena. Eta ez da egia egunkariaren gai ori ez zala arrezkero arrotu. Arrotu bakarrik, ez; egunkaria sortu ere sortu zan. Zelaietak *Itz-lauz* liburuaren itzaurrea irakurri balu, jakin bear zuen orrenbeste.

Ala ere, aztertzaile aukerak, lenengoak eta bigarrenak beintzat, apaltsunez nonbait, beste batzuei ezarri nai diete beren ez-jakiña. Lizardik goresle asko omen du idazle ori irakurri ez duenik. Ikaragarriak ditugu gure kritiko jakintsuok. Farra egin naia ematen dute.

Orain atera berri da Lauaxetaren olerki-liburua. Lizardik baiño zori ohea izan duela esango nuke. Beñik bein, leen zituen bi liburuak eman dizkigute, eta beste olerki-mordo bat geiago ere bai. Baiña, ez idazle onen guztiak. Ez dezagun ukatu. Liburuan bertan ageri da Lauaxetak gertu zeukala beste liburu bat laster argitaratzeko. Egin al du inork alegiñik aren aztarnak billatzen? Liburu berean esaten zaigu *Jesusen Biotzaren Deia* aldizkarian asi zala idazten, izentzat bere bigarren abizena arturik. Zergatik ez dira emen jaso 1927-n argitaratu zituenak? Itzulpenik ere sartu da oraingo ontan, baiña asko gelditu dira sartu gabe. Verlaine, Baudelaire, Francis Jammes, Maeterlinck, Sully Prudhome, Bainville eta Verdaguer baten olerki-itzulpenak sartzea ez ote zuten merezi? Itz lau Jules Lemaitre, Andersen eta Goetheren lan batzuk ere euskerara itzuli zituen. Nongo linbotik itz egiñez, esan du Lete maisu-naiak orduko euskal-idazleak bildur zirala atzerriko idazleen artean nor maisu eta eredutzat zeukaten aitortzen? Askok ez du ikusi naiko nolako artobero usaia darion, edo zer aizekeriak jota dabillen.

Zori ohea izan du, nola nai ere, oraiñartean Lauaxetak. Eta zorionak ematen dizkiot Arostegi idazle berriari, aren olerkiei buruz egin duan azterketagatik. Irakurle askori, bear bada, zail samar egingo zaio Arostegi orren euskera. Baiña nola nai ere Lizardiren aztertzaileek baiño lan zabalago eta jakintsuagoa egin du, betaurreko txikitzaillerik edo illuntzaillerik erabili gabe.

Bai Lizardik eta bai Lauaxetak badute noski beste alderdirik aztergai. Esaterako, antzerkigille eta kritiko alderdia. Biak izan ziran antzerkigille, eta bai erderaz eta euskeraz idatzi zuten azterketa eta kritika-lanik ere. Lauaxetari buruz, esan bearko da ez degula bera ongi ezagutuko beste alderdi batzutatik aztertu gabe. Bat emen ikusi degu; erdal-literaturetan bide billa nora jo zuen agertu da. Beste alderdi bat izan

daiteke euskal-literaturari buruz zeukan ezagutza. Praille bedeinkatu baten ateraldia izan zan Villasantek esan zuena: Lauaxetak lengo gizaldiko Manterolaren Cancionero dalakoa ezagutu balu! Lauaxetak Manterola eta besterik ere asko ezagutzen zuen, bere idazlan bat baiño geiagotan erakutsi zuenez. Eta lanean ikusi zuan baten aitorez (oraindik bizi da bera), eskuartean zerabilen *Euskal-Erria* aldizkariaren arkibide bat egitea, argitaratzeko asmotan. Ez da Justo Garate bakarrik izan aldizkari orren garrantzia ikusi duena.

Lauaxetak bazekien maisu eta ereduak gure literaturan non billatu, iñongo praillek erakutsi gabe. Aintzat eduki zuen beste maisu bat bertsolaria zan. Bera zuzendari zegoen euskal-orrian dei bat egin zien bertsolariei beren bertsoak ara bialtzeko eta bai zar eta bai berri mordotxoa atera zuen egunkari aren orrietan. Berez beste antze-giro garaiago eta txukunzaleagoan bizi zala zirudien arren, aintzat zeuzkan, bai, erri xearen eta gure bertsolarien bideak eta joerak, maite zituen eta saiatu ere egin zen aien muiñaren jabe egiten. Atzerriko idazleen autatzeko sen ona, gure literatura zarraren alderako eta bertsolarienganako maitasuna ez dira alderdi txarrak euskal-idazle batentzat.

Lauaxeta eta Lizardiren lana ez da kritikalari kanore gabeko batzuek aztertzekoa. Aien buruak ez dira edozeiñen txapel-barruan sartzekoak. Ez orixe.

«LIZARDI» ETA «LAUAXETA» EZ DIRA SASIKUME-IZENAK

Istillutxo sortu da nere lantxo bat dala ta eztala (1). Izenik gabe azaltzen dan batek eta ezizenez edo izen-ordez izenpeturik datorren beste batek estu artu nai izan naute, nere lantxo ori, Lizardiri eta Lauaxetari buruzkoa, ezizenez izenpetu detalako.

Lenengoak, egia esan, ni baiño goragokorik ere jo nai duela dirudi, argitaldarian bat edo beste ere bai, eta sermoi gogorra egin du, piska bat serraoui-eskola zarrekoa, truraoui eta guztikoa. Bigarrenak, izenordedunak, bi aldiz eraso dio nere lanari. Bigarrenean dator bitxiena: aserretu egin omen naiz berak lenengoan idatzi duenagatik. Norbaitek ala esan omen dio. Bego lasai nere arbuiatzaillea. Edo oker esan diote edo oker aditu du. Nondik nora aserretu bear nuen nik? Parra, bai, egin nuen apur bat. Nik iñori ezer esan badiot, zera izan da: «Zenbat gara» orrialdea idazten duenak kanore gabeko ateraldiak izan dituela, txotxolokeriak besterik ez duela esan auzi ontan. Nik, zer esan funtzeskoagorik, kanorezkoagorik ez izatekotan, ez nuela txitik aterako, ixillik geldituko nintzela eta kito.

Zer esaten zuen lenbizi? Lizardiri buruz ateraberri dan liburu bat norbaitzuek ez zutela pozik artu. Norentzat esana dago ori? Batentzat ala askorentzat? «Tacito» taldekotzat edo *Cia* dalakotzat artu ote nau, bada? Beti *zenbat garaka* ari dan idazle au aurrean etsai asko ikustera edo iruditzaera oitua dago, dirudienez. Zer zion geiago? Nik jorratutako liburu ori sariketara batera biali eta sarituak izandako lanez osatua dala, beraz ez nolanaikoa. Eztu irakurri, nonbait, euskal-aldizkari bat baiño geiagotan oraintsu idatzia dana, alegia, sariketen izena gure artean ere gero ta txarrago gelditzen dala, maipurukoak nora, sariak ara dijoztela. Eta ain laster aaztu ote zaio berak, amen oraenka itz egiñez, asko eztala Bilboko sariketa bati buruz esana? Beste bi-

* Goiz-Argi 16 (1975, 237. zenb.) 5; *Non-zer* izenpean, ik. x. orr.

(1) Ik. 484-486. orr.

txikeritxo bat ere ikusten diot: «guka» ari dala: «Guk egin egiten dugu». Orra non egiten digun bere burua kritikaturako liburuaren egille. Noztik ona? Liburu aren egilletatik zeinik kendu edo ostu dio bere izena edo izen-ordea gure gaztelari sarituari? Garbitu beza auzi berri au aiekin.

Orra, bada, zenbait gauza parragarri, eta nere lanaren mamiari buruzko itzik ere ez. Eta beste esatekorik ez zuen ezkerro, parragarriak parragarri, lasai uzten ninduen ni. Ezizenez izenpetua dala esateak ez dio inoren lanari indarrrik ematen ez kentzen. Aurre-iritzien bat duenarengan izan ezik.

Idazle batengan zeri begiratu bear diogu lenen, izenari ala esanari? Nik esanari geiago begiratzen diot, izenari baiño. Beste batzuk bestelako jokabideadute, nonbait, gure bi idazleok bezela. Ni esaera zarrarekin nago: egia Platon baiño adiskideago. Nork zer dion geiago billatzen det, zer nork esan duen baiño. Irakurleari ere zer ajola dio nork zer izen duen edo zer aurpegi duen? Paperak ez digu aurpegirik erakusten, itzak baizik. Bestearen aurpegirik ikusi ezarren, elkar aditzeko gauza ezpagera, nik ez dakit zer joko darabilgun. Arrisku andian gaude: alderdikierietara, taldekerietara erortzeko arriskuan: gure alderdikoarentzat txaloak, legunkeriak, lepoko igurtzi bigunak; taldeko eztanarentzat arbuioak, asun-igurtziak eta jipoiak. Ori ezta zuzenbidea ez gizalegea.

Nik nere aletxoa ekarri nai izan det erdira egiari bide egiten laguntzeko. Nai duenak ikusi dezan, jakiña. Egian oiñarritu gabeko kritikarik ez degu bear. Eta ikusi nai duenarentzat gauza ageria da (eta au batek baiño geiagok salatu du), gure artean kritikalarri sartzen dala artarako begiak ezkel edo zear dituen bat baiño geiago. Ez egiaren maitez, ez alkartasunaren maitez.

Nik oraintsuko zearkerietako bat salatu det. «Lizardi» naiko erdizka ezagutzen duten batzuk atera dira plazara. Agerian dago ez dutela irakurri aren bigarren olerki-liburua. Irakurri balute, an aurkituko zuten *Maitea* poemaren aria, poema bukatugabea, eta aren laugarren *Yalkian*, kantuan, *Agur*, lenbiziko tomoan argitaratu zan «Agur» olerkia. Lizardiren aldiko giroa ezagun dute ez dutela ezagutzen, ezagutzeko alegin andirik egin ere ez. Asmatu, bai, nai izan dutena asmatu dute. Lizardiren *jerentetasuna* eta euskal-egunkariaren asmoetaz mintzatzean, eta abarretan, linboan daudela esan bear. Ortaz esan dituztenak pasagarri litezke, bear bada eskola-ume batengan, baiña plazara ateratzeko aztertzaille bati geixego eskatzen zaio.

Ain oiñarri makaleko lurraren gaiñean dabiltzalarik, nola ausartu dira besteei arrika asten, besteok «Lizardi» irakurri gabe gorensten dutela-ta? Arri ori aurtikitzaillearen buru-gaiñera itzultzen baldin bada, norena da errua? Nork nori egotzi bear dio obenik, berai baizik? Arrikadaren aurrean ixillik egon diranak ez dute inor salatzekorik; gutxiago, arrikada ori, bear bada, txaloz artzen dutenak. Noren alde atera dira, egiaren alde, ala beren Platontxuen alde? Sasikume-billa, bijoaz beste nonbaitera.

«Lauaxeta» zanari buruz, orain itz bat edo beste. Praille bedeinkatuarena irakurri zuen batek paper batzuk utzi ditu nere eskuetan, nik esandakoaren sendogarri, alegia, bedeinkatukeria dala Manterolaren kantutegia ez zuela ezagutu esatea. Paper auen

artean Lauaxetaren erderazko artikulua bat dator, erdera txukunean Unamunoren kutsu pizka batekin egiña.

Euskerazko poema batekin batera atera zan 1936-ko urtarrilaz Bilboko Luis-tarren aldizkarian; *Andre Mari euskal-literaturan* du gai. Ain zuzen Manterolaren *Cancionero* orren aipamena dakar eta aren tomoak goi ta be ezagutzen zituela erakusten du bertan. Lauaxetaren adiskide izan zan batek gorde ditu paperok eta berak dionez gure olerkari gaztea ez zan edozein Bilboko erdal-idazleen artean ere. ALEA (Asociación Libre de Ensayos Artísticos) taldekoa omen zan Lauaxeta eta talde ortan itzaldiak emana ere bai, bat Greziako teatroaz. Jose Migel Azaola (gero *Egan* sortu zanean aldizkari ontan idazten asi eta orain *Unesco-n* norbait dana) omen zuten eragille.

Lauaxetaren erdal-poesi bat edo beste azaldu dira orain atera berri dan liburuan. Azken orduetako egoera larrian idatziak dira. Geiago ere baditu. Gazterik galdu genuen olerkariaren azken-ordu aietako barnegiroaren eta gizontasunaren agergerri, emen jartzen ditut puska batzuk, oraindik argitaratu gabeak, borrarua gogoan zuela egiñak:

¡Hiere! Bajo tu látigo implacable,
débil acaso ante el dolor impío,
podrá flaquear el cuerpo deleznable,
pero jamás el pensamiento mío.
Más fuerte se alzará, más arrogante
mostrará al golpe del dolor sus galas;
el pensamiento es águila triunfante,
cuando sacude el huracán sus alas.
No me importa. ;Tu furia es impotente,
víctima del poder, sueño de un día.
Si todos ante ti doblan la frente,
yo siento orgullo en levantar la mía!

Bertso auen egillea gizonen artean gizon zan, noski, eta ez zan ur bedeinkatu utsez bizi. Ez-izenak ez du ez-gizon egin. Ez Lauaxeta, ez Lizardi. Ari ortako gizonen aurrean ez naiz lotsatuko, txapela kenduta, burua makurtzen. Olakoen artean, aldeak alde, lagunarte onean nago.

KANTA-KANTARIIL ZAN OLERKARIA*

(Lauaxeta)

Illaren borondatea

Urteak dira, ogei ta zazpi bat bai, praille karmeldar bat etorri jatala mesedetxo baten eske: Lauaxeta zanaren azken-olerki batzuk olerkariaren aitari eroan bear neutsazan. Naparra zan praillea, Lerin-go semea. Lotsa edo zan bera, erdalduna, eskaldun baten etxera agertzen. «Zuk egin zeinke mesede au —esan eustan—. Amairu urte badira, Urkiaga zanak, il-aurretan itxi eustazala, azkenengo gomutagarritzat bere etxekoai eroateko. Andik laster, neu be Ameriketara bialdu ninduen. Orain, barriro emendik nazanean, ez neuke geiago atzeratu gura illaren borondatea egitea».

Kopia bat

Oso gogotik egin neutsan praille ari eskatzen eustana. Laster ziren Lauaxetaren olerkiak bere aitaren eskuetan: bat erderaz (beste erderezko bat ordurako etxean euken), eta besteak euskeraz. Batek bakarrik eukan titulurik (Biotz Donea); besteak ain barik egozan.

Esan bearrik ez, ez nebazala Mungiaera eroan, neuk lenago guztien kopia atera barik.

Beste kopia oker batzuk

Orain amar urte, 1967-n. J. A. Etxebarria euskal-idazle ugariaren ardurapean, Lauaxetaren azken-olerkiokin liburutxo bat atera nai zala jakiñik, aurreratu nintzakien asmo orretan ebiltzazanai.

* Zer (1978, 7. zenb.) 8-9.

An zan nire eskutik igarotako olerkien kopia. Laster igarri neutsen, eskuz esku ibilliak naiko aldaturik egozala eta neure kopia eskiñi eta eroan neutsen. Olerki arek, urte berean asitako politikagirotan zarraparratsua zala-ta, ez eben argirik ikusi.

Geroago, oraintsu urten dabe argitara, olerkariaren beste olerki guztiekin batera, zoritxarrez aitatu dodazan utsekin, olerkariaren gogoia bein baiño geiagotan illun eta motel gelditzen dala.

Beste norbaitek be salatu ditu Lauaxetaren azken-olerkiotako aldakuntzok.

Olerkari utsa

Emen doaz argitasuntxook, ezetako balio badabe, Lauaxeta zanaren azurrak Gaizeiztik Mungiaira aldatzen dabezan egunotan.

Nik ez neban bere arpegia ezagutu. Baiña ezagutu ebanak esan dabenetik ateraten dot olerkari zala bera gogo ta biotz, eta olerkari bizi izan zala.

Gazterik ezagutu eban batek esan eban (Andima Ibiñagabeitiak):

«Lauaxeta olerkari jaio zala esango baneuke, eneuke bapere guzurrik esango. Poesia zan aren janaria, poesia aren arnasa... Ikusteko zan zelango joranez irakurtzen zituen eskuartera etorkiozan oIe²ki liburuak, naiz erdera batekoak naiz bestekoak».

Gerratean bertan, lagun batek ingelesezko olerki-liburu erosi barri bat irakurtzen aurkitu eban, bitartetik bitarterako asti-emongarri. Baiña irakurri bakarrik ez. Ibiñagabeitiak geiago be ikusi eutsan: «Alango indar berezi bat eukala olerti-era guztiak bereganatuteko, bere odol eta mami biurtuteko».

Euskal-olerkari

Ibiñagabeitiak berak diñoskunez, amazapi urte zituala, erdal-olerkariak irakurri ala, erderazko olerkiak asi ei zan ateraten. Ederrak baiño ederragoak ei ziran «Zergaitik eztozak euskeraz egiten?», itanduten deutso Ibiñagabeitiak.

Andik ordu betera agertu jakon bera euskerazko bat eskuetan ebala.

«Arrezkero, eztot esango —diñosku Ibiñagabeitiak— erderazkorik geiago idatzi ez ebanik, baiña euskerarekin lotu zan gorpuz eta arima betiko».

Euskerara ainbat erdal-olerkari itzuli zituen. Euskeraz eragin eutsen izen andiko olerkari askori: Baudelaire, Verlaine, Sully Prudomme eta abarri.

Baiña ez daigun uste gure literaturatxo ezagutzen ez ebanik ez aintzat ez eukanik, norbaitek asmatu eta beste askok, iñoren agotik dabiltzenak, esaten dabenez, arira etorri naiz ez etorri. Lafarga zanak sarritan ikusi eban gure liburu eta aldizkari zarrak arakatu eta irakurtzen. Eta *Euzkadi* egunerokoan bera euskal atalaren arduradun zala, bere eragitez, txitean pitean etozan erribertsoak, bertsolari zarrenak, alde guztietatik batuta.

«Ama Birjiña euskal-olerkarietan» gaitzat artuta, artikulu bat be idatzi eban erdal-aldizkari baten.

Asmo andi bat ekarren azken-urteetan gogoan. Ogei urtez, ogei liburu, olerti-era guztietakoak, aterateko asmoa artuta eukan.

«Arrats-beran» izan zan asmo orretan emon euskun lenengo liburua. Eta bigarrena be amaituta eukala dirudi. Eta andik bat «Yakintza» aldizkarian emon euskun. Non galdu ete dira besteak?

Eurotan erakutsi nai euskun bera gauza zala, edozein olerki-erako mamia be-regandu eta euskeraz aren antzerako olerkiak asmatzeko.

Olerkari il

Olerkari bizi izan zana olerkari il jakun. Lauaxetaren azken-olerkiak nire eskuetara ziranean, arriturik itxi ninduen. Argi barritan ikusten neban bera: olerkariago eta gizonago, gizonago eta olerkariago.

Olerkari utsa zanak ez eukan bere izatea azkenengo orduan galtzerik. Azkenengo orduak eta egunak olerkari lez bizi bear zituan.

Bere barruan ain maitez sortutako amesak ezin burutu eta danari betiko agur egin bearra, a zan a beretzat goitik berako arriabarra!

Ain gazterik il bear, eta zelan il be, gero! Ez gudari bulartsu legez, zuzentasunaren alde, erriaren alde, burmka gogorrean. Ez; geldi ta ixilpean, orma bat atzean dauala.

Au lotsaria! Baiña dana artzen dau kristiñau-kemenez, dana daroa gizontasunez.

Zoritxar andi orri aurrez aur begituten deutso eta dana eskintzen dau bere erriaren gomutaz, dana bere erriaren alde.

Eta bere barruko burruka au, eta ordu itzal aretan egiten dituen itxaropenezko amesak bertotan ustuten ditu.

Euskeraz eta erderaz agurra

Eta gaztetako urteetan lez, euskeraz eta erderaz diardu, erdeldunentzat erderaz, euskeraz euskaldunentzat, adiskideak be bietarikoak daukazan ezker. Adiskide bako txak artuko eban olerkariaren azken-gomutagarritzat bere bertsozko oparia.

Batzuk, irrizko bertsoak, esaterako bere bizarrari egindako erdal-sonettoa; besteak itzaltsuagoak, bere eta erriaren giroak eskatzen ebanari egokiozanak.

Bertso gogorrak, erderaz bere arerioentzat egin ebazanak.

Zapaldu dabela, betiko galdu dabela usteko dabe; baiña ez, gorputza bai ilgo dabe, baiña arimea, ez. Eta agertuko da egunen baten bake-eguna.

*Eta bake donea sortuko danean,
nire azur utsak besteenakin batu;
eresi gurenaz lagundu bidean
obi bakarra arte; baiña, arren, bukatu
oroigaiilluaren maitasun-itzala
Kristoren gurutzaz. Beragan ditxarot;
Jesusen fedea besterik eztaukot.*

Gizon, kristiñau euskaldun eta kantari il zan Lauaxeta. Orain, olerkariaren azur-
rrak Mungiako kampo santura, illerrira, eroandakoan, ez al dabe aren azken-naia
bete barik itxiko. Kristoren gurutzearen itzalak zainduko al dituz azurrok «Errien
Egun Aundira arte».

LAUAXETA EZ DA AIN ERDAL-BERTSOGILLE TXARRA *

Lauaxeta izan gendun idazlearentzat egun obeak argitzen asi dirala dirudi. Zorigaiztoko egun baltzetan gure literaturak ain gazterik galdu eban langille onen idazlanak bein eta barriro ikusten dabe argia. Eta ez bakarrik bertsozkoak, osteangoak be bai, eta azterketa sakontxo eta argigarriz omidurik. Gaur, Villasantek bere *Historia de la Literatura Vasca* liburuan emon eutsana baiño izen obea artzen dauala esan geinke. Gaur ezingo dau iñok esan Lauaxetak ez ebala euskal-literatura zarrrik ezagutzen. Gaur ez dau iñok eskubiderik idazle au gai orretan gixajotzat artzeko, Aita Villasantek egin eban lez, «ai, Manterolaren *Cancionero Basco* irakurri baleu!» edo antzeko eztenkadatxoak botata. Euskera barri ta ulergatxa daukala? Salakuntza onek be ez ete dau indar apur bat galdu?

Orain dala zazpi bat urte, irakasle batek bere eskolako gazteai *Arratsberan* liburutik olerki bat irakurri ei eutsen. Ikasleen artean bazan Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako semerik. Eta entzun eben olerkiaren ederraz eta indarraz arriturik, eskuetatik kendu nai ei eutsen liburua irakasleari. Eurai ez jaken egin, ez, ain ulergatx. Eta egunotan irakurri dogu oraingo gazte bati egin jakon itauna: ia euskerazko idazleen artean zeintzuk irakurten dituen gogozen. Eta gaztearen erantzuna: Lauaxetaren edo-ber irakurten dauala gogoz.

Lauaxetaren gaurkotasuna

Lauaxetaren gaurkotasunaren agergarri, ona azkenengo liburu bat, idazle onen olerki guztiekin jatorkuna. Egilleak, Jon Kortazar eta Miren Billelabeitia. Kortaza-

* Karmel 1986-1, 78-86.

rrek, ganera, inprentan sartuta ei dauko bere tesi-lana, Lauaxetaren olerkiak eta literatur-balioak aztertzen dituena.

Eta ez oneik bakarrik. Aita Santi Onaindia be opari bardiñagaz jatorku, Lauaxetaren olerkiekin bigarren argitaraldia eskintzen deuskula, orain amaika urte eskiñi euskuna baiño osoagoa. Ez da berau alperrik ibilli aurten ordu luzeak emoten, *Euzkadi* egunkaritik eta euskerazko aldizkarietatik Lauaxetak areitan zabaldu zituen bertsozko lan guztiak batzen, Lauaxetarenak berarenak eta erdal-izkuntzetatik euskeraratuak. Aita Onaindiak urte barruan lau liburu ateratea ez dau naikoa izan. Lan eta lan ebillen bosgarren au gabonetarako kalean ipinteko.

Ezin, ba, ukatu, Lauaxeta ezagutzeko era obeak izango ditugula gaur. Aren olerkien azterketa esku obetan dogula esan bear. Literatura-gaietan asko ikasia eta eskola onekoa zana errez autortzen dabe, munduko literaturarik andienen, antziñako ta oraingoan, Grezia, Erroma eta Europakoen ezagutzaille ona genduela, eta literatura bakotxari bere guna aurkitzen ekienetakoa, gaiñera. Orain badakigu zelango asmoak erabillezan berak literatura guztietako lora ta olerki-tankerak gurearen baratzera aldatzeko. Lauaxetaren galtzeaz etenda gelditu ziran aren asmo ta ames eder guztiak. Lauaxeta galtzea ezin kaltegarriagoa izan zala gure literaturarentzat orain ulertzen dogu ondoen.

Antza danez, asita egoan bera agertu zituen asmo batzuk egitera eroaten, eta agindu zituen lan batzuk burutzen. Bat edo beste agertu da. Ez ete zituen geiago egin? Noren eskuetara joan dira?

Geiagorik agertzen ez dan bitartean, lan ederra egiten dabe billatu alak billatu eta argitara emoten deuskuezanak. Lauaxeta obeto ezagutzeko, eta idazleari berea emoteko aukera ohea emoten deuskue. Aukera auxe eskiñi guraz dator oraingo argitaraldi barrien eta azterketa zeatzen asmoa. Baiña... baiña bat ikusten dot argitaraldi oneitan, ariñegi, arrapazka lez egiñak direala.

Utzez **beteriko argitaraldiak**

Utzez betarik agertzen jakuz Lauaxetaren olerkiak tamalez. Ez deuskuez asko olerkiak berak egin zituen moduan emoten. Lauaxetaren azken orduetako olerkietan, ilteko epaia gañean eukaneko orduetakoetan ikusten dogu ori geien.

Norena da errua? Eskuz esku ibillian, kopiaztailleak egindako utsena da, nire ustez, lenengo errua. Orain dala amazapi-amazortzi urte, Bilboko Verdes-ek eukazan Lauaxetaren azkenengo bertsoak norbaitek argitaratzeko asmotan bialduta. Beingoan irarkolan sartzeko asmotan ebiltzen, itzaurre bat edo bestez ornidurik. Euskerazkoak eta erderazkoak. Bat be ez euken Lauaxetaren eskuzko letradunik; kopiak, besterik ez. «Kontuz, —esan neutsan nik Verdes-i—. Emen kontu andi bako eskuren bat ibilli da, eta kopiok ez dauke utsik gitxi. Lauaxetaren olerki geienok neure eskuetatik eldu ziran olerkariaren aitaren eskuetara, eta neuk daukat andik zuzen egindako kopia bat. Zuen kopiak esku-ikutu barri bat bearko dabe».

Orduko asmoa asmo utsean gelditu zan, porrot egiñik, ETAKoen burrukea berotu eta *Estado de excepción* jarri ebenean. Nik ez dakit bildurrez, ala baimenik lortu eziñez. Lauaxetaren euskerazko azken-bertsoak nire eskutik igaro zireana lendik be

esanik daukat ZER aldizkarian idatzitako artikuluko baten 1977ko zezeilleko zenbakian (1). Aita Sabino napar-karmeldarrak ekarri eustazan niri olerkariaren aitari eroan nengiozan, 1950 garren urte inguruan. Aita Sabino Leringo semea zan, eta literato samarra, erderazko liburu batzuen idazlea. Lauaxeta Gazteiko karmeldarretan mflitarrak euki eben bitartean asi ziran bien arteko artu-emonak. Eta olerkariak praille napar orri itxi eutsazan bere azken orduetako euskal-poemak, al ebanean aitaren eskuetara bialtzeko. Aita Sabinok, Iruñeko eta Gazteizko prailleen nagusi izanak, berak be ez eban beingoan bete olerkariaren gogo. Andik lastertxo Chilera bialdu eben, eta andik itzuli zanean, 1950 inguruan, orduan etorri jatan bein Begoñara. Lauaxetaren paperakaz etorren. Bera erdaldun utsa izanik, lotsa zala Mungia Urkiagatarren etxera agertzen eta nik joan bear neban Esteban Urkiaga zanaren aitaren etxera semearen ilburukoa eroaten. Bat ez, besteak euskerazko bertsoak ziran. Batek bakarrik eroian titulorik: *Biotz Donea*. Beste guztiak, orain *Azken Oyuak* deritxen olerkiak, esaterako, izenik eta titulorik barik, sei zenbaki zituen: I, II, III, IV, V, VI, bederatziña bertsoetako sei estrofa, irugarrenetik laugarrenera puntotik ez komarik barik. Aita Sabinok ago betean goratzen eban Esteban Urkiaga, Lauaxeta. Aingeru baten arimaduntzat eukan, eta literatura gaietan oso aitu eta buru belarri sartutzat. Esan bearrrik ez, olerkari martiriaren paperak aitari eroan orduko, neu ez nintzala kopia atera barik gelditu.

Gauzok Zer aldizkarian, 1975-n orain zortzi urte esanda daukadaz (2). Eta orain barriro diñodaz Lauaxetaren olefkietan, kopiarik kopia, egin izan diran aldaketa batzut salateko. Bere bizian argitaratu zituen olerkietan be, argitaldi batetik bestera, jazo leitekez utsen batzuk edo beste: baiña gerokoetan, ugariago ikusten ditugu.

Aita Santik 1974n argitaratu zituen Lauaxetaren olerkietan, asken ordukoetan, agertu zan utsik, itzen bat galdu edo besteren bat oker ipiñi, eta olakorik. *Gaiak* aldizkariak argitaratutakoetan, uts batzuk zuzendu ziran baiña bai beste batzuk egin be. Euskerazko aldizkariaren ezin bestea edo alanbearra dala dirudi.

EREIN-en edizioko uts batzuk

Aita Onaindiak inprentan daukanagaz ez dakit zer jazoko dan, baiña, Jon Kortazar-ek eta emon deuskuen edizioan ez dogu utsik gitxi aurkitzen. Lauaxetaren bertsoetan batzuk, eta beste batzuk, bertsoen argigarri, azpian datozen oar ugarietan. Lauaxetaren itzak oker ulertuz eta abar.

Ona, esaterako, *Azken Oyua* olerkiaren azpiko oarretako uts batzuk. *Bearren naunean*: or *bearren* ori ez da *bearko*, ez *bear izango-ren* ordezkoa: *geien bear nauanean* esan gura dau. *Naizla* ezer izatekotan *naizala*-ren laburpena izango litzake. Lauaxetarena, jatorra, *naiala* edo *naiela* da. Oarra egin dauanak euskera batura ondo itzuli dau: *nazala*. Txarto irakurri eta ondo ulertuarena da emengo pekatua. *Leyartu*

(1) Ik. 490.493. orr.

(2) Ik. 490-493. orr.

ez da *sikatu*, ez lehortu ez antzekorik. Laiñoa ez dakigu zelan sikatu daiteken. Kristalaren antzak artu esan gure dau. *Bediz* ez da beste euskalkietako *bitza*, *beitez* edo *bitez* baiño. *Zagiz* ez da *zaitez-en* ordezkoa, bezaitza edo *zaitzala-rsna*. baiño. Atzindu eta astindu be ez dira bat. Beste batzuetan datorren *ezabatu*, besterik ez da. Olerki baten azpian jartzeko naikoa dira. Eta beste olerkietako bi aitatzeko, *nekosta* ez da *nekotza* ez negu otza, erderazko *Cipres* baiño. Eta *auts zia-k* ez dau puntarekin zer ikusirik. Arratialedean esaten dogun *auts zea-gaz* baiño. Ez dakigu *autsak* non euki leiken puntarik.

Onango utsen errua nori botako deusagu? Irarkolako langilleai ez, aurki. Olango utsak egitea ez da itzen bat jatea, edo oker idaztea, inprentako lanetan jazo oi dana. Ori olerkiak inprentarako gertau edo ara eroan dituanaren utsa da.

Erderazko berísoeíako uís andiak

Bear bada, luzeegi nabil idazten asi nazanean buruan nerabillan aritik kanpo. Ez zan nire asmoa oraingo argitaldiko testoaren utsak salatzea. Erderazko poemetan Lauaxetari ezarri dautsoezan utsak erakutsi nai nituen. Erderazko testoak zuzen irakurri eta oker andi barik emotea errezago egiten jake gure inprentetako langillerik geienai. Baiña Lauaxetaren testoak oker emotean ez da eurena izan errua. Txarto irakurri eta txarto kopiatu dituezan ez-jakiña ta baldarkeria ikusten ditut nik or. Eurak izan baldarrak eta baldarkeri ori olerkariari ezarten dautsoe.

EREIN-en edizio onek Lauaxetaren poema bi emon deuskuz gaur arte iñoz argitaratu bakotzat; bat euskerazkoa, eta erderazkoa bestea. Euskerazko ori ez da ineditoa, ez da oraiñarte argirik ikusi bakoa. ZER aldizkarian orain zortzi urte Aita Onaindiak argitaratua da; eta Muniategui olerkariaren eskutik artuta. Oi direan inprentako uts eta guzti argitaratua, ori bai, baiña ez zan ez ezaguna. Ain zuzen, ZER aldizkaritik fotokopiatua 1974ko argitaldian sartuta daukat nik.

Erderazkoaren kopia be badaukat, olerkariak bere argazki ta guzti Zubillaga jaunari bialdua, bertan esaten danez. EREIN-ekoak nik baiño zori ohea izan dabe. Lauaxetak berak bere eskuz idatzirikoaren jabe izan dira, eta PAMIELA aldizkarian ezagerazo deuske, fotokopia ondoan dauala. Eta au arritzekoa! Ez dabe ondo irakurten jakin. Eta aldizkari orretan emon deutsoen irakurkera bera emon deutsoe liburuan. Irakurkera okerra. Baiña Lauaxetak ez ekien bertso ain baldarrrik egiten; txukuntasun geitxoago erabilten eban orretan.

Itxi daigun alde batera soneto orri buruztat ezarrita dagoan erdal-esaera: «El hombre bien barbado y bien acreditado». Azkenengo itz au nekez irakurriko dogu Lauaxetaren eskuzko kopian. Nik daukadan makiñazko kopian ez dabe argitu itz ori. Azkenengo silaba biak *-nado* ditu, eta ez *-tado*, alan nai olan be. Itxi daigun amairugarren bertso *pasa*, PAMIELAN *pasa* eta liburuan *posa* dana irar-utsa izan daiteke. Baiña lenengo bertsoa emon deuskuen moduan emoteko ez dago eskubiderik:

«Esta barba cubrió león su maraña».

Zer da hori? Eta olantxe agertu da bai *Pamielan* eta bai liburuan. Ain gauza gatxa ete zan zuzen eta ondo irakurtea? Nire kopiakoak, beintzat, ez dau or utsik egin:

«Esta barba cubrió con su maraña
mi rostro de perfil en calma plena»

Con irakurri bearrean *león* irakurri deuskue EREIN-ekoak, eta ez dabe or okerrik aurkitu eta lasai gelditu jakuz.

Beste uts bat egin deuskue, aldizkarian eta liburuan, bietan, sonetoaren azpiko erdal esaera kopiatzean: «Amigo Carlos: el demonio mando no tiene». Ori irakurkeran, sikologoren bat asi leiteke buruari eragiten ia zer esan nai izan ete dauen olerkariak itz orreikaz, eta bear bada, Lauaxetaren siñiskeriren bat or aurkitzen edo ikusten ez ete dan. Baiña ez dedilla iñor kezkatu. Erdal esaera ezagun baten asierea da: El demonio, cuando no tiene...(qué hacer, en algo se ha de entretener). Lauaxetaren golgadi ona, umore ona besterik ez daigun billatu or.

Beste erderazko olerki bat *Plegaria prostrera* titulutzat daukana da. Aita-Onaindiaren argitaraldian eta gero *Gaiak* aldizkarian, zuzen eta uts barik etorren. Kortazarren edizio onetan irugarren eta laugarren bertsoetan itaun-markak oker doaz:

<Qué mieles en flor manan la dulzura?
^Cómo tus labios al besar mi pena?

Itxurarik ez daben bertsoak dira olan. Onelan izan bear eben:

l,Qué mieles en flor manan la dulzura
como tus labios al besar mi pena?

Agiri danez, bertso oso ezbardiñak dira. Eta lorrinkeri geiegi da bertso bitan sartzeko.

Orraitio, amabigarren bertsoa Onaindiaren edizioan lez itxi dabe, ez deuskue aldatu: *Así mi llanto se transforma en gracia?* Baiña zetara dator azkenean jarri deutson oarra: au da, argitaratzaileak daukan kopian beste onetara datorrela:

Por eso mi llanto se convierte en gracia

Bertso onek ez eban aitamenik merezi. Eta ezin dot siñistu Jon Kortazarrek eta Miren Billelabeitiak besteagaz bardintzat artzen dabenik. Bardintzat artu leikez biak kopiatzaille txar batek, edo erdal bertsoen legeetan ez-jakiña dan batek, baiña orretan eskoladun dan batek ez. Erdal-bertsoen legeak ondo ekiazan Lauaxetak eta ondo betetan zituen, neurrian eta azentoetan. Emen kopiatzaille baldarrak amaika silabadun bertsoari silaba bat geiago ezarri deutso eta azentuak anka z gora gelditu dira. Bertso ori ez da Lauaxetarena. Zetako aitatu? Kanpoan gelditu bear eban.-Kopiatzailleak geiago egin dau: *así çX&por eso, se transforma eta se convierte* bardindu, bata irakurri

eta bere burutik bestea bere kopiaratu. Or agiri da, or ikusten dogu eskola eta ardura gitxiko eskuak ibilli dirala gure olerkiaren bertsoak kopiatzen.

Goazen orain irugarren erdal-olerkera, *Yo llevo* titulutzat ipiñi deutoenera.

Eta lenengo ta bein, argitaratzaileak zer dala-ta esan bear izan deuskue poema orrek Hernández poeta gaztelarraren oiartzunak dituela? Andia da, orraitio, Lauaxetaren kritikalari batzuen eragona: len, ez jakiña genduala, Manterolaren *Cancionero Basco* be ez ebalaz ezagutzen; gero, gixajoa, atzerrietako olerkariak irakurten bildur zala edo; orain, ez-jakiñaren guzurrari eutsi ezin deutoenean, ia danean kanpoko literaturen antz-emoille ta oiartzun egin nai deuskue. Baiña *Yo llevo* olerki onetan nondik nora Hernández erdaldunaren oiartzun Lauaxeta? Anakronismo garbia deritxot orri. Lauaxeta bestea baiño bost urte zaaragoa dogu eta 1937n illa, su-izkilluz emondako eriotzaz. Hernández orrek andik bi urte geroago arte ez eban espetxeko illunperik ezagutu. Eriotzea parkatu egin eutsoen eta 1942n geixoz il zan. Nondik nora eta zetan izan bear eban Lauaxetaren poema orrek Hernández-en oiartzunik?

Baiña goazen arira. EREIN-ek emon deuskun testoa Aita Onaindiak *Gaiak* aldizkarian emona bera da, eta uts bardiñekin. Bata eta bestea kopiatu beretik ibilli dirala dirudi. *El golpe del dolor* idatzi deuskue *al golpe del dolor* emon bearrean. Eta gero ez dabe jakin azkenengo bertsoaren utsa ikusten. Borreruari zuzenduriko itzok dira eta onela irakurri dituez:

v

«Si todos ante ti doblan la frente,
yo siento orgullo de levantar la mía».

Para satisfacción de los exigentes en pedir el dato confirmatorio, aunque por paradoja sean fáciles en doblegarse ante los fantasmas de su propia imaginación (que por la muestra no faltan entre nosotros), voy a presentar algunos de los lugares en que Azkue emite esos juicios de valor sobre la obra en cuestión, que no hay que ir a buscarlos en los índices de su *Morfología vasca*, que al parecer es la única fuente a donde han ido a buscarlos algunos.

Sea el primero el calificativo de «lan irakurgarria» que le da en un trabajo que lleva por título: «Bai aditz irabiatu aurrean», aparecido en *Euskera* (III, 1922, p. 64-79). En la página 75 leemos: «Arrasate'ko (Mondragoiko) eskribau orain berreun urte izan zan Pedro Ignacio Barrutiak *Gabon Gaberako Ikuskizun* bat idatzi eban, «acto para la noche buena». Beren eskutiko itzez agertu eban Euskalzalek 1898-garren (sic) urtean lan irakurgarri au». El calificativo de «irakurgarria» significa y está diciendo que para Azkue la obra de Barrutia es «interesante, digna de leerse».

El calificativo de «curiosa», aplicada a la obra en general y a alguna estrofa en particular, se puede leer, por ejemplo, en *Euskalerriaren Yakintza* (t. I, p.125), y en el cuerpo de *laMorfología*, no en sus índices, p. 741 («curiosa pieza de escena»). Cualquier significación que este adjetivo «curioso» pueda tener en nuestro caso, está claro que Azkue no consideraba a la obrita estéticamente de ningún valor, sino que halló verdaderamente gracia ante él, y nos invitaba a leerla, a conocer personalmente esas mismas curiosidades o novedades técnicas que algunos pretenden ser los primeros en haberlas descubierto.

El tercer calificativo con el que Azkue distingue la obrita teatral de Barrutia es aun más expresivo. «Linda composición arrancada del pueblo» le llama, calificativo este compartido por una canción de danza, recogida en Gabika (Vizcaya). Podemos leerlo en el *Gipuzkera osotua*, trabajo publicado por su autor en *Euskera*, años 1934-35, y luego en edición separada, en su página 134, donde, a propósito de unas flexiones verbales singulares, dice: «Sólo he conseguido dar con su existencia en dos lindas producciones arrancadas del pueblo, que son: *Gabon gaberako ikuskizuna* o «Acto para la noche buena» del escribano mondragonés Barrutia, publicado en *Euskalzale* a fines del año 1897; y la canción de danza, linda, aunque larguísima, mezcla de los dialectos B y G, que empieza con estas palabras: *Ardaoakparau gaitu kantari*», canción en la que no escasean, por cierto, los barbarismos, lo que no ha sido obstáculo para que Azkue le tribute los elogios que hemos visto.

Creo que Azkue, sin haberse puesto a tratar de propósito sobre este punto, no ha dejado sin recoger en sus expresiones nada de cuanto de válido y substancial hay en lo que han dicho los que han tratado expofeso sobre lo mismo. Ha visto en el *Acto para la noche buena* una pieza de escena digna de leerse, interesante y curiosa por su técnica, una obrita linda; pero, antes que nadie, ha visto en ella, con certero instinto, la entraña del alma popular. Tiene, en efecto, trozos que parecen arrancados y tomados de piezas de literatura popular navideña.

^Como ha podido ser tomado en serio y escuchado quien ha dicho esas extravagancias e incongruencias de fondo y de forma que manchan las páginas de *Euskera* (año 1959, p. 139 ss.) y, arrogándose la autoridad de extender patentes de buen o mal gusto artístico, ignorando cuanto hemos expuesto, se ha lanzado a esos ataques insistentes contra Azkue, acusándole hasta de ser el causante y culpable de que no se haya hecho justicia a los méritos artísticos de la obra de Barrutia? Porque de valoración positiva de la obra en cuestión hay poca en el desafortunado trabajo de Aresti. Prescídase de la descripción que hace de cómo se desarrolla la acción de la obrita teatral, que no es especialmente primorosa, y como juicio de valor sobre ella queda muy poco. Porque decir que en tal personaje tenemos un arlequín vasco (*euskaldun arlekiñá*), o que tal otro trozo nos recuerda un «tobera mustra» vasco-francés, o que tal verso es fino, es decir bien poco. Y afirmar que tal otro pasaje no tiene par en la literatura universal, es decir demasiado, que es como no decir nada. Y proclamar entusiasmo a Barrutia como grande, como «nuestro príncipe, que ha estado durante tanto tiempo en estrecho castillo», podría pasar por apóstrofe extemporáneo y barato, si en él no estuviera contenida la especie tan absurda y descabellada, que está resonando en las líneas contiguas, de ser Azkue el carcelero que mantenía en su encierro al gran príncipe ignorado.

Y, gracias a Azkue, el tal príncipe, aunque despojado de alguna de sus prendas más chillonas y trajeado más a la moderna, aún pudo hacer, con la colaboración de un duende astuto, una salida triunfal, ganando batallas, como el famoso héroe, después de muerto. Me refiero al premio otorgado en un concurso de obras teatrales a la de Barrutia, con los trozos castellanos traducidos y limpia de barbarismos y de alguna otra nota chillona que contiene, premio ganado dos o tres años antes del descubrimiento de Aresti.

Bien les estaría a los responsables de la revista *Euskera* un gesto de justicia histórica, rectificando conceptos tan injustos como injuriosos contra Azkue, que nunca debieran haber tenido acogida en sus páginas. El que esto escribe, ya antes de su aparición, hizo alguna gestión para que no se publicasen tal como habían sido leídos en su día, o al menos sin alguna satisfacción y rectificación. Una revista seria no puede y no tiene por qué admitir todo lo que registra un magnetófono. No se me hizo caso. Hice un nuevo intento después, ofreciéndome a aclarar algunos puntos. Me contestaron que no era cosa de dar lugar en la revista a discusiones y polémicas.

No quiero calificar este criterio, que es bastante corriente en algunas publicaciones nuestras, pero que es a todas luces inadmisible en la forma que algunos lo entienden y practican. Con tal criterio, el insulto entra por la puerta grande, y no hay lugar a un réplica razonada. Al primer atacante le ampara la ley de la ventaja.

Bién sé que este criterio no se admite en principio, pero puede imperar en la práctica, e impera, por ignorancia. Se ignora el fondo de error que hay en el ataque, y no se es capaz de juzgar y de ver la razón que asiste al replicante. Y es muy cómodo calificar la acción de éste de polémica, y encastillarse así en un falso pacifismo, hijo y paliativo de la ignorancia y de la incapacidad para opinar y discernir.

Se nos anuncia algún nuevo trabajo sobre el mismo tema y por el mismo autor y en la misma revista. Pues bien, creo y repito que esa revista no debe tocar tal tema, sin antes ofrecernos alguna rectificación y dar la debida satisfacción por las especies incalificables vertidas en sus páginas contra el que con escritos tan meritorios la honró y fue Presidente vitalicio de la Academia de la Lengua Vasca, don Resurreccion María de Azkue.

Me es muy penoso expresarme así, pero es un deber de caridad y de justicia: de caridad para el equivocado, y de justicia para la memoria respetable del atacado.

CON UNAMUNO, FUERON CINCO LOS CONCURSANTES A LA CATEDRA DE VASCUENCE QUE SE ADJUDICO A AZKUE *

Entre los *lapsus calami* que se deslizaron en *Dos notas autobiográficas de R. María de Azkue, comentadas* (1), artículo aparecido en este BOLETIN, 1965, cuaderno 1.º, hay uno que ha dado lugar a deducciones no muy correctas. El *lapsus* consistió en la omisión de un nombre en la lista de los concursantes a la cátedra de Euskera en el Instituto Provincial de Bilbao en 1888.

En efecto, se lee en dicho artículo: «El plazo de presentación de solicitudes expiraba el 31 de marzo. Para esa fecha hay cuatro solicitudes, firmadas por don Resurrección María de Azkue, don Pedro de Alberdi y Miguel de Unamuno». Como puede verse, para completar el número de cuatro falta un nombre. Se trata, evidentemente, de un mero *lapsus calami*, de pura omisión material, que el mismo artículo ayuda a subsanar. El nombre que ahí falta es el de don Sabino de Arana, que figura ya en la nota biográfica de Azkue que allí se copia, y también cuando se hace constar su eliminación del concurso tras el informe del secretario de la Diputación Provincial sobre los méritos de los concursantes.

Viene esta aclaración a propósito de las tres listas de concursantes en aquella ocasión que, según diversas fuentes, ha presentado Martín de Ugalde en su concienzudo ensayo (o contraensayo, como él lo llama): *Unamuno y el Vascuence* (Ekin, Buenos Aires, 1966).

En la lista que Ugalde presenta como basada en los «datos oficiales» dados a conocer en el citado artículo, no debe faltar el nombre de Sabino de Arana y Goiri.

* Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 24 (1968) 105-107; «L. de A.» izenpean.

(1) Ik. 509-531. orr.

Los concursantes que figuran en el expediente que obra en el Archivo de la Diputación de Vizcaya son cinco: Azkue, Arana, Alberdi, Unamuno y Madina: la solicitud de este último se recibió en la Diputación el día 1 de abril. Los cinco fueron nombrados y presentados por el secretario Arancibia al examen y discusión del pleno de la Corporación Provincial. Quede esto claro, para que no se cargen a la cuenta de los «datos oficiales» nuestros descuidos o deslices.

El que no figura en las listas oficiales es el nombre de Luis Iza. Y para mí que éste o no debió de concursar o su solicitud no fue objeto de igual atención que la de Eustaquio Madina, cuya solicitud fue admitida con posterioridad a la fecha tope de presentación.

Azkue no es testigo de mayor excepción en contra de esta afirmación. Dadas las características de aquel concurso, con exclusiva participación epistolar por parte de los concursantes, éstos no debieron de tener contacto entre ellos ni saber los unos de los otros sino lo que indirectamente, por prensa o boletines, pudo llegar a su noticia, como a la de otro cualquiera. Lo que Azkue afirma de los trabajos presentados por Sabino Arana pudo saberlo en sus mutuos contactos posteriores.

Y otra aclaración a propósito de esto último: y es que no hay contradicción cuando se afirma, por una parte, que tanto Arana como Alberdi y Madina fueron eliminados por no presentar título profesional alguno, y por otra parte se dice que todos los concursantes menos Unamuno presentaron sus solicitudes acompañadas de trabajos más o menos importantes. No hay que confundir estos trabajos así presentados con un título profesional docente.

Azkue había presentado un «leyenda en prosa vascongada, basada en un hecho histórico acaecido en las aguas del Cantábrico hacia el año 40 de este siglo y un Ensayo sobre algunas materias a que se extiende la Gramática Bascongada». Así reza el expediente de la Diputación al margen de la solicitud firmada por Azkue, coincidiendo con las afirmaciones de éste en su nota autobiográfica. Ahí están lo que Azkue llama cosillas gramaticales y la leyenda *Grankanton Arrantzaliak*, obrita que, en cuanto a mí se me alcanza, nunca dio a la publicidad su autor y que debió de quedar entre los papeles que dejó en el domicilio de la Academia de la Lengua Vasca.

Pero no fueron estos trabajos los que pesaron a la hora de la decisión. Arancibia no los menciona ni los tiene en cuenta para nada en su dictamen. Tanto para Azkue, que acreditó sus conocimientos euskéricos con esos trabajos, como para Unamuno, que no presentó ninguno, lo que pesó fueron sus títulos académicos: bachiller Azkue, doctor en Filosofía y Letras Unamuno. Los demás, a falta de la presentación de títulos equivalentes, fueron eliminados, con trabajos presentados o sin ellos.

R.M. AZKUE ZANAREN FRANTZESEZKO ITZALDI BAT *

EGAN-en orrietan azalduta, edozeiñek ikusi ta irakurri al izan dau eztabaidatxo bat ea Azkue jaunak, bere Iztegi aundia atera ebanean, ba ete zekian frantzesik, ala ez. Eztabaida au iperkritikaren bidetik edo, obeto esateko, ipokritikarenetik eroan ez ete dan nago ni, une batzuetan beintzat. Orain bide obean sartu dala esango neuke. Eztabaidak asi ta sortzen errazago da, ondo argitu ta amaitzen baño.

Erkiaga jaunak ainbat ageri eskiñi ditu gai au argitzeko. Eta nik beste bat erakutsi nai dot, Erkiagak atera dituenak baño lenagokoa: Azkuek Tours'en bizi zala egin eban itzaldi bat, eta bera, argitaratua. Baña au da gure zoritxarra: leku gitxitan daukagu euskal-liburutegi osozkorik, eta askok ez dabe ezagutu bere egingo.

Ona itzaldi orren tituku osoa: *Allocution adressée par M. l'Abbé Resurrection Maria de Azkue, docteur en Théologie, aux congréganistes de Marie Immaculée le 28 mai en la chapelle du Collège Saint Grégoire de Tours.* Amasei orrialde ditu.

Ikastetxe orretako nagusiak eskatuta egin eban itzaldi ori. Asierako izetan onelan-txe diño Azkuek berak:

«Il y a, cher frères, des souvenirs qui sont en faveur dans notre mémoire, sans qu'on puisse se rendre compte pourquoi. Lorsque notre bien-aimé Père et directeur m'a fait l'honneur, si difficile pour moi, de m'inviter à vous adresser la parole, la première pensée qui m'est venue fut un exemple que j'ai appris quand je faisais ma rhétorique: «L'habitant d'Aragon (en Espagne) est franc, disait l'auteur du livre, le Navarrais est gai, le Français est hospitalier». Cette pensée, vieille de vingt-cinq ans, est tombée dans mon cœur comme un baume de soulagement. Vous, Français, vous

* Egan 27 (1968) 6-8.

avez en effet, parmi bien d'autres, la vertu de l'hospitalité. Je l'ai bien éprouvée jusqu'à présent, et je crois que vous me l'accorderez dorénavant et surtout dans ce moment.»

Tours'en bizi zala, Azkue ez zan, aurki, mutu egon. Eta frantzes egiten ikasi eban, eta artarako erreztasun puska bat lortu bere bai, agiri danez. Bestela, zelan aginduko eutsen olango itzaldirik egiterik?

Eta Azkuek, agindu edo eskari ori artzean, ba ekian, bai, bere frantzes etzala izango jatorrena. Berak be autortzen dau nekezko lana zala beretzat aitaturiko itz orreitan, eta bai bigarrenez bere, azken-aldean: «Souvenez-vous de ce que vous dit cet étranger, qui s'exprime péniblement, mais qui vous aime bien.»

Dana dala, ikastetxe aretan eurai frantzes itz egiteko gaitzat ezagutzen eban. Bestela, ez eutsen olako nekerik gañean ezarriko.

Ordurako, bigarren urtera joian Azkue jaunaren ango egotaldia. Eta frantzesen izkuntza ikasteko eta erabilteko erarik bere izan eban, eta beraz ez eban galduko. Itz egin eta irakurri, biak egiten zituan. Itzaldian bertan diñoanez, esaterako, egunekoak irakurri barik ez eukan onik:

«Ce sont, á mon avis, nos lectures habituelles que couvrent d'une certaine couche anti-spirituelle notre áme. Ce que nous lisons plus habituellement et avec le plus d'empressement, ce sont les journaux. Moi, pour ma confusion, je fais devant Dieu et devant vous la confession que le jour où je n'ai lu la feuille des événements quotidiens, je me trouve plus vide que si j'avais omis la lecture spirituelle. Vous accorderez qu'un préte lira les feuilles convenables, et cependant reconte-t-on dans la plupart des journaux cañholkjues le mot, le doux mot, de Providence?».

Geroago, gauza jakiña da Azkuek Paris'en eta Bruselan be egin zituala bere egotaldiak, Musika-gaietan jakitunago egiten. Eta era batera, frantzeserako trebetasun andiagoa lortzen. Baña Tours'en egin eban egotaldiari baño ez gagokioz emen. Esan danetik naiko argi dago ez zala orduan Azkue frantzesez egiteko norbaitek asmatu dauan baixen totela ez mutua. Urrik emotekorik bere ez.

Beste arigitasuntxo bat bere atera leitekela uste dot Azkue jaunaren orduko itzetatik. Tours'ko itzaldi orretan, eginda urrengo urtean antxe bertan argitaratu eban orretan, Saint-Grégoire ikastetxeko nagusiari «notre bien-aimé-pére» esaten deutso. Zer esan nai dau orrek? Ikastetxe orretan bizi zala ostatuz, aurki, ango anai ikasleekin batera. Orregatik dauka ango aita nagusia bere aitatzat, aita maitetzat. Eta ango anai ikasleak lagun ta adiskide miñak zituen.

Eta —orra ortik datorkigun argi-izpi barri bat— Azkue zanak bere Iztegiko prantzes berea ez badau, iñork lagundurik egiña baldin badau, languntzaille izan ebalako ori ez ete dogu billatu bear Ikastetxe aretako anaien batengan?

Baietz erantzuteak legezko dirudi. Siñistu eziñik ez dauko. Onetan, ango Anaidiko ikastetxea zuzentzen eban Anaidiko artxiboetan daukagu, bear bada, argi betea egiteko aukera. Uste au ez litzake gutziz okerra, Azkuek bere Iztegia Tours'era orduko egiñik euki ez baleu.

Au idatzi ta gero, beste iturri batera jotea etorri jat burura. Bilbo'ko Berriotxo-ikastetxeko adiskide bati deitu deusat. Ba-dakigu artu-emon andia izan ebalaz Azkue

zanak Ikastetxe orretako sortzaillekin. Eta Iztegia amaitu baiño naiko aurreragotik asita. Eta ona zer esan deustan. Bai, euren arteko batek egin ei eutsan itzulpena, edo orretan lagundu. Laguntzaille onen izena: François Joseph Lapeyre, gaskoina, 1929'en urtean il zana.

Anai au 1902'garrenerako Bilbo-aldean zan, Txorierri-aldean, Guardamino jaunak emon edo zuzendutako etxetxoren baten. Jakintsua ei zan bera. Baña urte orreitan ez ei eban egiten eskola-lanik. Etxeko kontu ta sartu-urtenen goraberen ardurea eroan, besterik ez. Eta astitsu aurkitzen ei zan Azkue'ri laguntzeko. Urte batzuk aurreragokoa ei eban alkarren ezaupidea, Azkue jauna Lapurdi-Zuberoaldetik euskal-itx eta kanten bila asi zanetikoa.

Ploermel'ko anai orrek izan ziran Azkuek berak Jardines-kalean sortu eban edo sortu nai izan eban euskal-ikastetxean zuzendari ta irakasle ipiñi nai izan zituenak. Onetan uts emon eutsen Azkue'ri. Baña alde bateko ta besteko alkartasun ona ez zan otzitu, ezelan bere. Lapeyre'k eta biak ,batez bere, luzaro jarraitu ei eban alkarrekin lanean.

Berriotxoa-ikastetzeko adiskide orri itandu deusat gero ea zer moduz ebillen Azkue frantzesen izkuntzan eta berak, beste anai batzuekin itz eginda gero, alkarizketan ekiteko aña, mugaz aruzko Euskalerritik ibilten asi zan ezkeroko ekiala. Beraz, oso gazterik asita.

Eta Tours'en ez ete eban beste laguntzaillerik euki? Emen bere eztago baietz erantzun eziñik. Azkue jaunak amaituta eukan 1902'garrenerako bere Iztegia. Esan danez, ordurako asita egoan bera ta Lapeyre anai Ploermeltarraren alkar-lana. Baña, Tours'en zala, Paris'tik eta Londres'tik ostera batzuk eginda, eta beste bide askotatik itz barri asko pillatu ta pillatuz, naiko geitu eban bere ordurarteko lana. Eta zergaitik ez eban orduan Tours'koren baten laguntza eskatuko? Zergaitik siñistekotzat ez artu angota emengo laguntasuna, Tours'koa ta Bilbo'ko Lapeyre anaiarena?

Itaun onekin amaitzen dot lantxo au. Ba dakit eta autor dot asierako aritik urtenda nabillala. Tours'ko itzaldi ori dala-ta, oar batzuk egin nai izan ditut. Eta azken-orduko telefono-deiak argibide barri bat jarri deust aurrean.

Labur esanda, bego or nik adierazo nai izan dodana. Eta bego or agertu jakun argi-izpia: bear bada, Azkue aundiaren Iztegia frantzesez jarri ebana François Joseph Lapeyre izan zala, Anai Ploermel'tarra ta kaskoina bera.

AZKUE, EUSKALZALE *

Jaun-andreak:

Azkue ezaguerazo edo goratu bear dabenak geien baten nora joten daben ba dakigu: berak itxi euskuzan euskerazko edo euskeraren aldeko lan andietara. Zuen erriko seme argi onen izenak, entzun orduko, ekarriko deutoz edozeñi gogora bere idazlanik osotuenak: euskal-iztegi nausia, *Euskalerrriaren Yakintza*, bere kantutegi ugaria edo bere *Morfología Vasca* izeneko liburu sendoa. Liburu oneikaz norañoko maillak jo zituan erakustea, ori da geienentzat Azkue zanaren nortasuna neurtzeko biderik errezena ta egokiena. Bere lanik nabarmenen orrei begituta, gizon jakituntzat eta euskalarien artean gorengo maillakotzat joko dabe bera; Euskalerrriak izan dauan gizonik mesedegarrienetakotzat emongo deuskue.

Ezta, izan bere, Lekeitiar ospetsu onen alderdi ori aiztutekoa. Baña bide orretatik dabiltzenak ba dirudi Azkue zanaren irudia goitik bera begituta erakusten deuskuela. Nik gaur emen, zuen erritar argitsu ta maiteari egin nai deutzazuen omenaldi onetan, goitik berako begirada ori itxita, beste bide bat artu nai dot: beti gorako begiradaxoa egin gura neuskio. Ez naz nekatuko beste bein bere anditasuna neurtzen. Azkue andiak euskal-saillean egin dauan lanak mendi garaia dirudi, nik olan ikusten dot; baña mendi itzal eskerga orrek, azpi azpitik oñarri sendo lez, eusten deutsalara, indar maitagarri bat dauko: Euskalerrriari ta euskerari gazterik artu eutsan maitasuna, euskalzaletasuna. Oñarri bakarrik, ez. Bai, bere lanen bultzagarri bere. Ez dot esango, bultzagarri au barik, beste alderdiren batetik Azkue gizon andi izango ez genduanik, bearbada or nonbaiteko kanonigo edo goragoko mallaren bateko eleizgizon. Baña, zorionean, euskalzaletasunak geure errian lotu eban, euskeraren arloetan sartuazo eutson. Euskalerrriari eskiñi eutsazan bere indar eta gaitasunak, gure onetan emon zituan emotekorik ederrenak. Ementxe egin da Azkue'ren izena andi ta ospetsu. Arlo

* Egan 28 (1969) 3-10. Lekeition, 1964-VIII-8n, Azkue zanaren omenaldian egindako itzaldia.

onetan, orraitio, etzan jakingura utsak eraginda ibilli; biotza izan eban beti aurrelari ta bultzatzaillle, bere euskalbiotza bere abade-biotzaz bat eginda.

Euskalari baño euskalzale izan genduan lenago. *Euskalzale* jarri eutson izena bere gaztetan atera eban euskera utsezko lenengo asterokoari. Izen ori asmau ebanean, barruan eukanak urten eutson azalera.

Nire itzaldiko onen gaia ezta besterik izango. Lekeitiar ospetsu onen euskalzaletasuna argitu ta erakutsi nai neuke zelانبait emen zuon, bere erritarron aurrean, noz ta zelan sortu ta berotu zan bere biotzean su ori ta zelango jokabidea artuazo eutson bere biziri.

Eta, lenengo ta bein, esan bearra dago zaletasun ori etzala Azkue umearen biotzean berez sortu.

Aita euskalzale ta euskal-idazle izan ebala dakianak uste izan lei, atan bere, etxetikoa ebala bere euskalzaletasuna, umetatik berez lez edo bere aitak sartua. Baña ez dirudi orrela izan zanik. Zergaitik ez? Aita galdu ebanean, bederatzi urte zituan semeak. Ezin zeikean onek urte samur orreitan aitaren bertsoen barri andirik jakin ez arengandik esateko bultzadarik artu euskeraren alde.

Ez; Azkuek berak esanda dakigu geroago, gaztezaroon, eskola nausietako urteetan aurkitu ebala argi ori, euskeraren alderako sugar ori. Artean, ez. Ezta arritzekoa bere. Eskolak, batez bere eskola nausiak, euskaldunik geienak erdalzaletu egin ditu edo, beintzat, euskerarako moldagaiztu, nagitu ta zabartu. Markiñako praille ospetsu batek antxinatxo esana da, abadageiak, eta bardin beste karreradunak, euren ikastaroan etxetik eroan eban euskera aitzuteko bideak artzen dituela. Orixe jazoten jake geienai. Azkue etzan aldikada baten bide orreitatik urrin ibilli. Eta ortik jarraituko eban, bere gogoz eta zorionean atzera egin ezpaleu.

Bere ogei edo ogetabatgarren urtean zan. Bitoriako seminarioan, apaizgaitegi nausian dagoala, Kanpion zanaren gramatika andia eldu da bere eskuetara, eta amar urte lenago Kanpion orri berari jazo jazo jako, argialdia egin da bere barruan. Eta euskaldun jayo zala-ta, euskaldun iraun gurako dau. Eta ez berak bakarrik. Euskalduntasuna biztu ta zabaldu gurako dau Bizkaian, Euskalerrri osoan eta bere alegiñak asmo orretara zuzenduko ditu.

Orduantxe ikusi eban, argi ta bizi-bizirik, bera jayo ta gero, azkenengo urteetan Euskalerrriaren ganera jausi zan zoritxarra. Eta arrezkero biotza mindu ta erdibiturik bizi da. Azkuek berak esanda dakigu bere barruko miñ onein barri.

Bere Euskal-Izkindea, bere euskerazko lanen asikiña Bizkaiko diputaduen ize-nean Bizkaia osoari eskintzen deutso eta ona zer diñotsen biotz-biotzetiko berbakin: «Ni jayo nintzanean, Bizkaiak bere legeak eukazan; Gernikako zugazpean noizik noizera batzartuten ebazan bere aldunak (diputauak) edo semerik maiteenak. Lotzagaria izango litzake Bizkaitar jaioriko gizaldia Bizkaitar il ez al izatea. Gaur Bizkaiko jauregi zarrean eta zugatz maitearen inguruetan txori negarti batzuen txioak baiño ez dira entzuten... Gure mendietan, antxiñako eresi atsegintsuen orde, durundi erostariak eta erdaldun ta erdaldunduen barre irrigarriak (bildots errukarrien beekadak otsoen intziriakaz nastuta), entzuten dira».

Arik lau urtera, milla zortzireun eta larogei ta bosgarren urtean, Bizkaiko formazaleak eleizkizun andia dauke Gemikan, ango Andra Mari-eleizan. Azkue gaztea eroan dabe sermolari. Eta itzaldian bere bamiko kezka ta miñak sutan urten deutse kanpora: «Geuk geure begiakaz dakusgun errialde au, diño, Bizkaiaren gorpua baiño ezta. Beronen zanetako odola ezta beronena. Bizkaian bizi direan asko ta askoren berbetea ezta Aitorrek beste zazpi alabai irakatsirikoa... Beronen urietan durundi egiten daben eresi edo kantak ezтира gure belarreitarako egiñak. Bizkaiak, badakit, ez esan birritan, osorik daukaz lengo mendiak, geienak beintzat; agortu barik ibai-errekak; uriak, daukezan urteak aztuta, gazte-antzera azita, ugalduta, puzgotuta dagoz. Eta zer? Ez poztu, Bizkaitarrak: gure amari beste arima bat iratzi dautse. Bizkaia gaur emeretzi urte il zan...».

II egin dala? Ez osorik. Eta auxe da Azkue gaztearen pozgarri bakarra. Euskera bizi dan artean, Euskalerrria ezta gorpu uts izango. Azkuek argitaratu eban euskerazko lenengo libuma, irakurgaia, *Bein da betiko* da, emengoxe Lekeitioko ipuin bat gai ta mamizat artuta. Abbadie jaunari eskiñia dago eta beronentzat esan zituan itxaropenaren argitxoa biztuten eben berbok itzaurrean: «Ezta asko gure ama samurra il al izateko bere bizkar-azurra (Pirinetako menditeria) ta gorputza zulatutea. Euskaldun onak munduan dagozan artean, ezta berez erioko, eztau ez benetako areriok ez izen utsezko adiskidek il al izango».

II edo biziko une larri aretan Euskalerrriaren etorkizuna Azkue jaunarentzat bere izkuntzan dago. Euskerak iraun ezkeru, Euskalerrriak iraungo dau. Euskalduntasuna biztutea ta euskereari eustea, ori da bere buruaren jabe dan euskaldunaren egitekoa. Ez ete dago modurik ori lortuteko?.

Auzi oni erantzukeran, euskaldunak alde banatan jarriko dira. Ezezkoan dagozanen artean nagusi Azkue beraren urteetako bilbotar ospetsua dogu: Miguel Unamuno jauna. Bein, bata ta bestea, Unamuno ta Azkue, Bilboko Institutioan euskal-irakasle izan naiak alkartu, edo obeto esateko, aurrez aur jarri zituen. Arik laster, Unamunok itxaropena galduta daukan baten bidea artuko dau. Bilbotar erdalzale onek esana da: «Euskerarenak egin dau, ilteko zorian dago. Eta'bere eriotzea eragozteko alperrik izango da sariketak jarrea, alperrik eskolak zabaltzea. Igurtzi daigun bere gorpua iakintzazko olioz eta gorde daigun; eztoqu beste egitekorik. Batu daiguzan, bai, bere ondakin guztiak; seme on batek alan egin bear dau, betiko aztuta gelditzeko leizetan galtzen itxi baiño lenago. Euskaldunak geure odolari ta berbete zarrari deusogun maitasunaren agergarri, jaso deiogun olantxe euskereari eriotz-ondorako gomutagarri bat beintzat... Auxe da gure egiteko bakarra, besterik ez».

Egiteko bakarra? Baña zer egin eban Unamunok egiteko orri erantzuteko? Zer-gaitik ukatu eutsan euskerari maitasun-erakutsi apur ori bere?

Bestelakoa da Azkuek artu eban jokabidea. Gure izkuntzaren etorkizuna eztau ain baltz ikusten. Euskaldun guztiak ez al dira orren endekatuak izango.

Alboetara begituta, ba dakus, bai, biotza ilteko ikuskizun negargarririk. Ara berak dirauskuna: «Edozein erritan ikusten dira gizon da emakumak, a) euskeraz jakiñarren, ezelan egin gura eztabenak, b) euskerazko paperik irakurri nai eztabenak, z) euskerea gitxizat daukenak, d) euskaldunen miñean erdereba baiño besterik bizi

ezpalitz, asko poztuko litzakezanak, e) euskalzaleak zorotzat edo goiarintzat daukezanak... Guztiok dira endekatuak... Izan leike erdalkerien arrak jota dagozan orrek osakaitzak edo ezin osatuak izatea. Guk euron ardurea baiño andiagoa euki bear dogu eurotarik ernetan dagozan aldaka edo landara gazteena... Gaurko euskaldun endekatuen landarai, biarko euskaldunai begiratu deioegun».

Biotzak dirautso Azkueri euskerak iraungo dauala. Ba zan oraindiño euskaldun zindorik, eta bere egunetako euskaldun endekatuen seme asko gurasoak baiño obeak izango dira. Eurotan dauko bere itxaropena. Itxaropen onek poztuta, jo ta su ekingo deutso lanari, euskalduntasuna zabaltzen, euskeraren ondar-mondar guztiak batzen, bere jatorrizko izkuntza au jaso ta edertzeko alegiñak egiten. Orretara joko dabe andik aurrera artuko dituan nekeak, berak aterako dituan irakurgai edo nobelak, bere teatro-lan musikadunak, albistari ta asterokoak.

Batez bere, abade barrietan sartu gurako dau euskalduntasun ori. Ain zuzen, jakingarria da Azkuek arlo onetan egin eban lana. Bere gaztetako egunetan seminarioan, Bitoriako abadegaitegi nausian, etzan euskerarik irakasten. Abadegeien ikastaldian ez egoan euskerarentzat lekurik. Bakotxak ikasi bear bere kabuz, edo bere erriarrakazko artu-emonean bakarrik. Azkuek berak olantxe ikasi bear izan eban. Alan da guzti bere, abade egin barritan, euskerazko sermoirik ganoraz egiteko erreztasun barik urten eban seminariotik. Urte batzuk geroago berberak autortuko deusku, erdi barrez erdi lotsa gorritz, bein jaso jakona. Entzun deiogun berari:

«Bizkaiko Eliza eder baten amarretako mezan egozan mutikotxu bi, aoa zabalik, erdaldun sermolari bati entzuten. Batak erderaz ez ekian berrogei berbatik gora; besteak asko ez baña, zelan edo alan aituteko beste ba ekian. Sermolariak sutsuen eta gogotsuen iarduala, batak itandu eutsan besteari: Txo, zer da *siñ embargol* Beste mutiltxuak beretzako jakin arren, iñori esateko ez ekian».

Mutikotxu oneina barregurea emetokoa da; baña Azkueri beste bein jazo jakonak ez eutsan barre egiteko gogo andirik itxi. Seminariotik urte barritan, erdera errezago egiten ebala-ta, erderazko berbaldia egin ebala difiozku berak, *siñ embargo-ern* orretan bertan. Euskerazko itzaldia gertatzeko ez ei eutsen astirik emon. «Goizean bere jesuita batek erderaz egin eban beste bat. Eta itxasgizon batek arratsaldekoa entzuckeran, «*erre egin bear genduke pulpitua*» *esan eban*. Etxako gaztetxu ari iñoiz au aztu», diño bere buruagaitik Azkuek.

Gomuta oneik emon eutsen aria *Euskalzale* asterokoan, Euskalerriko eleizgizonak euskera alik ondoen ikasteko dauken eginbearra azaltzeko. Eta lenen-lenengo, egi negargarrizko au autortzen dau emen: eleizgizon askok ez daukela eskolarik naiko pulpitueta euskeraz ganoraz egiteko; bere egunetan, don Kalixto asko zirala Euskalerrian eleizgizonen artean.

Don Kalisto ori da arako Mogelek bere *Peru* Aoartai-liburuan ateraten dauan abade gaztea, sermoia ezin egiñik ulei tiraka, ostikoka, amurru baten. Olantxe aurkitu eban aita Pedro Prailleak. Praille onek lagundu eutsan bere estualditik urtetan, berak lumeari eldu ta ordu baten buruan sermoia eginda isten eutsola. Abade gazte arek onela emoten eutsen asiorea idazten ziarduan sermoiarri: «Empeñu andia, por cierto, neure auditorio noblia, neure predicaciñoaren principioan berba egin bearra, zeruetako

giltzak confiau eutsazan santu andi baten ganean». Pedro, apostoluen buruaren sermoia zan.

Zenbat orrelango, diño Mogelek, Bizkaiko erri askotan. Ezin dabe ezer irakatsi; bereala lotuten dira; ikara gogor batek artzen ditu; izerdi larriak urteten deutse, ixillik gelditzeko bildurrez. Eta Azkuek gañean diñoana: «Bizkaian ez eze, edozein aldetan dagoz eun Don Kalisto. Guztiak euren erru barik». Zergaitik? Gaztetan euskerarik gogoz ta sakon ikasi eztabelako. Eta Azkuek onela jarraitzen dau: «Sortu beitez Bitoriako abade-ikastetxean euskerazko ikastaldi bat edo bi, eta Elizeari jagokazan berbaldiak entzunaz ganera, euskereak asko irabaziko dau, elizgizonak direalako euskerea bizkortuteko geien egin dabenak eta geien egin leikenak». Milla zortzireun eta larogeta amazpian esana da au. Azkuen eretxiz, nai ta nai ezkoa zan Bitoriako abade-ikastetxe orretan abadegeiai euskerea irakastea. Zergaitik?

Entzun barriro bere berbak. Zergaitik? «1) Euskerea gaur bizi dan berbetarik zaarrena izanik, antxiñako gauza zarrak legez... maiterik eta alik ondoen gordetako. 2) Euskerari deutson zorra Euskalerriko Elizeak zelanbait ordaindu daion. Berari zor deusagu oraindiño (oso-osorik ezarren) oitura onak, mendu maitagarriak eta elizkoitasuna gure artean eukitea. 3) Euskerea, griegoa ta ebreoa ta beste gauza asko ta asko baiño Elizarako bearrago izanik, Bitorian griegoa ta ebreoa erakutsi arren, euskerea irakatsi ezaz lotsa garealako, arpegia gorrituten jakulako, euskaldunentzako ta euskaldunpeko ikastetxea ez tirudialako. 4) Elizgizonak Elizeari jagokan eran berba edo itz egin bear dabelako, eta gazterik ikasten asi ezik, gatx egiten jakulako ezer gogoz ikastea».

Luze ta zabal diardu Azkuek azkenengo aitatu dauan errazoi ori argiago jarten. «Sancta sancte», diño; gauza santu edo doneak donetasunez, santutasunez erabilli bear ei dira. Erregeak bere mandaturik iragarteko arazoa ez ei deutso edozein ez jakiñi, berba egiten ondo ez dakian iñori emoten. Zeruko Erregearen Barri Onak ezin leiz jasotasunez, jagoken moduan zabaldu berbaz ondotoxoz ez dakian batek. «Ea ikusten dan —Azkuen berbak dira— ea ikusten dan Erdalerrian Elizako irakastegira igoten *adrento*, ta *antier*, ta *melecina* ta *zurijano* ta *dir* (*ir* esateko) esaten dabenik. Ea ikusten dan Erdalerrietako elizetan ardantegietako erdera bastoa? Euskerazko berbaldiak egin bear direanean, orduan bai, lautatik bi gitxienez dira Don Kalixto».

Eta ez ezan Azkueri askok eztabela aituko euskera landu ta garbiago ori. Ez, erantzungo dau berak. Errikoak guk baiño euskera geiago dakie. Eta olan ezpalitz bere, berba bat bakaturik edo banakaturik dagoanean, ondo aitu edo ulertu ezarren, beste berba batzuen ondoan adituten da. Azkue bera bere «euskerazko berbaldi garbi garbiak eginda dago Gernikan, Miraballesen, Arrigorriagan, Plentzian, Begoñan, Sondikan eta beste erdalpeko erri askotan; eta Gemika, eta Miraballes eta beste enparauetakoak, Mogel ta Astarloa asko euren artean euki ezarren, ederto aditu ebezan berbaldiak».

Ez esan Azkueri «euskeraz erderak baixen ondo ezin leikezala gauzak azaldu». Euskereak, erantzungo dau, erderak beste esakera ta geiago daukaz. «Euskereak daukana da: irakurle gitxi ta sasijakitun asko. Euskereak ez daukala erderazko au ori ta bestea? A kaiku, kaiku! Euskereak oparo ta parra-parra zabaldu nai dabezan esakera ugari, sakon, eder, mendi-usaiñeko euskaldun askoren buruan balegoz, erderazko au ori ta bestea ta zerbait geitxoago bere esan al izango gendukez geure euskera zarrean».

Bertatik izan ezpazan bere, erantzun pozgarria emon eutsen Eleizeak Azkue jaunaren deiadar eta ekiñai, Seminarioko atea alangoren baten euskereari zabalduz eta abadegeiai euskeraren jaube egiteko aukerea emonaz. Bere euskaldun-biotzak eta abade-biotzak nonbait sekulako poza izan eban ortik. Bere gogoa egi biurtu zan. Bere biotzaren itxaropenak ez eutsen utsik emon.

Illuntxoago ikusten eban gure errietako eskolen egoerea. «Euskeraz ezta eskola orretan, baten bere, ezer ikasten: guztia erderazkoa, guztia geure ekandu ta lege ta berbetea iltekoa. Euskalerrian *eskola* geiegi ta ikastetxe gitxiegi dagoz. Eta gauza onik egiteko, euskaldunak eskola orrek euskaldun biurtuteko alegin guztiak ipiñi bear leukez. Ezin dau ikusi, guraso zarrari suin-erren lotsa galdukoak legez, erbesteko berbetea gureari ikastetxeetako atea isten; txakurren aurretik basakatua ibiltan dan legez, euskerea basorik baso igeska ibiltan. Irudi onek Azkue'nak dira.

Emen bere, gaur bizi balitz, uste dot poztasun apurtxo bat artuko leukela bere euskaldun-biotzak, biar bere jaioterri maite onetan egingo dana ikusita. Lekeition biar euskera irakasteko eskola sortzen dozue, lekeitiar zintzoak. Azkue zanari omel-naldirik pozgarriena egiteko ezin izan dozue asmau gauza egokiagorik. Biar, gorputzez ezpada, gogoz zuekaz izango dozue zuen seme argi au Lekeition, pozikaratan ikastetxe orrekin bere gaztetako asmo batzuk egi biurtzen dirala ikusten.

Lekeitiar ta euskalzale zintzoak: ez dot geiago luzatu nai neure itzaldia: Gai onek ari geiago emon leike, egia esan, ari geiago eta obeto ebagia bere bai. Esanak asko bediz Azkue'n barrua agirian ipinteko, euskeraren alde erabilli zituan kezka ta burrukak erakusteko.

Ez deusagu begitu jakitunari, gizonari baiño; ez euskalariari euskalzaleari baiño. Eta bere buruari baiño geyago bere biotzari. Lan andia egin eban jakitun lez, euskalari lez. Baña bere lanetan biotza izan eban aurrelari. Berberak autortu euskun auxe gaztetako liburu baten: «Autor dot nire liburu onek akats bat ba daukala, neure neurez dodan akatsa: bururik baiño biotzik geiago eukitea. Irakasteko arazo neketsua neure ganean artu ezpaneu, gure izkuntza buruan sartzen baiño maitatzen gogozago ekingo neuskio. Zergaitik? Euskerari gure maitasuna eskiñiaz, euskaldunok geure ama agurgarria maite dogelako; eta seme onari dagokio asti geiago emotea ama maitatzen ama ori ori zelangoa dauan ikasten baiño». (Bere «*Método práctico*» deritxon liburutik euskeratuta).

Biotza eban aurrelari, baña ez aurrelari itsu. Biotza aurrelari, baña buruari ta adimenari indarra ta kemena emoten eutsela euskeraren barrenengo zokoetaraño sartu ta bere aberastasunak arakatu ta argitara aterateko. Biotzak egin dau jakitun; euskalzaletasunak, euskalari. Zorionean, gazterik biztu zan su ori bere biotzean. Gazterik asi zan gero ainbesteko izena ta ospea emongo eutsen lan ederretarako gaiak billatzen. Gure erriartasuna galdu genduala-ta, ez da gelditu negar-zotinka utsean, alperreko illetak jotan. Biotza aurrelari, maiterik dabil orra jo ta ona jo, auzorik auzo, baserririk baserri, edo bein geixo-etxeetan sartuta, bein ardantegietan edo txakolintegietan, aiton ta amonatxoen artean autu gozatsuan, non zer ikasiko. Erria dau eskola ta maixu. Erriaren ariman murgildurik lan egin dau beti. Andik atera ditu amaika esakera jator,

ainbeste euskal-itz iñoz jaso bako, ainbeste kanta ta ipuin, lengo gizaldien lorratza ta usaiñ ona dariela.

Bere jaioterrian gagoz, itxasoa beti munda dauan uri polit zoragarri onetan; eta arrantzaleen esaera batekin amaitu nai dot. Azkuek bein baiño sarriagotan eralgi ta azaldu euskun Lekeitio'ko arrantzaleen oitura auxe: itxasoraterik zanean, deitzaille bat joaten zan atez ate arrantzale bakotxari deika: Gora, Jaungoikoaren izenean!

Olangoxe deia entzun eban Azkuek bere gaztetan. Baña Azkuek aratu bear eban itxasoa Euskalerrria zan, Euskalerrriaren arimea, euskerea. Eta itxaso onetan arraintsuan sartu ta murgildurik, itzalezko arrainketa eginda biurtu zan leorrera: bere euskalkantutegia, bere *Euskalerrriaren Yakintza*, bere iztegia andia, bere bizi guztiko lana.

Ez Lekeitiok ez Euskalerrriak ez dau aurkitu arrantzale oberik gaur arte.

AZKUE AITASEMEAK*

(Jorratzaile batzuk jorratzen)

Irakurleak eskuetan daukan KARMEL onetan, Eusebio Maria Azkue idazlearen bertso ez-ezagun batzuk argitara atera eta ezaguerazo nai izan ditut.

Lekeitioko seme onek argitaratu bako bertso-sail bat edo beste ba-eukala askotan zabaldu da. Euretari aitatuena poema bat da, Euzkadia izenekoa, 1862-koa, eta amaitu bakoa bera. Aspalditik neukan poema orren eta beste bertso batzuen kopia. Aita frantziskotarrak dira manuskritoen jabe. Eta orain artean inork argitara emon ez dituen ezker, neure kopiakoak KARMEL-en orrietara ekarten ditut, neuk daukadazan lez, jakiña. Euskaldun irakurleak ondo artuko dituelakoan, jakingarri eritxiko dau-tselakoan nago. Eusebio Maria orren bertso-lana obeto ezagutzeko lagungarri izango dira, beñik bein.

Ez ditut aurkeztu nai, orraitio, euskal-idazle onen inguruan zabaldu diran esames eta badaezpadako eritxi batzuk salatu eta argi apur bat egiten alegintxo egin barik. Gure artean, eta askok autortu dabe, kritika-lana oso mantarretan dabil. Suster bako eritxi asko zabaltzen dira, eta bizi luzea izan oi dabe. Tamalez, luzeegia! Or diardue, or daragoioe askok, esaterako, Barrutia dala-ta, argitasun andi barik, aspalditiko leloai ekiten. Eta Eusebio Maria Azkue dala-ta be, bardin jarraituko dabe, bein igon daben asko ganetik jatsi eziñik.

Beioaz aurretik Lekeitiar argi onen biziko urtenenatariko barri labur batzuk, beronen ezaguer aindirik ez dauken irakurleai laguntzeko. Zeinbat ete dagoz, beste Azkue andiagoren aita izan zala be ez dakiela! Bai; Eusebio Maria Azkue Barrundiak amabi seme-alaba izan ei zituen, ezkontza bitarrik: euron artean, Resurrección Mari Azkue abade entzutetsua, Euskaltzaindiaren sortzailleatarikoa, euskal kulturak arlo askotan ainbeste zor deusana. Eta seme argi au bere lurrari emotea gitxi balitz, or

* Karaiel 1979-2, 26-37.

daukagu Eusebio Mariaren amairugarren semea deitu geinkena, *Parnasorako Bidea*, euskerazko bertsoz omidutako liburua.

Egillea ezagutzeko, irakurleak liburu ori ezagutu eta irakurri bear leuke. An aurkituko leukez, semeak emonda, aitaren bizitza laburtzua, eta idazlearen bertso-lanik geienak. An ikusiko leuke, idazle lez, gizon onen neurri betea, bertsolariaren euskera jator eta bizi-aberatsa. Baiña orain larogetaka urte argitaratua dan liburu ori non aurkitu? Ez da edozeiñentzat errez izango.

Emen, labur esanda, irakurlearen lagungarri, esan daigun Eusebio Maria Azk je Barrundia Lekeition, 1813n, jaio zala. Osalari baten semea zan. Lekeition jaio eta Lekeition il zan, irurogei urte geroago, 1873garren urtean. Lekeition jaio arren, Zamudion azia dogu, aita, Zamudiokoa semez, Zamudion osalari ebalako. Orregatik, nagusitan, Lekeitiora biurtu zanean, lekeitiarrak bitxi eta bakantxo eristen ei eutsen aren euskereari. Kanpoko usaiña artzen ei eutsen. Lekeition jaioa izatea naiko izan ez, antza, lekeitiarren euskeraren burpillak artzeko.

Osalariaren semeak eskola-aukera onak izan zituela esan bearrik ez. Bilbon, frantziskotarren eskolan latin eta filosofiarañoakoak ikasi ei zituen. Gero, karlisten gerratea amaitu zanean, Euskalerritik alde egiten dau eta itxasorako eskolak ikasi. Ikasketok amaitu orduan, urte batzuetan, itxasoz itxaso dabil, ara eta orra, pilotu eta kapitan-maillan, lur barriak eta gizarte barriak ikusi eta ezagutzen. Bein ezkondu eta leorrea bizitza erabagi dauanean, itxasgintza-irakasle jarriko da, Bermeon lenengo, gero luzarago Mundakan, eta azkenez, 1862-tik aurrera, bere jaioterrian, Lekeition. Emen jarraitzen dau, eriotzeak bizien artetik eron eban arte.

Gazterik asita, barruan eroian beti ikasi-gurea, irakurteko zaletasuna, eta batez be, euskalzaletasuna. Ortik biztu jakon euskeraz idazteko gogoia, eta barrutiko bul-tzada bizia. Mindurik bizi zan, euskereak poesiarako ain egokia izanik, lantzaille geiago ez eukiteaz. Bera, ixillean, baiña barruak alan eskatu eta agintzen eutsalako, lan eta lan dabil beti, era guztietariko bertso-lanak sortzen: erlejiñozkoak eta ostean-goak, benetasunezkoak eta barre eragitekoak, luzeak eta laburrak. Danetarik egiteko eukan gatza eta jasa; batez be, gauza jolasgarri eta ziribertoetarako.

Alan be, bere bizian ia ez eban ezer argitaratu. Bat edo beste, bakarrik. Esa-terako, *irurak bat* egunerokoa, Santander aldeko estropada batzuk zirala-ta. Baiña bertso-rik asko bere ezagun eta adiskideen artean zabaldu zituen. Eurotariko bat izan zan Aita Uriarte frantziskotarra, adin berekoa. Benetako idazle-ospea, euskal-olerkari izena, il-ondokoa dau. Jose Manterola jaunak bere *Cancionero Basco* euskal-ber-tsozko liburuan emon eutsen sarrera gure lekeitiarraren bertso-mordo bati, eta olerkari dotore eta buruz jantziriko bertsolari eta idazletzat aurkeztu eban berau. Manterolak autortzen dauanez, aren seme batek eskuratu eutsazan Eusebio Mariaren bertsoak. Zein semek? Ez dot uste geroko abade ospe ain andikoa izan zanik. Au umea zan aita galdu ebanean eta amairu amalau urteko mutikoa, Manterola aitaren izena zabal-tzen asi zanean. Ez dot uste onen eskuetan izango ziranik aitaren idazlanak. Etzan egokiena, olango artu-emonetan argitaratzaille bategaz artu-emonetan ibilteko. Ba-eukan beste anai bat, amabost bat urtez zarragoa.

Geroago, bai, 1896n, Azkue abadeak argitaratu zituen aitaren bertso lanak, *Parnasorako Bidea* izeneko liburuan. Itxura baten, Azkue aitaren bertso guztiak dagoz or. Azkue semeak etxean aurkitu zituen guztiak, beintzat.

Parnasorako Bidea

Arestian esan dodana ondo ulertu eta gogoan artu bearrekoa dala uste dot. *Parnasorako Bidea* Azkuetarrak etxean euken aitaren bertso-kopietatik sortua da. Eta kopia orreik eta beste nonbaiten zabaldua ibilli zirean kopiak ez dira bardinak, ez dabe bertsoan textu bardiña emoten. Au ikusi ez talako asi da oraintsu erdia baiño geiago ustela daukan uste bat zabaltzen. Semeak aitaren lanak zearo aldatu zituela esan nai izan dauskue. Eta au zabaldu dabenak siñiste oso osoan dagoz Azkue aitaren lanak eurak bakarrik ezagutzen dabezala, eta Azkue semeari errurik baltzenak ezarten deutsez.

Aita Villasante izan da onetan Azkue semearen jokabidea itxusien itxi nai izan dauana. Auñamendik atera dauan ENCICLOPEDIA andian, *Parnasorako Bidea* aita-tzean, liburuko bertsoen guna eta balioa azaltzen baiño lerro geiago darabil Azkue semearen pekatutzakoak salatzen: ortografia bakarrik ez, itzak eta itzen joscak bera eta nik ez dakit zer geiago aldatu ei deutsoz semeak aitari. Zer gelditu ete da, ba, aitarenik liburu orretan? Nondik atera dau Villasantek ori? Ara: Aita Uriartek itxi ei eban manuskrito bat, *Poesía Bascongada* deritxona, eta ari ganganetik begiratu bat egitea naiko ei da, Azkue semeak, garbizalekeriz, egindako pekatuak ikusteko.

Olango begiratu bat, azaleko bat, Aita Villasantek autortu dauanez, egiteak, ezetarako eskubiderik emon ete lei? Aita Villasantek ez dau ikusi emen daukagun lenengo auzia beste bat dala. Zeinbat manuskrito daukaguz? Ez ete dago bat baiño geiago? Eta zelango aldakuntzak dagoz baterik bestera? Orra non dagoan untzea. Ori da emen ikusi eta argitu bear dana, iñoren aurkako eritxirik emoten asi baiño len. Eta gauzea naiko argi dago, nire eritxiz. Eusebio Maria Azkuek bere bertsoen kopia bat baiño geiago zabaldu zituen. Alan eukazan berak gordetako eta iñori, beste emoteko: aita Uriarteri, Bonaparteri, nai beste edozeiñi. Alan joango ziran batzuk Manterolaren eskuetara, beste batzuk frantziskotarren eskuetara, Bermeo naiz Zarautzera. Ori, lenengo.

Eta, bigarren, kopia orrek ez dira beti batetik ateratakoak. Bestela esanda, bertsoen egilleak ez ditu bere bertsoak beti bardin itxi. Ez: egillea ez dabere bertsoakaz beti aserik eta pozik gelditzen, txitean pitean ikututxoak egiten dautsez, orraztu egiten ditu, askotan goitik bera aldatzen eta barriztetan ditu. Au ikusteko, Manterolak argitaratutako *Cancionero Basco* aitatuari gan-ganetik begiratzea naikoa da (emen bai, gan-begiratu au naikoa dogu, diñoguna ikusteko). Ikusi ango *Dies Irae*, latin-bertsoak euskeratuta. Lenengo ta bein, Azkuek berak Bonaparteri 1861-n bialduak eta emengoak ez dagoz bardin. Itzulpen barria da bertso askotan. Gañera, Manterolaren eskuetara eldu ziran kopiak, bertso askotan beste aldaketa barri asko daukez, bertso batzuk era bitara dagoz, goitik beraño barriztauta. Norenak dira, nok egiñak alda-ketok? Azkue aitarenak berarenak. Zer esan nai dau onek? Bonaparteri bialdutako *Dies Irae* ori 1861-koa dala, eta andik ilteraiño urteetan bertsolariak aukera eta astia izan dauala beingo bertsoai eskua ezarteko, ikutu barriak egiteko. Ikutu otatik be Manterolak banaka batzuk baiño ez deuskuz emon, itxurea danez.

Dies Irae orrekin jazioa bera jazo da *Parnasorako Bidea* liburuan agertu ziran beste bertso askorekin.

Eusebio Mariak, dirudienez, 1862 garren urtean emon eutsan azkena bere poemagintza-lanari. Arrezkeroko bertsozik ez da, antza, agertu: baiña ordurarteko bertsoak orraztu, txukundu edo barriztetako astia izan dau eta lan orri ekin deutso noizean bein. Or dira bazterretan kopiak oraindiño, eta ikusiko dogunez, semeak argitaratu zituenak baiño euskera garbiagoan egiñak asko. Aldikada baten Bermeon eta Zarautzen bazan olangorik. Nire kopiakoak euretatik atereak dira. Eta eurai azaletiko begiratu bat egitea naikoa da emen be, esan dodana egiztuteko. Gain-begiratu onek erakutsiko dausku auzi onetan Aita Villasante baiño kontuzago ibilli bear dogula, eta ez daukagula eskubiderik, kopia batetik besterako aldakuntzak edo ezbardintazunak Azkue semearen pekatutzat salatzeke.

Manuskritoetan zear

Goazen manuskritoetan zear, ez-bardintasun batzuk erakusten. Ona erakusgarri batzuk, bata bestearen ondoan jarrita.

Munduko zerua daroa batek titulua eta ona bertso ezbardin batzuk:

Baña ikusirik ango atsegina,
ango bake ta gloria,
eta arik laster izanik bere
gogo osokoa tokia...

Baña ikusirik ango atsegina,
ta ango bakezko zoria,
ta azaz ganera, zerua zala
dendari bako tokia...

Zein da *Parnasorako Bidea* liburuan argitaratua? Gan-ganetik begiratuta, bere burua zur eta jakituntzat daukan batek baiño geiagok erantzungo leuke bapatean bigarrena dala Azkue semearena, erderazko *gloria* ori ez ipintearren garbizalekeriz zuzenduta. Eta, ain zuzen, *gloria-dun* ori dator Parnasorako Bidean, eta beste ori, beste aldakuntza guztiekaz, aitaren manuskritoetan.

Saguak eta katuak izeneko ipuiña bai Manterolak eta bai *Parnasorako Bideak* dakar. Ona ipuin orretako bertso pare bat:

Saguak igaz ebiltzezala,
eldu zan txakur mosu zabala.
Orduan igaz eben saguak
eta katuak.

Saguak igesi ebilzala,
eldu zan txakur mosu zabala,
zeñek ebazan aginka askatu
amesei katu.

Emen be, itaun bardifia: Zein da Manterolak emona, eta zein Azkue semearena, Parnasorako Bidekoa. Begi-zorrotzdunen batek esango dau: Lenengo ori, erdal-kutsuzko *zeñek* daukan ori, ori da ezbai barik jatorra, Azkue aitarena. Azkue semeak ez eban olan itxiko, ain garbizalea izanik. Eta emen be, lengo okerra bera. Parnasorako Bidean Azkue semeak ez eutsan ikuturik egin *zeñekorri*, eta aitak bere manuskritoetan bai. Manuskritoan, gaiñera, ez Manterolak ez Azkuek emon eben bertso bat dator. Irurak kopia ezbardinetatik ibilli dira, antza.

Eusebio Mariaren bertso-saillik luzeenetako bat Urteari egiña da. Urteak lau aizta ei ditu: udabarria, udea, udagoiena eta negua. Lau arotako goraberak darabiltz

bertsolariak, zeruko edo Zodiakoko izarmoltsoen goraberakaz batera, udabarrian asi ta negu-azkeneraiño. Or dator, esaterako, udea beroak ekarten. Irakurri daigun urren-go bertsopare au:

Lenengo aiztea ta umeak
betatzen dituz udeak:
 au da urrengoa,
 aizta beroa,
zein dator tanboliñagaz
ta egunik luzeenagaz.

Lenengo aiztea ta umeak
botaten dituz udeak:
 au da urrengoa,
 aizta beroa,
mundura ekarten deuskuna,
luziena dan eguna.

Emen be, baten batek oindiño semearen eskua ikusiko leukela uste dot. Zelan Azkue semeak, ainbesteko garbizalekeriak jota egoan arek, Villasantek esan dauanez, *zein* ori kendu barik itxi? Naiko ondo kendu eta zuzendu be, gaiñera. Orra, ba; barriro be Azkue semeak, ain zuzen, *zein-dun* ori dakar bere liburuan, garbizalekeria ezartzen dautseanai mustur-musturrean emoteko lez. Bigarren ori, zem'bako ori Azkue aitarena da, frantziskotarren etxeetako manuskritoetako.

URTEA izeneko poema orretan aldaketa barridun bertso asko dago. Eta ez itz bat edo beste aldatuta, puntuak eta abar goitik bera aldatuta be bai.

Urte-aro bakotxa zelangoa dan eta zein dan onena, ona zelan diñoskun:

Ume bat da lenengoa,
bestea gazte beroa,
 irugarrena
 da prestuena,
laugarrena da tximurra,
askok deusena bildurra.
(*Parnasorako Bidearí*)

Ume bat da lenengoa,
bestea gazte beroa,
 irugarrena
 ez da txarrena,
laugarrena atso tximurra,
askok deusena bildurra.
(*Manuskrito*).

Aldaketa gitxi, baiña aldaketatxoak.

Udabarrian Zezenak (Taurus izar moltsoak) bere lanetan diardu:

Zezenak dakaz beragaz
lorak usain gozoagaz:
 gaba laburtu,
 ta edurrak urtu
dituz Zezen biargiñak
lau asteko zeregiñak.

Zezenak dakaz mundura
lorak galanten burura:
 edurrak urtu,
 gaba laburtu
egiten dau lau astian,
igasten daben artian.

Bagillaren azken-aldean Urtea karramarroaren (Cancer-en) menpean dago:

Beragaz dator laguna,
karramarro pikuduna,
jaten ikoak
goizetikoak
ta Donian-madariak,
gozoak baiña txikiak.
(*Parnasorako Bidean*)

Ia bagil-azkenian,
ogeitabigarrenian,
ez dator bakar,
beragaz dakar
gugana bere laguna,
Karramarro pikuduna.
(*Manuskrito*). .

Udazkenean, or dator Balantza (Libra), gau-egunak bardintzen, urteko egunik ederrenak ekarten.

An dator irugarrena,
lau aiztatarik onena,
biargiñentzat
nai alperrentzat
lenengo iminten deuskuna
Balantzan gaua ta eguna.

An dator irugarrena,
lau aiztatarik onena,
egin bagarik
beste gauzarik,
lenengo iminten deuskuna
Balantzan gaua ta eguna.

Urriaren ogetabakarrenean amaitzen de Balantza orren aldia, pizti txar bati lekua isteko, Eskorpiori.

Baiña ogetabakarrena
da Balantzan astunena,
onen atzeti
jatorku beti
Eskorpio gizon ilten,
kontuz ezpadira ibiltzen.
(*Parnasorako*)

Baiña ogetabatgarrena
da Balantzian azkena;
onen lekuan
dator orduan
pistia txar bat gugana,
Eskorpio izena daukana.
(*Manuskrito*)

Gabonak baiño lentxoago Udagoiena badoa. Otzak ilten dau eta laugarren aiztea dator: negua.

Gabonez gugaz eztago,
eskutetan da lenago:
aizta azkanena
ta gogorrena
an dator bere lekura,
otzak ezteutzala ardura.
(*Parnasorako*)

Gabonez gugaz eztago,
ilten da egun bi lenago:
bere lekura,
goiko mundura
dator beste aizta bizkorra,
otza igaroten gogorra.
(*Manuskrito*)

Neguan, urtearen laugarren aiztearen egunetan, zeruan Arrain bi (Piscis) doguz, besteak beste, agintari. Eta ona zelan adierazoten jakun Arrain bi orren lana:

Arrain bi alkarren lagunak,
txikitxuak baiña astunak,
datoz bertati
odeietati
beti iragoten euriak,
itoteko zar guztiak.

Arrain euritsuak biak
jaten dituz lengo *Ariak*:
aizta zarrena
ta gogorrena
doa urte zarren atzean
eta beragaz batean.
(*Parnasorako*)

Arrain bi alkarren lagunak
datoz gabak eta egunak
bardindutera
ta kendutera
edurrak, leiak ta euriak,
zarren akabagarriak.

Arraiñak itoten dira
Ari lengoari begira:
azkanekoa,
aiztia doa
eurekaz ostera atzian
urte zarragaz batian.
(*Manuskrito*)

Agiri danez, alde andia dago askotan bertso batzuetatik besteetara. Baiña ez dago kanpoko iñoren eskurik asmau bearrik. Azkue aitarenak berarenak dira. Eusebio Maria ez dau bein esanak edo idatziak betetan eta esaera barrien billa dabil beti, bertsoak orraztu eta erraztu, zelan esatekoak obeto esango. Ikutu txikiagorik asko dago edozein poematan. Guztiak ezin giñ aiz emen jarri. Dana dala, zer ikusi gitxi dauke garbizalekeriagaz ez mordolokeriagaz.

Aitatu daigun beste olerki bat: Elisa izenekoa (manuskritoan Zaldun baten mandatua dama bateri).

Ona pare bat:

Irakurrizu maitetasuna
neure arimako libruan,
ikasi daizun eztagoala
bera langorik munduan.

Bere irudia beti egiten dot
nagoanean bakarrik;
bestetarako neure arímeak
eukiten eztau indarririk.
(*Parnasorako*)

Irakurrizu maitetasuna
neure barruko libruan,
ikasi daizun eztagoala
andiagorik munduan.

Zelakoa dan dama galantau!
Dago irakurten bakarrik:
bestetarako gaur egunian
ez dau gaixoak indarririk.
(*Manuskrito*)

Aldaketarik andienak azkenengo bertsoetan datoz.

Ezin naite ni zu barik bizi,
eta au da egia ziurra.
Zu zara, Elisa, neure arimea
eta zu barik ni... lurra.

Ez dot nik ezer munduan gura,
ez osasuna, ez bizia,
zugaz ezpada, ai neure Elisa;
zu zara neure guztia.

Eztot nik ezer munduan gura
ez bear bere zu barik;
neure biotza betetuteko
ezta gaur bizi damarik.

Zu barik naz ni, neure maitia,
gorputz arima bakoia,
neguan dan lez Norte-errietan
eguzki arratsaldekoa.

Batu gaitzean beti betiko,
Elisa, neure kutuna,
neure atsakabak amaituteko,
lastertu daigun eguna.

Zu zara, Elisa, munduan Jaunak
neuretzat daukan laguna:
batu gaitzean beti betiko,
lastertu daigun eguna.

(*Parnasorako*)

(*Manuskrito*)

Kopia biok ikusita, nok aterako dau emen garbizalekeriz jokatu dauan eskurik ibilli danik, ez bata ez bestea zuzentzen? Ondo itsua izan bear orretarako. Tamalez, olangoxe itsutasun edo itsukeriak jotako bat baiño geiago dabil gure artean, aurreiritxien batzuk begiak lausotuta, edo baten bat zentzun larregi barik jo naiak eraginda.

Beste lan bat da emen egitekoa: kritika-lana, manuskritoen kritikatik edo aztertzetik asita. Lan naiko gatxa, orraitio, gaur egiteko. Manuskrito asko izan dirala dakigunez, guztiak batu eta aztertu bearko leitekez: Bonaparteri bialduak, egilearen egunetan argitaratuak, Uriarte aitaren eskuetatik etorriak, Manterolarenak, Azkue semeak erabilitakoak, Zarauzkoak eta abar. Guztiak billatzen ez da gaur errez izango, baiña ori egiten ez dogun bitartean, ez daigun zentzun-bidetik urten, ez gaitzean iñori arrika asi, ez daigun auzia bere bideetatik atera.

Eta geien geien baten, egon gakiozan Azkuek berak autortuari bakarrik. Zer egin eban berak eukazan aitaren bertsoakaz? Itzaurrean diñoana: ortografia, idazkerea barriztau, eta erderakadaren bat edo beste euskerazkotu. «Seme izateak (alan diño berak), eskubideren baten ondoren, eginbearra dakar. Semea naben aldetik, egin daidan berak egingo ebana». Ikusi dogu erderakadaren batzuk Eusebio Mariak berak euskerazkotu zituela, eta aitak euskerazkotutako batzuk semeak egin barik, erderakadan itxi zituela. Zeinbat ete dira semeak euskerazkotuak. Pamasoroako Liburuan: *fina* baten orde *bikaiña* bein, eta *zina* beste bein, *guardasoltxu* baten orde *euritako* beste bein, eta olangoren bat. Bear bada, geiago be baditu: santia-donea, nobia-emaztegai, urdina-azula, tigre-katamotz, izen ona-fama ona, lograu-lortu... Ez dot au ziurtzat emoten. Dana dala, orrenbeste egitea ez ete zeikeen seme izatearen eskubidetzat artu? Origaitik bakarrik ez dogu Azkue semea pekatu andi andiaren errudun egingo. Eta ortik goragoko pekatu berari ezarteko ez daukagu eskubiderik.

Aldibidetzat, aztertu daigun *Dies Irae-ko* bertso bat. Era bitara dakar Manterolak:

Eskatuten dot auspaz, erruen
pixuagaz makurturik,
eta bildurrak auts arina lez
neure biotza urundurik,
euki naizula neure azkanian,
arren, Jauna, zeure eskutik.

Eskatuten dot etxun ta larri
bildurren izerdi otzagaz,
ta arristasunak autsa bera lez
eio deusten biotzagaz;
zeure menpian azkan guztia
iminten dot fediazagaz.

Bonaparteri bialdutakoan aldaketa txiki bat dago: *auts arina lez* orren ordez: *sutako autsa lez*.

Parnasorako Bidean onela dago:

Arrenka nago auspaz ta larri,
erru-astunak makurturik,
eta bildurrak auts arina lez
neure biotza urundurik;
euki naizula neure azkanean
arren, Jauna, zeure eskurik.

Onek lengo bietatik zerbaitxo ba-daukan arren, ezin geinke ortik atera semeak beste biotatik artuta konpondua danik. Beste iturri bat, aitarene beste kopia bat eukan antza. Besterik esanaz, geure bumtik asmetan gabiltz, eta geure asmakizunak egi bakartzat artzen.

Gai au amaitutzat emoteko, manuskritoetan eta *Parnasorako Bidean* agertzen diran beste ezbardintasun bat edo beste erakutsi nai ditut orain. Eta auxe da bat: manuskritoetan osoago agertzen dirala bertso batzuk. Ezkontzak baserrian titulutzat daroenetan, esaterako, onako bertsook agertzen dira geiago:

Alper neskatxak eukiten dabe
eperdi mamin gogorra,
euren mutillak eioten deutse
kredo bi barru mokorra;
baiña mutillak egiten dabe
neskatxak baiño len txorra.

Au laugarren lekuan dator, eta azken aldera beste au geiago:

Eztegua egin ta arratsaldean
ez dira batera etzaten;
lastategira doa gizona,
ipoin mutuak esaten;
baiña emaztiak esaten deutso
itxaroteko gau baten.

Andra Ordia izenekoan iru estrofa geiago datoz manuskritoan. *Gaztelugatxera promesa*, barriz, ipuin ezaguna da: andra bat, gizonagaz batera, Gaztelugatxera doa santuari agindua betetan, eta etxerakoan euriak arrapetan ditu eta andreak estalgarritzat, aterkitzat gonea botaten dau atzetik buru ganera, eta goneagaz batera atorra. *Parnasorako Bidean*, azkenengo lau bertsoak falta dira, ipuiñari gatz eta piper guztia kentzen jakola. Ona azkenengo biak:

Gonak berantz botata,
furia bat legez,
gizonai asi jakan
andria negarrez:
zegaiti esan ez eutsan
koko buruandiak
billosik ekazala
eperdi alderdiak.

Errespuesta emon eutsan
gizonak patxorraz:
«Sinistuta zororik
emen etorri naz,
izan dala azkaneko
promesan zuloa,
ekartia agirian
tabernakuloa».

Azkue semeak kenduak, garbituak ete dira? Ala Azkuetarren etxeko kopiak bertso orrek galdu egin ete zituen? Ala aitzak berak, bear bada, bertso orrei lotsa gitxikoegiak eretxita, etxekoen eskuetan eurak isterik ez eban nai izan? Nik eztakit zer erantzun. Azkue semeak azkenengo lotsabakokeri ori kendu nai izan baleu, ipuin osoa gorde eta argitaratu barik istea eukan.

Gaur Karmel-en argitaratzen diranak

Nire kopietan iru lan dagoz oindiño argitaratu bakoak: Emen doaz bi, KARMEL onen orrietan lenengoz argitaraturik. Bata: *Kristinau emeretzigarren gizaldikoa*, fedeak eragiña. Bere egunetako Eleizearen egoerea ikusita, alde askotatik arerioen erasopean, bertsolari fededun onek minduta diardu, baiña Kristok esan eta agindutakoetan siñismen osoa ezarririk. Bestean, *Munduaren esku biak* izenekoan, gizarteko jokabide batzuk aztertu eta salatuaz batera, irugarrenari, Euzkadia poemari sarrerea ipinten deusala dirudi.

Eusebio Maria Azkue olerkariaren poema au askotan aitatu da. Eta iñok ez deusku aren argibide zeatzik emon. Neuk be, ez. Neuk be, birritan edo aitatu dodan arren, orretan uts egin dot. Azkenengoz, orain ateraten daragoiogun Iztegi andian, laugarren tomoan. Euzkadia ori, Eusebio Mariaren asmotan, Parnasoko musen artean euskaldunen musa dalakoa esan dot. Baiña oker esanda. Poema orrek ortik doala dirudi, baiña ez dau olangorik esaten. Nik be ariñegi irakurri dot antza, gan-ganetik. Edo obeto esateko, ez dot beste ori, *Munduaren esku biak* kontuan artu orain arte. Euzkadia titulua aituteko, nik uste, or daukagu giltza eta argia. Euzkal-musaren izena ez da Euzkadia, Euska edo Euzka baiño. Eta Euzkadia edo Euzkadia musa orri egiñiko poema.

Euska ala Euzka? Manuskrutoan Euzka irakurten dala esango neuke. Euskadia edo Euzkadia izen onen auzia eta esangurea bein eta betiko argitu dedin, ondo etorriko da poema bera osorik argitaratu eta ezaguerazotea. Bear bada, urrengo zenbakien baten egingo da. Gaurkoz beioaz beste biak: *Kristinau emeretzigarren gizaldikoa* eta *Munduaren esku biak*. Irurak dira 1862koak, eta irurotan bertsolaria bere lana amaitu eziñik gelditu dala dirudi. Azkenko kantuak ditu.

AZKUE AITASEMEAK AURREZ AUR BARRIRO:*

Parnasorako Bidea eta Poesía Bascongada

Amar urte da Azkue aitasemeen iguruan artikulu bat idatzi nebala KARMEL aldizkari onen orrietan(1). Gure artean indar artzen joiazan alan-olango eritxi batzuk salatzen nituen. Euren buruak aztertzaile artez eta zeaztat eukezananen uste-muste batzuk itxurazko oiñarririk ez eukela naikoa argi itxi nebalakoan nago.

Azkue semeari, bere aitaren goiti berako aldaketak egin eutsezala-ta, egin eutsoen kritikak ez eukan, euki be, oiñarri sendorik, ez urrik emon be. Kritikalariai oker ebiltzan; iturri geiago aratu eta aztertu bearra euken, itsu-itsuan iñoren pekatuak astintzen asi baiño len; aukeran eukezan iturrietara joaten be ez eben jakin; pekatu larriegia kritika-lanean sartu gura dauanarentzat, eta larriagoa, norbaiten aurka arrika badator.

Bide oker ori artzea 1959tik dator. Urte orretan agertu zan, Nikolas Alzola zanak aurkezturik, Azkue aitaren *Dies Irae*, euskeraz, Bizkaiko Aldundiaren Bibliotekan kopiatuta edo: 1861n euskeratzaileak berak Bonaparte Printzeari bialdutako kopia ei zan, printze adiskideari egiñiko karta bategaz batera.

Beingoan asi ziran irakurle zur batzuk zaiio txarrak egiten: *Dies Irae* au ez dator bat semeak *Parnasorako Bidea-n* argitaratu ebanarekin: Nondik dau, ba, ezbardintasuna? Argi dago; semeak aitaren bertsoak orraztu egin ditu, euskera obe eta garbiagoan argitaratzearren, antza. Salakuntza onek gero ta indar andiagoa artuko dau laster. Bermeoko eta Zarautzen olerkari orren bertso-mordo ederra dauke, egillearen eskuz idatzita. Bermeon ondo gordeta dauke frantziskotarren fraidetxean Aita Uriarte Arrigorriatarrak idatziriko *Poesía Bascongada* manuskritoa, joan dan gizaldiko oler-

* Karmel 1988-4, 6-18.

(1) lk. 550-560. orr.

kari bizkaitarraren bertso-bilduma, Eusebio Mariarenak barruan dirala. Aita Villasante argiak gain-begiratu bat egin deutse *Parnasorako Bidea-koai* eta manuskritokoai eta naikoa izan dau bere eritxi garbia emoteko: semeak argitaratuak eta aitarenak ez dira bapere bardiñak, askotan; semeak argitaratzerakoan, zearo aldatu eta ikutu gogorrek egiñik emon ditu argitara.

Esan bearrik ete dago geroko ikerlariak Ebanjelioa lez artu dabela Aita Villasante-ren epaia? Ala Itziar Lakak bere artikulua bat edo bestean, eta bardin Jon Kortazarrek Uriarteren *Poesía Bascongada* argitaratzean. Gure aldizkari onetan auzi au obeto ikusteko orain amar urte egin genduan alegintxoia alperrekoa izan da. Egia da gure artean, garean gitxiontzat, aldizkari eta paperik larregi agertzen dala, eta guztiok ezin geintek ez eldu guztiak írakurri eta guztietan idazten dan guztiaren barri jakitera; baiña alan-olango kritikazko arri bat jaurtiten danean, batez be norbaitzuen aurka bada, bide luzea egiten dau. Guzur argia eta uste ustela bada be, eztakit zergaitik eutsi egiten jako, ezta atzera egiten.

Onetan Azkue andia zorigaiztokoena dala esango neuke. Len, Barrutiaren ertilana zala ta etzala, jaso jakon. Pekatutzat salatu nai eutsoen Azkueri Barrutiaren *Gaboneko Ikuskizuna* argitaratzean izan eban jokaerarik argi ta garbiena: Barrutiaren testoa erderakada eta erderazko bertso ta guzti ezer aldatu barik argitaratzea. Azkue zanaren orduko kritikalaririk edo zaunkalaririk arek oartxo baten bere erabagia azaltzeko ipiñi zituen iru lerrotxo irakurten eta ulertzen be ez ekiela emoten eben. Bear bada, oindiño be lengo lepotik dauke burua. Eneuke ezetik esango. Oraingoan, bere aitaren bertsoak goiti bera aldatu zituela-ta, ortik datorkio arri jaurtitzailleen eraso. Nok idatzi ete dau Mitxelenaren izenean argitara dan Hiztegi Orokorra-k aurrean daroan Bibliographia? An dago lerro bitan esanda Lakak eta Kortazarrek euren egin daben epaiaren guzur guztia: Azkue semeak aitaren olerkiak oso aldatu atera zituela eta orain *Poesía Bascongada-n* daukagula Azkue aitaren benetako olerki-lana. Ori ara eroan dauanak ez deutso mesede andirik egin Hiztegi orri, eta bape bidebako iraiña Azkue semeari. Sorbalda sendoduna zan Azkue baiña, eztot uste irain ori, arri ori, miñik bapere artu barik jasoko ebanik.

Oker ulertu batzuen jatorria

Auzi onetan kritikalaririk artu eben bide okerraren nondik norakoa zelanbait argiturik gelditu da orain arteko lerroetan. Orain ikusi daigun non asi zan kritikalarion bide okertzen.

Dies Irae latinezko bertsoen euskerazko itzulpen biren aurrean aurkitu ziran. Bata ez etorren besteagaz bardin. Bata Azkue aitaren eskuz idatzitako paper batekoa zan, bestea jakin ez nondikoa. Baiña eurak euretara atera eben kontua: nor izango da, ba, errudun? Azkue semea, aitaren bertsoen argitaratzailea. Beste ezer asmetan ez eben jakin. Ez ete ekien ikerlari andiok eta kritikalaririk zorrotzok Azkue semeak aitaren *Dies Irae* ori argitaratu baiño askoz lenago Manterolak argitara emonda eukala beste *Dies Irae* bat Eusebio Maria berarena eta ez etorrela bardiñ ez Bonaparteri bialdu eutsongaz, ez *Parnasorako Bidea-n* argitaratuz? Ez ete eben Manterolaren

Cancionero Vasco liburuan irakurri berak argitara emoniko *Dies Irae* orrek Eusebio Mariaren esku-idazkietan estrofa mordo bat neurri berean baiña oso bestela euskeratuak eukazala, eta ez etozela bardin ez Printzeari bialduagaz ez Azkue semeak argitaratuagaz? Are geiago: Manterolak ez eban bakarrik *Dies Irae* euskerazko ori argitaratu; beste mordotxoak be bai. Eta barriro be gauza bera jaso jako: bein edo beste, beintzat, estrofaren bat bi eratara euskeratuta aurkitu dau.

Zer esan gura dau onek? Orain amar urteko KARMEL-en esan genduana. Or argi baiña argiago dagoana, begiak itxi gura ez dituanarentzat, zera da: Azkue aitak bere bertsoen kopia asko zabaldu zituela, eta asko oso ezbarđiak. Etzan, antza, bein egiñiko lanaz oso aserik gelditzen, eta urrengo kopietan ikutu barriak egiten eutsezan eta goiti bera aldatuak itxi. Au ikusteko, ezta neke andirik artu bear. Manterolaren *Cancionero Vasco* irakurri dauanentzat eztago gauza argiagorik. Eta Manterolaren liburuok oraintsu berrargitaratuak, nai dabenen eskuetan dagoz. Liburuok irakurri ez dituenari dana egingo jako illun eta ezin ulertuzko, eta olango azterketa ergelak egiteko arriskuan dago. Orain artekoai jaso jaken lez.

Lotsa emoten deutso bati olango gauzak ikerlari ain eskolatuai gogoratu bearrak. Ez Lakak ez Kortazar ez dirudi Manterolagana argi billa joan diranik. «Somero cotejo» eginari osoan sinistuta ibilli dira, itsua itsu-aurreko artuta, egiaren jabe bakar balira lez. Eta atzetik datozenak zer egingo dabe, ba, maisu ain andiai siñiste osoa emon besterik, Hiztegi Orokorriari bibliografia jarri deutsonak egin dauan lez?

Gure artean, sail batzuetan beintzat, kritika-lana, iker-lana mantarretan dago, oso narras dabil. Inñori etxako atsegin egiten olako akatsak salatzen beti ia maillu bereaz joten ekin bearra. Baiña salatu bearra dago, aspergarri biurtzeko bildurrak kenduta. Ez salatuak eztau arlo au garbiago itxiko.

Orain argitaratu barri dan *Poesía Bascongada*, Aita Uriarte bizkaitareren XIX-garren mendeko bertso-bildumak gure salakuntzak sendoago eta oiñarrituago baiña eztitu egiten. Zorionean eldu jako bilduma orri plazara urtetako ordua. Fraide frantziskotar orrek bere egunetan bildu zituen bertsoz osaturiko bertso-sorta eder ugaria da, gaur arte argitara bakoa. Aita Uriartek eta gure egunetan Aita Ruiz Larrinagak emon euskuen aren barri, Uriartek berak Bonaparteri idatzi eta Larrinagak Euskal-lerriaren Adiskideen Boletíñean orain ogetaka urte ezagutuerazo euskuzan eskutitzetan. Eskutitzon esku-kopia bat izan neban neuk be neure eskuetan aldikada baten, eta an ikusi neban Larrinagak argitaratutakoetan baten utsa egoala eta urrengo *Boletín* baten uts ori betetan lagundu neutsan aldizkariari.

Poesía Bascongada Bermeoko frantziskotarrak eukela-ta, ara joan nintzan bein manuskrito ori ikusi nai nebala-ta. Utsean gelditu zan nire asmoa. Uriarteren lana Arantzazura eroana ete zan erantzun eusten. Amalau bat urte geroago, Markiñan bizi nintzala, ara non datorren, manuskritoa eskuetan ekarrela, gazte bat, naparra bera, Arrigorriagan euskal-irakasle zana, eta Arrigorriagako seme Uriarteren gomutaz ikerlantxo bat egiten ziarduana. Derioko Seminarioan itxi eutsoela esan euskun. Eta gure egunotan Derioko Seminarioan izana dan batek, Jon Kortazarrek, bere andreagaz batera, orra non eskuetan ipiñi deuskuen goizetik gabera askok ezagutu nai genduan bertso-sorta eder ori. Bizkaiko Aldundiaren laguntzaz.

Or dator Eusebio Maria Azkue zanaren bertso-pillo ederra. Eztitu *Parnasorako Bidea-n* argitaraturiko guztiak; baiña bai an argitaratu bakoen mordo ederra be; eta bat, luzeena, Karmel-en orrietan ezaguerazoa (2), *Euzkadia*, poema asi eta amaitu bakoa (Uriartek oker irakurrita edo *Euzkaradija* egin badau be). Azkue semeak poema au ez eban ezagutu urteak geroagogarrenean aita Zalduak Zarauzko orijinaletik aldatuta bialdu eutsan arte. Gaur Bilbon Euskaltzaindiaren bibliotekan dauke.

Kortazarrek eskuerakutsi ederra egin deutse euskalzaleai, egia esateko. *Poesía Bascongada* orretan be naiko argi ikusten dogu Eusebio Mariaren bertsogintzako jokabidea, bertsoak kopia batetik bestera aldatzea. Aldatu egiten zituen euskerazkoak ez eze, erderazkoak be bai. Eta nori jatorko burura erderazko orreik be Azkue semeak aldatu dituela? Orregaiti, barreguretxoa emoten deusku Kortazarrek onako uskerietan sartzen danean: emen izenburua, tituloa aldatu deutso, beste orretan ez ditu maiuskulaz asi bertsoak, edo zeruak emonik diño *Ceruac emonic* idatzi bearrean eta olako ainbat uskeritxo, lerro eta orrialdeak betean, alperrik. Ortografi kontuan gauza jakiña eta berak autortua da Azkuek orduko geienen ortografiara aldatu zituela aitaren bertsoak. Are geiago: beste gramatika-arau batzuk bardin aldatu eutsazan aitari, aitag be geroago bizi izan balitz, alan egingo ebalata, esaterako *-ea, ija -oa* (bakea, osoa, zuria egiñez eta ez *bakia, osua, zurija*). Aita Uriartek be ez eutsan jarraitu *Vizcainja, bildurgarrija, arguija* eta olakoetan, ezta Manterolak azkenengo tomoan.

Aita Uriarteren lana eta Jokabidea

Uriartek egin dauena kopi-lana izan da. Ez dagiala iñok uste or Eusebio Mariaren orijinalak daukaguzanik. Eta olerkari orren lan guztien bilduma ez izanaz gaiñera, kopiatzailleak bere ikutuak egin deutsoz arek egiñikoari. Eta ez bakarrik ortografian. Aita Uriarteren kopian ez da agertuko Eusebio Mariaren ortografiak daukan ezaugarri oso ezagun bat, hatxea jota ondoren jarria:

Nai dozula, Fr. Jose
zortziko barrija?
Beste oñ bat imiñi, ta
or dozu erdiña?

Uskeria baiño ezta, baiña Uriartek H kenduta, J hutsa kopiatuko dau eta arrija eta erdiña idatziko. Eta ainbat lekutan dator idazkera ori, hatxedun ori, Eusebio Mariaren bertsoetan: jharri, jhaso, jhaio, jhagi, epaija, jhosi, bihotz, errukijha, eta olakoak idaztea da aren ortografiaren ezaugarrietako bat eta Uriarteren kopian bein edo beste baten baiño ezta agertzen.

Orrez gaiñera, Azkue aitaren euskereari Uriartek bereak zituen gramatika-lege batzuk ezarri deutsoz, olerkariaren forma batzuk zuzenduta. Eusebio Mariak aurrez erabilten zituen Bizkaian eta Gipuzkoan leku askotan ondo sartuta dagozan deklinabideko lege batzuk: *andreañ, gizonan, mutillan, gizonantzat, andrearen, gizona-*

ren, mutillaren, gizonarentzat eta olako era osoagoen orde. Uriartek orretan bere eskua sartu dau, bertsoaren neurria bera be kontuan artu barik. Eta bein eskua aurreregi joan jakola esango neuke. Ziri-bertso bat Azkue semeak onetara dakar *Parnasorako Bidea-n*:

Eskribauen egia
eta andrean negarra
eta isila atso zarra
guzurra (da) guztia.

Azkue semeari or uts batek urten eutsan guk taket artean jarri dogun (da) ori. Manterolak be bardin dakar, edo ia bardin *andrea*n orde *andria*n jarrita. Baiña, antza, aita Uriartek erabilli eban kopian edo orijinalan ez etorren ez *andrea*n ez *andria*n, beste itz itsusitxoagoa baiño: *Hembria*n negarra, Zarauzko manuskritoan datorren lez. Eta zer egin dau? Zantarregi eritxi deutso itz orri, eta euskera garbiagoan jarri gura izan dau eta itzik luzeenera jo dau orretarako: *Hembria*n negarra *emakumiaren negarra* egin deusku, bertsoa luzeegituz. *Andria*n ikusi baleu, *andria*e'n egingo euskun, beste guztietan egin dauan lez; *gizonaen-mutillaentzat* eta olan.

Beste ikutu bat Uriartek orijinalari egiña: Bizkaian eurrez erabilli izan diran eta erabiltzen diran formak doguz: *antziñarik* ona, *atzorik* ona eta iñok ez dau esango oso jatorrak ez diranik, bearbada jatorrenak. Eta ez Bizkaian bakarrik, beste euskalki batzuetan, urriñenekoetan be erabilli izan *da-ti edo-di* atzizkia onela: gure *aurreti*, *ganeti*, *atzeti*, *gaiti*, *orregaiti*, *zergaiti* edo *zegaiti*; *andi*, *orti*, orrelantxe, batetik -rik eta bestetik -ti itza beste barik. Uriarte beste oitura batera eginda dago, eta bere gramatika-legeetara ekarriko dau Eusebio Mariaren euskera: *antxiñatik* ona, *aurretik*, *artetik*, *agaitik*, *andik* eta olan, forma orreik jatorragotzat edo zuzenagotzat artuta edo. Azkue semeak egin eztauana.

Beste itz batzuetan be Eusebio Mariarenak zuzentzera egin dau aita Uriartek. Eusebio Mariak non nai eta noz nai erabiltzen ditu onako itzok: *Azkana*, *igaz egin*. Aita Uriartek zuzendu egiten deutsoz, *azkena*, *iges* egin. Azkue semeak egin eztauana, emen be. Bere seme-eskubideak ez ditu orrenbesterañño eroan. Uriartek seme-eskubiderik eztau gogoan izan, baiña bere ikututxoak egin barik ezta gelditu olerkariaren bertsoak kopiatzerakoan, eta ez deusagu orretan pekatu-rik, ez larririk ez txikirik ezarriko, bere eskuetan gordetako egiñak zituen eskero kopiak, eta ez argitara emoteko. Bere euskalzaletasunak eragiñiko lana zan egin ebana.

Azkue semearen jokabidea

Azkue semeak garbi autortu dau berak aitaren bertsoakaz egin dauana: idazkera (aitaren idazkera bitxitxo) eta itz bat edo beste aldatu. Ori egin dau seme-eskubidea artuta, aitak orduarte bizi izan balitz, alan egindo ebalakoan. Aitaren ortografiako bitxikeria (*barrija* eta olakoak erabiltea) kendu egin deutso, Manterolak be azkenengo urteetan kendu eutsan lez. Lenengo emonaldietan Manterolak

olako itz guztiak gorde egin eutsozan, *Dies Irae* itzultzekoetan esaterako: azkenengo tomoetako bertsoetan ez.

Azkuek itz bat edo beste aldatu egin eutsazala difio. Eta liburuaren barruan bi edo iru bider bertsoaren azpian jarri dau zein itz izan dan aldatua; Bein/mcz-ren ordez *bikaiña* (bertsoneurria aldatu barik), beste bein *guardasol*, *euritako* biurturik, irugarrenez *urratsa*, *pausua* esateko. Beste bein *Antziñarik ona* olerkian *balitzete* irakurri dauan lekuan, Manterolak *balitz ere* jarri ebanean, *balitzate* obe legokela baiña, *balitzete* itxi dau. Antxe bertan Uriartek *baldin balitz* emon dau. Zuzen ala oker? Bear bada olan ekarren Uriartek aurrean izan eban kopiak; bestela or Uriarteren ikutuen bat izan dala esan bearko geunke. Bartolome Erzilla zanaren euskerazko kantutegian be *balitz ete* irakurten dala dirudi. Azkuek irakurri eban lez. Uriarteren *baldin balitz* berez jator badago be, beste iru irakurkeratatik urriñekoena dala argi dago, eta bego or Azkue aitak zabaldu zituen kopia ezbaridiñen ezaugarri. Or ikusiko dabe gure ikerle eta aztertzaile zorrotzok emen «somero cotejo» egiteak ez dauala balio eta ez garoazela ifiora.

Iru lau itz orrez gaiñera, besterik aldatu ete eutsan semeak aitaren bertsoai? Nik neure *Karmel-eko* idazlanean beste itz batzuetariño eroan neban semearen aldaketa-lana, ezer ziurtzat emon barik. Orduan emon nituen berba batzuk kendu egingo nituke gaur. Katamotz, esaterako, *tigre* esateko, Uriarteren kopian be agertzen da noz edo bein. *Azula* eta *jira* dira Eusebio Mariaren bertso kopia batzuetan sarri aurkitzen diranak, baiña semearen *Parnasorako bidea-n* beti *urdiña* eta *bira* irakurtzen ditugu. Ortik aitaren bertsoai semeak goitiberako aldaketak egin eutsazala esatera alde andia dago, eta besterik difioenak ezelango arrazorik ez argibiderik eztabe emongo, euren «somero cotejo» orrena ez tala. Semeak Uriartek baiño begirune eta lotsa geitxoago deutso aitaren testoari askotan.

Badakigu zergatik dabiltzan gure aztertzaile eta kritikarariok nora ezean nondik nora dabiltzan ez taktiela. Euren buruetan sartuta dauke Eusebio Mariak bere bertsoen kopia bakarria idatzi ebal. Euren eretxian Aita Uriartek zeatz artu eta zuzen jaso zituen bere *Poesía Bascongada-n*; semeak ostera an or emen goitibera aldatu eta olantxe argitara emon. Eztabe kontuan euki ez Manterolak bere *Cancionero Vasco-n* argitaraturiko bertso ezbaridiñen susmorik, ezta Zarauzko manuskritokoenik. *Parnasorako Bidea* liburutik Uriarteren *Poesía Bascongada-ra* alderik bada, bertsoak bietan bardin ezpadatoz, eurak badakie nor dan errudun. Azkuek bertsoai askotan izenburuak eurak be aldatu egin ei deutsez. Uriartek *Ez dago falta bagarik* badakar eta Azkue semeak *Iñor eztago gogo-beterik bere zoriagaz*, or semearen esku zuzentzailea ibilli da aitaren euskerea garbiago aurkeztutearren. Manterolaren liburua ikusi balebe, an irakurririko eben titulu bardiña, semeak *Parnasorako bidean* baiño ogei urte lenago idatzita.

Zelan esan bearko eta deutsegu kritikarari itsuoi oker dabiltzala eta euren okerretik urtetako gaur aukera erreza daukela Manterolaren lana neure itzaurretzoaz iru tomotan argitara emona dogun ezker? Zelan esan bear ete deutsegu euren buruan sortutako ipuiña dala Azkue semeari ezarri nai deutsoen aitaren bertsoak euskera

garbiagoan atera bear itsua? Itsu dabiltzanak nortzuk diran argi dago emen. Gauzea bear dan lez aztertu barik, edozer esateko eskubidea artzen dabenak. Maixu-antzak artuta, edozer zeatz aztertzeo eta edozertaz azken-itza esateko, «somero cotejo» egitea naikoa dabela uste dabenak. Eta gero, edozeiñek erabili oi dabezan gaiak ez diranez, nok siñistu errez aurkituko dabela badakie, eta zoritxarrez alan jasoten da.

Orain *Poesía Bascongada* argitaratzeak argiago baiño ez deusku ipinten amar urte dala esan gendua: Eusebio Mariaren manuskritoetan ainbat bertso gelditzen zirala garbiagoak *Parnasorako Bidea-an* semeak ezaguerazo eskuzanak baiño. Zergaitik, bada, semeak bertso garbiago areik itxita zatarragoak atera zituen? Berak ez zituelako, eta, esaterako, Zarauzko manuskritokoak ezagutu ez zituelako, aita Zalduak azken urteetan kopia aterata bialdu eutsan arte.

Manuskrito orretatik emon genduan Karmel-en *Euzkadia* poema amaitu bakoa. Eztakigu orain zergaitik datorren Kortazar Uriarte aitaren kopiaz Euzkadia ori *Euzkaradia* egin gurez. Ez ete dogu or Uriarteren oker irakurteren bat? *Euzka* da Eusebio Mariaren bertsoetan euskal-musaren izena, eta ortik atera eban gure olerkariak Euzkadia, lenengo erroa *Euzka* dauala, eta ez *Euzkara*.

An atera genduzan, Zarauzko manuskritotik jasota, amasei bat bertsoaldi semeak argitaraturikoak baiño askosaz garbiagoak, eta puntu ezbardiñekaz be bai. Orain *Poesía Bascongada-koak*. ikusita, «Cotejo somero» egitea naikoa da (oraingoan bai), gauza bera ikusi ta esateko: iturri ezbardiñekoak dirala eta ez dala ikusten zein dan zatarrago ez zein garbiago askotan.

Nai dauanak ikusi dagian, ona «uledun bati» izenburua daroan ziri-bertso laburra.

Azkue:

Zeurea dala ulea
dinozu Marianton;
bai, ze ezteutsula Pons'ek
doan emon Bilbon.

Uriarte:

Zeuria dala ulia
diñozu Marianton;
erosi zendulako
diruagaz Bilbon.

Azkuek dakarrenak eta Manterolak argitaratuak iturri bera izan dabela dirudi, fonetikaz aparte. Uriartek Zarauzkoa izan dau, antza, aurrean, baiña Zarauzkoaren *zendulako* luzetu eta *zendualako* egin dau, bertsoa be luzetuz. Baiña zein da garbiena?. Iñok eztau esango Azkuena dala. Len ikusi dogu beste ziribertso bat, iru guzurrena, Uriartek ezarri deutsan beste luzapen bataz.

Bertso luzeagoetanaldaketaedo ezberdintasun andiagoakagiridira. *OnaZalduna ta Damia* (damea Azkuek) olerkariaren asierea:

Azkuek:

Bata bestean besoa artuta
kapa-barruan biak ostuta
ebiltzan Bragas ta Maria
ianda aparria.

Uriartek:

Bata bestiaren besoa artuta
gaubian kapa baten ostuta
ebiltzan Bragas eta Mariya
jai ze gloriya!

Iturri ez-bardiñeko bertsoak oneik be. Testo bi, iturri bi. Uriartek oi dauan ikutua egin deutso; *bestian* barik, *bestiaren* kopiatu dau, bertsoa luzetuta.

Askotan batak ez daroa bestearen antz andirik. Ona Buenos Aires aldeko euskaldunarena:

Azkuek:	Uriartek:	Zarauzkoak:
Buenos Aires aldeti artu dot karta bat eta orain esateko zer dinoan berak euskaldun mutil gazte buru zoratuai eldu iat naiaria eta eztot itxi nai.	Buenos Aires aldetik artu dot karta bat eta bertsoan iminteko asmua gaur daukat: andik daganu batek emengo euskaldunai neure bitartez bota deutsena gustijai.	Buenos Aires aldeti artu dot karta bat bertsoan iminteko gurarija daukat andi dagoan batek emeko euskaldunai neure partez bota deutsena gustijhai.

Emen bertso baten iru aldaketa daukaguz. Zein ibilli da emen bata besteari zuzenketak egiten? Iruretan Azkue aitaren eskua bera. Uriartek *andik* eta *aldetik* orrekin bere ikututxoak egin deutsez Eusebio Maria beraren manuskritoko itz orrei.

Ikusi daigun orain Uriartenean *Gerria*, *gosia* eta *izurrija* izenburua daroana eta Azkuenean: Gudua, gosea ta izurria. Ona asierako estrofa biak:

Azkuek:	Uriartek:
Tmmoiak ots egin dau eta oñaztarria dator gure ganera ikaragarria! Gudua! eta zer da munduan gudua? Geuk merezi dogun Jaunen gorrotua, Luzbelek biurtuta kerubin okerra geure Jaungoikoari egin eutsan gerra, ta Miguelek goituta bere andikeria betiko da infemuan deungen nagosia.	Trumoi eta oñastarrija beragaz munduak darabiltz kenduteko bere pekatuak: onek dira guerra, gose ta izurrija, lenengo, bijak plagak, bestia andija. Luzifer anditsuak aingueru aserria zeruan eregi eban lenengo guerra ta Miguelek goiturik dauka sentenzija izateko infemuan deungen nagosija.

Orra poema bat beraren bi aldaketa, bertso egitaldi banatan egiñak. Onango aldaketak, idazle berberak egiñak, argiago egiten jakuz *Poesía Bascongada* liburu-koak ikusita. Libum onetako *Stabat Mater* eta *Euskalerrria* aldizkarian ateratakoa ikustea baiño eztago. *Parnasorako Bidea-n* ezator Azkue aitaren euskal itzulpen ori; bai aldizkari orretan, Manterolak argitara barik itxi zituen orrietatik artuta. Nekez aurkituko dogu bietan estrofa bardiñik, baiña biak dira Eusebio Mariaren lumatik

urtenak. Zelan esan bear ete jake gure kritikalari ain ariñoi guztiz oker dabiltzala, itsu itsuan diarduela?

Ia aspertu da gure irakurlea lan au onaiño irakurteko gauza izan bada. Eta berau irakurteak bear bada agoan itxi deutsan mingoztasuna gozatzeko, atsegingarriago egingo jakon barri bat geitu gura deusat: laster, zorionean, Azkue aitaren lan guztien edizio osoa Labairuko gazte batek gertauta daukala. Edizio osoa eta al danik kritikoena, iturri guztietako urak artuta, *Parnasorako Bidea-úk*, *Poesía Bascongada-úk*, Manterolaren *Cancionero-úk*, eta bear bada beste iturri batzuetatik: *Irurak bat* egunkaririk, Bartolome Erzillaren euskal-kantuetatik. Bartolome Erzilla onek be badakar bat olerki beraren irugarren aldaketa bat daukana: *Emen nago ni tristia*.

Ordu dogu *somero cotejo* egilleen eskuetatik auzi au aterateko. Ordu dogu uskeri utsezko kritika eta salaketak egiten ekitea isteko, emen olerkiari titulua aldatu ete deutsoen edo ezdeutsoen, edo or bertso guztiak minuskulaz asten diran ala ez, edo bertsoak zenbatu barik dagozan ala ez, eta eztaikit zelango uskeri geiago. Batez be, edozein gizoni lez, euskerak izan dituen maisu andiai lotsa ohea izaten ikasi daigun.

Hiztegi Orokorra argitaratzen asi barriari ez deutso mesede andirik egin aren bibliografian *Parnasorako Bidea-ú* eta aien argitaratzaillari dagokana idatzi daue-nak, «cotejo somero» egillea gidari artuta. Egia eztanari indar barria emon deutso, eta euskal-iztegitantza bide zuzenean ipiñi ebanari, R. Maria Azkue zanari bear ez eban iraiña egin deutso. Noz arte irauñ bear ete dau bear-eztankeri onek?

GITXI EZAGUTUA DAN EUSKAL IDAZLEA: ENBEITA'TAR IMANOL (1884-1946)*

Ona euskal-idazle bat, gitxi ezagutua nire ustez, gure idazleonean artean zor jakon maillarik autortu ez jakona. Enbeita'tar Imanol Muxikako Urretxindorra izen ordeaz ain ezaguna dogun Kepa zanaren anaia da eta, ain zuzen, Keparen ospeak anaiaren izena illunpean itxi dauala esan geinke. Baiña nok daki edo nok gogoratzen dau Urreintxindorra izen orde ori Kepak Imanolentzat erabilten ebala? Olan erakutsi eban anai au bera baiño bertso-asmatzaille kaskarragotzat ez eukala, nire ustez. Eta gero, Imanolek beste alderdi bat dauko, beste arlo bat, euskeraz geiago landu ebana: gazetalaritza. Jakingarria eta aintzat artzekoa dala uste dot arlo onetan egin eban lana, ixilla baiña ederra, *Zomotzan Jaungoiko-Zale* "n asi eta gero *Euzkerea* aldizkarian eta *Euzkadi* egunkarian, 1936ko gerratean ixildu bearra etorri jakon arte. Euskal-gazetalaritzan gure egunotako idazleentzat ez eban orduan ikasbide txarra emon.

Gazterik bertsolari

Enbeitatarrak bertsolari eskolea etxean berta euken. Bertsolaria eben aita ta bertsolari urte eben aren iru semek: Kepak, Imanolek eta Santik, azkenengo onen bertsorik gitxi ezagutzen badogu be. Kepa da iruretan zarrena eta ospetsuen egin zana: Imanol bigarrena, 1884n jaioa, Kepa baiño sei bat urte gazteagoa.

Anai bion izenak XXgarren gizaldi onen asieran urten eben lenengoz plazara euren bertso-sail batzuekin, 1902-1903ko urteetan ateraten zan IBAIZABAL aste-karian. Eta bein, biak batera datoz, batak besteari botatako zazpiña bertsokaz: *Bei zarraren* bertsoak. Ezagunak dira Kepa Urretxindorraren bertso-liburua irakurri

* Zer(1988, 118.zenb.) 2-4.

dabeneztat. «Muxikan gertatua» titulutzat ebela agertu ziran IBAIZABAL'en 1903ko zemendiaren, azaroaren 22n. Sarreratxo bat ipiñi deutse bertsoai. Lau aita- seme bertsolari bizi dira etxean, morroi bat eurekaz eukela. Gaualdera morroia kortara joan da bei zarrari eznea eratzi naian, aparitan artzeko. Morroiak ezin izan deutso eznerik eratzi. Bei zarrak ostikoaz jota pitxarra be ausi egin deutso. Morroiaren txandea artuta, alperrik joan da Imanol kortara. Beiak ostikoaz belauburuan jota, albora bota dau. Akulluta artuta, alperrik ekin deutso gero beia bere esanera ekarten. Eta or asi da bertsolarien txandea, Kepa Imanoli adarra jotzen asita:

Komedi-tokia da
gure okullua,
beiak adarrak dantzan
ta ik akullua;
bigarrenez or abil,
mutil kankallua,
esnez bete eziñik
eure katillua.

Eta Imanolek:

Ni baiño geiago dok
bei zar au indarrez.
ostikoka eiten jok,
gaiñera adarrez:
esnerik ezin kendu
ta i ortik barrez;
pazientzia artzen
ez dok errez errez.

Olantxe luzatu dabe bertsoaldia batak adarra jo eta besteak asarre erantzun, zazpi bertso alkarri botata (Keparen bertso-liburuan seiña baño ez dagoz). IBAIZABAL astekarian beste bertsozik ez dator. Baiña etxeko lau bertsolariatatik aita ixilik egon bazan be, anai gaztetxuak emon ei eutsan azkena beste bien bertsozko burruka ari. Ziri polita azkenengo puntuan bota eutsena:

Kopla ugari baiña,
pitxerra utsien,
esnezko apararik
ez dau arratsien.

Ibaizabal'ek urrengo zenbakian ekarri eban bei zarraren azkena be, Imanolen bertsotan azaldua. Gemikan saldu ei eben, eta eroslea ta saltzailleak pozik itxi ei zituen, beintzat.

Beste bost edo sei olerki geiago atera zituen Imanolek astekari berean: Kepa anaiari (beronen ezkontzea zala-ta), Elizetxea olerkariari, lore usaintsu biri, dama gazte bati, nere maiteari, eta *Bizkaitarren Poza* izeneko. Guztiz, zortzi bai, gitxienez.

Bertso guztiok, ogei urte egin baiño lenagokoak ditu. Andik iru urteren buruan, beste agerralditxo bat ezagutzen jako, 1906n *Aberri* aldizkarian *Arana Sabiñen Gomutan* argitaratu eutsoen olerki gartsuagaz. Abertzaleak askotan abestu ei eben olerkia, ain zuzen. Ona bertso bat:

Abertzaliak zer ziranik be / guk ezkenkian antziña:
 Sabin maiteak argitu arte / illunik gendun adiña.
 Zer izango zan gaur arte, Sabin, / geugaz bixi izan baziña?
 Euskadirentzat poztasuna ta / Gaztelarentzat samiña!

(Irakurleak bein baiño geiagotan ikusiko dau, zein aldizkaritan idatzi, alan euskal ortografia aldatuta agertuko dala).

Ameriketara

Ameriketarako bidea artu eban Imanolek 1908n, ez dakigu zegaitik, ez dakigu zek eroanda. Euskaldun askoren bidea zan Ameriketarakoa, eta ez da arritzekoa Imanolek be bide ori artua. Amalau bat urte egingo zituen andik, luma-lanean antza, ez euskerazko bertsozik egiten, baiña bai langelaren baten etxeko kontuen eta sartu-urtenen kontua eroaten. Lan-leku ori non eban be badakigu: Argentina'ko Hale'n. Ameriketarako ontzia artzeko zala, Kepa anaiak Bilboko *La Gaceta del Norte* egunkarian bertsozko agurra, agur laburra, zuzendu eutson. Baiña badakigu Ameriketako urriñean Imanolek ez ebalu bere euskeraz idazteko lumea ugartuten itxi. Ara joanda zortzi bat urte geroago, 1915n Kepari bialdu eutsazan bertsoak alan diñoskue. Argentinan bere lanari lotuta dago, baiña bai errimiñaz jota be. Biotzak, Iparragirreri beiñola lez, zoaz Euskalerrira diñotso Muxikako seme bertsolari oni be. Bertsoak *Euzkadi* egunkarian agertu ziran. Kepak Bilintxen bertso batzuen neurri eta doiñuan kantateko bertsozko erantzuna bialduko deutso, eta berak neurri berean erantzungo deutso Kepari. Agirian dago Indietako bizimoduak ez deutsala poz andirik emoten eta andra euskaldun bat artzeko gogoia be ageri jako. Ona berak bertsoetan esanda:

Gaur Indietan eztok ernetan
 urrezko lorarik landetan.
 Emen be, Kepa, ortxe lez dabiz
 txakur goseak ortoz ortozik.
 Eta katurik
 lukainka lokiz ez dau loturik.
 Gaur etxauk emen lengo konturik.
 Ene abian, ni aspaldian
 naiabik uso bat neugandu naian;
 baiña euskeraz abesten danik
 ezin idoro emen baiña nik!
 Au lorra, Kepa!
 Ama Euzkadin ixango da-ta,
 bialduidak bat onantz egaka!

Amerika itxita, berak Muxikara joatea daukala izan da Muxikatik joakon eran-tzuna. Alan, benetan-txantxetan, andik sei bat urtera, Euzkadin zan Imanol, eta laster ezkonduko da Urkiolako Sanantonioen eleizan, eta emen geldituko da betiko andik aurrera.

Jaungoiko-zale'ko lan-urteak

Imanol ezkonbarri zala, luzaro barik, ez zan euskerarentzat giro ona jarri Bi-dasoaz onantzako Euskalerrian. Primo de Rivera militarren indarrez agintari jarri eta beingoaz asi zan Gaztela'ko erderaz osteango izkuntzai eutsen gorrotoa ta gatx-eritxia erakusten. Politika usaiñeko ainbat aldizkarik ixildu bearra izan eben. Egunkarietan galerazota gelditu zan euskeraz idaztea. Esate baterako, Kirikiñok *Euzkadi'n* idazten eban euskal-orria mutu gelditu zan iru urtez, 1926ko azken aldera arte. Imanol-ek orraitio, Muxika'tik ur dagoan Zornotzan aurkitu eban lan-lekua. Non? *Jaungoiko-Zale* Bazkunakoak an euken irarkolan eta aldizkarian. *Jaungoiko-Zale'n* lekua aurkitu dau. Bazkun orretakoakaz bera gogo bateko egiñik dabil eta eurekaz lan egingo dau 1927, 1928 eta 1929ko urteetan. Emen darabilen izen-ordea: *Garbi-nai* da. Andik gerora, askotan erabiliko dauan izen-ordea, batez be olerkietan.

Baiña ez da izango olerki utsezkoa *Jaungoiko-Zale'n* aterako dauan lana; itz-lauzkoa, Gaztelari-lana be bai. Batez be, Jaungoiko-Zalekoak, erriz erri eragiten dabezan ume-jaien barri emoteko. Olako ume-jai-aldietan askotan aurkitzen da Imanol albistari-lana egiten, zelango jaiia egin zan eta zelango sariak nori emon jakozan Aldizkarian aterateko. Eta bein baiño geiagotan, tartean tartean bertsoak sartzen ditu. Olango egun baten barri, Arrasaten bein egin zanaren barri, guztia bertsotan emon eban. Baiña beste batzuetan tartean sarturiko bertsoakaz eguneko txostena edo albistea jantzi baiño ez dau egingo.

Jaungoiko-Zale aldizkariaren orrietan luzarotxoan agertu ziran Bazkun orrek argitaraturiko liburuen barri zabaltzeko Imanolek (Garbi-Naik), egin zituen bertso batzuk, liburu bakotxa banan banan izentauta. Garbi-Nai'k olerki mordoia dauka Zornotzako aldizkari orretan argitaratuta. Era guztietako bertsoak dira. Aitatu dai-guzan batzuk, Doktor Asuero'ren omenez atera zituenak.

Urte areitan ospetsu egin zan Donostiako osalari ori. Surreko mintz baten ikutu bat egiñez, beste barik osaturik bialtzen zituen etxera erreumaz edo ibili eziñik ebilzan geixo asko. Baster guztietatik etorkiozan geixoak osasun eske. Portugalera eta Ame-riketara joateko be deiak artu zituen. *Jaungoiko-Zale*»koak Eibarren ume-jaien bat euken baten, euren bazkide egin ei eben Asuero ospetsu ori, eta euren aldizkariaren arpedun. Imanol'ek, *Jaungoiko-Zale'koen* izenean umore ederrez eskertu eutsan dana, benetan-txantxetan. Ona bertso batzuk:

Arantz juañ naiz onantz etorri,
dabilen leku guztietan
atzean ditu gexoak eta
ez dautse isten baketan.

Besterik ezik, negartituta,
 etxuten jakoz oiñetan,
 eta Asuerok surretik jsasta!
 osatzen dituz berpetan!...

Osalaritzan gorantz ein dozu
 goren dagan maillara
 eta bertatik geure bazkide
Jaungoiko-Zale'n ein zara,
 Emen poz-pozik artzen zaituguz
 eta etxeko antzera,
 surreko batzuk eztenaz artzen
 alako baten or gara!

Jaungoiko-Zale'ko Imanolen aldi au ez dogu iñon aitatuta ikusi. *Garbi-Nai* onen bizitzako unadarik ez-ezagunena dala-ta gagoz. Olerki-lanaz gaiñera, antxe asi zan albistari-lana egiten. Eta *Jaungoiko-Zale'koakaz* etxeko eta osoan bat eginda ibilli zala dimdi.

EUZKERIA aldizkariko eta Euzkadi egunkariko lana

Primo de Riveraren esku gogorra bigundu danean, zapaldirik eukazan indarrak buruak jasoten asi dira. Len ixildurik gelditu ziran Euzkaltzale Bazkunakoak aldizkari barria sortu dabe: *Euzkerea*. Oraingo au, euzkeraz eta erderaz. Urrengo urtean asita, aldizkari barri orretan da Imanol, Enbeita'tar Imanol edo E'tar I, Garbi-Nai eta Ibon edo, Uribitarte'tar Ibon izenorde barriaz idazten. Euzkerea'n be bertsozko lana eta itz-lauzkoa egingo ditu. Olerki-lana, Jon Bilbao jaunaren Bibliografiak (dana ezpada be) jasota dauko: itz-lauzkoa ez. Itz-lauz, kontakizunak, ipuiñak eta abar emoten ditu. Eta Albistari-lanak, Euskal-jaialdien bat Bilbon izan bada, euskerazko itzaldirik edo mixiñorik emon bada, Bilbo edurrak zuritu badau, eta olakoetan, Imanolek egingo dau albistari, eta albistari zeatza ez ezik, txukun idaztera egiten dau. Albisteetan eurentan be olerkariaren sena agertzen jako.

Jaungoiko-Zale'n lez, *Euzkeraan* be barru-barruko egiñik agertzen jaku. Bere ardurapean dago askotan Aldizkaria bertsoz ornitzea, beraren edo besteren olerkiz, jakiña. Igarren eta laugarren urtean sartzean, Aldizkariaren izenean Uribitarte'tar Ibon'ek izenpetuko dau urte barriari eta irakurleari egiten jaken agurra. Bosgarren urteak ez dakar olango agurrik, eta Imanol mutu gelditu ete dan esan geinke. Baiña seigarrenean eta zazpigarrenean (1934-35) olerki batedo beste Garbi-Nai'ren izenpean datoz. Zer dala-ta mutu edo erdi mutu gelditze ori? Zer jazo jako Imanoli? *Euzkadi* egunkarira aldatu dala, eta eguneroko *Euskal-atala* aterateko ardurea eta lanik geiena berari ezarri deutsoela.

Euzkadi egunkarian

Eta emen, Euzkadi egunkarian emon eban Imanolek bere euskalzaletasun sendoaren neurria, emen erakutsi eban bere lanerako gogoia eta kemena. Emen jarraituko dau 1933n asi eta 1936n militarrek sortu euskuen gudate zitaleko egunetara arte.

Guri, urte arein inguruan eguneroko orri albistarietara begiak zabaldu genduzanoi, *Euzkadi* egunkariak ekarren *Euskal-atala* irakurriaz, Urribitarte'tar Ibon izena oso etxeko eta begiko egin jakun. Lenengoko orrialdean etorren Egunerokua'k eta azkenengo orrialdeko *Gaiak* izenpeko lanak munduan zear eta Euskalerrian jazoten zanaren ia mami guztia eta ikuspegitxoa emoten euskun. Astelenak kendurik (Astelena *Hoja del Lunes* eritxon orriarentzat zan ezkerre), gaiñerako egun guztietarako eukan Urribitarte'tar Ibon'ek, Imanolek, zer esan, zer azaldu edo zer jorratu. Ez da gero neke txikia eta egiteko makala be, eguneroko, egunkariko orri bat osoa bete bearra. Gure egunotako euskal-gazetelariak lan orren astunaz jabetzen dirala uste dot. Euskal-gazetelariak iñori omenik zor bajako, bat Imanol au dala nik uste. Gaurko gure gazetelariak, ainbeste diru-laguntzaz eta taldean eta alkar-lanean ekinik be, ez dira askotan gauza izan eguneroko euskal-atal ganorazko bat betetako. Ibon, bere lan-gelan bakarrik, bera zan naiko askoren lana egiteko. Astelenetan be ez eban opor andirik edo osorik artuko. Urrengo egunean, asteartean, idazlan luzeago eta beteagoa aterateko astia artuko eban geienetan.

Bakarrago zan, urrean, 1936ko gerratea sortu ta urrengo illabete batzuetan Euskalerrria indarkeripean zatituta, euskal-idazleak sakabanaturik eta noraezean, Imanol nora jo ez eukala aurkitu zanean, euskal-atala ornitzeko gairik edo lanik billatzeko. *Gaiak* eritxon bere sailla beteaz gaiñera, or joko eban nonbaitera, bere liburutegiko aldizkarien batera edo, andik bere Euskal-atala zelan edo alan, zer edo zegaz beteta aterateko. Edozer, eguneroko orria bete barik itxi baiño lenago. Urte atako udazken guztian, ez eban burruka makala eroan eguneroko militarren arrazoirik eza edo kristiñautasunik eza edo beste guzurrezko jokabideak salatu eta astintzen. Urrengo urtean, 1937n talde baten ardurapean edo Agintarien laguntzaz, *Eguna* euskerazko egunkaria, lenengo euskal-egunkaria, sortuta, gauzak azatz obean sartu ziranean, asko arindu jakon Iboni bere nekea, bai benetan.

Aitamen ohea

Enbeita'tar Imanolek (Garbi-nai, Urribitarte'tar Ibon izan genduan onek) egiten jakon baiño aitamen ohea merezi dau, bai, euskal-idazleen, olerkari ta gazetelarien maillan. Aspalditik esanda daukagu Enbeitatarren euskal-lana ezaguerazo naiez diarduenai.

Olerkari zan aldetik, ez daigun aiztu Kepa bere anaiak egiten eutsan autormena. Keparentzat Imanol zan Muxikako Urretxindorra. Gazetelari izan zan aldetik, nok aitatu dau, Imanolek *Jaungoiko-Zale'n* egin eban lana? *Euzkerea'n* egiñikoa ez dau ez-ezaguna, baiña ez zor jakon aiñean. Gaztelaritzan, 1933tik 1937ra *Euzkadi* egunkariko euskal-atalean emon euskun neurri beteena. Arlo batetik eta bestetik, olerkari lez eta gazetelari lez, etorriko al jako berari zor jakon omena emoteko ordua.

ENBEITA, «URRETXINDORRA»*

Gure erri-kulturaren agertzaille eta aurrera eragille

Kultura gaurko egunetan edozeiñek ago beetan itzal andiz esan eta entzun oi dauan itza da. Aindiki-usaiña artzen ez ete deutsagun esango neuke. Baiña berorren aurrean ez gaitez an larregi ikaratu ez kikildu. Izan, jatorri apaltxokoa da, baserri-bizitzatik, nekazaritazatik datorrena, lur-langintza aitaturteko asmaua.

Gizonak lurra lantzeari emon eutsanean, orduan sortu zan nekezaritzaz. Orduan etorri jakon gizonari lur bati lotuta lez bizi izatea. Ordutik asita dator lurrari gero ta emoi obe ederragoak ateratea.

Lurraren emoiak berez dira onak, baiña lanaren lanaz gizonak obe ta onura-korragoak egiten ditu. Lur-langintza sortu zanean, aurrerakada andia egin eban munduak, gizarteak. Orregaitik gero, lurra lantzean lez, gogoaz landuaz aurrerakadarik egiteari edo egiteko moduari, izen berbera ezarri jakon antxiña baten, latin-izkuntzaren esparruan. Ortik gaurko kultura itza.

Gizonaren adimena, lanaren lanaz, ikasiaren ikasiz, landuago egiten da, zernaitarako gaiago eta argitsuago. Kultura au, gogo-lantze au ez dator beingoan, baten edo biren ekintzaz, askorenetik baiño; gizarte osoak, belaunez belaun eta gizaldi gizaldiko ekintzak dakar.

Baiña lur bakotzak emoi batzuetarako, landara eta frutu batzuetarako beste batzuetarako baiño indar obeak euki oi dituan lez, bardintsu jazoten da gogo-lantze orregaz be. Izkuntza bakotxean, errialde bakotxean berarizko joerak erakusten ditu, berarizko bide ta moduak artzen ditu. Erri bakotzak bere kultur-arpegia, bere kultur-motak daukaz. Euskalerrriak be, bere-bereak daukaz, olantxe, ainbat kultur-agergarri.

* Karmel 1978-4, 33-43.

Euskal kultura au arlo askotara zabaltzen dala gauza jakiña da. Euskal-izate osoaren agergarri da eta lege, oitura, siñiskera eta gauzak ikusi ta ulertzeko ainbat era apartekoan ikusten da. Euskalerrria barru-barrutik aztertu eta ezagutu nai dauanak emengo bizierara jo bear dau, gure erriari nortasuna emon deutsen lege, oitura, siñiskera, esaera zar, kanta eta bertsoetara, gure kulturaren agirietara. Eta agiriotan, bat, gure erriliteratura dogu, eta erri-literaturan, nabarmenetakoa, bertsoegintza, bertsolaritza.

Muxikan, Ariatzan betzolaririk bikaiñenetako bat sortu zan eungarren urtean, gure erriaren nabarmentasan au gogoratzea atsegin dogu.

Enbeitia zarrak, Muxikako Urretxindorrek, ain zuzen, gure erriaren nabarmentasan au goragoko mailla batera eroan ebala esango neuke. Enbeitagan bertsoegintza ez da erri-maillako kultura baten agergarri utsa; orrez gaiñera, gure goragoko kulturaren, gure izate osoaren biztugarri eta aurrera eragille izan da.

Alderdi biok naiko argi ikusten dirala uste dot Urreintxindorren bizian: lenengo, bertsolarien oizko bidetik ibilli zanarena; bestea, euskalkulturaren, euskal-nortasunaren alde jo ta su ekin eutsanekoa.

Lenengo aldian, eguneroko biziaren gazi-gozaok edo gazi-gezak jorratu zituen: bai etxeko eta bai etxeko inguruko goraberak, onango edo alango bizibide batzuenak eta abar. Edozeri ezartzen eutsan bere begi zorrotza eta edozeri ateraten eutsan bertso-gaia, irribarrea sortzeko aldetik begiratuta, geien baten.

Enbeitaren izena gazterik asi zan plazan entzuten eta bertsolaria plazara agertzen. Plazara, eta orrietara, edo, obeto esatearren, orduan Bidasoaz onantza agertzen zan euskera utsezko orri bakarrera, Azkuek sortutako IBAIZABAL izeneko astekarira. An agertu eta zabaldutakoak dira «Bei zarraren bertsoak», karabineruen bizimoduari ateratakoak, Sakristauen egikerak, lugiñenak, eta abar, batzuk bertso-paperetan be zabalduak, antza. Ordukoak dira bere emaztegaiari egindakoak be, euskal-biotz samur sendo batetik urtenak:

Lirio lora zara,
udabarrikua,
egizko euskalzale
biotz onekua;
orrexegaitik zara
neure gogokua.
Laster luzatuko dot
zugana eskua,
artzeko maite dodan
lora pozezkoa.

Or agiri danez, gazterik asita dogu Enbeitia bertsolari euskalzale. Bertsolari eta euskalzale, biak batera.

Alderdi onetako bertsoetatik, bizitzaren gatz-piperrak bertzolariaren gazi-gozoko ikuspegitik dariozala emon zituaneetatik, laburrenetako bat edo beste aitatu nai neukez emen.

Or doa «zazpi erriojanuena»:

Eibartik Muxikara / lengo barikuan,
zazpi erriojanu / ekarri nituan.
Nere andreak auek / ikusitakuan,
-grisk-grask txikituta / irunsi zituan.

Nere andre maitea / ain ona izanik,
nok siñistu ori / egingo zuanik?
Etzion utzi azur, / azal ez mamiñik.
Aspaldi ez da jazo / olako krimenik.

Guzti au ein ta ere, / biaramunian,
ezeren kezka gabe / patxara onian;
ez eguan ar asko / aren gibelian.
Ai, zer kristauk diran / Muxika aldian.

Guzti au ein ta ere, / kezkarik ez izan!
Eztakit gauzok nola / izan leitekezan!
Betiko espexera / eraman ez dezan...,
ene Bitor Arana, / iñori ez esan.

Ez arduratu, ez ikaratu, irakurle. Muxikan ez egoan, ez, erriojanuiltzeillerik, ez iñorentzako ain biotz-gogorrekorik. Nasai egon. Erriojanu orreik Erriojako mats-mordo baten garauak ziran.

Baserriko bizimoduak ainbat gai egoki eder eskiñi eutsazan Urretxindorrari. Baserrian eta baseritik bizi zanak errez aurkitzen eban an zeri eldu. Eta askotan alkar-izketa legean ondu zituan bere bertsoak. Baserriko bizitzak kantari ona dau Enbeita. Eta gai onek, Urretxindorra, bertsolarien ildo edo azatzetik ibilli arren, askotan daroa lirikara. Baiña ez, ain zuzen, uritar askori jazoten jaken lez, baserriko zoriontasuna, bizitza zoriontsu baketsua dalakoari, kantaka ekiteko. Gitxien uste dan lekutik artzen dau aria.

Esaterako, kukuaren oituretatik. Nori ez deutso bein baiño geiagotan kukuak oker jo? Baiña kukuak berak beretzat oker jotea ez da jazoten ain sarri. Noizik bein bai, orraitio. Eta polito joten deutso adarra Urretxindorrek olango kuku bati. Goixegi etorri ta kukuka asi zanari.

Erdaldunen «seguidilla» diralakoan neurrian, ona bertsoak.

Kuku entzun nebala / gaur ogei egun,
baso-baratzak legez / aurkitu nindun,
Txiro ta illun,
orririk ez lorarik / etzala iñun.

Kukua izan arren / txori ain zurra,
udabarria zaintzen / guztiko zurra,
aurten guzurra
dala esan legike / aren agurra.

Aurten etorri jaku / iñozko goixen,
eztari ederrauaz / asko ni baixen,
alai ta gixen;
baña eztakit lanok / zelan dabixen.

Ni baiño askoz zarrau / da bai kukua,
nire aitita baiño lenagokua,
ez ain kokua;
aurten egin dau baiña / egitekua!

Usterik orain zala / bai udabarri,
neguan etor dala / oin dau igarri.
Oin dabil larri,
lore orde ztxingorra / daukala sarri.

Uda-jantzi txaimaz / eldu jakuan,
usterik eguraldi / txar danak juan
ziralakuan;
orain estalgi billa dabil auzuan.

Kukua, zetan eztok / kuku egiten,
lotsaz or egon barik / egun argiten
txingor-euriten?
Etorri obe zuan / udabarriten.

Kukuak uste eban / lenau bezela,
negua ta udia / bardin dauzela.
Baiña... bai zera!
Aldatu dira... beste / gauzen antzera!

Urretxindorrak, olantxe, badaki-inguruko edozeri bere muiña ateraten eta bertso-gai egiten. Baserriko neke ta buruaustek, edozein jazoerak biztuten deutso bertsolari-

sena eta, irrigozoa dariola, bere bertsoetara aldatzen daki. Urte-barruan, uda ta negu, zeinbat olango gai eta zeinbat olango bertso-aldi!

Baiña Enbeita eztago beti bere baserri eta ingurutxora begira, ingurutxo orregaz alkar-izketan edo bakar-izketan, bere bizibideko arazo eta kezka utsetan murgildurik. Arago eta gorago begiratzen be ondo ikasi dau: Euskalerra osoaren arazo eta buruausteetara begiratzen, erri osoaren kezka eta miñak bereak egiten. Ona Enbeitaren bigarren alderdia, bera Euskadi osoaren naigabe eta pozen oiulari eta aldarrikarik egiten dauana.

Arrospide mediku zarraren eragitez sartu ei zan, eta bete betean sartu be, bide barri onetan. Bertsolariaren indarra zergaitik ez erriaren alde jarri? Bertsolariak entzuleen gogo-biotzei egiten deuten eragiña, zergatik ez plazara atera, zergaitik alperrik galtzen itxi, erriaren onetan erabilli barik? Urretxindorraren abotsa olantxe egin zan erriarentzako abotsa. Bere gogoko argiak eta bere biotzeko sua erriaren alde jarri eta bertso egiñik erriari opatuko eutsazan arrezkero. Beti izan da euskalzale, baiña orain euskalzaleago, eta euskalzaletasunaren zabaltzaille. Bein entzun neutsan Basarriri esaten Enbeitia izan genduela bertsolaritza ardan-etxeetatik, taberna-zuloeetatik lenengoz atera eta plazako argitara ekarri ebana, erriaren argi izateko, errian euskal-gogoa biztu eta zabaltzeko.

Arrezkero, Euskaldunen artean gaur-gaurko diran kezka eta gai guztiak datoz Urretxindorraren bertsoetara: euskera'ikastolak, euskal-oiturak, euskaldunen esku-bide eta lege zarrak, labur estateko, euskaldunen nortasunaren erakusgarri eta biz-tugarri diran arlo eta gai guziak.

Gure erritasuna ia itorik ikusten dau eta ezin dau onez eroan zoritxar ori. Gure nortasunaren ezaugarriarik argiena, euskera, ezin ikusi dau apurka apurka mendirantza alde egiten.

Urietatik bialdu eben / euskerea baserrira,
uri-ondoko baserritik be / apurka apurka mendira;
lotsaz bildurrez / berantz jasteko / aspaldi antxe bizi da,
eta ni emen gau eta egun / neure maitiai begira.

Alantxe diño, Durangon mendira begira jarri eben Astarloaren irudiaren izenean, Euskaltzaindiak saritu eutsan olerki baten. Orra euskeraren zori gaiztoa: mendian gora ta gora, gero ta urriñago, eta kalean bera ta bera, gero ta galduago.

Nortzuk dira zoritxar orren errudun? Nortzuei zor jake gatx ori? Errudunak eztira danak kanpokoak. Etxean be badira arerioak, edo beintzat gatx orren aurrean ez otz ez bero gelditzen diranak.

Aspalditxoan erdalkeriak / astiro eta polito,
azeri zarrak oillua legez, / euskerea nai dau ito...
Ikastoletan atiak itxi, / urietatik bialdu,
baserrian be, Judas antzera, / batzuk oi zaitube saldu.
Amasa nasai artzeko zeure / tokira ezin urbildu!
Ama bat olan ez geunke eukiko, / lotsaren pizkat bagendu!...

Arro tentelen erruz arrotzak / etorri ziran onuntza,
 askatasuna eurekanduta, / guri jarteko estuntza.
 Sartu jakun, bai, geure etxean / zoritxarreko laguntza,
 gaztelar egin nai gaituela, / oitura eta izkuntza.

Zoritxar ikaragarria, lotsagarria da, baiña negar egite utsak, zarata egite utsak
 be eztau balioko.

Alperrik dan lez ur juanari / esigiñan ibiltia,
 era berian alper litzake, / gure euskera maitia
 ilgo balitz bein, piztu dedilla / guk zarata egitia.
 Au jazo baiño len, etsai ori / ausi daigun ta bakia!...

Gure asaba zarren odola / daukagun arte zanetan,
 agertu daigun euskaldun antza / geure arazo danetan.
 Euskera zarra egarriz ito / ez dein legorte onetan,
 egarri ori ase daiogun, / maite badogu benetan.

Ez dau nai, gero maitasun ori itz utsezkoa, miñetiko utsa izan daitenik. Euskaldun
 koipetsu bat baiño geiago dabil, antza, euren euskotartasunaz arro-arrorik.

Itzak bakarrik, egite barik, / berealaxe dagoz galdute.
 Eta euskotar koipetsueri / Euskadik onan / esango deutse:
 «Euskaldun nintzan, euskalduna naz, / beti euskaldun nai neuke.
 Eta nigaz ein nai dabenak / betoz biotzez euskaldundute».

Gure erritartasunaren eta gure izkuntzaren arerioak ez dira makalak be, eta
 badakie nondik nora jo. Benetako burrukea darabille euskeraren aurka, gure nortasunaren
 ezaugarriarik agirikoena dalako. Badakie zertara doazen. Arerioen benetako
 burruka orri, bada, guk, benetako burrukeagaz erantzun bearko deutsagu.

Beingo batian usteltzen den lez / arima bako gorputza,
 Euskadi bardin ilgo litzake, / euskera ilgo balitza.
 Atzeritarrak bakie ondo / non dogun gatz orren giltza.
 Baiña eztabe au jaritxiko, / alper alperrik dabilitza.

Onez badatoz onian eta / txarrez badatoz txarrian,
 Zelan datozen, alan erantzun / etsaien aurrian;
 az bildur izan arian.
 Jakin bei gu nor garian.
 Areriontzat ezta lekurik / eusko lurrian.

Euskadi gure baratz kutuna, / euskera bere loria.
 Lore maite au betiko il nairik, / etsaiak alper ai dira.
 Au ilgo daunik ezta sortuko / iñundik Euskalerrira.
 Prakak aldiand badira,
 Zainduko dogu / euskera ta Euskalerrira.

Itxaropentsu dago Urretxindorra, batez be gazteria esnatzen asi dalako. Eztago, ez, dana ilda, ez urrik emon be. Eta bota dituen bertso batzuk gaurko egunotarako egifiak direala esan geinke.

Esaten eben! II da betiko / euskaldunen arazua.
Oindiño, baifia, gu bizi gara. / Goyan bego... "lengusua".
Autsa ganera bota eutsen baiña, / azpian eguan sua.

Gaztelatiko negute luze, / negu baltz iguingarriak
Aritz Deunari kendu eutsazan / ezkurra eta orriak.
Aspaldi, baiña, gure artera / eldu jakun udaldiak
sortuko deutzaz aritz orrei / orri ta ezkur barriak.
Zutik, ba, danok... Goguak biztu, / erne, arreba ta anaiak.
Goiko Jaunari biotzez egin / arren, otoiz, eskariak,
Batzartokiko zugatz-ganian / abestu daian txoriak,
azpian gizon argiak
egiñik lege garbiak,
zorieko askatasuna / izan dein Euskalerrriak.

Langilleen artera be eldu da aberri-miña, euskalzaletasuna. Orra beste itxaropen-iturri bat, Txindorarentzat oso pozgarria. Eta emen be entzungo da Enbeitaren bertso sutsua.

Eusko-languillok, itxartu, jagi;
jagi ta zutik aurrera.
Aurrera beti zintzo, kementsu,
zuzen elburu geurera...
Lantegi, ola, lugintza ta abar
gure aberri maitian
geure eskubide zuzenen aldez
batu ta jagi gaitian.
Anaiok alkar besarkaturik,
argitu euskal-zentzuna,
lortu daiguntzat egizko geure
langille-askatasuna.
Zuzenen aurka datozen orrrek
bota daiguzan jo ta su,
geure lanagaz bizi gaitez
Euzkadin danok zoruntsu.

Beste itxaropen-iturri bat oindiño: euskal-ikastolak. Euskaldunak maitez eta adorez sutsu artu bear daben arazoa.

Orain zabaldu diran / Ikastetxietara
zeure seme euskaldunak / euskeraz ikastera
bialdu gura ezta / geratzen bazara,
belarrimotzak baiño / txarragoa zara.

Arazo eta ekintza onetan sartu-ezinik iñorentzat be eztago. Guztien egitekoa da. Zuri naiz baltz, gorri naiz bellegi, guztiok euskaldun eta euskalzale.

Zer balio dau zuri, baltz, gorri
edo nabar ixatiak,
baldin ezpadau zer ikusirik
orraz euskera maitiak?
Alde batera itxirik, bada,
politika ta nastiak,
euskereari danok zabaldu
biar dautzoguz atiak.

Euskalerriko anai maitiak / bat egin biar genduke,
ibili barik alkarren kaltez / bata bestiaz burruke.
Batasunezko siñismen onaz / alkarrengana batute...

Zetarako batu, baiña zer egiteko?

«Dakigun orok euskeraz egin,
ikasi eztakienak.
Artu-emonak, idazti ta abar
euskeraz erabil danak»...

Zer geiago egin beariko dau euskaldunak? Euskal-literatura ugaritu, euskerazko liburuak irakurri.

Biotzdun eusko zintzo guztiak / lagun egiñik alkarri,
euskera jaso egin nai dogu / ta askatasuna ekarri.
Argibideko gauza ederrak / asko idatzi ta irakurri,
jakintza ona zabaldu dedin / egiz euskeraz ugari.

Euskal-nortasunari eusteko, euskal-kultura zabaltzeko eztau Urretxindorrek programa txatxarra azaldu. Ezta edozelangoa gure erriaren alde egin nai izan dauan eta erabili dauan lana.

Euskal-kultura garbia, beste iñongo kulturari gorrotorik bakoa, gero! Enbeitaren biotzean danentzat dago lekua ta irekitasuna.

Ikuntza danak gurgarri dira,
autortu nai dot egia,
gureztat, baiña, gurgarriena
euskera maitagarria.
Ikasi daigun erdera, frantzes
naiz ingelesen elia.
Ikaste ori ontzat daukagu,
baiña lenengo geuria.

Norberarena maitatzeak eztau biotza beste alderako estu egiten. Ebanjelioan be, norbere buruaganako maitasuna besteen alderakoaren neurria ez al da? Norbere eskubideen zaintzaille beroa dana berekoaia ta barru-estua dana diñoanak zer diñoan eztaki. Askotan berak daki ondoen bere burua besteen barruan eta buruan ikusten. Orra gure Urretxindorra lekuko ta erakusle. Erri txiki bat zapaldu dabe arerioak 1914-an geiagoko barik, alan nai ebelako, indarkeri utsez. Eta orra non entzuten dan Muxikako bertsolarien deadarra.

Ai, ene, ai Beljika, Beljika!
Otsua dozu aginka.
Zeure zeuria zan artaldeko
ardi ederrak aneika,
ondatu deutsuz txabol-aurreko
esi guztiak ausita!

Orduan gure bertsolarien artean be asko agertu ziran Alemaniaren edo Frantziaren eta onen lagunen alde, orduko burrukalari nausienak bakarrik aintzat artuta. Kanpotik begiratzen jakon oillar-auzka bat bai litzan artzen eben orduko gerrate ikaragarri odoltsua. Eta plazan balira lez, oillar bataren edo bestearen alde jokatu. Sakonago eta argiagoa da Muxikakoaren ikusmena. Oillar nausien erpakadak barik, erri txiki baten negarrak kezkatuago dauke.

Zertako dira egiuniak,
gizonen itz on zuriak,
nausiak noiz nai apurtzekotan
txikien eskubidiak?
Olan ixanik, alperrik dagoz
gizon arteko legiak.

Ezagunak dira Oñatiko mitin baten bota zituen bertsoak be, «Viva España» bat entzutean. Olango bertsoen egilea ezta biotz-txikia, ezta barru-estua. Or eztago estukeririk ez txikikeririk. Or ikusten dogu Enbeitaren biotz zabala, benetako giza-kulturaren jabe dana. Or eztago baserritarkeririk. Or benetako gizontasuna, benetako gizabidea, benetako kultura ikusten doguz, Enbeita bertsolariak euskal-kulturaren erraietatik edo sustraietatik artu ta edanak, eta gero bere bertsoetan erriari opatu eta emonak.

Naiko argi dago, beraz: Enbeita, aldi bateko Peru Enbeita, geroagoko Enbeitatar Kepa, Muxikako Urretxindorra, bertsolari utsa baiño geiago da, gure erriaren ezaugarri baten agertzaille baiño geiago. Orrez gaiñera, bere bertsolaritza gure izkuntzaren, gure erri osoaren alde ipiñi ebalako, euskal-kulturaren aurrera eragille sutsua izan da.

AGUSTIN DEUNAREN ETA GURE ORIXEREN GOMUTAZ*

Aurten dira milla ta seireun urte Agustin deuna kristoren artalderatu zala, eta aurten ogetabost urte Orixe euskal-idazlea, eleitz-guraso eta santu andi orren libururik ospe andienetakoaren euskeratzalea, il zala. Bion izenak zabal dabiltz aurten, Agustin orrena mundu guztian, eta gure Orixe-rena, gure mundutxo txikiagoan. Biok batean gogoratu nai geunkez lerro oneitan.

I

Agustin deunaren amaseigarren eun-urtea

Eta lenengo ta bein. Agustin deunaren urte-urrena. Amasei eun-urte joan dira santu ta jakitun andi onek bere biotz andia eta jakituri andia Kristoren menpean jarri zituela. Gure urte kontaeratik, Kristo jaio zan ezkeroko 386garrenean izan zan. Bere buru ta biotzagaz burruka latza erabillita gero, baietz osoa emon eutsan Kristori orduan. Kristogan aurkitu eban bere gogoarentzat argi betea eta bere biotzarentzat betiko bakea ta osasuna. Andik aurrera Kristorentzat izango da Agustiñen izate osoa, eta arrezkero gizonak, lagun urkoa, Kristogana eta Eleizearen magalera ekarteia izango dira Agustiñen ardura eta nekeak. Zelan? Bere otoitz, berba, joan-etorri eta idazlanen bitartez.

Eta idazlanetan bat, osperik andiena emongo eutsana, eta gaur be emoten deusana, ain zuzen bere Kristoganako bidea autortu eta azaltzen deuskuna, *Confessiones* izenekoa, andik amalau bat urte geroago idatziko ebana. Iñongo literaturan lenengoz

* Karmel 1986-3, 6-18.

idatzi izan dan norbere barrua ustu ta agirian ipinteko liburu sakonena eta egiazkoena. Liburu orretan agirian ipinten deutso egilleak bere barrua, ez edozeini, Jaungoikoari berari. Or autortzen deutsoz Jaungoikoari (eta ez Jaungoikoa jakitun ipintearren, Jaungoikoa dana dakiana da-ta), artean egin dituan pekatuak, eta Jaungoikoari zor deutzazan mesede ta ontasunak.

Autorkizunak (Confessiones) zer diran

Esan dogu: nork bere barrua agirian ipiñi eta ustuten jakin eta ekin deutsoen idazleen artean Agustin izan da mundu guztian, era batera, lenengoa eta gorengo maillak jo dituen: inork eztau bere barruan barrurago eta sakonago aztertzen eta zintzoago autortzen jakin izan. Gure egunotan zabal dabil idazleen artean zeñiek bere bizitzako jazoerak eta gogoetak eraltek oiturea. Bakotxak bere buruaz dauan eritxi ta irudia saldu gura deuskue, edo ta euren barru lorriña ez deuskue gitxitan azaltzen. Sarriegi, egiak barik, guzurak eta abarrak dauke olango liburuetan lekurik andiena. Irakurleen aurrean euren buruak erakusteko edo zuritzeko idatziak dira geienetan. Agustiñek guztizko begirunea deutso egiari. Idatzi be eztau idatzi irakurleari bere barrua azaltzeko, irakurlea aurrean baleuko lez; Jaungoikoaren aurrean diardu, Jaungoikoari berba egiñez, guztia dakianaren eta guztia dakusanaren aurrean bere barrua ustutzen dauala. Ari guzurrik esaterik edo ezer estaltzerik ez dauala ondo jakiniñ. Eta iñoz be ez, iñoren aurrean bere burua andiago egiteko, eta gitxiago Jaungoikoaren aurrean. Orrenbesterañiño daroa Agustiñek bere zintzotasuna eta egiari deutzan begirunea. Idazleen artean bear bada ezta iñoz agertu Agustin baiño egi zaleagorik edo egian ibilteko gogo andiagokorik.

Eta zer geiago dira Agustiñen *Autorkizunak*? Berba au be ez daigun oker ulertu. Agustiñen berbetan autortzeak ez deusku beti pekatuen gomutea ekarri bear gogora. Pekatuak autortzea baiño geiago Jaungoikoari gorantzak emon eta esker ona erakustea geiago da darabilan asmoa. Ebanjelioan eta salmoetan be itz orrek orixe esan nai dau askotan; Jaungoikoa bedeinkatzea, Jaungoikoari eskerrak emotea. Autortze au bitarikoa dala askotan irakatsi dau Agustiñek: bata pekatuak Jaungoikoaren aurrean autortzekoa, eta bestea, Jaunaren anditasuna eta ontasuna, Jaunaren eskutik dator-kiguzan argitasun eta mesedeak eskertzekoa. Bigarren asmo ori geiago darabil santu onek bere liburu onetan, asieran diñozkunez: «Zetako aitatzen deutzudaz ainbeste gauza? Nire bitartez jakin dagizuzan? Ez, orixe. Nire berbokaz nire zukanako maitasuna berotu nai dot, guztiak batera esan dagien: Andi zara, Jauna, eta ezin goragarriago». Pekatuen autortza be egiten dau, baiña esker ona eta goramenezko itza geiago dario beste ezer baiño. Orregaitik liburu osoa esker onezko eta goramenezko berbakaz egiña dau.

Agustiñen Kristoganako bidea

Goazen arira, liburuaren muiñera. Kristoganaño Agustiñek eroan dauan bidea luzetxoa izan da, ogeta amabi urteko bide luzetxoa. Umetan ia kristiñau egin zana,

gero, Kristiñauen fedetik eta bizitzatik urrin ibilliko da. Kristoren izena besterik eztau gorde bere gaztetako urteetan. Jarraitu deiogun bide luze orretan; Afrikatik Erromaraiño, Erromatik Milaneraiño.

Agustin Tagasten (gaurko Suk-Ahras-en) jaioa da, 354 garren urtean. Afrikarra da, beraz, afrikarra jaiotzez eta odolez. Aspalditik Erromarren menpe jausi eta Erromarren izkuntzari ainbat idazle argi emon eutsazan Africa aldekoa. Agustiñek be Erromarren eskolea artuko dau eta Erromarren izkuntzan maixu urtengo dau. Greziarren izkuntza ikastea nekezkoa egin jakon, baiña latiñaren jabe, ume umetarik, etxekoen artean, neskameen artean, eta eskolan, batez be, berez berez egingo da. Madauran, Tagasten eta Kartagon izango ditu bere ikastetxeak.

Gurasoak ez ditu erlejiño bardiñeko; aita, jentilla, ama, kristiñaua eta kristiñau zintzoa. Semeari Kristiñautasuna irakasten alegiñak egin ditu; baiña ez dau lortu bateoraiño eroaterik. Bein geixoak artuta, orraitio, umea bera be prest egon ei zan kristiñau egiteko, baiña osatu zanean katekumeno utsen artean geldituko da, beste ezer egin barik.

Eskola amaitu ta, gazte lagunak eta bere griñak lizunkerietara daroe eta kristiñau izatetik urriñago doa. Neska bat be artu dau bizilagun eta neska orregaz eta emon deutan seme bategaz jarraituko dau Milango urteetara arte.

Ogei urte dituela, asi da irakasle egiten, gramatika irakasle lenengo, eta erretorika irakasle gero. Non? Tagasten gramatika irakasle, urte bete, 374n, eta Kartagon, erretorika irakasten zortzi urte (375, 383ra bitartean).

Artean, irakasletza asi orduko, aita barik gelditu da. Amaren eragiñez kristiñau il jako, baiña amak eztauko zeregin andirik semeagaz. Semea amari igeska dabilkio. Irakasletzan urrengo eskolak Erroman eta Milanen izango ditu. Erroman urtebete baiño eztau egin. Ango eskola-mutillekaz aspertuta, Milan-en erretorika-eskola bat utsik gelditu dala-ta, ara aurkeztu da eta berari emon deutsoe eskolea, edo irakasle-aurkia. Milango irugarren urtean 384tik 386garrenerakoan jazoko jako kristiñautasunera etortea.

Manikeoen eta filosofi-eskola batzuen artean.

Afrikana gaztetasuneko griñak azpian artuta erabili dabe, eta gero, bada-ezpadako erlejiño bateko maixu andi batek bere sareetan sartuta euki dau luzaro. Orraitio, amazortzi urte dituela, Zizeron andiaren liburu bat etorri jako eskuetara. Hortensius izeneko liburu da, orain iñon aurkitzen ez dan liburu. Liburu onek egundoko jakituri zaletasuna sortu deutso barruan. Baiña liburu orrek, ain zuzen, jakituria, egia, kristiñautasunetik kanpo aurkitzera eroango dau. Zizeronen latiñ ederrak lilluratuta itxi dau, ia liburuaren irakatsi ederrak baiño lilluratuago. Olan, Biblia eskuetan artu dauanean liburu santuetako izkuntzari txatxarra deritxo, epelegia aurkitu dau, eta azalaz batera, mamiaz be gogaitkarri. Ezin dau Jaungoikoaren itz lau apal ori iruntsi. Ezin ditu irakurri. Aspertu egiten dabe. Beste nonbaitera bota dabe, egi billa. Berak Jaungoikoari aurtortzen deusanez, «liburu santuak irakurteko gogo bizitan jarri nintzan, ia zelangoa zan ikusteko. Eta zer ikusten dot? Zure liburuetako izkuntza arropuztentzat egiña ez zala, ez eta umeak argi ulertzekoa be; an sartzeko atea beregi dauka,

barruan sartu ezker, goi-gorengo mamia daukan arren, eta jakiteko sakonenez bete; baiña ni ez nintzan ate atatik sartzeko modukoa, ez bera nigana etorreanean burua makurtzeko modukoa... Edozelan be, zure berbea Tulio Zizeronen latiñaren ondorako ez zala iruditu jatan». «Nire arropuzkeriari atzera eragiten eutsan Liburu Santuen idazkerak eta ez eban arein barruko irakatsirik ulertzen».

Gero orra beste manikeoen maixua, Fausto izenekoa. Oso berbaldun dotorea ei zan eta entzule asko eroaten ebazan bere eskolara, eta erlejinoa, Manikeo onein erlijioa, Persiako siñiskera askoz nastekoa, maitagarriago egiten jakon Agustiñi, kristiñautasunaren usain apur bat ekarrelako. Testamentu Zarreko liburuak baztertu, eta kristiñautasuna garbiago aurkeztu nai ei eban eta Agustiñi aintzat artzekoago egin jakozan euren irakatsi batzuk, esaterako, gauza guztien iturri bi, jainko bi lez, dirala irakastea, bata onarena, eta bestea, txarrarena.

Baiña gauza bat euken manikeoak, Agustin eurai lotuta eukana: azken baten jakituri osoa, gauza guztien argitasuna ta azalpena emongo eutsoela agintzen eutsoen. Ez zan Agustin orren siñiskorra, eta orregaitik ez eutsen siñiste andirik emoten, baiña eurakaz jarraitzen eban euren malmuzkeriak ikusi zituen arte. Geroago, Milanen bertan asita, Agustiñek aterako zituen arrazoirik gogorrenak, manikeoen guzurak birrintzeko.

Baiña Agustin ez zan egiaren billa iturri batetik edatekoa. Argitasun andiak atera zituen beste filosofi-eskola batzuetatik. Maiteen izan zituenak Platonen eskoletakoak izan ziran, Plotinoren liburuetakoak eta olan. Egia billatzeko laguntzarik ez eban inguiduko.

Berak autortu ebanez, Akademiko eritxen filosofoen ontzian be ibillia da, eta euron filosofia ukatu ta birrintzeko liburuak be itxi ditu. Eta au arritzeko autorpena! Filosofo askok ez ei eutsoen barrua asetzen ez gogoia betetan, euren liburu ta itzetan Kristoren izenik entzuten ez ebalako. Azken baten amak umetan bere gogoan ereindako azia asi jako ernetan. Bere bizitzako ogetamargarren urtean da, Milanen daroazan urteetan.

Milanera joan zanean, ango Goitzaiñagana, Ambrosio andiagana agertu barik ez zan gelditu; aren itzaldietara joaten asiko da. Ez da, ba, bera katekumeno? Baiña ez da itzaldi orreitar, katekumeno lez, gotzaiñaren irakatsiak ikasteko, aren latiñeko etorri onak eroanda baiño. Apurka apurka orraitio, Ambrosioren berbapeko egiai jaramon egiten asi da. Gotzaiñaren irakatsiak, batez be, Liburu Santuetako berbetan oiñarrituak dira. Orduan asi da leen umekeritzat eukazan Bibliako gauza asko obeto ulertzen. Olan Ambrosio andiaren ondoan bere begietako lauso asko botako ditu.

Baiña orduantxe asi da bere bizitzako burrukarik andiena. Burua kristiñautasunaren aldera jarten asi jako. Baiña egiari eder eristea eta baietza emotea ez da naikoa. Filosofoen jakituria billatu dau, aren atzetik ibilli da beti, bere bizitzako argi egiteko. Egia aurkituaz, gizonen bizitzaren elburua argitzen dauan bidea aurkitu orduan, dana errez egingo jakolakoan dago; griña ta lizunkeriak itxi eta bide zuzenean berez sartuko dalakoan. Baiña... orra betiko *baiña*, orra untzea. Gizona ez da buru utsa, gizonak ez dau argia bakarrik bear; gogoia, borondateko indarra bear dau. Egiak

argitzen dauan bideari jarraitzeko gauza ezpada, nagi ta astun geldituko da, zirkiñik egin eziñik.

Egoera orretara eldu da Agustin: erabagi sendorik artu eziñera. Eta, barriz, bein kristiñau egin ezkerero, kristiñau oso osokoa izan gura dau. Kristiñau izateak bere bizia Jaungoikoari oso osoan emotea eskatzen deuto, bere eskolan guzurra egiaren estalpean saltzen irabazteko bizimoduari be agur esanda. Eta gero, ezkontzako bizimodua artuko ete dau? Ezetza entzuten dau bere barruan. Ama bera be Milanera etorri jako, semeari al dauan laguntza guztia eskintzen; baiña amak be ezkondata ikusi gurago leuke eta laguna aurkitzeko erea ipiñi gura leuskio. Baiña Agustiñek beste deirik entzuten dau barruan, geroago gure Patroi Andiak entzuten eban lez: «Beste batzuk egin dabena, nik zergaitik ez dot egingo?» Eta bere lagun batzuk be erabagi orretara ekarri nai leukez: «Beste batzuk egin dabena, Antonio deunak eta egin dabena, guk zergaitik ez dogu egingo».

Azkenengo erabagia Jaungoikoaren mirari bat lez etorri jako. Bein ostatuz bizi zan etxeko ortuan, Alipio bere laguna ondoan ebalá, bere buruagaz burrukarik gogorrena erabillan, ezin erabagirik artuta. Bere oitura zarrak, bere griñak marmarka asi jakozan «Baiña itxi egin bear gaituk gero? I barik egon bear ete joagu betiko?» Bere barruak be marmar bardintsuak egiten eutsozan: «Au ta au barik bizitzeko gauza izango ete az gero»? Eta bere barruko erantzuna: «Zergaitik itxi geroko? Zergaitik ez gaur, zergaitik ez oraintxe bertatik?».

Onetan dagoala, umeen baten aotik urteniko berbok entzun ditu: «Artu eta irakurri, artu eta irakurri» Jaungoikoaren deia ete dan usterik, jagi da jarrita egoan lekutik, Paulo Apostoluaren espistolak artu eta ona zelango berbak jatorkozan begipera: «Itxi jan edanak, mozkorkeriak eta oetako lizunkeriak, itxi eztabaida ta bekaizkeriak; jantzi zaiteze Kristoren soiñekoz, eta ez egizue izan aragiaren gurarien ardurarik». Eta orra, Jaungoikoaren itzaren indarra.

Bapatean, beste gizon bat egiñik dago; ezbai guztiak joan jakoz; dana Jaungoikoari emoteko prest eta erabagirik dago. Bertatik amagana doa eta jazo jakon eta erabagi ebana esan deuto. Biak kantari jarri dira Jaungoikoari eskerrak emoten; orduan ikusi eban ama Monikak bein gotzai batek iragarri eutsanaren egia: «Ezin daiteke galdu ainbeste negar kostatako semea».

Ogeta amabi urte ditu Agustiñek eta dan guztia itxi dau Jaunaren eskuetan, artean eroan dauan bizimodua, irakaskintzakoa, ezkontza on bat egiteko ustea eta dana. Urrengo urteko Pazkoetan, 387koan, bateoko urak artuko ditu, Anbrosio andiaren eskutik, eta Kristoren eta Eleizaren serbitzari egingo da bere bizi guttiko.

Agustiñen bizitzako jazoera eder onen gomutea da aurten, berak *Autorkizunen* liburuan ain biziro eta zeatz azaldu deuskuna, arimearen barrukoak azaltzeko idatzi dan libururik sakonena, zintzoena eta egiazkoena dan liburu onetan. Urteurren au Eleizeak, agustindarrak eta agustinzaleak ez dabe aitzu eta andiro ospatu nai dabe. Aita Santuak, Agustiñen gomutagarri eta goragarri, enziklika bat zabalduko ei dau. Bertan erakutsiko deusku zenbat zor deutoen Eleizeak, Europak eta mundu guztiak Agustin deunaren jakiturizko argiari ainbat arlotan, teologian, filosofian, sikologian, politikan, guztiak bakean, alkartasun onean biziteko emon zituen argibideetan. Ain-

beste jakite-arlotan bide urratzaille andia dogu. Baiña, beste ezetan baiño geiago, egia billatzeko bideetan, Kristoganako erabagia artu dauanean irakaspen garbiena emon deusku ta onako irakaspena: gizona jakite utsak, egia aurkitze usak ez dauala gizon egiten, ez salbatzen, egia jakiteaz ez dauala gizonak naikoa; buruko argiaz gaiñera, barrua garbitzea, biotzeko gatxak botatea bear dauala; bai, buruz osatu bearra daukala. Ori barik, ez dago norberagazko bakerik ez gizarteko alkartasun onik. Ori barik noraezean ibilliko da gizona. Eta ori Kristok ekarri eutsan Agustini. Kristogan aurkitu eban bere gogoaz asetzeko egia. Kristogan idoro eban bere barru guztia bakean jarteko, indartzeko eta bizi-barritzeko osasuna. Kristo egin jakon argitzaille ta salbatzaille. Kristo bidea, egia ta bitizta. Eta Kristo ori Eleizan aurkitu dau.

Ori izan zan orain milla ta seireun urte Afrikako seme jakitun andi onek kristogana elduaz ikasi ta ikusi ebana. Orregaitik dario *Aitorkizunak* liburuan ain garratz Kristo lenago ez ezagutuaren mina, eta ain bero, biotza betean, darion esker onezko eta goramenezko kantua. «Jauna, berandu ezagutu zaitut. Jauna, zuk ausi ta apurtu dozuz nire kateak... Andi zara, Jauna, ta ezin goragarriago».

II

Orixe, Agustiñen Aitorkizunen euskeratzaille

Bigarren urteurrena aurten (ogetabostgarrena), Orixe-rena, Nikolas Ormaetxea zanarena dogu. Ogeta bost urte il zala, ogetamar urte Agustiñen liburua euskeratu euskula.

Aitorkizunak liburua, santu onen idazlanik ezagunena eta irakurriena dala esanda gelditu da. Ezagunena ta irakurriena izan da, ez bakarririk jakitunen artean, bai gitxiago dakien artean be, erri-izkuntza askotara itzulia izan dalako. Alan erri xearen eskuetan be ibilli izan da. Ezkoladunak eta ain bakoak izan dabe bera irakurteko erea, eta bai gogoz irakurri be.

Gure egunotan be ainbat izkuntzatan itzulpen barriak agertzen dira, eta asko idazle oso trebeen lumatik urtenik. Europako ia izkuntza nausi guztietara daukagu oraintsu itzulita, bat, bi, iru, lau, bost, sei itzulpen ezbaridiñetan, gero ta itzulpen zeatzago ta obeak egin gurez, alemanak, inglesak, frantzesak, italiarrak eta españarrak alkarren leian bailebiltzan. Libum onek gaurko egunetarako baliorik daukan ala ez, ortik atera. Jakitunen artean ez dira guztiak gure Pio Baroja langoak. Ez dauke, Piok bere *El Cura de Monleon* nobelan egin eban lez, ateraldi arin eta ganora gitxiko batez bazterrera botateko. Oraintsu argitaratu da gure auzokoena dogun erderarako itzulpen bat, Jose Luis L. Aranguren jakitunaren sarrera mamitsua dauala. Idazle onek sendo azpimarratu dau Agustin deunaren arlo askotako gaurkotasuna.

Euskaldunok ibilli gara Agustiñen Aitorkizunak euskararatzeko otzen eta atzeratuen. Kempis-en libum batek ospe andia izan dau gure literatura urritxoan. Amaikatxo euskeratzaille izan ditu. Bada or libum bat, batzuk Agustiñen Kempis

esaten deutsoena, *De vita Christiana* izenez Tonna-Barthett agustindarrak latifizatzen Agustiñen itzakaz biribildua. Gure Luis Egia abadea zanak euki izan baleu, ez dot uste euskeratu barik itxiko ebanik. Baiña ez ori, ez *Aitorkizunak* itzultzeko kemen-dunik ez dogu izan lengo aldietan. Liburu au euskeratzea gauza gatxa zalako? Agus-tinen latina trinko eta biribilduegia aurkitzen ebelako? Batek badaki. Alan nai olan, liburu au ez da gure literaturan sartu gure egunetara arte. Zorionez, gure egunotan norbaiti otu jakon lan ori Orixe zanari eskatzea. Orixez pozik ezarri eutsazan eskuak lan orri.

Latinaren maratillak ondo ezagutzen zituana zan bera. Eta, orrez gaiñera, euskera jatorraren jabe genduan. Orra baldintza bi, artu eban lana egokiro egiteko. Eta Orixe agustinzale beroa izanik, Agustiñen liburu ori itzultzeak kilikili egiten eutsala dirudi bere barruan. Orretarako gogoa nork bururatu eutsan badakigu. Ez zan orretan berekautez sartu. Mathieu, Akitzeko gotzai zan euskaldun argiak bultzatu eban lan au egitera. Noz izan zan ez dakigu, baiña alan autortu eban Orixe berak.

KARMEL-en irakurleok badakizue, orain dala zazpi bat urte aldizkari onetan atera genduala Orixe Oiarzabal abadeari bialdutako eskutiz-mordoa (1). Eskutitz orreitatik aleginduko gara Orixeren itzulpen onen goraberak argitzen.

S. Agustiñen liburuau euskaratzearen lenengo aitamena 1950ko karta baten aurkitzen dogu. Santuaren liburu ori eskuratzeko arduratan dabillala dirudi. Andik bigarren urtean, 1952koan, ona zer diñotson Oiarzabal abadeari: «Datorren urtean, Jainkoak nai badu, S. Agustiñ bukatu bearko».

Antza, lan ori egiten asirik ebillan. Baiña aukera obeak, erreztasun geiago bear zituen. Lenengo ta bein, latiñezko texto on jator bat nai eban bere eskuarterako, eta gatx egiten jakon aurkitzea.

Urte areitan Zaragozan bizi zan, ez gero Aragoiko Zaragozan, Ameriketako El Salvador-ekoan baiño. Oiarzabali agindua, 1953garrenean euskeratuta euki nai ebalakoa, ez eukan aitzuta. Euskeratu ala, zatika zatika bialtzen deutso kopia bat abade adiskideari, eta Donostian Labaien jaunari. Lan au ez jako atsegintsu egiten, latiñezko texto txiki on bat lortu arte. Seminarioan MIGNE-ren edizio andia badauka, baiña bertara joan bear.

Ez dauka andik ateraterik. Azkenean, jesuitak aurkitu deutsoe bat, BAC argitaldaria atera barria, Custodio Vegak aspalditxotik eginda eukan argitaraldi kritikotik BAC argitaletxeak barriro emona. Aita Vega-ren edizio ori garbi ta jatorrenetakotzat dago agustindarren artean. Eta latiñ eta erderaz bietara aterata dago. Liburu au etxean dauala, orain erosoago daroa lana aurrera, eta 1954ko urtarrillean, 29n, albiste ona bialtzen deutso Oiarzabali: «Beste berri bat zuretzat ona: atzo amaitu nituela S. Agustiñen *Aitorkizunak*».

Baiña egin dauan itzulpenari an or emen begiratu batzuk egin deutzazanean, ez da oso azaskadu gelditu. Leku batzuetan ulergatxa edo aurkitu dau, argitaratu baiño len jorratu eta orraztu bearrezkoa. Baiña berak urrengo diñoanez, «nolabait ioan da...». «Egia esan, zenbait aldiz euskera ez da latiñera irixten, batez ere *activo-*

(1) Ik. 933-975. orr.

pasivo eta *relativo* oiengatik; baiña beste zeinbat aldiz, eta geiagotan, nik uste euskerak latiñari asko kentzen dio».

Itzultzailearen ustez, X, XI, XIIgarren iardunak edo kapituluak urten deutsoe ondoen. Baiña XIIIgarrena euskerarako eta edozein izkuntzentzat gatxenetakotzat dauka. «Amaikagarrena errexata polita, besteak ez ain errexak. Latiñez eta españolez ere illun gelditzen dira». Olan idazten deutso adiskide eta lankideari 1954ko iraillean.

Kopian agertu diran utsak gaitik eta beste illuntasun batzuk gaitik zer orraztu ta zuzendu badala ikusi dauanean, bigarren eskua emongo deutso danari: «Badauka bearra. Xabarraldi asko dauzka». Jakiña, ez deusku esan zelango orraztuak egin dituan ez zelango utsak zuzendu dituan. Edozelan be, ez da dana lengolengo gelditu. Len ikusitako utsen batzuk, beintzat, kendu jakoz.

Beraz, bitarteko dabilzan laguntzaileak (Barriolatarrak eta Pio Montoia abadeak) bideak zabalik daukez liburua irakolarara bialtzeko. Urrengo urtean, 1956ko jorrailaren 12n Oiarzabalek azkenengo barri au artuko dau: «Agustin deunaren *Aitorkizunak* Gotzaitegian da, Donostiakoan, ... eleiz-baimenaren eske».

Esan eta egin. Urte orren barruan agertuko da plazara, Zarautzen, Itxaropena argitaldarienean «Agustin Gurenaren Aitorkizunak» 462 orrialde dituen liburua. Orixek or itxi euskun bere azken nekeen emoi ederra, euskaldunen eskuetan irakurleentzat gozagarri izango zalako uste osoan ipinten ebana.

Orixek bera izan da bere lanaren akatsak ondoen ezagutu eta zintzo autortu zituena. Nik ez dakit geroak, obeto esateko euskaldun irakurleok, zor jakon autorpen onik egin deusagun. Bear bada, gure labea ez dago olango opilletarako naiko bero. Or gabiltz geure eztenak zorrozten, batean zer dogu Orixeren alde eta bestean zer dogu Orixeren kontra, azkenean ez alde ez aurka egiteko, ez otx ez bero gelditzeko, izenaren beraren inguruan ixilla eginez. Noizik bein, orain lez, oroipentxo bat, omenalditxo bat, eta ezer gitxi geiago.

Orixek, Agustin deunaren liburu au euskeraz eskiñiaz, euskaldunen aldetik esker ohea izango ebalakoan egin ebalu uste dot. Batez be, abadeen aldetik. Oiarzabali bialduriko karta baten iñoanez, X, XI, XII, XIIIgarren iardunetan, «gure apaizak zerua zabalik arkituko dute pilosopi-gaiak eta Jainkoazkoak adierazteko». Nik ez dakit apaizak zer egin daben edo zer egin dogun. Liburu onek autorpen eta gorantzarik beteena laiko batena izan dau: Ibiñagabeitia'tar Andimarena.

Orixek, bere lanean ikusi zituan utsak uts dirala, San Agustiñen lan bikain au euskerearentzat mesedegarriztat eukala argi dago. Berak, atarian, lanaren bultzatzaile izan eban Mathieu gotzain euskaldunari egiñiko eskeintzako berbak irakurri besterik ez daukagu:

«Jauna: Zuk eragin ninduzun emeki, obeki esan, bultzatu ninduzun bortizki, Agustin Gurenaren Aitorkizunen liburu gure izkuntzara biurtu nenzan. Emen duzu eskuetan aspaldion ametsetan zenerabillana. Esan ote lezake Dexteparek:

Euskara,
ialgi adi plazara,
dantzara?».

Besterik ezpada ere, ezin esan, S. Agustiñek euskerari on andia egiñen ez dionik. Gaurkotik au gelditu diteke, Biblia leku, euskal libururik bikaiñena».

Orra non ditugun Agustin deuna eta Orixe, biak alkaturik euskerearen alde. Bataren eta bestearen urteurren onetan beioakie gure autorpen apala eta zintzoa.

ORIXE ABERTZALE*

Gure egunotan **abertzale** agorik ago eta komunika bide guztietan dabillen itza da. Gure inguruko erdaldunen agotan geienetan aldakuntzatxo bat artzen dau: **abertzale** egiten deuskue, geienetan abertzale amorratuena aitatu nai dabezanetan.

Abertzaletasuna gauza barritxoa dala esan geinke munduan. Erdal errietan **patriota** itzak ez dau beti gauza bera adierazo; sortu barritan itz orrek erriko semea besterik ez eban esan nai. Aspalditxorik asita, gaur badakigu zelango soñua daukan eta zer ekarten deuskun gogora. Ezta norbera jaio daneko auzoa edo jaioterria maite dabena; politikazko eta agintaritzazko muga jakin eta zabalago batzuk dituen erri-barrua gogoratzen dau. Bere burua **patriotatzat** daukanak olango erri edo aberri zabalago ori daroa bere gogo eta biotzean, eta **patriota** burubero eta amorratuentzat gurpil barria emoten deutsoe itz orri, *patriotero*, *chauvinista* edo antzekoren bat.

Euskeran, **abertzale** itza ezta erderazkoen mailla berekoa. Itzaren lenengo zatiak, *aberi* itzak, erri muga zabalagoetara daroa abertzalearen gogoa, odol beraren eta izkuntza beraren jabe diranekin edo izan nai dabenekin erri alkartu bat sortzera.

Bere erriaren eta bere izkuntzaren alde diarduana, bere erriaren nortasuna zainzeko ekintzetan sartzeko bere burua eskintzen dauana, ori da abertzalea. Benetako abertzalea bere buruaganik asiko da lan egiten; bere bizian erakutsi bearko dau badakiela bere erriko seme jator izaten. Batez bere, bere esku daukazan eta iñork zuzenbidez eragotzi ezin leikezan egitekoetan sartua.

Abertzaletasuna kulturazko arazoa da lenengo ta bein. Eta erri baten nortasuna nabarmen eta agirien ipinten dauana, izkuntza (eta gure gure artean euskera) bada, benetako abertzaleak izkuntza au ikasi, landu eta erabilteko gai eginez erakutsi bearko dau bere abertzaletasuna. Beste politika guztien ganetik, gizarte eta ekonomi egoera

* Euskerazaintza (1988, 5,zenb.) 26-29.

guztien ganetik, ori da beiñena. Ori barik eztago Euzkadirik ez Euskalerririk zutunik ipinterik.

Bere burua abertzaletzat saldu gura dauan euskaldunak, or dau Orixe euskal idazlea eredurik garbiena.

Abertzale jator agiri izan zan bere bizi guztian. Abertzale jator, jesuiten artean ikasle eta irakasle izan zaneko egunetan; abertzale gartsu gero, jesuiten lagunartea itxita, Bilbon Azkue andiaren ondoan, Euzkadi egunkarian eta aldizkari batzuetan euskal-lanari ekin eutsanean; abertzale aundi eta zindo, gero **Euskaldunak** poema andia idazten lan egin ebanean; abertzale adoretzu, 1936'ko gerratean, ain zakar eta gaizki erabillia izan zanean; eta abertzale jarraituko dau, erbestera iges egin bear-eta, mugaz andiko errietan eta Ameriketan egun latzak igaro bear izan zituenetan. Orixe ez eutsan ezelango politika alderdiri izenik emon, etzan bera arlo orretan lan egitekoa, euskal-kulturaren bitartez, Euskalerriri bere nortasunari eta izkuntzari laguntzekoa baiño. Eta orretan ez eban bere bizi guztian oporrik egin, ez atsedunik artu.

Jesuitetako ikasturteetan ez eban bere euskatzaletasuna aiztu, bai ostera argiagotu eta garbiagotu. Euskera jator garbia erioan bere etxetik, eta ikasturteetan ikasiak bere erri-euskera sakonago ikasi eta ezagutzeko balioko deutso. Orretarako ez eban maisurik bear, eta laster erakutsiko dau bere maisutza. Comillas'en ango ikasle ziran abadegei euskaldunen artean eta beste jesuite-etxe batzuetan lan ederra egin eban, ikasleen artean euskaltzaletasuna sortzen, argitzen eta bultzatzen. Gomuta ederra eta azi ona erein eban euren buruetan. Nemesio Etxaniz eta Martin Oiarzabal abadeak, eta Andima Ibiñagabeitiak Orixeren ikutua eta eragiña erakutsiko eben laster.

Jesuitak 1917n euskerazko aldizkaria, Jesus-en **Biotzaren** Deya asi ziran atearaten. Lenengo urte orretatik asi eta 1922-arte, sarri dator an Nikola Ormaetxearen izena, idazleen artean. Gipuzkeraz eta Bizkaieraz idazten dau bai bertsoz eta bai itz-lauz.

Baina Orixeren euskal-lana ezta mugatzen Jesuiten etxe eta aldizkarien barruan. RIEV aldizkarian be agertuko dau euskal-gaiezko lanik; euskal kulturazko gaietan izena artzen dau eta Euskaltzaindia sortu danean Naparroatik (Xabierreko jesuite-etxean zala) Euskaltzain urgazle izentau eben, eta 1921, Euskaltzaindiak lenen euskal-egunak Durango-n sortu zituanean, an da Nikola Ormaetxea itzaldi bi egiten, euskalbertsogintzara aize barriak dakazela.

1923: urte onetan jazo jako Jesusen Lagundia itxi bearra. Orixe orduan Bilbon artu dau bere bizilekua eta emen jardungo dau Azkue euskaltzainburuaren ondoan, bere urgazle-lana egiten (erriz erri Euskaltzaindiaren Erizkizundiari erantzunak jasoten eta abar). Ordukua dau euskal-literaturaren lenengo edestia euskeraz idatzia eta Bilbon jarraituko dau **Euzkadi** egunkarian erderaz eta euskeraz euskal-gaiak aztertu eta argitzen.

Bilboko egunetan idatziak dira Orixe'ren abertzale alderdia argitzeko euskerazko liburu bi: **Santa Kruz Apaiza** eta Mireyo, Mistral'en poema andia euskeraz. **Santa Kruz Apaiza** eztau idatzi apaiz ospetsu orren jokabidea ontzat emon, txalotu eta goratzeko. Euskaldun askok ondo gogoan euken gizona zalako abade ori, orregaitik

artu dau aren bizitza idazteko nekea, euskera errez jatorrean idatziz, euskaldun asko euskerazko liburuak irakurten zaletzearen, eta bide batez, abade orren irudia apur bat garbituz, Euskalerrriaren arazoak euskaldunen gogoan bizirik gordeten laguntzearen. Ori izan zan Orixe'ren asmoa, aberri lana egitea. Liburu ori bere aitari eskiñiaz erabilli zituen berbak argi dagoz: «Jainkoa ta Euskalerrria zenduzen burubiotzetan, armak artzean; nik ere bai ustez, lumari eragitean». Eta azkenen orrialdetan euskaldunaren eta Euskalerrriaren arteko itz-aspertuan, ona euskaldunaren azken itza: «Jainkoa eta Euskera nai ditut zuretzat, ama: Euskalerrria; gaiñerakoa Jainkoaren kontu. Bera baita errien jabe eta jaun».

Mistral'en **Mireyo** euskeratzekoan, barriz, berak ondo gogoan daroan maitasun bati emon deutso urtenbidea. Euskalerrria lango erri txikia dauksen maitasunez Euskerari eta gure erriari Mistral'en antzeko kantari bat opa dauksola antz-emoten deutso.

Bai: Mistral-ek bere erriko izkuntzari egiñiko opari ederrak kezka bizia sortu eban Orixe-ren gogoan: Ai gure euskerak olako poema bat baleu!

Baina, ez, ain zuzen Mistral-en poemaren antz-antzekoa. **Mireyo** poemari berari iñausketa batzuk egin eutsazan Orixe. Mistral-ek orduko erromantiko tankerari obena egiñez poeta orretan sartu zituen geiegikeri eta apainkeri batzuk soildu eta kendu egin eutsozan euskerara itzultzaileak. Olango apainkeri bako poema bat opa deutso euskerari.

Eta ona *Euskaldunak* poema, Orixe bere abertzaletasun jator eta garbienaren ezaugarri idatzia. Gure poema idazlea ez da joan gai billa, ez Aitor zalakoaren ipuñetara, ez Orreagako gudaketara, ez euskaldunen beste benetako ez guzurrezko erraldoikerietara. Euskaldun nekazari, artzai eta arrantzaleen bizitzara jo dau; euskalduna bere lur-lanetan, artzain-lanetan eta illeten inguruan erakutsi deusku. Erri baten eguneroko arnasea arnastu eta senti-erazo nai izan deusku. Orretarako eskatu dau asiera-asieran Jainkoaren laguntza:

Zatozkida, Goi-Arnas,
eizu nerekin lan,
erri baten arnasa
mamitu dezadan.
Geroak esan beza:
erri bat izan zan,
edo-ta ats emaiogun
onetan iraun dezan.

Poema au 1936-ko urtea baiño lenago gelditu zan amaiturik. Aita Mokoroak, Ibar ezizenez, bere txosten ederra eskiñi euskun **Genio y Lengua** liburuan. Txosten onekin, aurkezpen orrekin gelditu giñan, amabost urte inguru, 1950n poema osoa argitaratu zan arte.

Artean, 1936-n Euskalerrriaren eta Orixe beraren nekaldia dator, Orixe-ren abertzaletasunean nekaldi gogorra. Nekaldi au ondo baltz eta gorri iruditaratu euskun gero berak **Kiton Arrebarekin** liburuan. Inpernu gorria etorri zan Euskalerrriaren

gañera, inpemua bera bai, bere bost odei inpemu ekarleekin: gezur-zuri, gezur-baltz, gorroto, izenik bako odeia, eta biraoa, dana **gurutze-gudaren** izenean. Gurutzada argia, olango inpernuko lagunekin sortu zana! Inpemituko ekatx onek Iruñen San Kristobal gazteluko barrualdia ekarri deutso Orixe-ri, lenengo; eta gero, urte batez, bereen artean ostenduta bizi bearra, arerio amorratuaren menpean egotetik urtetea lortuko dauan arte. Nekaldi onetan agertu zan argien Orixe-ren abertzaletasuna. Orduan agiri dau zelango politikaren alde dagoan gure euskaltzale sutsua. **Kiton arre-barekin** liburu orretan **gureak** aitatzen dira sarri: **gu, gureak** eta... besteak. Eta nortzuk eta zeintzuk dira gureak? Jakiña: euren agintea Euskalerritari indarrez ezarri gura deutesen aurrean burua makurtzen ez eutsenak, euskera eta Euskalerritari bizirik irauten lagundu gura eutsen abertzaleak. Besteak, labur esateko, euskaldunai gorriai baño gorroto andiago eutsen indarkerizaleak.

Inpernuko egoera negargarri atatik urtetea lortua dauanean, mugaz andik eta erbestean bizi izan dauan artean, bere barman barm eroango dau Euskalerritarien ganera jausi zan inpernuko ekatx arek emoten eutsan ezin etsizko eta banubaiTuko miña, eta kementsu agertuko da beti gaizki esale ez-jakiñen aurka **gureen** jokabidea eta izen ona garbitu bear dituean, eta zorrotz erabiliko dau bere lumea, jaunzkillaren, Matxin Biurrien, au da, Francoren aldekoak zabaltzen ebezan guzurak salatzen. Bere arreba mojatxoaz Kiton izeneko autuetan garbi eta zeatz ustu dau gai onetan bere banua. Liburu orretan agertzen da Orixe goitik berako abertzale betea. Abertzaleen politika alderdiari izenik emon bakoa ba zan be, eta euren artean babesik billatu ez eban arren be, abertzalerik abertzaleena ezta izan Orixe baiño abertzaleago barmko zintzotasunaren eta osotasunaren aldetik.

Ez daiogun eskatu Orixe olerkariari aberriaren zorigatxai illeta errez eta negar utsezkorik jotea, beste olerkari batzuk egin izan daben lez; ez eta euskerari eta Euskalerritari lora utsezko edo aize utsezko eskeintzarik egitea; barmagokoa eta sakonagoa da Orixe-ren aberri miña. Ez eskatu berari goizetik gabera, lenbailen **Zazpiak bat** edo Euskalerrri oso bateratu bat, osoan euskaldundu bat eta eztakit zein koloretakoa egin bearrez ames zororik egitea, euren buma euskalduntzeko gauza eztiran batzuk egin nai daben lez. Orixe-ren abertzaletasuna ez zan buruberoaren ez bum ariñaren amesik. Aberriaren arazoak, lurreko fntuak lez, epea bear dabe euren garara eltzeko.

Orixe-ren abertzaletasunak oiñarri sendo bi ditu: Jainkoaren legea eta euskera. Ori dau Euskalerrriak beiñen. Euskera barik ez da Euskalerririk, eta euskereari eustea benetako abertzale danaren eskuetan dago. Eta Jainkoa diñoanak gizon eta erri guztien ganetik, guztion kontu-artzaille dan Norbait diño, Jainkoa diñoenak gizon eta erri arteko anaitasuna eta bardintasuna, gizon eta erri guztien nortasuna aintzat artzea eskatzen dau. Jainkoa aitzuten edo albo batera isten dauanak edozeiñen indarkeriaren mende isten dau gizonen eta errien, eta batez be, erri txikien geroa.

Orixe abertzalearentzat Euskalerritarien geroa Jainkoaren eskuetan dago. «Bera baita errien jabe eta jaun». Euskalerritarien geroa ezta itxaropenik bakoa. Berak, bere nekaldiko eta erbestealdiko egunetan, egun senti obe baten argi zirrintak ikusi zituen, euskerarentzat Euskalerritan askatasuntxoa lortu zanean, ordu obeak ikusi ziranean. Eta orduan Euskalerrira itzuli zan **Jainkoaren** billa, bere errian Jainkoagana joateko

erretasun andiogoaren billa, eta bere azkenengo indarrak euskeraren alde ipinteko. Tamalez, etzan gaurko giro obe eta zabalagoa ikustera eldu. Baiña itxaropena ukatu barik joan jakun.

Eta itxaropena da abertzale on batek bear dauan indarrik bearrezkoena eta suzpergarriena. Itxaropenik ezak, eperik ezak indarkerietarako eta beste ameskerietarako jokabideari zabaltzen deutso atea. Eta indarrezko jokabidea kaltegarri izan zan euskaldunetzat Santa Kruz apaizaren egunetan. Eta gure egunetan kaltegarri eta euskal-indarren euren banatzaille eta indargetzaille biurtzen jaku. Garbiagoa, gizalegezkoagoa, kristauago eta osasungarriagoa zan Orixe'ren abertzaletasuna.

ATX-OSTERIK ATX-OSTERA*

Atxostekoa naz eta Atxostera nator.

Arratia-aldegi Durango-aldera, bitartean diran atx-tontor laño-zaleen ganeti, Izur-tzara luzatu nai dot eskua, ango seme argi batek eskintzen deuskun euskal-liburu barri au esker onez artzeko.

Niretzat txikitarik izan da entzuna Atxoste. Atxostekoa zan nik neure auzoan euki neban lenengo eskola-maixua, Otamotxa ezizenez. Atxoste-aldegi ekarten euskuen umeai Marie Basoko-ren ogia. Atxosteti agertzen zan, astean bein edo, asto ganean, ogi zuridun andrea, lenago emendik arajoana. Atxosteti etorten jakun, urtean birritangixienez, gaztedi urduria, santzokatakantari, auzokojaiabizitasunaemoten.

^Zer zan guretzat Atxoste? Erbestea, edo beintzat munduaren bestaldea. Gure mundua egunero begien aurrean ikusten genduana zan: gure erria baño askoz geyago ez. Mundu orren azkenengo mugak: Gorbea ta Orozko-aldeko mendi-errezkadak bateti, Serantes ta Ganekogorta, besteti, eta an, urrin baten, Burgos-aldera edo, lausoan galtzen ziran lurren baltzunea, guretzat izen bakoa.

Urteak igarota, Durango-aldean nintzala, barreak emon eustan Atxoste izen ori entzunda. Nik Atxosten nintzala uste, eta neu nintzan an atxostekoa, bestaldekoa «Ara, ba, esan neban nik, erri batekoak gara guztiok emen. Zuek, atxostekoak, gu bere bai».

Izenez bat gareanok, orraitio, ez gara alkartasun txarrean ibilli. Gure arteko mendi ta atxak eztira muga izan, bide ta zubi baño. Lenago etzan oraingo moduan; baterik bestera joateko lenago etzan iñor zelairik zelai Lemoatik zear joango; artz artzen eben mendi-bidea. Olantxe izan da oraintsurarte. Or dagoz oindiño mendiko bideok, ainbeste oiñek zapaldu ta sakaturik antxiñarik egiñak. Eta oiñak bakarrik ez; lekuan lekuan, burriñea ta sutautsa be erabilli bear izan ziran bidea urratzeko.

* **Bitaiño**, *Atalak*, San Sebastián 1967, 15-25. (Sarrera gisa).

Mendian zear ibilli oi ziran gure antxiñakoak. Olantxe egin ebezan ainbeste ezaupide, eta alkar ezagutuaz, ainbat eskontza be bai, alderdi bi onein arteko lokarriak estuago ta maitagarriago egiteko.

Izen bi aitatu nai ditut emen Atxosterik Atxostera beñola ibilli ziranenak: Pedro Madariaga, ta Durangoko Zidargiñenak.

Madariaga ori Obako semea dogu, oingo Madaria etxekoa. Orain lareun urtekoa da. Oso gazterik ospe andia atera eban Valencia-ko Eskola Nausian, kaligrafi-irakasle. Liburu ospetsu baten egillea da. Erdal-errian bizi ta erdalduntzat idatzi ebanarren, euskaldun agertzen dau bere burua. Berak emonak dira euskal-ortografiatz be lenengo zeaztasunak. Eta ezek be ezeutson iguin andiagorik emoten euskeldun erdaldzaleak baño. Orrez ganera, gure mendigoi-zaleentzat eredutzat jartea merezi leuke.

Obati Atxostera egin eban, aurki, bere lenengo urteerea. Eta atxetati zear egin be. Joan-etorri ori bein baño sarriago egin ebal dirudi. Eta an goiko atxetako gorengo tontorrean, ikusita dauko eguzkia bere goizaldeko lenengoko izpiakaz eta arrastiko azkenengoakaz tontor ori joten. Eta an gelditu jakun bein, «zabal-zabalik begiak», Bizkai osoa begipean ebal, Portugalete-ko itxas-aldera zoraturik begira. Eta andik bera artu eban azken baten Atxosterako bidea, ikasi-miñak bultz eginda, Itziar, Durango-ko seme argi baten eskola-mutil izateko, eta Italian zear ibillita gero, bera be maixu andi egitera eltzeko. Atxosterik Atxostera bidean, mutiko zala, asmau zituen sentierak ez zituen arik aurrera aitzu. Eta bere izena Durangoko Itziar orren eta gure atx orrein izenaz bat egiñik itxi deusku.

Mendi-bideotan ibilliak dira Durangoko zidargiñak be. Barrero asi da oraintsu gure artean zidargiñ onein izena zabaltzen. Baña gitxik dakiela uste dot, Dima-ko semea izan zala, Indusi-auzokoa, Durangar ospetsu orrein ezaupidea lenengo emon ebana: J. A. Zamakola, Astarloaren adiskide andia, «Historia de las Naciones Bascas», liburuaren egillea.

Ona Indusiko seme onek esana: «Zidargin bi ezagutu ditut nik eta oindiño bizi dira, anaiak biak, Juan Kruz eta Antonio izenez; lenengoa, bertsolari ta soñulari trebea: bigarrena, yantzareko oso yayoa. Bizkaian, eta Bizkaitik arago be, amaika lekutan izanak dira, auzo ta errietako jaietara deituta. Lenengoak sekulako gatza eukan bertsogiñen eta zortzikoak joten; bigarrenak, bere umoreko arrebata bat lagun ebala (ezkondu bakoa berau), ikusgarritzko yantzaldiak egiten zituen». Orixe diño 1818-an Frantzian ateratako liburu orretan.

Zamakolak ez ete zituan zidargiñak Indusin bertan ikusi? An izan ziran beintzat, atxosterik atxosterako osterea eginda, 1793-garren urtean, ango jaietarako joanda. Ez ziran bakarrik joan. Lagun ebezan beste bi: Momotxo (Momoitio), tanboliñaz, eta Pepe, atabalaz. Euren kontura egoan jai-eguneko yantzea. Ez eben egun txarra emon. Baña biyamonez izan ziran kontuak. Ilbiztuiko atsoak labasuan baño geitxoago egin eban urrengo egunerako (Ilbiztui da Oba-ganeko atx-tontorrik gorenetakoa bat, eta lafioz estaltzen asten danean, Ilbiztuiko atsoa labasugiñen asi dala esaten eben lenago). Eguraldi txarrak emonda, osterata txarra euki eben. Or laban ta an jausi, busti egiñik eldu ziran Mafiarira. Nekez berotu ta bizkortu ziran Txakoliñen tabernan sartuta.

Etzan izan egun pozgarria Indusiti osterea egin ebeneko ori. Alan esan deuskue euren bertso batzuetan:

Milla ta zazpireun da
larogeta amaim,
zer pasau jakun aurten
esan bear dogu...

Aiene baten eldu ziran etxera, beste bein Indusira joateko gogo barik:

Etxera eldu eta
esan neban sarri:
Ez ostera Indusira
Iñuenganeti.
Agaitik esaten dau
gizon aguduak
eztabiltzala ondo
munduan zomak.
Ai ene, ai ene, ai ene bada!.

Egun orretan, orraitio, gauzatxo bat ikasi eban gure bertsolariak: Dimati Durangora autsa saltzen joaten ziran neskatillai erмки artzen:

Zenbat ta zenbat bidar
ikusten ditut nik,
im zorro bumban,
ondo kansaturik,
itantzen etxe baten:
«Autsik biar dozu?
Onelan euki barik,
arren, esaiguzu»...

Onek onan ikusiz
eztana biguntzen,
zelango galtzaidua
izan bear daben!...

Oitura jakingarria Durangoko bertsolari orrek emen gogorazoten deuskuna. Neskatilla orreik eraien auts ori lexibarakoa zan nonbait, bogadea egin ta zapiak zuri-tzekoa.

Zorionez uste dogu neskatilla orreik bertsolari arein eguna baño egun obeak artuko zituezala Atxosteti joan etorria egiteko. Eta eguraldi onak lagundu ezker, mendi-bide areik eztira leku txarrak aize onak artuez ibilteko. Azkenengo gerrate ingumrarte dana zan, barriz, an txiliña, arrana ta dulun-otsa. Dana egoan basabeiz, beorrez eta ardiz beterik. Len landa eder ta ira-leku bedartsu ziranak orain piñudi

dira. Eta ezta entzuten, urrietan, lenago lez, ira-ebatalleen santzo ta irrintzirik ango baso-bideetan.

Durangoko zidargiñen egunak ezkerro, iru baserri-etxe sortu ziran ango bakar-tadean, Baltzolati Iñonganera-bitartean (Ikusi dogunez, arein bertsoetan Iñuengan da, beste batzuentzat Iguengan eta Iñongan dana). Etxe areik ustu dira. Edo, obeto esateko, kanpotxoriak sartu dira eurretan. Udaldia an emoteko, bilbotar batzuk egin dira euren jabe. Eta an dabiltz, besteak beste, agur baten edo euskel-abestiren baten truke, aspaldiko Indibiti ta inguruko bazterrak erdal-otsez betetan. Ai, len aitatu dan Pedro Madariaga bizi balitz eta ori ikusi! «Ilbiztuiko atsoa, non zara?, esango leukela uste dot nik. Zergaitik etzatoz zeure atx-gane orretati, zeure iñarra ta ipizkia, bazter-erdaltzalleok aurrean artuta, orti zear jaurtiten?». Olango izualditxo bat ez ete letorkie ondo? Euskalduntasuna erakusteko, ez ete dogu asmauko era jatorrago ta gizez-koagorik?

Ordua dot neure atxarteko ibiltaldiari azkena emoteko. Berandu bada be, eldu naz Atxostera. Urriñerik nentorren, bide luzea ekarri dot, eta berandutxo eldu bear.

Aurrean dot Izurtzar jator baten liburu au. Euskalduntasuna erakusteko bide zuzena emen dogu: euskereari eutsi, euskerea landu, gogo-bide guztietarako gai egin. Euskal-izena baño euskal izana dogu bearrago. Eta izate au ez deusku ez lurra ez odolak emongo, geure arimearen ordezo lez dogun euskereak baño.

Anai Berriotxoak onetan artuta dauko bere bidea. Erronkarik eta zaratarik barik, baño nekatu eziñik daragoyo lanari, euskal-salletan aztertu ta aztertu, emen jo ta or jo. Eta txitean pitean agertzen dira bere ekiñen lorratzak, bai euskeraz eta bai erderaz. Eta oraiñarte egiñiko lanen atalakaz, txorta ederrak egiten asi jaku. Olantxe egin deusku oraintsu, erderazko liburu bat aterata. Olantxe jatorku oraingoan euskerazko onegaz.

Betor zorionean liburu au euskal-literaturaren arloak nasaitu ta zabaltzen. Gairik ugari darabil berton. Ba-ditu jakintzazko gaiak, eta asti-emongarrizkoak; lenaren barri emotekoak eta oraingoak. Durango-aldea ta Bidasoa-aldea, lena ta oraiña, Euskalerrria ta atzerria, ikusia ta asmaua, danerik dago emen. Egilleak ba-daki kanpoko mundura ta gogo-barrukora begiratzen.

Atal oneik nekez egingo jakoz iñori aspergarri. Gaien ugaritasunak eta laburtasunak eztau orretarako biderik emoten. Berbarik errezenakaz eta larregizko apainkeri barik esanda dagoz gañera. Ipuña bada, asko orraztu ta biribildu barik dator, baño bere gatza ta piperra galduazo barik, berba ta esakerarik egokitxoena kaz, erriaren beraren agoti baletor lez. Izan dira gure artean, erriko ipuiñak arean jantzi, orraztu, luzetu ta biribildu egiten ebezanak. Olangoxea zan Mañariko, Kirikiño onaren alabea. Izurtzako seme au, ostera, zeaztasunari dagokio, ta ipuiñaren mamiari bizitasunik kendu barik, esatekoa bere murriztasunean eta soillean esaten daki. Esakerari aztuntasuna kentzeko, modu egokia dauko gero aditza, berboa, noz itxi bear dan jakiteko.

Bere barruko gogamenak azaltzen deuskuzanean be, bardintsu jokutzen dau: berbaz urri, baño zer-esantsu. Anai Berriotxo pintatzallea ta dibujogintzari emona be ba-da; lumaz esaten dituan gauzak be, bere olerki-ixuriak be, esango neuke nik, irudi baten azpian, *cuadro* baten azpian azalgarri ipinteko egiñak dirudiela. Ortik euren laburtasuna. Pintatzalle batek, margolari batek orixe egiten dau: ikuspegi andia

dana oyal baten txikitasunera ekarri. Gure idazle onek bardintsu egiten dau: bere barruko ikuspegiak, andi-andika, laburturik emon, euskera errez gozatsu baten.

Idazkerekak, estiloak, norbaiten izakerea ta nortasuna agertu ta salatzen baditu, idazle onen idazkerekak beronen arte andia, epea, egoarria agertzen dituela esango neuke. Bere berbai naiñondik darie bake-giroa.

Bake-giroa, burrukea sortzen daben auzietan be. Amaika eztabaida ta berbazko burruka sortu da gure artean euskereari dagokiola: erri-izkuntza dala ta eztala, gramatika dala-ta eztala. Ainbat auzi, ainbat eztabaida.

Auzi-gai oneitan bere eretxiak ditu eta bere bideak artuta dabil, aurki, gure idazlea. Baña beste bideen batetik dabiltzanen aurka jarki ta ekin barik, edozein eskolakoentzat itzala, begirunea ta txera ona darabiltzala.

Erria izan dau bere lenengo maixua. Bere erritarrakaz artu-emon luzea erabili dauana igarten jako. Izurtzako aizea ta ango euskerearen amasa dakar bere berbetan. An aurkitu ta jaso ditu kontagai asko. An ikasi dau kontagai orreik labur emoten, aditza zelan ta noz esan barik itxi.

Baña bere erriko euskera utsa ez deusku emon nai izan. Bizkaiko euskeran batasun bat egiteko bidera etorten alegindu da, Izurtzako euskereari berea emonaz nozik bein, alkar-jardunetan. Onetan, gure Oskillasoren eskolara urreratu dala dirudi. Ortik kanpora, nik badakit zelango alegiñak egin dituen Bizkaiko euskerarentzat batasuna billatzen. Euskalerri osoarentzat batasuna egiterik ez dot uste Anai Berriotxoari burura etorri jakonik. Olango auterestirik eztarabil. Eztau euskalki barririk asmau nai. Ori jazoten jake sarri batasun-zaleai: euskalkiak, dialektoak itxi egin bear dirala-ta, batasuna bear dala-ta, atxaki orregaz beste euskalki bat, beste dialekto bat sortu ta erabili. Anai Berriotxoak eztau bide orretara jo. Bizkaieraz egin dau liburu au. Eta Bizkaiko euskeran batasun-bide bat billatzeari naiko eretxi deutso.

Nire ustez, alegin onetan utsetik asi da, gramatikatxo bat aurrean euki barik. Alan dala, bere asmoetan uts eginda gelditzea ezta arritzekoa, baldin utsik egin al baleite, borondate onez, gogo onez egin dan gauza baten.

Beyoaz zeaztasun batzuk. Bizkaian euskera bi izan dira klasikotzat lez artuak: Mogeltarrena ta Añibarrorena, Markiñakoa ta Arratiakoa. Baterik bestera alde andiena aditzan eta fonetismoetan dago. Euzkera biok, izan, eztira ez Markiñakoa ez Arratiakoa, bien artekoa baño. Baña eurok artu izan dira eredutzat.

Atal onein idazleak zeñetara jo dau? Arratialdekora, baño ez beti. Nozik bein bere Atxosteko esakerak, aditz-erak eta fonetismoak urtetan deutse.

Ikusi daigun bat edo bat. Ezbaiak izan ditu, esaterako, *dabee*, *dabie*, *daube* ala *dabe* idazteko. Azken baten *dabe-gaz* gelditu da, baño, utsen bat ezpada, bein edo geyagotan *daube* ikusi dot nik. Gure Atxosten *daude*, *daudie*, *daure* ta *daurie* erabilten dira. *Daude* dakar Bizkaierazko lelengo liburuak XVI-garren gizaldian. Bizkaian erri askotan esaten da olantxe, eta ba-dau bere antza Gizpuzkoako *dute-gaz*. Baña gure literaturan eztau indarrrik artu.

Neban irakurten dot geyenetan, baño batzuetan *naban*. Izurtzako kutsuen bat? Baña nik *naben* entzun dodalakoa daukat Izurtzan beti.

Dautso ta *dautsu* ta onangoakaz be ezbaian dabil. *Deutso* ei da beti klasikoetan. Askok lojika-bidez asmaukotzat dauke beste *dautso* ori. Baña ezta egia. Klasikotzat

dago aita Zabala Prantziskotarra, eta Bizkaiko aditzaz egin eban bere liburuan diño *dautso* ta *dautsu* esaten zirala Bizkaiko leku askotan. *Dautzu* esan ezker Lapurditarrakaz bat gatoz.

Geñean ta *leitzakez* be irakurten doguz liburu onetan. *Geñean* ta *litzakez* askoz obe legokez. *Leiteke* erabilten da; baña *leitzake*? Ez neuke esango.

Illuntzi illuntze esaieko Azkuek ezta, eta utsen bat ete zan nengoan ni. Baña ez, alan esaten ei da Durango-aldean. Eta bardin ikusi dot Zidargiñen bertsoetan. *Arrasti-ren* antzera sortutako itza ete da, arrastiri, *illuntz-ml*.

Zer da, barriz *agatxa*, *agaztoi*? Oker ezpanago, itz ori beste leku askotako *aretx* eta *aretxoi* besterik ezta, errerik ezin-esana daukan baten agotik urtenda. Bestela, oartxo bat ez jako txarto etorriko, zer dan jakin daigun. Orraitio, beste bein *aritza* be aurkitzen dogu.

Eta zergaitik *batoren bafl* Bizkai guztian artzeko moduko laburpena ete da? Sortzez *batedo* bat, edo *bat edoren* bat dala esango neuke.

Etara ta *etarte* be Durango-aldeko esakerak dira nonbait, beste geyenetako *atera* ta *atarte-ren* ordezkoak.

Fonetismoetan ez darabil beti lege jakiñik. Alan, *bier egin* ikusten dogu beti, urrengo lerro baten *egin-bearrak* esateko. *Zier* dakar sarri, gure *zear-tñ* ordez.

Baten batek oraingo itandu dau: Zetan dabil Atxostekoa au bere Atxostekeriokaz, uskeriok ateraten? Zergaitik? Atal onein egilleak alan nai izan daualako, ez neure atsegiñez ta gogoz. Izurtzar onek guztien eretxia jakin eta entzun gura leuke, gero berak biderik onena eta zuzenena artzeko. Guztion atsengingarri egin gura dau lan. Guztion gogoa egin gurez dabil. Esker onez artuko dau edozeñen eretxia.

Olango gogo ona ez al da atsegiñez eta borondaterik onenaz artzekoa? Nik neuk, Atxosterik Atxostera eskua luzaturik, agoz eta biotzez diñotsot: «Bota bosteko ori. Zorionak, adiskide! Ekin eta jo aurrera, atalka-atalka zeuk gogoan darabiltzun lan andia Euskalerrriaren onerako osatu arte».

KATALUÑA'TIK SERGIO VILAR ETA GURE LITERATURA*

Enbeita zarraren bertso batzuk kantuz

Katalandarren eta euskaldunon artean ar-eman estu esturik dabillen ez nuke esango. Batzutan, badirudi baietz. Eta ar-emanok onak eta biotzetikoak dirala gañera. Berez ala bear luke.

Izan ere, aiek eta guk auzi berdinsuak ditugu arlo askotan. Aiek eta gu izkuntza banaren jabe gera. Eta erri bakoitzaren izkuntzari eusteak, bera zaitu bearrak elkarren lagun egin bear ginduzke, indarrak bateratzera ekarri. Baña izkuntza bana izate onek baditu beste alde batetik, bere okerrak: ezin dugu elkar ongi aditu, ezin elkar ongi ezagutu. Oker au aundiagoa dela uste dut katalandarrentzat. Zailago egiten zaie aiei gure euskera ulertzea guri aien izkuntza ulertzea baiño.

Oker au gertatu zaio, nik uste, oraintsu agertu dan erderazko liburu baten egi-lleri. Euskal-literatura dela ta eztela, ez dut uste itz gutxiagotan burugabekeri geia-gorik iñoiz esan denik Sergio Vilar'ek esanak baiño, bere «**Cataluña en España**» liburu argitaratu berrian.

Euskerarik ez jakin eta erderazko liburu batera jo du berak argitasun-billa. Aita Villasante'ren liburu aundian murgildu da ta zer ikusi du? Izenik asko, baño mamirik gutxi. Izenik asko, baña aitatzekorik bi besterik ez: Larramendi eta Arana. Beste guztiek ez omen diote ezer esaten. Beste guztia balizko kontua baizik ezta. Unamunok euskeraz idatzi balu, Barojak egin balu... Eta balizko errotak iriñik ez. Eta gure literatura guztian esateko izenik edo idazlerik ez.

Ba omen ditu, orraitio, euskerak erri-kanta ala-olako batzuk. Orra **Gernikako Arbola**, Michel'en liburu batean aurkitzen dena. Orra beraz gure literatura guztia: Larramendi, Arana ta Gemikako Arbola.

Eta orañago zer berri? Vilar delako orrek Donostiar batzuekin itz egin du. Eta zer jakin du oraingo berririk? Idazle baten izena: Gabriel Aresti, eta bere liburuarena **Harri ta Herri**. Erderazko itzulpen ta guzti argitaratua dela ta, erosi du. Erderatik irakurri, eta zerbait onik aurkitu omen dio. Esan-naiz, intentziosz beterik omen dago.

* Zeruko Argia 31 (1969, 317. zenb.) 3; *Basabil* izenpean, ik. 82. orr.

Alegia, esana baiño esan-narik geyago duela esango balu bezela. Kukurruku arrorik joteko, ezer gutxi. Orra, bada irugarren izen onekin, gure literaturamunduaren aurrean osoago azaldurik: Larramendi, Arana, Gernikako Arbola ta Aresti. Ez gaiten arritu. Ez dezagun farrarik ere egin. Elkarren ezaupide argiagorik ez dugun bitartean, olako gauza mingarrik elduko da gure belarrietara emendik aurrera ere.

Liburu au eskuratu nuen egunean berean iritxi zan nere eskuetara Kataluña'tik beste zertxobait atsegingarri: euskerazko kanta-liburutxo onek besteak emandako mingotsa gozatu zidanik. Baña bai atsegiñez eta esker onez artu nuela, ezpaizekarren iñondik miñik emateko alderdirik. Ez dezaket esan bere egillea, bear bada Kataluñan sortua delarik ere, guztiz katalana denik. Beintzat, bere izena oso euskalduna du: Antonio Alberdi Agirrezabal. Auxe da kanta oien doñua edo musika sortu duenaren izena. Euskalerrian askorentzat ezaguna da, noski. Organugille aundi ta ospetsu baten semea. Bera ere oranugille eta, emen erakusten duenez, musikalaria ere bai.

Nere ez-jakiña aitortu bear ta, eztatik berriz ere Bizkai-aldean, Gernika-aldean ez ote duen bere gurasoen jatorria. Eta orregatik elkartu zen, aurki, orain dela 50 urte, Enbeita'tar Kepa, Muxika'ko Urretxindorra zeritzanarekin abesti oiek ateratzeko. Kataluñaren biotzean bizi arren, badirudi bere asaben errialdera datorkiola maiz biotza. «Gure Txomiñ»'ek bezela gabon-mutillaren deia maiz entzuten du: «Ator, ator, mutil etxera»... Eta atsegin du noizik bein, gabon-mutillen bixigu-orde, eresizko maite-erakutsiren batekin, bereen artera etortzea.

Ola egin zuen orain 50 urte. Eta ola egin du orain berriro. Kanta mordo onek bigarren argitaraldiadu oraingoa. Lenbizikoa 1918'kooda. Lenbizikoa euskerautsean atera zuen. Oraingoari, beste norbaitek eginda erderazko itzulpena erantsi dio. Guztitara lau abesti dira: **Nik Basoluzen, Ene Txori polit ori, Gure Txomin eta Ene Zoritxarra.** Laurak, Enbeita zaarraren bertsoekin.

Ona emen, lerro oein gozagarri, bigarrenaren itzak:

Ene txori polit ori,
zeri adi ago,
ez abesteko kaiolan
alai ta pozago?
Zer gura ta axe doala
beti baldin ba ago,
zentzunbako mizke orrek,
^zer nai dok geyago?

Beste txoriok basuan
posez zoratuta
jabiltzak txiroliroka
ezin aspertuta.

—Ai, neu be orreik lez azke
baldin banengoke,
guztiz alai eta pozik
abestuko neuke.

AMETZAGA'tar BINGEN IL DA (G.B.)*

Caracas'tik albiste beltza berriz ere: euskal-alorreko beste langille azkar bat galdu degu, Ametzaga'tar Bingen, alegia.

Oraintsu xamar argitaratua zuen, bere azkenengo operari bezela etorri zaigun erderazko liburua: *El Hombre Vasco*. Berriak eskintzen zizkigun. Baña beretarrak gitxien uste zutenean, ezustean gaixo zitalak artu ta eraman digu, Ametzaga onen amesak etenda utzirik.

Otsailaren 5'an izan da, joandaneke otsailaren bostean. Eta andik egun gutxiren buruan, otsailaren 8'an izan dira illetak bere jaioterrian, Bizkaiko Algorta'n. Eleiza adiskide minduz beterik. Aldarean, beste apaiz biren artean, Joan Gorostiaga, euskaltzain jauna. Mezan zeudenen artean, tamalez, euskal-idazlerik gutxiegi; Karmelo Etxenagusia ta besteren bat. Urrengoren batean, izango al du omenaldi beroagorik euskaldunen aldetik, ildako onek ongi merezi zuen bezela.

Euskaldunok eredutzat artzeko gizona izan degu Ametzaga jauna. Umetan ez zioten euskerarik irakatsi. Baña berak zuzendu zuen gertatu zitzaion oker ori, gogoa argitu zitzaioneko. Gogotik lanari ekin ta berak bere bakarrean ikasi zuen euskera, bere asaben izkuntza, ez-jakiteak ematen zion lotsaria ezin eramanda. Eta abogadutza amaitu zueneko, laister asi zan euskal-idazleen artean izen berri bat entzuten: Bingen, edo Ametzaga'tar Bingen. Bai itz lauz, ta bai itz-neurtuetan idazten zuen.

Emengo gerratean, Ameriketara joana genduen. Eta atzerrian emanak ditu, idazle bezela, fruturik umotuenak. Atzerrietako literatur-baratzetan sarturik, lorerik ederretako batzuk artu zituen aietatik eta gure baratzera aldatu: *Platero ta biok*, J.R. Jiménez'ena, eta *Hamlet*, Shakespeare'na. Lan zailak, euskerara itzultzeko nekerik naiko ematekoak.

* Zeruko Argiara bialdua, eta argitaratu bakoa (1969).

Berak autortu zuenez, Shakespeare itzultzean, izan zituen im eragozpen: «lenegoa, Shakespeare berarena; bigarrena. gure euskera, olako lanetara ez oitua; ingarrena, nire gutxitasuna. Iru eragozpen aundi oien aurka, ordea, beti izan ditut bi bultzagai: maite dut Shakespeare, euskera areago. Maitasun bi auek lanean yarri ta bumtzeko adorea eman didate. Dakuskezun ona aiei zor diet. Utsak, berriz... maite aundia izan dudala ta barkagarri nauzute».

Geroago, Ameriketako aldizkarietan eta gure arteko *Egan-en* argitaratu du beste euskerazko lan ederrik, bai bertsozko ta bai itz lauzko, bai bererik ta bai besteenetik euskerara itzulitakorik. Esaterako: *Descartes* ospetsuaren *Discours* delakoa. Geienetan erakutsi du berak gairik sakonenetan murgiltzeko berezko joera. Bere lanen sari, Euskaltzaindiko egiña genuen.

Erderaz, len aitaturako liburu ortaz gañera, beste batzuk ere utzi dizkigu, Ameriketean euskaldunek utzitako aztarrenen billa. Euskalerritik uiruti egonak argi dago ez diola bere erria aztu-erazi; leial eta aspertu gabe eutsi diola gaztetako amesekin batera bein artu zuen bideari.

Caracas'ko euskaldunen artean utsune aundia utzi du. Azken-aldi ontan, tarte aundirik gabe, bi izar argitsu itzali dira an: Ibiñagabetia len, Ametzaga orain. Goyan bego bata ta goyan bego bestea. «Jaioko al dira berriak», batez ere Ametzaga au bezelakoak, bein eldutako bideari azkenerarte jarraitzekoak. Oraingo gazteek eredutzat artuko al dute. Asko da asten denik. Azkenerarte, Ametzagak bezela, zenbatek irauten duten ikusi bear.

ZARAGÚETA ZANAREN OROITZAPENEZ*

«Zaragueta apeza agure sendo bat da, euskalduna eta euskalzalea».

Orrelaxe zion oraintsutan, beste euskaldun eta euskalzale dan batek, Lafitte apezak, egun gutxi dala eskuetaratu zaigun «Gure Herria» aldizkarian. Egun asko igaro gabe, sendoa zan agure ori «zendua zen» (Lafittek bere euskeran esango luken bezela), bizien artetik joana, illa. Goian bego.

Filosofa bezela, goraipamenik izan du egunotan. Egoki eta bidezko zan, egia esateko. Lafittek berak ere, ari ortatik aipatu du eta goraipatu: goraipamen laburra, baiña mamitsua, zer-esantsua, egin dio: «Bere bilduma edo sintesis aberatsetan neurri onean sar-arazten ditu mota askotako jakintzak: matematika, antropologia, linguistika, fenomenologia... Gai guziak on zaizko: bizia, arima, baloreak, aldia, ikas-bideak, adimendu-sustraiak, eta abar». Noraiñoko edo nor bezelako pentsatzailea genuen Orioko seme argi au? Lafittek esan bezaigu berriz ere: «Zonbaitek ezartzen dute A. Compte, Cournot eta Jaspers-en lerroan». Geiegi esatea ote da ori? Ez ote da askotxo? Ezezkoa da Lafitte jaunaren erantzuna: «Ez da guti ez gehiegi». Bego or gure gizon onen filosofo-alderdia.

Baiña non da Lafittek apaitu besterik ein ez duen euskalzale-alderdia? Alderdi ori jakin nai duenik ere izango da nonbait, baiña Lafittek ezer esan ez digun ezkerro, besteren batek esan bearko. Nik ez nuen ezagutu. Ala ere, besteak beste, auxe esango det: euskalzale izan zala eta euskal-kulturaren biziaz kezkatuturik bizi izan zala beti.

Gaztetarik Madrillen bizi eta irakasle izan arren (Apaizgaitegian eta beste Eskola Nausi baten, leenik, eta gero, Unibersidadean), Euskalerrriaren arazo eta kezka ez zeuzkan inñondik inñora baztertuta. Oñatiko Batzar entzutetsuan batzarkide izana zan eta gero Eusko-ikaskuntzak antolatutako batzar aundi guzietan (Iruña, Gemika,

* EI Diario Vasco 42 (1975, 12377. zenb.) Suplemento dominical, 7.

Gazteiz) artuko zuen parte. Eusko-Ikaskuntzak, 1920, bere Batzar Iraunkorrek (Junta Permanente) Kide egin zuen. Euskalerritik urrun bizi izan arren, gutxitan egingo zuen uts aren billeretara. Zaraguetak, irakas-bide gaietan eman zuen geienik bere laguntza eta eskua, bere argia.

Urte urduri eta kezkatuak ziran ordukoak Euskalerrarentzat. Orduko kezka askori bide ematen lanik asko egin zuen Eusko-Ikaskuntzak sail askotan. Or zan bat: Euskalerraren Autonomiarena, Madrilgo atzapar estuen mendetik atera-naia. Orra beste bat: Eskolarena, Eskola txiki eta goiengoena. Autonomigaiak atzerakada gogorra egin zuen Primo de Ribera agintari jarri berritan: baiña azken-urteetarako berriz piztu zan. Republika etorri zaneko, txit aurreratua zegoen gai ori, erdi bukatua, Eusko-ikaskuntzako gizonen bultzadari esker. Ezker eta eskuindar, alkar arturik girorik opagarrienean jokatu zutela esan bear. Dana bukatuta, Autonomi-legea erriari aurkeztu eta lege egitea besterik ez zan izan gero.

Irakaskuntza-gaietan ere lan aundia egin zuen Eusko-Ikaskuntzan: euskera erri-eskola eta kolegioetan sartzeko, *Universidades* sortzeko, eta abar. Sail au zan Zaraguetarentzat kutunena, bere-berea zuena. Euskerari Euskalerriko eskoletan bakarrik ez, Euskalerritik kanpoko batzuetan ere leku emateko ezin kementsuago jokatu zuen, bere lagunekin batean.

Madrilleko Ateneoan euskera irakastea lortu zuten. Anjo eskola, edo euskera irakastea 1921n asi zan, Allende Salazar eta Zaraguetaren eragitez, batez ere. Gure egunotan, berriz orixe berori lortu dala-ta, ez degu kanpai-otsik gutxi entzun. Gazetalaritxo batzuei jaramon egin nai badiegu, esan diteke Madrid osoa menderatu ez ote degun, eta gaur lenengoz. Garaitza onen aurrelaritzat, antziña bateko euskal-eskribauen izena aipatu da. Aiek, eskribau aiek ziran nonbait, eta ez beste iñor, orain Madrilgo Ateneoan oiñak sartu dituztenen aurrelari bakarrak. Amaika urrezko ezta antolatzen eta ospatzen dira ia egunero. Orain berrogeitaamar eta geiago urte, turutots gutxiagoz gauza bera ein zutenen aipamenik ez degu entzun. Orduan Ateneo ortan ematen ziran eskoletarik, ikaslerik geien zeukana euskaleskola ori omen zan. Ez degu entzun anjo eskola ia dana euskeraz ematen zanik. Ori jakin nai duenak Eusko-ikaskuntzak 1919'tik 1936'ra ateraten zuen Boletin-a irakurtzea besterik ez du. Guzti ori lortu zan, Allende Salazar eta Zaragueta irakaslearen arduraz, eta, batez ere, Escalera Maidagan euskal-irakaslearen izerdiz.

Azken-urteetan, alegia, 1936'gn urteko aurretxoan, Zaragueta zanari esker, Madrilgo Unibersidadean, euskerarentzat (gallego eta katalanarentzat bezela) bide guztiak zabalik zeuden. Esan bearrik ez, euskera Euskalerriko eskoletan sartzeko alegiñik aundienak egin zituztela. Ortarako batzorde baten kide izan zan Zaragueta. Diputazio, erri-agintari eta kolegioetako agintarietaraiño iritxi zan aien eragiña. Gogoan daukat ni eskolume nintzaneko ikastetxeraiño nola eldu zan bein batzorde artako bat, Barandiaran jauna. An egiten zan lana ikusita gero, urrengo billera batean gorespenezko aipamena izan genuen, eta aurrera jarraitzeko pozgarrizat, liburu mordo bat bializ lagundu zituten.

Donostian ARGIA asterokoak ere artu zuen aurrerako bultzadarik Eusko-ikaskuntzako jaunen aldetik. Lenengoko zenbakian, elkartearen izenean, Julian Elor-

tza jaunaren itz pozgarri eta pizgarriak ekarri zituen eta bigarrenan, «Zaragueta-tar Juan, Eusko-Ikaskuntzaren Batzar Iraunkorreko batzarkide» zanarenak.

Au egin zuen gizonak euskaldunen esker-txalorik merezi duela uste det nik Bai, noski! Lafitte apezak ez du ez danik esan, Zaragueta «euskaldun eta euskalzale» izan dala esan duenean.

ZARAGÚETA CARMONAN*

BESTEIRO IKUSTEN (1940)

Zaragueta apaiz eta irakasle jakintsua Carmonan, Andaluziako urian, izan zan 1940-garren urtean Besteiro Españako sozialisten artean irtenenetakoa espetxean ikusten. Biak ditugu, zein bere saillean, Madrilgo Unibersidadean irakasle izanak. Bien izena ospetan dabil orain egunkari eta aldizkarietan: bata, Orio-ko seme apaiza, il berri dala-ta, eta bestea, 34 urte leenago illa, orain askoren lumetan berpizten asi dalako, bere bizi eta politikari buruzko ainbat azterketetan.

Errepublikaldian Madrilgo Diputado-batzarrean maipuru izan zan gizon onetzaz ez da orain gutxi esan eta idazten. Aren azken-egunetako berri ematean, orraitio, luma batzuk ez dabilta oso argi eta zuen. Tartean tartean beren buruetan asmatutako xeetasunik ere saltzen digute. Ez dakit non irakurri dedan oraintsu olako zerbait, egia ez dana, asmatua dana: alegia, espetxeko orduak libururen batzuk alemanetik itzultzen ematen zituela Besteirok, liburu-argitaralzailleren batek lana emanik; diru-bearrak edo beartu zuela olako lanak artzera. Dana asmatua.

Bada or, bearbada, oker adituren bat. Egia auxe besterik ez da. Bazan espetxe artan apaiz bat Bach musikagillearen musika-lan bat (Pasio bat) zeukana, Alemanian argitaratua eta alemanezko itzaurredua. Apaizak itzaurrea gaztelako erderara itzuliko ote zion galdetu zion Besteiro espetxe-lagunari, eta onek pozik egin zion. Ez zan lan luzea. Orra guztia; ortik aurreragokoa sustrai gabe esana da.

Olakorik irakurri duenen batek ez ote du iruditu edo bere irudimenean Besteiro ikusi, liburua aurrean eta luma eskuan, patxara ederrean maian jarririk idatzi eta idatzi? Ames utsa. Espetxe artan ez zegoen olako erosotasunik, ez mairik ez aulkirik. Gela itxirik edo banakakorik ez genuen an. Guztien aurrean egiten genuen dana.

* Goiz-Argi 16 (1975, 227. zenb.) 6.

Guztiok ikusten genuen, gutxi gora bera, aldamenekoak zer egiten zuen. Besteiro ez genuen idazten ikusiko, andreri edo kartaren bat egiterakoan baizik, eta al zuen eran nonbait jarrita. Ez det uste aleman libururik irakurri zuenik ere; erderazkoak, bai. Ordu luzeak ematen zituen irakurten, beti ez bazan geienetan apaiz lagunek utzitako liburuetatik. Beste iñork alemanezkorik irakurtzerakoan itz zaillen bat ulertzeko argitasunik eskatzen baldin bazion, emango zuen, baiña berak irakurri erderazko liburuak irakurtzen zituen, bein exerita, bein zutik arutz eta onuzka. Beste ezertarako giro eta aukera gutxi zegoen an, adin andiko gizon batentzat batez ere.

Espetxea antziñako praille-etxe zaarra zan, eun urte leenago Gobernuak praille karmeldarrei kendua. Gu geunden garaian iru bizileku osatzen zituen: espetxea bata, txapel okerren etxea bestea, eta irugarrena, ez dakit nolako mojatxo batzuen. Gu eta beste laiko gutxi batzuk, Besteiro tartean zala, azken-egunetan eritegiko gelara eraman zuten arte, praille-etxe zaar orren azpi-zuloetan geunden, kalea baiña beragoko etxe-azpitan, etxe beraren teillaturaiñoko orma-arte batera, patio batera, beste irteerarik gabe, meza emateko izan ezik.

Beste alde mingarri bat bazuen espetxeak an zeudeneztat, geienentzat beinik bein: gure etxeetatik urruti egotea. Carmona oso urruti egiten da gure errietatik. Orduan are urrutiago gaur baiña, oraingo bide-aukerarik ez bait zegoen, ez errege-bidez, ez trenez, ez beste iñola. Ara nekez azalduko zan gure etxeko edo seniderik. Espetxea urruti, bidea luzeegia, eta egiten zailla. Venta de Baños utzi eta Carmonara eraman gintuztenean (Besteiro lagun genuela), bi gau eta bi egun egin genituen bidean. Ortik atera kontua. Besteirori noizik bein etortzen zitzaion Madridik bere andrea. Nik uste, berak nai zuen baiña maizago, andrea ikustearekin barneko miña bizitzenago baizitzaion.

Pozik aundiena, biotza beteko poza artu zuen bein, gutxien uste zuen lagun zaar bat agertu zitzaionean. Apaiz bat zan (eta ez ango apaizik ikustera joana, ain zuzen), Zaragieta jauna, Madrilgo Ikastetxe Nagusian aren irakasle-laguna. Ustegabeko agerrialdia izan zan arena; orregatik espetxekoarentzat biotz-asegarriagoa. «Ez nuen asmatuko —esan zuen Besteirok— apaiz ori ikustatzera etorriko zitzaidanik». Ez zuen itzik bere esker ona adierazteko. «Gestos así se agradecen!», ez zekien ia besterik esaten. Eta «Zaraguetak bazekien nik bein Unibersidadean bere aurka egin nuena». Eta emen Zaragueta jaunarekin orduan izan zuen jokabidea gogoratu zigun. Zer zan? Madrilgo Ikastetxe Nagusiaren izenean Europara ez dakit nongo filosofi-batzar batera joateko, Ikastetxe artako irakasle bat aukeratu bear omen zuten. Geienen iritziz, Zaragueta zan aukerakoena artako. Baiña Besteiro ez zan apaizaren gogaide, ez zuen gogoko ere, eta egiñalak egin omen zituen, batzar artarako aukeratua izan ez zedin. Eta orain, beste guztiek aazturik edo bertan bera utzirik zeukatenean orra or non datorkion Carmonara, espetxeko ordu beltzak apur bat gozatzera. «Olako jokaera eskertzekoa da».

Besteiro ez zan errez biotz-beratzekoa, bere barneko biozkadak ariñegi agertzekoa. Ala ere egun artan ezin zion barneari eutsi, berebiziko ikara zerion bere itzari: «Gestos así se agradecen!». Itz oiek esatean, nik esango nuke beste norbaitzuen esker gaizto edo txarragorren bat ez ote zeukan gogoan. Ez ote zan Madrillen edo inguruetan

apaiz ura, atzerritar ura, *samariar* ura besterik, gizon ain laiko eta sozialista porrokatuarengana urbiltzeko ordu beltz aietako zorigaitzean lagun egitera?

Gure espetxe-lagunak ez zigun adierazi zer erabilli zuten aurpegi-ikuste artako alkarrizketan, zer esan zioten orduan alkarri. Baiña, nola nai ere, ezin zuen gorderik euki bere esker ona eta gauza bat zan naiko ageria: apaiz aren ikustaldiak barne barnean jo ziola biotza, espetxean izan zuen pozaldirik gozoenetakoa ekarri ziola. Ordu illun aietan nor eta apaiz bat, nor eta gutxien zordun zuen lagun bat, berak oztupoak jarri zizkion bat oroitzen zan, eta ez besterik, espetxeko bakartasunean gizonak gaiztetsirik zeukaten Jainkogabeko politikalarri ain ezagunaren saminiñaz. Egun artan Zaragueta, beste ainbesteren gaiñetik, aundiago eta gizonago egin zan sozialista gogor zanaren begietan.

Bata, Orioko seme argia ilberri degunean, eta bestearen irudia berpizten asko saiatzen diran une ontan, jakingarri zala uste izan det biek elkarri Carmonan egin zioten azken-agurraren berri ematea.

AITA AGUSTIN ATUTXA IL DA*

Iñazio deunaren aurreko astean itxaso zearreko ariak barri mingarria ekarri dauskue: Aita Agustin Atutxa il da. Txarto ebillena ba genkian. Gabonetan anka bata moztu bear izan jakon; orain bi illabete edo, bigarrena. Zorigatxik naiko 65 urteko gizon umotu batentzako. Orrek lurra jota itxi eutson gorputza, baiña ez gogoa, ez barruko gogaldi ona eta kemena. Oindiño amesetan ebillen. Amesetan, besterik eziñean, bere bakarrean euskerearen alde zer egingo, zein euskerazko lan barriri elduko.

Onezkero, baten batek itandu dau: Nor da, ba Atutxa ori? Nor? Euskalzalerik miñenetakoa, euskal idazlerik apain eta gozatsuenetakoa. Ori, bere bizirik geiena Ameriketean emonda. Aspaldiko urteotan atzerrian izan diran euskaldun askok ba daki aren barri. Itandu bekio Zaitegi jaunari, itandu Justo Mari Mokoroa aitari. Eurok esango leukie guk baiño obeto.

Dima'n jaioazan 1908'garren urtean. Karmeldarren artean praile sartua, 1931 'an Ameriketara joan zan beste gazte lagun batzuekaz batera, Errepublikaren bildurrak aruntz bialduta. Ordurako erakutsita eukan euskal-idazleen artean norbait izan zeitekeala: 1930'an sari bi irabazi zituen Donosti'an bertsozko eta osteango lan birekin. Iturriari ura baixen errez eta garbi erion bertsoa. Aparteko atsegintasuna eta errez-tasuna euken aren bertsoak. Ez eban biotzean min barik artu Ameriketarako bidea. Ezin poz-pozik utzi bere erria, ain maite ebana eta ain ederto kantatzen asi zana:

Goizeko laiño, zuri
zar toki orretan?
Ez ete zagoz zu be
ni lez amesetan?
Aztertu zaitte piskat
geldiro, baketan
azpiko etxe ori
ikus dagiketan.

Basetxe zuri gorri,
ez egon baztertu,
goizeko poztasunaz
zuzpeltu, zuzpeltu.
Laiñoaren artetik
zakidaz agertu:
zeuri begira beti
ezin naz aspertu.

* Agur 4 (1973, 103.zenb.) 6; *Basabil* izenpean, ik. 82. orr.

Aren poza euskaldun jatorrak euskeraz entzutean!

Iturrian ontzia urez
noz beteko begira,
atsotxo bi barriketan
ixillean or dira.
Jainkoa! Ori ez ete
iturria bera baiño
lenengo sortu zan ele maite?
Zelan bizi da oraiño?

Ixil adi une batez
iturriko zurruta.
Atsotxoen jarioa
ez egidak ezkuta.
Geldi adi, larraldetik
atorkidan aizea:
i baiño be maiteago
yoat geure euskerea.

Ameriketara joan bearrak miñik emon bear olango biotz bati. Ara eldu zaneko, ona zelan agertzen dauan azken-agurreko samiña:

Unetxo bat, unetxo,
biotzak intzira,
une bat etxeari
azkenez begira.
Gero biur-unean
egin neban bira,
eta jo... nik ez dakit
nongo alderdira.

Galduriko txakurra
legez buru makur,
txoriak bekokian
eustien irakur,
baita zugatzetatik
abestu be samur:
Agur, euskaldun seme,
betiko bai agur.

Maiteak neroiazan
kolko-barruetan,
ta eurakaz ixilik
niñoian izketan
andik urrintzen nindun
bidetxo aretan
gaba eldu baiño len
erdi amesetan.

Ez dogu luzatu nai. Puska oneik naiko bediz, esanaren argigarri: olerkari fiña genduela gazterik gure praillea, Emaldiko semea. Olantxe jarraitu eban berak urteetan kantari, bere bertso ederrak onuntz bialtzen, eta gero, Chilen euskaldunek ateratzen eben aldizkari batera. Orain 19 urte egin eban andik, Chile'tik, beretarren artera lenengo osterea. Eta emen zala, asmau eban bere poema nausia: *Mugarra*. Andik bi urtera edo amaituta eukan, eta orain 4 urte argitaratu eban Caracas'en Euskalerrriaren miñak eta itxaropenak kantatzeko asmau eban poema ori, gure artean tamalez gitxiegi ezagutua.

Azkenengo bederatzi urteotan Peru'n bizi izan da, beti ameslari. Gizon barruzalea zan, baiña munduko goraberei begira bizi zana. Gure arteko azkenengo literatura geiena ez eban ondo artzen. Euskeragaietan ezin eban oraingo askoren mordollokeria ondo ikusi. Zertara erderara edo erderakaretara jo? Zabarkeri gogorra eritxon orri.

Eta alan diño *Mugarra Begiraria* poema orren itzaurrean: «Itz eder bai eder asko dira or bazterretan euskaltzale alperrai itxaroten, basoko gibelurdiñak bai'liran. Baiña arloterian bizita ondasun ori galdu ondoren, eskean gabiltz bape lotsa barik... Oba da itz erdi-igaztuak berbiztu nagikeriz erderara jo baifio. Baldar eta lotsagarri deritxot... Ni beintzat enoa iñondik iñora bide errez eta galgarri orretan... Ba-dakit nora goazen gerokoai orrela atea zabaldu ezker. Gabon, ba, lagun onak, eta etzaitiela biar Amurrio'n atzarri (itxartu)».

Amurrio'n itxartzea igarri barik erdaldun eginda gelditzea da. «Begira Naparroa'ko zelaira eta Araba'ra. Alde orretan bide ori egin dabela uste dot».

Bere gatak eta gaixoa gora bera, oindiño lan egiteko gogo eta asmoak ez zituen galdu. Gizon kementsua galdu dogu; gure gorabera guztietan kezkatu bizi zan bat joan jaku, zeruko Euskalerrian sartzeko. Gogoan izan dagigun eta mesedegarri bekigu bere gomuta.

ELTZEGOR OLERKARIA (1908-1973)*

ELTZEGOR olerkaria il da: Aita Agustin Atutxa Bikarregi, karmeldarra. Beste izengoiti batzuk ere erabili zituen: **Emaldiko, Urlo.**

Perutik eldu zaigu il-berri samingarria. An bizi zan azkenengo urteotan. Lenago, Chillen egin zituen 34 bat urte. Bere bizia, 1931-tik asita, atzerrian eman du. Atzerrian, azalez, gorputzez. Baiña berarekin zeraman Euskalerrria beti: biotzean eta Euskalerrriko mapa batean. Mapa orretan goizero omen zijoan aren begirada, Bizkaian Arratialdera, eta an Dimako Oba-aldera, eta emen Emaldiko auzunetxora. Emen jaio zan 1908-n. Gure artean gutxi Euskalerrriaren miña bamago sartuta eramango zuenik.

Madrillen Errepublikak nausitu zala-ta, beste lagun batzuekin Ameriketara bidea artu zuen Atutxa gazteak. Urte bete lenago, 1930-n, asia zan euskal-idazleen artean burua agertzen. Urte ontan bi saritxo irabazi zituen Euskal-Esnalea-k eraturako sari-keta batean, bertsoan egiña bata, itz-lauz bestea, biak urrengo urtean argitaratuak. Ipuña, edo gertaerazkoa zan bata, eta sariaren berri-emaileak oar berezi bat egiten zuen ari buruz: «Azal guri ederra du-ta, gogoz irakurri degu». Olakoxea zetorren: idazle atsegiña, euskera errezekoa, argi ta txukuna, itz-lauz naiz bertsoan. Itz-neurtuz, bertso apain, dotore, argiak egiten zituen. Gauzen xeetasunak billatzen ernea eta ikusiaren alderdi atsegiñak poliki adierazten trebea genduen. **Euskal-Esnalea-ko** iritxi-emaileak ziona egia besterik etzan gertatu andik aurrerako idazlanetan: mami atsegiña eta azal guri ederra zeukaten, bai, eta kristal-ontzian ura bezain gardena.

Ameriketara etzuen euskera utzi, ez. Ezin benetan artu berak askoz geroago esango zuena:

Itxasoz galdu ez-ta legorrez
ondu bear orrela:
euskaltasuna, euskera bera,
tayua bai ta txapela.
Bakarrik geratu yatan,
barmko zokondo atan,
ardura ezak il-agiñean,
lanaren txingar epela.

* Goiz-Argi 14 (1974, 172.zenb.) 6; *Nonzeberri* izenpean, ik. x. orr.

Ez da ori egia: etzuen galdu ez euskaltasunik ez euskerarik. Eta txapela? Gure artera etorri zan bakoitzean (bi aldiz guztian) txapelik erosi gabe etzan gelditu.

Ameriketatik bata bestearen ondoren bialtzen zituen bertso txukunak **Karmengo Argia** aldizkarirako. Chile-n bertan ere atera zituen ango euskaldunek zeukatan aldizkari batean, **Urlo** izenarekin. An ezagutu zuen beste euskalari andi bat: Justo M. Mokoroa Aita, eta laguntza ére eman zion oni beronen esaera-iztegia koptatzen.

Ameriketan 24 urte eginda itzuli zan lenengoz beretarren artera, emengo euskalgiroa ikusi eta zerbait egiteko amesez. Dima eta Durango bitartean, Mugarragaiñean, txabola baten gaualdi bat eman arte etzuen onik izan. Gaualdi ortan sortua da bere poema baten muiña: **Mugarra** (gero **Mugarra Begiraria** izenez argitaratuko zana). Gure artean zenbatek ezagutzen ote dute? Argitaratu aurretik ezagutu zuten gutxi batzuk. Zaitegi jaunak (bere bigarren **Goldaketan**) bertso batzuekin agur egiten zion **Olerkari bati**, Atutxa-tar Agustiiñ'i biotzez:

Bertso berrietan zeure euskal-gogoa
ixuri oi duzun olerkari zina!
Entzun-ala kanta gure biotz-mina,
il-urren baitago aberri osoa.
Urbillean duzu orruz itxasoa,
beraren besteko bezaizu samina.
Eztiaren ordezt, besteak ezina,
erabil ezazu zizkata miztoa...
Egin kukurruku, aizatuz iluna!...,
Gauaren ondoren, badator eguna.

Asmo berritan zebillen aspaldi. Asko irakurria zan, eta zerbait berri egin nai zuen euskeraren arloan. Zer egin ote du?

Joan dan abenduan moztu bear izan zioten oin bata; andik bost bat illabetera, bestea. Azkenez, Loiolako zaldun errenaren jai aurretxoan joan zaigu betiko atsedenera. Goian bego, eta bizi bedi euskal-idazleen oroimenean.

AITA NARZISO, LISIEUX-KO TERESA DONEAREN EUSKERATZAILLE

GOIAN BEGO*

Pakezko irri gozoa ezpaitan, azken-urteotan bizi zan bezela, ixil-ixillik joan zaigu gure artetik aita Narkis. Aspalditxotik zegoen gaizki. Iri gozoa eta eskeronezko begirada bizi samurra, ia besterik etzuen, agurrik edo mesedtxorik egiten zitzaionean. Itz egin nai eta ezin egin. Ura aren ezin egona! Baiña aren begiradak naiko argi esaten zuen mingaiñak ezin zuena. Begirada irritsu bizi gozoa zuen bere erantzunik eder eta osoena.

Nor genuen, baiña, praille au? Aita Narkis esaten zitzaion gure artean, prailletzan artu zuen izenetik; bataio-izenez, Jose Antonio Garate Mujika zan, Azkoitiko semea, joan dan mendearen eta oraingo onen artean (1900 Urtarrillak 17) jaioa. Emezortzi urte zituela, praille-bizitza artu eta agindu zuen, Bizkaiko Larrean, karmeldarren artean. Zazpi urte geroago, Donostian apaiztu ondoren, Afrikara bearra izan zuen andik laster, an arma-gizonen kapellau edo kapellau-lagun izateko. Andik Euskalerriratzean, urte gutxi batzuk irakaskintzan eman zituen, Begoñan eta Larrean; 1933-n, Gazteizen degu, ango karmeldar ikasle gazteen zuzendari; 1936-n, orrez gaiñera, aita Probintzialaren onulari, konsejatzaille, izendatu zuten eta kargu orrekin Gazteizen jarraitzen du, orduan sortutako gerratea bukatu arte. Gero, Euskalerritik kanpo egin zituen iru urte, Santander-ko erritxo batean nagusi eta parroko, beste Gipuzkoako apaiz euskal-idazle bat (Iruretagoyena) parroko zegoen erritxo baten ondoan.

Berriz Euskalerriatzean, Larrean igaro zituen urterik geienak, bein bertako nagusi, eta iru edo lau aldiz ango praillegaien aita maisu, eta bi aldiz geiago izan zan

* Goiz-Argi 15 (1974, 189.zenb.) 6.

aita Probintzialaren onulari. Azkenez, Altzoko pake-lekura biali zuten, eta emen etorri zitzaion azken-gaitza, egun batzuez itsu eta mutu utzi zuena. Puska bat sendatu zan, baiña ez guztiz, arrezkero.

Zorionez, gaitz orrek gogorren jo orduko, bukaturik utzi zigun esku-artean zerabillen lan bat: Lisieux-ko Teresa donearen bizitza, done onek berak idatzia, euskera-tzea. Lenago egiñik ere, bazan itzulpen orren saiurik. Aita Onaindiak eta nik egiña genuen bat (eta ez guztiz gaizki) ikasle giñaneko urteetan, amaikatxo gaualdi loari kendurik Gazteizko gau otzetan. Baiña gerrateko aizeteak nonbaitera, galdu-lekuen batera, eraman zigun. Aita Onorio, gure egunotako organugille ospetsuak ere egin zuen berea. Bi lan oiek Teresaren arteño ezagutzen ziran testoetatik egiñak zeuden. Azkenez, aita Sebastian Atutxa zanak ekin zion lan berari, ain zuzen Altzon bertan; eriotzak etzion lana bukatzen utzi. Orduan, eta frantzes-argitaldi berri zeatzago eta osoagoa aurrean zuela, gure aita Narkis jarri zan artara eta, zorionez, bukaturik utzi zuen bere lana.

Zorionez, diot; gure aita onek gutxik bezela ezagutzen baizituen euskeraren korapilloak, baiña etzigun artean erakutsi aundirik eman. Bere karguek nonbait eztioten astirik utzi idazte-lanerako. Ezer egitekotan, ori bai, jakiña zan etzuela alalaidatziko. Euskeraerrez, errikoi, garbijatorrezidatzikozuen. Ainbat euskal-liburuk eta ainbat itzulpenek, batez ere, etzioten bat ere gogorik betetzen; erderari lotuegi arkitzen zituen eta erdal-kutsuz gaiñezka. Irizmen zorrotzekoa zan ortan. Lorretan zegoen gurekin eta euskerarekin. Nolabait erakutsi bear zuen bere iritzia egiztatzeko gai zala. Eta uste genduena, euskal-maisu bati zegokiona atera zitzaion bere itzulpena. Bertsozko zati batzuetako bakarrik eskatu zuen laguntza, eta nik ere nere alegintxoak egin nuen Teresa doneak tartean sartzen dituen bertso batzuk euskeratzen.

Bada besterik ere aita Narkisi (eta beste Leringo seme izan zan karmeldar bati) zor diogunik; Lauaxeta zanaren azken-olerkiak, il-aurretokoak, euskerazko eta erderazkoak, egilleak berak utzirik, gorde zizkigun. Urteak geroago nerau izan nintzan bitarteko, olerki aiek Lauaxetaren aitari eramateko. Ez, lenago kopia bat atera gabe. Orain zazpi bat urte, azken-olerki aiek liburu batean ateratzeko dana gertu zegoen. Lauaxetaren etxekeok utzitako kopia utsez beterik zegoen eta neronek eman bear izan nuen nerea, okerrak zuzentzeko. Liburua etzan azaldu. Gure artean ordurezkerok sortu ziran istilluek beldurra sartu zieten nonbait artan zebiltzanei eta atzera eragin. Orain, ez liburu ez kopia, gelditu naiz. Aita Narkis zanak, orraitio, bere eskuetan gorde zuen bat, gure arteko Garcia Lorca izan genduenaren esku-idatzia, orijinala, paperzati erdi puskatu batean egiña. Gazteizen, 1936-tik aurrera, karmeldarren etxearen alde aundi bat kendu zieten agintariek prailleei, espetxetako. Narkisek al zuen guztia egin zuen ango espetxeratuen ordu beltz mingotsak eztitu eta arintzen. Lauaxeta zanaren azken-bertsoak olaxe iritzi ziran prailleen eskuetara.

Joan dan epailleko amarrean il zaigu aita euskalzale eta ongille au. Gutxi eza-gutua zan lekuan iltzea egokitu zaio, Donostian. Igandez il zan eta asteleneko arratsaldez, illetak, karmeldarren elizan. Bazan an urrutietatik etorri zanik. Elkarrekin meza-emaille, praille eta apaiz, ogeitik gora; eta ez gutxi entzuleen artean. Nork esan du galerazi, debekatu egin bear lirakela illetetan, elkar-mezak, illeta-mota berri eta goragoko mailla batekoa sortzea dala-ta? Batek esan, askok esan, mezak eztu maillarik

aldatzen; ezta orregatik beste meza-klaserik egiten. Meza-emailleen arteko batasuna, apaizgoak ematen duen alkartasuna adierazteko da, ez bestetako. Besterik litzake, aldarearen betegarri, apaiz askori dei egitea; baiña adiskidetasunak eramanik, edo aidetasunak eragiñik, beren kabuz illetetara dijoaztenentzat Aita Santuak aukera zabala eman du nai izan ezkeru an elkar-meza emateko, eta apaiz eztiranei ere, an Jauna artzeko, egun berean bigarrenez bada ere. Guztientzat, apaizentzat meza emateko eta edozein kristaudentzat Jauna artzeko aukera zabala dago olako egunetan. Nork izan bear du Aita Santua baiño Aita Santuago, edo Erroma baiño debekatzailleago?.

Nabarmenkeririk egin gabe, askok eman genuen alkar-meza, aita Narkisen illeta-arratsaldean. Goian bego gure lagun zintzo izana, Azkoitiko semea, euskal-maisu ixil eta idazle jatorra.

AMERIKA-AZKATZAILLEAREN OPAZ BOLIBAR'EN (BIZKAYAN) 1927'KO DAGONILLAREN 14'N IZAN ZIREN JAYETAN LARRAKOETXEA'TAR IPOLITA A'K IZAN EBAN ITZALDIA*

Laudemus viros gloriosos. Eccli. 44-1
Goretsi daiguzan gizon ospetsuak.

Gizon ospetsuak gorestea gauza zuzena ezeze, onuragarria be bada. Zuzentasunak bakotxari berea emotea eskatzen dau; orregaitik gizon andiak anditzat emotea, jakitunak jakituntzat, kementsuak kementsutzat, onak ontzat, zuzena da, eurai zor yakena baño ezta-ta.

Baña gizon andiak anditzat emotea, txaloka erabiltea, eurentzat zuzena bada, guretzat, besteontzat oso onuragarria da. Gizonik geyenok txikiak, kaskarrak gara geure asmo ta egiteetan. Gizon kementsu, uren, asmo eregi ta biotz-zabalekoak gitxigitxi ta nozean bein baño agertzen eztireanak dira. Gizaldi bakoetxan olango bat erri bakotxak nekez euki daroa.

Ba, gizonak, guk, txiki ta kaskarrak gareanok, oindiño kaskarragoak ez biurtzeko, gizon andi banaka orrei begiratu-bearra, eldu-bearra dogu. Txorikumeai ameen egazkada luzeak ikusirik euren antzean egaz egiteko guraria sortzen yaken letxe, guri be gizon andi-ospetsuen egite bikañak gogoraturik, beste ainbeste egiteko guraria ernetan yaku; geuk be euren antzekoan izan gurako geunke. Eguzkiak joten dauzan gauza guztiak argi ta berotzen dauzan lez, alantxe gizon andiak be eurakana eltzen direan guztiak egite andi, ospetsu ta txalogarriak betetako erabagiz berotuta izten dabez.

* Karmel 1981-2, 41-52; «L.A.» izenpean.

Ta ain onuragarria bada edozein gizon andiren gomutea, oindiño askoaz ohea da gizon ori gure abendakoa, gure odolekoa, gure errikoa bada. Gizon ori gogoratukoxe esan deraugu: Neu be ezin izan ete neitekek gizon a baizen andi ta ospetsua? Gizon a be etzoan izan ala neure errikoa, neure asaben semea? neure odolekoa, etxe orretakoxe semea? Ak bere izenaren ospez ludi osoa bete bayok, zegaitik etxoat egingo neuk beste ainbeste? Neure kaskarkeriok bein eta betiko alde batera itxita, zer dala-ta enok izango neu be axe lango kementsu ta biotz zintzo-zabalekoa?

Euskal-erriak banaka bat ezeze, asko be izan dauz gizon andi-ospetsuak. Euzkotarrak eztaukagu iñora joan-bearrik gizon andi billa; geure artetikoak doguz zeinbat gure ta geyago. Ta benetan andiak dira gure gizonak. Beste errietan anditzat daukiezanak, sarritan euren andi-izen ori iñoren negarrez ta odolez orbantuta daukie; eurak andiak badirudie, goyan agiri badira, azpia milla ta millaka gorpu-illotzez eginda daukie. Eztira olangoak gure gizon andiak. Euzkotarrak, gure gizon andiak eztabe gora igon gure izan iñoren lepotik, inor azpian jarririk; gure gizon andiak gorroto izan dabe negarrez, odolez, okerrez orbanduko anditasun eta ospe aizuna. Eurak andiak badira, on egitez, zuzenez dira.

Olangoxea izan zan gaur ospatzen dogun gizon andi-ospetsua be, Bolibar'tar Simon. Erri onetatik sortua, naita aspaldidanik bere asabak Ameriketara joanda egon, sendo bizi zan bere zanetan euzko-odola ta odol orregaz batera euzkotarren gogo zindo, zuzen eta kementsua. Euzko-odol eta gogo orrek eraginda inongo nekeak eroan ebazan bere asmo eregi ta txalogarriak beteteko, au da, España-azpian bizi zirean Amerikako erriak azkatuteko ta olan beretzako AZKATZALLE izen ederra irabazteko.

Gizon andi-andi au nor zan, bere egite bikañak adierazteko idazki ta lodiak idatzita dagoz eta orraitio eztira naikoa bere egizko anditasuna erakusteko. Begira bada gauza zailla baño zaillagoa izango eztan nire oraingo eginkizuna, itzaldi laburtxo onetan zeun erkide ta odolokide ospetsu onen anditasuna adierazo-bearra.

Izenak, ondo ezarrita dagoanean, izendunaren izatea agertu bear dau; beraz Bolibar'tar Simon'eri ezarri dautsen AZKATZALLE-izenak be bere izatea agertu bear dau; au da, Bolibar'tar Simon beste gauza askogaitik andia bada be, bere anditasun eta ospearen sustrairik indartsuena ainbeste erri azkatutetik datorkiola! Zer dala-ta eregi dautse Venezuela ta beste Amerikako erriok ikusten dozuen irudi ta oroigallu ori? Iñoren, atzeriaren menpetik azkatu ebazalako. Au dala-ta ba nik be gizon oneri alderdi onetatik begiratuko dautset.

Jaungoikoak gizonari emon dautsan gauzarik ederrena azkatasuna da; orrexek berezten dau gizona beste ezerk baño geyago abere ta ganeko izakietatik. Abereak, egiten dabena berez, ezin bestean egiten dabe; gizonak ez; gizonak au edo bestea egin badagi, berak alantxe nai izan daualako egingo dau; nai izan baleu, okerretara egin leikean. Ta Jaungoikoak gizonari emoniko azkatasunari lotsa andia, begirakune arrigarria dautso; azkatasun ori beinbe eztautso ez kentzen ez lotuten. Gizonari bide arteza erakutsi bai; andik ibilteko agindu be bai; baña lotu ez, beartu ez; bere aukeran, bere eskuan itxiko dautso bere aginduak autsi nai betetea.

Azkatasuna gizatasunagaz batera emoten dana danezkero, jakiña da gizon guztiena dana; gizakume guztiak azke, lokabe, euren buruen jabe jayoak dira; eztago gizonen artean iñor jopu izateko jayo danik; ez baltzak zurien jopu, ez zuriak baltzen jopu ta menpeko. Guztiak bardiñak egin gaitu Jaungoikoak eta eztauko iñok iñor azpian lotuteko eskubiderik ez gizonak emakumerik, ez indartsuak makalik, ez aberatsak landerrik; ta iñok olangorik egin dagianean, gaiztakeririk andienetaikoa egiten dau, Jaungoikoak gizonari emoniko eskubiderik ederrena ostu ta oinperatzen daua-lako.

Gizon guztiok izatez gareala, guztiok geure buruen jabe yayoak gareala ta beraz iñok ifor menpean lotuteko eskubiderik eztaukala edozeñek ezagutu leiken egia dala dirudi. Baña ezta olan. Josukistoren aurretik Elendar ta Erromarren artean izan zirean jakitunik andienak ezeben ikusten egi ori; euren ustez etzirean bardiñak gizonak. Eurak eta euretaikoak jabe ta ugazaba izateko, beste errietakoak, barriz, jopu izateko jayoak zirean; eta uste oker oneri jarrai, indarrez nai diruz milla ta milloika menperatu ebezan gizonak eta abere nai beste edozein gauza bailirean begiratzen ebezan; eurok saldu, erosi, il, guk abereak letxe egiten ebezan. Guk gizon guztien izatezko eskubideetazko bardintasuna argi badakusgu Josukisto ta bere Eleizeari zor dautsagu. Josukistok irakatsi dausku guztiok Jaungoikoaren seme-alabak gareala, bere aurrean guztiak bardiñak direala nai aberatsa nai txiroa izan, berak bardin maite dauzala nai emekoak nai angoak, Jaungoikoak eztauala kutunago zuria baltza baño, españarra pantzetarra baño, erdelduna euzkelduna baño, europatarra inditarra baño; Jaungoikoarentzat eztagola bere antzera eginiko ta Josukistoren odolez erosiko gizona baño.

Baña gizonak, zeinbat urte ta gizaldi bear izan direan kistarrak eurak be egi ori ezagutu leyen eta batez be egi orretarik sortzen yakezan egin-bearrak bete eyezan! Oindiño joan dan gizaldiarte, beñolako Erromarren artean jazoten zana gertatzen zan Ameriketean. Europatik ara diru-billa yoyazanak euren diru-gose ori asetuteko, edozein bide artzen eben eta besteren artean Amerika bertakoak, ango lurren jabe zireanak, eta batez be Afrikan pizti-antzean arrapetan ebezan baltzak euren azpian, abereak bailirean, jarririk. Alan lan-sari edo alogeretan ezer eralgi barik nai eben indarra euken bearrerako.

Euzkotarrak beti izan gara azkatasun-zaleak; guk beti geure buruaren jabe izan nai izan dogu; ezin ikusi izan dogu geure ganean atzerriko agintari ta ugazabarik ta geutarikoak be eskubide lar barik; orrexegaitik, orren azkatasunzaleak izan garealako, naita erririk txikienetaikoa izan, gizaldirik gizaldi zear bizirik iraun dogu; beste erri asko ta asko barri naita andi ta ospetsuak iñoiz izan, aspaldian ondatu zirean.

Ona bada, ene entzule biotzekook, norbera azkatasun-zalea bada ta erabatera zintzo ta biotz onekoa, beretzat nai dauana besteentzat be gureko dau; norberak iñoren katez lotuta bizi gure ezpadau, berak be eztau iñor lotuta euki gureko. Orra ortxe Euskal-errian jazo dana; Euzkadin iñoiz ezta izan jopurik; euzkotarrak eztabe iñoiz iñor menperatzeko asmo ta goserik izan, eurak azke bizi nai daben letxe besteak be azke itxi dabez. Orra ortxe zer jazo yakon Bolibar'eri be, Bolibar euzkotarrari. Bolibar'eri gazte-gaztetandik sortu yakon azkatasun zaletasuna; bere gogo zindoak ezin zeikean inor inoren azpian ikusi, ezta beraren azpian be. Orregaitik gurasoakandik

artu ebazan menpeko baltz errukarriak oindio gazte-gazte zala azkatu ebazan. Oindiño ezaban beste inok alangorik egin; baekien Bolibar'ek alan bere ondasunak kalte andia artuko ebana; baña nayago eban gosez il, gizon bat txakurren antzean lotuta, azkatasun barik ikusi baño. Zer ardura eutsan berari oindino inok alangorik ez egiteak? Gizon andiak eztauke inork biderik erakutsi-bearrik, eurak dira besteai bidea errakusten dautsenak.

Gizon bakotzak bestea azpiratzeko, lotuteko eskubiderik eztagoana errez ikusten da ta, nire eritxiz, bat ezta egongo gaur egi ori ikusten eztauanik. Baña gizon bakotzak ezeze, erriak be, aberriak be azke, euren buruen jabe biziteko eskubidea daukie ta benetan Jaungoikoak berak emoniko eskubidea, aberriak be berez ta Jaungoikoaren erabagiz eginikoak dira-ta. Beraz, gizonak gizona azpiratzea, lotutea gaiztakeri andia bada, ezta txikiagoa aberri batek bestea azpiratzea; ta, gizonak gizon guztiak azkatasun-eskubideaz bardiñak direan letxe, baita aberriak be; eztago aberririk besteen nausi ta ugazaba izatekorik, eztago aberririk besteen menpeko ta morroi izatekorik; guztiak dira bardiñak; Afrikarrak Europa azpiratzeko eskubiderik ezpadaukie, Europarrak be eztaukie eskubiderik Afrika azpiratzeko. Au egi-egia da; arraitio asko dira egi ori oindiño ezagutzen eztabenak. Askok uste dabe norbere aberria neurri barik maite leitekela, aberriaren anditasunerako edozein bide on eta arteza dala. Aberria zabaltzeko beste aberri bat zapaldu bear dala? Ba zapaldu ta kitu. Norbere aberriari ederto etorriko litzakiozala albokoaren lur eder-aberatsak? Ba joan, kendu, ostu ta kitu. Gizon batek besteari indarrez nai maltzurkeriz, iruzurrez ezer kendu badagio, lapur-izena artzen dau; baña aberri oso bat azpiratu, ostu, zuzitu badagi, orduan sarritan edo beti txalo ta goraka artzen dabe, gizon andi-anditzat daukie lapur ta gaiztotzarra baño eztana. Gizonak geyenetan pozarren, zoratuta lez agiri dira euren aberria zabala, indartsua, aberatsa ikusten dabenean, ta eztabe begiratzen geyenetan edo beti Agustin deunak esaten ebana jazoten dala: Laterriak lapurreta andiak baño eztireala.

Ez, gizonak, ez, eztauko aberri batek beste aberri bat, beste abenda bat azpiratzeko eskubiderik ta eskubide barik kentzen dana lapurretea da, ta agaitik jabeak ostuko gauzea lapurrari kentzeko eskubidea beti daukan lez, bardin indarrez azpiratuko erriak be beti daukie azkatasunerako eskubidea. Geuk bizirik urteteko beste biderik izan ezik, norbera il gurez datorkiguna ilteko eskubidea daukagun letxe, bere azkatasuna indarrez kentzen datorkon aberriari be kendu leikeo besteak azkatasuna; ori baña nekez nekez baño ezta yazoten eta orduan be ezin lei euki bestea lotuta, norbere azkatasuna jagoteko bear-bearrekoa dan artean baño. Ez bakarrik indarrez azpiratuko aberriak, baita berez sortu ta eratukoak be bein euren buruen jabe izateko tertziarioño eldu ezkerro, aberri zarraren azpitik urteteko eskubidea daukie, seme-alaba nausiak gurasoen menpetik urtetako eskubidea daukien letxe.

Edozein euzkotar eta Euzko-erri osoaren biotzean ain barruraño sartuta bizi dan egi au argi ikusten eban Bolibar andiak, Ameriketako erriak azkatasun eskubidea eukiela. Ikusi bear bada beste norbaitzuk be egiten eben, baña eskubide orren jabe España azpian egoan Ameriketako zatirik andiena Bolibar'ek bakarrik egin eban. Venezuela, Kolonia, Panama, Ecuador, Peru ta Bolivia gaur azke badira, gure Bolibar'eri zor dautse; bera izan zan erri orrein azkatasunaren alde egin eben guztien biotz eta beso.

Iñoren buruan baño lenago sortu zan berean aberria azkatzeko asmoa, ogei bat urte ebezala ta Erroman egoala. Aberrira biurtu zaneko, bera zan abertzale guztien buru; berak berotzen ebazan inguruan eukazan guztiak. Orraitio gazteegi zala-ta, guda-zeretan bera baño aituagoak bazireala-ta, beste batzui emon eutsen lelengoetan gudari abertzaleak agintzeko ardurea. Baña laster damutu yaken. Bolibar ez besteak azpiratuta, birrinduta gelditu zirean espñarrakaz izan ebezan lelengo ekinaldietan; agintari aik ezeben erakusten ez bururik ez biotzik. Lelengo buruketan azpiratuta gelditu zirealako, ezintzat emon eben aberriaren azkatasuna. Ez baña guztiak; an egoan gure Bolibar; bakarrik, baña iñoz baño ustetsuagu, kementsuago. Bere biotzari baño beste inori jaramonik egin barik, Kolonbiako menditartetik ots egin eutsen beñolako Matatiasen antzera abertzaletasun-izpirik euken guztiai eta bere deyari erantzun eutsen banaken buru jarrita, bere aurrean agertzen, jakozan espñar guradozteak ezereztuta gelditu zirean. Urte gitxi barru azkatuta gelditu zirean Venezuela ta Kolombia.

Etzan baña ori naikoa bere azkatasun-zaletasuna asetuteko; Ekuador ta Peru ta Bolivia oindiño espñarren azpian ikusirik, arei be laguntzea erabagi eban, ta, liskar gogor batzuetan arerioak birrindurik, garaile sartu zan Kito ta Lima'n. Nai nondik txaloak, nainondikzorion-agurrak, nainondik txerak AZKATZALLEARI. Norarroto ez? nor zoratu ez eurakaz? Bolibar. Orduantxe agertu eban Bolibar'ek benetan gizon andia zala, aberriaren arerioak azpiratzen ebazanean baño be andiagoa. Gudalburu andiak beste asko be izan dira, baña erabatera erriaren txalo ta goraka artean arrokeriz zoratu barik burua azpiratzen jakin dabenak gitxi-gitxi bano eztira izan. Alango baten bere aberkide bat Napoleon'en antzera azkatuko lurraldeen bakalduntzat burestundu eitela esaka eldu yakon eta ona emen zer erantzun eutsan Bolibar'ek: Napoleon andia ta bakarra zan eta ganera arro-arroa. Ni enaz alangoa. Kaisaren antzekorik be eneunke izan gure... Orrein antzekoa banantz neure ospe osoa ezainduko neunke.

Bolibar'ek aberriaren azkatasunaren alde eukan guztia emon eban; bere ondasun yoriak eta bere osasun sendoa; saritzat ezeban nai besterik barriz bere aberriaren ona, azkatasun osoa, bakea eta bere aberdikeen eskar-ona baño. Nausitzerik, agintzerik ez. Bera langorik etzala-ta, bein eta barrero eskeini eutsen azkatutako erriak euren agintze nausia, baña Bolibar'ek beste ainbeste bidar ezezkoa emon eutsen.

Bolibar'ek egin eban lan ikaragarria ikusirik amerikar guztiak beraganako eskar-enez beterik egongo zirela dirudi; geyenak alantxe egozan benetan; baña bazirean ikusi ezin ebanek be, eta ain zuzen be bere lagunik andienak izan zireanen artean. Bolibar'en anditasunak itzal egiten eutsen, bere ospeak min eta beragandik artuko mesedeak aitzurik gau baten iltea erabagi eben. Ezeben lortu euren asmo zitala. Larri ibili zan Bolibar, baña leyo baterik urtenda iges egin eutsen. Gorputzez bizirik urten eban estukura atatik, baña biotzez eriotzak zulotuta. Ezeban uste ainbeste nekez azkatasun-bizia emon eutsen errietatiko semeak berari bizia kendu guraka ibiliko zireanik, ta bere izen garbia iñondiko guzurrez baltzituden. Oso itun, mindua, biotzetik odola eriola joan zan ba baster ixil batera; ez orraitio bere arerio dollorak azpiratzeko biderik onenak zeintzuk izango zirean asmaka, berak ezeban inor gorroto-ta, eriotza onerako gertetan baño. Ta beti andia, zindoa agiri bada Bolibar, andiena, itzalgarriena eriotzaldian. Aberrian sortuko burrukak, alkar-ikusi ezinak ikusirik, esan eban: Nire eriotzak ilgo balitu burrukok ta guztiok batuko balitu, pozik ilgo nintzake. Sineste

biziagaz artu ebazan azken-ikurtonak eta bere azken nayeon katolikoa zala agertu eban eta bere arerioak biotzez azkestean ebazala; ganera eukazan idazki guztiak erreazo egin ebazan, arerioai kalterik ekarri ezeyen.

Alantxe, bakarrik, ezebe barik, aberritik landan, inoren etxean 1830'ko Lotazilako 17'n il zan gizon andi a. Bolibar nainondik begiratuta, gizona zanez, gualburu zanez, erri-buru zanez andia, zindoa, benetako kistarra, biotz zabalekoa azkeneraño, erkide ta aberriaren ona baño beste asmorik ezeukana. Adimen argia, naimen sendoa, ta langilea, izakera ta ayurri maitagarria. Legegile, izlari, gualburu, nainon agiri da Bolibar gitxi-gitxitan agertu oi direan andi-andienetaikoa. Bolibartarrak, bere irudi ori ikusten dozuen bakotxean gogora egizue zeuon erkide ta odolside ospetsu au; ia zeuon asmo ta egiteetan bere antzekoak izaten zarien; maite egizue berak letxe zeuon eta aberriaren azkatasuna, ta gizonenak lortu ezarren be, zuzen-zuzena dan Jaun-goikoaren txalo ta laztanak izango dozuez.

[A. Ipolita Larrakoetxea]

Itzaldi onen nondik norakoa

Orain 54 urte, 1927n, abuztuaren 14n, Bizkaiko Bolibar erritxoan, omenaldi andia egin jakon Simon Bolibar, Ameriketako errialde askoren Askatzailletzat dagoan gizon ospetsuari.

Egun orretan Bolibar'en zan Bizkaiko Aldundia, omenaldiaren asmatzaille edo eragillea. An ziran Peru, Colombia, Panama, Ecuador eta Boliviako Gobemuen ordezkariak. Eta guztion gainetik, an ziren Venezuela'ko erriaren izenean etorritakoak, Venezuela zalako guztien Azkatzaillearen gomutaz an eregiten zan arrizko irudia egitea ordaindu ebana.

Arrizko irudia, oroitarrria, Izpizua irudigilleak egiña da eta gainean itzok ezarri deutsez:

«Emen 1527-garren urtean yayoiko Bolibar-tar Simon arduradunak Amerikan Bolibar-tarren oñetxea irasi eban».

«Antziñako sendi euzkotar onek Bolibar-tar Simon argiratuaz bere bizmen-indarra erakutsi eban».

Olan dago euskeraz idatzia, eta erderaz onela: «Simon Bolibar, a quien reconocen por Padre de la Patria Venezuela, Peru, Ecuador, Panama, Colombia y Bolivia, a la Puebla de Bolibar».

Agiri danez, egun atako omenaldia irukotxa zan: iru Bolibar'ri egiña: Bolibar erriari, Bizkaitik Ameriketara lenengoz joan zan Simon Bolibar-ri eta onen zazpi garren belaunaldiko Simon Bolibar ospetsuagoari. Arrizko irudi arek irurok batera gogoratu eta omendu nai izan ditu.

Omenaldiko egun orretan, besteak beste, Praille karmeldar bi ibilli ziran guztien begi eta autuetan: Aita Jose Domingo (jaiotzaz Pako) Ugartetxea musikalaria eta Aita Ipolito Larrakoetxea, ordurako euskal-idazleen artean bere izena (Legoaldi) agertzen

asia zana. Aita Jose Domingo, egun orretarako Bolibar-ren omenez ogindako ereserkiaren (imnoaren) egillea, eta Ipolito, egun orretan Meza Nagusiko itzaldia egin ebana. Lengo urteetako *Karmel-en* irakurleak badakie bataren eta bestearen barri.

Zergaitik karmeldar biok omenaldi orretan? Egun areitan Txomin Ugartetxea dago Bolibarren parroko, Aita Jose Domingoren anaia; aren buruan sortu da ereserkia egiteko asmoa eta nori aginduko eutsan egitea bere anaiari baiño egokiago? Aita Ipolito, barriz, Zeanuriko semea da baiña, Bolibar-en dau anai bat ezkontzaz ara joana eta semealabetan an sustraiak botaten asia. Bolibarko abadeak ez eban urrin joan bearrik izan, egun andirako laguntzailleak aurkitzeko.

Karmeldar bi izentau ditut, baiña lau izentau bear nituen. Bai, ereserkia egiteko, musikalaria itzak, bertsoak bear zituen, eta bertsoak nork egin be, iñora billa joan barik, etxean aurkitzen ditu, amazortzi-emeretzi urteko ikasle gazte bi; biak Markiñatik Gazteizera igarobarriak dira, Bolibarko bazterren ezagutzailleak gaiñera. Bata inguruan jaioa da, eta bestea arabarra. Arabar onek erderazko bertsoak jartzen ditu eta besteak, euskerazkoak, neurri berean egiten. Biak ordurako ikasia dauke erderazko imnoen lege bat, au da, amar silabako bertso-neurria dabela egokiena eta geien erabilia. Eta or dagoz amar silabako bertsook: Gloria, gloria al invicto guerrero, / que llevado de bélico ardor, / a su patria querida el primero / coronó de fúlgido esplendor... Eta euskeraz onela (osoa jarten dogu).

Aintza ta aintza ludi gutzian
gudalari ospetsuari,
jaioterra goraltearren
ainbeste jasan ebanari.
Nunnai dakusguz gudalburuak
begira Simon Bolibarri,
ba berak argi egiten deutso
eguzkiak lez ludiari.

Bere burua erdi-ikusten da
odei-tartian Oiz-ganian,
bere begiak jarririk daukoz
Bolibarreko lur maitian.
Bere izena idatzik dago
eguzkian ta illargian.
Bolibartarrak be idatzi ta
ezarri dabe biotzian.

Euskerazkoa (alan bear zanez), aukerakoagoa da Bizkaian, Bolibarren bertan entzuteko Ameriketari baiño. Eta euskeraz abestu zan egun atan, eta euskeraz entzun izan da geroago bein baiño geiagotan.

Alan be, Ameriketari geiago abestu da inglesez. Alan da egia. Bai. Bolibarren lenengoz entzun eta andik iru urte orduko Ipar-Ameriketako erri gutzietan entzun zan, eta inglesez, jakiña: «Glory, glory to the invincible warrior, / who enrapturek with martial fervor»... Norbaitek artu eban erdal-bertsoak ingles-bertsoetara egoki-

tzeko nekea. Union Panamericana zalakoak, Washington-en artu dau erabagia, eta ereserkia ingles-bertsoan argitaratu eta Ipar-Amerika guztian millakak zabaldu ditu, umeen eskola guztietan abeztu egien Bolibar il zaneke eungarren urtea, lenengo eunurtea (1930) ospatzeko. Umeak bakarrik ez, andrazkoen 800 bazkunek be ereserki ori euren egin eben urte orretarako. Eta Ipar-Amerikatik Chile-raiño entzun zan, eta Militarren banda batzuk euren soñitegirako artu eben. Orraitio, esan daigun ereserkia bandak joteko lenengoz atondu ebana, Gazteizko Regimiento de Guipuzcoa zalakoaren zuzendaria izan zala. Bolibarren joteko egin eban konponketa ori.

Musikea berez da zaratatsua, baiña musika onen egilleak eta eragilleak ez eben usteko munduan durundua izango ebanik. Aita Ipolitoren itzaldiak, sermolari onek eztarri sendoa eta abots lodia ebanarren, ez eukan musikearen durunduari urrik emoterik. Baiña ez zan oiartzun barik gelditu. Gaur dakargu Euskalerrian argitara, baiña Ameriketara antziñago, orain 25 urte inguru argitaratua izan da, Colombian, ango Gobernuaren babespeko «Hojas de Cultura Popular Colombiana» aldizkarian, eta gure ustez, Luis Migel Zulategi zanaren eragitez.

Zulategi au Iruñeko semea zan, euskaldun barria eta euskazale beroa, karmeldarretan euskera ikasia. Aita Ipolitoren eskolan legeikasle izana. Ameriketara 1924n joan zanetik (1932-1936) Bizkaian egindako urteak kendu ezker, Colombian emon eban bere bizi guztia. Musikalari ta gazetalari lez, nabarmendu zan, batez be, musikagaien txosten-emoille eta kritikalarik. Musikalari lez, orkestarako, pianurako eta kantateko lanik asko itxi eban. Bizkaian bizi izan zan bitartean, *Euzkadi* egunerokoan argitaratu zituen txosten-lan batzuk, *Entzule* bat eta *Eretzale* izenpean. Colombian Medellingo *El Correo* egunerokoan.

Iruñako seme onek, musikalari eta idazle onek, egin eutsan Ipolitoren itzaldiari bere itzaurretxoa Colombiako gobemuaeren aldizkarirako eta nik uste, berari zor jakola itzaldia an argitaratzea be. Aldizkari berean, eta Zulategiaren eragitez, antza, agertu zan Jose Domingoren ereserkia be, euskerazko eta erderazko bertsoekin, eta berak bialduta daukat nik aldizkari orren ale bat, itzaldia dakarrena, «Oración Bolibariana», euskeraz eta erderaz. Eskuetan izan nebanean, susmotxoa gelditu jatan erderaz ipintea Zulategik berak egiña ez ete zan. Baiña oker nenbillen. Ipolitoren papel zarretan euskerazkoaren ondoan agertu da erderazkoa be. Eta Ipolitok berak egiña dala uste izan daikegu. Bear bada, euskerarik tutik ez ekien entzule batzuk, Amerikarrak eurak eskatuta, egiña. Eleizan egindako itzaldiari dagokionez, Bolibar andiari siñismenaren aldetik begiratuta egiña dago.

Emen aitatu ditugunetatik, aspaldiko omenaldian tarteko izan ziranetatik bi baiño ez dira bizi gaur: Aita Bemardino Maturana, erezerkiaren erderazko bertsoen egillea, askotan mixio-aldizkari baten zuzendari izan dana, eta Bizente Batiz (edo Batiztar Bingen, Barbin eta beste ez-izen asko erabilli dituen euskal-idazlea), biak Colombian urte askotxo egiñak. Beste guztiak bizi onetatik alde egin euskuen, illak dira: illa bolibarko parroko zana; illa, Zulategi iruñarra; illa, aita Ipolitok, orain bost urte, eta Aita Jose Domingo, guztien artean zarrena, baiña igaz, 92 urtedun galdu genduena. Oititz bat euron alde. Goian begoz.

AITA IPOLITO LARRAKOETXEA. GOIAN BEGO*

Orain dala sei bat illabete, urtez baiño lanez nekatuago etorri zitzaigun Euskalerrira, Erroma utzirik, eta Markiña'ko prailleetxean sartu Aita Ipolito Larrakoe-txea. Ez genuen uste osasunean ain eraso zetorrenik. Arratia'ko aritz sendo au erori da. Markiña'tik bertatik betiko agur egin digu «egun aundirarte». Lerro auek bizkaitar beti zindo, Zeanuri'ko seme sendo eta euskal-idazle jator izan degun praille onen ororigarri izan nai dute. Euskaldunon oroitzapena ongi irabazia du.

Bijoaz, lenbizi, alde egin digun lagun gogoangarriaren, biziko unerik irtenenak: Bizkaia'n, Zeanuri, Gorbea-azpian jαιο (1892-11-26); Naparroa'ko Villafranca'n, prailletako sartu (1905); Larrea'ko karmeldarretan profesa egin (1909); Burgos'en (1909-1912) apaizgintzarako ikasketak asi; Gazteiz'en (1912-1914) jarraitu, eta Begoña'n (1914-1917) amaitu. Urte bete lenago artu zuen apaizgoa. Nagusiak lege-irakasletako izendatu zuen eta lan ontan, ikasiz eta irakatsiz, Kalahorra'n eta Begoña'n zenbait urte egin ondoren, Erroma'ra biali zuten. Emen, **Angelicum** deritzan ikastetxean **Doctor Juris** egin zan, 1926'ganean; eta ori ez askiz, beste bi urtez **Rota Romana** eta **S. C. Concilii** diralakoetako eskoletan jarraitu zuen ikasten. Ola iritxitako argiak ez zituen inñolaz ere beretzat gordetzeko, Elizaren alde jartzeko baizik.

Karmeldarren Erroma'ko Ikastetxe Nagusian irakasle egiñez gaiñera, Vaticano'k laguntzaille artu zuen: 1928'n, Sortaldeko Eliz-auzietarako ikertzaille, batez ere ezkontza-auzietarako; geroxeago, Sortaldeko Elizak lege berria bear zuela-ta lege ori egiteko lau langilleetatik bat, Aita Larrakoetxea gaztea. Garai artan, legegaietan goraka aipatzen ziran Erroma'n iuru euskal-izen: Larraona, Larrakoetxea eta E-txegoien.

Gure arratiarrak begi argi eta zorrotza zuen, nonbait, non-naiko istilluen korapilloak askatzeko edo nola ebaki antz emateko. Orregatik, beste ainbat egiteko zail

* El diario Vasco 43 (1976, 12721.zenb.) Suplemento dominical, 7.

leporatu zizkion Erroma'k an eta emen: Etiopia-rren Ikastetxeko arazoak aztertu eta konponbidea jartzea; Portugal'eko mojaetxe batzuetako (Fatima'ko Luzia bizi zanekoa eta) egoera zuzentzea; Ecuador'eko Esmeraldas Mixioko egorea konpontzea; gure inguruko moja batzuetako arazoak ere bai, eta abar. Burgos'en, Castilla'n eta Catalunya'n ere Aita Santuaren eskubidez olako arazoetan ibillia da. Bere argiz Elizari emandako laguntzagatik, esker onezko ageria izan du oraintsu, Paulo Aita Santuak emanik.

Euskalerriko karmeldarren Nagusitza bi aldiz izan du (sei urtez) 1948-1960 bitartean. Lenago ere, nagusitza au egotzi nai izan zioten, 1933'n alegia; baiña Erroma'n bearrago zutela-ta, ezeztatu egin zuten andik orduko izendapena... Gero, 1960-66'ra, munduko karmeldar guztien Nagusiaren aldameneko edo aolku-emaille izan da. Arrezkero, Erroma'n jarraitu du oraintsurrarte, Vaticano'ko artxiboetan Avila'ko Teresa donearen aldiko goraberak aztertzen. Gai ortaz ainbat lan atera izan du or-emengo aldizkarietan eta garai artako ageri-bilduma batean. Frantzesez, latinez eta gazteleraz ainbat idatzi du bere bizian, 1918'tik asi eta azken-urteetartean.

Euskal-idazle.

Aita Ipolitorekin euskaldunek ez zeukaten erderaz egiterik. Euskaldutasuna ez zeukan inon gordetzeko ez ukatzeko. Izkuntzetatarako erreztasuna eta zaletasuna bereak zituen gazterik asita. Gazterik ikasi zituen inglesa eta alemana. Baiña euskera baztertu gabe, berea zuena ikasten ekinetz. Laster asi zan bere izena edo ez-izena (Legoaldi) aldizkaritan erakusten: *Euzko-Deyan'n*, *Euskal-Esnalea'n*, *EuzkadVn*. Aleman irakaslearen aginduz, Grimm anaien Ipuinak erderaratu bear izan zituen. Berak, era batera, euskerara itzultzeari ekin zion, eta aldizkarietan zatika zatika agertzen. Azkenez, guztiak (50) bildu eta liburu eder bat argitaratu zuen berekin, 1929'gn, irudi eta guzti. Urte aietakoa du Joan Gurutzekoaren **Subida** liburuaren zati-bat itzultzea ere.

Euskeraren batasunaz iritzi-eskea egin zanean, Larrakoetxeak eman zuen berea, Euskaltzaindiak EUSKERA aldizkarian agertua (1922). Bein, erriko Andremerietan egi garratzak bota zizkien bere erritarrei. Orduko itzaldia Donostia'n argitaratu zioten, 1926'gn. Urte ontan, Bolibar Amerikarren Askatzaile ospetsuak omenaldia du Bizkai'ko Bolibar errian. Aita Larrakoetxea da izlari. Orduan egin zuen itzaldia ere, aldamenean erdal-itzulpena duela, Colombia'ko gobernuak argitaratua du eta munduan zear zabaldua. Andik laster, karmeldarrek euskerazko aldizkari bat sortzen dute: **Karmengo Argia**. Bereala Ipolito Erroma'ko albistari egiten da. **Legoaldi'k** bialitako berri eta txostenak mamitsu zetozten beti eta noizik bein pipertsu ere bai. Ongi ageri da Erroma'ko egotaldiak eta lanak ez ziotela astirik kentzen praille langille oni euskera ederki lantzeko. Geroago ez degu ezagutu euskal-aldizkarietan alako albistaririk Errotatik.

Tartean tartean, lan neketsuagorik ere egingo du: **Itun Barria** bizkaierara itzuli. Gerrateak ekarritako okerrez, argitara gabe gelditu zan. Geroago, ikutu batzuk eginetz, argitaratzeko asmotan jarri zanean, Kerexeta jaunaren lanak agertzen asiak ziran, eta oni kalterik ez egitearren, ez zuen asmo ortan jarraitu.

Lanik izugarriena, baiña, Elizlegedi osoa euskeraratzea izan du. Aspaldi zeukan egiña, eskuz idatzia. Azken urteotan, Erroma'ko arazo guztiak ez ditu eragozpen

izan lan osoa makiñaz aldatzeko. Lan ikaragarri au zenbaitek argitaraturik ikusi nai lukete eta aldi edo ixillaldi batean egindako lanen ezaugarritzat ez legoke gaizki.

Argitara gabe ditu beste bi lan, Euskal-Esnaleak sariztuak: Cervantes'en **La Tía Cornelia** eta **La Fuerza de la sangre** eleberriak, euskeraz. Azkenez, argitaratzeko asmorik gabe egiñak noski, bi lan utzi dizkigu: Gipuzkerazko eliz-itzaldi mordoa. Atzerrialdi luzetik etorri berritan, Altzo Alegi'ko prailletxean sartu zitzaigun, barkatade-billa. Iganderoko mezatan itzaldia egin bear eta artean Bizkaiko euskera erabilli zuenak gipuzkera egin bear zuen orain. Orretzek bearturik egin zituen azken aipatutako lan oiek.

Atzerrialdia aipatu det eta ez, ain zuzen, Erroma'koa, borondatez bestera iragan izan bear zuena baizik. Frantzia'n, Agen'en, izan zan ia amar bat urte, 1936'ko anai-gerratearen ondorioz. Araño eldu ziran emengo ziprizitiñak. Erroman ez zan, ez. Musoliniren ez Burgosko enbajadore jaunaren begiko. Bera ere ez zan, berak esan oi zuenez, oju irukoitzdunen zalea. Ori zerurako utzi bear zala esaten zuen, eta mezan eta ola **Sanctus** esateko. Ortik gertatu zitzaion Erroma'tik alde egin bearra eta Frantzian, frantzesentzako ordurik beltzenetan, luzaro egotea.

Gero ere, 1948'n Euskalerriko karmeldarren nagusitza eman zitzaionean, ez zan dana pakea bere inguruan. Atzetik begiraleak (eta ez aingeruak) izan zituen luzaro. Eta bein, Ameriketako praille anaiak ikustera joan bearta, Portugal'en egazkiña artzera zijoala, bidean trena geldiarazi eta Madrill'era eramán zuten poliziaratean. Urrengo egunerako, Nuntzio jaunarekin itz egin eta bereala konpondu zan okerra. Zorioneko okerra! Portugal'en artu bear zuen egazkiña, Brasil'dik zear zijoala, suak artu baitzuen eta erre.

Gaiñerakoan, 1936 inguruan, Euskalerriko aldun batzuk Erroma'n erabillitako joan-etorrien berri dakitenek ulertuko dute zergaitik ez zan Aita Ipolito norbaitzuen begi-begiko. Orduko goraberen berri berak eman zuen bein, eta Iturralde'ren liburuak irakurri dituztenak jakiñean daude.

Euskaldun zarren artean adiskide andiak zituen Aita Larrakoetxea'k munduan zear. Gazteentzat ere, aren berritxoren bat jakitea ez al da alperrik izango.

Bakartade-billa joan zan Markiña'ra eta erdi bakartadean izan da aren illeta. Amaikaxori elurteak bideak galerazi eta, ara gabe gelditu bear izan degu. Gero bigarren illeta-meza izan zuen. Goian bego. Eta gure samiñ-agurra anaiei, batez ere, Aita Bedita Larrakoetxea. Shakespeare'ren euskeratzaille azkarrari.

AITA IPOLITO LARRAKOETXEA*

(Goian bego)

Aurten, urtarrillaren 25, Markiñako karmeldarren etxean il da Aita Ipolito Larrakoetxea, euskal idazleen artean Legoaldi izenez ezagunagoa genduen. Karmeldar euskaldunok zordun gaitu, ez bakarrik praille gareanez, bai euskaldun gareanez be. Pekatu astunaren ermdun egingo giñateke, aldizkari onen orrietan aiztuta itxiko ba gendu.

Praile eta euskal-idazle onen omenez zer egingo, eta gomutagarririk onena auxe izango dala uste dot: lenengo, bere bizitzako barri emoteko berak Kardaberaztarrai Eleiz-legeen euskal-itzulpena eskintzean urte bete lenago bialdutako lerroak argitaratzea. Berak idatzitako azkenengo euskal-lana da. Ez eban idatzi argitaratzeko asmotan, ez bere kautez, eskari bati erantzutearren baiño. Baiña or ditugu Aita Ipolito zanaren bizitzako goraberarik urtenenak. Eta nor bere luma baiño egokiagorik arein barri emoteko?

Bigarren (eta Larrakoetxearen beraren utsune bat edo beste betetearren) **Grimm Anayen Ipuñak**. berak argitaratutako liburuak izan eban arrera on eta zabala ikusteko, aldi atako aldizkari-puska batzuk aldatzen ditugu emen.

Baiña (aurretik eta irugarren) beioa emen berak idatzitako euskal-lanen zerrenda auxe:

- 1) Andramariz bere errian. Zeanurin, egindako eleiz-itzaldia, 1926-gn argitaratua.
- 2) Bolibar-en, Markiña-ondoko errian, Amerikarren Askatzaille andiaren omenez 1927-n izandako itzaldia. Au euskeraz eta erderaz, urteak geroago, Kolonbiako gobemuak argitaratua, **Oración Bolivariana** izenez.

* Karmel 1976-3/4, 95-96.

- 3) Cervantes-en **La Tía Cornelia** eta *La fuerza de la sangre* nobelatxoak euskeraz. **Euskal-Esnalea** aldizkariak sariztatuak. Argitaratu barik.
- 4) Joan Guntzeko donearen **Subida del Monte Carmelo** eta **Noche Oscura**. 1921-n asi eta amaitu barik itxi zituen. Lenengotik libum bi eta bigarrenetik beste ainbeste amaituak.
- 5) Itun Barria. Olabidek egiñetik bizkaieraratua.
- 6) Giputz-aditza. Altzon-n bizi zala egiña, batez be an bertako euskaldunei entzunetik.
- 7) Eleiz-legedia. Gaztetan Kalahorran eta Begoñan irakasle zala egiña, eta azkenengo urtean apur bat orraztua.
- 8) Ainbat idaz-lan, euskal-aldizkarietan argitaratuak: «Euzko-Deya», «Euskal-Esnalea», «Euzkadi», «Argia», «Euskera» etabatez be «Karmengo Argia» karmeldarren aldizkarian.
- 9) Itzaldi-mordo andi samarra. Bizkaieraz eta gipuzkeraz.
- 10) Euskeraz argitaratua ez dan arren, aitatu dagigun bera ilda gero, argia ikusi dauan (*Euzkadi y el Vaticano*). Or sartu daben **Egunerokoa**, Ipolitok euskeraz idatzirik itxi ei eban.

Erderaz, prantsesez eta latiñez egiñak ez ditugu aitatu.

Kardaberaztarrentzat idatzitako lerroetan ez da aitatzen areik idatzi ta geroko barririk. Utsune orren betegarri, esan dagigun andik illabete bigarreneko, Euskalerrian zala. Markiñako praille-etxea artu eban, berak aututa, bere azken-egunetako atsedenekutzat. Atsedeen-aldi laburra benetan.

Osasunean jota etorri jakun. Uste genduen baiño joago. Bere biziko zaletasuna eta joerea eukan ortu-lanetarako, baratzerako. Frantzian izan zan urteren baten, berak azi ei zituen inguru guztian ikusi ziran artabururik ederrenak. Batek baiño geiagok uste eban Markiñan be baratzeke lanari ekingo eutsala. Baiña ez zan gauza. Naiko lan eukan bere gatxari buru emoten. Bere miñak gora bera, gogatsu eta gogaldi oneko ori bai, barre eragiteko ateraldiekin nozik bein.

Azkenengo egunetan, bere anaiaren, Larrakoetxea-tar Beditaren **Shakespeare** euskeratua irakurten eragoion. Olan aurkitu neban nik il baiño egun batzuk lenago. Letra txikitxo bere begientzat. Eta lupatxo batekin ebillen. Eta berak: «Au baiño obe bat, zabal-luzeago bat ekarriko ba zeuzkit Bilbotik...» Berandutxo. Andik bostgarren egunean il zan, eleizakoak fede biziz eta ilteko bakerik andienaz apalik artuta.

Poz au erakusten ei eban azkenengo egun orreitan: «Neure bizian ainbat arazo ipiñi ditu Eleiza amak nire eskuetan eta nire erabagiak ondo artu deustazala ikusi dot beti» Ama Teresaren azkenetako berbok gogoratzen deuskuz onek: «azken baten, Eleizaren ume lez ilten naz». Goian bego.

LARRAKOETXEA AGIRREZABALA AITA*

Larrakoetxea Agirrezabala aita bizkaitarra genduan, 1892'n Zeanuri errian jaioa eta Markiñan 1976'gn illa, urtarrillaren 25'n. Bataioan Alexander ipiñi eutsoen izena eta Ipolito karmeldarren soiñekoa jazkeran. Izkuntzetarako zaletasuna ekarren gazterik, baiña abadetu-barritan, nagusiak esan eutsan: «Zuok, arratiarrok, legeetarako daukazue aparteko sena ta zu lege-gizon izateko aukeratu zaitut». Praille gazteak andik aurrera legeai ekingo eutsen, baiña izkuntzak, batez be euskerea, bertan bera itxi barik.

Euskal idazle. «Legoaldi» ezizena artuta asi izan zan euskeraz idazten: Sari bi be irabazi zituen Cervantes-en ipui batzuekin. **Grimm anayen ipuiñak** atera zitue-nean arrerarik onena izan eban. Beste lanik be itxi dau argitaratu barik: Jon Gurutzekoaren liburu bi euskeraz, Itun barria, Giputz-aditza, eta oraingo au, gitxienez.

Lege-gizon. Alditxo bat Euskalerrian ikasten eta irakasten emonda gero, Erroma'ko *Angelicum* Ikastetxe Nagusian eleiz-legeetan irakasle agiria atera eban eta gai batzuk sakontzen *Rota Romana*-ko eskolan eta beste baten jarraitu; 1928'n Sortaldeko Eleizen arazoetarako onulari aurkitzen dogu; 1930'n Sortaldekoen legeak aztertze-ko Batzordeko eta Batzorde orren idazkari, eta 1935'n, Sortaldekoen legeak barriztau bear zituen Bartzodearen Onulari. Erroma'k ainbeste arazo ipiñi zituen, gaiñera, Aita Larrakoetxea'ren eskuetan, bai Italia'n, bai Amerika'n, Portugal'en, España'n. Aita onen eretxi eta epaiak pisu andia euken Erroma'n eta non-nai. Il-bezperatxoan berak autortua: «Erroma'k arazo asko ipiñi ditu nire eskuetan eta, Jainkoari esker, nik erabagia ondo artu daust beti». Erroma'ren aurka zanean be bai, azkenengo urteko arazo bategaz jazo jakon lez. Orraitio politikeri zantarraren erruz, Erroma'tik alde egin bearra jazo jakon urte batzuetarako, Euskalerriko diputatuen alde egin ebana-

* In. A. Ipolito **Larrakoetxea**, *Erroma'ko Eleizaren araudia*, Tolosa 1978, 4.orr. (Kardaberaz Bilduma, 32).

gaitik. Orduan Frantzia'n egin zituen amar urte, Euskalerrira etorteko atea zabaldu jakozan arte.

Karmeldar euskaldunak iru aldiz autu eben nagusi: 1933'n (Erroma'n bearrago zalako ez eutsen itxi nagusitza artzen), 1948'n, eta 1957'n; 1960'n, barriz, Erroma'n karmeldar guztien Nagusiaren lenengo laguntzaille. Azkenengo aldian azter-lan andiak egiten ziarduen Santa Teresa'ren egunetako arazo asko argitzen, eta batzuk, bai prantzesez eta bai gazteleraz, argiraratuta itxi ditu.

Eleiz-araudi au. Lege-gizona eta euskal-idazlea, biak batu eta alkartu dira emen. Gaztetako lana da, izan, 1924 inguruan amaitua. Orduko euskal-giro eta bizitualdi baten agergerri ederra. Eleizalde-tar Koldobika zanaren asmoai jarraituz ibilli zala dirudi. Jaun onek Bizkai'ko Aldunditik ainbat lan egin eta eragin izan eban euskera edozertarako gai egin-naiez, edozein gaitarako testoak atera gurez. Eleizalderen erio-tzeak eta 1923'ko zapalketa-aizeak ondatu eben dana. Orduan egindako lan askoren aztarrenik ez da gelditu. Zorionez, Aita Larrakoetxeak egiña, Eleizearen lege barriak euskal-soiñekoz jaztea, ez zan galdu. Eta azken-urteetan Erroma'ra bialdu jakon eta berak makiñaz jo eta arean (zerbait) orraztu egin eban. Lan au amaitu ta laster il zan bera, Markiña'ra atsedeen billa etorrta.

Eta ara bere lana. Bear bada, bizi izan balitz, argitaratzekoan, beste ikuturen batzuk geiago egingo eutsazan, orraztuz eta erraztuz. Bego dagoan lez, orain iru-rogetaka urte illunpean gelditutako, ixilpean egindako lan au, orduko giroaren agergerri eta aldi bateko Eleizaren lege batzuen lekuko.

XALBADOR: ODOLAREN MINTZOA*

Usterik ustebakoenean galdu dau Euskalerrriak gure egunetako eta iñozko bertsolariarik bikaiñenetakoa: Xalbador. Joan dan urteko azaroaren seian egiten jakon zor jakon omenaldi nausia, Urepelen, bere jaioterrian. Omen-egilleak bertso ta txalo ziarduen bitartean, ondoezak emonda, berak, ixil-ixillik alde egin eban lagunartetik alboko eskolaraiño, eta antxe emon bere azken-arnasea. Une orretan omenaldikoak **Gernikako Arbola** kantetan ei ziarduen.

Ez da esatekoa guztien latz-ikarea. Bertsolariaren egunik aintza garriena beronen illetazko egunik baltzena biurtu zan. Biotzak gaiñez egin eutsan, nonbait, ain omenaldi beroa eskertu nai ta eziñez. Edo biotzak indarrrik ez ango txaloen, ango gorespenezko itz eta deadarren zama aztunegia jasoteko.

Albiste negargarria egun berean eldu zan mundu guztira, Parisko irratiak zabaldua. Illaren 10'n Euskalerrri osoa egoan barrero Urepelen bertsolari maiteari azken-agurra emoten. Urrengo egunetan euskal-aldizkariak dardara baten datoz. Ezin agertu barik itxi jo dituen zorigaitxaren eraso. Bertsolariak, olerkariak ez dira gelditu ixillik.

«Urepeleko eskolan hil zauku hil Xalbador;
hain pertsulari sarkorrik ez zen nehon ez nehor»
(Iratzeder).

Beste batek bertsolariaren azken-agurra Kristok bere apostoluei egindako azken-agurraren antzeko egin dau:

Apostoluen artetik Kristo nola zen zerurat joan?
Halaxe zira zu ere sartu betiko bakezko loan,
Euskalerrriko haur eta anaiak zintuelarik ondoan.
Nahiz oraino gelditzen garen gose eta egarriak,
akabo zure ezpaiñek zuzten bertso eta irriak:
dolutan daude Euskalerrriko mendi eta iturriak.

* Karmel 1977-1, 61-67

Eta erriko abadeak esango dau, egun berean izan dituela Xalbadorrek bere Erramu-igandea, Ostiral Santua eta Pazko-eguna. Ez dago txarto esanda. Alantxe izan da. Goizean, txalo eta gora-oiuak, Erramudomeka alai: arratsaldean, eriotza, Bariku Santu illuna. Eta Pazko-eguna? Pazko-eguna bere bai. Or da or euskaldunen biotzetan artu dauan leku eta bizitza barria; or da or illondoko ospea. Or da or aitamen berezia merezi dauana, egun atan berean erakutsi eta zabaltzen asi zan liburua, **Odolaren Mintzoa**, Xalbadorren bertso ederrez omidua eta Xalbadorren arimeari, berbiztuta lez, euskaldunen artean bizirik iraunerazoko deusana.

Liburu orixe aurrean dodala, Urepeleko bertsolari onen irudi bat emon nai neuke, ain zuzen, neure zirriborro oneitan. Batez bere, Xalbadorrek bertsoz barik bestela, itz-lauz, liburu orretan eskeiñi deuskuzan orrialdeak goioan ditudala.

Bertsolaria sortzen

Bertsolaria berez sortzen dala uste dau askok. Uste ori daukenentzat Xalbador berez jaio zan bertsolari; berez ekarren bertsotarako gaia eta etorria. Besterik da liburuan ikusten doguna. Xalbador ez zan bertsolari jaio; apurka apurka ikasiaz egin zan bertsolari: bertsolari lagunabarreko, lenengo; bertsolari gain-gaiñeko, gero.

Bertsolaririk bazanik bere ez eban jakin luzaro. Bere aitari eta auzoko lagun bati entzun eutsen lenengoz arein aitamena: gizon argiak, bere biziko doaidunak, bitxiak ei ziran. Amasei urte zituela entzuten ditu lenengo aldiz erdizperdizko bertsolari batzuk. Ordurako paperetean irakurriak zituen bertso bat edo beste. Olangoxe kanta-paperen bat eta eleizetako kantak besterik ez eban ezagutzen. Andik aurrera, buruz ikasitako bertsoak kantauaz eta barriak asmauaz, bere bakarreko orduetan (eta artzain-bizitzak olango ordurik asko emongo eutsa), sarri ekingo eutsan kantari mendian ara ta onako ibillietan. Orra Xalbadorren lenengoko eskola, bakarreko eskola.

Plazan, lagunartean ez zan agertuko Urepelen bertsotarako giroa zerbait berotu zan arte. Giputz bat izan zan giro-berotzaille. Zaldibiko semea da, Jose Tolosa izenez, **Epele** ez-izenez, bizi zan baserriaren izenetik. Zaldibitik Urepelera artzain joana zan. Ez bertsogintzan oso trebea, baiña lagunak batu eta alkarri bertso-zirika jarten ez ei zan makala. Amasei urtetik emeretzirarte, eskola orretan gero ta bertsozaleago eta bertsogintzan ikasiago egin zan Urepeleko artzain gaztea.

Bertsolaria gorantza

Gerrateak (1939-45), gudari joan bearrak etena egin dau Xalbadorren artzain-bizitzan eta bertsolaritzan, bietan: sei urteko ixillaldia; bertsorik ez entzun ez bota. Baiña gerratearen ondorik, orra non agertzen dan beste giputz bat bertsolariaren bizitzan: Ernandorena jauna Joxe Tolosa bertsolaritzaren suspertzaille izana bada Urepelen, ori bera egin eban Ernandorenak Bidasoaz andiko Euskalerrri osoan. Onek eroanda, laster agertzen da Urepeldarra plaza agirietan bertso-kantari. Apurka apurka bertsolaritzako gorengo maillak joko zituen. Lenengo, bere aldeko Euskalerrri; gero, Euskalerrri osoan, Baionatik asita Bilboraiño: geien batez, Gipuzkoa aldean. Xalba-

dorrek ezingo dau itxi bere esker onik beroena erakutsi barik Gipuzkoaren aldera. Egia da Gipuzkoak emon eutsala bere bertsolari-bizitzako unerik mingarriena: baiña zelan ukatu Gipuzkoan izan dituela egunik pozgarrienak bere? Xalbadorrek zordun autortuko dau bere burua Gipuzkoaren aldera. An entzun dau txalorik geien. Andik eroan ditu saririk ederren eta eskuarterik beteenak. Ez da bera esker txarrekoa, eta giputzenganako esker onak bertso asko gipuzkeraz idazteraiño eroan dau, bere benapar euskera itxita.

Bertsolarien nekeak

Bertsogintza ez da Xalbadorrentzat lan erreza eta berezkoa. Ez urrik bere. Ondo daki orko estukuren barri. Ez ei da, ez, neke barik sortzen ez puntu ona ez erantzun egokia. Non-nai izaten ei dira ditxolariak diralakoak, puntuak beingoan asmatzen dabezenetakoak. Bera ez ei zan orretan oso bizkorra. Gaiñera, asko eskatzen deutso bere buruari; ez dau errezkerien bidetik ibilli nai. Bertsoa osatzeko atxakiaz ez dau euskerea edozelan erabilliko. Esaterako, iltzea bada euskeraz itz zuzena, ez dau ondo ikusten **iltia** esatea, bizia-gaz bertso egitearren.

Ekiñaren ekiñez, mendian ikasi dau berak neke ori arintzen. Artzaintzan ziar-duela, bere buruagaz bertsotan ekiten eutsan sarri punturik egokienak eta beteenak asmatzen. Apal agertzen jaku autortza oneik egitean gure Urepeldarra; batez bere, beste autortza au egiten deuskunean: maixuago zirala arlo onetan Bizkaiko eta Gipuzkoako bertsolariak. Angoak, Bidasoaz andikoak, ez ei dabe or ain zeatz eta txukun jokutzen.

Eta puntuak bakarrik ez, gaiak, mamiak, esatekoak bere emoten ei dau nekerik. Belarriak zur eta burua argi bear ei dira, bertsolari lagunak zer esan dauan eta zer erantzun berbertan asmatzeko. Orduko estukuren barririk entzuleak gitxi daki. Nasai ikusiko dau bertsolaria, itxura baten; baiña onen barruko larriak ez dira txantxetakoak. Lagunaren bertso osoa amaituarde ez dauko erantzuterik ez zer erantzun asmatzen arduratzerik. Lenago iñoz gai berean esandako bertsoren bat gogoratu eta botatzeak bere ez dau balio. Lenago botariko bertsoak aitzutea, obe. Gaiñera, entzuleak gauza barriak nai ditu, ez lendik entzun eta jakiñik. Bertsolariaren lana ez ei da sukaldariarena langoa; sukaldariak gai bardiñaz betiko janariak atontzea naikoa dau; bertsolariari ez deutso iñok emongo ori egiteko eskubiderik. Olantxe diño oso polito gure bertsolari onek.

Bertso-doiñua

Bertsolaria kantari da. Kantu barik ez dau bertsorik ateraten. Kantuaz batera asmatzen ditu beti. Kantuak emoten deutso bertsoari bere neurria. Neurria bakarrik ez; neurriaz aragoko zerbait bere bai; gai bakotxari edo une bakotxari edo sentiera bakotxari ondoen dagokion gogo-giroa bere bai. Xalbadorrek garrantzi andia emoten **deutso** bertsoen doiñuari. Orregaitik bear-bearrezkoa, premiña andikoa dau bertsolariak doiñu asko jakitea, aldi bakotxean ondoen datorrena erabilteko. Gauza ne-

gargarriren bat bertsoz kantetako, eriotzea edo olako gaien bat erabiltzeko, **Uso Zuria** kantuauren doiñua artzea ez ei dago bat bere ondo.

Xalbador onetan maixu izan dala esango neuke. Ondo jakin dau bere barruko giro edo sentieragaz erara etozan doiñuak autatzen. Xalbadarren bertsoak eta doiñuak alkarregaz dabiltz. Bertsolari onen barruan jolasketarako edo txantxeta utserako lekurik gitxi dago; orregaitik berak erabiliko dituen doiñuak ez dira arin alaiegiak izango. Ez orixe!

Nik lenengoz entzun neutsanean **Ene izar maitia** kantuauren doiñua zerabilen. Emengo bertsolarien artean gitxi entzuten dana. Bertatik igarten jakon lirikarako, biotz-ixurirako joerea. Doiñu orrekin goitik zebillen bertsoa eta bertsoaren mamia. Eta olakoxeak izan dira Xalbadorrek maiteen izan dituen doiñu asko: **Lurraren pian sar nindaiteke, Ikusten duzu goizean, Bortian Ahuski, Sorlekua utziz geroz, Ai ori begi ederra** eta abar. Olakoxeak artuko ditu bere bakarreko bertsoak asma-tzerakoan. Eta arein otsean Xalbadarren bertsoak gorako egada artuko dabe beti; bertso apain, dotoreak urtengo deutse, samurtasuna darienak, biotzetik biotzerakoak, beteak baiña betegarri gitxikoak.

Gazterik Elizanbururen eta Dibarrarten giroan murgildurik ibilli zala dirudi. Arein eskolan ikasia dala emoten dau. Baiña ikasleak maixuak baiño jatorragoak urten dau. Areik bere, baserriko eta mendiko biziaren kantatzaille egin ziran, baiña mendiko bizia barrutik ezagutu barik. Arein bertsoak sentierak kanpotik ezarriak, beste norbaiten soiñekoa dirudie. Xalbadorrek bere bereak ditu. Orregaitik onen bertsoak jatorragoak dira areinen aldean, bigunkeri gitxiagokoak, gizonenagoak.

Jatorragoa ikusten dogu gure erriaren zorigatxak negarbidea emoten dautsenean bere. Etorkizunari begira, etsipenera ekarria dala dirudi. Negarbiderik asko, atsekabegarririk asko ikusten dau bazterretan, inguruko egoeran. Alabere, ez da Arrese Beitia baizen negarti, eta berak jotzen dituen iletak gizonetakoagoak egiten jakuz Otxandioarrarenak baiño. Doiñu bardinari, kanpai-ots bardin edo bardintsuari soiñu barria, daungada ezbardina ateraten daki. Begietako negar-ura baiño biotzeko odolaren borborra geiago ageri da Xalbadarren illeta-bertsoetan. **Odolaren mintzoa** dira, benetan (Zergatik legundu, aldatu edo kendu ete deutsez liburuan bertso bat edo beste?).

Bertsolari idazle

Bertsolaria berez kantari utsa da. Bertsoak buruan asmatu eta burutik kanpora kantuz zabaltzen dituena. Ez deutso idazteari emoten edo orretarako nagia da. Xalbadorri aldi batez jazoten jakona. Maiaren aurrean, lumea eskuan, bertso idazten jarterik ez eutsan gogoak emoten. Noizbaiten, asi zan, orraitio, asmatzen zituenak paperera aldatzen. Zirioneko ordua! Eta lanbide oni atsegiña artzen asia genduen. Baiña, orduan bere, bertsoak asmatu ez ditu maiaren aurrean jarrita egingo. Orduan bere, betiko bertsolari jarraituko dau. Len esan dodanez, mendiko ara ta onako ibilliak ditu bertsoak aterateko orduak. Lotsuaren antzean autortzen eta salatzen deusku bere oitura au: «Nik nere pertsuak harat hunatetan nabilala egiten ditut, eta gero, denak egin ondoan, idazten».

Oitura ori gazterik artu eban: bere bakarrean kantuz ekitea. Orixe izango da gero bertsolari idazlearen eskolea bere. Gaztetan eleiz-kantari izana da. Eta mendiko barkartadean an ta or ikasitako kantu-soiñuak ditu lagun. Ara ta ona kanta kantari doa beti, gogoko ausnarrean, bere biziko goraberak ausnartzen eta bertsotan jarten. Beti bere buruko erroteari eragiten. Buruko erroteari eta bere biotzeko eragiñari erantzuten. Bein Jaungoikoa, bein adiskideak, bein Euskalerrria, bein etxea eta mundu guztia darabiltz gogoan, eta bertsopak mara-mara datozkioz. Gai baktxari, gogo-giro baktxari doiñurik egokiena ezarten ikasi dau. Baiña ia beti doiñu jaso, apaña, biotzari eta gogoari gorantza eragitekoa eta pentsaketa sakonetan murgiltzen laguntzekoa.

Baiña zenbat aren bertso eroan ete ditu mendiko aizeak? Berak bere, damurik lez, diño: Ai, orduan bertsoak asmatuta gero idazteko oiturea izan baneu!

Aita Zabalari esker emen daukagu Xalbadorren arima ederra bere azkenengo liburu onetan. Or ditugu ainbat bertso, plazetan botatakoak batzuk, beste batzuk bertso-sariketetan sari ederrak artuak, beste asko Euskalerrriari, adiskideai, Jaungoikoari egiñak. Or daukagu Xalbador bizi bizirik, baiña tamalez ez osorik. «Jaungoikoak nai badau, emendik aurrera jarraituko dot bertso-idazten». Asmo ori eukan berak. Eta tamalez asmo utsean gelditu jako. «Akabo zure ezpaiñetako bertsoak eta irriak», esango dogu emen bertsolari edo olerkari batekin.

Baiña besterik bere galdu dogu. Eta gure bertsolariaren neurria artzeko au bere gogoan artzekoa dala uste dot. Bertsorik asko etenda gelditu jakoz Xalbadorri. Gogorra eta lotsagarria da bertsolari batentzat bertsoa amaitu eziñik gelditzea. Potorik txarrena. Gure bertsolari oni olakorik jazo izan jakonik ez dakigu. Gogorragorik jazo jako iñoz, ez lotsagarria, aintzagarria baiño: esan-naiaren beteko bertsorik asmatu eziña, bere barruko sentierai itzezko soiñeko egokirik aurkitu ezifia. Zelan? Zergaitik? Doiñu egokirik ezaz. Esanda gelditu da: doiñua bear eban Xalbadorrek aren neurria eta aren soiñutan bertso-iturriari edo etorriari bidea irikiteko. Eta zer jazo jako? Esan bearra eukan gaien erako doiñurik ez, esangura geiagoko doiñua nai, barruak zerbait geiago eskatu. Olako orduetan bere buruari esan deutso: «Ai, musikalari, doiñu asmatzaille izan banintz!» Motelegi eritxi deutse berak ekiazan kantuei, bere barrua areitan ustuteko. Eta orduan asi bai, baiña ez dau jarraitu nai izan. Beste Agustin bat balitz lez, gizonaren neurria eta mugak ikusi ditu, gizaizkuntzen mugak. Eta bere barruak eskatzen eutsan bertsorik ez egitekotan, ixildu egin da.

Ez ete daukagu, emen bere, gure bertsolariaren anditasunari eta jatortasunari antz emoteko neurri bat? Andi agertzen jaku Xalbador idatzirik itxi deuskuzan bertso eder zoragarrietan. Baiña ia andiago beste orreitan. Sortu nai eta urten eziñik gelditu jakozan eta beragaz beste mundura eroan dituen bertso ixil orreitan! Ixiltasuna bere askotan mintzoa da, berba-soiñua da. Eta ez motelena bere.

LOPEZ MENDIZABAL ISAAK EUSKALIDAZLE*

Zuretik ezpala, azitik landarea. Isaak Lopez Mendizabal zaarraren euskalzale-tasuna ez da utsetik sortua, noski; azitiko landarea da, zuretik ezpala. Aurretikoetatik zekarren ortarako bultzada eta gaia.

Aurretikoa du Juan Iñazio Mendizabal, 1825 ingurua ezkerreko, Tolosan liburugintza baten jabe eta buru zana. Ulibarri Abandokoak «gutzizko nere yaun eta nere yabe adiskide andi mamia» esaten zion. Ikustekoa da nola saiatzen dan berau eskutitzez Ulibarri orri bizkaieraz itz egiten, eta ongi eta jator ala ere. Mendizabal'en alarguna il zanean, aren liburugintzaren jabe Eusebio Lopez egiten da, eta onen ondorengo degu Isaak Lopez Mendizabal. Iru izenek 150 urtetako bitartea betetzen dute.

Liburu artean jaioa dala esan genezake; baña ez da izango liburu argitaratzaile bakarrik, idazle ere bai. Egia esan, Eusebiok ere idatzi zuen euskal-liburuen bat edo beste; baiña Isaak'ek alde aundia kentzen dio. Azitik landarea, baiña landuagoa eta ohea.

Landuagoa zetorren, bai, landare berria; ogei ta lau urte egin orduko bi «doctorado» ditu eta bertatik asten da euskeraren aldeko ekintza eta taldeetan sartzen. Mende onen asieran mugalde bietan euskal-ortografia batzeko egin ziran billeren lekuko bakarra degu. Orduan sortua da *Euskalzaleen Biltzarra* delakoa ere, mugalde bietako euskaldunak biltzen zituena. Biltzar orren sortzailetako degu gaurko gizon urtetsua. Andiko eta emendiko euskalzalerik jakintsuenak egiten ditu an adiskide: Adema, Daranatz, Landerretxe, Andurain, Lacombe, Urkixo, Kanpion eta abar; 1907-8-n, Biltzarraren bigarren buru degu bera. Oso atsegiña zan batzarkideen artean:

* *Euskalidazle, 'm: LopezMendizabalIsaka'ren omenez. Eungarren urteburuan, 1879-1979, Tolosa 1980, IX-XIX.*

Isaak piano jotzen, eta Eizagirre kantari, ederki zekiten biek batzarrekoen bazkalon-
doak alaitzen.

Giro eder ortan etorri zan Isaak euskal-saillera, euskeraz idaztera. Eta gauza nabarmena: jakintza-gaiak ikasten murgildurik bizi zan aldian, ikasle gaztea erlijio utsezko euskal-liburuak idazten aurkitzen degu. Beronen leenengo euskal-liburutzat kristau dotrifia bat aipatzen digute, 1907-koa. Ez du ori leenengoa. Zaarrena, bear bada, auxe: *San Joseren zazpi igandetako jaiera*, Antia apaizak eta Isaak gureak euskerara itzulia. Antia il eta gero argitaratu zan, eta bearbada, Isaak-ek orraztu eta osotua; orregatik edo ditu egille bien izenak.

Beste eliz-liburu mordotxoa ba-du: 1) *Amairu martinzenak* (288 orrialde, 1900). Bizkaieraz dago, nik ikusi dedana beintzat. Gogora dezagun J. Iñazio Mendizabal'en bizkaeraz egiteko gaitasuna. 2) *Jesusen Biotzaren maitale zintzoa* (322 orrialde). Emen asten da Lopez eta Mendizabal'tar Isaak izenpetzen. 3) *Dotriña laburra* (1907) Pio amargarrenaren dotriña beeko maillakoentzat laburturik. Bizkaerara ere itzuli zan eta argitaratu (1910). Gotzaiak arrerarik onena egin zion. 4) *Escu liburua* (1914). 5) *Kristauaren lagun ona* (1916). Sail berera dator geroago «Otoitzak» liburu-txoarekin (1942).

Gure idazleen aiton zaarraren asmoa argi dago: Euskaldun xeeak elizarako li-
buruak nai ditu; or du bere gosea eta or emango dio jana.

Beste sail batera ere zuzendu ditu bere alegiñak: eskola-liburuetara. Eta or degu *Zenbakiztiya* edo Aritmetika, ume koxkorrentzat euskeraz egindakoa. Or ditugu *Umearen Laguna* (1920), *Xabierto* (Euskal-Esnaleak sariztatua), *Martin Txilibitu*. *Umearen Laguna* Eusebio Lopez zanak atera du leenengo aldiz: bigarrenez (1931) Lopez Mendizabal'en irarkolan atera da; bitarte ontan egin zan nonbait izen edo jabe-aldaketa.

Nekazariatzat egin du beste liburu bat: *Nekazaritza*; eta *Erleak* izenez, Do-
nostian emandako itzaldi baten gaia eman du. Emen erakusten du gai ontaz euskeraz idatzitako guzien ezaupidea bazuela, 1826-n atera zan *Erle-gobernatzaillerearen liburu gidaria* ere bai. Azkenez, teatro-lan bat ere badauka, Martínez Sierra-ren *Canción de cuna* euskeraz.

Euskeraren bizia indartu naiez idatzi du gure aitonak. Premiarik geien non, ara eramango du bere laguntza eta eskua. Euskera-egarria geien non, ara eramango du asegarria. Ala eraman du elizara bere eliz-liburuekin, ala eskolara eskol-umeentzako liburuekin, ala baserrira, ala teatora. Euskeraren biziari laguntzeko eta iraunerazteko idatzi du. Ortarako zan, noski, bere euskera-erderazko autuetarako liburua ere. Eta ortarako, euskera puska bat etxe guztietara eramateko atera zuen urtez urte euskerazko egutegia, Tolosakoa. Isaak'ek badaki mailluz non jo; egutegian izango du euskal-dunik nagienak egunero zerbait euskera irakurtzeko aukera, artara oitzeko bidea. Egutegi ori Euskal-Esnalearen magalpean sortu zan, noski. Aldizkaria bera ere, asie-
ran, Eusebio Lopez-enean argitaratu zan, baiña gero ere egutegiak an jarraitu zuen, inprenta berekoen ardurapean, zeatzago esateko, Isaak'en eskuetan. Eta zenbat e-
txetan ez ote du euskera berak sartu? Olakoxe lanak egiten zekien gure oraingo aitonak, *Pospoliñak* eta olako aldizkariak asmatzen eta zabaltzen.

Orrelaxe jakin zuen Isaak onak itxura gutxiko tresnei duten garrantzia ematen. Nabarmengarrizkorik ezer gabe, goxo-goxo, beste askok baiño geiago egin du euskeraren alde. Lan egokia, bearrezkoa, atsegiña, al danean al danekoa, maitagarria. Orra batez ere zer izan dan Isaak Lopez Mendizabal'en lana: maitagarria, maitasunak eragiña zalako.

Ai, aizete zakar batek eten ezpalu! Gorrotoitsuak bestek ez zezakean egin zitalkeri ori.

JON OÑATIBIA ZANAREN DOAIA: EUSKERA MAITARAZTEA*

Ustekabean eta ezbearrez joan zitzaigun adiskidearen illetatik etorri berri naiz. Eta aitortu bearra daukat ez naizela egundaiño gogoz besterago, une batean beintzat, aurkitu beste olako elizkizun batean. Lana izan dut ango asierako otoitzean parte artzen. Zer da illarentzat betiko atsedena eskatze ori?

Ez naiz, ez, beingoan otoitz ori biotzez egitera jarri. Ez, esaten izan dit biotzak. Oñatibia jaunak ez zuan atsedenek eskatzen. Lan asko eta lan billa zebillen beti. Zergatik ari atsedenek opa? Aspaldiko urteetatik asita, lanaz besterik ez du ezagutu. Lanean zuan bere poza; nekeak ez zion ukorik eragingo. Zer dalata arentzat, berak nai ez zuenik eskatu bear? Nekez moldatu naiz elizako girora, sarrerako kantuak zionera: «Beti betiko zoriona, beti betiko atsedena zure illari eman, Jauna».

Oiartzun'go eliza zabala oiartuarrez eta gaiñerako adiskidez gaiñezka, kanporaiño beterik, eta guztiak oiuz batez kantari, betiko zoriona, betiko atsedena eskatzen. Eta illak emen lanean jarraitzea naiago zuala jakin arren, azkenean amor eman dut, inguruko giroak geiago egin dit, garaitu egin nau. Biotzaren ezetz eta aserre guztiak ixilduz, guztien eskariari baietza eman diot.

Bai, eman Jauna, betiko atsedena zure illari. Zure naiia izan da aren emengo nekeei azkena ematea. Ala izan bedi. Emaiozu orain merezi izan duan saria: betiko zoriona kristau leialari, betiko atsedena langille nekatu eziñari.

Eta gero beste eskari bat atera da nere barrutik: «Eman ondorengoak, Jauna, zugana eraman eta kendu diguzun langille eta kristau zintzo oni. Biali bera bezalako langilleak zure errira».

Nik ez dakit noiz ezagutu nuan lenbiziko aldiz, aurpegiz, adiskide au. Baiña ba-dakit noiz eta non ezagutu nuan bamagotik, berak maite zuan lanean, euskera

* Goiz-Argi 20 (1979, 449.zenb.) 17.

irakastekoan, ari zala: Ustaritz'en, Larragoien'en, ango udaldiko ikastaroa zuten batez. Ikasle: Goi-Amerikatik etorritako gazte mordoa, neska eta mutil. Irakasle: Jon Oñatibia. Ango ikastordu baten lekuko izan nintzan.

Irakaslea, ezpafiñetan irriparra ta argi-txinpartak begietan, bizi bai bizi ari zan bere lanean. Alako maisuarekin, ikasleek jolasean bezala ziarduten euskal-esaldiak moldatzen. Euskera ikasi ta maitarazi egiten zien maisuak. Andik kanpora, gero, ikustekoa eta entzutekoa zan nola amerikar aiek (batzuk Goi-Amerikara aldatutako euskaldunen billobak edo) nola egiten zuten parra-parra euskeraz. Ingles egitza oitutako aiei neke egiten zitzaien, ori bai, beren mingaiñ eta aoa euskal-itzetara egokitzea; baiña ez ziran gaizki moldatzen ortan ere. Ez zuten bat ere damu Euskalerriraiño ortarako etorria eta beren opor-egunak ortan emana. Urrengoan ere berriz etortzeko pozez ikusten nituan. Egia esan, euskera ikasteko gogo bizia erakusten zuten, baiña beste zerbait ere egi garbia zan: alegia, maisuak ikasteko nekea ariña ta alai egiten ziela eta euskera maitagarri.

Orra non eta noiz ikusi nituan obeto Jon Oñatibia'ren neurria eta balioa berak ain maite zuan lanerako; orduan oartu nintzan maisu onen doiai bereziaz: euskera bera eta euskera ikasteko nekea bera, maitagarri egitea. Leen ere esan dut: jolasean bezala ikasten zuten an, ikasleak maisuarekin eta elkarrekin jolasean ba'lebiltza bezala. Aurrentzat ez da, noski, ikasbide egokiagorik. Baiña an ikusi zitekean nagusiagoentzat ere ez zala bat ere txarra.

Arrezkero Oñatibia jaunak bide ortatik aurrerakada andiak egin zituzana, edozeiñek daki: bere ikasbideari musika ere ezarri zion, ikastea atsegiñago eta biziago egiteko.

Euskalerrriak eta euskerak ba-dute orrelako irakasleen bear eta premiarik, euskera maitagarri egiten dakitenetakoen bearra, alegia. Ez dugu eskubiderik gure izkuntza iguingarri edo gorrotogarri egingo duan ezer egiteko. Eta ez ote gera bide ortatik abiatzen asi?

Illeta-eguneko goizean bertan irakurri genuan zerbait kezkarri. Zer da Lapurdi aldean gertatua? Ango euskaldunak, burua gorarik, aitortzen izan dute oraiñarte beren euskalduntasuna. Burua gorarik aitortu du Erroma'n orixe bera Ezpeleta'ko seme argi batek, Etxegarai kardinal berriak. Gure egunkari euskaldunek esan ez ba'digute ere, jakin du mundurik geienak, ain zuzen illeta-igande ontan bertan. Gauzak nasitzen asi ote dira?

Bidasoa'z andiko gure anaien artean «Bai Euskarari»koak asi dira euskararen aldeko beren ekintzan eta arrera naiko motza izan omen dute. Okerragorik ere gertatu omen da: «Bai Euskerari» irakurtzen zan lekuan, batzuen batzuk «Bai Kakari» idatzi omen dute. Kezkarria! Lotsagarria! Zer gertatu da or? Noren edo zeren aurka ote dijozen euskerarentzako birao berriok? Benetan kezkarri da iñolaz ere.

Euskera maitagarri egin bearra daukagu beste ezer baiño beiñago. Gorrotoa ereiñez, edo gure gauzak nazkarri egiñez, ez goaz iñora. Jon Oñatibia bezalako gizonak, maitasunaren ereile alaiak, bearrezkoak ditugu. Olako gizonak sortu dituan iturririk ez dedilla agortu.

Oiartzun, galdu dugun gizonaren erria, dut gogoan. Euskerarentzat, Euskalerrarentzat gizon argiak sortu dituan erria eta erriko seme argiak maitatzen

eta goersten dakiana. Igandean izan genduan orixe ikusteko aukera. Eleizatik urbil, an, Mendiburu aitari eraikitako oroitarria. An, Manuel Lekuona'ren Zumardia, an Pikabearen kalea. Oraingo aldian eman dizkio Oiartzun'ek, nere ustez, semerik geien Euskalerrinari. Geienak apaiz artekoak badira ere, ba-dira laikoak ere. Orra Oñatibia jauna, eredu.

Zorioneko erria, olako semeak eman dituana. Eta zori obekoa aurrerantzean berdin ematen ba'daki, iturri ori agortzen ez ba'du. Bertsolariak esandakoa gertatuko al da: «Jaioko dira berriak». Bai, jaioko al dira! Ori izan da nere otoitza, euskera maitagarri egiten jakin duan Jon Oñatibia zanaren illeta-mezan.

AITA LON ARTEAGA ZANAREN OROIGARRI*

Aita Jon ARTEAGA zanari azken-agur samiña egin zaio Markifia'n joan dan urtarrillaren 24'an. Geienak, gertatu zana ezin siñisturik zeuden. Artean beti sendo ta osasuntsu ezagutu zutena, nola zeukaten orain, goizetik gauera, gorpu eta zerraldo? Aizkorakada gogorra izan bear alako aritz-ondo sendoa lurean zelai jarri zuana. Bai, burutik beerako batek, buruko tronbosis batek jota, ogeta lau ordu baiño leen bizien artetik eraman digu.

Illeta gogoangarria egin zaiona: aldare-aurrean, 40 mezemaille; eliza zabala, koka ala betean, senidez eta adiskidez; Iturreta auzokoak, batik bat, ez zuten aaztutzeko, ainbat urtetan, illaren meza-sermoia entzun dutenak. Ez zuten aaztutzeko, ezta, urteak zear, euskal-irakasle izan duten Markiñarrek ere. Markiña'ko «Kilkirrak» eta abarrek.

Uleta-mezan, erdiko mezemaillearen aotik entzundako berri batzu xeeago adie-razi ta eman nai ditut emen. Nor genduan Aita Jon Arteaga? Mixiolari ta euskalzale aurkeztu zigun izlariak. Mañari'ko seme au, 1917'an jaioa, Mañariarra jaiotez (baiña nik esango nuke, Arratiarra, Dima'koa geiago odolez, aita ta ama, biak Obatarrak izan zitualako); karmeldar sartuta, mixiolari joan zan, India'ra, oso gazterik, emeretzi urte zituala, gure arteko gerra zitala sortu aurretxoan. India'ko mixioetan egin amabi urte, eta sei bat urte aberrian igarorik, berriz ere mixiolari joan zan beste aldeko Indietara, Peru'ko lurraldeetara, Arequipa eta Chocope aldera, emen ere beste amabi urte egiteko.

Mixiolari ta euskalzale izan dugu, mixiollartza euskera lantzeaz konpondu eziñik ez dagoala erakusten digula. Ez, ez dute biek konpondu eziñik, ez. India'ra joan zanean, ez zuan bere erria ukatu ez bere izkuntza gaitz-eritzi. Berak idatzia da, adiskide bati idazten ziola: «**Euskalerritik urrunago, Euskalerrria ederrago eta maiteago**». Mixiolari bizi izan zan artean, bai India'n, eta bai Peru'n, irakasle ezarri zuten geien batez, baiña besteeri beren kultura lantzen lagundu zienak, ez zuan berea

zuana aaztu nai izan. Eta gure orduko giroko euskal-liburuak ez zituan eskuetatik uzten, eta ba-zekian aieri gunik eta muiñik ateraten. Aski argi erakutsiko zuan, India'tik etorreran bere basetxeari egin zion bertsozko agurrean:

Amaika semeren kabi zar beroa,
 asaben asabak maitasun-izerdiz,
 eusko-odol, atx eta aretxez jaso!
 Gorria teillatuz, zuria bekokiz;
 Urrun naz zugandik ibilli luzaro,
 aurtzaro-basetxe, altzo leun samurra.
 Jaunaren mastian agortuz gaztaro,
 zeutzat dot, biurtzez, lenengo agurra.
 Sar nadin, basetxe, zure barrenera,
 jauretxean antzo, eskuan txapela,
 jauretxean antzo, bekokia apala,
 biotz t'ezpanetan dardarka euskera.

Ez da zailla emen Lizardi'ren tankera asmatzen. Aren olerkiak eta beste orduko idazleenak sarri irakurriak eta ausnartuak zituan, noski. Sutondoko laratza ere, aspaldiko etxe-lagunaren etorrerari luze-irritzita, izketan aurkitu du maitez eta gozaro:

Sukalde illunean an dago laratza,
 sukalde maitean amesetan zintzil:
 «Agertu az noizbait, agertu az mutil;
 zeinbatez juna nok igana Indi'rantza».

Atzerrian egonak, bere erriak arturiko ondamendi ta zauriak bere begiz ikustea galerazi dio; baiña oraindik, inguruan eta bere aitamen begietan eta anaienetan, igarotako gerratearen lorratzak, ondoren gaiztoak ikusten ditu eta olerkariaren bertsozara datoz:

Leio-begietan badozu samiña;
 barre-irri gelgarriz ezin itzalirik.
 Nunbaiten badozu zauri bat gordiña,
 ezten zorrotza lez barnean josirik.

Egalari baltzak, sai ta arranoak lez,
 bildurgarri ta arro, txistuz eta orruz,
 ikusi zenduzan ortze urdin zabalez,
 sua ta erio ereintzen amorruez...

Gazterik gabe aberri gaxoa...
 Eta aretxik gabe mendi kiskalduak...
 Ta odolik gabe Euskera gozoa...
 Umezurtz iduri!... Betiko galduak?».

Ez, orixe. Betiko galduak ez, Lonen antzeko semerik Euskalerrriak emango duan artean. Eta ain zuzen, olako semeak ateratera joko dute Mañari'ko seme onen lan eta alegin askok, 1948'tik 1954'ra Euskalerrrian, batez ere Zomotza'ko Ikastetxean bizi dan bitartean. Eta nork daki, norbaitzuk gure praillea, lan orretan zintzoegi zebillela-ta. Ameriketa'rako bideak ez ote zizkioten arrerazi?.

Arteaga onen izena, laster asi zan gure aldizkarietan agertzen. Ez da, egia esan, idazle ugaria. Asko idazteari baiño geiago ondo ta mamitsu idazteari begiratzen dio. Olerkiak ere biotzak agintzen dionean aterako ditu. Bein bere izenez, eta bein «Artadi» ez-izenez agertuko dira bere lanak «Karmengo Amaren Egutegia»n, **Karmel, Euzko-Gogoa, Oleriti** aldizkarietan. Azkenengo urteotan **Agur'en**, eta berriz **Karmel'en. Dantzari** aldizkarian ere bai bat edo beste.

Peru'tik zala, mezarako bertsoak idazten eta argitaratzen ditu, Aita Emiliano'ren eta Ibargutxi apaizaren doñuekin. On-iritzi ederra eman zion Lekuona Zarrak liburutxo oni. Arriturik onela idazten zuan: «Aita Laurentzi'ren bertsoak (Laurentzi izena artu bai-zuen Karmeldarren soiñekoa artu zuanean), oso errikoiak dira: adierrezak, eta biribillak, ritmikoak. Teologi-muiña ere oparo dariote... Eta nun eratuko eta Arequipa'n, an. Peru'n... Bejoandaiola A. Laurentzi'ren aldarte ederrari».

Peru'tik etorrira, Aita Lon'en lana Zornotza'n izan zan berriro; leen, 1948'tik aurrera egin zituan an urte gutxi batzuk, angò karmeldarren ikastetxean. Orain, bertako nagusi egiten dute iru urterako.

Azkenengo urteak Markiña'n eman ditu: emen Iturreta'ko auzokoen animararduradun, prailletzeko liburutegizain, eta auzoko talde batzuen euskal-irakasle. Irakasle ixil baizen langille.

Emen ekin zion ere albistari-talde bat sortzen. **ZER** aldizkarian ezaguna egin zan Markiña'ko «Kilkirrak» izeneko sailla. Aita Lon'ek zuzendua. Sail atsegifia, polita, errietako albistarietzat eredu jartzekoa. Baiña noizik bein berak egiten zituan osoan artikulua batzuk, gure gazetarientzat eredutzat ipintzekoak, auek ere. Auetan, ederrenak eta osoenak, Markiña'ko Ansola txistulari ospetsuen berri emateko idatzi zituanak, **AGUR'en** asi, «Principe de Viana»n jarraitu eta **KARMEL'en** osotu zituanak.

Aita, Lon'ek, egille ba'zan ere, eragille izateko gaitasun geiago zeukala esan genezake. Peru'n, Chocope'ko Instituto baten zuzendari egin zuten eta inguru guztian gorengo maillan jarri zuan, bai ikaste-kontuan eta bai kirol-kontuan.

Besteen lan askoren eragille ta laguntzaille ere izan dugu. Aita Onaindia'ren «**Milla Olerki Eder**» liburua ospetsu egin zan orain dala ogeta bost urte. Gutxi dakite, bear ba'da, zenbat zor dion liburu onek galdu berri dugun Aita onen laguntzari. Aita Onaindia'k, ala ere, aitortua du bere zorra: «Nik esker ona zor dausat, liburu au osotzekoan iñok baiño geiago bai-daust lagundu». Aitor onek, itzek dioten baiño geitxoago esan nai du. Aita onen laguntza izan zuan Kirikiño'ren lanak argitaratzeak ere.

Iñok aitorturik egin ez ba'dio ere, Kerexeta jaunaren Euskal-Bibliak Testamentu Berriko azpiko argibideak, eta bai Testamentu Zarreko liburu askorenak ere, Aita Arteaga'k idatziak edo euskeratuak ditu. Oraintsu, Bizkai'ko apaiz-talde batek agintutako liburu bat euskeratu du. Eta ez dezagun aipatu gabe utzi Aita berak Prai

Bartolo, Markiña'ko idazle zaarraren liburuak aztertuz egin duan lan ikaragarria: aren lau tomoak oraingo ortografian jarri ta argitaratzeko prestatu, eta aren aditz-forma batzuk azertu.

Aita Lon Arteaga'k, azkenengo gaitzak jo duanean, bere lanetan zoli ziarduan, eta bere lan-maia, lan-paperez betea, bere lanari ekiten jabea noiz agertuko zai geldituda. Eta au negargarria, ez zaio agertuko.

Goian bego langille fiña, gutxi bezalako euskalzale beroa ta euskal-izateaz kezkatua, eta gure kulturaren eragille ixil eta zintzoa. Oraingoan, bai, oraingoan, gerta bekio arako, India'tik etxerakoan, berak kantatu zuana:

Goiko Jauna, bizitz-arrasbera batez
sar nadin, atadi izartsu zear,
zure Jauregian, gaurko arratsaldez
basetxean antzo, maitasunez dardar!

IRAKURLEARI*

(Barrensoरो aurkeztuz)

Urte bi joan dira: 1982ko abendu illaren ogeta seian euskaltzale eta euskal-arloetako langille bik alde egin euskuen bizien artetik: Elbira Zipitria andrea eta Tomas Agirre jauna, Barrensoरो ezizenez ezagunagoa genduana, ziran.

Zipitriaren izena zabal eta durunduka ibilli da eta alan dabil oindio. «Barrensoरो» genduan orrenik aitamenik be ezta. Zergaitik gizon au, euskal-idazlerik andienetako au, orren bazterturik, orren aizturik, ainbesteko ixilpean? Esker gaiztoz? Ezagutu ezaz, ez jakiñez? Gure ustez, azkenengo pekatua izan da gurea, ez-jakiñezkoa: gizon au eztoгу ezagutzen, eztoгу ezagutzen idazle onen lana. Ez-jakiñezko pekatua da, baiña ez orraitio, parkagarriagoa, dana dakigulakoan ain arro gabiltzen egunotan.

Orain dela berrogeta amalau bat urte agertu zan Barrensoरो plazara, euskera lantzen, bai itz-lauz eta bai bertsoz. Arlo asko jorratu ditu: gazetalari, kritikalaria, olerkari, euskal-irakasle eta eleberrigille agertuko jaku. Luzaro barik, euskal-idazleen artean gorengo maillak joko ditu: 1931n Tolosan ospatutako olerki-jaietan olerkari andien artean agertuko da, eta Kirikiño Saria, gazetalarietzat jarritako sari ori berak eroango dau. Bilbon dau lan-lekua eta *Euzkadi* egunerokoan Barrensoरो izenpeko idazlanak sarritxotan datoz, sakon, zorrotz eta apain idatzita. Orrez gaiñera, liburugintzan be ekin deutso. Lenegokoa 1933n atera dau, eta *Uztaro* 1937n, orduko gerrate zitalaren egunik baltzenetan argitara emona. Opari eder mardula eskintzen eutsan Barrensoरोk orduan indartsu etorren euskal pizkundeari. Baiña ia alperrik. Zeinbat ale jausi ete ziran arerio amorratuen eskuetan eta surtan erreta gelditu? Zeinbateg euki ete eben egun larri areitan liburu ori irakurteko zoriona?

* In: T. Agirre, *Gazigozoak*, Bilbao ^1984, III-X. GEU izenpean. Argialetxea GEU zelako, L. Akesolok ere izen ori erabili dau, eta testuak berak «guk»-a diardualako.

Idazleak Bilbo itxi eta erbestera bidea artu bear izan dau. Erbestealdi luzea, ia bere bizi guztikoa, azkenengo urteetaraiñokoa. Sevilla aldera jo dau. Baiña *Uztaro* nobelarekin egiñiko amesak ez jakoz alan be joan. Eta 1950n, orra non emoten deuskun eleberri ori berori bigarrenez. Aldeketatxo txiki bi egin deutsoz: *Euzkadi* izena, orduan ain madarikatua, kendu 74eta 177garren orridaldeetan, orren ordez *gure erri etagure* ipinteko, eta bigarren orrialdean azpi-titulu au ezarri: «*Gure erriaren bizierari buruz, edesti jakingarria*».

Amalau urteko bitartea 1937tik 1950ra. Amalau urteko ixilaldia euskal-literaturan; eta bitarte orretan Barrensororen *Uztaro* eleberria, zubi egiten dauala. Berrensororenak izan dira aurreko aldi gure literaturak entzunazo dituen azkenengo oiar-tzunak, eta andik amalau urtera egunsenti barria susmetan danean, Barrensororen *Uztaro* dator, bazterrak iratzartu eta egun barriak iragarten.

Ez ete zan, ba, guzti au ondo gogoan artu eta esker orrez gogoratzekoa? Alan be, ez jako errezildar andi oni zor jakon omenik ez autormenik egiñen. Ona gure literaturaren aztertzaile batek esan dauan guztia: Barrensororen apaiza dala (guzur birribilla), eta baserri-usaiñeko nobela baten egillea dala, gure arteko beste idazle askok egingako pekatuduna, ain zuzen.

Egia esan, Auñamendi argitaletxeak eta Santi Onaindiak, eurok euskal-literaturaz idatziriko liburuetan Zaitetik *Eusko Gogoan* idatzia leku emon deutse; baiña Amerika urrunetik etorritako autormen onek, Euskalerriratzean, bere indarra eta balioa galdu ete dauan dirudi. Nok egin deutse jaramonik? Azken aldi onetan Barrensororen andi esle bi agertu dira, bakotxa bere aldetik, laster ikusiko dogun lez. Baiña gure idazle au il zanean, iñork ez eban gomutaratu ilbarriaren idazle alderdia. Illeta-mezan, an dira Lendakari jauna ta beronen ingurukoak. Xabier Agirre, Eusko-Jaurlaritzako Osasunketa sailburua, seme dauanez, gauza egoki ta zuzena da. Baiña Euskalerrriak galdu barri dauan idazle andiaren aitamenik be ez. Ilbarri danaren idazle alderdia ixilpean gelditu da. Esker txarra izan, ez-jakiña izan, edozelan be, ulergatxa eta lotsagarria.

Eta *Uztaro* bere azkenengo euskal-lana izan ete da? Orixe sinisgatx egiten jaku. Euskerearentzat zapalketa egunak zireala eleberri ori bigarren aldiz atera ebanean, ez ete etorren bera euskal-literaturari bideak zabaldu gurez, euskal-giroa biztu eta berotu bearrez? Eta bera, ain zuzen, orduantxe ixildu betiko? Ez zan ixilik egotekoa. Berak autortua da: txikitarik sartu ei jakon olerkigintzarako arra edo garra, eta arrezkero beti bizi izan da bere barruko irakiñari urtenbidea emoten. Alan difio berak 1968ko Sevillan atera eban erderazko olerki-liburu baten. Auxe be ez dogu uste gure artean zabaldu danik. Bertan emon deutse Sevillarra berak euskeraz egingako lanen barri. Antza, euskaldunak gorrarena edo ezikusiarrena egin eutsen ezkerro, andaluziarrai esan bear. Andik Afrikara, Canarias eta Portugalera tresnasaltzaille ibili dan aldi guztian, idazlangintza ez ei dau iñoz itxi. Bere bakarrean sartua, poesigintzari ekin ei deutso, batez be. Eta idatzi ala, kutxara sartu izan ei ditu. Eta orain batzuk argitara emoten baditu, beste asko ei daukoz kutxan gordeta. Zer dau kantagai? Ez da au dana esateko ordua, baiña ona gai batzuk: Algortako itxasoa, Errezilgo mendiak, Askatasun-kantak Euskalerrriaren omenez, Existenzialisten erostak, Existenzialisten erostai erantzuna, eta abar. Liburu au Sevillako 1968ko *Feria del Libro-n* eskiñi deutso.

Eta orain gure itauna: bere kutxan ainbeste idazlan gordeta eukazan onek, ez ete eukan an euskerazkorik? Nekez siñistuko geunke ezetza. Edo ta, lengo lanai euskaldunok emoniko erantzun otz eta motela ikusteak gogoia kendu ete eutson, atzera eragin, egoak moztu? Izan leitekena da. Zetako oiuka ekin gorrarena egiten ebenai, zetako idatzi irakurten ez ebenentzat? Leitekena da, baiña ez dogu siñisten.

Zorionez, bat edo beste asi jakuz begiak zabaltzen eta gure idazle oni zor jakon autormena egiten: Gotzon Garate eta Luis Baraiazarra.

Iñork ez dau esango Gotzon Garate eleberri-kontuan oso aitua ez danik; eleberri idazlea bera be, baiña gaiñera eleberrien aztertzaile eta kritikalaria zorrotza. Lenengo ta bein, Gotzonek autormen au egin dau: Euskalerrian gitxik ezagutzen dabela idazle zu. Ez dau au arritzekoa aurkitzen; etxeko ona ikusi ez eta kanporari ederrago erizteko erreztasuna andia ei daukagu euskaldunok. Gero lanaren bikaitasunaren dagokionez, *Uztaro* euskeraz idatzi da nobelarik onenetakotzat dauka, Txomin Agirrerren *Garoa* nobelaren aurrean lotsatu barik agertzekoa, euskeraren aldetik gaur bere imitagarria, itzetan aberatsa, joskeran oso jator eta dotorea. Konparaketen ugaritasunean eta izadia eta bazterrak iruditaratzean aparteko maisutasuna aurkitzen deutso. Iñork ez ei dau euskeraz izadia «horren apain, horren ikusgarri eta indartsu azaldu». Benetako olerkariaren sena agiri ei dau orretan Barrensorok. Olerkari-sena eta eskola ona, gaiñera. Comillas-en ikastaldi luzetxoak egiña da Barrensorok. An ikasi ei zituen latin, greko, erretorika eta filosofia. Aldi aretan ez zan euskal-eskola txarra be Comillaskoa. Orixez gero, an eskolatuak izan dira ainbat euskal-idazle bikain: Oiarzabal, Ibiñagabeitia, Aitzol, Etxaniz eta abar. Andik urten eban Barrensorok be, eta bertatik asi zan idazlangintzan. Berak Sevillako olerki-liburuaren itzaurrean diñoanez, «fui traductor de latín, griego y vasco; profesor de lenguas, bibliotecario, periodista y escritor» Gotzonek esana eta Barrensororen autormena onetan biak bat datoz (Ikusi DEIA, 28-X-82, Gotzonen artikulua: *Tomas Agirre «Barrensorok»*).

Urte bi geroagokoa da, gure idazle au ilda gerokoa, Luis Baraiazarrak KARMEL aldizkarian (1983-1), argitaratutako idazlana, Barrensororen «Uztaro» aztertuz. Markiñako Karmeldegian bizi dan praille idazle au be arriturik dago, ain gitxik ezagutzen daben idazle onen lana irakurrita. Berak be, antza, liburutegiko apalen baten autsez betetan aitzurik euki dau irakurri barri dauan liburu ederra. Bera berandutxo, ez orduz ei dator idazle bikaiñaren «ondretara». Eta Gotzon Garatek aurkitu deutzazan bikaitasun guztiak aurkitzen deutsoz: euskeraren ederra, izadia, eguraldia eta bazterrak irudierazoteko maisutasuna ta indarra (ia larregizkoa), eta nobelen teknikaren aldetik, «back-flash» erabilteko trebetasuna. Garatek orretan gure nobelagillea euskal idazleen artean lenengo eta aurrelariat dauka.

Oraindik salgei dagoz *Uztaro* gitxi batzuk liburu-dendetan, eta goreslerik eta irakurlerik geiago sortuko al jakoz, Gotzon Garate-ren eta Baraiazarraren autormenak irakurrita. Agortuago dago «Gazi-Gozoak», Barrensorok 1933n euskaldunoi opatu eta eskiñi euskun oparia, orain barriro argitara datorrena. Orain bere alaba Begoñaren eskutik eta GEU argitaletxearen bitartez jatorra.

Zer dan agirian dago: Barrensorok bere kutxatik atera nai izan dituen idazlan aukeratuen sortatxoak. Batzuk berak asmau eta idatziak, beste batzuk, atzerritako izkuntzetatik euskeratuak. Emen oker-aituen bat batzuen burutik kendu bearra da-goalakoa gagoz. Tomas Agirrek lendik argitaratuta eukazan lanen bilduma, sorta

dala esan eben. Baiña ez dogu uste egia danik. Lendik idatziak, bai, baiña ez dira lendik argitaratuak, bat izan ezik, *Kirikiño Saria* izabazi eban artikulua. Beste guztiak bere kutxatik atera ditu zuzen zuzenean, Sevillan egoala eukanaren antzeko kutxatik.

Barrensorok sarritxotan idatzi eban «Euzkadi» egunerokoan, liburu au atera aurretik eta ostean be bai: lan, gizarte-gaiez, politika-gaiez, euskal-literaturazko gaiez egiñiko lan mamitsu, dotore idatziak. Ez legoke txarto, Barrensororen gogoia eta aldi aretako gogo-giroa jakiteko edo ari antz emoteko, lan arek, beste idazle batzuenakaz egin izan dan lez, sorta bat eginda argitaratzea; baiña Barrensorok *Gazi-Gozoak* ateratzean, ez eban olango asmorik erabilli. Kirikiño sarikoa izan ezik, beste lanak bere barruko ederzaletasuna ustuteko egin eta kutxan gordeak zituen. Liburu oni berak ezarritako itzaurreak be ez deusku besterik erakusten. Adiskideen eragitez, beretzako eukazan lan batzuk emon nai izan ditu, berak maite eban euskerarik jator, argi, errez eta apaiñenean emon be, euskerea edozein gai eder erabilli eta adierazoteko gai egiten laguntzearen.

Ez dakigu nondik nork ezarri nai izan deus Barrensororen idazlanei baserri usaiñik. Onen idazkerak ez dau baserritarkeririk ez txokokeririk. Iñongo usaiñik izatekotan, idazle klasikoena eta atzerriko literaturarik txukunenarena dario. Gure errietako giroan murgiltzen gaituela? Egia; baiña gizon landuaren begiaz eta ondo eskolatuaren idazkeraz. Eta gero badaki, liburu onetan erakutsi dauan lez, kanpo-errietako literaturaren baratzetan sartzen eta andik landararik txukunenak artu eta gure euskera zarrean mentetan eta txertatzen. Askok ete dauke eskubiderik iñori txokokeririk edo baserri-usaiñik salatzeo? Esaterako, nobelatxo baten aria Alemanian jarri, eta an bide-lagun bat trenean alboko bidelagunari zigarroa biztuteko su eske asi eta lagun orren txiskeroaren ederrez tutuluturik ia non erosi dauan itaunka aurkeztea, ori baserritarkeri eta txokokerietatik alde ibiltea ete da? Askotan baserritarkerietatik iges egin bearrez dabillanak berak erakutsi lei baserri-usaiñik barreagarriena.

Beste alde batetik be, Barrensororen barruan iñongo baserritarkerientzat leku gitxi dagola esango genduke. Zaitegi zanak ez eban abasberuan eta geiagoko barik esan bein gure gipuzkoar au jaiotzez errezildar genduala, eta biotzez bilbotar. Ain zuzen, giputza dala, bizkaiera maite izan eta lantzean erakutsi dau ori. Bilbon bizi dala, Bilboko egunkari baten idazten dau eta Bilboko euskaldun asko ditu adiskide. Zergaitik euron euskera iguin izan eta baztertu bear? Barrensororen jokabidea ez da «nik neure ta nik neureaka» edo «nirea onenaka» astea. Olan, *Euzkadi* egunkarian bein gipuzkeran eta bein bizkaieraz idazten dau, eta olantxe diardu «Gazi-Gozoak» liburu onetan, bizkaieraz eta gipuzkeraz, bata bestearen aberasgarri egiten aleginduz. Tokian tokiko izaten, edozein lekukoai lotsa ona izaten badakiela nonai erakutsi dau Barrensorok, Sevillan erakutsi eban lez, angoai bere erderazko olerki-liburua opatu eutsenean.

«Gazi-Gozoak» agertu zanean euskalzaleak ez ziran gitxi poztu. Gure literaturaren onerako eta aberasgarri, idazle on bat, idazlan obe ta andiagok sortzeko gai zanik agertu zalako ustea biztu zan askoren gogoetan, eta mami sakonagoko eta amasa luzeagoko nobela bat idaztera bultzatzen eben. Uste ori ez zan ustel gelditu. *Uztaro* birritan etorri zan bere egilleagan jarritako uste ta itxaropenak oparo betetan, 1937n eta 1950n. Erantzun ederra Barrensorok itxaropen orrei emondakoa. Euskal-

dunok Barrensororen lanari erantzun oberik emon ez badeutsagu, gurea da errua, ez Barrensororena.

Gaur, idazle jator onek Sevillan beteriko kutxatik euskerazko opari barririk agertzen ez jakun bitartean, ez al gara esker txarreko agertuko oraingo opari onen aldera. *Gazi-Gozoak* barrero argitara datorrenean, autormen ohea egingo al deutsagu opari barri oni eta esker ohea erakutsi egillearen eskuari.

ZIPITRIA, ANDRE-MARIZALE*

Zipitria andereñoa nik ez nuen bein baizik ikusi. Eta ori, bere biziko azken aldian. Nemesio Etxaniz apaizak eraman nindun aren etxera. «Goazen—esan zidan—ikustalditxoa egin bear diogu gure Zipitria zartxoari».

Eta ez dut damu izan ara joana. Eskupeko ederra neramala atera nintzan aren etxetik: Amaika orri eder, dótoze irarrik, Gipuzkoa'ko beste ainbeste Andre Mari'ren goramenezko kantaekin, beren doiñu ta guzti.

Nik, kanta aietatik, Itziar'ko Amarena baizik ez nuen ezagutzen, Iruña'ko *Zeruko Argia*'k 1958'an argitaratu zuelako. Ez nuen besteen berririk. Andik geroxeago entzungo nuen Arantzazu'ko Amarena Arantzazu'ko elizan bertan. Artean ez nuen ezagutzen Itziar'ko ori baizik.

Eta orain mordoa nuen eskuetan: amaika Andre Mari-kanta, eta bakoitzetik mordoa, gaiñera. Bi eratan argitaratuak daude: tamaiñu anditan, alde batean margo askotako lauki baten barruan, Andre Maria'ren imdia, kantuaren aapaldi guztiak, eta doiñu soilla dakarrela, eta bestean, doiñua organu-laguntzarekin; eta tamaiñu txikitan, postal-tankeran, kantu soilla eta bertsoekin. Neretzat gauza berria, ikusi gabea, zan dana.

Nbndik zituen Elbire'k kanta-orri eder aiek? Ni, berak irarriak zituelakoan atera nintzan andik. Edonola ere, bera zuten gordetzaille eta zabaltzaille. Eta oparo, esku zabalez zabaltzen eta banatzen zituen, nerekin erakutsi zuen bezala. Orra zergatik, andre andi onen omenaldirako nere aletxoa ekarteko, kanta auen berri ematea gogora etorri zaidan. Berak bere zerutik begi onez ikusiko duelakoan nago.

Kantu auek gazteleraz *Gozos* eta katalanaz *Goigs* esaten dietenakoak ditugu. Katalanek olako literatur ugaria daukate. An edozein erritako Andre Mari'k naiz santuk bere *Goigs* diralako bertsoaldia dauka. Pilla izugarria ikusi nuen bein Mallorca'ko biblioteka batean.

* In: *Zipitria'tar Elbire «Andereñoa»*. Omenaldia, Tolosa 1986, 115-128

Euskalerrian badegu olakorik edo antzekorik, baiña ez ain ugari. Arantzazu'ko Amak eta Itziar'koak utzi dute, nik uste, aztamarik andiena gure literatura urritxoan. Baiña ele zaarren edo erromantzeen tankera andiagoa dute, *Gozos* edo *Poz-jarioak* diralakoenak baiño.

Euskaldunok, emen ikusiko dugunez, kanta oiei izena ematean ere ez gera bat etorri. Gure sorta onetakoei, geien batez, *Goramenak* jarri diete izena. Gutxi batzuei, *Poz-jarioak* edo *Pozkarioak* ere bai. Bat daukagu, Koru'ko Amarena, bi argitaraldi izan dituena, euskera-erderazkoa eta euskera utsezkoa. Euskera-erderazkoak *Gozos* dio erderaz eta *Ontenak* euskeraz; euskera utsezkoak, *Goramenak*, beste geienak bezala.

Amaika kantaotan, bat bakarra daukagu nolabait zaarra, zaarra doiñuz eta zaarra itzez, noiz-noizkoa danik argitzen ez ba'zaigu ere. Ondarrabi'ko Amarena da. Beste guztiak berriak dira, gure egunotakoak, gure egunotako idazle eta musikarieren lana, 1954'tik ona egiñak, norbaiten edo talderen baten eskariz, dirudianez. Urte ori, 1954'koa, Andre Mari Urtea izan zala gogoan izan dezagun. Orduan piztu zan, nonbait, olako kanta berriak ateratzeko gogoia.

Gipuzkoa'k Andre Mari'rik asko du, baiña Zipitriak emandako sorta onetakoak, urtez urte argitara etorri ziran bezala izendatuta, onako auek baizik ez: Arantzazu'koa, Koru'koa, Izaskun'goa, Irun'goa, Arrasate'koa, Itziar'koa, Ondarrabi'koa, Arritokieta'koa, Olatz'koa, Dorleta'koa eta Urrategi'koa. Banan banan emango dugu bakoi-tzaren berri.

1) Arantzazu'ko Amari Poz-Jarioak

Arantzazu'koak orrelaxe du titulua. Eresia Aita Donosti'rena dala dio, eta olerkia, Nemesio Etxaniz'ena. Eta 1954'an argitaratua da. Arantzazu'ko Andre Mari ez da Gipuzkoa'n antziñakoena. Beste bat baiño geiago dago zaarragorik; baiña Arantzazu'koak gaiña artu die gipuzkoarren biotzetan, eta Arantzazu'koa artu du Gipuzkoa'k Zaindari.

Artarako indarrak andiena egin izan zuen arrazoia: Arantzazu'ko Amaren inguruan egin zutela gipuzkoarrek beren arteko pakea, aren Irudiaren agertzeak ekarri ziola azkena beiñolako elkarren artean elkartu eziñari. Kanta onen itzek —Etxaniz apaizarenak— guzti ori gogoratuko dute:

*Elizak aukera digu
Gipuzkoa'ko Zaindari:
Argatik gaude kantari
Arantzazu'ko Amari.*

*Arantz-arteko larrosa
degu zeruko gidari.
Argatik gaude kantari
Arantzazu'ko Amari.*

*Gure griñen arantzetan
miñez gaituzu, Maria;
baiña zure elorri orrek
eman du lore zuria.*

*Euskalerrria gorrotuz
zebillen oso galdua,
anai-arteko burrukaz
odoletan kutsatua.*

*Baiña zuk eskein zenion
pakea gure erriari.
Argatik gaude kantari
Arantzazu''ko Amari.*

Olaxe, onelako kantuetan oi danez, aapaldi bakoitzaren ondoren azkenengo lelo berdiña. Gipuzkoa'ko seme-alaben arteko pakea egiñaz gaiñera, gorrotoak aldenduaz gaiñera, beste onik ere gertatu da Arantzazu'ko Amaren inguruan: sorgiñen siñis-keriari indarrak kentzea, eta fedea argitzea.

*Sorgiñen siñiskeriak
oso ziren kaltegarri;
baña Arantzazu'ko Ama
agertu zan sendogarri
indar berria emanaz
gure fede zintzoari...*

Mendez mende, gizaldiz gizaldi Arantzazu'ra erromes joan diranean artean, ezin ixildu gero Gipuzkoa'k bigarren Zaindari izango duen Iñazio andia. Ezin ixildu mendi gain artatik Frantziskotarrek egin izan duten lan mesedegarria ere.

*Loiola'ko seme jator
Iñazio doatsua,
Zuregana etorri zan
Jaunagana biurtua,
ta gau osoa eskeñi
zion ortxe zeruari...*

*San Frantzisko'ren semeak
gordetzen zaituzte, Ama;
Zure bidez erakutsiz
nolajaso bizi-zama.
Benedikta or entzuten
egon oi gera ameslari...*

Eta olerkariaren oroimena Baltzategi'ko Errodrigo'k entzundako kanpai-otsa gogoratzera dioja egan gaur ere, eta beti-kanpai-dei ori entzungo ba'litz nai luke:

*Arantzazu'ko kanpaia,
zaude beti dulundari,
zure bidez gure Ama
billa zagun dizdizari;*

*ta Ari esker, Jesus ona
dezagun betiko sari.
Argatik gaude kantari
Arantzazu'ko Amari.*

2) Koruko Andre Maria'ren Goramenak

Ola dio euskera utsezko argitaraldikoak, lenbizikoak *Omenak* zion lekuan. Eus-ker-a-erderazkoa 1954'koa da; Euskera utsezkoa, 1967'koa. Doiñua Urteaga'tar Joan musikariarenadu, etaitzak, Lekuona'tarManuel'enak. Onek *Poz-jarioen* tankerako asiera du, eta bai aapaldi bakoitzaren bukaera ere:

*Ama zaitugun ezkeroztik,
zaitu gaitzatzu zerutik.
Donostiarrok Ama zaitugu,
zeruko Ama laztana.
Bear aunditan arkitzen gera;
eskean gatoz Zugana.
Zeruko Aitak zuretzat ume
egin gaitun ezkeroztik,
zaitu gaitzazu zerutik.*

Andre Mari onen nondik norakoa ere, labur bederen, gogoratzen du kantu onek:

*Itxasoetan ibilli eta
gero Koruan kokatu...
eta geroztik gure aionak
antxen zinduzten maitatu.
Zeruko Aitak gure Uso txuri
egin zaitun ezkeroztik,
zaitu gaitzatzu zerutik.*

Azkenez, Koru'ko Amari zer eskatu? Zer eskatuko zaio egokiagorik, zeruko koruan kantari gertatzea baiño?

*Zure Koru'ko kantari alai
izan nai degu guk, Ama,
gero zeruko beste koruan
sartu gaitzatzun Zugana.
Zeruko Aitak ere orixe
opa digun ezkeroztik,
zaitu gaitzatzu zerutik.*

3) Izaskun'go Andre Maria'ren Goramenak

Andre Mari au Tolosa'ko Zaindaria da. Eresia, doiñua Mons. Mayora zanarena du, eta olerkia Luis Jauregi apaizarena. Urtea: 1957.

Irudi au ere artzai bati agertutakotzat dago eta bere gaintxotik Tolosa eta ingurua bere egalpean bezala dauka. Eta Argana dijoa tolosarren eskaria:

*Izaskun'dik irriparrez
guganontz begira zaude;
Zeruko Amatxo maite,
gutzaz errukitu zaite.*

*Uzturre'ko egalean
udaberri goi batean
artzaitxo garbi bateri
aspaldi zīñan ageri.
Geroztikan ortxe zaude
Tolosar biotzen jabe,
Zeruko Amatxo maite,
gutzaz errukitu zaitte.*

*Len, sutege ta oletan,
soro, mendi, sukaldetan
otoitz biurtua lana
igotzen zan Zuregana
ta zure atsegin-poza
izan zan beti Tolosa;
Zeruko Amatxo maite,
gutzaz errukitu zaitte.*

Tolosa berriak ez du ukatu nai izan bere Ama, eta bere Amaren Irudia koroaturik ikusi arte ez du onik izan:

*Tolosa berriak ere
zarrak ainbat zaitu maite;
argatik zizun buruan
«egun aundi» ospatsuan
urrezko koroia jarri
maitasun ezagungarri.
Zeruko Amatxo maite,
gutzaz errukitu zaitte.*

4) Junkal'eko Andre Maria'ren Goramenak

Aita Lazkano'ren Eresia darama eta Fernando Artola'ren itzak: 1958'an argitaraua. Irun'go Zaindaria omen da Junkal'eko Andre Mari au, baiña kantuak kristau guztien Ama egiten du:

*Junkal'eko Ama,
zeruko argia,
kristau guztiak Ama
zaitugu, Maria.*

Irudi au ere agertutakotzat dago. Kristau guztien Ama dana bein irundarrei laguntzeko an agertu omen zan; eta nola agertu ere:

*Goiz sentia asitzean
argia zan lertu,
odei beltzak igeska,
eguna atertu,
Beraun-pean zīñaden
Urantzu'n agertu,
Irun'go erriari
laguntzeko gertu.*

*Zure agerkundeak,
Andre Done Mari,
zorion eman zion
Irun maiteari,
zorion eta poza,
ta zenbat mirari!
Eskerrak orregatik
damaizugu Zuri.*

Askotan Santiago'rako erromesentzat «kai eta kabi» izan da Andre Mari onen elizaurrea, eta irundarrek beren Ama beltzeran au Euskalerriko zaarrenetakotzat eta ederrentzat daukate.

*Aldare orretan zaude,
Ama beltxerena,
pozik kantatzen dugu
zure goramena.
Birjin euskaldunetan
Zu zera zarrena,
zarrena ezik ere
baitare ederrena.*

Baiña kristau guztion Ama dugun ezkeru, iñork ere ez du ortik bekaitzik artzeko eskubiderik.

5) Arrate'ko Ama

Eibar'ko Zaindariaren onek Norberto Almandoz du eresiaren egille, eta bertsoena, Manuel Lekuona apaiza. Arrate'ko Amak badu leendik kantarik ugari, baiña oraingoan berriak nai izan dira. Onela dijoa kantua eibartarren aotik beren Zaindariagana:

*Sortzez garbia zera-ta,
ementxe gatoz kantari,
aintza eta aintzaka Zuri,
Arrate'ko Andra Mari.*

Artzaitxo bati agertua omen da Arrate'ko Ama ere:

*Artzaitxo bati ageri
mendiko lora polita,
Erregin bat lez jarrita,
begientzat zoragarri
Arrate'ko Andra Mari.*

Baiña artzaiek bakarrik, ez; nekazariak eta olagizonak ere Bera izango dute Ama:

*Artzaiak mendi goietan,
nekazariak soloan...
ta Zuk guztiok gogoan,
Zu guztion maitalari,
Arrate'ko Andra Mari...*

*Burdin-lanaren gordiña
Eibar'ko ola zarretan!
Oletako beargiña
zure aintzaren kantari,
Arrate'ko Andra Mari.*

Abenduaren zortzian, Sortzez Garbiaren egunean ospatzen omen zan leenago Arrate'ko Amaren jai-eguna, baiña euri ta edur-arrisku gutxiagoko egunetara aldatzea lortu zuten:

*Antziñatikan Eibarrek
Anaitasun bat ezarri,
inguruetan lenengo
zure Sortze Garbiari,
Arrate'ko Andra Mari.*

*Zure «Sorrera Garbia»
neguaren biotzean;
baiña orri-erortean
Bulda batek opa guri,
Arrate'ko Andra Mari.*

Irakurlea jabetu da, noski, kanta onetan Bizkai'ko euskeraren eragiñtxoa agertu dala. Lekuona jaunak, oiartzuarra izan arren, badaki norako idazten duen.

6) Itziar'ko Andre Maria'ren Goramenak

Kanta-orri onek, Itziar'ko Amaren irudipean onela dio: «*Itziar'ko Zaindaria, itxas gizonen laguntzaillea*». Ain zuzen, aspalditik kantatu izan zaio Itziar'ko Amari latiñezko «Ave, Maris Stella», euskerara itzulita. Eta gaurko eresi onek ez du alderdi ori aztuko.

Doiñua Frantzisko Eskudero musikalari ospetsuarena du, eta olerkia Nemesio Etxaniz apaizarena. Kanta-orri au, Arrate'koa bezala, 1959'an argitaratua da, baiña leen esan dugunez, «Zeruko Argia» aldizkarian agertu zan leentxeago. Itxaso ta legorrekoen Ama ta Erregiña da Itziar'ko Ama, kantako itzek diotenez. Au ere agertua omen da, baiña ez iñongo artzaiñ mutilli, neskatilla bati baizik.

Itziar gaiñetik itxaso ta legorrekoen zaindari agertzen omen da:

*Oñak lurrean dituzu, Ama,
baiña begiak uretan;
argatik gure mariñel onak
maite zaituzte benetan,
eta Itziar'ko eliz maitea
aurrez aurre dutenetan
txapela kendu ta asten zaizkitzu
itxasotik otoitzetan.*

*Itxaso eta legorrekook
zure kofradi-barruan,
amaika ezkeintz egin zizuten
urte askoren buruan.
Ta Zuk, ordaiñez, ainbat erruki
ixuri dezu inguruan!
Argatik malko gozotan gaude
zure aldare onduan.*

*Nola, alargunak, ala umezurtzak,
naiz erromes nekatuak,
elbarri, gaixo, itxas-uretan
ilzorian arkituak,
kartzeletako errukarri ta
pekatari damutuak,
zeiñen ederki sendatzen ditun
gure Ama Itziar'kuak.*

Eta onakoa du asierako agurra, eta tartean sartzen dan errepika edo leloa:

*Euskalerriko Erregin zeran
Itziar'ko Ama maite!
Gure erriaren zotiñak entzun,
ta gutzaz erruki zaita!*

7) Guadalupe'ko Andre Maria'ren goramenak

Goramen auen eresia eta itzak ez dira gure egunotakoak, zaarrak baizik, egilearen izenik gabekoak. Guadalupe'ko Andre Mari «kristauen Ama gozoa» da, eta Ondarribi'ko Zaindaria, Itziar'koa bezala, «itxas gizonen laguntzaillea», kanta-orriak dionez. Asierako bertsoetan onela egiten zaizkio agurra eta eskaria Andre Maria'ri:

*Aingeruen Erregiña,
Zeruko Izar argia,
Kristauen Ama gozoa,
gutzaz erruki zaitia.*

Urrengo bederatzi aapaldiak asierako orren doiñu bera daukate, baiña luzeagoak, bertso geiagokoak izaki eta bi aldiz ematen dute doiñu bera.

Beste bertso guztiak ere puntu berdiñekoak dira. Lenegoko aapaldiak onela gogoratzen du Andre Maria'ren agertzea:

*Olearso'ko mendian
agertze miragarria
kristauen probetxurako
egin zenduen, Maria.
Mesede aundi orregatik
pozez dago erri guttia.
Kristauen Ama gozoa,
gutzaz erruki zaitia.*

Urrengo batek, Ondarrabia etsaiek esiturik zeukatela, nola Andre Maria'ren laguntzaz libre gelditu zan esaten digu:

*Esitua izandu zan
bein batez Ondarrabia,
Zugan zeukan konpiantza,
Guadalupe'ko Maria.
Garaiturikan etsaiak
libratu zan gure erria.
Kristauen Ama Gozoa,
Kristauen Ama gozoa,
gutzaz erruki zaitia.*

Mariñelen laguntzaille ta etsaien mende katepean geldituen askatzaille agertu izan da Hondarribiaren Zaindaria:

*Kaptiboak jartzen ba'du
Zugana fede guztia,
bereala puskatzen da
esku-oñetako burnia.
Aitortuaz Zu zerala
beraren libratzaillia,
Kristauen Ama gozoa,
gutzaz erruki zaitia.*

Beste kanta zaar bat badu Ondarrabi'ko Zaindari onek: Salbea euskerazko bertso zaarretan. Azkue'k dionez, Salbe oni *Mariñelen Salbea* esaten omen diote, eta, nere ustez erderazko *Salve Marinera* delakoari baiño egokigo datorkio izen ori. Salbea da, beintzat, eta itsas aldeko doiñua darama.

8) Arritokieta'ko Andre Maria'ren Goramenak

Eresia Garbizu'tar Tomas'ek jarri dio: itzak, Etxaniz'tar Nemesio'k. ala dio 1967'an irarritako orriak. Zumaiarren Zaindaria gorensten dute:

*Arritokieta'n du Zumaia'k
bere Zeruko Ama maitea,
gure biotz barrengo pozkarri,
pakezko leku berdingabea.*

Leku berdingabea, Zumaia gaiñean, aldatz erdian jarria, Andre Mari onena, eta aldapan gora, aldapan beera, joan ta etorri, zenbat maitale!

*Aldatz erdian jarri zinduten
gure erriko Zaindari izateko,
Urte luzetan or egon zera,
Jaunaren aurrean gure bitarteko.*

*Aldapan gora datoz nekeak,
aldapan gora gure biotz-miñak.
Zure laguntza gurekin dala,
guztiak arkitzen ditugu ariñak.*

*Aldapan beera datoz gurekin
bizi-poz eta atsegin aldiak.
Aietan Zutaz aztu ez gaitezen
lagun bezaigu, Ama, zure argiak.*

Noiztik onakoak dira asma-semeen ar-emanok, zumaiarren mendian gora eta mendian beerako ibillerok?

*Noiztik zaude or, Ama lastana,
gure eskariak jasotzen zerura?
Antziñatikan eldu bai-zaigu
zure aitapena etxe ingurura.*

*Orreaga'ko prailleak izan
ziran urtetan zure gordetzaille,
laugarren Santxo'k aiei utzirik
Zumai'ko Amaren giltza ta zerraille.*

*Baiña lendikan zeunden Zu,
gure erria zaitzen Ama, aldaretik
zumaiar denen aterpe gozo
ziñala amaikagarren gizalditik.*

Olaxe, kanta onek leena ta oraiña, antziñako giroa eta gaurko beroa, biak batera jaso eta aurkeztu dizkigu.

9) Olatz'ko Andre Maria'renak

Zumaia'tik Azpeiti'ra goaz, Olatz'ko Amaren oifietara. Emen ere Etxaniz'tar Nemesio dugu olerkari, baiña Olaizola'tar Jose ereslari. Orria, 1967'koa da. Olatz'en, Izarraitzpean da azpeitiarren Andre Mari Zaindaria. Olerkariak onela kantaerazi dio Azpeiti'ri:

*Olatz'en daukat nik bizi-poza,
Olatz'en daukat nikAma.
Argatik nere larrialditan
biotzak aruntz narاما.*

Eta bai gozo, bai txeratsu, bai errukior aurkitzen duela azpeitiarrak bere zeruko Ama:

*Irriparre gozoa
zure ezipaiñetan,
egoki tolosturak
soiñekoetan;
errukizko biotza
gure neketan
eta Jainko Semea
zure besotan!*

Irudi orren aurrean auspeztu zan, noski, ainbat aldiz Aita San Iñazio edo ta bide zaarretik bere agurra oititz berotan biali zion. Aren aldare aurrera eraman dituzte Azpeiti'ko ama geienek beren seme-alabak aurretan, aren magalpean jartzeko.

<i>Jaio ta bereala</i>	<i>Aundi eginda gero,</i>
<i>aldare ontan</i>	<i>beti gogotan</i>
<i>nere amak eskeiñi</i>	<i>izan zaitugu, Ama,</i>
<i>nindun aurretan.</i>	<i>gure miñetan.</i>

Ama orren itzalpean daude aurretikoen gorputzak azken-piztueraren zai.

Gure aurretikoen I loa lurpean,
piztuera zai dago I zure itzalean.
Gure azken ordua I eltzen danean,
artu gu ere, Ama, I zeru betean.

Bizian eta illean, Olatz'ko Ama, beti azpeitiarren Zaindari.

10) Urrategi'ko Andre Maria'ren Goramenak

Azpeiti'tik Azkoiti'ra, Etxaniz olerkariaren eta Pildain'dar Joakiñ'en eskutik. Goramen auek ere 1967'koak ditugu, edo beintzat urte orretan argitaratuak. Urrategi'ko Ama dute azkoitiarrek Zaindari.

Ormolaga mendiko
Erregin maitea,
Zu zaitu Azkoiti'ak
Zeruko Atea!

Urrategi'ko Amaren eliza an dago basamortuan sortutako zeruko ziza dirudiala Azkoiti'ko olerkariarentzat, eta Sortzez Garbiari eskiñia du Azkoiti'k, Elizak Sortze Garbia siñiskaitzat artu edo erabaki aurretik.

Sortze Garbiko Ama maitea
gorde diguzun eliza,
badirudizu basamortuan
sortutako Zeru-Ziza!
Elizak bere erabakia
eman aurretik or ziñan,
azkoitiarren fede zintzoa
agertuz zure sorreran.
Milla ta seireun urtetan gora
amazazpigarrenean,
jasoa omen zera guretzat
mendixka orren gaiñean.

Azkoiti'k bere Ama koroaturik ikusi nai izan du, eta ori ere ez du olerkariak aipatu gabe utzi.

*Ta orain zure Erregintzari
eskein diogu koroia,
urre-dizdiraz apaindurikan
zure burua ta jargoia.*

11) Dorleta'ko Andre Maria'ren Goramenak

Emen aipatzen diran Andre Marietan, Dorleta'ko au dugu legor-barrukoena, Arrate'koarekin batean. Leintz-Gatzagatarren Zaindaria. Dorleta'koa ere esaten diote. Goramen auen itzak Luis Jauregi'k idatzi zituen eta eresia Norberto Almandoz musikalariak.

Onela du asiera eta tartean-tartean kantatzeko bertsoa.

*Dorleta'ko Erregiña,
Amatxo Gaztelu'koa,
biotzen poz atsegiña,
gure Zaindari gozoa.*

Dorleta'ko irudian Ama-sembleak, Jesus eta Maria, elkarri begira izketa goxoan ari dirala ematen du, eta ori olerkariak ez du aipatu gabe utzi:

*Ama zera-ta, ortxe daukazu
Semea belaun-gaiñean,
ta izketan zaude Semetxoakin
izketa ezti ixillean.
Zuri begira dago, maiteki
Zu besarkatu naiean..
Ama, gu ere seme gaituzu,
ar gaitzatzu biotzean.*

Santiago'ra bidean, erromesen atsedeen-leku ere izan da Dorleta. Andik igaroak dira santu aundi bi: Loiola'koa eta Borja'koa.

*Santiago'ko bide zarrean
Dorleta'ko Andre Mari:
erromesen atsedeen-kabi,
otoitz-leku maitagarri.
Mesedez eta mirari aundiz
poztu oi zenitun sarri,
ta Zu goraltzen itzultzen ziran,
bidean pozez kantari.*

*Ortxe Prantzisko Borja santua,
Oñati'n bizi zanean
egona dezu Zuri begira
otoitz sutsu ta luzean.
Baita Iñazio Loiola'koa
Nabarrete'ko bidean,
sartu zan, noski, Dorleta'n eta,
poztu zan zure aurrean.*

*Geroztik, amak semetxoekin,
gazteek maite-miñetan,
gaixo, elbarri, naigabetuak,
pekatariak kezketan,
Zugana datoz uste osoaz
larritasun guztietan,
errukitsu ta miraritsua
zaitugulako Dorleta'n.*

Azken urteotan txirrindulariek ere Zaindarizat artu dute Dorleta'ko Ama. Ezta urte asko, or utzi zuen Dorleta'ko Amarentzat bere txapeldun-maillota txirrindulari ospetsu batek: Eddy Merckx belgikarrak. Txirrindulariontzat dator onako eskari au:

*Txirrindulari gazteak ere
artu zaituzte Zaindari,
Zuri begira doaz bidean
izerditsu ta ameslari...
Dorleta'tikan entzun, Amatxo,
beren gurari ta eskari,
ta arrisku latz ta neke-miñetan
izan Zu ordain ta sari.*

Eta, azkenez, Euskalerrri osoarentzat grazi eske, onako aapaldi au du:

*Zure oiñetan sortzen ari da
Euskalerrri bat berria...
Zarrak ainbat Zu maite zaitzala,
da gure gogo bizia.
Erakar zazu zure albora,
piztu siñismen-argia,
erri guztien gaiñera ixuri
zure poza ta errukia.*

Eskari eder egokia, benetan, edozein alditan egiteko.

Onekin amaitzen dut omenaldi onetarako agindutako lana. Ain Andre Maria zale izan zen Zipitria onak begi onez ikusiko duelakoan nago. Bizkaia'n, Mañua'ko Karmen'go Amaren begipean nai izan zuen berak bere gorputz illarentzat azken atsedentokia. Karmel mendiko Ama orrek, euskal-mendietako Ama orrek bere Semearekin batean, saritu dio oraingo lurrean bizi zala biei izan zien maitasun miñ eta zintzoa, baita Euskalerrriari eta euskerari iñoiz lausotu gabe, izandako leialtasuna ere.

AINGERU BIZKAITAR BATEN OROIMENEAN*

Noiz eta 1941ko iraillean iritxi nintzen ni lenbiziko aldiz Iruñera. Eta Solferinoko itsua bezala, «zortha etsaiak eraman» ninduela ara, esan dezaket. «Vascongadas» direlako errialdeetan bizitzeko debekua gainean nuela atera nintzen Sevilla aldetik. Carmona iriko giltzape batetik. Nere zorionez, Iruñeko iria, antziña bateko euskaldunen iri burua, Madrilgo agintarientzat ez zen eta ez da «Vascongadas» oietakoa. Beraz, Iruñen, lasai eta batere eragozpenik gabe ar nezakean bizilekua, delako debekua bukatu arte.

Beste norbaiti alderantzizko «zortha» agitu zitzaion: naparra izan eta «Vascongadas» oietako aldera, Gipuzkoara aldatu bearra. Miriku zen bera, baiña miriku euskal zalea eta euskalzaleen artean aski nabarmendua eta izen andikoa. Izen onek, orduko agintarientzat izen txarra zen onek, oztopoak jarten zizkion Naparroan miriku-maillan, ango mirikuen eskalafoian, gora egiteko. Orduan berak Irun alderako bidea artzen du: Iruñetik Irunera. Eta Irun aldetik, azkenez, Donostiara.

Irakurleak onezkero igarri du miriku ori nor zen: Aingeru Irigarai. Emen esan dudana, orain berrogetaka urte, Aingeruri berari entzuna dut, garai artean Iruñen berak eta nik izan genituen elkar-izketa atsegingarri gutxi batzutan.

Urte aiek ez ziren, ez, zorionekoak benetan euskararentzat ez euskalzaleentzat. Ala ere, angoa ez zen Euskalerrian girorik txarrena. Azaletik begiturik beintzat. Ango elkarte batek baiño geiagok, gaur bezala, euskal-izena eta euskal-usaia zekarten batere bildurrik gabe: *Osasuna*. *Oberena*. *Muthiko Alaiak*, eta abar. Kaleetan eta eleizetan (aopetik beintzat) bazen napar euskara entzuteko aukerarik. Bazan an burua gorde-tearren beren errietatik ara alde egindako giputz eta bizkaitarrik ere. Gogoan daukat

* In: *Aingeru Irigarayri omenaldia*, San Sebastián 1985, 43-49.

atsotxo bat. Piedramillera edo orren bateko alaba bera. Bizkaira ezkondua eta Arratiako euskera arratiar jatorrenak baizen jator egiten zuena.

Erasorik pozgarriena euskeraren aztarna batzuk kalean ikusteak eman zidan. Gerrate aurretiko aztamak ziran, ori bai; baiña an zeuden, napartarren euskalduntasuna oiukatzen, iñork ikutu, iñork puskatu ez kendu gabe, Bizkaian Elorrioko ilerrian puskatu eta kendu zituzten bezala.

Aztarna oietako bat Asisko Frantsizko donearen, Napartarren paketzaillaren plazan zegoen: plazako oroitarrian, Frantsizko beraren otoiiza euskeraz. Ez dut esango urte batzuk lenagoko anaiarteko gerrate artan eta geroko urteetan jaramon andirik egin zitzaion ala ez otoiitz orri, pakearen alde jokatzen dutenen izenean Jainkoa goresten eta bedeinkatzen duen otoiitz orri. Nola nai ere, an zegoen beintzat euskeraz ere jarrita, guztiai anaitasuna eta paketu bearra gogoratzen.

Beste aztarren bat Iruna erdi erdian ikusi zitekean. Loiolako Zalduna zauritu zeneko lekuaren oroigarri eraikitako elizatik urbiltxoan: txalet bateko ormetan ikusten zen Jesusen Biotzaren irudia, azpian euskera utsean euskeraz ziona: «Etxeko Jauna».

Norena zen txalet ori? Nor bizi zen bertan? *Larreko* euskal-idazle eta miriku famatuarena zen, gure Aingeru Irigarairen aitarena. *Larreko* au (Fermin Irigarai) zen neretzat orduan Iruñeko euskal-idazlerik ezagunena. Oitua nengoen aren artikulua, aren «urbilen artio» ko agurrak irakurten. Beste idazlerik ere bazen an. An zen *Gurbindo* ez-izeneko euskal eta erdal-idazlea (Jose Agerre), euskal-liburu mordo ederraren jabe zena. An zen Jose Zalba Kanpion zenaren idazkaria, Kanpion orren bizitza idazteko asmotan Diputazioko Bibliotekan, Kanpion beraren liburuen artean, egunkari eta aldizkariak arakutzen ordu luzeak ematen zituena. Beronek erakutsi zidan bein Elkanoko erretor izandako Joakin Lizarragaren euskerazko manuskrito pillla. Iruñen zen beste erdal-idazle eta gazetalari ugari samarra zen bat ere, Eladio Esparza, ain zuzen andik laster euskaltzain izendatuko zutena (agintarien babespea lortzearen nonbait). Izendapen ori aipatu nion batez ona zer esan zidan: «Nik ez dakit zergatik oroitu den nitaz Azkue jauna. Euskera jakin badakit, Lesakako nere euskera egiten dut. Baiña ez dut izkuntza au landu, ez dut euskeraz ezer idatzi. Eta ez naiz Euskaltzaindiaren batzarretara iñoiz joan».

Euskeraren aztamarik aurkitu zitekean liburu-denda batzuetan ere: Aramendia-renean eta Jesus Garciarenean. Nik nerekin daramat oraindik Aramendia orrenean erositako zuberorazko *Imitaiione* bat, Intxauspe Baionako Kalonjeak orain eun urte beste liburu batekin batera argitara emana. Urte aietako oroigarririk kutunena dut berau.

Baiña gizonen artean, euskal-idazleetatik, oroitzarik maiteena Irigaraitarrena dut, noski. Larreko andik urte gutxiren buruan il baitzen, arekiko nere arremanak ez zuten luzaro iraun. Baiña Aingeru semearenak, bai, eta ez zuten etenik izan arrezkero. Eta gure arteko autu ta solasek euskeraren eta euskal-liburuen edo manuskritoen ingurura jotzen zutela esan bearrik ez.

Olaxe, 1942n asita. Atsegin zitzaion, eta garai artan atsegiñago, berak zuen miñak berberak jota zebillen bizkaitar bat aurkitzea. Zergatik? Batez ere, Bizkaiko euskera maite zuelako. Leengo alkar ikustetik ara igarri nion maitasun ori, eta maitasun ori ez zen mingaiñaz kanporakoa, bame bamekoa eta benetakoa baizik.

Aldi artan, ala ere, Bizkaiko idazleetatik mende ontakoak baizik ez ziren ezagutzen, nere ustez. Beraz, antxiñakoren bat ezagutu naiez, Iruñeko karmeldarren liburutegitik Aita Bartolo (1768-1835) sermolariaren *Ikasikizunak* eraman zituen etxean irakurteko. Bai astiro irakurri ere. Amar bat urte geroago joan nintzakion liburuen eske jabeen etxera itzultzeko. Bertan eman zizkidan. Oso bestelakoa izan zen beste baten jokabidea. Frantsizko Xabierren bizitza idazten ari zela-ta, santu orren bertsozko bizitza bat eraman zigun. Laster argitaratu zuen agindutako bizitza ori (Eladio Esparzak idatzia): baiña ara ta ona asko egin bear izan zen, liburua jabearen eskuetaratu orduko.

Aingeru Irigariak ez zuen inñolazko luzapiderik eskatu. Beingoan eman zuen ematekoa. Baiña ez, ala ere, nolabaiteko miña erakutsi gabe: «Nik egunero irakurten izen dut Aita Bartoloren puskaren bat; ain du euskara bizi eta etorri onekoa».

Geroagogarren batez nik napar-euskarazko manuskritotxo bat eman nion. Au ere, karmeldarren etxean paper pilla batean betiko galtzeko arriskuan aurkitu nuena. Urteetan nerau egin nintzan manuskrito orren gordetzaille, eta azken batean Aingeruri utzi nion. Onek *Euskera* aldizkarira biali eta aldizkari ortan argitaratua daukagu, titulutzat «Catecismo manuscrito en euskera alto navarro» daramala. Aingeruk elkarrekin solastutako oar batzuk ezarri zizkion.

Aingeru bera ere euskerazko altxor ederren jabea genuen. Esaterako, XIXgarren mendeko bertso-mordoa zeukan, eskuz idatzitako tomotxotan. Baiña atsegin zuen bere bereagotzat zeukan bi erakustea: bata, Beriainen *Doctrina* (1626), ezagutzen den ale bakarra, eta bestea urrengo mendekoa, Aita Elizalde jesuitarena. Donostian astebete egiteko izan nintzan batez, Julio Urkijorena zen Bibliotekan eskatu nuen Beriaren ori, an zegoelakoan. Izan ere, Biblioteka ortan izana zen liburu ori, baiña Irigarai jaunak Urkijori epetan emana eta utzia. Urkijo il zenean, jabeak berreskuratu zuela-ta Irigaraigana joan bear izan nuen. Irigarai jaunak aste guzira utzi zizkidan, bai Beriainena eta bai Elizalde jesuitarena, biak etxean lasaiago irakurteko. Geroagogarren batez, berriz joan nintzakion Beriain orrena ikusi naiez, ta *Doctrina* orren erdi baten kopia eman zidan neretzat. Ez zeukan kopia osorik. Beste erdia eta Beriainen ale osoa Iruñeko etxera eramanak zituen.

Eskatu gabeko emaitzak egiten ere bazekien, orraitio, Aingeruk. Bein Iruñeko egunkari bat euskerari leku ematen asi zenean, askotan biali zizkidan an argitaratzen zizkieten lanak. Iruñeko egunkari onen jokabide berria aipatzeak Aingeruk urteak lenago egin zidan aitormen bat dakarkit gogora. Gerrate ondotoxoa, *Príncipe de Viana* aldizkaria sortu zutenak Aingeruri joan omen zitzaizkion aldizkari berrirako lan eske, beronen laguntza izango zutelako uste osotan nonbait. Ezezkoa artu zuten: euskeraz idazterik ez balin bazuen, ez zuela lagundu nai, ez ziela ezer bialiko. *Lingua Navarrorun* delako izkuntzari atea zabaldu bear zizkieten: bestela, naparren jatorrizko izkuntza baztertzekotan, ez zien laguntasunik emango. Ez zuen bekatu ortan erori nai. Giroa aldatu zenean, orduan bakarrik asiko da Iruñeko egunkarietan Aingeru Irigarairen izen edo ez-izenen bat euskarazko idazlanen baten azpian agertzen.

Emen gelditu dira Bizkaiko euskaldun baten eta Aingeru Irigarai zenaren arteko arremanak nolabaiteko argitan. Baiña zeatzago adierazi nai nuke napar euskaldun

onengan nik ikusitako alderdi bat, eta auxe da: Bizkaiko euskerari eta Bizkaierazko literaturari izan zion atxikitasuna eta maitasuna.

Zerbait esan dut, Aita Bartolo markinañarraren *Ikasikizunak* urte askotan egunero irakurri zituelakoa aipatu dudanean. Berak aitortu zidana da. Eta orduko aitormena ez zidan egin ez lausenguz, ez inñolazko ederkaturaz. Antziñatik zekarren Bizkaiko idazleen alderako eder-iritzia eta maitasuna eta bizi izan zen arte guzian iraun zuen on-iritzi ortan. RIEV aldizkarian, 1931, Kirikiño zenaren *Bigarren Abarrak* aurkeztu zituenean, argi erakutsi zuen ori. Kirikiño orren idazkera jator eta ereduzkoa azpimarratzea aski ez zuela, Bizkaiera osoaren gorazarrea egingo du. Mugaz onaindiko euskalkietan Bizkaikoa gozatzuen eta bizitasunik andienaz idazten dela edo idatzi izan dela zioen. Euskera lantzen Kirikiño Mañariarraren maisutasuna aitortzen zuen. *Abarrak*, lenengoak eta bigarrenak, biak omen ditugu euskaldun onak irakurri bearreko liburuak. Batez ere, euskal-idazleek irakurri bear omen lituzke, euskeraz jator eta erraz idazten ikas dezaten. Eskola berdingabea omen dute Kirikiñoarena. Orregatik edo, *Euskalerriko Ipuinak* liburua prestatu zuenean, ipuinak Eusko-Folklore aldizkarian argitaratutakoetatik artu zituen, ipuin laburrak: baiña Abarrak liburutik artutako bat ere sartu du, beste erri-ipuinak baiño luzeago eta ornituago osatua.

Baiña Kirikiño ez da bakarra. Beste Bizkaiko idazlerik ere bada Irigarai zenarentzat aipagarri eta goresgarri denik. Aipu eta gorespen berdintsuak dauzka Zamarripa zenaren liburuentzat, bai bertsozko eta bai itzlauzkoentzat. Mikel Arruzaren *Etxekalte* eta J. Altunaren *Ipuinak* aurkezterakoan, idazleok ere euskera jator errazaren eredutzat ipiñi ditu.

Bizkaiko idazleetan euskera jatorra, ulerterraza, errikoa aurkitu du. Eta orrez gaiñera, berak ain maite duen euskera batu baterantzako joera, beste euskalkietako itzei iguinik gabekoa. Baiña bizkaikoaren gatza eta indarra galdu gabe.

Aipatutako idazleok ain estimu anditan izate onek ez du esan nai Bizkaiko gaiñerako idazleak ez zituela aintzat artzen. Domingo Agirre zenaren euskera aberatsa, jatorra, erriarenean sendo oiñarritua izanaz gaiñera, besteena baiño apain dotoreagotzat zeukan. Domingo Agirre idazle aparta da, Irigarairen iritzian. Ori ukatu gabe, gure napar onek idazle alaiak, irria sortzen dakitenak, irakurteko poza ematen dutenak maiteago zituela esango nuke. Onek bere bameko jiteari edo joerari obeki erantzuten zion, agi danez. Eta gai alai eta irri eragingarrietarako Bizkaiko idazleak trebeagotzat dauzka, eta gatz geiagokotzat. Olako gaiak erabilteko gaitasuna, Irigirairen ustez, landuago eta egiñago aurkitzen da Bizkaiko euskeran.

Nola nai ere, gai alairik ez zuten liburuak ez zituen inñolaz iguin. Bestela, len gogoratu dugunez, ez zituen ainbeste urtez Aita Bartoloren *Ikasikizunak* egunero irakurri izango. Idazleak zerabilten euskeraren indarrari eta bizitasunari begiratzen zion, batik bat. Ori zuen gogoanago. Euskal-liburuen balioa eta irakurgarritasuna ortik neurtzen zuen.

Aipatu ditugun iritziok, Bizkaiko literaturari buruzkook, gazterik mamitu eta tinkatu zitzaizkion Irigarai jaunari. Ortaz azken aldian ere tinkotasun berdiña edo berdintsua erakutsi zigun. Askotan entzun nion *Todos Erribatekos*, Bonifazio Latxa Agirre bizkaitarraren antzerkia, gorai patzen. Eta *Zeruko Argia* astekarian Abeletxe bizkaitarra zen bere gogokoen. Eta ala aitortu zigun bein berak, *Zeruko Argia*

eskuetaratzen zueneko, Abeletxe (Ziarzolo) orren saila, *Gazi-Gazak*, irakurten zuela lenbizi. Ain zuen atsegin aren euskera.

Abegirik ederrena egiten zion Aita S. Onaindiaren lanei ere, batez ere *Euskal Literaturaren Kondaira* liburuei.

Esanak esan ondoren, galdera au egin dezakegu: «Zerk zekarren Aingeru Irigarai Bizkaiko literaturari orren abegi ona egitera? Euskal-senak eragin zion ortara, nik uste. Euskera atsegiña ikusten zuen ain maite zituen idazleetan: euskera bizia, indartsu, errikoia, ganoraz eta gatzaz erabillia, eredugarria. Euskalki guzien gaiñetik begiratuz, ori ikusten zuen aietan. Eta ori sartu zitzaion gogoan barneraiño. Eta orrez gaiñera euskalki guzientzako begirunea eta maitasuna zituen eragille. Guztiak ez dira gaur olako euskalsenaren eta guzien alderako begirunearen eta maitasunaren jabe. Ez-ikusi egiten dio askok berea ez duen euskalkiari. Gure egunotan olakorik asko dugu inguruan. Irigarai gogo zabalagoko euskalduna genuen. Ez zuen iguiñik ez muziñik iñongo euskaldunentzat ez iñongo euskerarentzat. Lekuan lekuko, nonaiko euskalkiak aintzat artzen zituen. Eta bazekien nori berea ematen.

Eta Bizkaikoa aintzat bakarrik ez: alde askotatik eta gai batzuetarako trebeagotzat eta landuagotzat zeukan Bizkaiko euskera: euskera giartsua, erriaren iturri bizitik jasotakoa eta jatorra. Ez du olakorik esan txokokeriak eragiñik, euskeraren ederrari eta biziari begiratuz, eta nori berea emateagatik baizik.

Nori berea omen da zuzenbidea. Bizkaiko seme batek ezin du esker onik beroenaz baizik artu Aingeru Irigarai napar jatorraren bizkaiko euskal-idazleen alderako aintormen zintzoa.

PIARRES LAFITTE IL ZAIGU (1901-1985)*

Lafitte jaun apeza, euskal-idazle eta euskal-alorretako langille porrokatua, azkenengo «Gero arte» esanik joan zaigu. Azkenengo egunak arte, lanari uko egin gabeko gizona, bere larogei ta bostgarren urtean, beste ezerk baiño geiago lanaren lanak eraman digu. Oraindik eskuartean ainbat lan eta gogoan ainbat asmo berri zerabilzkiala il da. Goyan bego.

Luhossoan, Bidasoaz andik jaioa genuen bera, mende onen asi-asieran. Iñoiz entzun izan degunez, aurtzaroan jaioterritik atzerrira aldatu zutelarik, gaskoindu egin omen zan, eta etxean ikasitako euskera aazteraiño eldu. Geroago, orraitio, amaren izkuntzaz iñor gutxi bezala jabetu zala ikusiko degu, eta euskaldun maisu gertatu izan da. Lafitteren euskal-gramatika eredutzat eta onenen artekotzat dago gaur.

Gure gaztetan maisu onen *Euskaldunen Loretegia* egoki baiño egokiago etorri zitzaigun Euskalerrri guztiko euskerari antz artzen eta gure antziñako literaturaren iritzi eta ikuspegitxo bat izaten asteko.

Euskalzale sutsu izan da Lafitte jauna, eta, bein ikasturteak amaitu, apez egin eta Ustaritzeko Apaizgaitegian irakasle jarri zuten ezkeru, an eman du bere bizia, bere lanari loturik, geroke apaizak eskolatzen, eta bai aien gogo-biotzetan eta inguru guztian euskaltasuna ereiten ere.

Gazterik asi zan idazten eta ez dio geroztik pakerik emango lumari. Alor askotan sartu da. Olerkari edo koblakari ageriko zaigu, antzerkigille, ipui-idazle, iztegi-gille, gramatikalaria, leenaren aztertzaile, antziñako euskal-idazleen eta oraingoen berri-emaille eta kritikalaria.

Inguruko en sustatzaille egiñik, berak irabazi ditu euskal-alorrean lan egiteko luma on batzuk: E. Salaberri, Iratzeder eta abar. Seminarioan apaizgai bakoitzari bere euskeran, Zuberoko, Lapurdiko nai Nafarroako euskeran lanak eragiten zizkien

* Karrael 1985-2, 30-32.

eta gero *Gure Herrian* alaxe eman askotan. Ola oi zituen apaizgaiak euskalzaletu eta tokian tokiko euskeraren pitxiak eta aberastasunak plazaratzen lagundu.

Baiña apaizgaien euskalzaletzeko eta sustatzeko lana ez zuen aski. Kristau -erri euskalduna, erri xee, ez du aaztu ez bazterrean utzi. Berak egiñak edo besterenak argitaraturik, ainbat liburu aterako ditu euskeraz, etxean edo elizan irakurtzeko eta otoitz egiteko: Jesukristoren bizitza, Arimen illerakoa, maiatzerakoa, Andre Maria Jainkoaren eta gizonen Ama ezagutu eta gorestekoa, eta abar. Zartzaroan, azken aldean, beti gazteez griñatua eta gazte artean bizi izan dan onek, bere burua gazte zaitu duen onek, gazteentzat liburu txiki, mamitsu ta urre utsezkoa idatzi eta atera du: *Idek eta zabal gogo-bihotzak*.

Euskeraren arloan eta gure literatura zaarraren arloan, zer eztu Lafittek aratu, aztertu eta argitu? Gure aldizkari andiek noiz nai zuten Lafitteren izenpea zekarren lan funtsezkoen bat edo beste. Ez zitzaion iturria agortzen. Beti zeukan zerbait berri edo jakingarri esateko. Gazterik eman zigun *Euskaldunen Loretegia*, 1800 garren urtea arteko euskal-literaturaren bildumatxoa; gero, ainbat idazle zaar eta berriagoen bizitza eta lanak aztertu ditu: Oihenarte, Gasteluzar, Salbat Monho, Aita Blas, Anxuberro, eta abar.

Pensalari izan degu, eta beste pensalariei neurri artzen dakienetakoa. Platon-gandik asita oraintsuagoko filosofoen nondik-norakoa ezagutzen zuen. Gure artean, Mitxelena izkuntzalariaren azterketa sakona egin du, bai oraingo gure idazleen pentsabideena ere.

Alemanak Frantzian sartu ziranean, ixil eta mutu gelditu ziran Baionaldeko euskal-aldizkari eta erakundeak ere. Ola ixildu zan *Eskualduna* astekaria. Lafittek laster, egun obeak agertu zireneko, erakunde berririk eta *Herria* astekaria sortu, eta bere inguruan luma zorrotzak bilduko ditu.

Lafitterentzat euskera lantzea eta indartzea ez zan izan egiteko bakarra. Euskal-nortasun osoa gora jaso eta indartu nai zuen. Orretarako, programak eta ekintzak ere sortuko zituen. Orretarako, Sabino Aranak bultzatutako Pizkundera gogoko zitzaion;

Lerro auker gutxi dira Lafitteri bera beteko aitormena egiteko. Geiago mefezi zuen, noski. Utzi digun ikasbideari jarraitzea izango da omenaldirik onena. *Idek eta zabal* liburuko atal bat dakar *Karmel* aldizkari onek galdu degun langille andiaren omengarri.

AITA DAMASO INTZA (1886-1986)*

Goian bego

Aita Damaso Intza il da. Eun urte betetzera eldu gabe. Eungarren urtea gaiñ-gaifian zeukala-ta, omenaldiak prestatzen zitzaizkion euskal-idazleen artean uste-tsuena zen oni. Euskaltzaindia leen-aldiko amabi izendatuetatik bizirik gelditzen zen bakar oni.

KARMEL aldizkariak oroimen berezia zor dio. Zergatik? Euskera utsezko aldizkarien alorra ia urratu gabe zegoen aldi gogor aietan, bi euskal-aldizkarien sortzaille eta zuzendari izan genduelako {*Irugarren Prantziskotarra*, 1913, eta *Zeruko Argia*, 1919}. Eta orrez gaifiera, ain euskalzale zintzo oni beste batzuk arrera mukerra egiten asi/itzaizkionean, gure aldizkari onen orrietara etorri zelako aterpe billa. *Irugarren Prantziskotarra* kaleratu aurretik *Jaungoiko-Zale* genduen Bizkaian euskera utsezko aldizkari bakarra, urte bete leenago ibiltzen abiatu zena, 1912n. Sei urte geroago, 1919n, aterako zuen beste bat: *Zeruko Arg/a*, Naparroako kaputxinoen aldizkaria.

Aita Intza 1912n, azaldu zen euskal-idazleen artera, *Euskal-Esnalea* euskera-erderazko aldizkariak antolatutako sariketa batean saria eramandako ipui batekin: *Martin zintzoa*, napar euskera jator gozoan ondutako ipuia.

Migel Olasagarre izan zuen bataioko izena, 1902n Kaputxinoen soiñekoa jantzi zuen arte. Kaputxinoetan izen barria artu zuen: Damaso, eta abizentzat, deituratzat, Kaputxinoek oi zuten bezala, bere jaioterriaren izena, Intzan jaioa baizen orain eun urte, 1886n, urriaren emeretzian.

Iruñen 1910n apaiz eginda, laster asiko da Naparroan zear batez ere euskal errietan Jaunaren itza ots egiten, eta Asisko Santuaren gogo-giroa adierazten. Erri euskaldun aietara irtetze onek ez dio gutxi lagunduko bere aurtzaroko izkuntza bakarra

* Karmel 1986-4, 27-36.

sakonago ezagutzen eta gure erriaren ariman barnago sartzen. Euskeraren eta erri-jakintzaren iturririk garbietenan murgildurik zebillen. Ala egingo zaigu bera euskal-esaera zarren biltzaille berdingabea.

Aita Damasoren bizian iru aldikada

Iru aldikadatan banandu genezake. Aita Intza zenaren bizia, idazlearen biz'a; 1912tik 1936-ra artekoa: 1936tik 1968raiñokoa, eta 1968tik il zaigun artekoa.

Leenbiziko aldikadan, aipatutako bi aldizkarien sortzaille eta zuzendaria da: Euskaltzaindia sortzen lagundu du, Euskaltzaindiaren sorreran, bera ere euskaltzain oso egingo dute, Akademia onen sorrerako amabi euskaltzainen arteko; Euskaltzaindiaren eragitez 1923n Donezteben egin diren Euskal egunetan izlari eta jai aien berri-emaille da; 1928 inguruan, Naparroan *Euskeraren Adiskideak* alkartearen sortzailletakoa eta alkarte orren sustatzaille. Aldikada onetan liburu batzuk ere ateratzen ditu, eta beste batzuei bidea urratu.

Bigarren aldikadan Euskalerria utzi bearra izan du, emengo euskal-lanei agur esanda. Anaien arteko gerratea piztu dutenek ez dute euskerarekin eta euskaltzaleekin ezer nai. Etsairik andienetakotzat artu dituzte. Bizirik irteteko ere estu eta larri ibilliko dira. Aita Kaputxiño mordotxo batek lortu du bizirik gelditzea, baiña atzerrietara joan bearko dute. Aita Intzak Chilerako bidea artu bearko du. Eta Chilen egingo ditu ogeta bi urte. Izen ederra irabaziko du bere eliz-lan onarekin eta *Constitución* irikoak bere seme kutunen zerrendan artuko dute. Atzerri artan, orraitio, ez du bere euskal-lana uzten. Gure artean giro ito batetik oberako aldaketatxoa agertu zenean, batez ere, 1954n *Zeruko Argia* berriz kaleratzen asi zenean, an agertuko da Aita Intzaren izena berak bialitako lantxoan azpian. An agertuko da bere esaera zar mordoeekin ere noizik bein.

Irugarren aldikadan, 1968n Amerika utzi eta Euskalerriratu denean, bereala agertzen da Euskaltzaindiaren batzarretan parte artzen. Gutxienez, 1972 garrenera arte. Iruñan liburu berri bat edo beste ere aterako du.

Andi-andika, Aita Intzaren bizitzako gorabera eta joan-etorrian berri eman ondoren, goazen orain berri xegeoa batzuk ematen.

Aita Intza euskaltzain

Irugarrego Prantziskotarra aldizkariaren zuzendari izateak eraman zuen gure kaputxinoa Euskaltzaindiaren sortzaille izatera. Onek argibidea eskatzen du. Oñatiko batzar ospetsuak erabaki zuen 1918n euskal-akademia sortzea, eta an agertu zuten leenengo lau akademikok beren izendapena. Azkue, Kanpion, Urkijo eta Eleizalde izan ziren. Beste sortzi akademiko autatu bear eta nortzuk izango, orduan Euskalerrian ziren aldizkariaren zuzendariak edo beren ordezkioak erabaki bear zuten. Auek ziren: *Jaungoiko-Zale*, *Irugarren Prantziskotarra*, *Euzko-Deya*, *Jesusen Biotzaren Deya*, (laurok euskera utsezkoak), *Euskal-Esnalea*, *Euskalerraren Alde*, *RIEV*, *Euskale-*

rria, eta Baionako *Eskualduma*. *Iruigarren Prantziskotarra* orren zuzendaria bera izan zen 1919 urriaren bostean artarako egindako batzarrean. Ez zen orduan Aita Intza izendaturik gelditu. Napartarren aldetik Jose Agerre izan zen autatua. Baiña Agerre jaunak ez zuen Akademia sortu berriaren batzarretara agerketarik egiten (leenengo batzarrera bai, bestetara ez), eta beste akademiko barriek Aita Intza aurkeztu zuten Agerre-ren ordeko, eta euskaltzain oso izendaturik gelditu zen kaputxinoa, Iruñen 1920-ko uztaillaren 23n izandako batzarrean. Orrela gertatu zen Aita Intza leenengo amabi euskaltzain osoen arteko, Agerre naparraren utsunea betez. Alik eta lasterren egin bearko du sarrera itzaldia. Sei illabeteko epea eman diote.

Andik sei illabetera Elizondon da sarrerako batzarra, urtarrillaren 27n, Elizondoko auzo-etxean. Sarrera-itzaldi orretan erakutsiko ditu izlariak kargu edo omen ori artzeko izan zituen bildur eta kezkek. Leenik, beldurra izan du euskaltzain izatea onartzeko. Eztu bere burua ikusi orretarako gai. «Sei illabete dira gaur nere gain artzera noana eskiñi zitzaidan ezkeroz; ta ala ere nere gorputzetik oraindik ez da atera berri onekin nere biotzean sartu zan bildurra. Nor naiz, alde batera, onelako omena edo onra neri egiteko ta beste aldera txarragoa dana, non daukat onelako eginbidea betetzeko bear dan argitasuna ta jakinduria?»

Bere etxeko nagusiak adore emanik kendu zaizkio bildur eta kezkok, esan zizkion itzokin: «Desakezuna egizu eta ez zaizu geiago eskatuko».

Bigarren kezkabidea: Itzaldian azaltzeko gaitzat zer artuko duen, zertaz itz egingo duen. Eta naparra den ezker, eta Naparroako euskaltit euskaltzain egiña, ango euskeraren alderdien bat azaldu nai du. Zein alderdi? Naparroako aditz-laguntzaillea zuketazko esakeran. Eta lanari ekin dio. Ez du, bere ustez naparroa guztia nai bezin ondo ezagutzen eta erriz erri ibilli da gaiak biltzen, erri batetik eta ibar batetik besterako berdintasunak eta ezberdintasunak jasotzen. «Txorotako artu naute erritar batzuek», aitortu du berak. «Gure izkuntza zeñen ederra, aberatsa eta maitagarria dan ez dakiten asko arritzen ziran lengo sei ille betean ainbeste jirabira euskeragatik egiten ni ikusita. Araba ondoko Ziordiatik asita Erronkarirañoeko euskera derabilten baztar geienentsuetan ibilli naiz ango euskeran zerbait aldaketa izan zitekela sumatu ezkeroz. Ez naute izutu bide luzeak edo zakarrak. Zertako artzen nituen alako nekeak esaten zidaten askok. Baña pitxirik ederrenak itxasoaren erraetan izkututzen diran bezala, esanerarik politenak gure erriaren ezpañetan arkitzen dirala dakigunok, ezerez-tzat ematen ditugu gure neke guziak, zerbait berri arkitzen degunean».

Erriaren esaera politik, gure izkuntzaren pitxiak biltzeko deia orduan entzun nuela dirudi. Baiña sarrerako itzaldian Naparroako aditz laguntzaille aztertzer mugatuko du bere gaia. Txorotzat artzen zuten erritar euskaldun aiek, jakiña, ez zekiten «euskal-izkuntza» arrigarria bada... (Intxauspe kalonjearekin dio berak), «aditza edo berboa duela bere galdorra ta bere goragarria, aditzean agertzen bai ditu (euskerak) bere anditasuna ta bere baztargabeko aberastasuna».

Eta gaian sartuta, napar-euskeretako aditz laguntzallearen azterketa luzea egingo du, bi zatitan bananduta. Eta leenengo zatian, aditz laguntzaille ori, Naparroako idazle zaar eta gramatikalarietan. Alkarren ondoren aztertu ditu 1609n Venegaz Iruñeko gotzaiak Kristoren Gorputz-jaietarako jarri zuen sariketan sarituak izan ziren koplak; Beriain-en Dotrina (1626); Felipe IV garrenaren illobirako Frantzisko Aleson,

Bianako semeak, ondutako neurtitzak (1665); Axular andiaren *Gero*, 1864n argitaratutakotik; Sebastian Mendibururen ainbat liburu; Aita Karlos Fuenterrabia kaputxinoaren misiotako itzaldiak (1775); Lizarraga Elkanokoaren lan argitaratu eta argitaragabeak; Munarritzko apez baten itzaldiak (1826); Joseph Nabarlaz, Makirriaingo apez jaunaren lantxo bat; Bonaparte Printzearen Euskal-aditzazko liburu andia; Bruno Etxenikek Baztango euskerara itzulitako Jonas Profesia eta Labaingo dotriña, eskuz idatzia; Iruñeko karmeldarretako Elias anaiak utzi ziona (Karmeldar au giputza zan, naparroa geienean oiñez ibillia, eta iñoiz, bere ibillaldietan bildutako itz-mordo galanta biali zion Euskaltzaindiari, *Euskera* aldizkarian irakur daitekenez); Gramatikarien artean Bitoriano Huizi apaizarena, 1899koa, aztertu zuen. Iturri guztiok bildu eta aztertu zituen napar euskaldunen aditz laguntzaillea aztertzeko. Eta ez zan orduan ain gauza erraza olako iturriak aurkitzea. Orixe izan zen Itzaldiaren leenengo zatiaren gaia.

Bigarren zatiak ez zion neke gutxiago eman, noski. Naparroa osoa arakutzen du erriz erri, ibarrik ibar. Alde guztietako aditza aztertu du eta leku bakoitzeko aditz laguntzaillearen formak aurkeztu. Sei illabetetan egiteko, lan izugarria benetan, ordua artean gutxi jorratuteko alorrean egiña. Euskaltzaingoa benetan artu zuela argi erakutsi zuen. Eta ez uste lan ori lekuan lekuko bitxikeriak biltzeko asmotan egin zuenik. Ez; elkarren arteko antzak aztertu eta ezagueraziz, itzaldiaren amaieran, batasunerako urratsak emateko deia egin zuen, eta artan saiatzeko eskaria egin zien, batez ere, Naparroako erri-agintariei eta apez jaunei. Berak ere, olakoxe alegiñak egiten zituela esan genezake bere itzaldietan eta bere aldizkarian orrietatik, lekuan lekuko bitxitasun edo bitxikeriei amor eman gabe, napar euskera batu antzekoa egiten saiatuz.

Itzaldi onetan azaldu zuen gaiaren geigarri antzean, beste bi lan argitaratu zituen Aita Intzak Euskaltzaindiaren aldizkarian: bata, Burundako aditzaz 1922n, eta bestea Larrungo euskalkiaz 1958n, Chiletik zala argitaratua, bear bada, Euskaltzaindiaren paper artean gelditzen zen antziñago egindako lana.

Esaera zarrak, euskaldun jatorrei gelditzen zaizkien esaera zuur garbiak aipatu zituen izlariak Elizondoko itzaldi artan. Olako esaerak biltzen maisu izan dugu bera. Eta noizik bein, mordoak eramaten zituen euskaltzainen billeretara eta *Euskera* aldizkarian argitaratu ziran aintzat 1926-27-28 urteetan. Chilen zela eta Chiletik itzulitakoan aurrera eraman zuen lan ori, 1963-64 eta 1972ko *Euskera* aldizkarian agertzen danez. Berari zor diogu, Euskaltzaindiaren urrezko eztaietarako idatzita, Euskaltzaindiaren batzarrak nola izaten ziren, bakoitzak batzar aietan nolako jarduera zuen berri ematen digun txosten labur polita. *Euskera* aldizkarian azkenengo lana Fermin Irigarai «Larreko» zenaren omenetan Auritz-en irakurritako itzaldia du. Euskaltzaindiaren barruko giroa itogarri egin zitzaion, eta andik aurrera, orregatik eta urteen erasanez, ez zuen Euskaltzaindiaren batzarretara agertzerik egin. Orduan biali zuen lan bat edo beste gure *Karmel* onetan agertzeko, baiña Euskaltzaindiari bere garbitasuna emanda.

Aita Ondarrak, 1968n, Euskaltzaindiari eskariazuzendu zion Aita Intzaohorezko euskaltzain egin zezaten. Euskaltzain oso dena ohorezko egiterik ez zegoela erantzun zitzaion; laster zetorrela Intza euskaltzain egin zenetik berrogeta amargarren urtea,

urrezko eztai-urtea, eta orduan izango zela omenaldi berezien bat egiteko ordua. Ordu ori, agi denez, ez zitzaion eldu eta omenaldi berezi ere ez zitzaion egin berrogei ta amar urtera eldu den arren.

Euskal-idazle

Aita Intzak urte luzeak eman zituen idazten. Euskera gozo garbi errazaren jabe den idazlea da. Lenengo aldikadan, 1912tik 1936erañokoan idatzi zituen euskal lan gutxi batzuk ezartzen zaizkio: *Kristau Ikasbidearen* I ta II garren sariaren azalpena, 1924 argitara emana, eta Aita Polikarporekin batean Erriarentzat Liturgia sailleko libururen bat. Leentxeago aipatu ditugu Esaera Zarrak, *Euskera* aldizkarian argitaratutako esaera sailla.

Azken urteotan, nik ikusi dudanetan, bere karpitetako idazlanak (sermoi eta abar) sailkatzen eta Luis Jauregi «Jautarkol» zenaren olerkiak biltzen aurkitu izan dut. Karpitetako itzaldietan bat zuen maiteago, gaztetan Erronkarin egindako erronkarierazko itzaldia zuelako. Jautarkol idazlea bere kutuna izan zuen beti, aren gaztetako olerkiak ateratzeko *Zeruko Argia-r&n* orriak eskiñi zizkionetik. Berak argitaratu zuen *Zeruko Argiak* zerabilen irarkolan aren *Biozkadak* olerkizko bilduma eta berak egin zuen, itzaurre gozo ta txukun batean, olerkari gaztearen aurkezpena. Berak atera erazi zion oraintsuago Gipuzkoako Aurrezki-Kutxari liburu aren bigarren edizioa. Baiña edizio au, Aita Intzaren asmotan, Jautarkol-en olerki-bilduma osoago baten leenengo tomoa izango zen. Eta tomoa prest jarri zuen imprentarako. Neronek ere lagundu nion bilduma olerki bat edo beste geiagoz osatzen, Jautarkolek neri utzitako kopia batetik. Eta gure kaputxinoak mundu ontatik naigabetxorik eraman badu, nik uste, bat au izan du: Aurrezki-Kutxak ez ziola bere eskariari erantzunik, baiezkorik beintzat, eman. Bigarren tomo ori argitara gabe gelditu da nonbait Aita Intzak utzitako paperen artean.

Naparroako Diputazioa adiguritsuago eta gizabidetsuago ibilli zen berarekin. *Temas de culturapopular* liburutxo-sail bat ateratzen asi zen 1967 inguruan. Berrogeta amargarren tomoa, 1969 agertu zen, Aita Esteban Adoaingo kaputxinoari eskiñia. Liburutxoak erdera utsean agertu izan dira beti. Baiña Aita Intzari esker, Adoaingo Esteban orrena euskeraz ere atarako zen, aita berak euskerara itzulita.

Naparroako Diputazioak gure kaputxino onen alde egindako beste adei-erakutsi bat Naparroako esaera zarrak argitaratzea izan zen. Orretarako, berak bildutako esaera guztien artean autaketa bat egin bear zuen eta Naparrakoak zirenak bakarrik sartu bilduman. Diputazioak berak bilketa are luzeago bat egitera bultzatu zuen, eta or doa bera berriz ere erriz erri billa. Eta ura bai fraidearen poza, gutxien uste duen lekuan esaera mordoau aurkitzen duenean. Orixe gertatu zitzaion euskera ia galdua duen erri batean, Saraituko Espartzan, berak Latxaga apaizaren *Jakara oiñez Naparroan zear* liburuari egin zion itzaurrean (1976), zionez: «Orain iru urte or bildu nituen egun batez 30 esaera zar, lau gizonen artean».

Olako bilketaz osotarik dago Aita Intzaren azken liburu ori, Naparroan bildutako 2.500 esaera zarrezko liburua. Or sailkatu ditu erriz erri eta noizik bein argibide

egokiz omituz libum txukun prestatutakoan eta edizio txukun batean. Euskal-esaeren bildumarik baliotsu eta txukunena Aita Intzarena.

Euskal-aldizkarien eta gure zorra

Baiña Aita Intzaren euskal-idazle lana neurtzerakoan, ez diogu begiratu bearko aipatu ditugun liburuen zerrendari bakarrik. Bi aldizkari sortu eta zuzendu zituena dela ez dezagun aaztu. Ez ditzagun aaztu aietan idatzi zituen idaz-lanen zerrenda luzeagoa. Ez dezagun utsera bota aldizkariok sortzeaz bakarrik erakutsi zigun aurrera egiteko kemena. Bide-urratzaile izan dugu, bide barrien erakusle. Oraingo gizaldiak dana eginda aurkitu du. Askok jakin dute kukuarena egiten ere: iñoren kabian sartu. Aita kaputxino onek ez zuen bere aurretikoen kabirik aurkitu. Bera izan zen leena euskera aldizkarien bidez plazaratzen Naparroan. Aldizkari oietan bera izan da geien idazten zuena. Aita Polikarpo zanak bein aitortu zuenez, Aita Intzaren inguruan sortu ziren beste idazle batzuk ere: Aita Yurre, Aita Polikarpo bera, Aita Arbelaiz, Aranaz eta abar. Gerrateko ezbearra gertatu ez balitz, bestelako loraldia izango zuten aita onek sortutako landareak.

Zeruko Argiak, zorionez, bigarren piztualdia izan zuen eta pozik etorri zen aren orrietara Aita Intzaren luma bere alegiñean indar ematera. Ezta esatekoa zeinbesteko samiña artu zuen berak bere beiñolako seme kutuna, oso osterantzeko bidez artzen ikusita, batere elizkoi ez zen idazle batek bein *Zeruko Argia* ori infemuko illuna biurtu ez ote zen esateraiño.

Aita Intzaren aldizkarietako idazlearen alderdia eredutzat agertu nai degu gaur, gure aldizkari onen orrietatik. Euskal-aldizkarien sorrera eta aurreranzko urratsak garbi azaldu ditezenean, Aita Intzaren izenak sor zaion omena bearko du.

Goian bego gure euskal-idazle jatorra. Goian bego euskal-aldizkarien bide urratzaile azkarra izan duguna. Eta bizi bedi aren oroitza esker onez euskaldunen eta euskal-idazleen gogobiotzetan!

LEKUONA EUSKALTZAIN*

Lekuona euskaltzaiñaren bizia euskaltzaindiaren biziarekin batera dabil; Euskaltzaindia sortu zanetik arako euskaltzain degu.

Iñor gutxi da gaur antzekorik, Euskaltzaindiaren sortzaille eta aren leenbiziko egunen lekuko danik. Gizon zoriontsu otatik iruk, beintzat, omenaldia izan dute eta euskal-makilla bat ere bai atsegin-sari. Auen zorionkide izan arren, euskaltzainburu ere izan dan arren, Lekuonak ez du izan, guk dakigula, olako omenaldirik eta ez du omenezko makillarik jaso. Bestelakorik jaso ez balu...!

Lekuona, euskaltzain urgazle. Sari eta ziri

Oiñatiko batzarraren ondoren eta aren ondorio bezela, bertatik asi zan Euskaltzaindia izango zan erakundea leenbiziko urratsak egiten. Urratsok jakiñak dira: Oiñatin izendatutako lau nagusiek (Azkue, Urkixo, Kanpion eta Eleizalde jaunek) beste zortziren laguntza artuko zuten laster; euskal-idazleen indarrak, Euskal-aldizkarien ordezkariak izendatuak ziran, Eusko-Ikaskuntzaren babesean.

Amabi euskaltzain osoen esku gelditu zan gero urrengo izendapenak edo autepenak egitea, amabien laguntzailleak billatzea. Zenbat? Euskaltzain osoentzat *numerus clausus* antzeko bat erabaki zala dirudí: amabitik gora ez ziran izango. Laguntzailleentzat, urgazleentzat ez degu zenbaki erabakirik ikusten. Euskalki guztietakoak izango ziran, ori bai; Gipuzkoatik zortzi. Eta zortzi giputz auen artean, Manuel Lekuona gaztea izan zan izendatua, 1919-n, urriaren 26-n, euskaltzain nagusien irugarren batzarraldian, ain zuzen.

* Karmel 1978-1, 35-47; Kardaberaz-Bilduma 19 (1977) 15-23 [= Saski-naski (1987, 36.zenb.) 2-10].

Azkue zaarrak, euskaltzainburu egin zutenean, ordurartean egiñak zeuzkan lanen saritzat artu zuen bere izendapena, eta aurrerantzean egitekoen ziriztat. Urgazleen izendapen-agerietarako izkuntza berdintsua asmatu zuten; artean egindako lanen sari izango zan izendapena eta andik aurrera egitekoen ziri eta kiñagarri.

Zer sariztatzen zioten Lekuona gazteari, euskaltzain urgazle egin zutenean? Ez zan, ez, lanik egin gabea euskal-alorrean. Argitaratua zeukan lan sakon samar bat, Gazteizko apaizgaitegiko ikastaroaren asierako itzaldia, euskal-bertsoen neurriak argi berritan aztertzen zituena. Ordurako sari bat baiño geiago irabazia ere bazan, gaiñera, euskal-idazleen sariketetan. Lekuona jaunaren esku-ikutua zekarren Gazteizko Elizbarrutiko Kristau-Ikasbide berriak ere. Bera zan Gazteizko Apaizgaitegian euskal-irakasle eta onek ere nortasuna ematen zion. Bazan, bai, norbait eta ba zuen zer sariztatu Lekuona gazteak.

Gerorako ziririk? Ez zuen bear ziri berririk asia zeukan euskal-arloan aurrera jarraitzeko. Euskal-aldizkariak, Eliz-Barrutikoek, *Gure Mixiolariak*, ezagutuko dute ark egindako lanen fruturik, urtez urte. Eta Euskaltzaindian? Garai artan, Euskaltzaindiaren jokabidea ez zan gero ikusi degunaren antzekoa. Bi eguneko lan-billerak izaten zituzten illero; euskaltzain osoen billerak ziran, batez ere, eta nekez uts egingo zuten ortan. Urgazlerik oso gutxi joaten zan batzarretara. Baiña euskaltzain oso izan naiz urgazle izan, aurretiaz biali bear zuen bakoitzak batzarrean irakurri nai zuenaren kopia, beste batzarrekoen artean banatzeko. Onela jakiñaren gaiñean zeuden guztiak eta nai zuenak bere iritzia edo erantzuna eman zezakean. Are geiago, Lafitte jaunak iñoiz esan duenez, urgazleek ere lantxoren bat irakurri bear zuten, sarrera bezela edo.

Ola egin zuela dirudi Lekuona Jaunak ere bein, 1924-n, batzar-ageri batek esaten digunez. Ormaetxea jaunak, beste urgazle batek, erantzun zion, eta irakurritako lana RIEV aldizkarian argitaratzea erabaki zuten.

Batzarretara agertzerik geienak Lekuonak udako edo Eguberrietako oporraldietan egiten zituen. Orrela 1936-g urterarte.

Ez sari eta ez ziri

Urte ortan Euskaltzaindiaren eta euskaltzainen lanak eten luze gogorra izan bear zuen. Zorigaiztoko ixillaldi oso baten ondoren, gutxi batzuk asi ziran, noizbait burua jasotzen, Jupiterrek izututako igelak bezela. Oso gutxi ziran: Azkue ta Urkixo jaunen inguruan, lau edo bost euskaltzain, oso eta urgazle. Non billatuko zuten beste batzarkiderik? Eta nori saririk eskaiñi eta nori ziririk egin? Ez da aukera aundirik inguruan. Eta lau edo bost besterik biltzen ez diranean, ez dago araua betetzeko erarik ere. Nola osatu zazpi autarki?

Orrela, araudia alde batera utzita, or sortzen dira, oso edo laguntzaille, euskaltzain berriak: Joan Irigoien, Eladio Esparza, Federiko Krutwig, Seminario Rojas... Azkenengo onek ospetsu samar egin zuen bere sarrera Bizkaiko Diputazioan. Orduko batzar-lan asko illunpetan gelditu da. Baiña nondik atera du norbaitek Krutwig jaunak sartu zuela euskera Euskaltzaindian, an artean erdera zala aren batzarretan nagusi? Ori esan duenak jainko txipiak non-nai ikusteko erretzasunik ba du, bear bada: baiña Euskaltzaindiaren batzar-ageriak ez ditu irakurri. Ain zuzen, Krutwig orrek erderaz

idatzita biali zituen, urteetan barna, bere lan guztiak Euskaltzaindiaren batzarretara. Ogei urte leenago aren batzarretan ez zan erdera geiago erabili Krutwig jaunaren egunetan baiño. Bakoitzari berea, ori da zuzenbidea.

Lekuona, euskaltzain oso

Ixil-garai artan, Lekuonari ere ixil-lana egokitu zitzaion. Baiña euskerari atepak erdi zabaltzen asi zaizkionean, or agertzen zaigu kalera kantari, 1948n, *Jesus Aurarren Bizitza-rekin*, eta 1949n, *Gerrateko nere amabi kanta-ekm*. Urrengo urtean, euskaltzain oso izendatzen dute. Bazekien berak euskaltzainen legeen berri (orduan edozeinek bezela), eta laster, 1951-VI-23n, sarrera egingo du. Iruña aukeratu zuen ortarako. Oiartzuar jator oni, euskeraren aldetik eta kondairaren aldetik, Iruñara zijoazkion burua eta biotza.

Ogeitamar urte leenago, Euskaltzaindiaren jaio-berritan, euskaltzain urgazle egin zutena, orain ark bigarren jaiotzaldia bezelakoa duenean, euskaltzain oso gertatzen da. Or, 1950 inguruan asten da, asi ere, Euskaltzaindia bigarren bizialdi batean sartzen eta indar berriak artzen. Ez bakarrik illen utsuneak bete, euskaltzain berriak ere izendatzen dira, leengo amabiez gainera. Batzuk urgazle izatetik igoak dira, beste batzuk zuzen zuzenean artu dute gorengo mailla: Gorostiaga, Villasante, Mitxelena, Ormaetxea eta abar. Bear bada, batzuentzat sari izan da, beste batzuentzat ziri baizik ez.

Euskaltzainak ugaritzearekin beste gertakaririk ere azalduko da, berri samarra: euskaltzain osoak geiago izan arren, ugaritze ori billeretan ez da ain argi ikusten. Leen urgazlerik gutxi batzarreratzen bazan, orain urgazleak osoak baiño geiago.

Emendik oker nabarmen au ere gertatzen da. Autarkitara zerbait erabaki bear danean, leengo legeak dirau oraindiño: zazpik osatzen dute geiengoa. Leen, amabi euskaltzain oso ziranean, oso zuzenbidezko legea eta jokabidea zan ori; guztien erdia eta bat geiago gertatzen zan. Orain zazpik eskubide osoa dute beste amabosti edo geiagori beren uztarpea ezartzeko. Beste okerrik ere sortuko da, lege-joko berri bat asmatzen danean: *poderioz* boto ematea. Okef au lege-gizonek asmatua izan da, noski, ez akademi-gizonen asmakizuna. Akademiek beren barrukoei lege zorrotza jarri izan diete (euskaltzaindiak ere bai, asieratik): billeretara ez utsik egitea. Uts egiten duenak bere eskubideak galtzen ditu, ogenaren arau. Orain Euskaltzaindiaren billeretara uts egiten duenak ez du ogenik, bai bulda, egun baterako, boto-egunerako. Orrela, karguak berritzean, itxuraz, euskaltzain oso guztiak gerta ditezke batzarrean; itxuraz, botoz, ez egiaz. Jokabide au ez da, ez, oso akademikoa. Eta barnean alderdikeriak sortu ezker, Euskaltzaindian sortu diran bezela, ez da errez asmatzen nolako istilluak etorri daitezken.

Lekuona, euskaltzainburu

Berriz ere, Euskaltzaindiaren egunik gogoangarrienetakoetan, Euskaltzaintzan urrengo urrats bat egiten du Oiartzungo seme jator azkar onek. Euskaltzaindiaren

urrezko ezteiak, sortu zanetik berrogeita amargarren urtea urbil da eta Lekuona euskaltzainburu egiten dute. Ez zan, orraitio, dana jai-usaia inguruan, ez urbiltzekorik ere. Aurreko urteetatik asita, naiko zatarturik, gaizkiturik, dago giroa, barnetik eta kanpotik. Leengo alderdikeriaz gaiñera, euskera *batua* dalakoaren auzia atera da erdira. Ostots-giroa dago.

Ba dira lau urte azken-epe estu bat jarri nai izan ziola norbaitek Euskaltzaindiari, batasuna egiteko. Onez ez bazan, indarrez edo egin bear zan eskatzen zan batasun ori. Ortarako, noiz egokiera oberik, urrezko ezteiak baifio?

Auzi onen inguruan ez dago xeetasunik eman bearrik. Ez ziran urte gozoak izan, 1967-tik 1970-rakoak. Lekuona izan zuten buru urrezko eztei aietako batzar nagusiek Iruñen, Gazteizen, Bilbon, Donostian eta Baionan. Lekuona buru zala egin zan Oiñatiko batasun-batzarra. Luzeegi joko genuke auzi eta istillu guzien berri eman bear ba genu. Zer esango, eta artaz Lekuona berari mintzaraztea erabaki det, berak eman zuen «Nere kontu ematea» emen aldatuz. Euskaltzaindiak ogen egin dio bere buru izan zuenari, kontu emate ori bere aldizkarian ez argitaratzeaz. Arrera ohea merezi zuen. Mintza bekigu emen berriz Lekuona bera; mintza bekigu eta mintza bekie:

«Euskaltzainok: Iru urte dira, Euskaltzainburu naizela. Bitarte ortan zenbait gorabera izan degu euskeraren problematikan. Egoki izango da, gorabera oiei buruz, nik nere deskargutxo ematea, zuen aurrean.

Urte bi dira, Bilbaon egindako urtarrilleko batzarrean, Euskaltzaindiaren berrogeitamar urte betetzearen gogoangarri zerbait berezi egitea erabaki zala. Asmo bat, batez ere, artu genduan danok orduan: urtearen barruan euskeraren batasunari buruz zerbait eratzea.

Gauza garrantzitsua zala esan zan; baiñan baita kontuz egin bearrekoa ere batasun-eratzeko ori. Gogoan izango dezute noski guztiok batzar artan bertan Arrue jaunak esan zuana: Euskaldunok, olako gauzetan «anarkixta xamarrak» gerala. Batasuna, norbaitek proposatzen zuan bezela, *por decreto* egiten asten bagifian, orixe naikoa izango zala jendea kontra jartzeko.

Xenpelar bertsolariak esan zuana:

Gaitzak gerala umiltzen,
eta pakean unitzen.

Neronek ere gauza bera esan nai izan nuan, Arantzazuko Batzarreko sarreraitzaldian *Oñeztarren eta Ganboarren* arraixkoa aipatu nuanean.

Arazo ontan arraixko ori baztartzea izan da nere ardurarik aundiena, ordutik onuzko urte t'erdi ontan. *Por decreto* eta diktadoreki gauzak egitea galerazi: orixe izan da nere ardura. Ez dakit logratu dedan.

Arantzazuko batzarrak bukatu bezain laister, batzuren batzuek izugarrizko pozez asi ziran ango Mitxelena jaunaren erakutsien konklusioak mundu guziari ezarri bearez. Ezartze ori, eta batez ere presaka ezartzea, orixe da, ezer bada-ta, diktadura. Ori inolaz ere galerazi bear zan. Nik ortara jo det, batez ere, nere alegin guztian. Presaka ez da ezer onik egiten auzi auetan. Mitxelena jaunaren iritziez gaiñera, beste iritzi geiago ere entzun bearra zegen. Ortarako beta artu bear da. Ponpeu Fabrak

katalanaren batasuna egiteko, amar urteko epea eman zuan, erriari kontsulta egiteko, erriaren plebiszito praktikoa bat lortzeko.

Gure artean, esan det, alderdi batekoak bereala asi ziran beren aldeko lanean. Eta berak beren aldetik asiaz gaiñera, Euskaltzaindiak Arantzazuko konklusio aiek guztioi ezartzea, guztiok Euskaltzaindiak ortara beartzea nai zuten. Nere iritzia gai ontan bestelakoa izan da. Ponpeu Fabrak bezela itxedon, erriaren postura ikusi arte: diktadurak baztatu: utzi guztioi itz egiten.

Ni bildur nintzan bezela, Arantzazun bertan azaldu ziran bi alderdi: *Oñez* eta *Ganboa*. Etzan arritzeko, an gauzak planteatu ziran bezela. Gai garratzak erabilli ziran: garratztxoak, alderdirik ez sortzeko. Aditzaren arazoa baztatu egin zan, gai zailtxoa zala-ta; bañan ori bezain zaila dan H-ren gaia ukitu zan, gai teoriaran errexa Mitxelena baten eskuetarako, bañan praktikan zailtasun aundiak dituana: gutxienez bi gizaldi —berreun urte— Bizkaian eta Gipuzkoan erabilli ez dan elementu bat, orain, bat-batean, gabetik goizera ezartzea... Gauza zaila benetan... Eta bereala etorri zan ni bildurtzen ninduana: *Oñaz* eta *Ganboa*. Guztiok zerate testigu. An bertan. Eta gero, ondoren, zer esanik ez.

Orain galdera bat: Zer egin bear zuan Euskaltzaindiak arazo ta ereti ortan, bidagurutz ortan? Batzuen alde eta besteen kontra bere burua azaldu?

Nere iritzian, Euskaltzaindiak *neutral* izan bear du olako auzietan; eta ortara saiatu naiz ni alegin guztian: neutralidade oni eusten.

Euskaltzaindiaren egitekoa auzi ontan guztiontzako alkar-izketa giro bat sortzea da, alkar-izketa giro paketsu bat. Auzi zalla dan ezkerero, utzi guztioi itz egiten, entzun guztiona.

Arantzazun alderdi baten itza entzun zan, batez ere. Beste alderdiarena ere entzun bearra zegon. Eta ortarako ekilibrio on bat izateko, bear dan beta artu. Luzatu bear bada, luzatu. Gauzak diktadoreki egin, ez. Ori izan da, diot berriz ere, ardura urte t'erdia ontan.

Batzuren batzuek Euskaltzaindiak bereala, zirt-edo-zart, erabakitzea naiko zuten. Alde batetik eta bestetik, Ponpeu Fabrak, leen ere esan det eta, Katalunian amar urteko epea eman zuan. Eta amar urteren buruan balantze bat egin, erriak zertara jotzen duan.

Bide luzea dala? Sobra dakigu. Baiñan gauzak diran bezela artu bearra dago. Bereala eta *por decreto* gauzak egiten asteak ba dakigu zer dakarren, Xenpelarrena: «Gaitzak gerala umiltzen»...

Arrue jaunak esan zuan. Baiñan ez Arrue jaunak bakarrik; Mitxelena jaunak berak ere, bi edo iru aldiz, gauza bera esan zigun. Ez bera, ez Euskaltzaindia, ez dala nor, bere konklusioak iñori ezartzeko... Berak ere etzuan nai diktadurarik. Ezarri, ez. Arau batzuk eman, ori bai. A. Villasantek itz bitan esan zuana: Mitxelena jaunaren ikasgaiak *valor normativo* dutela, ez *valor preceptivorik*. Gu ez gera nor gai ontan agintzeko. Euskeraren jaun da jabe erria da, ez gu. Guk ezin dezakegu agindu. Bide bat erakutsi, bai. Baiñan guk erakutsitako bide ori erriak jarraitu bear du. Eta jarraitzen duan ala ez, praktikan ikusten da.

Orain praktikari buruz zer? Urte t'erdiko praktikari buruz, zer?

Nere itzak ez dezala iñor ofendi. Baiñan esan bearra dago batasuna egin naiean asi giñan. Nik uste, ez genduala bide ona aukeratu. Ortografi-gaia ukitzean, H-ren

auzia ipiñi genduan mai-gaiñean. Zoritxarrean. Batasuna sortu bearrean, bitasuna sortu zaigu. Eta nolako bitasuna! Bitasun psikologikoa, asarrea, burruka...

Urte t'erdiko esperientziak beste gauza bat ere erakutsi du: ez H-ren arraixkutasuna, H-ren zailtasuna.

Batasunak bi gauza eskatzen ditu batez ere: Oiñarri zabala eta denbora, denbora luzea. Ponpeu Fabraren pazientzia ta egoarria.

Orra nere iritzia itz gutxitan.

Eta orra nere iru urte oietako deskargoa». (*Zeruko Argia*, 362. Zenb., 7).

Kontu-emate au eman ondoren, urte erdi jarraitu zuen euskaltzainburu. Baiña azpi-lan zitala egin zioten eta ondorengo izendatu ziotenean, berriz izan zuen itz egin bearra batzar batean Arantzazuko erabakiei buruz, baizik-eta ez zutela agindu-zorrotzik ezartzen.

Kontu-emate onek naiko argi erakutsi du garai artako giroa. Baiña ontan Le-kuonaren jokabidea egiazko akademikoarena izan zala esan bearra dago. Beste batzuk Oñez-Ganboatarren giroak ito zituen eta badaezpadako bideak artzera eramane eta beren bide ori besteei ezartzera.

Gauza asko aaztu ziran ordu artan: euskaltzaindiak aurretiaz jarritako arauak, eta Arantzazuko erabakiaren itzak berak ere bai. Euskaltzaindiak aurretiaz erabakita zeukan ez zala iñolaz ere arau edo norma estu zorrotzik artuko; gauza askotan, puntu askotan bi edo iru bide aukeran utziko zitala. Ori zan akademi-legea (olako lege aukera bi edo irukorik badu Madrilgo Akademiak ere, aren iztegian ikusi daitekenez). Aaztu egin zan bide ori.

Arantzazuko erabakien auzia, berriz, ez ote da aurkeri farragarri ia biurtu? Euskaltzaindiaren babespean, euskal-idazle guztiena izan zan batzar ura. An erabakitzekoak batzorde baten esku utzi ziran. Aaztu zan batzorde onen egitekoa ere, eta gero an atera zan erabakia, beste baten aurrerapen zalakoa, gero Oñatiko batzar nagusian (egitekoa zan batzarrean), gauzak zeatzago aztertu ondoren ikusi bearrekoa zan, an azken-itza emateko. Baiña, au arrigarria, aurrerapena, aurre-itza, ez dakigu nola, azken-itz gertatu zan, eta «ongi ikusiko zuelako, gaizki ikusiko ez zuelako bat», arau eta agindu zorrotz. Eta azkenez, Arantzazuko erabaki ori, batzorde batena izan bear zuen ori, Euskaltzaindiaren beraren batzar-erabaki izan zala «dogma» egin zuten. Nork izenpetu zuen, zenbat boto izan zituen? Ori ez da iñoiz esan ez argitu. Zortziren bat euskaltzain oso bazitala an? Baiña ez ortarako deituak. Zenbatak eman zuten baietza, edo zenbatak ezetza? Iñork ere ez, bear bada; Arantzazuko adierazpena benetako erabakitzat iñork artu ez zuelako, konponbidetzat baizik.

Geroago, Euskaltzaindian auzi bera berriz *proposatu* zanean ere, berdin. Ez da agertuko ez nor zegoen alde ez nor aurka. Ez zan izan autarkirik ematerik, botaziorik. Ez da olakorik aipatzen. Batek itz egin, eta besteak: Amen, beude ixillik. (Ori bai, bear bada, ba ziran an zazpi euskaltzain nagusi). Gero baiño gero gaizkiago ulertzen da askotan euskaltzainen bidea.

Nere lantxo onek kondaira-lan izan bear zuen, Lekuona euskaltzain bezela aurkezteko; baiña eztabaida-lan ez ote da biurtzen ari? Ala ere gaiak berak ekarri du sugaia. Borroka-giroa, Oñazar-Ganboatar giroa, noiz nai azaltzen da gai auen inguruan. Orregatik ez det amaitu nai salakuntza bat egin gabe.

Arantzazuko batzarrean zorrotz entzun zan Mitxelena jaunaren mintzoa: «Euskera batua, Liturgian ez! Liturgian, azken!».

Maixuaren eskolakoak dirala dioten batzuk ez dute istillurik gutxi atera, bada, Elizaren aurka euskera *batuaren* izenean, liturgiako euskera dala ta ezkala. «Atzerakoi eta erriaren etsai», itz gozoak dira auen aotan. Argia legoke gure erria, euskera *batu* orren soñuan dantzan egin bear balu, norbaitzuen gogara! Kasu bat atera dezadan: Barandiaran jaunaren libum bat euskera ortan argitaratu dute oraintsu. Gaur argitaratu bear balute, berriz aldatu bear ko lukete, ikutu berriak egiñez.

Liturgiako euskeraren aurka entzuten dan zaunka ori ez ote da Lekuona jaunari dioten begi gaiztotik sortua? Galdera bat besterik ez det egiten, Lekuona baita Liturgi-euskeratzailléen bum.

Baiña, Liturgi-lanetan buru dan bezela, Euskaltzaindian bum jarraitu balu, bear bada, ez zan ez Euskaltzaindiaren kaltetan ez euskeraren kaltetan izango*.

Geigarria

Argitaratu berri dan liburu batek (*Koldo Mitxelena*, Ibarzabal idazleak idatzia, eta Ibarzabalek galde eta Mitxelenak erantzun, galde-erantzunez egiña) ari berria ematen dit gai oni geigarritxo au ezarteko.

Liburu ortatik nere gaiari urbillenik dagokiona jasoko det. Eta, leenik, Mitxelenak dioen auxe: «Alguien publicó un panfleto, atacando su figura (Lekuonarena), de una manera denigrante. Escribir aquello contra Don Manuel, que gozaba de una general simpatía en el País, fue, además de otras cosas, un desacierto político total». Urrengo lerro batean «libelo» esaten dio panfleto berari. Mitxelena jaunaren itz auen aurka ez daukat zer esanik.

Baiña itzok esan ondoren, beste batzuk, ez ain egokiak, ez ain ongi artzekoak ez ain ederki esanak, atera dira Mitxelenaren agotik. Ona: «En el fondo del enfrentamiento con Don Manuel, había una "disputa subterránea", y que, por extraña razón, nunca ha salido a la luz. Yo la he sacado varias veces, pero, como suele ocurrir muchas veces a menudo, la "oposición", practica la retirada clásica, no hace caso y se deja pasar». Eta zertan da «disputa subterránea» dalako ori? Labur esan dezagun: Lekuona jauna liturgi-batzordearen bum izan, nonbait, Mitxelena jaunak uste duenez, eta talde edo batzorde orri iñork ez omen zion eman euskeraren batasuna egiteko arazorik, baiña berak artu artarako iñork eman gabeko eskubidea, eta bere batasuna euskaldun guziei ezarri nai izan omen zien. Lekuona jaunak ez omen du jakin istillu ortan sartu nai zutenei ezetz esaten, uko egiten: «El no podía renegar de ellos».

Itz auetan Lekuonaren eta beronen adiskideen aurka datorren salakuntza oiñarri gabekoa da eta Mitxelena beraren aurka biurtzen dala esan bearrean nago.

Mitxelena jaunaren oker-uste bat baiño geiago ageri dira or. Lenengo oker-ustea: Lekuona ez da izan iñongo Liturgi-batzorderen bum, Liturgi-euskeratzailléena baizik.

* Emen amaitzen da «Kardaberaz-Bilduma»ko artikulua.

Bata eta bestea ez dira gauza bera. Bigarren oker-ustea: Liturgi-euskeratzaileen talde onek ez du euskeraren batasuna bere kontura egiteko arazorik ez eskubiderik artu. Irugarren oker-ustea: Mitxelenaren susmo txar eta salakuntza oiek ez ziran erantzunik gabe gelditu.

Ain zuzen, nerau izan nintzan erantzule. Bat, gutxienez. Badira gutxienez bost urtetik gora nere lantxo bat agertu zala, gai ori astinduz (1). Antxe erantzuten nien Mitxelenaren eta beronen antzekoen susmo eta salakuntzei. Berak irakurri ez balinbadu, ez dezaioke errurik egotzi beste iñori. Au ere aurretiaz esan nuen: «Ez daukat entzungo nautelako uste andirik. Leengo leloren bat berriz ere entzun eta irakurri bearko degu oraindik, eta norbaitzuk Aita Santuaren esanak bezela artuko dituzte». Ara: igarle atera naiz, igarle erreza eta merkea, noski, gure arteko giro kaxkarra ikusten duenarentzat gauzarik errezena baita olako iragarpenik egin eta asmatzea.

Edozeiñek jakin dezake Liturgi-itzulpenetako batasunak ez daukala zer-ikusiri andirik izkuntzen batasunarekin ez bitasunarekin. «Izkuntza bakoitzerako itzulpen bakarra egiteko agindua dago; baiña (ala esaten nuen) batez ere (*praesertim*) izkuntza zabalduenetarako emana dago (agindu ori), eta ez dauka izkuntzen batasun-auziarekin zer-ikusirik (Itzulpen ezberdiñak ugaritu ez ditezen agindu da ori, liburuen merketasunari eta duintasunari begiraturik, izkuntzarik batuenetan ere itzulpen ezberdiñak egin baititezke).

«Liturgi-euskeratzaileen taldeak Elizaren aginduei erantzun nai izan die, Vaticano-ko Ilgarren Kontzilioaren aginduei, alegia». Bugninik, mundu guztirako lan egiten zuen Liturgi-sailleko zuzendariak, euskeraren euskalkitan banandutako egoera ezagutu eta gogoan izanik, Iruñen euskaldunentzat esan zuenez, «eguneroko otoitzak eta erriaren erantzunak alik berdiñenak bear ziran egin, euskal-meza guztietan bateratsu erabiltzeko erakoak». Ortik aurrera, urtean bein edo esan bear diran irakurgaitarako, askatasun zabalagoa dago. Beude ortik kezkarik gabe, bai Mitxelena eta bai Aita Mokoroa» (Mitxelena, euskera batuaren auzirik or ez zegoelako, eta Mokoroa aita, au bildur baitzan, itzulpenak oso berdiñak egin ezik, Erroman ez ote zizkiguten onartuko on artu dizkigu).

Eta euskeratzaileen jokabideari zegokionez, auxe esaten nuen: «Egiñala egiten da alik eta geien batasunera joten. Ori egoki da eta zuzen. Baiña batasun onek [ona irugarrenez gauza bera esan] ez du zer-ikusirik euskera batuaren auziarekin. Auzi au sortu baiño lenago (Arantzazuko batzarra baiño lau urte lenago) asia da Liturgi-taldea esan dan bidetik ibiltzen, eta ez dauka oraindik bide ori aldatu bearrik. Euskera batu ori sortzeko dago, gaiñera. Askok egiña balego bezela jokatu nai badute, beste konturik da ori, eta aien gain bego kontu ori garbitzea. Zer nai zuten? Beren aizea nora, besteak ara ibiltzea? Batasun ori dala-ta, ikusi ditugu zenbait atzera eta aurrera, urrats bat aurrera gaur eta biar beste bat atzera egiten. Beste guziok ere dantza-saio ortan sartzea nai ote zuten?».

Eta beste salakuntza batzuei, Euskaltzaindiarekin muturka zebilzatelakoari eta erantzun ondoren, au gaiñeritzen nuen: «Baiña bada besterik ere. Mitxelena da euskera batua dalako orren maisu, tekniko eta gidari. Eta aaztu al dute maxiatzailleok

(1) Ik. 866-890. orr.

jaun orrek, Arantzazun, euskera batuari buruz ari zala esana: «Liturgi-izkuntzan oraindik ez iñolaz ere [euskera batu ori]. Azken-azkeneko, Liturgian».

«Liturgi-batzordeak ez dio, ez, arririk eman nai gure erriari. Ezer ematekotan, ogia emango dio, agora eramateko ogirik gozoena, egiñalean. Liturgian erriak ori bear du, ez arrotz eta gogor egingo zaionik ezer. Orretarako ez da Liturgian latiña utzi eta erri-izkuntza sartu. Liturgia ez da, atzeraka eta aurreraka, saioka ibiltzeko lekua. Leengoari, euskera biziari jarraituz, eta nolabaiteko batasunera joaz, aski du oraingoz Mitxelenak esana: Euskera batua Liturgian oraindik ez iñolaz ere».

Emen aldatu ditudan itzak eta beste argitasunik naiko, orain bospasei urte idatziak eta argitaratuak dira (Ikus «Jaunaren Deia», 41 (1972), 333-337 orr.) (2). Mitxelena jaunak ez dezala esan jaramonik egin ez zaionik ez iñork erantzun ez dionik.

Lekuonaren aurkako azpi-giroak, amurruak edo *enfrentamiento* dalako orrek ez du zentzuzko oiñarririk; ez-jakiñez edo, asmo gaiztoz edo, illunperen batean asmatutako bear-eztankeria, besterik ez da izan. Eragiñago eta ziriñago, ziriñago eta atsituago gelditzen da asmatzaillearen edo asmatzailleen gorotz ori. Asmatu dutenek garbitu bearko dute, ez Lekuonak, ez Liturgi-taldeak.

Gaur, askok, eta buru bero ez diran askok, Liturgiako batasuna edo dalakoa bestea baiño egokiagotzat baldin badaukate, eta beste batzuk legerik onenekotzat daukaten euskera batua euskeraren salbagarri baiño ilgarri lenago izango ez ete dan bildur badira, ori beste kontu bat, beste auzi bat da. Eta auzi au ere ez du Lekuonak ez Liturgi-taldeak garbitu bearrik.

Esanak esan ondoren, asierako lerroetan Krutwig jauna aipatu dedan ezkerro, ez det uste alperrikako gauza izango danik, gizon oni buruz Mitxelenak esanari, alderen batetik, argitasuntxoren bat ematea. Krutwig jaunak, Mitxelenaren iritziz, ez omen zuen atzerrira iges egin bear izan, Villasante Aitak Euskaltzaindian sartu zaneke itzaldiari eman zion erantzunagatik. Krutwig orren itzetan ez omen zegoen legezigorren bildurrik izateko gairik, baiña, «en el caso de que Krutwig fuera católico, quizá sí le hubiera para una excomunió». Azkenengo au xeblebrekerizko ateralditzat baizik artu dezakegunik ez det uste. Praille baten sarrerako itzaldiari euskaltzain batek, akademiku batek, «eskumikua» merezitzeko gauzak esan? Ori Krutwig jaunarentzat ere, eta Aita Villasanteren lagun andia berau, geiegi dala uste det. Krutwig jaunaren itzaldiaren mamia nondik artua zan badakit. Neronek eman nion artarako M. Intxaurren apaizaren lana: «La Iglesia y el Euskera», Iruñako Apaizgaitegian bertako euskal-irakasle zanaren Ikastaro baten sarreran egindako itzaldia, iñoiz iñongo eskumikurik merezi ez duena. Ez dago an Elizarentzat, ezin egon, «crítica feroz» esatekorik. Eta Ilario Bilbao jaunak Krutwig jaunaren itzaldiaren mamia ulertzea ere ez da bat ere arritzekoa, jaun orren itzaldiak aleman, ingles, frantzes nai edozein erderazko esaldiz beterik egoten baitziran. Eta euskera bera ulertu ezarren, nola ez ulertu beste erderakadak, beiñik bein?

Eta lengo arira itzuliz, ona nere azken-itza. Mitxelenak Lekuonari buruz esandako itzak nik ongi-etorritz artzen ditut, aitorpen bezela, bere buruaren eta beste

(2) Ik. 866-890. orr.

batzuen aurkako aitorten bezela. Auzi ontan ibilli dan jokia, ez argi ez garbiegi dagoen jokia salatzen dute. Euskaltzaiñek beren artean billatu bearko lukete eta garbitu, nor izan dan edo nortzuk izan diran «enfrentamiento» dalako orren, «libelo» eta «panfleto denigrante» dalako orren errudun. Ez dezatela ez On Manuelengan, ez Liturgi-taldean billatu. Eta era batera, On Manuelen erorikoa, Euskaltzain burutza uztea edo galtzea arau bat betebear utsak ez zuela ekarri, ez ote litzake argi aski geldituko? «Había un reglamento» otz-otzik eta errez esan du Mitxelenak, orrekin dana esan bailegoan. Arauek ez dute odolik, ez otzik ez berorik; gizonek, araua bete bear dutenek, bai, noski baiño noskiago. Mitxelenaren itzek ere ez dute orrenbeste gezurtatu ez ukatu, bai ageriago utzi.

MANUEL LEKUONA ETA AOZKO EUSKAL LITERATURA*

Urte mordo ederra da, ia irurogei eta amar urte, gaurko omenaldiko gizon onek zorionezko etorrera egin zuela gure literaturaren alorrera. Zorionezko etorrera benetan, batez ere, gure aozko literaturarentzat. Ordurik egokienean etorri zan bera, ain zuzen, gure erri-literatura burua jasotzen asia zegoen garaian.

Luzaroegi egon izan gera euskaldunok munduan erri mututzat. Izkuntza berezi baten jabe izan arren, iñolako literaturarik gabekotzat geunden, izkuntza au gauza ez balitz bezala ezer baliozkorik edo aintzat artzekorik adierazteko. Edozein erri-literaturari gutxi esten zioten aldietan, gurea gutxiestekoago izan bear, emen ez baitzuten alerik aurkitzen.

Gaur gauzak aldatuxe dira. Erri-literaturei etorri zitzaien beren garaia. Gureari ere bai, noiz baiten, eta gero eta ezagutuago degu, ikertuago eta ederretsiago. Emerezgarren mendean asirik, ainbat aztertzaile saiatu izan dira, bai gure artean eta bai atzerritarren artean, gure folklore altxorrak billatu, bildu eta munduan zear ezaguerazten. Atzerritar baten aldamenen euskaldun bat aipatzearen, orra Iztueta eta Michel, Sallaberri eta Webster, Arakistain, Santesteban, eta Vinson. Eta gure mendean sartuago, orra euskaldun mordoak: Azkue, Aita Donostia, Barbier, Barandiaran, Mayi Ariztia...

Ondorena ba dakigu: guztien artean ez dute uzta urria bildu: ipui, esaera, edo tariko kanta eta bertso zaar eta bertso berri. Arrobia ez da agortu oraindik. Billatzaile eta biltzaileon lana ez da izan edonolakoa. Eta, bertatik, orra aztertzaillen egitekoa asi. Orra Lekuona jaunaren ordu berezia.

Esan dudan au ez beza iñork gaizki ulertu. Ez dut esan nai Lekuona bera billatzaile eta biltzaileetako izan ez degunik. Gazterik agertzen zaigu olako lanetan

* In: *Manuel Lekuonai i nmenaldia*, Donostia 1983, 19-27.

buru-belarri sarturik, eta ala irau du bere bizi guztian. Billatzaille eta biltzaille, leenik, bere ekitez, eta, gaiñera, lankideen bitartez, Gazteizko apaizgai euskaldunak lankide arturik. Lekuonak badu, bai, bere lekua alor onetan billatzaille izan diranen artean. Barandiaran eta bera, garai batean, bateratsu ibilliak dira, elkarren sustatzaille eta laguntzaille. Biek, apaizgaien irakasleen opor-egunak ongi baliatzen zituzten olako lanetako. Baiña, ori bai, Lekuonak billatzaille-lana aurrera eramango du, baiña eztertzaille-lanetan nabarmenduko da geiago, Biltzaille lanari gailurra jarriko dio, gure erri-literaturaren barrunbeetan sartuz.

Ordu egokian gizon egokia etorri zitzaion literatura oni. Gizon egokia, artarako jaioa bezalakoa. Lekuonarengan erri xeeak eta gizon eskolatuak uztarketarik zorionezkoena egin dute. Erritik seminariora eta seminariotik errira ibillia dugu. Erritik atera dan mutillari seminarioak begiak zabaldu egin dizkio; kultura nagusien giro eta barneetan sartu du; tresna berriak, teknika berriak jarri dizkio eskuetan. Gero, argi berriak buruan eta tresna berriak eskuan, bere errira itzultzen da, bere erriko kulturara eta erri-literaturara zuzentzen du bere begi zorrotz argia. Eta or dator azter-lana, ea non eta zertan diran bateko eta besteko kulturak berdin edo ezberdin, ea zertan dan batetik besterako alde, ea zertan datzan gurearen berezitasuna.

Eskolak eman dizkion argiak ongi daude; baiña gure azterlari onek besterik ere badu, egin nai duen azterlanerako egokiagotzen duenik: barrutik datorkion argia, euskal-girorik jatorrenetakoan bizi izanak eman diona. Euskalerriko txokorik euskaldunenetakoan jai eta azia degu, euskal-gogoa garbienik gorde izan duen erri bateko semea. Giro ortan bizi izan da aur-aurretarik, bertsolaritzak eta beste euskal-animaren agergarri askok ainbesteko oiartzuna izan duten Oiartzunen, eta or edan du euskal-animari ulertzeko sena, euskal-sen berezia. Euskal-animan sartzeko euskaldun jatorra izan bear da eta euskalduntasuna bame-barnean eraman eta gero olerkari begiak izan. Eta olaxe, olerkari-begiz, maite-begiz urbildu animara eta aren barneak argitu. Orixe egin du gure oiartzuar jatorrak, olaxe urbildu da gure aozko literaturaren bame-muiñak ulertu eta adieraztera. Olaxe egin zaigu gure arteko bertsolaritzaren, gure koplaz zaarren, eta gure aur-kanten aztertzaille zorrotz eta argitsuena.

Baiña goazen poliki-poliki. Itzaldi labur batean ez dago Lekuonak eremu onetan egin duen lan guztiaren berri ematerik ez eman bearrik. Era batera edo bestera, bere bizi guztian ekin dio lan oni, gure aozko literatura argitzeari. Eta gai onetan oiñarrizko lana, osoena eta sakonena zein dan edozeinek daki: «Literatura oral euskérica» liburua, 1935n argitara emana. Ez du ala ere leenbizikoa. Leenago egiñak bazituen beste bi, emen aipatu bearrekoak «Brabanteko Jenobeba» bere itzaurrearekin, eta Eusko-Ikaskuntzaren Bergarako Batzarrean 1930n irakurritako itzaldia.

Zer da Brabanteko Jenobeba ori? Joan Kruz Zapirain, Errenderiko bertsolariak, ondatuko poematxoa, eskolarik batere gabeko bertsolari batek egiña, emazteak arratsean Jenobebaren bizitza irakurri ala, gabaz oean senarrak bertsotara aldatua. Urrengo egunean, senarrak bertsoak, kantatu ala, emazteak paperera aldatzen zizkion, Jenobebaren bizitza guztia osatu arte. Poematxo ori Lekuonak argitaratuko du eta itzaurre batez ornitu. Eta itzaurre ortan azaltzen dira gure arteko bertsolaritzaren ainbat berezitasun gogoangarri: bertsolarien oroimen azkarra, asmatu dituen bertsoak buman artu eta gordetzeko; bertsoen egokitasuna, tinkotasuna; kontaeraren bizkorra, alkar-

izketen bizia eta laburra, estrofa bakoitzean azken bertsoak duen garrantzia eta indarra. Azken-bertso ori, poema ontan, ez da, ziri edo zirtozkoa izango, bertsolarien saioretan izan oi dan bezala; baiña, bai, gaiari dagokionez, gogoeta edo esaera sakontxoagoren bat, edo beste uste gabeko zerbait, edo urrengo bertsoarekin giltz egingo duen zer edo zer, kontaerari bizitasuna emango diona. Dena, bertsolaritzaren legeen arabera. Or asi da Lekuona bertsolaritzaz bere leen argibideak ematen.

Bergarako itzaldian sakonago eta edatuago jorratuko du gai bera. Gure erri-musikak, esaterako, eder-iritzi zabala irabazia zuen, artan jakintsu ziranak arriturik zeuzkan, baiña gure erri-literaturak eta bertsoak ez. Gauza arlotetzat zeuzkaten. Gure oiartzuarra ez da iritzi ortakoa, eta bertsolarien eta koplak zaarren aldera ateratzen da, aien muiña eta aien literatur-balioak luze eta zabal argitan emanez. Itzaldia 1930koa da, baiña ez zen argitaratu andik laugarren urterarte. Bitarte ortan gaiok sakonago arrotzeko astia artzen du, eta orra non datorren 1935n urrengo lana, Lekuonaren maisu-lana: «Literatura oral euskérica» (Colección Zabalkundea, 17, 168 orrialdeko liburua). Beste bi argitaraldi izango ditu (Colección Auñamendi, zerbait geiturik, 224 orrialde) eta oraintsuago, (Kardaberaz Bilduma, 22, 259-540).

Liburu ontan dugu gure erri-literatura, bapateko bertsolaritza, bertso-paperetako, koplak zaarretakoa, aurkanta eta jolasetakoa, zetz azaldu eta argi berritan jarria, bakoitza bere lege eta teknikarekin.

Argi berritan dugu or bertsolarien trebetasuna, bapatekotasuna. Leenbizi, azkenengo puntua, punturik zorrotzema asmatu; gero, arekin bat egiteko punto egokienak bururatu, eta ezarian bai arian, goitik beera, arranoa bezala, azkenengo puntura jetxi. Aurreko puntuak azkenarekin egokien tajutzean, ortan datza eta or ageriko da bertsolariaren bertsolari-sena eta balioa. Eta bapatean, begien itxi-iriki batean asmatu eta egin bear du dena. Bertsolari onak, erriak ongi artzen duenak, olaxe egiten du.

Kultura aundi direlakoei agur aundi egiten dieten askok trakets eta nardagarri aurkitzen zuten gure bertsolarien lana, bertso etenez, elkarrekin aririk edo ikustekorik gabeko bertsoz betea. Lekuonak emandako argibideak olako iritzi-miritzi eta arbuioak deuseztu eta aienatzera etorri dira. Bertsolariek badute beren aria, ez daude beren logikarik gabe, askotan atzekoz aurrerakoa badirudi ere.

Argi berria dakar gure azterlari onek koplak zaarretara ere. Koplak zaarrok antziña bateko koplarien baten bertsoak ditugu, noski. Gero, erriak beretu eta gizaldiz gizaldi erriaren aotan gureganaiño iritxi zaizkigu. Gabon, Urte zaar, Santa Ageda, Donibane eta Iñauterietako errondetan, eztaietan eta plazetakoa dantzetan izan dute beren leku berezia. Badute beren tankera, askori bitxi xamar egiten zaiona; bi erditan banandurik daude, itxuraz bata bestearrekin aririk ez duela. Leenengo erdiak inguruko edo izadiko ikusgarriren bat aipatzen du; bigarrenak darama koplakariak esan nai duena. Onoko au, esaterako, oso ezaguna da:

Eder zeruan izarra,
 errekaldean lizarra;
 etxe ontako nagusi jaunak
 urregorrizko bizarra.

Batak ez duela lokerarik, aririk bestearekin? Azalez eta itxuraz ez; baiña muiñez eta bamez, bai, Lekuonak argi aski jartzen duenez. Elkarrekin inñolazko lokerarik gabeko bertso erorik ez zuen erriak onartuko eta are gutxiago elkarrekin loturik mendez mende oroimenean atxiki eta gordeko.

Mundu ontan sarturik, Lekuonak badaki noizik bein bere murgilaldiak egiten mendeetan zear atzeraka, ea olako edo alako koplak noizkoak, nolako girotan sortuak izan daitezken. Eta batzuk artzai-arokoak, nekazari-arokoak, magiazko girokoak, erdi-arokoak dirala aurkitzen du. Bakoitzak ematen dio airen bat noizkoa degun antz emateko.

Lekuonaren iker-lan auetan, aur-kanta eta jolasak sail berezia, oso maitez ikertua osatzen dute. Mundu lilluragarria aurren mundua! Beren kanta eta jolasetako izkuntzak askotan misteriozko oiartzuna ekartzen digu belarrietara. Nork ulertu eta ulerteziko izkuntza ori? Mundu ortara ere zorrozuko du Lekuonak bere begia eta bai argitasunik eman ere. Ez du or aurkitzen umekeri utsezko oiartzunik, ez eta ere jolasneurria markatzeko tilili-talala utsa denik. Aurren kantak, izan, nagusiek egiñak dira, eta ez daude beren esan-naixorik gabe. Ama batek nola dakian, itxuraz onomatopei utsezko soñu artean *kutun* itzaz kate zoragarria egiten, aurrari lo eragiteko: *Tunkurrunku, ttunkuttunku, ttunkurrunkutuna*, edo ta, aurrari esnaturik duenean, *ttiki* itzaz, gauza bera, kate berdintsua josten: *Ttikirriki, ttiki-ttiki, ttikirriki tona*. Orrelaxe, kanta oietaz amaika xeetasun argigarri ematen badaki Lekuonak, aur eta amen biotzetaraiño sartzen dakian begi argiaz ikusita. Aurren mundua bere berea du. Eta ez du aski izan mundu ortan sartu eta literatura ori aztertzea. Literatura orren aberasgarri, aurrentzako kanta eta jolas berririk ere asmatu du eta txukunki argitara eman.

Olaxe gure erri-literaturari buruzko ikuspegi berri eta ustegabekoz beterik daukagu Lekuonaren liburua. Badakit ene txostentxo au motel, otz eta motz gelditzen dala arlo ontan Lekuonak egindakoaren neurria emateko. Orregatik, esan ditudanen osagarri, gizon siñisgarriago batzuen aitormen bat edo beste ezaguerazi nai dizkitzuet emen.

Eta ona, guztien aurrenik, Jorje Oteiza. Bakan eta bikaintzat dauka onek iartzuarraren lana. Batez ere sakontasuna, eta gizon jakintsuen zintzotasun eta zeaztasuna aurkitzen dizkio. Aozko literaturari buruzko liburuan emandako argibideak oso bikaintzat dauzka. Oteizak garbi aitortu du euskal-kulturaren ikertzailleen artean Lekuonari zor diola berak argirik geien; onenganik ikasi duela beste inñorganik baiño geiago.

Pelai Orozko idazleak bein eta berriz irakurri du «*Literatura oral euskérica*» liburua. Leenbiziko aldiz, liburua argitara berritan, gure zorigaiztoko gerratea sortu-aurrean, eta ona nolako eraso egin zion, berak aitortu duenez: «Liburu orretan, bat-batean, mundu berri bat iriki zitzaidala aitortu bear det. Ordutik urte asko igaro dira eta ur asko pasa da gure zubipetikan. Baiña ala ere, oroitzen naiz gaur bertan balitz bezela, nere orduko arrimen galantaz. Gero, beste batzutan, askotan ez esateko, berriz irakurri det Don Manuelen zorioneko idaztia, eta ainbat eta ainbat gustatzen zaitala iruditzen zait. Nere irtiziz, Don Manuel da —Oteizarekin, bakoitza bere aldetik— gure sikolojiaren ezkutapenetan geiena sakondu duena, eta gure anima nola

dan jakin nai dutenentzat «*Literatura oral euskérica*» eta «*Quousque tandem*», oiñarri liburuak dira, dudarik gabe». Eta ona azkenean zer gaiñerutzen duen: «Don Manuelkin beti ikasten dala zer edo zer, bai bazkari batean, edo billera batean, edo baita ere kalean bost minutuko izketatxoan».

Itzez urriago, baiña batere ez indar eta mami gutxiagokoa da L. Mitxelenaren esana. Onek ere «ainbeste bider aipatu eta erabili du liburu eder ori». Eta bereala au dio: «Bere saillean ez dugu izan geroztik [liburu ori leenbiziko aldiz argitara zenetik] aren ordezkorik ezta inguratzekorik ere. Euskal-gauzetarako gogorik duenak irakur beza lehen bait lehen liburu aberats bezain argia, ezagutzen ez badu. Ezagutzen duenak ez du iñork ezer esan bearrik, bein ta berriro joko baitu, iñork eragin gabe, iturri garbi orretara» (*Egan*, 1965, 176).

Mitxelenaren itzok, aobero batek esanak ezdiranak, noski, orain emezortzi urte idatziak dira; baiña gaur ere berriz esan daitezkenak diralakoa nago; ezdala gure artera Lekuonak aspalditxo artan eman zigun azterketalan ori berdintzekorik agertu, ez ari urbiltzekorik ere. Lan ain bete eta osozkoa atera zitzaion. Iñork ezer erantsi edo geitu baldin badio, maisu zarrak berak egin du, leengo argitasunak edatu, osotu eta biribiltzeko egin izan dituen ainbat itzaldi eta saiotan. Arlo ontan maisu zaar au bakan eta bakar gelditzen zaigu oraindik: benetan, euskal-kulturarentzat zorioneko orduan etorri zan zorioneko gizona.

Emen eman bear nion azkena nere jardun oni. Baiña zillegi bekik neretik zerbait geitzea. Gure aozko literaturaren maisu argi oni nere oparitxoa ekarri nai diot gaur. Arratiako koplak zaarretako bat da, nere errian entzun eta ikasitakoa. Lekuonak olako asko baditu ere, nere ustez au ez du ezagutzen. Ona koplaxoa:

Mendirik mendi laiñoa,
adarrak adar usoa;
ez zuk, laztana, besteri emon
zeure mosutxu gozoa.

Zein girotako koplak dan agirian dago. Maitaleak maiteari, beste iñori biotza eman ez dezaion, egiña. Baiña nik emen Euskalerrriak Lekuona gazteari beiñoa kantatutakotzat ulertzen dut. Nork ezdaki ixilleko txistu eta dei askok jotzen dutela gazte baten belarriara? Apaiz gaien belarrietara ere bai: «Begirazak beti gora eta gorago, kultura aundi ospetsuenen barrutietan sar adi, jo zak gorengo eliz-mailetara».

Asi-berrian, bere gaztetan orain maisu zaar degun onek entzun zuen, noski, aldameneko maisutzakoen batek esanik, ea zergatik zebillen uskerietan sartuta, baserriarrietan murgildurik. Lekuonak, bere musuaren gozoa galdu gabe, ez zien olako txistu eta erausiei jaramonik egin, bere erititik zetorkion deiari erantzun zion. Eta orduan erabakitako bidean iraun du, bere erriaren kultura eta anima aztertzen. Laiñoa mendiari bezala lotu zaio bere lanari, gure kulturaren illunpeak argitzen. Usoa adarrak adar bezala ibilli da, kultura orren agergerri diran puskak biltzen, guztiekin bere erriari bizi guztiko oparia eskeintzeko. Bere erriari leial iraun du beti, bere biotza eta lana bere apaizgoari eta bere erriari baizik eman gabe.

Eta gaur, Euskalerrriak eta euskal-elizak biotzez eskertzen dio bere leialtasuna eta ixil-ixillik burutu duen lana, jakintza-gizon jator baten eta elizgizon leial baten lan ederra. Eta onekin, ez dugu egiten zuk, On Manuel, aotan sarri erabiltzen duzun esaera bat bete besterik: *Duanari duana zor zaio*.

MANUEL LEKUONAREN GOMUTAGARRI (1894-1987)*

Oraingoan Manuel Lekuona zanaren gomuta dakargu gure aldizkari onen orrietara. Manuel Lekuona zana aitatuaz esanda dago ez dogula gaur gure artean bizirik, il egin jakula. Gure patroï andiaren egunean egin jakon azken agurra Oiartzungo eleiza nagusi ederrean Donostiko Gotzai dan J. Maria Setienek abade mordo ederragaz batera ospatu eban illeta-mezan.

Lekuona zarrak, nik dakidala, ez dau *Karmel* aldizkari onetan iñoz idatzi. Baiña gure zuzendariaren naia izan da eta *Karmel-ek* ez deutso bere gomutea eta bere omenalditxoak ukatu nai. Euskaldun eta Euskalerrri osoa gara beragaz zordun.

Euskalerrriko ainbeste erakunde eta alkartetan egon dan eta lan egin dauan gizona izan da bera: Gasteizko Seminarioan ogei urtez irakasle, an bertan Kardaberaz Bazkunaren edo Akademiaren sortzaille eta buru, Eusko-íkaskuntzako bazkide sortzailleetakoa, Euskaltzain (Euskaltzaindia sortu zanean izentauriko Urgazleen artekoetatik bizirik gelditzen zan bakarra), azken urteotan sortu zan Euskalerrirako Liturgi-euskeratzaillen Batzordeko eta Batzorde orren buru, eta abar.

Jaungoikoak urte luzeak emon deutsoz, eta Lekuonak ez ditu alperrerrian galdu. Bizi guztia emon dau Euskalerrriaren aldeko lanetan eta Eleizearen aldekoetan. Eta Euskalerrriak ez deutso ukatu bere zorra eta esker ona. Erriko agintari eta kultur gizonak an zirala, Euskalerrri osoa, mugaz andikoa eta emendikoa, Oiartzunen zan illeta egunean On Manuel zanari azken agurra egiten. Bertsolari ta guzti, erriaren agur eta omenaldi biotz-biotzetikoa egun atan egiñikoa.

Baiña il ondoko omenaldi ori ez ezik, beste omenaldi eta aitormen ederrik artuta egoan bere bizian Oiartzungo seme argia. Eta ederrenetakoa, bere erriak, Oiartzunek egin eutsana, abade egin zaneko urre-eztaien inguruan. Baiña orduan be, an ziran

* Karmel 1987-4, 6-20.

Euskalerriko alderdi biak. Bidasoaz arantzakoa eta onantzakoa. An ziran Iparraldeko gizon oso ezagun bi, Dassance eta Haristschelhar, zorabiatuak, Lekuonaren gorasarez Basarrik abestu zituen bertsoak eta gero bota eban bertso-puntuzko itzaldi luzea entzuten.

Kardaberaz Bazkuna ezin zeitekean gelditu bere sortzaille, arnas-emoille eta buru zana omendu barik. Tolosan itzaldizko omenaldia egin eutsan lenengo, eta gero, idazle askoren artean idatzita, Omenezko Idazki-bilduma iru tomotan eskiñi eutsan Jazinto Argaia Donostiako Gotzain Jaunaren aurkezpenarekin.

Gasteizko Teologi-Ikastegiak, lenagoko Seminarioak eta orain Facultad Teológica del Norte deritxonak, Lekuona, Joxe Migel Barandiaranegaz batera, 1980n Deduzko Irakasle (Doctor Honoris Causa) egin eban orretarako batzar andi baten.

Eusko-Ikaskuntzak ez eban aitzu sortu zan ezkerko bazkide eta urte askotan Literatura-saillako izan eban eta 1983n Victoria Eugenia Antzokian, emen be Iparraldea eta Egoaldea alkarturik ikusi zirala, bere omenaldia eskiñi eutsan eta bere izeneko Saria emon, eta omenaldiko itzaldiak liburu baten argitaratu zituen. Eta dana egun bateko jaialdi baten gelditu ez zedin eta Lekuonaren izena eta lana gerokoentzat gogoangarri egiteko, Eusko Ikaskuntzaren *Manuel Lekuona-Saria* urteroko sari egingo eban.

Gipuzkoako Aldundiak be Gipuzkoako gizon andien lerroan jarri dau gure Oiarzuarra. Bere Jauregian Lekuonaren irudia margolari on baten lana, ipiñi dau Gipuzkoako seme ospetsuen zerrenda geitu eta Jauregi barruko ormen apaingarri.

Era askotara erakutsi deutsoe euskaldunek, eta guztien ganetik giputzak, gizon oni deutsoen oneretxia eta guztizko aitormena. Baiña berari atsegiñik pozgarriena Euskalerriko bertsolariak egin eutsoen omenaldia izan zan: 1979ko Abenduaren 16n, bertsolarien Elkartearen erabagiz. 40 bertsolari, Euskalerriko entsutetsuenak, batu ziran Donostiako Balda Pelotalekuan euren maixu eta izan on emoillerik onenari euren maitasuna eta esker ona bertso berotan erakusten. Egun orretan, biotzak gaiñez eraginda eta negarrari eutsi eziñik, bere erantzuneko berbak ito egin jakozan eztarrian.

Omenaldi guztiok naiko argi diñoskue ez gagozala edozeiñen aurrean, gizon andi baten aurrean baiño; guk emen goratu ala baiño goragokoa dan baten aurrean. Ez goratzaille ez beratzaille askoren pekatuan ez geunke jausi gura. Kritikatzaille askoren pekatua izaten da dana norbere buruaren neurrira ekarte. Pekatu orri ingles idazle ospetsu batek txapelgillearen zoroa esaten eutsan: txapel-neurri bakarra euki eta besteen buru guztiak txapel orren barruan sartu bearra. Guk On Manuelen lan nagusienak aitaturko doguz, eta eurak emongo deuskue egillearen neurria. Eurak eta lan orreik emon deutsoen izena eta andi eretxiak.

Gazteizko irakasle-lana

Ogei urteko lana egin eban Lekuonak Gazteizko Apaizgaitegian, abade Mingtian, euskera irakasten, 1916tik 1936ra, an orduan, apaizgaientzat sortu eben eus-

kal-ikastolan. Ez zan, ez, goizegi sortu. Baziran amazortzi bat urte Azkue andiak *Euskaltzale* astekaritik abadegai euskaldunei euskera taiuz irakasteko deadarra jaurti ebala. Azkue bera asi zan 1914 inguruan Gazteizen bertan abadeentzat urtetan eban *El Cooperador del Clero* aldizkarian euskera sartzen, euskerazko sermoiak argitaratzen. Orain euskal-kulturari eleizgizonentzako Ikastegi atan leku zabala emon nai jako. An da Joxe Migel Barandiaran euskal-antropologia irakasteko eta an da Manuel Lekuona, besteak beste, euskera irakasteko. Onen ardurea eta egitekoa ez da euskal-gramatika irakastea bakarrik, euskal-literatura osoa be bai. Abadegai euskaldunak euren euskera erraz, ondo eta jator erabilten ikasita urten bear eben Gazteiztik. Euskeraz idazten erraztasuna lortzeko eta euren saiotoxoak egin al izateko, ikasleen artean barruko orri bat be aterako dabe. An oituko dira, Lekuona gidari dabela, euren idazle asikiñak emoten.

Ori naikoa ez dala, bertan sortuko da *Kardaberaz Academia*. Zetako? Kardaberaz aitaren arako esanari erantzuteko: «Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du». Lekuonak berak azalduko dau bein Akademia orren egitekoa eta elburua: «Apaiz eta apaizgaien artean euskal-idazleak sortu eta idazten trebatu». Zelan? Idatzi eta idatziz. «Aldian bein lantxo bat, bakoitzak al zuen ondoen egiña, ekarri bear zuan. Eta, txandan txandan, astiak agintzen zuen neurrian, gure batzarretan irakurri eta aztertu». Olan urtengo eben andik ainbat abadek idazteko eta sermoiak egiteko eskola egokia eukela.

Lekuonaren eskolak emoi ederrak emon zituen. Neu be noizik bein illeta-mezaren batera joaten dan bati entzunda nago ez dakiela berak nongo edo zelango eskolea dauken gure abadeak euren itzaldietan ain taiuz eta ain ederto itz egiteko. Lekuonak sortu eta zuzenduriko Kardaberaz Akademiak ba dau orretan zer ikusirik, urrean.

Seminarioko euskal-irakaslearen izena laster zabaldu zan Gazteiztik kanpora. Oiturea zan Seminarioan ikasturtea asteko egiten zan itzaldia inprentan argitaratzea, ia beti ikasle gazteenak egiña. Lekuonak izan eban itzaldi ori 1917-ko ikasturtearen asieran. Gaia: *La Métrica Vasca*. Euskaltzaleen artean arrimena sortu dau. Urrengo urtean, Oiñatin, Eusko-Ikaskuntza-ren Lenengoko Batzar andia da. Eta ango batzarkiden artean dabil abade gaztea, bera be bazkide egifiik. Andik aurrera bazkide jarraituko dau bere bizi guztiko.

Aozko literatura aztertzen

An, Oiñatiko Batzar andian entzun dauan itzaldi bat ez jako bape gogoko egin. An ikusi dau gure idazle jakitun diralakoak ez dabela gure bertsolaritza ulertzen, eta ez dirala ulertzeko gauza. Gizon arlote batzuen ganorabakoeri utsak baiño ez ei dabe urtetan Euskalerriko bertsolarien agotik. Lekuona bertsolari girorik onenetakoan jaioa da: Oiartzunen. Eta Oiartzunen bada bertsolari bat, orduan, ez idazten ez irakurten dakiena. Alan be bertso ederrak egiten daki. Andreak apalondoan Brabanteko Jenobebaren bizitza irakurri ala, urrengo goizerako gizonak, Joan Kruz Zapirainek, bertsotan jartzen dau dana eta andreari kantaten deutsoz paperera aldatzeko. Olan

poematxoa osoa sortzen dau, bertsolarien teknika eta lege arrigarritan egiña. Lekuonak ondo eta zeatz aztertu eta liburutan argitaratu egingo dau.

Era batera euskerazko erri-literatura sakon aztertu eta Eusko-Ikaskuntzaren Bosgarren Batzarrean irakurriko dau, 1930n, azterketaren ondorioa. Azterketak aurrera eta aurrera eroanez, 1935n argitaratuko dau gai onetan Lekuonaren maisu-lana doguna: «Literatura oral euskérica». Eta euskeraz gero *Aozko euskal-literatura* izenaz emona. Iru bat aldiz argitaratzea merezi izan dau. Eta abegirik beroena izan dau euskal-kulturan nagusi diranen artean. Liburu orretan emon deusku euskerazko erri-literatura bapateko bertsolariena, Koplara zarretakoa, ume kantetako eta umen olgetakoa, dana zeatz azaldu eta argi barritan jarrita, baktotxa bete lege eta teknikaz.

Liburu au euskal-bertsolaritza ulertzeko oiñarrizko liburu biurtu da. Liburu orre-gaitik dauke gure bertsolariak bere egillea euren maisu eta aitatzat. Oteizak eta Pelay Orozko erderaz esanak ez ekartearren, aitatu daiguzan Mitxelenaren euskerazkook beintzat: «Bere saillean ez dugu izan aren ordezkorik ezta inguratzekorik ere. Euskalgauzetarako gogorik duenak irakur beza lehen bait lehen liburu aberatz bezain argia, ezagutzen ez badu. Ezagutzen duenak ez du iñork ezer esan bearrik, bein eta berriro joko baitu, iñork eragin gabe, iturri garbi orretara» (Liburua bigarren aldiz argitara zanean, esanak).

Gure gerrate lotsagarria sortu aurretik, Gazteizko urte ederretan, beste sail batzuk be landu zituen; olerkia, eleiz-kantak, antzertia eta abar, gerrateak ixildu eban arte, beste guztiak ixildu bear izan eben lez. Agiriko lanik egin ezin, eta ixilpeko lanetara jo bearko dau.

Gauza jakiña da bere anaia abadea il egin eutsoela, ezelango epaiketa barik. Berak bizirik urten ebanean, pozik. Moja batzuen kapellau zan abade batek gorde eban bere kapellau-etxean. Gordeleku orretan egingo ditu bost urte.

Ixilpeko eta erbesteko lanetan

Ostenduta egon bear dauan arren, ez da bere lanai ekin barik egongo. Libururik ezean, gogo-aunzarketari ekingo deutso, askotan gogoan erabilitako gaiak aztertu eta argiago ipinten. Eta liburu barik be ez egoan beti. Kapellauak eta mojak ekarten eutsoezan sarri, batez bere maiteen zituenak: liburu zarrak, eta mojen artxiboko paper zarrak, euren mojaetxearen aztarrenak argitzeko. Antxe idatzita atera zituen gero, bere *Gerrateko amabi kanta*, ain zuzen, moja baktotxari eskinitako olerkiak.

Gordelekuko bost urteen ondoren Calahorrako erbestea. Calahorrako Katedraleko artxiboa, oberik amestu eziñeko lekua beretzat, Euskalerriko eleizearen antziñako aldiak argitzeko. Sagua gaztaibarruan sartuta lez dabil bera ango paper zar artean, ango agiri zarrak irakurtzen, kopiatzen eta gai baktotxa bere saillean jarten. Ordukoak ditu Calahorrako bertako Parrokien barri emoteko iru bat liburu, eta Euskalerritari dagokozan agiriak kopiatu ditu argitara emoteko.

Andik jarraituko deutso Gazteiz-en egoala artuta eukan oitura bati: Euskalerritik Riojaraiñoko artea, eleizetako arkitektura eta eskultura aztertzea. Orduan eta gero

ainbat arte-gai aztertuko ditu eta maixu andi baten antzera ekien Cicerone, gidari egiten eta nonaiko santuen edo irudien barri zeatz emoten.

Orduan eta gero egindako edesti eta lanez bost tomo lodi atera deusaz argitara Kardaberaz Bazkunak. Edesti-gaiak aztertzean, bertsoaritzaren mami eta teknika aztertzean lez, Lekuona bere-bereak dituena bideetatik dabil sarritan. Edesti-liburu andirik edo lengo aldietako arlo zabalik artzeko libururik ez dau idatziko. Andi eta luzeena bere erriko Oiartzunena dau. Beste batzuk Donosti ingumko erri edo parrokiak argitzeko idatzi ditu. Eta beste gai batzuetarako argibideak gitxien uste dan iturrietatik ataratera jotzen dau: toki baten etimologiatik, euskerazko itz baten edo oitura batetik. Irudimena edo antz emoteko sena dau gidari. Gauzak edo jazoerak ulertzeko eta diran lez ikusteko begi zorrotza dau geienetan. Lan politikak egin ditu orrela Euskalerriko jazoerak argitan ipinteko.

Madre Rafols-enak ziralako paperen guzurrak

Kondairazko gauzetan bere begirada zorrotzaz zertzuk argitu zituen ez gara zeetasunetan sartuko. Euskalerritik kanpo sortu ziran guzur batzuk zelan guzurtau zituen erakutsi besterik ez. Españan Errepublikak jarri zanean, Madre Rafols zala-koaren guzur batzuk zabal ebilzen, gero ta zabalduago, egunerik egunera guzur barriak asmata. Errepublikako gobemuaren mendean jazoten ziran erlijioaren eta eleiz-gizonen aurka jazoten ziran indarkeri guztiak eun urte baiño lenagotik Jaungoikoak Madre Rafols orri iragarri eutsazalakoa zabaltzen eben. Txitean pitean agertzen ziran ori esaten eben esku-idazki ziralakoak. Olango zer-esanez beterik etozan aldizkari asko, 1936ko gerrate aurretik eta gero, barriz, geiago, Francoren agintepean. Lekuonak ba ekian propaganda orren barri. Rafols orren igarketen berri emoten eban liburuxoen bat be eldu zan bere eskuetara. Berari, literatura aztertzen oituari, ez jakozan alde batzuetatik oso siñisgarri egiten: bertso batzuk txarto neurtuta, berba batzuk Madre Rafols orren egunetakoak ez ziranak eta abar. Eta orra bein, mojatxoek kapellau etxean ostenduta bizi zala, beti mojai liburu zar barrien eske egoanari, orra non ekarri deutsoezan, Iruñetik ekarrita, iru bat liburu: Madre Rafols-en propaganda egiten eben bi, eta beste Madre orren egunetakoa, Contreras baten *Despertador eucarístico* izenekoa, bertso ta guztikoa. Begiratu bat eurai egiten asi da, eta On Manuelek siñistu eziñik badiño: Baiña nok ipiñi ditu liburuok nire begien aurrean era batera? An eukan Rafolsen izenean zabaltzen ziran guzurren salataria. An eukan eskuetan guzur arein iturria. Norbaitek, norbaiten esku eskola gitxikoak Contrerasen liburitik aldatutako berbaz josiriko idazkiak ziran Rafolsen izenean argitaratzen ziranak. Madre Anaia, eun urte lenagokoak ziralako paperak zituena bera zan guzurrezko paper arein zabaltzaillea eta asmatzaillea.

Lekuonak zer egin dau? Contrerasen berbak eta bertsoak alde batean eta bestean aurrez aur Rafols-enak ziralakoak kopiatu, eta txosten bat egin eta al bait ariñen aldizkariren batera bialtzea erabagi. Nora?. Jesuiten aldizkarietara ez; jesuitak Rafols izeneko paperetan eta propaganda aretan sartuegitxo ikusten ditu. Eta Dominikoen *Ciencia tomista* Aldizkarira doa, *Fuentes de los escritos delaM. Rafols* titulu pean, egillearen izena gordeta. Berak gogatsu egin eban barre, bere lantxoa dominikoen

aldizkarian ikusi ebanean. Lantxo ori aldizkariaz batera laster eldu zan Erromara. Erromatik, Rafols-en izeneko guzurrezko propaganda ikusita, beingoan bialdu eutsen Españaiko gotzaiñei Rafols-en aitamenik geiago egitea galazoteko agindu zorrotza. Praille dominikoak ez eben jakin nor zan artikulua egilea eta bear bada oindio ez dabe jakin. Lekuonak bere gerrateko gordelektutik Francoren aldeko guzurrezko propaganda bati oiñak austeia lortu dau.

Liturgia barria euskeratzeko Batzordearen buru

Gerratea baiño lenagotik be, Gazteizko urteetan eleizearen alde lan asko egiña zan Lekuona: Gazteizko eleizbarrutirako Kristiñau Ikasbide barria euskeratzen; Gortzain Jaunen pastoralak, artzai-idazkiak euskeratzeko Batzordetik; *Gure Mixiolaria* aldizkarira mixiolari batzuk erderaz bialtzen ebezan lanak euskerara itzultzen. Ango Seminarioan irakasle ta ikasleak ateraten eben aldizkarian *Gymnasium* izenekoak be aurkitzen da berak egiñiko lanen bat edo beste. Gazteizko Eleizbarrutiak langille eta serbitzari ona izan eban beti gure eleiz-gizona. Baiña Vaticano-ko Eleiz Batzar nagusiak neke barriak ezarriko eutsezan munduan izkuntza guztietakoai: Liturgiako testoak baxotxari bere izkuntzara itzultzea, eta euskaldunei euskeraz, aspaldiko Jaungoiko-Zale Bazkunaren lemak iñoanez. Laster Liturgia guztia testo barriak aberastuko dabe, testo barriak eta ugariagoak Mezetan, Sakramentuetan eta Eguneroko Eleizotoitzetan. Lengo testoak be euskeratu dira, baiña laster ez dabe balioko.

Euskalerrri guztirako, Baionako, Bilboko, Donostiako eta Naparroako langillez osotuta, Batzorde bakarra sortuko da eta Batzordearen buru: gure Lekuona zarra (bere loba gazteagoaganik bereizteko olan izenpetzen ditu berak bere lan asko). Orduan Euskaltzaindiaren buru zan bera. Urte batzuetako nekea izango da, Batzordearentzat. Gaur amaitutzat emonda dago, argitaratuta, edo argitaratzeko bidean zatiren bat. Iru testotan zabaldu da: Baionarakoa, Donostia-Iruñerakoa, eta Bilborakoa. *Orduen Liturgia*, eguneroko otoitzerakoa, testo baten bakarrik, Egoaldekoentzat egiña. Iparaldekoak ez eben eurentzakorik egin nai izan. Bape arrazoi barik asarretu zan bein, Txipi Arbelbide edo olako bat, euskerazko *Orduen Liturgia* ez egoala euren gogoko euskeran egiña-ta.

Lana Batzordeko guztien artean banatuta egiten zan: baxotxean batek testoa itzuli, kopiak banatu, batzarrean irakurri, guztien artean aztertu eta azkenengo iku-tuak, orrazketak eta zuzenketak egin. Zuzenketak Lekuona jaunak jazoten zituen bere kopian, eta garbian idazteko mekanografoak, Sarobe Lezakarrak eroaten zituen, ma-kiñaz joteko.

Baiona aldeko batek Ordue-n Liturgiaren euskera salatu ebala esan dot ez dakit orain zein aldizkari edo astekaritan. Beste salakuntza bat egin jakon, ez Orduen Liturgiari bakarrik, Liturgia osoaren euskerari baiño. Eta salatzailla ez zan edozein: Koldo Mitxelena bera.

Lenengoz, itz erdika edo, Ibarzabal-ek Mitxelenagaz izaniko alkar izketazko liburuan dator. Salakuntza bata zein bestea ez-jakiñak eginak dira. Bataren ez-jakiña len aitatu dogu; salatariak ez ekian *Orduen Liturgia* ez zala Baiona aldekoentzat itzuli. Mitxelenak uste izan eban itzultzailla-Batzordea Euskaltzaindiaren batasunaren

aurkako batasun bat ezarri naiez ebillera. Beste artikulu baten salakuntza gogorragoa egin eban, Lekuona bera izentau eta gogor joten ebalu. Mitxelenak erantzuna bear ebalata neuk urten neban Batzordearen eta Lekuonaren alde. (1) Salakuntzak Lekuonaren izena baltziturik isten eban eta irain ori zuzendu bearra gogoratu neutsan Mitxelenari. Eta gaiñera aiztuta edo ez ete eukan Berak Arantzazuko Batzarrean esana: «Batasuna, Liturgian ez, oraindik ez». Itzultzaileen lanaren nondik norakoa lentxoago esanda gelditu da. Batzordean testo bakar bat egiten zan, baiña andik Baionakoak euren euskerara aldatzen eben, eta Bizkaikoak Bizkaikora. Guztiz, iru testo, alde bakotxeko euskaldunentzat ulergarrien egiteko asmotan, beste azpi-asmorik barik. Eta esan daigun Mitxelenaren alde, urrengo artikulu baten, bere salakuntza zazeratu egin ebalu, Batzordeak egiñiko *Orduen Liturgiaren* euskera ederra eta jatorra zala garbi autortuz. Asarrekortxoa zan noizik bein, baiña ba ekian bere senera etorten, eta oker esanak zuzentzen.

Lekuona eta Euskaltzaindia

Lengo lerroan esan dogunez, ia ikutu dogu Lekuonak bere bizian ikusi dauan aldirik mingarrietakoa. Lekuona Euskal Akademiaren sortzailletakoa izan da. Akademia sortu zan urte berean, 1919n akademiko nausien irugarren batzarrean, erakunde barria osotzeko izentau zituezan euskaltzain urgazleetakoa. Gero, gerrate ondoan, giroa apur bat ohera egiten asi danean, 1950n, euskaltzain osozko egingo dabe, eta 1967n Euskaltzain buru. Ain zuzen, Euskaltzaindiaren sorrerako berrogetamar urtegarrena, urrezkoa ezteietako, ospatzea jazo jako. Lekuona buru zala, ospatuko dira urre-ezteietako egun andi guztiak: Iruñen, Gazteizen, Bilbon, Donostian eta Baionan. Lekuona izan zan maiburuko Arantzazun egin zan iru eguneko batasun batzarrean be.

Bere kargua itxi baiño len, 1970ko urtarrilleko batzarrean, bere iru urteko burutzaren kontua emon gura izan dau: «Nere kontu ematea». Batasun kontuan Euskaltzaindiaren jokabidea argitu eta garbitu naiezko kontua da. Euskaltzaindiak ez ditu goitik bera, *por decreto* eta diktadoreki erabaki bear. Gai onetan Oñeizarren eta Ganboatarren giroa sortu ete dan edo sortuko ete dan arriskua ikusten dau berak. Burruka-giroa urrundu nai leuke Euskaltzaindiaren barruan.

Begiak itsu ez eukitea naikoa zan giro ori ikusteko. Arantzazuko batzarren aurretik eta ostetik or izan ziran *ultimatum* emoilak eta *zin* egilleak giroa lorrintzen. Ultimatum-ak eta *Ziñak* ez dira, ez, egokienak Academia baten agintzeko, eta ez dauke ikustekorik izkuntzalarien jakintzaz ez jokabidez. Lekuonak ez eban oker ikusi orduko giroa. Eta egoera orri, burrukazko giro orri, ez jako oraindio azkenik ikusten.

Gatx oso kaltegarriak dirau euskerearen irakaskuntzan. Taldekeria dabil nagusi, eta liburuetan, eta aldizkarietan naiz egunkarietan bakotxak bere opillari su egiten diardu, bakotxa bere euskera batua edo euskalgaito narrasa saltzen dabil, eta

(1) Ik. 192-193. orr.

euskerarentzat iñoz izan dan erri-erantzunik onena eta Jaurlaritzaren laguntzarik ugarrienak alperrik galtzen. Ori bai, dana erriaren izenean, baiña talde bakotzak bere burua erritzat dauala. Lerroak idazten diardudala irakurri dot talde eragillenetako baten illeta: euren lan guztia gora bera, euskera euskaldunen agotan atzeraka doala, eta gauzak aldatzeko diru geiagoren eske. Euskera maitagarriago egiten ez badakigu, diruak ez deusku salbauko.

Lekuonaren eritxian, taldekeria, Oñez ganboatarren giro txarra garbitu bearra egoan, edo garbitu arte epea artu. Euskaltzaindiak ez eban jakin arrisku ori bere bidetik kentzen. Edota beste okerreko aldera jo eban. Orregaitik edo Lekuona bere etxera joan zan, bere betiko lanei ekiteko. Eta Euskaltzaindiak ez dau bere buru izanaren *kontu ematea* bera be *Euskera-n* agertu, ez alan esateko eskurik artu ari egin jakozan omenaldietan.

Beste erakundeak pozik eskiñ deutsoe euren gogo beroen oparia: Eusko-Ikaskuntzak, Kardaberaz Bazkunak, Oiartzungo erriak, Gazteizko Teologi-Ikastegiak, Bertsolarien Elkarteak, Gipuzkoako Aldundiak.

Eta Euskalerriko Eleizeak, Jose Maria Setien Gotzainaren agotik ez eutsan omenaldirik txikiena egin Oiartzungo illeta mezan. Ain gizon apala, ain gizon langillea, Eleizeari bere lana ta nekeak ukatu barik erakutsi ebanari, parka eskatu eutsan, ordu larrienetan bertan bera itxita euki ebelako, bazterturik euki ebelako. Eta Lekuonaren bizi guztiko abade lana eta kultur-lana gogoraturik, alango kristiñau, alango abade eta alango kultur gizon izatea beti balio ederrekoa izango dala autortu eban. Euskalerritari eta Eleizeari izan eutsan leialtasuna ez dago, ez, Lekuonari ukatzerik.

Alan abestu eutsoen Gazteiz-en 1980ko zezeillaren 15n, *Deduzko eleiz-ijcasle* egin ebenean eta gora-kantu aretako berbakaz amaitu nai dogu *Karmel-eko* lantxo au:

*Lekuona'tar Manuel gizon ospetsuari
euskera izkuntzan eta euskal bertsolari-gaietan jakintsu bikainari
euskera-maixuen maixu leialtsuari
leen emen ikasle eta irakasle izanari
eta beti apaiz jator irauanari
ospe ta bake betea.*

Ospea emen Euskalerrian
ospea mundu osoan,
ta emen artu zituen neke
ta lan guztien ostean,
bake betea bedi arentzat
betiko bake lekuan,
ain maite zitun bertsolarien
eta aur txikien artean.

BIZKAIKO IDAZLE ANDI BATEN OPARI BARRIA*

SARRERA

Eusebio Erkiaga jaunak ez dau gure artean aurkezteko iñoren bearrik. Gaurko idazleen artean goi-maillakotzat dagoala edozeiñek daki. Gazte gazterik asi zan gure literaturako arloetan sartu eta gaillurrak joten. Ogetamaseiko gerratea baiño lenagotik asita, gero ta izen ederragoa irabazi dau ainbat elerti-sailletan. Olerkaritza, antzerkia eta elebarria landu ditu eta, gerratik arako ixillaldia kendu ezkeru, eten barik jarraitu dau lan eder baliozkorik emoten. Euron balioa askotan irabazi dituen sariak naiko argi autortzen dabe.

Bear bada iñor gitxik dakian lana egin dau gazetalaritzan be. Bizkaiko Bankuetetik lan ixilla, urtez urte euskerazko aldizkari txukuna ateratea ez da, ez, gauza utsa izan. Norentzako zan? Ameriketean zear, goitik beraiño, sakabanaturik bizi ziran euskaldunentzat. Gerrateak sakabanatuago egin zituen euskaldun askorentzat euren erritik joakien agurrik eta eskupekorik atsegingarriena zala esan bearrik ez. Eta dana, Erkiaga idazlearen neke ta izerdiai esker.

Lekeitiar argi au, osasunik dauan bitartean, ez da euskal-lanik egin barik egoitekoa. Eta gaur be, ona non jatorkun beste lan eta opari ederra eskuetarutzen: elebarri mardula, idatzi dituenetan bosgarrena, irakurleak eskuetan daukana. Laugarrena oindio argitara bage dauko.

Gaurko onetan 1936tik 1939ra bitarteko gerratean sartzen gaitu. Militarrek gure existiaren jabe eginda gelditzeak ekarritako bizi-giroaren ispilu izan gura dau. Eta aldi atako gerrate orrek gaia emon deutesen euskal-idazleen artean, joera barriaz dator Erkiaga: arlo onetan bide-urratzaille jatorku bera. Ikuspegi barri batetik begitu deutso

* In: Eusebio Erkiaga, *Jaioko dira*, Bilbao 1984, 7-14.

orduko aldiari. Urte orreitan Francoren aginte gogorrak azpian artu zituen errietako bizi-giroa, zapalkuntzea eta geienen bizi-eziña aurkeztu gura deuskuz emen. Orain arte euskal-idazleak egin ez dabena.

Ogeta amaseiko gerrate ori ez da gure idazleai gairik emon bakoa. Ez deustsoe gitxik eldu gai orri, baiña bakotzak bere aldetik; edo bakotxa berari jazorikoen barri emoten alegindu da: olerkariak erostari Euskalerriaren ondamendiari illetak joteko, edo Gudarien egiñak bertsotan biribilduta emoteko, edo erbesteratuen ara onako ibillerak gogoratzeko, edo gerratean bakotzak ikusitakoen barri emon edo ta zapal-tzaillen ankerkeriak ezaindu ta itxusteko. Geien baten, jazo diran zoritxarrak erbestetik, urriñetik ikusita, eralgi deuskuez. Izan be, onango liburuak, geienak, atzerrian idatziak dira. Badira gerratea oso urretik ikusirikoak. Euskalerrian eta Euskalerritik kanpo gudalekurik gudaleku, edo langille-sailetan sartuta ibilli dira, eta eurai jazorikorik zeatz meatz emon deuskue... Baiña, erri osoaren arazoen aitamenik egin barik, edo guztiz gitxi eginda.

* * *

Olango idazleen lanari begiradaxoa emon deiogun. Olerkarien artean, gorengo mailla baten, or dira Salbatore Mitxelena eta Eltzegor (Agustin Atutxa) ziranen poemak. Azkenengo au Bizkaiko semea, eta bere begiralekutzat Mugarrako atxa artu ebana. Biak, Mitxelenak ta Atutxak, bakotzak bere doiñuaz, sakon eta garratz abestu dabe gure erriaren Kalbarioa. Bion bertsoai illeta-soiñu mingarriena darie, urte areitako gauaren baltza adierazoteko, baiña urriñean egunsenti pozgarriaren itxaropena sortu guran. Monzon Olasok bertsolarien doiñuetara jo eban, bere aldeko Gudarien Egiñak bero berorik jasoteko. Bertsolari-maillako beste idazle batzuk ez dira motel ibilli arerioen ankerkeria irrigaiztozko bertsotan azaltzen edo euren etxeko maiteai jazoriko zoritxarrak esaten. Orra Errenderiko Zapiraindarrak, eta Bizkaiko Jel-Orde ezizenduna, Leizaolak ezaguerazo deuskunez.

Bertsoan barik, itz-lauz idatzi dauanik be bada, bat baiño geiago. Seber Altube zanaren *Laztantxu eta Betargi*, laburra dala, oso biotz-urragarria da benetan. Bizi bai bizi ikusten doguz or armadunen atzetik lenengo egunetan etorren bildur-giroa, eta famili batekoak ikusiko ebezan larri eta estukurak.

Ekaitzpean J. Eizagirre zanaren elebarria asi, Euskalerrian *gudaotsak* entzun ziran egunetan asten bada be, gudaotsik gitxi entzuniko batek egiña dala emoten dau. Erbestean, eta aria dana bere buruz asmaua dala dirudi. Beste euskal-liburu bat, zati andi baten gerrateko giroan bururatua, «Orixe» zanaren *Kiton Arrebarekin* dogu, *Euzko-Gogoa* aldizkarian argitaratua, liburutan oindio agertu ezpada be.

Sabin Irizarrek naiko egoki eta txukun emon euskuzan atzerrietara bialduak izan ziran ume batzuen ibillerak, bere *Zingo* liburuan. Castresanak erderaz egin ebana Irizar onek euskeraz egin deusku. Biak, orduan ume ziranak, gero, bakotxa bere maillan, idazle trebe agertu izan dira.

Alde batean naiz bestean, edo bietan, gudalekuetan naiz presoakaz osaturiko lan-taldeetan ibilliak be, ekarri izan dabe euren oparirik euskal-literaturara. Sebastian Salaberria bertsolaria 1964n *Agora* saria irabazitako liburuagaz agertu zan plazara:

Neronek tirako nizkin. Tituluak berak ondo salatzen dau anai baten kezkatxoa: Francoren aldean armetan ibillia izanik bera, anaia besteen aldean zaurituta ankamotz aurkitzen dauanean, anai ori berak zauritua ez ete zan izango. *Auspoa* saillean 38garren agertutako tomoa da.

Luzeago, *Auspoa* sailleko iru tomotan (148-150) azaldu euskuzan L. Alkain bertsolari zanak bere *gerrateko ibillerak*. Gerrateko barri arrigarri ez usteko betzeriko liburua da.

Auspoa sail berean agertu da *Txantxangorri kantaria*, famili baten barrura zorrigaiztoko gerrateko egun baltz askotan murgiltzen gaituan liburua. *Ataño* ezizenpean Errenderiko Zapiraindar bat ei dogu idazlea. Euskeraz idazteko ugarririk bako lumearen jabe dan baten liburua dala esan bearra dago.

Beste bertsolari batek be, gerrate osoa emon eban baterik bestera: Patxi Lazkano bera. Berak ikusitakoen barri, *Tiro tartean bertsotan* izendun liburuan emon deusku, bai bertsoz eta bai itz-lauz.

Azken baten, Ondarruko seme argia, Zubikarai idazle ugaria etorri jaku, au be gerrateko eta gerrate ondoko bere ara ona, lan eta ibillerak eralgi ta esaten. Dana, berak oi dauan bizitasun eta maisutasunaz.

Ez dago, ba, ukatzerik; naiko argi dago, gure anai-gerratea ez dala izan gure literaturan lorratzik itxi bakoa. Baiña orain artean aitaturiko idazleok bakotxak bere ikuspegitik begitu deutso gerrateari edo gerratearen ondorenei. Poema andienen egilleak kendu ezker, bakotxa berari jazorikoak edo beretarren poz edo ezbearrak aldarrikatzen alegindu da. Eta armaotsetatik urregi dabilz. Idazleak erribarruko egoera eta errian dabillen burrukea baiño geiago guda-oiñetakoa gogoanago dabela idatzi dabe. Erribarruko egoera ta giroa, olan, urrintxo gelditzen jakuz.

* * *

Eta ona non jatorkun gaur Erkiaga gerrate orrek idaztera bultzatu izan dituen idazleen artera bide barriak urratzen. Gerrate orrek ekarri eban erri barruko giroari adarretatik eltzen. *Jaioko dira...* elebarri au orain arte aitaturiko idazlanak baiño ikuspegi zabalagokoa da, erri osoaren egoera bizian sustraituagoa. Garaitzaille diralakoen eta menderatuen artean sartzen gaitu. Bake txarreko egoera da, nozik bein alkartasun ez ain txarreko argibitate batzuk agiri dirala. Eta azken-azkenean, alkartasun obe ta osozko baten gurari ta itxaropena gelditzen dira, euren argi pozgarria zabaldu gurarik. Xenpelarrek bertsotan adierazotako gurari ta itxaropenaren argia: «Jaioko dira berriak! Gu gera Euskalerrriak!».

Militarren indarrak errian sartu diranean 1937ko udabarria da. Dana goikoz bera aldatzen asi da errian lenengo egunetik. Artean agintari izanak alde egin dabe. Beste batzuk bete dabe beingoan arein utsunea. Len azpian egonak, orain agintari dagoz. Arazoa ez da, orraitio, lengo menderatzaillan eta oraingoen arteko utsa be. Menderatuak ez dira menderatzaillan barrien eskuetara etorri, onein egitez eta indarrez. Menderatzaillak kanpotik etorri dira. Eta agintari barriak ez dira euren erabagien

gutzizko jabe. Goragotik agintzen dabenen esanetara egon bearra dauke gauza askotan, nai ta nai ez, euren gogoz naiz gogoz bestera. Bilbo Francoren eskuetara etorri danean agiriago ikusiko da ori. Orduan ainbat erritar, batez be ainbat gudari, pillatu dira espetsxeetan edo antzeko lekuetan, zelango epaia edo zigorra etorriko jaken zain. Areintzat txostenak emoteko ordua da, ia zein politikako izan diran, ia eskuak odolez garbi daukezan ala ez. Orduan asten da askoren kalbarioa eta beste batzuen kezka-bidea. Erriko agintarien txostenak goiko agintarientzat bigunegiak dira. Goietan ez dabe bigunkeririk nai. Gogorrago jo bear ei da. Eta alkate ta agintari barriak ipiñilco dabez, lenengo egunetakoen orde. Alkatea, barriz, ez da erri bertakoa, kanpotarra baiño. Errian aspaldiko urteetatik epaikari izan dana, batzuk agindu nai bestek agindu guztien gogoko izan dana, errian gelditu da, baiña ez dau kargu orretan jarraitu nai. Lenengo egunetik asi zan bere betiko gizontasuna erakusten, erriko gizonik maiteena eta ongilleena zanaren illeta-mezatara joanda. Naikoa izan da ori, oraingo agintarien areriotzat gelditzeko.

Iru-lau aginte-leku jarri dira errian: Udaletxea, militarren Komandantzia, txapel okerren etxea, eta margariten eta falanjiste etxeak. Udaletxeak, azkenengo alkateagaz, gogorkerirako bideak artu bear ditu. Komandantzian napar bat dago nagusi, ia kapitan maillakoa. Beronen abizena entzun dabenean, erriko zar batzuk arnasea nasaiago artu dabe: Garralda, aldi baten errira askotan etorten zan napar baten semea. Aitaren ezpalekoa izatekotan, ez ei zan gizon txarra izango. Azkenerako, aita bera be agertuko da, baita beste seme bat be. Gizonik mazalenak eta atsegiñenak izango dira eurok, zarrak uste izan eben lez. Margariten etxea «emakume» izanikotzat egozanan salatari egin da. Salakuntzen ondorena zer izango zan badakigu: beste leku askotan eginiko barrabankeriak egitea, neska batzuk burumotz itxita, guztien barregarri kaleetan zear erabiltea.

Militarrak sartu aurretik, erdi usturik gelditu zan erria. Utsunerik andiena gazteak, neska-mutillak itxi dabena da. Batez be, mutillak, gudari dabiltzalako. Gelditu diranak urrindu ziranetan dauke gogo. Eurei zer jazoko, bildurra barruetaraifio sartuta dauke. Ilteko epaiak errez emoten dira epaitegietan. Txosten onak edo onak diralakoak ez dabe asko balio. Nok jakin zer dan ona ta zer txarra epaikarientzat? Nok jakin zer egin edo zer esatea dan onena? Erriko abadea olangoxe kezketan dabil. Abade zarrak bakarrik gelditu dira alde egin barik. Zarrenak ez dabe abegi txarrik izan. Baiña gazteagoak euren etxea espetsxe dabela bizi dira lenengotan. Eskuak garbi, odolez busti barik daukezanentzat ez ei dago arriskurik. Baiña zer da epaikarientzat odolez garbi egotea? Ez da errez igarten. Don Zenon parroko jauna, errian gelditu ta kargu orretarako izentau daben abadea, arik laster il da. Eta ez bere barruko kezkak il ete daben susmoa itxi barik.

Bildurra dabil erritar geienen barruan eta «bildurtegiak» dabez euren bildurren iturri. Zertzuk dira «bildurtegiak»? Espetsxeak, epaitegia, txapel okerren etxeak, guda-lekuak, zigorpeko langille-taldeen lan-lekuak. Epaitegirako naiz txapel okerren etxerako deia artzea naikoa da bildurrez egoteko. Eta bizia ta ondasunak dagoz jokoan. Guda-lekuetan dagozanak (erriko gazte asko) edozein ordutan dagoz ilteko arriskuan, eta berezko gauzatzat dago. Berezkoa ez dana epaitegietan erabagiten daben eriotzea da. Onak emoten dau ardurarik eta bildurrik geien. Eta bildur orren mendean dagoz ainbat erritar, euren artekoren bat epaipean edo espetsxean daukenak, arik eta «bil-

durtegi» orreitatik ondo urten arte, arik eta, eriotz epairik izan danean, parkamena lortu arte. Gatx-erdi etxekoren batek atzerriren bateko babes a lortu dauanean!

* * *

Bake txar eta giro ito ori elebarri onetan ondo azalduta dator. Baiña ez da dana olango giro itoa. Alderdi atsegiñagorik be agertzen jaku. Apurka apurka biotz barruetan beti sortzen diran bizi barriak sortzeko asmoak be agirira datoz. Eta onetan agintarien aldeko ez diran neskak ez dabe aukerarik txarrena aurkitzen. Eta salakuntzak doaz Komandantziara bertara be. Garralda gazteak zegaitik jo bear dau beti «emakume» izan diranen alaben aldera? Jakiña, irribarrez artu dabe Komandantzian esames ori, eta ez deutsoe jaramonik egin. Erriko zarrak errazoia euken. Ondo ezautzen eben Garralda zarra, eta semeak aitaren ezpalekoak urten dabe.

Neska bik jo dabe Santxo Garraldaren biotzean.

Itziar, militarrek sartu ziran egunean berean il zan gizon errimaitearen alabea, Zumeltarra; eta Maribel, Madrillen bizi eta gerrateak Donostian arrapau ebana, eta errian Garraldatarren babespean agertua, Komandantziko idazgelan laguntzeko.

Garralda zarra errian agertu danean, beronek kendu deutso burutik semeari Maribel orregaz ezkontzeko asmoa. Zegaitia aitak il aurretxoan argituko.

Eta ganera azken ordu orretan agertzen dau Garralda zarrak bere eta beretarren nortasuna be. Euskaldunak dira eta Euskalerrriaren alde jokatu nai dabe. Zumeltarrak eta Garraldatarrek, olan diñotso semeari, jo daigun beti aurrera geure erriaren alde. Xenpelarren bertsoarena mamindu, eta euskaldun iraun daigun.

* * *

Erkiagak, bestela baitakoan, bere bazterra artu dau giroz histori usaiñeko elebarri dan onetan jazoten diranen gertaleku. Bere lenengo elebarrian *Arranegi* izenekoan lez. Orduan bere «jaioterri kutuna ederresteko» artu eban lumea. Oraingoan erri beraren egun baltz mingarriak gogoratzeko. Jazokunetan ez dau asmau bear andirik izan. «Lagunak» ezizenpean gorde ditu. Nik dakidala, bat bakarra dago bere izenez aitatura: «Bittor Joseba» (Alegria Uriarte), erriko semea, abade eginbarria, Arabako Maroño erritxoan abade sartu barria, militarrek sorturiko matxinadaren lenengo egunetan komunistak katigu artu, eta «Cabo Quilates» ontziko sarraskian il ebana. Beronen anai bat izan neban neuk be gudarien artean lagun eta anai illaren liburu batzuk neuri eskuratu eustazan. Abade zan orren gomutagarri, Bittor Joseba eroango dau izena, don Zenonek militarren mendean bateatuko dauan jaiobarri batek.

Bere bazter ori itxas-uria da, ganera. Baiña oraingoan ez dator ez arrantzaren aitametik, ez kaxarrankarik ez arrantzaleen beste dantza edo jairik. Orain ez dago orretarako girorik.

Oraingoan ekatxa legorraldetik agertu da. Eta legorraldera begirago dagoz guztiak, itxasaldera baiño. Zeregiñik naiko dago andik datorren ekatxari iges egiten, edo ta ekarri dituen ondamendiak zelanbait osatu edo urrintzen.

Bizimodu latza jarri da. Uritik kanpora urtetako eta iñora joateko, ibil-agiriak bear dira. Paperak bear edozetarako, eta paperak lortzea ez izan errez. Espetxekoei

laguntza eroaten joateko eragozpenik bada. Larri eta artega biziteko ziorik larregi da alde guztietatik.

Larri-giro ori bizierazo gura izan deutso Erkiagak irakurleari. Eta larregikeririk barik, gauzen zeattetik urten barik lortu dauala esan geinke.

Eta bide batez, Euskalerrri osoan jazo ziranen ispillu egiten jaku.

Gure errian bizi izan zan egoerearen barri ez dogu liburu askotan zeatzago ikusten. Agintarien jokabidea eta mendekoena, garaitzaillen eta menderatuena, dana daukagu or. Eta bai bien bitartekoen jokabidea be.

Orra Gurbiz, militarrek sartu barritan bigarren alkatetzara igona. Laster, bere *bigunkeria* dala-ta, agintarientzat badaezpadakotzat gelditu da. Arrezkero, zurrago eta zentzundunago daukagu, eta gertuago eta borondate obekoago dabil salatuen alde zeozer egiteko. Txomintxu, guztien gogoko izan zan epaikari zarrari entzundako berbak orain obeto ulertzen ditu: «ogi zuria gaurko, etorkizun baltza biarko» izango ebela agintari barrien jokabideaz.

Zumeltarrak eta Garraldatarrak urriñetik igarri deutsoe etorkizunari, erriak artuko eban joereari. Eta Eusebio Erkiagak, berak uretara botatako ontzia baleu lez, gaia berez berez eta arin bai arin daroa portu orretarantza azkenengo kapituluetan, eta barruan artzen dau 1936tik 1939ra jokatzen zan arazo osoa, ez erri batena bakarrik, euskaldun geienena baiño. Ez da au nobela onen baliorik txikiena.

Askotan entzuna da euskerea nekazari-maillako izkuntza dala, eta baserri usaiña dariola daukagula euskal-literaturarik geiena. Erkiaga ez dogu baserriarra; bere su-traiak, euren buruak uritar egiten dabezan askok lez, baserrian euki arren, Erkiagaren elebarriak ez dakarre baserri usaiñik. Bere errian sustraituak ditu, baiña ez ain zuzen baserrian. *Arranegi* lenengo elebarrian Lekeitioko bazterrak, ango oiturak erakutsi euskuzan, eta *Arranegi-ko* Lekeitio ori itxasora begira dagoan Lekeitio da. Oraingoan, *Jaioko dira...* izeneko onetan, errikideen kezka ta larriak, poz eta naigabeak, miñ eta itxaropenak argitan ipinteko zeregiña artu dau, baiña Euskalerrri osoaren larri, miñ eta itxaropenakaz bat eginda. Emen agiri diran lagunak Euskalerrriaren unerik larrietako baten bizi dira, erriaren etorkizunik onenerako erabagirik onenaren billa, eta erabagi ori aurkitu eziñez lor andi orren azpian neka nekatzen.

Baserririk ez mariñelik danik ez da aitatu be egiten. Erritarrik onenak euren euskalduntasunari bizirik irauten laguntzeko kezkatuak dabiltzalako. Eta eurotariko asko, kulturaz jantziak diralako.

Eskola andietatik urtenikoak dira Zumeltarrak, Jokin eta Itziar; eta bardin Maribel eta Santxo kulturaz arduraturik dabiltz; eta kultur-lanetan dabillena da Gurbiz jauna. Uritarrak dira guztiok, bai Txomintxu epaikari izana, eta Urkitza medikua be. Ika-sienetakoa da Maribel, eta Filosofia eta Letras egindakoa danez, bere jakintza eta argiak erakusten ditu bein, ain zuzen, nobela-gaietan. Erkiagaren elebarri oni ez dario ez baserri usaiñik, ez kresal sundarik be.

Azken urteotan ixil samar genduan lekeitiar idazle onek lan ederra eskiñi deusku oraingoan onegaz.

Eta opari ederra ekarri deutso Bizkaiko euskereari. Bere elebarrietan bizkaie-razko irugarrena, *Arranegi* eta *Batetik bestera* izenekoakaz batera. *Araibar zalduna* gipuzkerazkoa dau. Erkiaga idazleak lapurdierara be jo izan dau iñoz olerkietan.

Bizkaikoa itxita beste euskalkietara jote au ez da, ezelan be, bizkaikoari trake-tsago eristeagaitik. Izatekotan, bizkaitarrak beste euskaldunak ganako gogo zabalagokoak diralako izan leiteke. Besteakandik erantzun bardiñik artzen ez daben arren. Azkuek eta D. Agirrek ez eben traketsago idatzi bizkaieraz idatzi ebenean, gipuzkeraz idatzi ebenean baiño. Bear bada, au be esan bearrekoa da.

Onaiño elduta, egoki etorriko dala uste dot Gotzon Garate nobelagille eta kritikaliaren eritxi bat edo beste aitatzea. Onan diño (Deia, 21-XI-1981): «Erkiagaren euskera gu guztiontzat lorategi ederra da... Joskera zuzena, esaldi egokiak, atsititz jatorrak... Eusebio bizkaitarra da, eta bizkaieran eman dizkigu bere lanik osoenak eta umatuenak... Ba dugu non ikasi Bizkaiko euskera bizia, batik-bat».

Au esanda gero, Mitxelena maisuak «Egan»-en 1958 urtean idatzi au dakar: «Eztio batere zorrik Domingo Agirreri».

Gogoan artzekoa da kritikaliari berak Erkiagaren teknikari dagokionez diñoana: «Aurrerapena suma liteke Erkiagaren buru-lanetan. Denbora joanago, Erkiagaren emaitzak aberatsago». Eta onan amaitzen da kritikaliari orren artikulua: «Izango al ditu jarraitzaile asko gaurko gazteen artean».

Guk, elebarri onen tituluari lotuago, onela amaituko dogu liburu au aurkezteko darabilgun jardun au: Jaioko al dira idazle barriak. Erkiagaren antzeko idazleak, euren bizi guztia euskereari eskintzekoak, eta urteetan aurrerago eta frutu ugariago eta ederragoak ekarriko al dabez euskal-baratzera! Garraldaren amesai etorriko al jake bete beteko loraldia!

JAKAKORTAJARENA'RENOLERKIGINTZA*

Txomin Jakakortajarena apaiz olerkaria nik ez det arpegiz ezagutu azken urteotara arte; baiña olerkari onen olerki-lana aspalditik ezagutu det, olerkiak plazaratzen asi zan ezkerotik, «Euskaltzaleak» 1930'n asita, bere olerki-gudu eta sariketak sortu eta gero liburutan argitaratzen asi zanetik aurrera.

Sariketa aietan nabarmendu ziran ainbat olerkari berri, Euskal-olerkaritzaren baratza ostoz berriz jazten asi zan onako olerkari batzuen eragiñez: Lauaxeta, Orixo, Lizardi, Loramendi, Etxeberria, Zaitegi eta abar indarrean zetozten euskal lirikari bide berriak erakutsi eta arnas berri biziagoa eman naiez.

Liriko nausi sarituen itzalpean ez ziran batere azaren berengo orritzat artzekoak beste izen ezezagunago batzuk, eta auen artean bat nabarmentzen zitzaigun gutxi bezelako gatza eta bizitasuna zekarrena, batetik gertakari askoren irri alderdia jasoteko eta, bestetik, bertso arin, bizi eta txinpart-urtikakoak ondu eta biribiltzeko: Jakakortajarena'tar Txomin zeritzana. Orduan Gasteizko Apaizgaitegian apaizgaien ikasturteetan genduen, eta andik bi urtera, apaizgoa artu orduko apaiz berri geienak bezala, Araba aldean asi zuen bere apaiz-lana. Nafarrate'ra biali zutenean, apaiz-lanaz gairiñera, euskal lana ederki egin zuela jakin genduen, euskera il-aiñean zeukan Arabako erri ori berriz euskaldun egitea lortzeraiño.

Iru urtez jarraian dator Jakakortajarena jaunaren izena Euzko Olerkien sariketa aietara urte bakoitzean bialitako olerkiak biltzen zituzten liburu aietan. Lenengo urtean, 1930'koan, lirika-gaiak artu ditu Txominek berak bialitako olerkietan. Iru olerki dira: «Mitxeleta», «Aingerutxo» eta «Ametsak».

Bigarren urtean irri-bertsoetara jo du: «Gure astoak» eta «Amandrearen oillo aldra».

Irugarren urterako sariketa aien erakundeak bi sari jarri ditu: bata, beti bezelakoa, lirika-olerkientzat, eta bestea, euskal-giroko poematxoentzat. Bietara aurkeztu da

* Euskerazaintza (1988, 4. zenb.) 33-37.

Txomin; lenengora, «Maite-eziña», alkar-izketazko olerkiarekin, eta bigarrenera «Len-euzkotarra» poemarekin. Bigarren sariaren irabazle gure Txomin gertatu da.

Aitzol'en Iritziak

«Aitzol» zan olerki gudu-aien antolatzaile nagusi eta bera da antolatzaileen iritziak adieraziz, urte bakoitzeko olerki-liburu bakoitzari itzaurrea jartzen ziona. Lenengo urtean eta liburuan **olerkari** gaztetxoak izenpean lau olerkari izendatu zituen: Loidi, Jakakortajarena, Zugasti eta Arozena. Txomini dagokionez iritzi au eman du: Jakakortajarenak iru olerki politetan bere goitar lenengo opariak dakazki. Izan ere, Txominen iru olerkiak politikak dira, mee eta txukunak gaiez, eta bertso apaín eta ongi neurtuetan moldatuak. Olerkariak gai samur eta maitagarriak erabilteko gaitasuna eta joera erakusten zituen.

Bigarren urtean beste joera bat duela dator: irri-gaietarakoa, umore on da txinpartaturakoa. Olerkari errikoi bezala aurkeztu du oraingoan Aitzol'ek, jende xearen giro eta gertaeretatik gaiak artu, erri-erara asmatu eta erri-olerkarien tankera aurkezten dituen olerkaritzat. Eztenkada parragarria da Txominen ahapaldi bakoitza; beste gure arteko bertsoetan zar askoen maillan jartzekoa ikusten du bertso auen egillea, eta Iruñako Ferietako bertsoak, Ikazketako mandoarenak, Bilintxiren bertoiarenak eta abar gogoratzen dizkio. Txomin'en iru bertso auei arrera ezin ohea egin zion Barrensoरो idazleak ere Yakintza aldizkariaren orrietan.

Neronek ere autortu bearra daukat orri-bertso aietatik gorde izan dedala Jakakortajarenaren olerkigintzaren oroitzarik sakonena.

Urrengo urtean, 1932 ko sariketa Hernanin ospatu da. Esan dedanez bi sailletan banandu dira sariak. Lenengoan, lirikoan, Loramendi kaputxino gaztea izan da irabazle, baiña, urte aretako liburuan Loramendi'ren olerki sarituaren urrengo, Txominek bialitako «Maite-eziña» dator eta bigarren saillean, poematxoenean, Txominenari eman diote sari bakarra, «Len-euzkotarra» gaia zuen poemari. Gaia, nonbait, Barandiaran maisu andiaren eskolan ikasitako ipui eta elezarrak bururatu diote, Aralarko sugea, Basajaunak, Tartalo eta Mari'ren agerketak tartean dirala.

Oraingoan Aitzolek itz gutxitan ematen du bere iritzia. Nola nai ere, euskal literaturan aztarren sakona utziko duen olerkari baten espala ikusi du Berastegiko semea dan olerkari orrengan. «Ez goaz, dio Aitzolek» olerkari onen berri ematera. Ezagutua zaigu. Bego oraingoz luma geldi bizi zaigunaren automena aizera gabe. Jakakortajarenaren etorkizunak bere izena goratzerako makurtuko gaitu-ta».

Urrengo sariketara ez da azalduko Txomin'en izenik ez olerkirik. Bere apaizlanetan asiberria dalarik, ez du aurkitu nonbait ere asti eta giro onegirik olerkigintzarako. Bein agertuko da, ala ere, «Yakintza» aldizkariaren orrietan iru urte lenagoko gaietan sartua «Burgos aldeko eizak» bederatzi puntuko bertsoetan moldatutako olerkiarekin. Barrensorok, Agirre tar Toma zanak idatzi zuanez, irri bertsoa omen zan Jakakortajarenaren barruti berezia.

Orra gaur idazle onetaz askok daukaten gaztetako ezaupide bakarra; gerrate aurretuan, Errenderin, Tolosan eta Hernanin antolatutako olerki sariketetan sortu eta plazaratutako olerkaritzat daukate.

Baiña, ez; Txomin olerkaria ez zan sariketaoietan, ez urteoietan sortu. Sakonago ditu bere sustraiak, Gazteiko apaizgaitegian billatu bear ditugu. An izan zuen bere olerkari-eskola eta an asi zan bere lenengo olerki aleak ematen.

Gazteiko Euskal-Eskola eta Olerki-Eskola

Gazteizko Apaiztegiko eskolan sortutako eta garatutako idazlea dogu Jakakor-tajarena idazle olerkaria.

Ango euskal eskolaren sortzaille eta bultzatzaille izan zan Manuel Lekuonaren eskolakoa degu, izan ere; onen maisutzapean landu zuen euskera eta euskal olerkia bere apaiz-ikasturteetan. Nik Lekuonaren eskua eta aztarna ikusten dala esango nuke Txomin-en lenengo bertsoetan. Bertso samur gozoak egiteko joera eta bere bertsoetako gaien billa erri girora joatea Lekuona zanaren eskolan ikasiak ez ote ditu? Bear bada zerbaitetan garaitu du Txominek bere maisua: bertsoaren jabetasun andia-goan, puntu edo itz-erorkera ugariagoak eta beteagoak asmatzean. Nik iñoiz entzuna diot Lekuona zarrari izugarrizko erreztasuna zeukatela bere eskolako apaizgai batzuek errimak asmatzen eta moldatzen. Ori esaten zuenean, batik bat, Txomin zeukan gogoan, nik uste. Orixe, erreztasun ori ageri zaio Txomiñi bederatzi puntuko bertsoak ontzeko gazterik ekarri zuen joeran. Bederatzi puntukoak ditu «Burgos aldeko eizak» izeneko bertsoak. Eta bederatzi puntukoak beste irri bertso batzuk, Gaizteizko Seminarioak ateratzen zuen Gimnasium aldizkarian ezaguerazi zituenak: «Eiztariaren abestia» eta «Moro katuari». Gure arteko bibliografoek ez dituzte oraindio billatu ere egin aldizkari orretan ez beste iñon.

«Eiztariaren abestia» zortziko txikitán ondutako iru bertsoetan asi eta ogetairu bederatzi puntuko osatu du. Eiztari batek bere txakurra lagun artuta erbi bat il eziñik egingako alperrikako eizaldia du kantagai.

«Moro katua» berriz, etxeko eta auzoko guztiak bere lapurreta ta litxarreriez gogait egiñik dauzkan katu maltzurra. Iñork ezin du burutu arekin. Eta, azkenez, guztien birao eta aiñenak dijoazkio gaiñera:

Ai, gure katu zarra,
Moro dek izena,
burutik oñetaño
beltza aiz ta dena.
Baiña are beltzagoa
dek ire barrena.
Odol orde noski dek
zaiñetan edena,
katu gaiztoena
lapur maltzurrena,
beidatu zekena,
al dan okerrena,
inpernun satuko al aiz
zuzen-zuzena!

Bertsoak Berastegiko euskaran egiñak dituela autortu du egilleak.

Ala ere ez beza iñork uste Txominen musa Gazteizko ikasturteetan doiñu bat bakarrekoa izan zanik: irri bertsoetarakoa. Ez. Seminarioko aldizkarian bertan du lirika sail garbiko olerki bat. «Nere ametsetako» etxea. Ain zuzen olerki au izan zan 1930'n, Iraillaren azken-egunetan, ainbat eliz-agintari, Nunzio jauna, eta beste ainbat gotzaien aurrean, Seminario berria bedeinkatu eta zabaldu zan egunean, an ospatu zen itzaldi, olerki eta abestizko jaialdian irakurri zan olerkia, Txomin Jakakortajarena ikasleak ondua eta beste ikasle batek irakurria.

«Nere ametsetako etxea» apaizgai baten ametsa da, ume-umetarik amestua, Euskalerrriaren sinismenaren ezaugarri izateko amestua, eta egun atan olerkari apaizgaiak mamitua dakusana. Ona amets orren azkena:

Baina bein batez banoa
zelai ta soro barrena,
ta nun arkitzen det lurra,
tajuz idekia dena.

Arri batzuek aurrera
Azaldu dira lurrean,
gero beste arri asko
aurrenengo oien gañean,
jaso zuten bat-batean
goien goienera lurra.

Ta ara nun azaldu zaigun
apaiztegi opatua!

Emen nauka zoratua,
ederra bait-da benetan!
Auxen, auxen, ikusi nun
aspaldiko ametsetan
ta gaur diot benetan
etxe eder au ikustean:
Ba da orratik fedea
oraindik Euskalerrrian!

Gymnasium aldizkariak erdal-itzulpena erantsi zion olerki orri, eta onen egillea euskal olerkari garatu eta eldu egindatakotzat aurkeztu du, Euskalerrriko olerkarien artean goi-maillan jarrita. Ez, Txomin'en musa ez dabil irri-bertsoetara mugaturik; badaki goragoko gaietara igoten. Ba daki poema luze samarrak asmatu eta moldatzen. Eta ori gaztezero loretsuan dala.

Ixillaldi luzea

Urteak aurrera dijoaz Txominen euskal lan berririk agertuko daneko. Gerrate zitalak, 1936-n ekarrিতako ixillaldian, Txominek erbesterako bidea artuko du. Lenengo, Euskalerrri barruan. Iparraldean, Dona-Ixtin apaiz laguntzaille, eta azkenez, Argentinan. Argentinarako deia odolean darama. Ixillaldia, olerki-lanen etena ez du orraitio osozkoa izan. Ez du, ez luma erdoiltzen utzi. Argentinako «Boletin del Instituto Americano de Estudios Vascos» aldizkarian eta Guatemala'ko «Euzko-Gogoan» emango ditu olerki eta lan batzuk, bein erbestetuaren samiña eta negarra adierazteko, bein gaztetako irri-gogoari irteera emanez, bederatzi puntuko bertsoetan, H letraren auzia jorrazteko, edo ta Argentinako lagun eta laguntzailleai esker ona erakutsiz, bere erri-miña eta askatasun-itxaropena oiukatzeko. Pampa-ko lurretatik

bialiko du Lekuonari egin nai izan zitzaion omenaldirako olerkia. «On Manuel Irakasle maiteari, Pampatik ikasle batek omen-sari».

Baiña lanik andiena, ederrena Argentinako olerkari baten poema andia, *Martin Fierro* euskerara itzultzea du. Neri ez dagokit lan onen muiña eta euskal-itzulpenaren balioa aztertzea. Beste batek artua du egiteko ori. Baiña aipatu besterik ez det egin nai gauza bat edo azpimarratzeko.

Lenengo eta bein, Txomin'ek izan duen bigarren euskal eskola bat gogoratu digu lan orrek; Argentinara joandako euskaldunen euskal-eskola. Txominek bere etxean bertan izan zuen leen eskola ori. Or ikasten degu Txomin'en aita Argentinako zabaldietan bizi izana zala, ango gautxoekin eta ango euskaldunen euskera mintzatzen oitua. Aitak Berastegiko euskera erabiltzen ez zuela oartuta zegoen betidanik semea. Naparroatik Beereko egotaldian aitari entzundako euskeraren oiartzuna etorten omen zitzaion belarrietara. Gero Argentinara aldatu zanean, an arkitu eta ikasi omen zuen aitaren euskeraren jatorria; bateko eta besteko euskaldunak alkarri itz eta gramatika jokaerak artuta sortutako euskera batua aurkitu zuen an. Txominentzat ez zan ori euskera batasunbidera ekarteko biderik txarrena.

Bigarren, Matxin Burdin euskerara itzultzeko lan orrek, Txomiñen olerkigintzako errikoitasuna salatzen eta ots egiten digu. Matxin Burdin poema luze ori erriko seme baten bizitzako goraberak eta laztasunak jalki erazten dituen poema da. Txominek ez ditu jende xearren irri-alderdiak bakarrik abestu nai; beste alderdi serioagoak ere bai. Aukera ederra eman dio Matxin-Burdin poemak orretan saiatzeko. Gañera, Matxin Burdini euskal jatorria sumatu diolakoan dago.

Irugarren gauza azpimarragarria zera da: Lekuonak gaztetxotatik oartu eta miretsi zion bertsoak ontzeko sekulako erreztasuna. Ez da gero txantxetako lana sei bertsozko 1193 aapaldi erderatik euskerara aldatzea. Eta nola gero aldatu ere! Erderazko poeman bezala bertso bakoitzak zortzi silaba dituela, bat ere ez geiago ez gutxiago, bigarren bertsoa, irugarrena eta seigarrena oskide dirala, eta berdin laugarrena eta bostgarrena bata bestearekin. Olaxe zazpi millatik gora bertso osatu arte, arnasa batere estutu gabe, gauzarik errezena bezala.

Bijoaz emen, eredutzat, bi ahapaldi elkarren ondoan. Jose Hernández'ena eta Jakakortajarena olerkariarena:

A otros les brotan las coplas
como agua de manantial,
pues a mí me pasa igual;
aunque las mías nada valen
de boca se me salen
como ovejas del corral.
Y aunque yo por mi ignorancia
con gran trabajo me explico,
cuando llego a abrir el pico,
téngalo por cosa cierta,
sale un verso y en la puerta
ya asoma otro el pico.

Txurrura lez aapaldiak
sor oi zaizkie batzuri;
berdin agi zaidak neuri:
nereak txar etsigaitik
ardiak antzo bordatik
autik oi zaizkit ixuri,
Adiratsen lanak izan
arren, neure ez-jakiñean,
nik mokoa irikitzean,
egitzat jo ene eleak,
bertso bat jalgiz, besteak
muturra ager dik atean.

Poema au euskeratu duenean oso goi jarri dio gaillurra bere euskal-olerkigintzari. Beste iñor ez zan, noski, Jakakortajarenak egin duena egiteko gai. Berak euskeraren eta gautxotarren maitasunez egin du. Eta erraldoi-lana atera zaio, Axularrek esango zuenez **sendagailla** iriztekoa. Arrazoa eman bearco diogu Aitzol-ek esanari, geroak, etorkizunak Jakakortajarena olerki-gintzaren aurrean makurtu bearco genuela. Bai, txapela erantzia makurtu bearco degu, makurtu ere.

DIASPORAKO EUSKAL IDAZLEAK*

Diasporako euskaldunik, Ameriketara nai edo zein atzerrietara joan eta atzerrian bizi eta lan egin dauan euskaldunik asko izan da aspaldiko gizaldietatik ona. Amerika, batez be Ego-Amerika, ango lurretan izen andia itxi daben euskaldunen abizenez beterik dago. Eta euren artean euskaldun joan, eta euskera eta euskaldunak ezaguerazoteko, libururik idatzi dauan luma-langillerik bada.

Gagozan egunetan, badakit olango euskaldunak askoren artean sasi-euskalduntzat dagozala. Euskalerritik urrin alde egiñez, atzerrian bizi eta atzeritarren erderatan idatziz, euren euskalduntasuna ukatu eta galdu egin ei dabe. Baiña bestera be esan daikegu: atzerria izan dala askotan gure erritarren euskalduntasuna eta euskal gogoa itzartu eta biztu dauana. Bere burua erdal-errian ikusita, orduan ikusi dau obeto euskaldun batek baiño geiagok bere nortasuna, orduan ikasi eta ikusi dau erri berezi eta izkuntza berezi baten jabea dala.

Atzerriak arakatzen joateko oitura oso antziñakoa izan dau Euskalerrriak, eta gure lege zarrak be ez eutsen bere semeai atzerrietarako bidea artzea eragozten. Eta or zear zabaltzen ziran, batez be, itxasoko bideak erreztu ziranean, itxasoak austen, aize barrien billa, lur barriak ikusi eta ezagutu gureak eroanda, naiz bizibarrak derriortuta, batzuk itxas-gizon eta arrantzale, beste batzuk merkatari edo mundu barrien aurkitzaille, edo erri barrien sortzaille, eta urrengo batzuk mixiolari, eta kristautasuna zabaltzen.

Ortik ez jako Euskalerrriari ezelango kalterik etorri. Ez deutsegu olango gizonai errurik bota bear, gure erriaren galgarri izan diralakoa. Eurak ez dabe euren erria ez saldu ez galdu. Eta gitxiago, euren erria aiztu barik, itzez eta egitez beronen alde eginala egin badabe. Gure nortasuna, gure izkuntza bera be, ilteko arriskura etorri bada, ez da izan atzerria bidea artu eben euskaldunen erruz, etxean geldituen zabarkeriz eta euskal gogorik ezaz baiño. Ezer galdu bada, emen galdu da, ez atzerrietan.

* Karmel 1988-3, 48-54.

Arinkeria darion barbarik entzun da eta entzuten da atzerrietaratu eta erdaraz idatzi izan dabean euskaldunak dirala-ta. Ameriketarako itxaso-bideak zabaldu barritan idatzi eban eta Erroman argitaratu Loiolako Inaziok bere gogo-jardunetarako liburu ederra. Zelan? Erderaz, atzerrian atzerriko izkuntzan, gizalegeak eskatzen dauanez. Zer irabazi eikean, euskeraz idatzi baleu, atako gauza izan balitz? Ona bada, orain dala amabost bat urte edo, Durangon, Andre Mariko eleizpean, zer entzun geuntsan gure bertsolari ikasi ta eskola andidun bati, jarri eutsoen gaiak alan ekarrita:

San Inazio militarra zan,
eta arretaz aditu:
gugaitik eta errian alde
ez eban ezer sufritu.
Bera zala ta bera ez zala,
erdera gailen gelditu.
Obe genduen Ejerzioak
euskeraz egin balitu.

Bertsolari batek, ateraldi zorrotz usteko bat botatearren, ez dago txarto asmauta. Baiña bertsoaren mamiari begitu ezker, arinkeri utsa besterik ez da. Inaziok ez eban bere liburua idatzi edozeiñek irakurteko, ejerzizio emoilientzat baiño, bakotxak entzuleen izkuntzan azaldu egian. Orregaitik atera eban latiñez be, eleizgizon geiagoren eskuetan ipinteko. Eta Euskalerrriak, arrezker, beti izan dau Inazioaren ejerzizioak, gogo-jardunak, euskeraz nok emon. Eta ori Inazioaren egunetatik eta Inazioaren eragitez, Inaziok berak agindu eta euskaldunen artera bialduta. Bat, gitxik dakiena: aita Otxoa, Erronkariko semea, Bizkaian zear be ibilli izan jakuna sermoegiñen eta ejerzizioak emoten. Baten batek esan lei: Sermolari argia Erronkariar bat Bizkaiko euskaldunentzat! Baiña jakin bei olangoak Aita Otxoaren euskerea Oiñatik euskeratik irazia zana, Oiñatin Nausi eta irakasle luzero egon zan baten euskerea.

Orra, esango dot nik, orra Inazio deuna, Erromatik urten barik, atzerrian bizi zala eta atzerrieko erderaz idazten ebala, Euskalerrrian euskaldun eginik, bere ejerzizioak euskeraz emoten. Ilda gero be, ez ete dau bardin jarraitu, batez be Aita Kardaberazek euskeraz idatzi zituen lau ejerzizio-liburuetatik, eta geure egunerara arte guztian beste euskal-izlari eta euskal-idazleen bitartez? Gure gizaldí onetara begiratze utsaz, ikus geinke Loiolako Santuaren liburu ospetsuak euskerara gitxienez iru itzulpen izan dituela (Olabide, Atutxa eta Egia) eta aren mamia ainbatek (Basabe, Manzisidor eta abarrek) emon deutsela Euskaldunai euskeraz. Ez ete dau olan Inaziok euskerarentzat mesede andiagoa egin bertsolariaren irri-bertsotxoak baiño?

Inazioaren mende berekoa da Garibai. Eta ona Klaberia lapurditarak bein aren-tzat bota eban eztenkadatxoa. Eta ez Garibairentzat bakarrik, bai Etxabe, Ameriketean euskaldunen eta euskeraren onez erderaz idatzi ebanarentzat be:

Burlatzen naiz Garibaiez
bai halaber Etxabez,
zeñak mintzatu baitire
erdaraz Eskaldunex.

Askotan egiten dan pekatua da bat goratzearren beste bat beeratzea. Eta ori egin dau Klaberia orrek. Joannes Etxeberriri, euskeraz idatzi ebalako, zor jakon autorra egiteko, ez eukan ez Garibai ez Etxabe beeratu bearrik. Garibairen lana goragarria da edonondik begituta. Berari zor deusagu antxiña bateko euskal-esaera zar eta ereseder asko galdu ez izana. Etxabek Ameriketara idatzi eban bere *Discursos* liburua euskaldunen maitez eta euskeraren omenez, batez be erdaldunak argitzeko. Ezingo dautsagu bere borondate ona eta geure esker ona ukatu. Klaberiaren bertsoak on eginez, norbaitek idatzi izan dau Garibai eta Loiola larregi dala Euskalerrian. Nik uste, tamalgarriago izan dala euskerarentzat eta Euskalerrarentzat Klaberia asko izatea, irrizko bertso orreik baiño besterik ezagutzen ez jakon ezker. Loiolako santuari eta Garibairi askoz geiago zor deuto euskerak lengo eta oraingo Klaberia guztiak baiño.

Bakotxari berea; naiz Erroman, naiz Valencian, naiz Ameriketara bizi zirala idatzi ebenai emon deioegun eurena. Aitortu deioegun euren lana, euren borondate ona eta geure zorra. Euren eskupekoa opatu utoen geure erriari. Emen gelditzen ziranen eskuetan itxi eben emengo arazoan goraberea, emengo politika bidea, euskerearen bizitzea eta emengo dana. Geure eskuetan itxi euskuen erri onen geroa eta euskerearen etorkizuna. Emengo arazoak okertu badira, giro txarrik sortu izan bada gure artean, geurea izan da errua, ez areina. Erdereari goiak artzen itxi badeutsagu, euskereari joaten itxi badeutsagu, ez deioegun areiri kontua eskatu, geure zabarkeriari baiño. Etxabek berak be ez eban gitxi egin guri geure nortasuna eta gainerako ondasunak gogoratzeaz. Gure txaloak eurai.

Azken urteetan euskaldunen diaspora

Eta, jakiña, txalo beroagoak jo bearrean gagoz azken urteetako diasporako euskal-idazleai. Orain berrogeitamar urte euskaldunak izan eben diaspora, erriz erri eta munduz mundu sakabanatzea, lenago izaniko diaspora guztien azkarria izan zan. Pillaka eta millaka zabaldu ziran munduko bazter guztietara. Batez be, Europako eta Ameriketako aldeetara. Eta euren nortasuna, eta euren euskal-gogo aitzu eta galdu barik joiazan.

Lurrari inguruz inguru bira egin eutsan euskaldunak, Urdanetak, itxaso zabalean bein jaurtiriko «Aurrera»! oyua, itxasoko olatuen artean galdu zana, geroko gizaldiak aitzu barik gogoratzen dabe. Oraingoan euskerazko oyu uts bat ez eze, euskerazko liburu osoak mundu guztian zear gordeko dabe euskaldunen izena eta euskal-izkuntzaren oiartzuna. Euskalerrian bertan euskera ito nai izan dabenean, gure izkuntzak mundu zabaleko ainbat lekutan aurkituko dau arnaslekua. Diaspora orretako euskaldunak eurakaz daroe Euskalerrria eta lekuan lekuan sortzen dabe euskereari bizirik eutsi eta iraun erazoteko aukera. Lenago be jakin eben gure Amerikanak euskaldunak zirala zelan bait erakusten. Amazortzigarren gizaldian Peru aldean argitaraturiko bertso batzuk ezagutzen dira, eta joan dan gizaldian, emeretzikoan, Iparragirrek, Otañok eta beste batzuk ango lurraldeetan be idatzi edo abestu eben zer edo zer. Baiña azken urteotan, ez bertso bat edo beste, euskera utsezko aldizkariak eta liburuak

argitaratzeraiño erakutsi izan dabe Diasporako euskal-idazleak euren euskalduntasuna eta euskaldun irauteko gogo eta kemenen, emen egin ezin zana, atzerrian non-nai egiñez. Eurak ez dira erbesterratu, antzinako asko lez, diru-utsaren usaiñean, aberas-turik etxeratzeko amesak eginda.

Euskal-diasporako idazleak, beintzat ez dabe Klaberia gaizki-esalerik izango. Lan izugarria eta guztiok eskertzekoa eta eder-eriztekoa egin dabe. Batzuk bakarrean eta ixillean ibilli dira, beste batzuk agiriago eta tuntun-ots andiagoo jota. Era guz-tietako liburu eta lanak urten dabe euren lumetatik, poema dala, nobela edo ipuinak dirala; batzuk, idazleak berak asmauta; beste batzuk erdal-izkuntzetatik euskerara itzuli. Askoo aitatu barik geldituko ete diran bildurrez, aitatu daiguzan batzuk bein-tzat.

Chiletik, berengo errepublikatik asteko, Lontzi karmeldarrak bertsozko ipuin-liburu bi atera zituen an, eta beste lau geiago argitaratzeko prest itxi. Aita Agustin Atutxak, Karmeldarra au be, *Mugarra Begiraria* poema gogorra idatzi eban an bertan, azkenez Caracas-en argitaratu ebana. Aita Mokoroa Kalasanztarrak izugarrizko lana asi eta burutzen diardu, euskal-esaera jatorrak batzen, iztegi antzean (Diccionario fraseológico); noz norik argitaratuko zain dauka lana, txukun amaituta.

Eta nok ez daki *Boletín Americano de Estudios Vascos* aldizkaritik egin izan dan lana? An bertan Txomin Jakakortajarena apaizak, besteak beste, Martin Fierro, ango poema ospetsuari ez deutso, ba, euskerazko bertso trinkotan ain zeatz eta ain jator berba egin erazo, eta Aita B. Larrakoetxeak ez dau, bada, lan arrigarria burutu, Shakespeare gorengo maillako antzerkigillearen antzerki guztiak euskerara itzuli eta gero argitaratu? An argitaratu izan dira iru euskal nobela gogoangarri, *Joan Iñaxio, Bizia garratza*, J.A. Irazustarenak, Colombian idatzi eta Arjentinan argitaratuak, eta *Ekaitzpean*, Eizagirre-tar Josebarena. Eta an sortu eta emen argitaratu dira. *Lardas-ketan* eta *Euskaldunak Argentinan*, J.R. Zubillagarenak. Peru aldetik ibillia da Aita Salvatore Mitxelena Unamunoren kritikako saio-liburu mardula idazten.

Venezuelan Ybinagabeitia bizkaitarrak patxada ederrean jardun dau ainbat euskal-lan ontzen eta Euskal-aldizkari barri bati bizia emoten (*Eman*) bera il zan arte. Martin Ugalde be Venezuelen saiatu izan da euskeraz eta erderaz idazten: euskeraz *Iltzailleak* eta beste antzerki-lan bat. Venezuelen egin zituen Bixente Amezagak ainbat lan sakon, euskeraz eta erderaz. Euskeraz ez doguz aitzu bearko *Hamlet*, Shakespearearena, eta *Platero eta biok*, J.R. Jimenez-ena; biak euskerara Amezagak itzuli eta Ameriketean argitaratuak. Perutik eta S. Salvadorretik izana da Orixek, bere luma ederrari iñoz bakean itxi barik bertsoz eta itz-lauz mistikako gaiak landu eta argitzen. Bai Orixek eta bai Oiarzabal apaizak, Zaitegi zuzendari ebela, Guatemala aldean, *Eusko-Gogoa* aldizkariaren inguruan, lanik txalogarriena egin eben, Euskalerriko giro txarrak bearturik atzerrietan ebiltzan euskal-idazleen indar geienak euskerearen aldera alkartu eta ekarten aleginduz. Zaitegiren *Eusko-Gogoak* ildo gogoangarria itxi dau azkenengo urteetako euskal-literaturan.

Eta ez daiguzan aitzu China eta Formosa aldetik jardun eben idazle bi: Aita Yurre kaputxinoa eta P. Etxebarria jesuita. Euren mixio-lanen artean ez dabe inondik iñora euskeraz idaztea bazterturik euki. Ango mixio-lanetako barri emonez gainera Aita Yurrek liburu mardulik atera dau, Vatikanoko Kontzilioaren goraberan.

Euskaldunen diasporako Euskal-idazleak lan ederra, gizaldiz gizaldi gogortzekoa egin ebelakoan gagoz. Lan gogangarria eta biotz-biotzez eskertzekoa, eta eredutzat ipintekoa gainera. Egun illun baltzetan itxaropen-argia ixetu euskuen. Beioakie guztiai lerro kaxkar oneitatik gure gorespen eta esker ona. Gure gomuta berezi apartekoa zor deutsegu.

EUSKAL LITERATURAREN INGURUAN

SAGARAKO ITZAK GURE IDAZLEETAN*

I. «AU DA NERE GORPUTZA» DIOTENAK

LEIZARRAGA (1571)

1) Eta hec alha ciradela har ceçan Iesusec oguia, eta gratiac rendaturic, hauts ceçan, eta eman cieçen bere discipuluey, eta erran: Har eçaçue, ian eçaçue, *haur da* ene gorputza.

Eta harturik copa, eta gratiac rendaturic, eman cieçen, erraiten çuela: Edan eçaçue hunetariç gucioc.

Ecen *haur da* ene odol Testamentu berricoa anhitzengatik issurtzen dena bekatuen barkamendutan (Mat. 26, 26-28).

2) Eta hec alha ciradela, han ceçan Iesusec oguia eta gratiac rendaturic hauts ceçan: eta eman cieçen, eta dio: Har eçaçue: *haur da* ene gorputza.

Eta copa hartu çuenean, gratiac rendaturic, eman cieçen; eta edan ceçaten hartariç guciok.

Eta dioste: *Haur da* ene odol Testamentu berricoa, anhitzengatic issurten dena (Mark. 12, 22-24).

3) Eta harturic oguia, gratiac rendatu zituenean, hauts ceçan: eta eman cieçen, cioela: *Haur da* ene gorputza çuengatic emaiten dena: haur eguiçue ene memoriotan.

Halaber copa-ere eman cieçen affal ondoan cioela; Copa *haur da* Testamentu berria ene odolean, cein çuengatik issurtzen baita (Luk. 22, 19-20).

* Jaunaren Deia 3 (1967) 143-154.

4) Ecen nic recibitu dut Iaunaganic eman-ere dauçuedana, nola Iesus launac, traditu içan cen gaean, hartu. çuen oguia:

eta gratiac rendaturic, hauts ceçan, eta erran ceçan: Har eçaçue, ian eçaçue: *haur da ene* gorputza çuengatic hausten dena: haur eguiçue, ene memoriotan (Corint. 1, 11, 23-25).

5) Recibitu ukan dut, dio, Iaunaganic, eman-ere dauçuedana, nola Iesus launac, traditu içan cen gaean, hartu çuen oguia: eta gratiac rendaturic hautsi ukan çuen eta erran ceçan; Har eçaçue ian eçaçue: *haur da ene* gorputza, cein çuengatic hausten baita: haur eguiçue ene memoriotan. Halaber copa-re har ceçan, affaldu cenean, cioela; *Haur da* Testamentu berria ene odolean; haur eguiçue noiz-ere eguinen baiçuue ene memoriotan («Cenaren celebratzeko forma»).

Larregui (1777).-*Testamen çaharreco eta berrico Historiaioa*.

Hartu-çuen oguia escutan, benedicatu-çuen, hautsi-çuen, eta eman cioten bere dicipuluei erraten-çuela: *Hau da* ene gorputza.

Hartu çuen orobat khaliza, benedicatu-çuen, oguia eguin-çuen beçala, eta eman cioten dicipuluei escutarat erraten çuela: Edan eçaçue guciec huntaric. Orai ematen darotçuet edaterat ene odola amoaren iduriaren azpian, eta oren laburric bamean issurico dut becatuen borratçecotçat eta guiçon gucien salbamenducotçat (II, p. 254).

Ubillos.-«C7zráiaw doctrin berri-ecarlea» (1785).

Afaltzen zeudela, artu zuen bere eskuetan ogi bat, bedeinkatu zuan et eman zion bakoitzari bere zatia edo ogi puska esaten ziela: Arrezazue, jan ezazue; *au da* zuekatik saldua izango dan nere gorputza. Gero kaliz edo edontzia batean artu zuan ardo, bedeinkatu zuan ta eman zien esaten ziela: edazue guziok: *au da* nere odola, Testamentu berriko odola, zuekatik isuria izango dana: egizue au, nizaz oroitzen zeratela (*Euskalzale-ven* moldaldi berritik, p. 77, 78).

Iturzaeta Andres.-«*Icasbide Cristinaucorraren Azalduera laburrak*» (1899).

«Eutziye ta janeguizue, *ausse da* nire gorputza...

«*Ausse da* nire odolaren calicea, zuegaitic eta ascogaitik isuria izango dana pecatuen parcacinoeraco».

Moguel.-«*Confesioco ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac*» (1800).

«*Au da* nere Gorputza... *Au da* nere odolaren Caliza» (p. 202).

Aita *Barto\ome.-Ikasiquizunak* (1817-1819)

Artu eguizu ta jan eguizu: *Au da* neure gorputza... *Au da* Legue barrian betico isten deutsuedan neure Odolaren caliza (III, 194).

X.X.—«Jesusen Bihotz Sakratuaren alderako debozionatearen Exercicio Izpiritualac» (1831).

«Jesu-Christoc erraten du bere ministroaren ahoz, oguiaren eta amoaren gainean: «*Hau da* ene Gorputza; *hau da* ene odola» (p. 82).

Martin Duck *Apeza.-«Erroma eta Jerusalem»* (1891).

«Ortzegun sailduko afarian, hartu zuen Jesus eztiak ogia bere esku saildu eta errespetagarrietan, benedicatu zuen ogia hura, khanbiatu bere gorputzerat, hautsi eta eman bere dizipuluer, erranez: «Ar zazue eta jan zazue: *hau da* ene gorputza».

Molde berean, hartuz kalitza amoarekin bere esku saildu eta errespetagarrietan, benedikatu zuen kalitza, khanbiatu han zen arnoa bere odolerat eta eraan hartarik edaterat erranez: «Har zazue eta edan zazue hortarik guziek. *Hau da* ene odola, Testament Berrikoa, zoina hanitzentzat ichuria izanen baita bekhatuen barkhamandutan» (p. 281).

Catichima Baionaco Diosesacoa (1912).

—Erraguzu nola Jesusec establitu zuen Gorphutz-Saindua?

¡Jesusec hartu zuen ogia, benedicatu, hautsi eta eman bere Apostolueri, ciolaric: «Har eta jan zazue. *Hau da* ene Gorphutza. Gero hartu zuen arnoa ceucan calitza, benedicatu eta escaini bere Apostolueri, ciolaric: «Har eta edan zazue; *hau da* ene odola» (p. 140).

Oteyza.—«Ebanjelioa San Lucasen guissan». Madrid. (1838).

Au da nere gorputza zuekgatik emana.

Caliz *au da* Testamentu berria nere odolean, ixuria izango dana.

Uriarte.—«San *Mateo'ren Ebanjelioa»* (1857).

Artu eban Jesusec oguia, eta bedeincatu eban, eta ebagita emon eutsen bere jarraitzalleai eta esan eutsen: Artu eguizube eta jan eguizube: *Au da* nire gorputza...

Edan eguizube onetatic guztioc, zeren *au da* nire odola, testamentu berrikoa, ascogaitic ixuria izango dana, pekatuen parkaziñorako.

hardizabal.-«*Testamentu zar ta berrico condaira*» (1855).

Legami-gabeco oguia bere escuetan artu zuan: Aita Eternoari eskuerrac eman ciozcan; bedeincatu zuen, eta ebaquita, bere apostolui eman cien, esanaz: Artu, eta jan ezazute: *Au da* nere Gorputza, zuecgatic emango dana. *Au da* nere oroipenean egizute. Guero edanontzia ardoarequin artu zuen; Aita-Eternoari eskuerrac eman ciozcan; bedeincatu zuen, eta Apostolui eman cien, esanaz: Emendik gucioc edan ezazute: *Au da*, bada, Testamentu Berrico nere odola, zuecgatic eta ascogatic becatuen barcacioraco isurico dana. *Au* eguiten dezuten gucian, nere oroipenean eguingo dezute (p. 440-441).

Gregorio Arrue.—«*Mazoren dotriña*» (1860).

Artu eta jan zazute: *au da* nere gorputza... Onetatic guciok edan zazute, ceren *au da* nere Odola (Eta olaxe noiz-nai).

Kandido Basabe.—«*San Inñazoren ejertzijuetako gogartiak*» (1912).

«Artu ta jan egixue; *auxe da* nire gorputza zuekaitik erijotzara emoten dana... *Auxe da* testamentu berriko neure Odola, zuekaitik eta gustijakaitik pekatuen par-kamenerako ixuriko dana» (p. 289).

Martin de Oyarzabal.—«*Yesu kisto gure Yaun eta Yaungoikoaren bizitza ta Berri Ona*» (1935).

«Artu ta yan; *au da* nere soiña...

«Edazute ontatik guztiok. *Au da*, bada, nere odola, Itun-odola ogen-asketserako askoren alde ixuriko dana».

Ibargutxi Yon Gurxitz.—«*Edesti Deuna*» (1936).

Apari-azkeneruntz, mayan ziran opilletatik bat bere eskuetan artu eban Jesusek, eta esker-egin, ta onetsi, ta zatitu ta emon eutsen esanaz: «Artu ta jan, *auxe da* nire gorputza». Gero edontzia artu ta onetsi, ta esker-eginda, emon eutsen esanaz: «Edan guztiok ontatik. *Auxe da* ba nire odola» (p. 204).

Kenpis'en itzultzalleak.—£/nengo *aldekoak* (Echeberria, Olabide, Pi Aba, Apaiz bat, ots, Larrañaga Eladi, 1953).

«*Au da* nere gorputza [edo soña]»

Etcheberry.-«7esíamenr *Zaharreco eta Berrico Istorioa*» (1875).

Guero Jesusek hartu zuen bere escu sacratuetan, aiticinean zuen oguia, beguiac altchatu cituen zerurat, bere Aita guciz botheretsua ganat, eskerrac eman ziozcan, eta benedicaturik oguia eman ceien bere dicipuluei ciolaric: Har ezazue eta jan ezazue, hau da neure gorputza zuentzat emanen dena...

Guero hartu zuen calitza arnoa zaucana, eskerrak bihurtu cituen, benedicatu zuen calitza et eman zuen dicipuluei ciolaric: Edan ezazue guciec huntaric, ecen hau da ene odola, bacuntza berrico odola, ichuria izanen dena zuentzat eta ascorentzat, bekhatuen barkhamendutan: eguinen duzue hau nere orhoitzapenetan. (p. 262).

Diharassarry.-«Gi'n'íimo *Legea*» (1894).

Har zazue eta jan, hau da nere goputza... Har zazue eta edan, hau da nere odola. Hau egizue ene orhoitzapenetan.

Zuberoko uskaraz.-«*Uskara Libria*» (*Bestaldean geientsu argitaratua*).

Hartu ciçun ogui bat eskietara, eta benedicaturic phartitu ciçun bere dicipulier, cioularic: Har eçacie, haur da ene khorpitça. Ber guisala hartu ciçun khalitça bat mahaxanouareki, eta benedicaturic eman cieçun, cioularic: Edan eçacie oroc hontaric, eci haur da ene odola, çoginec hanitchen bekhatien erremissionetaco ichouri içan behar beitu.

Lapeyre'k ere bere «Sinhesten dut» liburuan orretara joten du.

Joannategi.-«*B/íoíz Sakratuaren Hilabetea*» (1912).

Hartu ogia, benedikatu, eta ematen diote Apostolui, erraten diotelarik: Har zazue eta jan: hau da nere gorputza.

Gero hartu kalitza, benedikatu hura ere, begiak zerurat altchatuak, eta ematen diote, erraten diotelarik: Har zazue eta edan, hau da zuen eta hainitzen bakhatuen barkhamenduarentzat ichuria den nere odola (p. 86-87).

Apaiz Euskaldun Batek Euskeratua.-«*Meza Santua zer dan*» *Martin Kotxentarrak argitaratua*. (1915).

Afaltzen zeudela, artu zuen Jesusek ogia, bedeinkatu eta zatitu zuan, eta eman zien bere ikasleai, esanaz: Artu ezazute eta jan ezazute; au da nere gorputza. Jarraituan, arturik kaliza, eman zituan eskerrak, eta eman zien esanaz: Edan ezazute, bada, au da nere odola, Testamentu Berriko Odola, zuekgatik eta askogatik ixuriko dana pekatuen barkaziorako (p. 21-22).

Iraizoz'ko Polikarpo.-«*Yesukristo gure Yaunaren bizia*» (1934).

Artu ta yan zazue; au de nere gorputza, zuengatik ematen dan nere gorputza... Auxe da nere odola, ongonde berriaren odola, zuengatik eta guziengatik pekatuen parkamenerako isuriko dena (p. 444).

Jean Elissalde.-«*c/zíon'o Saindua*» (1943)

Har-zazue eta jan, hau da nere Gorputza... Har-zazue eta edan; hau da nere Odola (p. 87).

L. heon.-«*Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelio saindua*» (1947).

1) Bada, afaltzen ari zirelarik, ogia artu zuen Jesusek, benedikatu, puskatu eta dizipulueri eman, erranez: Har zazue eta jan: hau da ene Gorputza. Gero edateko untzia harturik, eskerrak bihurtu zituen eta eman zioten, erranez: Edazue guziek huntarik; au da ezen ene odola, batasun berriko odola, ainhitzen bekatuen erospenetan ichuria izanen dena (Mat.).

2) Jaten ari zirelarik, ogia hartu zuen Jesus'ek, benedikatu, puskatu eta dizipulueri eman, erranez: «Har zazue, hau da ene Gorputza». Gero edateko-untzia harturik, eskerrak bihurtu ondoan, eman zioten dizipulueri, eta denak edan zuten. Eta erran zioten: «Hau da batasun berriko ene Odol ainhitzentzat ichuria izanen dena». (Mark.).

3) Ogia artu zuen orduan, eta, eskerrak bihurturik, hautsi eta dizipulueri eman, erranez: «Hau da ene Gorputz, zuentzat emana dena; egizue hau ene orhoitzapenetan. Halaber, afal-ondoan, hartu zuen edateko-untzia, erranez: «Kalitza hau da zuentzat ichuriko den ene odolaz eginikako batasun berria» (Luk.).

Baionako Diosesako Katichima.-(1950).

Har zazue eta jan, hau da ene Gorputza... Har zazue eta edan: hau da ene Odola, batasun berriko Odola, ahinitzen bakatuen erosteko ichuria izanen dena.

II. «AU, NERE GORPUTZA DA» DIOTENAK

Haraneder-Harriet (115Q-1S54).-«*Iesuchistoren Ebanjelio Saindua*».

1) Eta ahariten hari cirela, hartu çuen Iesusec oguia, eta, othoitz egin ondoan, hautsi çuen, eta eman çaroen dicipuluei, ciotsotela: Har eçacue, eta ian eçacue: hau ene gorputza da.

Eta edan-untzia hartu eta, eskuerrac bihurtu cituen, eta eman dicipuluei, cio-tsotela: Edan eçaçue huntaric gucie:

Ecen hau ene odola da, Testament berricoa, ceina ichuria içanen baita hainitzen-tzat, bekhatuen barkahamendutan (Mat. XXVI, 26-28).

2) Iaten hari cirelaric, hartu çuen oguia Iesusec, eta haren gainean othoitz eguin ondoan, hautsi çuen eta eman çaroen, cioela: Har eçaçue, hau ene gorphutza da.

Harturic berriz edanuntzia, eskuerrak bihurtu cituen eta edan çuten guciec.

Eta erran çaroen: Hau ene odola da, Testament berricoa, ceina ichurico baita hainitzentzat (Mark. XIV, 22-24).

3) Harturic oguia, eskuerrak bihurtu cituen, hautsi çuen, eta eman çaroen cioela: Hau ene gorphutza da, çuentcat emana dena; eguiçue hau ene orhoitzapenetan.

Halaber artu çuen edan untzia, aphaltu ondoan, cioela: Kalitca hau Testament berrico khalitza da ene odolean, ceina çuentzat ichuria izanen baita (Luk. XII, 19-20) (1).

Jesus-Christo gure Jaunaren testament berria lapurdico eskurarat itçulia (1828).

1) Eta yaten ari baitciren, Jesusec hartu çuen oguia, eta eskuerrak bihurtu ondoan, hauxi çuen, eta eman bere dicipuluei, eta erran çuen: Har çaçue, yan çaçue, hau ene gorputza da.

Guisa berean harturic khalitza eta eskuerrak bihurtu ondoan, eman cioten, erraiten çuelaric: Edan çaçue guciec. Ecen hau ene odola da, testament berrico odola, hainitcentçat ichuria dena, bekhatuen barkhamendutzat (Mat.).

2) Eta nola yaten hari baitciren, Jesusec hartu zuen oguia, eta Jaincoa benedikatu ondoan, hautsi zuen, eta eman cioten, eta erran: Har çaçue, yan çaçue, hau ene gorputza da.

Guero harturic khalitza, eskuerrac bihurtu cituen eta eman cioten; ete guciec edan çuten hartaric.

Eta erran cioten: Hau ene odola da, Testament berrico odola, hainitcentçat ichuria dena (Mark.).

3) Guero hartuz oguia, eta eskuerrac bihurturic, hautsi çuen eta eman cioten, ciotelaric: Hau ene gorphutza da, çuendaco emana dena; eguin çaçue hau ene orhoitzapenetan.

Orobat ere eman zioten khalitza afaldu ondoan, erraiten çuelaric: khalitza hau Testament berria da ene odolean, ceina ichuria baita çuentçat (Luk.).

4) Ecen Jauna ganic errecibitu dut ere eman dautçuedana, Jesus Jaunac trahitua cen gaban hartu baitçuen oguia,

eta graciak bihurtu cituen ondoan, hautsi çuen, eta erran: Har eçaçue, yan eçaçue: hau ene gorphutza da hautsia çuentzat: eguiçue hau ene orhoitzapenetan.

(1) Ustaritz'en arkitu da Haraneder'en «originala», eta bertan bi eratara erabiltzen du. Beraz, Haraneder ere lenengo saillen sartu diteke. Haraneder bat da, eta Harriet beste bat. Oar au garrantzi aundikoa da; izan ere, Orixe, Haraneder-zaleadegu, etaditekenada Haranederrijarraitu nairik Harrieterrijarraitzea.

Guisa berean ere afaldu ondoan, hartu çuen khalitza, ciolaric: khalitz hau testament berria da ene odolean: eguicue hau edanen duçuen aldi guciez ene orhoitçapenetan (Corint.).

III. «AU DA NERE GORPUTZA» eta «AU, NERE GORPUTZA DA» BITARA DIOTENAK

T)u\oisin.-«Testamen Zahar eta Berria».

1) Afariten hari zirelarik, Jesusek hartu zuen ogia; benedikatu zuen eta hautsi, eta eman zioten bere dizipuluei zioelarik: Har zazue eta jan, au ene gorputza da.

Eta edateko untzia harturik, eskerrak bihurtu zituen, eta eman zeroeten, zioelarik: Huntarik edan zazue guziek.

Hau da ezen ene odola, bat-tasun berrikoa, hainitzentzat ichuriko dena, bekhatuen barkhamendutan (Mat. 26).

2) Eta iaten hari zirelarik, Jesus'ek hartu zuen ogia; eta benedikatu ondoan, hautsi eta eman zioten, eta erran zuen: Har zazue, hau da ene gorputza.

Eta edateko untzia harturik, hekiei eman zioten, eskerrak bihurtu ondoan; eta harturik edan zuten guziek.

Eta Jesus'ek erran zioten: Hau da bat-tasun berriko ene odola, hainitzentzat ichuriko dena. (Mark.).

3) Gero, ogia harturik, eskerrak bihurtu zituen; hautsi zuen eta eman zaroeten, ziotelarik: Hau ene gorputza da, zuentzat ematen dena; hau egizue ene orhoritzapenetan.

Halaber, afaldu ondoan, hartu zuen edateko untzia, zioelarik; Kalitza hau da bat-tasun berria ene odolaren bidez, zeina izanen baita zuentzat ichuria (Luk.).

4) Alabainan Jaunarenganik ikhasia dut zuei irakhatsi ere dudana, Jesus Jaunak ezen, saldua izatera zihoan gauean hartu zuela ogia,

eta eskerrak bihurturik hautsi zuela, eta erran: Har zazue eta jan, hau da ene gorputza, zuentzat emana izanen dena; hau egizue ene orhoitzapenetan.

Orobat, afaldu-eta, kalitza hartu zuen, zioelarik: Hau da bat-tasun berriko kalitza ene odolean. Edaten duzuen aldi oroz, hau egizue ene orhoitzapenetan (Corint. 1, 11).

Duvoisin-Haristoy.-*£pa/y'e/2o Saindua» (1898).*

Itzen batzuk aldatuta («Bat-tasun» ordez «Testament») Duvoisin'ena bera da. Mateo'renean eta Lukas'enean: «Hau ene gorputza da»; eta Markos'enean: «Hau da ene gorputza».

Arriandiaga.-«Goizparraik eta Beldubaik egiña» (1959)

«Artu ta jan eikezube: au neure gorputza dozube-ta... Auxe dozube, ba, Itunaldi barriko neure odola» (Mat.).

«Artu: au dozube nire goputza... Au dozube Itunaldi barriko nire odola» (Mark.).

«Au zubekatik emoten dan neure gorputza dozue... Edontzi au Itunaldi barrija, zubekatik ixuriko dan nire odolana dozube» (Luk.).

Elizako Liburua (1961).-Askoren artean egiña.

1) Jaunarengatik dut-eta ikasi, zueri nihaurk, erakatsia: hots, Jesu Kristo gure Jaunak, saldu zuten gauean, hartu zuela ogia, eta eskerrak emanik, puskatu, erranez: Hau ene Gorputza da, zuentzat emanen dena; egizue haur nitaz orhoitzeko. Orobat afal ondoan, kalitza har-eta erran zuen: Kalitza hau Testament berria da, nere odolean; edanen dezuen aldi oroz, egizue nitaz orhoitzeko (Otzegun Saindu arratseko Mezan).

2) Har zazue eta jan huntarik guziek: Ezen hau da nere Gorputza... Har zazue eta edan huntarik guziek: Ezen hau da nere odolaren kalitza, Testament berri eta betikoa...

Baiona'ko Diosesako Irakurgaietan.-Orízeg«n Sainduz.

Har zazue, eta jan: hau da nere gorputza zuentzat emanen dena. Kalitza hau nere odolezko Batasun berria da...

Azkue (R.M.).-«Jesus'en Biotzaren illa» (1901).

Artu ta iaizue, auxe da nire goputza-ta... Auxe da neure odolezko kaliza.

«Apaiz Ostegunerako Elizkizun eta otoitzak».

Aparitan ari ziranartean Yesusek, ogia artu, onetsi (bedinkatu) ta puskatu zuen ta bere ikasleai eman zien «Ar zazue —esanez— ar zazue ta yan, au nire soina (gorputza) da. Eta edanontzia (kaliza) arturik, eskerrak erakutsi zituen eta itz auezaz eman zien: «Edan zazue onetatik guziok, au Testamentu berriko nire odola baita, pekatuak parkatzeko askoren alde ixuriko dana».

Bernaola Damaso Maria.-«Pasino Santuaren contaera» (1905).

Emoten deusuedan au da nire gorputza, zuecgaitik saldua, eta munduaren Salbaciñoa gaitik curutzean josia izango dana...

Edan egizue guztioz Caliza onetarik, bada bertan emoten deusuedana, neure odola da Testamentu barriaren sendacuntzaraco eta pekatuen parcaziñoraco curutzean isurico dana (p. 16-17).

01abide.-«/f«n *Berria*».

1) Artu ta yan: au da nere Soña... Edazute ontatik guztiok. Au bait-da nere odola, Itun-odola, ogen-asketsarako askorentzat ixuriko dana (Mat. XXVI).

2) Torizute: au da nere Soña... Au da Itun Berrirako neife Odola, askorentzat ixuriko dana (Mark. XIV).

3) Au da nere soña zuentzat emana. Au egizute nere oroitzat... Ontzi au Itun Berria da, zuentzat ixuritako nere odolez (Luk.).

4) Au da nere soña, zuen alde eraan bearra: au egizute nere oroitzat... Ontzi au nere odolez Itun Berria da; au egizute nere oroitzat (Corint.).

Orixe.-«*Meza-Bezperak*» (1949).

1) (Kanon'ean) Ar zazute ta jan guztiok: Izan ere, au nere gorputza da... Ar zazute ta edan guztiok: Izan ere, au nere odola daukan ontzia da (Kanon'ean).

2) Aparitakoan Jesusek ogi bat artu zun, onetsi, zatitu ta ikasleai eman zien, esanaz: «Artu ta jan; au Nere gorputza da». Eta ontzia arturik eskerrak egin, eta emanaz, au esan zien: «Edazute guziok ontatik, au Nere odola baita» (Mat.).

3) Eta aparitakoan, Jesus'ek artu zun ogia, bedeinkatu, zatitu, eman, eta esan zien: «Au nere gorputza da; ar zazute». Gero ontzia artu, eskerrak emanda banatu zien, eta guziak edan zuten. «Au Nere Odola da, esan zien, Testamentukoa, askoren alde ixurtzekoa...» (Mark.).

4) Gero ogia artuta, eskerrak eman, zatitu ta banatu zien, au esanaz: «Au nere goputza da, zuen alde emana. Egizue au, Ni gogoraturaz». Berebat apal-ondoan edan-ontzia artu, ta onela esan zien. «Au da Alkartasun berriko ontzia, zuengatik ixuriko dan odolarena» (Luk.).

5) Au nere goputza da, zuen alde saldu bearra; egizute au nere oroiz. ...Ontzi au Nere odolez Itun Berria da; egizute au nere oroiz (Corint.).

Kempis'en Itzultzalleak.-fie.yre *aldekoak* (*Chourio, Maizter, Intxauspe, L. Léon*).

«Au da ene gorputza».
Duvoisin-Haristoy'k berriz:
«Hau ene Gorputza da».

Mezaren Itzultzalleak.-£/izoní/o Aita «*Kristaua bere ponte-Elizan*» (1911) eta Apaiz bat «*Kristo'ren Antz-bidea, Meza Deuna ta eraspentak*» (1953), *Kerexeta eta Zarate*.

«Au nere goputza da... Au nere odol-ontzia da».

—«Argi Donea», Goi-zale, Oraingo Aste Santua, Jorje Agirre, Elizako Liburua:

«Au da Nere Gorputza».

—Vicente Aramburu «Eliz-abestiak», bitara:
«Au nere goputza da-ta... Auxe da ba nere odol-ontzia».

Arantzazuko praileak.-«*Lau Ebanjelioak*» (1961).

1) Artu ta jan: auxe da nere goputza.

Edan emendik guztiok: auxe da nere Testamentu berriko odola pekatuak barkatzeko askorengatik ixuria izango dana (Mat.).

2) Artu, auxe da nere gorputza-ta... Auxe da testamentuko nere odola, askorengatik ixurtzekoa dana (Mark.).

3) Auxe da nere goputza, zuengatik eskeintzen dana... Kaliz au Testamentu berria da, zuengatik ixuriko dan nere odoletan (Luk.).

ANDRE MARIA EUSKAL LITERATURAN*

Loiolako zaldun azkarrak, Imñako zaurietarik sendatuz zijoanean, libum onak irakurten ematen omen zituen asti-orduak, an bere gurasoen jauregiko gela batean. Asi omen zan libum bat idazten ere; eta Jaunaren itzik paperera aldatu bear zuenean, gorritz idazten omen zuen; Andre Mariarenik baldin bazan, berriz, urdiñez.

Lantxo oni asiera ematerakoan, zerk ekarri ote dit gogora iñazio donearen bizi-tzako oroitzapen ori? Bear bada, gaiak berak. Aspaldi eztala, *Jaunaren Deia* ontan bertan gure Biblien berri eman det (1). Jaunaren itzari bumzkoa zan lan ura; nolabait letra gorritz idaztekoa, beraz, Loiolako zaldunari jarraitu nai izatekotan. Oraingoan, Andre Maria gure literaturan gaitzat artu dedanean, ez ote da gorritik urdiñera aldatzea bezela? Ala imditzen zait neri.

Baiña bada besterik. Gure literaturara egin bearreko begirada ontan, nondik asi? Noraezekoa, baitezpadakoa degu Etxeparegandik astea. Berak eman zituen literatura idatzian euskeraren asikiñak... «Euskarazko koplá batzu» ondu nai eta zer etzuen berak koplátu? Bertso gorri edo gordiñik atera zitzaion, baina bai urdiñik ere. Ur-diñetan, Andre Mariari ateratakoak, beroenetakoak ditu. Guri emen bereizketa bat egitea dagokigu: gorri edo gordiñ oiek alde batera utzi eta urdiñak, urdiñen urdiñenak, Andre Mariarekikoak aurkeztu eta aztertu.

I

ANDRE MARIA ETXEPAREREN LIBURUAN (1545)

Euskal-literaturaren asieran Andre Maria ez dago, ez, lekuri gabe. Gure leenengo idazle eta olerkaria leenengo kantaria du. Leentasun au ez dago Garaziko semeari ukatzerik.

* Jaunaren Deia (1973, 44-45. zenb.) 261-292.

(1) Ik. 823-843, 852-865, 866-890. orr.

Ez da asko Andre Mariaz idatzi zuena. *Doctrina Christiana* deritzan saillean, bi aapaldi ditu; beste bi, *Orazione igandeko* delakoan; aapaldi bat, *Emazte fabore* deritzan olerkian; eta Andre Mariarentzat oso-osorik onduak, bi poema: *Orazionea* eta *Amorosen gaztigua*, *Judizio Jeneral*a deritzanean ere Andre Mariaren oroitzapena badu azkenengo lerroan. Orra guztia.

Etxeparek egin zuen lan osoa kontuan artuta, ezta ain gutxi. Baiña, batez ere, ez gakizkion oartu lanaren luze-laburrari bakarrik; gogoan ar dezagun aren mamia. Ez degu aurkituko Etxepare Andre Mariaren kantaririk motelena. Leengo eta geroagoko olerkari askok bertsozko orbelik geiago ekarri dute Mariaren oiñetara. Etxepareren bertsoek ez dute azala bat ere loretsua; baiña mamiz eta kristau-gogoetez ez dira olako askoren urrengo gelditzen; askok ez dute berak baiño kristau-gar eta mami geiago.

Euskal-mariologiaren asikiñak Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuan ditugu eta irakurleak barkatuko al digu gai ontan apur bat luzatzen bagera. Saia gaitezen olerkariaren gogoari jarraitzen.

Zer da Maria gure leenengo idazle eta olerkariarentzat? Itz gutxitan esateko, Jainkoaren Ama eta gizonen Ama. Or dago Etxeparek Mariaz esango digun guztiaren ardatza. Ortik da Maria ain goragarri, ain almen andiko, eta pekatariarentzat ain pozekarle. Andi eta goi dakus Andre Mariaren kantari onek zeruko Ama, baiña «grazia oroz betea», pekatariengana begiak errukitsu itzultzen dituela beti:

Ave Maria, Anderia grazia oroz betia,
Ieinkoaren Ama Birjen Berak ordenatua:
zeru eta lur orenen Erregin handia,
bekatoren adbokata eta konfortaria.

Jainkoak berak *ordenatu*, autatu du anditasun ortarako, eta Jainkoaz betik ezta iñor bera baiño andiagorik ez esku geiago daukanik:

Ieinkoaz landan mundu orok eztu hanbat balia,
zeru, lurra, itsasoa, haren peko guzia.
Orotara hedatzen du behar bada eskuia,
bera handi izan arren preziatzen txipia.

Jainkoak Ama duelarik, eta Ama txit maitea, zer eskubide ez du izango Aren biotzean? Andre Mariak eskatu ezker, Jainkoak ez dio gure onerako danik ukatuko:

Ieinkoak zuri eman dizi potestate handia,
Haren Ama ziren gero, Ama ere maitia,
zeru eta lur orotan duzun hanbat balia,
zer zuk galde baitagizu, den konplitu guzia,
eta zure eskutik duten bertze orok grazia
eta salba zuk dezazun zuri gomendatua.

Andre Mariaren almena Jainkoarena aña edatzen da. Jainkoaren Ama izateak ematen dio beste guztien gaiñetiko eskubide ori. Jainkoa jaun eta Maria andere, eztago iñorentzat goragoko maillara igotzerik. Eta Maria gorestean eta ooratzean, Jainkoak berak egifia egiten degu:

Jeinkoa iaun den gauza oroten zu zirade andere:
 arrazoin da mundu orok dagien zuri ohore,
 ezi hala ari zautzu Iesukristo bera ere.
 Zuk bezanbat diñitate mundu orok eztuke.

O Anderia, ezin date ehor zure bardinik:
 gainekorik zuk eztuzu Jeinkoa beraz bertzerik.
 Jeinkoa ezten bertze oro dago zure azpitik;
 Jeinkoaren Ama zira mundu oroz gainetik.

Anditasun au eta eskubide au Jainkoak emanak ditu Andre Mariak, ez berezkoak. Ala ere, bera ezta gelditu ezer egin gabe Jainkoaren ederra irabazteko. Beste iñork baiño geiago egin du Jainkoaren naia betetzen, Ari atsegin ematen. Zeingeiagoka berdingabea! Maria nola Jaunaren gogoa egingo, eta Jainkoa nola Mariari eskubide geiago emango, nola aren naia beteko. Joko ontan Maria gertatu da irabazle, Jaunak ezpaizezakean ezer irabazi.

Mundu orok ez du egin zuk bezanbat Hargatik;
 orogatik bano oboro Hark ere daidi zugatik:
 bere Ama ezin utzi obeditu gaberik.

Jainkoaren Amarekin mundu guztia, gizonak oro gertatu dira irabazle, Jainkoak bere Ama egin baitu ondasun guztien eta grazia ooren iturburu:

Ehon ere gaitzik ezta zuk ken eztirozunik,
 ez etare hondasunik zure eskuian eztenik.
 Denbora eta lekhu orotan, ezein duda gaberik,
 graziak oro zure eskuian Iangoikoak emanik.
 Zu baitzira grazia ooren Ama eta iturburua,
 bertute eta hon guzien tresorera handia.

Grazien grazia Jainko-semetza gizonak artzea izan da. Jainkoak Andre Mariaren erraieran gizatasuna artuz iritxi du gizonak izate berri bikain ori, Jainkoaren semea Mariaren seme egin zanean. Andre Mariari esker, Etxeparek ain egoki dioen bezala, Jainkoarekin «anaieturik» gelditu gera:

Nahi duiena hala duke Amak Semiaganik:
 Seme honak anhitz daidi Amaren amorekatik:
 gure natura hartu du zutan amaturik.
 Iangoikoa ezarri duzu gure anaieturik.

Esaera au atsegin du gure olerkariak eta berritan derabil, Jainkoak emaztea nola maite duen adierazteko:

Jeinkoak emaztea maite du mundu oroz gainetik;
zerutika jaitsi zedin hartaz amaturirik;
emazteak ezarri du gure anaieturik,
andre oro laudatzeko haren amorekatik.

Jainkoa zuzena da, nori berea ematen dakiena; baiña bai errukitsua ere, biak batean. Etxeparek gogoan dauka azken au. Arritzekoa da nola dei berdintsua dien Jainkoari eta Andre Mariari. «Miserikordiaz bete ziraden Iaun ezti», esaten dio Jainkoari, eta «miserikordiaz bete ziren Andere handia» esaten dio Mariari. Baiña badirudi Jainkoak Amari utzi diola bere aginpidearen erdia eta bera egin duela errukiaren Erregin, Jainkoaren errukizko maitasunaren banderadun:

Bekatoren salbatzeko Jeinkoak egin zinduzen,
bere buruia egin dizi juie justiziaren,
zu miserikordiaren refujio zinaden.

Ama Erregin onen errukiak bere muga eta bere epea du pekatariarentzat, biziak dirauen artekoa. Orregatik edo, azken-epaian Andre Maria ezta agertzen. An eztauka ezer egiterik. Leenago merezi bear Amaren laguntza. Leenago irabazi bear da Jau-narenak izateko grazia. Grazi au ez zaio ukatzen Andre Mariaganako leial izan eta arengana zintzo jotzen duenari:

Egundano ezta izan, ez izanen jagoitik
bekatore hain handirik ez etare satsurik,
bere bidian iaugin bada zuri gomendaturik,
ukhen eztuizen barkamendu zure amorekatik;
ez galdu da, ez galduren zuri gomendaturik.

Ala ere, kontu! Zeruan Erregin orren altsua duela-ta, ez dedilla iñor bere kristau-bizitzan zabartu eta lasai bizi. Zeruko Ama orren erruki eta maitasunak ez du zabarkerirako biderik ematen.

Denbora duian artian egik ahal ongia,
erioa dauginian miraz dukek ordua...

Eta grazia ooren Ama iturburuari otoitz beroa egiten dio:

Egundano bekatutan makulatu gabia,
bertutean segitzeko egidazu grazia...
Eta irabaz Jeinkoaganik indar eta grazia
bekatuiez egiteko untsa penitentzia,
eta gero bertutean deramadan bizia
eta egin gauza orotan Haren borondatia.

Orrela saiatuaz, orrela biziaz Andre Mariari gomendatzen zaionari Erregin altsu onen laguntzak ez dio utsik egingo, ez bizian ez illian.

Itsasoan ur guzia, zeruietan izarra,
oihanetan itzal ori, lur guzian belharra,
egunari iguzkia, gau beltzari ilhuna
lehen faltaturen dira ezin hura gugana,
balinetan egiazki gu bagaude hargana.

Mundu ontako leialtasunak ustelak izan ditezke; Andre Mariarenak ez, gure maitasun-itzak askotan gertatzen dira gezur; Andre Mariarenak egia utsa dira:

Amore bat nahi nuke liadutanik egia.
bizi eta hilez gero, hain lakidan balia...
Mundu oro iraganik ez eriden bertzerik
Ieinkoaren Ama hona grazia oroz beterik.

Zeruko Amaren maitasun leial utsik eman ez dezaken onek pozturik, biotzaren barnenetik egiten dio pekatariak otoitz gartsu au:

Bekatutan hil ez nadin egidazu grazia,
sekulakotz damnaturik enoyian galduia,
bana zure eskutik dudan salbatzeko bidia.
Eta gero dauginian ene eriotzia,
arimaren partitzeko oren izigarria,
ordu hartan behar baitut eman kondu hertsia,
egin oroz rezebitu neure merexituia;

eta ez jakin lehen gaoian non daten ostatuia,
ez etare, Zu ezpazira, nor dakidan balia;
ordu hartan hel zakitzat, othoi, Ama Eztia,
Ararteko leial eta neure aiutaria.

Othoi, zure gomendutan har arima tristia,
ordu hartan io eztezan ifernuko bidia.
Zure Seme Iaunareki egidazu bakia,
bekatuiak barkaturik didan parabisuia,
eta nik han dakusadan zure begitartia
eta sainduieki lauda Haren maiestatia,
zereun untsa orhit ziren nitzaz, Ama eztia.

Bertso-andana luzea izan da, noski, eta puntu berdin geiegizkoa; baiña ez ote zuen merezi dana aldatzea, kopiatzea, Andre Mariak Etxepareren biotzean eta bizian nolako lekua zeukan ikusteko, nolako itxaropen-txinpartak sortzen zituen somatzeko?

Giro ortakoak dira leenengo euskal-idazleak Ama Birjiñari eskaini dizkion bertsoak. Ez degu or ez loreen aipamenik ez beste bitxikeririk. Ez du mirarietara jo. Andre Maria bere amatasunean ikusi du, amatasun ori gizonen alderako erabiltzen, batez ere pekatarien alderako. Kristoren erospeneko misterioan dena murgildurik mintzatu da. Gure erospeneko misterioan murgildurik dabil, bai, baiña zeruan gertatu eta zerutik gertatzen ari dan bezala. Bein bakarrik zuzendu ditu begiak Andre Mariaren mundu ontako bizitzara, Kalbarioan bere Semearen Gurutze-ondoan egon zaneke une artara:

Elas, orduian nola zagoen Haren Ama tristia,
Haren Ama maitia eta mundu ooren habia,
pena hetan ekustean bere Sema maitia,
eta hiltzen begietan mundu ooren bizia!

Bihotzian diraustazu gertuz, Ama ezta,
zure orduko doloria eta biotz zauria,
begiez nola zenakusan zure iabe handia,
orotarik lariola odol preziatuia.
Hek nigatik ziradela ari nuzu konduia!

Mundu ooren abe dala esan du emen Andre Maria. Nola munduaren abe? Beste bertso baten onela azalduko digu:

Orai egiten diraden gaizki handiegatik
Ieinkoak ondatu zukeien lur guzia engoitik,
balinetan Zu ezpazina ararteko gugatik.
oro sustengatzen gitu zure othoiekatik.

Ama beti ararteko, beti pake-egille Semearen eta semeen artean! Jainkoaren eta gure Ama da bera. Zer dagokio besterik?

Haren eta gure ooren Ama zire diñerik;
amak eztu sofritzeko semen artean gerlarik.
Samurturik badakutsu gure gaizkiegatik,
orenen Ama zira eta bake gitzatzu bertarik!

Ateraldi eta arrazoiketa au ezta, noski, ez eroa ez sentikortasunik gabekoa. Gure olerkaria ezta beti narrasa. Gomntz egaldatzen badaki. Andre Mariaren edertasuna gogoratzeko bertsoak ere badu. Baiña emen ere eztabil edozeiñen bidetik. E-

Orreagara erromes zijoazten saildularien kanta da, noski, eta erriak asmatua. Noiz ezkerokoa? Idatzia zegoen beintzat, 1619-rako; beraz paperetara aldatu diran kantarik zaarrenetakoa degu, erri xeearen oiartzuna eta arnasa dakarkiguna.

Orreagatik aruntzago entzungo da laster, Lapurdi aldean, Andre Mariaren kantari landuagoen otsa, euskal literaturan izenik ozenena irabazi duten idazleen oiartzun berria. Etxeberri Ziburuko, Harizmendi, Argaignaratz eta Gasteluzar dira deituz. Eliz-gizonak dira laurok; baiña badute laikorik ere lagun, Ohienarte andia, aien artean eta Andre Mariaren kantarien artean lekutxoia zor zaiona.

Mende ontan Maria kantagai artu zutenek badute Etxeparek ez bezelako tankera eta doiñurik: Ebangelioak eta liturgiak, Andre Mariaren bizitzak eta eliz-bizitzak ematen die gaia. Etxepare-ren Andre Mari-olerkia Salbearen gaietatik kanpo ezta edatzen; uin berriagoko beste oiena Ebangelioan murgiltzen da geiago, Mariari bere bizian urratsez urrats jarraitzen zaio, eta urtebarruan Elizak egiten dizkion jai eta otoitzetan sarturik dabil. Orrela, esaterako, Joanes Etxeberri Ziburukoa.

Joanes Etxeberri

Ziburuko seme au mende artako bertso-ontzailleen artean ugariena degu. Bertsozko iru liburu sendo utzi zizkigun: *Manual debotionezkoa* (bi tomotan), *Elizara erabiltzeko liburua* eta *Noelak eta bertze*. Elizara erabiltzeko liburu ortan eta Noeletan (noelez gaiñera beste eliz-kanta asko du) ainbat aldiz koplatu du Andre Maria.

Noeletan Jesusen aurtzaro guztia bildu du bertsoan. Eta, jakiña, Belengo artzaiek bezela, Aurrarekin aurkitzen du Ama, eta ama-sementzat badu zer kantatu.

Emen degu, esaterako, aingeruak Mariari egiten dion agurra:

Agur, Maria, dohain eta
grazia guztiz betea;
zurekin da munduaren
Jaun eta Erregea.

Ezen autatua zare
berze emazteen artean,
alzifrea nola baita
zuhaitz guztien gañean.

Zu konzebitzera zoaz
Jainkoaren Semea:
Hala da haren beraren
egun borondatea.

Emen da Mariaren ordu artako izi eta lazadura, baita aren biotzeko esker ona, agurra entzutean:

Birjina saildua lastu
zen hain argi handiaz,
bai halaber espantatu
hain izkuntza berriaz.

Ene beheratasunak
merezī duen baño
Jaun onak ematen darot
ohore gehiago.

Bisaiako kolorea
zitzaion ganbiatu
eta hunela aingueru
sainduari mintzatu:

Esker handia itzultzen
diot oroitzapenez,
baita zuri hartu duzun
eneganako penaz.

Ungi etorri zarela,
enbaxada saildua:
ungi etorri Jainkoaren
ezkutari hautua.

Bana nola (egin dio)
ni semez naiz erdiren,
birjinitate xahuan
zeña bainaiz biziren?

Belengo misterioan, Jesus aurrajaiotzean, Amaren egitekoa etazoriaezin kantatu ?abe utzi:

Ilargiaak zuenean
egin bide erdia,
seme ederraz erdi zen
Birjiña Ama garbia.

Manjateran pausatu
zuen lo egiteko,
ezin bertze sehaskarik
etzuen emateko...

Hargatik etzuen galdu
birjinen ohorea;
ezein mudantzarik gabe
egin zuen Semea.

O dolore eta ondiko
bihotz urragarria,
sehaskatzat Jaunak duela
manjatera lohia!

Emaginaren etzuen
niola ere beharrik:
zerengatik ez baitzuen
sentitu dolorerik.

Lumatxatzat lastoa du,
bururdikotzat belarra,
eta gaiñean estalki
bere Amaren hegala.

Bularra zitzaion betan
mirakuluz etorri,
edoskitzera zioen
eman bere Haurrari...

Hotzak has arazitzen du
Haur gaxoa nigarrez,
Amak ahala egiten
kontentatu beharrez...

Magoak ez dijoaz Amari zorion-agurrik beroena egin gabe. Simeon agureak ere zorion beroak ditu Amarentzat, Semea Jerusalemeko jauretxera eramen duenean:

Benedika zaitzezela,
o Birjiña noblea:
zure ganik zeren sortu
den Jongoiko Semea.

Benedika dadillala
zure sabel garbia,
gizonaren obra gabe
zeren baita erdia.

Ebangelioa Teologoak edo siñismenak argiturik ematen zaigu Etxeberriren bertsoetan. Aurra Jerusalemen galdu danean, Amaren orduko bamegiro samiña adierazteko, Testamentu zaharreko esanak datozkio gogora eta lumara:

Ama tristeak zeroen
ezagunei galdetzen,
ea haren Haurra nihon
ere ikhusi zuten:

Ikusi duzue ene
arimak onetsia?
Hura galdurik nabila
triste eta larria...

Zer falta egin darotzut,
o neure Haur maitea,
bakarrik utzi bainauzu
tristeziaz betea?

Gehiago ezin bizi
naiteke zu galdurik:
ager zakiztik zerori,
otoi, haurra nonbaitik...

Gero, iru egunen buruan, Semea Jauretxean aurkitu duenean, Ama ezin dagoke bere miña Ari agertu gabe:

Sentimendu handirekin
Ama zaio mintzatu:
Haurra, nola hunelako
penan eman gaituzu?

Josef zure aita eta ni
hirur egun hunetan
zure bila ibilli gare
karrika eta plazetan.

Egun bateko bidetik
huna gare bihurtu;
aitarekin edo enekin
nola etzinen partitu?

Andre Mariaren sortze garbia, zeruratzea eta arartekotasuna ez ditu ixildu:

O Jongoikoaren Ama,
zu zeroni bakarrik
gatzatu zinen Adamen
faltar. kutsu gaberik.

Gero etorri zenean
zure azken orena,
launak altxatu zintuen
zeruetan barrena.

Sortu zinen ekarririk
mundura bozkario,
zeren zure ganik behar
baitzen Mesias iaio.

Arren, bada, Semearen
eskuinean zaudena,
Harengana zaren, bada,
ararteko xuxena.

Auek (eta beste asko) Noelak liburukoak ditugu. Liburu ontan uts bat aurkitzen dugu, ala ere: ez degu Andre Maria gurutzearen oiñetan egon zenekoaren aipamenik irakurtzen. Baiña Etxeberrik ez du gai ori ere aaztu. Beste liburu batean aurkituko degu. Emen utzi dizkigu Liturgiako ainbat gai: latinetik bertotan euskeraturik, Ilen elizkizunetako ainbat kantu, berdin Andre Mariaren ofizio edo eliz-otoitzaldietakoak, antifona, salmo, gorasarre eta guzti. Geroagoko liturgi-itzultzaileen aurrelari degu benetan Ziburuko teologo eta euskal-idazle argia.

Andre Mariaren ofiziotik ona puska bat edo beste:

Resp. *Quibus te laudibus*

Eztakit nola zu lauda,
O Birjina garbia,
ezen eskasa da ene
ahal egin guzia.

Zeren ekarri baituzu
Iaun guztien gorena,
zeruek berek iduki
ezin dezaketena.

Benedikatua zare
emazteen artean:
benedikatua zure
Semea gizartean. Zeren ekarri...

O Gloriosa Virginum

O Andre gloriosoa,
zeruez goragokoa:
zintuenari kreatu
bularra eman diozu.

Ebak zerokuna kendu
Zuk derokuzu bihurtu
eta zeruan sartzeko
zu egin zare leiho.

O Erregeren atea,
amatasunez betea:
mundu guztiak behar du
zu zarela kausa boztu,

Zeren diozu bizia
itzularazi etsia,
eta ideki portalea
zeruetako noblea.

Gloria, Iaun ona, zuri,
birjinatik sortuari,
Aita eta Espirituari
orobat gloria beti.

Askotan narras samar dabil olerkari onen bertsoa eta euskera. Baiña Andre Mariaren euskal-kantaririk ugarienetako ziburuko teologo au izan dala ukatzerik ez-tago. Beronen liburuak argitaraldi asko izan dute, gaiñera. Gero aipatuko ditugunak ez dute izan orrenbesteko zorionik.

Harizmendi (1660) eta Argaignarats (1665)

Etxeberriren liturgi-ildotik ibilliak dira bi idazle auek: biak eguneroko ofizio edo otoitzaldi banaren egille, biak itzultzaille, eta biak bertsoz egin zuten beren lana.

Bien lanak, itzulpenak izan arren, itzulpen utsak ere ez dira. Bertsoz egiñak daudelarik, itzultzailleak beretik ipiñi bear izan du asko, eta bere asmamena agertu, gaiari bizitasuna emanez. Ontan, Harizmendi agertzen zaigu gaillen. Egia da Lafitte zorrotzak diona, alegia, Harizmendiren bertsoetan esaera argia eta erreza eta bertso goxo eta txukuna aurkitzen degula.

Birjinaren Ofizioa da Harizmendiren liburua eta (Argaignarats-en *Deboten Brebiarioa* bezela) Vinsonek ateratako argitalditik daukagu ezagutzeko aukera. Zer da bera? Andre Mariaren *Officium Parvum* delakoa euskeraz jarria: *Andre Birjinaren hirur Offizioak latinean bezala eskaraz*. Saran, Kristobal Harizmendi apezak hunela moldatua eta dotorez aprobataua. Bordelen, 1660. Egilea Sarako Bikario zan eta predikaria. Irakurgaiak eta ordu bakoitzean azkenean esateko otoitza ez, beste guztia bertsoetan jarria dago, asierako dei, salmo, bitarteko kantu eta erantzunak, dana euskerazko bertsoetan. Oraingo ordu-liturgian bezala, salmo bakoitzari sarrera txiki bat ematen zaio, salmoaren muina itz gutxitan deramana.

Trebea degu Harizmendi salmoak bertso errezetan jartzen eta latinezko ereserki eta beste bitarteko kantak txukun euskeratzen. Irakurgai arteko *ihardeste* edo kanta oietako batzuk jarriko ditugu emen:

Eztakit zu nola lauda,
o Birjiña saindua:
zeruk ezin idukia
zuk iaio gizondua;

Benedikatua zare
emaztetan gorenen:
nola baita Jesus Haurra
gizonetan gehien. Eztakit zu...

Beata es, Virgo Maria

Maria, dohatsu zara
zu munduan agertu:
zeure kreatzaille Jauna
mundura duzu sortu.

Zeror egin zaituena
iaio duzu mundura
eta sekulakotz zara
Birjina lehen hura.

Agur Maria, zerutik
garaziaz betea:
Jainko Jauna zurekin da,
o zeruko atea. Zeror egin zaituena...

Ave Maria

Agur Maria, zerutik
garaziaz betea:
Jainko Jauna zurekin da,
o zeruko atea.

Etorriko zaitzu goitik
Espiritu Saindua:
gorenaren bertuteaz
saindurik agindua:

Jainkoaren Seme dala
zuk iaioa deituko.
Nik gizonik eztazagut,
nola da gertatuko? Etorriko zaitzu...

Suscipe Verbum

O Maria, har ezazu
zeruko mandatua:
eta fitez geldi zaite
Jainkoz izorratua.

Halatan deituko zara
andre bedinkatua,
emazte guztiak baino
areago deitua.

Seme bat iaioke duzu
zarelarik birjina:
amarik birjina zara,
zeruko Erregina,

Aitari eta Semeari
zerutika loria,
Espiritu Sanduari
halaber aheria... Halatan dei...

Sarako erretor onek berriz argitaratu zuen, zerbait orrazturik, Haranburu-ren *Debozino eskuarra* ere, eta irakurleari bere *Birjinaren Ofizioa*. erosarazi nai dio: «Eros Birjinaren ofizioa eskuaraz, nozik behin bedere erraiteko; baliatzen badakizu, baliatuko zaitzu». Harizmendiren bertso eztieta berez etorri bear zuten euskaldun irakurleek. Damurik, etzuen liburuak beste argitaldirik izan, baiña batek baiño geiagok eskuz idatzita erabilli zuten, eta gure egunetaraño eldu dira olako ale batzu.

Deboten Brebiarioa ezta dana Andre Mariarena, baiña Andre Mariarentzat diran kantak baditu.

Gasteluzar: *Egia katolikak* (1686)

Jesusen Lagundiko euskal-idazle azkar au ezta merezi duen aiña ezagutua. Zorigaitzez, idatzi zuen liburuak eztu bigarren argitaldirik izan, eta aurkitzea oso zail dala orrekin esanik dago. «Gasteluzar, Gasteluzar bear litake berriz argitaratu». Entzun nion bein esaten Lafitte jaunari, eta jaun onek badaki gure literaturako balioen berri. Nonbait gelditzen diran aleak irakurri eziñak gelditu baiño leen Lafittek nai zuena norbaitek egingo al digu! (2).

(2) L. Akesolok antolatuturik, orain argitaratua da «Euskeraren Lekuko» saillean.

Mende artan Gasteluzar onen olerkiak aize berri bat bazekarren euskal literaturara, eta literatura onen bamean Andre Mariaren baratzerara. Mariaren kantari onek ere Ebangelioan eta Liturgian billatu du kantagaia, alegia, Andre Mariaren bizitzan eta aren omenezko eliz-jaietan. Gero tankera bereziz biribildu du gai ori. Aparteko otsa dute, esaterako, olerkari onen Noelak. Bat edo beste, errian sartuta, oraindik ere bizi da (Erraguzu, Maria).

Egia katolikak deritza bere liburuari, eta 261 garren orrialdetik 31 ógarrenera dana Andre Mariazko bertsoz egiña du: Andre Mariaren besta bakoitzeko, Andre Mariaren oiñazeak eta zeruan izan zuen garaitza (triumfa). *Stabat Mater*, erdi aroko poema ospetsua, latiñezkoaren neurri eta tankera berdiñean euskeratzen saiatu zan:

Ama zegoen tristea
kontenplatzean Semea
habean itzatua.
Bihotz malenkoniosa,
triste eta dolorosa,
dagaz zuen zaurtua.

Baiña bere Andre Mari-bertsoen eredutzat Bemardo doneak idatzi zituen itz ezagun batzuk gaitzat arturik ondo zituenak jarriko ditugu emen:

Haren ondoan joaten dena
bidean eztuk unatzen;
erortzen dena laster die
haren otoitzek altxatzen.
Bainan nork ere haren baitan
baitu bihotza ematen,
salbamenduko garazia
herioan dik izaten.
Hala baitire dohatsuak
hark dituenak beiratzten,
edozein peril suertetan
ezpaitire hirristatzen.
Haren ondoan dabiltzanak
eztituk errebelatzen
eta hark maite dituenak
gloriara tik gidatzen.

Oihenart(1657)

Idazle apain, landu, eta erriaren maillatik gorago ibiltzea atsegin zitzaion au ere Mariaren baratzean sartzekoa degu. Etzan beti munduko *Argi*, *Xuri* ez *Beltzarana* gogoan zituela ibilli. Zeruko Maria ere koplatu zuen; jainkozko neurtitzak ere egin zituen, Ebanjelioetan gaia artuta. Ala, Eguberri-kopletan. Jaunak Galileako nes Sasko

bat (birjina bat) artzen du Amatako gizonak salbatzeko asmoz. Birjiña orrek aingeru mandatari baten bitartez artzen du berri ona:

Ongi zaren, o lurrean
izatean
berdinik eztuzuna;
zu zara Jainkoaren Ama,
gaitzen zama
jenter dedetazuna.
Zure bizitze zuhurrak
zeru-lurrak
derakarzke bakera,
ezi Jainkoaz zar'izorra,
Hark nigorra
huneri zuri erraitera.

Aingeruaren eta Mariaren arteko izketa, azken batean, Mariaren baietzarekin bukatzen da:

Mariak berriz ziotsona:
Haur ni huna
Jaunaren neskatoa.
Jaunak hala badaritzta,
zure hitza
nitan egin bihoa.

Oihenarti zor zaio, bai, lekutxo bat Andre Mariaren kantarien artean.

III

OLERKARIEKIN BERRIZ ERE

Ixilunetxo gertatzen da Andre Mariaren kantarien artean XVII garren mendearen ondoren. Lapurtarrek leengo kantarien otsekin aski dutela dirudi. Urrengo mendean izenik utzi ez digun kantari bat sortzen da, Ama Birjiñaren eriotzea gaitzat artuta. Onela du izena: *Ama Birjiñaren iragaitza*. Urrengo mendean beste argitaldi bat izan zuen (1837). Baiña liburu ontaz ezer gutzi dakigu. Nik ez det iñon ikusi. *Iragaitza* orrek Andre Mariaren Paskoa, mundu ontatik bestera iragatea esan nai du, nonbait. Eta Vinson-ek dioenez, badu onelako *abisu* au asieran: «Kristaua, nahi baduzu Ama Birjiñaren iragaitza ongi baliatu, behar duzu Jainkoak maite duena maitatu, eta gaitzesten duena gaitzetsi, maitatu birtutea, gaitzetsi bizioa».

Baiña Lapurdiko kantari andiak ixiltzean, Bizkaialdetik agertu ziran kantari txiki batzuk. Ez digute izenik utzi, baiña bat Durangoko alkate izana omen da, Anai

Berriotxoaren iritziz, Diego L. Urkizu izenez. Besteak Bermeoko Frantsizkotarren inguruan eta aien irugarren Ordenakoentzat idatzi du. Biak Andre Mariaren Arrosarioa dute kantagai, errezo ori egiteko ikasbide batzuk emanaz batera.

Durangoko alkateak edo «Durangoko deboto batek» egiñak titulu au darama: «Liburu Birjina Santisimaen Errosario Santuena» (1737). Leenengo, Arrosarioa zer dan irakasten du, nola errezatu, nola amabost misterioen eskeintza egin. Oneraiño baliteke erderazko liburuen batetik itzulita izatea. Ain zuzen, Gasteiz-en argitaratutako bat ezagutzen degu, erdera titulu berdintsuarekin, eta egillea, «un devoto». Baiña Durangokoak baditu «kantetan daneko bertso debotoak» zotziko nausitan, beste iñon-dik itzuli gabeak, egilleak asmatuak.

Bigarrenak gai berdiña darabil (*Koroa santuban ofreziduko dirian misterioak*): 1780n egiña da. Misterioak eztitu bosnakoak, zazpiñakoak baizik. Liburua oso bakan biurtu da eta nik ez det ezagutzen alerik bat ere.

Garai artantxe zabaldu ziran arrosario-kanta batzuk, gero Euskalerra osoan entzungo ziranak, Bizkaitik Baionaraiño. Aita Kardaberaz-enak dirala ere esan du norbaitek. Beti (Añibarro-ren Eskuliburua ezkerre beintzat, 1802) oar au aurrean dutela agertzen dira: «Erri askotan, jai-egun arrastegietan, bi edo lauk urrengo misterioak kantaten dituez, eta gero esan Abe Mariak».

Jesus onaren Ama maitea,
 grazia eske gagotzuz (grazi au deusut eskaten).
 bost misterio gozoz beteak
 kantaten lagun zakiguz (lagun eiguzu kantaten).
 Gogo guztiaz esango dogu
 lelengo misterioa:
 zuzendu gaizuz zerura beti,
 Birjiña biotzekoa.

Zeruetatik ekarri eutzun
 angeruak albistea:
 zугan aragiz jantziko zala
 Ait-eternoaren Semea.
 Abe Mariaren amarreko au
 Aitagureaz batean
 Birjiña eder maite berari
 esaten asi gaitean.

Eta olaxe datoz ondoren amabost misterioak, banan banan. Leenik Bizkaieraz egiñak izan zirala esango nuke. Puntuak bizkaieraz egokiago datozela dirudi. Orain Baiona-alderaiño edatuak daude, euskalki batetik besterako aldakuntza batzuekin.

Garai berean, gutxi gora bera, sortzen dira Mariaren omenezko erri-kanta batzuk ere: Agur Iziarko (izan, *Ave Maris Stella* euskeratua da), Pekatariok Ama, Agur dolorezko, Ondarrabiko Amaren Salbea (itxastarren Salbea), eta abar.

Erri-kutsurik aundiena *romance* tankerako bi olerkik daukate: bata, *Orriak airez aire*, eta bestea Arantzazuko erromesarena. Bietan Maria aurkitzen du kristauak bidean, eta bien artean alkar-izketa sortzen da:

Non dago, Amandrea, zerorren Semea,
zerutik iatsiriko gure mesedea,
berak argitu daidan neure arimea
ikusi daian gero zeruko bidea?

Andre Mariak Jesusengana, bere Semearengana, darama anima kristau ori; eta onela esaten dio, besteak beste:

A maitatu eztabenak bere biotzean,
zer maitatu daike damurik bagean?

Bigarren kantua bide berdintsutik dabil. Arantzazura erromes dijoanak uste zuen baiño zori ohea du: Amaren billa joan eta Ama eta Semea, biak batera aurkitzen ditu:

Ama Birjiña ta Aren Semea
topau nituan bidean:
konseju onak emon zizkiden
Ama-Semien artean.
On ta umilla izan nendilla
munduan nintzan artean:
ez nubela ez damu izango
mundurik niñoianean

Gure erriak ez du, ez, mariolatariarik ikasi. Andre Maria andrerik gorena izan du; baiña ez du sekula kristau bizitza aazteko atxakirik ortik artu. Maria Jainkoagana joateko bitarteko eta bide-erakusle izan du, eta betiko aberrira bidez dijoanaren bide-lagun eta esku-emaille.

Lan onek bere mugak izan bear ditu. Andre Maria gure olerkarietan aztertuz, etorri gintezke gure egunetaraño. Baiña orrenbesteko saillik ez degu nai barruan artu. Luzeegi gertatuko litzake.

Baiña ez degu aipatu gabe utziko joan dan mendeko idazle bat. Andre Mariaren liturgi-sailllean lan egin zuena, sail ontan bear bada, ez ain ezagutua, J.I. Arana, Jesusen Lagundiko aita. Baditu Andre Mariaren bi ofizio euskeraz jarriak. Non, eta Erroman argitaratu zuen bata: *Ama Birjiña guziz garbiaren Ofizio Laburra, latiñezko itz neurtuetatik euskerazko zortzikoetara itzulia. 1872.* Gaztedia gogoan zeukala egin zuen, berriki siñisgaitzat Aita Santuak erabakitako misterioaren omenez. Laburra da

benetan, guztitara 24 orrialde. Salmorik eztu sartu. Ona emen laudeetarako agur-eresia.

Agur munduko jabe,
zeruko Erregiña.
Agur goizeko izarra,
birjiñen Birjiña.
Agur graziaz betea
jainkozko argi piña,
egizu mundutarren
aldez alegiña.

Jaunak autu zinduen
betiko eratik,
Jainko Seme bakarren
Amatzat arturik.
Zugatik lur-itxaso
ta aizeak sorturik,
edertu zaitu Adanen
bekatu gabarik.

Eta, eguneko azkenengo orduan, kompletetakoan:

Agur, Birjin loredun
ta Ama ederra txitez,
Erregin biotzbera
koroitua izarrez.
Garbi ta tatxa gabe
aingeruen gaiñez,
Erregen eskubian
zaude urrezko soñez.

Zugatik graziazko Ama
poz-emaille maitia,
itxas-izar argia,
kai salbatzaillea,
erien osasuna ta
zeruko atea,
ikus deigula Jesus,
santuen erregea.

Aita beronena da, noski, beste ofizio bat ere, Sortzez Garbiarena gaiñera, 1876-n idatzia eta argitaratu gabea. Latinetik itzulia da; eta latinezko bertsoen egillea: Aita Jose Antxieta (1553-1597). Bertso safikoen neurrian dago eta alaxe itzuli du Aita Aranak. Arratsaldekoan (bezperetako otoitzean) Ama Birjiñaren Galbarioko samñez diardu:

O, zenbat miñen ezpata zorrotzak
senti zituan zerorren biotzak,
Birjiña, Jesus iltzen gurutzean
zuk ekustean!

Bada aren pena guziak danbaka
amiltzen dira zure gain banaka,
zure barruna oso zulaturik
eta mindurik.

Iratsi idazu damuzko negarren
iturri gozo, Birjiña, bai, arren,
Jesusen odol eta malkoz arin
garbitu nadin...

Beste Andra Mariaren kantari batzuk ez ditugu emen kontuan artzen: Zaldubi, Arrese Beitia eta abar. Zein olerkarik ez du, joandako mendeetan, Andre Maria koplatu bein edo beste?

Sail au amaitzeko, ala ere, aipa dezadan orain amar urte, 1963-n, Madrillen argitara zan liburu bat: *El libro de la Virgen*. Margolari eta olerkarien lanekin Andre Mariari egiten zitzaion omenaldia. Liburu apain, dotore eta ederra. Olerkarien artean euskaldunak ere sartzen dira. Guztiak, azkenaldi ontakoak: Arrese Beitia, Balbino Garita-Onandia, Arzak Alberdi, Toribio Irondo, J.B. Elizanburu, Salvatore Mixelena, Arruti, Arana, Iñazio Omaetxebarria, Eustakio Madina. Eskubide berdiñ edo obez, sartu bear zuten or beste leenago eta oraiñagoko askok; baina zerbait zan gure Andre Mari-olerkaritzaren berri piska bat izateko.

IV

ANDRE MARIA GURE ITZ-LAUZKO IDAZLEETAN

Lekurik jatorrena eta andiena Andre Mariaren baratze onetan olerkariak dute, bertsozko idazleek. Orregatik gure lantxo ontan ere lekurik luzeena eman diegu. Kantari oien bertsoetan euskera otoitz eta goresmen biurtu da. Itz-lauzkoetan otoitz baiño leenago otoitz-gai eta ikasbide biurtuko zaigu. Olerkariak jatorragoak ditugu eta aien bertsoetan ageriago eta nabariago degu beren biotzetako taupada eta animaren amasa. Euskaldunen Andra Mariaganako giroari neurria artzeko ere, egokiago ditugu olerkarien lanak, noski. Baiña itz-lauzko idazleak ez ditugu baztertzeko, ez arretarik gabe artzeko. Or ikusi dezakegu euskaldunak Andre Mariari buruz zer eskola izan duen, zer entzun eta ikasi duen. Olerkariak iturriari darion ura ematen baldin badu, itz-lauzko idazleek esango digute nondik eta nola bete dan ura darion iturri ori. Sartu gaitezen bada sail berri ontan, eta Silvain Pouvreau aterako zaigu leenengo bidera.

Silvain Pouvreau

Andredena Maria privilegiatua

Jaiotzez euskaldun etzen idazle onek ainbat liburu euskeraratu zituen, eta bat Andre Mariazkoa: *Andredena Maria privilegiatua*, izenez (frantsesez, *Les privilèges de la V. Mère de Dieu*, 1648).

Egillea: Daniel Priezac (1590-1662), Bordel-en lege-irakasle izana, eta Parisko gobernuaren konseillari, Frantziako akademiko eta jansenisten aurkalarari gogorra. Ez zan edozein ez nolanaikoa berak liburu ortan biribildu zuen gaia. Liburu lodia zan eta Pouvreaux etzuen osoa itzuli: 1659-n euskeratzen asi eta leenengo pribilejioa eta bostgarrenaren zatia besterik etzuen egin. Vinson-ek argitaratu zuen, 1892 urtean, Pouvreau beraren beste idazki txiki batzuekin. Pariseko *Oratoriotarren* kutsua darama aien gogogirotan egiña dago.

Mihura*Andredena Mariaren imitazionea (1778)*

Itzulia au ere. Tituluan dioen bezela, Jesukristoren imitazionearen gaiñean mol-datua da. Izen bereko liburu bat egin zuen Arias jesuitak, XVI-garren mendean, Gaztelako erderaz. Beste jesuita batek egin zuen frantzesez beste au, eta egillearen izenik gabe agertu zan ainbat aldiz luzaro. Nor zan berau? Alexander de Rouville edo d'Herouville omen zan. Ez omen da egia Vinson-ek esan zuena, Frantziako iraulketa-aldian il zutelakoa. Privas errian il zutena beste jesuita bat omen zan. Liburuak, leenbiziko aldiz argitaratua izanik, argitaraldi asko izan ditu gero, eta izkuntza askotara itzulia izan da. Euskerara ere laster itzuli zuen Mihurak, frantzes argitaratu zanetik amargarren urtean: 1778-n, eta bigarrenez, 1834-n atera zan. Liburuaren mamia erderaz ez dute beti berdin eman; zati batzuk kendu eta besteak geitu egin dizkiote bein baiño geiagotan. Erderazko, gaztelerazko argitaldi bat ikusi det, Andre Mariaren sortze garbiari dagokiona kendua duena. Euskerazkoak egillearen leenengoko argitaldiari tinki jarraitu dio.

Kardaberaz*Jesus, Jose eía Mariaren debozioa (1763)*

Gure Andre Marizaleen artean jesuita oni lekutxoa zor zaiola uste det. Besterik ezean, goian aipatu dan liburu orrengatik. Gipuzkeraz eta bizkaieraz argitaratua du. Debozioak? Esango du norbaitek. Ez, debozioa, erantzungo dio Kardaberaz-ek: «Gauza jakiña da, eta kristauak jakin bear duen dotriña erraza... egiazko debozioa errezo luze, nobena eta beste orrelako orazioetan ez dagoela». Kardaberaz-i eztago emen zer erakatsirik. Gero, debozio ori egoki azaldu ondoren, onela jarraitzen du: «Kristau asko beren buruz, debozio eta errezo luzeak artu eta ezin kunpliturik, presaka eta itotzen bezela oi dabilta, eta bearrago diran obligazioai erantzuteko leku eta gogo guztiak beren gustora egiten ez badituzte, pakerik ez, eta inkiétude aundian gelditzen dira. Ez, Jaungoikoak, Ama Birjiñak edo santuak orrelakorik ez dute nai».

Liburu ontan, Andre Mariaren errosarioa nola obeki eta frutu geiagoz esan erakutsiko du, batik bat.

Larregi, Lardizabal, Etxeberri

Gure elizetako irudietan bezela, Andre Maria Jesusekin batean ikusi, maitatu eta gurtu du gure erriak; Jesus gabe iñoiz ez. Ori ikasi du, noski, bere maisuengandik, elizgizonengandik. Ori ikasi du Jaingo-erriaren kondairaren berri eman dioten idazleengandik. Orra Larregi, Lardizabal, Etxeberri.

Larregi izan zan leenengoa. Royaumont-ek prantzesez egin zuenetik euskerara aldatua da onen *Historia*, bi tomotan. Ama Birjiñaren bizitza Jesusenean sarturik

dauka. Baiña badu Larregik Royaumont orrek eztuenik ere: «Zenbait sailduen bizitzea». Eta ogei bat santuen bizitza eman aurretik, badu Andre Mariarentzako lekua, zeruko Erregiñaren eriotzea eta gorputz eta arima zeruratzea gogoratzeko: «Ehortzia izan zenetik hirugarren eguneko haren gorputz saildua ilki zen hobitik; mundua etzen gai halako erliki preziatu baten izateko... Zeruan zare, beraz, o Birjina saildua. Etzaitugu hargatik behin ere galdu. Zure goratasun eta loria guziaren erdian, oroitzen zare beti gutaz. Hedatzen-tutzu yarría zaren tronu distiantaren gainetik zure behatze arraiak gure gainerat. Zenbatenaz hurbilago baitzare grazia guzien iturburu sakratutik, hanbatenaz gehiago seinalatzen duzu zure botere handia gure fagoretan. Ematen gare fidantza oso batekin zure oinetan».

Larregi-ren bidetik, urrengo ditugu Lardizabal-en *Testamentu zarreko eta berriko Kondaira* (1855) eta Etxeberri apezaren *Istoria* (1875).

Duhalde

Meditazioneak (1809)

Idazle ontaz ezta askotan zeatzegi idatzi. Urkijo andiaren pekatutik dator naaste bat edo beste, *Meditazioneak* liburua, 110 orrialdean, ezpaitzuen erdizka baizik irakurri. An dio Duhaldek zer duen liburu orrek iñorenik, eta zer bererik: «Lehenbiziko parte huntan hilabeteko egun guzietakotzat emanak direnak frantzesetik eskuararat itzuliak dire, *Journée Chrétienne* deitzen den liburutik. Hargatik han hemenka zenbait ganbiamendu pixka egin dut». Aita Bouhours zan frantzesez liburu orren idaZlea. Ez zen edozein: frantzes literaturan oso jakintsua, luma frantzesez erabiltzen jator eta artazkoa. Boileau asarretu omen zan bein jesuita orrekin. Zergatik? Frantzez idazleen bilduma batean Boileau-renik sartu ez zuelako. Pascalenik ere ez omen zuen sartu, eta orrek poztu zuen Boileau: bilduma artan kanpoan gelditurik, lagunarte onean gelditzen omen zan.

Bouhours orren liburuak gogarte-gai, otoiitz-gai laburrak ditu, mamitsuak eta trinko biribilduak. Duhaldek aitortu du bere pekatua. Ganbiamendu piska bat egin dio jesuitak idatziari: ark trinko esana luzeago egin du, batez ere. Eta *meditationeak* jatorrian zeukaten indarra eta giarra piska bat galdurik gelditu dira.

Urkijo eta, Urkijok esana gauza erabakitizat artzen dutenek, beste zerbait ere aaztu dute, edo eztute Duhaldegan irakurri, jarraian dioena, alegia: «Badira ere hekien (meditationeen) artean zenbait neronek egin ditudanak». Beraz leenbiziko parte bera ere eztu iñorena dana; bada or ere Duhaldek berak egindako meditazionerik. Eta ain zuzen meditazione oiek dira luzeenak, gaia edatuago darabiltenak, geien biribilduak. Beste leen parte guziak baiño testo geiago dute. Beraz leen partean ere geiena Duhalde berarena da.

Meditazione luze oietako batek, ain zuzen, Andre Mariaren alderako deboziona da gai. Zergatik erabilli ditu gai batzuk luzeago, edatuago? Berak erantzungo du: «Alabainan eskaldunei mintzo natzaie, eta ez tut ezagutzen eskarazko libururik gauza hadadura apur batekin dakarzenik».

Orregatik idatzi du, beraz, ain luze Andre Mariaren debozioari buruzko kapitulu. Sermolari andia izan omen zan Duhalde. Eta gure erriak Mariaz zer entzun eta zer ikasi duen jakiteko, argibide piska bat emango duela uste det emen aren erakatsi batzuk aipatzea. Jainkoaren Amaren aldera debozio izatera «erakarri behar gaituen lehenbiziko arrazoina da Maria sakratuaren Jainko-amatasuna. Eztu horrek erran nahi, duda gabe, Jainkoa Jainko bezala Birjina Sainduarenganik hasi zela izaten, Andre dena Maria Jainkoa bera baino lehenagokoa edo handiagoa dela: ez holakorik. Mariaz ahal dagizkigun laudorio handienak eginagatik ere, badakigu hura dela, gu bezala, gauza bat Jainkoak denboran egin duena eta Jainkoa mugarririk gabe dela hura baino lehenagokoa, handiago, boteretsuagoa, gisa guzietan osoagoa edo per-fetagoa. Horregatik adorazionea daitzon ohore guzien gainekoa Jainkoari zaio bakarrik zor, eta Andre dena Maria adoratzea egiazko idolatria bat liteke. Baina bertze sentzu batean, Andre dena Maria egiazki da Jainkoaren Ama. Haren birjinazko sabellean eta haren odolik garbientetik egina izan zen Jainko-Semeak hartu zuen gorputza; hark eman zuen mundurat Jainko-gizona; hark eman zion bularra, hark hazi ta altxatu zuen... Maria sakratua, Jainkoaren Ama bezala, mugarririk gabe da munduko handi guziak baino gorago altxatua; aingeruen herrunka guzietz gorago da ezarria loriazko erresuman: Jainkoa da bakarra hura baino gorago dena; bertze guziak hainitez xitzen ditu, iguzkiak bertze izarrak xitzen dituen bezala, eta are gehiago. Hari zaizko beraz zor zeruan eta lurrean errespetu guziak, eta adorazionearen ondoan litezken ohorerik handienak»... «Hortik Eliza Sainduak, orotan Jesukristoren izpiritua gobematzen denak, Maria Sakratuaren ohoratzeke duen harta handia».

Giristinoak diren mundu-herri guzietan elemeniaka dire elizak Andre dena Mariaren ohoretan eginak, eta guti-gutiak dire bertze sainduen izeneko elizak ere, non ezten zenbait aldare bederen Maria Sakratuaren izenekorik»... «Nola iragan dituzu Maria Sainduaren ohoretan erakutsiak diren bestak? Helas! Menturaz hura guti gogoan hartzen zinuela, Jainkoari eskerrak eman gabe hari egin diotzan fagore seinalatuez, sakramenduatarat hurbildu gabe. Eta behar bada arinkerietan, munduko dosteta harroetan, arras Andre dena Mariaren desgogora»... «Andre dena Mariaren alderako debozione-itxura bat atxikitzea, haren konfradietan sartzea, abitua ekartzea, egun oro arrosarioa erratea, eta horrekin batean aitzina bekatutan bizitzea, beti urguilus, mundutar, arin desonest; bai; hori debozione gaizki aditu ta guziz sorjes bat liteke; hala salbatu uste izatea, uste funts gabe, uste itsu bat liteke».

Andredena Mariaren **Bihotza** (1831)

Jesusen Biotzaren debozioarekiko liburu baten geigarri, 1831-n agertu zan beste au ere. «Andredena Mariaren Bihotz Sainduaren ohoratzeke MOLDEA». Gogoeta-gaiak eta liturgia, itz-lauzko eta bertsozko jardunak: dana batean degu emen. Leenbizi, Mariaren Biotzaren alderako debozioaren oiñarriak bospasei irakugaitan azaldurik, eta, gero, beste otoitz batzuez gainera, Mariaren Biotzaren *Ofizio Xumea*; emen, berriz, ordu nausi eia txiki bakoitzeko bertsozko gorasarre, guzitara zortzi gorasarre. Esan bearrik ote dago, klariaren Biotza eta Jesusena bat egiñik erakusten zaizkigula?

Mariaren Biotz garbi saindua
nork aski gora du laudatuko?
Zuk, Jesus on, harenganik sortua,
gure bozak tutzu lagunduko.

Bihotz ezti, bihotz maitagarria,
bihotz oroz onetsi beharra,
bihotz gozo, guziz miragarria,
zurekin zer daiteke konpara?

Mariaren Bihotz notagabeaz,
Jesus, grazien iturburua,
izan zaite, zeruetan, lehiaz
orai eta beti laudatua.

Ez dakigu zeiniek egiña dan, ez Jesusen Biotzarekiko liburu ori (leenbiziko argitaraldia 1759-koa du), ez 1831 -koa, Mariaren Biotzarentzat ezarri zitzaion geigarria.

Añibarro

Ave Mariaren ganeko erakusaldiak

Aita Añibarro euskal-idazlerik ugarienetako degu Bizkaian XIX garren mendean asieran. Idatzi zuen guztia etzuen argitara eman. Asko du argitara gabekorik. Joan dan mende orren azkenaldian argitaratua da (Aitagurearen azalpena aurretik duela) Agur Mariaren mamia ematen duen liburua (1897). Andre Mariaren edergarri eta goresgarri, lorerik asko bildu du Aita Añibarrok, andik ortik arturik, liburutxo ortan.

Gregorio Arrue

Mariaren gloriak (1881)

Gregorio Arrue, euskal-alorrean langille ain azkarra izan zana, Andre Mariaren baratzean ere sartu zan. Emen egiña du bere libururik mardulena, bi tomotan emana: *Mariaren gloriak* (1881) Alfonso Maria Ligorio donearen Hburu bat da euskerara itzulua. Mamia santu andi orrena eta azala Arrue idazle ugariarena duela esatea aski bedi.

Jauretxe Apeza

Andre dena Mariaren botherea (1854)

Jauretxe apezak ere iturri berera jo zuen, Bidazoaz beste aldean; baiña Ligorioren liburuaren erdia baizik etzuen euskeraratu, Salbearen azalpena besterik ez.

Apez onek etzuen bere izenik eman liburu ontan. Berdin egin zuen idatzi zituen beste liburuetan ere: izena ixildu. Apaltasunez egin ote zuen? Ala dirudi. Apala zala esaten zion Duvoisinek Bonaparteri, oni aren liburu bat bial zion batean. Jauretxe izan zan euskal-ortografia berdintzeko eta lege jakinietan sartzeko leenengoko saioa egin zuena. Baiña apaltasunez berak ezarrirako legeak ere ez omen zituen erdizka baizik bete. Besterik esan duena (aita Villasante) eztabil orren zuzen. Gero izango degu berriz apez ontaz mintzatzeko aukera.

Ama Birjinñaren anaidietako liburuak

Eskiulan bazan Andre dena Mariaren eskapularioko konfradia bat; legeak eta arauak 1780-n argitaratuak ditu. Baiña Andre Mariaz ezto ezertako argitasunik ez erakatsirik. Olakoak ziran beste anaidi askorentzat egin ziran libururik geienak. Emen eztute lekurik izango.

Ala ere, olako lau libururi aipamen berezia eman nai diegu.

Bat: aita Uriarte frantziskotarrak euskeraz jarria: Mariya Jainkoaren amak bere biotz guztiz santu eta kofradian sarturik dagozanai eta kristiñau guztiai emoten deutezan *Irakatsi eta konsejuak* (1862, 1901). Bilboko apaiz batek erderaz egiña da (Cosme Damian de Laraudo) eta Uriartek euskerara itzulia. Argitaldi bat baiño geiago izan du Bilbon, eta Durangon beste titulu batekin.

Neurritegia Bitoriako Barrutiko Mariaren alaben alkartasunarentzat. Bitorian 1885. Erderaz Mariaren alabentzat zegoen *Reglamento* luzea azaldua, eta otoitz eta elizkizunez omitua.

Mariaren haurren eskuliburua, Diharassarri, Orzaizeko erretoak, egiña (Baiona, 1895). Andre Mariari buruzko argibidez liburu naiko aberatsa, meditazione, otoitz eta elizkizun ugariekin.

Karmengo anaie edo kofradientzako eskuliburua. Valencian 1888. Aita-semeen arteko jardunean Andre Mariari Karmengo Amaren izenpean dagozkion jakitekoak azaltzen ditu. Egillea: Bizkaiko praille gazte bat, geroago Indian misiolari ospetsu egingo zana: Aita Joan Bizente Zengotitabengoa.

Andre Mariaren bizitzak

Diharassari berak badu bat, laburra, Mariaren haurrentzako liburuan. Luzeagoa eta osoagoa du Joanategik bere *Sainduen bizitza* deritzan liburuan, asieran sartuta. Beste bat, egillearen izenik gabe, azaldu zan 1895-n Durangon: *Jaungoikoaren Ama Birjiña guztiz garbiaren bizitza*, bere debozinoeko egikizun, erregu eta kantekin.

Andre Mariaren illabeteak edo maiatzeko illak...

Andre Mariaz idatzi diran libururik ugarienak, zabalduenak, gure erriari azken-urteetararte geien eragin dienak, liburu auek, Maiatzeko illak dira, noski.

Emen ere Bidasoaz andiko euskaldunak izan ditugu aurrelari. Leenago aipatu degun Jauretxe apezak 1838-n atéra zuen bere «*Andredena Mariaren ilhabetea*, edo *Maihatza*, Jainkoaren Amaren loriakotz kontsekratua». Liburu onen sarreran ditu egilleak ortografia berritzeko asmo eta legeak adierazi. Bertan aurkitzen degu esanik nola abiatu zan eta zabaldu maiatza Mariari eskaintzeko oitura. Mintza bekigu ortaz Jauretxe: «Hamazazpigarren mendearen akabantzan abiatua Erroman, Italia guzian laster hedatu zen, eta handik mende berean pasatu Frantziarat... Printzesa bat, Andre Luisa Frantziakoa, San Deniseko Karmeliten priorea, izan zen lehena, Birjina Maria Frantziako Patroinaren ohoratzeko molde berri hau onhetsi zuena; haren enxenplu ederraz erakarriak eta kurajatuak, hainitz presuna kartsu laster debozio huni lotu ziren. ...Bereziki zenbait urte huntan eliza-gizon batzuen artari eta zeloari esker hedatzen hasi da, auzotik auzora bezala, eta esperantza izaiteko da denbora laburrik barnean herri guzietan ezagutuko direla hunen abantailak»... «Italia guziak ilabete huntan ihardesten du Zeruko Erreginaren laudoriozko kantuez. Jainkoaren ontasanari esker badire jadanik gure erresuman diozesa frango ikuspen bera ofritzen dutenak eta esperantza izaiteko da, denbora laburrik barnean, gauza bera ikusiko dela eskualdun herrietan... Ongi laiteke Mariaren ilabeteko exerzizioak idekitzea mezako sakrifizio sainduaz, elizan beste fidelekin baltsan».

Orretarako egin du Jauretkek euskaldunentzat bere liburua eta pozik uzten du aien eskuetan eta Andre Mariaren oiñetan: «Baliatuko da, Euskal Herrietan, urtean ilabete bat zuri konsekratzeko usaia debot eta salbagarriaren hedatzekotzat. Birjina saindua, egizu zure serbitzari leial guziak jar ditzen, molde berri huntaz, leku guzietan santifikatzeko primaderaren hastapena, eta ilabeterik ederrenaz egiteko inozentziatzko eta karrezko denbora bat, zure ohoratzekotzat guzia kontsekratua».

Jauretkek gogo zuena egia biurtu zan laster. Gure errietako elizak, gure base-lizarik baztertuenak ere, Italiako elizak bezela, dardar egin zuten maiatzetan Mariaren omenezko kanta-otsez eta otoitzez; eta gure baserritarrak, elizgizonik etzan lekuetan bertan, berek beretara naiko izan ziran loretako elizkizunak, beste iñor gabe egiteko, aukerako liburuen bitartez. Etzuten oraingo alfabetatze-saioen bearrik. Liburuak, berriz, non-nai sortu ziran berriak, Lapurdin, Bizkaian, Zuberoan eta Gipuzkoan. Gure erria etzegoen askotan uste dan aiñean alfabetatu gabea.

Jauretxe-ren liburua, euskerazkoetan leena dalarik, balioz ere ezta iñondik iñora ez azkena ez aulena. Andre Mariatzko gaiak, iru pondutan, egoki erabilli eta biribildu ditu. Geroko guztiek eztute bide berdiña artu; batzuk naiago izan dute betiko egiak gaitzat artu eta Andre Mariaren illa kristau-bizitza sendotzeko eskolatzat baliatu.

Idazle bakoitzak bere bidea artu nai izan du emen. Batzuk berek asmatu eta antolatutako liburuak egin dituzte; beste batzuk erderazkoetara jo dute eta aietatik itzuli eta aldatu.

Bizkaitarrentzat Aita Uriartek egin du leenengoa, 1850-n; Zuberotarrentzat, Mauleko Hagou apezak (1852) geroago Julien Heguy apezak manexez antolatua; gipuzkoarrentzat, ez-ezagun batek Bergaran euskeratua, eta beste bat geroago, Gregorio Arruek euskeratua (1882). Bizkaian sortu ziran geroago beste bi edo iru: Balbino Garitaonandiak Aristides Artiñanoren erderazkotik artua (1908), Eguzkitza apaizarena (1919) eta Albizuri-tar Frantzizko, Albonigako abadearena (1958). Lapurdirako, M.

Heguy (1890) eta Diharasarrik (1900), eta oraintsuago, Lafitte kalonjeak (1954). Gipuzkoan ere berriak sortu dira: Uriarte bizkaitarrarena gipuzkeraturik (1906); leenagoko izenik gabea, berrizturik (1917). Zuberotarrentzat, leengoez gaiñera, Itxauspe kalonjearena azaldu zan (1894). Oraintsutan, gipuzkoarrentzat, Zugasti apezak beste bat erderatik itzuli zuen (1950).

Liburu oietako batzuk (Uriarterenak, esaterako) argitaraldi asko izan dute. Euskaldunak ontan bazuen aukera. Ezin ukatu: Mariak lorerik aski izan du gure artean. Gure lurak lorerik aski eman du Mariarentzat, maiatzetan, ez bakarrik lurreko baratzetan, gure literaturakoetan ere bai.

Baiña ezta ori guztia. Maiatza dala-ta, elizkizun-liburuak bakarrik ez tira sortu; bi itzaldi liburu ere bai. Leenbizikoa, Joan Jose Mogel-ena: Mariaren illerako berbaldiak (1885). Egillea il ondoren, urteak geroago argitaratua da; baiña eskuz idatzita Markiñako eliza batean utzi zuen Mogel-ek, nai zuenak maiatzean irakurri eta erabilli al zezan. An ikusi zuen Aita Uriarte berak ere, noski. Aita frantziskotar onek, ain zuzen, Markiñako Mariaren illa eredutzat jartzen du bere liburuan, eta emen berak jarri zituen maiatzerako gaiak Mogelen itzaldien aritik dabilta, geien batean.

Bigarren itzaldi liburua mende ontakoa da. Jose Ventura Landa zanak idatzia, idazle onen gaztetako lana: *Gure zeruko ama euskeraz goratua* (Euskerazko landarak, eukerazko itzaldiak, 1906). Egia esan, maiatzerako egiñak diranik ez dute ageri, baiña illabete bat osatzen duten ezkerok, Mogel-enen ondoan jartzen ditut. Gaiak Ebangeliotik, Liturgiatic eta teologiatik artuak ditu, beti Mariaren iguruan, Mogel-enak ez bezela. Mogelek betiko egietarako joera artu zuen, beste batzuk ere Maiatzeko liburuak egitean artu zutena. Joera biak agertzen dira izlarietan ere: Ama Birjiñagana zuzen dijoaztenena, bata; eta bestea, zearka dijoaztenena, kristau-bizitza jatorrago baten bidez. Bietan ere, azken-jomuga, Kristo, Jaungoikoa, ez Andre Maria bera. Ala ere askotan, kristau-bizitza eta moralari, eginbideai lotuago, Andre Mariari darion Jainko-argiari baiño.

Bear bada, izlari eta sermolariak aipatu ditudan ezkerok, ez nituan ixillik utzi bear beste sermolari batzuk, Andre Mariaren kantarien artean. Astarloa frantziskotarraren, Gerrikoren, Iturzaeta eta Unzuetaen itzaldietan Andre Mariazko gai asko daude azalduta.

Gainbeera nator lan luzetxo onen azkenera. Mende ontako literaturari irazeko begirada bat egin gabe ez det bukatu nai. Liburu ederrik agertu da, batez ere, Andre Mariak dituen santutegien kondaira-saillean. Leenago ere baziran olako liburutxo batzuk: Iziarko Amak eta Arantzazukoak izan dute bakoitzak bere kondairatxoa. Adema Zaldubik ere eman zuen Euskalerritik kanpoko Andre Mariaren santutegi batzuen berri, bere *Euskaldun peleginaren Bidaltzaillea* deritzan liburuan (1877).

Mende ontan or degu, 1920-n aterata, Jean Barbier-en *Ama Birjina Lurden*, frantzes liburu batetik antolatua. Gai berari lotuko zaio Yomingo Soubelet kalonjea, Maiatzeko illabeterako asmotan egindako liburu batean. Soubelet berau degu Fati-mako Amari buruz egindako liburu baten aita.

J.B. Etxeberri ere etorri zan Andre Mariaren baratze onetara eta liburu mardula eman zigun: *Frantziako Erregiña* (1966), ainbat anima eta ainbat erri Mariaren oiñetan

erakusten dituen (Euskalerrria Sokorriko eta Arantzazuko Amaren oiñetan). Sokorriko Amak ere izan du bere berri-emaillea: Olhagarai apez.

Gure alde ontatik urbillago, aipa ditzagun iru praille karmeldar: Aita Antonio Goiria, Emiliano Barandiaran eta Santi Onaindia. Azkenengo onek Larrea-Zomotzako Ama Karmengoaren berri eman du. Beste bietatik, Goiria bi liburu idatzi dituena da: *Karmengo Eskapularioa* (1952) eta *Fatimako Ama Birjiña* (1955); Barandiaran-ek, leenbizi, Euskalerrriko Andre Mariaren santutegi askoren berri eman zigun (1952), eta, gero, *Andre Maria gaztediaren eskuetan* (1954), au erderatik itzulia.

Azkenerrako utzi ditut Arantzazuko Amaren bi kantari eta berri-emaille, bi idazlari bikain, eta olerkari arnas andikoak biak: Aita Salvatore Mitxelena eta B. Gandiaga. *Elorri*, Gandiaga-ren poema, bere barru-barruko mamia gogotan artu ezker, Andra Mari-poema da. Olerkariak bizi osoaren ispillu eta antz-irudia ikusi du elorrian; baiña nor edo zer da danen gaiñetik or olerkariaren izar eta ispillu? Elorri orren gaiñeko lore ederra, Arantzazuko Ama, Ama Birjiña bera. Sinbolo eta irudien pean baiña, *Elorri* Andre Mariaren poema degu bete betean.

Mitxelenaren liburuetan (*Arantzazu*, 1949, eta *Ama-semeak Arantzazuko kondairan*, 1951), olerkiak eta kondairak bat egin dute, eta zorionez alkar artu. Egillea gure erriaren leenean murgildu da; urtez urte ibilli zaigu Amaren aztama billa, urtez urte eta erriz erri Euskalerrrian bama, eta gizaldien eta mendien gaiñetik egan egiten jakin du, arranoaren begiz eta egalez. Alde guztietatik Arantzazura erromes ikusi du Euskalerrri osoa Andre Mariaren billa, Andre Mariaren babesean eta Andre Mariaren kantari, *Boga boga*, itxasoko olatu guztien gairi, zeruko Izarraren billa, eta Andre Mariaren ontzian *boga boga* betiko portura, Jainko errukitsuaren besartera.

Mitxelenak Arantzazuko Ama dion lekuan jarri dezagun, besterik gabe, Andre Maria, eta orra non daukagun, bear baiño leenago galdu genuen praille frantziskotar orren poema egi bihurturik, 1936-ko abesti batean kantatu zana:

Euskaldunen Ama kutun,
arantza-gaiñeko Erregin Aloñan,
itxaso-goiz izar Itziar-Begoñan,
ta Araban lora eztidun.

Euskal Erregin samurra,
gure etxe, soro, itxas, lantegi-soñua
egan doakizu otoitz biurtua:
gure erriak maitez dagitzun agurra
ta seme-eskeintza gartsua.

(Ormazabal-Jauregi)

Ikuskizun berbera eskaiñi digu emen gure literaturan bama egin degun begirada onek: gure erria, bere euskal-idazleen lumaz edo agoz, otoitz eta kantu, gizaldiz gizaldi, Andre Mariagana, eta Andre Maria eta Kristo lagun, Jainko Aitagana erromes joaten.

EUSKALDUNAK ANDRE MARIARI KANTATZEN*

«Gizaldi guziek jZoriontsua Zu! esango didate»: Andre Mariak, bere egun zorioneko batean, igarlearena egiñez, esandako itzak dira. Gero Elizak antziñatik abestu izan dio Mariari onako itzekin: «Ixildugabe entzuten dira zure goramenezko otsak edonongo gizaldien agoetan». Beraz, euskaldunen agoetatik ere bai. Gure erria Andre Mari zale andia izanik, ezin zitekean bestela.

Ipparraldean

Euskal-literaturarik izaten asi zan ezkerro, Etxepare zarrak gure literaturaren asikiñak ematen asi zan ezkerro, an dago Andre Maria gure lenengo olerkariaren bertsoetan. Osterantzeko bertsorik ondutakoa bada ere, Andre Mariaren kantari beroa da Etxepare; euskeraz idatzi izan dan poemarik ederrenetako eskiñi zion Ama Birjiñari, Jainkoaren ama guztiz garbia eta pekatarien ama errukitsua danari.

Urrengo idazle eta olerkariak ere bide beretik jo zuten; amazazpigarren gizaldian, Ohienarte lege-gizona, eta Joannes Etxeberri, Harizmendi, Argiñaratz eta Gasteluzar, fraide edo apaiz izanak, Andre Mariaren kantari dira, olerkariok Andre Mariari zuzendutako olerki-loerrik gutxi eldu bazaigu ere erriaren agotan. Urrengo gizaldian, emezortzikoan, Zeruko Amaren kantari berriak datoz gure literaturatxoaren alorrera. Or ageri da Urkizu Durangoko alkate izana, eta or da Bermeoko Koroa Santuaren idazlea: AndreMari zale biok errosarioko misterioak bertso egokiz jantzi eta apaindu zituzten. Bertso oiek erriak oso ongi artu zituen, eta kristau-doktriña eta eleizlibu-

* Karmel 1988-2, 80-89.

ruetan zabaldu ziran laster. Aldi berekoak dira Aita Mendiburu eta Kardaberaz je-suitak. Batez ere Mendiburuk, euskaldun onarentzat atera zuen liburuan eta Otoiz-gaietan Ama Birjiñaren Errosarioa onura geiagoz esateko gogarte eta bertso berri txukunak eman zituen.

Gizaldi orretan asi zan Iparraldeko euskaldunen artean kristau erriarentzat eliz-kantazko liburutxoak argitaratzeko oitura. Onelako liburuon abiarazlea, diotenez, Haraneder gure literaturan entzute andikoa dan gizona degu. Ordukoak dira *Otoitz eta bertze kantika espiritualak*, Zuberoko euskaldunentzat eta *Kantiko Espiritualak* izenez lapurtarrentzat argitara etorri ziran kantu-liburuak, ainbat aldiz gero berriro argitaratuak, eta geienak salbameneko egiak gogoratzeko badira ere, Andre Mariaren kanturik gabe ez daude: esaterako *Kanta zagan guztiek*, Gasteluzarrena, eta Erro-sarioko misterioenak.

Iparraldeko kantu-liburuoi gagozkiela esan bearra dago joan dan mendeko azken urteetan asko aberastu zirala, batez ere argitaldi berriak beneditarren eskuetara etorri ziranean. Argitaldi berrietan asko ugaritu ziran Andre Mariaren eresiak ere, gure egunotako *Kantikak* eman zituzten arte. Sail onetan lan ederra egin zuten Adema Zaldubi kalonjeak bere *Euskaldun Pelegrina* Aazparneko liburuarekin, Arbelbide misionestak Azpameko Galbarioa liburuko kantikekin, eta Intxauspe kalonjeak bere *Kantika Sainitiak* ia laureun orrialdeko bildumarekin. Aire eta doiñu berriak datoz oien lanarekin Andre Maria kantuz goretsi nai zutenentzat: *Uholde batenpare*, Zal-dubirena, eta gaur Euskal-eliza guztietara zabaldu diran *Jainkoaren Ama, Ama guztiz ona*, eta abar.

Egoaldean

Literaturan bezala, Iparraldetarrak aurea artu zieten Bidazoaz onuzko euskal-dunei. Onek ez du esan nai emen ez zala elizetan abesten, baiña ez zegoela an bezelako kanta-sortarik. Emengoak beranduago esnatu ziran eta beranduago etorri ziran alor au lantzera. Eta beste aldean bezala, emen ere misioetako eta olako kan-tetatik abiatu zirala esan genezake. Eta Misiolariok sartu zituzten, ain zuzen, Andre Mari kanta berri batzuk: *Agur dolorezko ama larritua, pekatariok Ama*, eta olakoak; praide frantziskotarrak izan ziran eragille; Afiibarro, Linaza eta Salazar fran-tzizkotarrak aipatzen dira kanta-sortzaille edo ontzailleen artean. Misio-kantak as-kotan argitaratu izan dira, gure gizaldi ontan sartu arte. Aipa ditzagun bat edo beste: Misio Santubetarako Jesus Jaunari eta Ama Birjiñari kantubak (1893, Tolosa); Pa-sionisten Misio santueterako (Bilbao, 1899); Aita Kaputxinoen misioetako eresiak (Iruñan), askotan argitaratuak; San Franziskoren Irugarrengentzat Eliz-kantak (au ere askotan argitaratua).

Maiatzeko kantak

Maiatzeko Loreen jaiarak ere Andre Mari kanta berririk ekarri du, batez ere, sarrerako *Goazen goazen guztio*k, edo *Guzti guztio*k alkar arturik, beste batzuen

artean. Maiatzeko loreen oitura au liburutan agertzen Lapurditarrek izan genituen aurrelari. Joan daneko gizaldi orretan ainbat liburu eman ziran argitara Baiona aldean: Jauretxe apaizarena degu lenbizikoa (1838), eta gero batzuk zuberotarrentzat eta beste batzuk manex eta lapurtarrentzat, Bordaxar, Julien Heguy eta Intxauspenak. Guk ikusi ez degun arren, agertu omen zan bat, zubereraz, egun bakoitzerako kanta berria zekarrena. Julien Heguirena Laffite kalonjeak eman zuen argitara egunotan, berri-uririk.

Aita Uriarte frantzizkotarraren *Maiatzeko IIIa* da Bidasoaz onako aldean lenengo. Beste askok ekin diote gai berari bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan; Balbino Garitaonaindia, Eguzkitza, Albizuri eta Gipuzkoan azkenengoa A. Zugastirena. Baiña Maiatzerako liburuak ez degu esango Andra Mariaren kantutegia asko aberastu zutenik. Beste liburu batzuek geiago egin zutelakoan gaude Andre Mari kantuak ugari-tzeko. Esaterako, Iruñan 1904 argitaratua dan onako liburuak: *Eliz-kantak*, *Euska-lerriko elizetarako oso egokiak*, eta Durangon 1908n agértutako Elex-abestiak, Bizkaiko euskeraz.

Azkue eta Donostiren bildumak

Laster etorriko da Azkue andiak eta Aita Donostiak euskal kantutegiari emandako bultzada, eta eliz-kanta bilduma eta Andre Mari kanta bilduma oparagoak datoz. Aita Donostiak prestatuta, *Jaungoiko-Zale* bazkunak eleiz-kantazko sorta politak atearako ditu eta *Jaungoiko-Zale* bazkunaren irarkolan agertuko da 1925n eskuan errez erabiltzeko bilduma ederrena, *Eleiz-Abestiak*, Andre Maria goresteko kanta uzta ugaria dakarrela, orainarteko ugariena.

Kanta aipagarri batzuk

Aipa ditzagun orain eun urteko gure erriak ona egin zuen kanta bat edo beste. Zabaldueña, noski, Gorritireña omen dan *Agur Jesusen Ama* degu. Beste bat, Iruñon apaizarena omen *d&Ama maite, Maria*; gure mende ontan sartu arte erromes-egunetan eta olakoetan gozoz entzuten eta abesten zana: *Aurrera, Kristaufedez betiak, aurrera Mariarengana*, Mariaren edozein santutegin abesteko egokientzat zutena.

Onezkero irakurlea oartu da emen ez dugula musikari andien ots andiko abestirik aipatzen. Erriak arrera ona egin dien kantak bakarrik sartu nai izan ditugu idazlan onetan. Azkue zanak bere gaztetan eresi barri askotxo atera zituen Andra Mariaren omenetan, Begoñako amarentzat eta. Baiña errian ez dute azterrenik utzi. Amazor-tzigarren gizaldian, bearbada aipatzekoa degu Munibeko Kondea. *Agur Maria eta Irten ezazu* (Kandelario egunerako abestia) leku askotan erriaren biotzean sartuta daude. Gizaldi berean Aita Arakistain karmeldarra, Itziarko semea, bere erriko Andrea Mariaren kanta ederraren sortzailletzat dago, baiña bear bada, bertsoen egillea baizik ezta, ez doiñuarena.

Baiña beste kanta-sail bat ez degu aazturik, utzi nai: Andre Mariaren santutegi ospetsuenetako kantu zarrena. Zaarrenetakoa, erriak aizturik izan duena, Orreagako edo Orierriagakoa da, aintzinako paper zarretan gordea, amazapigarren mendearen asierakoa. *Aingurien Erregiña, I Orierriagan zarririk*, olaxe asten da Orreagako erromesen kantua, orain Aita Donostia Ave Maria Stella-ren doifu zarraren antzera konpondua.

Arantzazuko Amaren santutegia, ain zarra ez danarren, zaar usaiñeko bertsoz eta erromesai gertaturiko kontakizunez beterik dago, bakoitza bere musikarekin. Gaur *Arantzazuko Ama Birjiña* da santutegi artako kantu ezagunena, baiña ango kanpaiak jotzen duten doiñua beste antzinagoko eta errikutsuzkoagoko baten oiartzuna da.

Arrateko Santutegiak ere badu bere kantu zaarretan alako ipuin zaarren lillura darion kondairatxoak: *Arrateko zelaiko, I bai lorategia, I andixik gora dago I zerura bidia*». Eta nongo edo nondiko oiartzuna dakar beste Bizkai aldeko kanta zar arin batek: *Orriak aidez aidez*, ifartzu dulzea, landa mintz ederrean doan errekea... eta gero: *Non dago, Amandrea*, zerorren semea, zerutik jatziriko gure mesedea?

Santutegietako kanta eta doiñu berriak

Andre Mariaren santutegiz ereinda, iñaurririk dago gure erria. Orain ogetalau bat urte, Gipuzkoako norbaitzuei eman zien gogoak, eresi berri batzuk bear zituztela Gipuzkoado santutegirik entzutetsunetarako, bertso berri eta doiñu berriekin.

Musikalarri eta olerkarien laguntza eskatu zuten. Ola dauzkagu bederatziz Andre Mari Kanta berri. Batzuk arrera ona izan dute. Arantzazun bertan ere bai. Beste batzuk ez dakit zertan dauden. Nola nai ere, santutegi oietako kanta zarrak ere bizirik diraute, lekuen batean ikusi degunez. Beste batzuk alde bietara dabilta, bein kanta zarra, bein berriagoa: leku askotan gertatzen da berdintsu. Ondarroan, badute kantu berri bat, eta izan dute euskaldunen Marifiel-salbea deitzen diotena abesteko oitura, Ondarrabin bezala. Antzifia bazuten Durangon Tabirako Amaren kanta zaar bat; orain antziñakoa aiztuta edo galduta, berria dute. Bizkaian, bat naikoa ez dabela, bi kanta berri sartu dira errian, Begofiako Amari kantatzeko. Eta ia ez da erririk bere kantutegia ez duenik. Zeanurik bazeukan bere kantutegia, eta berdin Muxikako erriak, danerakoa bai Andre Mariarentzat eta, bai santu guztientzat.

Nabarmengarriena erdal giroan bizi diren erri batzuetan gertatzen dana: Estibaliz erdal-giroan sartuta egon arren, badu euskerazko kantu bat, eta berdin gertatzen da Arabako Murgialdean, Oroko Andre Mariaren Santutegian. Egia esan, Oroko Santutegian bertako jai-egunean itzaldia euskeraz ere egiten zan, lenago, batez ere, Bizkaiko errietatik joaten ziranak gatik, Orain ez dakigu zer gertatzen dan baifia bere euskerazko kantua badu santutegi orretako Ama Birjiñak.

Eta emendik urrunago, or degu Belokeko Amaren Santutegia, alde batetik gas-koin giroz inguratuta. Eta an degu Belokeko Ama, altzoa utsik erakusten duela, beragana joan nai duten guztiak semetzat artu eta besarkatu nai bezala. Eta orain irudi berri orrek badu ere eresi berria: *Ongietorri zabalaren Amarena*.

Luzeegi joko genuke lekuan lekuko Andre Mari guztien euskal-kantak aipatu bear bagenitu. Aipatuak aski bitez euskalduna Andre Mariaren KANTARI IZAN DALA gaur arte eta kantari jarraitzeko bidean dala argiturik usteko. Iturri onek ez du agortzeko itxurarik gaurkoz. Eta alde bateko kantua beste aldeetara aldatzen dirala ikusten da. Joan dan gizalditik ona Lapurdi aldeko kantu asko aldatu dira Bidasoaz onuzko aldeetara, eta emengoak ara ere bai. Emengo *Agur Jesusen Ama* eta *4ma Maite Maria* ango kantutegietan sartu dira, eta ango *Jainkoaren Ama*, *Aingeru batek Mariari* eta *Lurdes inguruko Agur*, *Agur Maria* gure arteko eginda ditugu.

Kantu eta bildumak

Eliz-kantutegietan, angoak, berriz ere, aurrea artuta dabiltzala uste degu. Emengo gerratearen ondoren, emen ia ixilik geundela, angoek or dago bota ziguten, nolabait esateko, *Kantikak* liburu ederrarekin, Aita Lertxundi eta Aita Iratzederren gidaritzapean. Eta arrezkero etengabeko lanari lotu izan dira, kanta berriak ateraten, Andre Mariarenak ere bai. Olerkien egille, ontzaille, Iratzeder idazle ain ixuri onekoa izan da ia beti, eta musikarenak Lertxundi Aita eta beste zenbait.

Mugaz onunzkoan, berriz agertu da Aranburu Alberdi apaiza, bere *Eliz-abestiak* bildumarekin. Oraingoan musika eta guztizko bilduma da. Belokekoan ez dauden Andre Mari kanta asko emen aurkituko ditugu. Bizkaian *Gora Jainkoa* izeneko bilduma dabil eskuz esku. Andre Mariaren kanta zabalduenak barruan dituela. Doiñu ta guztikoa au ere. *Jaungoiko-Zale* eta *Argiak* atera zutenaren antzeko bildumarik, eskuan errez erabiltzekorik, ez daukagu gaur. Liburu oietan bada aukera Andre Mari kantuetan.

Musikalari batzuk erri-doñuetara jo dute, itzak aldatu, Andre Mariari kanta-tzeko. Ala *Oiñazez* (Nik baditut mortuetan) doiñu ain txukun eta biotz ukigarria gure musikalari batek, Andre Mariarentzako kanta biurtu du. Eta alderantziz, gure emakume kantari batek, Altsatsuko *Erkudengo* Ama Birjiñarena dan doiñua artu zuen, Txinako ez dakit zein iraultzailleren izena gorestekoa.

Euskalerrriak ez du kantutegi oso murriz eta urria Andre Mari Kantuetan. Eta Euskalerrriak badu musikalari kantutegi ori aberastu eta ugaritzeko, kalerako doiñuak elizara sartzan saiatu gabe. Ola egin zuten Gipuzkoan, olerkariak eta musikalariak elkar artuta, 1954ko Andre Mari urtean. Eta berdin egin dezakegu oraingo Andre Mari urte onen ondoren. Ola egin bear ko da, Andre Mariaren kantari izan dan euskerak Ama Birjiñaren kantari jarraitu dezan.

OTOITZA

EUSKAL LITERATURAN*

Itzaldi au asterakoan, nere bumari galdezka nago, ea ez ote datorren aste onetan aritik kanpo neri egotzi didaten gaia. OTOITZA GAURKO Euskalerrian, Eliz-otoitza gaurko Euskalerrian da emengo itzaldi, elkar-izketa eta azterketen gai nagusia. Aste onen antolatzailllek gaurko Euskalerrinari begira daudela dimdi. Gaurko egoera eta otoitz-giroa aztertu nai dute, noski, leenik, biarko zubiak egiteko, Euskal-elizaren otoitzari bide berriak urratu eta etorkizun ohea prestatu al izateko. Gaurko egoerari eta etorkizunari begira jarri nai izan gaituzte. Zergatik, beraz, leenerako eta atzerako begirada au?

Bumauste andirik gabe edozeiñek asmatuko du zer erantzun. Otoitza gure errian ez da gaurkoa ez atzo goizekoa. Aspaldikoa da. Gure literatura urrian ere utzi du gai onek aztarrenik. Leenago ere izan du Euskalerriri otoitzaz idatzi duenik, izan du otoitz-maisurik. Ez gera gaur utsetik asten. Aste onen antolatzailllek badakite ori, eta esan dute: Egin dezagun bederen Euskalerriri izan dituen otoitz-maisu aien oroitzapena. Etzaigu alperrikako gauzagertatuko. Ikusi dezagun zer egin zuten, zer irakatsi zuten, nondik nora jo zuten. Bearbada, leengoak nondik nora ibilliak diran jakiteak gaur nondik nora jo bear degun argituko digu. Zentzuzko jokabidea, jokabide apala ere bai. Ez dezala iñork uste gaur arte ezer egin ez danik, edo gai onetaz ezer idatzi ez danik. Egoki dator, arira dator, beraz, aste onetako programan gai au: Otoitza euskal-literaturan.

Gaiaren zabalak emango digu lanik asko. Nola dena itzaldi batean bildu? Otoitza euskal-literaturan, dala aozkoa dala gogozkoa, bakarrekkoa naiz lagunartekoa, eliz-otoitza, ixillekoa naiz kantuzkoa. Bada danetatik gure literaturan, aldiz geiago, aldiz

* Jaunaren Deia (1975, 50. zenb.) 36-57.

gutxiago. Guztietaz zerbait esan bear badet, beldur naiz azkenerako aspertuko ez ote zeraten, eta ala ere gauzak erdiesanean utzita geiagoren egarriz ase gabe ez ote zaituztedan utziko.

Gaiaren zabala

Edozeiñek daki euskal-literatura zaarra, ia dana, eliz-gizonena izan dala: eliz-gizonak idazle, eta idatzi dutena eliz-gaiezkoa. Ori da gure literaturaren nabarmengarri bat: erlijiozkoa izatea.

Eta ona beste nabarmengarri bat ere: erriarentzat, erri xeearentzat egiña da, erriak bearren eta naien zituen gaiak erabiltzen eta azaltzen zituen. Eta erriak zer zuen naiarik? Oso jakina da norbaitek esana: gure erritar euskaldunei euskal-libururik eskaintzen zitzaieneko, galdera au egiten zutela: Meza entzutekorik bai aldu? Nik ez det gaitzetsiko erriaren eskari ori; ez zuen edozer nai. Otoitz-gauzetan erlijioaren muiñera, Liturji-otoitzera joten zuela ez ote digu argi samar esaten? Gure erri xeeak ez zuen, ez, joera okerra. Eta gure otoitz-literaturaren beste nabarmentasunik aipatu bear banu, zera esango nuke: ez duela teoria utsik maite, ez dala sartzen eztabaidako gaietan. Otoitza zer dan baiño nola egin erakutsi naiago izango du; otoitzerako bideak eta otoitz-gaiak eskainiko zaizkio berez teori utsen zale ez degun erriari, erri euskadunari.

Eta gaiaren barruan sartu baiño leen, esan dezadan erderatik euskerara itzultzaile diran idazleei ez diegula, noizbaiten edo izan ezik, ikuturik ez jaramonik egingo.

Etxepare eta Leizarraga

Eta asi, XVI-garren mendetik asi gaitezen. «Euskera, jalgi adi kanpora» oiua aurtiki zuen idazlearenganik. Etxeparenak ditu euskal-literaturak bere asikiñak; arenak ditu otoitz-literaturarenak ere. «Euskera, ialgi adi kanpora, ialdi ari palzara, ialdi adi mundura» oiua auek Etxepareren liburuak azkenaldian ditu. Baiña asiera-asieratik non sartzen du liburu orrek gure euskera? Euskaldunaren barruarekin eta Jainkoarekin izketan. Badirudi euskerari esaten diola; sar adi barrura, sar adi zerura, Jainkoaren aurrera. Ez dezagun uts egin, ez gaitezen itsutu, Etxepare apaiz munduzale alaiegitzat artuz. Zerbait egin nai izan du, euskaldunek euskeraz zerbait ikasi dezaten, eta elkarrekin solas egiteko, atsegin artzeko eta kantatzeko gairik izan dezaten. Eta zer da leenik euskaldunei irakasten diena? Beren bametean sartzen, goitiko egiak gogoz ausnartzen, aozko eta gogozko otoitza egiten.

Nola asten dan irakurri besterik ez degu:

Munduian den gizon orok behar luke pensatu,
Iaingoikoak nola duien batbedera formatu:
bere irudi propiara gure arima kreatu:
memoriaz, borodatez, endelguiaz goarnitu.

Or degu gizona Jainkoak iru almenez omiturik. Zertarako? Batez ere Jainkoari zer zor dion ezagutu eta gogoratzeko, eta aren kontrako uts eta pekatuak aztertzeke, aren maitasun eta ontasunari erantzuteke.

Zeren Jeinkoa egun oroz ongi ari bazaigu,
guk ere hala behar dugu hartaz untsa orhitu,
gure hatse eta fiña hura dela pensatu,
goiz eta arrats orhituki haren izena laudatu.

Etxeparek ematen digun leenengoko irakatsia gogozko otoitza egitekoa da. Garaziko seme onek badu bere liburuan aozko otoitzik ere: igandero Jainkoari egitekoa, Andre Mariari esatekoa eta abar. Baiña gogozko otoitzari buruz argibiderik egokienak ematen ditu, eta artarako gairik ederrenak eskaintzen:

Orhituki igandian behar dugu pensatu
zenbatetan egin dugun aste hartan bekhatu:
orhit eta Jeinkoari barkamendu eskatu,
atorra nola arim-ere aste oroz garbitu.

Konteplatu behar dugu Pasiene Sanduia,
eta senti bihotzean haren pena handia,
nola zagoen kurutzian oro zauriz bethia.

Onelako bertso asko aipatu daitezke. Aipatuak aski bitez Etxepare gure artean otoitz-irakasleen artean sartzeko. Neri Gure Patroi Aundiaren irakatsiak ekartzen dizkit gogora. Animaren almenak otoitzari laguntzeko erabiltzen erakusten digu. Etxepareren gogozko otoitzak antz andia du Loiolako Maisu aundiak bere otoitz egiteko iru eraekin erakusten duenaz. Gure siñismeneko, Jainkoaren aginduetako egirik jakiñenak gogora ekarri, gure biziera aien aurrean aztertu, eta bizi berrirako asmoak artu, eta Jainkoari eskerrak eman, Jainkoa goretsi. Etxepareren otoitza ez da eske utsezkoa; Jainkoagana biotza jaikierazten badaki, ez bakarrik mesedeak eskatzeko. Bai Jainkoa goresteko eta nok bere bizitzari kontuak eskatzeko ere.

Ez al degu au aski, Eiheralarreko erretor jauna gure artean otoitz-maisutzat artzeko? Eta ala izan da Euskalerrri osoan. Urte askotan, batez ere jakintsuenen artean, aazturik egon bada ere, errian aren maisutzak iraun du. Azkuek eta Aita Donostiak Euskalerrri osoan bildu dituzte aren bertso-puzkak, Irati-aldean asi eta Murelagaraiño. Emen, bizkaiko biotzean ona nola jaso zuen Azkuek leen aipatu degun bertso bat:

Kristinau onak bear leuke iaian-iaian pentsatu
aste guztian zenbat bider ein ete daben pekatu... (p. 885).

Etxeparek ez du euskera eta euskalduna plazara, mundura, kanpora bakarrik biali: bakoitzaren barnera eta Jainkoaren aurrera ere bai, otoitzaren bidez.

Leizarraga

Leizarraga da XVI-gren mendean euskal-idazlerik ugariena, baiña itzultzaille utsa degu, Testamentu Berriaz gaiñera, Kalvinotarren kateximaren eta otoitz-liburuen euskeratzaille. Euskal-literaturan duen garrantziagatik, ez diogu emen bere lekua ukatzen. Leizarragak bere irakatsirik ematen ez digun arren, eta gure erriak zenbateraino ezagutu dituen ez dakigun arren, Kalvinistek zer otoitz erabiltzen zuten, eta otoitzaz zer irakatsi zuten ez degu utziko zerbait esan gabe. Orain Kalvinistek erabiltzen zituzten otoitz-liburuen berri jakiteko aukera ohea degu. Oraintsu argitaratu dute Leizarragak euskeratutako lana, titulo berri batekin. Titulua aldatu diote Kalvinisten otoitz-liburuari ere: Liturjia. Leizarragak, frantzesetik itzulirik, *Othoitz Ecclesiasticoaren forma* ezarri zion. Zer da bera? Igandetan egiteko erri-otoitz bat, bataioa ospatzekoa, Jaunaren aparia edo zena ospatzekoa, eta erriak, gaixoak bisitatzekoa. Erri-otoitza esan diogun ori gure erri-otoitzaren antzerakoa da. Bertan ikusten degu protestanteen jokabide au: Norena lurra, arena erlijioa. Erri-agintariak, erregeak bezaraz, leenago daude eliz-gizonak edo Jainkoaren erriaren ardura dutenak baiño. Leenbizi, aien alde egiten dute otoitz, gero animen kargudunen alde; urrengo gizon guztien alde; antikristoren azpian daudenen alde, eta, azkenez, batzarrean daudenentzat.

Otoitza zer dan kateximan erakusten dute, galde-erantzunka. Otoitza zer da? galdetzen dute, eta erantzuna: «Gure behar guzietan Jainkoaren inbokatzea». Ez da naiko mingaiñez egitea. Mingaiña ez da beti bearrezko, baiña gogoz eta biotzez egitea beti. Otoitz egin nai duenak bere ezereza eta gabetasuna ezagutu bearko ditu, bere barruko ezaintasunaz iguiña eta larrialdia nabaritu, baiña bai biotza otoitzerako iratxeiki eta sutu ere, Jainkoak bere Espirituaz bero dezan eta bear bezela otoitz egitera moldatu. Eta olako berorik gabe bagaude, nagi eta otz, ez degu etsi bear, bai gogotikako ekin graziaren eske. Askotan, besterik eziñean, biotzak esaten ez diguna ere mingaiñez esatea ez da alper izango. Mingaiña izan daiteke espirituaren laguntzaille, dio Loiolako maisuak berak bere egingo lituzken itzekin. Mingaiñaz otoitz egitea noiz da alper? Norberak ulertzen ez duen izkuntzan mingaiña ari danean; orduan ez da otoitz egitea, ez da lan alperra egitea bakarrik, Jainkoari ixeka egitea ere bada. Gaiñerakoan, kristauren otoitzak uste osozkoa izan bear du, eskatzen deguna Jainkoak emango digulako uste osoz egiña. Jesukristogandik degu uste ori, Bera degu gure otoitzetan Ararteko edo bitarteko. Eta Jesusek berak erakutsi zigun kristau-otoitzaren eredu izan bear duen eredu: Gure Aita, bakoitzak geure bakarrean eta guztiok elkarrekin erabilli dezakeguna. Beste itzik ere erabilli genezake Jainkoari itz egiteko; baiña gure eskariak Jesukristok erakutsi zigun otoitzekoen bidetik joan bear dute; bestela ez diraizango Jainkoaren gogarako. Ez det geiago luzatu nai, ez diot jarraituko Kalvinisten dotriña orri, Jaunaren otoitzaz ematen dituen azalpen eta argibideetan. Biotza eta gogoa eta uste ona eskatzen dituen arren, badirudi aren irakaspenak arnas guti ematekoak eta biotz-kikilgarriak ez ote diran; gaiñera, ikusi dezakegunez, eske utsean gelditzen da dena. Oargarria: kalvinistek ez ziguten eliz-kantarik, kantuzko otoitzik utzi. Idor eta otzegiak ziran, nonbait, alor au lantzeko.

XVII-garren mendea

Edozein ordutako otoitza; eliz-orduetakoa, liturgiakoa bame.

XVII-garren mendea gure klasikorik aundienaren mendea degu eliz-gizonen artean. Laikoetan Oihenart gorenetakoa maillan, dago. Axularrek, ala ere, ez du otoitzari buruz esateko aundirik. Baiña aren inguruan, Axular baiño leenago eta geroago, idazle-mordoa aurkitzen degu, gai oni leku aundia eta osozkoa ere eman diotenak: Aita Materre eta Haramboure frantziskotarrak, Ziburuko Etxeberri eta Gas-teluzar, Loiolako Santu Aundiaren semeak, Harizmendi, Argaiñarats, Tartas... Mende onetan asi ziran Kempisen liburuaren eta Gudu Izpiritualaren eta Filotearen euskeratzaileak ere: Pouvreau, Arambillaga...

Materre aitak Dotrina Christiana deritzan liburu bat idatzi zuen, «devocinozco othoitz eta oracino batzuekin» (1617?, 1623) Otoitzok zati luzea betetzen dute liburuan: baditu goiz-arratserako, Meza entzuteko, Jauna artzerako, mariñelentzako, eta abar. Baditu anima aztertzeo era eta pekatuetarik aldentzeo gogoetak ere. Aita Haranboure-ren liburuak titulu bitxi samarra du: *Debozino Escuarra* (manuala, escu-liburua esan nai du, noski) *Miraila eta oracioetguia...* (1635, 1642...) Otoitzez, bestea baiño aberatsagoa da. Onek ere ez ditu aaztu gure mariñelak; auentzat otoitz bereziak dauzka, Frantziskotarren irugarren ordenakoentzat San Franciscoren oficio txikia: Mezako zeremonien azalpena, zazpi penitentziazko salmuak eta abar. Orrela, poliki poliki Bibliako eta litugiako otoitzean sartzen zaigu.

Mende onen azkenaldean agertzen da Tartas. *Onsa Hiltceco Bidia-z* gaiñera badu beste liburu bat, Elizak Garizuman darabillan giroan eta gogoan egiña: *Arima Penitentaren Occupatione Devotaq, Orazionia, Barura, eta Amoyna*. Garizumarako Elizak beti erakutsi dituen egiteko guztiak, ain zuzen, iru kapitulu dítu, eta leenengoan otoitzari buruzkoa, zer dan, zer kondizino eskatzen dituen, zer indar eta balio duen (1672).

Iru idazleonek lana ez da gauza utsa. Bi frantziskotarrenak arrera ona izan zuen eta mende berean iru bat argitaraldi. Beste iru baditugu mende orretan aipagarriagoak; Etxeberri Ziburukoa, Harizmendi eta Argaiñarats. Irurak bertotan idatzi zuten, euskera eliz-kantuetan sartu eta euskaldunoi geure izkuntzan liturgiarako bideak iriki.

Joanes Etxeberri orduko idazlerik ugariena degu. *Doctor Theologus* izan genuen. Sara-Ziburu inguruan euskal piztualdia sortu zutenen artean gaillenetakoa. Jesusen Lagundiko semea, Loiolan izana eta ementxe bertan bere bertso batzuk ondutakoa. Gure Patroi Aundiaren eskolakoa izanik, ez da arritzekoa bere Aita Iñazioaren arau au oso gogoan izan badu: «Dana, Jainkoaren goresgarri, Jainkoaren ospe aundia-gotako». Jainkoa ordu oro goresteko bidea erakutsi nai die euskaldunei. Ez da urte asko Jesuita batek bere liburu bati izen au ezarri ziola: *Ordu guzietako otoitza*. Gero, gauza berritatzabaldu dira ainbat otoitz-liburu: premia guzitako otoitzak, ordu gaitzetako, kalean esateko, eta nik aldakit zenbat alditako. Etxeberrik orain irureundik gora urte egiña du bat, gaurko guztiak baiño aurrerago doana, premia geiagotako Otoitz-liburua. Eta bertotan da. Teologo bat otoitzaz bertotan idazten? Nola daiteke

ori? Nola eman zion gogoak gure teologoari lan ori egiteko bertsoara jotea? Gure erriaren sena eta bertsoarako grina gogoan izan zuelako. Ala aitortzen du Etxeberrik:

Giristinoa, eman diat eskarazko bertsutan
katoliko manuala neure asti-ordutan.
Ikusirik, nola bainaiz iaiaitez eskalduna,
gure nazioa dela kopla maite duena.
Hartarakotz iakiaraz diat bertszuz ezarri:
lasterrago ikas eta maizago aiphagarri.

Bertsoak, nai badezute, ez dira gaingainekoak izango. Beti neurri bateko bertsoak entzutea, beti doiñu bereko ekiña aspergarri gertatzea errez da. Baiña teologo onek ez dio orri begiratzen, eta bertsoz moldatuko du edozein gai; bere leenengo liburua *Manual Devotionezcoa* du, bi tomo eta zatitan osatua, leenengoa, kristauaren jakitekoez, eta bigarrena, osoa osoa, kristauaren otoitz egitekoez. Ona nola asten duen bigarren ori:

Huneraño mintzaturik gauza jakitekoez,
orain mugaz dagigun hitz othoitz egitekoez...
Ea, beraz, ikhas ezak Jainkoaren othoizten
eta oren guztietan behar denez erxtatzen.

Askok, bear bada, irakurri dute bale-arrantzaleen otoitza. Eta ortik ezagutzen dute Joannes Etxeberri au, edo *Noelak* liburutik. Baiña bere liburu nagusia au du: *Manual Devotionezcoa* (1627, 1669). Bale-arrapatzaillen otoitz ori itxasoan dabil-tzanen otoitzen artekoa da, baiña ibillera guztietako, non-naiko eta noiz-naiko otoitz-moldez egiña dago liburua, bere itz batez esateko, edozein asmaleku eta asma-alditako otoitzez.

Guztien aurretik, ordea, otoitz egiteko era eta legeak erakusten ditu, edo Etxeberrik berak dioenez, *Othoizteko antzea*.

Zer da otoitza? Nolako legeak ditu? Nolako prestaera eskatzen du? Bertsoan erantzuten du gure teologoak:

Aphaindurik bethiere ohake othoiztera,
eztidurien hoala Jaunaren tentatzera.

Liburu Santuetako legea da. Eta orretan ez dezala kristauak utsik egin.

Otoitza, leenik, eskea da, galdetzea. Ola dio Etxeberrik Jainkoarekin berarekin mintzo dala:

Othoitza da, Jongoikoa, zure erranen ereduz,
zerbait zuri galdetzea behar den errespetuz.
Premian gaudeiño da gure eginbidea
debozino handirekin zure suplikatzea.

Otoitzak bere apaingarriekin batera joan bear du, bere baldintzak eskatzen ditu: apaltasuna, araztasuna (garbitasuna), gogoa zabartu gabe eta iraupenez egitea. Jainkoarekin mintzatuz jarraitzen du:

Zuri bada mintzatzeko behar da humiltasuna,
 bai halaber arimetan handi araztasuna:
 ezen etzinduen gizon urgullua aditu,
 bai ordean publikano humillari barkatu.
 Gehiago behar dugu adimendu ernea,
 eta bihotz barrenetik egin gure eskea.

Ezpaiñ utsez Jauna goresteak eztu balio batere. Eta askotan iraupena bearrezkoa izango degu.

Behingoan ezpadugu ardiatsi galdea,
 berriz egin behar dugu gauza beraz eskea.
 Deusik ezta zeruetan hain barrena gorderik
 ematen eztuzun othoiz onaz agradaturik.

Baldin eskatua irixten ezpadugu, guretzat on ez dalako izatea baliteke:

Akkordatzen ezpaduzu errekesta gurea,
 hura daite, zeren baita hobe ez aitortzea!

Baiña otoitza ez da eske utsa, norberentzat zerbaiten eske utsa beintzat. Otoitzegilleak zer bear du geiago? Otoitzean sartzen dan une beretik, ohea izan naia:

Sartzedanik behar dugu ontzeko gutizia,
 eta othoitzean bethi guardatu khar handia.

Zer geiago behar du gero?

Dohain errezibituz itzul esker frankoa,
 podoreaz orhoitzera bortxaturik gogoa.
 Guztiz ere, adoratu behar duzu humillki,
 eta perfekzioneaz laudatu handiroki.
 Berzeak ere gonbidatu behar tugu hartara,
 zeren zure laudatzeko kreatuak baitira.

Beraz otoitz onak, perfetak, bikaiñak, eskerrak ematea, Jauna gorestea, gurtzea, besteak ura gorestera eta gurtzera ekarri-naia bere berea du. Eta are geiago; bizia Jainkoari eskeintzea, ari itz eman eta agintzea, berea izango dala, Aren naia egitetik atera gabe bizi nai duela:

Hartarakotz badaritzut sekulako agintza,
 Zuri eta ez berzeri gordetzeko bihotza.
 Zure ganik partituren ez naizela ephetan,
 lurrean bizi nadila utziko nauzunetan:
 Zuk onhetsiren duzuna dudala onhetsiren,
 Bai gaitzetsiren duzuna halaber gaitzetsiren.
 Zuk manatzen tutzun hitzak nahi ditut obratu,
 eta zure nahiari neurea azpiratu.

Kristau-otoitzak zer-nolakoa izan behar duen, orra, Etxeberriren hitz gutxi baturekin esanik. Eta otoitz onen indarra Kristoganik datorkigu, Kristo ararteko degulako.

Jongoikoa, deus eztela Elizak du sinhesten,
 Semearen ordaiñetan non eztuzun ematen.
 Ararteko lehena duk Jesus Salbatzailea,
 hari lehenik egiok beraz heure galdea.

Eta orra nola datorkigun Eliz-otoitza ere azaltzera, Eliz-otoitza, bai Mezakoa, bai sakramentuetakoa, eta bai eliz-orduetakoa.

Othoitzaren egiteko eliz-amak denbora,
 ordenatu du, Jainkoa noiz dezagun adora...
 Matutina, prima, tertia, sexta eta bespera,
 konpletekin hersten dira zazpi orenen nonbrera...
 Dabitek zuen Jainkoa hanbatetan laudatzen,
 egun oro, eta Elizak lege hura guardatzen...
 Oren hetan biltzen dire Aphezak kantoreria,
 zu ere berez zaitezke norabait apartera.

Etxeberrik nai luke gure erriak ere nolabait Elizaren otoitz-orduetan parte artzea:

Mundu bazter urrunetan Jauna dute laudatzen,
 zu ere usa zaitezke koplaxo bat erraten.

Eta ordu bakoitzerako kopia egokiak asmatu ditu. Ez bakarrik liburu onetan, *Manual Devotionezco* onetan. Beste bi liburutan ere bai (1630?, 1645...).

Noelak eta bertze kanta espiritual berriak irakurtzeko aukera badegu gaur. Orain-tsu egin da argitaraldi berri bat. Ura irakurri duenak badaki nola dion Etxeberrik liturji-urteari jarraitzen, nola urteko aldi bakoitzeko kantak antolatu dituen, ez aldi bakoitzerako bakarrik, bai otoitz-ordu bakoitzerako ere. Berdin egin du beste irugarren liburu batean, alegia, *Elizaraerabiltzeko Liburuadalakoan* (1636, 1665, 1666). Ordu guztietako, premia guztietako otoitzak asmatu zituenak eliz-orduetakoak ez zituen aaztu. Gure erriari eliz-otoitzerako bidea iriki nai zion. Gure garai oni aurrea artu ziola esan bearrean gaude. Azkenengo liburu orretan, Elizara erabiltzekoan, Ama

Birjiñaren Eliz-otoitzean eta Illenean euskeraz parte artzeko aukera eman zion euskaldunari, eta dena bertsotan: Breviarioko salmo, ereserki, responsorio eta geiena bertsotan emanaz. Bertsotan ditu Gure Aita, Kredoa, Te Deum, Salbe eta abar.

Ola gure Etxeberrik, eta olatsu Aita Harizmendik eta Argañaratsék ere. Harizmendik *Ama Birjinaren hirur officioac* (1660) atera zituen eta besteak *Devoten Breviarioa* (1665). Otoitzak eta irakurgaiak izan ezik, gaiñerako guztia bertsotan jarri dute. *Devoten Breviario* orrek ez dakit beste inon eredurik izan duen ala ez. Harizmendirenak bai: latínezko *Officium Parvum* delakoa euskeraz daukagu or osorik. Euskaldunen artean eliz-otoitzaren oitura zabaltzeko alegiñak eta saiorik jakiñena ez ote degu berau? Jakina da, Breviario osoaren orde, otoitz-zaleen artean zabaldua zegoela Andre Mariaren *Ofizio txikia* esateko oitura. Ori euskeratu nai izan zuen noski, Kristobal Harizmendi, Sarako erretore jaunak, euskaldunen onerako. Eta bai ederki egin ere. Aren euskal-salmoei nolako goxotasuna darien! Eta berdin aren latínezko imnoen itzulpenari. Itzulpenak dira, baiña bertso itzultzea ez da itzulpen soilla, utsa, esangaia berriz sortzea bezela baizik. Erakusgarritzat emen irakurri nai det 62-garren salmoa:

Goiz goizetik, o Jainkoa,
ni banaiz iratzarri
eta zureganat ditut
gogoetak ezarri.

Ene arimak Zu zaitu
handiro desiratzen;
areago zait gorputzor
desirkundez hiratzen.

Leku hau da deserty bat,
idorra eta gogorra;
gain hori da leku saindu
eta Zu bai gothorra.

Zure ontasuna bezain
ezta bizi hain onik;
beraz ez dut ixilduko
aitorrharen ezpaiñik.

Nik bizi naizeino zaitut
Zu bethi laudatuko:
eta zure izenean
eskuak altxatuko.

Ase bekit arimori
muin-urinez bezala,
neure mihiz kantatzeko
laudorio leiala.

Ohean ere ni banaiz
maiz zutzaz orhoituko,
zeren Zu iabe zaitudan,
badut maiz beillatuko.

Boztuko naiz ni Zurekin,
Zu harturik geriza:
ene arimak Zu zaitu
bere saihets borthitza.

Ni hil naiz dabiltzanok
hilen dira gathazka
eta dira geldituko
azearien bazka.

Bai errege boztuko da
Jauna baithan handiro:
Hura baithan gezurtiak
ezin iragan diro.

Ezta ain erreza bertsotan (ez itz lautan) jartzeko, esaterako, iru gazteen kantua, puntuz aberats atera nai bada, beintzat, esaerak beti amaiera eta asiera berdintsua daukalako.

Sarako erretor onen itzulpenak oker guztiok gainditzen ditu:

Jainkoaren obra, zuek
benedika Jainkoa,
guztiok ezaguturik
guztion gainekoa.

Jainkoaren aingeruak,
benedika halaber:
zuek, zeruak, ez ixil
bai Hura lauda laster.

Benedika ezazue,
zeru gaineko urak;
bertuteak, benedika
ez gal hartako gurak.

O iguzki-ilhargiak,
benedika ozenki,
zuek, zeruko izarrok,
benedika iuiuski.

Bai, uriok ihintzokin,
hari benedikatzen:
Jaunaren espirituok,
zagokote laudatzen.

Zuek, sua eta karra,
benedika Jainkoa;
zuek, hotza eta uda,
lauda fin gabekoa.

Benedika ezazue,
o ihintz eta bruma:
benedika ezazue,
o izotz eta orma!

Zuek, o hotz eta elur,
gau-egunok orobat:
lauda ezazue Jauna,
bozik ahal bezanbat.

Argi eta ilhunbeak,
emozue aithorra;
tximistak eta hodoiak,
lauda hoin Jaun gothorra.

Ea, lurra, benedika,
benedika Jainkoa;
benedika eta lauda,
nola Jaun Gainekoa.

Aldapak eta mendiak,
hari benedikatzen:
zuek ere, zuhamuiok,
Haren errepikatzen.

Ithurriak hibaiekin
har haren gurguriaz:
itsasoa, mintza zite
dakizun aheriaz.

Baleak zeuen aldian
ureko arrainekin,
benedika ezazue
aireko xoriekin.

Ihizi eta bai abre,
nixon diren guztiak:
gutziz bai gizakumeok,
egin solas eztiak.

Benedika beza finki
oraino Israelek:
bethi finik gabe lauda,
haren aho mazelek.

Ea, zuek, o aphezak,
iaiki laudoriora:
iaiki, haren sehi oro,
fite debozinora.

Zuek, espiritu iustu
eta bihotz humilak,
laudorioz errepika
Jaun onaren eskilak.

Ananiaz, Azariaz,
orobat zu, Misael:
Jainko hunen laudatzeko
etzaratela mothel.

Dugun lauda finik gabe
Aita eta Semea:
Espiritu Sainduari
bien aithor emea.

Zeruan, Jauna, baduzu
laudorio fermua;
eneori hain fin gabez
badut segur damua.

Idazle eta bertso-egille hain trebe oiekin sartu zan Euskalerriko elizetan kantuzko otoitza ere. Etxeberri, Harizmendi, eta Gasteluzarrek bultzada ederra eman zioten euskal-elizetako kantuari eta urrenko gizaldian asi ziran agertzen euskerazko ainbat kantu-liburu (*othoitze* eta kantikak edo *kantikak*) bein Lapurdiko euskeraz, bein Zuberokoz. Batzuk latiñetik euskeraratuak, beste batzuk, berriz, asmatuak. Bertsolari ez-ezagunik ere bada, beste ezagunen artean.

Joan dan mendean, XLX-garrenekoan, beste piztualdi baten asiera izango zuen euskal-eliz-kantuak, Adema, Elizanburu eta beste kantu-asmatzailleekin.

Esandakoarekin ez degu dena esan XVII-garren mendean sortu zan eliz-otoitzaren piztualdiaz. Vatikanoko bigarrena ezkerro, mundu guztira zabaldu da mezatako erri-otoitza, Ebangelioaren ondoren egitekoa. Oitura au aspaldikoa da Baiona aldeko Euskalerrian. Bai; Baionako Gotzaiak eta Oloroekoak aginduta, erri-otoitzak bein eta berriz argitaratu ziran iru euskalkitan, Lapurdikoan, Naparra Beherekoan eta Zuberokoan. Baziran bi mota: bata luzeago eta jai andienetako, eta laburragoa jai txikiagoetarako, bestea. Frantziatik artua da, noski, oitura ori, an aspaldiko gizaldietan asita iraun baizuen. Pozgarri egiten zaigu, esaterako, Maitie Oloroeko apezpiku euskaldunak, bere agintepeko Zuberorearen alde otoitz berezi bat agintzea: *pro patria Solensi, Zuberoko erriaren alde*. Izen berezia zuten: Baionan *Pregarioak*, Baxe-Nabarran *Pregariak* eta Zuberon, iñoiz beintzat, frantzes-latiñen antzera, *pronuak*.¹ Merezki lukete oraingo liturjisten artean ezagutuak izatea.

XVIII-garren mendea: Otoitz-gaien mendea

Zer gertatu ote zan mende ontan aurrekoan asitako oldarrak aurrera ez egiteko? XVII-garren mendean asita, Lapurdi aldean ere, latinak indar artu zuela dirudi. Latina ikusten degu erriarentzat atera ziran liburu batzuetan ere nagusi (ala Eukologia ttipia deritzan liburuan), bai mezako parteetan, bai bezperakoetan ere. Zerbait gelditu zan ala ere eta indartsu jarraitu zuen: kantika-liburuak. Europako aizeak zebiltzan, noski, mugaz andiko euskaldunen artean. Erri-kantazko liburu ederrak atera zituzten Frantzia, Ingalaterran eta Alemanian aspalditik. Aien bidetik jo zuten bestaldeko Euskalerrian ere.

Mende onetan beste otoitz batek artu zuen indarra, mugaz emendiko euskal-idazleetatik asita. Esatea lotsagarri bazaigu ere, emen atzerakoi ibilli giñan. Aita

Larramendiri, eta batez ere Mendiburu eta Kardaberaz aita agurgarriari zor zaio aldaketa. Auen eragiñez, otoiz-libururik asko agertu zan gure artean. Eta gero beste aldekoek bide berdiña artu zuten. Otoitz-gaien garaia da. Ala jarri zien izena Mendiburuk bereei: beste batzuk, meditazioneak, gogoetak, gogarteak esango diete. Ez dute astirik galduko otoitza zer dan irakasten. Otoitz egiñak ere sortuko dira, aozko otoitzak; baiña, batik bat, gogozko otoitza egiten irakatsiko dute. Gogozko otoitza: Mendiburuk erabilitako itza au ere.

Mendiburu eta Kardaheraz

Geure geureak ditugu. Erderatik itzulita ere zerbait eman ziguten. Baiña geiena berena dute. Iñori ezer zor izatekotan, etxeko bati, Loiolako otoitz-irakasle santuari zor diote, nere ustez. Batez ere, Kardaberaz Aitak. Orregatik, Euskalerrian maisutzat artuak izateko eskubiderik onenaren jabe ditugu.

Aurrekoan baiño alor ezagunagoan sartzen gera zorionez, eta luze jardun bearrik ez degu izango.

Mendiburu Aita nork ez du ezagutzen? Aren euskera garbi gozoaren berri nork ez du entzun? Teologoa zan, Teologi-irakasle Euskalerrian bertan, Iruñan izana. Baiña aren teologi-irakatsiak or gelditu dira paper zaarren artean. Teologi-irakaslearen aulkitik erri xeearen artera jeisten jakin zuen, Teologian eta otoitzean ikasitakoa euskaldunei ematen. Irakaspen aukerak baiño zori ohea izan dute: liburutan sartuta zabaldu dira. Eta zer eman zigun? Lan ederra, *Otoitz-gaiak* (Jesusen amore-nekei dagozten zenbait otoitz-gai), egillea bizi zala, bi argitaraldi izan zituen lana: bata 11 tomotan, eta irutan bestea. Jesusen Biotzaren Kofradietan sartuta zeudenak gogoan zituela egin zuen lana da, aien billera eta elizkizunetako egiña, aiek Jesusek gugatik egin zuena liburutik aditu eta irakurriz, otoitz egin zezaten. Zerk eragin dio Mendibururi lan au? Entzun dezaigogun berari: «Aditu eta ekusi dudanak eman dit eskualdun guzien berria; eta ez dut uste guzien artean arkitzen dan amarretatik bat, gogozko eta biotzeko otoitzera oitua dagoenik». Orregatik saiatu da bera gaiak «oi den baiño geixeago xeezten eta agertzen».

Otoitz egitera oitua dagoenak badaki laguntasun gutxiagorekin ere zer egin: Jaunaren maitasuna eta nekeak ekusi eta ausnartu; ori egiñez «beratzen zaio biotza; damutzen zaio gaizki egiñaz; eskatzen dio Jesusi egiñaren barkamendua; ematen dio gaizkirik berriz ez egiteko ta gaitz-bidetik kentzeko itz osoa; eskatzen dio bere artarako bear den laguntza ta grazia; ematen diozka, bere neke tormentuekin egin dion onagatik, al dituen esker guziak, eta erraten dio egiñen duela ordaiñez al duen guzia».

Baiña artara oitua ez danari erraztasun guztiak eskuetan jarri bear zaizkio: «ogi edo gai bera edo beste edozein ongi- ongi erakutsi beariko diozu; eta erakutsi beariko diozu nola ebaki ere, eta nola jan; edo eman beariko diozkatu moldatuak edo egiñak bekatuen damua, barkamenduaren eta laguntzaren eskaera, eskerren emanera, gaizkirik ez egiteko ta gauz onetan zuzen ibiltzeko asmoa, ta gaiñerako gauzak».

Orregatik nai izan du Aita Mendiburuk ain zeatza izan otoitzaldi bakoitzerako gaia azaltzen. Orregatik jotzen du bein ta berriz ingude berean; «Orretarako dira otoitz bakoitzaren ondoren arkitzan diran Eskriturako itzkuntzak edo sententziak, eta oeiei

ditxekon itzak»: ingudean bein ta berriz joaz, leen esana berritu eta gogorrago sartzeko.

Gai bakoitza bi edo iru puntutan banatzen du, eta azkenean, Jainkoaren itzen bat edo beste oiñarri duela, gaiak eskatzen duen eran eta bidetik oititz eragiten dio irakurleari.

Kardaberaz

Laster agertzeko dira Kardaberaz aita agurgarriaren euskerazko lan guztiak (1). Erderazkoak ere bide berdiña daramatelakoan nago. Orduan edozeiñek errez izango du Aita au barnetik ezagutzeko eta berak euskal-literaturan duen lekua obeki neurtzeko..

Oititz-maisu bezela, San Ignazioren Ejerzizioak utzi dizkigu, «beren kontsiderazio eta afektoakin». Gure Patroi aundiak, gogo-iñarkunen asmatzailleak, erderaz idatzi zuen bere lana. Gure mende onetararte ez dira euskerara itzuliak izan. Orain baditugu iru euskal-itzulketa: Aita Olabide zanarena, Aita Atutxarena eta Egia, ainbat aldiz sariztutako apaiz idazlearena. Kardaberazek ez du itzulketarik egin. Ez dezagun aaztu au, Duvoisinek zionez, norbaitek uste dezakean bezela: «Askok uste dute bidegabezki, ola zion Duvoisinek Gipuzkeratik Lapurdierari itzuli zuen Kardaberazen tomo baten sarreran, askok uste dute bidegabezki liburu hura jaun done Inazio Loiolakoaren obretarik ilkhia zela eta euskaldunentzat moldatua. Baina, ez; baldin jaundone Inaziok erakutsi izan badu ere saila, ezta gutiago egia orhea eta orhapena, guziak Aita Kardaberaz-i zor diotzagula... Hura zen misionario argitsu, hizdun eder bat, jainkozko gizon, asko nekhe erabili zuen bat... Egin zituen bertze liburu oren artean bat du ederrenik eta hemen deramagu Laphurdiko eskararat itzulirik».

Aita Kardaberazen liburu au ez da, beraz, Iñazio doneak egindakoaren itzulpena, aren liburuko gairik geienen azalpen luzea baizik. Lau zitatan eman zuen egilleak; baiña irugarren zatia, ondo iltzen ikasteko eta laguntzeko liburua bera da; laugarrena, berriz, lau asteetako meditazioak, laburrean. Leenengo eta bigarren partea dira mamiz beteenak. Iñazioren ejerzizioetako gairik aundienak an daude luze azaldurik. Loiolako Ejerzizio-etxea sortu zuenari bazegokion olako lan bat Euskalerruari uztea. Bere mihiolari-bizitzari, erriz erri egin zuen lanari orrela ipintzen zion gaillurra. Non-nai izan zituen entzuleei borondaterik borondatetsuenaz eskaintzen zien: «Irakurle euskaldunari, Jesukristoren pakea. Zeruko liburu miragari, mundu guztiaren onerako, Euskaldun bati zeruak emana, ta gure euskerak noizbait ikusi bear duena, Jainkoaren graziaz zure eskuetan artzen dezu. Au da zeruko bidea, Aita San Ignaziok ikasi ta munduari erakusteko eskribitu zuena».

Ez da, ain zuzen, ura bera, baiña andik ateratakoa. «Egia da —dio egilleak— eskola duten euskaldun askok ejerzizioak gaztelaniaz egiten dituztela; baiña ezin ukatuko da, askok orien artean geiena ondo aditzen, barrentzen edo bear bezela penetratzen ez dutela»... «Nik nai nukeana da, eskola usia duten ta erdera ondo ez dakiten euskaldun garbiak beren animen probetxuren bat ateratzea; eta orretarako

(1) Gaur argitaratuak daude Kardaberazen euskerazko lan guztiak.

ejerzizio oriek emengo gure euskera usatuenean ezarri, ta ez itzez itz erderazkoai lotua; ezpada, zerbaitetan, A. San Ignazioren espiritu, fin edo deseoai albaite ja-rraituaz». Asmo oiekin eltzen dio Aita Kardaberazek bere lanari. Amaika argitaraldi izan ditu otoitz-maisu onek ain gogo beroz egin lan onek. Bigarren zatiak, esan degunez, Lapurdiko euskerara itzulia izatea merezi izan zuen. Eta ez zion gaizki Duvoisinek «Liburu Ederra» izentzat jarri. Beste liburik utzi ezpaligu ere, Aita agur-garri onek merezi zuen goi-maillako leku bat gure otoitz-irakasle eta idazleen artean.

Mugaz emendik, Mendiburu eta Kardaberazzen liburuak zabaltzen ziran bitartean, Lapurdi-aldean ez zeuden lo; ango lumadunek ez zeuden geldi. Laster sartuko dira bide onetan. Baratziart eta Duhalden izenak ezin utziko ditugu aipatu gabe. Meditazioe tipiak esaten zaio Baratziart-en liburuari. Bere benetako izena beste bat du: *Giristinoki bizitzeko eta hiltzeko moldea*. Liburua ez da andia, bai mamiz balio anditakoa. Arrera ona izan zuen: egin diran amabost argitaraldi, lekuko. Jainkoa, gizonaren anditasuna, pekatua, pekatariaren eriotza, azken-epaia, betiko zoriona eta zorigaitza, pekatuaren damua, animaren egitekoak geroko uzteak ekartzen dituen kalteak, otoitza, lana, Jainkoagana maitasuna, lagun urkoaganakoa eta etsaienganakoa, Meza, eta abar, euskera gozo apaiñean xeatzen eta azaltzen ditu (1784, 1787... 1864).

Duhalderen meditatoneak 25 urte geroago agertu ziran (1809): «*Meditazioneak gaipremiatsuenen gainean*». Baiona diozesako Eliza-gizon bat zan egille, ordurako illa. Martin Duhalde omen da eta il ondoren agertutako lana du. Ez ditu meditazioe guztiak bere-bereak. Besteren batengandik artuak baditu. Berak esaten du nondik edo norenganik: Bohours Jesuitaren liburu batetik (*Journée chrétienne*). Ala ere, berak dio: «han hemenka zenbait gانبiamendu egiok phixka egin dut». Gero beste zortziren bat gei berak moldatu eta biribilduak dira, luzeenak ain zuzen. Ori leenengo partean. Bigarren partea dana da Duhalde berarena. Libururik geiena, beraz, berea du, eliza gizon euskaldun onek egiña da.

Ez da dena erderatik itzulia beste otoitz-gai-liburu bat, aurrekoaren izen berdint-sukoa: *Meditazioneak urtheko ebanjelioen gainean (1840)*.

Ageri danez, lituji-urtearekin zer ikusia badu, aren ebanjelioei jarraitzen diela. Ez bakarrik igandeetako, aste-egunetako ere bai. Ama Birjiñaren eta santu askoren jaiakere artzen ditu. Haranboure, Larresoroko nagusiak, argitaratzeko on-iritzia ematerakoan, frantzesetik itzulia dala dio, baña bear bada, ez da osoa erderatik itzulia. Euskeratzaillak berak ere sartu ditu, beintzat, Euskalerriko santu batzuen egunetako gai berriren batzuk.

Auek baifio beeragoko mailla batean, Mendiburuk eta Kardaberaz-ek aurkitzen dute jarraitzaillerik mugaz emendiko idazleen artean, otoitz-gaiezko liburuak idazten. Bizkaian Añibarro frantziskotarra eta Mogel bigarrena ditugu errian beren liburu batzuekin otoitz-giroa egiten laguntzen dutenak. Bataren *Esku-liburua eta Lora-sorta espiritualala* (au itzulpena izan arren, euskaldun batena da) eta bestearen *Baserritarren eskolia* eta *Eguneroko lan on eta errekuak* artarako zerbait laguntzekoak, badakite Jainkoaren argitan otoitza eta lana alkartzen jakiteko argibiderik eta irakaspenik ema-

ten. Aita Jose Kruz Etxeberriak berdin egin zuen, batez ere, *Ongi bizitzeko eta iltzeko laguntza* liburuarekin. Egokiak izan ziran, noski, euskaldun askorentzat, kristaugoia argitu eta kristau-bizitza zuzpertzeko. Afiabarrok utzi zuen eta argitaratua dago Jaunaren otoitzaren, Aita Gurearen azalpen bat ere.

Sail berean, otoitz-gaiezko liburuen artean, sartu ditzazkegu eta otoitzerako eskola bezela artu, beste liburu asko: Jesusen Biotzaren, Andre Mariaren, Jose donearen, San Frantziskoren, Animen illerako egindako ainbat liburu. Onelako liburuak asko ugaltu ziran joan dan mendean eta arrezkero. Izen batzuk aipa ditzagun: Juan Antonio Mogel, Aita Uriarte, Jauretche, Andre Mariaren eta Jose donearen illabete bien egillea, Intxauspe kalonjea, Aita Arbelbide, Heguy biak, Azkue aundia, Jesusen Biotzaren illaren egillea, Diharassarri, Hagou, Eguzkitza, Lafitte, Oar-arteta, Albi-zuri...

Gure sermolariek ez dute otoitza edo otoitzbidea ixilik uzten. Ez dira artan sakon sartuko, ez xeetasun aunditan galtzen. Baiña argibiderik bearrezkoenak dizkiote euskaldun entzuleei: otoitz egitea ez dala zailla, errez eta edonoiz egin daitekela, eta egin bear dala. Entzun dezaiozun, esaterako, Aita Bartolo Markiñarrari: «Esango dozu askok: ez daukazula astirik orazinoe egiteko. Bada esaten deusut nik: Gogua badaukazu, astija artuko dozula. Gogua eduki daben guzajak astija artu dabee, orazinoe egiteko, euren eginbearrai ondo kobru emonagaz. Esaten deusut nik: Zaarrak eta gaztiak, aberatsak eta pobriak, ezkondubak eta ezkontzagak, osasunekoak eta gaisoak, guztijak orazinoe egin legijela, nai izan ezker, euren zereginetan lasto baten balijua atzeratu bagarik. Bat edo bat balego munduban guztijen artian orazinoe egiteko astirik eukiko ezin dabena, ez euskun Jaungoikuak guztijoi, bat itxi bagarik, aginduko orazinoe egiteko. Guztijoi Jaungoikuak agindu euskuna da. Guztijok egin ginaijana da. Ta guztijok egin biar doguna da, gururijak goituko baditugu eta salbauko bagara» (Bart. Ikasik. II, 280-81).

Jaunaren eguna, igandea, kristauari dagokionez igaroteko, gauza asko egin ditzake kristauak, esango digu sermolari onek beronek: «Jaungoikuaren dotrina ikastia edo erakustia, gaisuak bisitetia, tristiak konsoletia, aldagijan limosna egitea»; baiña ez gutxiago, «orazinoe egitia, edo erlijioneko egija altubak, erijotzia, juizijua, im-pernuba ta zeruko gloriya astiro ta gogoz penseetia, Jesukristo geure Jaunaren bizit-zako, peneetako, erijotzako ta biztuerako pausubak biotz bigunagaz gogoratutia, Jesus Maitia ta Jaungoiko andia adoretia ta maitetutia, pede santubagaiti ta purgatorijoko arima pielak gaiti Jaungoikuari erregututia; enpin, astebarruban bere zer eginetan egin dituban palten parkaziñoia ta aurrera ez egiteko biar daben grazia Jaungoikuari eskatutia» (I, 183).

Gauza erezak, xeeak dira sermolariaik irakasten dituen auek; baiña ez ote gaude or Aita Iñazio donearen iru otoizkeren laburpen bezela entzuten? Edo ez ote degu Etxepare zaarraren bertso aien oiartzun bat edo:

Kristau onak bear leuke jaian jaian pensatu
aste artan zenbat bider egin daben pekatu?...

Bat bedera mela bedi duen offizioaz
eta giristino dena, prestu izatekoaz.

Kristauaren bizi-arnasa, Jainkoarekin eta gizonekin nolako artumanak dituen edo izan bear dituen otoitzak argitzen du. Otoitzak erakusten du gizon oso eta kristau prestu izaten. Gizon prestu eta gizon oso izatea ez da txantxetako gauza gero: euskaldun kristiña onarentzat ortik goragoko maillarik nekez aurkituko degu.

Liturgi-otoitza non degu garai onetan? Asieran esan dedan bezela, atera ziran eliz-libururik geientsuetan. Gure erriak Meza maite zuen guztien gaiñetik, mezan parte artu nai zuen, meza ongi entzuten jakin. Ortik kanpora, erri askotan iraun zuen bizirik Bezperak kantatzeko oiturak; baiña latiñez zan kantua.

Azken urteotan, otoitzak izan ditu bi berrialdi gure errian: bata gogozko otoi-tzarena izan da; bestea, liturji-otoitzarena.

Iru jesuita aipatu bearko ditugu leenen gogozko otoitzaren zabaltzaille bezela: Aita Kandido Basabe, Aita Jorje Agirre, eta Aita Manzisidor. Aita Basabe da *S. Ignazioren ejerzizuetako gogarteak* idatzi zituena eta bi aldiz argitaratu: 1912, 1926... Geroago ere argitaratu dira, berrizturik. Aita Jorjek lan berari ekin giputzentzat, Basabek bizkaitai Tenzat bezela. Bereak ditu *Iñazio deunaren gogo-jardunetako* (ejerzizioetako) gogorakizunak. Gerrate ondoren azaldu zan Aita Manzisidor bere *Otoitz-bidea* liburuarekin.

Jesusen Lagundiko idazleok eztaude bakarrik. Euskeraz Jesusen bizitzarik eder-luzeena egin zuen Martin Oiarzabal apaizak, 1922-n argitaratu zuen, *Zerurako bidea*, gogozko otoitza nola egin erakusteko, eta artarako gairik nagusienak emanez, liburu txikia, baiña mamiz ez urria. Iñazio donearen otoitz-bidea erakusteko Aita Roothanek egindako liburua ere urrengo urtean (1923) izan genduen, Larrea-tar Nikasik euskeratua.

Pasiotarrak ere ez zuten landu gabe utzi beren-berena duten alorra: Kristoren Pasioa. Bi liburu atera dituzte gai orri buruzko otoitz-gaiekin, bizkaieraz biak: Aita Kelmen pasionistek tajutua, 1905-n; eta, *Gurutzearen oiñetan*, Deustuko Pasionistak moldatua, oraintsuago.

Baiña, eliz-otoitza, liturji-otoitza, nola genuen? Emen ere aurreraldi batzuen egunsentia nabaitzen zala dirudi. Zerbait zan *Argi Doneak* egin zuena, *Argia* astekariaren eragitez, Aita Balzolak egiña. Mezan ongi parte artzea nai duen erriak or zuen liburu egokia ordurako; liburu ori eskuetan, meza osoari jarrai zezaiokean, apaizak ixilean esaten zituen otoitzei ere. Igandetako ebanjelioak irakurri eta auznartzeko aukera ere badu. Illabeterako otoitz-gai aukerakoak ere eskaintzen zaizkio. Mugaz andiko gure anaiek aurreragoko pausua emango dute. Ebanjelioak bakarrik ez, epistolak ere sartuko dituzte ango eliz-liburuetan.

Bezperak kantatzeko oitura zan errietan, oraindio latiñez zebiltzan. Emen ere, *Zeruko Argiako* kaputxinoak bide berriak urratzen asiko dira. Gauzak gaizkitu ezpalira, anai arteko gerrateak atzeraldia sortu ezpalu, asia zan abiadura eten ezpalu, egun obeak ikusiko zituen, noski, gure erriaren otoitz-giroak eta eliz-otoitzak, orduko aldizkarietako esker. *Jesusen biotzaren Deya*, *Zeruko Argia*, *Jaungoiko-Zale*, *Eskualduna*, *Ekin*, *Karmengo Argia* eta abar bide urratzen ari ziran, aldi berrien egunsentia ots egiten. Oraindik bizi da berrialdi uraren eragille izan zanik: Aita Damaso Intza, Aita Polikarpo Iraizoz. Auek asi zuten, uste det nik, erri-liturjirako bidea *Zeruko*

Argia-ren orrietatik, eta ateratzen zituzten libum egokiekin, euskerazko bezperak eta abarrekin. Aita Inzak atera zuen *Gure Aitare*n azalpen berri bat ere. Eta Aita Iraizoz-ek, asitako lanari jarraituz, otoitzaren gaia oiñaiTÍ berri sakonagoetan, Ebanjelio-kutsu obeagoetan jarririk, liburu bat emango zigan, txikia baiña muin ederrekoa: *Animaren zuzenbidea*.

Eliz-kantak, eliz-abesti beniak ere ugariago ageriko dira. Eta giro ortan zebillan beste idazle batek, orduan asmatu eta geroago argitaratuko zigan otoitzari bumz, gai au besterik ezuela, euskeraz egin dan libumrik aundiena: *Otoia*. Ibargutxitan J. Gumtz zan egille. Aozko-otoitza, gogozko otoitza, eliz-otoitza, ez da an sartzen ez den otoitzik. Zerbait bazan danau. Zerbait berriaren asiera.

Beldur naiz, onera iritxitakoan, gure egunetara urbillegi, gertuegi etorri ez ote naizen. Baliteke. Baiña, uste det, zerbait esan bear nuela, gure otoitz-zaleen eta eliz-idazleen artean giro berria sortzen ari zala jakifien gaiñean egon gaitzen.

Orra aundi-aundika gure otoitz-literaturen gorabeerak. Gorabeerak esan det. Eta ala da. An, XVII-garren mendean gorakada ederra egin zuen; liturji-otoitza bera biderik onenean sartzen ari zala zimdien, beintzat, Lapurdi aldeetan: eliz-ordu asko euskeraz, erri-otoitza, eliz-kantak sendo ageri dira Euskalerrri artan. Gero beerakada dator. Urrengo mendean, XVIII-garrenekoan, gogozko otoitza, otoitz-gaiak indartsu asi eta gorakada ederra artzen dute emendiko Euskalerrrian. Gero, etorri ziran gerrateen ermz edo, indarrak moteltzen asi zitzaizkion. Mende ontako piztualdiari berdin samar gertatu zaio: bizi asi eta egalak moztuta, ega-baldar gelditu.

Aste onek, eta Vaticano Bigarrenaren ondoren asi dan giroak, zori ohea izango al dute Euskaldunen eta Euskalerrriko Elizaren onerako.

TERESA DEUNA EUSKAL LITERATURAN*

Avila'ko Teresa andia ez zan bizi izan euskaldunekin asarre. Adiskide eta lagun-tzaile andiak aurkitu zituen euskaldunen artean eta, esker oneko zanez, euskaldunak aren biotzean maitasunezko txokoa izan ebela esan bearrik ez dago.

Euskaldun adiskideon artean guztietarikoak egozan: eleiz-gizon, laiko, praille, moja, ezkondu eta abar. Baziran napar eta giputzak, baziran bizkaiko eta arabakoak. Gotzaiñen artean, or dira Otadui giputza, eta Axpe Sierra, Bizkaikoa. Prailleen artean, aparteko aitamena zor jako Aita Bañez Artazubiaga, teologo andiari. Gaztelan jaioa dan arren, berak euskalduntzat eukan bere burua, Arrasateko jatorrikoa. Ama Teresak izan eban ordurik larrienetakoan, Avilako agintariak eta erri-batzar osoak arek sortutako lenengo moja-etxea itxi-erazo nai eutsenean, Avilara etorri barri zan praille gazte orrek bakarrik atera eban burua batzar guztiaren aurrean Teresaren alde, eta aurka eukazan guztien zaratak ixildu eta bakea ekarri.

Andik amazazpi-amazortzi urtera, euskaldunak ditu inguruan, azkenengo moja-etxeak eregiten dabillanean, eta Euskalerrian sartzeko amesetan ebillen. Soria aldetik eta Burgos aldetik ia Euskalerriko mugetaraiño eldu da: Soriatik Naparroako mugetara, eta Burgos aldetik, Araba-Bizkaikoetaraiño.

Uri biotako Karmeldegiak euskaldunen laguntzari esker egin ditu. Sorian dala, gaiñera, Iruñera igaroteko eskea etorri jako, eta an beretarrentzat moja-etxe bat sortzeko erea eskeintzen deutse. Beste olangoxe eske bat Sorian dala jatorko, Orduñarako. Bizkaiko uri bakar onetako neska gazte batek, alaba bakarra eta umezurtza berau, bere burua, etxalde eta ondasunakaz batera, eskeintzen deutso, an be Karmengo Amaren usategitxo bat egiteko. Eskeintza atsegingarria Teresarentzat! Baina beste arazo batzuen erruz, Orduñara ezin etorria izango dau. Neska gaztea moja sartuko

* Karmel 1981-4, 7-22

da, bai; baiña Orduñako etxaldea artzerik ez dau izango. Beste eske bat, bardin antzekoa, Gazteiztik eldu ei jakon, Burgosko etxea atontzeko zeregiñetan ziarduala. Baiña munduko aldia amaitzeko, Jaunagana joateko ordua eldu jako eta ez dau izango iñon beste Karmeldegirik sortzeko erarik. Busgoskoa izango dau azkena.

Sorian napar andiki batzuk izan ditu laguntzaille, Beamonte eta Ayanztarrak. Burgos'en, berak esan eban lez, «Bizkaiko alaba jainkozale» bat, Katalina Tolosa, Sebastian Muntxaraz izanaren alarguna. Senar-emazte biok Burgosen merkatarri ibilliak ziran. Teresak autor au egin dau Katalina orren alde: «Jainkoaz ostean», andre orri zor eutsala Burgosko etxea aurrera ateratea. Katalina orrek gerotxoago egin eutsan Teresari eskeintzarik atsegingarriena: bere zazpi seme-alabak praille ta mojatako emon eta azkenez, bera zortzigarren, moja sartu. Eta zelan ez aitatu Burgosen erabilli zituen gorabera eta neke guztietan laguntzaille zintzo izan eban praille karmeldarra, Pedro izeneko, orduko paper zarretan «vizcaíno» esaten deusena, Gazteiz ondokoa izatez?

Ez dago ukatzerik, Euskalerrria, bai agotan eta bai ondo biotzean, erabilli ebalá Ama Teresak bere azkenengo egunetan. Eta il zaneko komentuak berak, Albakoak, ez ete eutsan Euskalerrria gogora ekarten? Albako moja-etxe ori, orain Teresaren illobia daukan ori, ango arri baten antxiñatik idatzirik dagoanez, jatorriz euskaldunak ziran senar-emazte bik, Simon Galarza eta Teresa Lariz-ek lagunduta egiña eban. Arri orretan esaten danez, Leintza-Elorriokoak ziran, jatorriz. Avilakoak Avilara eroan nai eben illaren gorpua. Baiña Teresak: «Zer bear dot nik neurerik euki? Ez deustazue emen lur apurtxo bat emongo?». Eta an dago. Abilatarrak egindako alegiñen gorabera, an jarraitzen dau berak maite zituen Leintza-Elorriotar orrein azurren ondoan, Albako karmeldegian.

Ez zan bera gorputzez Euskalerrria etorri, baiña bai biotzez. Ilda gero, barriz, bere seme-alabetan eta bere maitaleetan, sustraiak sakon egin eta zabaldu ditu emen. Munduan ez dago, bearbada, beste lurralderik Teresa Amaren izenean eta eragiñez sortutako karmeldegiz eta etxez beteagorik Euskalerrria baiño. Teresazaletasunez gureak ez deutso ezer zor beste iñongo erriri. Gure erriak abegirik zabalena egin deusala Avilako emakume andi oni argi dago.

Baiña ez dot nik oraingoan ori azaltzen ekiteko lumea artu. Idazlan onetan asmo laburragoa dot. Euskal-literaturak Teresari egin deusaren arrera eta abegia, euskal-literaturan itxi dauan aztarren eta lorratsak aztertu eta erakutsi gura ditut, zer egin dan euskeraz Teresaren barri emoteko, Teresa goratzeko, edo Teresaren esanak eta idatziak euskeraz zabaltzeko.

Egia esan, irakurleak ez dau emen gauza andi andirik aurkituko. Aurretiaz jakin begi orixe. Euskalkunok, Ama Teresaren aldera, euskaldunen antzera jokatu dogu: egitez luze izan gara, bearbada, baiña berbaz, itzez urri. Olakoxe ospea genduen euskaldunok aren egunetan. Ba-ekian berak be ori: euskaldunok berba gitxikoak giñala. Bere adiskide bati, aspaldian ezelango barririk emoten ez eutsala-ta, «oso euskaldun, oso bizkaitar biurtu zara nigaz», idatzi eutson bein. Ez da bera arrituko, eta ez gaitezan gu arritu, baldin gure literatura, berez urria, gai onetan urri agertzen bada. Urritxoa da, izan be, baiña ez gauza utsa. Teresaren lau edo bost bizitza idatzi izan dira

euskeraz. Sermolaririk be izan dogu Ama Teresa euskeraz goratzeko sermoirik idatzi dauanik. Olerkari batzuk bertsoan goratu izan dabe. Eta Teresaren bertso batzuk abegi ona izan dabe idazle batzuetan, eta erri-errirraño sartuta aurkitzen ditugu. Beste iñongo erritan jazo ez dana, bear bada.

Larregi, lapurtarra

Ama Teresaren euskerazko lenengo bizitza Lapurditik dator. Bernard Larregi, Basusarriko jaun erretora da egille. Amazortzigarren gizaldian, 1775tik 1778ra, lan mardula atera eban, zati bitan: *Testamentu zahar eta Berriko Historia*. Royaumont zalako batek frantzesez egiñikotik euskeraratutzat dago. Baiña ori ez da osoan egia. Royaumont orrena aurrean izanik egiña dala esatea obeto legoke. Ez dabil frantzesari loturik, eta frantzesak ez dakarrenik asko dakar: esaterako, kapitulu bakotxean dituen azken-aldeko gogoetak. Frantzesak ez dakar olangorik. Larregik berak ezarri eta geituak dira nonbait. Liburuaren azaleko itz batzuk argi apur bat emoten deuskue. Itzulpena «exenplu eta erreflexione sainduekin» datorrela diño. Gogoeta orreik Larregirenak dira. Eta, batez be, eta au da gure arira datorrena, frantzesak, Royaumont orrenak ez dauka azkenenan santuen bizitzarik, eta Larregiren euskerazkoak bai. Larregik berak idatziak, nonbait.

Emen dator ain zuzen, Ama Teresaren euskerazko bizitza ori. Guztiz 24 santuen bizitza dira, Andra Mariarenaz eta Migel goiangeruarenagaz asita. Santurik barrienak, oraintsuengoenak, Salesko Frantsizko eta Ama Teresa. Ez dau sartu ez Loiolakoarena, ez Xabierkoarena (urte areitan jesuitak kendubari egozalako, antza); Teresarena, bai. Badirudi, gero ikusiko dogunez, Larregik eraspén eta maitasun berezia eutsala Avilako Santa oni.

Bizitza onetan, Teresa moja sartu zan arteko bizia naiko luze emon deusku: santuen bizitzak irakurrita, umetan sortu jakon martiri izan gurea, ipuin-liburu ariñak irakurrita izan eban epelaldia eta abar. Avilako moja-etxe barria sortu ebanetik aurrerakoa, erririk erri komentugiñan ibilli zanekoa, labur amaitzen dau. Illaren gorpua euki gurez, Albakoen eta Avilakoen artean sortu zan eztabaida dala-ta, oker anditxoak dakar. Avilak lortu eban bein gorpua Avilara eroatea, baiña andik laster Albara biurtu bear izan ebelakoa eta an dagoelakoa ez dau jakin. Teresa kristiñau-erri guztiaren arrigarri ei da, eta arrotxo amaitzen dau. «Guk ere badugu haren erlikarik bat Frantzian, Parisko karmeliten elizan».

Joannategi idazlea

Lapurditik ez urtetearren, Joannategi idazle gozo eta ugariak idatzitako bizitza dakargu bigarren. Lenengo abade egon eta gero beneditar sartu zan onek sei liburu atera zituen euskeraz eta naiko lodiak batzuk. Gaiñera, berau asi zan euskera utsezko mixio-aldizkari bat, ille birik beingoa ateraten, 38 urte inguruko bizia izan eban aldizkaria. Urte askotxotan Joannategi onen eskuetan egon zen aldizkari ori idatzi eta aterateko neke guztia.

Eun santuen bizitzak daukazan liburua da lenengo argitaratu ebana. Urtebarru guztiak aukeratu ditu, ille bakoitxetik zazpi-zortzi-amarren bat artuta, Eleizan ospatzen diran ezagunenatarikoak. Urriko santuen artean Ama Teresarenak bere lekua dauko.

Teresaren umetako eta gaztetako barriak andi-andika eralgi ondoren, moja-bizitza barriko etxeak eregiten asi zan ezkerero, Joannategik Teresaren gogo-barrua zorroztu dau begia, Jainkoagaz artu-emonik maitezkoenetara, Jainkoak egiten eutsazan mesederik arrigarrienetara, Ama Teresak esanak askotan itzez itz jasota. Maitasunezko bizitza orrek maitasunezko eriotzean aurkitzen dau azkena. «Jainkoarentzat zuen amodioa ezin jasanez» il ei zan.

Santuon bizitzak idaztean izan dauan asmoa itzaurrean azaldu deutso irakurleari. Arimak salbetako lagungarritzat idatzi ditu. «Hori da nere bihotzak gutiziatzen duen guzia. Bai, izan dadiela bat edo bat, irakurtze saindu huni esker, zeruko bidean sartuko denik». Ez dau beste saririk nai. Berbok Teresari umetan jazo gogoan ebalatziak ez ete dirudie?

Joannategik bein asitako arlo au aurrerago eroan gura izan eban, urte guztiko santuen bizitzak idatziaz, egunerik egunera. Baiña bide erdian gelditu zan; bagile-rañoak bakarrik atera zituen.

Aita Manzisidor, Jesusen Lagundikoa

Joannategi beneditarrak osotu barik itxitako lana Manzisidor jesuiteak amaitzea lortu eban, urte guztiko santuen bizitzak idaztea. Eta iru tomo ederretan atera zituen.

Au be ez da ibilli arimen onerako asmo barik. Joannategik lez itzaurrean autorpen ori egin deusku, bere Aita Loiolako Inaziori jazo gogoratuz: «Ez al zan ba Loiolako Eneko gaztea jaunaganatu deunen bizitzak irakurtzen ari zala? Zergatik ez aren senidei arek irakurtzen zituen antzeko santuen bizitzak ez antolatu euskeraz»? Eta aita jesuita onek orixe egin dau.

Teresaren bizitzan, urrillaren 15n, emakume deun oni umetan jazotakoa ez dau jaso barik itxi: beronen bizitzan liburu onak (eta txarrak) izan eben eragiña agirian jarri deusku. Santuen bizitzak irakurteak biztu eutsen, ume-umetan, moro-errietara joan eta an arein eskuetan odola ixurtzeko gogo bizia, eta liburu onak, Agustin deunarenak eta beste batzuk, geroago, oso-osorik Jainkoarena izateko erabagi osozkoa arrazoko eutsoen. Andik aurrera, berak moja-bizitza estuago eta zindoagoa eroateko bidea artuko dau eta beste batzuei eragingo deutse. Orduan asten da Teresa barria, an-or-emen egingo dituen karmeldegi barrien zortzaillea.

Aita Manzisidor onek ez deutso arrezkeroko joan-etorri guztietan jarraitzen. Naiago izan dau eta onuragarriagozat jo dau Teresak berak eginiko liburuen balioa eta ederra irakurleari gogoratzea. «Emakume onen idaztiak Eliza osoan ezagunak dira. Erderaz idatzi zun, baina ain gozoro, ain ederki; obeto ezin... Bere lagun izan zun Joan Gurutzeko-ren idaztiekin batera, ederragorik ez da. Al badezu, zeorrek irakurri, eta zeorrek ikusiko dezu egia diodala».

Idazle onek atseginez eta neke barik irakurteko liburua egin dau. Esatekoak lau-lau esaten eta jazorikoan kiribil barik eralten maixutzat eta eredutzat dago. Norbaitek, aitua dan batek, Barojaren antzeko idazle egin dau orretan.

Joakin Lizarraga, Elkanokoa (1748-1835)

Elkanoko Lizarraga inoz izan dan Teresazalerik andienetakoa dogu, eta Naparroak emon dauan euskal-idazlerik ugarienetakoa.

Jesuita izateko bidean joian, Karlos III garrenak Jesusen Lagundikoak atzerrietara bialtzea erabagi ebanean. Ezin emen jesuita jarraitu eta abadetako gelditu zan, bizi guztian bere jaioterrian abade izateko.

Erri txiki baketsua Elkano. Iruñetik ur. Osoan euskalduna Lizarragaren egunetan. Geure egunetan be ezagutu izan dogu Elkanotik Iruñera bitarteko erritar bat, euskalduna zana. Joakin Lizarraga erri orretan bere abade-lanari emona dago. Asko ikasia da. Liburuzalea eta arimazalea. Asko irakurten dau eta asko idazten. Sermoi, santuen bizitza, kantu, bertso eta abar. Bere barruko sentierak, Jainkoaganako gogomiñak bertsoz adierazoten oso zalea da. Ez eban, alan be, bere bizian ezer argitaratu. Bera ilda gero argitaratuak ditu: I gandetako platicak (beste norbaiten ikutu eta aldaketa asko dituela), San Joanen Ebanjelioa, Jesus (3.000 milla inguru bertsozko liburua), eta Frantzisko Xabierren bizitza. Apezetxea jauna asi jaku, oraintsu, idatzi zituen idaz-lan guztien barri emoten, eta liburu barri batzuk ateraten.

Lizarragak osperik eta omenik andienetakoa lortu dau euskerarentzat: berak itxitako euskerazko texto asko Naparroak Liturgian sartuak izatea, erdaldunentzat euskeratik erderara itzulita. Ama Teresaren liburuak ondo ezagutzen zituen eta erdal-idazleen artean be ez da asko izango Teresazalatasunean geiago egindo deusnik. Teresaren esanak eta aren bizitzako jazoerak, aren libururik geienetatik artuta, sarri aitatzen ditu. Eta ez da aitamen uts eta otsean gelditzen sarri; gorespenezko itzen bat ezarriko deutso aren izenari.

Santuen bizitza asko itxi zituan idatzita, eta Apezetxeak esan dauanez, luzeenak Xabierrena eta Teresarena ditu. Orraitio, bizitza biotako baten autorpen garbi au egin deusku. Santa au daukala berak bere «Amabitxi, Maestra, Patrona ta Abogada bear bezalakoa», Jesus onaren eta Ama birjiñaren urrengo. Non orri urrik emotekorik?

Euskal-idazleetatik Teresaren barruko bizitzan barruen sartu dana Lizarraga dogu. Aren umezaroa, gaztezaroa, moja sartuta gero oso Jainkoarena izatera biurtu zan arte erabilli zituen kezkek, bere buruagazko burrukak, bizi bizi azaldu ditu. Lizarragaren luman bizi eta naiko zeatz agiri da Teresaren irudia, Jainkoagan murgilduta bizi danarena, Jainkoagaz beti biziteko minez dagoanarena, baiña erabatera Jainkoagaitik eta arimen onerako mundu onetan nekerik andienetan jarraitzeko biotza prest daukanaren irudia. Teresaren arimazaletasuna, bere bidean aurkitzen dituenak, batez bere arimaren zuzendariak, eleizgizonak, gero ta jainkozaleago ikusi gurea, oso begiko egin jako Lizarragarri. Orregatik da ain Teresazale, eta Jesusen eta Mariaren laguntzaz ostean, aren laguntzaz, salbaziñoa lortzeko itxaropena dau. Teresaren eskolan ikasi dau berak be arimazale izaten, eta bere menpean dituen arimak zerurabidean ipinten ain arduratsu.

Bizitza oneitako baten azkenean, Teresaren esaera-sorta bat be emon deusku. Euron artean sartu ditu aren bertso ospetsu batzuk. «Deusek etzaitela turba, deusek etzaitela lotsa»... eta: «Bizi naiz, eta ez ene baitan, eta alako biziain beira nago, ezi ez iltzeaz iltzen nago».

Orrez gaiñera, Pedro Alcantara deunaren bizitza Teresaren itzez josita dauko. Ama Teresak leku berezia eukan Lizarragaren gogo-biotzean.

Sermolariak

Iturzaeta eta Aita Bartolo

Euskalduna ez da izan liburuak irakurteko zaletasun andikoa. Baiña sermolari eta bertsolari onak entzuten zalea bai. Euskerea, irakurteetik barik, entzuteetik sartu jako, begitik barik belarririk.

Sermoiak eta bertsolarien bertsoak luzeroan ez dabe izan liburutan agertzeko zorionik. Joan dan mendean, XIXn, eldu zan batzuentzako eta besteentzako ordua.

Sermoi-libururik geienak kristinatuak jakinbearreko egiak (Jainkoaren Legea, Kredoa, Sakramentuak) argitzeko, edo Domeketako Ebanjelioak azaltzeko izan dira. Orretara jo dabe ainbestek. Astarloa, Bartolo, Gerriko, Asteasuko Agirre, Kortazar, Aranaz Aita eta Iruretagoiena abadeak. Santuen sermoi gitxik ikusi dabe argirik euskeraz: Larramendiren Agustin donearenak, Azkue euskaltzainburu izanaren Jose Donearenak, eta beste banakaren batzuk.

Aitatu diran sermolarietatik bat da bakarrik santuen goramenezko itzaldirik edo Esaldirik daukanik. Eta liburu orretan Ama Teresan goratzekoak bi aurkitzen ditugu. Biak dauke berba bardinakaz egindako zatirik, baiña, bestela, bakotxak bere aria daroa. Batean Teresa, umetarik bere bizia Jainkoari eskeini gurez daukagu; baiña gero, ori egin ezinean, lurra zeru egitera joko dau: bere arimea zeru, otoitz-bizitzaz, eta bazterrak zeru txiki, otoitz-lekuz eta jaunaren etxez betez. Bigarreanean, Teresa Jainkoak gauza andietarako autatuko dau. Orretarako aparteko doiez bete dau: guraso onak, etxeko aziera ona, arima ederra, eta zerutiko grazi eta indarrak ugari. Gero, Teresaren erantzuna dator, diru barik, Jainkoagango itxaropen utsaz bere lana aurrera eroatea. Olantxe Karmeldarren bizia beinolako bikaintasunera biurtzen dau, eta bera jainko-bizitarik zindoarenaren eredu eta irakasle egin da.

Noizik bein Aita Bartolok egindako sermoi baten zatiak itzez itz artu ditu.

Aita Astarloagaz, batera, Aita Bartolo dogu euskal-idazleen artean lenengoz sermoi-liburuak ateraten asi zana. Urte berean, 1816n, agertu ziran biak plazara. Aita Bartolok, urte orretatik 1819ra, iru tomo atera zituen, Ikasikizunak titulutzat ebela: Jaunaren aginduak azaltzeko tomo bi, eta Sakramentuak azaltzeko bat. Geiago atearateko asmotan asi zan, baiña berak artu nai zituen saillak besteren batek (Astarloak) artu zituelako edo, ez eban asmo ori burutu.

Aita Bartolok berak urratutako bidetik jo eban, katekesi-gaiak emotetik. Mar-kiñako Karmen ortotzeko sermolari zala, zeinbat santuen sermoi ez ete zituen egin an-or-emen? Baina katekesi-gaiak baiño ez euskuzan emon, eta berak egin zituen osteango sermoirik ez da agertu.

Zorionez, itxi euskun bat, ederra, katekesi-gaiezko tomo baten geigarritzat sartuta, Ama Teresarena, ain zuzen. Bartolo izenaren geigarri Santa Teresarena artuta eukan berak, eta, antza, ez eban gelditu nai izan bere Ama oni oparitxo au eskeini

barik... Eta ez edozelango oparia, gero, bizi bizi eta bero-bero idatzia, berak beti idatzi oi zituenetakoa.

Gaia: Teresa emakume sendoa, asmo andiduna, egite andiduna, Jainkoaren indar eta laguntzaz. Asmoak andiak ditu, gora-gorazko pensamentuak, egite andi bardin-bagakoak. Arentzat, goituko ez dauan eragozpenik ez dago. Ez gorputzeko gatx eta makaltasunik, ez inguruko esames eta gaizki esakarik, ez batzuen eta besteen zemai eta azpi-jokorik; dana goitutzen dau. Erririk erri jarraitzen deutso sermolariak gero Teresa Amari bere komentugintzan eta eleizagintzan. Emakume mirarizko baten garra darabil. «Ain laster lege barriak egiten, eta ain laster ordenak emoten. Ain laster etxiak erosten, eta ain laster eskaatzeko zeregiñak egiten. Ain laster eleixa barriak eta komentuak orniduten, eta ain laster mojai konzenziako dudak kenduten. Ain laster Erromarako kartak eskribiduten, ta ain laster aloberekuak topetan. Ain laster... Baina noz amaitu? Egunero kobru emoten eutsan gaixuari, oraziñoiari, barauari, zilizioari, erregiai, obispoai, juezai, konfesorai, prailiai, monjai, komentugintzai, eleixagintzai, aloberekuai, zordunai, ta beste duke, markes, konde ta zerbaitetako topau ebeen guztiai». Asmo andiak, egite andiak. «Guztiak Jesusen amodio santuaren izenean».

Or dogu Aita Bartoloren semoigintzaren eredu bat. Eta zerak samintzen gaitu: sermolari onek olango sermoirik geiago ez itxiak.

Lotsaz esango ete dogu? Euskal-literatura zarrean, tamalez auxe da karmeldarrak euren Teresari eskeiñi eutsen opari bakarra. Literatura idatzia bakarra da, bai. Baiña zeinbat olango sermoi ez ete ditu euskaldunak entzun, urterik urtera, Ama Teresaren egunean karmeldarren etxeetan? Zenbait olango sermoik ez ete dabe biztu euskaldunen Teresazaletasuna? Euskalerriko biotzean dagozan Lazkao, Markiña eta Zornotza-Larrean, Ama Teresaren egunak jai izaten ziran, eta inguruetak oerrientzat otoi-leku eta erromerileku. Askori entzun izan deusagu ez dabela ikusi Gaztelako iñongo erritan Ama Teresaren eguna Larrean baiño ospetsuago jai egiten. Zek giroa berotuta? Jai-eguneko sermolariak, aurki, ango euskerazko sermoiak, an urterik urtera entzunak eta ikasiak. Aita Bartolo ez da bakarra izan. Aita Bartolorik asko izan da Euskalerriko karmeldegietan Ama Teresaren egunean. Eta gure erria, irakurteko zaletasun gitxikoa, baiña sermolarien itzari ez entzunik egin ez deusana, ez da Ama Teresaren barririk ikasi barik egon.

Gure olerkariak, Ama Teresaren kantari

Euskal-olerkigintzak, joan dan XIXgarren gizaldian loraldi barria ezagutu ebala esan bearra dago. Olerki-sail barrietan sartzen gara. Epika barria eta lirika barria jaio da, giro berri baten besoetan datorrena, erriaren eta gizon-andra andien kantari. Giro barri onetan gorengo maillak jo zituana; Arrese Beitia, Otxandioko santugiña eta olerkaria.

Santugiña zanez, santuen eta giza-irudien moldatzaille dogu arrizko eta zurezko lanetan. Lumaz eta bertsoz lan bardintsuari ekiten deutso, lumaz eta bertsoz be irudigille. Euskalerriko seme asko artu ditu kantagai: Legazpi, Okendo, Iñazio, Larramendi, Txurruka, Mendiburu, Iparragirre, Astarloa, Nobia Salzedo, Manterola,

Arana Goiriraino... Baiña Euskalerritik kanpoko batzuei ez deute bere kantua ukatu: Tomas Akinokoari, Colon eta Calderoni eta... Ama Teresari.

Ama Teresaren bertso batzuk euskeraz jarri zituen, baiña emakume jainkozko au berau goratzeko be bertsokada bi baditu. Bata amalauduna da, eta besteari, *amodiozko kantua* jarri deusto titulutzat, *Jesusen Teresa santeari egiña*, Teresa beraren egun baten egina, orraitio. Alan diño berak:

Zabaltzen doa zeruan egun pozez betea,
alako santa arrigarria danarena.
Nok leukakean berberak eukan lako lumea,
nok amodio Jesusena!

Emeretzi olangoxe bertsokada ditu, Salomonen Kantuen Kantuko irudiz beteak. Otxandioko ola-gizonen maillu-taunkadak gogoratzen deuskuezan bertsoak dira. Baina ezagun dau Foruen kantari ohea dala arimen barruko jazoera ixillen kantari baiño. Foruen gaia ezagunago eta bereago dau arimen barru-barruko mundua baino. Eta beretzat auxe eskatu dau:

Bai, Karmeloko lirio zuri parebagea,
kantau daizudan zure egun au jagitean;
jarri nagizu beian itxirik zoru tristea,
Sion-go mendi ederrean.

Beste olerkari batzuk

Bat baiño geiago alegindu dira Teresaren bertso eta biozketa ezagunenak euskerazko soñnekoz jazten. Arrese Beitiak, esan dogunez, egin eban emen zeozer, «Dichoso el corazón enamorado» euskeratuz. Euskerara geien itzuliak, alan be, «Nada te turbe», eta «Vivo sin vivir en mí» izan dira. Elkanoko Lizarragak bata eta bestea euskeratu zituen. Bigarrena, Migel Antonio Iñarrak be bai, «Teresaren Biozketak» izenpean.

Orrez gaiñera, aitatu daiguzan beste batzuk Teresaren kantarien artean. Gazteizko Apaiztegian, aspaldi dala, baziran Teresaren izeneko «Academia» bat eta Kardaberaztarren taldea. Giro orretan sortutako bertso batzuk, Teresaren omenez egiñak, bai euskeraz eta bai erderaz, ango «Gymnasium» aldizkariak argitaratu zituen. Euskerazko batek Lekuona zarrarena dirudi, eta, Iñarrarenarekin batera, KARMEL'en orriotan ikusiko ditu irakurleak (1).

Eta, erdal-aldizkari baten purgatoriotik aterata, emen ikusiko da beste olerki bat, AitaMartin Uriarte izan genduanarena. Geroago, 1931n, KARMENGO ARGIAREN zuzendari izango zanak, 1902n, Burgosen Teologi-ikasle zala, ango Karmeldarrak ataraten eben «El Monte Carmelo» aldizkarian argitaratua da, bearbada aldizkari

(1) Ik. *Karmel* 1981-4. 67-73. orr.

orrek bere bizi guztian (oraindik bizi da), atera dauan euskerazko lan bakarra. Orduko ikasle gazteak, ez dakigu zelan, lortu eban bere euskal-lanen asikiñ ori aldizkari atan sartzea.

Teresa deuna euskerazko eleiz-kantutegian sartu da

Gure ustez beste iñon jazo ez dana, Ama Teresa bere barruko biozketarik barrukoenakaz, euskerazko eleiz-kantutegian sartuta daukagu. Ama Teresak bere sentierarik Jainko-egarrizkoenak ixuri ditu euskeraz euskaldunen agotik. Euskaldunak Teresaren biozketa orreik bereak egin ditu. «Vivo sin vivir en mí», Teresaren bertso ezagunak eleizetarako euskal-kantutegian berreundik gora urte daroaz. Gaurko argitaraldi barrietan be an jarraitzen dabe, euren soñu ta guzti, bat beintzat Aita Donostik aurkitua.

Nor izan dabe euskeratzaille? Nor izan da gure kantutegietan lenengoz sartu zituena? Nor da Kantiko Izpiritualak deritxon liburuaren lenengo egillea? Ama Teresaren euskerazko bizitzea lenengoz egin ebana bera, Bernard Larregi, dago bai kantutegi orren eta bai Ama Teresaren bertso orrein egilletzat. Larregi onen *Testamentu Zahar* eta *Berriaren* itzurreetan esaten dan lez, bein be ez dira aztuko orrek «eman dituen kantiko gozo eta xarmagarriak; bihotza badaramate Jainkoaren maitatzerat». Teresazalea badala agertu dau Teresaren bizitzea bere liburuan sartzean, eta garbiago erakusten dau, bertsook euskaldunen agotan jarri nai izan dituenean. Eta, au arrigarria, euskaldunon biotzetan sartu egin dira. Lenengo Lapurdin, eta gero Zuberoan.

Zuberoan itzulpen bitan zabaldu dira, Larregirena bata, bertako euskerazko ikutu batzuekin, eta bestea, itzulpen barria, Zuberoko euskera garbiagokoa, eta Teresaren berbai josiagoa. Azkenengo onen zati batzuk joango dira emen, eta ageri danez, ez dabe erderazko texto bardiña euki aurrean, eta euskeraz Larregirenak eta onek ez dabe bertso neurri bardiñik erabilli:

Arrainak huretik jalki den bezain sarri,
urhentzentu penak, halaber bizia:
balius zaio hiltzia;
bena penareki bizi den kristiari
bethi zaio kharats bizia gertatzen.
Sos nagoela zeliari,
ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.

Zu nahi zuntuket ikusi zelietan;
finizazu, othoi, ene agonia;
noiz duket hiltzia?
Debeiatzen nuzu katiña zar hoietan,
sobera nizie pena eraziten,
heriua dizut goguan,
ezin akabatzez dolorez niz hiltzen.

Arritzekoa da, benetan, bertso oneik gure errian izan daberen oiartzuna eta abegia. Gure ustez, ez da beste inon antzekorik jazo. Zer esan ete eutsen eurak gure eleizetako erri kantariari?

Bertsook eta Azkue

Azkue andiari bertsook berarizko kilikilia edo egin eutsen bein, eta bertan asi ei zan eurak musikaz, soiñuz jazten. Begoñako karmeldarren etxean ei egoan egun batzutatako etorrira, eta gau batez, zeozergaitik lo arinduta, oetik jagi eta maian eukan Ama Teresaren liburu bat zabaldu dau eta bertso orreik jarri jakoz begien aurrean. Beingoan eurai musikea ipiñi bear eutsela emon eutsan gogoak, eta asi ta amaitu, bai jarri be. Musika egokia, ederra, sarkorra, biotz-ikara gozoa eragitekoea. Egilleak karmeldarrai itxi eutsen egun areitako gomutagarritzat. Euskalerriko karmeldarren musika-artxibo guztietara zabaldu zan. Eta andik aterata, Azkue bizi zala eta beronen baimenaz, Aita Jose Domingo musikalaria, argitara emon eban. Bigarren argitaraldi bat «La Gran Enciclopedia Vasca» dalakoan izan dau.

Azkuek erderazko bertsoai ipiñi eutsen soiñua, baiña Jose Domingok egindako argitaraldirako euskerazkoa be ipiñi jakon, eta bear zanez, erdarazkoaren neurrikoa. Ona zati batzuk:

Biotzean daramat
maitasun katez Jainkoa,
ni Aren jabe naizela,
Bera nere menpekoea.
Baiña ezin onetsiz Jauna
nere menpe ikustea,
Ilgarri zait ez iltzea!

Au biziaren luzea!
Au erbeste ezin jasana!
Au sare ta burdin arte, -
emen esturik naukana!
Epe au noiz amaituko,
bai oiñazea nerea!
Ilgarri zait ez iltzea!

Utzi nazak bein, bizia,
utzi! Ez akit mingarri.
I galtzea bai neretzat
bizigarri ta pozgarri!
Ator, erio maite, ator;
ator, zeru-ekarlea;
Ilgarri zait ez iltzea!

Emen emoten deusat azkena neure lan oni. Ez dot sartu nai izan gai onen barruan euskeraz egin dan guzia. Ez dot sartu Ama Teresaren Bederatziurrenik (bat zar samarra dago, joan dan mendearen erdiko). Ez dot aitatu *Euskal-Esnalean* 1930n agertu zan *Aolkuak* (Teresaren lantxo bat euskeraturik), ez beste KARMENGO ARGIA-ko lanik. Aolkuak oraintsu il dan donostiar batek euskeratuak dira: Jesus Olea zanak egin zituen. Oraindik bizi diranen lanik ez dot aitatu nai izan. Orregatik ez dau emen aitamenik euki Teresaren liburu baten itzulpenak: *Onbidea* (Camino de perfección). Itzulpen barriak be bidean datoz. Bidean da Ama Teresaren Bizitza barri

bat, orain artean izan eta aitatu diranak baiño luzeago eta beteagoa. Guztiok gerokoen epai-mairako gelditzen dira.

Eta oraiñarteko zarrai begituz, zer esan? Asieran esana: ez dala asko, baiña ez dala gauza utsa. Euskalerrria Teresarentzat egiteetan izan da luze, baiña itzetan laburtxo. Euskaldunen izakereari dagokiona da. Teresak be baekian ori. Barriketa gitxikotzat euki ginduzan. Orregatik, aurretiaz parkatuko deuskulakoan, bildur andi barik esan daikeogu etxerik etxeko gure eske-kantuetan esan oi dana: Ama Teresa, gitxiagatik, parkatu.

AGUSTIN DONEA EUSKAL LITERATURAN*

Urteurrenak gogoratzeak atzera begira jarri bearra ekartzen digu. Neri, Agustin Donearen XVIgarren mendeurren au ospatzean, gaur arteko gure euskal-literaturara begiratzea egokitu zait, ea Agustin doneak nolako lorratza utzi duen gure alor orretan, ea gure idazleak elizguraso andi onen aipamenik edo berririk utzi diguten, edota santu onen idazlanik euskarara aldatu eta eman diguten.

Galdera auei baiezko erantzuna eman bearrean gaude. Euskaldunak ez du ezzaguna izan Hipunako apezpiku andia inolaz ere. Agustinek eta agustindarrek, mendeetan zear, sustrai sendoak bota izan dituzte gure errian. Antziña samarretik izan ditu Agusúñek emen bere izeneko elizak eta bere legepeko fraidetegia eta serorategiak. Beste inora gabe, Bizkaian bakarrik gaur ere, santu onen izeneko bi parroki ditugu, Elorrion eta Erandion. Eta Elorrioko ori Bizkaian zaarrenetako dela badakigu. Agustin onen legepeko fraidetegiz josirik aurkitzen dugu aspaldidanik Euskalerrria. Orreagakoa eta Urdazubikoa aipatzea aski bedi. Eta geroago sortuak eztira gutxi bazter batetik bestera. Bat edo beste galduak dira gaur, esaterako, Durangokoa, gaur ere, galdua duen arren, fraide agustindar berrien sorleku jarraitzen duena. Durango alde orrek emanak ditu gaur agustindar ospetsu batzuk: Eustakio Uriarte, B. Kapanaga eta abar. Napparroa aldetik mende onetan idazle eta agustinzale on bat izan dugu: Aita FABO. Antziñakoetan, amasei-amazazpikoen artean, or ditugu ain izen andia jakintzan, literaturan eta mixiolaritzan ospea utzi dutenak: Malon de Txaide, Urdaneta, Andres Agirre, Martin Rada, Franzisko Nabarra, Coscojales. Geienok Euskalerritik kanpo egin zuten argi eta kanpoko izkuntzatan idatzi zuten. Ala ere, Urdanetari eztiogu ukatuko bere aparteko ospea, euskaldunon AURRERA! oiua mundu guztiari irakatsi ziolako.

* Jaunaren Deia (1988, 98-99. zenb.) 31-39

Agustindarren euskal-idazleak joan den mendeko Euskal-Pizkundearekin batera sortu zitzaizkigun: Aita Pio Mortara, italiarra baiña euskaldun egiña, Aita P. Urkia, Larrakoetxeatar Benita, eta abar. Oifiatiko Laterandarrak, Lesakakoekin batera, Euskal-Pizkunde orretan ongi sartuak daude. Eta gero, Gipuzkoan ditugun Agustindarren serorategietako mojak, gaurko liturgi berriaren aukerari bere lekua eskaintzen aurrelari izan ote diren nago.

Euskalerrriak San Agustiñen ezagutzarik izan duela eztago ukatzerik, noski baiño noskiago; euskeraz ere artu eta entzun zuen aren berririk. Baiña, ala ere, ori esanez eztago esan euskal-literaturan sartua zenik santu au. Orregatik jo dezagun barruago ea zer-nolako leku egin dioten euskal-idazleek orain amasei mende egia aurkitu eta Jainkoagana biurtu zen gizon andi oni.

Agustin euskal-idazle batzuetan

Sail onetan ez da sartuko itzultzaile uts izan den idazlerik. Eta leenengoa Axular andia izango da... Berau da, bear bada, Agustin donearen testorik geien darabillena bere liburu ezagunean. Eta badaki testuok egoki ekartzen eta egoki euskeratzen. Onen urrengo Tartas, *Ontsa hiltzeko Bidea* liburuaren egillea aipa genezake. Latiñezko testoa eta euskal-itzulpena elkarren ondoan poliki ekarten daki.

XVIIIgarren gizaldian aipatzekoak dira Mendiburu eta batez ere Kardaberaz S. Iñazoren ejerjizioetan. Gure sermolarietan Aita Bartolo Bizkaitarra ezta San Agustiñen itzetara gutxien jotzen duena.

Euskal-idazle auek eztituzte santuaren itzak zuzen aren liburuetatik jasoko, bear bada. Askotan, bai, baiña ez beti. Bazeuzkaten orretarako ainbat SILVA edo bilduma eliz-guraso askoren testoeekin eta alakoetara jo oi zuten sarri.

Larramendi eta Mendiburu

Sermolari euskaldunen liburuak gure erlijioko misterioak, Jainkoaren legeko aginduak, sakramentuak eta abar azaltzera jo dute geienik. Santuen sermoidunik gutxi utzi dute, edo gutxi argitaratu dituzte beñik bein. San Agustiñen sermoirik eztago aurkitzen olako liburuetan. Eta ez, noski, Agustin donearen egunean, euskerazko sermoirik entzun eztago. Oinatik Laterandarretan, Mendaro, Aretxabaleta eta beste agustindar seroretan askotan entzun izan dela uste dugu euskera Agustin donea gorosten. Baiña eztago liburutik azaldu. Nonbaiten gordeta daude, baiña ez dute argirik ikusi. Batek, orraitio, orain dela eun urte, utzi zuen bere gordelekua. «Euskal-Erria» aldizkariak atera zuen argitara 1885ko zenbaki batetan eta gero separatan argitaratu. Larramendik kopia bat eskeiñi zion Jesusen Biotzari eta Agustin Jauregi, «euskaldun apaiz iztun oberenetakoari». Baiña aurkitu, Azpeitiko On bizente Arregi zenaren paperetan aurkitu zuten. Noiz eta non emana ote zen itzaldia, *Doanditzal* Mendaron, Emanin, Azpeitin, Motrikun? Aldizkarian ezjakiña edo ezin jakiña aitortzen zuten. Larramendik goimaillako sermolararen sona zeukan erderaz naiz euskeraz. Garai artakoa, baiña sermolarí ona. Eta bere ospe ori on egiñik utzi du sermoi onekin.

Sermoi onek, Eleizako Erakasle aundi San Agustiñen Doanditza onek, sarrera eta bi parte ditu: leenengoak Agustin munduko argi bezala aurkezten du, eta bigarrenak, Agustiñen santutasuna.

Leenengo zatian, «Genesis» liburura jo du: munduaren leenengo egunean Jainkoak egiñiko argira, argia eta illunak banandu zireneko unera. Argi utsa da ordukoak, «argi guziarikoa», beste argi guztien iturria. Geroago agertuko ziran beste argiak, eguzkiarena, izarrena eta gaiñerakoak. Jainkoak argia eta illuna banandu zituen Agustiñen bizitzan ere, au Jainkoagana osoan biurtu zenean. Arrezkero argi utsa da bera, eta ez beste santu eta eliz-gurasoen antzekoa, eguzkiaren edo beste izarren baten argia bezalakoa. San Agustiñen argiak illunpe guztiak uxatzen ditu. Bere aldiko siñiste oker guztiak garaituko ditu: manikeo, donatista, pelajiotarren illunpe guztiak garaitzeko bera da naikoa. Eta berdin gertatuko da geroko siniste oker guztiekin. Agustiñen argira joko dute teologi-eskola guztiek argi billa. Berdin Tomas Akinokoarenak, jesuitenak eta gaiñerakoak. Are geiago: erejeek ere Agustiñen babespera jotzen dute bere uste okerrei eusteko. Ontzarena gertatzen zaie: argi geiegiak itsutu egiten dituela... Agustin donea, Elizak duen agiririk aundiena da, guziekiko argia.

Bigarren zatia: Jainkoak argia ona zela aurkitu zuen. San Agustiñi argiaz batera santutasuna eman zion, ona izatea. Ez zuen alik onena egin. Larramendik ere ez zu santu au santurik aundientzat eman nai. Txit ona, txit santu egin zuela esatea asko zaio. Baiña gauza bat ez zu ukatuko: Agustiñen argia egiaztatzeko, ez tio gaiari alde guztietatik begiratuko; Jainkoari izan zion maitasunari begiratuko dio. Biotz osoz eta geiagoz maite omen zuen Jainkoa; baiña gutxi maite zuelako kezka, kezka samiñak, ez omen zion pakean uzten, eta zer egiten du? Jainkoari biotza ostutzen dio, Jainkoaren beraren biotzaz jainkoa maitatzeko. Luze ta zabal diardu Larramendik. Bibliako esanetatik eta Agustin beraren itzetatik, nola liteken jainkoaren biotz ostutze ori. Eta Agustiñen itzok ekarriko ditu guztiaren argigarri: «Zer esango dizut? Orra: nai det txit nere Jainko zeraden; baiña eginkizun balitz Zu Agustin izatea, eta Agustin izatea Jainko, Agustiñek Jainko izatea ez luke naiko, Zu bakarrik izan zindezen Jainko». «Orra nola San Agustiñen argia dan ta andia, baña orra nola, aren ontasuna eta santidadea dan andiagoa ta obeagoa».

Azkenengo itzak, Agustiñen alabentzat ditu. Guztiok daukagu argiaren bearra eta biotz onaren bearra gere bizitzan, Agustiñek bezala. Argi ta ontasun ori bear dituzte batez ere Agustiñen alabak izan nai dutenak. Pozik zaudete Agustin bezalako aita bat izateaz. Pozik bego bera seme-alaba onak edukitzeaz. Orra Larramendi aitaren doanditzaren nola-alako laburpena.

Aita Mendiburuk San Agustiñen omenetan idatzitako orrialdeek Larramendiren sermoiak baiño luzaroago irauzen dute argirik ikusi gabe. Orain eun urte «Euskal-Erria» aldizkariak Oiartzungo seme argi onen manuskrito luze baten berri eman zuen arren, eta lan guztiaren argibidea ere argitaratu, urte guztiko *Irakurraldiak* liburu idazlan ori, bi tomo marduletan, oraintsu argitara eman digute Mendibururen Lan argitaragabeak izenez, 1982an, Aita Patxi Altunaren ardurapean.

Or dugu San Agustin eguneko irakurraldia. Irakurraldiaren gaia: «San Agustinek agertzen die bekatari guztiei ontzeko bidea». Larramendiren zorrozkerietara jo gabe, berea duen goxotasunez erakusten digu Agustin gazteak egiaren billa eta bere griñen

aurka eramandako bidea, azkenez Jainkoagana barru-barrutik biurtuz, gogoko argia eta biotzeko pake osoa aurkitu zituen arte. Oraingo mendeurrena ospatzeko berariaz egifia dirudi.

Agustin donearen bizitz-idazleak

Gure literatura urritxoa bada era, badugu santu onen omenezko beste idazlanik: Santu onen bizitza laburrak dira. Lehenengo, B. Larregi, Bassussarriko Erretor jaunak idatzia, bere Testamen Zaharreko eta Berriko Historioan sartua. Historio au Royaumont-en Bibliaren itzulpenzat eman oi digute; baiña ezta itzulpen utsa, eta gaiñera Royaumont-en lanari bere exenplu eta erreflexione batzuk ezartzen dizkio kapitulu bakotxean. Eta, azken-azkenean, 24 bat santuen bizitzak sartu ditu. Eta bat, ain zuzen, S. Agustin Aphezpikuarena zazpi-zortzi orrialdetan. Or daukagu gaur Larregiren lana, Hordagok berriz argitaraturik, 1978garren urtean. Leengo edizioa 1777koa da.

Andik eun urtera, Basilio Joanategi izango da beste bizi bat emango diguna; 1876ean aterako du, Altuiko Erretore zelarik, bere *Ehun bat sainduen bizitza*, eta bertan Agustin Aphezpikuarena. Geroago, Benito Donearen soiñekodun eginik, urte guztian egunero ospatzen den santu bakotxaren bizia eman nai izan zigun; baina bi tomo aterata, leenengo sei illabetetakoen bizitzak emanda, Agustin donearen egunera iritxi gabe gelditu zen.

Urte guztiko santuen bizitzak, egunean egunekoa, eman izan dizkigunak bi idazle izan dira: Joakin Lizarraga, Elkanoko bikario izana, eta gure egunetako Aita Manzisidor jesuita. Lizarragarenak eztu argitara agertzerik izan. Aita Manzisidorrena iru tomotan dago, eta bigarrean, 1962ean argitara emandakoan dugu gaur arteko Agustiniñen euskerazko bizitzarik osoena, eta luzeena.

Beste liburu bat ere, emen aipa dezadeguna, 1840koa da: *Meditazioneak urtheko Ebanjelioen gainean, egun guzietako, eta Jesukristo gure jaunaren, Birjina Sainduaren eta sainduen bestetako*. Egilearen izenik gabea da, baina Jauretche aphezarena dela esan du norbaitek. Erderatik itzulia dirudi baiña, nolana ere, Euskalerriko santurik andienak eztitu sartu gabe utzi: San Ignazio, San Frantses Xabierekoa eta Baionako San Leon. Eta auen saillean dator San Agustin ere bere eguneko iru puntuko meditazionearekin.

Agustin Donearen euskeratzailleak: ORIXE

Leen ikusi dugunez, Axularrek, Tartasek eta beste batzuk Agustiniñen testo banaka batzuk eman zizkiguten euskeraz; baiña santu onen liburu osorik gaur arte ez dugu ezagutu. Nikolas Ormaetxea, ORIXE zenari, zor diogu santu eta eliz-irakasle orren liburu oso bat, ezagunenetakoa, euskeraz irakurri aal izatea: *Confesiones, Aitorkizunak* liburua. Aparteko legea zion Orixek Agustiniñen liburu orri. Mathieu Akitzeko apezpiku euskaldunak Euskalerritari liburu orren euskal-itzulpena eskaintzera bultzatzen zuen. Latiñezko testo on bat eskuratu eta noizbait eldu zion lanari. Zaragozatik

1954ko ilbeltzaren 16an onela idazten zion Zaitegi adiskideari: «Atzo amaitu nituen S. Agustiñen Aitorkizunak». Baiña au ere gañeratzen zion: «Orraztu bearra baduke argitara baino leen. Egai esan, zenbait aldiz euskera ez da latiñera irixten, batez ere activo-pasivo eta relativo oiengatik; baiña beste zenbait aldiz, eta geiagotan, nik uste, latiñari kentzen dio».

Zuzentzekoak zuzendu eta orraztekoak orraztuz, or dator argitara 1956ean, Zarrazko Itzaropena Argitaletxean. *De Civitate Dei* eta besteren batekin, liburu au du Agustiñek duen libururik landuenetakoa, bere latin erretorikaren maisutasuna geien erakusten diguna. Orixek aalegiñak egingo ditu euskera latiñaren maillako egiten, beti lortu ez badu ere, berak aitortu digunez. Ezta lan erreza Agustiñen Aitorkizunen latiña iñongo izkuntzetara ondo itzultzea. Orixek ondo esan du: «Badakigu Agustin, bere izkuntzaz landara, motel gelditzen dala ardura, edozein izkuntzetan... Guk ezin eman dugu passif delako ori bakan baizik; esaterako *quem amarem, a quo amarer*, «nor nik maita, Nork ni maita».

Ala ere, latiñaren jabe eta euskeraren jabe den Orixek, lan zail ori egin du, berak aal izan duen ondoen. Aitaren begiz begiratu dio egilleak bere lan oni. Eta itzaropentsu dago. «Besterik ez bada ere, ezin esan S. Agustiñek euskerari on aundia egingo ez dionik. Gaurkotik au gelditu daiteke, Biblia leku, euskal-libururik bikaiñena». Orrela esaten zion, Itzaurrean, Akitzeko Gotzai Clement Mathieu Iaunari. Batez ere, apaizentzat mesedegarriagotzat zeukan liburua: «Zerua zabalik ikusiko dute pilosopi-gaiak eta Jainkoazkoak adierazteko». Zenbatek atera ote dute liburu orretatik Orixek uste zuen onura ori? Zenbat saiatu ote dira or murgiltzen eta or Agustiñen biotzeko taupadak sentitzen eta aren gogoetazko txinparten argira urbiltzen?

Aita Alberto Begiristain

Liburu osorik ezpada ere, euskaldunak badu gaur eliz-guraso onen zerbait geixego irakurteko aukerarik. Eliz-otoitzeko *Irakurgaien Ordurako*. Elizak egunero artzen du edozein mendeko santuen baten lumatik ateratako puskaren bat. San Agustiñenak badira 50 inguru. Euskaldunok otoitz-liburu ori osorik euskeraratu gabe daukagu oraindik. Elizaren on-iritzi osorik gabe, beintzat. *Jaunaren Deia* onen irakurleak, orraitio, badakite irakurgai oiek euskeraturik daudela. Oraintsu betiko agur egin zigun Aita Alberto Lazkaoko Beneditarrak txintxo egindako lana da. Aspaldi da erdiak eman zizkigula. Beste erdiak aurten emango zaizkigu aldizkari onen orrialdeetan. Aitorkizunak liburutik artuak dira batzuk; beste batzuk, beste liburu batzuetatik. Gure esker ona Aita Begiristain zenari eta *Jaunaren Deia* aldizkariari.

Euskaldunek San Agustin andiaren bizitza eta aren arima ezagutu eziñik eztute. Batez ere berak idatzita utzi zituenetatik eta euskerara itzulitakoetatik, bere XVIgarren mende onetan, deika daukagu bera, berak bein entzun zituen itzekin:

Ar zazute ta irakur, ar zazute ta irakur.

BIZKAI'KO ELEBARRIGINTZEA*

Euskal-literaturaren barri-emoille batek oraintsu esana da, tamalgarri izan dala euskerearentzat Peru Abarka lango liburuak, bizkaieraz egiñikoak, argitara etorri izana. Olango liburuakaz bizkaiko euskereak goi-maillatxoak lortu ei eban, eta ori euskerearentzat kaltegarri izan ei da. Lapurdiko euskereak eta Gipuzkoakoak, au azken baten Kardaberazek eta Mendiburuk goi-maillaratu ebelako, orrexek biok bakarrik ei euken aintzat artuak izateko eskubidea. Bizkaikoak bururik jaso ezpaleu naiago, ilda gelditu balitz oba.

Nozik bein, benetan, gauza bitxi ta itzalak ikusteko edo entzuteko erea etorten jaku. Bizkaiko euskalkiaren eriotzea zeren edo zeñien onetan jazo leiteke? Zeren edo zeñien onetan beste edozein euskera edo euskalki galtzea? Ezeren ez iñoren onetan be ez; euskera osoaren kaltetan bai, eta inguruko erdera indartsuagoen onetan. Orixe da egia. Orain Zuberoko euskerea galtzen dan lekuan, aren utsunea ez dau beste iñongo ez ezelango euskereak betetan; ez da ara beste euskerarik sartzen. Gipuzkoako, Bizkaiko naiz Lapurdiko euskerea galtzen dan bazterretan, Frantziako edo Gaztelako izkuntzak betetan dabe areik itxitako lekua. Gaurko egunotan bertan, euskalki bat itota ipinteko eta beste euskera bakar bat sartzeko alegiñak egiteak badirudi ezta karrela beste ondorenik: euskerea galdu eta erdereari indar emotea.

Aitatu dodan badaezpadako eretxi orretan, beste uste okerrik be badala esan bear: Mogeldarrak agertu arte Bizkaiko euskerea bape landu bakoa izan zalako ustea. Etzan ain landu bakoa. Euskal-literaturarik zarrena, XVgarren mendeko kanta zarrak, aldi atako alderdikeri eta burruken otsak ekarten deuskuezan eresiak osatzen dabe, eta geienak Bizkaiko euskeran egiñak dira. Amaseigarren mendean esaera zarrezko sorta eder bat agertu zan, euskera zarra ikasi ta aztertzeke ain liburu egokia. Nongo euskeratan? Bizkaikoan.

* Zer (1985, 82. zenb.) 8 orr. (8. eta 9. orr. artean). Artikulu au oker askorekin argitaratu zan, titulo bera ere oker.

Larramendi dago gure lenengo gramatikalaritzat. Baiña ez da lenengoa. Beste bik aurea artu eutsoen Lapurdi aldean, Sylvain Pouvreau zanak eta Bizkaian, bilbotar batek, Rafael Mikoleta abadeak. Onek atera eban, beste biak baiño lenago bere gramatikatxoak, eta ipiñi eutsan tituluak berak diño argi zein euskeratan dagoan: «*Arte breve de la lengua vizcaína*». Gizaldi berean Oihenarte Zuberoko gizon jakituna eta euskal-idazle ezagunak, euskerazko bertsoak neurtzeko arau batzuk emon nai izan zituan, eta eredutzat jarri zituan bertsoen artean, Bizkaiko euskerazko batzuk dakaz. Gizon andi onek gaurko batzuk baiño lotsa ta begirune andiagoa eutson beste euskalerrietako euskereari. Oraintsu agertu da Markiñan, liburu baten barruan argitaratuta, amazapigarren mende orretako poemarik luzeena. Bizkaiko euskeran dagoala esan bearrik ez.

Amazortzigarren gizaldian idatzita, oso ospetsua egin da Barrutia aramaioarraren antzerkia, *Gabon Gaberako Ikuskizuna* Antzerki bikaintzat dago. Bizkaiko euskerazkoa au be, geien baten.

Ez: Bizkaiko euskerea askok uste daben edo gurako leuken baiño landuago egon da aspaldi aspaldiko urteetarik ona. Bizkaiko eresi eta kanta zarrak, esaera zar, olerki eta antzerkiak ez dira gauza utsa iñondik iñora. Mogeldarrak eta onegaz batera agertu zan idazle mordoa ez dira ezerezetik eta uste barik sortu. Añibarro, Zabala, aita Bartolo eta Astarloa ez dira beste iñoren aurrean lotsaturik geldituko. Eta laster ikusiko dogu Bizkaiko idazlerik gure literatur urritxoan bide barriak urratzen. Bizkaiko idazleak aurrelari agertuko jakuz nobelagintzan, eta literatur-mota au beste euskalkietara zabaltzen.

PERU ABARKA

Peru Abarkaren egilleeganik asiko naz. Auxe da itzaldi onen lenengo gaia. Baiña aurrera jo baiño len, zeozertxo esan nai dot egillearen barri. Lenengo ta bein, nontarra dan.

Markiñartzat egon da oraintsu arte. Orain Eibartarra dala esaten diardue. Beronen urrengo anaia, barriz, Debatarra. Joan Antonio Mogel onen lloba bi be, biak euskal idazleak, bata Debarra egiten deuskue, eta bestea, andrazkoa, Bizenta Mogel, Azkoitiarra. Guztiak pasako txoriak izan ziran erri orreitan. Gurasoak osalari izanik, an or emen jaiotea jazo jaken. Baiña izatez Markiñarrak dira. Eta urte gitxi batzuk kanpo-errietan eginda, eurotako batek urte bete egin barik ia, euren abira biurtu ziran, Markiñara, beste errietan ezelango sustrairik itxi barik. Ez Eibartar, ez Debar, ez Azkoitiar dira. Euren aita-amen etxeokoa dira: Markiñarrak, Bizkaitarrak.

Peru Abarkaren egillea izan zan, orraitio, luzaroen kanpoan egona, Eibarren eta Deban, zortzigarren urterarte. Argitaratu zituen lenengo liburu batzuk Gipuzkoako euskeran egiñak baditu, orrek ez dau esan nai Giputza danik. Geiago zabalduko ziralakoan egin eban ori, ez bere burua giputzat eukalako. Giputza *arrotz eta atze* egiten jakola autortu dau bere liburu baten asieran. Barregurea emoten dau gaur idazten diran gauza batzuk irakurteak. Esaterako, bizenta Mogeleg, bere *Ipui onak*,

Azkoitin bere umetan ikasitako euskeran idatzi zituela. Bizenta orrek urtea bete orduko alde egin eban Azkoititik; eta Azkoitiko euskerea ikasi? Ikastun ona izan ei zan, baiña ez orren bestekoa, orren goizetikoa. Gipuzkeraz osabearen eragiñez eta lagun-tzaz idatzi zituen ipuiñok. Arrezkero bizkaieraz idatzi eban beti.

Joan Antonio Mogelek liburu bi idatzi zituen gipuzkeraz, biak bizkaieraz be itzi euskuzanak. Baiña batez be, bizkaiera utsean itzi euskun osperik andiena emon deusana: *Peru Abarka*.

Zer da, baiña, *Peru Abarkal* Euskeraz idatzi dan libururik irakurgarrietakoa ei da. Euskeratik erderetara itzulita, munduan zear ezagutua izatea merezi dauanik bada, auxe ei da bat. Euskerazko lenengo elebarria dala be esan dau norbaitek.

Liburu au zer dan jakiteko, entzun deiogun egilleari berari. Berak diñosku i-tzaurrean zek ekarri eutsan Peru Abarka idazteko gogo.

Euskereak edozetarako balio dauala agirian ipiñi naiez ebillela, Luis Vives Valenciako latin-idazle eta maisu andiaren Alkar-izketak edo Latin ikasteko jardunak ekarri ei eutsan gogora berak be aren antzeko zerbait egin bear ebala. Euskerazko jardunaldi batzuk asmauko ditu, euskerazko alkar-izketak, baserritar baten eta kalekume baten artean. Baserritar eskola bakoa maisu dala eta kaletarra euskalduna, ikasle. Baserritarra eskola bakoa da, baiña euskera-kontuan bera irakasle. Kaletarra, odol-ateratzaille, azurkonpontzailletakoa, erderazko *Barbero* esaten eutsenarikoa, giza-gorputzaren anatomia ikasia.

Mogelek sei jardunalditan banandu dau gaia, geien geiena Peruk eta maisu Juan deritxon barberuak alkarren artean daroena. Eurok dira berba-lagun nagusi. Baiña ez bakarrak. Tartean tartean beste batzuk agertuko dira eta azkenaldean geien.

Non eta ardan-etxe baten alkar aurkitu dabe Peruk eta Maisu Juanek lenengoz. Peruk gogor artu dau beste ori. Ain apain eta dotore jantzita dagoan batentzat ez ei da egoki ez itxurazkoa alango leku baten sartzea. Bera be ez ei da joaten olango lekuetara nora ezean, premiñaz eta ezin bestez baiño. Gizon matrakari, burrukazale, etxekalte, alper eta baldanentzako lekuak dira-ta, berari ez ei jako ondo egiten olango gizonakaz bere burua bat egitea. Olantxe asi da Peru Maisu Juani adarra joten eta ziria barruraino sartzan. Larregizko zaparradea izan da besteak asarratu barik eta onez entzuteko. Bakeak egin eta bertan gelditu dira jateko eta lo egiteko, alkarregaz jardun eta jardun. Maisu Juanek ez dau an aurkitzen gauza onik. Jana eta oia, dana da an txarra, iguingarria, nekagarria. Ezin dau lorik egin. Bien bitartean goiko sabaian dago gizon ordien bat kantari.

Irri-kanta bat lenengo bota eta gero ez dau bada bertso luzeetan entzun bear izan Maisu Juanek berak azurrak konpondu gure izan eutsazan bati jazorikoa? Gixajoak, azurrak len baiño miñago ebazala, atso sorgin bategana joan bear izan eban, osatuko bazan.

Urrengo goizean ardan-etxe atako atsoak janaren eta ostatuaren kontu goregia aurkeztu deutse Peru ta Juani. Maisu Juanek ordaindu barik joateko deabrukeri bat asmau dau: atsoari urdai-zati bat, labangarri bat ipiñi aurrean, laprast eginda jausi ta azurren bat ausi dakion. Gero, egindako kaltea osatzeko atxakiaz, zorra kitu egingo

dau, osaketaren truke. Peruk ez dau maltzurkeri ori ondo ikusi; oste txarren bat ekarriko edo deutso Maisu Juani.

Ostatutik urtenda, Peruren etxerako bidean, txarri ilte bat da. Juanek bere anatomiazko jakituria erakutsi nai dau, baiña Peruk izen bitxi ta barregarririk barik, txarriaren gorputz-atal guztiak banan banan emoten deutsoz, eta barberuak beste eta obeto dakiala erakusten dau.

Irugarren jardunaldia Peruren etxean da. Illuntzean eldu dira bertara. Ipuifiak esateko ordua. Peruk bere semetxo bati esan azoten deutso bat, bertsozkoa, basoko ta etxeko sagu biena. Aparitakoan, maian daukezan janari-edarien aurrean, etxaldean dituen ondasunen zeaztasunak emoten deutsoz ostatuz daukan adiskideari. Danetik dauko jateko, intxaur, gaztaña, sagar, madari, aragi, ortuari, egazti, usakume ta geiago; edateko, Maisu Juani aparian eskiñi deusan lez, iru ardao mueta, txakolin eta abar; korta bete bei ta idi, lanerako ta janerako. Mendian artalde polita, ganera. Baiña, maiteen, ondasun guztiak baiño maiteago, andrea ta seme-alabak ditu, ondo aziak guztiak, eskekoentzat ta bear izana dabeneztat eskuzabal izatera egiñak. Apalondo luzea izan dabe, eta ez doaz lotara, errosarioa esan barik, dana obeto amaitzeko.

Urrengo egunekoa da laugarren jardunaldia. Maisu Juan jagi daneko, Peruren etxekoak orduak daroez bakotxak bere lanetan. Peruk gauza asko daukaz egun onetan bere adiskidiari erakusteko. Ola batera doaz lenengo, ango lanak eta bizimodua ikusten. Maisu Juani ekarri dauan soiñeko dotorea kendu eta olarako egokiagoa dan beste bat jantziago deutsoe. Gizon miske ta bupera arentzat latzegia, orraitio! Bidean berbaz doazela, euskerazko esaera zar bat entzun da. Eta orra bien autua olango esaeren goraberan. Maisu Juanek bat baiño eztaki... Peruk irurogetaka botaten ditu erreskadan. Olara elduta, an diardu Peruk Maisu Juan eskolatzen. Ango langille eta mailluen astrapalea entzuten dan bitartean, Peruk dana azalduko deutso: langille bakotxaren, ijela, urtzaila eta gatzemalleen egitekoa, ango tresna ta zati guztien euskerazko izenak: dana.

Eguerdirako etxean dira barrero, bazkaldu eta arratsaldean bosgarren jardunaldiari ekiteko. Maixu Juani etxeko lan batzuk zelan egiten diran erakutsiaz batera: liñua ereitea, goruetea, eungintza, soiñekogintza ta abar. Lan guztiotako tresnen izendegia or emoten dau Peruk. Eta dana amaitzeko, or dator *liñuarenpenak* kantetan dituan bertso-sail luzea.

Eta onetan ez-usteko agerraldi bat. Nortzuk datoz? Peruren adiskide bi, bata giputza, bestea, frantzes dalakoa, Baigorritarra: Txorgori eta Joanis. Maisu Juan arriturik gelditu da, Peruk eta beste biak bakotxak bere euskeraz diarduen arren, alkar ondo ulertzen dabela ikusita. Eta orrantza doa lauren arteko autua. Euskera batetik besterako aldea ikustearren, bakotxak umetan ikasiriko otoitzak esan dabez. Eta len baiño arrituago gelditu da Maisu Juan, frantzes luebagin batek be berak baiño dotriña geiago dakiala ikustean.

Urrengo egunean, bezperako lau lagunen artean da seigarren jardunaldiaren asierea. Peruk basoak ikustera eroan gura ditu. Baiña arako bidean Maisu Juanen jakingurék frantzes euskalduna bere ezaupidea emotera beartu dau. Joanis ori ezta

frantzesakaz guda-otsean gu gana etorritakoa. Andik iges etorria da, gerratik igeska, bakearen billa. Beste lagun asko an gelditu ziran, eta ezin bestez, indar utsez gerrara joan. Eta ori egia dala erakusteko, ango euskaldunak ataratako kanta bat emoten dau. *Avancez, avancez* ots egiten ei eutsen euskaldunai frantzez agintariak. Eta euskaldunak erantzun: Deabruak eraman bazinzez. Kanta au, bear bada, *Peru Abarkak* bakarrik jaso dau, ez beste inok. Joanis orain emengo euskaldunen adiskide eginda dago, eta adiskidetasunaren adierazgarri diran euskal-esaera mordo dau.

Orretan abade eiztari bat egin jake lagun, eta orain guztiak barriketa luzean sartzan dira. Euskerazko itzen etimologiak, itz bakotxak zer esan nai dauan azaltzen, alkarren leian dabiltz, batak baiño besteak zorrotzago agertu guraz.

Noz edo bein Peruri be etorri jako, bestetan lez, bere eskolea emonez, basoko abe bizien edo zugatzen motak eta izenak azaltzeko erea, eta guztiak bazkaritako ordua. Eta orain dator liburua azkena. Perunean bazkaltzen dagozala, txakurzaunkak dira. Gizon bat, arma ta guzti. Epaikariak bialdua da, Maisu Juanen billa. Lenengo eguneko ostatuko neskak salatu dabe, antza, Barberuak ango atsoari egin eutsan deabrukeria. Non da bera? Peruk urten dau errudunaren alde: «Nire etxean ez dago beste inor ementxe gagozanok baiño». Baserritar jantzirik egoteak balio izan deutso Maisu jaunari. Alguazillak ez dau an gizon dotore jantzirik aurkitu, eta ez dau ezagutu, ez deutso antzik artu.

Azkenean esker ona zelan adierazo ez dakiala doa bera Peruren etxetik. Eta guztiz aldatuta ganera. Andik aurrera kristiñauago izango ei da, Peruren etxeo jarraigari onak ikusita gero. Baiña lenago autortu dau baserritarren euskerearen jatorrasuna eta garbitasuna, edozer azaltzeko daukan balioa, eta kalekumak baserritarrak ganik zer ikasi asko daukela.

Eta olangoxea da, izan be: Peru Abarkak darabilen euskerea Maisu Juanena baiño askoz ohea ta garbiagoa da. Ez dogu esango Peru orren euskerea oso garbia danik. Geroago ikasi doguzan euskal-joskera lege batzuk Mogelek ez zituen menperatu, eta ezin Peruren agoan utsik bape bako euskerea ipiñi. Bestela, Peruk darabilen euskerea jatorra eta aberatsa da. Gaurko euskaldunak be asko ikasi leike Peruganik.

Beste alderdi on eder bat dau Mogelen lan onek: euskal-bizimodu eta lanbide batzuen barri ain zeatz emoten deuskula. Eta dana, ain egoki, eta alperreko berba galdurik barik. Olagizonak, euleak, gorulariak, karegilleak ondo itxuratuta dagoz. Gauzak garbi ta zeatz esaten eskola onekoa zan Mogel. Gero, bestela baitakoa, liburua gozagariago egiteko, jardunaldi bakotxean or sartu ditu Euskalerriaren irudi osoagoa emoteko diran ainbat gauza jakingarri: Bertsolariena, ipuinena, esaera zarrana, gorularien kantua, Frantziako gerratekoa, eta abar.

Azterkena

Peru bera dala-ta zer esan? Zelan aurkeztu dausku Mogelek? Basati ona dalakoarenik ez dot uste ezer asko daukanik, batzuk bestera esan daben arren. Baserritar arro samarra, bai, agertzen jaku. Zirikalari eta adar-jotzaillea be bada. Maisu Juan

ardan-etxean aurkitu dauanean esan deutzazan irain-itxurazko berbak, berba gogorregitxoak, lotsa bako batenak baiño geiago zirikalari ta adar-jotzailearenak dira. Azkenengo egunean be, aguazillaren aurrean, zirikalari ta adar-jotzaille alderdi ori agiri jako, adarra joteko gogoia erakusten dau. Adarra jo deutso polito-polito aguazillari bere lagun pekataria estaldu deutzanean. Eta gozatsu egin dau barre, aren matrailla-albo gizenak, aren garri mardoaren silbot ederra dala-ta. Ez dago, ez, bera olan, makallau-saldea artuta, ez sardiña ustelduak janda!

Zein sailletan sartu idazlan au? Alkarrizketa utsak dira sei jardunaldiok. Lauki utsak dira, ala elebarri saillean, sartu geinkez?

Esan dogunez Vives Valenciarrak emon deutso Mogeli lan au egiteko asmoa. Baiña alkar-izketaz egiña dan arren, egillea ez dabil Vivesen bidetik. Peru Abarkak, bere asmo nausiagaz batera, jardunaldirik jardunaldi, ari bat bera daroa. Gauza asko, gai asko, jazoera asko sartu dituan arren, ari batek lotuta dago dana, eta bizi modu baten ispillu da. Eta jazoeren aldetik, batek egiten dau ardatz nagusi, Peru Abarkaren giltzari; ardan-etxeko atsoari Maisu Juanek egiñiko barrabaskeriaz eta onen gomutaz eta azken zoriontsuaz emoten jako amaierea. Olan sei jardunaldiok nobela baten antza eta egiturea artzen dabe. Mogel ez da sartzen, *Peru Abarkan* atera dituan berba-lagunen barru-barruko nortasuna agirian ipinten. Egin dauana bere asmotako naikoa eritxi dautsan neurrian egin dau.

Tamal andia, orraitio, tartean tartean dakazan argibideak erderaz emon dituala. Baiña ori, erderazko itzaurrea bera lez, kaletar erdalzaleen argibiderako egin dau. Eta ez da tamalik txikiena, Mogelen lan onek ez ebalaa argitaratzerik izan, egillea il eta ia larogegarren urterarte.

Eta argitaratu zanean, ain zuzen, orduantxe asi zan euskal-nobelagintza plazaratzen, bera eta bizkaitar batzuk aurrelari zirala.

Peru Abarkak argitaratu ta bertatik asi zan gure elerti-baratza lora barriz jazten: antzerkiz eta elebarriz. Eta elebarrigintzan, Bizkaiak artzen dau aurrea, Bidasoaz onantzako euskalkietan beintzat.

Daskonagerrek idatzitako *Atheka gaitzeko Oihartzunak* aitatzen dabe askok euskerazko lenengo nobelatza: baiña ez eban nobela ori Daskonagerrek euskeraz idatzi, frantzesez baiño, eta beste batek gero euskeraratu. Piarres Adame da beste batzuentzat lenengoa. Atakotzat aiatu deusku au Aita Gotzon Garatek oraintsu atera dauan liburu baten. Eta onen urrango, Azkue andiaren *Bein da betiko*. Biak urte biren aldeaz argitaratuak. Biak be Azkue beraren eritxiz benetako nobelak baiño geiago nobelaxoak, irakurgaitxoak dira, laburtxoak diralako, Azkue beraren beste batzuk lez.

AUÑEMENDIKO LOREA

Orregaitik, *Azkuek Auñemendiko Lorea* aurkeztu eban lenengo euskal-irakurgaitzat edo nobelatza. «Auxe da, —iñoan Euskalzale'ren orrietan— auxe da euskeraz egin dan lenengo irakurgaia». Eta Euskalzalek berak saritua, ganera.

Bilbon agertu zan, 1898garren urtean. Eta egillea Domingo Agirre, ondarrutarra.

Antziñako jazoerak gaitzat artuta egindako elebarria dogu berau. Aldi atako idazle askoren joera ezaguna da ori, bai atzerrietan, eta bai gure artean. Bide orri jarraitu eutsuetan, ospetsuak dira gure artean Navarro Villoslada eta Arakistain. Biok artu ditu Domingo ondarrutarrak eredutzat, berak autortu eban lez, eta euskal-literaturan bide barriak urratzen asi da.

Nora jo dau Domingok gai billa? Zazpigarren mendera. Zer da edo nor da Auñemendiko Lorea au? Ez da, Villosladaren Amaia nobelan lez, idazleak asmauriko ifior. Azur eta aragizko norbait da, izan: zazpigarren mendeko andra euskaldun bat, Euskalerrian jaio eta atzerrian illa. Kristiñau ona, etxe oneko alabea. Aldarbeta Frantziako Dukeak eroan dau bere emazte egiteko, Frantziako erregearen serbitzari biziteko. Lau seme-alaba mundura ekarrita, gero senarra il jakonean, euskaldunen eskuz illa izan be, berak eta bere senar zanak sortutako seroretegi baten sartu da eta berrogei urtez komentu atako ama nagusi izanda gero, santa izenean il da. Santatzat dago eta aintzat ospatua izan da leku askotan, eta Baiona-aldean be bai oraintsurarte. Riktrudis edo, Baiona-aldeko euskaldunak esaten dabenez, Riktruda dau izena. Beronen bizitzan, euskaldunen artean kristautasuna zabaltzen eta sendotzen ekin eutsan Amando doneak eragin andia izan eban. Senar emazte biak eta eurok izandako iru alaba be santutzat ospatuak izan dira.

Auxe da Domingo Agirre bere lenengo irakurgaia idazteko zirikatatu eta berotu dauan gaia.

Zazpigarren gizaldi ori euskaldunen edestian garrantzi andikoa izan da. Batetik, euren erritasunari eusteko, euren erriaren jabe jarraitzeko, burruka latzak ekarzen Frankotarren aurka. Bestetik, kristifiautasuna euskaldunen artean sartuta dagoan arren, menditarren artean, areriorik be bada eta ortik anai-arteke burrukak sortzen dira askotan. Arerioak datoz kanpo aldetik, eta barrukoak ez dabiltz alkartuegi. Ez dago bake onik.

Egoera orretan or agertzen dira biotz bi, alde batekoa eta bestekoa bat egiñik, alde batekoen eta bestekoen artean bakeak egin guran. Zer nai dau Aldabertok? Euskaldunai bakean istea, euren erriaren jabetasuna autortzea. Zer nai dau Riktrudisek? Euskaldunak euskaldun izatea eta alan irautea, euskaldunen biotzetan gorrotoa il eta maitasuna, alkarganakoa eta atzeritarrak ganafiokoa, erein eta sartzea: guztien artean Kristoren bakeak egitea. Biak lan eder orretan Amando deuna dabe kiñatzaillle ta laguntzaillle.

Esan daigun Domingo Agirrarentzat orain egoaldekoa esaten deusagun Euskalerrri au kristiñau zala orduan. Iparraldean gelditzen ei ziran mendi goietan talde batzuk kristifiautasuna on artzeko ezetzean egozanak; baiña kristiñau ziranak eta ez ziranak, guztiak dagoz frankotarren aurka, arei erasoteko deiari erantzuteko prest, euren jabetasunari eusteko gertu. Baiña kristiñau ez dirañak ez deutse siñisten geiegi kristiñauai, susmo txarretan ibilten dira sarritan, saltzaillleak ez ete diran bein baiño geiagotan, frankotarrak kristiñau dirala-ta, arein alde egingo ez ete daben. Egoera larri au jaso nai eta agertu nai izan dau gure Domingok bere elebarri onetan. Jakiña: gai guztia ez deutso Riktrudisen bizitzeak emon. Betegarri asko asmau bear izan dau aria aurrera eroateko: alde bateko eta bestekoen buru egingo dabenak asmau, euren asmo eta joan-etorriak azaldu. Kristifiau frankotarren aldetik, ezagunak dira bi: Aldalberto dukea eta Amando mixiolaria. Aldalberto, euskaldunak baketzeko aginduaz,

Euskalerrira etorri da, bere gudarien buru; Amando, Frantzia goiengan ebillen mi-xiolari eta Kristoren siñismenaren zabaltzaille; baña erregeak andik erbestera bialdu dau, Baiona aldera.

Euskaldun kristiñauen aldetik, Riktrudis bereren aita da nausienetako, Mendio-lako Arnoldo. Kristiñau egin bakoen aldetik, Oxinbelzko Otxoa eta onen seme Fortun. Eta guztion inguruan, beste jardulari batzuk asmau ditu idazleak morroi, bertsolari eta abar. Morroien artean, bat mozkortia be bai, guztien barreragille eta barregarri dabillana.

Matazearen lenengo aria Aldabaldo eta Fortunen arteko burruka batetik asi da. Aldabaldo Amando ikustera Euskalerriratu dan baten, Fortunek barre ta ziñuka ekin deutso kristiñauen aurka. Aldabaldok erantzun eta burrukea izan dabe. Fortunek su ta garretan urten dau andik eta frankotar guztiak euskal-mugetatik urrin botateko euskaldun guztiak armetan jarri nai ditu. Batzarrerako deia egin dabe eta batzarra bakearen alde jarri da. Batzar orri bertsolari batek emoten deutso amaiera. Euskaldunen indarrak eta askatasun-naia biztuteko sekulako bertsoak bota ditu, baiña ez ei da oraingoa burrukarako ordua.

Amandoren etxean egin dabe Riktrudisek eta Aldabaldok alkarren ezautzea. Biak asmo batekoak dira. Aldabaldok txarto ikusten dau frankotarrak eta euskaldunak beti alkarregaz burrukan ibilli bearra. Bakotxari berea. Euskaldunak euren erriaren jabe ikusi nai leukez. Atarako eskubidea dauke. Ez jake ori eragotzi bear. Ori da Kristoren legea. Riktrudisen gogokoagoko gauzarik ezin esan.

Arrezkero asiko da matazea loditzen. Aldabaldok bere emaztetzat nai dau Riktrudis. Eta etsai amorratua dauan Fortunek be bai. Onek, iñoz, Riktrudisen biotza irabaztearren kristiñauen alderako gogo ohea erakutsiko dau. Zein izango dau Riktrudis berak bere biotzaren kutunena? Azkenean, Aldabaldo. Eta onek emaztetzat eroango dau Frantzia goienera. Baiña Riktrudisek bere erria biotzean daroa. Euskaldun jarraitu gura dau edonon. Euskeraz egiteko euskaldunak eroango ditu neskametako. Bizi dan lekuan bertan Euskalerrri txiki bat egingo dau, eta «Erbeste» ezarriko deutso izena. Euskalerrria biotzean dauala bizi da erbeste orretan.

Baiña benetako Euskalerrrian, euskaldun batzuen artean gorrotoa itxi dau. Bere odolekoen artean be baditu kristinau ez tiranak batzuk, eta oneik saltzailletzat dauke, bere erria saldu daualakotzat. Eta urte batzuk geroago, Erregeak Aldabaldo Euskalerrira bialdu dauanean, Riktrudisen artekoak eta Fortunek, ain zuzen, bidera urten deutsoe eta bertan eriotza gogorra emon. Zergatik? Auñemendiko Lorea, euren biotzeko kutuna zana kendu ta eroan eutselako.

Riktrudisek azkenengo osteratxoa egingo dau bere errira, senarra il deutsoen lekua ikusi eta bertan otoitz egitera. An bertan aurkitzen dau Fortun bera be. Alkar ikuste orretan biotz biotzez parkatu deutse bere senar maitearen iltzaille guztiak, Fortuni be bai. Gero serora sartuko da, eta serora biziko da senarra il eutsoenen eta Euskaldun guztien alde otoitzean beti. Fortun, Riktrudis azkenengoz ikusi ta laster, kristiñau egingo da eta kristiñau legearen zabaltzaille.

Emen esan doguna elebarri onen bizkar-azurra baiño ezta. Domingo Agirrek aragiz, zanez eta odolez jantzita eskiñi deusku. Edestiak emon eutson ari mengel éta legorrari idazlearen irudimenak ondo jakin dau bizi bero ta gogo suzpergarria emoten.

Irudimen bizi ta olerkari-sua ageri jakoz egilleari, Euskalerriko bazterrak eta giroa begien aurrean jarten dauskuzanean. Alkarrizketak bizi ta mamitsuak ditu. Eta dana dakian nobelagilleen antzera, lañoetan zear eroanda lez garoaz baterik bestera, bazterrik bazter, auzorik auzo, jazoerarik jazoera, asi ta amaitu arte, gero ta gogoia eroangarriagoko ikuspegiak eskintzen.

Eta danean agiri da abadearen biotza, kristoren bakezalea eta euskalzale sutsua, zaletasun biok Riktrudisen biotzera daroiazala. Domingo Agirre sermolari ona izan zan eleizetan; baiña ez eleizetako sermolari bakarrik, bere elabarrietan be sermolari jarraitzen dau, eta etorri on eta ugariko sermolari. Kristoren bakea naiak eta euskalzaletasunak egin eban olerkari eta sermolari, emen ageri dan lez. Karmelo Etxegaraik itzaurrean esan eban lez, orretarako gai egokiak billatzen ditu, eta ez egokiak bakarrik, egoki esanak gaiñera. Añemendiko Loreak ez ditu Domingoren beste elebarriak aiña argitaldi, eta ainbeste irakurle izan bearbada; baiña Azkuek, Euskalzaleren orrietan argitaratzen asi zanean esanikoari errazoi osoa emon geinkeo: «Onerariko lan asko baleukaz gure euskera ederrak, urte gitxi barru burua jaso al izango leuke».

Euskerea

Elebarri onetan Domingok darabillan euskerari dagokonez, *baiña* bat aurkitzen deutsagu: Larramendiren Iztegiari lotuegitxo dabilela oindifio. Ustakide, betzigo, araudea, joskain, salgaista, otsandigoe, lotoskinde eta abar. Laster ikasiko dau lotura ori askatzen.

Giro zarraren eta barriaren arteko idazlea da Domingo. Azkuek bultzatuta ba etorren giro barria, joera barria, euskera jaotrragoa eta errian sustraituarena ekarrena. Laster sartuko da oso-osoa giro barrian ondarrutar idazle au. Urrengo elebarrian, *Kresalan* aurrerakada andiak egin ditu.

KRESALA

Zuzendu daigun orain gure begia Domingoren irakurgai barri onetara. Gizaldi onen asieran, *Euskalerria* aldizkariaren orrietan asi zan argitaratzen, 1901n asita, zatika zatika argitaratua eta zatika zatika idatzia. Idatzi ala, aldizkariaren orrietara bialtzen dau. Orregaitik azkenengo ataletan Begoñako Amaren omenezko jaiak, 1904-koak be aitazen ditu.

Kresala askorentzat Domingo Agirre idazlearen lanik onena da eta irakurle askoren artean ondo ezaguna. Nok ez dau *Kitolisen* izenik entzun? Nok ez daki Tramana ta Brixen arteko barriketaldien barri? Eztira elebarri onen ari nagusia daroenen izenak. Baiña Kresala aitatzean, askori ez jake beste gomutarik etorten: Tramana ta Brixen arteko berba gazi zorrotzak eta Kitolisen agotik entzundako ekaitz kontaketa bizi ta biotz samurgarria.

Barriro agiri da emen be egilleak Auñemendiko Lorean erakutsi eban gure erriaganako eta euskeraganako maitasuna. Euskera landu gureak eta euskaldunen bizimoduaren arpegia ezaguerazo naiak eragin deutso Domingoren lumeari. Entzun berak itzaurrean dirauskuna:

«Euskerea, aberatsa dan legez da ederra ta egokia, ta obeto edo txartoago, guztiz antxiñetatik dabil gizonen auan, baiña liburuen orrietan, oraindano atzo goizekoa da eta izkiratzaillen lumeak ikutu, palagu, txera ta leunketa gitxi egin dautsa gaur artean».

Domingok euskera landu, leundu ta irakurgarriago egin nai izango dau eta orretarako lanean ekin: «Egin daigun lan aspertu barik. Iñorenagaz aberasturiko izkuntz asko dakusguz arro ta lerdan, alderdi guztietan euren buru apainduak erakusten. Atera daiguzan guk be geure etxe barruko aberastasunak, apaindu daigun al dogun añan euskerea eta erakutsi daiegun erbesteko arerio ta erritar erbestetuai [erderazaleai esan gura dau], eztala ilteko zorian bizi eta eztala gañera eurak uste daben legez ilgarria... Danon artean asko egin daikegu. Kresala da nik euskerearen alde gaur dakartan ondar aletxo».

Itxastarren irudia da au: ondar aletxo. Eta itxasaldeko gaiak dakaz oraingoan, eta itxasaldeko izketan, eta ango itzen ondasunez gañezka. Zergatik au? Entzun barriro ondarrutar andi onen berak: «Itxasoko errietan bakarrik esaten diran itzak bakarrik baleukaz, euskerea ondo arloeta legoke; goierrikoen agoetan entzuten diranak bakarrik baleukaz, elitzateke oso aberatsa izango. Euskerea aberatsa da, baña bere aberastasanak toki batean esiturik eztagoz; Euskalerrri guztian zabaldurik daukaz: batzuk baso zugaztitsuen barruan, beste batzuk mendien egaletan, beste batzuk Kantauriko itxasoaren ertzean Bizkaian legez Gipuzkoan, Gipuzkoan legez Naparroan, Naparroan legez Frantziako anaien artean. Alderdi guztietan sartu jako gorriña; alderdi guztietan dagoz oraindano euskeran sustrai onak eta landara mardulak bere bai. Gorriña kendu ta sustrai batetik bestera aldatu, ori da guk egin bear doguna. Eztogu erderazko itzik aotan erabilli bear, esangura doguna euskarazko berbakaz esan daikegunean».

Domingoren asmoak eta elburua or datoz. Eta asmoak aurrera eroan eta burutzeko, zelango gaiak artuko ditu oraingoan? Bere begien aurre-aurrean daukazanak, ez antziña batekoak, *Auñemendiko Lorean* lez. Gaurko Euskalerrriko, edo bere egunetako gaiak. Alan irudimena askatu bear gitxiago izango dau. Ona berak zelan diñoskun: «Bertan agertuko diran gizon da emakumeak ez tira neure irudimenak asmau dituanak, oso itsu ezpanago ta amesetan ezpanabil, bizi-biziak dira, Arranondoko sardiñak legez; neuk ikusi ditut Arranondon eta edonok edozein itxaserritan ikusi daikez. Euren alkarren arteko jarduna be guztiz da egiazkoa, gatzgarau andiak kendu deusadaz baiña». Domingorentzat Tramana ta Brixen arteko berbeteari gatzgarau batzuk kentzea bearrezkoa zan, bestela gaziegi urtego eutsan, eta, berak diñoanez, «gauza gaziegiak eztagoz bein bere ondo». Bizkaiko esaereak diñoanez, «larra, txarra»; edo «larrrik ez onik».

Gure itxas-erri bateko oiturak, Domingo bera jaio zaneakoak, ango andra-gizonen eta arrantzaleen bizimodua ta izakerea erakutsi nai izan deuskuz Agirrek emen. Berak bere begiez ikusi izan dauan bizimodua, bere belarriz entzun dauan berbeta bizi, gatz eta piperduna. Erri orretan ezagutu dituen zorioneko ta zorigaiztoko egunak eta ja-

zoerak; bertako Garizuma ta jai-egunak, ango eztopadak, suak, dantzak edo Saliñak. Batez bere arrantzaleen bizitzari bota deutso begia zorrotzen: batez be, Sardinaz eta Txanogorri, eta onein bion semealabai. Domingok begi-belarriak zur ta eme erabilli ditu inguruko bizia, inguruko lagunen izakerak jasotzeko. Edozeiñek daki orretan maixua izan dala Kresalaren egillea. Maixu agertu jaku Anjel eta Mañasiren ezkontzaren aria aurrera eroaten. Anjel eta Mañasi lenengoko alkarriztea ezker, gelditu dira bata bestearantzat jota legez, alkarrentzat izan bear dabelakoan.

Baiña amaika ostopo agertzen jake bidera. Batari ta besteari, bein bat, bein beste bat, aukerabarriakagertujakez. Guztiak, besteen eritxian aukerarikonenak. Mañasiri ostoporik andiena ipinten Indiano bat agertu jako. Dirua, *maxia* ugari ei dauko edozein arrain arrapetako. Mañasiren gurasoak arrapau ditu beintzat. Batez be, potin barri bat erosteko nekez bada nekez, dirua agindu deutesanean. Baiña Mañasi ezetzean dago... Indianoaren indianokeri batek argitu ditu gurasoen begiak. Bera ez ei da eleizaz eskonduko. Baña gurasoen eragozpena Mañasiri kendu jakonean, zerua aurka jarri jakola dirudi. Bilbon bizi da neskame jarrita, eta zer irakurten dau Bilboko egundarietan? Ikaragarrizko ekatxa izan ei da Kantauriko itxasoan, eta ainbat ontzi ondatu dira. Sardinazarren ontzia, Anjelen aitarena barmko gizon guztiakaz.

Negar baten doa Mañasi Ondanura, Arranondora, bere senargaiaren illetara doalakoan. Eta... eleizan sartu ta zer da ikusten dauana? Sardinaz eta bere semea, antxe erriko agintarien ondoan bizi-bizirik. Amesa ete dau? Ez, ez da amesa. Sardinaz barriz, bere semeari esker ei dago bizirik. Anjelek itxasoagaz eta bere aitagaz bunuka gogor luzea erabillita, berak eta aitak bizirik irauñ dabe, beste ontzi bat agertu ta biak jaso zituen arte. Une onetan Domingo nobelagillea dala aiztuta edo, gure itxasgizonai kantaka ta goraka asten da. Eta eurai eskintzen dautse Kresala, «orretarako geienbat egin dotan Kresala».

Gañerakoa berez dator. Eztago ezkontzaren aitamenik. Baiña Arranondoko jai egun baten, Antiaguako Amaren egun baten, an dabiz guztiz zoriontsu senar-emazte gazteak euren lenengo semea eskutik dakarrela. Tramanentzat be eztago Mañasi lango emakumerik. An dira Sardinaz eta Txanogorri euren zorionaren gozoa ausnartzen, euren mundualdiari agur esan da, Ebanjelioko Simeonen antzera *Nunc dimittis* abes- teko bape atzerakuntza barik.

Azterketa

Alde guztietatik begituta balio andikoa da Kresala. Erriaren ariman sartu eta an ikusiak azalera aterateko, Karmelo Etxegararen berbakaz esango dogu barriro, Domingo Agirrek gai egokiak aurkitzen daki eta era egokian esaten.

Egilleak berak *mamin gitxikoa ta erkiña* dala diño Kresala; baiña dakien ustez, lan bikaiña, euskal-eleberrien artean, onena ezpadaonenetakoa. Frantzesen izkuntzara itzuli ta argitaratua izatea merezi izan dau, eta oneik gure berba ta gorantza guztiak baiño geiago eztabe esaten?

Darabillan euskereari Auñemendiko Loreari baiño jatortasun eta erriko usain askozaz andiagoa dario... Larramendiren ikutua gero ta gitxiago agiri jako. Ia bapez.

JOSETXO

Goazen orain Etxeitaren Josetxogana. Beste euskalkiak elebarrigintzan opor osozkoan dagozan bitartean Bizkaikoan beste nobelagille bat agertzen jaku jo ta ke: Jose Manuel Etxeita (1842-1915). Luzaroan, gaztetarik asita, itxasoan ibillia da. Manilan amasei urte egiña, eta bertan alkate izateraiño eldua. Azkenez andik etxeratu danean, azkenengo urte baketsuak euskeraren aldeko lanetan emon nai ditu, euskeraz idazten. Bertsoz eta itzlauz. Eta orra non dakarren 1908n bere euskerazko lenengo seme mardula: *Josetxo*.

Andik urte bi barru, bigarrena: *Jaíoterri maitea*. Urrengo: *Au, ori ta bestea*. Ez dauza lumeari oporrik emoten. *Euskal-Esnalea* aldizkarian agertzen da bere lanen bat. *Jaungoiko-zalen* eta *Euskadin* be agertzen da bere izena. Azken-urtean, 1915 *Euskal-Esnalea-rako* Truebaren iru ipuin euskeraratu ditu, guztiak bizkaiko euskeran. Zortzi urteren epe-barruan egiteko ez da lan makala berak egin dauana.

Josetxo onegaz apal baiña gogotsu etorren euskal-arlorra: «Banator ni neure landubako arri txatxar onegaz euskerearen alde eregiten dagoan jauregira, neure alegiña egitera. Guztiz inderga, egin dodana baiño egin gura neukena geiago dala».

Mundakako baserri baten asten da *Josetxo* onen lenengo ari burua. Ijitu batzuk ekarri dabe Ondartza auzora urte biko umetxoa. Ostua, antza. Ondartzan Txomin Txiki eta Juana Mari senar-emazteak bizi dira. Seme-alaba barik. Ijituen umetxoa, Josetxo, Juana Mari ikusi dauaneko, ama ta amaka joan jako. Euskalduna dirudi. Ondartzan gelditu da umea, senar-emazte bien pozgarri, ijituai erosita. Arrezkero zori ohea sartu da Ondartzako etxean.

Eskola-urteak amaitu dituanean, Josetxok, itxasgizonen bidea artu nai dau, eta alan itxasoan dabil iñoren menpeko, lelengo, eta gero kapitan pillotu eginda, bere buruaren jabeago, beti eskolan ezagutu eban Eladitxo biotzean eta gogoan dauala. Baiña Eladiren gurasoak ez dabe ikusi nai euren alabea ijitokume alakoaren ondotik, ez uriko bategaz ezkontzen. Iñondik iñora be ez. Josetxo kapitan pillotu egin danean be ez. Eta Eladiri iru senargai zuzendu deutsoez... Irurak Eladitxoren ezetz biribilla artzen dabe. Josetxok itxasoko ibillaldietan arrisku eta ezbear andiak ditu; eta andiena, beste ontzi batek erdi-erdian jota, berea galtzea. Non dira ontzikoak? Gitxi batzuk, beste ontzi batek jasota, errian agertu dira. Josetxoren aztarrenik ezta iñondik agiri. Illetak be egin deutsoez, illa dalakoan. Baiña ez: azkenez Montevideon agertu da, eta an inguruan gelditu da iru urtez, euskaldun batzuen laguntzaz bizimodua ateraten. Dirurik naiko egin dauanean, errira dator, ezkontzeko asmoak artuta. Eta Kantauri itxasoan Santander aldetik etxerantza datorrela, ekatx ikaragarri batek ontziari basterra joazo deutso, eta mirariz orra non agertzen dan gure kapitan pillotua. Ondartzako etxearen aurrez aur, Mundakan bertan, guztien ez usterik andienean. Jakiña: bereala dator ezkontzea. Nogaz eta bere betiko Eladitxogaz. Onen gurasoak be orain bigunduta dagoz Eladiren alde, eta bigunago alabearen senargaia dirututa ikusi dabenean, eta laster da ezkontzea, bata besteaganako ziran biotz biak aurkitu daben azken zorionsua. Baña ezta dana or amaitzen.

Guztien zoriona andiagoga egiteko, Naparroatik Etxauri erritik barri pozgarria eldu jake. Josetxoren euskalduntasuna argiturik gelditu da. Etxaurin agertu ei da umetxoa ostu eta Mundakan saldu ebenenen arteko andrea, moja jantzitan orain,

Josetxoren gurasoai parka eske, eta non itxi eben esaten. Eta bai Etxaurikoak eta bai Mundakakoak, alkar arturik, ospatzen dabe Bizkaian eta Naparroan, guztien zoriona.

Atzerrian luzaro egonak, erritik urrin bizi izanak, errimiña sortu eta geitu egiten ei dau, geienen biotzetan beintzat. Orixe da Josetxoren egilleari jazo jakona. Eta Etxeitaren errimiña ez da azalekoa, ez jaioterriko aizeak artu eta ango bazterrak ikusiz bizi gura utsa. Etxeitak bere erria bere izaterik sakonenean maite dau, bere izkuntza eta ekanduetan. Ori erakusten dau bere lenengo elebarri onetan. Alde guztietatik bero dario maitasun ori. Emen agiri-agirian ipiñi deusku bere biotza: bere bizi guztian erakutsi izan dauan gizontasuna, guztiai on egingurea, bere barru baketsu eta mazala, ainbeste urtetan or mundua zear ibilli arren, bape lorrindu barik gorde izan dauana. Arritzekoa da eta ulergatx egiten jaku zelan iraun dauan ain zindo, ain kristiñau eta euskaldun. Elebarri onetan barru zitaleko lagunik, badaezpadakorik, ain zindo eztanik be agiri da; baña idazleak ez dau itxiko olango jokabideari dagokon ezetza eta txar-eritxia emon barik. Ez ei da ori elebarrigilleen egitekoa. Ez ei dau elebarri barruko gizakien ez ontzat emoilte ez gaiztotzat salatzaile agertu bear. Etxeita ez da, argi dago, eritxi orretakoa. Eta itxi deiogun berak asmatu dituen andra-gizonakaz berari deritxona egiten beste batzuk bestera egiten daben lez, alan nai dabelako.

Josetxo-k, aberastasun andia dauko tartean tartean dakazan jazoeretan. Jazoera mingarriak batzuk, beste batzuk alaiak, eta ikasbide ederrekoak. Olangoz beterik dago Josetxoren bizitzea. Ez daki Etxeitak, bear bada, diñoana bear leuken indar eta zorroztasunaz esaten. Bere izakera gozo baketsua agiri jako or. Alan be, gaiari bizitasuna emon eta astuntasuna kentzeko alkar-izketa bizi egokiak sartzen ditu, eta batez be txitean piteango bertsoak asko laguntzen dabe orretarako.

Euskerea

Euskal-joskeran askotan moteltxo badabil be, darabillan euskerea naiko dau aberatsa eta jatorra. Arrigarria, ainbeste urte atzerrietan egiñiko batentzat. Liburu guztian zear, Erkiaga idazleak esan dauanez, «esanaldi, bitxi, txanbelin eta mami-tsuak» eurrez ta oparo daukaz. Eta Erkiagak berak esan dauanez, *Josetxo* au ta Etxeitaren besteak «bein eta barriro irakurtea onuragarri litzakigu oraingo edonori be».

GAURKO EGOEREA

Bizkaiko euskerazko elebarrigintzak gure gizaldi onetan eukan giroa eta indarra ikusteko naiko dira aitatu doguzan idazleok. Azkue, Agirre eta Etxeita larra utsean iru pago lerdan lez agiri dira euskal-literaturan. Beste euskalkiak ixillik egozan bi-tartean, eurak bakarrik ekin deutse arlo au lantzen. Eta eurtako bi izan dira, Azkue eta Agirre, *Ardi Galdua* eta *Garoaaren* egilleak, elebarri auzoko euskalkietan sartzen lagundu dabenak. Bizkaia aurrelari Bizkaiko euskeran, eta aurrelari Gipuzkoakoan. Bizkaiak berak artu dauan baiño laguntza geiago emoten jakin izan dau orretan.

Eta zelan jarraitu dau Elebarrigintzak, bizkaierazko elebarrigintzak, geroko urteetan? Lenengo ta bein esan daigun eztaba egia oraintsu Aita Gotzon Garatek idatzi dauana: Etxeitaren *Josetxo* eta *Jaioterri maitea* agertu ziran ezkerre, ez dala beste bizkaierazkorik idatzi gerrate osterarte. Azkuek, esaterako, *Ardi galdua* bere gipuzkera osotuan idatzi ba eban, ez eban Bizkaiko euskerea bertan bera itxi. Ia beste orregaz batera amaituta itxi eban bizkaerazko luzeago bat, *Latsibi*. Ez eban argitaratu *Mecenas'en* bat noz agertuko begira. Eta 1936'ko gerratea baiño urte bi lenago agertu zan *Mirenen Senargeia* (1934n urtean argitaratua), Oar-Arteta abadearena. ElebaiTÍ laburtzua, baiña aitamena, zorjakona. Oar-Artetalumaonekoidazleaetorren, euskera gozatsu erritarra erabillana, eta zoritxarreko gerrateak gazte gazterik galdu euskun euskerearentzako (beste bat, Barrenso, bizkaieraz be idatzi eban giputza galdu eban lez).

Gomuta negargarriok itxita, goazen aurrera, eta aitementxo bat egin deiogun geroagoko elebarrigintzari. Zelan dago gaur elebarria Bizkaian?

Gorengo maila baten bi aitatu bearko doguz: Eusebio Erkiaga eta Agustin Zubikarai: itxasaldekoak biak. Badirudi gure itxasaldeak euskal-elebarrigintzarako luma obeak sortzen dituela; ango kresalak, nonbait, berarizko gatza edo dauke elebarrigilleak sortzeko. Lengo irurak, Azkue, Agirre eta Etxeita itxasaldekoak dira, eta itxasaldekoak oraingo biok be. Biok irabazle gelditu izan dira ainbat sariketetan.

Erkiagak bere elebarri bi argitaratu ditu bizkaieraz *Aranegi* eta *Batetik bestera*. Beste baten gipuzkerara jo euskun, Azkueren Gipuzkera osoturantza egitearren edo. Orain laugarrena daukala jakin dot. Bizkaeraz egiña. Erkiagaren euskera aberats eta etorri onekoaren aurrean txapela erantsi bear dala uste dot. Bostgarren bat ete daukan nago.

Eta Zubikarai? Gaurko egunotan idazle ugariagorik, ez dago bear bada. Arlo asko astindu ditu: gazetalari, antzerki-egille, nobelagille, olerkari, zer eztozu bera. Itxasaldeko bizitzak, oraingoak eta lenagokoak, arrobi ugaria eskintzen deutso elebarri-gaiak aurkitzeko. Ez dot bape aitatu. Errezkada luzetxoa agertuko litzateke. Eta Bizkaierea darabil beti.

Zubikarai eta Erkiaga lango idazleak dauazan bitartean, Bizkaiko euskereak ez dau besteen aurrean lotsaz agertzeko bildurrik.

Alan be, onek biok eztira bakarrak. Gereño bilbotarra, orain beste euskara batera jo dauanarren, bizkaieraz asi zan nobelagiñan. Or dauagu beste elebarri bat, Kuliska Sortan sartuta: *Deunor*. Egillea: Santos Rekalde. Bizkaieraz dago. Mitxelenak idatzi eban Josetxoren egillea gitxik ezagutua dala. Ori esanaz, nire ustez, zera esan nai eban: geiago ezagutu bear geunkela. Orixe berori diñot beste idazle bat, bizkaieraren lantzaille bat aitatzeraoan: Iñaki Zubiri. Gipuzkoarako jokerea erakutsi eban lenengo idatzi eban *Oroitzak* izeneko liburuan. Baiña orain Bizkaerarako jokerea artuta dabilkigu. Bizkaerazkoadau gure literaturan lenengo eredu den elebarria: *Galdu* deritxo. Jaberik jabe ibilli dan erbitxakur batek elebarri onetan bere bizitzako zoritxarrak eta pozaldiak eralten deuskuz. Ipuin eta kontakizun asmatzaille azkarra dogu Iñaki Zubiri idazlea.

Bizkaierazko nobelagintzea ez dago lo, ez dago illik. Bizi da oraindiño eta biziko al da aurrerantzean be. Gure elebarrigintzeari asierea eta lenengo bultzadea emon eutsan euskalkiari, Euskalerrak Euskalerrri iraungo badau, ez deutso baztertzen eta galtzen itxi bear. Asmo onekin zoromoro dabiltzan askok ez dabe zer au aitzu bear: euskera batua dalakoaren bultzatzaille eta maisu nagusitzat dagoanak berak be ez ebala nai euskera batu ori literatura sortzaillea dalakoan sartzerik. Euskera bizia da beiñena. Guztiok egin bear geunkena da geurea dogun euskalkiaz gañera, besteena dan bat ikasten alegindu. Ori egin dabe Bizkaiko idazle askok eta eztago eskubiderik bizkaitarrak beste euskaldietarako edegiak eta zabalak izate ori Bizkaikoen aurka artu ta biurtzeko. Eztago eskubiderik iñori, laguntzeko besoa eskiñi deuskula-ta, burua eta dana eskatzeko. Bizkaiereari biziukatzea, illik ikusi nai eta orretara alegintzea, erderearen indargarri baiño ez da izango. Euskerearenak Bizkaian egingo eypadau, bizkaereari lagundu ta eutsi egin bear jako. Euskerea bizi, euskalkietan bizi da, eta euskera bizirik ez dogu baztertu bear, ez dogu il bear. Guztiok gagoz alkarren bearean. Lagundu deiogun alkarri, izan daigun besteakanako begirune eta lotsa geiago, *Peru Abarkako* irurak, Peruk, Txorgorik eta Joanisek euken lez. Bizkaiko elebarrigille eta idazle askok erakutsi daben lez.

Olantxe eutsiko deusagu euskereari bizirik irauten. Ala, baten batzuk azpitik edo agirian, jakiñean edo ezjakiñean, gure izkuntzaren eriotzea nai ete dabe?